



NAFAR IDAZLEEN TESTU TRANSKRIBATUAK

## IRUDI AGURGARRIA

Orko milla ta berreun bat urtetik onuntza ARALAR'ko elizan agurtzen dan irudi edo imajiña noizkoa edo nundikoa danik, ziur ezin esan dugu. Badira uste dutenak AIngeruak berak Teodosio'ri utzitakoa dala. Beste batzuk diote Teodosio'k egindakoa dala, Aingeruarengandik artu zuan mesedearen eskergarri ta oroigarri.

Dana dala, ez ta urrezkoa, amazpigarren gizaldian ostu zuten lapur aiek usteko zuten bezela, edo ta orain ere askok uste duten bezela. Zurezkoa da: 70 zentimetro goi ditu ta aga baten gañean erabiltzeko egokitua dago. Siñestunei apainkiago ager zedin eta erriz erri ibilli bearraren arat-onatak, gora-berak eta zear-mearrak ondatu etzezaten, zillar urreztatuzko jantzi batez estalia izandu zan aspaldi aspaldian.

Urre itxura ori dala ta, dena urre zelakoan, bizpiru aldiz ebatsia izandu zan gure irudia, noizpait "Principe de Viana" ontan esanik dagonez.

Lapurreta ta ibillera oiekin, franko ondatua gelditu zan; ta Iruñe'ko Gotzai Don Juan Grande Santos'en aginduz berritu zan; baño lenbiziko berritze onekin ez bide zan oso egoki gelditu ta geroago, 1756'ko jorraillean, Don Lorenzo Irigoien, Belate'ko Prioraren aginduz bigarren aldiz berritu zan San Migel'go sakristian bertan, Don Lorenzo onen eta beste testigu askoen aurrean. Lekuko auen artean zegon Burgi'ko Tomas Aita Kaputxinoa. San Migel'en Istorio luze-luze bat idatzi zuana.

Ona emen, itzez itz, Aita onek berritze ontaz erderaz esaten diguna: "Habiéndole desprendido el Platero el antiguo vestido de plata, vimos todos, que el cuerpo, y la cabeza de la Imagen Sagrada eran de una misma especie de madera muy morena, y muy sólida, que nadie pudo conocer, ni aun el Maestro Carpintero, que asistía al examen ocular"

Gero esaten du, zeatz eta meatz, zurezko irudia nola zegon konpondu aurrean eta zeñen apaiñ eta eder gelditu zan konponketa ondoan.

Berriz ere ostua izandu zan irudi beneragarria. Noiz eta nola, eztakigu; dokumenturik eztagolako; bakarrik dakigu Iruña'ko eliz nagusian berealdiko elizkizun eta jaiak egin zirala 1797'ko garagarillaren 11'garrenean Aingeruari egin zitzaion gaiztakeriaren ordañez.

Arrezkeroz, dakigula, ez ta geiago ostua izandu gure Aingeru gaixoa. Naiko aldarte ta erreska jasan ditu bere denboran. Ezpatarik edo aztagarik eskuan ez ibilki. Bere arma bakarra, buru gañean daraman gurutzea da, Jesus'en gurutzea, anaitasunaren eta maitetasunaren ezaugarria.

Zertako armak, Zertako, galeperrak eta usoak botatzeko ezpada?

I. Ayerbe

Principe de Viana, 1968, urria, 2. orr.

## LEITZA

Urte bat geiago: bigarrena aurtengoa Leitzako NEKAZARI IKASTOLARENA:

Berrogei ta bost mutil baserritar izan dira aurten, beren nekazari ikasketak egiten Leitzan jardun diranak, Naparroko ipar-aldeak dituan alderdi geienetatik etorriak.

Nekazariarentzat laguntza gutxi dagola.

Degu sarritan, eta egia da izan ere, etzaio oraindik beintzat bere premiak diran neurriko laguntzarik eskeñi, eta ematen zaion laguntza asko, ez dira berari onik aundiena ekarriko dion erakoak.

Esan bearrik ezdago edozein alderdiri ematen zaion laguntzak, ezdualia izan bear une bateko estu-alditik aterako duana bakarrik; baizik aurrera begira, urtetik urtera eten-gabeko aurrerapen bidean jarriko duana.

Buru-gabeak izango giñake, silo edo belar zulo bat egin degulako, belar berrakiñ lur zati batzuek esatali ditugulako, edo gananduentzako azpiak parrillaz jartzearekiñ, gure etorkizuneko ateak iriki ditugula usteko bagendu. Auek danak une bateko estu-alditik ateratzera besterik ez digutelako egingo.

Gure giza-bizitza egokitu eta egiten degun lana diru emangarri izango bada, aldaketa sakonak bear-ditugu, bañan auek izango badira, gure nekazari errietan lan egingo duten gazteak -biarko gizonak- bear bezela eskolatzea da lanik premiazkoena.

Ezdago egizko aurrerapenik gure nekazariak gizaartean gutxiena eskolatutako jende malla osatzen duten bitartean. Garbi dago mundu ontako lurralde aurreratuenak, gizonak eskolatzen dirutza izugarriak erabili dituztelako iritxi dirala dauden mallara, eta beste guztiok ere egizko aurrerapenik nai badegu ezdaukagu beste biderik.

Au guztia orrela izanik ezdago dudarik nekazariak ere eskolatzea bear bearrezko zaigula, eta ori da iritxi nai deguna Leitzako NEKAZARI IKASTOLA onen bitartez.

Bildur gabe esan dezakegu emen daukala nekazariak, gaur bear-duan egiazko laguntza-tako bat ;eta ez nola naiko laguntza! bertan jan, bertan lo egiñ, erakutsi franko eman eta illabete bakoitzeko amar duro besterik ezdute ordaindu bearrik izan.

Beragaitik, nekazaritzan been bizimodua ateratzeko asmoan semeak dituztenak, ezluteke utzi bear inork ikastola ontara bialdu gabe. **Datorren Azaroan lenengotik asiko dira berriro eskola, eldu-dan urteko Lorailaren bukatzeko, amalau urtetik emezortzira bitartekoak etorri ditezke.** Denbora juanda damurik izan ezdezazuten, saiatu bada garaia dan arte.

Aitzgorri

Principe de Viana, 1968, uztaila-abuztua, 5. orr.

Kultura edo yakintza

"Atxurrean egiteko ezdago ikasi bearrik". "Eskolatu ezker ezdu iñork baserrian lanik egiñ nai".

Auek dira sarritan entzuten ditugun itzak, eta orrelako esanekin gure barrena lasaitu nai degu, gure baserritarren ezjakintasunak ematen digun kezka ito naiean.

Esan bearrik ezdago gure baserria ordu estuetara iritxita dagola, eta ezin bizi ikaragarri bat sartu dala gure tartean.

Egoera batera iristen danean gizona edo gizaartea, naiz ona edo txarra izan egoera au, zer arazoiek ortara bultzatu dun begiratzea bearrezko zaigu, okerrera eraman gaituzten bideak austeko, edo onez baldin-bagoaz ortara ekarri gaitun bideari aurrera jarraitzeko.

Eta gu ere baserriaren egoera ikusita, auxe berbera gaude egin bearrean; gaur arkitzen geran ezin bizi ontara zerk ekarri gaituan ikusi, au egin ondoren, oraiñarte oker emandako pausoak zuzentzeko.

Gaurko gure egoeran eragozpen asko ikusten ditugu: sortzen ditugun esne, txekor, axuri, gazta, edo beste frutu guztien salneurria (prezioa) geure eskuan ez edukitzea, orain berrogei edo eun urte bezelatsu lan geienak eskuz egin bear izatea, neurri txikiko baserriak, urteak ditun egur guztietan aste eta igande oporrik gabeko jarduna, umeentzako eskola egokirik eza eta daudenetara biali eziña, emakumeak baserrira ezkondu nai eza, gaxotasunean ordezkorik ez, eta ola, edo fabriketako langilleak bezela gaxotasun eta zartzarorako seguru edo dirubiderik eza, eta auek danak orrela izanda, eguneroko diru bearrak ordaintzeko sarritan iritxi eziña.

Garai batean eta oraindik denbora asko ezdala, baserriko maiorazgo edo baserrian bizitzen jarraituko zuanakin ezkontzea gure errietako neska geienen ametsa oi zan, bañan gaur baserritik nola iges egingo ametsetan daude guztiak.

¿Zer ekarri du bada gure baserria egoera ontara?

Milla iritzi izango dira gauz onetan, eta nik ezdiot iñori bererik kenduko, bañan nere ustez arrazoirik duana, *gure baserritarren ezjakintasuna da*.

¿Zer erantzun orduan atxurrean egiteko ikasi bearrik ezdagoala esaten duanari?, oso errez: gaurko egunean bear dan eran ikasten baldin-badu ezduala atxurrean jarraituko baizik beste era batera lana egingo duala, gure baserrietan bear diran aldaketak egiteko ezduala kezkarik izango, eta ezjakintasuna menderatzean baztertuko dituala berekoikeri eta deskonfiantzak; naiz lanerako, saltzeko eta erosteko bear diran alkartasunak sortuaz.

Beragaitik ezdezala iñork pensatu baserriko lana ezjakinentzako danik, duda edo zalantzik gabe esango nuke fabrikan lan egiteko baño askoz geiago ikasi bearra dula baserria bear bezela zuzenduko duanak.

Orain batek baña geiagok esango dute; nolatan eskolara biali gure mutillak etxean laguntzeko aña egiten diranean, lana besterik iduki ezta?

Galdera oni eta beste geiagori erantzunez jarraituko degu.

Aitzgorri

## NEKAZARITZA ETA ABEREA

### Laurrerako ongariak

Euskerazko aldizkari ontan bearrezko dala iruditu zaie bertako zuzendarieri, nekazalgotzat zuzendutako zerbait azaltzea. Izan ere Naparroko euskaldun geienak baserrian eta baseritik bizi diranak baidira.

Era askotako gaiak erabiliko ditugu saill ontan, bañan guztiak baserritarrerri dagokienak, eta nekazalgotak dauzkan illuneak argitu nairik.

Oraingoz asiera emango diogu lurak nola ongarritu bear diran zerbait azalduaz.

Sarritan entzuten degu nekazalgoten artean, gorotza edo ximaurre bezelako ongarririk ezdagoala lurrentzako, eta beste gañontzeko mineral edo abonoak, lurak agortu eta ondatu egiten dituztela.

Dudarik ezdago ximaurre ona bakarrik ez, bizik bearrezko dala lurrarentzako, ez berak dituan ongari edo landareak azteko indarragaitik bakarrik, baizik lurra bera, landarearentzat era obean jartzen dualako, eta lurrean bizi diran on egiten duten xomorro asko ugaritzen ditualako. Begiz ikusten ezdiran xomorro auk dira landarearentzat janaria prestatzen dutenak, beren zuztarren bitartez bertatik janaz, guk etxeko andreak prestatutako janariak jaten ditugun bezela.

Bañan landareak ondo aziko bada lau janari klase bear ditu, eta auk dira: **Nitrogenoa** (Nitrato de Chile edo Amoniako) izenez ezagutzen ditugunak: **Fosforikoa** (mineral zuria edo mineral) beltza esanez ezagutzen deguna; **Potasa** eta **Karea**.

Auk dira bada lau janari klase, landareak bear dituanak ondo aziko bada eta ximaurre bakarrik ezdio ematen lurrari bear ainbeste izendatutako janari auetatik; geiago oraindik naiko janari eman ezik lau janari auetatik bat, **Karea** kendu egiten dio lurrari, zenbat eta ximaurre geiago erabiltzen dan orduan eta azkarrago.

Gure lurretan ezdegu oiturarik lau janari klase auetatik erabiltzeko eta geienetan bakarra erabiltzen degu, au da (mineral zuria) edo fosforikoa daukana, eta urte askotan au bakarrik erabiliaz, sarritan gure lurak agortu egin zaigu landarerik azi nai ezta geldituaz.

Onekin uste izan degu mineral edo ongari auk erabiltzea kaltegarri dala lurrarentzako, bañan gertatzen dana au da: mineral ontatik emanaz landarea askoz geiago azi da gure lurretan urte batzuetan, eta guk lurrari eman ezdiogun beste iru janari klaseak, urritu edo agortu egin zaio eta orduan eziñ landarerik azi.

Esan ditugun lau mineral klase edo ongari auetatik zer neurritan eman bear zaion lurrari jakiteko, lendabizi analizatu egin bear da lurra, eta ontarako baditu Diputazioak laboratoriorio edo toki bereziak.

Lurak ongarritzeko garairik egokiena negua da belarrez jantzita daudenentzat eta azia eregiñ baño illabete lenago lantzen diran lurrentzat; beragaitik oraindik garaian zaude landu bear dituzun lurak bear bezela ongarritzeko.

Ez neke alperrik egiñ lurak erabiltzen auk bear bezela ongarritu gabe, ezdezu bestela zure nekea merezi duan neurrian saritua ikusiko.

Aitzgorri

Principe de Viana, 1967, martxoa, 6. orr.

## NAFARROAKO ERRESUMAREN GALERA

1378-garren urtean Karlos III-garrena Nafarroako errege bihurtzen da. Historiak dionez errege honen menpean Nafarroako erresuman oso paketsu egon ziren. Karlos III-garrenak bere alaba Blanka izendatu zuen Nafarroako jabeagai, eta baita ere Blankaren seme edo alaba zaharrena ezagutua izanen zela, Blanka hil ondorean, Nafarroako errege, Aragoiko Juan II-garrenak (Blankaren senarrak) agintza utziaz. Baina Blanka hiltzean Juan II-garrenak, berak izan behar zuela Nafarroako errege derizion, Blankaren alarguna zelakotz. Orduan bi talde sortu ziren gure herrian: batzuek Juanen aldekoak, Agramontesak; besteak "Principe de Viana"-ren aldekoak, Beaumontesak ("Principe de Viana", Blanka eta Juan II-garrenaren semea zen).

Esan genezake hemen hasten dela Nafarroako Erresumaren galera.

Juan II-garrenak, bigarren aldiz ezkontzean Juana Enriquez-ekin galdu zuen bere eskubide guztia Nafarroako errege bezala. Fernando "El Católico" izenarekin ezagutzen den Aragoiko erregea hauen semea zen; beraz "Principe de Viana"-ren anai erdia dugu hau.

"Principe de Viana" hiltzean, bere arreba Blanka zen Nafarroako jabeagai, baina hau ere Juanek ez zuen onartu, eta lehen bere anai "Principe de Viana" bezela espetxeratua, eta ziotenez bere aizpa Leonorrek, Foix-eko kuntearen emazteak, enpozinaturik hil zen; seguro aski bera erregina izateko asmoarekin. Eta horrela Juan gelditu zen Nafarroako errege bezela eta bere ordezkari bezela Leonor gelditu zen; baina hau, Juan hil eta bereala hil zen eta orduan Frantzisko Febo Leonorren iloba egin zuten Nafarroako errege. Honen erregetza ere oso motza izan zen... eta bere arreba Katalina, Juan de Albrit-ekin ezkondua aurkitzen dugu Nafarroako erregetzan. Bai Agramontesek, nola Beaumontesek erregetako ezagutu zituzten, eta hauen ezkontza egunean euskeraz bertsoak kantatu zituzten politikari buruz.

Garai hortan Kastilla-ko erregeak Fernando eta Isabel ziren -Los Reyes Católicos- eta beti Nafarroa nondik bereganatu zebiltzen. Isabel hil zen eta Fernando handik laister, bula bat aitzakitza harturik, eta Lerin-go kuntearen (Beaumontesen buruzagi) laguntzarekin Nafarroan sartu zen jabetzeko nahikeriarekin. Nafarroako erregeak indarrak ez izatean, joan behar izandu zuen Bearneko lurretara. Orduan Nafarroak ezin bestean bedere errege ezagutu zuen Fernando, nahiz erresuma berezian Kastillatik.

Handik urte gutxi barru Nafarroa, Frantziako erregearen laguntzarekin altxatu zen bere buru izan nahiez. Fernando arbuiatuz eta Juan de Albrit Nafarroako errege ezagutuz. Kastillako tropak, Duke de Alba buru zutela, ordea etorri ziren Nafarroara eta Nafartar abertzaleak eta Frantzesak garaitu zituzten Noingo zelaietan. Nafartar bulartsu batzuek (haien artean S. F. Jabierren bi anai) bildu ziren Amaiurko gaztelura. Arma gutxi izanik, hamabi kañon zekazkiten Nafarroa barrena gaztelura; Belateko lepoa igarotzean gipuzkoar eta aleman soldaduek kendu zizkioten; eta orain agertzen dira Gipuzkoako arma-harrian hamabi kañonak... noiz-nahi lekutzeko hobeak anai arteko egitate txar horren oroigarri bait dira.

Horrela Amaiurko gaztelua izan da Nafarroako askatasunaren hilobia.

Sagrario Aleman

## PATXI ARRAZOLA TA LEITZA

Dozena bat urte, gutxi gora bera, *Patxi Arrazola*, Urangako Paper Lantegian Zuzendari zegola, Leitzako herria ezagutzera etorri zan. Arkitu zuan herri euskaldun zoragarri bat, pagoz estalitako mendiz inguratua, baserri txuriz apaindua. Milla ta bost eun bizilagun zeuzkan erdiz t'erdi herrian eta baserrietan. Garai artan 105 baserri. Auen bizi-bidea nekazalkoa zan ta herritarrena berriz, batzuk sal-erosian eta geienak herritik kanpo billatu behar zuten lana. Asko ziran batez ere gazteak basoan lan egiten zutenak, neskatx neskame joaten ziran eta famili osoak zijoazten Guipuzkoako herrietara industri lanera.

Biotz zabaleko euskaldun bat azaldu zan Leitzako herriak zeuzkan arazo lasai erantzun bat eman naiez; *Patxi Arrazola*. Bere jokabidea auxe izan zan: lendabizi, lantokia sortu, irabazbidea herritarrentzat jartzeko. Bigarren, bizitegiak eta irugarren, ikastolak.

Asieran estualdi gaitzak eta larritasun izugarriak izandu zituan lanbidea jartzen. Deus egin gabe zegon. Dana herritik asi behar zan. Lurra erosi, lendabiziko paper makinak jartzeko lekua prestatu, zuzendaritzako ta lanean erakusteko gizon eskolatuak billatu, lendabiziko ordainketak egiteko dirua arkitu eta gañerakoak. Piskanaka asi zan herriko jendea lanean. Bost bat urte barruan etziran herritarrak aski eta jende arrotza ekarri beharra zeukaten. Errez aski jende ori billatu ta ekartzeko era bazegon bañan bereala jeiki zan Patxi Arrazola eta bere gain artu zuan lantokia langillez ornitzea. Bera ibilli zan herriz herri baserri, zahar eta gazte, eskolatu ta eskolatu-gabe, euskalduna izatea aski eta Leitzako Papeleran bazuten lana ta irabazbidea. Amabi urten buruan, gaur Leitzako Papeleran 1.140 langille daude. Auetatik 580 sei autobusetan datozte inguruko herrietatik.

Herria azitzen asi zan. Garai artan 1.500 bizi ziran eta gaur 2.500 pasatuak dira. Bizi leku premia sortu zan. Laister Guraso Katolikoan Elkarte eraiki zan eta beraren bidez egin ziran Huarteneko 100 bizitza berriak. Urte artan bertan Elkarte onen bidez billera toki, jan leku eta ostatu atsegingarria "OIALDE" egin zan.

Bañan oraindik *Patxi Arrazolak* biotzean zeukan ametsik zoragarrienetakoa ez dugu aipatu. Herri bat lantokiz, bizibidez eta bizitegiz ornitu arren, herritarrak buruz ez badira jaunzten lehengo malla berean gelditu da. Beharrezkoa zan bada ikastetxe berri ta ugari egitea. Erakusleak arkitzea, ikasleentzako josta lekuak jartzea ta abar.

Era ontako lanak gastu aundiak eskatzen zituan. Ikaratu gabe, ekintza oni erantzuteko, Leitzako indar bizi guziak elkartu ziran; Parrokia, Ayuntamentua, Gurasoen Elkarte ta Papelera. Onela jaio zan "PATRONATO AMAZABAL" deitzen den elkarte. Patronato onen aita, zuzendaria eta batez ere bere espiritua *Patxi Arrazola* izan zan. Gaur Patronatoari esker Leitzako herriak ikasbidean eskubide aundiak dauzka: Ikastola bat bi urtetatik sei urtetara 80 aurrekin. Sei urtetatik amalau urte bitartekontzako ikasleku guziak bilduta jarri dira, eta 450 ikasle daude. Auetatik 200 etorri ta joan autobusetan egiten dute eta bazkaldu eskolako jan tokian. Bachiller egiten 55 ari dira. Eskola Profesionalean eta Nekazari Eskolan 100 mutil gazte. Ikasle guzti auentzako pillota joku leku ederra eta beste lau josta leku egiñik daude.

Onelako lan ederrak egin ondoren bere begiak euskal herriko nekazari ta baserrietan jarri ta zeuzkan. Nekazaria gutxiena lagundua ta eskolatu, oien premirik aundienean ikusten zuan. Orain fabrikako buru-austerik aundienak uztean bere amets eta gogo guzia nekazaritza laguntzeko elkarte bat sortzea zan.

Amets eta gogo bikañekin burua beterik zeukala, 54 urte zituala, *Patxi Arrazolaren* biotza, bat batean itto ta gelditu zan, joan diran Eguberrietan, Gaboneta, eta Jesus Aurrak gogo oneko gizona zori onak eskeintzea etortzean, zori onik ederrena emateko bere Etxera erabat eraman zuan.

Leitzako herriak izan dun laguntzailerik aundiena, bere aldaketaren oñarria, galdu du. Gorputza illobiratu izan da bañan bere espiritua eta ekintzak emen gelditu dira denen onerako eta aurrera biderako. Leitzak ez du beñere bere izena ahaztuko eta gero ta geiago du gogoratuko. Berari eskeñi dezaioken gorapenik iraungarriena bere espirituz jauntztea, bere eginkizuna eta asmoak ezagutzea ta aitortzea, eta oietaz baliatzea izango da.

Jainko Aita onak betiko saria eman dezaiola.

Amazabal

Principe de Viana, 1971, otsaila, 6. orr.



## IKASI, MIKASI...

¿Zeiñ izan zen lenago: olloa edo arraultze?

Aspaldiko gertaketa batekin asiko naiz.

Miljoxpe, "amerikano" gizagajo ura, naiz elizeko gauzetatik oso alderatuta bizita'ere, nere adiskide aundia zen. Ta, ¿badakizute zergatik ainbeste aldiz nigana etortzen zen? Nik sumatu nuen bezala, bere fedeen kezkan zebillelako.

Ara, emen, biek alkarrekin izan giñun izketa.

- Zerbait galdetu nai nioke, jauna.

- Galde, nai dezuna.

- ¿Bai al da zerbait eriotz ondoan? ¿Egia al da, Jainkoa gauza guzien egillea dela?

- ¡Miljoxpe, nere lagun aundia! ¿Egiz, ez dezu siñisten Jainkoa denik?

- ¡Siñistu...! Gazte denboan siñisten nun, nere gurasoak eta apez jaunak ori erakutsi zidatelako. Baño, gero, Ameriketara jua nitzen ezker, kezkan nabil, beti.

- ¿Ez didazu esango zeengatik diren kezka oiek?

- Ainbeste gizon eta emakume ikusi bai ditut, deus ere siñisten ez dutenik, nere burura etortzen zait ia kontuk izango ote diren Jainkoa dela ta gure anima illezkorra dela, ta gauza guzi oiek. Beste aldetik, ainbeste gizon jakintsuk siñisten badute gauza oietaz...

- Zure egokeran gañean nago, Miljoxpe. Utzi alde batera zer dioten zure aldamenekoak, eta aditu zure barnengo abotsari. Ortarako degu gizonak arrazoaia. Eta, arrazoiak ¿ez dizu esaten etzitekela deus izan Jainkoik ez balitz?

- Ori nai nuke argiago ikusi.

- Oraintxe, bertan, ikusiko dezu.

- Ia, bada.

- Ara, emen, erloju au. ¿Euntzi on batean jaioa izanen da, zizak eta onthoak jaiotzen diren bezala?

- Erlejua, beste tresna guziak bezala, gizonak egindakoa da.

- Ta, ¿etxeak?

- Baita etxeak ere.

- Ta, ¿mundu guzia?

- Mundua betikoa da.

- ¡Jainkoa bakarrik da betikoa! Beste gauza guziak izan dute beren asiera, eta izango dute beren akabera.

- Nik ez det ain garbi ikusten, ori ola denik. Nik ikusten det mundua bueltaka dabillega beti. Urek itxasora dira ta itxasotik odeitara. Zugatzak zugatzagandik, abereak aberengandik eta gizonak gizonen eta emakumeengandik datoz. Ta ori, beti eta beti...

- Gauze oien saille motxa besteik ikusten ezduzulako, diozu zuk ori. Gauze oien saille osoa ikusiko baziñuke, etziñuke olakoik esango. Adibide batekin ikusiko dezu argiago. Baño, lenago, gauze bat galdetu bear dizut. ¿Badakizu zer den azkengabea, edo infinito?

- Ezin geiagokoa.

- Ongi esan dezu. Azkengabea ezin geiagokoa da. Uste dezagun emendik Madrilleañoko gari pillo bat. ¿Ale bat, bakarra, jarri aldezaiokegu pillo orrei?

- Pillo aundia izan arren, aundigoa izan liteke.

- Ori ola dela, ara emen nere agibide edo ejemploa. ¿Badakizu nondik datorren olloa?

- Arraultzetik.

- Ta, arraultze ¿nok paatzen du?

- Olloak.

- Ta, ¿zeiñ izan zen lenago olloa edo arraultze?  
- Olloa. Arraultze paatzeko, olloa bear da.  
- Ta, ollo ori, ¿nondik jaio ote zen?  
- ¡Ortan kontua! Olloik ez badago, ez dago arraultzik, eta arraultze olloak paatu bear...  
- ¿Ikusten dezu orain nola, nai ta naiez, gauza guzieren egilleekin -Jainkoekin- arkitzen  
gerala? Ta, erlejua egiten dunak, jakintasun aundiaz, gurrupiltxo guziak jartzen dizkion bezala,  
¿jakintasun aundigoakin egiñak ez gera izango, bere borondatea, au da, gure salbazioa iritsi  
dezagun?  
- ¡Bai, orain siñisten det!  
- Ez, bada, kasoik egin gizon eta emakume askok zer egiten edo zer egiten ez dutenei.  
Zuk egin zazu arrazoiak eta fedea erakusten dizkizutenei, eta ola, ta ola bakarrik, iritsiko  
dezu zerua.

Astiz Arregi

Principe de Viana, 1967, urtarrila, 4. orr.

## BASERRITARGOA

Ez gara behar bezala baserriak dadukan garrantziari ohartzen.

Oraindik ere, asko lekutan mespreziatua da, beste maila beheragoan balego bezala. Hor dabilta egiazko ameka arlote sasi-baserritarren antzean, jenedeari far-egin arazi nahiz; baserritarren nortasun berezia nihundik ere ezautzen ez dutelarik.

Bestalde, gure ohiduraren errorik jator eta sendoena baserrian datzala, entzun ohi dugu betidanik. Egia da. Gure herrikoi kultura ahoz aho heldu zaigu, eta asko baserria zela kausa eta medio.

Aski dukegu, gure Nafarroan euskara nola dagoen behatzea. Baserririk den lekuetan, tinko gordetzen da; eta bi mende hauetan euskara galdurik dagoen hainbete eskualdetan, baserririk ez. hau ez da lege noski, bainan, besteak beste, honek ere ba du zer-ikusterik.

Parte haundi batean, beraz, euskara eta jatorrizko kultura baserriari esker gorde dira. Eta baserritar ez garenendako, haien iturburu eta ohantzea hura da.

Gaur, diotenez, baserritargoa ez bide da lehen bezala bizitzen ahal. Jalgi behar da. Artu-emanetan paratu. Premiazko eta ezinbesteko atera-bideak finkatu behar ditu. Itz gutxitan: hil ala bizi.

Tenore batean, lurraren lantzeko ekonomiko-era nahikoa zen; eta gari hartako gizarteari zoakiona. Gaur berriz, etsipen bidean doa. Gaurko gizarteari ezin dio ihardetsi. Bakarka, orain dagoen gisan, ezin du. Elkarturik, beha rbada, tinkatua litzake haren oinarria.

Baserriari, moldatze berriak ez lekiok makur haundirik sort-arazi behar. Urrats sendoagoak emanen lituzke, guk eta gure ikus-moldeez egiten baldin ba dugu. Hortan nago. Kanpotikako ikus-moldeak eginen luke gaizki; ez baserriaren aintzinatzeari so, bainan bere sakelari. Eskastuko luke, murriztuko eta hilko. Gisa berean deseuskaldunduko.

Honekin ez dut erran nahi kanpotikako gauza guztiak txar direnik. Dudik gabe ez. Behar beharrezkoak ba dira. Bainan, gure izate eta nahiari oharturik.

Gure herrian, besteetan bezala, nekazalgora bizi-biderik edatuena izan da. Herria, euskal ohidurari atxikia zegoen. Industrial-aldaketa gertatuz gero, gauzak aldatzen joan ziren arras; eta herria erdalduntzen asi. Bainan baserritarrek euskaldun izaten irauten zuten, eta dute.

Menturaz, baztertuak eta karrikatik urruti daudezilakotz. Eta hauxe da gaur egun moldatu behar dena. Ez du euskaldun izan behar, urruti eta bizimodu aintzintatu eta onik ezautu gabe dagoelakotz; gaurko gizarteari doakion gisan, atera-bide bat aurkituz beizik. Gaur dituen esi eta oztopoak aztertuz; behar dituen artu-eman (industria-nekazalgora), eta soluzioeak (koperatifak, elkarteak, eta abar), ikasiz; eta nik dakita er gehiago.

Benetako gure industrial gizarteak kasu eman behar lioke. Obligatua dagoela erranen nuke.

Nafarroko *plan de desarrollo*, delakoan, ez litzake baserritargoa atzendu behar. Ez bailitake bestenaz, benetako Nafarroako desarroloa izanen. Eta gisa berean, gure beste eskualdeetan.

Franko lanik ba da egiteko, eta zimentarriak ez dira nola-nahi paratzen ahal. Gauzak paperean zurrizten ahal ba litez, erreza litzake soluzioea. Bainan ez da hala. Lanari errotik lotu behar da; gauzen egiteko ez da beste biderik eta.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1970, martxoa, 5. orr.

## BATASUNARI BURUZ SOLASAK (IV)

Beste galeri lotu aitzin, argi dezadan gauza bat. Hemen ez dezakegu dena azterturik utz. Zenbait bide, puntu, ideia nagusi aipatzen eta argitzen saiatzen gara. Orai, gaiak azkeneraino eramatea, eta kasu konkreto bakoitzean zer egin behar den jakitea, bestelako lanik dela uste dut. Eta badela, mota horretako lanen egiteko, aldizkari hau bano bide egokiagorik.

Bainan goazen aurrera, eta egun mintzairaren batasunaren egiteko erabiltzen diren zenbait ikus-molde azter ditzagun, pittin bat bedere.

Gramatikak, izkuntza kontuetan zer-ikustekorik haundia du; eta ildo honetan gabiltzalarik, nagusi eta gidarien artetan izkuntzalariek behar dute izan. Horretan nago. Batasunaren egiterakoan –erranik dago– beste batzuen artetan, izkuntzarekiko kezka azaltzen dira, eta hauk, izkuntzalariek dituzte ezagutze obekienik.

Horretaz landa, so egin behar zaie beste zenbait gauzeri ere bai. Konparazio batera, egungo egunean, euskerak indarririk bizikorrena Gipuzkoa eta Bizkaian daduka; eta izkuntza bat mintzatzeko (idazteko, bizitzeko) denez gero, hura kontuan artzeko berri soziologiko bat da. Berborik osoen eta aberatsena, aldiz, bestaldeko euskalkietan dago. Kasu honetan, nire iduriko, ez genuke aditza –garrantzi handiko erroa– eskutik halakoikala utzi behar; eta agian gramatika aldetikako aberastasun eta osotasunak sozial alderdiak baino indar haundiago dute.

Bestetan behar bada, aitzitik gerta litake; eta aditzan salbu, gehienetan sozial alderdia beste edozer baino gehiago nagusituko delakoan nago.

(Hauk guztiak, hain zuzen, linguistika aplikatua deituaren gora-behera batzuk besterik ez dira).

Aditza aipatu dugu, eta nire ustez, arazo latz horretan denboraldi batez, bitarteko jokaera bat onar daiteke. Nafar-lapurta, gipuzkoar eta bizkaitar berboen erabiltzea zillegi utziz. (Euskalkiak bizirik daude gero!). Eta egin litakeana da (askok jadanik egiten duguna), zenbait aditz-eren bateratzerat joan.

Adi-bidez: dut/dot/det iru eren artetik bat aukeratuz; hala-nola: naiz/naz/niz, nuen/nuan/non/neban, daiteke/ditake/diteke, eta abar. Horietan, eta beste batzutan naski, ez litzaiguke hainbeste kostatuko gutiz gehienak bat etor-eraztea, eta urrats bat litake. (Erran gabe doa, honek ez duela beste bide bateratu eta sakonagorik deuseztatzen).

Puntu honetan gaudelarik, derradan zer bait ortografiari buruz.

Nire iritziz, gure egungo problema ez datza ortografia zeharo batu batetan (I, II, n, ñ, h, eta abar). Mintzaira gero eta batuago izatea, ezinbestezkoa dugu. bainan bateratzen doan euskera honek ez dauku, nire iduriko, uniformidade osorik eskatzen; honen beharrean ez gaude eta.

Ohartu behar ginake ez azalari, bainan mamiari; eta azala mamiari zor. Guk egun batasun-funtzionala behar dugu. Mintzaira bat funtsean bateratua, eta euskeraren salbatzeko balioko lukeana. Ez gehiago, ez eta gutiago ere. Zaila bada ere, dudarik gabeko helburua hori da. Eta egiten den guztiak horren arauera izan behar luke.

Aspaldidanik ofizial diren zenbait mintzairek oraindik ere, ortografiarekiko batasun osoa egin gabe baldin badute; badirudi gurean, hil ala bizizko atakan, are gutiago behar lukeala izan. Eta ez dut uste ortografiarekiko zenbait berezitasunek, horrenbeste nahasten eta tronpatzen gaituztenik. Bainan, hain dugu arinki jokatzeko, non gure indarrak oro edozein lan-bidetan erretzen baiditugu.

Erderak ameka erreztasun daduzka, eta sinestu ezin diren eztabaida hauetan gaudelarik, garaile –beti bezala– badakigu nor.

Ez gaituzten, beraz, makur gaitzarik gerta ez dakigun, gure kaltetan doan matxinadan tema. Eta problemarik ez dagoen alorrean ez ditzagun, otoi, aserrebideen

bihiak erein. Are gutiago, baldin eta horretaz lilluraturik –fanatisgoa eta  
irresponsabilidatea direla medio– korapiloa ezin atzikiz, itsu–mustuka bagabiltza.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1971, urtarrila, 6. orr.

## BATASUNARI BURUZ SOLASAK (V)

Solas hauetako azken artikulua honetan, planifikazio baten antzeko zerbait azaldu nahi nuke. Ohartzen naiz, batek bakarrik ez dezakeala nehungo jokabiderik finka; bainan nolabait asi behar denez gero, bihoa hemen nerea. Honelako lanak dituzken uts eta akatsak gogoan izanik.

– Lanari lotzeko –beste egintzatan bezala– helburu nagusi eta gidariak finkatu behar dira. Gero, eginkizun guztitan haien arauera obratzen joateko. Mintzairari buruz gagozkionez, ardatz–eragilea hau dela erran daiteke: euskeraren bateratzea. Demografia–oiñarria sakonduz, ekonomiko, politiko, jakintza arazotarako beharrezko dugun mintzaira gai bat eduki ahal dezagun. Itz bitan, gure iraun–nahia.

Gogo nagusi horren betetzerat doazin bideek (benetan, eta ez ametsetan) –berri ere erranen dut– nahiaren eta ahalmenaren arauz joan behar dutelaren ustekoa naiz. Besterik ez daiteke eta.

– Lehen urratsa, gramatikako utsak, fonetismoak, itzak osorik, eta horrelakoen zuzentzea izanen litzake. Batez ere, honoko jobideetan:

1) Pedagojiarekikoak: ikastoletan, eta bestetan, andereñoak, irakasleak eta, afera horietan gauzak antolatuz. Horretarako behar bada, irakasleen ezitzerako antolatu ikastaro, elkargo eta antzekotatik asi beharko litzake.

2) Euskeraz irakasten dabilzanen artetan, batzorde nagusi bat moldatuz, haiek funtsean jokabide berdinak eraman ditzaten.

3) Jeneralki: batetik, alfabetatze taldeen bitartez; eta bestetik, aldizkari eta liburuen bidez (argitaldaritan, gutienik, uts haiek zuzen lezazkean orraztatzaillerik edukiz).

Hori dena, nahi–eta–nahi–ezkoa da. Egin dezakeguna. Denok onartzea hainbeste kostatuko ez litzagukena. Berma gaitzen, beraz, premiazko eta ahal dugun horren antolatzen.

– Bainan, lehenbiziko punduan aipatu gauzen betetzeko, eta ikastola–maillan, behar–beharrezko ditugun iztegi, texto xume, eta beste gauzen moldatzeko, talderik behar da. Hauk osatzerakoan, izkuntzalariek, irakasleek, idazleek, psikologoek, soziologoek, antzeleriek, eta horrelatsukoek zer–ikustekorik franko dukete.

– Talde horietan beretan, lehen beharrak betetzen diren arauera, beste gai sakonagoen aztertzen, taxutzen eta bateratzen joan behar litzake. Lana mailkatuz, alegia. Konparazio, deklinazioak (onuragarria eta erreza litzake hauk lehen mementotik bateraturik adieraztea), iztegi nagusiak, aditza eta beste.

– Sail horietan gaiak zentzuki mugatu ahal izateko, kontuan artu behar liraken azter–bideren artean, neri honoko hauk, baitaez–badakoak iduritzen zaizkit: gramatikako legeak, edadura, edertasuna, klasikotasuna, ohidura eta sozial alderdia.

Bainan, bederazka aritzean, zail da jendea bat etortzen erdieste. Behar bada ez xoilki egileri, eragilerik ere baizik. Eta talde gai eta serio batzuk moldatzen joateko, elkargorik behar da. Badire batzuk; bat Euskalzaindia (eta egintza hauetarako bere laguntzaille diratekeanak: Principe de Viana, Euskerazaleak, Euskeralagunak, eta abar). Gerla ondotik harek deus guti egin duela, askoren ustea da. Nik, egia erran, zertxobait aritu dela dadukat, bainan nehundik ez, egiten ahal zen guztia. Eginak egin, egun alde guztietatik euskal–instituzionerik behar dugu; bat Euskaltzaindia daiteke. Loakaturik baldin badago, pizt dezagun, indarririk demaiogun, eta agian, euskeraren arazotarako beharrezko dugun mintegia daiteke. (Ez dut Euskaltzaindiaz fetitxe bat egin nahi. Beste egokiagorik baldin bada, hainbat obe. Nik hura aipatzen dut, hor dagoelakotz, ahalmenik dukealakotz ameka gauzetarako, eta egun, besterik ezean, egokiena deritzaidalakotz).

Bertsua delakoan nago, euskaltzainburu berria den Luis Villasante jaunaren gogoan. Bai eta beste askorena ere. Duela denbora guti, Mitxelena jaunak Donostian eman garrantzi haundiko ikastaro batetan ere, azken finean guti gora behera, gauza bera zion.

Helburu horri, beraz, buru-belarri atxiki behar gintzazko. Egun, pikotarat joaki suntsi ez gaitzen, euskera arazoan –besteetan bezala– ildo nagusia moldatuz, bakotxa bere sailen lanari benetan lotzea besterik ezin baidugu.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1971, otsaila, 6. orr.

### BATASUNARI BURUZ SOLASAK (III)

Lehengo batean, batasuna prozesu bat dela erraten genuen; eta nire ustez, ezin dugu pentsatu, egungo eguneko kondizionetan, delako prozesu hori azken pundutaraino erdietsi ditakenik. Bainan ez eta zenbaitzuek uste dutena ere –beste gauzatan bezala– eskubiderik izanez gero, nehundikako problemarik ez genukela izanen. Puska haundi batean –erranik dago– dudik gabeko zer–ikustekorik dute; eta gainerat hura gerta ahal baledi, badakigu erretasunek ez ligutekela kalterik egingen; bainan gauzen erdiesteko, lanari buru–belarri lotu behar gara.

Eritasun baten aintzintan, edozein klaseko sendakizun batek (botika dela, operazioa dela) –ta demagun eritasun horri doakion sendakizunik egokiena aurkitu dugula– iru ondorio mota leharzke: 1) gutiegi ematen diogulakotz, deusik ere ez erdiestea, eta eritasunak gaina artzea; 2) gehiegi izaki, aldiz, gaixotasuna suntsitzea, bainan bai eta presuna bera hiltzea ere; eta 3) zenbait gauzarendako kaltegarria izan arren, ala zango bat moztu behar izan arren, eritasun gainditzea eta osasuna presunarengat heldzea.

Biderik egokiena aurkituaz, billatzen genuena lortu dugu; ez gutiegiarena, ez gehiegiarena, zeinean eritasuna baztertzuz osasuna eman baidiogu.

Xinple bada ere, batasunarekin horren antzeko zerbait gertatzen zaukula deritzait. ura bere bidean; eta honen kontra joan nahi bada, zer ondorio leharkeanari ohartu behar, eta sakonki ohartu gero, hil ala bizizko egoeran baigabiltza. Nire iduriko, egungo garaia ez da hainbat bereixkuntzen egitekoa, nola ahalik eta gehien dadukagunaren mantentzekoa. Honekin ez dut deusik egin gabe gelditu behar garenik erran nahi, ez eta urrik eman ere. Aitzitik; egintzan ez bada, ez dagoela mantetzerik deritzait; eta bihar berantegi izan ez dadin, prozesu honen ibil–bideak finkatzen eta itsastan asi behar dugularen ustekoa naiz.

Alorre horretan, aintzinago aipa gogo ditudan beste batzuen artean, bihoaz egun zenbait gogoeta izkiriartzeari buruz.

Euskeraz beste izkuntzetan bezala, jakin behar da idazten. (Ez naiz tankera edo estiloz ari, bainan idatz–utsetaz; fonetismoak, gramatika–utsak, eta abar. Maleruski, beste mintzairak izan duten abantailik gureak ez du izan; ez eta izaten ere (herri ttipi izateak...). Oroit gaitzen ez garela gure mintzairaz eskolaturik izan; eta oraino ere gutiz gehienek horrela darraitela.

Bainan lehen erran dugun bezala, gauzak egundanik asi behar dira erdiesten; eta orai idazten gabiltzanon artean, derabilkigun arazoari buruz zerbait bedere axolatu behar ginake. Idazleak, bidea erakusten duten gidariak dira, eta hargatik behar luteke beren lanbidetaz jabeturik izan. Areago gure kondizionetan.

Sail honetan, gauza bat litzake premiazkoa: idazle klasikoen ezagutzea, horien bitartez mintzairaren erro eta senaz jabeturik egon ahal izateko. Denok saiatu behar ginake, eta gehiago idazten paratzen direnak. Euskalzaindiak antolatu alfabetatze–taldeen helburu eta xedea, hain zuzen, horixe da. Bainan horretarako naski, libururik behar dugu; eta honetan, argitaldarien dute zer–ikustekorik haundia. Alde batetik idazle klasikoen lanen ber–argitaratzen, eta bestetik, ikastoletarako eta abar beharrezko diren berrien sort–erazten.

Bestalde idatz–lanak, eta mintzairari buruz gagozkionez, izkuntza bateratuak, argi, zehatz eta aberatsa behar luke izan. Hau ez da “por decreto” lortzen, naski. Bainan guztiok saia gindezke ahalik klarki eta osatuen izkiriartzen, mintzaira ulergaitza egin gabe. Besteak beste, argitaldarien, aldizkarien eta abar, gramatikako utsak eta zuzen lezazkean orraztatzaile bat edukitzea, urrats bat litzake. (Zenbaitetan asiak dira honeri buruz zerbait egingen; batzutan, zoritxarrez, gauzak bere onetik sobera ateriaz).



Industrial gizarte bati, behar duen izkuntzaren orde, mintzaira illun, murriz eta exkaxa serbitzen bazaio, papera bazterrerat botako du; eta euskerak errekarat joko.

Gauza hauekin guztiekin, eskolategitik behar genuke as; haurrak sail horretan ongi ezirik izan ditezen ahaleginduz. Mintzaira bateratua ezi-bideetan batez ere behar baidugu. Gure etorkizuna horretan datza eta.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1970, azaroa–abendua, 8. orr.

## BATASUNARI BURUZ SOLASAK (II)

Mintzaira batean, bi problema mota aurkitzen dira: 1) Barrenetikakoak; mintzairaren estrukturari dagozkionak (gramatikako legeak, linguistikakoak eta abar), eta 2) Kanpotikakoak: mintzaira bat izketaren bitartez gizonen arteko zerbait billakatzen denez gero, gizonak berak kondizionatzen dituzten egoerak (ekonomikoa, politikoa, kulturala, eta abar).

Gutartean ia bakarrik barrenetikakoak dira aipatzen, moldatzen eta mugatzen direnak; eta egungo kondizionetan gaudeno, kanpotikako egoerak aipatzen eta lantzen ez badira, badakigu jendetartean zer ideia nagusituko den. Zenbaitzuek uste dute hori erran gabe doala; nik aldiz, ez dut uste, maleruski, horren aintzinaturik gabiltzanik. Aunitz gauza zintzilik daude, eta gainerat ez gara batasunaren jokaeraz jantzi eta oinarriturik egon dadin deusik ere ahalegintzen. Aitzitik, garrantzi guttiko gauzak direla medio, bazterrak inarosten ari gara; jende guztia itzuli-mitzuli irugarren maillako arazoari buruz eramanez.

Linguistika, bi gisara izan liteke: linguistika utsa, mintzairaren erro eta formak derabilzkiena, beste deuseri ohartu gabe; eta linguistika aplikatua deitzen dena. Egungo eguneko egoeran, hain zuzen, linguistika eta izkuntzalariak aipatzen direnean, azkeneko era honetan derabilzkigu. Eta aplikatu denez gero, bai izkuntzarekikoak nola kanpotikakoak kontuan artu behar ditu. ni, kanpotikakoeri buruz zenbait gauzatzat arituko naiz.

Batasuna nahi baldin badugu –eta guztiok nahi omen dugu– euskerarendako sendakizun bakarra dela pentsatzen dugulakotz da; oraingo egoeran indar guttiko euskalkitan zatiturik, demografia aldetik aski oinarririk ez dagoelakotz alegia. Honekin, batasuna ez dela nahi abstrakto eta filosofiko bat, erran nahi dut, eta bai hil ala bizizko zalantzatik ateratzeko alabeharrezko sendakizuna.

Hau dena nere iduriko, batasunaren lehen exijentzia da; eta honetan denok bat omen gatozi.

Bigarrena, lehenbizikoaren ondorioa da. Alegia, zatitze eta ezin bizitze hori gertatzen delakotz (eta gurean gertatzen da), batasuna, sendakizun bakarra bezala egitea deliberatzen baldin badugu, egitean billatzen dugun indar-demografikoa edukiko duelakoan da. Pentasmendu horretan behintzat. Bestela ez ditaken gauzari buruz gabiltza.

Gauzak ez dira zerutik jausten, badakigu; bai eta erdietsi egin behar direla ere. Baina, hain zuzen, horien erdiesteko, lehenbizik zer “horiek” diren, finkatu eta onarturik gelditu beharko luteke.

Gizonen egoerak obekitu nahi dituen nehork ez du, konparazione, langille klaseak sozialismorako duen eskubidea zalantzan ezarriko. Besterik litzake, zer bideak, ahalak, nola eta abar; moldatu behar diren bai, baina helburuaren –eta ahalmenaren– arabera. Xede garbirik ote den, ez da duda–mudan paratzen. Ba gure kasuan gisa berean da. Nola, noiz, non, ahalak eta abar gogoan behar ditugu eduki, eta ongi eduki gainerat; baina behin eta helburuak ontzat artuz gero.

Euskerari –euskal gizarteari– lehengoan aipatzen genituen eskubideak ukatzen baldin bazaizkio, eta batasunaren egiteko “asmoa” agertu nahiz edo, barrenetikakoak erabiltzen baldin badira, berriro ere galdeginen dugu, zertarako? Nire iduriko, haiek ukatzen direlarik hainbeste ikas–mikis barrenetikakoen zenbait gauzatzat, gosez hiltzer dagoenari zamarra bat ematea bezala da.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1970, urria, 6. orr.

## BATASUNARI BURUZ SOLASAK

Oinarrien landatzen lagundu nahiz, eta gutartean zorigaiztoz, hainbeste ugaritzen diren azalezko eztabaidetan sartu gabe, problema honen gaineko zenbait ikus-molde azaldu nahi dugu.

Batasuna aipatzerakoan, mintzairak euskalki batzuk badituela adierazten da.

Joan den mendeko Luis Luciano Bonaparte zenak, lehen aldikotz euskeraren euskalkiak aztertu zituen, eta gero mapa batean paratu. Jakintsu harek honelaxe finkaturik utzi zituen: bizkaiera, gipuzkera, ifar-goi-nafarra, ego-goi-nafarra, lapurtarra, sortalde-benafarra, sartalde-be-nafarra eta zuberotarra. Ondotik Azkue, hil artio Euskalzaindiko zuzendaria izan zenak, goi-nafarroako biak batu zituen, bai eta benafarroakoak ere; eta bestalde erronkaria (egun zorigaiztoz hilik dagoena), euskalki mailarat igan zuen. Honela, zazpi euskalki gelditzen ziren, eta oraindik ere klasifikazione hura funtsean ontzat ar dezakegu.

Bestalde, Euskalzaindia sortu zelarik, orduko helbururik nagusia batasuna zen. Orduan asi ziren horri buruz lanak agertzen, eta zenbait gauzatan asko aintzinatu zen. Altube, Campion, Broussain eta abar zirenetik asi eta, egungo Arantzazuko biltzarretaraino, ba dugu non ikas.

Ez dezagun pentsa, beraz, gu lehen urratsak ematen ari garenik. Gertatzen dena da, egun batasun hori geroago eta premiatsuago senditzen dugula; eta horrengatik nahi genukela supituki erdietsi, denbora eta lanakin ez bada, lortzen ahal ez dena. Asko aldiz, burukomin eta buruauste guztiak kendu ahal lezazken sendagailua, gauetik goizera gure esku eduki dezakegula uste bai dugu; euskera batua, bere neurri eta muga guztiakin osatuko litzaken “urrezko giltza” alegia.

Beste gauzatan bezala, pentsaera-moldeak ustetik izaterat nortzen doazila ikus dukegu. Gure kasuan halaber gertatzen da; hastapeneko urratsek, batasunaren biderei gero eta lotutzenago doan egungo nahia oinarritzen dute.

Borondateen aldetik garbi asko dago batasun hori denok nahi dugula; halabainan sagarrak ez dira ontzen. Eta hau ez da honek ala harek trabak ezartzen dituelakotz, berez zailla delakotz baizik. batasuna, ameka kondizionamendukin eta gidari batzuk direlarik, osatzen, egokitzen eta mamitzen doan egoera historiko-sozial bat baida.

Bainan goazen berriro ere euskalkiekin. Hau literario saillan landuz gero, jatortasuna eta gatza gordetzen dira, bainan bizkitartean irakurleak guttitzen. Mintzaira batek behar duen eziera ez zen posible izanen; eta izkuntza bat sozial-funtserik gabe ez da bizitzen ahal. Ametskeri bat da.

Beste gauzak alde baterat utzirik, ez genuke alafede batasunik egin behar izanen, bizkaieraz amar milloi presuna mintzatuko balira. Demografiko-oinarria dela medio, bizkaiera aise nagusituko zen. bainan ez da horrelakorik gertatzen; ez bizkaieran, ez eta besteetan ere. Dakusagun bezala, euskalki batek ez du besteen baztertzeko indar osorik.

Indarrak indar, egungo egunean euskera ahultzen doalarik, baztandar batek ez dio eibartar bati konprenitzen ahal; eta aitzin-gibelerat. Hau puntu bateraino normala da. (Ohart gaitzen gure ezi-gabetasunez). Bainan gure garaian, izkiriatzean ere euskaldun gehienek ulertzeko moduan saiatu beharrean, norberaren herriko euskalkiaz egiten baldin badugu (mintzatzean bezala, fonetismoak eta abar sartuz), elkar ezin ulertuz euskerak errekarat joko du, eta orduan, gureak egin du.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1970, uztaila-abuztua, 6. orr.

## ELIZA ETA EUSKERA

Nafarroako Consejo Presbiterial delakoak duela denbora puska bat artutako zenbait erabaki irakurri ondoren, aspaldidanik nedukan ideaiaren azaltzerat natorkizue. Elizak euskeraren aintzinean, bestetan sartu gabe. Nafarroan izan duen eta deraman jokaeraren aztertzea, alegia.

Bihoa alde aurretik, ez naizela apez xoillari buruz ari. Apez, praille eta abar jatorrik, eta euskerari atxikiak izanik ere, hemen aztertzerat goazena ez baida bakarkako joera, hierarkiak deramana baizik. Gogoan izanik gainerat, egiak bide dagiela: eta elizak egia, nahiz eta mingarria izan, maite duelakoan.

Besteak beste, badira joan diren mendeetako Nafarroako apezpikuek izkribatu zenbait agiri, zeinetan gure erresumaren zatirik haundienean euskeraz mintzatzen zela erakusten baidakute. herriak latineraz eta beste erderarik ez zekiela ikusirik, inprimatu ziren katixima eta eliz-liburu guti batzuk euskeraz. Hala ere eliza, bere prediku eta liburutan –oro ar– erderarati itzurita zoen. Lehenik latinerat; gero espainolerat. Nafarroako kortean bezela.

Urteak joan, urteak etorri (XIX–garren mendeko gerlak, eta XX–garren mendekoa). Nafarroako herri aunitzek, euskera utzi eta, erderarat jo zuten. Horren argitzeko, naski, ameka kondizionamendu aipatu eta ikasi beharko genituzke. Eta hori guztia, itz bitan xuritzea ez daitekean gauza da. Funtsean, badakigu zer gertatu den; bego hori oiñarritzat.

Elizaren joera, haren aintzinean, egoera jeneralaren arauera kokatzen da. Ez da arritzekoa. Bainan, aspaldiko kontuak direla erren ez dezaten ikus dezagun egungo egunean ere, zer–nolako abiadura deraman.

Nafarroako eskualdeak zatitzerakoan, bat euskalduntzat artzen duela erraten dauku. (“Reservas de indios” deitzen direnak?) Zer erran nahi du horrek? Eskualde hori zeharo euskalherritzat artzen dela? Hotz, euskera besterik ez dela erabiliko? (Ez da egia. Guztiok badakigu aski dela iru erdaldun irixka batetan izatea, “gizonen eskubideak direla eta” erderaz asten ahal izateko). Ala, beste eskualdeak ez direla euskalherri erran nahi du? Alegia, beste eskualdeetan ezin dela euskal–elizkizunik antola?

Nafarroa bat da; eta bere izkuntza arront nagusia, euskera. Eta hau dela medio, noizpait erran izan dudana, berriz ere aipatzerat noakizue. Gauza bat dela, berez natural den zerbait, dagoen bezala onartzea; eta besterik, mendeak zehar eta kondizionamendu menperatzaille batzuk direla medio lortutakoak, “naturalak” bezala artzea.

Gainerat, elizak arras bestelako jokaerarik derama. Uste baidu, bere pentsaera–moldea “egia” dela, eta horrengatik, hura munduko lau kantoinetarar barreiatu nahi izan du; bai eta orai ere. Deus galdegin gabe. Nahiz berez –eta hemen bai naturalak zirela– beste pentsaera–molderik izan. Bestalde, “iglesia indigena” delakoaren alde jo eta kea dabilla; leku guztitan, salbu Euskalherrian. Azken konsekuentzitaraino behintzat ez.

Eta orai, menderen mendetan euskera hiltzen lagunduz gero, Saraitzu, Erronkari, Esteribar, Erroibar, Ulzama, Anue, Txulapain, Atez, Burunda, Arakil eta beste, ez direla gehiago euskalherri erraten dautzute. Eta zer egiten du elizak –diogu guk– lehen emanikako urratsen zuzentzeko? Zeren, ez hain aspaldi, leku horretan denak euskaldunak izanik, elizan iya dena erderaz ematen zen. Eta egun ere, Aiezkoako Arian, gutiz gehienak euskeraz ariki, elizan erderaz. Ergoieneko Dorraun, denak euskaldun arrontak, eta elizan erderaz; gainerat altaboz batzuk herrian barrena paratuz; jendea erdaldunduaz –eta erotuaz– “obeki kristau” dadin, nonbait. Gauza bertsua beste ameka lekutan; bainan, zertarako segi?

Martxa horretan segituz gero, denbora guti barne ez dira euskaldun izanen, ez eta Araiz, Imotz, Baztan, Basaburua, Larraun, Sakana, Bertiz–Arana, Bortziri eta

horrelakoak ere. Orduan ez litzake nehorendako buruausterik izanen, naski. Eta tamalez, hori da azken finean, guk ez ezik, ia guztiak billatzen dutena.

Beste landerak jotzen badugu, “provincias eclesiásticas”, “zonas” eta horrelakoen antolatzerakoan, artxapezpikutegiak, eta praille–serora ordenek zer egiten dute? Zorigaitzez, franko garbi dakusagu, gure herriaren berezitasunez deus guti axolatu nahi dutela.

Egungo eguneko kondizionetan, dena esi eta oztopo, ikastolak ugaritzen, euskeraz ikasteko zaletasuna edatzen, eta bestelakoek, garbi asko adierazten dute herri honen benetako nahia. Jakin nahi duenak adi beza.

Urliak “ikastolaren babesa” aipa lezake, jokabide jator baten lekukotasun gisa. Ez dago gaizki. Bainan guretako, ez da aski “ikastolaren gerizapetzea”. Baidakigu, egun, “parbularioak” gure esku dituzkegula. Bai eta euskal–pedagogiaren etorkizuna ez datzala bospasei urte arteinoko ezieran ere. Benetako atera–biderik hemen ere, ez lirake gaizki etorriko. Bainan guztiok, aho bete ezur gelditen gara, bateonbateg bere “zaletasuna” agertu nahiz, “parbularioak” babesten dituela erraten baldin badauku. Aunitzez gehiago egin dezakealarik.

Horretaz landa –berriz ere erranen dut– apez eta praille batzueri esker, zerbait erdiesten da. Bainan gu, ihardespen orokorrataz ari gara. Eta herrikoi, demokratiko, aurrerakoi izan nahi lukean nehorendako, ez da galdegin eta eskatu beharrik. Sobera eskatu gabe, egin egiten baidu.

Elizarendako nehun dirurik ematen duen herririk baldin bada, bat Euskalherria da. Dirurik, apezik, praillerik, serorarik, mixionestarik eta nik dakita zer gehiago! Hala ere egarri justu eta legezkoari uko egiten zaio. Bainan garbi geldi bedi euskaldunak ohartzeko garelara; batuk behinik–behin.

Bukatzerakoan, kanta ezagun batek diona bururat dakorkit:

“...hamasei salbe eta hamalau kredo erderaz entzunagatik,  
bazinakien hori ez zela sekula guretzat egin;  
urrezko dukat eta diruak ez dira engaiñu txarra,  
bazter batera apartatzeko lehengo sinismen zaharra”.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1971, maiatza, 6. orr.

## GIZARTE GAIAK (I)

Gai hauetaz idazten asterakoan, gogoan dut ekonomia erran-nahia, molde ertsietarat ulert daitekeala; bai dut gure urbil, eta gutartean, horri buruz edatu den ideia bitxiaren berri. Duela denbora guti artio, gauza madarikatua zela, aipatu ere ez zitakeana (bitartean norbaitzuentzako –ekonomia zela medio– bereak egiten zuela, naski); hura nardatuz, “izpiritu-zale” izatea garbiago zelakoan. Ekonomia, gizonarekikoa ez balitza bezala.

Iritzi hori arras kaltegarria delakoan nago; eta nahiz gu horrelako egoeran bazkaturik egon, ahalegindu behar garela berauen gainditzen.

Bestalde, ohart gaitezen hauk gai zail xamarrek direla, eta gainerat aldizkari batetan ari garela. Horrengatik, ez beza nehork uste, espezialistentzako lan bat irakurtzen ari denik. Ez daiteke eta.

Eta goazen arirat.

Gizatasunaren aztertu ahal izateko, zerbaitetan oiñarritu behar da azterketa hura. Nondik norakoaren ikusteko, aize-orratz ahalik egoki eta zehatzena behar da eduki. Horretan, orok bat omen gatozi. Eta dakikegun bezala, hori da gizatasunaren betidaniko kezkarik haundienetakoa. Zer garen, nondik gatozen eta norat goazen. Egiten dugunaren arrazoin-eragille eta helburuen ezagutzea, alegia. Nahiz gizonak hau, azken pundutaraino ezagutzerik ez izan, beti horri buruz doa; eta kondaira zehar, esplikabide aunitz azaldu da, Greziako klasikoetatik asi eta, egungo egunekoak artio.

Ikasi eta taxutu beharko genituzkean ameka pundu aipatu ere egin gabe, guri egun artio sortu diren azter-bideren artean, egoki eta baliotsuen deritzaiguna azaltzen bermatuko gara.

Sar gaiteze bada arian, eta gizatasunaren jokabidea non datzan argitzen saia.

Gizon bat ez da hainbat bere buruaz duen ideia dela medio juzkatzen nola bere egitetatik. Bada, gizatasunarekin gauza bertsua gertatzen da. gizatasunak bere izatetaz mota askotako esplikabideak ditu, besterik da, ordea, uste duen bezela izatea. Horren jakiteko, sakondu beharko genuke franko, eta mendeak zehar gizatasunak artu dituen jauntziak alde baterat utziz, gure izatearen benetako sustraiari buruz abiatu. Funtsa hau delarik, goazen aintzina.

Gizonak ez dezake ahal duena baizik egin. Eta ahalmen honi ez diot duen baino indar gutiago ematen; ez gehiago ere. Gizon bat ez da, jeneralki, nahi duelakotz langille izaten, ezinbestezkoa zaiolakotz baizik. Edo-ta ez da injeniero, sendagille ala fisikoa, askatasun abstrakto baten giroan hura izatea deliberatu duelakotz, ahalmen historiko batez orniturik dagokelakotz baizik; eta berak uste baino baldin gehiago direla medio.

Bainan, nehork ez beza, otoi, predestinazio delakoari buruz ari naizenik pentsa. Hau dena, jakin ere badakit, ohargabea gertatzen dela; gizona ez dela azken konsekuentzitaraino horri ohartzen. (Agian egunen batetan horrela dateke). Bainan badakigu ere, hau dela jeneralean gertatzen dena, eta kondaira ikasi eta aztertzerakoan, osotasunari so egon behar garela. Hain zuzen, izatekotan, kasu partikularrak egoera jeneralaren arauera baidaude, eta ez aitzitik.

Teknikarekiko adibiderik aski adierazgarri dira, erran nahi dugunaren argitzeko. Konparazio baterat, feudal-aroko sendiak ez zezakean auto bat gutizia, eta gutiago eduki, ez nahi ez zuelakotz, asmatzen ahal ez zezakealakotz baino. Edo-ta beste alorretarat joaz, goseak hiltzen dagokean gizarte batek, gaizki sort lezazke, konparazione, Mozart-en operak. Doi doia bizi den gizarteak nekez baidezake bere lehen beharrak betetzea baino gehiago egin.

Honekin, naski, ez dut nehunik ere gizonaren ahalmena ttipitu nahi. Nik ez baiditut zein beharrak diren bete behar direnak mugatzen; ala ez lukeala beste beharrak

desiratu behar erraten Ez, bakarrik ahalmen horren konplejidade eta sakontasunaz ari naiz. Haren alabeharrezko kondizionamendutaz.

Bestaldetik ere, ez naiz atzentzen Mozart–ek bere operak konposatu zituenean, millaka zirela goseak hiltzer zeudezinak. Naski ezetz. Bainan honek ez du arestion erranikakoa deuseztatzen. Zeren Mozart–ek bere operak egin ahal izan zituen, horretarako ameka gisako posibilitate zegoelakotz. Musika eziera bat, kultura mailla, joile, entzule, diru nahikoa, eta beste. hala ere –eta hemen azaltzen da gizon bakotxaren nortasuna– hauk guztiak eskumenera zituzketenak asko izanen ziren, bainan Mozart, bat bakarrik izan da.

Besterik litzake, Mozart–ek ala beste askok zituzketen ahalak, zergatik zituzten aztertzea. Alegia, zergatik batzuk denbora eta bestelakorik eduki, eta beste batzuk ez? Nondik dator hau?

Bainan horren ikasteko, gizatasunaren kondairan sartu beharko ginake, eta egun artio eten gabe dirauen prozesoa aztertzen asi. Erran gabe doa, gizona prozesu honen itur–buru, medio eta helburu dela (sarri, helburua denik nehundik ikusten ez bada ere). Gizonik gabe ez baidaiteke ez ekonomiarik, ez eta deusik ere. Bainan hurrengo batez mintzatuko gara honetaz.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1971, ekaina, 6. orr.

## GIZARTE GAIAK (II)

Lehengokoan, aipatutako prozesoren eragille eta helburu, gizonak direla erraten genuen. Bada gizonak, naturalezakin duten artu-eman orokorra dela kausa eta medio, gizondu egiten dira. Borroka dialektikoa, ordea, zeren, gizona naturaleza mota bat izanik, beste suerte guztiko naturalezakin borrokatzen da, eta hortik da lana sortzen. horrela ditu gizonak hainbat eta hainbat naturaleza berri sortu, eta sortzen. Eta mendeak zehar, noiz eta lanaren egiteko ahalmen haundiago eduki, orduan eta jabetuago azaltzen zaigu gizatasuna. Gisa berean eta ezinbestean, akats berri batzutataz ornitzen doa, eta are problemak haundiagotzen; bainan, bai eta problemen xuritzeko gaitasuna ere.

Gisa horretaz, egungo egunean ezagutzen ditugun naturaleza mota asko, gizonek sortuak eta egokituak dira.

Natureleza erraterakoan, ez dut guztiok komunzki “natureleza” itzarekin ezagutzen ohi duguna erran nahi; hala-nola mendiak, itsasoa, errekek, eta horrelatsukoak; munduan dauden gauzak oro baizik. Hots, bai eta -arestion erran dugun bezala- gizonek menderen mendetan sortutakoak ere: iriak, errebideak, industriak, eta gainerako indar-produktiboak. Eta goazen aintzina.

Gizonek lanaren bitartez sortzen dituzten indar-produktiboak, ameka eratakoak dira, bainan funtsean bi gisara izan daitezkeala erran genezake: produkzioe bera mantentzeko eta aurreratzeko egiten diren lanabesak (eta horrengatik hauk dira, konkretuki, indar-produktiboak deitzen direnak), eta bestelakoak. Hauk azken finean, produktiboak dira ere bai, naski; bainan, gizartearen azterketa mamiari lot dadin nolabaiteko zatiketa egin behar da.

Bestaldetik, gizonek beren artean dituzten artu-emanak -lanari zuzenki dagozkionak- lanarekikoak deritzate. (Artu-eman hauk berak ere, indar-produktiboak dira; hala-nola gizonen elkarteak, izkuntzak, eta abar). Lan egiterakoan gizonak, gisa berezi batez kokatzen dira soziologiari buruz; eta kokatze horri sailkatzea darraio. Gizona ez baida bere bakarrik naturalezakin borrokatzen; beste gizonekin batera baizik. Bai eta elkarren artean ere. Borroka horretatik datozi lanaren zatiketa -“división del trabajo” deitutakoa- eta jabego pribatua.

Jabego pribatua aipatu dugunez gero, derradan zertxobait beraueri buruz. Alegia, hura aipatzen denean, ez dela batzuek uste duten jabego partikularra erraten; edo eta nork bera ez duela berari dagozkionaren jabego partikularra edukitzen ahal. Hori, naski, astakeria utsa da; eta ez dut uste zentzudun den nehork sostenga dezakeanik. Erraten den jabego pribatua, indar-produktiboen propieda delakoari dagokio, eta ez beste. Bainan heldu dezaiozun ariari.

Lanarekiko artu-emanek landa, badute gizonek beste suerteko artu-emanik. Lan egiterakoan sortzen diren ez beste guztiak: sexualak, gizartearekikoak, eta abar. Horiek, artu-eman sozialak deritzate.

Bada, orai artio erran dugun guztia; indar-produktiboak, lanarekiko artu-emanak, eta sozialak, infrastruktura izenarekin ezagutzen da; gizartearen funtsa edo. Bestea, gizonen kontzientzia (kultura, pentsaera-moldeak, legeak, eta abar), superstruktura deritza; eta arestion aipatutako infrastrukturari datxikola, bien artean eten gabeko elkarri-egokitze doa osatzen. Erran nahi baida, kultura, legeak, eta besteak -azken finean eta oro ar, beti- ekonomiko oiñarrien landatzeko, aberasteko eta aurreratzeko dira. Eta aitzitik. Dena bat baida, ezin berezi daitekeana -abstrakzioe bat eginez- azterketa baten egiteko ez bada.

Gure herrian, beste aunitzetan bezala, azaltzen ari garen gai honetaz, jeneralean akats bitxi eta nabarmen bat antzematen da. Sozialismoaren sinplifikatsetik datorren deformazioea; eta nire iduriko, arras kaltegarria. Superstruktura, alegia,



infrastruktura baino gutiago dela. Bigarren maillakoa; arbuigarria, eta gugandik aienatu beharko genukana. Horrengatik hain sarri, gauza bat iraitzi eta lekutu nahi denean, “superstruktura” dela erraten da; “madarikatua” dagoela adierazteko. Adibidez, gure izkuntza (sic), eta azken finean, naski, gure herriaren iraun–nahia ere bai. Anatema gisa, gainerat, “burjesa” deitura paratuz. (Nonbait, horrelako “sakoneri” burjesia ez dagoela infrastrukturan iduritzen zaie!).

Nehork ez du sekula, naski, bata bestea baino garrantziagokoa denik erran; ez eta bati balioa emanez, bestea gizatasunarengandik at odeitan dabilkean gauza balitza bezala aztertu ere. Hori erraten duenak, nehundikako zalantzarik gabe, ez daki zertaz ari den, eta sozialismoaren urrutiko berririk ere ez du. hori guztia, daitekean gauzarik antidialektiko eta antisozialistena baida.

Bainan oroit gaitezen, horrelako “ergelkeriak” ez direla –funtsean– halakoikala erraten eta egiten; ohargabeen bada ere, jokaera baten alde eta arauera baizik. Eta arestion erranikakoen itur–buru eta helburuak, ez dira atzo goizekoak.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1971, uztaila–abuztua, 6. orr.

### GIZARTE GAIAK (III)

Orai arteinokotan, gizartearen aztertze bide bat azaltzen saiatu gara. Oraingo honetan, gaingiroki bada ere –eta azter–bide hura oiñarritzat dugularik– gizatasuna zer garaitatik iragan den kondairan zehar ikusten nahi genuke asi.

Kondairan –oro ar– bost lan–modu nagusi azaltzen zaizkigu. Lan–modu batetik besterat –aise konprenituko den bezala– suerte guztiko erdibiderik aurki daiteke; baina hala ere, beti bada lan–modu bat besteak baino nagusiago dena. Garai bateko lan–moduari deitura paratzen zaiolarik, ez baida hori bakarrik dagoela erran nahi, nagusia dela baizik. Eta lot gaitzen kondairari.

Dakikegunez, azaltzen zaigun lehen lan–modua jentil garaiko gizartearena da, eta “primitivo” deritza. Ikus ditzagun zeintzuk diren haren zehetasun garrantzitsuenak.

Denek egiten zuten lan; nehor ez baizen lanik egin gabe bizitzen ahal. Gizonak, gudutan eta ehizetan ari ziren, eta pitta bat lurrian; andreak, aldiz, etxearekikotan. Lanabesak, xingle xamarrak ziren; ehizetako azkona, lurraren lantzeko zenbait tramankulu, eta horrelatsukoak; eta bestaldetik inportantenak: etxeoak. Guztiak elkarrekin bizi zaiziren, etxe–txabola kolektibotan. Eta lanarekiko gauza guztien jabegoa, oroena zen. (Etxea ere bai naski). Ez zen jabego pribaturik.

Goazen beste alor baterat. Artu–eman sozialen artean garrantzirik haundiena zutenak, eta berezienak, sexualak ziren; zeren ekonomia hain urria izaki, gizartearen antolatu ahal izateko funtseskorrenak ziren.

Artu–eman sexualak aske samarrak ziren; eta andrea, gizona bezain inportantea (edo gehiago) zen. Zeren, nehor ez zekiken segurtasun osoakin nor zitaken hau baten aita; baina nor ama bai, naski. Amak zirela medio, beraz, ezaguna zateken jatorria; gizonen bitartez, aldiz, ez. Gainerat, etxeo lanak –arestion erran dugun bezala– ehizea eta kanpokoak baino funtseskoagoak ziren. Etxea eta etxeo tresnak baiziren gizartearen aberastasunik sendoenak. Ez da arritzeko, beraz, andrea gizarte haretan nagusiago izatea.

Gizarte mota hau, erderaz “matriarcado” itzarekin ezagutzen dena da.

Amek, eta haien seme–alabek, eta alaba horien seme–alabek sendi haundi bat osatzen zuten. Semeek, sendiaren etxetik –“gens” deitutakoa– emazte billa atera behar zuten, azkenean beste etxe–gens batetan kokatzeko; beren seme–alabak eta lanaren ondorioak han gelditzen zirelarik. Alabek, aldiz, etxetan jarraitzen zuten, senarrak, kanpotik –beste gens–etxetatik– heltzen zitzaizkielarik.

Etxe–gens bateko seme–alabak anai–arrebak ziren, bakarren batzuk xoilik izan arren odolezko. Anai–arriben artean ezkontzea (artu–eman sexualik edukitzea), gauzarik zigortuena zen; hiltzeko modukoa. Hala–nola ama–aita eta seme–alaben artean. Baina ez zen egungo egunean dagoen ikus–molde moralagatik, naski; gizartearen funts eta oiñarria haretan zetzalakat baizik. (Hastapenean, antziñagoko denboretan, “tabú” hauk ere ez omen zituzten; baina behar bada, gizatasuna aurreratu ahal izan da odoleko artu–emanik larrienak bazter utzi zituelakotz). Eta goazen aintzina.

Gens denborako ideiak, pentsaera–moldeak eta abar, orai artio erran dugunaren arauera zihozten. Honela, gizartearen antolamendutan, denek zuten parte artzen; gizon guztiak ziren gudari, eta herrikide guztiek zuten oroena zena zaintzen. Ertzaiñik ez zegoen, ez eta estaturik ere. Gudaldirako bazen buruzagi bat, gudaldiratik at nehungo ahalmenik ez zedukana. Gizartearen buruzagia, berriz, andre zaharretarik bat izan ohi zen; baina honek ere ez zuen botere berezirik. Boterea, herrikide guztiengan zetan.

Baina –aintzina joanez– gizonen zenbatenaz eta lurra landuago, ehizetan jabetuago eta abereak etxekotuago, hanbatenaz eta giza–ahalmen haundiago. Gizonak, pillatzen ari ziren azinda, lanabesak eta abar, andreen etxetan gelditzen zirela

konturatzen zihozen. (Ohar gaitzen ideia hau, indar haiek gehitzen ziren arauerako konzientziak sortzen duela). Hortik –itz bitan– “matriarcado”–tik “patriarcado”–rat pasatzea sortuko da; jatorria ez izatea andrearena gizonarena baizik erdietsi baizuten. Orduz geroztik da gizatasuna jabego pribatuaren bidetik abiatzen.

Horretarako, aldatu behar ziren lehengoko oiñarriak, eta hortik dator –beste ameka gauzen artean– andreari fideltasuna eskatzea eta behartzea; gizonak, bere seme–alabak bereak zirela segurtatu behar baizuten. Horrela, artu–eman sexualak lehen baino ertsiagok bilakatzen ziren, eta andreak gero eta bigarren maila batetan kokatzenago gizonen menpean. Gainerat gizonak eskutartean zedukaten lanaren bitartez sortuko dira aurrerapen guztiak, eta horrengatik andrea –jeneralki– gizartearen oiñarritatik urrun egon da. Eta dago.

Bestalde erran behar dugu, lan–modu hau ez dela leku guztitan gisa berean gertatu; ez eta memento berean ere. Funtsean berdin badira ere. lekuan lekuko berezitasunetaz da ornitzen– Gure herrian, garrantzi haundia izan du. Arras berant artio iraun du; eta oraindik ere ikus daiteke han–hemenka haren zenbait aztarren, (Andrearen egoera konparazione).

Jentillen ameka ipuin eta gertakizun puska haundi eta intresgarri bat gure historian) alde baterat utzirik, gure mintzairan berean ere, ahaideen arteko berezitasunek badukete nire iduriko zer–ikustekorik egoera harekin. Adi–bidez: anaia, arreba, ahizpa (eta gehiago oraino, Bizkaiko neba –neska batentzako bere anaia– basteetan galdu dena), horren zehatzki bereixteak zerbait adierazten du. Behinik–behin garrantzi haundia ematen zitzaiola seme–alaben artean ongi bereixteari. Eta hau –lehen erran dugu– gens delakoaren oiñarri nagusienetarik bat zen.

Bainan utz dezagun hau, ikasketa sakonago bat eskatzen du eta.

Buka dezagun erraten, gizarte–mota honen berri munduko lau kantoietan jaso izan dela; eta ez dela, naski, buru bero batzuen asmakizuna; zientifikoki frogatutakoa gizarte–mota baizik.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1971, iraila, 6. orr.

## GIZARTE GAIAK (IV)

Jentil–garaiko gizartean, lehenengoan erraten genuen bezala, jabego pribatuaren azia sortzen da; patriarcado deitutakoa haren asiera besterik ez baida. Eta azitik bihia... Hortik aintzina, eten gabeko prozesu baten barrenean abiatzen da gizatasuna. Gero eta sailkatuagoa, gero eta zaillagoa.

Nahi–eta–nahi–ezkoa zelarik lan egitea, denek egiten zuten lan. Bainan lanaren ondorioak gero eta ugaritzenago zihoazelarik, –lan ondoriotan soberakin bat azaltzen delarik– jabego pribatua sortzen da. Bada, denboretan zehar propietad delakoari buruz gizonak era berezi batzutan kokatuko dira; sailkatuko dira. Eta gizatasunaren kondaira sail horien arteko borroka besterik ez da. Ez da posible orduan, –lehen zegoen bezala– boterea gizon guztiengan egotea. Horretarako, beste indar berezi bat sortuko da, estatuarena; giza–sailen arteko bereiskuntzeak moldatuko dituena, indartsu eta nagusienik denaren alde jokatuz, naski. Estatu ez baida odeitatik jautsiteko deus; sailen arteko borrokaren eta indarren adierazpena baizik. Hots, egoeraren beraren mantentzaille eta aberastaille.

Eta goazen kondairan barrena.

Behin eta jabego pribatuaren bideari jarraituz gero, jentil–garaian gudalditarako bakarrik buruzagi zirenak, denborakin beste gauzatan ere gero eta bu..... bilakatzen ziren. Eta horrela sendi batzuk aberastasun ..... zutelarik, beste aunitz eskastasunetan amiltzen ziren; eta lehenbizikoen atzaparretan erortzen. Hortik aurrera, gizartea ez da odolaren artu–emanak medio osatuko eta moldatuko. Tribu eta sendi loturak (ordu artio nagusienak) deseginez, gizartea jabegoari buruz antolatuko da.

Orduan dira lehen estatuak sortzen; eta eredutzat bi bakarrik aipatuko ditugu: Atenas eta Roma. Horietan, lan–modu berezi bat azaltzen da, antziñakoa –“antigu” edo “esclavista”– deritzana. Ikus ditzagun berauen zenbait zehetasun.

Jende pilla, nehungo ahalmen eta jabegorik gabe azaltzen zaigu. Gatibuak, esklaboak deitzen zirenak. Horiek ez zuten kontrato edo antzeko zerbaiten medioz lan egiten, ezinbestean eta bortxara baizik. “Gauzak” edo abereak bezala ziren erabilliak; edo okerrago. Bada estadia (enperadoreak, senaturrak, armada, eta beste) horiek egindako lanaren ondorioz mantentzen zen; haiek, doi–doia bizitzeko haina ez zutelarik. Ez zen “beharrezko” eduki zezaten, alajaiña, “ugari” eta “merkeak” baiziren.

Bi sail horien erdian, lanik egiten ez zuen jende–mordoa –“populus romanus” adibidez– gudaldi eta libertimendutarat ferraturik zegoena. Itz bitan, gizartea, gatibuek atera mozkinarekin bizi zen.

Lan–modu honek garrantzi handia izan du; eta badakigu nola edatu zen Romako Imperioa, eta zenbaterainoko zer–ikusterik izan duen alde guztitatu Europako kondairan.

Barnetikako kontradizonek zirela medio (zedukan edadura eta estruktura mantentzeko eta aurreratzeko gauza ez zelakotz), lan–modu hura suntsitzen joan zen beste berri baten azia zerraikaia. Feudal moduarena.

Gatibuak, esklabo izatetik nekazari askeago izaterat emeki–emeki iragan ziren (lehenengo menperatze gogorra arindu eta suntsitzean). Eta azkenik, suerte askotako nekazari bazegoen; batzuk, oraindik ia gatibu zirenak, eta beste zenbaitzuk, aldiz abantxu aske zirenak. Tartean, maila guztitakoak.

Horiek guztiek, –zein bere maillan– zerga bat pagatu behar zioten feudal jaunari: dirua, lan ondorioaren zati bat, feudal janaren lurraldetan lan eginez, eta horrelakorik. Horren truk, eta “lan–ordari” feudal jaunak jabegoaren egoera mantentzen zuen, eta lurraldeak zaintzen. Horretarako bere ejerzitoa zedukan bai eta bere lurraldeak ere.

Feudal jaun horien etorrera zein ze, zailla da bi itzetan erratea. Bakarrik hauxe derrakegu, batzuk tributako buruzagi izanikakoak zirela, beste batzuk, berriz, Romako imperioan zuten posizioneari esker, eta abar. Konde, duke, markes, eta antzekoak, ordutik datozi.

Bestaldetik, feudal jaun horiek ere, zerga bat ordaindu behar zioten berak baino indartsuago zen beste jaun bati; eta horrela erregeraino, (eskualde bateko feudal jaunik nagusiena). Feudal indar horien artean, eliza inportantenetarik izan zen.

Aipatu aro honek luzaro iraun zuen, eta itzali haundikoa izan da; batez ere Europan. Gure herrian, lan-modu nagusia bezala, salbu Nafarroako zenbait lekutan, eta Zuberoan, ez da feudal egoerarik izan. Bainan utz dezagun oraingoz feudal-aroa eta laugarren lan-moduari lot gakizkion.

Zeren, bada bestaldetik lan-modu berezi bat, Asian, Amerikan, eta Afrikako zenbait tokitan edaturik egon zena. Erderaz “despotismo asiático” deitzen zaio, eta hau ere jentil garaiko sendi antolamendutatik sortu zen.

Gizarte haiek, uretari zeharo atxikiak zeudezin, eta horrengatik “sociedades hidráulicas” izenarekin ezagutzen dira ere bai. Adi-bidez, Egiptoko gizartea loturik zegoen Nilo ibaiari; hau baizen haren ontasun-iturri bakarra. Horrela, Niloren .....behereri buruz jabetutako giza-talde bat osatzen joan zen; ..... berezi bat; “sumos sacerdotes”, zuzendariak eta abar. Laster, gizartearen gidari eta menperatzaile izanen zena.

Erraten da, menderen mendetan kasik aldatu gabe iraun lezakean xixtima dela. Eta aipagarri da “izenez” ez zegoela jabego pribaturik, dena “nazionalizatua” baizegoen (estaduaren eskutan); bainan horren azpian, estadia osatzen zuten kastakoen jabegoa zatzan, naski. Hots, jabego pribatuaren gisa arras berezi bat. Beharbada honengatik ez zekarten Rusiako liburu ofizialek lan-modu honen berri; Rusiako egungo xixtimarekin izanen zukeien antza nabarmen ez zedin, nonbait.

Kondairan zehar gain-gainetikako ikusaldi honetan, bi itzez bada ere bego aipaturik lan-modu honen berri xumea. Eta feudal-egoerarat itzuliz, derragun bukatzeko feudal-moduan datzala kapitalismoaren azia, haren barnetikako kontradizionen bitartez sortuko baida hura. Bainan utz dezagun hau hurrengo baterako.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1971, urria, 6. orr.

## GIZARTE GAIAK (IX)

Lehengoan, industria aurreratuaren zenbait ezaugarri azaltzen saiatu ginen; bai eta alorre horretan dugun premia ere. Genion, gizarte bat bizi ahal izateko, halako industria bideari lotu behar zaiola; haren abantailtasunetaz behar dela baliatu. Bai eta nekazalgoari emana balego ere, ez daitekeala –makurrik gerta ez dakion– zer egoeran dagoen jakin gabe ibil.

Honekin ez nuen, eta ez dut, zoko–moko guztiek industrializaturik egon behar dutenik adierazi nahi; bixtan da. Hain zuzen, industriak, nekazalgoak eta bestelakoak oreka egokian ibilli behar dutelaren ustekoa naiz. Ez nato bat, beraz, gutartean maiz agertzen den industriaren aldeko joera itsuarekin: toki guztitan hala edo nola mukururaino industrializatu nahi izatea. Gizartearen funtsezko orekari deusere ohartu gabe.

Nik diodana zera da bakarrik: gaur egun gizarte bat industria aurreratuaren beharretan dagoela; eta eraikitzen diren industrik ahal bezain aintzinatua behar lutekeala izan. Zeren, industririk azkarrenak dituen gizarteak, nekazalgoa eta gainerakoak molda baiditzake; gizarte egokiago bat eraiki lezake. Haren esku legoke behintzat. Alderantziz, berriz, ez; eta horretan datza kakoa.

Hala ere, pixka bat sakonduz gero, agudo konturatzen da bat guztia ez datzala industria ahalik eta aurreratuen paratzen bakarrik.

Denok badakigu anarkia zela orai arteinoko industrializazioaren ezaugarri bat. Bada, problema ez da, nahiz industria aurreratuak izan, anarkia berarekin segitzea gaur. Bainan argi dezadan hau xehekiago.

Lekuan lekuko eta garaian garaiko industririk azkarrenak kokatzearekin ez dira, naski, gizarte haren problemak oro xuritzen. Industria batek, ez eta ameka izanik ere, ez baidezake horrelakorik erdiets.

Garbi ikusteko, gauza bati ohartu beharrak gara. Industrializazioa ez dela gizartearengandik kanpo dagoen deus; ezin ulertu dela horrela. Guztiz bestela da. Industria arloa gizatasunari dagokion afera denez geroztik, giza–planifikazioe baten barrenean taxutu eta moldatu behar da.

Hain zuzen, naturaleza, unibertsitatea, kultura–bideak, serbitzuak, urbanismoa, industria eta abar, ez daitezke osotasun baten barrenean baizik ikus. Ezin dira ulertu bereixirik; elkarriz loturik daude. Horrengatik, ongi baino obeki taxutu behar dira, gizarte osoki aztertuz; gizartearen behar eta xede jeneralari erantzunez. Eta, jakina, gizona deus abstrakto ez den ber, afera hau dena lekuan lekuko gizonari da.

Bainan honen antolatzeke ez daikete bederazka ari. Hartarako, gizartearen parte artze orokorra behar da; ezinbestez. Eta gaur egun hori dena posible da bakarrik gizartearen elkargoen arteko koordinazioe egokia antolatuz; honoko hauen artean: administrazioe, bere konplejidade guztikin; unibertsitatea eta bestelako ikas–bideak; eta industria–empesa. Funtsezko oiñarria hori da; bainan, naski, baldin eta jendetartean demokraziaren zentzua –parte artze sakona– galdu ez bada; geroago eta nabariago ari baida ikusten desarroilloaren sustrai nagusi bat dela, uste baino askoz garrantziagokoa. Eta gure etxean zorionez, ez da osotoro horrelakorik gertatu. Mendez mende landutako joerak bizirik dirau, eta horretan datza, azken finean, gure ahalmena.

Bestaldetik, oroit gaitezen Nafarroan elkargo bereziak ditugula; gure eskumenago daudena, eta, beraz, Nafarroari obeki dagozkionak. Bada, autonomia puska hoi edukitzea –arestion erren dugun bezala– demokrazia eta desarroilloaren bidean urrats haundia da; daitekean aurrerakoiene, eta guretako ezinago onuragarria. Alde guztitatzik suspertuz eta aberastuz beti gaurkotzen joan behar duguna.

Unibersitatearen arloan, aldiz, guztiok igualtsu gabiltza. Nafarroan badugu bat; ez, ordea, Nafarroak dituen arazo latzeri erantzuteko egokitua. Bixtan da. bainan delako Nafarroako unibersitatea daitekean gauza baldin bada, nafarren laguntzari esker da. Erran nahi baida, gure elkargoek zer-ikustekorik haundia dutela han; nafartarrok badugula zer erraterik, bai eta zer moldatzerik ere. Puska batean guri dagokigu, beraz, zer-edo-zer erdiestea.

Erdiesteak erdiestea, gure urratsak aipatu ildotatik abia-erazteko, munduan benetan gertatzen diren gauzetaz arduratzen asi behar dugu; azalkeri eta iheskeri guztien gainetik jokia zertan datzan ikasiz. Eta, erran gabe doa, ekintza hauetan denetan gibelaturik gaude arras; mutzituri aspaldi honetan. Besteak beste, loakartu garelakotz, gure helburuen betetzerat doazin abiadurak moldatzen bermatu beharrean, gehiago laketu -eta laketzen- garelakotz amets amultsutan; hots, gure kaltetan doazin bidetan. Eta bada garaia iratzartzen asteko!

Badakit bide hau nahi baino luzeago eta nekezago izanen dela; bainan beste atera-biderik ez da, eta hor erakutsi behar dugu kapable garen ala ez egoera honen gainditzeko.

Etorkizunari so, gizarte batek ez dezake holakoetan halakoikala joka; bere burua amildu ez baldin badu nahi behintzat. Eta hau -berriro ere derradan- guztiek ikasi behar badute, are beharrago guk.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1972, apirila, 8. orr.

## GIZARTE GAIAK (V)

Azkenekoan erraten zen bezala feudal–moduan zetzan kapitalismoaren azia. Hastapenean, merkatalgoaren bitartez “burgo” batzuk izren sortu eta azi. Menderen mendetan, indar berri horiek kontrolatzen zituen sail berriak, burjesiak, feudal egoera egotziko du, eta beste xixtima bat eraikiko; lan–modu industrialari zegokiona, kapitalismo gisan (indar produktiboen jabego pribatua oiñarriztat artuz, alegia).

Lan mota berria azaltzerakoan –erran gabe doa– beste lanarekiko artu–emanik, lan ondoriorik, eta bestelako aldaketarik; legeak (“código” berriak), pentsaera–moldeak, kultura–bideak eta abar, sortuko dira, eta egokitzen joanen. Bestaldetik, gizartea gehiago mailkatuaz, giza–saillak ugaritzen joanen dira.

Hau –industrializatzea– egun artio mundua gehien irauli duen lan–modua da. Dakigun bezala, lehenik Inglateran gertatu zen, XVIIgn mendean asirik; eta gero beste eskualde guztitan. Europan eta ifar–Amerikan XVIII eta XIXgn mendeetan, eta XX–garrenean Afrika eta Asiako aunitzetan.

Orduan dira egun ezagutzen ditugun estaduak osatuko eta finkatuko; muga batzuk ezarriz beste estadorengandik bereixteko. Hori dena –muga horien barrenean merkatalgorako askatasuna, eta kanpotikakoen kontrako babesa edukitzea– burjesiaren beharra besterik ez da.

Abiadura horretan memento batetarat heltzen da, zeinean kapitalismoak beharrezkoa baidu kolonien bereganatzea. Ezinbestezkoa. Eta koloniak, gisa aunitzetakoak izan litazke; batzutan, estadu horien barne kokatuak; bestetan, aldiz, urrutiko koloniak gertatuz. Gehiago luzatu gabe, derragun menperatze mota honi inperialismo deritzaiola.

Bainan burjesiakin baterat, eta alabeharrez, giza–sail berri bat sortzen da industrial modu honen barrenean: proletargoa, langille sailla. Honen helburua, giza–saillen jabego pribatuaren suntsituz, klaserik gabeko gizarte aurreratuago batetan sartzea dateke. Hots, kapitalismoaren gaindituz sozialismoaren erdieste.

Gizonen beharrak, ez daitezen artifizialki sortutakoak izan, merkatu jokoek agintzen duten arauera eta menpean, gizonek ekonomia kontrolatuaz, produksione benetako beharri datxikola egokitzuz baizik. Eta beharrak bereziak dira; kondairan zehar ameka kondizionamendu direla medio egoera berezitan gizonek sortu eta egokitutakoak.

Beti gertatzen den bezala, hau dena erreza itz bitan erraten; zailla, aldiz, egiten eta erdiesten. Nahiz garai batetan fite erdiets zitakeala espero bazuten ere (egungo eguneko ameslari askok bezala), egun –ikusit denez– kapitalismoak berak emeki bada emeki, uste baino bide zail eta luzeagotatik horretarat garamatzi. Hau geroago eta nabarmenago dago. Hoek ez du erran nahi deus egin ez daitekeanik, naski. Bainan bai amets amultsutatik jautsi behar dugula. XIXgn mendean funtsezkoa deritzaigu kapitalismoa errekarat zihoala pentsatzea; egungo egunean, ez hainbeste. Hala ere, abantxu XXIgn. mendean gaudelarik, jende sailla aspaldiko ibil–bideari darraika itsu–itsuan; maizegi gertatzen baida (areago gutartean) ideologia baten azalari atxikitzen garela, harek dukean dinamikari ohartu gabe.

Bainan utz dezagun hau.

Konturatuko ginen, arras gainetik bada ere, kondairan zehar iragan diren lan–moduak aipatu ditugula; ez ordea juzkatu. Jakina, deus gehiago ikasi nahi duenak, sakonagoratu jo beharko du. Guk, ideia orokorra besterik –eta aldizkari batetan gehiago ezin– ez genuen eman nahi. Egungo gizartearen problematika aztertu ahal izateko, oiñarririk eman lezaigukeana.

Bukatu baino lehen, bi itz kondairari buruz.



Askok lan–aroak, beren artean zer–ikustekorik ez duten egoerak balira bezala artu ohi dituzte. Batetik besterat, gizarte osoa mekanikoki aldatzen delakoan. Sozialismoakin, adi–bidez, burjes egoeran dauden ideia eta gauza oro suntsituko direlakoan; feudal–aroari kapitalismoakin gertatu omen zitzaion antzera.

Lot gakizkion gaiari. Feudal aroan gizartea gisa batez osatzen eta eratzen bazen, eta beste batez industrialan, ez du dena aldatu zenik erran nahi.

Zeren, egia bada gizartea beti igiduran doala, egia da ere, gauza askok berdintsu segitzen dutela. Jakin behar baida zer aldatzen den, eta nola. (Nago, “aldatzen” baino ez ote den zehatzago “egokitzen” erratea). Eta alferrikakorik behinere ez.

Gizona, konparazione, ez da berdin jentil–garaian, feudalismoan eta egun, bere ideietan, ahalmenetan, eta abar; hala ere, gizona izaten irauten du. Eta feudal aroko gizona ez da lau begi, isatsdun eta nik dakita zer gehiago–dun deus, lan–modua aldatuz gero, egun ezagutzen dugun gizona bilakatuko litzakeana.

Gauza bera izkuntzan; aldatzen da bai (obe egokitzen), bainan izkuntza bera izanik. Esate baterako, rusoa zen zarista garaian mintzatzen zena, eta rusoa ere boltxevikek eta oraihoek derabilkitena; edo “Das Kapital” alemanez idatzirik badago, Hitler ere alemanez mintzatzen zen. Bainan hau elementala da arras, eta nehorri ez zaio gogoratuko ere zer–ikustekorik dutenik, eta ez batak bestea uka lezakeanik.

Bada, batzuek erraten dituztenengatik horrelatsu pentsatzen ahal zen.

Gertatzen dena da, giza–zientzia uste baino zaillago dela. Eta hura aplikatzean egiten dena, zera da bakarrik: kondaira bere funtsean aztertu, eta abstrakziorik bat eginez kategori batzuk sailkatu; bainan aztertu ahal izateko baizik ez. Baidaki, kondaira kateztatutako bidea dela; ezin berexi daitekeana.

Zorigaitzez, ikusmen orokor, ideki eta zabalaren orde, usu, jendea molde mistiko eta dogmatikotarat lerraturik dakusagu. Eta horrela, ezin da mitologiatik jautsi.

Honek arras garbi dagoela iduri du; eta berez gauza zentzuzkoak dira. Hala ere, hor dabilla sandio andana bazterren inharrosten, gutarteko amets–zaletasuna laguntzen eta aupatzen dutelarik. Hain zuzen, horixe da –guretako kaltegarri baino kategarriago den odeitan ibiltze hori– haiek billatzen dutena; errealitateaz jabetzen ez garen bitartean, gureak egin dezan.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1971, azaroa–abendua, 8. orr.

## GIZARTE GAIAK (VI)

Oraingo honetan ez natorkizu, irakurle, solas-molas aritzerat baizik. Itz aspertu baten egiterat. Aunitzetan, irakurleak zer pentsatuko ote duen idazten ditudan gauzetaz, buruan derabilkit. Ez ote duen erranen: hau tekela! Ohartzen bainaiz betiko gauzeekin erortzen natzaitzuedala. Horrengatik gaur, ez dakart nehor aspertzeko asmorik.

Nik ez dakit, egia erran, idazten dudana fitsik ere konprenitzen den ala ez. Gaiak berak dira korapillatsu eta bihurriak; eta hortik, nire iduriko, uste baino nekaza eta ulergaitzagoa gertatzea irakurraldia. Gogoan izanik gainerat, holakoetaz ez dela euskeraz sobera izkiriatu. hala ere, ulert-errezago egin litakealakoan dudarik ez dut; nik ezin, ordea.

Behar bada, erabat oker nabilla gauza batean. Alegia, ez ote litzakean egokiago izanen honelako idatz-lanik beste nonbait argitaratzea, aldizkari -eta gainerat ilabetekari- batean baino. Honela, ez dezakete lotura haundirik eduki; eta nik, aldiz, jarraikituak izan daitezen nahi. Bainan nahiz horrela izan, eta besterik ezean, nahiago dut zer-edo-zer argitaratzen segi, izkiriatzeari utzi baino.

Honetaz ari naizelarik, idazleonek kezka klasikoa bururat datorkit.

Usu, gure baitan aski argi-edo dadukagun zerbaiten izkiriaterakoan, irakurlek guk bezain aise ulert dezaketela hura pentsatzen dugu. Ohartu gabe gainerat. Eta irakurlea, guk idazteko segitzen dugun burubide ber-berari darraika, bainan aitzitik. Idazleak zerbait adierazi nahiean uler-bide batzuk azaltzen ditu, horien bitartez irakurleari adierazpen hura hel dakion. Idazleok baidakigu (batzutan) zer dugun erran nahi; irakurleak, berriz, leitzen asi baino lehen ez.

Banan, hau alde baterat utzirik, derradan zerk bultzatzen nauen gauza horietaz izkiriaterat.

Nolabait, gure egintzari gero eta funts sakonagoa eman behar diogulakoan nago. Bainan nolabait horrek, ez du gaingiroki izan behar duenik erran nahi. Guztiz aitzitik; ahalik eta sendoen. Nondik norakoa ikasi ahal izateko, beraz, derriorezkoa deritzait zenbait ibil-bide argi dezagun.

Une honetan, hain zuzen, krisis larria dago ideien aldetik; eta beldur naiz ez ote garen mistizismo batetik ihes goazelakoan, eszeptizismo anti-zientifiko eta geldikor baterat pasako. Baidut gure amets-zaletasunaren berri; eta atzo amesten bizitzea kaltegarri bazekioken edozeineri, zer erranik ez gaur. Bainan honetaz, lerro tartean bedere, mintzatu natzaitzuet iragan artikulotan.

Bestaldetik, sasikeria franko sartu da gutartean. Bai eta zenbaitzutan nagusitu ere zorigaitzez. Sasi-euskalzaleak (nahiz euskeraz orniturik agertu), sasi-batasun aldekoak, sasi-jakitunak, sasi-politikoak, eta zertarako segi? Azpi-jana ugari, eta taxuzko lanik ez; maleruski, horrelatsu gabiltza. Eta guztiok, horrelakoen berri izangatik ere, maizegi behaztopatzen gara paratzen dauzkiguten marrotan.

Bainan askatasun horren argitzeko, ameka kondizionamendu aztertu beharko genuke. Eta orai ezin horrelakorik egin.

Hau dena delarik, aunitzetan, erraten ditudan gauzak ez nintzake aipatzerat ere ausartuko, baldin gure inguruan honi guztiari buruz hainbeste ideia xeblebre itsasturik ez baleude. Gizatasunaren kaltetan doazin asmo geldikor eta atzerakoik. Horrengatik, nire idatz-lanen helburu nagusia, gure alorrea ahal dudana neurrian nortzea da.

Aspaldion, dakizuen bezala, horrelakoetaz jardun naiz; gizarte sustriari heldu nahi izan diot. Urrengotan, industriari buruz abiatuko natzaio. Bainan ez pentsa gauza astun eta aspergarritaz arituko naizenik; hala-nola, teknika eta industriarekikotaz. Ez. Gaur-gero konturatu izanen zara, segurki, nik gehien batean gaiak, soziologiari

dagokion alderditik ukitzen ditudala. Bada, industritaz ere, hortik nahi nuke ari. Beude beste gainerakoak aldizkari ezpezializatuentzako.

Industritaz mintzo garela, gizonen menpe eta onerako izan behar duen industria dut gogoan. Ez gizonak gatibatuz eta naturaleza eskastuz ezagutzen duguna. Eta badakit egoera hori ez daitekeala tupus-tapan erdietsi. Helburutzat aratzen dut bakarrik; ez –askotan bezala– deusik egin gabe gelditzeko aitzakitatzat.

Hau erran eta gero, bateon batek romantiko utsa naizela pentsa lezake; ametsetan nagoela. Ez dakit, baina ez nuke nahi behintzat. Bakar-bakarrik gauza bat erantsiko dut: industriaren problematika guztia, munduko leku aurreratuenetan aztertzen ari da; ez romantizismoak bultzaturik, ekonomiko egoerak berak beharturik baizik. Eta nik ez dut, erran gabe doa, hura polita litakealakotz aipatzen, ezinbestezko bide bakarra dugulakotz baizik. Behar bada, atera-bide zail eta luze, baina bakarra.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1972, urtarrila, 8. orr.

## GIZARTE GAIAK (VII)

Aunitzetan, gizatasuna ez dela sekula industrializazioarekin bezainbat aberastu eta aintzinatu erran da; eta, segur, arrazoinarekin. Gizatasuna, duela denbora guti artio sinesten ahal ez ziren bidetarik abiatu da. Denbora laburrean, egundo munduko aldaketarik gertatzen dira; hainbatean non, oraiko amar urte, gauza askotan, atzoko amar mende baino aldakorrago baidira.

Ekonomiko sailla, konparazio baterat, eten gabe aldatzen eta azten doa; gizonok baino azkarrago dabilhela erraten ahal genuen. Horrengatik, alorre horietan atzo bezala irautea, ez da geldirik egotea eta ez aurreratzea, atzeraka joatea baizik.

Halabainan, ez dugu aurrerapena denik pentsatzen. Bixten da. Jakin ere baidakigu, alde batetik aintzinatzen bada, gisa berean ere zenbait akatsez ornitzen goazela; ezin bestean. Hala ere, nahiz traba eta akats haiek haundiak izan, gizatasunak naturaleza eskumenago daduka; bere igidura geroago eta dinamikoago da; eta hau, aurreratzea da. Dadukan dema zaillagotzen doa, dudik gabe; bainan, bai eta haren ahalmena haundiagotzen ere.

Gainerat, ez daiteke gibela; neholaz ere. Horrengatik da hain alferrikakoa (kaltegarri ez baldin bada), atzoko egoeraz amesten egotea. Biharko ibil-bideak finkatu ahal izateko, atzokoa ezagutu behar da, eta ongi ezagutu gero; bestela bizitzak ez baidu zentzurik. Bainan, haretaz gogoetarik egitearekin xoillik, ez da deus miresgarririk erdiesten, baldin gaurko atera-bideen aurkitzeko laguntzen ez badu.

Saia gaitezen, beraz, gaurko egoeraz jabetzen; guztiori komeni baizaigu nola gabiltzan jakitea. Eta goazen industrializatzeari buruz.

Gaur egun ez da herririk izanen munduan, murriz eta eskastasunean bada ere, industriari lotu ez zaionik; are gutiago nahi ez litzaiokenik.

Lan-modu industrialia zeharo nagusituz, gaurko egitura (merkatuarena, eta abar) munduko lau kantoinetar edaturik dagoela aski garbi dakusagu. Hoek -beste noizbait ere aipatu izan dut berau- ez du bestelako lan-modurik ez dagoenik erran nahi. Ez. Gaur egun, esate baterako, badira nekazalgoari buruz bizi diren herririk, bai eta feudal ala jentil gisan dirautenak ere. Haatik, ez da industrial aroan ez gaudenik erraten; deitura, modu nagusiar baidagokio.

Bestaldetik, munduko leku aurreratuenetan, bigarren industrializaziori buruz doazi; gutartean oraindik gertatu ez dugun alorrea. Eta honi, nire aburuz, ez gara behar heinean ohartzen; nahiz bigarren industrial aldaketa hau, garrantzi haundikoa eta uste baino sakonagoa izan. Bainan utz dezagun hau, oraingoz.

Industriarekikoeri zeharo lotu aitzin, propiedade-jabegoaren zenbait ideiatz mintzatu nahi nuke. Honi buruz ere, xehebrekeria franko entzuten baidira.

Batzu, konparazione, jabego pribatua egotzi nahiean edo, jo eta kea dabilta; eta helburu hura jendeari sinestegarria gerta dakion, ahalik eta gehien sozialista itzez orniturik agertzen dute. Itxuraz, interes konkreturik ez balute bezala; borondate onekoak balira bezala. Bainan funtsean, nahikari oso konkretuen agerterak besterik ez dira.

Betikoa, auzia metafisika utserat eramanez, sozialismoa eta kapitalismoa ametsezko ongia eta gaizki bilakatu nahi dauzkigute. Horren arauera jokatuz, gure ibil-bideak han -odeietan- finka ditzagun. Bainan saia nadin hau xehekiago argitzen.

Jabego pribatuak sozialismoaren aurka doazilakoan, ez daiteke edozein suerteko jabegoren kontra borroketan ibil. Sozialismo, ametsezko egoera ez den ber, egitura konkretu batean obratzen baida; zer indar-jabego motak dabilta borrokan, konkretuki, sakonki aztertuz, arian arian gorpuzten doaken atera-bidea, alegia.

Jabegoa, beraz, ez da abstrakzioe bat; egoera arras konkretua baizik. Horrengatik, alorre honetan deus egin nahi duenak, zer propiedadetaz ari den behar du

ongi ikasi. Benetan ezer aurrerakoi erdietsi nahi duenak, naski. Beste guztiak, ohartzuz ala ohargabeen, indar nagusienari jokoa egiten baizik ez dabilta. Kondairan zehar, ez da etsenplurik falta.

Bainan kasu; iduri luke, merkatu libre delakoaren barrenean gertatzen den fenomenotaz ari garen bakarrik; ahalmen desberdinen arteko borrokaren ondorioz: arrain haundiak jaten du ttipia. Iduri luke, ez garen beste klaseko egoera berezi bati ohartzuz; zeinean gertatutakoak oro, ez baidira merkatu libre deituaren ondorioak izaten, merkatu erabat bortxatuarenak baizik. Hots, gizarte bati kanpotikako menperatze batengandik datorkion egoera.

Eta indar imperialista baten kontra doazken jabegoak, adibidez, ez dira bakarrik “baliagarriak”; berez aurrerakoi, eta daitezkean sozialistenak baizik.

Bestalde, ez ahatz, otoi, egiazki gertatutakoa dela azken finean konta dena; ez nehungo eta nehoren borondatea, den oberena ere.

Ohartzuz garez, giza-saillen arteko borroka, entzun ohi ditugun tentelkeriak baino askozaz sakon eta konplejoagoa da. Bainan entzuterat behartuak izaki; bai eta oraintxe aspertuak ere.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1972, otsaila, 8. orr.

## GIZARTE GAIAK (VIII)

Gaur guztiz gehieneko herriek –lehengoan erraten genuena– industrializaturik egon nahi dute; aukeran daude, eta denbora guti barne, seguraski, egonen. Honekin, hala ere, ez da gehiegi erraten, konkretuki zer motazko industrializazteaz ari garen adierazten ez badugu. Zeren, gaur egun industria alorrean zazpi maila bereixten baidira; eta edozein industria sekula ez bada nahi–eta–nahiez aurrerakoia izan, are gutiago orai, aise konprenituko den bezala.

Bestaldetik, gaur egun industrializaztea moldatu nahiez, ez daiteke XVIII eta XIXgn. mendeetako jokabideekin ibil; erabat beste aroan gaude eta. Langille saillak egun gorri baino gorriagoak ikusi baditu garai haietan, ez du gaur berdin izan behar duenik erran nahi. Langille sailla nor baldin bada behintzat.

Orai artio, langillego ugaria ekonomia sendoaren ezaugarritzat jotzen genuen; biak bat zetozen. Ekonomia batek zenbat eta langille beharrago, hainbat aberastasun haundiago zuelakoan, alegia. Eta hori –pundu bateraino– orai arteinoko industriaren egoeran egia zen; bainan atzendu gabe, langille haietako gehienak esku–lanetarako bakarrik zirela gai. Hain zuzen, orai artio lana, lan–aldi errezagotzat banatu ohi zen, eta aldi horiek ximple xamarrek ziren; zailtasun haundirik gabekoak, eta “en serie” egiteko modukoak. Gaur egun, aldiz, arras bestela da. bainan ikus dezagun hau xehekiago.

Teknikaren azierak berak izigarritzko aurrerapenak ekarri ditu, eta ekartzen. Horregatik, gaurko industrial gizarteak eboluzio haundikoak dira; arras aldakorrak. Egunetik egunera, lanabes eta makina berriak azaltzen dira, ordurarteinokoak baztertzen dituztenak.

Gero eta gehiago, industria–gintza unibersitario maillan antolatu eta moldatu beharra dago. Lanarekiko berriak, suerte guztitakoak, gero eta korapillatsuagoak dira; zailagotzen eta ugariagotzen doazi. Antolamendu bihurriago bat eskatzen dute, eta hori, ez daiteke elektronikoko tresneriaz baizik molda.

Alimaleko aldaketa hau posible egiten duten makina eta lanabesak dira, hain zuzen, denen artean aurreratuenak; lehen maillakoak. Beste guztiak, haien arauera eta menpean doazi. Hortik hain garrantzi haundikoak izatea, petro–kimika, automazio industria, elektronika, eta abar.

Gainerat, teknologiaren erosi behar izatea (tresneria, inbestigazionea, teknikoak, royaltik, eta abar) garestia da arras; eta bestaldetik ezinbestezko menperatasuna dakarra berarekin. Saltzen duenarentzako, aldiz, mozkin haundik ditu; suerte guztitakorik.

Besteak beste, lehengo erako industria motek ez zuen gizon jabetuen behar haundirik; prestamen berezirik gabe bi eskuz lan egin zezakean jende pilla baizik. Gaurko industriak, berriz, langille gero eta jabetuagoak ditu beharrezkonik; langille kalifiketuak. Peoitza gutitzen doan arauera, kalifikazio maillak ugaltzen doazi. Hortik, tekniko saillak gero eta edatuagoak izatea; eta hau garrantziko gauza dugu. Ekonomiaren muiñ–muiñari atxikiak dauden giza–saillak, gizartearen eragille ta gidari izanen direla etorkizunean erran baigenezake.

Egoera hau dena, ekonomiak berak behartzen du; egia da. Bainan kasu, ez dezagun ekonomia zenbaitzuk bezala gizonengandik at balego bezala ar; ez ditzagun ekonomia eta gizona bereix. Astakeria utsa da, eta ez daitekeana. Bainan goazen genionari buruz. Aipatutako egoera honek, gizatasuna –oro ar– emeki bada eta obekitzen doala erran nahi badu, nire iduriko erran nahi duen bezala, dudik eta gabe puska haundi batean langille saillari esker izan da. Eta ezinbestezkoa ez ezik, aurrerapena da. Azken finean, nahiz oraindik urrun egon, gizon aurrerakoien betiko helburuari buruz doazin urratsak dira. Lana, alegia, ahalik eta gizonen onerako izan

dadin; ekonomia, ahalik eta gizonen serbitzurako. Ez aitzitik, zorigaitzez usu gertatzen den bezala.

Bainan, aurrerapen eta dinamismorik haundienak giza-sail indartsuenengandik datozi. Erranikako gizonen helburuak, herri aintzinatuetan posibleago direla dirudi. Ifar-ameriketan, konparazione, aspaldi honetako gertakizun mota askok erakusten duten bezala.

Bainan hel gakizkion lehengo ariari.

Egoera hau dela bide, aise konprenituko da herriak ez daitezkeala bi lan-modu haunditan ximpleki bereix: industrialgoa eta nekazalgoa. Bereixkuntze hura ez da, nehundik ere, aski adierazgarria. Geroago eta gutiago.

Gaurgoiti, gizarte baten mailla taxutzerakoan, beste ezaupide mota aunitz aztertu behar dira. (Ez bakarrik hain erabilia den “renta per cápita” deitutakoa, naski). Gerta bailitake –eta gertatu da alafede– gizarte bat nekazalgoari lotua parterik haundienean, bere demografia, lurralde ala besterik dela medio, industriari atxikia dagokean gizarte ttipia baino indartsuago izatea; ahalmen gehiago edukitzea; eta, horrela, bigarrena lehenbizikoaren atzaparretan erortzea.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1972, martxoa, 4. orr.

## GIZARTE GAIAK (X)

Aisa konprenituko da industrializatzeari buruz diodan guztia, ez dudala neri ongi ala gaizki iduritzen zaidalakotz aipatzen; datorkigun egoera ikasi beharrean gaudelakotz baizik. Eta obekitasunik nehundik erdietsiko badugu, bidea nondik doan jakinik izanen delakoan.

Ez baidut errealitatetik ihes eginez odeitarat joan nahi, gustatuko litzaidakean giza-moldea asmatzen asteko; bixtan da. Hori –behin baino gehiagotan erran izan dutzenbaitzuen nahikaria da dudik eta gabe; gainan doi–doia bada ere, ari gara zorionez haurtzaroa pasatzen.

Gauden mundua, nahi–eta–nahi–ez den bezala da, eta ez bestela. Nolako den eta zergatik den horrela, ordea, arraz zailla da bi itzetan xuritzen. Kondairan zehar osatzen heldu baida; ameka kondizonamendu direla medio. Eta gaur egun ere, gauzak ez dautza gelditasunean, tensione haundiko igiduran baizik.

Horrengatik, gauzak obekitu nahi dituenak, egoera den bezala ezagutu eta taxutuz gero, haren helburuen betetzerat doazin bideak ditu finkatzen. Izan ere, horrela bakarrik oiñarri lezake bere joera. Gogoan edukiz aurrerakoiarena, gizonen eskubideen kontra lortutakoen urratzea dela; beti aurrerako bideari lotzea.

Ez dezagun, beraz, datorrena heldu den bezala artu behar denik erran; alferrik litzakeala ia ere egiten astea. Datorrena, gizonen esku dago, eginkizun da eta, beraz, neurri batean guztiok molda genezake. Hain zuzen, datorkigunaren zenbait gauzen aurka altxatu behar dugularen ustekoa naiz; gaurko egoera ikasiz, ahalik eta garailen gerta gaitezen bihar.

Bainan arazo hautan –zein gauzetan egin litaken zerbait, eta zeinetan ez zenbait korapillo daudela ohartzen naiz; eta komenigarria deritzait erran nahi dudana zerbait bedere argi dezadan.

Gaurko gizartean badira –oro ar– bi motazko ondoriorik. Hauen artean batzu, ezin ebita daitezkeanak dira; besteak, aldiz, alda litzazkeanak. Ezin ebita diren ondoriotaz, ez gaitezen orai gehiago luza; ebita ezinezkoak baldin badira alferrik dateke eta, (Ez dut erraten asko ala guti diren; ez eta nire gustokoak diren). Ondorio hauen artean, erran gabe doa, denetarik badago; onik eta txarrik. Eta aise konprenituko den bezala, batetik besterat suerte guztitakorik; bai eta batzuri onuragarri gerta dakiekena, beste batzuri alderantziz izatea. (Bi gizarte desberdiñek, bietariko bati dagokion kontsumo bera edukitzean gertatzen dena esate baterako; zenbatenaz eta kontsumo berdinago, hanbatenaz eta bien arteko aldea haundiago). Kasu, bada, ximplekeritan erori gabe. Bainan goazen aintzina.

Alda daitezkean ondoriotaz, berriz, aunitz egiten ahal da; aldakor bai–dira. Haietako batzu, onuragarri eta aurrerakoi dirateke; besteak, aldiz, atzerakoi eta antzukur. Lehenbizikoak, onuragarri baldin badira, ez zaigu haien kontra joatea interesatzen; aberastgarri direla badioegu. Bainan bigarrenak, aldatzea gure esku daudenak, eta gainerat kaltegarritzat ditugunak, zuzentzen ahalegindu behar dugu; nork bere nortasunari dagokion gisaz araueratuz. Ezituz eta ohar–eraziz, batzutan ondorioaren egokitzeke, bestetan haren zenbait akatsen baztertzeke, non ez den delako ondorioaren deplauki arbuiatzeko.

Nola uka, konparazio baterako, telebixta aurrerapen izigarria ez denik; ameka gauzetarako ezinago onuragarria; komunikazio eta informazio bidetan, industria–gintzan, medikuntzan, eta nik dakita non gehiagotan.

Ez daiteke erran, haatik, telebixta abantail izigarria bada ere, kaltegarri izan ez daitekeanik; egunero ez denik. Telebixta gizonak baiderrabilkite; eta ez suerte guztiko gizonak, giza–sail indartsuenek baizik. Erran nahi baida, ez dagoela lekuan lekuko



gizoneri zuzendua, gizon horiek nortzen joan daitezen; gizasail indartsu haien intres konkreturi begira baizik. Guk –esate baterako– ez dugu legokigukean telebixtarik. Eta ohart gaitzen zer iritzi pillla itsasten den telebixtaren bitartez, eta zein egunero eta sakonki; zer nolako deseuskalduntze erdiesten ari den, aunitzetan ikas–bide bekarra den telebixtarekin; nehor eta sekula ez bezala etxeko bizitzetan sartu den tramangailuarekin. Behar faltsuk sort–erazten dituelarik, guri dagozkiguna betetzen ez.

Horrela, informazioa, eziera, kultura eta abar, ezinago garrantzi haundia duten arlo konkretuak direnez gero, telebixta izan daiteke –eta da– arras kaltegarri ikusleentzako; arras zikirakor eta loakar–erazteko modukoa.

Hor dago, beraz, alorre haundi bat aztertzen, moldatzen eta ahalik gureganatzen joan behar genukeana. Baina horretarako lehenbizik, norat garamazkiten, eta norat nahi dugun joan jakin beharko genuke; eta hori zorigaitzez, oraindik landu gabeko soroa dugu; gauzarik premiatsuena izan arren.

Lot gakizkion, bada, ez azalari, bainan mamiari. Urratsez urrats, zer gerta lekigukean gogoan ongi edukiz aintzinerako bideari jarrai; izpiritu ideki eta zabal batekin aurrerapenen aintzinean, bainan beti gu geu izaten. Guztiek hori bera egiten dute, eta guk areago behar genuke.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1972, maiatza, 8. orr.

## IKASTOLARI BURUZ

Azitik bihia; atzoko sutondoko euskeratik gaurko ikastolak.

Zeren, euskera amatxikin zenbait solas goxoen erabiltzeko bakarrik baldin bada, bereak egin du. Aspaldi zioen Bernat Detxepare gure lehen idazle haundiak: “Euskara! Jalgi adi kanpora, plazara, dantzara, mundura!”. Agudo eta sakonki zen Eiheralarreko erretor olerkaria euskeraren bizi-baldintzari ohartu; XVI-gn mendean.

Gaur egun, bixtan da, baldintza hura aunitzez premiazkoagoa da; ezinbestekoa. Euskera zaletasuna, nehoiz izatekotan, gaurko moldetan obratu beharra dago; gaurko bidetatik abiatu.

Bide horietatik bat, nagusienetarikoa, eskolategiarena da. Ezi-bidetan itsasten ez baldin bada euskera zail da biziko, hil urren da. Hortik ikastolak sortzeari ematea. Gure iraun gogoaren adierazpen garbia, abots ozena.

Bestaldetik, negargarria da gure buruaz lotsatzea gutartean, zoritxarrez, oraindik gertatzen den bezela; bainan, egia erran, ez hain arrigarria. Hainbat denbora euskera baztertua non gure gizartea muinetarainio ahalketurik baidago, nortasuna galduxe...

Bainan ez osorik. Dakusagunez, bezagoen azirik; bazegoen surik. Hor daude, lekuko, Nafarroako ikastola lerdinak. Nork erran duela amabots bat urte loratuko zirenik? Bazegoenik ere gogo eta borondate ahalmendunik? Batzuk ez uste, eta ez nahi.

Zorionez, gaur artio ia umezurtz gisa ibilli eta gero, agertu zaio euskerari aterbe egokia, oienarri sendoa: Diputazioaren itxaropenezko azken erabakia. Astekotz, ez da makala ofizialtasun doi horrek euskerari eman dezaiokean indarra; ez horixe. Hala ere, aurreko lumeroan hementxe bertan erraten zen bezala, euskeraren aldeko erabaki hori bide zelai eta ezinago lagungarri da, bainan bidea, geuk ibilli behar dugu; erabakiak mamitu egin behar baidira. Berantsko ote? Guri da erantzuna.

Azitako loreak, beraz, irabai du eguzki bizigarriaren fereka. Bainan ekaitza ez dira ematu, ez eta gutiagorik ere. Betikoaz landa, ikastolak azten joan diren arauera, itsasi zaio errotik belar tzarra.

Erabat garden eta sendoak zirelakoan ginauden, bainan gutien uste genuelarik, horra gure alorra abantxu zikinak jana. Gazurra badirudi ere, betiko oldarraren itxura berritua gure zenbait alorretan garai. Dugun ikus.

Batzuk, aitzakia-maitzaki dena on ikastolak ankaz gora uzteko. Borroka-bidetzat gure egoeran sinestu eta onartu ezin diren arazoak plazaratzen dira: “h” delakoaren gerla, erlijionik eza, “akatsik gabeko” pedagogia, eta halako beste; auziak illargitara eramanez beti, naski. Ez bariduri ere, honen azpian atzerakoikeria ertsia izkutatzen da.

Denok badugu joera horren berri, bainan maizegi ohi gara, zoritxarrez, bere saretan erortzen. Atzera joanez, iraganikako moldeetara joaz, ikastolak “h”-rik gabea eta ertsia izan behar duela erranez erantzuten baldin bada, jokoa baizik ez baizaio egiten besteari. Lehenbiziko joeraz ez baidu erantzuntzat bigarren hau baizik billatzen; elkar dute osatzen elkarren betegarri izaki. Aspaldiko txanpon beraren aurkia eta girbiñe, hain zuzen...

Eta itzul gaitezen lehengoari buruz. Ez da sobera sakondu behar gauzak hala emanik zer gertatuko den konturatzeko: ikastolari azpia jaten zaio, ezinezkoa bilakatzen da eta, finean, erre kara du jotzen. Helburu bakarra hori da.

Ikastola batez dituen korapillo latzak, kanpokoak zein barrenekoak, xuritzen joan behar dira, araz denak izanen dira arazo nagusiak, dudarik ez, bainan ez ikastola bera baino nagusiago, naski. Ikastolarik gabe ez baidago dagokion bestelako arazorik. Gure jokabide desberdin guztiek, beraz, ikastolaren aurreratzea, obekitzea behar dute helburutzat izan; gaur izaten ahal diren ikastola konkretu eta kutsatu bakarrak (ez gure

erruz alanzankoa!). Alde dagoenak orai eta horien alde erakutsi behar du, ez ametsezkoaren. Gainerako itz jario guztia gezur utsa da, faltsukeria besterik ez; nahiz euskeraz eta sasi–aurrerakoi itzez ornitua agertzen bada ere.

Urluak gure herri hau ez ote den ero–etxe haundi bat bihartu erran zezakean, eta errazoi puska bat baduke. Puska bat diot, hau dena ez delakotz ustegabetan gertatzen, “zerbaitengatik” baizik; badu bere zentzua, alafede.

Helburua garbi dago, bai eta erabillitako bideak ere. Guri da orai, zer nahi dugun jakitea. Hala jarraitzea ala baratza garbitzen ahalegintzea. Nahiago genuke amets txar bat balitza afera hau dena, bainan zoritxarrez ez da hala; eta itsuarena eginez ez dugu deusik ere konponduko, eta bai gero eta makurrago gertatuko. Penagarria da, bai, bainan bizitzarik nahi baldin badugu ez dago aukerarik.

Orduan bakarrik da berriz ere emankor bihurtuko azia.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1973, martxoa, 8. orr.

## IRURZUNGO LANTEGI BERRIA

Karrikan aspaldi dabillen berria, egunkariak eman dutena, gure industria gintzaren etorkizunean garrantzizko zerbait dena, zera da: Irurzunگو eskualdean kokatu behar den lantegi haundia.

Elkargo eta berri emaille ofizialek diotenez, hartan 6.000 milloi pezeta xahutuko omen dira, sos bat goiti beheiti, eta eginen delarik 800 bat langille aritzen ahalko dira. Heldu den udaberrian berean lotzekoak omen dira lantegi horren eraikitzeari.

Erranen nuke, industria-alorran oraiko berririk inportantenetarik bat, Irurzunگو lantegi berri hau dela. Bestea, Tudelan –ego aldeko Muskaria zaharrea– SKF deitu industria eraikitzen ari dena; alde batera utzirik hemen berean aipatu ditugun Lesakako lantegiaren emendatzen itsak.

Hain zuzen, aintzineko artikulo batean Lesakari buruz mintzatu ginen antzera nahi nuke, oraikoa, Irurzunگوaren inguruan gertatu beharko diren arazotaz ari eta solastatu. Lantegi baten eraikitzerakoan, dituzkean ondorioak aztertu eta moldatu behar baidira garaiz; zeren, gauza jakina da industria baten ekartzearekin ez dela benetako obekitasunik erdiesten baldin ingurua deramazkien egiturak eta arazoak aurretik taxutzen ez badira. Diputazioeak gauza bera zioen lantegi honi buruz erabakitako agirian; bainan hala ere, ez da sobera egonen, gu ere hartaz mintzatzea.

Aste astetik langillegoaren arazoa aipatu beharrean nago. Behin eta berriz erranik ere ez naiz aspertuko, dugun arazorik nagusienetako bat baideritzait.

Lehenbizik, eskualdeko jendearentzako izan behar du atera–bide, eta eskualdean jende gutisko egotea gerta ahal baledi, auzo ibarretatik segitu behar litzake: Basaburua, Imotz, Larraun, Ollaran, Goñibar, Ergoiena, Burunda, Oltza, Atez, eta abar. Finean, Nafarroa osoan. Zeren, Nafarroan jende aunitz dabilla lanik gabe, “geldirik”, (kontatu gabe kanpoan nafarrak millaka daudela), eta joko trixteegia izanen litzake etxean langillerik izaki kanporat joatea billa; trixteegia baino adarra jotzea, eta neholaz ere gertatu behar ez dena, nor baldin bagara behintzat.

Bainan hau dena, planifikatzen orokor baten barrenean baizik ez daiteke antola. Batetik, industria bat komeni zaigun ala ez jakiteko, hala–nola berezko korapilloen taxutzeko; bestetik, langille arazoi dagokionez, helburua zera izan behar du beti; nekazarigoa gaurkotzen etea teknikatzen arauera sobratzen doan jendea, industria–gintzari buruz ezitzea eta abiatzea; ahalik eta egokien, bai eta auste sobera haundik sortu gabe. Bestela badakigu zertan gertatuko garen; nekazalgora benetan gaurkotu gabea, industria subdesarrollatua eta orduan, nola ez, langille “erraz eta merkeak” kanpotik ekarraztea. Gure desarroloa ez dugu bide horretatik lortuko; ez horixe.

Eta itzuli gaitzen Irurzunگوari buruz. Ameka arrankura edukiko dute gaurgero afera hartan arduratzen direnek; ez da gutiagorako.

Lantegi bat ez da edonon eraikitzen, edo ez luke izan behar behintzat. Lantegien kokatzeko eremu berezi bat egokitzen ohi da, behar diren egiturekin (ur–bideak, argi–indarra, konduzioak, eta abar). Pentsa dezagun arri batez zenbat txori; gauzak behin eta gertu edukiz gero aise errazago baida eraiki behar dena taxuz egitea.

Horri loturik, etxe–gintza arazoa darraika; alegia, Irurzunen biziko diren iritarreri beren etxeak eskaini behar zaizkie. Hau ere ez litzake nola–nahika egin behar, usu, zoritxarrez egiten den bezala. Etxegintza plan baten barrenean taxutu behar da, eta egiten diren etxeek ahalik eta txukunen, ahalik eskualdeko etxe moldearen arauerakoak izan behar lukete; gizonak bizitzeko egokituak, ez erlategien antzera, etxe pilla luze, tzar, eskas eta desgizondu horietakorik. Ahantzi gabe etxe ingurua: jostatze lekuak, jardina, zuhaitzak, behar den zabaltasuna eta abar.

Zorionez, aurrera omen doa Irurzungo plan de ordenación urbana delakoa; berri itxaropentsua da. Gertatuko diren iri-emendatze eta zerbitzu haundiagoak aurretik pentsatzea eta moldatzea bide bakarra baida gizartearen obekitzeko; ez ameka bidegabekerien ondotik, gauzak bere onetatik ateraiak daudelarik; orduan egiten dena, gainerat, petatzu besterik ez da izaten.

Eskolategi arazoa ere, xurituxea omen dago; hor doa goiti Irurzungo eskolategi-buru haundia. Gauza batño bakarrik erants dezagun: badugu esperantxa euskera kontuan artuko dela aipatu eskolategi-buru horretan, aste-asterik eta sakonki.

Beste zenbait zertbitzu, aldiz, partikularzki sortuko diren borondateekin bete litazke, eta beteko dira segur. Bainan erranikakoak –gizartearen oinarriak– alde z aurretik taxutzen eta antolatzen asi behar dugu.

Ez bekigu Bizkaia eta Gipuzkoako iri askotan iragan dena gerta: iriak itsustuak uste ahala, ibaiak ustelduak, pozoinduak, mendiak larrutuak eta denen erdian itoa, gizona. Ez gaitezen, beraz, gure anaiak eginikako industriakatzearen desmasiak hala edo nola urratu nahiez dabiltzalarik, hots, egoera honetaz oharturik, ez gaitezen nioen, gauza bera egiten as. Tenorez gaudeno zuzen ditzagun urratsak, berantago asteak bere alderdi onik baidu: eta ikasten joateko, Europa ezagutzea besterik ez dugu egin behar, ez da hain urrun.

Ongi etorri izan bedi, bereaz, lantegi berria; bainan jabe gaitezen garaiz dakarkigun egoera osoaz. Orduan bakarrik izanen baida guztiontzako aberastgarri.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1973, urtarrila, 1. orr.

## LESAKAN GAINDI

Aski ongi dakigu euskaldunok non dagoen Lesaka iria; bai eta ezagutu ere Lesakaren xarma eta ederra. Aunitzentzako –ni barne nagoela– euskalherriko iri politenetarik da; politena ez bada.

Guztiok izanen dugu begien bixtan, segur, Lesakaren ikuspegia; bada, orai aldatu da. ifar aldean, pabelloi izigarri haundi batzu agertzen dira; ia herriaren bezainbateko zabalera artuz, haren itxura zeharo aldatzen dutenak. Bertako lantegi haundi baten emendioak dira, ampliazioak (Zalain–zoko auzoan egiterat doazinak aipatu gabe). Eta tenore da lot nakion gaiari.

Diotenez, hartan egiten diren produktoek salmenta haundia omen dute, eta lantegia –holakoetan ohi den bezala– goiti ari da. Hainbat non, hura haunditu beharretan bidaude; eta aipatu emendioak orai dauden guneak baino askoz haundiagoak dira.

Bertan, milla bat langille dabilta. Horien arten zenbait ekonomista, injeniur, perito eta bestelako tekniko; gehienak, langille xeheak dira, espezialista edo kualifikaziorik gabekoak. Ez da industria aurreratu eta moderno horietakorik, eta, beraz, ez du besterik behar. Segi dezagun aintzina.

Inguru hartan, denok dakigun bezala, orai arteinoko bizi–molderik edatuena eta abantxu bakarria nekazalgora izan da. orai ere, jende franko bizi da hartatik; bainan, industria hura irian kokatu zenez geroztik, egia da asko direla lantegian dabilzanak. Ez langille utsak bilakatuz; erdi nekazari eta erdi langille izanez baizik, aunitz behinik–behin; Euskalherrian zehar usu gertatu den antzera.

Bainan goazen lantegi horren haunditzeak dakarzkien ondorioeri buruz; batzu, lantegiak berak molda lezazkeanak; besteak, berriz, bestelako elkargoen esku daudezinak. Dugun ikus.

Deusetaz mintzatzen asi baino lehen, gauza bat. Nik ez dakit nola onartu den ampliazio horiek horren iriaren gainean egitea; izigarrikeria bat deritzait. Lesaka gaur egun itota bezala agertzen da; lantegiak itota. Karriken gaindi zabiltzalarik, non–nahitik agertzen zaizkitzu tegi izigarriak, iria irentsi nahiez bezala.

Dudik eta gabe, honek bakarrik Lesakaren itxura eta bizi–giroa zeharo ditu aldatzen. Eta barnago autsiki gabe itxura bakarrik baldin bada, nonbait hor!

Bainan hartaz, urregotarako ikastea ez ezik, guti egiten ahal dugu jadanik. (Konturatuz bakarrik. Zalain–zoko auzoan oraindik egin gabe dauden tegiak beharbada zuzen litazkeala). Eginak egin, goazen oraindik aidean dauden gauzeri buruz; izatekotan deus, haietan izanen baida.

Bururat datorkizun lehenbiziko gauza horrelako alimaleko tegi berrien ikustean zera da, nortzuk izanen ote diren langilleak; edo obe errateko nongoak. Orai artio millaren bat bazebiltzaten, haiek bukatzen direnetik goiti bostehun inguru gehiago beharko omen dira; eta hau, jendeketa gaitza da. Lesakarako sobera, segur; ez baida bertan lan egin dezakean hainbeste jenderik. Hortik arestion aipatu kezka. Eta afera honek ezinago garrantzi haundia du guretako, hain gara herri ttipia. Lehen ere aski axolagabe izan gara afera hautan Bizkaia eta Gipuzkoan, orai berdin asteko Nafarroan. Ehunka etortzen bazaizkigu kanpotik lanketa, gu bai suntsituko garela, eta ez lanak itota preziski.

Egia erra, afera hau ez daiteke asieratik baizik molda; ibil–bide jator batzu eta finkatuz. Hori da egin beharko litzakeana beti; bainan, berant badaberant, orai ere zerbait egiten ahal da. Bidasoa eskualdean aski jenderik badago lanik gabe dabillena, edo kanporat jo behar duena egurketa, serbitzari gisa eta beste suertez. Nafarroa osoan zer erranik ez.

Bestalde, nahiz kualifikazio maillak ugariak ez izan, lantegi horretan beharko diren tekniko eskasak eskualdean bertan aurki litazke. Hango gazte aunitz Irun alderat baidoazi tekniko eta administrabibo ikastetxetarat; bai eta Beran eta Elizondon dauden eskola profesionaletarat ere. Horra jende sailla jabetua, ezitua; han lan egin lezakeana.

Eskualdearen aberasteko baldin bada, ez du bestela izan behar; eta nahi izanez gero, hori atxeman daitekean gauza da, puska haundi batean. Lotsatu gabe lau birigarrok azalduko dituzten betiko lelokin; lanak denentzako behar lukeala izan, “gizonen eskubidea”, eta abar. Ongi dakigu gero horrelakoen azpitan zer–nolako ezpata datzan; gizonen eskubideak denek omen dituzte, denek, euskaldunok salbu alajaiña!

Garrantziko gai honi bukaera emateko, derradan bakarrik herri guztien kontu haunditan duten arazoa dela; aski da behatzea nola zaintzen dituzten mugak eta jende–sartzeak (kolore batekoek zein bestekoek). Bada guk –betikoa– are kontu haundiagotan behar dugu ibilli.

Bainan goazen aintzina, kezkak ez baidira han bakarrik gelditzen.

Garbi ikusten da Lesaka aziko dela. Alde batetik, haren ugaltze normala dela medio; bestetik, jende sail bat gero eta gehiago Lesakarat joanen delakotz bizitzerat. Honek finean, zera erran nahi du, etxalde berrik eraiki beharko direla. Gaurgero egin dira illun eta itsus horietako batzu; bainan ez gehiegi zorionez. Oraindik Lesakak Lesaka izaten dirau. Bainan eraiki behar direnak egiterakoan, kasu. Lehenbizik, ezinbestezkoa da urbanizazio jator bat antolatzea; eta horretarako badakigu ameka arazo artu behar direla kontuan (atzendu gabe naturaleza zaintzea; Onin, hain erreka garbi zena, pozoindurik heldu da jadanik). Hura antolatu eta gero, etxe txukunen eraikitzeke, badute arkitektoek eta kontratistek non ikus, bai eta zer ikas ere.

Gure indar eta ahaleginak hortaratzuz, gure esku legoke zerbaiten erdieste; alegia, Lesaka iri its eta zatar horietakorik ez bilakatzea. Ez litzake guti alafede.

Gutienez, eginik dago herrian barna sartu gabe zorioneko errebidetuz; bidenabar, Oihartzunerakoa dena. Beharrik, zeren, oraintsu artio bezala karrikak errebidetuz, giroa pozointzen zoan, arrabotsa eta zikina goiti, eta bake eta osasuna beheiti; ez lasaitasunik, ez eta haur–jostaketarik ere. Honek, nere iduriko, premia bizia zuen.

Bestaldetik, jendearen ugaltzearekin baterat etxerik ez ezik, suerte guztiko serbitzuak ere haunditu eta egokitu beharko dira; eskolategitik aste. Eta honi gagozkiola, arazo larri bat: noizko ikastola? Euskeraren etorkizuna nehun baldin badatza, pedagogia–bidetan baida.

Eta bukatzerat noa. Dakusagun bezala, aski lanik badago egiteko; segu gaude guk baino obeki dakitela lesakarrek, bai eta haien denen xuritzeko izanen duten buruausteen berri ere. Dudik gabe, Lesakaren aintzinatzea eta aberastea, nehundik helduko bada lan eginez izanen da, eta hori bakarrik lesakar guztiak arduratuz eta elkargoak uztarturik arituz lanean gertatuko da. Hori da benetako ekintza; uste baino askoz aurrerakoi eta sakonagoa litsuaren eginez ez da deus aurreratzen, naski, eta bai aunitz gaitzen; ohart gaitzen tenore deno. Bestela hainbat gaixto zure, Lesaka; hainbat gaixto gure.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1972, ekaina, 8. orr.

## MINTZAIRARI BURUZ (I)

Joan diren azkeneko sei artikuloetan, batasunari buruz solasean arituz gero, egun (nahiz gauza asko aipatuak izan jadanik), mintzairaren soziologiari doakion zenbait ikus-moldetaz jardukitzerat gatozi. Bateon batek, berriz ere betiko telekarekin natorrela erran lezake. Eta arrazoirik duke. Bainan gauza bati ohar bedi: ibaiaren beste ertzean, ideiak eta gauzak ez dituztela amar aldiz erraten, ehun milla bider baizik. Ur horrek bere bidea egiten duela. Eta guk, benetan nahi baldin badugu zerbait erdietsi, ahalik eta sakonkien finkatu behar dugula gure joera. Nahiz aspergarria iduri.

Zeren, jende franko dabilla euskerari buruz lan egiten. Eta hori, arras ongi dago, naski; bainan, egia erran, ez gara gure jokabidea tinko oiñarriturik egon dadin sobera axolatzen. Nere iduriko, guretako hain larritasun haundiko tenore honetan, ezin-bestezkoa dugu mintzairaren garrantziaz jabeturik egotea. Gero gure inguru-minguruan entzun behar ditugun lau lelokeria direla medio, nahasketa gaitzarik gerta ez dakigun.

Saia gaitzen, bada, zerbaiten argitzen.

Gizona ez da batzuek uste bezain gauza ximple eta abstraktoa. Gizona konplejoa da. Erran nahi baida, gizona ez dela eskuin aldetatik gorri, eta beltz ezkerretatik; demokrata ordu pare batetan, eta anti-demokrata bestetan. Hau dena, ezin daitekeana da. Nahiz batzutan bestetan baino gehiago sena bat ageri; gizona, bat delakotz. Berdin eskuinetatik, nola ezkerretatik. Eta ez da lehenik gizon, eta euskaldun bigarrenik; lehenik itz-dun eta bigarrenik adimen-dun ez den antzera. Den guztia, konplejidade eta zailtasun oroen barrenean, memento berean baida. Erran genezake, aldiaren aldiko eta lekuan lekuko gizon berezi eta mamitua dela.

Hain zuzen, gizona berexi eta zatitu nahi duen ideia bitxia, burjes-ikus-moldetan bazkatzen da. Sozialismoarendako, aldiz, gizona bat da; bereixten ahal ez dena.

Bainan segi dezagun aintzina.

Gizona beste gizonakin bizi da. Soziologiari behinik-behin ez dakioke uharte batetan beti bakarrik bizi litakean gizon baten egoeraren aztertzea. Hori, besteak beste, "ciencia ficción" deitzen dena dateke. Gizona, beste giza-kidekin artu-emanetan gizondu egiten da; eta horrela doa gizartea osatzen. Eta gizarte bati funtsa ematen dioten artu-emanak, lanarekikoak dira. Lanaren egiterakoan sortzen direnak, alegia. (Ohar, funtsa erraten dudala; eta ez artu-eman bakarrik). Bainan, lanakin baterat gizonen artean sortzen den lehen gauza -alabeharrezko lanabesa bezala- mintzaira da. Kontura gaitzen gainerat, zenbat mende, zenbat kondizionamendu iragan behar izan ziren, gizonak mintzaira bat sortu ahal izateko; eta sortuz gero, aberasteko, egokitze.

Gizonak lana sortu du; eta lan egiteak pertsonaren sena eta nortasuna du mamitzen. Egia erran, lanaren zatiketa eta jabego pribatua deitutakoak gertatu ondoren, jakin ere badakigu prezeso hori, tamalez, ez dela osoki erdiesten. Hala ere, nolabait adierazteko, gizonak bere buruaz duen kontzientzia gero eta ornituago dadukala erran genezake.

Orduan, kulturarekiko behar eta lanak asten dira sortzen; horien artean, mintzairari buruz gagozkionez, izkuntzarekiko ikasketak, literatura, eta abar. Baina, kultura (delako kontzientzia beste itzetan errateko), ekonomiko-politiko-historiko arazoeri lotuta dagoen mailla da. Guztiek zer-ikustekorik haundia beren artean dutelarik; berexi ezin direnak. Horrengatik, jakintza-behar horiek, ekonomiko maila batzuk erdietsiz gero agertzen dira. Ez lehenago, ez geroago. Hain zuzen, behar haien betetzeko ahalmena posible delarik. Bata bestearen ondorio eta era berean itur-buru baida.



Gizonok, kondaira zehar, honelatsu gabiltza; eten gabeko igiduran.

Bainan goazen berriz ere mintzairari buruz.

Mota desberdinetako soziologo aunitz, ados datozi puntu hauetan: mintzaira ez dela –zenbaitzuek uste duten bezala–, gizonek elkar konprenitzeko bitarteko gauza ximple bat bakarrik. Izkuntza, kulturaren funtsa eta errorik nagusiena dela. Eta kultura, mundua bizitzeko era sakon bat. Mendez mende aberasturikakoa; eta beti osatzen, aldatzen doana. Bestalde –erraten da–, mundua kultura desberdinetaz beterik dago; eta hain zuzen, horretan datza haren edertasuna. Zeren, egia bada izkuntza bat nagusitzen doala, guztiok gero eta gehiago ikasi behar duguna –anglesa– bai eta egia da ere, horrek ez duela lekuan lekuko jatorrizko kultura berezirik ukatzen eta deuseztatzen. Ez eta gutiagorik ere. Aitzitik, dauden desberdintasuna, mantendu eta suzpertu egin behar dira; horiek baidira gizatasunaren benetako aberastasuna.

Anko Sendoa

Principe de Viana, 1971, martxoa, 6. orr.

## MINTZAIRARI BURUZ (II)

Zenbaitzuek, euskeraren egoera larriari buruz, ez gindezkeala hainbeste axolatu behar erraten dute. Azken finean –diote– berdin litzake izkuntza bat nola bestea. Erran nahi baida, “bat” ezin denez gero, “besteak” behar duela derriorez izan. Eta “bestea” badakigu zein den.

Garbi asko dakusagu, bai, horrela diotenen “social”–sakontasuna eta pikaren azken umea berdin direla. Gainerat, katu horrek badu beste buztanik. Zeren, horrelako “ergelkeriak” erraten dituztenek izkuntzari –normala den bezala– garrantzi handia ematen baidiote (nahiz besterik adierazi). Bainan, beren mintzairari naski: ez besterenari. Beste itzetan: beren ekonomiko–politiko–kultural egoerari. Horretarako, sasi–unibersalismo–z dira jaunzten, uniformidadea baizik billatzen ez dutelarik.

Lehengo egunean ere, uniformidadea aipatzen genuen; eta ez ahantz gero, uniformidadea nahi duena burjes moldea dela. Egiazko sozialismoa, aldiz, gizonak jatorrik diren bezala izan daitezenaren billa doala.

Bainan lot gaitezen mintzairari.

Izkuntza bat ez da bere kabuz bazkatzen; are gutiago bizitzen. Izkuntza bat gizonek dute bizi–erazten. Eta gizonak –mendeak zehar– elkarren arteko borrokan kokatzen dira. Mintzaira baten indar eta ahultasuna ez doakio, beraz, izkuntzari, gizonen arteko egoerari baizik. Eta ez dira hiltzen, suntsitzen ala bizitzen, berez itsusiak, zaillak ala antzeko zerbait direlakotz (naiz zer–ikustekorik eduki, naski); gizonen arteko gora–beheren arauera doazilakotz baizik. Hots, baldin ekonomiko–politiko–kulturalak direla medio.

Hau dena gogoan ekukiz gero, konpreni genezake batean erraten genuena. Alegia, gutartean nahas–bidetzat aipatzen eta moldatzen direnak, izkuntzaren barrenetikako problemak direla. Euskera ez zela “mintzaira”, edo–ta Unamunok ziona: “mintzaira” bai, bainan ez aski egoki eta aberatsa egungo eguneko gizarte batendako, erraten zukutenetik asi eta, egungo “atzerakola, burjesa, garrantzirik gabeko gauza” eta horrelatsukoak artio. Bitartean, gure herrian gertatzen den mukurrainoko erdera sartzea lagunduz.

Bainan, orai artio ezarrirako trabetan ez gara deplauki behar–topatu; denbora franko galdu izan arren. Orduan –alabeharrez–, zerbait sakonagorik aurkitu behar zen. Lilluragarriagorik. Eta euskerari buruz gabiltzanez gero, amurik egokiena, euskera bera da. Areago, euskeraren batasuna. Euskaldunok, euskera biziko bada, nahi–eta–nahi–ez ibilli behar dugun bidea. bada, batzuek “batasuna” itzetik ortzerat derabillate; bainan ez haren konplejidade eta zailtasun osoan; “zenbait” gauza aztertu eta salatu beharko baiziren; eta hori, horrelako sasi–aurrerakoieri ez zaie nehundik ere komeni.

Bestalde gainerat, badute “zer–gerta–ere”–ko arrazoirik. Horien artean hauk: alegia, euskaldunek euskeraz ikastea, tira! (ezin ebita daitekealakotz; ahalik oztopo gehien paratuz; eta gainerat, gertatzen ez den gauza), bainan neholaz ere erdaldunak; eta oroz gaineratik –diote– kanpotik heldu zaizkigunak. “Gizonen eskubideak dirala” eta, guk ez omen dugula horretarako dretxorik (batzuek, “gizonen eskubideak” eta “bereak” beti datozi bat. Zer kasualidade!).

Helburu bat besterik ez dagoelarik (euskeraren hiltzea), dena da, bide batetik ala bestetik, itxurazko kezka bati buruz ibilli–eraziz, jendea benetako problemataz kontzientzia ez dadin; eta horrela geure bideari uzten diogun. Bortxara ezin baldin bada –eta deplauki ezin da– oztopo–ideiarik sortu behar da. “Ezker”–kutsukin. Zeren eta, zenbatenaz eta “ezkerragotik” heldu, hanbatenaz eta sarkorrigo baidateke ziria.

Nehork ez beza pentsa, nik horrela izan dadin nahi dudarik. Aillekitza horrelakorik ez balego! Bainan betor benetan borondate onekoa dena; emanen baidiogu bere nahikundearen frogatzeko aski lanbiderik.

Zorinez herriak –funtsean– ez dio oldar horri zakurraren eztulari baino kasu gehiago eman. Hala ere, ohartu behar ginake honi: txarrena ez dela batzuek hura erratea eta billatzea. Horrelako oldarrak badirelakoan egon behar baigenuke aspaldian. negargarriena da, euskaldunak amua irentsita, lanari eusteko ahalmenik gabe sineste horretan gelditzea. Eta irensten ez badugu ere, amu guzti horiek gainditu nahiz, beti egundo munduko demostrazionerik egiten ibilliaz, beste puntatik bainan marro bertan behaztopatzea. Bitartean (eta gure bitarteak luzeak dira gero!), ez baidugu benetako aintzinerako urratsik ematen.

Zorigaitzez hau, usu xamar gertatzen da gutartean. izan ere, hementxe gabilitza aunitzetan, jo eta kea, ahuntzaren gauerdiko ametsak urratzen. Horretan tematuz gero, nor litakean garaile, garbi baino garbiago dakigularik.

Borroka zail eta arras konplejoa da; eta gutien uste lekuan erbia dago lo. Iratzarri behar gara, beraz, jokaeraren mamitzeko. Gure nahia goizeko intza bezalaxe izan ez dadin; eguzki pixka bat ateratzen duten bezain fite suntsitzen dena.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1971, apirila, 6. orr.

## NATURALEZA (I)

Aurten, **Naturaleza urtea** ospatzen da. Alde guztitak ari dira aipamen eta egintza gero eta sakonagoak agertzen hari buruz, eta, denok dakigun bezala, munduaren kezka nagusienetarik bat bilakatzen ari da. Hainbat non. **Onu** elkarteak berak biltzar berezi bat eratu baizuen duela denbora guti Stockholm irian; gai hartaz egiten den lehenbizikoa, eta garrantzi haundikoa. Noizbait ere konturatzen asiak gara lur hau ez dela hain haundia, eta are gutiago hain agortu ezina; hots, ongi zaindu behar dela.

**Bainan zein da naturaleza itzaren erran-nahia? Zerika ari gara hura aipatzean?** Jeneralean, oso zentzu bakarra ematen baizaio (mendiak, errekek, eta abar), eta ez da horrela. Badira, konparazione, bizitarik gabeko naturalezak, bai eta biziduna ere. Hauen artean, mota askotakorik: landareak eta zuhaitzak, arrainak, arrak, abereak, eta indartsu eta eraginkorrena, gizona. Bestaldetik, gizonek berek menderen mendetan sortu eta egokitu gauza guztiak ere, naturaleza dira, araz.

Bada, ikusten dugunez, nahiz elkarren artean arras desberdinak izan, munduan dauden gauzak oro naturaleza mota bat direla erraten ahal dugu. Delako desberdintasuna, ez baidateke naturalezaren osotasunean baizik ikus; mota guztien artean eten gabeko borroka bat dabillearik, borroka eta gisa berean ezinbestezko oreka. Hain zuzen gizatasuna, gizonen eta bestelako naturalezaren arteko borrokaren bidez da sortu eta egokitzen joan.

**Zer litzake gertatuko, beraz, naturaleza mota batek bere egintzen bitartez espezie guztien arteko oreka sakona zapuztuko balu?** Batek daki! Bainan segur aski okerrena; zientifikoek diotenez, munduaren aro-biologikoa autsiz gero –eta oraiko martxan agudo puskatuko litzakealakoan (dugulakoan) daude– bizitasunik ez litzake posible izanen. Hortik kezkatzen astea gizatasuna, eta biziki gainerat, etorkizuna ez baidago hain garbi; eta hortik ere, salba-bideak gaurgoitik finka daitezen gero eta suitsuago eskatzen astea. Ez dadin berantsko izan!

Egia erran, hastapenean egonagatik ere, naturalezari buruz konzientzia edatzen eta asten doa egunetik egunera. Zenbait erresumatan, ministerio aproposa bat antolatuta dute jadanik; eta leku aunitzetan ari dira naturalezaren aldeko elkargo eta mugimenduak sortzen.

Besteak beste, Nafarroan ere badugu halakorik, **Anan** deritza, eta, denbora laburrean gauza baliosik erdietsi du. Industrializazio asi bezain fite, horrelako elkargo bat sortzea seinale ona delakoan nago. Nere iduriko, askotan aipatu dugun giza-koordinazio jator eta egokia posible izan dadin, holako elkargo batek sarrerik izan behar luke iri-gintza eta industria sailen erabakitan. Bainan itzul gaitetzen lehengoari buruz.

Aipatu konzientzia, beti gertatzen den bezala, herri aurreratuenetan lehenbizik da azaldu eta mamitu. Honek ez du erran nahi, alabainan, herri haien arazoa denik bakarrik; ez eta nehundik ere. Problema gaur egun, mundu osoarena da; tokian tokikoa. Naski, bideak obekien urra eta landa lezazketenak harri haiek dira, eta puska haundi batean hala behar duela izan erranen nuke.

Horri buruz, iritzi intresgarri frango azaldu ziren lehen erran Stockholm'eko biltzarrean. Alde batetik, batzuk erakusten duten bidezko beldurra; aitzakia-maitzaki arrain haundiak ez ote duen ttipia janen, alegia. Eta bestetik, haundiak arazoa xurituko duelakoan –derriorez jatorra izan behar duelakotz edo– ttipia dagokion neurrian ahalegindu ez.

Nire aburuz auzia arestion erran dugunan datza: lekuan lekuko afera. Bainan horretarako, aunitz ezitu behar dago, eta erroti asiz gainerat. Honi gagozkiola, gauza batño erants dezadan xoilik. Industrializazio modernoan antzera, naturalezaren zaintzea

ere ezin baztertu da demokraziaren zentzu orokor eta sakonetik; hartan baida oinarriten eta posible izaten. Bizi–eziera osoan datzan. Benetakoa izateko, ez daiteke bestela izan.

Bestaldetik, zenbait naturaleza–zaleen artean, badago joera bat arras berezia; ikus dezagun.

Batzutan, urliak sekulako nahia agertzen du espezie arrado baten gordetzekoa. Buru–belarri lotzen zaion egintza horri, eta baldin espezie delako hartan basakeria ala hilketaren bat gerta baledi, sutan eta gehiago paratzen da. Eta hori ongi dago, dudik eta gabe; bainan ez, naturalezaren aldeko zaletasuna hartan fini bada. Hori ez baida naturaleza osoaren aurkako joera estaltzea baizik.

Benetako zaleak ezin ahantzi du naturalezaren orokortasuna, eta gizon ere naturaleza, eta gizona ere naturaleza mota bat dela, nagusiena hain zuzen. Eta usu, espezie arrado haren izaki baten hiltzearen ondoan, herri bat osorik suntsitzer dago; hil zorian. Erran nahi baida, naturalezaren aldeko zaletasun jatorra, eta benetakoa, haren espezie guztien aldekoa da; eta batez ere, gizonarenganako. Bainan tokitan gaude!

Aski ongi dakigu bai, ez dela oraino gizonarenganakorik sortu. Gizatasunak ez duela alabeharrezkotzat jotzen, esate baterako, euskaldunok euskaldun izaten iraun dezagun; berdin beste ameka herri eta jende motakin. Duen garrantziaz ez da sobera axolatzen; begiratzea besterik ez da egin behar, munduan zehar zenbat eta zenbat herri dauden hiltzer, ez duelarik gizatasunak deus taxuzkorik egiten haiek bizi daitezen, aberastasun ezinago haundiak izanagatik ere.

Bainan jauts gaitezen lurrera; jokabideak gidatzen dituen ez baida ongia, egia ala eskubide zuzena (nahiz urratsik ematen ari den horren alde), indarren arauerako legea baizik. (Stockholm’eko billera bera lekuko). Hori ikasi gabe, ibilli ere ez daiteke. Guri gertatzen ohi zaiguna, konparazione; amets amultsutatik iratzartzen garelarik dinbi–danbaka gabiltza ordiak antzera, asmatu ezinik zer ote den gertatzen, edo–eta zergatik ote diren hain gaiztoak gure etsaiak...

Honekin, atekatatik ez gaituela nehor aterako erran nahi dut. beraz, naturalezaren aldeko alor honetan tokatzen zaigun lehenbiziko afera zera da, gurean tematzea euskaldungoak bizirik iraun dezan.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1972, uztaila–abuztua, 1. orr.

## NATURALEZA (II)

Lehengoan, natura gaia dela medio, gizatasunak gizonarenganako duen konzientzia ahulaz mintzatzen ginen; gizatasuna alor horretan, oraindik arras gibelaturik dabillega. Behar bada, gure elkarrekilako abiadura honetan, ez gara oraino egoki litzakean pundutara heldu; agian, horretarako kondizionaleak ez direlaketz oraindik behar lutekenak. Dena den, indarren aginpean bizi gara eta hola gaudeno, indarrak du agintzen eta bide egiten.

Bestalde, gizatasunaren kondairan ikusten dena, zera da: zerbait edo norbait beldurgarritzat artzen da, gure eskumenean ez delarik, guretako zema bat delarik. Edozein pizti haunditaz pentsatzerakoan desiratzen dena, konparazio baterako. Garai batean –eta gaur ere bai– edozeini galdegin izan balekiote zer zeritzaion halako edo holako basapiztia, beldur eta ikara besterik ez zukean erakutsiko segur aski, bai eta deusetarako balio ez zuelakoan, oberena, hiltzea izanzen litzakeala erran ere.

Gaur egun, nahiz oraindik horrela pentsatzen eta aritzen bada ere, dadukat pittin bat bedere obekitu eta aurreratu dela arazo honetan. Piztienganako hil–nahia ematu da, ttipitu; bainan puska haundi batean, gizatasunarendako haiek eraile beldurgarriak ez direlaketz gaurgero.

Bainan, oraintxe berean ere, da gizatasuna ohartzen nahiago duela pizti haiek bizirik egon daitezen; gehiago galtzen duela akabatuaz, bizirik edukiaz baino.

Behar bada, hala behar du izan horri buruzko giza–konzientziaren azi eta eziera, eta lehen erran dugun bezala, agian, urrunsko gaude oraindik gizonenganakoaren erraren gairidizetik. Hala ere, piztiekin gertatutakoa ikasbide ederra litzake gizonenganakoari agudoago urbiltzeko. Ez bekigu berantegi ohartzea gerta, ameka pizti motakin antzera: jo eta auts hainbeste eta hainbeste suerteko bizidunik suntsitu eta mundutik lekutu ditugunean, berant delarik, damutzen dugula. Eta denok gaude gizona edozein pizti baino pixka bat gehiago delakoan.

Hiltze eta suntsitze honi nagokiola, ezin utzi dut aipatu gabe euskaldun askok ehizetarako duten zaletasun berezia, nahiz bide labainkor batetik abiatzen naizela jakin; bainan gure gizartean nork nahi ikus dezakean joera nabariari buruz baizik ez naiz mintzatuko.

Delako zaletasuna, beste herrikin konparaturik haundiago ala ttipiengo denetz ez dakit, bainan, nola nahi dela ere, ez gara, segur, azkenekotarik izanzen. Ez baidut uste gizarte aunitz izanzen denik honenbeste ehiztari porrokatu dituenik. Zergatik ote?

Agian, uste baino herri primitiboago garelaketz oraindik; nekazalگوak modu nagusia bezala atzo artio iraun baidu gutartean. Eta denok badakigu gizarteak antziñan, besteak beste, ehiztariago zirela alabeharrez. Hortik behar bada derabillagun ehize–zaletasuna, bainan deritzait kakoa ez datzala horretan bakarrik.

Deritzait, ehizearen bitartez gure gizartearen ameka uts–egiteen ondolikako borroka–nahi eta indar doazila; hartan urtzen direla. Ez da hain arrigarria, naski; mendez mende pillatutako uts–egite orokorra nonbaitetik ustu behar baida, eta batek daki zer gisaz den usten! Bainan, laster asko konprenitzen da begien aurrean paratzen den bizidunik –berdin basurde, azeri, zozo nola kukurik ere– garbituaz, ameka gorroto eta erra sakon lasaitzen direla; ohargabeen naski.

Ez dut erraten, haatik, aipatu zaletasuna hargatik xoillik denik; ez. Bainan funtsean zer–ikustekorik haundia duela ezin uka. Hemen dagoena, nire aburuz, ez baida zaletasun lasaia, sport gisa artzen den jostaketa patxarotsua, amorrazio ezinago bizia baizik; hil–beharra itsua. Batzuegan bereziki.

Beste ameka ibil–bidetan bezalaxe, zorigaitzez, honetan ere giza–indarrak puska haundiegi batean alferrikako egintzatan xahutzen ditugu; eta alferrikakoak bakarrik baldin badira, nonbait hor!

Behin baino gehiagotan erran duguna berriro ere aipatzera noa, alegia, gure ahalmenak behar den toki eta modutan erabiltzen saiatuko bagina, oillarrak beste kukurruku joko ligukeala. Bainago ez garela behar bezainbat konturatzen zenbaterainoko zer–ikustekorik duen harek gizartearen bizitzan; gure egoera kaskarrak guztien behar haundia du eta. Bainan hau, ez dagokio ehize–zaletasunari bakarrik.

Bada, gure ahalmen eta indarrak gizartearen behar sakoneri buruz zuzentzen joatea, gizartearen eziera–osoaren barrenean baizik ez daiteke erdiets. Izan ere, gizatasunak eten gabe billatzen duen helburua da; ez baida ahuntzaren gauerdiko eztula!

Alor honetan ere, beraz, franko lanik badago egiteko, eta ez litzake guti izanen alajaiña, konzientzia pixka bat artzea beraueri buruz. Gure unetan, dena eskas.

Eta bukatu baino lehen itzul gaitezen asieran aipatu dugun gaiari buruz. Pizti eta egaztinakin –berdin arrainak, arrantzaleeri dagokionez– oreka egokian bizitzeko eman behar diren urratsetaz, oraindik deus guti axolatu da gizatasuna, eta tenore da as gaitezen. Egia erran, gutarteko ehiztarien elkarteren batzuk, naturaleza eta orobat piztien defendatzaile jatorrak dira; batzutan, jator eta amorratuenak.

Hala behar luke denetan izan; zeren, pizti eta egaztinen aztarrenik ere izanen ez zelarik, nola izan ehiztari? Eta gizatasuna bera ere daitekean gauza izanen ote litzake?

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1972, iraila, 1. orr.

## NATURALEZA (eta III)

Joandeneko lumeroan uts-egin ondotik, Auritzeko besta zela eta, heldu naiz berriro idazten ari nintzen saillari bukaera emateko asmoz.

Oraiko honetan, natura eta industriaren arteko zenbait gauzetaz mintzatu nahi nuke; gutartean, askotto entzuten baidugu naturaren zaintzea eta gizarte-aziera elkarren kontrako eta aitzitikakoak direla, edo-eta gurean jasaiten dugun natura larrutze izigarria, desarroloaren ordaina dela... Eta hor -gizonen bizi-inguru guztia desnaturatuz erdiesten dena- izanen da nahi dena, bainan benetako desarroloa sekulan ez. Ala ekonomia eta gizona ezin bereixi direla argitu beharrean ote gabiltza oraindik?

Eta tenore da lot gakizkion gaiari.

Orai arteinoko industriatze xixtimaren barrenean, gizonen betidaniko behar nagusi batzu (naturalezakin artu-eman estutan bizitzea), zeharo baztertzen ziren, gure egunak artio mantentzen delarik egoera hura. Bainan XXgn mendearen erditsu aldera, munduko zenbait lekutan bereziki, beste lan-modu berri bat da sortzen eta azten, eta harekin batera, joera berri eta aurrerakoi bat ere bai. Hala ere, lan-modu berri bat da sortzen eta azten, eta harekin batera, joera berri eta aurrerakoi bat ere bai. Hala ere, lan-modu baten ondorioak ez dira gauetik egunera suntsitzen, ez eta beste berri batenak supituki agertzen ere; bixtan da.

Dena den, batere zalantzarik gabe erraten ahal da gizonak ezin zuela gehiegi irauin orai artio bezala, berezko jatorria galdurik: mendiak larrutzen, errekek eta ibaiak pozointzen, giroa zikintzen eta gizona, haien denen erdian, deus gertatuko ez balitzaio bezala. Ez, ez zitakean hala segi, eta gaur egun, zorionez, iratzartzen goazela dirudi; hura, eguneroko eske eta exijentzia bilakatzen ari da munduan zehar. urrun dira, eta ongi urrundua gero, "aski du gizonak etxe (tzar) eta ogia (xumea) erdietsiz" bezalako ideia eta joera atzerakoiak...

Hortik ere, iritzi berrik hain ugari agertzea aspaldion irigintzari buruz konparazione, iriak, alegia, gizonak bizitzeko direla, gizonen menpe egonik haien aberatsgarri eta onerako, eta ez egunero dakusagun bezala gizonen futitzeko. Gainerat mundua, etxe tzar eta desegokik eraikiz ere larrutzen eta zikintzen da, eta nola!

Eta iri-gintzari dagokiona, gainerako giza-gintza guztieri dagokie. Bainan auzia, xixtima zaharkitu honen gainditzean datza. Industria-gintza engoiti anarkiko xamarra izan baida, hainbat lantegien kokatze eta eraikitzeari zegokion aldetik, nola produtzitzeari zegokionetik. Giza-moldaketa eta kordinatzearen antzekorik ere ez zegoen... Bainan goazen lehengoari buruz.

Orai artio naturalezaren ekai eta iturriak agortu ezinezkotzat jotzen ziren; ez zegoen, beraz, zertaz kezkatzerik. orai, aldiz, besterik ari da ikusten. Alde batetik, ekai haiek ez direla agortu ezinezkoak, eta bestetik, haiek akituz gero bizitzarik ere ez litzakeala posible izanen.

Dirudienez, sortzen ditugun suerte guztiko ondarrak, lurrari beharrezko dituen neurri eta eratan itzuli behar zaizka; munduaren berezko oreka ez galtzeko, bizitzaren aroan sartu beharrak dira. Jakintsuen iduriz, horretan omen datza kakoa.

Gauza bera zuhaitz eta landareekin; derriorezkoak dira delako oreka horretan. Aise ongi dakigu haien egiteko bat zein den: óxido de carbono deitua xurgatuz, oxigeno dute bihurtzen eta, jakina, oxigeno eskeintze hau baitaezbadakoa zaio munduari (edo obe errateko, zaigu). Hori, zuhaitzen beste ameka balio eta zer-ikustetan sartu gabe. Aise xilatzen ahal da, beraz baso eta oihaiek ez daitezkeala halakoikala erauzi eta bota, neurri egokia gorde behar dela, eta hau, puska haundi batean, lekuan lekuko afera da. Bainan tokitan gaude!



Hemen deus berririk egin behar dela asmatzean bakarrik, lehenbizik zuhaitzak botatzen dira, bada–ez–bada–ere; egin eta ondotik, miaz, ez zela hain beharrezkoa botatzea gertatzen delarik. Edo–eta, beste edozein aitzakia dela bide, urte pilla duten zuhaitz eder eta lerdenen truk, arbol tzar batzuen landatzea, usu jasan behar izan dugun bezala. Bainan zertarako segi! Halako basakeriak makiña bat aldiz ikusitakoak baigara.

Bada, alor hautan denetan, gutartean aspaldi honetan gertatu ohi dena lotsagarria eta abantxu sinetsi ere ez daitekeana izan da. Nahiz bizitza bera ere batzutan zalantzan gertatu (ur eta usain pozoinduak, auts hilgarrik, eta abar), haietaz ez gara sakonki arduratu. Haren frogatzeko aski da gure herriaren alde hortatikako egoera negargarria behatzea.

Naski, agertzen dira bai haiek denak industria eta desarroloaren ondorioak, “ordainak”, direla erraten dutenak; benetako kakoa, hain zuzen, ixiltzen dutelarik: industrietaren ondorioak direla bai, bainan industria “sub–desarrollatuenak”. Jende etortzearekin sinest–erazi nahi izan diguten bezala...

Dudik gabe, uste baino lozorro itsuagoan murgildu gara, zein egoera itsan gertatzen gindoazen ez konturatzeke, eta badakit dena ez zitakeala bazter, bai eta gure bizkarretan atz sakonak gelditzeko paradan ginaudela –eta gaudela– ere, bainan ez erra, otoi, ezin erdietsi zela deus ere, inahal sakonik ez dugu egin eta.

Behin baino gehiagotan erran izan duguna: gure nahikari eta indarrak zentzuki, zuhurki mugatu eta abiatu beharrean, ametskerietan ibilli gara. Politika aizatuz metafisika utsa bihurtu zaigu eta, egunero gertatzen direnak, gizonak ondo–ondotik bizitzen dituenak, ez ditugu aintzakotzat artu. Ohartu gabe zein gehiegisko abiatu eta abiatzen garen ahuntzaren gauerdiko ametsen urratzeari buruz.

Aski kaltegarri eta lanjeros da joera hori, bai eta auzi nahiko garrantzitsu eta premiazkoa ere, jostaketan eta alferrik denbora gehiago galtzeko. Munduan zehar pasatzen ari den bezala, guri ere naturalezarena esna–bide izatea gerta bekigu; benetako desarroloari datxikon konzientzia sakon eta eraginkorra atxemanetz, eta aurrerapenaren oinarri nagusi den giza–kordinatzeari tenorez oharturik.

Guri, nafarro, zuzen–zuzenki dagokigun auzia da, industrietaz–gintzan baigabiltza oraintxe; eta naturalezaren zaintzea eta gainerako giza–aurrerapenak, gaur egun, harek baizik ez lezazke ekar. Ohar gaitezen ahalmen duguno, gure etorkizuna, finean, hartan baidatza.

Zer gutiago erran Natura–urtearen ondar illabatean?

Hainbeste desmasia eta basakeria egin ondotik, azken fineko galtzaille bakarra gizona bera dela, oraintxe konturatzen asiak baigara...

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1972, azaroa–abendua, 1. orr.

## PEDAGOJIA (2)

Lehenkoa, gure pedagogiaren urrats jeneralak aipatzen genituen. Bukatzen genuen, gure kasuan oinarri iraunkor eta sendoak finkatu behar ditugula erraten. Beraz, beste gauzetan bezala, ahalik eta sakonen aritu behar da; eta hau nehork lujotzat artzen ahal ba leza, gure egin-bidearen erakusteko gai ez dela erranen nuke.

Duela zonbeit urte gure haurrak ez ziren euskaraz eskolatzen; ez eta ahal ere. Pixka bat aintzinago berriz, ahalmena sendotzen joan zenean, pedagogia euskaldunen kezka bat bilakatu zen; euskalduntasunak iraun-arazi nahi izatea alegia. Orduan, zonbeit guraso beren haurren ezitzeko bideak mugatzen joan ziren, eta horrela gure lehen ikastolak asi.

Bestetan bezala, hastapenetik gauzak ez dira fermuki egiten. Lehenbizi nahia sortzen da, eta gero hura betetzerat doazin abiaturak. Hastapenean euskara irakastea aski ba zen, gero beste maila baterat gindoazin: ez bakarrik euskara, euskaraz ere beizik. Bainan atzenean hori ere ez da nahikoa; problema ez da hurrek euskaraz ikastea, bizitzarako beharrezko direnak euskaraz eman ahal izatea beizik.

Hau da gure gaurko nahi bat, eta zuzen eta bidezkoa dela erran gabe doa. Orai, gauzak ez dira odeietan gertatzen, lurraren gainean beizik; eta kasu bakotxa bere konplejidade guztien barrenean azertu behar da. honela, pedagogia baten egiteko, nor, nola, non egiteko den jakin behar da. Gurean, baitaezbadan kontuan artu behar ditugulakoen artean hauk iduritzen zaizkit:

– Legalidade aldetikako situazioea. Gauden bezala gaudeno, gauza bat da nahia, eta bestea hura posible izatea. Hortarako pedagogiarekiko lege guztiak ezautu behar dira, eta ongi ezautu gero. Jakin behar da zer atera-bide, soluzio-bide, eta abar edukitzen ahal ditugun; eta dituzkegun horiek, ahalik eta gehien balia eta segurta.

– Bestalde, lehenetariko zerbait pedagogiaz ongi jabetzea izanen litzake. Batzutan, atzo artio irakastea zer zen mikorik ere ez zekiena, gaur irakasten paratzen da (edo dute); eta gainerat beste mundutik datorkeanaren itxuraz. Haundiak haundizki eta ttipiak ttipiki; erran nahi da: balio duena bai, bainan bestelakorik ez. Gaur-goiti bereixten joan behar ginakelaren ustekoa naiz. Operazione baten egiteko, sendagillearengana joaten gara, eta horrela behar du; irakaslegoan berriz, edonor ditakela iduritzen zaigu. Eta borondate ona onuragarria baldin ba da, denok dakigu ez dela nahikoa.

Non daude gure irakasleen formaziorako beharrezko diren elkargoak?, non pedagogiaren gaineko teknikoak? Gainerat, beste gauza bat ere kontuan artu behar litzake, alegia gure hain aberatsa den herrikoï-kultura (kantak, haur-jostaketak, olerkiak, erran-merranak, eta bestaldetik literatura). Bestenaz, ez zen benetan hemengo ezi-moldea izanen; edo behintzat ez zen izanen, oraindik ere gure esku daduzkagun itur-buruak baliatuaz dukeguna.

Gaingiroki ba da ere, pedagogian gure iduriko behar haundiko zerbait aipa dezagun; jendetasuna. Zorigaiztoz gutartean guttiegi nabaitzen da, eta dudik gabe kasu gehiago eman behar genezaioke.

– Atzenik, ekonomiko arazoa garrantzikoa dela derizkiot. Pedagogiaren oinarrien landatzeko diru asko behar da, eta gainerat diru horren gora-beheraren berri zehatza eduki, finantziatze sakon bat antolatu ahal izateko. Lantegi baten sortzeko nehori ez litzaioke zozketa bat antolatzea burutik pasatuko. Funts-gabekeri bat idurituko litzaiuke. Jeneralki zer sosakin kondatzen den jakinez eta etorkizunari so eginez inbertitzen da. Ikastolan ere, eta arrazoi haundiagokin, berdin izan behar luke.

Gaurkoz, aipatzen ahal diren amekaren artean, puntu batzuk ukitu ditugu, eta ukitu bakarrik gainerat; orai bakotxean, behar bezain bat sakondu behar genuke.

Pedagojiari, benetako luzapen eta iraupena eman nahi baldin badiozkagu, derrior eta ezinbestekoak direlako ustean nago.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1970, maiatza, 6. orr.

## PEDAGOJIA

Gai honi buruz inguru–minguru aunitz jende dabilla. Asko mintzatzen da. Gaur eguneko gure kezkarik haundienetarikoa, hauxen dugu. Normala da: besteak beste, gure nortasunaren puska haundi bat hartan bai datza.

Ezi–bideak ez dira guztiak berdin. Pedagojiarekiko funtsezko oinarriak leku guztitan kasik igual ezartzen ahal ba dira ere, bestalde berriz, munduan gero eta gehiago nausitzen ari da, irakats–moldeak lekuan lekuko egokitu behar direlaren ideia.

Pedagogia duela zonbeit denbora, molde ertsietara emana zen. (Eta lehenagoko gauza batean gelditu baldin ba da, nonbait hori). Irakasleak erraten zuenari ez ziaken ihardets. Munduak erdietsirikako aintzinamendu eta pentsaera–moldeak, irakasleak uste eta erran gisan onaturik gelditu behar ziren; ikasleek ez bai zuten finkatutako bidetik jalgitzeko aukerarik. Gutiz gehienak abiadura hauetan ibiltzera beharturik zeudezin. Fermuki itsastua dagoen gauza baten kontra aritzeko, inahal izigarriak egin behar bai dira: eta areago indibidualki jokatuz.

Tankera hontaz adimena ez dela aske eta aberatski ezitzen, garbi asko ikus genezake.

Beste batzuek berriz, ikasleari ahalmen osoa eman behar zaiola erraten dute. Haurrak nehundik ere ez dituela traba eta bide finkaturik aurkitu behar; gauzak beraurrek nabaitzen ezitu behar dela. Irakasleak ez liokela deusik ere erran behar. Eta honela, diote, haurraren nortasun osoa sortu, aberastu eta benetan ezituko litzake.

Beste pedagoji–molde batzuk aldiz, erdi–bidetik doazi.

Haurra munduratzten denean, ez dator leku arotz baterat. Ameka kondizionamenduko presuna berezi batzuek dakarrate. Eta 1200–garreneko urtean munduratu zen haurra, ez da 1970–an sortzen den bezalakoa. Harek eta honek aurkitu dituztenak, desberdinak dira arras.

Norberak duen atzokoari so, gaur eguneko aurrerapenak ezin zaizko haur bati ukatu; milla aldiz ibilliak diren bideak berriro ere ibilli–araziz. Zientifiko lana hortan bai datza: xinpletasun batetik konplejidade baterat, eta hontatik besterat, eta besterat (maila guztiaz ongi jabetuz); eta ez, konplejidade batetik lehenagoko xinpletasun baterat gibelatzea.

Haurrari, gizonok eskuratu ditugun zientifiko abiadura jeneralak irakatsi behar zaizko, gibelera joka ez dezan. Gizonaren aberastasunari egiazki doazkion bideak irakatsi behar zaizko. Horien barrenean, haurrak adimen–askatasun haundienean ibilli behar du, gero eta nortzenago joan dedin. Kalterako direnak aitzitik, gizonok daduzkagun ameka oztopo, traba, gibel–asmo, eta abar, haurraren ezizetik kentzen ahalegindu behar gara.

Urliak erran lezake hori zailla dela, eta arrazoaia du. Gizatasunaren aintzinatzea eta arrastakako bizitzatik jalji–araztea, benetan zailla da gero! Bainan zailtasun delarik agertzen, gizatasunaren benetako ezaugarria gizatasunaren benetako ezaugarria lanari egiazki ematea besterik ez da. Gizonari on besterik ez lekarkioke.

Bestalde, benetako pedagogia baten egiteko, gizarte batek dituen ameka berezitasun kontuan artu behar dira. Pedagojiak ibillera jeneralak baldin ba ditu, bide konkretotan moldatzen eta egokitzen joan behar bai du.

Gaur hain etsipen bidean doan gure pedagojiaren antolatzean, gauza haueri ohartu behar ginake. Ahalik eta gehien ataka baterat garamazkiten bidean urratzen saiatuz, eta luzera doazin molde eta atera–bideen billa joaz, Pedagoji–oinarriak iraunkor eta sendo finkatu behar ditugu; ez gindezke bestela.

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1970, apirila, 3. orr.

## TABAKOAREN ERRETZEA DELA ETA

Lehenbiziko planan zenbait ilabetez azaldu ondotik, heldu naiz berriz ere nere xokora eta oraiko honetan, aspaldi nerabillen asmoaren obratzera natorkizue, tabakoari buruz mintzatzeraz; giza fenomenu nabarmen bat iduritzen zait eta zenbait gogoeta egin nahi nuke hartaz.

Gauza jakina da tabakoaren erretzea ez dela nehorendako onuragarri, arras kaltegarri baizik. Biriak, bihotza, zintzurra, urdailla (estomaka), gibela, bai eta burua ere dira gehien gaiztotzen direnak; hain zuzen, beste deus eginen ez balu ere, buruaren kutsatzea nahiko garrantzitsua delakoan nago. Erretzen duenari halako menpetasun haundia sortzen baizaio, ohitu egiten da, erretzea jatorrizko beharra bilakatzen zaio eta handik goiti ez dezake deusik ere egin hari eman gabe; loturik dago erretzeari ats artzeari bezala.

Ez da sobera sakondu behar menpe egote hori, pipartzeak sortzen duen kalterik ixillena izanagatik ere, sakonen autsikitzen duenetarikoa dela konturatzeko.

Eta negargarria da gizatasuna, nehundik ere azteko eta ezitzeko beharrezko ez duen behar asmatu eta kaltegarriari hain lonbre haundian emanik joatea. Dударik gabe, oraindik aski gibelaturik gabiltza; oraindik halako sostengu eta kontentamendu faltsu behar ditugu lasaitzeko, bizitzeko.

Hala ere, ez du mundu guztiak pipartzen; badira, zorionez, artzen ez dutenak, bai eta gero eta ohartzenago doazinak ere duen garrantziari. Honela, zenbait erresuma aurreratuetan, tabakoaren propaganda debekatua dago; tabako-etxeak bortxaturik daude zigarreta paketearen kaltegarri dela idaztera; leku publikoetan ez daiteke erre, eta abar, eta abar. Hortik, dudarik ez, aurrerabide bat urratzen ari da; gutartean oraindik urrunago dagoen bidea...

Aunitzetan bezala honetan ere auzia ezieran datza, puska haundi batean bedere; zeren, erretzen duenak bere eskubidea baldin badu, erretzen ez duenak ere badu berea, eta bestearna baino aise jatorragoa gainerat. Eta ez dut uste lege hori mantendu-eraztea gehiegikeria denik.

Hori erran gabe behar luke izan bainan erretzen ez duenak egunero ondoan, aurrean, inguruan edo hala dauden ke itogarriak jasan eta irentsi behar izaten dituzenez, gauzarik normalena balitza bezala, badakusagu ez dela hala.

Gainerat, sendakin eta zientifikoek aho batez diotenez, zigarreta puntatik ateratzen den kea askoz ere kaltegarriago ta –minbizi sortailleago– pipartzailleak beste puntatik xurgatzen duena baino. Zauriaren gainean piko!

Horrengatik ez nau batera arritzen erresuma zenbaitetan gero eta estuago joateak publikoko erretze arazoarekin.

Bainan guztiarekin ere, ez da hori dena. Gure kasuan areago erran behar da, erretzea kontsumo bat baida, eta gainerat, erran dugunez, ez bizitzeko ezinbestean behar denetarikoa, alferrikakoa ez ezik kaltegarria ere dena baizik.

Bada, sasi-behar bat betetzen duen kontsumo honek, beste guztiek bezalaxe, besteak beste, zer-ikusterik estua du gizartearen ahorro eta diru-ahalmenarekin. Eta konturatzen ahal gara nora doakigun tabakoaren erretzen xahutzen den diru pillaz? Berezko duen zerga ordaintzen delarik, eta gainerat monopolio denez gero? Erretzen duten askori gustatzen ez bazaie ere, ezinago zuzen eta osorik ematen dute funtsgabeko saria... Eta zenbat eta zenbat milloi doazi hala gure herrian!

Naski, bizitzeko ezinbestezkoa balitza ez nuke ia ere erranen; bainan gure egoeran, kinka larrian, beteko ez dizkiguten behar hein haundi eta premiatsuak ditugularik, milloiak kearen bidez joatea gehiegiskoa deritzait.

Non dago konzientzia xumea? Non oihu kalapita eta zalaparta burrunbatsuak? Gai ez garelarik gauzarik erraz eta efektiboenak ere taxutzeko... Eta dena konpontzea ezinezkoa dela badakit, bainan uste dut alor honetan zertxobaiten erdiestea ere, guretako asko izanen litzakela.

Gainerat, gauzak halatsu direlarik, badakigu zer gertatzen den maiz. Gure gauzetarako baldin bada –dela ikastola, dela elkargo ala beste halakoren bat– bereak eta bi entzun behar izaten dira askotan; garestiegia dela jaialdia, leporaino dagoela diru emateaz, euskaldunok eske gaudela beti eta halako suertez lasaitu nahiez edo kontzientzia txarra. (Eta lausengo pollitagorik ere entzunik gaude makiña bat aldiz). Honetaz, ez gaitezke orai sobera luza, bainan klarki geldi beti, bedere, halakoen jokia.

Gerrikoari buelta bat eman beharrak garela, baitaezbadakoa da eta aspaldi ginakiena. Auzia da beti, nondik as. Nire iduriz, nehundik izatekotan sasi eta gainerat kaltegarri diren beharrak betetzen xahutzen den dirutik asi beharko litzake. Zuhurki jokutzen ahalegintzen baldin bagara behinik–behin. Gaur bat ukituxe dugu, tabakoa.

Ez bai dira guti gero, zoritxarrez, tabako kearen ihes–bidez doazin indar eta sosak...

Anko Sendoa  
Principe de Viana, 1973, otsaila, 8. orr.

AGUR, OTSAILL!

Otsailla, orain arte, siñeste txarrez inguratua iduki dute; errati eznaigarriakin izendatua: "Zoritxar illabetea"; "Karrakill egunak"; "OTSAILL, PAKERIK EZ, ZORITXAR BAI!!", zioten aintziñekoak.

Benetan, Euskal-Erriko zoko guztietan olako siñeskeriak ikusten ziran: sua an, sorgiñak urrutitu naizik. Belar batzuek (geyenetan "kardaberak") ateetan, bertze munduko indarrak etzaten gaitzik sortuazi etxeetan. Bearrik, bai, naiko atzenduak ta gordiak direla zorakeri ok (gure aintziñekoentzat, baizik, etziran zorakerik), yendeen siñismen ta aoetatik!

Gaur, Otsailla urteen amabi illabetetik bat da, denantzako, bertze amaiken idurikoa ta ok beziñ zorionsu-garria. Aldrebes xamarra, benetan, batzuetan ogei ta zortzi, ta noiz-beinka ogei ta bederatzi egun dauzkalako; baño bertzerik ez! Galdu du, ba, Otsaillak aspaldiko siñeste zozo ek; bertze izen egoki bat irabazi du, benetan, baizik: "Udaberri deile" edo "Udaberrien seaska". Aurten beintzat, alako iduria irakutsi digu:

Oroitzen zerate nola asi genun Otsailla? Gaur bezela, ortzegun bat genun. Goizean, otz: izotza. Eguardian; bero naiko latza. Illunabarrean, aize samiña. Benetan uda-berriko egualdea. Ala uste genun, beintzat! Zer gertatu zan egun bakan tzuen barruan, baizik? Elur galanta azaldu genula etxeko atean, amestu ta usaindu gabetenik. Gogoratu zigun neguan giñela oraindik, ta elur-ormantzako baimena bazaukala, guri eskatu bearrik gabe.

Baño berriro epeltasunean jarraitu nai izandu zuan: Noiz-beinka kazkabar erauntsi bat bota ta, euria, aizegoa, goibel ta eguzki, dena nastuaz (nasiaz). Neguen gordiñtasun guzia Otsaillan etorriko omen zan, baño ezda ala gertatu. Egualdi epelak iduki ditugu. Noiz arte?

Iñauteak ere or genitun Otsaillan: Egun zoragarrian gazteentzako. Ez ainbeste etxean gelditu bear genuentzako. Naparroan indar sendo ta azkarra dauka besta onek. Eskiñ guztietan gazteak, artarako jantziak edo ez, atez-ate ibil dira. Egia da lurralde bakoitzak eben erara (modura) jaitzen ditula egun ok; baita egia, guztiok, bekoak edo goikoak, danok "birautze" berara eldu gerala: ONGI IGAROTZERA (ongi pasatzera). Batzuetan gertatzen dira ustegabeteneko ta eznaigarriak, baño..., zer egiñen dugu ba?

Iñautiak ziran Otsaillaren azken asnasia. Iñautiak yoan dira... Otsailla ere iltzera ta, joana da, berekin daramaz poz ta karrakill guztiak.

AGUR, OTSAILL!

Anton

Principe de Viana, 1968, martxo, 2. orr.

Euskal Bertsoak:

"AIZE BERRI BAT"

*Ze egualdi egiten duen danak dakizute. Munduko berriak egunero irakurtzen dezute. Erdal abestiak ordutik ordura entzuten ari zerate.*

*Bañan badago zerbait ahanztu edo beñ-ere ikasi ez-genuna: bertsoak abeste. Euskal bertso zaharrak abeste gure izkeraren aberastasun bikaña.*

*Galdetu zuen guraso aiekeri. Galdetu urrutiko baserrietan bizi diran basa-gizon edo baserritarrekeri. Zenbat bertso ez dituzte abestu, oroipen agurgarriko urteetan! Zenbat ordu alkarren artean! Atsegin ordu alaigarriak, bertsoak abestuez.*

*Gaur, baizik, beste aize berri batek jo digu. Erdal abesti berriak naigo ditugu. Orain zerbait ta biar ahanztuak ta ezer ez diran abestiak. Obeagoak omen dira!*

*Nik badakit ez zeratela danak gu bezelakoak. Gu diñ arloteak. Badirala euskal bertsoaz gustatuak dabiltzanak. Ikasi naiez.*

*Atera nai ditut ba, ZALOÑA jaunak jarritako bertso batzuek. Irakurri, ala nai badezu:*

1

Ego aldeko aize zakarrak  
menderatzen du iparra,  
soro eze ta zugaitz orlegi  
dena uzten du igarra.  
Aize orretan nahasituta  
etortzen zaigu negarra,  
euskerak zuen iturri ederra  
orrek jarri du legorra.

2

Kristau zintzoak bearrezko du  
obenari itxi ateak,  
bestela gaitza izango bait-du  
zeru goietan sartzeak.  
Ala berean guk euskaldunok  
garbi ditzagun etxeak,  
geren erruaz zikindu zittun  
ego aldeko aizeak.

3

Izkun gaieko jakintsu danak  
euskerak dauzka arritzen,  
nola eta noiz edo nundikan  
asi ote zan sortutzen.  
Ta izkuntza orren jabe diranak  
nolatan uzten galdutzen,  
beren baietan gure jokera  
iñola ez-dute ulertzen.

4

Mendian borda genuenean  
euskeraz giñan mintzatzen,  
lurrak lautuak jarri ta gero  
asi giñaden lotsatzen.  
Arrotz izkera ozenagotzaz  
gure artean ibiltzen,  
bere izkera zuen erria  
erderarekin nahastutzen.

5

Oraingo amen bular esneak  
ez ote dauka kemerik,  
gure errira begiratu-ta  
ez-dauka beintzat itxurik.  
Arrotz mintzoa aidean zear  
ez-da entzuten euskerik,  
ezetz da ezetz, berriro ezetz,  
ez daukagula lotsarik.

6

Areitz bateko adar guziak  
ez dira izaten berdiñak  
batzuek oker, besteak zuzen,  
konkor-dun eta lirañak.  
Eusko enborrak ere ez ditu  
semeak berdin egiñak,  
batzuek zintzo jatorrak eta  
besteak berriz gaizkiñak.



7

Anai gaizkiñak nun nai dabilta  
euskal izenaz puztutzen,  
bañan ez dira iñoiz ikusi  
euskeran alde saiatzen.  
Olako adarren itzalak ez-du  
eusko enborrik mardultzen,  
beren anaien gogo on dana  
oiek digute ondatzen.

8

Arreba-anaiak esna gaitean  
jaso dezagun biotza,  
ez daigun utzi abes dezaten

euskeraren eriotza.  
Geren artean euskera ibilli,  
zergaitik nabaitu lotsa:  
"zu, euskalduna, euskeraz mintza".

9

Birau gabeko izkera degu  
Aitor-ek eman ziguna,  
gure amaren bularretiko  
esnerik eztsuena.  
Ludi guziko zaharrena da  
gure euskera kuttuna,  
zeru goiean Jaungoiko Jaunak  
geiena maitte dubena.

*Irakurle: Gustatu al zaizu? Ba, benetan ezagutzen dezu euskeraren aberastasun sendorra!*

Erkizia

Principe de Viana, 1969, otsaila, 3. orr.

## DE VISITA POR LESACA

En una de mis últimas visitas al pueblo, me ha si grato el encuentro con una realidad y dos proyectos muy consoladores.

Merecería la pena menudear el txoko un poco más de tarde en tarde, si cada vez se encontrara uno con estas novedades o similares.

Lo cierto es que nuestra provincia se va despertando y dejan ver algunos frutos de este madurar humano. La mayor transformación que hemos conocido en nuestra tierra ha comenzado por la industrialización, solución vital para evitar la masiva emigración de los navarros, con la consiguiente pérdida en valores humanos y económicos de Navarra.

Y la consecuencia de esta estabilidad y bienestar económico es el despertar profundo de la personalidad navarra, y, partiendo de su historia y volviendo a ella, un nuevo renacer cultural y humanista.

Si la originalidad consisten en dar en el clavo de la idea que todos concordaban -y al dar con la vida oculta en cada una de las conciencias de la masa-, hacer la historia de un pueblo consiste en volver a las fuentes primigenias de donde le viene el ser y la manera de ser propias.

La historia de un pueblo nunca puede ser auténtica si se llegan a romper los lazos que le unen al pasado y al origen conocido de su existencia.

Francisco Javier nunca lograría la portentosa hazaña de la India si no hubiera podido pronunciar en su agonía del Océano Indico aquellas frases en euskera, fiel reflejo de continuidad con los usos y costumbres adquiridos en la cuna y mantenidos a lo dimensional de toda su vida azarosa.

Asímismo, si Navarra quiere ser la Navarra auténtica y original, no puede desligarse de su pasado: de su historia y costumbres, de su cultura y personalidad peculiares.

Si los remiendos con tela propia afean los trajes, ni qué decir hay cuánto los remiendos son con paño importado.

Debemos ser amplios y generosos a la hora de recibir préstamos cuando hemos agotado los recursos propios, pero no nos hagamos mendigos y pordioseros al dejar agotar, en la búsqueda de valores regionales, un filón de primera calidad que yace entre olvidos e incomprensiones.

Con esto deseo dejar mi referencia sobre nuestra "Lingua Navarrorum", el euskera, que languidecía y moría, no sé bien si por ignorancia o por pereza; lo más probable por ambas. Y también, por qué no decirlo, por una política mal entendida y pero vivida. Nadie que se precie de español puede despreciar los valores hispánicos, sean de Castilla, Extremadura o Galicia. Lo de España es de todos los españoles. Y lo navarro no lo es menos por ser del norte.

Pero vengamos al motivo de estas líneas. Volvamos a la realidad consoladora. ¿De qué se trata? De que Navarra que iba dejando de ser lo que era, vuelve a ser lo que fue, lo que debe ser y lo que será si nos aplicamos, conscientes de su historia.

Se van multiplicando los centros docentes de todo género y entre ellos, las escuelas vascas, las danzas, el folklore...

¿Afirmaciones gratuitas?

Realidades. Realidades en la Barranta, en el Baztán, en la capital, en el Bidasoa. Realidad en Lesaca.

¿Por qué aquí? Porque ya es realidad la enseñanza que se imparte a un centenar de niños y niñas. Porque es un proyecto con muchos visos de realidad la enseñanza de nuestra

lengua multiseccular en toda la ensefianza primaria. Porque el Ayuntamiento aprob6 y apoy6 la ensefianza de nuestro folklore a los niros de este n6cleo lesacarra.

Vendrfa quizas no ajeno al caso aquella frase, particular en la construcci6n pero universal en la pr6ctica: "El conocimiento de un nuevo idioma beneficia extraordinariamente al intelecto y, ese idioma, en cuanto m6s distante se halle de la lengua que uno posee, tanto m6s le beneficia".

¿Utopfa? ¿Divagaci6n? Realidad.

Enhorabuena. A los que han hecho posible tal intento. Enhorabuena. Se ha abierto el camino. El movimiento se demuestra andando. Aurrera.

(Irufeko "El Pensamiento Navarro" Egunkaritik artua).

Anthon

Principe de Viana, 1969, ekaina, 2. orr.

## ETXELAR

Biragurutze baten ondoren, zugaitzez inguratuko bide estu bat, ixiltasun agurgarria zatikatu gabe, zerbait esan naizik dabillen errekatso garbi baten eskuiñ aldean.

Euki nuen, beingo batean, Etxalar ezagutzeko astia. Igande egun batez. Udazkeneko igande illun batez, Etxalar artalde bat iduritu zaiten, eldu zan euri-jasaz gerizpetu naiez. Mendi artean giltzapetua, etxean zurtasuna aurkan zegon goieko goibel beltz aiekin.

Etxalar, napar erri, edertasunez betea. Bidaso'ko Bortz Erri aietatik bat.

Bi milla bizi dira euskal txoko artan. Bai; bi milla euskaldun azkar nekazaritik eguneroko jan-bearra ateratzen dutenak. Yzerdien bidez, semeen etorkizun zalla.

Etxalar, munduko latzkeritik baztertua, ixiltasun ta pakea erria egiña dirudi. Bere bidea jarraitzen du, iñorreri kalte egin gabe.

Franzia'ko mugatik urbill arkitzen da, benetan, erri au. Orren-gañ ta, napar guztien artean ezagun dan "Usateguieta", (Palomeras), bitartez, urteko garai berexi batzuetan. Etxalar'ko ostatuak muiñetaraño beteak ikusten ditugu; bere, sarien-antz nastuko kaleetan naiko ezte edo gende arrotz. Ala ere esan bear genuke, miñ egiteko asmoak bazterturik, etxelartarrak jarraitzen dutela gibeltasunen maill batean, inguru ontako erri geienen antz.

### Igande egunez

Meza ondoren, eizira ez ateri ezkerro, betiko ardo-urru edo txikituak ta pillota joku baten bat erritar aien artean: ona emen iganderoko egin-bear guztiak Etxalar'en.

Arratsaldean, etxelartar gaztedia, erria utzirik, beste zoko alai ta naigarrigo baten billa ateratzen dira. Yllunabarrean, dana uts..., ta zenbat nekegarri ezda, alako erri polita batean, kaleen bakartasunaren ikusle izatea! Ezdago zine'rik; ezta soñu edo musika'rik ere. Ezdago ezer jai arratsaldetan Etxalarren.

Motellak: noiz arte onela, lo? Etxalar erriak aspaditso irabazi zuen au baño geiago..., askoz geiago. Gaztediak zer edo zer antolatu bear dute. "Gaztediak" esan det, bai, aiek badaukate, ba, edo biar luteke erria berpiztutzeko sukarra. Danen naiez zerbait egin litzake..., egin bear litzake. Esatea: ze arras! Egitea: orra or koxka! Egia: mingaiñekin esatea, ze arras! Egitean: gauz bear-bearrezko otan ez litzake koxkerik bear, baizik!

### Etxalar ta Euskera:

Etxalar berriztutzen ari dire. Bakoitzak bere etxea baserri-antz ipiñitzen. Euskera bere etsaietatik gordetzen dan napar erria: ala da Etxalar.

Etxalartarrak zaitutzen dute euskera, eguneroko izketan erabilliz, arreta osoaz. Ta, Etxalar guztia arro dago gauz onen gaiñ.

Ze ikasbide ederra! Gu, euskaldunak uste gera, ta erderaz izketan. Au lotsa!

Anton Erkizia

Principe de Viana, 1968, uztaila-abuztua, 5. orr.

## EUSKAL DANTZAK

Goian eguzki gorria, azken gabeko zeru urdiñean galduta antz. Garbi mendi tontorrek. Garbi ta ixil. Bero errian. Bero sukalde ta kaleetan. Jaiak. Erriko jaiak. Bostak erlojuan.

Poliki poliki, jendea elkarganutzen ari da erriko zelaitxo batean. Ezdakit plaza ala etxeen arteko jostaleku bat dan. Ezdakit zer dan. Jendea elkarganutzen ari da. Igo dira lendabiziko seskain edo "altsaferoak", haien keak zeruen urdiñ garbia zikinduaz. Jaiak errian.

Txapela buruan, dantzariak gerto daude. Txuriz jantzita, bi girgil edo zinta dauzkate guruztuak aurre ta atzeko aldian. Oñetakoen lokarri gorriak zango gora saretzen dira.

Dantzariak gerto daude; erri guztia inguruan. Susmur il bat jendeen artean.

Asi dira txistulariak. Danak ixillik. Entzun leike txistuen euskal soñu liraña.

Dantzariak, heben lerroak autsirik, alkdarren artean nahasten dira. Auts artean, haiek, bizkor. Ibilkuntza bakoitzak, berekin darama guk ulertu ezin degun esaera arrigarri bat. Ibilkuntza bakoitza, urtetik urterako oitura zarra da.

Txistuak jarraitzen du: "Bizko, azkar, geiago...", dio; ulertu ezin leiken txistuen izkera! Harat eta honat, dantzariak. Euskal biotz bero bat haien indar-emaile ta maixu.

Azkenez, soñua galtzen da urruti. Dantza bukatu da. Txalo beroak; ta gizonak ostatueta; emakumeak etxera edo...; aurrak iostaketara. Orañ ia, beraz, bakarrik geratzen da, izango danaz, jaiotza gabeko oitura baten gogarpena. Ala dira gure euskal dantzak!

Askotan entzun leiken deadarra:

- "Zertarako ainbeste oitura zar?; ainbeste dantza?; ainbeste...? Urtetik urtera, erriko jaialdietan, dantza berdiñak, soñu berdiñakin. Eziñ al leike aldatu ta beste zerbait berri jarri? Dantza ta janzkera berri batzuek, ez ote gustagarriago? Erriko jaialdiak, urtean beñ ospatzeko eukirik, biurtu ta berritu bear ginduzke!!".

Benetan, azaletik begiratuz, esaera honek arrazoi osoa berekin darama. Baño, konturatzeke zalla izan arren, egia da oitura zar hoiek, neurririk gabeko aberastasunez beterik daudela. Badago haietan "folklore" puxkada bat baño zerbait geiago. Ba, ez. Ez ditugu aldatu behar. Euki, baizik, zintzo. Zergatik?

Begira: erri batek, raza batek berekin darama aztura ta izakera berexia, berea ta bakarrik berea. Ta erri hori, naiz itxuraz aldatu, sakontasunean beti izan zana izango da, ta jarraituko du izaten. Gizonen antz, benetan; gu, geurok, naiz aunditu, ezkondu ta zaartu, itxuraz beste batzuek izan arren, biotz barruan beti berdiñak edo oso antzekoak jarraitzen degu izaten, sentimentu ta zuzperraldi antzekoakin.

Ikusita dago, erri baten izkera, erri horren izakera ta erritar hoiaren animaren egiazko agerpena dala. Honela, euskera, izkera gogor ta latza izanik, euskaldunok halaxe, ez gera leun ta lirañak noski, maker ta latzak baizik, gure mendi ta itsas-bazterren antzekoak.

Lerro beran, erri baten oiturak, erri horren ikusmira ta siñeskaiak aitortzen dizkigu. Benetan, Andaluzia-ko jendeak gurekin berdiñak ote? Ez; haiek paketsu ta atsegiñ-zaleak, euskaldunok geldikor, sutsu ta odol berokoak; gerea gerto zaitzalleak. Era berean, Andaluzia-ko dantza, janzkera ta oiturak idorrek dira, ankapean daukaten lurra bezelakoa. Euskal "folklore" berriz bizkor, zarpail ta gogorrago.

Benetan, orra or bi errien izakera, oitura haien bidez argitaratua. Esan genezake orain, zergatik zaitu ta loraztu bear ditugun? Egiz, ta amar aldiz egiz, arrazoi betea daukate esaten dutenak, izkera ta oitureen bidez ezagutuko ditugula erabiltzen dituzten haiek. Egi aberatsa!!

Principe de Viana, 1969, uztaila-abuztua, 6. orr.

## EUSKAL GIRO BERRI BAT LESAKA TA BERA'N

Ez dago Euskal-Herria ain illun. Ez dago euskera ain azkenekotan. Konturatzen hasi dira zerbaitez gure gazteak. Herria ernatzen hasi zaigu. Aleluia!

Negu beltzen lehen arnasa otzarekin batera, gure arizetako ostu orituak eroritzera zijoazila, hartan, gauatik goizera, berri on batek ernatu digu, kultura aldeko berri goxo batek: hemen ere, Lesakan eta Beran, bi herrietan batera gainera, euskerazko klase batzuk hasi dira; gazte talde bat euskal alfabetatze klase batzuk ematen ditu.

Hasitzeko asmoak bazirela aditzeakin, paper zerrenda batzuk kaleetan, klasetara agertu nahi duenak izena emateko, hasitzera doazila. Eta, bereala, hasi.

Hasi beintzat.

"Gure asmoak argi ta garbi adierazi nai ditugu: ez da "Ikastola" bat antolatu degun hau. ez gaude gertatuta, oraindik beintzat, behar den bezelako Ikastola bat antolatzeko. Oraingo, euskal giro garbi ta sortuazi nahi degu, batez ere gure gazteen artean. Herria, herritarrok konturatzen hasi gaitzela euskal kultura eder bat badela, zoritxarrez gure artean usteldutzen doana (doaiena). Ta galtzen ari zaigu ez geralakoz behar den diña konturatzen, ez-iakintzaz, "analfabetismo"z. Kultura ez da hizkera edo hizkuntza bakarrik. Euskera, gure ohitura, dantza, ianzkerak... hori dana da euskal kultura.

Baten batek erranen du lehenago erderaz ikasi behar zala eta orain euskeraz... Ez degu erran iñoiz erderaz iakitea bekatu dala; ez gaude iñor erderaren kontra. Konturatzen gera gaurko egunean beharrezkoa egin zaigula. Bañan erdera ikastea ez da "problema". Telebista, erradio, eta eguneroko izparringi guztiak erderaz dagoz. Bañan ez degu barkamenik gure gurasoen euskal kultura guk gure semei gordetzen badiogu, ez irakatsiaz. Hizkuntza da herri baten anima. Gizon bateri izena trukatzeta bezela izango litzake kultura eder hau galtzea.

Iruñeko Diputazio agurgarrien baimen osoakin hasi gera. Gure Bortz Herritako euskera erabiltzen goaz klasetan, hitz eta era batzuk aldatuz, alegia, euskeraren batasunan alde iokatu behar baidegu euskaldun guztiok. EUSKERA BATUA edo euskeraren batasun bat naiean, gauz hauen artu-emanetan buru ditugunok aldaketa batzuk agintzen dituzte. Aldaketa hauetatik bat "H" letra hitz batzuetan sartzea izango da. "H" letra onartzen degu guk ere.

Berrogei-ta-amairu bildu zaizkigu Lesakan. Irurogei ta gehiago Beran. Iende mordoskada egokia da. Erdiak ez dutela azkenaraño jarraituko? Iakiña, herri guztietan gertatzen dana. Nahi duenak ez dedin gabe gelditu beintzat!"

Horrela mintzo zaigu talde hau: argi ta garbi. Asmoederraz beteta daude gazte hauek. Gogoia izateakin ez dagola dana eginda, egia, bañan ez egin ta ez asmorik egiteko: hori bai deuseza dala.

Iruñe, Altsasu, Elizondo... ta ainbeste nafar herri ta hirietan bezela, hemen ere, Lesakan eta Beran oraingo, euskal kulturaren alde lanean hasi zaizkigu. "ANALFABETISMOZ BEINTZAT EZ DEDIN GURE EUSKAL KULTURA GALDU" diote. Zerbait egin beharra dago. Bestela, bertze urte bakan batzuen barruan, gure seme erneak, eskoletara hasi berriak dirala, horrelako zerbait galdetuko digute:

- Papá, el maestro nos ha dicho que un vasco sin saber euskera es como un hombre sin apellido. ¿Es verdad que tú de niño sabías hablar en vasco y luego se te olvidó...?

Eta haur ernea Ikastola batera ioanen da euskera ikas beharrez. Gurasoak, bere aita eta amak ez baizakiten; ahantzi bai-zitzaion...!

Leizatar batek diona:

Negu  
luze  
luze  
luzea.  
Hazia  
lurpean  
gordea  
elur eta izotzei  
gogor egina.  
Udaberrian  
berpiztuko dana.

Euskal kulturaren udaberria Lesaka eta Beran. Aleluia!

Antton

Principe de Viana, 1972, martxoa, 7. orr.



## EUSKAL LUR MAITE

Abeste det lurrari, ezi diralako

Abestu dezaiogun, bai, gure lurrari. Gure Euskal-Erri, ama lur maiteari. Ondo dakigu euskaldunok nolakoa dan gure lurraldea: ederra, txukuna, lore ta margolaz ase..., zoragarria bene-benetan.

Urdiña ta neurrerik gabekoa da gure itsasoa. Ederrak itsaso-bazterrak, erri pozgarriaz mugarrituak.

Apañak gure mendi ta ibarrak. Gaiñ batetik begiak itzulitzen baditugu alde guztietara, zenbat gauz arrigarri ez. Ze ikusmira ederra!

An, urrutian, Aralar. Edo Aitzgorri. Edo Gorbea..., zerukin bat egiñak, Euskal-Erriko nagusiak izanik. Aien magaletan bertze mendiak, semeantz, elkarrari esku emanaz, egiazko anaiak bezela.

Ta arteko errekada ta txoko guztietan barna, aldapa ta triskak yautsalaz, ur ari bat jostaketan, betiko atsedean izango dan lekura bidea egin naiez.

Euskal-Erri, Ama lur maite. Nork sortuazi zitzaizun aiñ ikusgarri? Yainkoaren Eskuak ipiñitzen dizute, neguero, elur txapel txuria zure mendien galdurruetan. Aren Naiez ikusten ahal dezu, arro, zere burua itsasoako sakon edo beitasunetan.

Bañan..., bañan nork margoztu ditu zure belarsoro, larretegi ta erriak? Nork txertatu zituan zure intsaur, udare, sagar ta aritz ondoak? Ta txertatutzea ezda naiko, nork indartu ta ezi zituan?

Orra or baserritar-euskaldunen esku zañardunak. Aiek jakin dute etxeak altsatutzen, bai aldapa gaiñ, bai txokoetan, edertasun, txukuntasun ta..., nik ezdakit zenbat geitasun iratsiaz zure mendi-zelai aiekeri.

Urratu ditu lurak, siñestu ahal ezin ditezken lekuetan, lar-tegi ta sasi lekuak, belarsoro ta landa biurtuaz, egoki.

Euskal-Erria, zer da baratze ta loretegi bat ez-ta? Ta lore-zai, nor? Baserritarrak, alegi. Baserritarrak ta gu. Aiek lore-zai ta baratz-zale zintzoak. Gu ere, batzuek geiago, besteak ez ainbeste, euskal-baratze onen zaindariak gerade.

Nork, ba, guk ez-ta, sortuazi dituzte gure erriak? Nork bildu ditu kale-etxeak Elizaren inguruan? Ta, kale estuak, erriko zañak bezela, nork saritu ta nastu ditu? Guk. Yoan diran ta oraindik geraden euskaldunok. Guk txuritu ditugu gure bizi lekuak; loreakin txukundu gure leio-balkoiak; margoztu gure atek.

Yainkoak sortu zuan gure Euskal-Erria. Guk zaindu, moldatuaz. Ez dediñ, ez aizerik, ez euririk, ez gizonerik, aenbeste urteko lanak ankapetu ta ondatuko dunik.

Euskal-Erria da goizeko argi-ekzila. Edo zortzietako lan-dei tutua.

Euskal-Erria da gure arrantzale aien iraulpen zalla.

Da Santurce'ko arrai goxoa. Getaria'ko sagardua. Ta Naparroako ardo bizkorgarria.

Bersolarien erriko poza abestia.

Gure errekaetako uren indarra. Soroen ezintasun arrigarria. Ta gure mendien gaintasuna.

Zeruen urdiñ garbia. Ytsasoen azken gabeko beitasuna.

Da, baita, an eta emen, neurrerik gabetenik banatuko baserrien ixiltasuna. Ta erri aundien azal-batasuna.

Ta..., gerade gu. Euskal-Erria da gure sortu-leku berexia. Gure ama lurra. Gure..., dana. Orrengaitik gaur abestu nai dizu, parerik ez-daukan zure izkuntz ontan.

Abesten det lurrari, sortu diralako.

Erkizia

Principe de Viana, 1968, urria, 4. orr

## "GAZTE GERA GAZTE"

¡GAZTEDIA!: Ona emen gaurko munduen indarra.

¡GAZTEDIA!: Ona emen biharko munduen oñarria.

Zer erran dezakegu gaurko gaztedien gaiñ?

Edo-ta, nun asiera eman, gaztedien gaiñ idazten asi ezkerro?

Ez dauka asierik! Ez bukaerik. An batzuek ala diote. Emen, bertze batzuek onela. Nora yokatu bear det?

Ona, Donosty-ko ZERUKO ARGIA deritzaion euskal errebistak zer dion:

*"Epaillaren azkeneko egunakin batera bukatu zan Valladolid-en Españako XXVII-garren SOZIAL-ASTEA. Aste mardula, gai interesgarri bateri iratsia: GAZTEDIA TA GAURKO MUNDUA.*

*Madrid-eko aldizkari edo errebista batetik dionez SOZIAL-ASTE onen bereiztasunak oek izan omen dira: bizitasuna ta adoretasuna, alde batetik; ta gaurko egunez gizaldi artean dagoen eten edo tartearen agerpen garbia, bestetik.*

*Bi lenengo bereiztasunak beti izan ditu noiz eta nun-naiko gaztediak. Gaztediaren muiñeko almenak baitira oik. Baña gaur beste bereiztasuna argitu nai genuke: gaurko gizaldien artean ikusten degun etena, eten ikaragarria. Ogeita amar urtetik gorakoak ez dute zerikusi aundirik gaurko gaztediarekin. Izugarritzko alde, tartea -obeto esateko: etena- dago gizon egiñ ta gazteen artean. Ta eten ori ezda gure artean bakarrik sortu. Berdiñ-berdiñ gertatzen da, bai Amerika-aldean, bai Afrika ta Txina-n ere. Ta ez bakarrik ekonomi, politika ta jazkiera gaietan. Baita erlijio ta sozial gaietan ere. Gaurko apez-gai gazteak ez dute lengo apaizen jokatzeko era. Ez gutxiorik ere. Gaurko gazteak ez dute erlijioa gure giza-aldikoak ikusten zuten bezela ikusten. Izugarritzko aldia dago gai onetan eta bizimodu eta jokatzeko era danetan. Beste begiekin ikusten dute, beste biotz bat darabilte gaurko gazteak. Azkatasuna dala, sexo-gaia dala, emakumeen promozioa dala, demokrazi-ko gaia dala... Beste begiekin ikusten dituzte, bai emen ta baita Rusia-n ere.*

*Ta zer esanik ez. Gazteena da mundua. Goi-Ameriketan eta Rusia-n bizi diranen artean, erdiak ogeita bost urtetik berakoak omen dira. Emen bertan, Españak, ia ogeita amabi milloi bizilagun iritxi dituan ordu onetan, amaika milloi gazte arkitzen ditugu, amabost urtetik ogeita amabost bitartekoak. Eta, auxe tamala, Españiko Kortetan, amaika milloi gazte oietako bat ere eztago prokuradoreen artean...*

*Bestaldetik, industri, sal-eroste, ta bizibide berrietako jendea, gaztea da; eraginkorra da. Gai auetan aukera eman zaio gaztediari. Ekonomi aldetik, politika-sailletan izan ez tuan aukera izan du gaztediak. Eta aukera ori eskatu egiten du.*

*Garbi asko azaldu da au, Valladolid-ko Sozial-Aste'an. Gaztediak aukera danak nai ditu. Ta gure ustez, esku-bide osoarekin. Gere burua iltzea bezelatsu bai-litzake, gazte oiei eskatzen dutena ukatzea".*

Erkizia

Principe de Viana, 1968, uztaula-abuztua, 6. orr.

## GOSEA TA OTZA

Irakurle: atera zaitez leiora. Begiratu nola daudezin mendiak, lurrak. Begira nola dauden zure erria. Estalki zuri baten azpian. Elur otzen ankapean. Zure aurrean txori bat dabill, otzez zigortua, gosiakin auldua. Ta zer?

Gu etxe barruan ondo gaude. Ogia badaukagu; su eder bat baita. Ez gerade konturatzen, baizik, ainbeste ta ainbeste gizon, emakume ta aur arkituko dirala munduan, txori orren antz, ezer janztekorik gabe. Gosiakin aulduak.

Illargia. Ainbeste diru illargia eskuratu naiez. SAGI jaunak ondo esaten du "Príncipe de Viana" euskal errebista ontan: "*Makurrena da txakurra ta katua bezela gabiltzala alkarren artean. Gerra ta zikiñkeri, beti burrukan otsoak bezela. Etzen obeto izango, besteren etxeko kontutan sartu baño len, lurreko naspillak zuzentzea? Illargi ortan jendeak bizi izan balira, zer esango zuten gure gauzak ikusi ta?*".

Bai, SAGI. Bai, irakurle: zer esango liteke? Naikoak baditugula gure etxeko egin-barrak. Bañan gizonekin batean sortu zan munduan gaiztakeria. Alkar nor geiago naia. Orrengaitik gabiltz aiñ makur.

Gosea. Munduak gosea dauka. Amartik zortzi goseakin iltzen ari dirade. Ogien gosea. Kulturaren gosea. Egiaren gosea... Maitasun berotasunen gosea.

Bitartean ainbeste milloi dirutan Vietnamko gerra autsgarri ortan. Ainbeste milloi, alkarrerri bizia kentzeko. Edo..., nik ezdakit zer dala ta, dirua lasai, aulkeri batean biurtua. Zuk eta nik. An eta emen. Atzo ta gaur. Gero, gere anaien negarrak entzunaz, esaten degu zer egin leiken oien alde. Zer?: Negar. Ez badegu ankapetutzen munduko gaiztakeria, negar, ez dugulako zuzen jokatzeko. Ez geradelako gizonak.

Gosea beti gere artean euki degu. Betiko gaitza izandu da munduan. Bañan gaur diñ noski, iñoiz ez. Amartik zortzi anai, goseakin iltzen! Ez siñesgarri. Bañan egia dala erregu egin leike.

- Lanean jo dezatela, esanen genuke guk. Gerrak ukatzen dio, bañan, irauzpen bidea. Geienetan, bi aundien arteko asarreak ebasten dio jana ta bizitzeko esku-bidea. Gizonen lenda-lendabiziko esku-bidea ankapetua, zapaldua, larrutua. Zoritzarreko gizonak!!

Munduak gosea dauka! Orra or zuzentasunean ta zuzentasunerako egiña dan gure munduak zer dion: Ama, gosea daukat! Bañan ez. Apaiz ta Eleizaren gauzak izanen litzaken bezela, eskuak garbitutzen ditugu.

- Jauna. Aberats ta beartsuen Errege: Zuk esan zenigun: "eskatu ta eskuratuko dezute". Ona emen gaur, zure Zuzentasunari babeska. Begira nolakoak geraden. Begira, guk, gizonok, noraño jo degun. Alkar maitasuna agindu zenigun. Bañan, zergaitik nai izandu zenun gaiztakeri ta gorrotoak laketzea gure artean?

Aulak sortu giñan, ta aulak gerade. Ez degu ba, gere artean gertatzen dana besterik ikusten. Gure begiak artzen dutena besterik sinestu nai. Entzuten degu ainbeste iltzen ari dirala goseakin, or barna; ta len bezelatsu da gere biotza. Gerra gordiñ-gordiña omen dabill, biziaren lorea moztutzen. Ta zer? Oi dana urruti dana guretik!

Ez. Ez degu begirik iriki nai. "Egoista" alu batzuek gerade, ta gerea besterik ez degu ikusten.

Gaur, baizik, Jauna, ona emen nere otoitz motza. Jun zaitez gosea daukaten oiekin gana. Esaiezu gure maitasunaren berotasuna aiekin dabillala. Ez gaudezila aiñ galduak.

Ixildu dezazu...; bañan, ez. Egin dezaten garrasi, entzun dezan munduak: Ama. OTZA daukat! Emaziazu janztekoa. Ama, GOSEA daukat! Ama...

Antton

Principe de Viana, 1969, martxoa, 4. orr.

## IGANTZI (YANCI)

Abestitxo bat kantatu nai nioke Igantzi napar erriari, Bidasoa'ko Bortz Errietatik txikiena dalakoz; ta ain zoragarria da aurtxo baten irripar garbia bortz senideko sukalde batean! Abesti bat kantatu, bai, zazpi-eun erritar oieri, Igantzien magaletan iaioak, bertan ikasi bai zuten euskal lendabiziko itzak, ta, eskutik elkar artuak, "Aita gurea" errezatzen.

Ta nere abestia agindariantzako izanen litzake, lendabizi. Oiek, sortu-erria benetan maitaturik, Igantzi erri orren zai bai-daudez, norbaitek ez ala uste arren.

Abesti lirain bat, baita, igantziar aur ta gaztedi zintzoari, ni ere gaztea bai-naiz, ta oiekin batera kezkatan bai-nabil. Erlia maiatzako loretxo gorrien inguruan bezelaxe?

Kantatu nai nioke, baita, erri ortako gizon-emakume adintueri. Ta urruti bizi diran erritarreri. Ta, nola ez, Igantzian sortutakoak ez izan arren, errian, bertzeakin anaiturik bizi diran oieri. Ta...

Benetan, gardelin umetxo bat nai nuke izan udazken ontan, abesti polit bat kantatzeko Igantzi erri egokiari, "San Mikelak" bai dira; erriko bestak. Abeslari nai nuke izan, nere doña edatu dedil zeru zabaletara Euskal-Erriko ezkil guztiekin batera.

Artean, ta egunero bezela, untza abeslari "Piedad" gainean.

Anthon

Principe de Viana, 1970, iraila, 4. orr.

## IZAR BERRI BAT

Negua. Negu otza. Abendu illabetea. Eguberriak. Urte zahar ta berri; urtemuga.

Bi illabete, larri larri, Frain mendia "soildu" zigutela; Otsangoko aritz ta bagoak oritzen asi zizkigula; eizturiak Pagolleta gainean usoen arrantzan genituela. Bi illabete au zala... Gizonen asmoak egoismoakin erdoitzen asi zirala, zenbat?

Gaur mendi guztiak soilduta daude. Aritz ta bagoak larrurietan. Ollagor ta eperra usoen orde. Txoriak abestitxoak ixildu zituzten... Gizonok, baizik, nola ixildu gure oiua?

Negua. Ta arrats beltzetan elur txuria mendiz-mendi; goizeko argiakin orma ta izotzen zigorra atez-ate; eguerdietako aterrateatan itsas edo ipar aldeko aize zorrotza leioz-leio... Ta egunero, itz politakin bildua, injustizia erriz err. Ta makilla, karzela, negarra.

Negua. Zozo ta biligarroen ikara karrasia; larrean dabilten zaldien irrintze tristea; iaberik gabeko txakur galduen sainga beldurgarria... Bañan gure belarriak gorturik gosez usteltzen ari diran aurtxoan intzirari!

Negua. Goibel illunen lertu naia; tximista argiaren gezurrezko keñua; trumoi barren galduen marmariak... Oraindik gureak gainetik; gerea uste arrazoia.

Negu otz ta beltza. Abendu illabetea... Eguberriak; urte zahar ta berri; urte-muga.

Ta aurra lotan seaskan, ama gaztea zai duela. Aitona ametsetan su ondoan, gaztetako egunak berritzen dituela. Eskutik artuak ezkon-berriak, lehenengo frutuen esperoan daudezila. Besarkaturik ezkon-gaiak, udaberrian ezkontzeko asmo zoragarriak dituztela... Ez da ain tristea negua.

Ez da negua ain tristea, ez. Elurra edo orma, bordako tximene beltza beti ketan ageri da. Ez baida zeruan elurrarik aski gure etxetako suak itzalitzeko... Ez baida munduan indarrerik aski erri bat betiko lurperatzeko. Ez baigera gizonok naikoak Jainkoak bakoitzari eman diguna galdurazteko. Bañan sukaldeko sua, nork zaitu ta indartu etxeakoak ezta? Erri baten nortasuna, nork salbatu erritarrak ezta? Euskera, nork mintzatu, idatzi ta irakurri euskaldunok ezta? Ezdago sukalde goxorik saiatzen ezdenantzako!

Eguberriak. Urte zahar ta berri; urte-muga.

Ta negu beltzean, or gau on ta ixil bat; argiaz betetako gaua. Trumoiak ixildu tximistak itsutu, goibel beltzak gorde dira. Munduko ezkillak izar berri bat sortu omen dala diote. Ta guraso- seme asarratuak besarkatzen dira; alkar ikusi ezin duten anaiak esku eman; kontrariu amorratuak alkar izketan; nagusiak langilleri iornala geitu. Pake ta zorion. Eguberriak.

Geri, gaberdian, danak anaituak, belauniko Aurtxoa gurtzen. Jaungoiko txikia jaiou baizaigu Belen-en... Bañan bakoitzen jaungoiko zaharra ez da il ordean...

Ta ertzia da jaungoiko tripotxuentzat. Dirua nagusi aberatsaentzako. Gorputz ederreko neskata da gazteen eguneroko ametsa. Nagusia nola izorratu langilleen pentsamentu. Nun gerra berri bat asi ta sortutakoak nola indartu bertze batzuen asmoak...

"Aintza zeruetan Jaungoikoari...", diogu gizonok. "Olentzero buru aundia...", aurak erantzun.

Negu otz ta beltzean, izar berri gabeko eguberriak!!

Anthon

Principe de Viana, 1970, azaroa-abendua, 1. orr.



Jendeen ahotan

## JOXE MANUEL "URTAIN"

Amabost gudalde edo barrukada. Hau, hor, hemen. Amabost burrukada, ta berealaxe, amabost lurrean "K. O."-z. Amabost aldiz "URTAIN" garaille.

Zoritxarrez, dena geiegiztu beharrean ari gera, ta askotan, gauz ta egite guziak dauzkaten nehurriak gerizpetu ta ankapetuak arkitzen dira.

Hau da Joxe Manuel "URTAIN"-en gertaketa. Ezin ukatu leiteken egia da amalau aldiz bestea lurrera bota duela, ondo "masakillatua". Baño hontatik esaten dutenaño badago ezertxo, noski.

Gure mingañak atsegiñerik gabe dabiltz lanean. Ta ari gera "hau -tori- tora" (nere errian esaten dugun bezela), solasean.

Alde guztietako uste edo iduriak arkitu lezazke. Batzuendako, "URTAIN" ez omen ezertxo. Besteak, gizon izigarria dala diote. Badira, gutzi baño, badira ere esaten dutenak puxkada bat egin duela, ta askoz geiago egiteko bide ta garaia iritxia daukala.

Nor dabil zuzen?

Ezdira erri ta ostatu zokoetako usteak besterik.

Denborak esanen digu noraño jua leiteken gure "URTAIN".

Artean jarraituko da jedeen arteko solas-sukarra. Ta mingañak, berriro ta milla aldiz berriro, garaituko dituzte nehurri guziak. "URTAIN" goratua ta ankapetua izango da jendeen mingañaz.

Begira: danok aitortuko duzute, izketan asteko, jakin behar dala izketan. Bestela edo ixildu, edo nehurtu argi zure itzak.

Holaxe izka edo diskusione bat asi ta azkeneraño eramateko, edo lehendabizi ezagun zazu gaia, ta jakin ezazu gauza ondo eramaten, besteen iduriak onhartuaz, edo asarre ta burrukadan bukatuko da izkaldia, denbora alperrik galdu ondoren.

Bai, ezagutu ezazu, lehendabizi, gaia. Juan zaitez ezertxo ulertu (entenditu) gabe, astoaz botako zaituzte ta. Jakin, baita, diskusionea eramaten; entzun besteen arrazoiak, ta gertu egon zuk zereak aitortzeko. Bestela, adiskide, bestela obeto: ixildu zaitez!!

Hau ulertu ta aitorturik, deus egin ezduela esateak lekuri ez-dauka. Amairu burrukada irabaztea ezertxo beintzat bada.

Horain, hemendik aurrera dena antz jarraituko dala, hori beste bidexka bat izanen litzake. Gaur arte "URTAIN"-en ukabilletan ikusi dugunaz, biharko egunean ezer izango ote dan, trebetasuna ematen ditu. Baño ulertu ondo: "ezer izango OTE DAN", esan dut; ez, "izango DALA". Hori iñork esan ezin lezake.

Horain arteko bere aurkakoak (kontrarioak) aulak izandu direla? Ez dizuet ukatzen. Egia da gure "URTAIN"-ek ezduela koxka aundirik arkitu amabost haietan. Ta, hor bota ere! Ikusi, lurrean! Benetan, aulak ziran. Ta halakoak behar zituen ee. Bere maillakoak. Edo... GIZON AUNDIAK ALA JAI O ZIRANBA? BIZKOR TA XABLIAK, JAIOTZETIK BIZKOR TA XABLIAK OTE? Ez. Ezdut uste. Poliki, poliki jua ziran igoz. Oñarriak gerturik, orduan etxea gora. Benetako mailetatik asirik, gora, arteko maillak garaituaz.

"URTAIN"-en horain arteko aurkakoak bere maillakoak genituen. Bere maillakoak, izenez beintzat; indarrez ez dirudi. Gaur arte iñoiz ikusi ezdana, ukal-burruka edo "boxeoan" asi-ta, amabost lehendabiziko burrukadak irabaztea. Horain arte ezda halako "markarik" eskuratu. "URTAIN"-ek bai. Horra or. Zer?

Teknikarik ez omen dauka. Baño, esaten nuena: gizon audniak etziran jai o. Gero aunditu ziran. Hala, Joxe Manuel asierale bat besterik ezda. Eskuratuko al du beharrean

arkitzen dan teknika hori? Ta ordu hartan, garaille jarraitzen badu, ezdu irabazi indarrez bakarrik, denaz baizik.

Hartan, Jose Manuel "URTAIN" boxeolari aundi bat izango da. Ta halaxe aitortuko dugu.

Artean, itxoin. Goratu edo menperatu baño lehen, arrazoi zintzoak euki ditzagun hartarako.

Ta gauza nola dijuan jarraituaz, jakin mintzaten; jakin izketan. Bestela, berriro diot: **IXILDU ZAITEZ!**

Anthon Erkizia

Principe de Viana, 1969, ekaina, 5. orr.

## JULIAN "BARRAKA"

Lesakar gazte bat, Julian Mitxelena, bataioko izenez. "Barraka" lagunentzako.

Aspaldian ezagun zan Bidasoa'ko erreka ontan. Ta, mutil bizkorra zala, zerbait aditua baneukan. Lasterkari polita zala errana zegon. Ba, nik uste, errandakoa gutxi izan dala, Ondarrabiko jaietan irabazi duen laster-apustuen ondoretik neurtuaz. Irutanogei korrikalari omen ziran. Bost etxelartar...; irutanogei danetara. Ta, "Barraka" lendabiziko. Garaille, danen aintziñean. Ez noski jantzi berexiakin, bertzeak bezela. Galtza urdiñ luzeak goituak ta atorra. Ala jantzita. Ezda makala. Ori da..., lesakar griña!

Nun, noiz ta nola gertatzen ote da Julian? Ba, berak erranen dizue. Baserrian. Goizero. Aizkorean. Zer lasterkalari era berean gertatzen ikusi dezue? Or zeok, ba, koxka!!

"Barraka"; lesakar mutilla, lasterkari abilla, irabazle ixilla. Julian: eutsi: eman makilla!!

Anthon

Principe de Viana, 1969, urria, 3. orr.

## KEZKATAN

"Alako egualdia. Ta zer?", dio baten batek.

A, erri-jende gizajoa!: zuk egunero fabrikatik ioan-etorria egiñaz, gutxi zaizu arri eraso trumoitxu bat, ala, bi illabete euri tanterik gabe. Benetan, naiko dezu egualdi edertxo; zakartasunik gabekoa. Naiko dezu; bañan naiko, larunbata ta igande egunetan eguzkia eukitzea. Asteko egualdien goraberak buru-berotzerik ez-dakarkizu. Zuk lana beti leku idor ta gorapeetan baidaukazu. Zuk, illabetero zere ordaña garbi garbi eskuratzea al baidezu. Zu, etxeko kezkatan ordu pare bat egiñaz, kitto bai-zaude. uste baidezu, beintzat, zaudela. A, alako erri-jende buru-gogorra!

Begira baserriko langilleeri. Ez-daudez berdiñ. Zergaitik, ba, eldu dira kaleetara? Anztuak dauzkagulako. Anztuak, ta al bazaigu, ankapetuak ere bai. Kalera jetsi nai dute, bizi berri baten billa.

Zuri, kaletar, berdintxo zaizu eguzki ala euri. Aieri, baserritarreri, ez. Ez noski. Aientzako, egualdia da eben izerdi ta lanen lagunik naigarriena. Egualdien laguntzerik gabe, aizeak daramaz buru-berotze, kezka ta karrakillak.

Zu, baserritar langille: egia dala erandako ori? Orrengaitik, aiñ maiz egualdiri buruz alkar izketan ari zera. Egualdiari buruz izketatu; egingo dituen egualdiari antz eman; gogobetez ala asarre. Egualdia da zure eguneroko berria. Radio ta aldizkariak (revistak) anztua, edo oroipen laburra iskindutzen dioten berrikia. Ez baidira konturatzen, biarko gure ogia, gosea bete bearrez, ta gure esnea, aur egarria il bearrez, ortik datorrela. Zure eskutik, baserritar. Ta, zu -berriro diot-, egualdiak laguntza ukatzen badizu, etzera ezertxo.

Azken ontan jetsi dan euri au, ez al da aunitzendako nazka izan? Zuk, baserritar, zuk bakarrik eskertu dezu barren-barrendik. Sumatu bai-zenuen idortearen ximurkeria. Ta, urria baño naiko zenuen lurrak edana daukan euri on ori.

Kezkatan. Baserritar ta kale-jende. Beti kezkatan.

Iñoiz entzun al dezu, adiskide: "sorta illabetea"? Ez dakizu zer dan? Ba, aintziñekoak erakutsitako sineskai bat dala diote. Alde ontan, Baztan ta Bidasoa erreka ontako baserrietan, indar berexia daukala sinismen onek erratea ezda gezurra.

"Sorta illabetea" aguztuari deritzazio. Ta, ona emen zer dion sineskai onek: aguztu illabetearen amabi lendabiziko egunetan egin dituen egualdiak, urteko amabi illabeteetan egingo dituen egualdien aurrerapen bat omen. Egun bakoitza, bere illabeteekin egoki dira. Onala, lendabiziko eguna, aguztu illabete berari. Bigarren egunean egin zuen egualdia, iraila illabeteetan egingo duena. Ba, ze illabeteekin egoki ote, aguztuaren..., amarra? Sineskaiak dionez, urrengo urteko maiatzari.

Au aipatzen dizuet, ikusi dezazuten, baserritar ta lur-langilleak itsurik gabeko sineskaiak sortu ta asmatu dituztela, egualdiri dagokionez. Onela, baita, badira ostiraletan egualdiak itsuraz aldatzen dala sinesten dutenak. Egia ote? Ez. Ez au, ta, ezta "sorta illabete" sineskaia ere. Ezda gertatzen. Ta, gertatzen bada, ustekabez. Zertaz, agerian dagon gauza da, ez ditula alako edo onelako egualdiak egiten..., zertaz bai; gizonak ikutu ezin dituen arrazoi batzuen gaitik, baizik. Gaurko eguzkiak, biarko eurian adieraziko du. Ta, eguzkia ta euria ez ditugu zuk eta nik sortuko. Edo bai?

Artean, kezkatan. Baserritar ta kale-jende. Beti kezkatan.

Principe de Viana, 1970, urtarrila, 6. orr.

## LESAKA

Beti aurrera !!

Neri erriari agerpentxo bat egiñaz, arkitu naiz berri pozgarri baten aurrean. Ez. Etzegon ukatzerik. Egia zan!

Benetan, maiztxo urbilduko nintzake txoko ontara, etorraldi bakoitzean olako edo antzeko egi baten bat arkituko banuke.

Gauz auekin, nik ikusten dutena da gure erria, ta aiñ zuzen, Naparro guztia, ernatzen ari dala. Berpiztutzen, izandako ederkin edo aintz apaingarria berriro sortu naiez. Ez lurralde aundi bat eskuratuz, Napartar guztien nai ta biotzak bilduz, aietan kultura ta gizontasun bikañen azia ereiñaz, baizik. Ona emen biarko Naparroa. Ikusita dago joera onen etorkizuna.

Lendabizi, bearrezkoa izango zan erri ta erritar guztieri eguneroko lantegi egokia antolatzea. Etorri zian fabrikak. Jaio zan artezia, industria. Ta jendeak, beste aldetara jotzeari utzirik, bertan geratzen ziran, neurtu ezin litezken "ur" goxoak ixuriaz napar errietan. Au izango zan asiera ta onekin salbatzen genuen gere euskal jatortasuna. Ageri dago, euskaldunok beste lurraldeetan barna ibillirik, gure erriak aul, indarrik gabe geratzen zirela. Joan ziran gurasoen semeak etzeuden emen, aiek asitako lanak jarraitzeko. Aiek utzitako oitura, jatortasun ta izkuntzak zaitzeko. Ainbeste eundaka ta eundaka urtetako euskal baloreak galtzera ginjoazin, aipatu duten ernaketa au ezbazan etorri.

Naparro berri bat sortzeko asmoetan gabiltz. Poliki poliki, bagoaz. Joan zana berriro azalera jaso nai degu. Ontarako, izan zan artatik asi gaitezen. Bizi berri bat eman bear diogu, aspaldian izan zana eraberrituaz, an baidago Naparroaren egiazko oñarria.

Gordeta dago orduko jakintza. Ori berriro loraztu bear degu; indarberritu. Orduan, Naparro berria sortuta dago. Egiazko erri aurreratu bat nai badegu, arkitu ditzagun aien oiturak ta ildako gizontasuna. Au berpizturik, bestea bereala eskuratuko degu.

Adiskide: laguntza eskatzeak ezdauka ezer. Bañan askotan, nik uste, obeto izaten dala gere indarrak beartuaztea, besteari laguntza eskatu baño. Ta, euskaldunok badaukagula indar sakon bat erriak kulturaz jasotzeko ez dezagun ukatu. Erabiliz, ez-genuke ezertxogatik laguntza eskatzera joan bearrik. Euskera izkuntza da kultura indar sakon au, azken gabeko eraetan bizitutako izkuntza bat, aiñ errez ote iltzea? Ta, ainbeste ta ainbeste aoetako mintzaira baño obeto, zer, erri baten jakintza ber-loratzeko?

Baña, nora nijoia? Zer da, nere erriari agerpentxo bat egiñaz, arkitu dedan berri on ori?

Ikastetxe ta ikastolak indar osoz banatzen ari dirala Naparro guztian ukatu eziñ. Jakintza, euskal izkuntza, dantzak..., danak bizi berri bat artu dute. Indar berri bat artzera dijoaz.

Esakerak? Ez; egiak. Egiak Barrankan, Baztanen, Yruñan, Bidasoako Errekan. Egiak Lesakan. Zergaitik emen? Au ere ernatzen asi dalako, napar erri izanik. Ikastetxeak bageneuzkan. Jakintza berexi baten billa gabiltz. Euskal jakintza baten billa. Ta, azkenik, ikastola sortu da. Gertoago esanda, ez, ikastola bat ez. Erri guztia ikastola biurtzera dijoa. Eun neska-mutill asi dira. Bañan, au asiera besterik ezda. Aurki, erriko ikasle guztiak asiko dira. Orduan sortuko da euskal sukarra. Erriko izkuntz, dantza ta "folklore" guztia ernatuko da, udaberrian antz. Ta iltzera omen zijoan jakintza onek, berriro eskeiñiko digu bere irripar garbia. Urtez-urte bildutako egia.

Eun neska-mutill. Zintzo zintzo. Kultura bat berpiztutzen.

Zorionak. Zorionak, au ala izatea egin duten aieri. Bidea idekita daude. Janez aseko gera. Aurrera. Beti aurrera!

Anthon

Principe de Viana, 1969, apirila, 5. orr.

## LESAKA

### "BETI-GAZTE"

1940 urtea. Gose ta otz. erraren asotxa ixildu da, bañan bere usai nardagarria, bere oñazi edo ondore tristeak gorde ez. Naigabe ta illunpe... Bañan gaztea beti gaztea. Burruka edo pake garaian, gaztea beti geldikorra, beti obeagoa, naian.

1940-ko udaberria. Illabete batzuz lehenago, "ACCION CATOLICA" zelakoaren billera batean Aita Mikel Kanizabal-ek bere asmo berri bat adierazita zeukan. Deporte eta Kulturaren aldetik, iostaketa eta iakintzaren alde saiatu behar zala Lesakan. Asmo txalogarria; bañan, ta nola asi?; ta nundik asi? Lehenengo pausoa: talde bat, mutil alkarte bat sortuerazi behar zala ACCION CATOLICAREN babesean, bere ale edo sekzione bat izanez. Iaio da BETI-GAZTE. Asieraren asiera.

Gazteak, herriko gazte azkar haiek holako asmo garbi bat nundik sortuko ote zan arrantzan zegozin nunbait. Sosarik gabe, bañan gogo ederrak (gaurko gazteokeri aldrebes gertatzen zaigu), eskoletatik aterita, abailia piktotean, Otxorreneko belasoro malda zelaitu naiez. Gazte haiek bai urrezko medailla irabazi zutela!!

*Francisco Arrupe* iaio berria zan Alkartearen lehendabiziko gidari edo lendakari. Berekin, mai berean iartzen omen ziran: *Felipe R. Aldo Agara, Juan Legasa, Jesus Sadabe* diruen artu-emanetarako, *Julian Ordoki* sekretario; eta *Bernarrobe*... BETI.-GAZTE itxura artzen asi da.

"Altsafero" eta iskanbilla. Otxorreneko "Kristo-Enea" zelaian, futbola: Beti-Gazte Donostiko Militar batzuen aurkan. *Pepe Arakues; Julian Ordoki, Salvador Rada; Victoriano Mazizior, Josetxo Zubigaray, Bernardo Agara; Pako Olaetxea, Teodoro Huarte, Vixente "Arria", Miguel Telletxea, Felipe R. Adabe, Josetxo Astigarraga, Joxe M. Irigoyen*... bat bertiz txandatu. Beti-Gazteren lehenbiziko futbol partidua.

1943 urtea: Nafarroako herri guztien arteko futbol txapelketa bat antolatzen omen doaz. Lesakarrak, igandero futbolaz amorratuak zebiltzanak, etxean gelditzeko gauz ez, iakiña. Ekipo bikain bat armatzen asi omen dira, ta, betiko etsaia: dirurik ez. Kezkak. Zer egin? Periko Agarak aintzindu sos batzuk, ator, galtz, bota ta gaiñekoak erosteko. Ala ere, txapelketa hartan lesakar baten bat esparziñakin aritu behar izandu zuela diote. garai hartan futboleko bertze ekipo bat ere omen zan Lesakan. BETI-GALDU izenarekin. Batek bertzeari lagunduz, noizpait konpondu. Behintzat ari, eta ariz, irabazi ahal bazan. Txapelketa hartan bigarren geratu omen zan Beti-Gazte. Asiera ona; bañan lehenbiziko zorrak.

Zorrak kittatu omen zituzten, ordea. Giro ederra sortzen asi omen zan herrian, ta, handik, eta hemendik, nor-berak sos bakan batzuk igandero altxatuz, bapo moldatzen omen ziran, iendea ere biltzen baizan txaloak iotzeko eta edozein gauzetan esku bat emateko (gaur gertatzen ez zaiguna, zoritxarrez!).

Ta handik asi BETI-GAZTE indartzen. Ta nola indartu! Urte bakanen barruan Erreka hontako nagusi. Galdetu bertzela orduan aritzen ziranai. Egurra lasai ematen zuten, batez ere Beran eta Lekaroz-en.

Beti-Gazte futboleko norbait bazan ere, pillotan etzegon aulago. Ez noski! 1944-an Bidasoko Herriak pillotarien txapelketa antolatu zuten. Lehenbiziko urtean *Antonio Oyarzabal* eta *Bittiri* txapeldun; bigarrean: *Antonio* eta *Patxiku Fagoaga*; ta 46 ta 47 urteetan *Patxiku* ta *Bittiri*. 1950-an, mugaz bertze aldekoak ere eskuartzen zuten "Campeonato Internacional" zeritzaion txapelketa batean, *Fagoaga-Bittiri*, ta *Cecilio-Kastillo* irabazleak geratu ziran.



halako maixua zaukaten ere lesakarrak: *Antonio Oyarzabal* zana, 1935 eta 1936 urteetan Espainiako txapeldun bikaina, Altsasuko *Oyarbide*-kin aritzen zalarik.

Iakintza edo Kulturaren alderdia ere zaitzen zuten ederki. Antzerki edo teatro eta komendia, dantzak, itzaldiak... Dana agertu nairik ere ez daukat lekurik.

*Telletxea Anaiak, Gillermo Agara, Aita Olaetxea...* zertarako izenik aipatu? Barkatu zuk, eta zuk, eta zuk... Ahinbat bai-zerate Beti-Gazte eta herriak zorra dizutena. Zein eta zein saiatu ziñaten geina ezin dezakegu berexi. Herriak gogoan zaitue; guztiok badakigu nortzuk zeraten! Izan ere urte zoriontsu haietan, Beti-Gazte ez baizegon amar edo emezortzien eskuetan; herria, Lesaka osoa zan BETI-GAZTE, BETI-GAZTE lesakar guztiendako baizan!

Ezkeroztik makiña bat aldiz argitu dula, e? Beti-Gazte, urte batzuz Errekako nagusi pare gabia, atzeka asi zan garai batez. Ta pixkaka su indartsu hura itzali. Pizten zan illabete batzuz, bañan bereala ozten zan berriro txondorra. Berri berritik egin behar zutela asi ziran orain dala lau bat urte; batek bat ta bertzeak bertzea, alkar urratzen asi omen ziran, ta girorik ez zan sortu. Orrela gaur arte.

Azkeneko garai hontan, Lesakako gaztedien ioera ez da benetan txalogarria. Arratsalde osoak ostatuz ostatu, zurrutean, berriketan. Ta gazteak bakarrik ez noski, haurtxo baten bat ere asia da. Gure sasoi hau elburu edo ideal batzuen ondotik gidatuko bagenuke! Gazteok alkarte batean batuko (batatuko) bagiñake! Ez; zertarako alkarte eta izen berriak! Hor Beti-Gazte, istori eder batekin...

Beti-Gazte gazteen Alkartea izandu da beti. Ez adiñaz, iokaeraz gazteen Alkartea. gaur ere herriko gazteak behar dute Beti-Gazte "gobernatu". Ez haurrak: gizontasun pixka bateko gazteak, mundu pixka bat daukaten gazteak, baten ta bertzeen arrazoi eta iduriak aditzen edo entzuten dakiten gazteak. Ez noski etxerako bildu dezaten. herri guztien alde lana egiteko baizik.

Aditu dutenez, aurtengo Aprillan Beti-Gazte Alkartearen kargoen berritzea omen dugu. Gai egokia hauxe zerbait asteko. Gidari berriek gogo berriaz beteak etorriko zaizkigu, asieran guztioi gertatzen zaiguna. Esku bat emango bagenioke! Esku bat, herrian pixkaka giro txiki bat sortu dedin Beti-Gazte izenaren inguruan.

Futbolan alderdi hortan zintzo asi dirala erran didate. Zorionak, egitan! *Bañan bertze alderdi batzuek ere ez ditzagun ahantzi: pillota, mendietara ateraldi batzuek..., ta batez ere kulturaren aldetik, iakintzaren alde: antzerki edo teatro bat dala, ezkon-gai edo gurasoentzat itzaldi batzuk, euskeraren alde iokatuz...* milla gauz. Bakarrik futbolaren alde bazaude, BETI-GAZTE berria, ez gaituzu zurekin!! Orra egia errana!!

Antxon Erkizia

Principe de Viana, 1972, apirila, 7. orr.

## LESAKA

Aspaldian ahantziak zago zin "Bortz Iriko Pelota Yokuak", aurten, Lesakako "Bergara" ta "Batzar-Leku" Elkartearen bidez berrituta yokatu dire, akaso lau edo bortz urte oiekin ordez.

Marcelino Bergara genun nagusi eta berak nai izandu zuen lehenbiziko sakia egin ta, orrela, yoku onen ateak zabaldu. Gazteak alde batian, zaharrak bertzian, denak al dutena egin dutela erran beharrik eztago. Eben abiltasuna irakutsi bear, yakiña, irabazi nai baldin bazuten. Izan ere orreñen berdiñak ta interesgarriak ziran partiduak!

Elizalde, ta Bergara bigarrena (Marcelinoren anaia), etxalartarrak, ateri dira lehenbiziko, zaharrenetan. ok eraman zuten, erran bezela, Iruñeko "Diario de Navarra" ("Nafarroko Egunerokoak", eusgeraz garbi erran-ta) emanikako bi txapelak, ta gañera, kopa bana.

Zubiria ta Salvador, lesakarrak, berriz, "Telebote" ostatuak emandako bi txapelak, gazte artetik lehenbiziko, ateri ziralako.

Sari oikin gañera, Bergara bigarrenari, eman zioten kopa eder bat, pelotari oberena izandu zelako.

"Bergara" ta "Batzar-Leku" Elkartek partitu zuten bertze sari aunitz.

Balio zuen, egia da, izerdia ateritzea sari oek artzeko, baño, eztu gutxiago balio batzuek egin duten lanak yoku oek berriz jayorazitzeko.

Zorionak, deneiri!

Azkeneko urte otan ezgenun bertze gauzik aditzen: Lesakan, etzela bearden bezela irakusten eskola aurreri. Ta eziñ ukatu, errati oneri kontra aundirik ezin giniola egiñ.

Batzuek erranen duzue, yuan ezkeroko egunero, naikua ikasteko bidia bazagola. "Guk gutxiko ikasi genun", aditzen da ez gutxi aldiz. Bai, orretan arrazoia baduzue, baño, uste duzue, noski, oraindela zortzi edo amar urte bezela dirala orain gauzak? Ezduzue ikusten, edozin lanean sartzeko, eskolik gabe zer gaisto den? Gañera, zenbat-ez-ta eskol ederragoa yakiñ, toki obian sartu, ori yakiña!

Toki guztietan, txikitik eskola irautxi naizik dabiltzala erran biarrik eztago. Lesakan, eskol-faltarik ezdugu; baño ezda au aski, bearda, batez ere, ongi irakutsi. Ta nere ustez, azkeneko iru edo lau urte otan, atzen gogoz irakusten aurreri. Orrengatik, aunitzek etzuten nai izaten, baserritik, eben aurrak bigali, maiz, eskolara, ikusten bai zuten, urte osoa pasatu, ta puska bat gastatu ondoren, eskolan trebetu gabe gelditzen zela muthikoa.

Bai, Zori-txarrez, au egia izandu da orain arte erri onetan, baño, emendik atziñera, gauz bera ez errateko bidiak badauzkagu.

Batzuek konturatu dire, orain arteko bide au seguitxo ezkeroko, Lesaka, bertze zortzi-amar urten burun, bertze errien parez, gibel gelditxoko zela. Orrengatik, ba, aurtengo udatik asi ta, badauzkagu bide galantak, jakintza aren lenbiziko mallak irakusteko aurreri. Orain, bai, erraten aldegu, lasai, egunero, edo maiz bialdu ezkeroko eskolara, ongi ikasteko bideak badauzkagula. ALA BIAR ERE!

Antonio Erkiziak

## LESAKA

### "Euskal Ikasketak"

Bigarren urtez, Beti-Gazte Alkartearen izenean antolatua, euskal ikasketak asi ditugu Lesakan. Euskera ikas nai ta euskeraz trebetu nai dutenentzat euskal ikasketak (klaseak) gabetan. Ta Lesakan pare, Berako taldea ere ikasketekin asia da.

### Auto-kritika

Lehengo urteko esperientzia ona hor genduen, ta hartik asi gera. Gure buruen azterpen deo "auto-kritika" bat egiñaz, alegia. Ioan den neguko saio hortan ze azertu ta ze utsak izan genituen azalduz. Hain bakan ta hain beharrezkoa dan "auto-kritika"! Laburra ta murrirtza gurea hau. Naikoa ez, inola ere. Bañan, ala ere, puntu batzuk aipatu ziran, uts batzuk azaldu, gai batzuk ukitu. Lehengo urteko ikasleak irakasleei buruz zer zioten argitara atera zan: ez geundezila geiegi trebe euskeraz; talde geiago egin behar zirela, bat banaka alkar ezagutzen ioateko; alkar-hizketa gutxi sortzen genduela; iraskintza edo "pedagogian" aldetik pito bat ez genakigula, bat edo bertze utseinta... Mami ederra daukaten salaketak.

Bañan, badago oraindik bertze zerbait. Hauxe: euskera ikasterakoan, asteroko bi ikasketa edo klaseak ondore on gutxi eman ditzazkete, nor bera ez bada saiatzen. Hizkera bat ikastea ez da matematikas ikastea bezela. Hizkera bat ikasteko behar da ARI, mintzatu iota-ke. Lotsak kolkoan sartu, ta alkar-hizketak asi, gaizki edo ongi, lagunen artean. Gu klase barruan euskeraz mintzatzen giñan arretaz, bañan kalean erderaz, ikasleak beren artean, ta gu ere bai maiz ikasleekin. Hau izan da azterpen honek egin digun salaketarik gogorrena, bañan mamitsuenetik bat ere bai.

### Zabarkeria edo zergaitik iakin ez?

Uts sailla ederra izan dugula ikusi arren, uste dugu lan puxka bat egin zala ioan den neguko ikasketa hoiien bitartez. Zintzo etorritzen zirenak franko trebetu ziran hizketan, ta idazten (eskribitzen) ere poliki asi ziren.

Hortaz, negu hontan ere gogoakin etorriko zirelakoan antolatu ditugu ikasketak berriro. Zabaldtu genituen paperak zokoz-zoko, euskeraz ta erderaz adieraziz ikasketak berriz astekoak zirela, ta azaldu nai zutenak aski zutela izenak ematea aste baten barruan, etzutela ezer ordaindu beharrik izanen. Hori bai, ez giñan ibilli iñoren atzetik ioateko erraten. Hor zauzkaten paperak, ta ikus nai genduen zenbat asten ote ziran iñork eskutik artu ta eraman gabe. Aste bat zai egon, ta... lau gazteen izenak bertzerik etzan azaltzen. Lau gazte bakarrik, bertzerik ez, hiru millako herri batean, hain jatorra ta euskal zalea dala erraten dtuen Lesakan. "Boicot" irakasleei? Ez dugu uste halakorik izan zenik, ta asi giñan. Bat banaka, bertze batzuk azaltzen asi ziran, amalau-amaseiraino.

Ta ustekabeko honen ondorean, nere galdera: Lesakarrokei, ta batez ere lesakar gaztediari zenbat ajola (importa) zaio euskera ta Euskal-Herriaren bertze gora-berak? Aurrera edo atzera goaz? Ez naiz gauz azterketa sendo bat egiteko: ala ere nere iduripen aul bat ematera noa.

1.- Lesakarrok jatorrak eta euskal zaleak omen gera, diotenez. Benetan, dantza ta euskal ohitura zaharrak zaitzen saiatzen gera, ta inguruko herrixka bat ialetan arkitzen danean, han gaude lesakar gazteok euskeraz kantari ostatuz ostatu. Ongi, bañan oso gutxi. Arreta pixka bat behar dun bideetan abiatzen bagera, potto. Hau lurreko leku guztietan gertatzen zaiguna dugu, bañan Lesakan beste herri batzuetan baño geiago, nere iduriz. Gazte geienok lanean gabiltza, illabete azkenean bizpahiru sos gureak ikusten ditugu, ta gainekoa or konpon! Bai, bai; euskera ikas behar dugu ta euskaldun iokatu, ta... Bañan, arretaz asteko orduan: Ba, mañana! Ala diogu geienok.

2.- Dana dala, "konbenzitzen" gaitun gauzen bat bada, iokatzen gera pixka bat hartara. Bañan, EUSKERAK EZ GAITU "KONBENZITZEN"! Ez dugu euskeraren beharrik ikusten! Euskeraren aldeko kontzientzia galduerazi egin bai-digute edo behintzat galdu egin bai-dugu.

Euskaldunak, gera bai, bañan euskera ikasi ta euskeraz mintzatzeko arretarik ez. Nola izan leike? Nola erran dezakegu herria maite dugula, ta herriaren alde gaudela, herriarena den euskera baztertzen ari bagera? Nola erran dezakegu herria gurea dala, herritarrok erabiltzen dugun hizkera ere kanpokoak ezarritakoa bada?... Edo... Ze gizontasun izan dezake batek, bere nortasuna ankapetzera utzi, ta besteen ideak bakarrik baditu? Besteenak bakarrik, berak bererik gabe? Erdera bai, beharrezkoa dalako, ta... bañan erdera bakarrik ez iñola ere!

Azkena:

Hitzak: Hitz politak, bañan aizeak daramazkin hitzak. Odola berotzen zaigu, bañan batzutan ta denpora laburreko. Arreta pixka bat eskatzen digutenean: Ba, mañana! Hauxe gertatu da Lesakan euskal ikasketekin. Beharrik bai ez direla danak gu bezelakoak!

Antxon

Principe de Viana, 1972, azaroa-abendua, 7. orr.

## LESAKA

Jai on, Lesakar

"Uno de enero, dos de febrero, tres de marzo, cuatro de abril; cinco de mayo, seis de junio, SIETE DE JULIO: SAN FERMIN".

Udaberrian zugaitzak loratu ta udazkenean zimeltzen diran bezelaxe; Usategieta aldetik goiz argia sortu ta Errenga mendi aldean eguzki gorria iltzen dan bezela, gure buru gañetik pasaturik, alaxe dijoaz egunak. Ala, baita, oroipenak eta mundua. Onela goaz gizonok.

Uztaillaren 7'an: San Fermin. Ona emen, nola, urte bat geiagoz erriko besta aien atetan arkitzen geran lesakarrok. Bulla ta iskanbilla kaleetan. Pozezko argitasuna aurpegietan. Alaitasun ta irriparra ostatu ta sukaldeetan. Erriko bestak atsegin bat lan artean; egonaldi laburra gure eguneroko ibilbearretan; ordu apal bakan batzuek izerdi ta kezka artean. Noski, udako sasoi onetan, iñoiz baño egarriago zaigu egun labor okin alaitasun ta irriparra. Kaixo, ba, san Fermin jaiak!

Elizan amabi ezkill. Erriko-etxetik susko-ziri edo "Aaltsafero" bat igo da, or goian lertuaz. Erriko bestak asten dira. Ta, beti bezela baño ordu ontan era berexi batez, Lesakako etxe guztien ateak idekiak daudez, naiz gipuzkoar edo nappar, euskaldun naiz erdaldun guztientzat. Ta, batez ere, Lesakatik urruti arkitzen diran erritar aientzat. Erri-Amaren magaletik ioan ziran egun batean; bizi bearrak banatu omen ditu mundu zabalean; Frantziara, Ameriketara, Australiara... Gaur nai genduke danak berriz alkartzea txoko ontan. "Sanfermiñak" bai-dira!

Bai, jaunak: sanfermiñak, lan, ba, lasai; edan bizi-bizi. Alaitasun ta poza euki dezagun kupiderik gabe, alkarte ta sasoi ederrean. Alaitasuna, alkarte, poza..., ta nortasuna. Bai orixe: nortasuna, Erderaz; "personalidad". Ain larri dabill Lesakako erria azken aldi ontan gauz orreri buruz!! Lesaka, bere ikurrin edo banderakin "Laminaciones s.a." fabrika baño ordu batzuz lehenogotik sortutakoa da, noski. Ez gaitezen lesakarrok biar menpetuak arkitu. Erne, ba, jauna. Errien nortasuna zaitu. Erritarrak zuekin gaudez!

San Fermin; erriko bestak. Bestak ta alkartasun. Alkartasun ta poza. Poza ta pake. Pake ta nortasun.

Jai on!!

"Uno de enero, dos de febrero, tres de..."

Anthón

Principe de Viana, 1970, ekaina, 5. orr.

## LESAKA

Ioan den igande hontan, Tele-Bote ostatuko "Peña Vergara" Alkarteak bere urteroko bestaldia antolatu zuen, aurtan lesakar seme den Santiago Irigoien-i omenaldi ttipi bat eskeiniatz.

Ta, nor da ba Santiago hau?

Herriko-Etxeko estadistikak digu: Santiago Irigoyen Igoa, Pedro eta Barbara-en semea, 1913-ko urtillaren 24-an Lesakan iaioa, sortzez ondarrabitarra den Margarita Muñoz-ekin ezkondua... Estadistika otzak ez gaitu geiago argitzen.

Nor dan Santiago? Hitz batez: lesakar herri gizon txistulari bat. Ta kitto. Bai, orixe; herriko semea. Lesakan iaioa ta bere sort-herria maite duen ezkerero. Herri-gizona, herriarekin bizi baita ta herria baidu elburutzaz bere egiñalatan. Ta txistularia: soiñulari trebea, 13 urteko mutikoa zen ezkeroztik, 45 urtez lesakar txistularien gidari eta eredu jatorra.

Bai, 45 urtez bere txistuen atzetik, kalez-kale, herriko giro jatorrari eutsi beharrez; 45 urtez herriko txistulari. Horrengaitik izan dugu gogoko jaialdi honen aldeko asmo hau. Ez baizan, ez zuen ala behar behintzat, Santiago Irigoien-i egiten zioten omenaldia bakarrik, baizik Santiagoren bitartez, Lesakako txistuari egiten genion omenaldi bat.

"1927 urtean hasten nintzan musikaren lehenbiziko gora-beherak ikasten, Pepito Sarobe nuelarik irakasle. 13 urteko haur mukozoa nintzela oraindik, lesakar txistulari taldearen buru arkitu nintzan. Luis Taberna organista paregabiaren eskutik hasia nauzute trebetzen... Gaur lesakar gaztetxo mordo batei txistua irakatsi beharrez nabil. Bañan ez txistu bakarrik, era berean baita txistuen egin behar sakona herrian, gauatik goizera galtzen ari zaigun euskal giro baten alde", digu Santiagok.

Lehenko igande hortan "Peña Vergara" k jaialditxoa antolatu zuen. Goiz-goiztik txistulariak kalez-kale. Goiz-erdi aldera. Bidasoko txapeldun izandutako pillotari zaharren saio ikusgarria: Lizardi eta Txoperena, iantziarrak, Fagoaga ta Bittiri lesakarren aurkan. Bapo. Ondotik, berriro, Santiago ta bere txistulari taldearen egiñaldi alaia. "Peña Vergara-koak bazkaltzera bildu ziranean, dana akitu zan iendearentzat, illunabar arte. Ta hori bai penagarri izan zala, arratsalde osoa "larrugorritan" uztea. Goizeko giro hari eutsi egin behar zitzaion illundu arte, iendea egun osoan bertan geatu zedin. Ziurki, datorren urtean, egun honekin, Tele-Boteko Martzelinok zerbait asmatuko dula arratsalderako; dantza batzuk, edo soka-tira dala, edo... zerbait.

Dana dala, franko egokia izan zan omenaldia.

Santiago: Omenaldi ttipi honekin, Lesakako herriak, Peña Vergararen bitartez, eskertzen zaitu zurekin ta zure txistu "sorgingarriakin" igaro edo pasatu ditun ahinbat ordu alaiak. Eutsi hortan Santiago, eta jarraitu urte aunitzez gure kaleak alaitu ta euskal zaletasunez betetzen.

Antxon

Principe de Viana, 1972, ekaina, 7. orr.

## LESAKA

"Akelarre" deitzen diogu, gure errian, dana oker dan gauz aeri. Edo, dana oker egiten dituzten aieri. Erderaz: "calamidad". Zuek, noski, alkaitz edo olako itzen bat erabiliko dezute. ori berdintxo da. Ala edo onela, esan naia adierazi ezker, esateko era edo moduak ezdute ajol aundirik. Zuzenago adierazi ezker, obe, ori bai. "Akelarre" itz au ezdakitzuzena ote dan. Baño, zuen baimenez, au erabiliko det gaur.

Ta erabiliko det aurtengo udaberri asiera oneri buruz. Uda-berrien sortutze akelarre bat bizitzen ari bai gera.

Jorraillak amalau dauzka gaur. Euria jetsi ala ari du. Goibelak (odeiak, leku askotan), eskuakin artzeko antzan. Bi egun politak euki ditugu. Bañan, ainbeste ta ainbeste euri ari du azken ontan! Bideak, belarsoroak..., dana uraz aseta daudez. Akelarre!

**"Polita da uda-berria, maitale guztien zeru urdiña bezela"**, dio batek. Bañan, maitale oien zeru urdiña illuntzen danean, baten edo besteen erruz, aiiñ polita ala, ordu artan, aien gañeko zerua? Antz; uda-berria ta uda-berrien izena polita da, lorez ta margolez betea. Euriak, otzak ta egun illunak zapaltzen badigute bizi berri onen sortutzea, aiiñ alaigarri geatuzten ote uda-berrien izen au? Akelarre!

Ezda erraz gauzak egitea. Ezda erraz, erraza ezdalako bizia. Ez ditugulako erraz azaldutzen gauzak. Ezda erraz maitaleen arteko alkar alaitzea. Ezda erraz senideen arteko alkar ondo erabiltzea. Ezda erraz, ez. Ez ditugulako erraz azaldutzen gauzak.

Gaizto, munduko buru izan nai duten aientzako. Gaizto, eben esku-bide ta azkatasuna eskuratu naiez dabilzan aientzako. Gaizto, pake ta osasunean bizi bearrez lanean ari diran aientzako. Gaizto. Akelarre!

Ta au ikusi ta siñesturik, ezda alako makurtasunik guk nai ezditugun egualdiak egin arren. Gaur onela, biar beste egun izan leike. Odai, goibelak asarratu dirala ta gu ikaratuak. Ez balitzake beste gaitzerik munduan, ezgaude gaizki; ezda zalla bizia.

Baño begira zure inguruan. Begira nora goazen gizonak. Illargira? Bai baño emengo akelarreak gere ondolik urrutitu naiez. Beste mundu berri baten billa. Ta ez. Ezdaukagu beste mundurik eskuratuko, or, goi ortan. Bizi berri baten billa bagabiltza. Ta bizi berri ori, emen, bertan sortu bearko degu. Ta ortarako, zenbat gauz ezdira gertatu bear! Geiegi.

Uda-berria. Euria ta otza. Uda-berria. Gera, gosea ta alkar ikusi-ezin amorratua. Au ote uda-berri o nek ekarri nai digun bizitasuna?

Itxaropena. Bizi ta mundu berri baten itxaropena. Egiatzko uda-berri baten itxaropena. Bitartean, Akelarre!

Antton

Principe de Viana, 1969, maiatza, 5. orr.

## LESAKA

"Lesaka'ko euskal izotza"

Amabiak, benetan, egunero aditzen ditugu. Urte-zar gaba aretako amabi orduak, baizik, gauz berexi bat erran nai ziguten: Urte bat ill zala ta, berialaxe, bertze bat yayo.

Bai, egitan. Berriz ere urte bat asi degu... ta bertze bat anzteko bidian baduye, ainbeste bezelaxe. Nolakoa izanen ote-dan milla bederatzi eun, irurogei ta zortzi garren (1968) urte au, elkarrari galdetu baño len, azkeneko begitze luzexko bat egin dezayogun ill dan urte areri, nolakoa izandu dan ikusirik:

Oroitzen naiz, aren lenbizian asi nintzela, errebista onen bidez, euskal errelduok zuen etxetara eramane naizik. Urte bat, ba, emen idazten (eskribitzen) asi nintzela, Lesakako mintzaera onetan. Orain, bertze urte bat asitzean, bai-eza ikasi naizik, galdetzen dizuet: Zertarako balio izandu du nere buru berotze ok? Zerbait atzindu al dut nere lan okin?: Ez gauz aundirik. Ala diot nik... ta, okerragoa, ala diote bertze batzuek ere. "Ergelkariak, ta, ek, gazki", ala zion, lenguan, batek zin-zintan. Izan alttezke egia dan, baño, egia da ere nik al duten guztia egiten dutela... ta geiago ezin dirazue eskatu!

Euskara, Lesakako zulo onetan gorde naizik asi... asi nintzan; Lesakako zol busti oneri itxeki naizik. Bertze batzuek ere, gauz beragatik, ni baño eun milla aldiz zintzoago lanean ari dire. EUSKARA GIBELKA baduye, baizik, batzuen lanak antzirik. Ta, Lesakan beziñ oker ta makal, Euskal-erri zabalean. Zergatik? Zeñengatik?: Guztion gatik!! Orren, aren, onen, nere gatik; DANOKIN-gatik. Batzuek. Lagunen artean ezgeralakoz euskaraz mintzatzen; bertziak, ez lagunene artean, ez etxean, txikitik ikasi... edo irakutsi etziotelakoz.

"Etziraten irakutsi": ezdire gutxi, au erranaz, eben burua gordetzen dutenak. Egiz, txikitik ezbalin bazioten irakutsi, gurasoak badute zerbait ikusi bearrik. Izan ere, erdaraz ikasitzea bearrezkoa omen da ta!! Orretan, arrazoia daukazue: Gaurko egunean, erdaraz yakitea bear-bearrezkoa da, egiz; zeñek erranen dit, bertze bortz urten burun, ezdela, Euskal-errian bizi denantzako, euskaraz yakitea ala izanen? Ordu ura etorririk, zer izanen litzake arrazagoa ikasitzeko? Erdara edo Euskara?

Ezda gauz zoragarria erratea, baño egia da, zenbat gazte (ekin tartean, akaso, ni edo zu) euskaraz mintzatzea lotsatzen diren, gibeltasun bat dela siñesten dutelakoz!! Euskara ezda bigeltasun bat. Begitto, bertzela, gizon yakintsuaeri: Eben egiñ-bearrak alde batera utzirik, Euskara ikasten ari dire. Zergatik?: Izkuntza, mingaiñ zar bat delakoz; inguru otan, zarrena, aisa.

Gu, berriz, zoruak bezelaxe, txikitik ikasirik, zabarkeriz anzten!! Gero erranen dugu, or barna: Euskaldun naiz!! GEZURRA, Euskara, zabarkeriz, gu bezela, utzitzen dutenak, edo, gurasoen lekuan, irautsi ez naizik dabiltenak, ez gera ez euskaldun, ez alakorik yousere.

Ze penagarria dan, ainbeste mill urteko mintzaera bat galtzera utzitzea; gure aspaldiko gurasoak utzi ziguten izkuntz bakarria ura ankapitzea. Ta gu, ortxe-ortxen, orixen egiten dugu: Euskara ankapan zanpatu ta zikiñdu. Bearrik, bai, oraindik Lesakan badirela batzuek euskal izotza au kendu naizik dabiltenak, gorde ta maitatuz, bear den bezela. Oetik ikasi dezagun.

Aurrera ok... ta AURRERA LESAKA GUZTIA!!

Antonio Erkizia



## LESAKA

### Meza Berri

Illabete ontako Lesakako gotti-beittik kontatzen asi ezker, Meza Berriarentzako izanen litzake, nere ustez, lehenbiziko lekun.

Aita Martin Tapiak, praile karmeltarra ta erriko semea, Meza Berria eman du. Lengo maiatzean, Beera, Obispo Agurgarriak, egin zuen apaiz Erroman. An bertan meza eman-ta errira etorri zitzaigun laister. Emen, bere osabaren esperuan egon onduan, illabete onen iruan, meza kantau zuen, bere guraso-anaien aintziñean. Egia erranta, gutxi aldiz ikusi dut Eliza orrenen betia! Izan ere gure Martin denen laguna baitzen. Gañera, egun aretako Elizketak oso ederrak baitziran. Bortz apaiz aldare berean meza ematen ("Misa Concelebrada") ezgenun beñere ikusia lesakarrok.

Gauzak denak ederki ateri zitzaion; Meza akautu orduko, denak yuan giñen erdi lasterka eskuari musu ematera.

Elizatik bazkaltzeko lekura, txistu (Ttunttuna) soniuan etorri zan gure apaiz berria, yuan ere ala egin baitzen.

Aunitzek ezdute ahantziko egun zoragarri ure, ezpaita, gañera, ahazteko gauza. Gogoratu zaizkit ba, bertso batzuek erratea; ezdire oso ederki, baño, baño..., balioko du egun ura beti goguan idukitzeko.

Berriro lesakarrok, erraten al degu,  
"erriko seme bat, prailea badaukagu,  
Martin izena dauka, Tapia apellidu,  
geienak meza ematen ikusi diogu".

Gauz berria zen ta yendea arat bildu,  
tokia arrapatzea yarritzen, ba estu;  
batzuek meza eman, bertzeak kantatu,  
"Sakristau bat" bitartean, dirua eskatu.

Ameriketan falta, Kongon ere egiñen du,  
gure Martin orain, nora yuanen zaigu;  
mundu zabal onek, apaiz eskasia du,  
Lesakan, oraindik, ba, faltarik ezdugu.

A. Erkiziak

Principe de Viana, 1967, urria, 5. orr.

## LESAKAR MUSIKA-TALDEARI:

Gazteak, gazteak geralako, beti eskatzen ari gerade. Orain gauz bat, gero bestea, mundu guztia eskuratu naiez... Gazteak bai gera!

Azken ontan ere, jai arratsalde-illunabarreko soñu edo musikari buruz, iskamilla naiko atera degu. Zintzotasun geiago nai genduen, eta orra or eskuratua. Berriztu degu, ba, galdua zegon giro egokia.

ESKERRIKASKO, diote gazteak, Lesakar musika-taldeari. ESKERRIKASKO, bai.

Anthon

Principe de Viana, 1968, urria, 5. orr.

## LESAKA

### GURE "FERIAK"

Urte bat geiagoz, azaro illabetearen azken aldera, Lesakako erriak bere "feriak", ospatzen ditu. Bi egun erdi bestak: azinda batzarditxo bat plaza inguruan, pillota partidu batzuk, soñua... Orixek dira Lesakako feriak. Errateko gauz aundirik ezdaukaten elkarren arteko ordu batzuk.

Baño, zergaitik egiten dira feriak emen, Lesakan, ta ez beste erri aunitzetan? Zergaitik? Nork eman zigun eskubide au? Noiz?

Lengo batean ikasi ahal izandu nuen noiz ezkerotik ospatzen ziran Lesakan feriak ta ortzegunetako merkatoa. Martin sekretario jaunaren bidez, autsez betetako Erriko-Etxeko liburu zahar aietan, azkenik arkitu genduen gure galdemodu oieri erantzuna.

Erderaz idatzitako paper ximur batean ageri da nola, 1402 urtean, orain dela bortz-eun urte txoil ez, "Carlos III El Noble" orduko Naparroako erregeak eman zion Lesakako erriari merkateak ta bi feri urtien buruan egiteko eskubide osoa, lesakarrak lagundu ziotelako, odol aunitz ixuriaz, gerra batean. Paper orrek dionez, merkatuak bi astetik bein, asteazkenetan, egin bear omen zuten; feriak berriz, bat Pentekostes igandea baño amabost bat egun lehenago, ta bigarrena azaro illabete azken aldera.

1436 urtean, ordun Iruñeko erregeak izanik D. Juan ta Doña Blanca, sendotu zuten eskubide au Lesakako erriaren alde. Ta gauz bera egin omen zuen, urte batzuz beranduago, D. Juan de Labrit erregeak.

Ezkerotik, 1829 urteko martxuaren 7'an, bildurik Iruñean Naparroako buru ziranak, erabaki zan feri bat bakarra egitea, au maiatzean. Merkatoak ortzegunetan, amabostik bein egiteko ordena.

1842'ean, beste liburu batek dionez, berriro baimen osoa eman omen ziguten baita bigarren feria ere ospatzeko azaro illabetean, lehenago bezelaxe.

Ainbeste euri egin du geroztik! Ainbeste negar aurrak! ainbeste oi u gizonak!... Baño gaur oraindik amabostik bein merkato gisako bat egiten da Lesakan! Ta baita feritxo bat ere. Iñork ezdigu eskubide au ukatuko. Iñork; gure aspaldiko gurasoak, zintzo iokatuz, irabazi baizuten, eskua biotzean zaukatela.

Anthon

Principe de Viana, 1970, urria, 5. orr.

## LESAKA

Bertze urte bat gutxiago. Milla bederatzi eun irurogei ta zazpi garren (1967) urtea iltzera dijoa, azkengutan dago. Ta, berriz ere, urte akabill-asiera onetan, bestak, EGUBERRIAK.

Anaiak, izaunak, urte guzian elkar ikusi eziñ izandu duten adiskideak, besarkatzeko modua, urte guziko gotxi-betxik ontatzeko modua, Bai. Emen dauzkagu, ba, eguberriak. Sukaldean goxo-goxo egoteko egunak, elurra edo uria lasai ari malimadu ere, bakotxak bere kontuak erranaz, urteko zoritxar ta karrakillak antziz.

Baño, alikan ere, urtean egindago lanak arrotzea piskobat ezdu gaitzerik ekarritzen. Ze lekutan sartu zan "loian"; ze aldetara yokatu bear zuan, berriz etzaziola gauz bera gertatu.

Nolakoa izandu da urtea? Galdetzen al duzue elkarrerri, bakotxak bere egiñ-bearreta. Nere gauzetik ageri gabe, ala geldetzen dizuet nik: Nolakoa izandu da urte au euskerarentzako?: GAIZKI. Ala diote batzuek, ta... ala diot nik ere. Zergatik?: azteak, euskeraz mintzatzea lotsagabekeri bat dela uste dutelako.

Gizonak, erdaraz, trebetu naizik, mintzatzia naigo dutelako. Gauz bat edo bertziangatik, egia au da: Lesakako euskerak galdu egiñ dula urte onetan; ta ez gutxi!! Galdu, bai, euskaldunak bakandu diralako; erdal solas aunitz sartzen dugulako.

Nik, al dutena, uste dut, egiñ dutela. Rebista onen bidez, zuengana alletu nai izandu naiz, Lesakako mintzaera au gorde naizik. Nere eskuetan zagona egiñ dut, boronte osoakin. Gañekoa zuen baitan (zuen eskuetan) dago. Antziñekoak utzi ziguten izkuntza ez balimadegu nai gorde maitasun geiagokin, batzuen lanak alferrikan dira. DENAK, ez batzuek bakarrik, gorde bear dugu euskera; bertzela, beiñgotik bakean utzi, la listo!!

Bueno, baño, ezdugu asertu bear egun otan, elkartasunen bizitzekoak dire ta!

Akautu nai dut, urtea, danoeri deseittuz, danokeri, berriz ere erraten dizutet, euskaldun edo erdaldun, izaun edo ez, eta batez ere nere leitzalle-adiskide oiekari, EGUBERRI ta URTE BERRI ON!!

Anton

Principe de Viana, 1968, urtarrila, 5. orr.

## LESAKA

### "Beti-gazte"

Ille aundi bat, azkanarruen antz; "patilla" luzeak, eta, ondo edo ez aĩn ondo zaitutako bizarra kokotzatik bera. Ator argi bat; galtza lasai batzuek; oñetakoak zarrastan...

Onelakoa omen da gaurko gaztedia. Ijitu antzekoa. Ariña. Buru gabekoa. Alperra... Igingarria, baten batek dionez. Ala ote? Aĩn akelarre? Zuk siñes ezazu; nik ez dut ala uste!

Mendien artean beitu, zugaitzez inguratua dagon erreka txukun baten bi aldetik, etxe txuri mordoskada, bat bertzien ondotik, eskolako aurrak bezela, sallan. An erri bat: Lesaka. An gaztedi bat. An "Beti-Gazte".

Izen polita, maitale guztien zeru urdiña bezela; amasei urtetako ametsa iduri. Izen polita...: "Beti-Gazte". Uda-berria.

Orain dala ogei-ta-amar urte, Lesakako erriak euki omen zuen, "Beti-azte" izen onekin, gaztedi alkarte bat. "Futbolean", "balonean" iokatzen omen zuten, batez ere. Ni zerbaitez oroitzen naiz; an ta emen garaile irtetzen zirela. Ori gogoan daukat. Orain dala amar-amabi urteko kontuak!!

Poliki poliki, urtetik urtera, "Beti-Gazte" ura moteldutzen joan zan. Orain dala bost bat urte itto zan, il zan, ixildu zan "Beti-Gazte"; ta, berekin ixildu ziran, baita, Lesakako gaztedien amets ta egin bearrak. Udazkena.

Gero, bost urte luzez, egun tristeak. Gaztea, banatua, ostatuz ostatu irurogei urteko gizonen pare, zer egin etzakilarik. Emezortzi-ogei urteko gazteak motel-motel. Negu beltz.

Gaur, orain dala iru illabete ezker, berriro gazte alkarte giro goxo bat. "Beti-Gazte" berriro gazte. "Beti-Gazte", ogei ta amabost urte sorturik, gaur, atzo berpiztua. Gaztedia berriro batatua, zer edo zer antolatu naiez. Or goiz eguzki garbi. Or uda-berri.

Zerbait badago, gauz aundirik ez arren. Sortu dira, beintzat, lendabiziko "xeiskiuak", gora-berak. Au egin bearrez zabiltzala, nik ezdakit nork ez diotela utzi; alako gizonari baimena eskatu bear ziotela... Baten bat bi aurpegikin mintzatu dala; erriko buruak ez daudezila oso konforme, ez direlako gauzak bear diran bezela egiten, astirikan gabe... Baten batek arria bota ta eskua gordetzen duela...

Or lendabiziko "xeiskiuak". Bearrak, benetan. Ez izan ditezen asarre bideak.

"BATASUNEAN DAGO INDARRA". Gaztea alkartua. Baño, ez izan gaitezen gazteok bakarrik; egin dezaiogun besteendako ere leku pixka bat. Asarrerik gabe, danok egin dezagun "Beti-Gazte". Erri guztia batatua. Lesaka dana alkartua. Guztiok bat; guztiok "Beti-Gazte". Au, aĩn gaixto ote? Ez da, noski, amets txarra. "Batasunean dago indarra".

"Beti-Gazte"; amets berri; gazte odol gorri; asmo garbi. DANOK BAT; pixtu ta Lesaka erri!!

Antton

Principe de Viana, 1970, urtarrila, 5. orr.

## LESAKA

### URTE-MUGA

Orduak ta egunak; illabeteak ta urteak. Baduazi. Ta aiekin bagoaz gu ere, udazkenean aize zakarrak osto elbarra daraman bezela. Ta gazteak galdu du betiko haurtasuna. Zaharrak gaztetasuna ez du berriro bereganatuko. Betiko beldurra: bagoaz. Ta egindakoa egiña gelditzen da. Egin ez genduna egin gabe, egin bearrez.

Urte zahar bat il zaigula gau otz baten gaberdian. Norbaiten gogoetan urte ortan egin ditugunak. Herriari buruz: pilota lekua tapatu; Bedioko zubitik Tomaseneko-bordaraño bidea zabaldu; ain mingainetan dabillen karretera berria asi beintzat; Igantzirako bidea berritu; "Plan de Urbanismo" delakoa agindarien eskuetik baieztu; iru konzejal berri berexi; igande illunabarretarako soñu talde berri bat deitu, ta, ta, ta... Herritarrok herriari buruz herriaren alde egin ditugunak.

Urte zahar bat il da. Ta beriala berri bat asi degu: 1971 garren urtea. Asmo berriak. Ta urte zahar ta berrien artean, muga. Urte-muga. Ta galdezka.

GALDEZKA txarrerako edo onerako izando ote dan ioan zaigun urte au; len baño gereagoa ote dan gurea dana; len baño batatugoak ote gaudezin gizonok.

GALDEZKA egia ote dan Lesakako herrien nortasuna auldu dala; arrotzak gure gainetik dabiltzala; gure erria len bezin polita berriro ikusiko ez degula; gure haurrak ainbeste kotxe ta kamion tartean ikaraturik jarraitu bearoko dutela.

GALDEZKA gurasoeri denborak berritu dirala ohartzen asi ote zeraten; gaurko gazteen gogo ta oiokaerak ongarrri edo txarrerako izango ote diran; gure haurrak maitasunez betetako giro goxo batean azitzen ari ote geran. Galdezka.

GALDEZKA, baita, herria ta "Laminaciones" fabrika azkenez alkar konponduko ote duten on-onean, guztien mesederako; herriak fabrikarik gabe bizitzerik ote leuken; herriarekin asarraturik fabrika noraño alletuko ote zan. Galdezka "Laminaciones de Lesaca" edo "Lesaca de Laminaciones" izango ote dan.

GALDEZKA, azkenez, konzejal ta alkateak edo herritar guztiok Lesaka ta Lesakakoa zaitu bear ote degun.

GALDEZKA, urte-muga baida; urte berri bat asi baidegu. Biarkoa gaurkoa baño ohea izan dedin; ordutik ordura gereagoa!!

Antxon

Principe de Viana, 1971, urtarrila, 4. orr.

## LESAKA

Inmigrazioa, ta zer?

Ez omen da zulo berean bi aldiz eroritzen dan astorik. Gizona bai ordean. Hau duk hau! Bi, hiru ta lau aldiz eroritzen gera arri berean trabatuta. Prisaka bizi bai-gera, batez ere gaur; ez bai-degu pentsatzeko astirik.

Urte berri baten asieran arkitzen gera. bañan gure bizia ez da deusetan aldatu. Eguneroko orduetan lanera, asteroko igandeak, betiko amorrazio ta nekeak.

Lesakak azaletik izandu ditu aldaketa batzuk. Haurren iosta-leku berria dala, pillot-lekuari gaintetik behintzat gorapea eman diotela, automobilentzat leku eder bat egin dute, baita; lehengo urtean, garai berean, peperean zegoena, gaur, begira, burnizko pabellon izugarria... Lesakaren aldaketa ageriak, azalekoak.

Bañan ez da dana.

Ondore ikaragarriak (txarrak edo onak ez dakit) ekarriko dituen gertaketa bat bizi izandu degu 1971 garreneko urtean. Ainbeste ta ainbeste iende arrotz, kanpotar Lesakan bizitzen asi zaizkigula. Atzo inor igerri, pentsatzen etzituen problemak, gautatik goizera. Iende honekin zer egin? Iende honeri amorratu ala lagundu? Arrotz hoién iokaerak eta sinistek errespetatu ala baztertu? Gu haiengana ioan ala haiek guregana ekarri?

Naiz ez hala iduri, problema aundi bat sortu zaigu Lesakan. Hemen baño lehenago ainbeste herrietan sortu zan problema ber-bera. Behar zan orduan problema hontaz konturatu etziran herriak gaur zuzendu eta konpondu ezin dituzten ondoreak tapatu nahiez dabilta.

Jaunak: ez da ametsa, ez dira ergelkeriak; problema aundi bat da, baizik.

INMIGRAZIOA. Ogei-ta-amar lurraldeetako iendeak, bakoitzak bere siniste eta bizitzeko era dakarrela, herri berean bizitzen. Nola alkar konpondu? Herri horren, kasu hontan Lesakaren nortasuna, izate berezia, nola salbatu?

Iakiña: haiek eldu zaizkigu guregana bizitzera. Gu gure etxean gaude. Zertarako kezkatu? Bañan ez da hori horrela. Etxeko atea ez bai-da gu bakarrik sartzeko egina. Hori zakur asarratu itsusiaren itxurik gabeko iokaera izango litzake.

Gu, Lesakakoak eta Euskal-Herriaren semeak izanik, lesakar eta euskaldunak izaten iarraitu behar degu. Gure oiturak, gure dantza eta kantu xaharrak, gure euskera zaitu ta indartzen. Giro on bat sortu behar degu gure artean, euskal giro garbi bat. Ta pixkaka pixkaka, iende arrotz hori, naiz gallego naiz andaluza, giro eder hortan sartzen ioan, gureganatu, lesakar egin. Lesakar Lesakar izatea ez da Heriko-Etxean izena ematea bakarrik; herriarekin herriaren problema eta iokatzeko eratan bat egitea, baizik. Herritar bat dala bere buruz sentitzea.

Bañan, ez. Ulertu, entenditu nai eztunentzat ikaragarri zailla da hau. Dena egiña nai degu. Beti "papilla" ian. Ala erakutsi bai-digute. Ain azolik gabeak ote gera gure gauzetarako? Ez da hori. Herria lo baidago. Herria lo...!

Nork ernatuko du herria? Herria ernatuerazitzen duen ernatzaillea, ernaitzaille zoragarria izango da... Ta herrikoa beharko du izan.

Urte berri on, jaunak!

Principe de Viana, 1972, urtarrila, 7. orr.



## LESAKA

### Jaiak

Uno de enero; dos de febrero; tres de marzo; cuatro de abril; cinco de mayo; seis de junio; SIETE DE JULIO, SAN FERMIN.

Bai, adiskide; Uztailla'ren 7'an San Fermin. Jaiak. Jaiak Yruñean. Ta, baita, jaiak Lesaka'n.

Uztailla'ren 6'a: eguardia. Entzun dira amabi ezkillak. Seskain edo altsaferoa igo da. Asi dira jaiak! San Fermin jaiak Lesaka'n.

Atzean, urteko neke ta eznaikeri guztiak. Aintziñean, lau egun. Lau egun pozez beteak.

Ezdago aserrerik. Ez negarrerik. Gorrotuentzako lekurik, ezta!

Gazteak, Yruñetar-antz jantziak, elkarte ederrean, zer edo zer antolatu naiez.

GORA SAN FERMIN!: Au da au, eio sorgiñ-garria. Egun bakan baño berexien giltza. Urtean bein eskuratzen degun garaien asiera.

Bañan... Bañan goxotasun egunak, sei ordukoak omen dira.

Joan ta etorritz dabiliz urteak. Alaxe gure amets zoroak. Onela ba, il dira gure egunak. Joan dira, bai, San Fermin jaiak. Joan dira; baño eldu den urte ortan berriro jaiotzeko.

Agur ta... GORA SAN FERMIN!!

### Bidasoa'ko Txapelketa

Berriro Lesaka'ko "Peña Vergara" k badauka esku-bide osoa bere buru ta galdurrua gora altsatutzeko. Aren bidez ikusten bai degu berpiztua, aspalditso illa zegon "BIDASOA'KO PILLOTARIEN TXAPELKETA".

Lendabizitik, "Peña Vergara" ren antolatutzeko asmoa zabaldu-diñ laster, lurralde ontako erriak beatza erakutsi zuten, sariketa ontan esku-arte naiez. Ona emen erri ok:

ONDARRABI, YRUN, DONEZTEBE, SUMBILLA, ETXALAR, YANCI ta  
LESAKA.

Jorrailla'n asiera emana, bigarren itzul-aldian arkitzen ditugu. Orain arte zentzutasun berexia. Azken ontan naiko aul.

Ala ere, zorion ta txalo beroak "PEÑA VERAGARA" ri.

Anton

Principe de Viana, 1968, uztailla-abuztua, 4. orr.

## LESAKA

Berri on bat, bertze aunitzen artetik. Berri on bat, lendabizi: gure pillota lekua, gure frontoia tapatu digute; eguzki ta eurietik gerizpetu. Hori degu gaur gure berri ona. Aspaldian bazegoan nahia gure artean; aspalditxo ere gogo ta asmoak erriko agintarien artean. Ta azkenik, orra or, egiña. Albato jaunaren fotografian ageri da txoko aldea.

Aundia gleditu dala ezin degu erran. Bai, ordean, polita ta egokia Lesakako erriari, etxe bateri leio argi bat idekitzen zaionean bezelaxe. Polita egokia.

Berrogeita-amar urte Lesakan pillota leku hau egin zalarik. Ta, berrogei-ta-amar urte hoién buruan, tapatua arkitzen degu. Illabete batez lan guztiak. Ezda siñestutzea erra, gehonek ikusitakoa ez balitz.

Eskerrak millaka, kupiderik gabe!

Erriko besta haien aintziñeko igandez, lesakar gaztedien eguna. Erriko "Beti-Gazte" alkarteak antolatuta zegoen. Egun polita, benetan, egualdia lagun genduela. Ttunttuna, lasterkalariak, "futbol" iokaldia zaarrak gazteen aurkan, soñu ta dantza..; dana oso egoki. Edo, dana txoil ez, noski. Auzotarren soka-tirarri buruz, zerrikarri koxkorra egin zuten azkeneko orduan. Baño, ordaindu dute. Ta, ez geiago odol txarrerik. Danok berriro adiskide!

Santiago egunez, urtero bezela. Banarta izeneko zelaian, Nabaztarren bilduera. Egun ortarako auzoko neska musika leku lirain bat gertatuta zeukaten. Mutillak, gere aldetik, bazkaltzeko tresnak, lana ta edaria lasai eraman genduan. Goiz-goiztik, altsaferoak ta zalaparta. Eguerdian, auzo-bazkaria, soroan, epel-epel. Illunabar aldera, bertsolariak ta soñua, umore ta sasoi ederrean.

Auzo bat, Santiago egunez, zelaixo batean, alkartuta. Nabaz auzoa. Banarta zelaian.

Anthon

Principe de Viana, 1970, uztaila-abuztua, 5. orr.

## LESAKA TA BERA

Lesaka ta Bera, bi erri txiki, bat bertzia bezin polita. Bi erri elkarrakin bizi diranak, urbill diralakoz. Baño, emen gertatzen da, geyenetan bezela: bi erri ok, nor geiago izan naizik, elkar burrukan egondu dire urte aunitzez.

Yruñean, berriro agertu dan libro batek, erraten digu, nola, oraindela bortz eun urte, lesakar ta beratarrak oso asertuak egondo ziren. Ykusi nola izando zan:

"Egia da, urte etan, "BORTZ ERRI"ko buru, Lesaka zela. Orrengatik, Lesakak bazaukan bertze erriak etzaukaten gauz batzuek; Juzgadua, inguru otan etzagona; merkatua egiteko permisua, ta bertze milla esker. Lesaka buru izan ezkeru, ageri dago, emengo agindaria etzela nor nai izanen Iruñiko Erriko-Etxean (Ayuntamientuan). Onen bidez, Lesakako erriak bazaukan indar aunitz, ta bere agindarien baimenik gabe, ezintzen gauz aundirik egiñ bertze erri-etan.

Ezdu uste sobera izanen litzakela erratea, ordun arte, Lesaka beti fiderra izandu zela Naparroko agindari-entzako; ta, alako fama zaukan ere! Gañera, aspaulditik, Iruñean bazauken lesakarrak arrizko eskudo galanta bat, ta, an, errege batek eskribitsua zaukan: "LESAKAKO BORTZ ERRIAK". Orrekin irakutsi nai zuten, Lesakak bazaukala indar osoa bertze errien gañetik. Itz batez: Lesaka zela nagusi.

Baño, beratarrak ere etziran tontuak, ta abudo konturatu ziran Bera, Lesaka adiñakoa bazela, ta ek etzutela zergatik bertzen ankapien egon biar. Onela asi ziran elkar burrukan, nor geiago izan naizik. Beñ baño geiagotan, Berako ta Lesakako kaletan ikusten ziran okall-izurkuk. Arri tiraka ere asitzen ziran ez gutxi aldiz, ta elkar ongi berotzen zutenean, gelditxo.

Beratarrak, baizik, ikusi zutenean mutur-yokak etzutela gauz aundirik atzintuko, asi ziran eben gora-bera eskatzen Yruñira, Lesakako agindariari kasorik egiñ gabe. Ya, aspertu ziranean onetan, deittu zioten lesakarra-eri Juzgadura, Yruñira. An erranzuten, garbi, etzutela zergatik Lesaka baño gutxiago nai izan, ta "LESAKAKO BORTZ ERRIAK" en izena kendu egiñ biartzela lenbai-len. Etxelartarrak ta Arantzarrak, Beran alde ateri ziran, ta Yanziarrak berriz, Lesakan alde. Ok erran zioten, izen ura aspauldikoa zela ta Naparroko errege aundi arek zerbaiten gatik paratu izanen zula.

Egun osoa pasatu ondoren, batek bat, ta bertziak bertzia, bakotxak eben arrazoia ateri naizik, etzuten gauz garbirik ateri, ta yuan bezela, etorri.

Aste baten burun, Naparroko orduko Nagusiak erran omenzuan, berriz biltzeko toki berean, ta eben atzinkaldean, kendu omenzuan izen ura ta bertzia paratu: "Naparroko Bortz erriak". Onela, Berak etzuan ezer ikustekorik Lesakakin".

Antonio Erkizia

Principe de Viana, 1967, azaroa-abendua, 8. orr.

## LESAKA, NERE ERRIA

Endalxako (Endarlazako) zubia pasatu ta, ia Napparoko lurreta, Bera, lenbiziko erria utzirik, arkituko dezu bidegurutze bat. Artzazu eskuñera. Aunitz biurtu bear ko bide miartso batek, eramanen dizu, okerrik gabe, erritso batera. Sarturik, erraziazu Lesaken zaudela:

Mendien artean betua, zugaitzez (arbolez) inguratua dagon erreka polit baten bi aldetik, etxe-txuri mordoskada, bat bertzien ondotik, bear den bezela, sallan. Banatuak daudezin etxe berriak, gaintzen dituzte bertzeak, edertasun ta gaiñez (alturez). Elkarren artean nasi ta saretzen diren kale estu ta oker batzuek...

Emakumeak, leiotik leiora, izketan, eben-ganeko euskal zall baten. Gazte bakan batzuek ere, izketan -ok erderaz-, dagozi, plaza inguruan. Gizonak lanera badijoaz; edo etxera, itzuliz, IXILTASUNIK EZDAGO, baño, bai, LASAITASUNA.

Ze lanetan lotzen dira lesakarrak?, galdetuko dirazuen.

Orain-dela urte batzuek arte, nekazari edo lur-lanak ziran emengo egin-bear guztiak. Ez gutxi, banatzen ziran erritik or barna, lan naigarri bat billetu naizik. Ondoren, fabrika galanta bat sartu zan, ta beartasun au ordaindu zuan: Gazteak eta gizonak azaukaten, onela, eguneroko lanteki edo lan lekua. Ta, gauz berako, etorri zan, pillaka, kanpoko yendea.

Ykusten duzuen bezelaxe, Lesaka aintzindutzen yoan ta doaye. Aitortu bear degu, baizik, ala ere, naiko gibelatuak gaudezela, gauz batzuetan, beintzat:

Lesakarrok badaukagu gauz-zarrak zaitutzeko joera bat; ta ezdiogu berritasuneri leku egiten. Ez-yakintasunak oraindik zoko aunitz dauzka, geren artean; aurten arte ikastetxe edo eskol erdikak iduki ditugulakoz edo... Benetan, egia au

da: Lesakak aspaldiko pentsatzeko modua daukala; ez egokia, benetan, gaurko.

Erranen dezue, ikasitzea ezdala dana. Siñestu, baizik, kulturaren lenengo mallek gabe, ezin dela ta ezin gerala berriztu. Lesakako gaztediak, bertze gaztedien adiñ, ezdago geldi, aintziñekoak utzi zigutenakin. Eskatzen dute, esku-bide osoakin, ulertasuna, eben eskaerantzako. Ezin diozute ukatu, orain arte bezela!!

Olaxe dago, ba, Lesaka, aunitzen seaska ta eriotz-leku.

Emen yayo nintzan, ni ere, ta emen ikasi nituan, gurasoak irakutsi ta, gaur zaitu naizik dabilten, euskararenlenengo itzak.

Atravesando el puente de Enderlaza, en tierra navarra ya, dejando atrás Vera, el primer pueblo, encontrarás un cruce de carreteras. Toma a la derecha. Un camino estrecho y curvo te conducirá, sin equívocos, a un pequeño pueblo. Entra y dime que estás en Lesaca:

Hundido entre montañas, a ambos lados de un pintoresco río, bordeado de árboles, un grupo muy unido de blancas o pardas casas típicas, geoméricamente alineadas. En las afueras, unas nuevas casas que descuellan y sobresalen de las otras, ya por su elegancia o por su altura. Angostas y curvas calles que se entrecruzan y se enredan...

Den ventana a ventana charlas las mujeres en un vasco muy propio y duro de entender. También algunos jóvenes charlas -estos en castellano- por los alrededores de la plaza... Los hombres se apresuran al trabajo; o regresan a sus casas. NO HAY SILENCIO, pero, sí, TRANQUILIDAD.

¿A qué se dedica la gente en Lesaca?, me preguntaréis.

Hasta hace algunos años, el campo era el único medio de trabajo. No pocos emigraban del pueblo, buscando un puesto más aceptable. Hasta que una importante fábrica suplió esta necesidad. Jóvenes y

mayores encontraron así, un puesto diario de trabajo. Y con el mismo fin, llegaron montones de gente forastera.

Como veis, Lesaca ya ido y va progresando. Pero debemos de reconocer que, aún y todo, está bastante atrasada, al menos en ciertos aspectos: los lesacarras tenemos un espíritu conservador. Nos apegamos en demasía a las viejas costumbres y no hacemos lugar a lo nuevos, a lo que ahora debería de existir. La incultura ocupa mucho espacio entre nosotros. Sea debido, tal vez, a la mediocridad de las anteriores escuelas. La verdad es que Lesaca tiene una mentalidad vieja; una manera de pensar no muy adecuada para los tiempos actuales.

Direis que el estudio no hace todo; pero, creed que sin una básica cultura un pueblo no puede resucitar, que estará siempre dormido. La juventud de Lesaca, al igual que las demás juventudes, no se conforma con lo que nos dejaron. Necesita, con razón, la comprensión a sus nuevas exigencias. No podéis negarla, como hasta ahora!!

Así es Lesaca, mi pueblo. Para muchos cuna y sepultura.

Aquí nació yo; y aquí aprendí, enseñado por los padres, las primeras palabras del vasco que hoy trato de defender.

Anton Erkizia

Principe de Viana, 1968, abril, 4. orr.

## LESAKA

### LESAKAKO 'TOBERAK'

"*Toberak*" ikusita nauzkan. Beti-Gazte alkartearen bildu lekua idekitzerakoan an genituen; baita, igande egun batez, herriko frontoian egin zuten eben saioan. Ikusiak nauzkan; bañan zer ziran iakin gabe, oitura zahar honen nortasuna ezagutu gabe.

Illunabar batez, "*Tobera*" iotzalleak ensaiatzen ari ziralarik, eurekin egondu nintzan. Ate estu, ta sarrera gerri-mear batetik sartuta, tegi itxu batean, armiarma sare ta tresna zaharrez inguraturik, "*Tobera*" palanka, zearka, zintzillik. Dionisio "Asteaxu", Genenbordako Bautista ta Mattin Zubieta "Erbia" ondoan. Argi aul baten argitan, iduritu zaiten etxen bateko nagusi onbortua hantxen iltzera zijoala. Herri baten, indartsu ta nagusi izandutako morroi etsituen azkeneko arnasi ezin artua? "*Toberak*" oitura zaharren bizi naia ta eziña.

Tegi itxu batean, argi aul baten itzalean, "*Toberak*" berri naiez, iru gizon ensaioan:

- Dionisio, zer dira "*Toberak*"?

- *Toberak*?: asierik ez daukan istori eder bat; berretu naiez gabiltzen aspalditako oitura. Nundik datorzkigun ezdakigu. Ustez, lurralde hontan, Oiartzun, Errenteri ta Bidasoko Erreka ingeruko herri hautako oitura zan. Pregoi igande illunabarrez iotzen omen zizkioten emazte edo andre-gaiari bere auzotarrak. Azkeneko aldiz Lesakan, ain xuxen Onbordiko baserrian ioak omen dira. Hori orain dela 43 urte. Ezkeroztik ez omen dituzte iñork aditu, gu, Bautista, Mattin ta iru rok pixtu bearrez asi geran arte.

Erran degunez, pregoi egunakin iotzen ziran. Goizgoiztik "*Tobera*" iotzeko burnia, lore ta zerrenda egokiakin apaindua iartzen zioten, txutik, neskax ezkon-bearrari atarian. Illunabar aldera, auzotarrak biltzen ziranean, batek (diotenez, auzoko zaharrenak) "*Toberak*" iotzeko baieza eskatzen dio neskaxari, ta honek goiztik atean iarri dizkioten lore ta zerrendak kentzen dizkio palankari. Beriala, bertso batekin asitzen da "*Tobera*"n saioa:

San Martin de la Monja,  
Monja de San Martin;  
*Toberak* io ditzagun  
ordu onarekin;  
ordu onarekin da  
Birjiña Amarekin,  
bitarteko bat jarri  
dezagun San Joaquin.

Hartan, ta bi lagunek burnia kentzen dutelarik, bertze bik ziri batzuekin burnia ioka asten dira, poliki poliki lehendabizi, gero eta biziago, beti neurri edo konpas berean.

Ondotik, bigarren bertsoa:

Bitarteko bat jarri,  
esan dedan gisan;  
iñori gauza txarrik  
ezdiot gauza esan;  
aurrera suerte on bat  
nai baduzute izan,

apaizak zuzenduko  
zaituzte Eleizan.

Berrero, doñu berean eta minutu batzuz, *Tobera* saioa emp! oiua arte. Ta irugarren bertsoa:

*Toberak* iotzen dira  
pregoi egunakin;  
zuen biotzak bizi  
nai dute alkarrekin;  
oia jantzita dago  
almoada birakin,  
"noviak" lo egin dezan  
"novio" jaunakin.

Ta horrela bertsoak eta saioak, sei edo zazpi aldiz.

- Mattin, nundik nora asi ziñaten?

- Ba, Dionisiok igande illunabar batez Lizardabaitako Santy-ri zerbait aditu ziola, ta galdeka asi omen zan. Bautista lehenago iotzen pixka bat aritua ta ni ere bai bizpairu aldiz burnia kontzen, iruen artean ioan gera saio osoa berrizten, nere alabak zapiña zaharrak konpontzen dituen antzera, puxkaka. Batek baño geiagok lagundu digute, baiziran *Toberakeri* buruz zerbait oroitzen ziranak. Daniel herriko albintia izandutakoak berak gogoan zauzkan bigarren ta irugarren bertsoak.

- Bautista, zu zera iruetatik adintuena; iakingo dezu zergaitik iotzen ote zituzten, zer erran naia ote daukaten "*Toberak*".

- Tsoil tsoil ezdakigu zer erran naia ote daukan oitura honek. Uste dugu, ta nik nere aitari holako zerbait adituta nion, auzotarren agur bat zala nezkatxari ezkontzerakoan. Agur bat, bortzgarren bertsoak dion bezela: ez dezan iñoiz urrikirik euki. *Toberak* etziran iñoiz emakume alarguneri iotzen, lehendabiziko aldiz ezkontzera zijoazin neskatxari, "birjiñen" garbitasuna oraindik heben barruan baño beriala galdu bear zuteneri, baizik.

- Ta azkenik, Dionisio: zer dio Lesakako herriak "*Toberak*"-eri buruz?

- Zoritxarrez, lesakarrak, geienak beintzat, ez dira enteratu ere *Toberak* badirela; emen, Lesakan, orain dela berrogei-ta-iru urte ixildu ziran lekuan berrero rixten asi dirala. Ta zerbait aditu dutenak uste dute guren arteko txorakeri bat, ergelkeri bat dala. Asi giñanean, makiña ezkon-gai bateri erran genien "*Toberak*" iotzea nai ote zuten. Ezetz. Kontxita Agara, naiz ez lesakarra sortzez, nai izandu zuen lehendabiziko neskatxa izandu zan. Horregatik halako zorra daukagu berekin. Guregatik, herriko neskax ezkon-gai guztieri ioko genizkieke. Bañan, aspalditxo hontan lesakarrak zuen "Laminaciones" ta "Dolas Club" hoiekin aski dezue...

Egia ote?

Au izandu da "*Toberak*" berritzearen asiera. Zailak lehendabiziko pausoak. Lan latza gero ere, herria ez-baidago prestatua gauz zahar hauekin aberastasuna sentitzeko. Dana dala, berrogei ta iru urteza hantzirik egondutako oitura honek horra nola berriko argi pixka bat ikustea ahal izandu duen. Atzoko ez-jakite ta utzikeriak ta gaurko arrokeriak, auts ta erdoi zikiñak, ezin izandu bai-dituzte betiko ahantzierazi gure "*Toberak*".

Emen ixildu ziran ta emen asi zaizkigu berrero. Lesakako "*Toberak*".

(Lesakako *Toberaeri* buruz mintzo naiz, ia herria konturatzen ote dan pixka bat esku artean daukagun oitura aberats hontaz).

Antxon Erkizia

Principe de Viana, 1971, iraila, 5. orr.



## LESAKAR GAZTEDIA

Eskatutzen degu leku alaitso bat, Lesakar neska-mutill gazteak bildu ahal gaitetzen zerbait antolatuz, elkar-izketaren bitartez.

Eskatutzen degu, baita, zentzutasun geiagoakin jo dezaten soñua jai arratsalde-illunabarretan, galdu dan giroa berriro sortuazi dezagun.

Ona emen lesakar gaztedien bi eskaerak. Noiz eskuratu bear ditugu? Mesedez, jauna...!

A. Erkizia

Principe de Viana, 1968, iraila, 4. orr.

## "MARKESAREN ALABA"

Otza atean. Elurra mendian. Izotza besarsoro aietan.

Neguan. Neguen biotza. Urte-berrien asiera.

Ezda lan egiterik. Orduak dijoaz ezer egin gabe. Zer egin jakin gabe.

Ordu illak. Su ondoan ildako orduak. Oroipen agurgarriko orduak. Orain, urte asiera ta garai ontan gure buruak dakarkiten aur ta gazte denporako oroipenak.

Bertoetara euskaldunak zaletasun eukirik, askotan bertso zaar batzuek ebekin dakarkite oroipen agurgarriak. Orren-gaiñ, gaur nai ditut gogoera ekarri aunitzek jakiñak dezuten "Markesaren alaba"ren bertsoak. Aiek abestuaz, aspalditsoan asierako 1969 garren urte zoriontsu baten nai sendorrak lagun ta irakurle guztieri.

1

Zeruak eta lurak  
egin zituana  
memoriya argitzera  
atoz nere gana;  
esperantza badaukat  
zedorrek emanak  
kunplituko dedala  
desio dedana.

2

Amoriyozko penak  
bertso berrietan  
publika al banitza  
Euskal-errietan,  
enteratu naiz ongi  
enkargu oyetan  
San Jose arratsaldeko  
iruterdietan.

3

Markes baten alaba  
interesatua  
mariñeruekin  
enamoratua,  
deskubritu gaberik  
bere sekretua  
amoriyua zeukan  
barrena sartua.

4

Egun siñalia zan  
goguan artzeko  
esan ziola aren  
deseo dedan itz au  
manifestatzeko  
zurekin Antonio  
nago izateko.

5

Zer esaten didazu  
Juanita itz ori  
tentatzen ai zerala  
trazak badirudi,  
etzait zure gradurik  
tokatutzen neri  
ez burlarikan egiñ  
mariñeruari.

6

Iduki dezakezu  
ongi sinistua  
aspaldiyan neguala  
zutzaz gustatua  
Etzaitut nik utziko  
desenparatua  
ala egiten dizut  
gaur juramentua.

7

Konformatu ziraden  
alkarren artian  
ezkonduko zirala  
urrengo urtain,  
eskola ikasteko  
biyen bitartean  
beraren erritikan  
gutziz apartian.

8

Ala disponiturik  
jarri ziran biyak  
kartaz entenditzeko  
alkarren berriyak  
formalidadiakin  
jartzeko egiyak  
baña etziran lo egon  
amaren begiyak.

9

Alferrik izango dira  
asarre guztiak  
ez naute mudatuko  
eternidadean,  
esposatu nai nuke  
kariño onian  
Antonio Maria  
etortzen danian.

10

Eziñ egon zan ama  
itz ori sufritzen  
beriala asi zan  
kartak detenitzen,  
intenziyo aundiagaz  
eskontza galdutzen,  
Juanitak alakorik  
etzuan pentsatzen.

11

Amaren maliziya  
korreora joan da  
Antonio il zala  
egiñ zuan karta.  
Juanitaren tristura  
maitia esan ta  
engañatu du bestek  
bezur bat esanda.

12

Amak esatne dio:  
Juanita neria  
galdu da diotenez  
Antonio Maria  
nik billatuko dizut  
beste bat obia  
mayorazgo interes  
askoren jabia.

13

Ama ez neri esan  
orrelakorikan  
ez det nik bestegana  
amoriyorikan,  
eziñ alegre leike  
nere barrenikan  
kontzientzia ona  
egonagatikan.

14

Utzi alde batera  
orrelako lanak  
ez ditut nik ikusten  
zu bezela damak,  
nai badituzu artu  
onrak eta famak  
giyatuko zaituzte  
aitak eta amak.

15

Denbora kunpliturik  
galaya abiyen  
zer pasatu ote zan  
aren memoriyan,  
kartarik artu gabe  
juan dan aspaldiyan  
inozente sartu zan  
jayo zan erriyan.

16

Au da lendabiziko  
esan zenduena:  
zer da musikarekin  
onratzen dutena?  
Markesaren alaba  
kalian barrena  
esposario zala  
ark biar zuena.

17

Desmayaturik egiñ  
zuen ordu bete  
gero nobia eske  
itz bi egiñ arte,  
inguratu zitzaion  
makiña bat jende  
bigarren ordurako  
ilda derrepente.

18

Gaba pasatu eta  
urrengo goizian  
entierrua zuen  
bigarren klasian.  
Markesaren alaba  
guzien atzian.  
Ze pena izango zan  
aren biotzian!

19

Penarekin lerturik  
Antonio il zan  
akonpañatu zuen  
Juanitak eleizan,  
naitasuna baziyon  
esan dedan gisan  
geroztikan etzuen  
osasunik izan.

20

Erremedio bazen  
sentimentu ori  
bitarteko bat jarri  
Jesus maiteari,  
orazio egiñaz  
Birjiña Amari  
zuruan gerta dediñ  
Antonio Mari.

*("Iturrino"n orri batetik artu ditut bertso ok euskaldun guztientzako)*

Antton

Principe de Viana, 1969, otsaila, 3. orr.

## SANTIAGO EGUNA BANARTA'N

Lesakako, Banarta izena dun zelayan, Nabaztar mutillak bazkaltzen ari dira, tranquil ederrin ta elkar asertasunak antzita. Baño, ez uste bazkarikin akautu zela besta. Illuna-barrian izandu genitun soka-tirak, bersolariak, ta batez ere kordiona gazte guztientzako. Antxen, soruan yarrita nagolikan neska-mutille okeri begira, gogotu zitzaidan bertso motx au:

Mutillak dantzan, aurrak begira,  
zaharrak luze irrintzi,  
besta akautzen, denak etxera,  
elkarrakin solas ta irriz.  
Oraitxen baiez, gure "atxonak",  
ixill egon bearko dute,  
Nabaztar oiek, besta onekin,  
ortzak irautxi bai diozte.

Erkizia'k

Principe de Viana, 1967, abuztua, 5. orr.

## SUNBILLA

Ez dakit nonbaitan txakurrak lokainkakin lotzen dituzten edo ez; baiñan emen, gure artean, lokarri azkarrakin lotuta ere, naiko lan badela, hori siñesten errexka da. Erran nai dut: gauzak pentsatzetik egitera, badela bide zaila; ez ditugula, bideak amesten ditugun bezin zabalak, arkitzen.

Pillota leku berria, sunbildarren aspaldiko ametsa zan. Ta ortarako lanean hasi zirala, ez da atzoko berria. Baiñan, oraintxen erraten nuena: etzituzten gauzak uste ta nai bezin mamitsuak azaldu. Ala ere: "El que lo persigue, lo consigue", dio erdaldunak. Saiatu gabe, deusere ez. Eiziko txakurrak ere, sainga galantak egiñaz altxatzen du erbia... ez?

Apaindua ta arro zegon Sunbilla, udaberria asi bezperegun... erran nai dut martxoaren 19'an, Sanjose egunez. Goiz-goizean, egun illun ta euritsu; baiñan gero, goiz aski, eguzkia nagusitu zan, nun-nai txoriak txio-txioka eguna alaitu nairik. Nik uste, egun hartan Bidasoako urak ere birjiñagoak eldu zirala, ez baziran ala jarraituko ere bide luzez.

Azkenik, betetzen zan sunbildarren ametsa; azkenik, pillota leku berria idekitzeko eguna, alletu zitzaion! Iendea ugari; lekuz estu; besta ederra. Erriko sekretario jaunaren hitzaldi egoki bat; lastima, iende aunitz artaz etzela, merezi zuen bezela, oartu. Gero bizpairu otoitz labor batzuk latinez, ur-bedeinkatu tanta batzuek; eta bi pillot-partidu galantak. Lehendabizi, Pierola ta Lajos, Bergara ta Azkarate'n aurka; Nalda I-Alegria, Eskisabel-Etxandia, ondotik.

Egualdi goxoa eguerdi inguru; otza berriz, illunabartzerakoan. Baiñan giro goxoa goiz ta illunabarrez, gauerdite arte. Sunbildarrak ongi irabazita zeukaten holako bestatxo bat.

- "Pozik egoen al dira Sunbillako erri-agintariak, lan ederra egin bait-dute. Begira: reglamentoak eskatzen dituen neurriak, badauzka; naiz pillotan artizeko, naiz baloncesto, naiz balon-mano eta abar... Kolore illunegia eman diotela, zioten goizean, eta ez omen da pillota geiegi ikusten; baiñan bereala zuzendu leiken oker txikia da hori. 1.250 laguneri lekua egiten dio, ta bertze 250 lagunentzat ere, prestatzen al da. Oraindik arrigarriagoa: iendea iarrizteko betiko leku ok lasai aurreratu edo atzeratu leizkenak dira, firril batzuen bitartez. Frontoien atzeko ta aurreko aldean komunak ta alda-lekuak, eben garbitzeko lekuakin. Goian, lenengo pisuan: ardangela bat; an ari ziran lan ta lan "Ulibeltzak" izeneko gazte-alkarteko lagun batzuek txukun jantziak; ardan-gela bat baiño geiago iduri zuen kafeteri bat. Benetan ok lanean salatu dira zintzo frontoi onen alde; begi ona izan dute erri-agintariak lan oiek gazteen eskuetan utzirik.

Erritar guziak, oso pozik daude. Ta hona emen, baten batek uste ez bazuen ere, erri-agintarien kezka oien frutua... Nik uste arro egoten ahal gerala sunbildar guztiok... Berea gusta dala, egia da. Ia bost milloiekin askiko zala, baiñan zazpiraiño alletu. Bearrik lenengo presupuestoko irutik bi "Educación Física y Deportes" delakoa ta Iruñiko Diputazioen artean ordaintzen digutela... Orreri esker, ahal izandu da gure pillota leku berri hau...".

Bertze millaka gora-behera kontatuko zizkigun Basilio erretore jaunak, ez bazuten, ain xuxen, lagun batzuk deitu. Pozik zagon, sunbildar guztiakin batera.

Eiziko txakur onak erbia altxatu artio ixiltzen ez diran antzera, Sunbillako herriak ez du atsegin, bere ametsa betea ikusi arte. Ta orain, horra hor, Mendaur mendi zorrotzen magalean, herri onen lanan saria. Benetan gure Jaungoikoak etzuen mundua, gizon-oilluentzako egin!!

Anthon

Principe de Viana, 1971, apirila, 5. orr.

## TXIRRITXUEN ABESTIA

Ilun ezkila. Ilunnabar ixila. Gau beltza.

Eguzki gorria oi zan mendi gainean, eguna berekin lurpera zaramala. Ta ain laister, itzal sorgingarriak edatu zaizkigu mendi zulotik.

Ixildu dira belagi, bide ta zelaiak. Ixildu, baita, aurren karrasiak. Ta "aida", edo "arre" oiuak. Denak ixil, txirritxuak asi dezan bere abestia.

Udako gau ixila Euskal Herrian. Euskal Herriko baserri batean. Goxotasun, pake ta bakartasuna. Nahia. Gogoak.

Baserriko leio ideki haietatik belar idorren umo-usaia sugurretaraño dator. Sukaldean argi motela atariko zugaitz artean lupetzen zaiguna. Ta hain zuzen txoritxo bat, gardelin umetxoa, erdi lotan intxaur gainean. Belar artean txirritxua abeslari. Gaur untza ez dator, noski.

Artean, baserriko nagusia, baserriar ta lur-langille azkarra, ate-sarreran, onbor alki batean iarrira dagolarik, txakurrari dei egiten dio. Ta "Ttentte" txakurra, morroi zintzoa, bere ondoan etzanda. Etxekoandrea, berriz, mantalari eskuak idortzen ari dela, ate-gainekotik agertu du bere burua, ta izarrez betetako zeruari begiratuz, dio:

"Aste batez gaur bezelako eguraldiak egingo balituke...".

Baiezkoa dio burukin gizonak zigarrotxoa ezpainetan, ezpal bat esku artean, begiak urruti, han goi-goianka eskutako ezpala bota ta bertze bat lurretik hartuaz-gizonen iostaketa, bere biotzetik sortutako otoitz ixil bat edatzen da gau gozo hartako lañoetan barna:

"Nere Jaungoikoa: egun bat gutxiago gure bizian...; andre lirain bat laguntako ere bai; berrogei ta bost urte eman zizkidazu; ona ta langilea. Ta iru seme, zuk zerekin eraman zenduena kontatuz. Gaur, ogei golde lur bereak ditun baserri honen nagusi naiz. Belagiak, bideak ta azindak nere izenean daudez legezko paperetan.

Gazta naiz oraindikan, ta ez diot lanari bildurrik, gauz naizen bitartean.

Belar lanak egin genituen. Ikusi, begira: amar belarmeta eder, denak etxe inguruan, nik neronik idi parekin garraituak. Artoak ez daukate zer erratekorik. Ongi goroztutako lurra da ta buru politak bilduko direla nik uste. Patata (lursagar) mordoskada ederra ere etxeratu dugu ez gaitezen goserik arkitu negu boladan...

Ez, ez daukagu keizateko aundirik, egia da. Noizbehinka estutu gaitzazu, baño inoiz ez itto... Erretorea jaunak errango luken bezala...

Badakizu aserre nagola gure semearekin. Juramentuko azkenean, asi nintzan, oso itsuski, egia. Badakizu, erak ez du baserrian lanik egiteko gogorik. Herriko lagunek beroerazten dute ta fabrikan asi behar duela gogotu. Ta nik ainbeste desiatzen dut norbaitek jarrai dezala baserriko bizi honeri, guk egindakoak ez dedin gure ondotik illa gelditu... Baño, nork ez du burubero tzerik?

Artoak bildu beharrak direla, iratzeak pikatzeko laguntzerik arrautu ezin dutela; edo esnea merke saltzea behartuak gaudela; bei bat gaitzakin daukagula... Hoiak dira gure kezkek. Bertzeak bertze buru-berotze batzuk. Denak zerbait.

Egia da, Jauna, herriko gizon hoiak ez dutela gure lan hau zerbait badela sinistu nahi. Ez daukagu gizonen laguntza gehiegarik. Baño nik badakit zu gure zai zaudela gau ta egun. Nere fameli, baserri azinda ta lur hauen zai.

Ezkerrik asko, nere Jaungoikoa. Ez ahaztu gutaz!".

Udako gau ixila Euskal Herrian. Euskal Herriko baserri batean. Goxotasun, pake, bakardadea. Nahia. Gogoak.

Txakurra, etzanda, nagusiaren anka tartean, gau hartako goxotasunean.

Ta, intz tartean txirritxua abeslari...



Antton

Principe de Viana, 1971, azaroa-abendua, 6. orr.

## UDAZKENA

Udazkena. Ta, lege zar batek dionez: goizak berandu, illunabarrak beilaxe, eguzkia murriz.

Udazkena. Lendabiziko otzak. Zugaitzeko ostoa oriak lurrera. Uso pasa. Eize sasoia. Udazkena.

Nun ote zaudete, uda-berriko goiz alaituak?, garagarrilako arratsalde berotsuak?, illunabar zoriontsuak?

Nun, udako eguzki gorri?, apirilko arrosa gorri?, maiatzeko lili garbi?

Sorturik, txikiak. Bizirik, erogarriak. Zaaturik, zimelkeriak. Bai eder, mots baizik zuen biziak !!

Mundutarrok ikusirik; gizonok mozturik; il ziñaten, gure arnas zikiñaz zapuzturik. Zuek eraman dezutena, gaur ekarri nai degu guregana, eziñ..., udazkena!

- Ama: zergaitik, ba, garai motel ontan zugaitzak larrurritzen dira?

- Udazkena, seme. Artaz.

- Ama: atzo gure etxe ingurua dana lore ta margolaz betea zegoan. Zeiñ polita! Gau, zergaitik ezdago beriala? Nork ankapetu ditu lore oiek?

- Neguako otzak, seme. Goizeko izotzak. Eguzki-ordu motzak. Illunabarretako aize zorrotzak...

- Ta?

- Ta..., gizonen asmo motzak; neskatillen "ez-lotsak"; pakearen eriotzak!

Bazenekizun, adiskide? Bazenekizun..., ez; ez dut uste. Oraindik, beintzat, egunerokoak ez dute alakorik banatu. Atsoak ezta. jakintsuak aitortu ere ez. Baño, nik erran bear dizuet: emendik aintziñera, urrilla ta azaro illabeteetan eukiko degu uda. Ta negua, maiatzean. Bai gizona, bai. Ez dezu ikusten ala?

- Ba, egualdiak bere "kalendarioa" trukatu ote, edo...

- Ez, ez. Badakizu zer gertatzen dan? Egualdia "ye-ye" biurtu zaigula. Ta, ille aundi oien legez, dana alrebes jokatu bear du... Erran nai nuen: lengoko jokaeratik biur.

-Ia, ia. Alako zerbait gertatzen zala eguzki inguru ortan amestua baneukan. Orain igerritzen diot!!

Udazkena. Aize epela. Munduko eritasunak sendatu beharrez.

Udazkena. Gaztaiñ ta ezkur lurrera. Txerriak mendiz-mendi; lokarrerik gabe...; gizonen ordez?

Udazkena. Ezkillak. Arantzako errian. Xabier, apaiz gazte aren oroimenean. Erruki, Jauna, zugar agertzean!!

Udazken triste!!

Anthon

Principe de Viana, 1970, iraila, 2. orr.

## UDAZKENA

1.- Udazkena. Bein bat geiagoz. Azkenik. Ta ain laister. Udazkena. Berriro goiz argia berandu; illun ezkillazazpi-terdian. Berriro gardelin txoritxoak ixilik; itsas bazterrak orroaka, asarre.

2.- Ain laister, udazkena. Ta aurtxo elbarra amari galdezka:

- Zergaitik, zu, atariko aritza larrurritzen ari da? Atzo, amatxo, gure etxe azpikaldea lorez ta ostoz beteta zegoan. Zer poliki! Gaur, zergaitik ezdago beriala? Nork moztu ditu loreak?

- Neguko otzak, seme. Goizeko izotzak; eguzki ordu-motzak; illunabarreko aize zorrotzak. Gizonen asmo zotzak; neskatillen "ez-lotsak"; pakearen eriotzak...

Aurak ez du ulertu, bañana, amaren erran-naia. Ta iostaketan jarraitzen du. Uda ioan dala, negua datorrela, pakearen eriotzak: egi oiek ez diote oroi. Gizonok berriro aur izatea ahal bagenduke!!

3.- Udazkena. Azkenik! Ta argi ezkillaz io gabea dala oraindik, or doa, eskopeta bizkarretik, ezturi (eiztari) amorratua, txakurrari deika. Iñork ez dio artara beartuazten. Iñork; bere naiez doa. Aurpegia argi, txistua soñuan, gogotik, eizira.

Ez darama zakutorik. Ezta zatorik. Ezdu, ez, goserik ez egarrerik eukiko...; edo, bai. Nola ez? Bai orixe. Zer ikusi gosea, zer altxatu egarrea, eize amorroa. Ari ere pakearen eriotzak ez dio oroi.

Danbada!, tiro bat arakan. Ta altxa mendi gotti. Begiak zabal; belarriak erne; belaunak bizkor. Ordu bat. Ta bertze bat... Nork daki zenbat?

Ta igande illunabarra dala, or doa ezturi bera. Ontan ez darama eskopetarik. Ez txakurrerik. Garbi iauntzia, onekin edo arekin alkartuko da. Ta, baxo ardo batetik zurrupa, eizien gora-berak batek bertzeari kontatuko dizkiote. An, ostatu zulo artan, egi ta gezur nahasiko dituzte.

Amargarren aldiz berretu gertatuak ta gertatzea naiak. An, eizia, ezturiak.

4.- Or, an, ta batez ere emen udazkena. Ta ametsetan gaztea. Egiatzko maitasunaren gosea daukan gaztetxo ametsetan. Ta galdezka:

Nun ote zaudete udaberriko goiz alaituak?, udako eguerdi berotsuak?, ta illunabar zoriontsuak? Nun udaberriko eguzki berria?, apurilleko arrosa gorria?, maiatzako lore garbia? Sorturik txikia, bizirik zoragarria, zahaturik zimelkeria. Bai eder, motz baizik zure bizia. Mundutarrok ikusirik, gizonok mozturik, il zera gure arnas zikiñaz zapuzturik. Zuk eraman dezuna, berriz ekarri nai degu gure gana. Ezin..., udazkena.

5.- Ta ala gatetxoa amets saminetan ari dala, aize epelak dio munduko eritasunak sendatu bearrez datorrela, ariztegi zokoetan orroaka. Gaztain ta ezkurak lurrera. Txerriak

mendiz-mendi; aiek lokarrerik gabe. Ta gu, gizonok, ain lotuak gure egoismo zimelari.  
udazkena tristea.

Anton

Principe de Viana, 1971, urria, 4. orr.

## "ZER, OR BARNA"

Euskaldunok, geyenok beintzat, badaukagu arrisko ta gaitz bat: Or barna, gure erritik urrutira gertatzen diran gora-bera oieri ajol edo inportantzirik ez ematea. Ona emen gure baserri ta erriskatan sortu, edo beti menpetuak iduki digun gaitz nazkagarria.

Yllabete ontan ere, Ameriketan gizon aundi bat il dute: MARTIN LUTHER KING. Egunerokoak iriki beziñ laster; izpi edo radioaren bidez, entzun dezu izen au. Baño "Ta guri, zer?", erranaz, ezgera saiatu nor zan, ta zer-gañ il duten ikasi naizik. "Ni nere etxean... ta or konpon!". Ez. Ezgenuke olakoak bear, ba! Or barna, urruti edo urbill gertatzen diran zarpallkeri ta naigabekeriak, guri ere ezer erran nai digute, zerbait erran bear digu.

Ba, asiera emateko: NOR ZAN MARTIN LUTERO KING?

Enda edo raza beltzako seme bat. Ez Afrikan jaioa, Atlanta deitzaion errian, an Ameriketan, baizik. Ogei ta emeretzi (39) urte zauzkan, il danean. Ezkondua. Emaztea ta lau seme utzi ditu.

### ZERGATIK IL DUTE?

Azkeneko udan, oroituko zerate, beltz ta zurien arteko burruketan odol aunitz ixuri zan. Beltzak, zurien anka azpian egonik, gizonen eskubideak eskatzen zituzten. Ta naia au argirazi naizik, zenbat ta zenbat gelditu ziran bertan!

MARTIN LUTHER KING, beltzeen nagusi berria, bere erriaren azkatasuna eskatzen zuan. Ez indarrez, ez iskanbillez, ez burrukaren bidez. Pake-zale, pake ta adiskidetasunez, beltz ta zurien arteko batasuna sortuazi nai zuen.

MARTIN LUTHER KING il dute!! Leioan zegolikan, zuri batek il du, eziñ-eramana ta gorrotoa berriro zirikatu naizik!

### ATSEDEN DEZAN

Gazteak aspalditxo ontan, naiko arrotuak dabiltz. Or, an, emen, leku guztietan, gazteak, ikasiari edo estudianteak batez ere, zarata naikoa iositzen ari dire.

### ZER ESKATZEN DUTE?

Ona emen, aunitz-aunitzek egiten ari diren galde modua. Bati! Zer eskatzen dute gaztediak? Zertarako ainbeste bulla ta iskamilla? Ziur ta garbi, ezdut uste iñorrek erran duanik. Bakoitzak bere erara ulertzera beartuak gaudez.

Madrid, Barcelona, Roma, Bruselas...-ko gaztediak gauz berdiña eskatzen al dute?: Ezda ala izango. Berdiñak ez beintzat, antzekoak, bai!! Au edo ura eskatzen dutela, baño dana diragurutze berara biltzen dira: PAKEA, GIZONEN ESKUBIDEAK, BATASUNA, ALKARTASUNA. Ona emen gaurko gaztediak eskatzen duen mesedea: gaurko gaztearen jarraibidea. Eben erara, bai, baño gogo onez.

Gauzak argi ta garbi ikasitzean, ezagutzen dute mundua okertasun ta bidegabekeriz ankapetua dagola.

Zenbat ta zenbat aldiz, ankapetzen degu gure gaztedia. Burruka bat asi ezker, atzeratuko omen dira, ta ixilduko, berialaxe. Au egia edo gezurra izanen dan, ezin dizutet erran. Baño, bai, gaurko gazteen naiak ta eskaerak zuzenak direla, bide onatik badijoazela; gizonen zuzen baten eskaerak dira.

Gaurko gazteak. ITZAK EZ, EGIÑAK ESKATZEN DITUZTE.

Anton

## ZERRI ILTZEA

Ez gera euskaldunok esne urrupa batekin eguardi arte konformatzen geranak. Ez gera euskaldunok, ezta arrai pixka batekin ere, bazkal orduan. Ez; etziran alakoak gure aintziñekoak. Ezta gu ere. Gure ertziak jaungoiko txiki batzuez ditugu. Tripaundiak, eguberri garaian erri batzuetan sortzen dan "olentzero" orren antz. Ez mirgiñak; ondo ian zaleak, baizik, zakar izanik. Gezur ote?

Ortaz, euskaldun oitura zar batzuek. Ortaz sortutako oitura izango da, "zerri iltzea" au ere.

Ez dut oitura auxe geiegi ezagutu. Badakit oraindala amar-ogei bat urte, Euskalerrri guzian oso banatutako oitura zala. Oitura edo... Baño, garai artan, nun egongo ote nintzan ni?

Gaur, oraindik baserri batzuetan, erritik urruti arkitzen diran baserri oietan batez ere, zerria iltzen da.

Goizeko sei ezkillak io berriak diralarik, negu beltzeko, orma ta izotzak belarsoro ta "kina" guziak ziruti ta zigortuak ditularik, alako baserri batean etxetarrak erne. Lau-bost gizaseme azinda lekura dijoaz. Emakume baten bat, etxeoandrea, aiekin, ontzi bat besapean. Alkar izketa. Mai labur bat leku txukun batean.

Ia; azkatu dute zerria. Zerri zuri; bizkar zabal. Astirika gabe gizendu naiez eukiko zerri oietik. Azkatu dute, bere "istegi" tikan. Beldurka. Ote daki zer eldu zaion?

Goiz ixilla zapuztu da. Azinda leku artatik zerri garraxi ikaragarriak. Noiz-beinka gizon oiua: kontu, euki!... Ta... Pixkaka, garraxiak moteldutzen ari dira. Azkenik, ixil. Berrero gizon alkar izketa.

Ez geiago garraxiarik. Ez geiago gurrinkadarik (kurrinkarik). Zerria, illa, alki edo mai mots aren gañean. Burua uker dauka. bizia, itzallien nabal zorrotzak egindako ebaki artatik eskautu zaio. Baten batek erranen zuen bezala: "goizeko laño otzak berekin darama azken gabeko izar lekuetara".

Artean, odolakin betetako ontzia sukalde aldera darama berekin etxeoandreak. Gizasemeak bertan geratzen dira. Baten batek zigarrotxon bat piztuko du. Bei, beste zerri ta azindak, txuturik, arrotuak dabiltz alako garraxi ta iskamillakin.

Atarira deramate zerri illa. Beriala, iratze puxkada batekin tapatuko dute. Zertarako? Ba, suak, iratzia errez, zerrien ille zakarra ere erre dezan batean. Alde bat. Gero bestea. Onela, ille aundiena auts biurtu dalarik, garbiketa, aragi ala urdai gorri-gorria agertu dedin. Egosi-erre usai bat banatu da.

Nabalakin barrenak idekirikan, giltzurriñ, gibel ta on egin leizken guztia alde batera; ondarrak, bota. Urdai azpiko, egal ta puxkada aundienak, aizkorakin zatituaz, gatzakin ongi bilduak kutxa batean sartuak izango dira, irau-lau egunez igorturik, txukaturik.

Goiz erdi aldera, sukalde zoko artan, odolkiak egosten ari dira "pelpel". Batek orratza koxkor batekin, noiz-beinka, "xulatzen" ditu "ez deditezen lertu", berak digunez.

Arratsalde inguruan, errira jetsi bear da: "veterinario" jaunari odolki ta zerri illen beste puxkak eraman bear zaizkio, begitu dezan, bere jakinduriez, ian-gai arek gaitzerik ote duen. Alaxe ere, odolki, urdai zuri ta beste zerrikiak (zerri puxkak), eramaten zaizkio auzotar aieri. Ordu egokia benetan egindakoak eskertzeko. Zoritxarrez, urtetik urtera gero eta gutxiago antolatzen dan ordua auxe, zerria il arren. Dirudi auzotarrari ezdagola ezer eskertu bearrik; dirudi aien bearrean ez gerala iñoiz arkituko. Or, gure urrutiko baserrietan ere sortua, or gaurko gizon arruen sentimentu motzak. Mekanika garaieko sentimentu otzak!

Ta, auzotarrak danak alkaturik, arratsalde guztiko bestakin, irrintzi ta soñu, zerri iltzeko eguna ospatzen zuten garai ura? Alkartasuna deitu leike oneri? bat, ta, ez.

Gaur ezda atzo. Gaur ezda arratsalde guztiko jaiarik egiten, zerri iltze egunez. Gaur..., aiñ moteldutako oitura da zerri iltzea!! "Erositakoa ohea dut", makina batez errana. Baño diot:

ote dakigu gaurko egun ontan, illargi garai ontan, ote dakigu zer dan ohea? Zer dan ona?...  
Zalantza!!

Anton

Principe de Viana, 1970, otsaila, 5. orr.



## EUSKAL YOKUAK

### AIZKOLARIAK

Aspaldion ez ginen aizkolarietaz mintzatzen baño oraingo untan baginuke ba zer edo zer aipatu bearra. Orai dela lau edo bortz ilabete. Latasa sunbildarrak bota zuen desafioa bera bakarrik bi lagunen kontra, lau kanako onbor zeñek lenago ebaki. Bainan aunitz aldiz denbora gutien barnean gauzak aldakuntza aundiak egiten dituzte eta ala gertatu.

Goan den Martxoaren 31'ean Tolosa'ko plazan arizanak dira Astibia eta Latasa aizkorian buruz buru berdinean eta lau kanako onbor zeñek lasterrago moztu. Astibia'k, lau egurrak aukeratzeko eskubidea zaukan eta gañera apostua erakustalearekin zen. Latasa sunbildarrak 39 urte ta 83 kilo pisu, Silbestre Jaunkorena zuen erakustale eta Astibia leitzarrak 24 urte ta 87 kiloko mutillak Kristobal Lazkano erakustale. Apostu untan alderdi bakotxak 100.000 pezta yokatzen zituzten. Larunbatean trabesak Astibiaren alde zauden, baño igandean eta borrokaldia asi aintzin, Latasa'ren alde biurturik 100-60 ri uyu egiten zuten. Gudukaldiak iraun zuen bizkitartean trabesak baten alde bazuetan eta bertzearen alde bertzetan, dirua purrusteka omen zabilen. Baita ere baziren trabesak irabaztaleak lau kanakoak 68 minutuz baño len moztu baietz.

Orai erakutsi ditzagun gudukaldiaren gora-berak. Lenbiziko egurretik asita leitzarrak aintzinaldia arturik, Latasa'ri bentaja pixka bat kentdu zion eta orduan trabesak Astibiaren alde itzulikatu ziren. Lenbiziko egun untan leitzar gazteak minutu bat pasa atera zion Latasa'ri. Baño bigarrenean sunbildarra urbidu zitzaion guti falta zitzaiola berdintzeko, eta orduan trabesak berriz Latasa'ren alde. Bainan Astibia bizkor dago, ezta amor eman nai eta aintzinaldia utzi gabe badoa aintzinat irugarrena ere Latasa'k baño lasterrago mozturik. Laugarrena asterakoan badirudi sunbildarra sasoin izigarrian dagola, onborrari ikaragarritzko zampak ematen zizkiolarik; baño orduko Astibia seguru dago eta Latasa'ren indarrak bereala apaltzen dira, nekatua dago nabari du ler egina dagola. Bizkitartean leitzarra gero ta indartsuago laugarren ta azken egurra moztu zuen apostua bi minutoren bentajarekin irabazirik. Astibia gaztea ohore guziekin irabaztun.

Emen bi aizkolarien markak:

#### Astibia

Lenbizikoa	12 m.	ta	21 s.
Bigarrena	29 m.	ta	25 s.
Irugarrena	46 m.	ta	03 s.
Laugarrena	61 m.	ta	13 s.

#### Latasa

Lenbizikoa	14 m.	ta	25 s.
Bigarrena	30 m.	ta	43 s.
Irugarrena	47 m.	ta	12 s.
Laugarrena	63 m.	ta	13 s.

Irakurleak ikusi dezake bi aizkolarien markak izigarriak izandu direla. Gan direneko 65 urte oketan zutik zagon marka bi aizkolariek aisa porrokatu dute. Marka zahar hori apostu famatu batean Santa Ageda ta Atxunberriak egina zuten, 1903 garrengo urtean Abendoaren 26 ean. Bi aizkolari oiek garai artako oberenak omen ziren. Lenagoko marka zar hori orai urrun gelditzen da. Yende guti Tolosa'ko plazan, 1500 ikusliar bakarrik omen ziren eta sarbideak 100, 125 ta 150 pezta kobratu omen zituzten. Apostu ederra izan baizen, yendea kontent omen zagon.

Arratsaldean eta egun ortan berean, Tolosa'ko plazan bertze apostu bat ere yokatu zuten. Polipaso hernaniarra eta Mariñelarena donamariarra, ok ere buruz buru bakotxak amabi kana-erdiko ta bi 60 ontzako egur moztu bearrak zituztela, biek batean asita lan guzia zeñek lasterrago egin. Trabesak naparren alde zauden 100-40 ri, baño apostu ontan ere gauzak makurtu ziren eta Polipaso zaharrak irabazi, lan guzia 35 m. ta 45 s. tan eginik. Mariñelarena'k bere lana 36 m. ta 6 s. tan egin zuen. Bi aizkolarien ekiñaldia guziz gustagarria izan omen zen eta goizean baño yende geiago bildu omen zen.

Anzanarri

Principe de Viana, 1968, apirila, 6. orr.

## AIZKOLARIAK

Mayatzaren 11'ean Tolosa'ko "Beotibar" pilota lekuan, bigarren mallako aizkolari txapelketa yokatu zuen. Lau aizkolari aritu ziren, Mindegia Ezkurra'koa, Leitzatar Zabaleta, Azpeiti'ko Arriya III eta Mendaro'ko Kortaberri. Txapelketa honen punturik interesgarriena zen, bi lenbizikoak aizkolarien goi-mallara igotzeko modua izanen zutela, eta bi lenbizikoak bi naparrak izan dira.

Egin beharra zuten lana hauxe zen: Seinara onbor 60 ontzako eta bertze seinara kana-erdiko.

Hemen txapelketako auzia nola gertatu zen:

Irabaztale ta Txapeldun: MINDEGIA. 44 minutu ta 45 segundo.

Bigarren. ZABALETA. 46 minutu ta 44 segundo.

Irugarren. ARRIYA. 52 minutu ta 38 segundo.

Laugarren. KORTABERRI. 56 minutu ta 52 segundo.

Zorionak Mindegia txapeldunari eta bai Zabaleta bigarrenari ere, orai biek aizkolarien lenbiziko mallara iganik bertze aundi hoien artean borrokaldi ederrak eginen dituzte.

Ez omen zen yende aunitzik bildu Tolosa'ko plazan.

Anzanarri

Principe de Viana, 1969, ekaina, 4. orr.

## AIZKOLARIAK

Donosti'ko Turismo Etxeak antolaturik, goan den Apirilaren 21'an Donosti'ko zezen plazan, Espaiñiako aizkolarien Txapelketa yokatu zuten. Zeingeiagoketa ontan Euskalerriko sei aizkolari oberenak ari izanak dira, sei mutil euskaldun (ala bear ere) eta denak sasoiko gazte indartsuak.

Emen aipatuko ditugu denen izenak:

Erramun Latasa sunbildarra, 39 urte, 1,77 m. luze eta 82 kilo pisu.

Miguel Irazusta "Polipaso" hernaniarra, 42 urte, 1,80 m. luze eta 100 kilo pisu.

Frantzisko Astibia leitzarra, 25 urte, 1,82 m. luze eta 86 kilo pisu.

Jose Ignazio Orbegozo azpeitiarra "Arriya", 22 urte, 1,88 m. luze ta 95 kilo pisu.

Teodoro Irazusta oiartzuarra "Usategieta", 29 urte, 1,82 m. luze eta 88 kilo pisu.

Frantzisko Berekoetxea gorritiarra, 32 urte, 1,78 m. luze eta 86 kilo pisu.

Iru napar eta iru gipuzkoar. Aizkolari bakotxaren eginkizuna auxe zen:

Bi egur 36 ontzako (0,85 m. ingurua). Bi 45 ontzako (1,05 m.). Bat 54 ontzako (1,25 m.), Bat 60 ontzako (1,40 m.). Bat 72 ontzako (1,70 m.). Bi 80 ontzako (1,85 m.). Bat 72 ontzako. Bat 60 ontzako. Bat 54 ontzako. Bi 45 ontzako, eta azkenean bertze bi 36 ontzako.

Amasei egurrak gisa ortan lerro lerro paraturik eta aizkolari bakotxak bat banaka eta bat bertzearen o ndotik moztu bearrak, denak batean asi ta amasei onborrak zeñek lasterrago moztu.

Sariak ere ederrak ziren. Irabaztaleak 100.000 pezta. Bigarrenak 75.000. Irugarrenak 60.000. Laugarrenak 40.000. Bortzgarrenak 30.000. Seigarrenak 20.000. Gañera denei trofeo delako edergailu bana.

Amabi terdietan eman zitzaion asiera aizkolarien gudukaldiari. Lenbiziko egurra ttipienetakoa zen eta areri lotu zitzaioten denak egiñal guzian. Lendabiziko onbor hori Latasak eta Arriyak moztu zuten lenengo eta biek batean. Bigarren ta irugarren egurra Latasa aintzinean, iduri baizuen gisa ortan denak porrokatu bear zituela. Bainan laugarrena asi orduko Astibia leitzarra agertzen zaigu indar ikaragarriarekin eta denen gañetik aintzinaldia arturik ortxe doa garaipenaren billa.

Berekoetxea gorritiarrak urbil urbildik yarraikitzen dio, au ere sasoñean baitago. Latasa'ren indarrak aultzen ari dira eta ea bortzgarrenean Arriya gazteak sunbildarrari aintzinetzen dio. Usategieta eta Polipaso ere or dabilta gogorki lanean, baño oiartzuarra beti hernaniarraren aurrean. Denak ari dira bururik goratu gabe lanean, baño denen gañetik Astibia leitzarra; au beti denen aintzinean bortizki ari dela eta sobera nekatu gabe gisa ortan lan guzia akitu arte garaipena erdietsirik, eta bigarrenari 1,39 minutoen aldea atera ziolarik. Astibia ohore guziekin Txapeldun. Zorionak.

Emen aizkolarien markak.

<b>Onborrak</b>	<b>Astibia</b>	<b>Berekoetxea</b>	<b>Arriya</b>	<b>Latsa</b>	<b>Usategieta</b>	<b>Polipaso</b>
36 ... ..	0,35	0,40	0,32	0,32	0,35	0,40
36 ... ..	1,10	1,24	1,16	1,08	1,20	1,25
45 ... ..	2,30	2,42	2,31	2,30	2,55	2,55
45 ... ..	3,40	3,44	3,48	3,46	4,20	4,20
54 ... ..	5,48	5,49	6,08	6,17	6,37	7,00
60 ... ..	8,23	8,51	9,21	9,50	9,51	9,55
72 ... ..	12,58	13,53	14,06	15,20	16,10	15,50
80 ... ..	19,38	20,51	20,49	22,26	23,27	24,33

80 ... ..	26,30	28,21	29,06	30,57	31,50	33,05
72 ... ..	31,55	34,03	34,49	36,51	38,41	40,14
60 ... ..	35,40	37,12	38,40	41,16	42,07	44,25
54 ... ..	38,30	39,47	41,52	44,34	44,55	47,15
45 ... ..	40,15	41,37	43,44	46,11	46,25	49,17
45 ... ..	42,00	42,52	45,20	47,46	48,05	50,51
36 ... ..	43,00	44,38	46,17	48,49	49,20	52,03
36 ... ..	43,55	45,34	47,10	49,46	50,19	53,00

Oraingoan Astibia merezimendu guziekin txapeldun. Leitzarra adin oberenean dago, gazte ta indartsu eta lanean ere ongi dakiena. Espaiñiako txapelketa ontan bere balioa erakutsi du eta zalla izanen da orreri Txapela kentzea.

Berekoetxea beti ona, lenbizikoa ezpada bigarrena, ortxe dabilla beti. Gorritiarra beldurgarria izaten da.

Arriya gaztea ere ongi ari izana da eta ohore guziekin irugarren Saria erdietsi zuen. Ongi merexia.

Latasa laugarren, yendeak etzuen ba hori espero, bainan yokoa ola da. Sunbildarrak egiñala egin zuen ler egin arte eta ez diogu geiago eskatzen ahal.

Usategieta'k denak arritu ditu iñork ezpaitzuen uste oiartzuarra aizkorian orrenbertzetañokoa zenik. Mutil bizkorra ta indartsua Usategieta.

Polipaso denetan zaharrena eta denen gibeletik azkena, baño mantso eta seguro aunitzik nekatu gabe lan guzia eginik.

Aizkolarien ekiñaldia ederra izan da. Zorionak Txapelketaren antolatzaleeri.

Anzanarri

Principe de Viana, 1968, maiatza, 4. orr.

## AIZKOLARIAK

Yoan den Azaroaren 24'ean, Leitza'ko errian Euskalerriko aizkolarien Txapelketa egin dute. Egun gogoangarria bai zinez, mundu bat yende bildu zen, an baziren Gipuzko aldetik eta Nafarroa'ko leku guzietatik etorriak denak euskaldun yendeak eta aizkora yokoa maite dutenak. Gañera Telebistaren bidez España guzian agertu da Leitza'ko ikuskizuna eta hori dela medio denek ikusi dute gure aizkolarien indarra eta kemena aipagarriak direla. Bortz aizkolari ziren probatu bearrak, iru napartar eta bi gipuzkoar. Emen bere izenak eta bertze gañerako xeetasunak:

ASTIBIA. Leitzarra. Urteak 25. Luzetasuna 1,82 m. Pixua 86 kilo.

BEREKOETXEA. Gorritiarra. urteak 33. Luzetasuna 1,78 m. Pixua 87 kilo.

LATASA. Sunbildarra. Urteak 39. Luzetasuna 1,77 m. Pixua 82 kilo.

ARRIYA. Azpeitiarra. Urteak 23. Luzetasuna 1,88 m. Pixua 95 kilo.

USATEGIETA. Oiartzuarra. Urteak 29. Luzetasuna 1,82 m. Pixua 88 kilo.

### AIZKOLARI BAKOTXAREN EGIN BEARRA

Kana-erdi edo 54 ontzako 4 egur. 60 ontzako 4 egur. 72 ontzako 2 egur. 80 ontzako 2 egur.

Denetara amabi onbor.

Txapelketa honen antolatzailea Leitza'ko papelera "Colowal" zen eta juezak edo gidariak Nafarroa'ko Federaziokoak.

Eguerdiko amabietan eta anjelus errezatu ondoren, aizkora gudukaldiari asiera eman zitzaion. Lendabiziko onborretik asita Berekoetxea gorritiarrak aintzinaldia artu zuen indar ikaragarria erakusten zuelarik. Bere gibeletik bertzeak ere etzauden lo eta urbil urbildik yarraikitzen zioten. Zazi lenbiziko egurretan gorritiarra beti denen aurrean, bañan zortzigarrenean Astibia'k berdindu eta onbor hori akitu orduko leitzarrak aintzinaldia artu. Denak gogor ari dira batetik bertzera diferentzi aundirik gabe. Astibia sasoin izigarrian dago eta xuxen xuxen doa garaipenaren billa, Berekoetxea aren atzetik urbil dabillega bainan leitzarrak eztu amor emanen eta denen aurrean amabigarren enborra ebakitzen du Euskalerriko aizkolarien Xapelgoa bereganaturik. Astibia ohore guziekin Txapeldun. Zorionak. Gorritiarra leitzarraren ondotik eta gero Arriya, Latasa eta Usategieta.

### EMEN AIZKOLARIEK EGINDAKO MARKAK

Txapeldun. ASTIBIA	Amabi onborrak	48 m ta 36 s tan. 2085	aizkora kolpe
Bigarren. BEREKOETX.	" "	49 m ta 28 s tan. 2114	" "
Irugarren. ARRIYA	" "	50 m. ta 29 s tan. 2012	" "
Laugarren. LATASA	" "	50 m ta 55 s tan. 2115	" "
Bortzgarren. USATEGIE	" "	52 m ta 55 s tan. 2432	" "

### AIZKOLARIEK IRABAZITAKO SARIAK

Astibia. Txapeldun boneta, 50.000 pezeta eta "Colowall" eta Gobernadorearen "Kopak".

Berekoetxea'k. Boneta, 40.000 pezeta eta bertze bi "Kopa".

Arriya'k, 35.000 pezeta eta bi "Kopa".

Latasa'k, 30.000 pezeta eta bi "Kopa".

Usategieta'k, 25.000 pezeta eta bertze bi "Kopa".

Gañera borts aizkolariek aizkora eder bana erregalutzat artu zuten.

## EUSKALERRIKO ZUTIKAKO ONBOR EBAKI TXAPELKETA

Pasatu berri den Abenduko azken igandean Donostiko Anoeta'ko frontoian Euskalerriko "zutikako onbor ebakiaren" Lenengo Txapelketa ospatu zan.

Jendez erdi betetako Frontoian Euskalerriko bost aizkolaririk onenak agertu ziren bere lanari aurpegi emateko, eta hauek Leitzan Azaroaren 24 egunean azaldu ziren berberak ziran: Astibia, Arriya, Usategieta, Latasa eta Berekoetxea.

Lana hau izan zan: lau onbor 54 ontzako eta iru 45 ontzako, baño onbor bakoitzari aizkolariak bi ebaki eman behar izan zition, guzira bada 14 onbor bezelako lana izan zituzten.

Aizkolari bakoitzak bere erakasle edo botilleroa izan zuen: Astibiak Cristobal Lazkano, Latasak Joshe Ciganda, Arriyak Yurrebaso, Berekoetxeak, Vishente Azpiroz, eta Usategietak Lorenzo Mitxelena.

Saioak laster eta aixe erakutsi zuen Erramon Latasa denbora guzietako Euskalerriko aizkolaririk onena izan dela. Etsai bat izan bazuen ere, asieran bakarrik ikusi genun eta eta hau Patxi Astibia izan zen, baño bereala Latasa aurreraldi galanta artu zion Astibiari eta proba guzian gizon bat bakarra ikusi genun denok: ERRAMON LATASA, Sunbildarra eta berrogei t'amar urtetik urbillean ibiltzen bada ere bera da onbor-ebaki modu hontan nagusi...

Modu hontan gelditu ziran azkenean:

Txapeldun: ERRAMON LATASA, Sunbillekoa - 44 minutu eta 16 segundutan.

Bigarren: Patxi Astibia, Leitzekoa - 47 minutu eta 36 segundutan.

Irugarren: Arriya, Azpeitikoa - 52 minutu eta 10 segundutan.

Laugarren: Berekoetxea, Gorritikoa - 53 minutu eta 54 segundutan, eta

Azken: Usategieta, Oiarzungoa - 56 minutu eta 16 segundutan.

Anzanarri

Principe de Viana, 1969, urtarrila, 5. orr.

## AIZKOLARIAK

Yoan den Azaroaren 12'an Azpeitiko plazan aizkora apostu bat yokatu zuten. Oraikoan Berekoetxea gorritiarra eta Arriya azpeitiarra buruz buru ari izanak ditugu bakotxak seinan 80 ontzako egur moztu beharrak zituztela (1,85 m. itzuli-inguru).

Lendabiziko iru onborrak Arriyak Berekoatxeak baño lasterrago moztu zituen, gorritiarrari aintzinaldia arturik, baño laugarrenean Arriya gaztea gibelean gelditu zen onbor au ezin erdibituz ainbertze denbora pasturik. Berekoetxea gero ta indartsuago zoaien, lanean ere aisa ari zen eta falta zituen bertze bi onborrak neke aundirik gabe mozturik yokoa aisa irabazi zuen, sei egurrak 45 minutu ta 17 segundoz erdibiturik. Arriyak beharko zituen 51 m. ta 14 s. bere sei onborrak ebakitzeko.

Berekoetxea gorritiarrak etzuen bere burua aunitzik bortxatu, apostua aisa irabazi zuen, aizkolari ona da eta ofizioa ere ongi dakiena. Arriya gazteak indarra aundia du baño oraindika aunitz ikasi beharra, gaia badauka bai eta ofizioa ongi ikasten balu beldurgarria izango litzake Trabesak laugarren egurra bizkitartean gora-bera aundiak ibili zituen bainan erran bezala laugarren onborrean erabaki zen auzia.

Amabortz egunen buruan bertze apostu bat izan dugu eta berriz ere gipuzkoarra eta naparra zein-geiagoka. Oraingoan Tolosa'ko plazan ari izanak dire, Mariñelarena Donamariarra eta Ezeiza Beizamarra buruz buru. Bakotxak zituen 45 ontzako 14 egur moztu beharrak, biek batean asita nork lasterrago erdibitu. Gudukaldi polita izan omen zen, bien indarrak berdintsuak eta biek ahalmen guziak agertu zituztelarik. Mariñelarena naparrak irabazi zuen, gipuzkoarrari 30 segundoen aldea atera ziolarik. Irabaztaleak 14 egurrak, 30,55 minutoz moztu zituen eta galtzaleak lan bera 31,25 m. tan. Eguraldi txarra gertatu zen eta plazan yende gutxi omen zen.

Anzanarri

Principe de Viana, 1968, urtarrila, 4. orr.



## APOSTUAK

Yoan den igande Martxoaren 2'an Azpeiti'ko plazan apostu eder bat yokatu dute. Oraingoan beñere ez bezalako yokoia agertu digute, aizkorian eta lasterka eta bidenazka ari izanak direla. Astibia aizkolaria eta Ayerbe korrikalaria alde batetik, eta Arriya aizkolaria Irazu lasterkariakin bertetik. Beren eginkizuna auxe zen:

Sei egur moztu eta sei kilometro lasterka bikote bakotxarentzat eta lan guzia zeñek lasterrago egin. Lehenik aizkolariak onbor bat moztu eta gero bere lagun korrikalariak kilometro bat lasterka, eta gisa hortan bertze gañerakl aizkora lanak eta lasterketak seigarren kilometroa akitu arte.

Sei egurretatik, iru 54 ontzako eta bertze iruek 60 koak ziren, Astibia'k egur guzietan bentaja puska bat artzen zuen eta naiz Irazu Ayerbe baño korrikalari obeagokoa izan, Arriya'ren lagunak Ayerbe arrapatu orduko, honek bere lana bukatua zauken eta orduan Astibia'k aizkorian berriro aintzinaldia artzen baizuen, azkenean Ayerbe'k seigarren kilometroa osotu zuen yokoaren garaipena erdietsirik. Astibia eta Ayerbe'k lan guzia 33,07 minutoz egin zuten eta Arriya ta Irazu'k 33,39 m. tan. Apostu ederra izan omen da eta yendea ere kontent omen zen. Apostua asi aintzin trabesak 100-30 Arriya ta Irazu'ren alde zauden bainan yokoia asi orduko bertze aldera itzulikatu ziren. Orai diote berriz ari beharrak direla bainan oraingoan doble lanarekin, au da, 12 egur eta 12 kilometro.

Ikusiko dugu zer gertatzen den.

Anzanarri

Principe de Viana, 1969, martxoa, 5. orr.

## ARTALDEAK

Nafarroako kazeta batetik hartutako berrirka agertu nai nituzke gure eskualdeko artzainen gora-berak aipatuz.

Azkenengo urteotan nabari da artaldeak beiti doazila eta gutituz urtetik urtera. 1965 garrengo urtean Nafarroan bai omen ziren 625.000 ardi eta orai joan berria den 1973-ko urte hortan 550.000 bertzerik ez. Hoietatik lauetaik iru "Latxa" deitzen den arrazako ardietaik. Hor ageri da artaldeak zer gainberaldia egin duten baina ez ordea ardiek guti ematen dutelakotz artzain exkaxia delakotz baizik. Gaurko egunean gazte gehienak ez dute sakrifizioik maite eta hoiek ez dute beti ardien gibeletik ibilli nai eta hortan dugu gaitzik aundienetako bat. Baina bertzalde eta aunitzek diotenez eta bistan dagona ere, gure mendiak gero ta zikinago doazi, aunitzek iretzeak utzi dituzte eta bazter guziak otez eta sasiz betetzen ari dire, mendiak zikin eta bazkik ez eta dena artaldean kaltetan.

Erran dugu Nafarroa'ko artaldeak gutitu direla baña bertzalde erran dezakegu hobeagotu eta ondu egin direla, oraiko ardia lenagokoa baino hobe da, azkartu egin da eta probetxu gehiago ematen du artzaintzat etorkizun aberatsgarria biurtu delarik. Ardi "latxa" hemengo ardia Nafarroako iparraldian kokatua dago, hasi Luzaide-tik, Orbaizeta, Ostiz, Irurzun eta Urbasa leku hauek guziek muga direlarik barnean sartzen diren lurralde guzietan. Arki klase hau zalla dela ez dago dudarik, beti mendian, euriak, otzak, elurak eta ekaiztiak yasanez arraza zaildu bait-da. Dakitenek diote eta ez da gezurra izanen, ardi "Latxa" hau esnea emateko munduko hoberenetakoa dela Diputazioko Aintzindariak gogo aundiarekin hartu dute ardi hoken azkuntza eta saiatzen dira artzainei behar duen laguntza emanez. Gaurko egunean artzainek beren ardi-bordak edo arditegiak ongi zaintzen dituzte oraiko aurrerapenetaz baliatuz, garbitasuna, mantenu eta behar diren guziak hartuz. Hoiek guziek hola baina garbi ageri da ardieri yarraikitzen direnak zaletasun aundia behar dutela izan, afiziona guzien gainetik. Ardiek maite dituenak ez du artaldea aisa utziko ez eta ere saldu, naiz ta ardiengatik sos aunitz ematen baldin badute ere. Baztanen badugu exenplu bat, baztandar artzain bateri bere artaldeko ardi multzu batengatik agindu omen zioten 4.000 pezza ardi bakotxarendako, erostunak nai zituenak berexita. Sos aundia zen bai baina gure artzain zintzoak etzituen saldu. Bere biziaren urte hoberenak beti bere artaldea ondu beharrez eta ainbertze urtetako neke ta lanak gisa hortan ondatzea ez omen da artzain onaren jokabidea.

Diputazioneko Nekazalgo Zuzendaritzak arreta aundiarekin hautatzen ditu "Latxa" arrazako ahariak, ongi mantenduak eta indarrekoak izan daitezen, hoietatik dauzkat berexiak Nafarroako artaldeak hobeagotu daitezen. Hemengo artaldeak ahari hoietatik ari dire hornitzen Diputazionek 1969-ko urtean 27 buru banatu zituen Nafarro guzian eta oraiko 1973 koan 139 ahari hartu omen dituzte hemengo artzainek. Diputazionek bide onetik darama esnearen neurketa lantegi hortan 1967-ko urtean hasi zirelarik, orduan 400 ardi aztertu zituztela. Aurten 20 artalde aztertu edo "controlatu" dituzte 1.200 ardien esnea neurturik. Ardiek esne ona eman dezaten lehenik ongi yatera eman, hori lenbizikoa. Pentsu onakin mantendu eta ongi zaindu batez ere erdi baino ilabete batez lenagotik. Ardiek ongi zaintzea garrantzi aundiko lana da eta bai garbitasuna eta zakuntza ona ere eritasunak eta zikinkeria nausitu ez daitezen, ardiek beti osasun onarekin probetxu ona eman dezaten.

Orain berriki egin omen dute ardi "Latxa" esnedunen artean sariketa bat eta bai omen dire artzainak beren artaldetik eta 200 egunez, ardi bakotxatik banaz-bertze 225 litro esne atera dituztela. Ez dago gaizki. Ikusten dugunez gure alderdiko ardia aintzinat doa eta ematen du.

Baina baita ere diote ez dela aski lan aunitz egitea, arabera hortan ere irabazbideak behar direla aunditu, esnea eta gasnak industria bideetan zuzenduz.

Erraten dutenez aurten ardi esneak 20 pezetaraño eginen omen du eta hala balitz gauzak ongi doazi. Artzainen egoeraz aunitz poztutzen gara eta suerte on bat izan dezatela dena merexi dute ta.

Anzanarri

Principe de Viana, 1974, martxoa, 3. orr.

## ARTZAIN ZAKURREN SARIKETAK

Euskal Herrian arrakasta haundia dute artzain zakurren sariketa hoiek. Hogei urte baino gehiago badira oñatiarrak hasi zirela lantegi hortan, eta bai ospe haundikoak ere herri hortan egiten diren Sariketak.

Aurten egin diren aipatuena, Baztan'go Amaiur'ko "Txanpartenea" bordako Patxi Etxeberria'ren "Labri" zakurrak merezimendu guzietan irabaziak ditu. Zakur ttipi hunen garaipenak ots haundia sartu du Euskal Herri osoan, Baztan'go Amaiur'ko izena gorasko ezarririk. Ez da aurten bakarrik; igaz ere "Labri"ren eginkariak guzietan gainekoak izan baitziren.

### **Amaiur'ko sariketa**

Igaz bezala, aurten ere amaiurtarrek antolatu dute Artzain Zakurren Sariketa. Abuztu'ko 15'eko ikuskizuna hola joan zen.

Hamairu zakur ari izanak dira. Lehenbiziko saioa egin ondoren, sei zakur; pasa aintzinat; bertze zazpiak, ez.

Bigarren saioan ari izanak dira: "Labri", Amaiur'ko F. Etxeberria'rena; "Lindo", Amaiur'ko Pilar Elizalde'rena; "Txato", Eibar'ko A. Atxa'rena; "Kati", Urbasa'ko S. Fernandez'ena; "Beltxa", Amaiur'ko Istilart Elizalde J. Mari'rena.

Bigarren lana eginik, Maiburukoek "Labri", "Lindo" ta "Txato" berezi zituzten azken saiorako.

Hiru zakurretatik, "Labri" k bakarrik erdietsi zuen agindutako lana, ta merezimendu guzietan Amaiur'ko Sariketa irabazi.

### **Nafarroa'ko xapelgoa**

Abuztua'ren 28'an, Huarte-Arakil'en Nafarroa'ko Xapelgoa ospatu zuten, bereharian nafartarrak bakarrik ari izan direla.

Artzain talde polita Huarte'n, denak beren zakurrekin eta garaipena erdiesteko nahikeriarekin. Artzainen artean, bortz baztandar. Baztandar artzainek lan ederra egin daukute Xapelgo huntan, lau lehenbizikoetan hiru sartu baitira, Baztan'go izena berriz ere aipatua izan da.

Igaz bezala, aurten ere, Amaiur'ko Patxi Etxeberria, "Labri" zakur ttipiarekin, irabaztale.

Irabaztale: "Labri", P. Etxeberria. Amaiur.

2'gn.: "Lista", Pedro Ansa. Arano.

3'gn.: "Beltxa", J.M. Istilart. Amaiur.

4'gn.: "Lindo", P. Elizalde. Amaiur.

5'gn.: "Moro", Joxe Lakuntza, Urbasa.

Hoi ondotik gainerakoak, amabitaraino. Amaiurtar hoiek badute merezimendu. Ta bertze gauza bat erranen dut: Joxe Mari Istilart, 12 urteko artzain mutikoa, M<sup>a</sup> Pilar Elizalde'ren semea dela; hortaz bada, ama-semeak ari izanak dira.

### **Euskal Herri'ko txapelgoa**

Iraila'ren 4'ean, Euskal Herri'ko Xapelgoa ospatu da Araba'ko Araia herrian.

Hemen ere, denen gainerik berriz ere "Labri" eta Patxi Etxeberria, garaile. Bigarrena, arantzar Pedro Ansa'ren "Lista".

### **Oñati'n nazio-arteko sariketa**

Azkenik, urtero bezala, Oñati'ko Sariketa Huandia. Xapelgo hau "internazionala" da eta izen haundikoa Europa guzian. Aurten, Catalunya eta Euzkadi'ko artzainak bakarrik ari izanak dira nor-gehiagoka. Eguraldi ederrez ospatu da Xapelgo hau, eta ikuslearrak ere, millaka, Iraila'ren 11'gn. egun huntan.

Joan den urtean bezala, eta bigarren aldiz, Oñati'ko Sariketa Huandiaren irabaztale, "Labri". Garaipen hunekin, Baztan'go Amaiur herriko "Txanparte" bordako Patxi Etxeberria eta zakur ttipi horrek erakutsi dute beren ahalmen haundia. Aurten, lau Sariketetan ari izan dira eta lauetan, garai! Aurten, behintzat, ikusia dago "Labri" bezalakorik ez dagola iñon.

Hona hemen Oñati'ko Xapelgoaren gorabera:

Irabaztale ta txapeldun: "Labri", P. Etxeberria. Nafarroa.

2'gn.: "Txiki", Martín Martínez. Araba.

3'gn.: "Zame", Joseph Mihura. Lapurdi.

4'gn.: "Lista", Pedro Ansa. Nafarroa.

5'gn.: "Txitik", Juan Osinalde. Gipuzkoa.

6'gn.: "Tircho", Jordi Molisach. Catalunya.

Zorionak irabazteei eta parte hartu duten artzain guziei, baita Jaialdiaren antolatzaleari ere!

Anzanarri

Principe de Viana, 1977, uztaila-abuztua-iraila, 13. orr.

## ATANO TXAPELDUN

Bazuetan iñork uste ez duenean sortzen dira eztabaidak eta aurtengo pilota Txapelketako Azken-partida orrek ere izan du ba naiko naskunde. Sakearen falta iruterdia edo laua bear zuela izan eta marra hori dela medio bazterrak aski nahasiak ibiliak dira; baina azkenean auzi hori antolaturik eta bi eskualdeak baietza eman ondorean, Azkarate eta Atano-ren arteko Azken-partida edo Finala yokatu zuten. Orrelako eztabaida ergelak geiago gertatu ez ditezen, orai diote "erreglamento" edo pilotaren lege berriak egin bearrak dituztela eta gisa ortan urrengo aldian, Txapelketak beti bide onetik yoanen direla berriz guterma oiek agertu gabe. Denen gañetik pilotazaleok bear dugu elkarri errespetu aundia eta gure pilota yokoa izan dedilla ohorezko yosteta bat euskaldun yendeari dagokion bezala, ala uste dugu beintzat.

Maiatzaren 19'In Donosti'ko "Anoeta" izandu da Azken-partida orren lekuko. Plaza bete bete yendez, an baziren uyu eta arrabots franko zenbaitzuk ederki nabarmendu zirelarik.

Partida asi aintzin trabesak Atano-ren alde 100-80 ri zauden, eta lendabiziko saka azkoitiarrari suerteatu zitzaiolarik, orduan 100-70 ri uyu egiten zuten. Atano'k lendabiziko tantoa galdurik, Azkarate elorriotarrak zortzi puntu lerro-lerro egin zituen, (8-0) eta ea irugarren tantorako trabesak berdinean zauden, zortzigarreneko 200-80 ri Azkarate'n alde uyu egiten zutela. Gero azkoitiarrak bere lenengo tantoa egin zuen, (1-8) eta ondotik Azkarate'k bertzea, (9-1). Badirudi partidak ezuela kolorerik bañan Atano'k bortz puntu irabazten ditu, (6-9) eta gudukaldiak bertze itxura bat artzen du. Gero Azkarate'k eginen zituen bertze bi tanto, (11-6) eta trabesak 100-80 ri elorriotarraren alde, Atano azkoitiarra ernatu da, bizkor dabilla eta bortz puntu lerro-lerro eginik, berdintzen du partida (11-11). Ados yaunak eta trabesak azkoitiarraren alde 200-100 ri. Gero berriz adosteak 13, 14 eta 16 garren tantoetan eta trabesak 200-150 ri Atano-ren alde. Partida atakatua, bi pilotariak gogor ari dira beren ahalmen guziak erakusten dituztela. Atano oraingoan aintzinaldia arturik lau puntu egiten ditu (10-16). Trabesak 200-100 ri bere alde. Gero Azkarate'k bere amazazpigarrena, eta azkenik Atano'k bertze bi tantoak eginik garaipena erdietsi du (22-17). Atano Txapeldun.

Partidak ordu bat eta 22 minutu iraun zuen, baina orrek ezto erran nai denbora hori guzia yokoa aritu zirela, pausa aundiak ere egin baizituzten. Bi pilotarien artean, pilotari 277 aldiz yo zuten.

Irabaztaleak eta galtzaleak ere Trofeo delako edergailu bana artu zuten eta ikusliar guziak pilotarien ohoretan esku-zarta aundiak yo zituzten. Zorionak bi pilotarieri, bi plaza-gizon eta bi euskaldun on.

Anzanarri

Principe de Viana, 1968, ekaina, 6. orr.

## BAZTAN

### Bertizaranako bestak

Ekainako illabetean gure eskualdeko zenbait herrietan bestak ospatu dituzte. Besta-Berri egunean (10ean) Almandoztarrek beren herriko festeri hasiera eman zioten. Lenbiziko egunean soka-tira yokoa egin zuten Almandoztarrak Elizondarren kontra, alde bakotxatik bi talde ari izan zirela (A eta B). Lenbiziko mallakoen artean Almandoz irabaztale eta bigarrenen arteko proban Elizondarra garai. Tiraldi ederrak eta aski atakatuak.

Igandearekin (13an), aizkora apostua yokatu zuten, Astibia bakarrik, Urkia eta Iturrarten kontra (bi hauek txandatur). Astibia Txapeldunak neke aundirik gabe yokoa irabazi. Almandoztarrek eguraldiakin suerte txarra izan zuten, eurie yautsi ahala eta giroa ere aski latz. halere yende aunitz bildu zen Almandozen eta bestak izan dute arrakasta.

Sanjuanetan Arizkundarrek ere beren bestak egin dituzte. San Juan egunean pilota partida ederra eta bertsolariak izan zituzten. Bengoetxea eta Txoperena buruz-buru aritu ziren eta Bengoetxeak irabazi 22-18. Gero Mattin eta Xanpun bertsolariak, kantaldi ederra egin egin dituztela gazte ta zahar nor-yendea loriatu zuten. Yende aunitz ibili da Arizkunen eta erran beharrik eztago mutil-dantza ederrak-gehiagoka.

Erratzuko herrian ere Sanpedroak ospatu dituzte. Pil'ta partida ederrak, bertsolariak, antzara yokoa eta naiko soñu ta dantza. Hemen ere Xanpun ta Mattin ari izank dire eta Arizkunen bezala gure koblarien kantaldia atsegingarria izan da. Bestak bake ta elkertasun ederrean igaro dira eta yendea kontent.

Doneztebarrek ere Sanpedroak ongi ospatu dituzte. San Pedro egunean arratsaldeko seietan euskal-dantzarien nor-gehiagoka egin zuten, fandango ta ariñ-ariñ zeñek hobeki dantza. Zortzi bikote aundietakoak eta amar txikietakoak erakutsi zituzten beren abildadeak eta Juaradoak Auzia gisa hontan erabaki zuen:

Bikote Irabaztalea	
Etxaburu-Bilbao	Ondarrutarrak
Bikote Bigarrena	
Larrea-Albizu	Lezotarrak
Bikote Irugarrena	
Garramiola-Beitia	Ondarrukoak

Aurren arteko leyaketa, holaxe:

Bikote Irabaztalea	
Ugartemendia-Artetxe	Ondarrutarrak
Bikote Bigarren	
Zubigaray-Arantzamendi	Ondarrutarrak
Bikote Irugarren	
Izeta-Lopetegi	Lezotarrak

Txistulariak Iruñeko Ibañez anaiak. Bikote irabaztaleak eta bertzeek ere Sari ta Edergiuak hartu zituzten. Yende aunitz eta denak kontent dantzarien ekiñaldiekin.

Bigarren egunean pilota partidak "profesionalen" artean. Bergara ta Gartzia Ariño, Berasaluze ta Azkaraten kontra. Partida atakatua eta ongi yokatua lau pilotariak beren ahalmen guziak erakutsi zituztela. Bergarak eta Ariñok irabazi zuten 22-20.

Yende aunitz Doneztebeko festetan.

Orain Elizondoko bestak gainean ditugu eta urtero bezala mota guzietako yostetak ukanen ditugu. Aurten Santio bezperean "Ezdok Amairu" taldekoak ari beharrak ditugu eta hortaz gañera izango ditugu dantzarien nor-gehiagoka, pilota partidak bizikleta lasterketa eta bertze zenbait ikusgarri. Plazan mutil-dantza ederrak eta dibersioa.

Aurtengo "Baztandarren Biltzarra" Abuztuaren lenbiziko egunean egin beharra dugu eta urtero bezala egun hortan yende aunitz espero dugu. Orain gauzak gerta daitzila guk nai bezala.

Anzanarri

Principe de Viana, 1971, uztaila-abuztua, 5. orr.



## BAZTAN

"Aniz, ameka etxe, ameka labe ta ogeitabi zetabe bat bertzez behartu gabe".

Hala dio Baztango erran xahar batek Anizko herriarentzat eta edozein baztandarrek gure Balleko herri ttipiena aipatzen duelarik ele xahar hori agertzera ematen du.

Mendi zelai batean kokatua haize isasungarria nagusi delarik, ipar-haize prexkuak eta haizego beroak ere ederki harrotzen duela, herri polit hau erro errotik euskaldun garbia da.

Herri honek arrosarioko Amabirjinetan ospatu ditu bere bestak eta eguraldi onak ere ederki lagundu bait du, bestak aski ongi goan dire.

Urriaren lehendabiziko egunean, euskal-besta eder bat izan genuen; aizkolariak eta bertsolariak zein-gehiagoka.

Aizkorian lau baztandar aritu ziren eta bidenaka. Alde batetik *Altzuarde anaiak* eta bertzetik, *Agerreta-Etulain*.

Aizkolarien eginkizuna, lau kana erdiko ta lau 45 ontzako, txanda librean. Apostu polita ta *Agerreta Etulain'ek* irabazi lan guzia 22,50 minutuz eginik. Galtzaleek 25 minutu behar izan zuten.

Gero, *Gorrotxategi ta Lazkaotxiki bertsolariak* biek aski famatuak eta onak, kantaldi zoragarria egin zaukuten. Bi bertsolari gazte hauek bertsoei ematen dioten gatza gustagarria izaten da.

Zer irri-ajatak egin ote zituzten entzuleek hoienera ateraldiekin. Ederki bertsolariak. ¡Biba zuek!

Jende aunitz Anizko plazan, eta bestak izan zuen arrakesta.

Bestak igaro dira eta orai aniztar izilariek Olariko lepoan izanen dute non josta.

Anzanarri

Principe de Viana, 1970, azaroa-abendua, 7. orr.

## BAZTAN

### **Azaroa eta San Martin**

"Azaro'ko hilabetea neguaren atea". Lehenagoko denboretan San Martin garaiak gure eskualdean inportantzi handia zaukan. San Martin egunean hain zuzen maisterrak ordaintzen zion errenta nagusiari eta sasoin huntan ere izaten ziren etxez eta baserriz aldatzeak. Zenbat eta zenbat maisterrek uzten zuten baserri bat bertze batera bizitzera joateko. San Martin'ek elebide franko sortuazten zituen bazterretan, batzuendako atsegingarriak eta bertzeendako ez hainbertze.

San Martin'eetan bestak ere izaten dira eta aipatuko ditut irauten dutenak.

### **Ituren**

Mendaurren'ko azpian kokaturik dagon Ituren'go Aurtiz'ko hauzoak "Sanmartinak" ospatu ditu. Ituren'go herriak bestak aldatu zituen Uztailako hilabetera baina Aurtiz'ko hauzoak ohiturari yarraikiz lehen bezala San Martin'en ohoretan ospatzen dituzte bestak. Bertzetan bezala aurten ere sekulako ikusgarri eta dibersioak eginak dituzte, bestak lau egun iraun dituztelarik. Ikuskizunen artean aipa ditzagun: Artzain-zakurren saioa bi nafartar hoberenen aartean. Aizkora apostua. Pilota partidak. Ahari jokoa. Soka-Tira. Bertsolariak. Arrijasotzaleak. Zanpantzar eta txistulariak. Aratxe yatea. Naiko sonu eta dibersio eta gauzik ederrena hauzokoen arteko elkartasuna eta umore ona.

### **Gartzain**

Gartzain'go herria ere San Martin egunean ospatu du herriko Zaindariaren besta. Hemen ere bestak lau egun iraun dituzte. Herri aunitzek bestak aldatu dituzte, zenbaitzuk neguan zituztelakotz eta bertze batzuk hala komeni zelakotz, baina Gartzain'ek tinko yarraikitzen du ohitura zaharrea eta San Martin'etan ospatzen dute. Eta behinere aintzinatu eta gibelatu gabe beti San Martin bezperean "Baztan-zopak" etxe guzietan eta bai ostatuan ere kanpotarrentzat. Egunean Meza Nagusi ederra eta ondolik Mutil-Dantza. Erran beharrik ez dago etxe guzietan otordu ederrak egiten dituztela eta plazan ere dibersioa. Bestak ongi joan dira eta gazteak berriz egiteko prest.

### **Azpilkueta**

Azpilkueta'ko herrian denbora batez San Andres'etan, Azaroaren 30'ean izaten ziren herriko bestak, baina gero pentsatu zuten San Fermin'etara aldatzea, neguan eta eguraldi txarrekin eta holako egun laburrekin ere etzela batera atsegin sasoin huntan bestak egitea eta hala aldatu zuten. Baina "Sanandresak" ez daude atzendurik eta egun hortan herritarrek egiten dute beren seinalea Meza Nagusiarekin eta etxeetan otordu ederrarekin. Ohitura hau ez da aisa galduko, ibili ta ibili "tripe besta" izaten baita denei gustatzen zaiena eta hori gabe ez baita bestarik.

Negu gorrian eta ia urtearen akaballan. Azaro'ko elurte harek kalte haundiak egin zituen arboletan, non-nai ageri baitira adarrak hautsiak eta hainbertze ondo arrailduak eta botaiak ere. Bertzalde urtea ongi joan da eta yendeak ez du arrankurik, sabaiak ongi hornituak, zitua etxeratua eta deuseren eskasik ez. Baztandar nekazariak ele xahar hartaz oroiturik uroski erran dezake:

*Elur melur, ez diet hire beldur; badiet etxean arto ta egun.*

Anzanarri

Principe de Viana, 1975, azaroa-abendua, 7. orr.

Baztan

## AZIENDA SARIKETA

Joan den Maiatza'ren 24-ean, Nafarroa'ko Azienda Sariketa egin zuten Elizondo'n, Nafarroa'ko Diputazioa, Zaldiazleen Erakundea eta Baztan'go Balleko Etxea izan dira Sariketaren antolatzaleak eta Sari emaleak. Baztan'go hiri nagusian bildu dute Nafarro guziko azientarik hoberena. Zaldi, behor, zeze, bei, zeri eta ardi, klasean klasekoak eta zein baino zein hobeak, berreun buru urbil eta denak aragiz ongi hornituak eta itxura ederrekoak. Hemen ikusi ditugu, Aezkoa, Ultzama, Erreka, Artze, Bertizarana, Erribera eta Baztan'go azientarik hoberena. Erraten dutenez hor erakutsi duten azientaren balioa pezetetan amar-amabi millonak erdietsiko omen zuen, behinere ez omen da ikusi holako edertasunik. Hemen Juradoaren erabakia eta sariak nork eramán.

Lenbiziko Saria hartu dutenen izenak bakarrik agertuko ditugu:

Gerenua, 3 urtetik gorakoak	Elso, P. Diez de Ulzurrun
Behorak, 1-3 urtekoak	Abaurrea Garai, L. Iriarte
Behorak, 3-7 urtekoak	Arizkun, M. Agirre
Behorak, 7 tik gorakoak	Artze Billanueva, K. Oroz
Zezen Gorriak, urte 1'etik goitikoak	Abaurrea Garai, J. Arregi
Bei Gorriak, 1-2 urtekoak	Abaurrea Azpi, J. Salon
Bei Gorria, 2-5 urtekoak	Abaurrea Garai, B. Zelai
Bei Gorria, 5 urtetik gorakoak	Azpilkueta, R. Urdaniz
Zezen Suizoak, urtetik goitikoak	Azpilkueta, M. Mendiburu
Bei Suizoak, 1-2 urtekoak	Arizkun, F. Urrutia
Bei Suizoak, 2-5 urtekoak	Arizkun, I. Rekarte
Bei Suizoak, 5 urtetik gorakoak	Esnoz, J. Zalba

## BEI NABARRAK ESNEDUNAK

Frisona Arrazakoak, 1-2 urtekoak	Tudela, Lavin anaiak
Frisona Arrazakoak, 2-5 urtekoak	Tudela, Lavin anaiak
Frisona Arrazakoak, 5 tik gorakoak	Olondriz, F. Kanpos

## ZERRIAK

Aketzak, 6-18 ilabetekoak	Elizondo, J. Larratxea
Aketzak, 18'tik gorakoak	Lekarotz, F. Elizalde
Urdamak, 6-12 ilabetekoak	Gartzain, J. M <sup>a</sup> Ormart
Urdamak, 12'tik gorakoak	Gartzain, J. M <sup>a</sup> Ormart
Ardiak, urte t'erdiz azpikoak	Urrizola, I. Oyaregi
Ardiak, 18-36 ilabetekoak	Egozkue, M. Eugi
Ardiak, 36'tik gorakoak	Urrizola, I. Oyaregi

Yendeketa gaitza Elizondo'n. Nekazariendako egun ederra.

Anzanarri  
Principe de Viana, 1975, ekaina, 7. orr.

## BAZTAN

### Elizondoko Ikastola

Irailaren amabosgarrean asi ziren Elizondo Ikastolako ikastaldiak. Ikastola hau Nafarroako Diputazioneko babesean dago, eta 3-6 urteko aurrentzat egina dago. Egunero ogeitazazpi aur biltzen dira beren andereño baztandarra erakustale dutelarik, denak pozik eta zintzotasun aundiarekin.

Ikastola honek arrekiste aundia zian du eta lekurik ezdelakoz ez dituzte aur gehiago hartu. Datorren urtean Jainkoa lagun bi andereño izango ditug, gauzak ongi ballin badoazi, beinipein asmo hoiek ditugu.

Gurasoek ere beren aurtxoekin batera kontent dira. Eztugu espantu sobera egin behar baina nik uste Ikastola honekin urrats bat aintzinat eman dugula, beti eskuara indartu beharrez. Euskal Kultura!, hori da euskaltzale zintzoen ametsa. Segi dezagun bide hortatik eta gure herria euskaldunduko dugu. Badugu ba hemen zerbaiten beharra.

Aurten ere Elizondoko eskola nazionaletan egunero emanen dira ordu erdi bateko euskuarazko ikastaldiak. Joan deneko bi kurso hoietan ere eman zituzten eta aurten ere iarraikiko dire lan hortan berean. Mutikoen eskolan ordu erdi bat eta bertze ainbertze neskatikoen eskolan irakasleak yaun eta andereño baztandarrak izango dituztela.

Ikasketa hauek Nafarroako Diputazioneko laguntza osoa dute eta beti lan pixka bat egiten da. Solas guti eta eginkizun aunitz behar ginuzke euskaldunok eta ez gehienetan gertatzen dena, solasa ta eztabaita ergelak eta elkarren artean beti mokokan.

Anzanarri

Principe de Viana, 1970, urria, 5. orr

## BAZTAN

### Mutil dantza

Lehenago ere erran dugu mutil-dantzari baztandarrak Iruñen eta Donibane Lohitzun-en ari izanak direla, baina ez dira hortan akitzen gure dantzarien eginkizunak.

Iraileko 2-tik 10-era Gipuzkoa-ko Ordizia-ko herrian euskal-kulturaren astea egina dute aste hortako 3-an igandearekin, ordiziatarrek euskal-dantzarien biltzar haundi bat ospatu dute, berehartan hamalau dantzari-talde bildu direlarik. Gure baztandarrak ere hantxe ari izanak dira bertze gañerako dantzarien artean biltzar horrerri indarra emanik.

Goizean dantzari-talde Ordizia-ko karriketean barna itzuli bat eginik talde bakotxa beren soñulariekin eta beren dantzak erakutsiaz. Arratsaldean fuboleko zelaian berriz ere dantzari-talde guziek, plaza bete bete ia indez eta denek zaletasun haundia nabari zutela. Baztandar dantzariak arrakasta haundia izan zuten: *Muxikoak*, *Telleria* eta *Zortzikoa* dantzatzuz gure dantzariak bere trebetasuna ongi aski erakutsi zuten.

Gero Ordizia-ko karrika, plaza eta ostatueta ere Maurizio txistulariaren soñuarekin, baztandarrak ordiziatar neska-mutil gazteekin denak elkartasun ederrean.

Han izandu garenak egun goxo baten oroitzapena ekarri dugu geren etxetara ordiziatarrek egun eder bat iraganik.

Baztandarren eginkizunak oraindik ere gorago doazi. Donostia-ko *Turismo Etxeak* antolatutako "Fiestas Euskaras" deitutako euskal besta hoietan ere baztandarrak ere agertu dira. Irailaren 2-an Trinitateko plazan lau gizon baztandar aritu ziren "Kanta Zahar" bestan. Baztandarra, Gipuzkoarrak eta Zuberotarrak ari izanak dira Euskal-Herriko kanta zaharrak erakutsiaz Baztandarrek kantatu zituztenak: "Mendi gainean bi pago", "Andere Mustatx", "Otxalde ta Etxahun", "Galaitxo Txiki", "Lili bat", "Aitak eta Amak" eta gehiago ere. Maurizio txistulariak soñualdi xarmanta eginik yoyetako "Eztai Soñua" beren bertsoekin agertu zituen eta Xiberotarrek txirula soñua eta beren lurraldeko kanta zoragarriak. Denen ohoretan txalo eta esku-zarta ederrak entzun ginuen.

Irailaren 9-an berriz baztandarrak Donostian eta oraingoan mutil-dantzariak, bi ezbertze guziak arizkundarak eta beti bezala Maurizio eta Felix soñu jotzale. Egund hortan Luzaidetarrak ere Donostia-ra etorri beharrak ziren baztandarrekin batean dantzatzera baina denbora txarra zagolakotz ez ziren batere etorri eta hortaz baztandarrak bakarrik aritu ziren han agertu zituztela: Agurra, Muxkoak, Telleria, Xerri-Begi, Sagar-Dantza, Biligarroarena eta Zortzikoa. Gehiago ere dantzatzuko zuten erasan ezpazuen, euriak ondatu baizuen besta guzia. Iende aunitz Trinitateko Plazan eta txaloak ere haundiak baztandarren ohoretan.

Aurten gure mutil-Dantza leku aunitzetan erakutsi dugu eta gure dantzak daukan nortasuna eta errespetoa jendeen aintzinean agertu ere.

Iarraik hortan baztandar maiteak.

Anzanarri

Principe de Viana, 1972, urria, 7. orr.

## BAZTAN

Urtea igaro da eta bat gehiago gure gain, negua, udaberria, udara ta udazkena lekuko direla. Eguneroko lana, yostetak, kezak, aserreak, materialismoa..., eta idealismoa zertan dago? Gure eskualdean zerbait egin al da euskal-kulturaren alde? Aztertu dezagun gure barna eta agertu ditzagun baztandarren eginkizunak, euskal-kulturari dagozkionak bakarrik eta ez ordea folklore ta yostetako gauzetaz. Zerbait egiten dela? Bai egia. Eta gehiago arten artean exkaxa balin bada, hori piztuarazten badago lana gure eskualdean.

Aurten hemen egin direnetatik aundienetakoa dudik gabe Ikastola izan dugu. Ikastola hau Nafarroako Diputazioko babesean dago eta 3-6 urteko aurrentzat egina dago, berehartara 28 aurtxo joaten direlarik, andereño baztandar bat irakasle dutela. Ikastola honekin arras kontent gaude eta eman dugun urrats horrek aunitz balio du.

"Principe de Viana" k antolaturik aurten ere izan dugu baztandar aurren artean ipui-sariketa berehartan 71 idazle ttipi parte hartu dutelarik. Orai Eguberritan ere "Caja de Ahorros" ek antolatutako idatz sariketa hortan 25 ipui agertu dituzte.

Euskal irakurgaiak emeki emeki ari gara edatzen Diputazioko "Principe de Viana" errebista euskal familietan banatuz. Beti ere lenago egundaño eskuarazko gauzak irakurri etzituztenak orai ari dire eta hori ere bada zerbait.

Aurten bertsolariak eta euskal kantariak ere ari izanak dira. Elizondon Mayatzako ilatetean lau bertsolari aritu ziren: Gorrotxategi, Lasarte, Mattin eta Azpillaga. Gero Santiotan "Ez dok amairu" deitutako euskal kantari paregabeak kantaldi zoragarria egin zaukuten eta bai Urriko ilabetean Oyartzungo bertze kantari-talde batek ere.

Anizko bestetan ere bertsolariak izan gintuen, Gorrotxategi eta Lazkao-Txiki kobleri famatuak kantaldi ederra egin zaukutela. Sunbillako bestetan ere bertsolariak eta bai antzerkilariak edo teatrolari euskaldunak izan zituzten.

Ez dugu utzi behar aipatu gabe Zubietako bestetan berhartako Herriko Etxeak antolatutako eskual-besta ederra. Hor aritu ziren, Gorrotxategi, Arotzarena eta Egilegor bertsolariak eta baita ere "Erlak" deitutako euskal kantari taldea. Bertsolarien eta kantarien jardunaldia ederra eta denen gogokoa izandu zen eta beren kantaldietan gai onak eta garbiak erabili zituzten. Besta horrerik buruz norbaitek idatzi zuen erranez bertsolariak eta kantariak gordinkerietan eta bortitzkerietan aritu zirela, baina hori ez da egia eta nik erran dezaket, ni han negolaketan eta kantu ta bertso guziek entzun nituelaket. Han naiz bertsolariak nola kantariak gai garbiak erabili zituzten, han ez zen erran behar ez diren solasik aipatu. Bertsolariak eta kantariak dira lekuko. Besta hortan "Erketz" dantzari-taldea ere aritu zen euskal-dantza paregabeak erakutsiaz eta denak edo gehienak Nafarroakoak. besta ederra izandu zen eta yende guzia arras kontent.

Urte zaharra gan da eta orai berrian artu gara. Zer ekarriko ote dauku urte berri hunek? Guk zer naiko ginuke? Beti ere Zoriona eta Bakea gure Euskal-Herriarentzat.

Urte berri berr  
zer dakarrazu berri  
uraren gañan bakia ta osasuna.

Urtetx Urtetx!

Anzanarri

Principe de Viana, 1971, urtarrila, 5. orr.



## BAZTAN

Euskera

Elizondo'ko "Escuela Laboral" delako etxean euskuarazko ikasketak ematen asi zaizkigu. Berri orrek emengo euskaltzaleei aunitz poztu gaitu, gure erri erdaldundu onek bazuen ba da zerbaiten beharra.

Euskerazko ikasketa oiek Baztan'go Balleko Etxearen laguntza osoa dute eta gure aintzindariak artutako erabaki ori denek goersten ahal dugu.

Juan Oñatibia yauna dugu erakasle eta bere lana guziz ederra da. Azaroaren 7'an eman zioten asiera ikaskaieri eta orain asteen bein eta ortzegunarekin izanen ditugu...

Aunitz gazte ikusten dugu eskolan eta badirudi eskuara ikasteak indar pixka bat artu duela. Badut uste Oñatibia jaunaren ereintzak zitu onak emanen dituela.

Gauz guzietan bezala lanpide ortan ere zerbait ikastekotan lehenik zaletasuna behar, au gabe ezpaita deusere egiten ahal, bañan ori dutenek oiñarri sendo batean finkaturik aunitz egin dezakete.

Ez al dute ba aunitzek inglesa ta frantsesa ikasten? Eta gure mintzaira zergatik ez? Zailtasun guziak aisa menperatzen ahal litezke gure mintzaira maitatu ezgeroz, eta ori izanen litzake gauzik ederrena, gure gaztedia euskal zaletasun biziarekin ikustea.

Denak behar den bezelakoak izan baginezke, gure sorterrian eskuara izanen litzake nagusi eta euskal kultura ere bertze neurri batean egonen litzake.

Orain ikasketak aipatu ditugunean, Lamierrite'ko berriak ere agertu behar genduzke. Lehenago erran ginuen nola Urriko illabetean asi beharrak zirela etxe ortan eskola ematen eta erran ginuen ere gauzak nola moldatu beharrak zituzten xehetasuna guziak agerturik. Orain erran dezakegu lan oiek guziek bide onetik doazila, Baztan'go Balleko aintzindarien laguntzarekin eta bertze jaun zenbaiten lan goresgarriak indarra emanik.

Lamierrite'ko Eskolan Baztan'go baserrietako 50 muttiko eta neskattiko biltzen dira eta badirudi Eskola orrek errekkiste aundia duela. Badituzte erakasle euskaldunak aurrei ikaskai guziak ongi adierazteko eta or daude ere apez baztandar zenbait dotriña erakusteko.

Gauzak ongi egin ezgeroz, denentzat mesedegarri!

## KIROLAK BAZTANEN

"Club Deportivo Baztán" deitutako kirol batasunak gure zaindari Frantzisko Xabier Sainduaren ohoretan, yoan den Abenduaren 3'an besta polit bat antolatu zuen. Meza Nagusi ondoren Antxitoneko trinketean bi pilota partida yokatu zituzten. Lehenik esku-uska, Etxandi eta Agerr erratzuarrak alde batetik eta Elizondo sunbildarra ta Fagoaga erratzuarra bertzetik. Lau pilotari gazte auen aitaldia ederra izan da eta nik uste, trinketean maizago aritzen balirezke pilotari politik aterako lirezke, hor bada gaia eta aski ona gañera. Partida Agerrek eta Etxandi'k irabazi 35-25. Gero paletaz larruzko pilotarekin, Lazaro ta Burgete, Txatxin ta Sagastibeltza'ren kontra. Iru elizondar eta elbetear bat. Partida au Lazarok eta Burguete'k airez aire irabazi zuten 40-25.

Arratsalden Giltxaurdiko zelaiean futboleko partida, Iruñe'ko "Oberena" ekipa famatua, gure "Baztan" en kontra. Partida hunek errekkiste aundia izan zuen, yende aunitz bildu zen eta borrokaldia ere aski ederra gertatu. Ekipa bakotxak bidena gol sartu zituen eta ez ginuen izan ez irabaztale eta ez galtzalerik ere.

Futbolean ere bertze gauz guzietan bezala arituz ikasten da eta Baztan alde huntatik ere fubolari onak aterako lirezke hortara saiatu ezkeroz. Bi mutil elizondar baidtugu España'ko ekipa famatuenetan, bat Zaldua aspaldi huntan "Barcelona" deitutako ekipan ari

dena eta bertzea Amiano orai berriki "Español" deritzaion ekipara yoana. Bi gazte hoiek gure herriaren izena leku onean ezarri dute eta berriz ere Elizondo aipatua izanen da.

Anzanarri

Principe de Viana, 1969, urtarrila, 5. orr.

## BAZTANDAR YAUN AGURGARRIAK

Gure Baztan alde untan euskal idazle edo izkribitzale gutti agertzen zaizkigu orai eta lenagoko denboretan ere, baño ortako dine izen ditugu bai eta aski onak alare, oien artean aipatu dezazkegu: Frantzisko Lapitze Arizkundarra, Kruz Goienetxe Elbetearra eta urte aunitzez Amayur'ko erretore izana, Paulo Fermin Irigarai "Larreko" Irurite'n aunitz urtez bizitua. Blas Fagoaga Erratzuarra ospe aundiko Yauna eta eskuararen alde lan aunitz egin zuena, Xabier Lazkotz Elizondarra eta bere bizi Ziga'n egona, Bruno Etxenike sortzez Urdazubiarra bano ttipi ttipitatik Elizondo'ko Datugarayan bizi zena eta Aita Frantzisko Biguria Elizondarra Aita Kaputxinoa, Aita Pérez Goiena Jesuitak berak egindako liburuan famatuen kondaira agertzen digu eta Yaun ospetsu oien artean, Aita Frantzisko elizondarraren nortasuna eta bai bere eginkizunak gisa untan agertzen ditu:

Aita Frantzisko mastru baten semea zen eta Elizondo'n sortua 1871 garren go Mayatzearen 20, ean. Bere ikasketak edo estudioak Iruñe'ko Seminarioan egin zituen eta 1894 garren go Abenduaren 22, an Apez egin zuten. Lendabiziko Meza eman ondoren, Lizaso'ko Erretore izendatu zuten eta erri ortan 1901 garren go Mayatzearen 26, a artio Ultzama'ko erri egonik; gero Kaputxinoetan sartu zen. 1932 garren urtean Yainkoak bereganatu zuen. Aita Frantzisko'k eriotz ikaragarria izan zuen, Donosti'ko Kaputxinoetako eliza egiten ari zirelarik eta ango lanak ikusten ari zelarik goitiko sorailutik beitiko zolaraño erori ta burue autsi. Negargarria aren eriotza. Aita Frantzisko il zen baño oroitzapenak utzi dizkigu eta eskuara maite dugunok aren ipui politak eta mamitsuak dastatu dezazkegu. Berak eginikako lan zenbaitzuk agertuko ditut:

1. Kristaua bere Pont-Elizan 1910 garren urtean argitaratua.
2. Lore usaindun mamitsuak 1922 garren urtean argitaratua.
3. Eliz Kantak 1926 garren urtean argitaratua.
4. Loretegi Berria 1932 garren urtean argitaratua.

Gure eskualdean zenbatek irakurri ote dituzte Aita Frantzisko'ren euskal liburuak?

Negargarria da bai gertatzen dena, zein zabarrak garen, zein gutti egiten dugun euskal kulturaren alde, zaletasuna zaletasuna, hor da behar duguna baño zoritxarrez emengo geienak eskuararengatik axolik ez.

Anzanarri

Principe de Viana, 1968, apirila, 6. orr.

## BAZTANDARREN BILTZARRA

Uztailaren 21-ean ospatu dugu Elizondon amargarren Baztandarren Biltzarra. Argiastetik eguna ilun ilun agertu zitzaikun tarteka euri-lankar pixka ari zuela. Denbora gisa hortan ikusirik ez ginuen giro ederraren esperantzarik baina halere suerte ona izan ginuen eta eguna ederki joan zen, zerue goibel eta mendiak iper-lanoz inguraturik batere eurik egin gabe pasa zuela eta besta egiteko izaten ahal den giro goxoenakin.

Aurten behin ere ez bezalako yendeketa ikusi dugu Baztango hiri nagusian. Erraten dutenez ogeitamar milla lagun bildu omen ziren eta berebillak ere 1.500 baino behiago.

Urtero bezala Herri Meza ederra izan da eta gero Karrozen ibilaldia herriari itzulia eginik. Amasei Orga ibiliak dira eta bertzetan bezala dantzariak eta soñulariak gure Baztango txistulari taldea Maurizio Elizalde Buru zutelarik denen aintzinean zoazilarik. Dantzaritaldeen artean hor genituen Iruñe, Tudela, Lizarra, Gazteiz, Bera, Barakaldo, Tolosa, Pasai, Donibane Lohizun eta gehiago ere. Beti bezala Iturengo "Zanpantzar" deitutako gare-yoileak ere hemen gintuen.

Eguerdi aldean Plaza zaharrean mutil-dantza eder bat gazte ta zahar sasointsu gure dantzak erakutsi zituztela. Gero bazkari merkatuko plazan 1.800 bazkaltiarrekin. Bazkalondoan, dantza, bertso, kantu ta soñu.

Milaka yende karriketan denak txiñurriak bezala ezin kokaturik, bazter guziak beteak, denak umore onean eta sasoin ederrean. Zer edertasuna hainbertze euskaldun gure herrian bildurik, Gipuzkoa, bizkaitar, arabar, lapurditar, baxenabartar, zuberotar eta nafartar denak baztandarren artean bat eginik beren bozkario sana euskal izpirituz indarturik agertzen zutela, egun guzian yauzi ta dantzan nekatu gabe.

Egun gogoangarria aurtengo Baztandarren Biltzarrarena. Nik uste dut gure artean egonak diren guziak besta eder hontaz oroitzapen maitagarri bat izango dutela.

Baztandarren Biltzarra elkartasun biltzarra, ez baztandarren artean bakarrik baita ere euskaldun anai guzien artean ere.

Baztango xoko hontatik euskaldun guzieren millaka goraintzi eta gure arteko elkartasuna lokarri sendoekin loturik eta urratu gabe betiko iraun dezala.

Anzanarri

Principe de Viana, 1974, uztaila-abuztua, 6. orr.

## BAZTAN'GO MENDIAK

### Mendizaleak

Mendietan ibiltzeko zaletasuna arras edatua dago bai gure erresuman nola mundu guzian ere. Igandero ikusten ditugu Iruñe ta Gipuzkoa aldeko gazteria Baztan-go mendietan ibilkari aize osasungarrik ongi ornitzen direlarik. Gure Euskal-Herrian ongi dakite bai hemengo berri, gure mendiak aipatuak bait-dira bazter guzietan. izendatu ditzagun famatuenak:

SAYOA 1422 m. Mendi hau Baztan-go aundiena dugu eta joan daiteke Belatetik eta bai Irurite-ko Artexiaga-ko lepoan barna. Berroeta-tik ere igo daiteke.

AUZA 1312 m. Mendi eder hau Erratzu-ko alderdian dago eta Iñarbil-go auzotik goiti ederki joan daiteke. Malda aundia bai, dena azpitik-goiti kaskoraino.

IPARLA 1056 m. Hau mugan dago (muga 90) eta Erratzu-tik Izpegi-ko bidea hartu eta ezker mugaz-muga, Astate, Laurdena, Arietako-lepoa, Kapeluko-kaskoa eta Iparla. Erroitz aundiak eta ibiltzeko ere ez ain errexia.

ALKURRUNTZ 945 m. Otsondo-tik ederki igo daiteke eta batere arrixkurik gabe, neke aundirik gabe ordu batez aisa. Bixta ederrak, eguraldi garbiarekin itsasoa eta Laburdiko zelaia ederki ageri dira. ARXURI edo PEÑA-PLATA 767 m. Zugarramurdin barna aunitzik nekatu gabe.

LEGATE 870 m. Lekarotz eta Elizondo-tik ere ordu terdiz ibilkari on batek eta bi orduz lasai lasai joanez.

Mendi gehiago ere aipatu daitezke baina denak agertzea luze litzake.

Pasai-ko mendizale zenbaitzuk aurtengo udaran ibillaldi eder bat egin gogo dute, oso interesgarria eta garrantzi aundikoa. Errenderitik Elizondoraño oñez eta bi egunez. Ibillaldi hau Gipuzkoa eta Nafarroa-ko mendietan barna bidea ongi aztertuz, errekek, ohianak eta baserriak ongi begiratzuz. Lehenbiziko ibillaldia Errenderitik Igantzi-ko Bentataraño bide hau jarraikiz:

ERRENDERIA, Fanderia, Ugaldetxo, Iturriotz, Karrika, Artasoroko-Iturria, Oyanleku, Eskas (etxea), Birango-lepoa, Elutxegiko-Lepoa, Almendrurizko-Lepoa, Unanueko-Kaskoa, Igantzi eta BERRIZAUN. (Igantziko Bentak deitzen duten auzo horrek badu bere izen jatorra, BERRIZAUN).

Egun batez ibillaldi hau eta beste egun batez bigarren zatia, hona hemen:

BERRIZAUN, Iribarrengo borda, Loita, Azkua, Pareta-zar (zati hau Etxalar-ko dermioan) Aitzkolegi, (mendi hau Bertiz-ko ohianean dago, gure eskualdean den ederrena orain Nafarrokoa-ko Diputazioaren eskuetan dagoena. Ohian sendoa, millaka bago, gaztain eta aritz-ondo ederrak eta han denen ikusgarri Jauregi polit bat Aitzkolegiko kaskoan kokaturik). Bertizkotik eta Baztango dermioetan sartuaz Plaza-zelai deitzen den lekua eta gero azpitik-goiti Arakan-go leporaño. Lepo hau Larratzu eta Legaten artean dago, Lekarotz eta Elizondo-ko bidean. Gero gain-behera, Gamio-ko borda, Irulegia, Aroztegia eta azkenik ELIZONDO.

Pasaitar mendizaleek badute zer ikus eta non ikas, mendizale gazteagokoek ikas-bide on bat izan dezaten. Bidai atsegingarri bat desiratzen dabegu.

Anzanarri

Principe de Viana, 1972, iraila, 8. orr.

## BERTSOLARI ZAARREI OMENALDIA

Datorren Azaroaren 17-a hautatu dute Euskal-Herriko bertsolari zaharrei omenaldia egiteko. Egun hortan bildu beharrak dira Donostian amabortz bertsolari zahar, irurogeitamar urteak beteak dituztenak eta denek ongi merezia daukaten gorasarrea hartuko dutenak.

Bertsolari guzien izenak:

Frantzisko Maria Lasa. Aldabakoa. Gipuzkoarra.  
Juan Ormaetxe. Mungia-ko. Bizkatiarra.  
Bautista Kortajarena. Asteasu-koa. Gipuzkoarra.  
Jose Ignazio Etxeberria. Urrustil-koa. Gipuzkoarra.  
Pedro Aranburu. Arrona-koa. Gipuzkoarra.  
Joxe A. Sorazu "Zubeltzu". Itziar-ko. Gipuzkoarra.  
Joxe Mari Aristondo. "Muño". Bidania-koa. Gipuzkoarra.  
Koxme Ariztimuño. Segura-koa. Gipuzkoarra.  
Tomas Arrizabalaga. Zumarraga-koa. Gipuzkoa.  
Lorentzo Zulaika. Elgoibar-koa. Gipuzkoarra.  
Jerman Uriguen. "Etxegiña". Elgoibar-koa. Gipuzkoarra.  
Klemente Ezkurdia. Gorriti'koa. Nafartarra.  
Joxe Mari Mutuberria. Elzaburu'koa. Nafartarra.  
Simon Ibarra. Sunbilla'koa. Nafartarra.

Amabost bertsolarien hoiien artean, iru nafartar ditugu, gure lurraldaren izen euskalduna, ohore guzietan goratuko dutela.

Bertsolari hauek guziak, beren bizi osoan, bakotzak zezakeen neurrian bertsogiroa eta baletasuna erein dute beren inguruan, eta zor hori ordaindu nahi die Euskal-Herriak. Eskerrak hoiei!

Anzanarri

Principe de Viana, 1974, iraila, 5. orr.

## BERTSOLARIAK

Euskaldun yendeak bertsolariak aunitz maite ditu, gure mintzairan erranak eta bertsolarien ezpañetatik ateratzen diren itz negurtuak beren biotzetan sartzen baitira eta ori euskaldunek bakarrik goxatzen ahal dugu. Nafarroa'n ere bertsolari onak baditugu oien artean, Arotzarena bi anaiak, NARBARTe, Madariaga, Aldaz, Orexa, Mihura, Ezkurdia, Perurena, Iriarte ta aunitz geiago. Lasarte bertsolari famatua ere nafartarra dugu, Leitza'ko semea eta aspaldi ontan Gipuzkoa'ko Orio'ko errian bizi dena. Gure koblaría Gipuzkoa'n asko maite dute eta or dabilla ango bertsolari oberenen artean erriz erri bertsoak kantatzen bere yakitatea ongi aski erakusten duela. Uztapide ta bera askotan elkarrekin ibiltzen oi dira eta beren artean egindako bertsoak guziz gustagarriak izaten dira. Yoan den San Jose egunean Elizondo'ko Antxitoneko trinketean bersolari besta bat egin zuten eta bereartan aritu ziren, uztapide, Xalbador, Lazkao-Txiki ta Lasarte. Gai asko erabili zituzten, batzuek hunkigarriak biotza ukitzen zutenak eta bertzeak irringarriak yendearen atsegiñerako. Aipatu behar ditugu egun ortan Lasarte'k eta Uztapide'k elkarren artean eginikako bertsoak gai au erabili zutelarik:

"Uztapide beti lanean eta beti pobre eta gaizki bizi dena eta Lasarte pobrea bai baina batere lanik egin gabe ederki bizi dena".

### UZTAPIDE:

Ya bada Lasartek era du konpontzen  
baña gauza zalla da gizon txarrak ontzen.  
Beti lanean ari gera eta dena kentzen  
oraintxe aspertu naiz alperrak mantentzen.

### LASARTE:

Ikusi dituzute atarramentuak  
ta erantzuteko nik gaur pensamentuak.  
Badakizkitzu zein diran lanaren kontuak  
ori egiten dute olako tontuak.

### UZTAPIDE:

Zuengandikan sortu izan dira gerrak  
ikaragarriak daukatzut zuri esan beharrak.  
Merexi ez ditunari nola eman eskerrak  
guk egiñak jaten beti ai dira alferrak.

### LASARTE:

Badakit erantzunak zuzen datozela  
Ta badakit temara onuntz gatzela.  
Itz batean esan dezu alferra naizela  
argatik bizi naiz ni gizonak bezela.

### UZTAPIDE:

Beste bertso bat bota behar diot mardula  
badakit arrazoia gerekin degula.  
Au bera ere listoa ez da izan sekula  
alderdi bakarra du lotsarik ez dula.

### LASARTE:

Langilea izketan zabilta nik argiz  
nik ere erantzungo det euskera garbiz.  
Nekatu ta ikusi det makiña bat aldiz  
ola ezin ibilli listua izan balitz.

UZTAPIDE:

Lanera ez du joan nai egunero oporra  
lanik ein-be bizitzia da lanik gogorra.  
Dirudik ez dabilki eta nun-nai zorra  
kartzelera joan beharra dauka derriorra.

LASARTE:

Ez zaidazula bota olako txisterik  
zuregandik ez dago arrazoi tristerik.  
Zu ere ez dago ondo emen ikusterik  
ezer ez dezu aurreratu nekea besterik.

Anzanarri

Principe de Viana, 1967, urtarrila, 3. orr.



## BERTSOLARIAK ETA PILOTARIAK JOAN DEN URTEAN

### Bertsolariak

Joan berri den urte hau bertsolari urtea izandu da eta zenbat eta zenbat bertsolari besta egin ote diren Euskal-Herrian. Ainbertze jaialdien artean izan ditugu, omenaldiak, txapelketak eta bertsolari bilierak; gehienak Gipuzkoan eginak dira, hortan gipuzkoarrak ditugu nausi. Bainan aurten Nafarroan ere egin ditugu bertsolari jaiak, Elizondon, Lesakan, Zubietan, Erratzun eta bertze lekuetan ere. Euskaldun jendeak maite ditu bertsolariak et ajaialdi hauek sekulako arrakasta izaten dute. Azkenengo jaialdietatik Donostian Azaroko ilabetan ospatutakoa aipatu nai nuke. "Lizeo Santo Tomas" Ikastolak antolaturik Donostia-ko "Astoria"n bertsolari jai eder bat egin zen berehartan sei koplari aritu zirela: Xalbador, Lasarte, Mattin, Gorrotxategi, Lazkano eta Lazkao-Txiki. Beti bezala mota aunitzetako gaiak erabili zituzten eta hoiien artean bat saritua izandu zena. "Lizeo"ko Batasunak "Trofeo" delako Edergailua ematen zuen "Nor da euskaldun"? gaiari buruz bertso hoberena botatzen zuenarentzat. Sei bertsolariak beren doaiak erakutsi zituzten bakotxak ahal zuena eginez eta Saria Gorrotxategi-arentzat izan zen. Hemen Gorrotxategi-ren bertsoa:

Nor da eskaldun? Hau da galdera.  
Al dakit nola erantzun?  
Bere bideari jarraitzen diona  
naiz kontrako itzak entzun.  
Semeak euskal kutsutan azi  
lagun danei egin lagun,  
herria serbitzeko prest egon  
etengabe gau ta egun.  
Hau egiten dun gizasemea  
hori da egizko euskaldun.

### Pilotariak

Gure pilotariak gogotik ari izanak dire joan den urte hontan. Gazteak gogor ari zaikigu eta goiti doazi, bidea erekia dute eta aurten lanak emango dituzte. Nafarroako berriketari batetik joan den urte hontan pilotariak jokaturako partiden gora berak hartuak ditut eta bakotxak zenbat partida jokatu ta irabazi dituen agertzera noa.

#### Atzelariak:

Aldazabal	95/51
Etxabe XI	88/40
Nalda	86/42
Martinez	82/37
Elorza	82/45
Lajos	80/45
Barandiarán	80/45
Leibar	72/39
Andueza	68/24
Berasaluze	67/40
Juaristi	66/39

Orexa II	65/27
G. Ariño	63/30
Bados	58/33
Azkarate	56/26
Etxandia	46/16
Etxabe X	43/19
Gorostiza	43/19
Tapia I	40/22
Alegria	33/18
Soroa	4/1

**Aurrelariak:**

Orxea III	9/46
Pierola	87/38
Bergara	78/44
Barasaluze	77/40
Retegi	73/47
Ogeta	63/31
Tapia II	63/32
G. Ariño I	63/36
Otxoa	65/35
Etxarte	62/26
Beristain	49/25
Arroyo	47/14
Arotzena	43/15
Agirre	43/16
Txikuri	43/28
Maiz	42/17
Konpanon	36/17
Erostarbe	35/15
Ezkurra	31/13
Urkiza	30/9
Atano X	19/8
Madrid	19/14

"Sarrio" Batasunak Sari aundi bat emana du urtean izan diren lau pilotari hoberenentzat. izendatu dituzten lauen izenak hemen: RETEGI (esku-huska). P. LEKUNBERRI (remonte). ITURRI (pala). eta ONDARRES (cesta punta). Eman ditugun xehetasun hoketan ageri da pilota jokoak oraindikan badaukala indarra eta hortan beti bezala euskaldunak nausi. Hala behar ere. Zorionak denei.

Anzanarri

Principe de Viana, 1974, urtarrila, 8. orr.

## BOSEOLARIAK

"Urtain" euskaldun boseolari famatua denen ahoetan dabilla. Orain arte sei borrokaldi ditu egiñak eta seietan garaille agertu zaigu bere kontrarioak aisa menperaturik.

Irakurleek lerro hauek irakurri orduko, ain segur bertze borrokaldiren bat yokatu izanen du<sup>1</sup>.

Eztakigu noraiño iritxiko ote den bañan eztago dudarik bere indar eta ahalmenak negurri gabekoak direla-eta Europakoa ezpada Españi'ko boseolarien Buru laister izanen dela, hortan seguru gaude.

Orain diotenez "Usategieta" aizkolari eta arrijasotzale famatua ere boseoan asteko naikerietan omen dabilla,eta hau egia bada horrek ere zerbait eginen du indarra eta kemena etzaio faltako, eta "Urtain" ekin batean, España eta munduko boseolarien arteko gudua iñarrotsiko dute.

Hoiek guziek geroak erranen (esango).

Anzanarri

Principe de Viana, 1969, otsaila, 6. orr.

---

<sup>1</sup> "Anzanarri" k igorritako idazlan hau artzean jakiñen gañean gaude Paris'en "Urtain" ek beste boxeolari menderatu duela zazpi boseolari izanik "Jesus ameneko batean" garaitu dituen.

## BOXEO

Bear bada zenbaitzuendako "Boxeo" delako kirola edo deporte astokeri bat da eta bertze zenbaitzuendako berriz ez. Beti ere yosteta orrek munduan barna erreliste aundia du badira bai yarraikitzaileak, eta nork erran bear du gizon bat mutur-yoka aberasten al dela? bai eta egia.

Euskalerrian beti izan ditugu gizon bizkorrak eta indartsuak, arrijasotzaileak, pilotariak, aizkolariak, denak mundu guzian famatuak. Bozeolarietan ere euskaldunak ez dira gabeak izan eta lenagoko denboretan aski onak izan ditugu. Denen gañetik aipatu dezagun Paulino Uzkudun orai dela berrogei urte munduko oberenetakoa izana, gero eta denbora aietakoak ere or datoz, Isidoro Gaztañaga, Mateo Osa, Juanito Olagibel, gero ditugu Arziniega, Pako Bueno, eta gaurko egunean gauz aunitzik ez. Bañan ara orain iñork uste etzuenean izen aundiko arrijasotzale bat bozeolari biurtu zaigu. Jose Manuel Ibar "Urtain" Arronako sema dugu boxeoa asia, gizon bizkorra eta gaztea, 24 urtekoa eta 1,79 m. luze eta 0 kilo pisu, orren muturrekoa goxoa izanen da noski. Goan den Uztaillaren 24'ean egin zuen lendabiziko borrokaldia Toni Rodri bilbotarra kontrarioa zuelarik. Rodri delako hori gauza utsa izan zen gure Urtain'entzat, onek lendabiziko muturrekoarekin aidian bota baizuen. Bigarren borrokaldia Donostian egin du eta oraingoan Miranda arjetinatarra bere kontrarioa, au gizon bizkorra 115 kilo pisu eta boxeoa ere ez nolanaikoa. Bainan gure bozeolari euskalduna dudik gabe bada zerbait eta oraingoan ere bere kontrarioa porrokatu du. Onek bertzeak baño pixka bat geiago iraun dio, bainan bigarren "round" ean ezkerrarekin sekuleko ukaldia emanta Miranda lurrera bota zuen legar zaku bat balitz bezala. Bigarren borrokaldi au Donosti'ko belodromoko plazan egin zuten eta mundu bat yende bildu zen. Eztakigu Urtain noraño iritxiko ote den bainan mutillak badu indarra eta zaulitasuna eta badugu uste urte baten buruko txapeldun bat izanen dugula, Españi'koa beintzat laster ardietsiko al du. Eta orai zai egon gaitezen eta Urtain'en baitan uste osoa izan dezagun, ea ba bi edo iru urte baño len Europa'ko bozeolarien Txapela bereganatzen duen, hori nai genduke euskaldun kiroltzaleek eta bizkitartean igurikatu dezagun.

Anzanarri

Principe de Viana, 1968, iraila, 6. orr.

## DANTZA. SONU. KANTA

Aintzineko urte hauetan bezala, aurten ere San Fermin bezperein Iruñe'ko "Anaitasuna" deitzen den kirol-etxean Nafartar dantzari, kantari eta soñularien jai aundi bat ospatu dute.

Festa hau Nafarroa'ko Diputazioko "Institucio Principe de Viana" k antolatzen du, berehartan gure Erresumako dantza, kanta eta soñuak agertzen dituztela.

Urtero bezala "Anaitasuna" kirol-etxea jendez bete bete, gazteak gehienak, hor ageri baita Herriaren aldeko jaiak jendearen artean arrakasta aundia daukatela. Biltzar hontan agertu dituztenak hemen:

Txistulari-taldeak, tronpetak eta tinbalekin batean "Nafarroa'ko Erresumako Ereserkia" joaz, festari hasiera eman zitzaion. Gero dantzari-taldeen ekinaldia:

BAZTANGO DANTZARIAK:	Aunitz-Urtez. Tellarin. Esku-Dantza. Sagar-Dantza. Zortziko.
LIZARRA'KO DANTZARIAK:	Larrain-Dantza.
MUSKILDA'KO DANTZARIAK:	Karrika- Dantza. Enperadorea. Modorro. Jota eta Pañuelo- Dantza.
TAFALLA'KO DANTZARIAK:	Kortes'ko San Migel'en Dantzak. Vals eta Zinta-Dantza.
OBERENA'KO DANTZARIAK:	Uztarrotze'ko Ttun-ttun.
TUDELA'KO DANTZARIAK:	Nafarroa'ko Jota.
LUZAIDE'KO DANTZARIAK:	Bolant-Iantza. Andre-Iantza. Hegia. Eskualdun-Iantza. Sorgin-Iantza.
OTXAGI'KO DANTZARIAK:	Otxagi'ko Ttun-ttun.

Dantzarien ondotik "Nafarroa'ko Gortearen Martxa", kantariak orkestakin. Kantarien multzoan hor genituen Erresumako kantari-talde hoberenak, denen artean Abestalde aundi bat osatzen zutela: Iruñe'ko Orfeoikoak, Erriberri, Etxarri-Aranaz, Kastejon, Iruñe'ko Huarte, Tafalla, Billaba, Zangotza'ko "Nora", Zintruenigo, ta Iruñe'ko Ipar-Soñua. Kantarien Gidari, Huarte Azparren jauna. Hor agertu dituzte, Aita Donostia, Sorozabal eta Esnaola'ren Euskal-Kantak.

Kantarien ondotik, "Ballet" dantzaren erakusketa.

Gero "Orquesta Santa Cecilia"ren soñualdia Xabier Bello Portu jauna Gidari Nausi zutelarik. Soñulari-talde honek ere Euskal soñuak agertu ditu; hoiaren artean, Aita Donostia, Guridi eta Bello Portu'renak. Baita ere "Orquesta"ren soñuarekin Iruñe'ko Ayuntamentuko Dantzariak Guridi'ren "Opera Amaya"ko ezpata-dantza erakutsi zuten. Azkenik Larregla'ren Jota kantatuaz festari bukaera eman zitzaion. Zorionak jaiaren antolatzaileei, batez ere, Patxi Arraras jaunari.

Anzanarri

## DOMINIQUE EZPONDA TXAPELDUN

Nafarroa'ko Bertsolarien Txapelketa bururatu da eta behin ere ez bezalako ohorearekin. Hemezortzi bertsolari nafartar ari izanak dira, bi alderdiak bat eginik, eta denak elkartasun zoragarrian Nafarroa Amaren altzoan. Gure bertsolaritzaren kondairan aurtengo Xapelgoarekin hamabigarrena dugu. Txapeldunen izen zerrenda ager dezadan:

1936'an: Juan Felix Iriarte	BANKA (Irurita)
1960'an: Andres Narbarte	GOIZUETA
1961'an: Bautista Madariaga	ARANAZ
1962'an: Mikel Arotzamena	LESAKA
1963'an: Mikel Arotzamena	LESAKA
1964'an: Andres Narbarte	GOIZUETA
1966'an: Mikel Arotzamena	LESAKA
1979'an: Jose Mikel Argiñarena	ERRAZKIN
1980'an: Mixel Xalbador	UREPEL
1981'an: Jean Pierre Mendiburu	HELETA
1982'an: Jose Mikel Argiñarena	ERRAZKIN
1983'an: Dominique Ezponda	JATSU

Aurtengo Txapelketa hiru saiotan egina da. Iruña'n eta Elizondo'n finalerdiak, eta Donibane Garazi'n Ekaina'ren 12'an Finala. Zortzi bertsolari bereziak izan ziren Azken Saiorako: Mendiburu, Alkat, Mixel Xalbador, Ezponda, Argiñarena bi anaiak, Perurena eta Madariaga. Donibane'ko Vauban aretoa yendez betea eta entzuleen zaletasuna ongi nabari ere esku zarta beroak eginik bertsolarien ohoretan. Dionisio Mujika'ren aginpean zortzi bertsolariak ari izanak dira eta ongi negurtuak ere mota aunitzetako gaiak erabili zituztela.

Lan guziak egin ondoren, Epai-maikoek holaxe erabaki dute auzia:

Txapeldun: Dominique Ezponda	JATSU
Bigarren: J. Mikel Argiñarena	ERRAZKIN
Drogaren gaiaz: Ernest Alkat	IHOLDY
Uztapide zenari: Fermin Argiñarena	ERRAZKIN

Ezponda Txapelduna, Ohorezko Txapela eta Garai-Ikurra hartu zituen Jean Haritschelhar'en eskutik, Euskaltzaindia'ren oparia. Bertsolari guziak ere eskuratu zuten ohorezko oparia.

Epai-maiko jaunak: Jean Haritschelhar, Mixel Itzaina, Emile Larre, Jose Urroz, Mikel Bujanda eta Mariano Izeta. Nafarroa'ko Bertsolarien Txapelketa zoriontasun osoan bururatu da.

Zorionak, Gora NAFARROA!

Anzanarri

Principe de Viana, 1983, ekaina, 7. orr.

## DONEZTEBE

Arria II, Mindegia ta Arria III aizkolariak, munduko txapelketarako autatuak

Aizegotik, sapa eta sargoï argitu zuen Iraila'ko 26'a. Zerua goibel iduri baitzuen erasan behar zuela; baina, suertez, eurik egin gabe iraun zuen. Doneztebe'ko herrian aizkora yokoa, nafartarrak eta gipuzkoarrak nor-gehiagoka, sei gizon euskaldun gudulari garaipena bereganatu beharrez. Nafarroa'ko taldea osotzen zutenak: MINDEGIA Ezkurra'koa, LATASA Sunbilla'koa eta JAUNARENA Zubieta'koa, 21 urteko zubietar gazte hau Astibia'ren ordeaz ari izana da, leitzarrak min-harturik ezpaitzuen yokatzen ahal. Gipuzkoa'ko taldea: ARRIA II eta ARRIA III anaiak azpeitiarrak eta AYERBE ataundarra.

Talde bakoxtaren lana: Onborrak hiruazka lerrokada zuzen batean ezarriak eta ongi apainduak. Hiru 45 ontzako etzanta. Hiru 45 ontzako zutik. Hiru 54 ontzako etzanta. Hiru 54 ontzako zutik. Hiru 60 ontzako etzanta. hiru 60 ontzako zutik. Eta, azkenik, beste hiru 45 ontzako etzanta eta hiru 45 ontzako zutik. Talde bakoxtak 24 onbor eta aizkolari bakoxtarentzaz 8. Aizkolariak ban-banaka ari izanak dira, onbor bakoxtean txandaturaz eta ez denak batean. Joko hontan hautatu beharrik ziren zortzi aizkolarietatik hiru hoberenak gero Munduko Txapelketan jokatzeko.

Mindegia'k, alde batetik, eta Ayerbe'k, bertzetik, eman zioten guduari hasiera, 45 ontzako lehenbiziko onborrei bortizki lotu zirela. Ezkurratarrak berehala hartu zuen aintzinaldia, onborra 53 segundoz erdibiturik. Ayerbe'k behar izan zituen 17 segundo gehiago lan hori bera egiteko. Gero Arriatarrak, lanean hasi zirelarik, berehala berdindu eta aurrera pasa ere; gisa hontan eta bentaja handituz gipuzkoar taldeak 24 onborrak moztu arte, lan guzia 54 m. ta 23 segundoz eginik. Nafartarrek 61 m. ta 23 segundotan egin zuten: 7 minutuen aldea.

Sei aizkolarien lana negurtu ondoren, hiru hauek izendatu dituzte Euskalherriko taldea osotzeko: ARRIA II, MINDEGIA eta ARRIA III.

Hemen sei aizkolarien markak:

1- ARRIA II	8 onbor	16 m. eta 15 s.
2- MINDEGIA	8 "	16 " eta 32 "
3- ARRIA III	8 "	17 " eta 33 "
4- LATASA	8 "	19 " eta 30 "
5- AYERBE	8 "	20 " eta 35 "
6- JAUNARENA	8 "	25 " eta 21 "

Jaunarena gaztea, zutitako onborretan neketan zabilen, eta etzen harritzekoa, hortan ez bait dago entregu. Halere ongi aritu zen eta segur gara urrengoan gehiago egingo duela; gaztea baita, izango du ikasteko astia. Latasa'k ahal guziak egin zituen; baina, adinak ezpaitu barkatzen, gazteei bidea utzi behar. Mindegia oso ongi ari izana da. Arriatarrak, mutil ederrak eta indartsuak, lan haundia egin zuten; batez ere, zaharrenak honek erakutsi baititu bere ahalmen ikaragarriak. Ayerbe ataundarra ere ongi.

Mundu bat bildu zen Doneztebe'n; eta, gutitan gertatzen dena, yendeari gustatu aizkolarien ekiñaldia. Trabesa guti, Astibi'ren hutsunea nabari baitzen.

Azaro'ko ilabetean jokatu beharra da Donostia'ko Belodromoan Munduko Aizkolarien Txapelketa eta hor ariko dira zein-gehiagoka: Australia, Kanada, Estados Unidos, Gran

Bretaña, Nueva Zelanda eta EUSKAL-HERRIA. Gure aizkolariek lan ederra hartu dute; baina, iduritzen zaigu lan hori ez dela alferrikakoa izango, Suerte on bat opa diegu.

Anzanarri

Principe de Viana, 1976, iraila-urria, 14. orr.



## DONEZTEBE

Joan den Azaroaren 7-an Doneztebeko herrian bazuten besta. Herriko-Etxeak lan aundiak egin ditu herrian, Iturriko urak eta argi-elektrikak berritu ta hobeagotu lan hoietan bost milloi gastaturik. Igande hortan egin zuten hoiien berritzeraren inagurazioa eta herrian besta ederra antolatu zuten. Goizeko amabietan aizkora apostu ederra, ASTIBIA eta ARRIA, LATASA eta MINDEGIA-ren kontra. Aizkolarien eginkizuna:

16 enbor kana-erdiko bikote bakotxarentzat eta txandatur, batean hasi eta lan guzia zeñek lasterrago egin. Apostu atakatua. Hasiera hasieratik Latasak eta Mindegiak aurrera hartu zuten eta beti gisa hortan lan guzia bukatu arte, baina Astibia eta Arria urbil urbildik yarraikitzen ziotela. Trabesak Astibia-Arriaren alde eta gauzak nola gertatu baiziren, norbaitek ipurdiko ederra hartu izanen zuen. Hor ageri da yokoa zein berdin eta atakatua izan zen.

Irabaztaleek 16 onborrak 27 m. eta 35 s-tan moztu zituzten, eta galtzaleek 27 m. ta 38 s-tan.

Oraindikan Latasa zaharra sasoinean dago ta goitiago eta hoberenen artean hoberenetakoa.

Astibia eta Arria ere ongi aritu ziren bai banan naiz onak eta azkarrak izanta ere yoko guzietan maiz gertatzen dena eta ele-xahar batek diona: Beti izaten dira Yaunaren Yaunak.

Yende auntiz Donezteben, eguna ongi joan zen arratsaldean pilota partida eder batekin eta ondotik soñu ta dantzarekin.

Zorionak Doneztebeko Herriko Etxeko Aintzinderieri.

Anzanarri

Principe de Viana, 1971, azaroa-abendua, 7. orr.

## DONEZTEBEKO FESTA

"Otsailla bixilli baxalla" dio erran xaharrak eta bai arrazoñarekin. Ilabete honek urtero egiten du bere txarkeria eta aurten ere ilabetearen lehenean euria bortizki eginik, Doneztebeko festa ondatu zuen. Halare Bertizarana ta Malda-Errakako iri nagusian yende aunitz bildu zen eta naiz ta eurie atertu gabe ari zuen, iragarritako festa ospatu zuten.

Goizean iruñar txistulari Elizalde anaiak soñu alaiak yoaz, Doneztebeko karrketan barna ibili ziren. Gero eskuarazko Meza bertsolariekin, Uztapide, Lasarte ta Mattin bereharta kantatu zutelarik. Gero txistulari talde eder bat eta bi akordioniste aurrean zauketela, Iturengo "Zanpantzar" deitutako gare-yoleak Doneztebeko karrketan ibili ziren beren pulunpa aundiekin bazter guziak iñarosten zutela. Eguerdi aldera "Bar-Zana" pilota plazan aizkora apostua.

Alde batetik Latasa ta Mindegia, eta Arria-Berekoetxearekin bertzetik, bikote bañotxak ogeina kana-erdiko onbor ebaki beharrak zituztela. Lehenik lau aizkolariak onbor bana moztu zuten, lauak batean asita zeñek lasterrako ebaki. Bazen sari bat lenbiziko onbor hori lasterrena mozten zuenentzat eta Latasa izan zen irabaztale kana-erdikoa 1,27 minutuz erdibiturik. Bigarren Mindegia, irugarren Arria eta Laugarren Berekoetxea. Banakako lanak egin zituztenean Txandakako lanari lotu ziren.

Asi aurretik trabesak Latasa ta Mindegiaren alde zauden "eun berrogeiri" uyu egiten zutela. Lanean asi orduko Latasak eta Mindegiak aintzinaldia hartu zuten eta gisa hortan eta beti aintzinean lan guzia akitu arte. Bikote irabaztaleak 20 kanaerdiko egurrak 33 minutu eta 34 segundotan moztu zituzten eta Arria ta Berekoetxeak lan bera 35,9 tan.

Lauetan hoberena Latasa. Honek denak arritu ditu, sasoirik onenean zen bezalexe agertu zitzaigun sunbildarra Donezteben.

Gero arrijasotzaleak ere ziren. Lehenik Usategieta eun kiloko arri zilindroarekin, bi minutoz 25 goratu zuela. Gero Agerrek lau kan toneko 125 kilokoa bi minutoz 14 aldiz bizkarreraño. Azkenik Uztapide, Lasarte ta Mattin ari bearrak ziren baiñan euri erauntsiek ondatu zuen besta eta bertsolariek etzuten kantatzeko lana izan. Bazkalondoan bai, orduan izan omen ziren naiko bertso eta ostatuan bildu zirenak ederki gozatu omen zuten.

Arratsaldeko pilota pardiak eta euri ari zuelakotz, Donezteben egin bearrean Oronozko Maristen frontoian yokatu ziren. Lenbiziko partidari Lajos bakarrik, Bermeoko Txo eta Berasaluzen kontra. Lajosek partida airez aire irabazi zuen 18-7. Bigarren partida atakatuago izandu zen. Retegi bakarrik, Otxoa ta Alegriaren kontra eta Retegi txapeldunak galdu 18-16. Partida gustagarria. Partida ondoren Doneztebeko alkate jaunak bere erriaren izenean eta omenaldia bezala, Retegi Txapeldunari edergailutzat eman zizkion: "Kopa" eder bat, ohorezko Txapela eta bai paxa gorria ere. Arratsaldeko zortzietan boseoa egin bearra zuten Donezteben eta bertze bersolarien artean Urtain ta Karrasko burrokari famatuak ere ari beharrak ziren. Egun guzian bezala euria atertu gabe ari zuen ta boseoko yosteta hori ondatu zitzaikun. Ainbertze yende bildu zen Urtain ikusteko naikeeriarekin baiñan etzen posible izan, euriek ondatu zuen besta. Urtain arratsaldeko bortzetan Bayonan aritu zen eta oraingoan ere bere ogeitaseigarren kontrarioa ankaz-gora bota du, arrigarria da gure boseolari euskaldunaren ukaldiak nolako indarra duen, ukitu orduko denak aidian botatzen baititu. Orain Europako txapeldunarekin ari bearra da eta ain segur orain arte egin duen borrokaldirik aundiena izanen da. José Manueli suerte on bat desiratzen diogu.

Anzanarri

Principe de Viana, 1970, martxoa, 4. orr.

## EIZTARIAK

Lenagoko denboretan, basurde ihiziak Baztan alde hontan fama aundia zaukan. Gero, aunitz ttipitu zen, eta egonak gara urte batzuk basurde eizik gabe, iduri baizuen denak suntsitu zirela.

Baina azkenengo urteotan, badirudi basurdeak emendatu direla, eta eiztariak ere gogor hasi zaizkigula ihizi aundi hortan. Baserriak ustutzen eta emndiak zikintzen; basurde gordelekuak ugaritu dira, eta hor ikusten ditugu eiztariak hoiien gibeletik, zakur onakin, mendi zoko guziak kurritzen dituztela, basurde guziak abarriketu beharrez.

Baztan alde hontan baditugu eiztari-taldeak, eta bat baino gehiago ere basurde eizean dabiltzenak. Hoietako sail bat Baztango dermiotan bakarrik aritzen da bere ibilaldiak mugen ondoko lurraldetan egiten dituztela, hasi Iñarbegiko Argañetatik, Auza, Elorta, Izpegi, Ubedo, Urritzate, Arietako lepoa, Iparla, Aritzakun, Lizartzu, Urdazubi, Zugarramurdi, Otsondo, eta Bertizkoraño. Eskualde hontan aurtengo neguan badituzte zortzi basurde hilak. Aspaldion hil den aundienatako bat aurtengo neguan bota dute. Onesimo Mortalena erratzuar eiztariak Domine Saindu egunez eta Arietako lepoan basurde aketza hau, bi tiroz, ankaz gora bota zuen. Kanalean barnak kenduta 112 kilo pisu eman zuen. Gure adiskide erratzuarrak begizizta ona du eta bai kuraia ta ausardia. Hoiiek guziak aunitz urtez iraun dezatela.

Anzanarri

Principe de Viana, 1974, ekaina, 7. orr.

## ELIZONDO-KO FERIAK

Elizondo-ko urriko feriak ospatu ditugu eta deus makurrik gabe Jainkoari esker. Aurten ilabetearen 27-an ukan ditugu eta ez denbora ederrarekin. urriko ilabetearen 26 lehenbiziko egunak den denak eta utsik egin gabe, eguraldi ederra, eguzki goxo, aizego bero eta euri ttantik ere egin ez duelarik iragan zaizkigu eta horra hor 27 garenean "porrot" euria nasaiki egun guzian argiastetik ortoska eta kazkabar erauntsiekin hasi zitzaigula. Gero egun guzian euri gozoa bai ta kanpuarendako mesedegarria, baina iendearen harat-hunetak egiteez ain ona. Halare feriaren izan horrek badu arrkasta eta iendea etortzen da Elizondo-ra bertze urtetan bezala egun on bat iragaiteko esperanzarekin. Aurten ere hemen ikusi ditugu gure artean mugaz-bertzaldeko anai eskualdunak baztandarrekin batean eta bai Ultzama eta Bidasoko iendea ere. Merkatu plazan bazen azienda eta denek diotenez klase onekoa eta prezioak ere arabera hortan. Lur lanetako eta belar erabkitzeko mota guzietako makinariak ere erakutsi dituzte.

Antxitoneko trinketean baginuen iendeak aunitz maite duen besta eder bat; bertsolariak. Trinketea leporainio betea eta lau bertsolari on eta arrakasta haundikoak: MATTIN, LASARTE, LAZKAO-TXIKI eta AGIRRE. Gure bertsolariek ordu terdiez ehun bertso eginik entzule guziak loriaturik utziak dituzte. Mota guzietako bertsoak kantatu dituzte eta erran beharrik ez dago iendeak arreta haundiarekin etzunak dituztela. Baziren "magnetofonak" ere kantaldi guzia ongi hartu dutenak eta badakigu ere Kaliforniara igorri beharrak dituztela, hango euskaldunak maxina horren bidez egun hortako bertsoak aditu dazaten. Segur naiz zenbait bertsoekin irri ederrak eginen dituztela. Lau koblari hoiek beren balioa ongi aski erakutsi daukute iendea kontent dago.

Dantza-lekuetan gazteria ederki iostatu da eta ostatu guzietan edale aunitz. Gehiagokorik gabe holaxe ioan zaigu ferietako eguna.

Anzanarri

Principe de Viana, 1972, azaroa-abendua, 7. orr.

## **ERRIZ-ERRI**

### **SALDIAS**

#### **LATASAREN DESAFIOA**

Latasa Aizkolaria bieri jokatzeko prest dago zeñek len ebaki lau kanako. Ortarako oiek berexten ditu: Egurrak berak eramatea, bestiek bakoitzak bina egur bat bestien atzetik ebakitzea, txandatu gabe, erakustunik eta laguntzallerik ez izatea. Ogei milla duro berriz "trabesa".

Ikusten da ez dela edozein Latasa, baño nere ustez, bi, beti bi izaten dira. Ikusi egin bear ia norbaitek zer erantzun dien.

#### **LEITZEKO NEKAZARI ESKOLERA**

Ikasketak sei illabete irauen ditu. Egunero lau ordu, eskola ikasten aritzen dira, eta beste lau orduz berriz nekazari eta azinden gauzak, igandea pasatzera larunbata atsaldean etxera etortzen dira mutillak. Orain arte beiñepein oso kontent dabiltz emengo joaten diran gazteak. Olaxe jarraitu dezatela, bada; mesederik aundiena beurentzat baita.

#### **ARROBI BERRIA**

"Danbolin-borda" gaiñean arrobi bat asi dute, arri-losak ateratzeko asmoetan. Xalbatteko, Danbolin-bordako eta erriko lurretan egiteko dira lendabiziko ikusketak. Erriak sei illabeteko baimena eman die proba egiteko.

### **ERASUN**

#### **BERRIZ ERE MUTIL GAZTE BAT ILLA**

Ogeitabat urteko mutill gaztea. Datorren urtean soldadu joan beharra. Bere gaztetasuna lorean daukala il da. Ill onen zazpian, atsaldeko ordu bat erdietatik bi orduk aldera, Leitze aldetik bere autoan zetoze bere eta bere lagun bat or jotzen du Ezkurreko "Ermitt-atzeko" marruan gora dijoan kamioi bat.

Autoa eta kamioia beren barrengo jendeekin or joaten dira aldapa bera. Autoan, bi lagun ziran, eta kamioian ere beste bi. Iruiek alako min aundirik etzuten artu, baño laugarrena oso desegin zan. ogei bat minutoz oraindik bizitu omen zan. Oliadura artzeko aña denbora. Il zana Erasungo "Azpikotzeko" bordako Juantxo zan. Ta karidadez otoitzetxo bat bere alde.

### **BAZTAN**

#### **BESTAK**

Gartzain, Berroeta ta Ituren'go erriek beren bestak egin dituzte eta San Martinekin batean gure errietako besta guziek akitu zaizkigu. Aurtengo San Martinetan beñere ez bezalako eguraldiak izan ditugu, zerue garbi, aize epel ta iguzki dirdirantarekin, ortaz bada aurtengo bestak aintzineko urtekoak baño erreliste geiago izan dute eta yende aunitz ibilia da. Oiturari yarraikiz erri oietan izan dituzte, Meza Nagusia, pilota partidak, naiko soñu ta dantza eta otordu ederrak.

Sanmartinek pasa ta ondoan eta aste berean denborak aldakuntza izigarria egin zaukun, eurie, elurre ta aski eguraldi latza izan dugulerik. Mendietan eta zenbait errietan ere elurre franko poliki egin dauku baño zorionez bereala kendu zuen eta orai ilabetearen

ondarrera denbora politak izan ditugu eta nekazariak arto biltzen ta zenbaitzuk bada ereiten ere ari izanak dire.

### BERTSOLARIAK

Baztandar yendeak bertsolariak maite ditu eta oien arteko kantaldi xarmantak gure Baztan alde untan errekte aundia izaten dute. Aurtengo neguan ere Yainkoa lagun eta gan deneko iru negu oietan bezala eldu den Ilbelta'ren 28'an ain segur, bertsolari besta eder bat egin gogo dugu. Bertzetan bezala Antxitoneko trinketean eta atsaldeko lau terdietan izanen da eta or ariko dire *Uztapide*, *Lasarte*, *Lazkao-Txiki* ta *Lopategi*. Lopategi au bizkaitarra da, bertsolari ona eta oberenen parekoa. Donostian egin duten azkenengo Txapelketan, Euskalerrri guziko bertsolari oberen artean irugarren Saria erdietsi zuen, or ageri baita orren balioa. Gañera bere bertsoetan gipuzkoar solasa erabiltzen du eta emengoek aisa konprendituko diote.

Anzanarri

Principe de Viana, 1968, urtarrila, 5. orr.

## ESTROPADAK

Aurten Kantauriko Itxasoan beinere ez bezalako estropadak yokatuak dituzte. Hor ari izanak dira zeingehiagoka, gipuzkoarrak, bizkaitarrak, santandertarrak eta gailegoak, denek erakutsi bait digute beren ahalmenak eta beren neurri gabeko kemena.

Uztailaren emeretzi garrenean asi ziren treiñeruen leiaketak eta Uztailan eta Abuztuan eginikako estropadetan hor agertzen zaizkigu, ASTILLERO, PEDREÑA, LASARTE, ta FUENTERRABIA garaileen artean, beren ahalmenak ere berdintsu eta inor etzela denen gainetik aunitzik nabarmentzen. Baina gero hemen agertzen zaigu ORIO denak porrokatu beharrez eta hara Abuztuareen ogeitamargarrenean Santoñako uretan nola menperatzen duen ASTILLERO 46 segundoen alde ateratzen diola eta yend guzia aho zabalik uzten duela. ORIOko arraunlariak badute errespetoa.

Gero Donostiako estropadetan, gero berriz Santoñan eta azkenik Getari-Donostia-rainoko estropada aundian ere denen gainetik agertzen zaigu beren gaintasuna ederki erakutsirik bertze gainerako guziak bazterran uzten dituela.

Getari-Donostia-rainoko estropada hau izan da denetanaundiena ta bortitzena, bederatzi "milla" luzetasunarekin.

Estropada hau bera orai dela lauretan ogei urte Donostiarrak eta Ondarrutarrak yokatu zuten buruz-buru aritu zirelarik. Oraingoan lau treiñeru ari izanak dira; ORIO, LASARTE, ZUBEROA eta DONOSTIA. Estropada hontan ez ziren lanak batean atera. Zeingehiagoko hau berdino izan zedin bakarka atera ziren elkarren artean bentaja pixka batekin. Lehenbizikoak donostiarrak, 1,35 minutoen buruan ZUBEROA, gero 31 segundoen buruan LASARTE, eta azkenik ORIO 1,15 minutos geroago. Lau treiñeruak gisa hortan atera ziren Getaritik eta bideerdia egin baino lehen, oriotarrak denen aintzinean zoazin bertze gainerako iru treiñeruak bertze gainerako iru treiñeruak bere gibelean utzirik. Oriotarrak berriz ere ohore guziekin irabaztun bigarrenari lau minutu ta gehiago atera ziolarik.

Agertu behar ditut aurtengo estropada guzien goraberak:

### SANTOÑAN. Uztailak 19

1. Ondarribi 21-32 m.
2. Castro Urdiales 21-48 m.
3. Zumaya 21-54 m.
4. Kaiku 21-55 m.
5. Pedreña 22-04 m.
6. Astillero 22-17 m.

### HENDAYAN. Uztailak 26

1. Zuberoa 23-36 m.
2. Donostia 28-15 m.

### ONDARRABIN. Abuztuak 9

1. Lasarte 23-46 m.
2. Pasai Donibane 23-49 m.
3. Ondarrabi 23-50 m.
4. Zuberoa 24-20 m.
5. Pasai San Pedro 24-26 m.
6. Zumaya 24-33 m.
7. Donostia 24-49 m.

### PORTUGALETEN. Abuztuak 10

1. Pedreña 21-47 m.
2. Ondarrabi 21-49 m.
3. Kaiku 23-09 m.

CORUÑAN. Abuztuak 15

1. Pedreña 22-38 m.
2. Lasarte 22-47 m.
3. Astillero 22-53 m.
4. Zierbana 23-15 m.

ZUMAYAN. Abuztuak 16

1. Zuberoa 14-47 m.
2. Zumaya 15-08 m.

SANTANDER'EN. Abuztuak 25-26

1. Astillero 20-03 m.
2. Lasarte 20-04 m.
3. Pedreña 20-08 m.
4. Ondarrabi 20-46 m.

ZARAUZTEN. Abuztuak 30

1. Zuberoa 22-11 m.
2. Pasai Donibane 22-48 m.

SANTOÑAN. Abuztuak 30

1. Orio 20-36 m.
2. Astillero 21-22 m.

DONOSTIAN. Abuztuak 30

1. Orio 44-28
2. Lasarte 45-40 m.
3. Zuberoa 46-04 m.
4. Pasai San Pedro 46-11 m.
5. Zumaya 46-14 m.
6. Pasai Donibane 46-38 m.
7. Donostia 47-06 m.
8. Ondarrabi (deskalifikatua).

SANTOÑAN. Irailak 15

1. Orio 20-59 m.
2. Lasarte 21-48 m.
3. Ondarrabi 21-57 m.
4. Pedreña 21-59 m.

GETARI-DONOSTIA. Irailak 20

1. Orio 1-16-38
2. Lasarte 1-22-41
3. Donostia 1-26-11
4. Zuberoa 1-26-47



Sari aundiak irabazi zituzten:

Oriotarrak 10.000 pezetea (Ehun mila pezeta) eta Edergailuak.  
Lasartearrak 85.000 pezeta eta Edergailuak.

Estropada hau guzin gainekoa izan da eta yende guziera asko gustatu zaio. Datorren urtean ere berriz egin behar omen dute.

Anzanarri

Principe de Viana, 1970, urria, 3. orr.

## Munduko aizkolarien txapelketa

Urtarrila'ren 18'an Donostia'ko "Anoeta Velodromo" deitzen den kirol etxean Aizkolarien Txapelketa haundi bat ospatu dute. AUSTRALIARRAK eta EUSKALDUNAK zeingehiagoka. Australiarrak ongi prestaturik etorriak ziren eta erakutsi dute beren ahalmen ikaragarria. Euskalduna ez dute guk nai adine egin; etzauden behar bezala prestaturik eta burua makurtu behar australiarren aurrean. Australiarrak Aizkoran Txapeldun.

Jackson, Schafferius eta Whiteside australiar aizkolariek, Arria, Astibia eta Mindegia euskaldun aizkolaria garaitu dituzte.

Lan hau burutu zuten:

### LANA

Zutik	18 enbor; 45 ontzakoak, 12; 54 ontzakoak, 6
Etzanda	9 enbor; 60 ontzakoak, 6; 54 ontzakoak, 3

### DENBORAK

Denak:

Australiarrak, 59 minutu eta 31 segundu.

Euskaldunak, ordu bat eta 55 segundu.

Bakoitzak:

1- Mindegia	19', 19"
2- Jackson	19', 30"
3- Schafferius	19', 52"
4- Whiteside	20', 4"
5- Arria	20', 10"
6- Astibia	21', 26"

Ikusten dugunez Mindegia ezkurratarra denetan hoberena; bere bi lagunek beste orrenbeste egin ba'zuten, garaipena euskaldunena izango zen; baina beti badira jaunaren jaunak, eta australiarrak merezimendu guziarekin irabazi zuten. Dena erratekoz, lana kanpotarrendako egosita ote? Gureak ez daude ohituak zutik dauden emborrek mozten; ta Txapelketa hontako enbor gehienak, zutikan zeuden...

Anzanarri

## Liburu berriak

### EUSKAL DANTZAK

Mundu guziak badaki badaki Euskalerriko folklorea aberatsa dela, bai egia, zenbat eta zenbat dantza mota ote dira gure zazpi probintzietan... Eskualde bakotzak baditu beren dantza berexiak, beren nortasuna adierazten dutenak. Hemen, Naparroan bakarrik zenbat badiren. Baztan'go "mutil-dantzak", Malderreka'ko eta Lantz'ko zortzikoak, Lesaka'ko dantzak, Leitza'ko "Ingurutxoa", Lizarra'ko "Larrain-dantza", Luzaide'ko "Bolantak", Otxagabi'ko dantzak, Ituren eta Zubieta'ko "are-yoileak" eta aunitz gehiago ere. Bertze eskualdetako dantzak ere ospe aundia dute, Zubero'ko dantza famatuak eta Gipuzkoa ta Bizkai'ko dantza paregabeak.

Orai berriki Bizkaia'n ateraita dute liburu berri bat, egilea Jose Luis Etxebarria Goiri dugu eta liburu hortan Bizkai'ko dantzak aipatzen ditu. Bizkai'ko dantzak nola dantzatu behar diran erraten du liburu honek eta hori garbi txukun eta zintzo. liburu hortan agertzen du Bizkai'ko dantzen kondaira, dantza bakotxaren erran-nahia, denak garbi eta xehetasun guzietan. Liburu honek arrakasta aundia izan omen du eta orai arte ez omen du iñork ere horrelako lan bikanik egin. Liburu horrek dio dantza guziak beren bertsoak zituztela, batez ere dantzari berriei pausoak eta puntuak hobeki hartzen laguntzeko. hemen erakutsiko ditut liburuak dakartzkien zenbait bertso.

#### BANAKO

Lastoz egoan aite,  
Buruko orratzaz trangie... (Birritan)  
A ere egiteko eztao mutillok,  
Zetako ete jok andrie...? (Birritan)

#### BIÑAKO

Dantzan daigun sonbraillu,  
Mariye jaku ezkondu... (Birritan)  
Gure Mariyen ezteguetan  
Arto berua jango  
du... (Birritan)

#### LAUNAKO

Aita Joaniko, seme Periko,  
Zer dekok apariteko...? (Birritan)  
Oriyo-eza gozo-gozua,  
Arto beruaz jateko... (Birritan)

#### AITA SAN MIGEL

Aita San Migel Iyurretako,  
Zeru altuko lorea... (Birritan)  
Agure zarrak dantzan ikusi  
ta ak egiten jok barrea...! (Birritan)

Norbaitek nai balu liburu hori erosi, idatzi dezala zuzenbide hontara:

"La Editorial Vizcaina". Particular de Costa, 10, 3º. Bilbao.

Anzanarri

Principe de Viana, 1970, apirila, 3. orr.

## EUSKAL KIROLAK

### Arrijasotzale - Txapelketa

Joan den Abuztuaren 15-ean Donostia-ko "Anoeta" frontoian Arrijasotzale Txapelketa aundi bat ospatu dute, berehartan sei indartsu ari izanak direla.

Arrijasotzaleek iru arri zituzten erabili beharrak: 175 kiloko arri lauko-luzea. 150 kiloko arri zilindroa. 125 kiloko arri lauko-berdina. Arri bakoxtarekin 5 minutoko saioa eta zenek jasoaldi gehiago egin. Txapelketa gisa hontan gertatu zen:

TXAPELDUN: **MENDIZABAL** (Gipuzk.); 175 kilokoa, 10 aldiz; 150-ekoa, 16 aldiz; 125-ekoa, 21 aldiz. Dena: 15 minutoz, 6.775 kilo.

2-gn.: **Yurrebaso** (Bizk.); 175 kilokoa, 7 aldiz; 150-ekoa, 14 aldiz; 125-ekoa, 16 aldiz. Dena: 15 minutoz, 5.450 kilo.

3-gn.: **Aretxa** (Bizk.); 175 kilokoa, 6 aldiz; 150-ekoa, 12 aldiz; 125-ekoa, 16 aldiz. Dena: 15 minutoz, 4.850 kilo.

4-gn.: **Perurena** (Nafar.); 175 kilokoa, 6 aldiz; 150-ekoa, 11 aldiz; 125-ekoa, 15 aldiz. Dena: 15 minutoz, 4.575 kilo.

5-gn.: **Gorostidi** (gipuzk.); 175 kilokoa, 4 aldiz; 150-ekoa, 10 aldiz; 125-ekoa, 10 aldiz. Dena: 15 minutoz, 3.450 kilo.

6-gn.: "**Mallabi'ko Txikia**" (Bizk.); 175 kilokoa, 4 aldiz; 150-ekoa, 8 aldiz; 125-ekoa, 12 aldiz. Dena: 15 minutoz, 3.400 kilo.

Mendizabal irabaztaleak aisetasun aundiarekin garaitu ditu denak. PERURENA leitzarra laugarren gelditu da eta badu merezimendu. 18 urteko mutil gazte batentzat lan ikaragarria da. Zorionak eta Aurrera!

### Aizkolariak

Abuztuaren 18-an berriz ere "Anoeta"ko frontoian eta oraingoan aizkolariak. Nor-gehiagoka hau bi-bitara egina dute eta lau bikote ari izanak dira.

Txanda libreko lana, nai zutelarik aldizkatuz eta bikote bakoxtaren lana hauxe: Bina 72 ontzako. Launa 60 ontzako. Launa 54 ontzako. Launa 45 ontzako.

Aizkoari Txapelketa hau ikusgarria izan momen da. Jokoa hasi aurretik trabesak Mindegia anaien alde. Gero gauzak itzulikatu ziren eta gutxienak aipatzen zirenak Txapeldun gertatu: Usategieta ta Latasa.

Latasa zaharra oraindika sasoñean dago eta bi-bitara eta txanda librean jokatzeko hoberenetakoa oraindik ere. Usategietak ongi lagundu zion.

Jakin dugunez txapelketa hontan ebaki dituzten egurrak Alemania-tik ekarriak omen ziran.

Hemen Txapelketaren gora-berak:

Txapeldun: **Latasa** ta **Usategieta**; 37', 35".  
Bigarren: **Arria III** ta Agite; 38', 16".  
Irugarren: **Arria II** ta **Saralegi**; 40', 3".  
Laugarren: **Mindegia anaiak**; 40', 48".

Zorionak irabaztaleei baita ere beste gainerakoei!

Anzanarri

Principe de Viana, 1974, iraila, 6. orr.

## EUSKAL-FUBOLARIAK

Aurten Euskalerriko futbol-zaleak uros dira eta denak kontent bozkarioa nabari dutela.

Iruñe'ko "Osasuna" ohore guzietan Bigarren mailako gradora igo da, Katalunya'ko "San Andres" Azken-Partida irabazirik. Zorionak "Osasuna"ko futbolariari. Orain nafartarrak kategori aundiagokora iganik Nafarroa'ren izena goratu eta leku onean utziko dute.

Bilbao'ko "Atletik" ere aurtengo Espainia'ko Txapelketa irabazi du Eltxe'ko ekipa garaiturik. Bizkaitarren garaipenak bozkarioz bete gaitu.

Donostia'ko "Real Sociedad"ek ere aurten garaitaldi ederrak egin ditu Espainia'ko Txapelketan semifinaletarako iritxi zelarik. Ar ditzatela donostiar futbolari hoiek gure goresmenik bizienak.

Euskalerriko kiroltzaleak pozik gaude, aurten gure lurraldeko futbolariak gogor ari izanak dira eta aintzinat ere badugu uste bide beretik yarraikiko direla. Zorionak.

Anzanarri

Principe de Viana, 1969, uztaila-abuztua, 4. orr.

## "GOIZEAN GOIZ" Musika liburua

Aita Jorge Erreizukoak berriz ere beste Aita Donostiaren musika-liburu berri bat atera du. "GOIZEAN GOIZ" du izena eta Aita Donostiaren Musika-lanaren zazpi zatia da. Oraingoz zazpi liburu Lekarotzko Eskolategiak argitaratu ditu Aita Donostiaren soiñu-lanegiñetatik sail bat oraindik ekartzen dutenak. Beste ainbeste liburu argitaratzekotan gelditzen dira bere garaian Aita Jorge Erreizuko yakintsuak moldatu eta argitaratuko dituenak.

Azkeneko liburu au "Goizean goiz" beste sei lenagoko liburuak bezelaxe ongi apaindua da. Badauzka 146 orrialdeak. Berrogeitamasei euskal kantuak eta amaika katalandarra dira bere barruan.

Ona emen Euskal kantuen izenak: *Ene maite. Arrosa eder. Amets egin dut. Kriatura bat xarmegarria. Aldapeko. Nere txiki. Goizean goiz jeikirik. Urrundik ikusten dut. Mundian den ederrena. Asuri beltza. Neure maitena aranbeltz. Abenduaren lendabiziko. Agur, oi izar maitea. Din, dan, boieran. Txoriñoak kaiolan. Lua, lua. Txalopin txalo. Oi Pello, Pello. Ni eznaiz zomorrua. Arranoak bortietan. Arbolaren adarraren. Nundik ator, Astoa?. Oroitzen naiz, oroitzen. Bollon bat eta bollon bi. Baratzeko pikuak. Erregek gizon ederrik. Zazpi eihera baditut. Santa Barbara. Atte ttunttun. Horra gitzagizie. Nolan Aintziñako oitura (auek pianoz lagundutzeko ematekoak).*

*Agur jaunak. Ene maitea. Aitak et'amak. Ene ama, otoi, errazu. Alduden gizonik ez. Ama. Ai Anjela. Argizagi ederra. Ezda filosoforik. Euskaldun seme dena. Seaska-kantua. Lehengo denboretan. Irutxiko.*

Gure eskerrik eta goresmenik bizienak Lekarotzeko Aita Kaputxinoeri eta berariez Aita Jorge Erreizukoeri.

Anzanarri

Principe de Viana, 1968, urria, 6. orr.



## HUARTE

### Euskal jaia

Irailaren 20'ean, Iruñe'ko Huarte'n euskal jai bat ospatu dute bereharian dantzariak eta kantariak ari izanak direlarik.

"Toki Alai" frontoia jendez bete zen, han giro ona nabari zen, hor ageri baita ikuskizun hauek gure jendearen gogokoak direla.

Hiru dantzari-talde genituen: Oberena, Baztan eta Iruñe'ko Herriko Etxekoak; kantariak, berriz, Iruñe'ko Orfeoikoak.

Baztan'go dantzariak, beren ekinaldia gisa hontan agertu zuten: "Aunitz urtez", "Tellarin", "Sagar-Dantza", "Esku-Dantza", "Irri-Dantza" eta "Zortikoa". Oberena'k, berriz, "Ikurriñari Agurra", "Kontrapas" eta "Lizarra'ko Larrain-Dantza". Iruñe'ko Herriko Etxekoak, ordean, Luzaide'ko Dantzak: "Zozo-Iantza", "Andre-Iantza", "Sorgin-Iantza", "Eskualdun-Iantza", "Lapurta-motza" eta "Bolant-Iantza".

Iruñeko Orfeoikoen kantaldia, "Agur, Jaunak", "Jeiki, jeiki", "Eskualdunak", "Baserritarra", "Basoillarrak", "Deun Agate", "Bigarren Kalez-kale", "Iru txito" ta "Navarra siempre p' alante". Abestaldeak, Huarte Azparren jauna gidari zutela, kantaldi ederra egin zigen.

Entzule eta behatzaleek txalo beroekin saritu zuten dantzari eta abeslarien jardunaldia.

Holako jaialdiak atsegingarriak dira eta denbora berean onuragarriak, hemen gure herriaren nortasuna agertzen delakotz eta hau izaten baita ere lo dagon izpirituaren pizgarri. Besterik egiten ez-pa-da ere, hau bederen behar genduke lo daudenak iratzartzeko.

Festa ederra ospatu zuten eta jendeak ere barnean zaukan bozkarioa agertu zuen. Zorionak, Huarte'ko Herriko Etxeari.

Anzanarri

Principe de Viana, 1975, urria, 7. orr.

## IRURITA

Irurite'ko "San Miguel" deitutako Pilota Batasunak lan aundia egiten du gure euskal yostetaren alde eta batez ere erreboteko yokoaren alde. Igaz bezala aurten ere erreboteko txapelketa bat antolatu dute berehartan 12 pilotari-talde ari izanak direla. Xapelgo hau bigarren mallako pilotarientzat egina izan da eta ari izan diren amabi ekipa hoiak lau zatitan bereziak zauden, talde bakotxa iru ekipa zituela.

Hemen pilotari-taldeak edo ekipak.

Irurita I - Luzean - Hendaya  
Hasparren - Baigorri - Donaphaleu.  
Zubieta - Ainhoa - Sara.  
Hendaya Stade - Billabona - Irurita II.

Erran dezakegu eta egia delakotz, erreboteko Xapelgo hau Euskalerrikoa bakarrik dela eta ez "Internazionala".

Partidak ekipa bakotxaren herrietan yokatu dira, hortaz bada ekipa bakotxak bidena partida. Gero lau irabaztaleak elkarren artean eginen zituzten "semifinalak" eta azkenik "finala". Lau talde hoiak irabaztaleak izan ziren:

Irurita I - Hasparren - Zubieta - Hendaya.

"Semifinaletan" aritu ziren, partida batean Irurite ta Hendaya, eta Iruritarrak irabazi 13-7 bertze partidan Hasparren eta Zubieta aritu ziren eta Hasparrendarrak yustu yustuen irabazi yoko batez bakarrik. 13-12.

Azken-Partida edo "Finala" Hasparren eta Irurite'ko ekipak yokatu zuten. San Bartolme egunean, Irurite'ko erreboteko plazan bi ekipa hoiak borroka bizian ari izanak dire bakotxak bere alde eginalak eginik Xapelgoa erdietsi beharrez. Gudukaldi xarmanta egin ta ondoan, Hasparrendarrek irabazi zuten 13-7. Iruritarrek ere partida ederra eginik yoko gustagarria egin zuten. Aipatu ditzagun pilotarien izenak:

HASPARREN: Lekuberri - Bidegorri - Apeztegi - Etxebertz - Kamino. 13 yoko.

IRURITA: Olondriz - Almenar - Ripa - Iturralde - Urtasun. 7 yoko.

Zorionak Eskual-Herriko Txapelduneri eta bi bertze gañerako pilotarieri ere eta bai zorionak ere Txapelketaren antolatzaleeri eta gure goresmen bizienak Iruritar pilotari gazteeri. Biba zuek.

Esku-huskako yokoan ere gure eskualdean Txapelketa bat egina dute, eta hortan baztandarrak bakarrik ari izanak dire. Oronoz eta Erratzu'n yokatu dituzte partidak eta azkenengo "Finala" Oronoz'en. Azken-partida hontan aritu ziren, Etxandi ta Agerre erratzuarrak, Elizondo sunbildarra ta Fagoaga erratzuarraren kontra. Partida arras atakatua eta aski polita. Etxandi ta Agerre'k irabazi zuten 22-19. Zorionak Txapelduneri eta bertze gañerakoei.

Anzanarri

Principe de Viana, 1969, iraila, 5. orr.

## ITUREN: BESTAK

Ituren-go Aurtiz-ko auzokoek badakite beren ohiturak ongi zaintzen. Igaz bezala aurten ere Sanmartinak ospatu dituzte besta ederrak eginik.

San Martin bezperein jaiari hasiera emateko, txistulariek, kordionistek eta "zanpantzarrak" beren soñu alaiekin auzoa ederki errotu zuten. Eguerdian Aurtiz-ko plazan ahari yokoa eta ondotik dantzaldia. Arratsaldean pilota partida Bidasoko pilotari hoberenen artean. Gero naiko soñu eta dantza eta arratsean ere berdin. San Martin egunean goizeko ameketan Meza Saindua. Meza ondorean Nafarroako bi artzai txakur hoberenak iendeen aintzinean beren doai miresgariak erkutsi zituzten artaldeakin lan zoragarria eginik. Gero bertsolariak eta ondotik dantza.

Arratsaldean berriz ere bertsolaria eta baita bezperein bezala naiko dantza gazteria ederki iostatu zelarik. Bestak lau egun iraun dituzte. Azkenengo egunean auzoko guziak bildurik, zikiro-yatea, dantza eta iostetakin bestari akaballa eman zioten. Sanmartinak elkarte atsegingarrian igaroak dira lau egunetan aurtiztarrek umore sanoa agertu dutelarik. Bestak ongi joan dira, Aurtzikoek badakite gauzak ongi egiten. Yarraiko hortan.

Anzanarri

Principe de Viana, 1974, urtarrila, 7. orr.

## KIROLAK

### PILOTARIAK

Irailaren 8'an Iruña'n Nafarroa'ko herrien IV-garren Pilota Txapelketako azken partidak jokatu zituzten. Azkenean, Altsasua eta Leitza, iru partidetan: Aurrak, Gaztetxoak, gudukaldi gorrian garaipena erdietsi nahirik.

"Labrit" leporaño betea batez ere Altsasua eta Leitza'ko jendez, txistulari ta guzi, etorri zirelarik. Igaz bezala aurten ere Leitzarrek irabazi dute txapelketa, iru partidetarik bi bereganatuz.

AURRETAN:	Olaechea-Zabaleta (Leitza), 18. Mendiluze-Alzelai (Altsasua), 1.
GAZTETXOAK:	Bengoetxea IV-Intxaurren (Leitza), 18. Irigoiñ anaiak (Altsasua), 10.
ADINEKOAK:	Zabala-Bengoetxea II (Altsasua), 22. Bengoetxea III-Aizagirre (Leitza), 17

Zorionak txapelduneri eta baita ere galtzaleeri, denek erakutsi bait-dute beren balioa egin ahal guziak eginik.

### ARTZAIN ZAKURRAK

Joan den Irail'aren 23'an, Oñati'n ospatu da XIV garren Artzain Zakurren Txapelketa Nagusia, Giro txarra; halare, hiru mila ikusliar bildu ziren. Zortzi zakur beren artzainekin ari izanak dira. Hemen, nola joan den:

Irabaztale: "MONTES", Jesús Azpiazu (Zuazua, Araba). - 2. "LAGUN", Jesús Landaburu (El Regato, Bizkaia). - 3. "NERE", Pedro Ansa (Arano, Nafarroa). - 4. "LIKA", Joseph Mihura (Azkain, Laburdi). - 5. "RIKI", Serafín Etxanobe (Manaria, Bizkaia). - 6. "MORU", José Mills (Katalunian). - 7. "TXOBI", Paul Azarete (Azarete, Zuberoa). - 8. "XOL", Aingeru Aranzadi (Eskioga, Gipuzkoa).

Irabaztaleak eta beste gainerakoek Sari ta Edergailu onak eskuratu zituzten. Zorionak!

### AIZKOLARIAK

Irailaren 9'an Donostia'ko Turismo Etxeak antolatutako, Euskalerriko 2-garren mallako aizkolarien txapelketa jokatu zuten Trinitate'ko Plazan. Nor gehiagoka hontan, lau aizkoari:

ARRIYA III, azpeitirarra, 25 urte; URRETA azpeitirarra, 28 urte; ZABALETA, leitzarra, 35 urte; GARMENDIA, albizturkoa, 20 urte.

Bakotxaren eginkizuna: 4 onbor 60 ontzako; 4,5 ontzako; 4 kana-erdiko. Denak batean asi ta lan guzia zeñek lasterrago egin.

Emen aizkolarien marka:

Txapeldun: ARRIYA III, 37 m. ta 32 s/ tan.

Bigarrena: GARMENDIA, 46 m. ta 5 s/ tan.  
Iruigarrena: URRETA , 48 m. ta 47 s/ tan.  
Laugarrena: ZABALETA, 50 m. ta 50 s/ tan.

Zorionak txapeldunari; laster ikusiko al dugu hoberenen artean?

## ESTROPADAK

Kantauri'ko estropadarik aipagarrienak, Donostia'koak. 75 urtez utsik egin gabe daramazkite arraunlari hoberenak.

Aurten, zortzi trañneru ari izanak dira. Beti bezala, estropadak bi txandetan jokatu dira. Irail'aren 9'an, saioa egin ondoren, auzia honela geratu zen:

1. LASARTE (20-50-6). - 2. ORIO (21-07-0). - 3. ASTILLERO (21-08-0). - 4. ONDARRABIA (21-22-1). - 5. GETARIA (21-35-8). - 6. BERAUN (21-52.1). - 7. HERNANI (21-58-6). - 8. KAIKU (22-10-1).

Urengo igandean, eguraldi ederrenarekin, ikaragarrizko jendeketa; trabesak ere baziren, aunitzek Orio'ren alde, naiz ta Lasarte'k bentaja aundia zauken. Bigarren igandeko markak:

1. LASARTE (20-50-9). - 2. ORIO (20-58-4). - 3. ONDARRABIA (21-05-3). - 4. ASTILLERO (21-08-3). - 5. GETARIA (21-23-3). - 6. HERNANI (21-32-2). - 7. BERAUN (21-38-1). - 8. KAIKU (22-21-2).

Bi igandetako saioak bateratuz, hona hemen estropadetako auzia nola gertatu den:

IRABAZTALE: LASARTE, ohorezko ikurriña, garai-edergailuak eta 200.000 pzta. - 2. ORIO, 150.000 pzta. - 3. ASTILLERO, 120.000 pzta. - 4. ONDARRABIA, 85.000 pzta. - 5. GETAIRA, 60.000 pzta. - 7. HERNANI, 45.000 pzta. - 8. KAIKU, 35.000 pzta.

Anzanarri

Principe de Viana, 1973, iraila, 7. orr.

## KIROLAK

### Soka-tira

Zarautzko herri famatuan aurten ere *Euskal-Herriko SOKatirarien Txapelketa* egin dute. Nor-gehiagoka hau MARKINA-ko ekipak irabazi du. Bigarrenak Arabako Arziniegakoak eta irugarrenak Zarautzko sokatirariak. Gizon bizkorrak denak ere, hor bada indarra eta bai pisu aundia ere. Markinakoak banaz bertze 120 kilo. Alafede! Hoiiek ez daude ogi ta tipul utsean.

### Estropadak

Donostiako estropada famatuak aurten ere izan dute arrakasta. Zortzi traineru ari izanak dira eta oitura den bezala bi igandez eginak dituzte, beti bezala lenbiziko igandeko lau hoberenak bigarren igandean Azken-sayoa jokatzten dute. Azkenengo estropada hortan ari izanak dira, "Orio", "Lasarte", "Donostia" eta "Pasai San Pedro". Beste lau traineruak ere egin zuten elkarren arteko leyaketa, "Arraun Lagunak", "Ondarrabi", "Hernani" eta "Zuberoa". Lendabiziko igandean oriotarrak irabaztale eta urrengo igandean ere ohore guziekin berriz oriotarrak garaille eta bentaja aundiarekin gañera. Hemen bi igandetako estropaden denborak:

Irabaztalea: ORIO. 45 m. ta 48 s. IKURRIÑA, TROFEOAK eta 194.500 pezta.

Bigarrena: LASARTE. 46,25 m. TROFEOAK eta 139.300 pezta.

Irugarrena: DONOSTIA. 47,26 m. TORFEOA eta 84.500 pezta.

Bostgarrena: ARRAUN LAGUNAK. 48,15 m. TROFEOA eta 64.500 pezta.

Seigarrena: ONDARRABI. 49 m. TROFEOA eta 20.000 pezta.

Zazpigarrena: HERNANI. 50,43 m. TROFEOA eta 15.000 pezta.

Zortzigarrena: ZUBEROA. 53,11 m. TROFEOA eta 12.500 pezta.

Zortzi egunen buruan Bilbon ere estropadak yokatu zituzten, larunbatean eta igandean. Estropada hauetan Españako Txapelketa yokatu zuten eta hontan ere oriotarrak irabaztale, Astillero, Lasarte ta Kaikuren aurrean. Zorionak oriotar arraunlariari aurten ere erakutsi bait-dute beren gaintasuna.

Anzanarri

Principe de Viana, 1971, urria, 6. orr.

## KISU LABEAK (II)

Aunitz izerditu ta nekatzen den gizonak behar du ongi mantendu, baina ortan eztago bildurrik eta langileek auldu ez daitzin yateko ta edateko ausarki izaten da, argiastetik otamenarekin asita gero gosaria, ameketakoa, bazkaria, merendue, afarie eta ortaz landara an beti dadituzte ogia, gasna, zardin ta xatoa ardoarekin, au maiz kurri dabilena gizonen eztarriek idortu ez ditezen. Ezbeharren bat gertatzen ezpada eta arriak ongi guritzen direnean, labea itzaltzera uzten dute. Beitiko agoa autsi ta arkutik barnera legarra botatzen dute su ondarrak ongi itzali artio. Iru egunez uzten dute arriak oztu daitzin eta azkenean etxeko nagusiak agintzen duenean, kisu labearen deskargan asten dire. Beiak uzterrian orgarekin ta beorra donberoarekin arat unetak aginik kisu arria puskaturik landa ta alorretan edatzen dituzte. Lana bururatu ta ondoan atsedean pixka bat arturik gizonak beren etxetara yoanik beren burue ongi garbitu ta frexkatu egiten dute eta ilunabarreko itzultzen dire baina oraingoan ez lanera besta egitera baizik.

Etxekoandreak afari ederra antolatu du, ortarako artaldeko lau bildots oberenak il dituzte, kislabe deskargako egunean bazkaltzeko ta egun guzian zikiroa izaten dute baina afaltzeko bildots guri guriak. Zortzi egun oietan lanean arizan diren guziak an elkaturik, 25 edo 30 gizon, barrideak, yendakiek, adiskideak denak mai inguruan yarririk, sasoiko gizon gazteak, lagun onak eta denak yan gogo ederrarekin.

Etxeko yaunak maia bedeinkatu ondoren afariari asmenta ematen zaio, or izanen dituzte: Ollu salda, Txitxirioa (garbanzoa), Buru arraiak, Xuri ta Beltx, Umerrie (bildotsa), Ollaskoa, eta oiek guziek ardo gorri naparrarekin ongi bustita eta azkenean GAZTANBERA, au barneko ziloak ongi betetzeko, gero kafeak ta likurrak. Sabelak ongi ornituak bai alafede! Lagunartean bada umorea denak solasturi, kantari ta bertsolari, zer irri ajatak eta zer sasoña, an agertzen dire Elizanburu'ren kantak, Txirrita'ren bertsoak eta ainbertze kantu zahar, zenbaitzuk ere bertso berrietan ari dire olakoetan denak bertsolariak baitira. Goizeko bi orduetan SORGIN-AFARIA, ortan ere baratxuri salda piper miñarekin eta bildoskie, berriz ere yan eta edan gogo onarekin egiten dutela, ondotik berriz ere kafe ta likurrak olaxe kantuz eta sasoin ederrean gau guzian, pinpirrinduak eta aski panparrotuak geienak aurkitzen direla.

Ollarraren kukurruku ozenak adierazten du erretiratzeko ordua dela eta etxeko yaunak azken agurra eta eskerrak denei eman ta ondoan gizonak etxe abien dire. Badoazi bidean batzuek kantuz, bertzeak elean, geienak pirriaufaka.

Etxeko yaun-andereak atsegiñez beterik daude bozkarioa nabari dutela, neke ta kezka guziak suntsiturik lanak ongi bururatu baitira, orai bai, orai trankil eginen dute lo. Landa guziak kisuz ongi ornituak, orai Jainkoaren laguntzarekin zitu ederra emanen dute.

Gauaren ixiltasunean eta ea argiastean urrunera kantu bat aditzen da:

Goazen etxera goazen etxera  
Erretiratu ordu da  
Gizon deboxak argi astera  
Erretiratzen baitira.

Gero irrintzi indartsuak bazter guziak dituzte iñarrosten eta bai gisa berean ere mendiko oiartzunak bereala dute yardeste. Gero, bakea...

Principe de Viana, 1966, azaroa, 6. orr.



Pilotariak

## LAJOS TXAPELDUN

Mayatzaren 9'an Donostiako Anoetako frontoian Españako esku-huskako pilota Txapelketaren Azken-Partida yokatu zuten. Retegi Txapelduna eta Lajos Txapeldun-Gaia buruz-buru ari izanak dira azkenengo partida hontan. Anoeta betea leporaño, partida honek arrakasta aundia izan du. Trabesak auzia hasi aurretik erasundarraren alde 200-120 ri eta gero lenbiziko sakea berari suertatu zitzaizolarik orduan eta gehiago bere alde 200-100 ri.

Lenbiziko tantoa Lajosentzat eta berehala ados 1-1. Retegik iru puntu gehiago bere alde 4-1 eta trabesak 200-70 ri. Gero laugarren eta seigarrenean berdin 4-4, 6-6. Trabesak oraindik erasundarraren alde 200-90 ri. Lajos azkar dago eta aurrea harturik sei puntu bereganatzen ditu 12-6 eta trabesak ere bere alde itzulikatzen dira 200-150 ri. gero Retegik pixka bat ernaturik puntu bakar batzuk bereganatuko ditu baina Lajosek aintzinaldia utzi gabe. Retegi "nerbiostue" dago eta zenbait pilota funtsik gabe galtzen ditu eta alare Lajosi urbitzen zaio 17-18. Orduan partida dago hoberen hoberenean trabesak ere Retegi-ren alde itzultzen direla 200-100 ri. Badirudi orai Retegiren alde dela baina honek berriz tantoa galdurik oraingoan ler egiten du. Lajosek falta dituen lau tantoak eginen ditu eta partida irabazi 22-17. *Lajos Txapeldun. Zorionak.*

Ez da partida ona izan, bi pilotariek ere ez dute askorik egin, biek ere pilota aisa galtzen zutela. Telebistan bitartez hori ederki ikusi ginuen.

Partidak 60 minutu iraun du, baina yokoan 12 minutu baizik ez. Hor ageri da bi pilotariek zenbat egonaldi egin zituzten. Bien artean 192 aldiz oneratu zuten pilota. Tanto luzeena amairugarrena 18 pilota oneratuak. Saketik Retegik 5 tanto eta falta bat. Lajosek 4 tanto saketik faltik gabe. Erreboteraño Lajosek bein. Lajos airetik zazpi aldiz sartu zen bortz uts eginik. Retegi airetik 26 aldiz, bortz uts eginik eta iru tanto irabazirik.

Federazioko Aintzindariaren eskutik Lajos Txapeldun berriak, ohorezko Txapela eta Kopa hartu zituen. Retegik ere Kopa ederra eskuratu zuen. Zorionak bi pilotariei.

Zortzi egunen buruan eta berriz Anoetako plazan negurtu dituzte beren ahalmenak Lajosek eta Retegik, baina oraingoan Txapela jokoan ezarri gabe. Zortzi egunez lenago partida txarra egin balin bazuten oraingo hontan ez da ala gertatu. Partida aski atakatua eta ona bi pilotariak ederki ari izanak direla. Partida hau etzuten Telebistatik agertu eta gehienetan hori gertatzen da, partida txarra agertzen da eta ona ez. Oraingoan ere Anoeta bete zen eta han bildu zirenak denak kontent ikusi zuten partidarekin.

Oraingo hontan Retegik irabazi du 22-18 eta partidak izan ditu gora-berak naiz ta erasundarra beti aintzinean ibilia den. Bi pilotariek duten guzia erakutsi zuten. Partida hontan 243 pilota oneratu zuten (Finalean 192 bakarrik) eta bi pilotariek ere aisa trankilago eta hobekiago finalean baño. hor indarrak berdintsu daude eta ez litzake gaizki irugarren partida bat. Pilotazaleak poztuko giñake.

Anzanarri

Principe de Viana, 1971, ekaina, 4. orr.

## LESAKA

Lesakar batek garaitu du 7.023 metroko "Akonkagua" mendia

Xabier Erro Jauregi da euskaldun honen izena. Lesaka'n sorturik, Mexiko'n bizi da. Eta handik eldu zitzaigun euskaldun mendigoizalearen garaipena. Etorritako berriak horrela dio:

Otsailaren 6'an, gure mendizalea Txile'ko "Plaza Mulas" herritik abiatu zen txiletar giari bat lagun zuelarik. Bortz egunez elurraren artean, 6.200 metroak erdietsi arte; baina, lesakarraren laguna eritu zen otzak erdi ormatuak. Biek berriz gibelat egin zuten, neke aundiarekin "Plaza Mulas" herrira etorri ere.

Lesakar mendizaleak etzuen etsitu; eta, indartsu aurkitzen baitzuen bere burua, berriz ere bertze hiru mendizalekin elkaturik abiatu zen azpitik goiti "Akonkagua" menperatu beharrez.

Otsailaren 15'an atera zuten herritik 17'an, 6.400 metroak erdietsi zituzten. Gau hartan ez omen zuten lorik egin, eguraldi txarraren bortxaz; biharamunean, hiru lagunetik bi itzuli ziren herrira, goiti ezin yarraikiz. Otsailaren 18'an, berriz mendi gaina aldera; oraingoan, Erro lesakarra lagun bakarrakin. Bortizki ibiliaz eta aski larri biak ere 6.600 metrotaraino igan ziren. Leku hontan, Erro'ren lagunak, arras onaturik eta otzak ezin egonez, erabaki zuten herri aldera itzultzea, lesakarra bakarrik utzirik.

Gure mendizale zinzoa, batere izitu gabe eta bakarrik, kurai haundiarekin, etsitu gabe, beti goiti, garaipena eta ohorea buruan harturik, "Akonkagua" garaitu arte. "Akonkagua" mendi ikaragarria bere 7.023 metroekin, Erro jaunaren zangoan gelditu zen. Arratsaldeko 3'etan erdietsi omen zuten mendi gallurra eta, bere garaipena ongi bururatzeko, Euskal Herri'ko Ikurriña ezarri omen zuten gain gainean, Mexiko'koa ere haren ondoan kokatu zuela.

Gure goresmen bizienak Erro jaunari; Jaunak urte aunitzez zaindu dezala.

Anzanarri

Principe de Viana, 1976, uztaila, 14. orr.

## NAFAR IZKUNTZAREN EGUNA

Nafar Izkuntzaren eguna ohore aundiarekin ospatu da Elizondon. Egun gogoangarria igaroa dugu nafartar euskaltzaleen artean eta Nafarroako Ikastoletako aurrekin, denok elkartasun zoragarrian nafartarren egiazko mintzaira goretsi dugularik.

Nafarroako Diputazioko *Euskararen Laguntzeko Elkargoak* antolatutako jai honek oroitzapen eder bat utzi digu geren bihotzetan. Eguna holaxe joan zen:

Goizeko ameketan Herri-Meza. Elizkizun zoragarria, euskarazko eliz kantak ikastoletako aurren agoetan bihotza ukitzen zutelarik. Meza ondorean txistulari taldeak Ikastoletako aur guziak beren guraso eta andereñoekin eta nafartar euskaltzaleak denak herriko plazan bildurik euskarari gorasarra egin beharrez. Mintzatu ziren Julio Iturralde yauna Balleko alkatea eta Diputazioko Alduna eta Inozenzio Ayerbe ta Izeta jaunak. Iru izlariak denei Ongi-Etorria emanik Nafar Izkuntzaren egunaren sustraiak ongi azterturik euskara goraiatu zuten, denbora berean Nafarroako Diputazioak ematen duen laguntza osoa erakutziaraz. Mintzaldiak egin ondoren Mutil-Dantza eder bat egin zen. Gero "Iriarte" pilota lekuan festari jarraituaz, ikastoletako dantzari-txikiak aritu ziren, hoiene artean, Iruñekoak, Altsasukoak eta bai Zintruenigoko dantzari-txiki taldea, denek zoragarritzko dantzaldia eginik. Arratsaldean berriz ere "Iriarte" frontoian eta bazkal-aurrean bezala J.A. Irigarai festaren zuzendari zela ari izanak ditugu Kantariak, bertsolariak eta Dantzari-taldeak. Denek ekiñaldi aundian beren ahalmenak erakutsirik eta "Iriarte" betetzen zuten guziek ere beren bozkarioa agerturik esku-zarta ugariak jo zituztela. Mikel Etxarri Lekunberriko kantari ona ere hor ginuen eta bai Klemente Ezkurdia gure herriko bertsolaria bestari buruz lau bertso bota zituela. Hemen lautako bat:

Pozez nago Elizondon  
ainbeste euskaldun ikusita,  
euskerari jarraitzen zaio  
berak ala merezita,  
gure izkuntzan bizi gerade  
gurasoai ikasita,  
beste mundura joan bear degu  
Euskera bizirik utzita.

Azkenik mutil-dantza eder bat eta ondotik festa honeri bukaera on bat emateko denok zutik eta debozio aundiarekin Gernikako Arbola eta Agur Jaunak kantatu ginuen Txistulari Taldeek lagundurik... Gero gazte jendeak beren bozkarioa erakutsi zuen txistu soñuan jauzika eta dantzan.

Egun zoragarria izan da. Zorionak Nafarroako Diputazioko *Euskararen Laguntzeko Elkargoak*; eta gure goresmen bizienak Nafarroako Ikastoletako aur eta andereñoi, Euskaltzale zintzo guzieri Agur bero bat eta Baztan aldetik millaka goraintzi.

Anzanarri

Principe de Viana, 1974, ekaina, 6. orr.

## NAFARROA'KO ARTZAIN ZAKURREN TXAPELKETA

Joan den Abuztua'ren 31-an ospatu zuten Huarte Arakil'go herrian Nafarroa'ko Artzain-Zakurren VIII Txapelketa. Jende asko etorri zen zakurren lan miresgarri hau ikustera. Iru milla ikusle izango ziran "Geinbera"ko belardian bilduak, hor ageri baita ikuskizun hauek jendearen gogokoak direla. Ameka zakur amar artzainekin ari izanak dira Sariketa hontan. Ohitura den bezala iru saio ziran egin beharrak:

Lenbizikoa: Zakurrak behar zuen itzuli bat egin belardiaren inguru guziari artzainen egindueri kasu ginez.

Bigarrena: Esi baten atekatik edo esartetik ardiak sartuazi.

Irugarrena: Arditegi edo kertzolaren barnera ardiak sartu eta atera.

Lenbiziko proba egin ondoren, epai-maikoek sei zakur berexi zituzten aurrera segitzeko, beste bostak kanpo utzirik.

Bigarren saio hontan, bost zakurrek bururatu zuten ongi agindutako lana, seigarrenak huts eginik.

Azkenengo proban aritu zirenen izenak "LISTA", "LABRI", "LINDO", "BETI" eta "PITXI". Ardiak kertzolaren barnean sartze hori zen lanik zallena eta artzain guziek larri zabiltzen beren zakurrak ezin zuzenduz oihera ozenak egiten zituztela: "poliki", "ixilik", "lotu horri", eta beste asko hitz ere gisa hontan beren zakurrak ederki gidatuaz. Azkenengo lan hontan, "LISTA" Arano'ko Pedro Ansa'rena eta "LABRI" Azpilkueta'ko "Xanparte"ko bordako Franzisko Etxeberrira'zakurrek bakarrik bururatu zuten lana ardi guziak kertzolan sar-atra eginik. Beste gainerako iruek ahal guziak egin zituzten, baina etzuten lana bururatu; ardiak "ezetz" esan zuten eta etziren atetik sartu.

### Epai-maikoen erabakia:

Txapeldun: "LISTA"	Artzaina	334 punto
Bigarrena: "LABRI"	"	"
Irugarrena: "LINDO"	"	"
Laugarrena: "BETI"	"	"
Bostgarrena: "PITXI"	"	"
Seigarrena: "LISTA"	"	"
Zazpigarrena: "MORO"	"	"
Zortzigarrena: "NAVARRO"	"	"
Bederatzigarrena: "TXATO"	"	"
Amargarrena: "NAVARRO"	"	"
Amekagarrena: "ZARPA"	"	"

Irakurlea ohartu izango da izen berdineko zakurrak badirela. Bi "Lista" eta bi "Navarro".

**Artzain beztimentari sariak:**

Lenbizikoa, Altsasu'ko Santos Fernandez'i.  
Bigarrena, Amayur'ko Maria Pilar Elizalde'ri.

**Artzain zakur arraza garbienari:**

Lenbizikoa, "NAVARRO" Urbasa'ko Salaberria'rena.  
Bigarrena, "TXATO" Altsasuko M. Fernandez'ena.

Irabaztaleek Sari ederrak eskuratu zituzten, iru lenbizikoak "Kopa" ederrak ere bazituztela. Epai-Maiko jaunak dira Oñate'ko Artzain Zakurren Sariketa aundia epaitzen duten ber-berak. Gure zorionik beroenak Sariketaren antolatzaleei eta goresmen aundienak zakurren nagusieri, batez ere Pedro Ansa eta "Xanparte"ko bordako mutiko gazteari.

Anzanarri

Principe de Viana, 1975, iraila, 6. orr.

## NEKAZALGOA

Lesaka, Doneztebe ta Elizondo-ko urtearen azkenengo feri ta merkatuak akitu ondoren, azienden gora-berak agertu ditzagun.

Gai hauetan dakitenek diote, oraiko nekazariak beren kezkek badituztela, zer komeniko ote zaioten gehiago, esnea saltzea edo aratxeak aztea. Gehienak edo aunitzek benipein badirudi nahiago dutela esnea saldu, urtearen buruan irabaz-bide hobea ematen duelakotz. Esne beiak goan den urtetik honara prezioz aunitz goratu dira, aurten sosaldi ikaragarria egiten duelarik. Orain bei hoiak 35.000 peztatik 42.000 taraño pagatu dituzte eta hoiak prezio aundiak dira, bei horri gero behar den probetxua eta irabazia ateratzeko. Hortaz gehientsuenak berek azitako aratxe onak uzten dituzten aintzinerako eta gisa hortan ongi ornitzen ere ukulluaren utsuneak. Aratxeak badu errekiste eta prezio ona egiten omen du. Pagatu omen dute 75 peztetaraño kiloa bizik eta gehiago ere "especial" deitutakoak baldin badira. Doneztebe-ko ferietan saldu omen zuten "begire" 300 kilo inguruko aratxe bat 25.000 peztetan, etzen nola nahikoa izango. Prezio hauek ikusite ongi nabari da aratxe azteak merexi duela. Erraten dutenez urtearen buruan Baztandik bakarrik 2.000 aratxe ateratzen omen dira.

Zerrikumeek prezio polita daukate eta bolai hontan negurri berean irauten dute. Bi ilabeteko zerrikumeak 1.300 ta 1.500 pezta egiten omen dituzte eta eztago arras gaizki. Baztan-Bidasoko eskualdetik banaz-bertze 1.000 zerrikume ateratzen omen dira astean, eta hoietatik gehientsuenak Kataluinara joaten omen dira. Zerri gizen guti etxetan, aurten zerrikume asko saldu dituztelakotz. Hortaz zerri gizenak prezio ederra egiten du, on batengatik 65 pezta kiloa pagatzen dutela. On-on batengatik hori emanen dute baina gehienak banaz-bertze 50-55 pezetetan kiloa saltzen da. Igaz sasoin hontan 38 pezta baizik etzuen egiten.

Erraten dutenez artaldeak gaizki dabilta eta urtetik urtera gutituz doazi. mendiak esten eta zikintzen ari dira eta bazka guti ardiak ongi mantentzeko. Erran dezagun ere artzainak gutituz doazila. Ezta bada ardiek guti ematen dutelakotz, esnea, gasnak eta bildotsak ere irabaz-bide onak dakarzkite eta hortara lotu daiteke. Goan den urtean lenbizko bildotsak amasei durotaraino kiloa egin zuen eta orain zenbaitek diote aurtengoak ehunetaraino egiten duela, naiz ta gero pixka bat merkatuko den. Baztan-Bidasoko eskualdetik urtean 20.000 bildots ateratzen omen dira.

Lenagoko denboretan eta orain berriki ere merkatu onak izaten ziren eta azienda salgai zutenak merkatura ekartzen zuten. orain gauzak aldatu dira eta denak beren etxetatik saltzen dute. Halare merkatu egunetan yendea etortzen da eta nekazariak elkar ikusten dute eta ikasten ere prezioak eta azienden gora-berak nola dabiltazen gero beren salmentak komeni zaioten bezala egiteko.

Urtea gan da eta ez aintz gaizki, yendeak ezta arrankurarik eta orain urte berri honek ekarri dezala denendako zoriona, gauzak bide onetik gan daitezen eta elkarrenganako maitasuna eta elkartasuna sendotu dadin. *Urte Berri on!*

Anzanarri

Principe de Viana, 1972, urtarrila, 7. orr.

## NEKAZALGOA

Joan den urteko Baztan-Bidasoko nekazalgoaren egoeraz zerbait erran behar ginuke, Nafarroako "Diario" kazetatik zenbait xehetasun harturik eta gure berrikerari hontan orain agertuaz.

Joan berri den urte hau aintzineko urtea baino txarragokoa izan omen da, baina halare ezin daiteke erran hain txarra izan denik, aintzineko urte horren aldian bai, hori guzieren gainekoa izan baizen, baina aurtengoarekin ere ez da sobera kexatzerik.

Udaberrian eta Udaran eguraldi txarrak egin zituen, beti eurie, eguzki guti eta gehienetan muku eta goibel. Udaberrian erizioak neketan, gaizki eta ezin eginez. Belarra bai auserki baina giro txarra idortzeko. Banaz bertze belarrak eman omen du metro kuadro batendako bi kilo terdi belar ezean. Hola ibili da jendea belarrak ezin eginez eta belaietan usteltzen. Halare belar urtea izan da eta nolabaitere sabaiak bazkaz ongi horniturik dagozi beti ere ikusia dago Baztan Bidasoko lurralde hontan belar-siloak inportantzi handia daukatela. Azkenengo urte hontan Baztan-Bidasoko eskualdean 40 "silo" berri eginak dituzte, denetara 2.800 metro kubiko belar gordetzen dutela. Lenagotik badira 150 "silo" 10.500 metro kubikoekin eta orai egin dituztenekin 190 osatzen dute denen artean 13.300 metro kubiko belarrakin. Gauza txikia oraindik bazterrak behar bezala hornitzeko.

Landako zituetaik erran dezagun lur-sagarrak franko poliki eman duela eta hortaz jendea kontent dagola. Erremolatxa ere ez hain gaizki. Arbiek ongi erein ziren naiz eta arrak aunitz atakatu zituen, baina halare bada arbie eta ez guti. Banabarrak arras gaizki, gehienak xartexak ondatuak guti bildu da. Badira zenbait nekazari beren etxeko dine ere bildu ez dunitak. Prezioa ere goitixko joana da 75 pezta kilo. Baratzeko aza eta porruak ederrak eta tomateak ez zuten deusere eman. Baztanen hobeia bait-da belar urtea tomate urtea baño. Hoiek guziek hola udaberria eta udara eguraldi txarrekin beharrik gero urriko ilabetea ona gertatu eta horrek makur guziak xuxendu. Berriz ere baztandar nekazariak erranen dute. Beharrikerari Urrie!

Baztan-Bidasoko azienden gora-beherak gisa hontan agertzen omen dira: Azkenengo urte hoketan badirudi nekazariak beren etxeak esne behiez ongi hornituak dauzketela eta gehienak edo aunitzek behintzat esnea saltzera lotuak direla. Behien prezioak goiti joan dira, orai bi rte 30.000-35.000 peztetan erosten ahal zirenak, aurtan 40.000-45.000 pezta kosta dira eta Elizondoko urriko ferietan esne behi batengatik 60.000 pezta eskatu omen zuten. Larre behiak ez dute arrakasta haundirik eta holetako behi on bat 37.000 peztetan erdietsi omen daiteke. Esne-behi hoiere prezio ikaragarria ikusirik aunitz hasi omen dira berek azten dituzten aratxe ederrak aintzinerako uzten gisa hortan etxeko ukullua ongi hornitzeko. Aratxe on hoiek 8.000-12.000 peztetan omen daude eta 14.000 peztetan karioena.

Zerri gizenak eta zerrikumeak prezio ederra daukate eta beti bezala gora-behera haundiekin eta gehienetan gertatzen dena, batzuek kontent eta bertze zenbaitzuk ez hain kontent. Erraten dutenez ardiere kontuek ez omen doazi hain ongi. Artaldeak gutituz ari omen dira eta artzañak ere gero eta gutiago. Ez da bada ardiek guti ematen dutelakotz. Diotenez bildotsak 100 pezta kilo bizik egiten omen du, ardi esneak 18 pezta litroak eta gasna onak 200 pezta kiloak.

Nekazalgoaren egoeraz zenbait xehetasun agertu ditugu.

Anzanarri

Principe de Viana, 1973, otsaila, 6. orr.

## OIANTZALEEN BESTE ORONOZ'en

Aintzineko urte oietan bezala aurten ere oiantzaleak egin dute beren biltzarra. Yoan den ilbeltzaren 9'an Oronoz'ko Maristen ikastetxean izan da aurtengo billera eta bertzetan bezala oraingoan ere Baztan-Bidaso'ko oiantzaleak elkartasun zoragarrian ibiliak dira.

Goizeko ameketan eman zitzaion asiera bestari, ikastetxeko sala aundian bildu ziren baso-mutill guziak beren errietako apez geienak lagun zituztela. **Erramun Apezetxea** yauna Almandoz'ko erretoreak bilgurari buruz itzaldi eder bat egin zuen, mutilleri konseju onak emanaz, konbeni zaioten gauzak erakutsiz, beti bide onetik ibili ditezen gurasoak eta sort-erria maitatuz euskaldun zintzoari dagokion bezala. Apezetxea jaunaren itzaldiak bazuen mamia, oiantzale gazteak egi ederrak entzun zituzten.

Gero **Lasarte** ta **Uztapide** ospe aundiko bertsolariak aritu ziren. **Lertxundi** ta **Laboa** kitarra yoile ta euskal kantari famatuak ere abesti politak erakutsi zizkiguten eta azkenik "**apezen kantari-taldea**" aritu zen kantaldi ederra eginik. Apez gazte oien kantaldia gustagarria izandu zen.

Goizeko billera egin ondorean, ikastetxeko elizatzxoan Meza ederra aldarean zortziamar apez bildurik. **Tomas Otxandorena** Saldis'ko erretorea meza emale ta izlari, billerari buruz mintzaldi hunkigarria egin zuelarik. Euskal meza ederra unen ondoren, pilota plazan "ameketako" edo "aperitif" bat arturik, denak bazkaltzera.

Bazkalondoan ikastetxeko pilota lekuan esku-uskako pilota partida bat yokatu zuten. Partida polita eta yendearen gogokoa. Azkenik bestari akaballa on bat emateko goizean bezala denak sala aundian bildurik berriz ere bertsolari ta kitar yotzaleen saioa. **Uztapide** ta **Lasartek** bertsosaldi ederra eginik entzule guziak xoratu zituzten. **Lertxundi** ta **Laboak** ere euskal kanta berrietan agitz ongi. Gero **Apezetxea** Yaunak denei azken agurra eta eskerrak emanik bilgurari bukaera eman zion.

Zorionak billeraren antolatzaileeri. Baztan-Bidaso'ko apez jaunek artzain onak bezala beren artaldea zaintzen dute. Yarraiki jaunak lan ortan euskaldun gazteria beti bide onetik ibili dadien.

Anzanarri

Principe de Viana, 1968, otsaila, 4. orr.



## PACO ERASO'RI OMENALDIA

Joan den Abenduaren 15-ean Doneztebeko herrian Pako Eraso jaunari ongi merexia zaukan omenaldia egin zaio. Joan-daneko berrogei urte koketan Eraso yauna beti ari izana da gure eskualdean aizkolariak, korrikalariak eta beste gainerako jokoak antolatzen hortarako zaletasun haundia agerturik.

Orain Doneztebeko herriak omenaldi bat egin dio eta haren ohoretan besta eder bat egina dute berehartan aizkolariak, korrikalariak, arrijasotzaleak eta bertsolariak ari izanak direla.

Aizkolarien lenbizko jokoak; Iru bikote nor-gehiagoka eta bakotxaren lana 6 onbor 45 ontzako zeñek lasterrago moztu. Yurrebaso-Kortaberri bikoteak irabazi zuen 6 onborrak 8 m. ta 37 s. tan erdibiturik. Bigarren Andiarena - Mariñelarena 9-34 tan eta irugarrenak Astibia II Iturrarte 10-33 tan.

Aizkolarien ondotik arrijasotzaleak: Paskualsorok 175 kilokoa arri kuadroa 2 m. ta 55 s. tan 5 aldiz jaso zuen. Perurena leitzarrak 181 kiliko arri kuadroa 5 aldiz 2 m. ta 52 s. tan. Usategietak 175 kiloko arri zilindroa 2 m. ta 59 s. tan 6 aldiz.

Gero berriz aizkolariak. Arria anaiak alde batetik eta Latsa eta Mindegia bertzetik. Bikote bakotxaren lana: arria anaiak 2 onbor 80 ontzako eta sei kana-erdiko moztu beharrak eta bertzeek lan hori guzia biana kana-erdiko bat gehiago moztu beharra, bi bikoteak txanda librean. Apostu ederra gertatu zen lau aizkolariak zuten guzia eman zutelarik. Arria anaiak irabazi zuten beren lana 20 minutuz eginik. Latasa eta Mindegiak 20-48 m. behar izan zuten beren lana bururatzeko.

Irazu-Zabaleta korrikalariak Iruntxiberri-Argiñarena'ren kontra: 4 kilometroko lasterketa. Irazu ta Zabaleta aisa irabazi zuten.

Berriz ere arrijasotzaleak; oraingoan, Mendizabal-ek 2 m. ta 54 s.-tan, 182 kiloko arri kuadroari 7 jasoaldi eman zizkion.

Azkenik Garmendia eta Etxeberria bertsolariak kantaldi labur eginik goizeko bestari bukaera eman zioten.

Arratsaldean pilota partidak: Lenbizikoan aritu ziren Marin-Mz. de Irujo alde batetik eta Maiz-Bizkay bertzetik. Partida atakatua eta azkenik Marin-Mz. de Irujo bikotea irabaztun 22-21. Bigarren partida: Bergara II-Soroa, 22; Otxoa II-Lajos, 18. Hau ere partida polita.

Jende aunitz bildu zen ikuskizun guzietara eta Eraso jaunaren Omenaldiaren eguna ongi joan zen. Zorionak gure adiskide Eraso-ri eta bere zaletasunak luzaro iraun dezala.

Anzanarri

Principe de Viana, 1975, urtarrila, 6. orr.

## PILOTARIAK

Aurtengo España'ko pilotarien esku-huska ta buruz buruko txapelketa aintzinat doa zein-gehiagoketa hortan sei lendabiziko mallako pilotari ari direlarik, hoiien artean Elortza, Bergara, Andueza, Tapia, Retegi, Azkarate ta Atano Txapelduna.

Lendabiziko partidari ari izanak dira Elortza ta Bergara eta gure etxalartarrak aisa irabazi 22-3.

Bigarrenen berriz Bergara eta oraingoan Andueza azkoitiarraren kontra. Partida hau izigarri ederra izan omen da, len-lenbizitik Bergarak aintzinaldia hartu zuen eta gisa hortan eta neke aundirik gabe amalaugarren tantoa erdietsi artio bere kontrarioak oraindikan bortz tanto bakarrik zaukela (14-5). Orduan trabesak 1000-90'ri etxalartarraren alde otsegiten zutela, iduri baizuen partidak kolorerik etzaukela. Bainan Andueza'k ezto amor eman nai eta nonobaitetik indarrak aterata ernatu zen eta lerro lerro zazpi tanto eginik bi puntu baizik etzituela falta etxalartarra berdintzeko (12-14). Orduan trabesak 100-70'ri oraindik naparraren alde. Bergara ez dago lo eta berriz bere ahalmen aundia agerturik airez aire egin zituen azkenengo zortzi tantoak bere kontrarioa amabigarrenean utzirik. 22-12. Lenago ere Txapelketako bi partida badituzte elkarren kontra yokatuak eta hunekin irugarrena. Lenagokoetan naparra ere irabaztale gertatu 22-17 eta 22-14. Oraingoan 22-12 irabazi du bainan partida hau izan omen da denetan atakatuena eta politena.

Bergara etxalartarra bi pilotari hoiek menderatu ondoren Tapia azkoitiarrarekin ari izana da, bainan oraingoan bere esperantzak suntsitu dira. Azkoitiarrak irabazi dio, yustu yustu bai bainan irabazi 22-21. Aunitz aldiz iñork uste eztoena gertatzen da eta oraingoan ere orixe bera gertatu zaigu. Tolosa'ko "Beotibar" frontoia bete bete yendez eta trabesak 200-120'ri etxalartarraren alde otsegiten zutela. Lendabiziko tantoetan etxalartarra aintzinean bederatzi puntu lerro lerro egin zituelarik 9-0. Orduan trabesak 400-500'ri bere alde. Gero Tapia ernatu zen eta amargarren tantoan berdindu 10-10.

Plazako zola bustia dago eta irristeri aundia bada, bi pilotariak noiz nai lurrera eroririk beren burua arrixketzen dute. Partida atakatua da eta amabigarren punduan ere ados. Gero berriz ere ameretzigarrenean berdintzen dira Bergara'k bere alde 17-12 izan ta ondoan. Orduan trabesak 100-70'ri azkoitiarraren alde. Gero etxalartarrak bertze bi tanto eginen ditu eta garaipena eskuetan dauka. 21-19. Eta gero zer gertatu zen? Aunitz aldiz ikusten duguna. Tapia'k ezto bere burua makurtu nai eta bi tanto eginik berdintzen du partida 21-21. Azkenengo tantoa saketik egiten du eta azkoitiarra irabaztale 22-21. Partida atakatua izan omen da bainan ez alako ona, pilotariak irristetzen ziren eta beren ahalmenak gisa hortan mendaraturik etzuten bertzetan bezalako yokoa egin. Tapia'k eta Bergara'k badituzte lenago ere bertze iru partida elkarren kontra yokatuak eta etxalartarrak lauetan galdu.

Orai Tapia Retegi'ren kontra ari beharra da eta segur gara partida hunek burrunba aundia aterako duela. Goan den urtean Retegi'k aisa irabazi zion eta aurtan zer gertatuko da?. Beti ere pilotazale napartarrok Retegi'ren baitan uste osoa dugu eta orai zai egon gaitezen.

Anzanarri

Principe de Viana, 1969, apirila, 4. orr.

## PILOTARIAK

Martxoaren 9-an Iruñe-ko "Labrit" pilota lekuan eman zioten hasmenta España-ko esku-huska eta buruz-burukako pilota Xapelgoari. Iruñe-n aritu ziren bigarren mailako pilotariak Maiz aranaztarra eta Egiguren gipuzkoarra. Bi mutil euskaldun hoken borrokaldia polita izandu zen bereziki lenbizko bederatzi punduetan, hor azkenengo adostea eginik. Hortik goiti aranaztarra nausitu zitzaion eta partida airez-aire irabazi 22-11.

Leenbiziko maillakoak ere elkarren arteko guduia piztu zuten eta Martxoaren 11-ean Bergara-ko plazan aritu ziren Gartzia Ariño bizkaitarra 37 urteko pilotaria eta Erostarbe gipuzkoarra 23 urtekoa. Partidaren hasieran Ariño-k atakaldi ederra egin zuen baina gero nekaturik azpeitiar gaztearen aurrean burua makurtu behar eta partida aisa galdu. 22-12. Erostarbe gazteak sasoi ederra erakutsi du.

Martxoaren 12-an igandearekin Tolosa-ko "Beotibar" pilota tokian gudukaldi polita egin zuten Orexa errazkindarrak eta Andueza azkoitiarrak. Partida aski atakatua egin ziguten eta Orexa nausitu 22-15. Orexa pilotari gazteak lanak emango ditu.

Egun hortan berean Logroño-ko frontoian negurtu zituzten beren ahalmenak. Pierola baztandarrak eta Nalda errioxatarrak. Partida hau aski atakatua gertatu zitzaigun batez ere azkenengo tantoetan. Partida hasi aurretik trabesak errioxatarraren alde, baina almandoztarrak gudari bortizki loturik 15 lehenbiziko tantoak bereganatzen ditu bestea utsean utzirik "Amabortz sakeak erreferak esperantza" kantatzen dutela 15-0. Orduan trabesak baztandarraren alde 1000-80 ri. Gero errioxatarrak bi puntu eginen ditu eta almandoztarrak bat 16-2. Nalda-k ez zuen amor eman nahi eta honek ere bere ahalmenak erakutsirik zuzen zuzenean ba-doha 15 garreneraino 15-16. Orduan trabesak berriz Nalda-ren alde. Bi pilotariak lanari bortizki lotuak dira duten guziaz ematen dutela. Pierola-k berriz atakatzen du eta 20-15 partida bere alde uzten duela dirudi auzia erabakia dagola, baina errioxatarra ez dago lo eta lau tanto bereganatzen ditu 19-20. orduan gure baztandarra errabiaturik airetik eta ezker-eskuin pilota indar guziazin joaz azkenengo bi tantoak eginik partida irabazten du 22-19. Pierola irabaztale baina larri-larri ibili ondoren. Bi pilotariak leher egin zuten.

Martxoaren 26-ean Mungia-ko frontoian ari izanak dira, Pierola eta Erostarbe. Plaza bete yar-leku uts bat ere agertzen etzela eta trabesak gipuzkoarraren alde. Lendabiziko iru tantoak Pierola-rentzat baina Erostarbe-k bereala berdindu 3-3. Gero gipuzkoarrak aintzinaldia harturik bentaja puska bat kentzen dio, 10-3, 19-6, 19-16 eta azkenik 22-16. Erostarbe irabaztun. Gipuzkoarrak saketik 13 tanto egin zituen eta baztandarrak 6. Orain Erostarbe Bergara-rekin ari beharra da eta erran beharrik eztago partida honek arrakasta haundia izanen duela. Erostarbe indarrean dago eta Bergara ere bai. Nor garai? hori geroak erranen.

Mungia-ko frontoian gertatu zena gertatu zen Martxoaren 28-an Iruñe-ko "Labrit"en ere, frontoiko yarralki guziaz bete beteak uts bat ere agertzen etzela. Tapia eta Orexa II buruz-buru ari izanak dira eta partida aski ederra eta atakatua gertatu omen da bi alderdietako indarrak berdintsu agertzen zirela. Partida hasi aurretik trabesak Tapia-ren alde. Lendabizko tantoak Orexa-rentzat eta badirudi errazkindarrak auzia airez-aire beretu behar duela partida 11-1 bere alde ezartzen duelarik. Orduan trabesak Orexa-ren alde. Gero Tapia ernatuko da eta amabigarren punduan ados 12-12. Trabesak berriz azkoitiarraren alde. Gero 13-13, 15-15, eta Tapiak beste lau tanto eginik 19-15 bere alde, eta trabesak 1000-120 ri. Oresak berriz atakatzen du eta "ados jaunak ados" 19-19. Azkenik errazkindarrak falta dituen iru tantoak eginen ditu eta partida irabazi 22-19.

Partida ederra eta gustagarria. Tapiak suerte txarra izan zuen, partidaren erditsuan "Kaska" aundi bat hartu zuen bi belaunetan paretaren kontra "txokea" eginik. Lenbizien ez bainan azkenengo tantoetan nabari zuen maingu zabillega eta etzuela lasterrik egiten ahal.

Orexa errazkindarra arras ongi eta sasoi ederrean, gazte ta zauli. Orain Orexa, Retegi-ren kontra.

Anzanarri

Principe de Viana, 1972, apirila, 7. orr.

## PILOTARIAK

Buruz-buruka eta esku-hustako Espainia-ko Pilota Txapelketa aurrera doa. Lehenbiziko Mailakoak Martxoaren 4'ean eman zioten hasiera eta Maiatzaren 13'ean Azken Partida izango dute, baina Bigarren Mailakoa erabakia dago.

### BIGARREN MAILAKO PARTIDAK

Otsaila, 24.	Bergaran	Gereñu, 22; Urquiza, 19
" 25.	Eibar-en	Gorostiza, 22; Etxarte, 6
" 26.	Tolosan	Maiz, 22; Aizpuru, 0
Martxoa, 10.	Bergaran	Gorostiza, 22; Maiz, 1
" 11.	Eibar-en	Gereñu, 22; Arotzena, 21

Martxoaren 25'ean Gazteiz-ko frontoian eta jendez beterik Bigarren Mailako Azken-Partida jokatu zuten, Gorostiza bizkaitarra eta Gereñu gipuzkoarren artean. Bizkaitar gazteak, kontrarioa aisa menperatu: 22-3.

Ongi merexia bai Gorostiza'ri eman dioten fama; laster, Lehenbiziko Mailakoen artean bere ahalmek erakutsiko ditu. 19 urte, 1,79 m. luze eta 80 kilo pasa pisu, mutil gazte honek lanak emango ditu. Holakoetan pilotazaleek atsegin haundia hartzen dute, pilotarien alorrean landare gazte ta indartsu bat ikustea pozgarri baita.

### LEHENBIZIKO MAILAKOAK

Martxoa, 4.	Gazteiz-en	Tapia, 22; Arroyo, 3
" 5.	Tolosan	Nalda II, 22; Arruabarrena, 10
" 17	Bergaran	Bergara, 22; Erostarbe, 17
" 18	Logroño	Tapia, 22; Nalda II, 14

### IRUÑE-KO "LABRIT"-EN:

Tapia, 22; Oresa, 13

Apirilaren 3-an Iruñe-ko "Labrit" leporaino betea eta han Tapia eta Oresa buruz-buru eta gudu gorrian garaipena bereganatu nahizik. Bi pilotari hoken arteko partidak burrunba haundia atera zuen eta hortaz "Labrit"en etzen oztik, jendea bero zagon.

Trabesak dolean Tapia-ren alde. Partida erdiraino aski atakatua bi eskualdeak indarrez berditsu eta Oresa gaztea aintzinean naiz ta Tapia besoz nausi izan. 7-11 Oresa-ren alde eta trabesak beti gipuzkoarraren alde. Errazkindarraren sasoia tipitu da, nekatu da eta orduan Tapia nausitu. Azkoitiarra bere zazpigarrenetik amabostgarrenetaraino doha 15-11 eta Oresa bere mendean dauka. Hortik aintzinat partida ez du kolorerik, Tapia lasai lasai ari da eta auzia neke haundirik gabe beretzen du 22-13.

Partida bi zati ez-berdinak izan ditu, lehenbizikoa arras atakatua eta hemen ageri da; 7-11 zoazilarik bazaramazkiten 37 mintutu gudu gorrian eta bien artean 180 pilot-ukaldi emanak. Gero Oresak leher egin eta orduan Tapiak irabazi.

### DONOSTIA-KO "ANOETAN":

## Tapia, 22; Bergara, 11

Donostia-ko "Anoeta"ko frontoian Apirilaren 22-an (Bazko egunez) buruz-burukako Pilota Txapelketaren Final-erdiko partida, Tapia azkoitiarra eta Bergara etxalartarraren artean. Trebesak 100-70ri eta 200-120ri gipuzkoarraren alde. Tapia ator urdinarekin eta Bergara dena xuriz. Partida hasi aintzin ele ta ohiu eta jendea bero.

Ameka terdietan eman zitzaion partidari hasiera Bergarak lenbiziko sakea eginik. "Kintze" luzea lenbiziko hau eta etxalartarrak beretu. Gero beste bi eginen ditu eta 0-3 bere alde. (Trabesak 100 urdin). Tapia ernatu da eta gogor hasi zaigu. Hiruna berdindu eta amabigarren punduraino doha 12-3. (Trabesak 1.000-30ri) Bergarak hiru tanto 12-6 eta Tapiak best hiru 15-6. Azkoitiarrak bere beso indartsuarekin pilota beti errebote aldiak dauka, etxalartarrak ahal duena egiten du baina bestea gehiago da, halare bi tanto bereganatzen ditu 15-8. Tapiak bi bere alde 17-8. Gero 17-9. Azkoitiarra aisa ari da jo ta jo atzera eta hala lau puntu gehiago bere alde 21-9. Bergarak ez du amor eman nahi eta amekagarrena erdiesten du 21-11. Tapiak azkena eginen du eta partida merezimendu guziekin irabazi 22-11.

Bi pilotarien artean 263 pilot-ukaldi. Partidaren iraupena 64 minutu, hoietarik 15 m. ta 15 s. bakarrik jokoan. Saketik Tapiak 3 tanto eta Bergarak 1.

Orai Azken-Partida Eibar-ko "Astelena" pilota lekuan. Retegi oraingo Txapelduna Tapia-ren kontra. Segur gara partida honek solas-bide ederrak sortuko dituela, batzuek baten alde besteak bestearen alde bakotzak beren arrazoiak agertuaz eta azkenean eztabaida hoiek guziak erabakiko bi pilotairak elkarren kontra zein-gehiagoka jokatu ta ondoan eta orduan jakinen nor den Nagusi eta Txapela noren buruan kokatuko den. Bizkitartean zain egon gaiten.

Anzanarri

Principe de Viana, 1973, apirila, 7. orr.

## PILOTARIAK

Orai berriki egin dute Espainia'ko pilotari gazteen Txapelketa eta Donostia'ko "Anoeta"ko frontoian yokatu dituzte azken partidak. Xapelgo ontan ari izanak dira, esku-uska, palaz, paletaz eta zesta-puntaz, denetan bidenazka. Lau yoko oietatik Napartarrek bida irabazi dute Espainia'ko pilotari gazteen Xapelgoa eta "Trofeo" delako edergailu aundia bereganatuz. Eskuz naparrak eta gipuzkoarrak azken partidaren elkarren kontra ari izanak dira gudakaldi atakatua eginik. Nafartarren aldetik Oresa errazkindarra eta Etxandi erratzuarra ziren eta giputxeren aldetik Beristain ta Gallastegi mutil jatorrak. Oresa etzagon bertzetan bezala, eskuak minberatuak zituen eta yokoz ere aski motel baiñan Etxandi erratzuarra sasoiñean zagon yokada politak eginik eta tanto aundiz sartzen zituelarik. Gipuzkoarrak ere indarrean zauden baiñan azkenean naparrak nausitu partida 22-17 irabazirik. Pala-korta deitutako partidaren ere nafartarrak irabaztate gipuzkoarrak garaiturik.

Emen erakutsi bear ditugu txapelketaren gora-berak:

Eskuz. Txapeldunak. OREXA-ETXANDI. Nafartarrak. Urrezko medailla.  
Eskuz. Bigarrenak. BERISTAIN-GALLASTEGI. Gipuzkoarrak. Zillarezko medailla.  
Eskuz. Irugarrenak. G. ARIÑO-URKIZA. Bizkaitarrak. Borontzezko medailla.  
Pala-kortaz. Txapeldunak. BERASAIN-KABALERO. Nafartarrak. Urrezko medailla.  
Pala-kortaz. Bigarrenak. LARRAÑAGA-ORMAETXEA. Gipuzkoarrak. Zillarezko medailla.  
Pala-kortaz. Irugarrenak. MUNIAIN-DUO. Bizkaitarrak. Borontzezko medailla.  
Paletaz. Txapeldunak. LAZKANO-VELASCO. Gaztelarrak. Urrezko medailla.  
Paletaz. Bigarrenak. RUBIO-BAZTERRA. Bizkaitarrak. Zillarezko medailla.  
Paletaz. Irugarrenak. MARTIN-ZUBELDIA. Gipuzkoarrak. Borontzezko medailla.  
Zesta-Puntaz. Txapeldunak. SAULLEHI-ORTIZ. Balearestarrak. Urrezko medailla.  
Zesta-Puntaz. Bigarrenak. ETXEBERRI-SARASUA. Bizkaitarrak. Zillarezko medailla.  
Zesta-Puntaz. Irugarrenak. LUJANDIO-SOTO. Gipuzkoarra. Borontzezko medailla.

"Trofeo" aundia Naparroa'ko federazioari

Gure zorionik maitekorrenak napartar pilotarieri beren garaipenarekin goi-mailara igo baitute Naparroa'ren izena.

Anzanarri

Principe de Viana, 1968, azaroa-abendua, 7. orr.

## PILOTARIAK

España'ko esku-uskako eta buruz-buruko pilota txapelketa badoa aintzinat eta gure nafartar pilotariak gogor ari izanak dira. Martxoaren amarrean lendabiziko mallakoen partideri asiera eman zitzairen eta ain xuxen lendabiziko gudukaldian Lajos eta Retegi elkarren kontra aritu ziren. Bi nafartar auen borrokaldiak errekesta aundia izan zuen Gazteiz'ko plaza leporaño bete zelarik; an baziren napartarrak eta bai Euskalerriko eskualde guzietatik ere. Retegi erasundarra indar aundian agertu zitzaikun eta partida aise irabazi. Lajos ultzamarra garaiturik (22-13).

Amabortz egunen buruan Tolosa'ko plazan berriz ere Retegi eta oraingoan Andueza azkoitiarra kontrarioa zuelarik. Partida au ere erasundarrak aisa irabazi (22-5). Berriz ere bertze amabortz egunen buruan irugarren partida. Oraingo huntan Iruñe'ko "Labrit" en aritu ziren Retegi eta Tapia, (au ere azkoitiarra) eta berriz ere erasundarra garaile azkoitiarra tanto soil batean utzirik (22-1).

Iru partida yokatuak eta iruak irabaziak eta badirudi erasundarra denak porrokatu bear dituela, aurtengo Txapelketa edo "Campeonato" aisa bereganaturik, nafartar pilotazale geienak ala uste baiginuen. Iru partida oiek irabazi ondorean badator laugarrena eta oraikoan Atano'ren kontra. Azkenengo partida hunek errekesta izigarria izan du, zortzi edo amar eguneg elnago nafartar pilotazale guziak airetuek zabiltzen erasundarraren baitan uste osoa zutelarik. Goan den igande Apirilaren 28'an yokatu zuten partida au eta Bergara'ko pilota-lekua izan da bi pilotari oien arteko borrokaldiaren lekuko. Partida asi aintzin, trabesak naparraren alde zauden 100-80'ri uyu egiten zutelarik. Ameka terdietan asi zen partida, Retegi'k lendabizko sakea eginik. Erasundarrak lau tanto lerro lerro egin zituen bere alde 4-0 zuelarik eta orduan trabesak 200-80'ri jarri ziran. Gero Atano'k bere lenbizko tantoa egin ondoren, orren segidan bertze zazpi eginik partida 8 eta 4 bere alde paratu zuen eta orduan trabesak itzulikatu ziren 100-70'ri Atano'ren alde uyu egiten zutelarik. Atano'k saketik ainbertze tanto eginik badoa garaipenaren billa eta berak ogeigarren tantoa egin zuelarik Retegi bederatzigarrenean zagon. Trabesak 1000-50'ri azkoitiarraren alde. Badirudi ea partidak eztuela kolorerik bainan Retegi'k eztu amor emannai eta asten zaigu ezker-eskuia indar ikaragarriarekin. Bederatzigarren tantotik zuzen zuzenean 18 garrena erdiesten du bi tanto bakarrik falta dituela berdintzeko, 20-18 Atano aintzinean, eta trabesak 100-50'ri aizkoitiarraren alde. Bi pilotariak atsedean pixka bat arturik yarraikitzen dute yokoa eta Atanok bere 21 garren tantoa eginik garaipena eskuetan dauka. Tanto huntan Retegi'k suerte txarra izan zuen, pilotari ezkerrekin yo bear zuelarik, irristatu ta lurrera eroririk tantoa galdu zuen. (21-18). Gero azkenengoa azkoitiarrak saketik egin zuen eta azkenean partida irabazi 22-18.

Partida atakatua izan da bi pilotariak gogor ari izanak dira eta erasundarrak oraingoan galdu badu, urrengoan irabazi dezake, ortarako kapable baita, bainan kasu Atano'rekin azkoitirarra pilotari ona da, beti ona izan da eta oraindik ere sasoin izigarrian dago, buruz-buruko partidetan beldurgarria eta ezta errex izanen hori garaitzea. Beti ere zorionak bi pilotarieri eta Aurrera Retegi!

Partidak 50 minutu iraun zuen. Saketik Atano'k 11 tanto ta uts bat eta Retegi'k 7 tanto ta bi uts.

Orai Atano eta Azkarate, igaz bezala elkarren kontra azken partidatan. Goan den urtean Azkarate'k irabazi zuen eta aurten nor garai? Denbora lekuko.



Principe de Viana, 1968, maiatza, 6. orr.

## PILOTARIAK

Erran bezala yoan den Apirilaren 13'an ari izanak dira Eibar'ko "Astelena" deitutako pilota plazan, Retegi nafartarra eta Tapia gipuzkoarra. Esku-huska ta buruzburuko partida hau España'ko pilota Txapelketakoa zen eta borokaldi hunek erreliste aundia izan du.

Egun hortan "Astelena" leporaño betea yendez, nafartarrak eta gipuzkoarrak naste, denak esku-zartaka bakotxak bere sainduari otoitz. Partidaren asmentan trabesak erasundarraren alde zauden 200-90 ri uyu egiten zutela, gero partidaren bizkitartean apostuak izan zituzten beren gora-berak. Seigarren tantoraño Retegi aintzinean, gero adosteak izan zituzten seigarrenean eta azkenik Retegi irabaztale 22-18. Partida bizkitartean Retegi'k aintzinaldia hartzen zuen eta Tapia beti bere gibeletik, bortz adoste egin zituen azkoitiarrak bainan beñere ez zuen agintea hartu. Partidak ordu bat iraun du eta Retegi'k saketik lau tanto eta Tapia'k iru egin zituzten. Partida ederra izan omen da. Igaz partida hau bera yokatu zuten eta orduan Retegi'k tanto soil batean utzi zuen Tapia, bainan aurten azkoitiarrak atakaldi aundia eman dio erasundarrari, oraingoan naparrak lau tantoz irabazi du bainan larri larri ibili ta ondoan.

Laster ikusiko ditugu orai Retegi ta Azkarate buruz-buru eta gudukaldi hunen irabaztalea gero Azken partidari Atano txapeldunaren kontra ariko da. Nafartarrak Retegi erasundarraren baitan esperantza aundiak ditugu eta nork daki zer gertatuko ote den. Hori geroak erranen eta bizkitartean zain egon gaitezen.

Anzanarri

Principe de Viana, 1969, maiatza, 4. orr.

## PILOTARIAK

Gauzak ongi ta zuzen gertatzen badira, irakurleek "Príncipe de Viana" ahu eskuratu orduko Espainiako esku-huska ta buruz-buruka Xapelgoa akitua izanen da eta irabaztalea ohorez txapelarekin koroatua.

Xapelgoaren zenbait partidaren berri emanen ditut: Final-laurdenetan aritu ziren, *Lajos* eta *Andueza* Donostian eta *Bergara* eta *Tapia* Gazteizen. Lenbiziko partida horrek ez du sobera kondatzeikorik. Lajosek airez-aire irabazi baizion 22-9. Bigarrenak bai, partida atakatua izandu zen bi pilotariak beren ahalmen guziak agertu zituztela. Gudukaldi hunek gora-bera aunitz izan zituen eta azkenean Bergarak irabazi 22-20.

Gero Apirilaren 25 ean Bergarako frontoian final-erdiko partida *Lajos* eta *Bergararen* artean. Partida honek yende asko mugiarazi zuen eta Bergarako plaza leporaño bete zen. Nafartar aunitz ikusliarren artean eta trabesak Lajosen alde 200-80 ri. Lajos Ultzamarra paxa gorriarekin eta Bergara Etxalartarra urdinarekin eta goizeko ameka terdietan partidari asiera eman zitzain. Lenbiziko sarea Bergarari suertatu eta lenbizikoan "pasa" eta bigarrenean saketik tanto 1-0. Lajosek berehala berdindu eta trabesak bere alde 200-60 ri. Gero Etxalartarrak iru puntu bereganatuko ditu 4-1 bainan Ultzamarrak hortan berdindu 4-4. Trabesak 200-50 ri. Bi puntu gehiago urdinarentzat eta gorriak berriz berdindu 6-6. Trabesak 400-80 ri. Lajos bizkor dgo eta bere ahalmen aundia erakutsirik aintzinat doa eta berehala borts tantoen abantalla hartzen du 13-8. Etxalartarra ez dago lo eta honek ere bere indarra eta kemena agertzen du eta amabortzgarren tantoan berdin. Ados jaunak ados! Eta trabesak oraindik Lajosen alde 200-100 ri. Gero bi tanto Etxalartarrarentzat 17-15. orai dirua berdinean 100 duro. Amazazpigarrenean berriz ados. Orai gorriak bi bere alde eta gero urdinak bat 18-19. Trabesak beti Lajos en alde. Azkenean Lajosek falta dituen iru tantoak bereganatzen ditu eta partida irabazi 22-18. Partida izigarria eta atakatua. Lajosek irabazi zuen bainan Bergarak ere berd in irabazi zezaken, biek berdintsu eta negurri berean agertu zitzaizkigun. Urrengoan emanen ditut Azken-Partidako gora-berak.

Anzanarri

Principe de Viana, 1971, maiatza, 5. orr.

## PILOTARIAK

Maiatzaren 13-an Eibar-ko "Astelena" deitutako frontoian ari izanak dira Pilota Txapelketako Azken-Partidan, Tapia azkoitiarra eta Retegi erasundarra. "Astelena" tellaturaño betea iarleku uts bat ere etzela sar-bide guziak saldurik. Pilotazale aunitz kanpuan gelditurik, batek baño gehiago "merkatu-beltzean" sar-bide txartel batengatik 2.500 pezta ordaindu beharra izan omen zuten. Gipuzkoar pilotazaleek Tapiaren baitan uste osoa zuten eta arrazoinarekin, azkoitiarrak Xapelgo hontan bere sasoiak erakutsi bait-du, Arroyo, Orexa eta Bergara garaituz. Tapiak aurtengo Txapelketa honeri eman dio merexi duen arrakasta.

Partida hasi aurretik trabesak Retegi-ren alde 200-140 ri eta bai 200-100 ri ere, doblean erasundarraren alde. Ameka terdietan Tapiak eman zion partidari hasiera lenbiziko sakea eginik. Retegirentzat, lenbiziko tantoa eta berehala berdin 1-1. Gero berriz adosteak 2-2, 3-3, 7-7, 8-8. Orai Tapiaren aldia eta kolpe batez 15 garenetaraino doa 8-15. Tapiak jokada ederrak egin ditu batez ere amabostgarrena bi paretatik. Orduan trabesak azkoitiarraren alde 200-140 ri. Gero bi tanto Retegirentzat eta beste bi Tapiarentzat 10-17. Badirudi auzia erabakia dagola eta Tapiak Txapela eskuarekin ukitzen duela, baina lo zegona iratzaririk partidak beste kolore bat hartzen du eta erasundarra ongi ernaturik bere amargarren tantotik zuzen zuzenean 17 garrenean berdindu ondoren 21 garrena erdiesten du 21-17. Trabesak berriz Retegiren alde. Iduri zuelaik partidaren azkena Retegik tantoa eskutan zaukelarik, uste gabeko utsa eta erasundarrak tantoa galdu 21-18. Gero Tapiak bi eginen ditu eta 21-20. Orduan bai kezka jendearen artean eta bai trabesak ere arras nahasirik. Azkenean Tapiak tantoa galdu eta Retegi-rentzat partida eta Txapela 22-20. Retegi berriz ere Txapeldun. Zorionak.

Partida atakatua izandu da. Tapiak ongi 17 garren tantoraño, gero neke pixka bat nabari zuen eta bai maingu pixka bat ere, dudik gabe lasterraldin batez zañen bat bortxatu ote zuen edo. Retegi gaizki partidaren erditsuraino baina gero indartsu eta berak dakien bezala jokatu Txapela bereganatu eta garaipen honek lau urtez Txapeldun.

Partidaren iraupena ordu bat eta 24 minutu baina horietarik 16 minutu bakarrik jokoan. Saketik irabaziak Retegik bat eta Tapiak hiru. Bi pilotarien artean 280 pilot-ukaldi emanak.

Jendea kontent partidarekin, bi pilotariek zuten guzia eman zutelakotz. Zorionak bi pilotariei.

Anzanarri

Principe de Viana, 1973, maiatza, 7. orr.

## PILOTARIAK

Igaro berri den urte hortan pilotari nafartarrek beren gaintasuna erakutsi balin badute, orai hasi berri den urte hontan ere sasoi izigarrian agertzen zaizkigu. Otsaillako illabetean partida aunitz yokatu dira eta hoiien artean lau berexiko ditugu gure ustez aipamena merexi dutelako.

Otsaillako 14'ean Gazteizko frontoian aritu ziren, Retegi ta Lajos bikote nafartarra, Ogeta ta Soroaren kontra. Nafartarrak partida izigarria egin zuten. Asmentan gibelean gelditu ziren beren kontrarioak zazpi tanto lerro lerro eginik "sakeak zazpi ta erreferak esperantza" kantatzen zutela, baina gero nafartar bikotea ongi ernaturik zazpigarren pundu hortan adostu eta urringotik aintzinaldia harturik garaipena ardietsi artaño 22-14. Partida hontan bi atzelariak yoko gaitza egin zuten, Lajos indarrean eta Soroa ere gisa berean. Partida atakatua.

Iru egunen buruan Bergarako plazan berriz Retegi ta Lajos lagun eta oraingoan Ogeta ta Azkaraten kontra. Partida honek ez du aunitz kondatze korik, nafartar bikoteak auzia airez aire bereganatu baizuen 22-8. Gaurko egunean ez da iznago bikoterik Retegi ta Lajos menderatuko dutenik.

Otsaillaren 22'an Donostiako Anoetan berriz nafartar bikotea eta oraikoan Pierola ta Lajos elkarrekin, beren kontrarioak Ogeta ta Azkarate zituztela. Partida honek ere ez du sobera kondatze korik, oraingo hontan ere nafartar bikoteak neke aundirik gabe partida irabazi 22-14. Pierola baztandarra hoberenen artean eta aski ongi gañera, yokada politak eginik.

Gero Iruñeko Labrit frontoian berriz Lajos bainan oraikoan Oresa bigarrena lagun zuelarik. Partida hau Otsaillaren 25'ean yokatu zuten, nafartarrek Atano ta Tapia gipuzkoar pilotariak kontrarioak zituztela. Lajos ultzamarra aurrelari ari izana da Oresa errazkindarra atzea gordetzen zuela. Partida atakatua gora-bera aundiekin bainan azkenean gipuzkoarrak garaille 22-18. Lauetan hoberena Atano. partida hau berriz yokatu behar luteke, indarrak berdintsu bait-daude eta pilotariak ere berriz yokatzeko naikeriarekin.

Aurtengo Españiako esku-huska ta buruz-buruko pilota Xapelgoari asmenta eman diote eta bertzetan bezala aurten ere bi malletan berexia dago.

Lenbiziko mallako pilotariak hauek dira: RETEGI (Txapelduna), LAJOS, BERGARA, TAPIA, PIEROLA, NALDA II, ORESA II, eta ANDUEZA III. Zortzi pilotari hauek ariko dira lenbiziko mallako Xapelgoan. Nor Txapeldun? Berriz Retegi edo Bergara? Lajos? edo zergatik ez Pierola? Hori geroak erranen.

Bigarren mallako pilotarien izenak hemen: DEL VAL, EROSTARBE, EGIGUREN, AIZPURU, OTXOA II, RIOJA, AROTZENA, BARANDIARAN, KARRETERO, TXITXAN, MAIZ, ARRUABARRENA, denetara amabi pilotari.

Lenbiziko mallakoen "Azken-Partida" Donostiako "Anoeta" deitutako frontoian yokatuko da Mayatzaren bigarren egunean, eta bigarren mallakoena Tolosan Apirilaren 21'ean.

Anzanarri

Principe de Viana, 1971, martxo, 6. orr.

## RETEGI TXAPELDUN

Espainiako Pilota Txapelketa ospatu da, nor-gehiagoka hontan lenbizko maillako zazpi pilotari esku-huska eta buruz-buruka ari izanak direlarik. Bigarren maillakoek ere egin zuten berea hartan Beristain gipuzkoarra Txapeldun atera zelarik Txitxan nafartarrari 22-21 irabazirik. Partida ikaragarria bigarren maillako hoken artekoa. Zorionak bieri.

Lenbiziko maillako Txapelketan ari izanak diren pilotarien izenak hemen:

NALDA, LAJOS, ARROYO, GOROSTIZA, TAPIA, EROSTARBE eta RETEGI TXAPELDUNA.

Partidak gisa hontan joan dira:

Martxoaren 3-an, Gazteiz-en. LAJOS, 22; NALDA 16. (2-2, 3-3, 4-4, 7-7, 7-13, 15-15, 11-15, 18-16 eta 22-16).

Martxoaren 10ean. Logroñon. GOROSTIZA, 22; ARROYO, 1. (17-0, 1-17 eta 22-1).

Martxoaren 10ean. Tolosan. LAJOS 22; TAPIA, 21. (1-1, 13-13, 13-17, 17-17, 18-18, 19-19, 19-21, 21-21, 22-21).

Martxoaren 24-an. Bergaran. GOROSTIZA, 13; EROSTARBE, 6. (1-1, 2-2, 3-3, 4-4, 5-5, 6-6, 13-6. Erostarbe min-hartu eta utzi).

Apirilaren 7-an. Eibar-en. GOROSTIZA, 22; LAJOS, 10. (7-7-, 7-9, 8-9, 9-9, 9-10, 10-10 eta 22-10).

AZKEN PARTIDA Apirilaren 28an Donostia-ko "Anoeta" frontoian. (Telebistak erakutsi zuen).

## RETEGIK, 22; GOROSTIZAK, 21

Anoetako tellaturaino betea eta bi pilotari euskaldun nor-gehiagoka Txapela erdietsi nairik.

Juan Ignazio Retegi nafartarra Erasun-go. 30 urte eta lau aldiz Txapeldun. Botillero Ezkurra.

Iñaki Gorostiza Bizkaitarra. 20 urte. Bere botilleroa Jesus Gartzia Ariño.

Retegi xuriz yauntzia eta Gorostiza ator urdinarekin. Partida hasi aurretik trabesak berdinean.

Lenbiziko sakea Retegi-ri suertatu eta partida amekak lau gutitan hasia da.

Gorostiza-rentzat lenbiziko tantoa eta Retegik berehala berdindu 1-1. Trabesak 200-120 ri.

Gero Retegik iru tanto bere alde 4-1 eta trabesak ere 200-120 haren alde.

Bi puntu batentzat eta beste bi bestearentzat 6-3. Trabesak 200-80 ri erasundarraren alde. Gazteak bat eginen du eta zaharrak lau. 10-4. Trabesak 200-70 ri.

Gaztea indarrean dago eta iru tanto irabazten ditu 7-10. Trabesak 100 duro erasundarraren alde. Bi puntu erasundarrak eta bat gazteak 12-8. Beste bat Retegik 13-8 eta ondotik beste bi Gorostizak 10-13. Trabesak beti erasundarraren alde 200-120 ri. Retegi sasoñean dago eta lau puntu gehiago beretzen ditu 17-10. Amalagarren tantoa izandu da partidaren atakatuena bien artean 24 pilota-ukaldi emanik. Bi pilotariek leher eginik atseden luze bat hartzen dute bizkitartean ikusliar guziek zutik bi pilotarien ohoretan txalo beroak jotzen dituztelarik.

Gero bizkaitar gazteak egingo ditu amekagarrena eta amabigarrena 12-17. Azkenengo tanto hortan Retegik besagainez zazpi aldiz jo zuen, azkenengoa galdurik. Partida 17-12 Retegi-ren alde zegolarik ANGELUS errezatu zuten plazaren erdian. Bi pilotariak beren botilleroekin eta apez jauna denen erdian. Euskarazko Agur Mariak hunkigarriak.

Gero Telebistak utzi zuen partida eta hoberena ikusi gabe utzi ginduzten. Pilotaren partez futbol edo tenis izan balitz...

Angelusen ondotik bi pilotariak indar-berriturik guduari lotuak eta oraingoan bizkaitar gaztea kolpe batez 19 garren punduraino doa. 19-17 Gorostiza aurrean. Trabesak nahasi dira. Erasundarra errabiaturik kurai aundiarekin agertzen zaigu eta emeretzigarren puntu berdinurik beste bat ere egiten du 20-19. Baina gaztea ez dago lo eta berehala berdindu ere 20-20. Trabesak parean eta jende guzia eroturik. Tanto bat Gorostizak eta beste bat Retegik eta berriz berdin 21-21. Jendearen burrunba ikaragarria da trabesak ere bi aldetara egiten dituztela.

Oraintxe Txapela aldean dabilla iñork jakin gabe noren buruan kokatuko den. Denek biohotza "pil pil" eta Retegik azkenengo sakea eginik. Gorostizak oneraten du eta erasundarrak besagainez txokora botata pilota errausten du tantoa irabazirik. 22-21. Retegi bosgarren aldiz Txapeldun. Zorionak. Partida bukatu bezain laister bi pilotariak besarkada maitekor batean lotzen dira. jende guzia zutik jarriarik esku-zarta beroekin saritzen ditu pilotariak. Nafartar pilotazaleek beren bozkarioa erakusten dute plazaren erdira ateratzen direlarik oyal xuri aundi bat daramatela eta han idatzirik agertzen dutela "Gora Retegi Euskal-Herriko Txapeldun aundia".

Partidak 86 minutu iraun du eta hoietatik 16 minutu terdi jokoan. Bien artean 293 pilota-ukaldi. Saketik Retegi-ri lau irabaziak eta Gorostizak iru. Nafarroako Aintzindariak Retegi-ri Txapela ezartzen dio eta Espainiako Federazioko Lendakariaren eskutik Retegik Txapeldunaren Garai-Ikurra hartzen du. Gorostizak ere Bizkaiko Federazioko Jaunaren eskutik ongi merexia duen edergailua eskuratu du. Partida ikaragarria izan da, gutitan ikusten den bezalako.a Retegik erakutsi du bere jakitatea eta pilotari onaren doaiak. Gorostizak sasoia eta indarra eta Txapelduna izateko ere gai dela. Zorionak bi pilotari euskalduneri eta Jainkoak urte aunitzez zaindu ditzala.

Anzanarri

Principe de Viana, 1974, maiatza, 7. orr.

## SARIKETAK

Aurten igaz bezala eta aintzineko urtean bezala ere, nafarroako "Caja de Ahorros" diru etxeak antolaturik, Baztango eskoletako aurren artean kultura Sariketa bat egin dute.

Eguberri abestiak edo billantzikoak zeñek hobeki kanta.

Euskarazko eta erdarazko ipuiak zeñek politago eta hobekiago.

Eguberritako Christmas edo Txartelak nork hobeki marraztu edo dibujatu.

Baztango eskoletako aurrek marrazki politak politak eta ongi eginak erakutsi dizkigute eta zenbaitzu balio haundikoak.

Billantziko abestietan kantariak bi balletan berexi dituzte, haundiak eta txikiak.

Haundietan. Irabaztaleak...	Irurite-ko eskolakoak.
Bigarrenak	Elizondo-ko Ikastolakoak.
Irugarrenak	Arizkun-go eskolakoak.

Txikietan...	
Lehenbizikoak	Almandoz-ko eskolakoak.
Bigarrenak	Elizondo-ko Ikastolakoak.
Irugarrenak	Irurite-ko eskoletakoak.

Ipuietan, aipa ditzagun euskaraz idatzitakoak. Sariketa hontan 110 lan eginak dituzte eta hoietatik 60 Arizkun-dik igorriak. Horrek badu merezimendu. Zorionak arizkundar aurrei.

Sariketaren irabaztaileen izenak:

Lehenbiziko Saria. "ONTASUNEZKO KUTXE BAT".

Jose Mari Iriarte.	12 urte.	Lamierriteko eskolakoa.
Bigarrena. "KONTUA".		
Felisa Ugarte.	13 urte.	Arrayozko eskolakoa.
Irugarrena. "GABON".		
Ceferina Atxa.	13 urte.	Almandoz-ko eskolakoa.
Laugarrena. "AMETS EDERRA".		
Juliana Iriarte.	14 urte.	Amayur-koa.
Bostgarrena. "KONTUA".		
Miren Larralde.	9 urte.	Arizkun-go.
Seigarrena. "ITXU ABILA".		
Jose Mari Menta.	12 urte.	Arizkun-go.
Zazpigarrena. "PATXI TA IÑAKI".		
Martin Mari Plaza.	14 urte.	Lekaroz-koa.
Zortzigarrena. "EGUBERRI KONTUA".		
Maria Luisa Jaimerena.	14 urte.	Ziga-koa.
Bederatzigarrena. "BEHARREZKO LAN BAT".		
Miguel Barrenetxe.	10 urte.	Azpilkueta-koa.

Zorionak aur euskaldun guzieri eta beren gurasoeri, hor ageri bait-da Baztan alde hontan gure mintzaira oraindika indartsu dagola. Jarraiki hortan eta datorren urtean gehiago.



Anzanarri

Principe de Viana, 1973, urtarrila, 3. orr.

## SOKA-TIRA

Martxoaren 19 an San Jose egunakin, Baztango soka-tira Xapelgoa egin zuten Elizondon. Xapelgo hau "C D Baztan" deitutako batasunak antolatu zuen eta nor-gehiagoka hortan Baztango herrietako sokatirariak ari izanak dire. Zortzi ekipa beren indarrak negurtu beharrez: Elizondo A, Elizondo B, Erratzu, Oronoz, Amayur, Almandoz, Gorramendiko "Air Force" ko amerikanoak eta "Aviacion" eko soldadoak. "Iriarte" pilota lekua bete bete yendez 1500 ikusliar bildu zirelarik. Mai-Buruan Baztango Balleko Etxeko Aintzindariak, Nafarroako Federaziokoak eta Xapelgoaren antolatzaleak. Zortzi ekipeen artean zozketa egin ondorean, lendabiziko sayoa Erratzuar eta "Aviacion" ekoei suertatu zitzairen eta Erratzuarrek bi tiraldiak airez-aire irabazi. bigarren ekiñaldia Amayur eta Elizondo B eta Amayurtarrak bi tiraldietan irabaztale bainan ez aisa, tiraldi batek minutu bat eta amalau segundu iraun zuelarik. Irugarren borrokaldian Oronoz eta "Air Force" koak eta Oronoztarrak bietan aisa irabazi. Laugarren gudukaldia izan zen atakatuena. Almandoz eta Elizondo A beren indarrak ederki probatu zituztela. Bi taldeak itraldi bana irabazi zuten eta bertze bat egiteko lana izan zuten. Irugarren hau ikaragarria izan zen eta azkenean Elizondarrak irabaztale minutu ta amairu segundoen borrokaldia egin ondoren.

Lau talde pasa ziren final-erdietara: Elizondo A, Amayur, Erratzu eta Oronoz. Bortzgarren eta seigarren puestorako Almandoz eta Elizondo B aritu ziren eta Almandoztarrak irabazi eta zazpigarren eta zortzigarrenerako "Aviacion" eta "Air Force" eta amerikanoak garaille. Bi sayo hauek egin ta ondoan final-laurdenak yokatu ziren. Lehenik Elizondo A eta Oronoz eta bi tiraldietan Elizondarrak irabaztale. Gero Erratzu eta Amayur eta talde bakotxak tiraldi bana irabazi. Irugarren tiraldia Amayurtarrek irabazi zuten bainan neke aundiarekin. Tiraldi hau izandu zen denetan luzeena minutu ta 34 segundu iran zuelarik. Hemen indarrak berdintsu agertu ziren eta yendeak txalo ta esku-zarta aundiak egin zituen Erratzuar ta Amayurtarren ohoretan.

Irugarren eta laugarrenerako Erratzuarrak eta Oronoztarrak. Borrokaldi huntan ere talde bakotxak tiraldi bana irabazi zuen eta irugarrenean Erratzuarrak garaille.

Gero azkenengo sayoa Elizondo A eta Amayur. Elizondarrak bi tiraldietan irabaztale, Baztango Sokatirarien Xapelgoa bereganatuz. Elizondo A ohore guziekin Xapeldun.

Zorionak Xapelduneri eta bai bertze gañerako guziei ere, denek erakutsi bait-dute beren indarra eta kemena. Denei gure goresmen bizienak.

Gero Sarien-banaketa egin zuten, irabaztaleek eta bertzeek ere Sari ta "Trofeoak" izan zituzten eta yendeak txalo ederrekin bere bozkarioa erakutsi zuen.

Talde zaharrena Elizondo A denen artean 288 urte (banaz bertze 36 urte) eta gazteena "Aviacion" 168 urte (banaz bertze 21 urte). Talde pisuena Erratzukoa denen artean 811,5 kilo eta sokatirari guzietan pisuena Erratzukoa ere, Franzisko Elizetxe 21 urte eta 114 kilo.

Besta guziz ederra eta yendea kontent. Eztugu utzi behar aipatu gabe Azpilketako dantzaritxikiak eginikako dantzaldia. Tiraldien tartetan dantza politak erakutsi zizkiguten Maurizio ta Pelix soñulari zituztela. Baita ere Baztango gazteek Mutil-Dantzak dantzatu zituzten.

Zorionak bestaren antolatzaleeri.

Anzanarri

Principe de Viana, 1971, apirila, 4. orr.

## SUNBILLA

Joan den igande Otsailaren 18-an egun gogoangarria Sunbilla'ko "INTXITXU" antzerki taldea eta Agirre eta Mattin bertsolariak ari izanak direlarik.

Besta hau Sunbilla'ko Eliz berritzearen laguntzarako izan da. Eliza zaharra ederki konpondu dute orai argi eta garbi agertzen zaigula, hortarako herritar guzietan zaletasun haundiarekin lagundu dutelarik. Jende aunitz Sunbilla'ko frontoiean eta denak kontent eta bozkarioz beterik bertsolarien eta antzerkilarien eginkizun zoragarriekin.

Agirre eta Mattin bertsolari famatuak berek dakiten bezala bertso jostakin eta atsegingarrietan ari izanak dira, entzule guzietan agurtuz, Sunbilla'ko Eliz aipatuz, sunbildar jendea goretsiz eta gai-emalearen aginduak zoragarritzko bertsoetan kantatuaz. Oiartzun-go "INTXITXU" taldeak "ARALAR" izeneko Pastural gisako antzerkia erakutsi ziguten, Goñi'tar Teodosio zaldunaren kondaira ederki agertu zutelarik. Oiartzuar teatrolariek Pastural honeri ematen dioten bizia guzietan hunkigarria da, euskara herrikoa eta garbia darabilkitelarik eta hortaz gainera kantuak, dantzak, elkar-izketak eta antzerkiari ematen dioten bizitasuna zinez gustagarriak dira "ARALAR" kondairari ohore handia egiten diotelarik.

Pastural izeneko antzerki hoiek Zuberoan sortu dira hango Pasturalak ospe ta arrakasta handia dutelarik, ikusgarri hoietan Euskal-Herriko kondairak eta gertakizunak agertze dituztenak eta garrantzi handikoak. Orain Oiartzun-go "ANTXITXU" TALDEA hasi zaigu lanterekin hortan eta merexi luke kontuen hartzea, Nafarroa'ko herri haundixkoetan Pastural hoiek erakutsi behar lirazke jendea ohartu dadin euskal teatroak zenbat balio duen eta zer mesede egin lezaken gure herriaren kulturari.

Gure Diputazioak asmo onak ditu gure Herriko euskal-kulturaren alde ahal den guzietan egiteko eta euskal besta hoiek, antzerkia, bertsolariak, ikastolak eta abar Diputazioaren babesean daudelarik eta eragozpenik ez izatearekin lotu gaitezen lanterekin hortan gure Herriaren kulturaren alde gure sor-lekuaren nortasuna gorasko joan dadin

Zorionak Sunbilla'ko jai horren antolazaleari eta gure goresmen bizienak "INTXITXU" antzerki taldeari.

Anzanarri

Principe de Viana, 1973, martxoa, 7. orr.

## URTAIN EUROPAKO TXAPELDUN

Urtain gure boseolari euskalduna Europa'ko Txapeldun. Zorionak. Joan den Apirilaren 3'an Madrilleko "Palacio de los deportes" deitutako lekuan arizanak dira, Weiland alemana Europa'ko boseolarien txapelduna eta gure Urtain. Telebistaren bidez España guziak eta bai Europa ta Amerika'ko yendeak ere ikusi dute borrokaldi hau eta Uratin'en garaipena. Ogeitabortzgarren borrokaldia eta ogeitabortzgarren gizona anka-z-gora botatzen duena. Orain aarte ezta izan munduan Urtain'en marka egin duenik, urte terdi boseoan hasia ta Europa'ko Txapeldun. Arrigarria.

Borrokaldi atakatu izandu zen, Weiland alemana boseolari bizkorra 105 kiloko gizon aundia, Jose Manuelek baño 17 kilo gehiago, luzeago eta boseoan ere gehiago dakiena, ezker bildurgarria ezker izanik eta ainbertze gizon lurrera bota dituen. Mutiko koxkor bat ematen zuen Urtain'ek alemanaren ondoan, baina halare gure Jose Manuel'ek han erakutsi zuen bere ukumilen indar ikaragarria, bere zaulitasuna eta kuraia eta bai bere yakitatea ere. Weiland alemana 105 kiloko gizon puska lau aldiz bota zuen lurrera, lenbizikoan, bigarrenan, irugarrenean eta azkenik laugarrenean KO utzirik. Bostgarrenean eta seigarrenean Urtain aunitz nekatu zen eta bai larri larri ibili ere. Weiland'ek gibelean jo zion kolpe ikaragarriak min eman baizion, eta hura hartuta zutik iraun zuelarik ezta beratza gure gizona, aski zalla ta bizkorra baizik. Bertze edozeñek etzuen iraunen baina bai gure Uratin'ek. Gero zazpigarrenean berriz indar-berriturik hasi zitzaikun eta orduan bere kontrarioa bi zartakoz bota zuen lurrera KO utzirik. Urtain Txapeldun.

Urtain boseoan hasi zelarik inork etzuen sinetsiko bi urte baño lehen Europa'ko boseolarien Buru izenen zela baina hor dago egia, ogeita bortz gizon anka-z-gora bota ta ondoan Urtain Europa'ko hoberena ta Txapeldun. Orain gure gizonak behar luke bere burua ongi zaindu eta gehiago ikasi. Aurrera Jose Manuel, goazen munduko Txapelaren billa.

Anzanarri

Principe de Viana, 1970, maiatza, 4. orr.

## URTAIN

Gure boseolari euskalduna badoa aurrera. Joan den Harazoaren ogeitabian Erroma'ko iri famatuan bere ogeitabigarren kontrarioa porrokatu du. Ogeitabi borrokaldi eta ogeitabi garaipen, ogeitabiak ankaz-gora bota dituela. ¡Beharko. Urtain'ek ongi arrapatu ezker!

Gure euskaldun boseolariaren kontraio guziak borrokaldia egin baño len onak omen dira eta hoietako asko lehen-mallako boseolari onekin neurtuak. Bezperan ain onak direla ta borroka biaramunean "pakete" bat bartzerik ez; ala diote zenbaitzuk, orai arte Urtain ekin yokatu diran guziak deus ez direla eta dena "tongoa" dela, bañan hoiek ergelkeriak eta bekaizkeriak dira hola mintzatzen direnak bere griña txarra agertzen dute, bertzeen ongia ezin eramana. Urtain aurrera doa eta aren baitan uste osoa dugu, 200 kiloko arria bizkarreraño jasotzen duenak badu indarra eta horren ukaldia nai ta naiez aundia behar du izan eta boseolari batentzat indarra ta zartako aundia dira bere lagunik hoberenak. Gañera gizon zaulia da eta bozeroan ongi ikasten badu, dudik eztago munduko hoberenetakoa izango dela.

Oraindikan amaika "pakete" bota beharrak aidian, hoietatik gelditzen balin badira beintzat, eta hoiien artean Europa'ko onenak ere barne direlarik. Norbaitek irabaziko diola? Hori ere bai, nik ez dut ukatzen, mundu hontan beti izaten baitira "Yaunaren Yaunak" bañan oraindika ez dugu hori ikusi.

¡Aurrera José Manuel!

Anzanarri

Principe de Viana, 1970, urtarrila, 4. orr.

## "UZTAPIDE" IDAZLE

Noizpehinka, gure bertsolari famatuen bertso saioak agertzea, irakurleentzat atsegingarria izango dela iduritzen zait. Denok dakigunez, Uztapide bertsolarien Txapelduna aspaldi hontan ez da bertsotan aritzen eta, baditu iadanik iru urte, lan hoiak utziak dituela. Gure bertsolari ospetsua osasunez ez dabil sobera ongi, eta bere burua ongi zaindu behar. Horretaz, bertso lanak eta egiten zituen ibilaldiak alde batera utzirik, ongi merexia daukan atsedena hartua du. Bertsoak utzi eta, oraingoan, euskal-idazle bezala agertzen zaigu gure bertsolari aundia.

Bi liburu eder idatziak ditu bere bizitzari buruz, "LENGO EGUNAK GOGOAN" izen-buruakin agertzen direlarik. Interesgarria da bere lana eta merezimendu aundiko gainera; merexi du irakurtzea. Hor garbiki agertzen ditu bere bizitzaren gora-berak, nola ibilia den sortu zanetik hasita orain arte. Bizi beharrak nola mugiarazten zuen gazte denboran bortizki lanean ari izanez. Gerra aurretik hasia zen bertsotan eta hala, 1936 garrengo urtean ospatutako Bertsolari Txapelketan, Bigarren Saria bereganatu zuen. Txapelketa hontan "Txirrita" famatuak eraman zuen Lenbiziko Saria. Geroztik, eta ogeita amasei urtez, ari izana da bertsotan Euskal-Herriko zazpi probintzietako plazak kurrituak dituela eta bai noiz baitere Paris-en ere ari izana delarik. Bertsolari bilgura aundietan, omenaldietan eta Txapelketetan beti aintzindari, iru aldiz Txapeldun atera delarik, 1962, 1965 eta 1967-ko urtetan.

Bi liburuetan, eta xehetasun guzietan, hor agertzen ditu bere ibilaldiak. Zenbat milla bertso kantatu ote ditu bere denboran. Nafarroan ere herri askotan ibilia da, bere jakinduria erakutsiaz, erakaspem onak emanez, entzule guzietan atseginez betetzen zituela. Bere kontakizunetan erraten dauku Nafarroako zenbat herrietan ari izan da bertsotan. Hemen herrien zerrenda: Goizueta, Leitza, Gorriti, Areso, Atallo, Arribe, Lekunberri, Arruiz, Etxaleku, Gartzaron, Ultzama'ko Bentan, Almandoz, Berroeta, Elizondo, Arizkun, Erratzu, Zugarramurdi, Oronoz, Mugaire, Legasa, Doneztebe, Zubieta, Sunbilla, Aranaz, Igantzi, Bera, Lesaka eta Iruñan.

Herri hauek guzietan kantatu du gure Uztapideak, batzuetan lagun batekin eta bertzetan bertsolari talde batekin ere. Ez da aritu herri bakotxean behin bakarrik, askotan ari izana da eta zenbait herrietan zazpi eta zortzi aldiz ere.

Gaur agertu behar dugu Uztapide eta Mattin-en arteko bertso saio bat, behin batez Elizondobn egin zutena. Gai emaileak agindurik gisa hontan modatu zen auzia:

*UZTAPIDE, herriko apeza beti konseju onak ematen ari dana.  
MATTIN, neskatxa gaztea dantza gustatzen zaiona.*

### **Uztapide**

Enuke nai gaztiak  
ibiltzia triste,  
ori eskatzen dedanik  
etzazula uste,  
beti etzera izango  
orain bezin gazte,  
zartutzia-re eldu  
biar zaizu laster.

### **Uztapide**

Dantza onak beti-re  
libre badirade,  
apaizak orren kontra  
inoiz ez gerade,  
ongi dibertitzia  
guztientzat obe,  
dantzan egin liteke  
pekatu rik gabe.

### **Uztapide**

Ondo dantzaten daude  
sekulako lanak,  
badira orain gogor  
lotutzen diranak,  
ortik galdutzen dira  
neskatxaren famak  
dantza klase ori etzun  
eiten zure amak.

### **Mattin**

Uste dut ai zirela  
bide zuzenian,  
eta gonbertituko  
naiz ni azkenian,  
baina orai emen nago  
gazte sasoinian,  
zu segituko zaitut  
zartzen naizenian.

### **Mattin**

Neska gaztia niz, baña  
nai dut esplikatu,  
hunen erraitera naiz  
gaur deliberatu,  
lengo zarretatikan  
beti dut aditu,  
oneski dantzatzia  
ez dela bekatu.

### **Mattin**

Amak ola iten zuela  
etzaut iduritzen,  
baña lengo modak dira  
lengoan gelditzen,  
gaurko modak baitira  
bai usu berritzen,  
apezak ere ez dira  
gaur berdin bestitzen.

Anzanarri

Principe de Viana, 1975, otsaila, 4. orr.

## XALBADOR'I OMENALDIA

Buruilaren 21'ean Donostia'ko "Astoria" deitutako antzokian, bertsolari besta eder bat ospatu zuten. Igaz Uztapide'ri bezala aurten Xalbador'i egin diote omenaldia eta ongi merexia halare. Mundu bat yende bildu zen urepeldarraren ohoretan eginikako besta hortara, hor ageri baita baxenabartar koblaria euskaltzale guziek maite dutela eta denek beren biotzetan daukatela. Bestaren zuzendaria Basarri izan zen eta Matxain gai-emale. Amar bertsolari arizanak dira: Uztapide, Lasarte, Lazkao-Txiki, Mitxelena, Arotzamina, Gorrotxategi, Lizaso, Garmendia, Lazkano eta Mattin. Bertsolarien kantaldia ederra eta hunkigarria izandu zen. Lehenik Xalbador'en ohoretan maitasunezko agurrak eginik urepeldar bertsolaria goraiatzan zutelarik. Gero bakarka eta bidenazka gai politak erabiliaz; denek beren ahalmenak ongi erakutsirik. Yendeak beren bozkarioa eskuzarta ederrekin agertu zuen. Azkenean Xalbador'ek bi bertso hunkigarriekin eta denei eskerrak emanaz kantaldiari bukaera eman zion. Gero Donostia'ko "Turismo Etxea"ren ordezkariak ohorezko edergailu bat eman zion Xalbador'i, bere omenaldi egunaren oroitzapena betiko izan dezan.

Besta eder hau. Gernikako Arbola kantatuz bururatu zen. Egun gogoangarria bertsozaleentzat.

Zorionak Xalbador bertsolariari eta gure Yaunak urte aunitzez kontserba dezala.

Datorren urtean Yainkoa lagun, Lasarte bertsolariari egin behar omen diote omenaldi hori bera, yaz Uztapide'ri, aurten Xalbador'i eta datorren urtean Lasarte'ri eta gisa hortan urterik urte bertsolari bateri, hala egin behar omen dute eta ongi iduritzen zaigu. Hartu ditzatela bertsolari guziek gure goresmenik maitekorrenak.

Anzanarri

Principe de Viana, 1969, urria, 6. orr.



## XXX PILOTA TXAPELKETA

**Bigarren mallakoak: Retegi II, 2; Gartzia Ariño, 10**

**Lenbiziko mallakoak: Retegi I, 22; Lajos, 14**

### Retegitarrak txapeldun

Erasun-go herriak baditu bi Txapeldun, Retegi osabe-illobak. Ohore aundia euskaldun herri batentzat eta batez ere Retegi familiarentzat. Gure zorionik maitekorrenak osaba-illobari eta familia guziari.

Apirila'ren 20-ean Eibar-ko "Astelena" frontoian jokatu zuten bigarren mallako Azken-Partida, Gartzia Ariño eta Retegi gaztearen artean. partida hontan 20 urteko erasundar gazteak erakutsi ditu pilotari onaren doaiak Ariño bizkaitarra menperaturik 22-10. Garaipen honekin Julian Retegi'k erdietsi du bigarren mallako pilotarien Nausigoa.

Maiatza'ren 11'ean Donostia-ko "Anoeta"n lenbiziko mallako Azken-Partida bi nafartarren artean Ignazio Retegi eta Julian Lajos nor-gehiagoka. Erasundarrak 31 urte eta ultzamarrak 35, biak sasoi ederreko gizonak.

Aurten ere Ignazio Retegi berriz Txapeldun eta honekin seigarren aldia. Aurtengo "Txapel" honekin berdintzen du Hilario Azkarate bizkaitarrak egin zuena, sei aldiz Txapeldun. Orain Azkarate'k bezala Retegi'k ere sei "Txapel" eskuratu ditu. Erasun-go herria pozik egoten ahal da bi herriko semeek pilotarien Nausigoa erdietsi dutelako. Pilotarien kondairan behinere gertatu ez dana. Ohore Retegi'tarrerri.

Azken-Partida honek jendea mugiarazi du "Anoeta" teilaturaino bete delarik. Yar-lekuak eta zoko guziak beteak eta jendea ezin kokatuz. Bi pilotari nafartarrak dakiten eta daukaten guzian eman dute. Partida holaxe joan zen:

Lajos'i lenbiziko sakea suertatu eta halare trabesak 1.000-600 ri erasundarraren alde. Bi lenbiziko puntuak Retegi'k bereganatzen ditu 2-0 eta trabesak 1.000-400 ri. Lajos-ek berehala berdindu 2-2. Partidaren lenbiziko eta azken adostea. Retegi sasoi ikaragarrian kolpe batez amar puntu irabazten ditu 12-2 eta dirua 1.000-90 ri. Arrabots aundia plazan, Retegiren aldekoek beren garaipena segurutzat jotzen dute baina Lajos gizon zalla baita hau ez da aisa humilduko eta hala honek ere puntu andana bat eginik goiti doa 12-7. Trabesak beti erasundarraren alde eta oraingoan ere dolean 1.000-500 ri. Retegi'k berriz ere erakusten du bere ahalmena eta puntu parrasta bat eginik garaipenaren bidea erekia dauka. 19-7 bere alde eta dirua 1.000-70 ri. Retegi'k "Txapela" esku-har du eta aisetasun aundiarekin ari da, baina ultzamarrak ez du amor eman nai eta kurai aundiarekin guduari bortizki loturik lau puntu beretzen ditu 19-11. Dirua 1.000-200 ri. Orain Retegi'k bat eta Lajos'ek iru. 20-14. Lajos hor geldituko da eta Retegi'k falta dituen biak eginen ditu partida irabazirik eta berriz ere merezimendu guziekin "Txapela" eskuraturik, 22-14. Bi pilotariak besarkada maitekor batean lotzen dira eta jende guzia zutik esku-zartaka bi pilotarien ohoretan.

Partidaren iraupena 50 minutu. Bi pilotarien artean 169 joaldi oneratuak. Retegi'k saketik 6 puntu eta Lajos-ek 2.

Xanti Mendiluze jaunak ezarri zion Retegi'ri "Txapela" eta Federazio'ko Aintzindari Nausiak eman zion Txapeldunaren "Trofeo" delako oroigarria. Lajos'ek ere hartu zuen bere Edergailua.

Zorionak bi pilotarieri.

Anzarri

Principe de Viana, 1975, maiatza, 6. orr.

## ALFABETATZE IKASKETAK AURRERA

Ioan den igande batez Donostian bildu zen EUSKALZAINDIA-ren babesean, giputz eta bizkaialdeko herri zenbaitetatik etorritako gazte multzo bat. Jaieguneko jostakeriak erdeinatuz eta bazter utzirik, euskeraren aldeko lan zerbait egin naiez. Markina eta Gernika bezain urruneko tokietatik Donostiara etortzea, ikasgela otz batean biltzeko, ezta auntzaren gauerdiko eztula.

Nafarroako euskal herri batzuetako gaztek, halako izpiritua balute, beste txori batek joko liguke, erraten den bezala; eta Nafarroako euskera illunduak kukurruku egiteko moduan paratuko zela gaude.

Baina aitzin-prediku luze hau utzirik, zer dea ALFABETATZE bitxikeria hori?

Lehen ere mintzatu gara hortaz hemen, eta norbait oroitu da, dudarik gabe, hitz horrek euskal gazteeri euskaraz irakurtzera eta leitzera irakastea, erran nai duela.

Alabainan, Nafarroako herri horietan euskara bada, eta euskaraz irakurtzeko eta leitzeko paperak ere bai, ausarki; baina gazatxo bat falta du gazteriak; bihotza. Iruñeko hirulau milla euskaldunik geienek bezala; euskaldun agertzeko kemena. Ez ote dute bada, gaztek apezari eskatu Larraungo herrixka euskaldun batean, euskarazko predikuak utz ditzala?

Eta bestalde, zer makurkeriak gertatzen ari dira SAKANA-ko herrixka bateko aur euskaldunen Eskolategian? Baina, gu ixiltzea obe, mintzatu behar litakena ixilik badago.

Utz ditzagun, alabainan, zorigaitz horiek, eta goazen berriz ALFABETATZE gazte multzo harengana. Hogei bat gazte adoretzu, neskatxa eta mutiko, bildu ziran, gero bakotzak bere herrian nola joka jakiteko, hango gazteeri euskaraz irakurtzen irakasteko.

Euskalzaindiaren izenean zagonak agur egin zien gazte horieri, agur bero bat, esanez ALFABETATZE hori gure euskal pizkunde xume hontan, egiteko premiatsuena dela, ikastolakoarekin batean.

Ez bide zuen horrekin nai, euskara idatziaren ondorioz gure mintzaira piztuko dela, esan; mendez mende izkiriaturik izan gabe bizitu baita, eta egun bertan euskara idatzia baiño premiatsuago da euskara mintzatua; hau ezdugu iñoiz ere gogoetatik galdu behar.

Bainan bizitza modernoan, Eskolategian, ikastoletan sartu beharra dela euskera, Ministroak berak onartua da; hortaz gainera gazteeri ere, aundiagoeri, irakurtzera irakatsi behar da, euskal liburuak imprimatuko ba dira. Irakurlerik gabe ezta liburu izkiriaterik. Euskaltzaindiaren xedea oraikotz, irakurleak egitea da, euskara idatziaren batasuna bazter utzi gabe.

Batasun horren aldera abiatzeko berriz, gibelerat behiratu behar da, ez aurrera; idazlari zaharrak autatu behar dirala, alegia, maiz esana den bezala, eta ez modernoak, giputz euskalkian berziki; eta berdin nafar-lapurtarrean eta bestetan ere; askoz batasun alderago daudelako AXULAR, **Ioanes d'Etxeberri** edo **Iturriaga** eta Gregorio ARRUE, oraiko idazlariak baiño.

Irakurtzera irakasteko liburuxka egoki bat badugu. **Echenagusiak** argitaratu bi Antologia, giputz eta bizkai prosistenak; hor autatu behar dira autore zaharren artean, errezenak, garbienak, herrikoienak, denak ezpaitira berdin:

Gaia motela bada eztu axolik; gaiari ez baina izkuntza garbia ikasteko ari gara.

Badakigu herriren batean gazte batzuk ALFABETATZE multzo bat abiatzekotan daudela; agian ba, eta behar luketen laguntza etzaiela faltatuko ere badakigu.

Multzo horietan edozein kokatzen ahal da, euskera maite duen ber; ezen Pompeu FABRA catalan jakintsu, eta iztegia haundia eta bere izkuntza bateratu zuenak zion bezala:

“el pueblo está convencido siempre, de, que defender la lengua y la cultura (catalanas) es compatible con cualquier posición política”.

A. Apat Echebarne

Principe de Viana, 1969, martxo, 1. orr.

## AURREN TXOKOA

### **KUKUKA**

Mutikoen arteko BETE nor izango jakiteko, haietako batek, bere inguruan, biran dauden bakoitza ukituaz, itz habek esaten ditu:

**Dobela dobela  
Kina kina  
Eskola erregina  
Konsedina  
Bina bin  
Beko argin  
Sala manka tripili trapala  
Aingeru guarda. Paratidama.**

Azkeneko itz-puntta (MA) tokatzen zaiona izango da BETE.

Hau horma baten kontra jarriko da, baiña bere inguruan zer gertatzen den ezin ikusi ahal izateko eran.

Eta gaiñerako mutikoak, bakotxa bere xokoan izkutatzen diran bitartean, BETE dagonak izkimizki habek esango ditu:

**Kuku miku xaldariku  
Txoriak umeak egin ditu  
Non, non?  
Aritzaren galdurruan  
Tin-tan, bazinate?  
Ein eztena bera bete.**

Beste izki-mizki batzuk badira.

**Kiriketan, koroketan  
Eperrak xokoetan  
Aingirak konketan  
Bazaote?  
Ein eztena bere bete.**

Izki-mizki hoi en ordez, batzutan beste habek ere esan oi dira:

**Kiriketa kaiku  
Portua zeli, zangoa mee,  
Lepoa lodi, kuku bada?**

Bukatu ta, “Uh-uh-uh”!! erantzuten dio, eta bat ikuskatzen duenean (BETE dagonak) KORTE BAT! Oiur egingo du, eta KORTE BI! , bi ikuskatzen baditu.

Beste iñor geiago ikuskatzen jarraitu nahi ezbadu, azkeneko ikusi duenaren izena esanarekin batera, KORTE TA BETE! Oiu egingo du.

Ikuskatuaren izena oker ematen badu (Kontramintzo), oiur egingo diote eta berak jarraituko du BETE EGONEZ, naiz eta beste izen batzuk zuzen esanak izan arren.

Billaketa luzea baldin bada, izkutuan daudenak jokoak amaitu dazakete (Kurikitua), oiu egin eta gaiñera irrintzi alaiak botatzen dituztela (gai beretik gero ere).

### **ETXEAN EDER AINTZURRA**

Joko au Urdazubin (Urdax) bildua. Bete bat aukeratzeko leen aipatu ditugun eraren bat erabiltzen da. Bete delakoaren inguruan daudenak pareak eta bat gehiago izango dira; eta danak batera auxe kantatzen dute, elkarri eskua eman eta biraka (inguruka) dijoazten bitartean:

- 1) Etxean eder aintzurra
- 2) Artzain zanga-makurra
- 3) Herri huntako historian partez
- 4) Enganatzera bere ama
- 5) Heken gainean, hoken gainean
- 6) Bakotxak arrrapatzera
- 7) Bere laguna

Azkeneko itza (laguna) kantatu bezain laster, bakoitza lagun bateri eltzen salatuko da, eta bakarrik (lagunik gabe) gelditzen dana izango da hurrengo Bete, jolasa (Josteta) berriro asiaz.

A. Apat Etxebarne

Principe de Viana, 1969, ekaina, 5. orr.

## BIBLIOGRAFIA-EUSKERA-METODO BERRIA

A. Patxi Altuna, Donostiako E.U.T.G. delako Irakasle trebeak, EUSKERA, IRE LAGUNA izenakin euskera Ikasbide pollit bat argitaratu du berriki. Bere 261 orrialdetan alderdi berezi bat erakusten du: ikasgai eta ariketa edo etsezizio guztiak euskaraz txoilik dauzkala, gramatika esplikazionerik gabe. Tituloa edo izenburua ere euskara utsik dakarra.

Esaldi laburrekin asten da, guttika guttika aurreratuz gaiak, errezenetik eta gaitzagoetaraiño: euskera herrikoia derabilla, ede edo izen bat edo beste gora bera. Metodo parrasta bat badugu gaurgoiti, baina geienek itxurazko euskera bat irakatsi izan dute. Hortik makurbide bat heldu da: ikasle berriak, herriko jende arrontakin eleketan asi nai duenean, ongi ulertzen ez zaizkon hitzak sartzen dituela, bera konturatu gabe. Hola, 50 urteen buruan, jende eskualdun garbi askok uste dute eztaikitela euskaraz.

Metodo hau ezta horrelakoa, eta hau egiztatu daiteke, azken 31 orrialdetan dakarran iztegiñoa ikuskatuz; hitzik geienak arrontak dira, euskaldun utsek ulertzen aal dituztenak, *zizku, xingola, sal-maai, koillara, karta-kutxa* eta halako barne. Beste hitz jatorrak: *aamen, karrika, egunkari, aireko*, sartzen ez ditu egilleak. Baina funtsean uste dugu arrakesta izanen duela, eta hala opa diogu, EUSKERA, IRE LAGUNA daritzan Metodo berriak.

Apaingarri egokiak ditu liburuak: ariketa bakotxaren gaiari dohazkon irudiak horrek aunitz lagundu dezakeio ikasleari; ele zenbait, haatik, geienen aburuz finkatu behar lirakela gaude, batasunaren karietara (*kartazala, barazki, erre = prexitu...*). MENSAJERO Bilboko moldiztegian xarmanki moldatu liburua.

A. Apat Echebarne

Principe de Viana, 1967, azaroa-abendua, 8. orr.

## BILINGÜISMO EN PAÍS DE GALES

Generalmente estamos inclinados a considerar el problema del bilingüismo bajo el prisma de nuestro país vascofónico, o a lo más del catalán. Respecto al último, queremos incluir en esa denominación que es restrictiva para algunos (así en singular) también a Baleares y Valencia que tienen la misma lengua y similar problema, a pesa de las variedades dialécticas.

Ahora que parece que se tiende a favorecer la enseñanza de la lengua minoritaria, oficialmente, en especial por nuestra ilustre Diputación Foral, son de interés noticias sobre tema tan controvertido.

En esta parte de Europa se ha solucionado el problema del bilingüismo en **Suiza, Yugoslavia, Bélgica, País de Gales** (Gran Bretaña), **Holanda**, y en parte de los países germánicos y escandinavos.

Vamos a referirnos sucintamente al estado de la enseñanza en **Gales**, cuya lengua es totalmente distinta del inglés, y hablada por medio millón de personas, de un total de dos millones y medio. La población que conserva su idioma esta diseminada en pequeñas ciudades, aldeas y caseríos, mientras que en las zonas meridionales muy industrializadas, se habla el inglés; aunque también hay escuelas oficiales para la enseñanza del galés.

Los datos que siguen, son los proporcionados por el profesor de Educación de la Universidad galesa de Aberystwith, J.L. Williams.

El idioma nativo ha ido perdiéndose, en el siglo pasado sobre todo, de forma parecida a como ha ocurrido en nuestro país; pero de 1901 a 1961, aún se ha reducido a la mitad el número de los anglo-parlantes que han aprendido el galés.

Según los estudios del citado profesor, un niño tiene parecida dificultad en dominar un idioma que en hablar dos; y no está demostrado que la instrucción primaria en galés haya sido una rémora para el aprendizaje del inglés. Por el contrario, está demostrado que muchos niños que asisten a una escuela bilingüe progresan más que otros que acuden a una monolingüe; sin que se pueda generalizar.

Puesto que depende del método empleado en la enseñanza del idioma, de la vocación y atracción personal del maestro, así como de la capacidad del niño. Se olvida muchas veces que el éxito de la enseñanza no depende tanto de la sabiduría del profesor como de su acierto y simpatía, que se traduce por la acogida que le hacen los alumnos.

Hace cuatro siglos que el pedagogo checo **Comenius (Komensky)** predicó éstas y otras cosas de sentido común, para muchos inútilmente.

Hace 100 años en Gales, la situación bilingüe era considerada de transición, ya que la lengua nativa debía ser absorbida por la de cultura en dos generaciones, este sentimiento era compartido por los mismo galés-parlantes, a pesar de tener un idioma de muchos siglos de rica tradición literaria.

Es fenómeno reciente el deseo, llevado a la práctica, de los padres de la clase media, de que sus niños aprendan el galés.

Aquella actitud respecto a las lenguas minoritarias era general en Europa durante el siglo XIX, pero en el actual casi todos los Estados han cambiado hacia una disposición de protección y ayuda, como hemos indicado arriba.

En el año 1874 se dictaron ordenes en **Gales**, condenando el uso del galés en las Escuelas y afirmando que su uso era una rémora para el pueblo galés.

Cien años más tarde, en 1948, el Gobierno (laborista) publicó los grandes avances realizados desde entonces.

Hace un siglo, decía, tres delegados gubernativos denunciaban la nefasta influencia del idioma galés sobre el progreso económico y moral de dicho pueblo. Hoy esta postura es



insostenible, sigue el ministro, y creo que el lenguaje, la historia y las tradiciones de **Gales** son herencia inapreciable de todos los niños galeses.

También el eminente escritor T.S. **Eliot** manifestaba que dejando morir el galés se causaba pérdida no sólo para la cultura de **Gales**, sino para la de Inglaterra; opinaba que era extremadamente difícil mantener las características nacionales de Gales, permitiendo la desaparición de su lengua. Era la voz de un espíritu progresivo del siglo XX; muy diferente de la del escritor del siglo XIX **Mathew Arnold** que escribía: “No son verdaderos amigos del pueblo galés los que, por romanticismo, obstaculizan un progreso tan deseado social y políticamente. Turistas y comerciantes rinden un excelente servicio, al empujar hasta el mismo centro de Gales, la frontera lingüística del inglés, apoyados por la presión de los ministros de Educación en las Escuelas elementales”.

Esos son tiempos pasados, en que el galés era despreciado y abandonado por muchos de sus poseedores. Se ve que parecidas circunstancias se han dado en nuestro país, que ahora parece se van modificando.

**JK.L. Williams** dice estar convencido de que no se puede salvar un lenguaje cantando himnos y viejas canciones solamente; sino planteando la base de una raciocinio práctico y de una sana planificación. No acepta un **Gales** de lengua única galesa, que algunos aún defiende su lengua vernácula (aún los que no la hablan) junto a la más culta de ámbito internacional con fines utilitarios.

Esto ocurre no sólo en Gales, sino en los países escandinavos y otros, que son casi totalmente bilingües, por espíritu pragmático y universalista.

La idea un tanto pedestre, de un lenguaje para todo el mundo, está hoy abandonada y sustituida por el bilingüismo.

Incluso en zonas donde ya no se habla galés, hay tendencia a poner nombres galeses a sus casas, a sus hijos, a las calles de sus ciudades; esta circunstancia también se repite en otras partes, como el lector conoce muy bien.

A. Apat Echebarne

(“Diario de Navarra” egunerokotik hartua)

Principe de Viana, 1971, maiatza, 2. orr.

## BOTANIKA EUSKARAZ

Euskaraz baditugu Botanikako iztegi zenbait, LAKOIZKETA-rena bat, beste, BOUDA aleman euskalariarena, bai eta gaur aipatzen dugun ALTHABE-rena ere.

Gure Literatura xumean, bestalde, franko zati badira, gutti ezagunak, hala ere euskara garbian emanak direnak, eta gai intresgarri dakarzkigutenak. Horien artean AITZIN-SOLASAK dira: euskal autore zaharren liburuetan agertzen diran Prologoak.

LARRAMENDIK bere iztegi handian dakarren itzaurre luzean, zenbat berri, zenbat iritze zuzen, euskararen inguruko zenbat asmamen zorrotz? Erdaraz dagola bai, baina euskalzaleendako jakingarri hala ere. MENDIBURU-ren liburu batean ere (Jesusen B. Devocioa) dakuskegu Larramendiren hitzaurre bizi bat euskaraz.

Bainan goazen asitako arira: egun agertu nahi dugu orrialde hontan, Ziberoko liburuxka xume batean agertu zen Aitzin-solasa. ALTHABE deitzen zan ziberotar botaniko baten landare bilkoa da liburu ttipi hori, landaren eta loreen izenak euskaraz eta frantzesek ekartzen dituenak.

Sendagarri bezala usatzen diran landare edo lore askoren zatitxotan, sendatzen dituzten gaitzen izenak eta batreko manerak ere ematen ditu. Ziberoko uskara, pixka bat bazter egiten da. Zaraitzuko uskararen edo Erronkariko zenaren gisan.

### **ZIBERUKO BOTANIKA EDO LANDAREN JAKITATEA**

Bai, bada jakitate hori, bena geroago eta tipitzenago ari da. Hitzen erdiak ezdira ezaguturik, orai berrogei urtez peko jendez. Izan da uskalduna, hogeita hamar urte huntan laborari zaharrer entzun lantaren izenak bildu, eta ez ahazteko, izkiribuz hartu dituenak.

Egun, arren, ez usteko gaitzera hasten da izen horien herrokatzen uskaldun kazetan; otoitzen du horren nausia, hunar dezan biotzez obendatzen dero lan tipi hau. Hitz horiek oro zaharren ahotik elkirik dira. Bilzaleak eztu mereximenturik, biltzeko pazentzia baizik eta lagun oneki frantzes hitzen edireitekoa baizik.

Uste du orain badela haboro biltzeko nahi bada baden anitx ere galdurik.

Uskalduna ohartzale da, zerk on edo gaitz egin deron, eta halaz izentatu ditu lantarik; batak, xixari belarra, odol belar, arrastelu belarra. Bestik, beren itxuretarik; axeri buztana, idi mihia, gatu bixarra: zombait bere lilitzeko sasutik bedats lilia, domesantore lilia.

Eta orano, adireiten diren lekutik; komentu lilia, andere mahatsa... jinkoak lantare bakotxari eman du bere poterea sendotzeko edo eritzeko. Minaren kantin ezarri du orotan belar sendozalea; ezagutu behar beita salbu Jinkoaren dohaña.

Hatsarretik (Hastetik) Jinkoak egin zienean lurra erran zeron; lurrak ekar beza belar berde subertiak, bakotxa bere aziareki, bai eta zuhain fruitu emaileak, bakotxa bere fruitu, eta azirek. Eta hala izan zen Jinkoak manatu bezala. Ikusirik lantaren zahatñen, uzteen baliustarzun espantagarria gizonen eta kabalen hazteko eta sendotzeko dezan gizon fededuna goratik erran; Jinkoari dugun laidorio eta esker.

**Herrokatzen-lerrokatzen**

**Kazetan-aldizkarian, paperean.**

**Hunar-onartu**

**Obendatzen-eskeintzen**

**Elkirik-aterarik**

**Edireitekoa aurkitzekoa, atxematekoa.**

**Haboro-gehiago**

**Ohartzale kasuegil**

**Lantarik-landarerik**  
**Lilitzeko sazutik-loratzeko sasotik**  
**Bedats-Udaberri**  
**Domensatoren-umiasaindu**  
**Kantin-ondoan**  
**Subertiak-bereziak**  
**Baliustarzun espantagarria-Balio Izugarria**  
**Laidorio laudorio.**

A. Apat-Etxebarne

Principe de Viana, 1969, iraila, 4. orr.

## ESALDIEN ETA ITZULPENEN EUSKAL KUTSUA (II)

Izen arrotzak eta izenburu zaillak ez dira euskeratu behar, izkuntza landuek usatzen duten bezela. Noizpait irakurri dugun... **Justiziaren Lege-Arautua Egitamu aurreko...** esaldia geyenek ez tugu ulertzen; erderaz, dagon bezela utzi behar da.

Halaber... **Lege-Ikasgua eta Madrilgo Lege-Irakaskintzan Eskubidearen Filosofia...** euskal itzulpenean, erdaraz uzten da. Kasu horietan denetan, erdel izenburuaren ondotik... **dalako...** itza ezartzen oi dute idazle onek.

-**Eziera eta Jakintzako Ministeritza**- izenburua, euskeraz idaztean -**Educación y Ciencia- delakoaren Ministerioa**, argiago legoke, alemanez ere oi duten bezela; adibidez... **Informations Bureau der Subsecretaria de Turismo...** irakurtzen dugu Aleman txosten batean. Eta **Observer** ingeles egunkarian... **sun blistered badlands of Baja California...** ikusten dugu; beste aunitz etsenpluen artean.

Irakurri izan ditugun; **Izuikarako errutzat... Izadi... Eralguntza...** hitzak, geyenentzat ulerkaltz egiten dira; uste dugu... **Terrorismo dalako erruduntzat... Natura... Organizazio...** adiarazi nai dirala.

**Ikastola legetzea...** baño argiago... **legemenera ekarri...** idatziko genuke.- **...Gazteek dute itz...** ezta euskera, erdi erdera baño; **...gazteen aldia da...** esan behar litzake euskeraz.

-**X**- soñua, kasu berezietan usatu behar da; **...Sistema juntuagoa, -x-** letrak in idatziak -gauza eskasa- adiarazten du; **...Sistema justuagoa...** -s- kin, gauza zuzen bat da; **-zuzen-** gauza bat da, eta **-xuxen-** beste bat.

-**Gizona**- -z- letrak in, gizon osoa da; **-gixona-** berriz, gizon kaxkarra. **-Basajaun-** eta **-baxajaun-** ez dira berdin; ez eta **-sosa-** eta **-xoxa-**.

Azken hauek karikatura bat ematen du.

A. Apat-Etxebarne

Principe de Viana, 1970, iraila, 6. orr.

## ESALDIEN ETA ITZULPENEN EUSKAL KUTSUA

Izkiriatzen dugunek, nai eta nai ez, hutsak egiten ditugu; are gehiago, euskaldun menditarrekin kasik beinere gurutzatzen ez garenek. Baina azken denbora huntan, gure aldizkarietan, itsuskeria franko ikusten da; zenbeitetik erdaratik hitzez-hitz itzulikatzen dituztelako beren esaldiak, ideiak euskeratu ordez.

Ideien itzulpena osatu ondotik, berriz erreparatu beharra dago izkiribua, erdal orijinala begien bixtatik ekenduz; orduan irakurgaiari, galdu duen kutsua emanaz.

Han eta hemen ikusi dugun zenbait esaera bihurri, ezarri nahi dugu, egillerik salatu gabe, alegia; era zuzenak gazteek ikus ditzaten.

Astekari edatu batean irakurri dugu; ...**Elebitzara eraman du Altsazi edestiak... Bere Historia dala medio Alsazian bieleketa** (elebitza) **finkaturik dago...** idatzi ordez.

Beste tokian... **Smith-ren...** irakurtzen dugu... **Smith delakoaren** idatzi ordez.

Izen arrotz eta zailleen ondotik komeni da... **dalako** hitza ezartzea, laztasuna leuntzeko.

Halaber... **Prehistori** eta **Etnologi lanetarako, espeleologi, arkeologi...** ordez...

**Prehistoria eta etnologia, espeleologia...** idatziz, euskera lerdengo eta osatuago agertzen da. **...Elkarizketa bat egin dute...** idatzi ordez... **Elkarrizketa bat izan dute...** egokiago da.

**Gazteen jokaleku gerta dan bezala...** gaizki dago... **gazteen jokaleku gertatu dan bezala...** esan behar da; iragana edo pretérito diren kasutan, **-gerta- sar- -ikus-** ezin diralako usatu, **-gertatu- -sartu- -ikusi-** baizik.

**Eguzkiak illunaldi batean...** baino askoz gehiago usatzen da, eclipse adiarazteko.

**Eguzkiaren iluntze, ...eta ...erdi illuntze... eclipse parcial** esateko.

Idazle on batek, berea ez duen euskalkian... **Ez al da ezbaian bezela, kilikolo mintza...** izkiriatzen du... **Ez al da kilikolo mintzo...** idatzi beharrez.

**Maixutza- sendagilletza- legelaritza- langilletza- nekazaritza-** ...itz gogorak, maiz irakurtzen ditugu, bata besteari datxikola; ...**maixugoa- sendakintza- nekazalgora-** lehunago diralarik, **ofizioa** adiarazteko.

Aldizkarietan ikusten dira ere: **ganadutza- kapitanitza- etekingintza-**; ...**abere-azkuntza-** (ganaderia)- **Kapitania** edo **Kapitandegia** – **ontasunak** edo **mozkina** – itzen ordez; **-tza** eta **-goa** atzizkiak aldizkatu beharrak dira, matizaren arabera; eta irakurgaiaren esaldiera gogortasuna kentzearen, txairoago agertuz euskera.

Orain askok zuzen idazten dute: **Baña Rusian non nahi ari dira...** idatzi duenak bezela, euskaldun menditarrek (ez bakarrik Lapurdin edo Bizkayan), Gipuzkoan bertan. - **Rusia- rusoak** – esaten-tuzten bezela. Azkue zenak hala idazten zuen eta besteek ere.

Euskerazko **r-**dun itz guztiek ez dituzte asieran –**e** edo –**a** bat on-artzen; zuzen esaten eta idazten da: **-Erroma – Arrosa- erramu- errege-** bainan aitzitik, **...-romániko-romántiko- radio- Rumania- Rusia- rugby-** ...idatzi behar da, eta ez –**Errumania-erromániko- Errusia-**.

Deiturak berriz, aldatu edo osatu gabe errespetatu behar dira, legezko nortasuna dutelako; **-Razkin- Retegi-** deitzen direnen abizenak edo deitura, ezin ditugu **-Errazkin- Erretegi-** idatzi, hauek beste presunak diralako. –**Elissalt** deitzen dena (naiz mordollo den), presuna bat da, eta –**Elizalde-** beste bat.

A. Apat-Etxebarne

(Jarraitzen da)

## EUSKAL BIBLIOGRAPHIA

Bustintza Ebaristo (Kirikiño), *Abarrak* (2 garren edizioea). – Bilbao 1966

Duela egun gutti euskal liburu balios bat argitaratu du A. Onaindia idazlari eta lanzale errimiak. Irakurle zaarrek ezagun dituzten Bustintza izkiriizaile bizkaitarraren *Abarrak* deitu liburuxkak, moldetan atera dira berriz. Bigarren edizioea beraz, ezen liburu horiek 1918 eta 1930 urteetan argitaratuak izan ziren leen aldiz.

Arrakesta haundia izan zuten orduan, gai atsegiñak eta humoretsuak erabiltzen baizituen mañaritar idazlariak. Eta ez pentsa gero hunekin, pellokeri eta kaikukeriz bete zituela liburuak Krikiñok (*Kirikiño*, izen-ordea zuen).

Irringarriak dirala bai ipuiñak, bainan bide batez erakasbide sakon bat barrenean dutela askotan, ezin uka. Aurpegi alaiatz, irria egin araziz eskolatzen beraz, beialako jakintsuak eskatzen zuen bezala.

Bainan ez tira hortan gelditzen Bustintza-ren merezimenduak; herriko euskara ber-bera erabili zuen beti bere esakera bixiekin, berrikeri guttikin. 1925 urte inguru haietako euskal aroa ezagun behar litzake. Bustintza-ren marka zeazki negurtzeko.

A. Onaindiak lan neketsua bururatu du, eta ontsa gaiñera. *Abarrak* direlako ipuiñaz gainera, Krikiñoren beste irakurgaiekin (Azkue-ren “Euskalzale” aldizkari hartan agertuak, emendatu du liburu beste horrenbestean kasik.

Leen partean, *Abarrak* bi liburuxkak agertzen dira osorik. Ipuinen artean, *Tximistargi barria – Deun izateko bidean – Atxuriko millagrua – Misionari bat – edo Zerutar bat* izenekoak aipagarri dira; eta erdaralat edo gure euskalkira pasatuz, batere galduko eluketenak. Irri egiteko autak izanagatik, euskaldun zaarren *zentzua* azaltzen dutenak aunitz.

Bigarren partean, Euskeranganako zaletasuna pixteko artikulo erneak dakazki liburuak, gure menditarren adimenduaren eineko arrazoinak azalduz, ez txoilki laudorio zozoak. Karlisten gerlaondoko, 1902-3 urtetako euskalzale etsitu haien gertakariak ere irakurtzen dira.

Urte batzu leentxago kendu zuen Gobernuak, Gipuzko-eskoletatik euskera, hango Diputazionearen balaku eta aserre guztieri kasurik egin gabe. Geroago, 1902 urtean, Romanones-en aginduz debekatua izan zen Euskalherriko Eskoletan euskarazko Dotriña. Bidegabekeri hunen kontra catalan diputaduak altxatu ziren Parlamentian; gure euskal Diputaduak axolagabe zeuden; Urquijo izan omen zen bakarra, aserrea erakutsi zuena Cortesetan.

Beste abantaila baliosa badu liburu horrek; bizkaiko euskarak dituen aozkera bereziak (*argixa, barrixa, buruba*, eta halako) kendu ditu Onaindiak, textoko hitz bat ere aldatu gabe haatik. Irakurlearen erreztasunera urrats haundia, eta berdin euskalkien batasun aldera ere. Bizkaiko ezdiren besteentzat berriz, hitz batzuen esan naiak ondarraldera, etziren gaizki etorriko.

Hala ere, irakurtzeko erreztasun apur bat dutenek, elukete liburu errikoi eta mamitsu hau bazterrerat utzi behar.

A. Apat-Etxebarne

Principe de Viana, 1967, otsaila, 6. orr.

## JUAN DEN MENDEKO EUSKAL GUTUN BAT TAFALLAN

Izkiribu zaharretan gauza gutti kausitzen da euskaraz, eta Nafarroan guttiago. Horrengatik jakintsuenzat balio handiko dira, edozein karta zahar edo euskal-izkribu: zenbat ez dira gure herrixka horietan, Iruñe ingurukotan, erre izanen joan diran mendetan?

1856 garren urteko gutun edo karta bat etorri zaigu eskura, adiskide eta deitura bereko den jabeari esker, Tafallako jaun bateri euskaraz Baionatik izkiriatua: jaun hau, orai Tafallan eta Iruñian bizi direnen aitona zitaken. Garai hortako euskal izkiriburik gutti dugu Nafarroan, eta gaiñerako Euskalherrian, Franziakoan ez bada.

Izkuntzalariendako garrantzi eta ardura handiko da, orai mende bat baino gehiago zaharra den izkiribua. Alde batetik iketan erabilitako berboa dugu, eta puntuazione gabeko perpausak ere xilatu behar, Baxenafarroako euskara mota garbi eta herrikoian: linguistikak badu langaia. Horretarako, Aldizkari batean argitaratu gogo dugu, batere ortografiarik aldatu gabe.

Guk hemen irakurle arrontendako, oraiko grafian ematen dugu, hitz edo soiñurik batera aldatu gabe haatik.

*Bayonne le 3 aout 1856.*

*Mon cher frere: iskiriitzen dais kiat bi lerro gure berrien jakin arasteko, osagarri on batekin gituk jinkoari esker / desiratzten dauziegu gauza bera zieri ere / Beras illes kestione, mintzatu diat e courritier bat Labarte dik izena / erran zautak kintalas 75 libera diru ukan araziko dautala, heldu baita liberako hamaborsos harentzat baduk kintaleko uste diat hamarsos beras orai badakik hemen eta hor bietan zonbat egiten duyen*

*eta orai baino haren erranak iduri likek gehiago ere eginen duela / beras gisa hortan behar likek zonbeit sos utzi idabaziarentzat (sic) / lehen bai lehen iskiriiazak erosten balin baituk zerengatik gure lagun hau kexu baita deusetan es (ez) eseyatzenes /*

*ogia ere ekartzen die zonbaitek, manex magasinakua esperanzatik bihar ehun zaku hogoi eta hamaborz libera zakuko / beras ikusak berziak hari direla ikusten eta gehiago samurtzen duk gu es eseyatzias / juan den ortzegunian hemengo ogiak egin dik hogoi eta hemezortzi libera zakuak zorrietan hogoi libera phisu eta uste diat berogoi libera eginen duyela bihar*

*gu egon ginen ostatu hartako karro zain harek iduri zian ekarri nahi ziela borzna libera heyen etxera eta handik Bayonnala berrogoi sos heldu baita zazpi libera zakua eta iqasouriet (?) jin nahiduk bi idi parerekin hogoi luis nahi dik bi parerentzat orai ikusask / edo ogi edo ile zerbaietarik (sic) hunat behar diuk beras ezdezakala luza arrapostuyaren egitia / lehenbiziko piaja (bidaya) egiteras gerostik aisehariko gituk ogia orai aise sal ginezakek baginu / gelditzen nuk hire serbitzari fidel bihotzaren erdirik*

*Baptiste Doxandabartz*

*Hemen eginen dik ogiak, esbada nunbeitik jiten, zernahi dirus arras ogi izan duk hemen. Adios.-*

Estalkian ekartzen du: Sr. Dn. Esteban Doxandabartz, Fabriquante de belas de sebo. Por Pamplona. En Tafalla.

Oharra.- Perpausen eta lerroen separazioneak, erreztasunaren kariatara, nereak dira: orijinalean dena dago segidan; lapurtar euskarakin nahasia dago baxenabartar euskara.

A. Apat-Etxebarne

Principe de Viana, 1970, maiatza, 6. orr.

## Euskaltzaindiaren Batzarrea Mañaria'n

URRIAREN 23 garren egunean ospatu zen Bizkaiko errixka pollit hortan Ebaristo BUSTINZA, (*Kirikiño* izen ordez gehiago ezaguna ), zenaren ehun urteurrena. EUSKAL AKADEMIA-k eta GEREDIAGA elkargoak antolatu zuten euskal jai eder bat. BUSTINZA, herri hortan sortua, euskal idazlari haundia izan zen, leen lerroko izkiriiazaillea, eta EUSKALZAINDIA bere sorterrian bildu nai izan du, eta itzaldi batzu entzun arazi, haren berriak emanaz.

ABARRAK deitu bere liburuak gutti ezagunak dira, gure jendea irakurgabea delakotz, funtsean; eta aldeaz, bizkaieraz daudelako. KIRIKIÑO-ri goratzarrerik egiazkoena, bere ipuin xoragarriak argitara ematea litzake, ezen edizioa agortu zen aspaldi. Gipuzkeraz ere argitaratuak badaude 5 ipuin urragarri, izenburu harekin; EUSKALZAINDIAK egin liburuxka ttipi hori, aitzitik, ezta oraino agortua. Hurrengo aldiren batean argitara emanen dugu ZERUTAR BAT, DEUN IZATEKO BIDEAN, edo halako kontu farregarri, eta bide batez funtsezko diren hetako bat, irakurlearen atsegiñerako.

Gizon bezala ere haundia izan zen KIRIKIÑO: orain mintza aal balekigu, dudarik gabe, anpuruskeriak, zikoizkeriak eta espantuak gutiesten zituela, ikusiko ginuen; gizon apala beraz. Euskalzale eta izkiriiazaille bezala utziko dugu oraikoan. Bere goreneko personalitateari eta nortasunari xoilik, ohartuko natzaio.

Zentzu haundiko euskalduna izan zen, eta on litzateke oroitzea, bera igitu eta ibilli zen aro zaratatsu haretan, etzuela bein ere burua galdu; burua otz eta bihotza bero iduki zituen beti. Bere liburu baten aitzin solasean dio:



bere ipuinak eztirala izkiriatuak, ehun urte geroagoko euskaldunendako, gaurko euskaldunentzat baizik, geienek dakiten izketaz, geienek aditzeko gisan. Denbora haietako, marka arrigarria da.

Herriko euskara jatorra erabili zuen, bere inguruko buru bero eta berrizale batzueri kasurik egin gabe. ABARRAK izeneko bi liburu egin zituen, eta aldizkarietan, aunitz artikulo, BIGARRENGO ABARRAK izeneko aitzin solasean, I. Aranzadik dio, leenxago aipatu haren apaltasuna eta eskuzabala adiarazteko; “Gizon ona, onik izan baldin bada, gizon apala, ixila, goitik beera beatzen iñoreri ausartzen ez zena; diruari eta aberatsari bakarrik kopeta zimur paratzen zakiena”.

MAÑARI-ko besta-bilkura hortan, euskalzain jaun batzuen hitzaldiez kanpo, ONDARRU-ko teatrolari trebeek, Bustinzaren bi kontu irringarri bota zizkiguten, herri hortako Zubikaray idazlari ezagunak, teatorako antolatu eta egokituak. Goizeko Akademia biltzarre laburrean, Madrilen eskatzeko den Eskolategietan sartu bearra dagon bi-eleketa eskea, laster bururatzea erabaki zen.

A. Apat Etxebarne

(“Diario de Navarra-ko “Nafar izkuntzaren Orria” delakoan argitaratua)

Principe de Viana, 1966, azaroa, 6. orr.

## EUSKERA ZERTAKO?

Lehengo egunean topatu nuen, kanpotik etorritako “cacereño” deitzen duten mutil horietako bat. Lanbilla jinik (etorririk) gure euskal herriska batera. Lehenbiziko eleetatik zerbait gure nabaitu nion, doña edo aozkera, eta laster euskeraz abiatu giñan, ene arridu haundian. Gure mintzoa ikasia zeukan berak, duela urte parrasta bat lanean arituz egona den herriska hortan.

Zorionak eman nizkion biotzetik, eta erran: “Ikasi baduzu euskara, hemengoa baiño jatorragoa zera; eta norbaitek gaixtakeriz edo trufaz, sudurretara botatzen badituzu ¡Arrotza!, zuk berehala euskaraz asi zaiozu... eta usu demonio ixilduko dela segur nago”.

Onart ditzagun, beraz, kanpotik hel zaizkigun langabeak, beren aldetik bederen gure oiturak eta mintzaira onesten dituzten ber.

Euskalzaleetan ere badira beltzak eta ukakorrak, euskeraren gerokoaz beti negarrez ari direnak. Halako bateri erran nion bein: “Gre herri azitueta jende ikasiak euskaraz egiten badu, aldizka bederen, euskara piztuko da”. Euskal herri horietan behar da izkuntza akullatu, eta borondateak ernatu. Izendatuko ezditugun Nafarroako zenbaitean, usarioa, eta oitura irabazi behar dira; jende apain gutti batzu euskaraz asten balira, tarteka bederen, ondoko herriska ttipietan lotsa eta erabea galduko lirake.

Gure herritar askok diote Nafarroan: Euskara zertako?”... Hara zertako. Nik dazkitan bi nafar Californiara joan ziren aspaldi, beren Nafarroako herriskatik. Orduan gazte ziren biziki, eta bere aaide baten bidez BAKERSFIELD delako hiriaren aldera urbidu. Beren aaide eskualdun hori enpleatua zegoen ZERRA haundi batean, arras ongi irabazirik.

Lantoki uts batzu baziren han, eta agintari amerikanoak galde egin zakon enpleatu horri eia egiazko euskaldunak (mintzairaz) ote ziren bere herritar bi gazteak. “Baietz ba, prestuak zirela eta euskaldun puruak. Orduan berehala agintariak bi nafar menditarrak onartu zituen bere Lantegian, baitzaien ongi aski lanzaleak, prestuak eta ixilak zirela euskaldunak. Leku horietako eskean zeuden, bi euskaldun horiek gaiñera, mexicano, eta turko langille parrasta bat.

Bi gazte aiek diru zako pollitak beten odotik, adindu ta bizi dira oraindik. Euskara gaizoak zerbaitetarako balio du beraz.

Orai artio sasi yakintsu batzuek zioten erdara ongi ikasteko traba zela euskara, eta hainbeste euskaldun kaikuek siñetsi; oraindik hala pentsatzen dute, eta ez nai semeeri erakutsi.

Baiñan Pedagogoak, duela denbora gutti, bestela gertatzen dela konturatu dira; bigarren izkuntza bat (gure kasuan erdara) obeki eta sakonagotik ikasten dela, aurdanik berea (euskara) ongi baldin badakite muttiko eta neskatikoek.

Bi izkuntza aisa ikasten omen dituzte aurrek, eta traba izan ordez, argiago eta obeki barnatzen, berdinkaratzen eta taxutxen biak.

Horgatik erran zion bein GOETHE yakintsu eta idazlari aleman haundi arek, alemana ikasteko metodo oberena zein ote zen, galdegiten zion gazte ikasle bateri: “Beste izkuntza bai ikas”.

Eta huntaz ari gerala, jendea galdezka dago, euskara Eskolategietan noiz asiko, Nafarroan erabakia dagon bezala.

A. Apat Echebarne

Principe de Viana, 1967, iraila, 6.orr.

## FRANZISKO

Xabierreko-aren euskarazko biografia berri bat

Lehenago baginituen Xabierri erdarazko bizitza onak; alemanez eta frantzesez bereziki, SCHURHAMMER eta CROS-enak. Bai eta euskarazko labur-labur bat. LIZARRAGA Elkano-ko erretorearena. Beste euskarazko bat, nafar batena hau ere, aipagarri da, bere euskara aberats eta ederrarengatik, Arizkungo semea izan zen Franziko Lapitze idazlari sonatuak izkiriaturik, BI SAINDU HESKUALDUNEN BIZIA izenburuarekin.

Orai beste berri bat agertu zaigu, P. ARRADOY euskal idazlari ospetsuak egina, eta bere franzes itzulpena dekarrena bide batez, orri bakotzeko azpiko aldean.

P. NARBAITZ da egilearen egiazko izena: Baionako Bikario ohiaren liburua, SAN FRANTSES IATSUKOA – Biographie basque de St. Francois de IASSU et XAVIER, deitzen da. (Edic. IZARRA. – S. Sebastian).

Edergailuez ornitua, nafar saindua ibili tokienak; hala nola Jatsu herriarena, Azpilkueta, Javier, Iruñe, Parise, Goa eta abar. Amultsuki kondatzen dauzku ARRADOY-ek sainduaren aurtzaroko gertakari hitsak: Gaztelarekilako guduak, eta *Javier*-gazteluaren eta Nafarroko Erresumaren suntsimendia.

Gero, begiz bezala, pasatzen ikusten ditugu, bere fameliako jendeak, guraso dohakabeak, anai-arrebak, osaba Martin AZPILKUETA Irakasle ospe haundikoa; XVI-garren mendeko gisara pintratuak, eskualdunki, orduan zorionez erriko jenden izkuntza, euskara bai zen Nafarroa geiengan.

Ikusten ere degu egilearen euskara garbi eta ximenean, Pariserako Xabierren joanaldia; hango bere traba, adixkidantza eta jostetakin, SORBONAN ikaslari zagoenean. Gero Santa BARBARA Ikastegiko Irakasle zelarik, Eneko Loiolako-ren ezagutzak egiten ditu, eta Nafarroko guduak nolazpait aantzurik, sarean biltzen du azkenik harek, Enekoren jite aidor eta nekagaitzari eskerrak: ondotik finkatuz beste lagun batzuekin, Jesusen Konpañia eta Lagundia.

ARRADOY-ek euskal izen zaar horren orde, Iñaki izen berria derabilla. Denbora hartako izkiributan haatik, ENECO izena agertzen da, eta orai arteo irauten du bizirik, *Enecotegui* deituran eta *Enekonea* etxe izenean bezala. Euskaldun izen zaarrik baldin bada, ENEKO da bat, Nafarroako lehen errege ARIZTA-k erabili zuena.

Xabierren euskalduntasuna ere erakusten du autoreak, orduko herri-izkuntza euskara baizen hemen. China-ko Isla-ugarte hartan azkenetan zagolarik ere, bere azkeneko otoitzak, aurtzaroko euskaraz egin omen zituen.

Indiako misiolari haundiaren nekeak eta kontrakarrak agertzen dira, portuges jauntxo zikoitz haiekin; bainan oroz gainetik sainduaren jende-artze negurrigabekoa, eta klase guztikoekin erakusten zuen jendetasuna.

Xabierren iduriak ahulxkoak iduri zaizkigu: aita bada bat, GOA-n ateraia hilkutxa ideki zutelarik, eta egiazki euskaldun baten burua erakusten duena. Euskara ederra eskeintzen digu ARRADOY-ek, erraneraz aberatsa eta erreza irakurtzeko. *Estar sobre ascuas* adiarazteko adibidez, ULITXETAN EGON irakurtzen dugu; eta *Agui hay gato encerrado* errateko, dio: KATU HORREK BADU BESTE BUZTANIK.

Euskara funtski, bai eta franzesa, gozatu nai dituen euskalzaleak, liburu xarmagarri hau eskuratu dezala.

A. Apat-Etxebarne

Principe de Viana, 1966, urria, 6. orr.

## IXTRIPUAK – LEHENEKO ARTAK ETA SENDABIDEAK

Itz horrekin minartze edo akzidenteak deitzen ditugu; orain, iñoiz ere baino gehiago minartze bada, dela autoen kasketako batean, etxe-erretze batean edo ito behar arriskutan. Halakoetan iru gauza dira premiatsuenak: ez tarrapatan aritzea, eta ez bururik galtzea; ongi jakin zer **ezten** egin behar, eta azkenik, prezisoena egiten jakin behar, sendakin edo sendatoki batera eramateko kalterik egin gabe.

Eroriko txar batean, zango edo besoa autsi denean, batere ikusketan edo probaketan aritu gabe, makil edo ohol bat zangoaren kontra edo besoaren luzara ezar lokarri batekin, tinkatu gabe; ezur autsia mugi ez dadin, sendakinarengana aillegatu bitartean.

Bizkarezurra autsi dela susmoa badugu, gorputza inarrosi gabe, poliki taula edo kamilla batean ezar **erroz beiti**, sendatokira eramateko.

Itotzer dagoenean bat, atsartze artifiziala delakoa egin behar zaio, itourren dena lurrean luze etzan eta, soinekoen loturak laxatuz; besoak gora altxatuz eta bular gaina zapatu, mantso eta aldi luze batena, gelditu gabe, bere baitarik atsartzen asten duen artio.

Sutan dagoen presuna bat ikustean, beinere ez ibil ureske edo ur botaka; maindire, manta edo kapa handi bat lasterka artu eta horrekin ongi inguratu eritua; gero ez ibili iñolaz ere erredurak edo bixiak garbitu edo lertu naiez, sendatokira edo sendakin baten gana eraman baizik. Eta aurpegi edo eskutako erredura ttipiak, gantza, olio edo edozein ugentu eztingarri batekin gantzutu berehala eginez, ezdira anpuluak ateratzen.

Elektrikadura ixtripua, erdaraz *electrocución*, aipatzen du HERRIA astekarian Zaindari delako idazle batek gisa hontan:

“Eman dezagun norbait elektrikatzen dela gure aitzinean; zer egingen dugu? Dohakabea izan ditake urrunago aurtikia edo lurrerat eroria; bestenaz elektrikak bere gana biltzen du, eskua aztaparka ariari lotua daukala eta ezin handik atera. Lehena, eletrika indarretik kolpatua berexi, bainan norberak arrapatua izan gabe haatik. Hortako, ar dezala egur edo makil idor bat edo soka edo oialezko zerbait, hala nola kautxuzko eskularru bat.

Elektrika pasatzera uzten ezduen idor zerbait; kasu beraz urari edo tresna bustieri, hauetan eletrika kurritzen baita.

Elektrika hil edo itzali giltza bailatuz; batzuetan indarraren buruzagieri deitu, ken dezaten indarra goragotik.

Kolpatua elektrikatik berexi bezain laster, behatza sar zintzurreraino, bidearen garbitzeko, zer gerta ere; ortz-orraze faltsu edo beste zerbait balu ere aho zolan trebes gelditua. Ahoa indarrean etsirik badauka, ez denborarik gal ideki beharrez. Eta sendakina etorrik artean, bizia behar zaio erirari salbatu, atsa artze artifizialaren bidez, goraxago aipatu dugun etserzizioen bidez, bai eta ahotik ahorako atsa emanetz. Luzatzen bada ere, segitu amor eman gabe, hau da elektrikatu baten sendabide premiatsuena, kolpatua atsa artzen asten den mementoraino.

Edatare etzaio eskeni behar, berak ezagutzak ongi artu artean. Egiteko horiek gauza ttipiak dira berenez, bainan aski zenbait aldiz bizitza baten salbatzeko... eta ixtripu bati ez ondorio makurragoen emateko”.

A Apat Etxebarne

Principe de Viana, 1972, maiatza, 6. orr.

## Miscelánea vascónica

### EN EL CENTENARIO DEL ESCRITO Y VASCOLOGO JULIO DE URQUIJO (1871 – 1950)

En este año se cumplen los cien, del nacimiento de un sabio investigador, coterráneo nuestro, que brilló en las Letras de nuestro País, con luz propia. A Urquijo le han dedicado algunas Revistas, varios trabajos de firmas competentes.

Últimamente citaremos tres Conferencias en el Seminario **Urquijo** de la Diputación guipuzcoana; una del lingüista y antiguo Rector de la Universidad de Salamanca, profesor actualmente de la de **Tübingen** (Alemania) **Antonio Tovar**, sobre “El Vascuence y la Lingüística”; otra del Presidente de la Academia de la L. Vasca, Luis de **Villasante**, sobre “Urquijo y la unificación del **euskera** literario”; y la tercera, “Una semblanza” del finado vascólogo, por **Julio Caro Baroja**.

Urquijo fue un caballero de abolengo tradicionalista, que dedicó su poderosa inteligencia (así como su saneada hacienda) al estudio y cultivo de la vieja lengua (que él logró aprenderla a fondo, ya de mayor) y de la Historia de su país éuskaro durante toda su vida.

En Navarra, a la que dedicó muchos trabajos, no ha aparecido un recuerdo, que sepamos; razón por la cual nos ha parecido oportuno, escribir esta breve noticia.

Casado con doña Vicenta Olazábal, de ilustre estirpe tradicionalista igualmente, de joven se inició en los estudios bibliográficos de la lengua Vasca, logrando reunir, a costa de muchos desembolsos y otros tantos viajes y exploraciones, una de las más ricas bibliotecas de libros euskéricos o relacionados con este País, émula de las ya famosas de Bonaparte, Vinson, Lacombe, etcétera.

Fue fundador y Director perpetuo de la conocida **Revista Internacional de Estudios Vascos**, que apareció en 1907, interrumpiéndose definitivamente con ocasión de la guerra civil. Esta R.I.E.V., que consta de 24 gruesos tomos y algunos volúmenes aislados, correspondientes a los años de la guerra (1914-1918), es una selecta Enciclopedia, donde se pueden encontrar los trabajos de mayor garantía, debidos a firmas nacionales y extranjeras, acreditadas en Lingüística vasca, así como también en Historia y Bibliografía de las siete provincias.

Hasta entonces a menudo se trataban esos temas con cierta fantasía: desde Urquijo, que tenía dotes de lingüística y un criterio de investigador científico, cambió bastante el panorama, porque en su Revista no admitía más que trabajos de solvencia científica.

En los distintos volúmenes de la rica Colección, nos encontramos con trabajos de las siguientes firmas de calidad: Telesforo de **Aranzadi**, Mariano **Arigita**, José M. **Azcona**, **Bähr**, **Bonaparte**, **Dodgson**, **Dubarat**, **Eleizalde**, **Farinelli**, P. **Fita**, Giese, **Hérelle**, **Lacombe**, **Munárriz-Urtasun**, **Schuchardt**, Leo **Spitzer**, **Uhlenbeck**, **Vinson**, **Campión** y el propio **Uquijo**; entre otros.

Contiene reproducciones de ediciones agotadas de libros de gran interés para la Lingüística, como **Dechepare** (1545), facsímil del único ejemplar existente (Bibliothèque Nationales, París); los **Refranes de 1596** (edición de Pamplona, agotada), con comentarios comparativos de Urquijo; el **Güero** de Azular (1643), entonces muy difícil de consultar, se publicó hasta la página 438, es decir más de las dos terceras partes, etc. En su gran Biblioteca (hoy en la Diputación de Guipúzcoa) se guardan otras muchas obras rarísimas, en dicha lengua.

La colección de la R.I.E.V. ha estado muy solicitada por los bibliófilos, por estar agotadas sus ediciones. Incluso en alguna Biblioteca pública del País, faltan números de dicha Colección, que algún lector desaprensivo se ha olvidado de devolver a sus estantes; hoy existe

la oportunidad de reparar la mutilación, porque la **Gr. Enciclopedia Vasca**, de Bilbao, está reeditando la R.I.E.V. en facsímil.

Quiero llamar la atención de los estudiosos, que en esa Biblioteca hay una Sección del mayor interés poco menos que desconocida; me refiero a los **Manuscritos** euskéricos anónimos, así como los referentes a conocidos autores, como Joanes de **Etcheberry**, **Oihenart**, **Pouvreau**, etc.

Aunque está en marcha la Catalogación de la misma, convendría asimismo completarla con un Índice de los títulos de dichos Manuscritos, guardados en las carpetas de la Biblioteca de Urquijo.

Dejemos para otro, contar su perfil humano que sería de gran atractivo: de humor alegre y sencillo; a su extensa cultura y conocimiento de idiomas y Países, unía un espíritu de una finura y corrección, desusadas por aquí.

De carácter abierto y tolerante, entre los colaboradores de su R.I.E.V. nunca hizo distinción de credos ni colores; solamente atendió, con criterio liberal, a la seriedad y a la corrección de sus trabajos.

Su confortable despacho de la Plaza del Centenario de San Sebastián, estaba abierto a los jóvenes que querían iniciarse en los estudios éuskaros, y los que tuvimos la fortuna de disfrutar de su amistad, no olvidaremos aquellos animados e instructivos diálogos, más bien Monólogos, sobre los más diversos temas del País.

Para retratar el noble y caballeresco carácter de Urquijo, terminaré contando una anécdota personal. Al encontrarme un raro ejemplar de la Doctrina de **Beriayn** (edición pamplonesa de 1626) me faltó tiempo de mostrárselo a mi ilustre Maestro; quien quedó asombrado, por tratarse de un ejemplar único, que sólo se conocía por alguna referencia bibliográfica. Al cabo del tiempo me manifestó vivos deseos de adquirirlo, ofreciéndome a cambio, otra obra éuskara importante.

Al cabo de muchas dudas, cedí a sus instancias; pero años más tarde, adivinando que yo estaba pesaroso de haber perdido una joya bibliográfica, me comunicó su voluntad de devolverme algún día el chamuscado ejemplar: voluntad que cumplió gratuitamente su viuda doña Vicenta, al fallecimiento de su esposo. Así era don Julio de Urquijo.

A. Apat-Echebarne

(Diario de Navarra egunerokotik hartua)

Principe de Viana, 1971, urria, 2. orr.



## KONTZILIOA ETA KRISTAU IRAKASPENAK

IKASI MIKASI izenburu daraman ataleko artikulotxoak irakurtzen ditugu maiz. Euskara pollita eta herrikoia derabillala Astiz-Arregui jaunak, gogotik aitortzen dugu. Bainan gure Fedea ahulago sentitzen dugula batzutan, horiek irakur eta, adiarazi beharko dugu ere, damurik. Epelak biltzeko eztira egokiak.

Iduri luke gure inguruko euskaldun arrontak, kaiku batzu direla, Konzilioaren edo Joanes XXIII Aita sanduaren esanen berririk ez dituztenak. Baina ezta batere hola: umillak eta ixilak izateak ezdu esan nai, adimendu laburreko direla gure herritarrak: aitzitik.

Elizaren izen ona ezta beraz goratzen, bekatuak barkatzeko ari denean, sosak ere aipatzen badira, mezak eta erresponsoekin batera. Eta pobreez eta aberatsez ari dela, nola esan diteke... Mundu ontan bai, pobreak beti aberatsen azpian egondu ta EGONEN DIRELA...? Orduan MATER et MAGISTRA eta PACEN in TERRIS non uzten ditugu?

Ene jaun begiratu, gaizkira ez har, otoi, gure euskaldun epelen eta guharen Fedea begiratzeko ari gara eta. Uste dugu gaur eztirela azaltzea komeni, orai 25 urteko Misiotan bataio sariaz kontatzen aal ziren irringarriak. VATICANO-ko Documents catholiques internationales aldizkaria irakurtzea aski da, hilaria, bataioak, ifernuko sua eta halakoak ez direla leenagoko gisetara aipatzen, ikusteko ez urbiltzeko ere. Eta nago, artikulistari aittunak azaltzen ziozkan sermoi hartako eztabaiak, ez ote diren barkakizun, Vaticano-n egungo Irakaspenen arabera.

Esqualdun kristauak, bereziki gazteak edo epelak, ez direla gaur bildurrezko eleketakin biltzen, badakizu. Aldizkari huntan berean, ELIZAREN ITZA deitu atalean artikulistak Konzilioko Irakaspen zeatzak ematen doi ditu. JOANES XXIII garrena, artzai bezala gehiago mintzatu izan dela, Irakasle bezala baiño, adiarazteko, hunela dio:

...GAUDEN DENBORETAN BERRIONAREN (EBANJELIOAREN) MAMIA AZTERTZEA ETA BIOTZAK LANTZEA (amodioz urko lagunaren bihotza irabaztea) EGOKIAGO BAIZEN, SINISGAIK (dogmak) ERABAKITZEA BAÑO.

Eta erlisione libertateaz dio:

...SENIDE BEZALA ZIÑEZ JARDUTEA (anaiak bezala mintza gaitean) GUTXI EDO ASKO EGIARENGANDIK ALDENDURIK DAUZKIGUNAKIN (urrunduak daudenekin), SINISTE KATOLIKOAKIN ADOS EZ DAUDEN KRISTAUAK DIRELA, EDO KRISTAU RELIJORIK EZ DAUKATENAK, EDO JAINKOGABEKO ATEOAK DIRALA...

Barka ausardia baina, Irakaspen hok jakitea komeni dela iduri zaigu, goregi badira ere.

A. Apat Echebarne

Principe de Viana, 1967, azaroa-abendua, 2. orr.

## LIGUEIX ZIBEROTARRAREN KOBLAK LARREKO-ri

LARREKO zenaren ohoretan LIGUEIX olerkari andiak ondu iru bertsu horiek argitaratu nai ditugu hemen, joandeko omenaldiaren oroitzapenetan. Kobla eder horiek ziozkan Luis LIGUEIX-ek 1935-eko urtean, Irailaren 12 garren egunarekin kantatu, EUSKUALZALEEN BILTZARRAK Atarratzen ospatu urteoroko bestan.

Beste agur-bertsu sail bana kantatu ere zituen egun berean Ligueix-ek beste bi sendakineeri; Jean ETCHEPARE idazle argi eta ausarta izan zen aldudarrari, doktor CONSTANTIN atarratarrari, eta oraindik uste dut, beste jaun bateri. Azken bi midiku horiek. ESKUALZALEEN BILTZARRA-ren buruzagi izan ziren.

Ligueix bertsulari baino areago Olerkari bat izan zenak, kalitate aundiko izpiritu aberatsa ukan zuen, beren koblek bihotzondorik badute, eta denek ezdute heien barna dastatzen bere behurrian; horrengatik, agian, ez tira Olerki eta bertsu bildumetan geiegi ikusten. Irakurleak egizta dezan, huna olerkariak ezkon-berri batzueri kantatu bertsu barnakoa:

// oihan belzean zoiñen eijer den, osto berdea elkitzen // Han entzun-tut egun goizean txoriak kantüz erraiten // Bi bihotz gazte amodiak egün düiala juntatzen // Boztarriotan sartüniz eta hasten ni ere khantatzen //.

Huna orai LARREKO zenari kantatuak:

1  
Nafarroan herriz-herri  
Zumat üskal haurride!  
Oi! Lür ogiz aberatsa,  
Eki berorat urre!  
Berdin eijer lerro-lerro  
Mahats-ondoak ere.  
Boztario biltzarrerat  
Erakartzen deikie.

2  
Iruñetik huna zeikü  
Erriz musde Larreko,  
Begi ernea bai eta  
Bihotza denentako:  
Bedezi gisa jin beita  
Eta ez jostatzeke,  
Uskarasenda dezala  
Orai eta betiko.

3  
Seme hunak salbatzen dü  
Ahalaz bere ama;  
Jauna, lantzetaren orde  
Gehien zure lüma!  
Tinta beltzian bustirik  
Indar gaitza darama.  
Zure hatsak piztüko dü  
Üskararen arima.

Zibero-hitz zenbaiten adigarri:

-haurride = anai- // -zumat = zenbat // -ogiz = gariz // -eki = eguzki- // -urre = urbil- //  
-eijer = eder- // -Boztario = poza- // -erriz musde = irriz jaun- // -Bedezi = midiku- // -hunak =  
onak- //.

Gazterik galdu zuen Euskalherriak olerkari andi bat, 33-34 urtetan hil baizen;  
LARRAÑEko zen Luis LIGUEIX.

A. Apat-Etxebarne

Principe de Viana, 1972, azaroa-abendua, 2. orr.

## NOTICIAS Y VIEJOS TEXTOS DE LA “LINGUA NAVARRORUM”

(A. Apat Echebarne-k egina)

“*Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones*” delakoak liburu berri bat argitaratu du: “Noticias y viejos textos de la “LINGUA NAVARRORUM” izenekoa.

Angel Irigaray sendagile jauna da liburu honen egilea. Berak Euskal Herriko euskal kanta, iostetak, elexaharrak, oiturak eta gure Euskal Folkloreari doazkioten beste zenbait gaiak, gehienak gure Nafarroan hartuak, bildu eta liburu hontan azaldu ditu.

Angel Irigaray, bere izenordea A. Apat Echebarne, Nafarroko semea dugu, oso ezaguna eta maitatua gure artean, gure “Principe de Viana”-n beraren idazlan mamitsuak maiz agertzen dira. Nafarroaren aldetik Euskal Akademikoa da.

Liburu hau ezagunerazteko zabaldu duten orritik honako lerroak ekartzen ditugu:

*“Liburuaren 260 orrialdetan, joan den mendetako euskal izkribu balios ikus dezake irakurleak, ixilkako ezkontzafede emate bezalako, Ursuko, Aralarre eta Otsagiko elexahar eta kanta hunkigarri, bai eta aztikeri eta sorginkerizko pasadizo edo gertakariak.*

*Joan den mendetako Compostelarako euskal erromes eta pelegrien kantak, lehen aldikotz agertuak, liburu hontan irakur ditazke, hala nola ziberotar maskarada eta euskaldun ospetsu izandako gizaseme batzuen berriak (bere fotoekin); Beltzunzetarrak, Pellot korsario famatua, Mendigatxa uskalzalea, Irigoien apezpiku aurrelaria, Lakoizketa botanikoa, eta beste halako.*

*Liburuan ere sartzen dira, euskal besta eta Yoyak deitutako oitura eder bezalako batzuen azalpenak. Fotokopia eta edergailu pitxi batzuek argitzen dute, Folklore biltzaile ongi ezaguna den autor honen liburu ederra”.*

Liburuaren Salmentarako balioa: 150 pezeta.

Erostekotan zuzenbide hauetara eskatu:

“Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones”. Urbieta-55. Donostia.

Principe de Viana, 1972, martxoa, 6. orr.

NIKOLAS ORMAETXEA – “ORIXE” –

“Euskaldunak” liburua

Idazlari ospetsu hori erdi nafarra zen, eta naikariaz, osorik. Nire liburu PROSISTAS NAVARROS (XX-garren mendeko Nafarroako euskal idazlariak) “Principe de Viana” Elkargoak 1958 urtean argitara eman zeularik ORIXE-k esan zidan! “Zure liburu atsegiña irakurri dut, baina zertako ez nauzu ni ere sartu. LARREKO eta MANEZAUNDI-kin batean? Izkiriatzaille bezala nafarra, eta Nafarroako euskera dut nik geien ikasi eta erabili, beste edizione batean ene artikulo edo sail batzuk ere sar ditzazun, eskatuko nizuke”. –Hitz ber-berak ezpadira, esan naia hori zen.

Egia zion ORMAETXEA-k, Oreja-n sortua izanagatik, jaio eta berehala Uhizi-ra eramanez baizuten eta herri hontan zen azi eta handitu. Hemengoaren zuen beraz bere euskera, - Liburu- poema eder ori hola asten da:

NAPARROA ZARREAN LARRAUN-en  
UITZI / BELAR GOXO TARTEAN EPER-KABI  
IDURI.

Bere liburu eta izkiributan nafar kutsu garbia galtzen ez duela nabaitzeko aski da. Meza-Bezperak, Euskalduna, irakurtzea (edo Juan-done Agustiren Aitorkizunak, Tormes-eko itsu mutilla edo Mireyo delakoen itzulpenak). Maixu handi bat izan zen ORIXE euskara idaztean, baina maixuago zen aise mintzatzean; bere euskara etorri eta iturri aberatslanetan ematen aditzera zituen; menditar artzai eta euskaldun hutsekin asko gurutzatu zela berehala sumatzen zitzaion.

Herritarren oitura zahar (Artaxuriketa, Olentzero, Iñauteri, Pasturalak, Arri-altxatze, Aizkolariak, Bertsulariak, Balankariak, Ididema, Estropadak, etc.), siñeskeri, pilotari, dantza, kanta eta esaera edo lelo zahar ezkuturik etzen harendako, Algortatik asi eta Mauleraíño. *Euskaldunak* poeman horiek denak bertsutan ematen ditu. Baina eleketan naturalago en, eta naiz idaztean herritik etzen guti baizik bazterten, ederrariaz eta olerkiaren karietara zenbait hitz bitxi eskapatzen zaio, baina mintzatzean beinerez.

Poema horrek 569 orrialde ditu, azkenetan ekartzen dituen 60 kanta-doiñuen solfak kondatu gabe. Bere asmamendetik ateratako neurtitzez gainera herrikoi diran kanta asko ekartzen du liburuak, zenbait tokitan zerbait aldatuz, egia esan. Hor agertzen dira Larraungo eta bestetako plazagizon egiazko izandakoen izenak eta markak; hala nola, ZUBIETA-ko Pontxo danboliña, SALDIS-ko Beitra bertsularia, ZALDIBI-ko Okerra apustu auzilaria, EZKURREKO Makil balankaria, ERATSUN-go Koxko talogillea, BETELU-ko Tartiko pillotaria. ERRAZKIN-go Zamargina, BERUTA-ko Urtxupe aizkolaria eta besterenak.

Bere bertsu tankera agertzeko, artzainen bizitza kontatzean hau sartuko dugu: Artzaia arnaska ardi-billa mendi garaian / noizean bein gelditzen da txintxarri-zurrean / Biotzean pilpira ta ziz belarran / besterik ez entzuten ingurumarian.

IMOZ-ko apezgairan Ipuñatik hona bertsu bat; Senar-emaztek bi semerekin il nituen gau batean / iñork ikusi ez nindula ta / geldi naiz erdi-pakean / Barneko oiua ezin ixilduz / nenbillen urtebetean / gauazko loa egiten nula / pekatu aren gainean.

Herri kantatik sorgin-bertsu hau: Emezortzi serore eta bortz emagin / buruz arindu eta sartu dire sorgin / Uxta egiten dute larunbat gauerdin / erratz kirtu gainean zaldiz doazanin.

Bukatzeko, bere muiñetakoa den ipuin ederra: Errege baten alaba bein batez ere zen, /  
meriku, sorgin, iñortxok senda etzezaken / Aren inguru zoratuz, alperrik zebiltzen, / nexka  
gaixoarentzat sendagairik etzen.

Geroago begi-illunago, ez irri sekulan / zer egin etzekitela akituaz zoan / Senda nai  
dunari oiu Erregeak ontan / pozik lezaiokela emaztetzat eman.

Liburu hori denendako arrobi bat da, guziz aberatsa kanta zaharretan.

A. Apat Echebarne

Principe de Viana, 1970, martxoa, 6. orr.

## ASTO-ASTOKA

Bi mutiko besoekin elkar lepotik eldu ta jartzen dira. Irugarrena, makurturik leengo bien artean burua sartu ta, lotua gelditzen da. Laugarrena irugarrenaren gainean jarri ta, lasterka abiatzen dira. Honen irudia da, josteka baiño ikuskaria edo kuadroa izenda ditaken, Artoletan deitu au. Bi mutikok bere esku eta eskumutarrak gurutzaturik exerleku (ialeku) bat egiten dute, eta antxe irugarren mutiko bat jarri eta batetik bestera daramate.

## KASKARABIL IOKOA

Mutikoen joko au Bazta-goia da, eta iru eraetara jostatzen da.

- 1) **Tira-aala tira.** – **Kaskarabil** bat (Aritzaren adasketan azitzen dan biribiltzua) horma baten kontra jaurtitzen (botatzen) da gogorki. Ondoren, banaka-banaka gainarako mutikoak gauza bera egiten dute, eta norbaitek bere **kaskarabil**-arekin besteren batena ukitzen badu, lurrean dauden danak beretzat gelditzen dira.
- 2) **Zulora.**- Leenik zulo bat egiten da lurrean. Mutiko bakoitzak bere **kaskarabilla** ormaren kontra jaurtitzen (botatzen) duenean, zulora sartzen saiatuko da. Ori lortzen duenak irabaziko du jokia.
- 3) **Kaniketan.**- Joko ontan, zimentozko **kanika** arruntak erabiltzen dira. Triangulo bat lurrean marratu eta, mutiko bakoitzak bere **kanika** lerro batean ipintzen du, **leen, bigarren, hirugarren, laugarren...** esan ondoren.

Leenbizikoak iru edo lau metro urrunetik jaurtitzen (botatzen) bere **kanika** triangeluan daudenak jotzera edo aietatik urbil jartzeko (gelditzeko).

Alaxe berean egingo dute gainarako mutikoak **kanikak** jartzeko (paratzeko izan zuten) ordena berean.

Botzerakoan (botatzerakoan) norbaitek **kanika**-ren bat ikuitu eta marratik kanpora ateratzen ba du, beretzat izango da **kanika** ura.

Iñork ez badu **kanika**-rik ikuitzen, triangelotik urbillena jarri duena asten da jokatzen, bere **kanika** beatz lodiarekin eldu ta, ustaierara jaurtiko (botako) du.

Triangulo **kanika**-ren bat ukitu ta marratik ateratzen ba du, arentzat izango da **kanika** ori; berdin bi **kanika** ukitu ta marratik ateratzen baditu ere. Eta ortan jarraituko du uts egin arte.

Bere ondoren, urbillena gelditu dana asiko da: eta gero gainerakoak, **kanika** danak atera arte. Orduan, berriro jokia asiko dute.

A. A. Etxebarne

Principe de Viana, 1969, maiatza, 6. orr.



## NAFARROAKO AUR EUSKALDUNEN JOSTETAK

Erdaraz argitara ematen ditugu Nafarroako aurren euskal jostetak. Gure lankide eta Irakasle argia den Oñatibia jaunak interesatuta, euskerara pasatzeko bere asmoa erakutsi zautan. Orain bere gutizia bete dut, eta atsegin haundiakin argitaratu nai ditugu Orrialde huntan, Nafarroako gurasoek bai eta ikastola guztietako andereñoek ere baliatu ditzaketelakoan.

### ITSU KAPELU

Erderazko “A la gallina ciega”-ren antzekoa da josteta au; ara: Mutil denak inguru batean daude, eta batek ezkerretik eskubira banaka ikuituko ditu bakoitzari itzpunta bat esaten diola:

ARRIOLA – MARRIOLA- / KIN KUAN KIN / PORTAN ZELA / PORTAN MIN / ARREXINALET / SEGERRE / MEGEREN / KIRUN KARUN PEK.

Azkeneko itz-puntau tokatzen zaiona ITSU gelditzen da Txapel (Boneta) bat ezar, ikus ez dezan begiak estali eta gaiñerako mutillak beren bonetak ongi lotu (bildu) ta aren bizkarrean ukaldika ekiten diote, ITSUA makurturik dagola; eta doñu au kantari:

ITSU KAPELU / NON DUK ANDRIA? / SASIAN GALDU / BILA BERTZIA.

Azkeneko itza esaten dutenean, inguruan dabilzan mutillen bat atxematera abiatzen da ITSUA, mutillek beren aldetik –aal dutenean- ukaldiak ematen dizkioten bitartean. Bat edo bat atxematen badu, non dan igarri bear du, eta igartzen badu, atxemandakoari boneta (txapela) ezarriko diote. Eta egiten ez badu, bera ITSU izango da berriro, eta lehen bezala jostetan asiko dira.

### OILLAR DANTZA

ANTZARA JOKO basatiaren antza badu josteta onek. Urtean bein bakarrik egiten da. Ostegun-gizen egunean; ORAKUNDE izena ere ematen zaio egun orreri, Erriko Plazaren aldamen batean, oillar bat lurperatzen da (lurraren azpian sartzen), burua bakarrik agerian duela. Plazaren beste aldamenean errenkan daude jolas egingo duten mutillak, jaiegunetako jantziz apaindurik denak, eta egurrezko (zurezko) ezpata bana eskuan dutela.

Danboliñak doiñu alai bat jotzen ari dan bitartean, eta onek seiñu egiten dien bezain laster, begiak musuzapiz estalirik daukaten mutil guztiak, oillarraren gana joango dira. Egaztinaren burua leendabizi ikuitzen duenarentzat izango da oillarra, eta jaialdi guztirako buruzagi izendatua gelditzen da; nexkaen artean bere lagun kidea bereixten duela.

Gero denen artean jaialdiari eta dantzari ematen diote asiera. Toki batzuetan ez dute, oillarraren burua ikuitzearekin aski izaten, eta askotan oillar gaixoari xautu eta sofriarazten diote. (Gaizki egin!).

### AXKENKA

Autamena egin ondotik, ogeigarren gelditzen dena izango de BETE, eta au gaiñerakoen billa joango da, eta norbait ikiturik AXKEN esaten dion ura gelditzen da bete. Gauza bera egiten ariko da au, eta horrela jarraituko dute beti txandaka, atxemana BETE gelditen dala, alegia.

SAREA izeneko jokoa, iduria da: BETE gelditzen dena gaiñerako mutikoen atzetik joango da eta bat ikuitzen duen bezain laster, eskutik artuko du, eta banaka, besteak ikuitzera abiatuko dira, azkenekoarekin amaitzen dela josteta.

A. Apart Echebarne

Principe de Viana, 1969, apirila 6. orr.

# Olentzero

Horrá, horrá!  
Gure olentzero  
Pipa ortzian dula  
Ixerita dago.  
Kapoi pareakin,  
Arroitzetxuakin  
Bigar merendatzeko  
Botil ardoakin. (bis)  
(estribillo)

Olentzero joan zaigu  
Mendira lanera  
Intenzioarekin  
Ikatz egitera,  
Aditu zuenean  
Iesus jaio dela  
Lasterka etorri da,  
Guri errattera. Horrâ...

Olentzerok esan du  
Biotzez egia  
Ikusgarria dela  
Aur jaio berria.  
Begiak dituela  
Izar txoil argiak,  
Iguzki ederra dela  
Bere arpegia.  
Horrâ, horrâ...

Hemen eldu gerade  
Berri on batekin,  
Gure enbaxadore  
Olentzero-rekin,  
Idiak eta astoak  
Beren gurdiekin,  
Ezin barriaturik,  
Zagi ardoakin. Horrâ...

Olentzero gureak  
Joan nahi du etxera  
Sukalde bazterrean  
Lasai afaltzera  
Nafar ardo zarrakin  
Gazta bat jatera  
Eta gero patxadan  
Pipa piztutzero. Horrâ...

Olentzero buru aundia  
Entendimentu gabea,  
Bart arratsean  
Edan omen du  
Hiru arruko zagia:  
Ai urde tripaundia!  
Edana baiduk zagia.  
Horrâ, horrâ, guré...

Oean beste aldean  
Turroi bat aundia  
Aspalditik han dauka  
Legortzen jarria,  
Hura dena jatean  
Ai! Zer egarria!  
Zagitik beharko du  
Busti eztarria. Horrâ...

OLENTZERO gurea  
Egin dugu asé  
Odolki ta solomo,  
Makiña-bat esté  
Osorik jan dizkigu  
Amar txerri gazté  
Iesus jaio da eta  
Kontsola zaitezte. Horrâ...

Apat Etxebarne

Principe de Viana, 1966, abendua, 3. orr.

## PEDRO DE AXULAR (I)

*Piarres de Axular* izkiriatazaila famatua entzunez bederen ezagutzen duzue. Nafarro-koa zen, Urdazubi-ko herrian sortua, GUERO izen handiko liburuaren egilea; Bere gurasoak, Piarres Daguerre eta Maria Azpilicueta ziren: (S. Frantses Xabierre-koen amaren izen berekoa). Bere izen bera daraman sortetxea oraino xut dago, baiñan berritua, leengoaren tokian.

Gutti dakigu ahatik bere gaztaroak: 40 urte beteak bazituen apez ordenatu izan zeneko Tarbes-en. Iruñeko Apezgai-tegian eta Leridan ere egin zituela bere ikastaroak badakigu. Baiñan zer aritu zen 40 urte bete artio?

Edo zerbait traba ezkutu ba-zena bere bidean?

Garai ayetan bertan, Euskalerrian eta bereziki bere erri inguruko lurretan, ikaragarritzko zorigaitzak gertatzen ziran: Akelarre batzarretara elemeniaka zoazin aldi artan jendeak, eta orduan gertatu ziran, Pierre de Lancre (Risteguy izenekoa, damuz) epaikari zela, sorgin doakabeen erretze deitoragarriak.

Eta ayen artean, suan bizirik erretakoen izenetan kausitzen ditugu iru apezten izenak: bi zahar, *Argibel* eta *Migelena*, Azkainen erreak, eta *Bocal*, Ziburu-ko erretora, 27 urtetakoa.

Eta orain galde bat, beti erantzupenik gabe nere buruan gelditu dena: Zergatik ez du Axularrek bere liburuan sorginkeriz itzik aipatzen? Bekatu aundi bat izanik, eta orduko Euskalerrian asko edatua. Iduri du etzituela, horduko buruberokeri eta basakeriak onartzen.

Herrian, sorginkerizko ipuiñ bat kontatzen da Axularrez; Salamanca-n ikasten egon zela, debruak leize batean zeukan Eskolan; ikasleetatik bat beretzen omen zuen debruak urtero.

Axularrek urte artan erabaki omen zuen, lerroaren azken tokian bera geldituko zela. Baiñan eguerdian ateratu behar ziralako baldintzarekin; ikasleak lerroan, leizetik kanpora badoazi, debrua ate-zain: Denek txandaka esaten dute, "Arzak ene ondokoa", eta Axularrek ere bardin: debrua orduan, kobaren paretan eguzkiak egiten zuen aren itzalaren gaiñera bota zen, Axular libre joan, baiñan itzalik gabe gelditu, omen.

Dena den, ipuiñak aski argi adi-arazten du Axularren izenaren eta ospaeren edadura. Bere biographia baten faltan arkitzen gara eta arrigarritzkoa da euskalzaleen axolagabekeria geren goyeneko gizonekin.

(jarraituko du)

---

*Pedro de Axular fue un escritor navarro que escribió la obra más famosa del vascuence, el Guero, que es un tratado de moral expuesto con gran altura y conocimiento, e ilustrado con ejemplos y citas de los escritores clásicos religiosos y profanos, más famosos. Nació en Urdax en 1556 y fue párroco de Sara (Labort), donde murió en 1644.*

A. Apat Echebarne  
Principe de Viana, 1966, otsaila, 4. orr.

PEDRO DE AXULAR (II)

**AXULAR eta Henry IV, Frantziako erregea.  
LARRAMENDI-ren laudoriak**

AXULARR, nafar izkiriataile ospetsuari, Sarako parrokia bere esku hartu zuenean, auzia piztu zioten Espainiako zelakoaren estakuruan. Daranatz kalonjeak kondatzen du (Curiosités du Pays Basque), joan zela gure gizona zaldiz Parisera. Henry IV' garren ospe andiko errege harekin mintzatzeraz.

Eta Erregeak berak **Lettres de naissance** direlakoak bidali zizkion, frantzesez, auxe adi-araziz: “Nafarroako Erresumakoak nere meneko baititut eta baitira, nai dugu eta agintzen dugu, Axularrek ukan, eta goza dezala, Sarako erretorgoa, sortzez Nafarroa-goitikoa dela, beste kontrarik ez paldin badu... Parisen, 1601garren urtean”.

Dokumentu au gordetzen de Orreagako Monasterioan.

Axularren laudoriotan mintzo diran guztiak aipatzeko ezdugu lekurik. Utziko ditugu mendiz bestaldekoen gorapenak (**Yoanes d'Etxeberri, Intxauspe, Dr. Etchepare, Piarres Lafitte, Otsobi**, etc.) eta asi gaitzen esaten, bizi zen demborazko, 1642, bere izena eta ospea aunitz edatuak zegoela; ezen bere liburuaren zensuran, **Salvatus de Dissanechek** dio “...Domino Pedro de Axular, viro magni nominis in nostra Cantabria, ac celebri nuper Rectori de Sara”.

Larramendi idazlari trebeak, goyeneko laudorioen artean aipatzen du Axular; bere **Corografía de Guipúzcoa** liburu xarmagarrian, erakusgarri bezala Axularren zati bat dakarra. Eta bere **Iztegiaren** aitzin-solasean **Guero** liburuaz Larramendik dio:

“Un tomo en 8º del célebre Pedro de Axular. El bascuence es elegante, propio, puro, abundantísimo; el asunto tratado por principios, probados por la sagrada escritura, padres de la Iglesia, ejemplos y semejanzas muy oportunas”.

“**Los vicios pintados al natural y convenientísimos sus remedios. Anda en manos de muchos**, y debiera en las de todos los vascongados, y ojalá hubiera dado a luz la 2ª parte que ofrece al principio al lector. Está impreso en Burdeos año 1642”. (Zuzenki, 1643 da). Andoaindarrak dionez.

GVERO liburua aunitz irakurtu zen bere denboran; Nafarroan bederik, seurki orai baiño gehiago; ezen badakigu etsenplario zaar bat arkitua izan zela Valle de Yerriko etxe-sabai batean. Orduan euskara agitz edatuago zegoen.

(Jarraikiko zaio)

A. Apat-Echebarne

Principe de Viana, 1966, martxoa, 4. orr.

### **Axularr-en Gvero liburuaren edizioea, erdal itzulpenarekin**

Orai berriki ateraia den GVERO liburuaren borzgarren edizioea, aipagarri da, leenbiziko aldiz dakarrelako erdarazko itzulpena. A. Villasante euskalzainak lan gaitza bururatu du, eta euskaraz ikasi nai dutenendako egoki eldu da; orrialde bakoitzean ematen baititu biak, euskara eta erdara.

GVERO irakurgaiaren izenburu propioa hauxe da: “GVERO/BI PARTETAN / partitua eta berecia / LEHENBIZICOAN / EMAITEN DA ADITCERA / cenbat calte eguiten duen, luca / mendutan ibiltceac, eguitecoen / gueroco utzteac. / Bigarreanean quidatcenda... Axular Sa, /raco erretorae vildua... BORDELEN, G. Milanges Erregueren Imprima / caillea baithan. M. D. C. XLIII”.

Axularren liburuak irurogei kapitulu edo buruxka ditu, –600– en bat orrialdetako mintzo yori, eder, aberats eta yostakin batean; ainbesteraño, non toki askotan idazlariren solasen eztitasunean pulumpatzen garela, gaiaren aria galzen dugun.

Han emen, latin edo erdararen sintaxis usaiñeko hiperbaton eta esakerak kausitzen ditugu; aitortu behar da ori. Baiñan esan ere behar da, gramatikalariek batzutan zorrotzegi beren erreglak eramaten dituztela, esakunaren zentzua illundu arteraño eta grazia gal–araziz.

Ezen aipu andiko erdal idazlari batek (Barojak), idatz–estiloaz mintzo denean dio: “Hay incorrecciones que se aceptan, porque son más cómodas y expresivas, cuando estas irregularidades son una forma popular”.

“Flaubert en su Correspondencia se extraña de que los grandes escritores no hayan sabido escribir (gramaticalmente). Así, Cervantes, Walter Scott, Balzac, Dickens, Dostoiewski, han sido considerados como escritores incorrectos. La perfección, cierta clase de perfección en el estilo aburre”.

Huna zer dion Axularrek, bere liburuaz...; “haur da nik nahi nukeyen gauzatarik bat, ene enseyu apur hunek kilika zinitzan eta gutizia bertze enseiu hobeago baten egitera, eta ene hemengo falten ere erremediatzera.

Zeren halatan ez lizateke euskara hain labur, eskas eta ez hertsia, nola munduak uste baitu eta baitaduka, dela. Orai badirudi euskarak, ahalke dela, arrotz dela, eztela iend–artean ausart, erregu, bitore eta ez trebe.

Zeren are bere herrikoen artean ere, ezpaitakite batzuek nola eskiriba eta ez nola irakur. Baldin egin balitz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latíñez, francesez edo bertze erdaraz eta hizkuntaz, hek bezain aberats eta komplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak”.

Iñork ere eztu gure AXULAR zarra garaitu euskara izkiriatzeko erreztasunean: bestalde, gai sakonenak ere badazki, irakurgai batek behar dituen gatz eta piperrez ornitzen. Urreneko aldian, zati berezi batzu emanen ditugu, aserreaz, koleraz eta lizunkeriaz mintzo direnak.

A. Apat–Etxebarne

Principe de Viana, 1966, maiatza, 4. orr.

PEDRO DE AXULAR (III)

## **Orixe izkiriailleak Axularrez diona**

### **Gvero liburuaren edizioneak**

Ospe haundiko LARRAMENDIK (1748), bere COROGRAFIA, liburu ezinago baliotsuan, dio: "...En Labort se han dedicado más que en ninguna otra parte, á hablar y escribir en vascuence, y á predicar la palabra de Dios con toda decencia, limpieza y eficacia...".

Hau dudarik gabe Axularren *Guero* liburuari zor zaio geyenik, bere yarraizaleak izan zirelako *Pouvreau*, *Materre*, *Oihenart*, *Harizmendi*, *Tartas*, *Darambillaga*, *Gasteluzar*. – Oraino ere haren maisugoa ez da itzali idazlarietan.

Huna orai *Mikolas Ormaetxea (Orixe)* idazlari aipatuaren iritzia: "Peru Axular duzu aurki euskal idazlerik bikaiñena orintsudaino... Damurik ez dugu ikusiko nai bezain laster GUERO-ren ekoizpen edo edizione berria! Axular bezalako idazle asko izan balitu euskarak, dagon baiño landuagoa zegoen onezkero". – Hau izkiriatu zen ezkerotik (1927), bi edizione onak agertu dira, LEKUONA-ren bata, eta erdal itzulpen batekin bestea, VILLASANTE-rena.

*Orixe*-k Axularren tankeraz eta estiloaz mintzo denean dio; "Axularren asmoa da, burutapena (pensamendua), den bezala ta argi agertzea, ta ez dijoa igesi beste asko bezala, buruan daukana adieraztetik.

Asko ta asko gaur ere erderaren igesi dijoazela, burutapenaren igesi dabilta. Ala ere Axularrek euskal itz eder ugari ba du, Mendiburuk baiño ugarigo".

Gure autore unen liburuak bost edizione izan ditu; lehenbizikoa, 1643'garren urtean, egilleak behar bada ez ikusia, 1644 urtean hila baizen. Bigarrena estalirik edo ixilpean agerturik, urtea markatzen ez duela; textoan itzez itz lehenbizikoa bezala delarik, azalean bere izen-burua bestela agertzen zaigu: *Gueroco guero*. Ez da jakiten ziurki, baiñan uste da, 40 urte edo ala geroago agertu zela bigarren edizione hau, nunbait lehenbizikoaren arrakasta bete baten ondorioz; lehenbizikoaz iyeki gutti gelditu, eta aldez bigarrenekoaz aunitz gehiago; naiz orai urri diran azken hauek ere, eta salneurri goretara eltzen.

Irugarren edizionea 1864 urtekoa da, Inchauspe idazlariak argitara emana; ekoizpen unek ezta ainbat balio, ezen editoreak Axularren mintzoa aldatu du, eta batzuetan zati osoak ixil ere, dituen gordinkeri batzuen aitzakiaz. Laugarrena, itzez-itze lehenbiziko edizioneatik hartua; horduko grafia egungo erara aldatua, oraiko irakurleari erreztasun gehiago eman naiez, Manuel LECUONA euskalzainak argitaratua, aitzin-solas luze batekin, eta L. MICHELENA-k lagundurik.

(Jarraituko zaio)

A. Apat-Echebarne

Principe de Viana, 1966, apirila, 4. orr.

## PEDRO DE AXULAR (V)

*Gvero* liburuak gorroto eta aserreaz

Euskera–ra itzulikatzeko oldeaz eta moldeaz dio Axularrek:

“Ez eta, eztitut beti ere eskritura saindua eta doktoren erranak ere, hitzez hitz euskara–ra bihurtzen. Zeren euskara eta bertze hizkuntzak diferent baitira. Ordea ezta ez handik segitzen gaixtoago dela euskara”.

Nafar idazlariak metaforak erabiltzen ditu, baiña ororen gaiñetik sinonimiak; iru–lau izen lerroan ematen ditu gauza bat adi–arazteko; izen horietatik asko erdaratik direla aitortu dezagun lañoki.

Baiña itz mordollo horiek barkakizun direla deritzait, Axularren liburuaren errextasuna eta atsegiña, horretatik eldu delako; irakurzaille bakoitzak atxematen duelako beti, bere belarriak ezaguna duen izena edo itza; eta banago etzueñez apropos egin Axularrek. Erdaratikako itzen ondoan beti aurkitzen dugulakotz itz garbia, eta bai ulerkaitza ere, hunen laguntza ondoan ezpalego.

Huna Axular; “Nola ardia otsoaren ikusteaz, lazten, larritzen, asaldatzen, izitzen eta ikaratzen baita; hala egiten gara gu ere etsaiarekin batzeaz eta incontratzeaz”.

“Gero” liburua, humanista bete baten (gizatiak baten, esate baterako) kumea da; garai ayetan, aro eta sasoi horretan ziren oraiño; greko eta erromanoen idurira izkiribatzen zuten, eta Axularren liburutik gizatasuna dario alde guztietarik.

Axularrek oraiño klasikoak imitatzen ditu, eta idazlari ayen edergailuak onesten, eta ayen birtuteak laudorioz aipatzen, pagano–enak izanik ere, Renacimiento–aro edo Berpizkunde–aro delakoaren seme egiazko batek bezala.

Goazen berriz Axularrengana eta gorrotoaz nola mintzo den dakusagun: “Haserretu behar denean ez haserretzea, sentikortu behar denean ez sentikortzea, beti bat, beti uli, lolo, malba eta bare izaitea, ezteustasuna da eta ez gizontasuna. Begiratu behar da sobera haserretzetik, alde egin behar zaika hirari, begia eduki behar zaika kolerari eta ez, prestuki eta onestki bizitzea gatik bera gatik, baiña bai gorputzeko osasuna gatik ere.

“Zeren bere barreneko koleraren suak eta irakinak, errai guztiak erratzen, elkortzen eta idortzen baiterautza. Eta hala ikusiko duzu bere egitez lauzkor eta mendekos diren presunak, baldin berehala bere desiren arauaz mendekatzen ezpadira, egosten eta desegitzen direla.

Eta baldin halaber mendekatzero eta esuen odoitatzera gerta badakie, gero ondolik dolutuak eta atsekabeztatuak dabiltzala. Halako suertez, ezen, nola nahi den dela, naiz mendekaturik eta naiz mendekatu gabe, naiz bere gogoa historik eta naiz histu gabe, ezta halakoentzat, damurik, atsekaberik eta asaldurik baizen”.

Hunaraiño AXULARR, Urdazubiar idazlari haundiak bere liburuan, lizunkeriaz dakarrenaren zati bat emanen dugu, agian, ondoko batean.

A. Apat–Etxebarne

Principe de Viana, 1966, ekaina–uztaila, 6. orr.



## PEDRO DE AXULAR (VI)

### *Koleraz eta lizunkeriaz Axularr ek diona*

Oraiko aldian emanen ditugun zatiekin bururatzen da Axularren aipamen luze hau, urdazubiar izkiriatazaille haundiak merezia, dudarik gabe. Huna hemen gorrotoaz dakarzkien zenbait gogoeta zorrotz.

“Haserretzea eztago ez hanbat egitekoaren balioan, nola presunaren kondizioan. Batak antsiarik eztuenaz, bertzea jauzten eta enkoniatzen da...”

“Halatan erraiten du Platonek; presuna haserrekorrak eta kolerak adimendutsu direla, eta anitz ikasteko on; ez ordea herrien gobernatzeko eta ez eskola edukitzeko ere. Zeren hartarakotzat pazientzia behar da, sosegu behar da eta anitzetan ere, ikusia ez ikusi, eta aditua ere ez aditu iduri, egin bear da...”

“Livio filosofoak bere diszipulu Theodosio Emperadoreari erraiten zion: Badakit, Emperadore handia, zenbait aldiz haserretuko eta koleran jarriko zarela. Bada ordukotzat, eman nahi deratzut konseillu on bat”.

“Hala zerenean, ez kexa, ez leia, ez bere hala abia, iguriki apur bat; ez (albaitzeneza), deus egin, ez erran eta ez aitzina, A.B.C. eta hei darraizten bertze letrak erran arteño...”

“Kofesa ahal zaiteke, gorputz saildua errezihi, barur, orazinotan egon, eta duzun guztia probei eman; baiña hek gustiak etzaizkitzu deus baliatuko, baldin barrenean nehoi herrarik, hegigoarik, gorrotorik edo borondate gaixtorik badiadukezu”.

“Eztiteke zauria senda elorria barrenean deino; eztiteke bekatua barka borondate gaiztoak diraeino. –“Unaraiño Axular”–. Dakusagun orain XXXIV garren kapituloan lizunkeriaz dakarrena”.

“Nik uste dut ezen, emaztetara emana den gizona, hala deino, ezin datekeyela ongi, eta guztiz ere, baldin ezkondua ba da. Ezkondu gabe baten erortzea, behar ezten emazten batekin segitzea, ezta ongi, bekatu da”.

“Baiña alde, ezta hain miresteko, munduko arauaz. Ordea ezkondu batek, emazte ederra eta prestua duen batek, hura utzirik, har dezala itsusi bat, begi–zeiar bat, ezkel bat, beteriatsu bat, finean ezteus bat, eta harekin josia bezala egon dadilla; erran behar da adimendua itsutu zaikala, memoria nahasi zaikala eta borondatea behar ezten aldera itzuli zaikala. Halakoaren etxean ezta gerlarik, liskarrik eta bizitze gaixtorik baizen”.

“Zeren emazte ezkondua ezto deusek ere hala giarran ukitzen, krozkan erauzten eta ez bere tentutik eta patzientziatik ateratzen, nola bere senarra bertzerekin diobilkola jakiteak...”.

“...Zeren amorantea eta guztiz amorante miaua eta eskalea huntz adarra bezala da. Huntzak inguratzen du zuhaitza, besarkatzen du, edoskitzen du eta azkenean ihartzen du. Hala bada amoranteak bipiltzen du, larrutzen du, ariman eta gorputzean ihartzen du”.

“Urrikalkizun da halakoa eta bai amorantea–ganikako haurra ere. Zeren nola ezpaita legitimo, nola baita bastart, bort, ezkontzaz kanpoan egiña, ezin mintza diteke libreki jendartean, ezin bururik ailtxa dezake; berehala lehenbiziko liskarrean p. seme deitzen dute. Seme bastartak berak ezto hobenik, baiña bere aitarengatik, ekarri behar du burua behera”.

Hok bezalako kapitulo bixiak dastatuko ditu (alferkeriaz, limosna egiteaz, arneguaz, lizunkeriaz eta gorrotoaz), gizonki, eta batzutan gordinki, mintzo den GVERO liburu famatua irakurtzera deliberatzen denak.

Gizon handi hunek Urdazubiko Axularrea bere sortetxean, izkiribu–arri bat merezi luke; Sarako Elizan, Bonaparte Prinzeak parazi zionaren gisakoa.

A. Apat–Etxebarne

Principe de Viana, 1966, abuztua, 4. orr.

## PRECLAROS PATRICIOS DEL FINAL DEL SIGLO XIX

De vez en cuando conviene refrescar la memoria de los navarros que se dedicaron con más empeño que suerte, al fortalecimiento de las tradiciones euskaras, empezando por la lengua.

Después de la última guerra carlista y a raíz de la mutilación de los mermados Fueros, hubo una reacción en los caídos espíritus de estas cuatro provincias; y en Navarra se reunieron unos ilustres personajes, que formaron tempranamente (1877) la Asociación **Euskara**. Estos nombres nada dice a los jóvenes escolares de hoy, a pesar de verse algunos en los rótulos de las calles de la capital; creemos que la historia se debe aprender, empezando por la más próxima.

Los principales iniciadores, venidos de distintos sectores políticos, no sólo del tradicionalista, fueron **Florencio Ansoleaga, Estanislao Aranzadi, Joaquín Azcona, Arturo Campión, Salvador Echaide, Rafael Gaztelu, Juan Iturralde y Suit, Antero de Irazoqui, Nicasio Landa, Aniceto Legarda, Hermilio de Olóriz y Esteban de Obanos**, que fue el primer presidente de la citada Asociación.

El objeto de la **Euskara** era “conservar y propagar la lengua, literatura e historia vasco-navarra...” como reza su Reglamento; en su primera directiva, además de algunos de los citados, son Obanos en la presidencia vemos el nombre de **Ramón Irurozqui**. A pesar de que sus actividades abarcaban varios enunciados, su atención preferente fue la lengua y literatura, que, por causa de las contiendas principalmente, no despertó la menor atención yendo desde la francesada, decayendo y desapareciendo con una rapidez desconocida en los siglos anteriores, hasta quedar reducida en aquella fecha a las zonas norteñas.

Esta benemérita y culta Asociación tuvo éxito al principio, pero pronto, por causa de la poca tolerancia y tibio fervor, fueron desgajándose de su tronco los grupos de ideologías carlistas y liberales, quedando un puñado de románticos, fieles a la voz de la estirpe. Recién terminada la guerra carlista de 1873, logró calmar los ánimos, abatidos por los resultados catastróficos de la contienda; teniendo representantes en **Alsasua** (M. Jorge), **Burguete** (Miguel María Marso y Ramón Irigaray), **Estella** (Vicente González), **Fitero** (Tiburcio Orduna), **Lesaca** (Modesto Esparza), **Mañeru** (Miguel Arbeloa), **Mendigorría** (Casildo Ortiz), **Miranda** de Arga (Joaquín Echenique), **Puente, Tudela**, etcétera.

Pronto siguieron a Navarra, espíritus preclaros de las otras tres provincias (**Moraza, Egaña, Manterola, Sagarmínaga...**) con las que se empezaron a organizar fiestas y concursos literarios, gracias a la iniciativa y concurso del ilustre suletino **Antonio Dabbadie**.

Ya antes de la última guerra carlista, el escritor Juan Iturralde y Suit se reunía con Pabro **Iarregui, Landa** y **Obanos** con ánimo de iniciar un renacimiento lingüístico, que cuajó más tarde. El primer asociado de honor nombrado por la Euskara, es el Príncipe **Bonaparte**, que hacía ya años que se dedicaba al estudio y al cultivo del viejo idioma.

Otros socios honorarios fueron **Alejandro Pidal y Mon**, de Madrid y **Juan Mañé y Flaquer**, barcelonés famoso por su conocido libro sobre estas tierras forales, “**El Oasis**”. Entre los socios honoríficos del País, debemos citar a **Navarro Villoslada**, autor de obras de fantasía, pero que despertaron enormemente el afecto a las viejas tradiciones, como “**Amaya o los vascos en el siglo VIII**”; **Serafín Olave**, de ideas liberales éste, que creó un fondo para concursos premiados de obras que ilustren o estudien las cosas de Navarra; y que se mantiene en la actualidad. También citaremos a **Nazarío Carriquiri** y al colaborador preferido del Príncipe Bonaparte, **Bruno Echenique**, culto traductor al vasco baztanés del libro de Huth, de una parte del Evangelio y otras obras.

(“Diario de Navarra” egunerokotik hartua)

Principe de Viana, 1972, urtarrila, 2. orr.

## RENACENTISTAS NAVARRO DE PRINCIPIOS DE SIGLO

En la primera mitad del siglo XIX, **Antonio Dabbadie** despertó los espíritus amodorrados del País vasco-francés, como se ha dicho, ayudando de su pecurio generosamente, las fiestas y **Concursos** literarios del idioma vernáculo.

Pero hacia el final del siglo, decaen esas fiestas, como se deduce del velado reproche que el escritor **Duvoisin** (entroncado acaso con los pamploneses **Divasón**) hace al autor del Cancionero vasco más completo en esa época. **Sallaberry** de Mauleón.

“Yo creía, le escribe, que sería Mauleón la sede de los Concursos de pelot ay de improvisadores euskéricos que **Dabbadie** organiza este año; pero se han suspendido y es Navarra la elegida. Las fiestas del 25 de julio prometen ser brillantes en Elizondo; la Sociada Euskara contribuy con valiosos premios; Navarra y Guipúzcoa, acudirán al Concurso. Va a quedar ausente **Ziberoa**, que tantos bellos Romances tiene en su haber?”

Efectivamente, los señores, Hermilio de Olóriz, Salvador Echaide, Sagasetta, Ormaechea y Arturo Campión, solicitan en 1879 de la Asociación **Euskara**, el concurso de éste, para celebrar junto con el señor **Dabbadie**, las fiestas y juegos florales, con premios de aquella. A **Elizondo** acudieron ese año muchas gentes de las provincias vascas de España, así como del país vasco-francés; entre las personalidades citaremos, además del patriarca **Dabbadie**, los navarros Bruno Echenique y el famoso compositor Dámaso **Zabalza**, el labortano y gran colaborador de Bonaparte, **Duvoisin**; el malogrado guipuzcoano **Manterola**, sabio autor de un precoz **Cancionero** o Antología literaria, el vizcaíno **Adán de Yarza**, y los más ilustres personajes de aquella romántica época, ya conocidos del lector.

Una nota más bien triste, fue la llegada del bardo **Iparraguirre**, a pie, derrotado y viejo, sin más bagaje que su inseparable guitarra. Aún tuvo espíritu para cantar ante la memorable Asamblea de Baztán, cinco estrofas llenas de esperanza y de elogios para la Asociación **navarra**, que tuvo el acierto de convocar a los euskaros de los cuatro puntos cardinales, sin distinción de ideologías y olvidando la guerra fratricida en la que él había de joven tomado parte. Una estrofa dice así, traducida: “Sin rencillas, como hermanos, Navarra nos ha unido, mostrándonos el buen camino, el que debemos seguir todos los buenos euskaros, para vivir sin luchas fratricidas”.

En el Concurso de Elizondo, se descubrió un gran poeta elegíaco, el vizcaíno **Arresebeitia**, que obtuvo el primer premio por su composición, más bien dramática “**Ama Euskeriari azken agurrak**”.- **Despedida final a la madre EUSKERA**. El triste vaticinio del poeta, tan elogiado por Campión, por fortuna no se ha cumplido.

En el Certamen, obtuvo entre otros, una mención honorífica, un navarro que se oculta tras las iniciales L.L.I. y que no sabemos quién es.

Estas fiestas éuskaras de Navarra fueron las primeras entre todas, y de aquí se propagaron a las provincias hermanas, donde, después de 1879 se fundaron Revistas y Asociaciones euskeristas; aunque alguno se sorprenda, esa es la historia, que puede leerse en la **Enciclopedia** vasca de B. Estornes, con más detalles. Esto lo repite además el escritor **Añoarra Duvoisin**, en una carta a Campión, diciendo:

“**Vosotros, navarros, habéis tomado una iniciativa fecunda; Guipúzcoa se apresta a seguimos, y verá V. Como Vizcaya se anima a su vez. Guardad la primacía; quién sabe lo que nos reserva el futuro? Macte animo**”.

Así, siguieron en el mismo año las **Primeras** fiestas éuskaras donostiarras, organizadas por el Ayuntamiento que acuerda: ...”enviar otros escritos (programas de invitación) al sabio señor Antonio **d’Abbadie** y a la **Asociación de Navarra**, hace más de

veinte años... y que esta Asociación es la **única** en nuestra tierra que ha tomado a su cargo la salvaguardia de la lengua y su difusión”. Todos estos precoces fervores se iban a apagar demasiado pronto.

En ese Concurso donostiarra, organizado por **Manterola**, pasó desapercibida sin embargo, con una triste **mención**, una magnífica poesía de **Elizanburu, Lehen eta Orai**, que todavía se recita con emoción; también aparece perdida, otra de Serafín **Baroja**, padre de los de **Itzea**, que fue un notable prosista y versificador en Vasconia.

### **Fiestas euskaras de Vera**

Al poco tiempo, en 1880, se celebró el Certamen organizado por la Asociación euskara de Navarra, en esa villa bidasotarra, durante sus fiestas patronales, como antes en Elizondo. En los días 4 y 5 de agosto, se celebró un Concurso literario en Vasco, español y francés, otro de **Bersolaris**, de **pilotaris**, de **segalaris** y de tamborileros; el Jurado estaba compuesto de Dámaso **Legaz**, **Gaztañaga**, Salvador **Echaide** y **Campión**. Esta comisión fue recibida por las autoridades y dantzaris, leyéndose en la bandera española que les precedía, dos rótulos: “Biba Euskaldunak” y “Biak bat” que se refería a la unión de los dos barrios de Vera.

Los famosos **bersularis**, **Pello Errota** de Asteasu y Juan Cruz **Elicegui** tuvieron un éxito enorme, por la causticidad del primero, que ha quedado proverbial. Hubo de actuar también un bardo navarro, Zubiri, que fue amigo de Iparraguirre, y cantó entre otras canciones de éste, el **Guernica-ko**, con acompañamiento de guitarra, como aquél.

También actuó el famoso pianista navarro, Dámaso **Zabalza**. Las medallas llevaban grabados, el árbol de Guernica y al fondo siete montañas, con la leyenda: **Nafarroako Euskal Elkargoa. Jaungoikoa eta Foruak**.

### **Certamen literario de Pamplona**

Al poco tiempo –1882- organizó el Ayuntamiento pamplonés, con motivo de las fiestas de San Fermín, un Concurso literario en Vasconia y en castellano, siendo del Jurado, **Gaztelu**, **Landa**, **Ascunce** y **Campión**, de la Asociación tantas veces citada. Intervinieron en la fiesta el Orfeón Pamplonés y la Coral Santa Cecilia. Ante la sorpresa general, apareció Sarasate, que interpretó varias piezas de su brillante repertorio, dando lustre a la fiesta.

Entre aquella pléyade de promotores, desconocida y olvidada hoy, quedan por citar los de principios de este siglo, que merecen un recuerdo; el corellano y erudito Mariano **Arigita** y **Lasa**, Serapio **Gurbindo**, y el que fue cultísimo Archivero del Ayuntamiento pamplonés y devoto de la vieja lengua, Leandro **Olivier**, entre otros varios que dejamos para otra ocasión.

A. Apat-Echebarne

(“Diario de Navarra”-tik artua)

Príncipe de Viana, 1972, azaroa-abendua, 2. orr.

## URTEBERRIKO ESKE-KANTAK ZAARRAK

Dios tesalbe, Ongi etorri!  
Gabon Jainkoak diela  
Legearekin konpli dezagun  
Urteberriren bezpera.

Urteberriren bezpera da ta,  
Eskean gatoz atera,  
Ama Birjina seme garbia  
Doaielako pontera.

Esku xuritan papera,  
Maiean urrez platera  
Lotsa gogorrez eldu gerade  
Jauna berorren atera.

Usoa doaie kotara,  
Nire begia lotara,  
Nagusi jauna, oraintxe noa  
Berorren koplaetara.

Etxekoandrea, aur ona!  
Horixen da zoriona  
Bazko goizean jantziko ditu  
Bere soiñean sei gona.

Xuri nabarra azpiko,  
Gorri ederra gaiñeko,  
Andra, zure berdiñik ezta  
Etxe bat zuzendutzeko.

Horroko hor goien antzara  
Etxeko seme non zara?  
Gu zuregana etorri eta  
Iñun ageri etzara.

Etxeko alaba non zera?  
Iñun ageri etzera,  
Atoz onara ate ondora,  
Gure illunak kentzera.

Lau mutil gazte badauzkat eta  
Jarriko dizut aukera,  
Neroni ere gaiean nago  
Baldin gustatzen bazera.

Horroko hor goien otea,

Dena da lorez betea,  
Etxe huntako alabatxoak  
Kutxan daduka dotea.

Horroko hor goien antzara,  
Joxepanttoni, non zara?  
Mundu guzia ezkondu eta  
Zu zertako iñ-etzara?

Damatxo gazte, txukun liraiña  
Arpegi zuri gorria  
Zure masailla iruditzen zait  
Grabeliñaren orria.

Grabeliñaren orria  
t-arrosa maiatzekoa,  
zuri begira hementxe nago  
gaztetxo biotzekoa.

Ari naizela, ari naizela  
Nekatu zaizkit ezpañak  
Etxe huntatik espero ditut  
Erreal bi ta gaztaiñak.

Emango bauzu, emazu,  
Bestela ezetz errazu  
Ate ondoan otzak hiltzera  
Amak ez gaitu bialdu.

Eskupekoa hartu duguta  
Orai abia gaitean,  
Adiorikan ezdegu eta  
Agur ikusi artean.

### A. APAT-ETXEBARNE

Principe de Viana, 1967, urtarrila, 3. orr.

## ZIBERO'KO PASTURALA BERRIA DONOSTIAN

Euskal Teatro zaarrena eta ederrena, Pasturalak dira, Ziberotik landa kasik bein ere eman ez direnak. BAXENABARRE-ko AMIKUZEn, Baigorri edo, ezpada: bai eta LUZAIDEN ere, 1850 urte inguru hartan. Beraz, gure NAFARROAN ere noizpait emanak izan dira PASTURAL famatuak.

Joan den hilabetean Donostian eman dute ziberotar artistek “*Chiquito de Cambo*” izeneko pasturala berria. Uste ez bezala, giputzeri laket izan zaiote biziki, bitxikeria bezala hartzen ahal zen obra hori; baino jendetasun erakutsi izan dute donostiarrek, eta ez dute batere ixekaz edo trufaz hartu. Egian esan, mauletarrek ba zuten erabe puska bat.

Naiz ez ongi ulertu, adi adi egon ziren denbora osoan, plaza hori bete zuten entzuleak; euskalkia gurea gandik diferenta baita, eskerrak askok eskuetan zeukatela frantzes itzulpena, jokolari batzueri gaizki entzuten baizeien, apalegi edo illunegi esanagatik.

Teatroan, eta bereziki euskal teatroan, esan beharra dago berriz ere, premiatsuen den gauza, jokolarien argi esatea da, ongi ebakitzea edo ahoskatzea; eta astiro, biziki artiro elekatzea.

Hau dena, komedia-gaia aurreratzailea edo gibelatzailea izatea baino lehenagoko gauza da: idazlari askoren euskara arrotz egiten baizaigu oraino, eta bestalde euskalkiak diferent baititugu.

“*Chiquito de Cambo*” ederki ulertu zaieten geieneri: eta zibero-mintzoa osoki eta ozenki esan ezgeroz ezta, uste den bezain arrotz guretako. Pastural honen gaia motelakoa da; besteak baino ainitzez apalagoa, Chiquito herrigizon bezala ezpaizen, pilotari bezain aipagarri izan.

Mauletik hunaraino hainbeste jende ekarraztea horren garesti ezpaltiz, balioko luke ikustea berriz Donostian, ez hori preziski, baizik Etchahun olerkari haundiaren beraren beste Pasturaletatik bat.

*Santxo Azkarra* (Sancho el Fuerte), *Bereterretx*, *Etxahun Barkoxeko*, edo halako bat: hoken gaiak atseginago eta gustagarriago dira aise.

Bainan oroz gainetik Donostian gustatu zena, tartetan kantatzen oi dituzten zibero-kanta xarmagarriak izan ziran; eta mutxikoak. Hemengo kantari aditua den bateri entzun genion, egundaino ez duela tankera hortako euskal kanta eztirik aditu, bereziki ziberotarrek ematen dieten bihotz eta sendimendu fin horiekin. Hemen hainbeste modan dauden abots eta solo indartsu eta bortizik, ez dira usatzen ziberotarretan.

Gure oraiko euskal Teatroak uste dugu hemen iturburu jator bat dukeala. Naiz Z. ARGIA-ren 240 numeroan, AMILLAITZ bateri arlotekeria eta beko maillako literatura iduritu. Fantasia laburreko ematen duen AMILLAITZ gaizo horrek, ez bide du ikuskaria geiegi xilatu, ez eta bihotzean dardaria nabaitu, ziberotarren kantak entzutean.

Agian beste pastural bat ikusteko eta kantatzen ere entzuteko parada izanen dugu luza gabe.

A. Apat Echebarne

Principe de Viana, 1967, azaroa-abendua, 10. orr.



## ARALAR

### Aize berriak

Aralar'ko giroa erabat aldatzen ari dala, denok ikusten dugun gauza.

Guk ezagutu genun ezkerotik (aspalditxo, ai!), beste aurpegi bat darakus mendiak, batez ere San Migel eliz inguruko alderdiak.

Gaurko aurrera bearrak bideberria ekarri zigun leenik; onek indar eletrika, ta batak eta besteak berebiziko aurrerapideak jartzen ari zaizkigu begien aurrean.

Badu denbora puska bat ARTXUETA tontorrean "Telebixta" abe edo poste bat eraiki zutela. Oni esker, Arakil, Sakana, ta Burundatarrak alde batetik, eta Araiz, Larraun, Imotz eta Basaburutarrak bestetik, askoz obeki ikusten omen dute "Telebisica". Pozik balegozke!

Egun auetan "Telegrafos"koak beste anbateko burni abe bat jaso due ARTXUETA'n bertan, diotenez "satélite artificial" delako baten bitartez, mundu guziarekin telegrafoz jardukitzeko. Etxetxo polit bat ere iragi dute abe ondoan, ortarako bear den tresneri guziaren gordeluko ta egileor. Euskal aire zertxobait eman baliote... Avila'tik ekarritako arriarekin egiña dago, ARALAR'en arririz ez ta!

"Telefonos"koak ere beste orrenbeste egiteko asmotan omen dabiltz. Aurki, irugarren abe edo postea or dagoke, mendi galdorrean, zut eta tink, aizebeltz eta tximistai jarkitzeko aurpegi ematen.

Bestalde berriz, beribil edo auto ta moto askotakoak or dabiltz, gora ta bera, gelditu gabe, nun geldi ez ta.

Aralar ez ta Aralar. Beste itxura bat artzen ari da. Obea? Txarragoa? Nola den! Mendizale ta pakeza'eak ez dituzte aldakutza auek begi onez ikusten. Zibilizazioaz aserik eta okaturik baitaude beren errietan, ta ain zuzen ere, pake gose ta aize garbi egarri, oien billa etorri oi baitira Aralar mendira.

Gaurko jende geienak ordea diruari ta errextasunari bakarrik begiratzen dio, beste baliozko aberastasun batzuk gutxiesten edo ta alde bat uzten ditula, ala nola edertasuna, ixiltasuna, pakea, garbitasuna, jatortasuna...

Aralar maite maitea, aurpegia aldatzen ari zaizu, uraunka agiri danez: alde guzietatik zauriak, ospelak, karetxak eta oreztak dagerzkizu. Zaartzen ari ote?

Erosotasuna? Bai, bai; ortan gaude gu ere. Baño... erosokeria? Ut, ut, ut!!

Artxueta'ko Unaia

Principe de Viana, 1967, urria, 5. orr.

## ARALAR'KO AIZEAK

Aralar'ko Aingeruaren irudi beneragarria bizpairu aldiz ostua (ebatsia) izandu zala eztakienik, ba ote da iñor Euskalerrian? Gure "PRINCIE DE VIANA" maite-maiteak ere kondatu zigun beiñola, zeatz eta meatz, nola izandu zan olako lapurreta bat XVII'garren mendean.

Gertakizun auek erroz eta mamiz egiak direla, ezin uka, orduko paperetan idatzirik baidaude xeetasun guziak. Baiño batzuek eta besteak gertatutakoa beren aburura jantzi zuten, eta urteak joan urteak etorri, ixtorio, mixterio edo leyenda batzuek sortu ziran lapurreta auen inguru.

Batzuek esan zuten, lapurrak Aingerua ostu zutelarik, elizan bertan gelditu zirela, beatz bat ere mugitu eziñik, arri biurtu balira bezela.

Beste batzuek asmatu zuten, lapurrak (ohoinak) irudia mendian izkutatu zutela, orbel pilla batean estalirik; baiño billa zebillen jendea ondoratu zanean, orbela mugitzen asi omen zan eta orrela arkitu eta atzeman zuten irudia.

Badira ere esan zutenak, ohoinak Aingeruarekin Frintzi'ko mugaraiño eldu izan zirela; baiño mugatik arat ezin pasatu izan omen ziren. Eta an arrapatu omen zituzten.

Irugarren kondaera oni buruz, bertso batzuek ibilli izan dira aoz ao aspalditik, Arakil, Sakana ta Burunda'ko jendetartean batez ere.

Ona emen, itzez itz, Joxe Manuel Auzmendi Bakaiku'ar jatorrari oraintsu artutako bertsoak.

Samigel'en bertsoak  
Nua kantatzera;  
Adu nai eztuenik  
Iñun ba ote da?

Maiatzeko ilaren  
Amaikagarrena  
Lapurrak Samigel'en  
Sartu ziran denal.

Samigel'en sartuta  
Lapurren arraza  
Ataiek idegitzeko  
Etzaudek (oso) errazak.

Baita lapurtu ere  
Erak nai dubena

Beste asko gauzarekin  
Aingeruarena.

Zazpi alditan ogei gizon  
Gañekuak gañetik  
Bila atera dira  
"Larragun" balletik.

Iruña'ko Korteko  
Alkate Rodrigez  
Frintzia'ren juan da  
Samigel'en galdez.

Frintziara juan da  
Samigel bilatu!  
Belauneko jarri eta  
Bertan adoratu.

Iruñe'n sartu eta  
Diyote igorri  
Kurutzia zeukala  
Pixka bat biyorri.

Iruñen sartu eta  
Uarte'ko billan  
Ango jende tristia  
Neketan zabil billan.

San Migel'go ezkillak  
Asi ziran errepikatzen,  
Baita Uarte'kuak ere  
Airi kontestatzen.

*Aitortu zidan Joxe Manuel'ek etzauzkela naski bertso guziak buruan orduantxe, eta balitekela geiago ere izatea gai oni buruz. Balekizki norbaitek olako bertsoak, edo olatsukoak, igor bitza, arren "PRINCIPE DE VIANA"ra; edo San Migel'go apezari. Eskerrak aurretik!*

Artxieta'ko Unaya

Principe de Viana, 1970, martxoa, 3. orr.

## ARALAR'KO AIZEAK

Ez oso onak aspaldi ontan, alajañena;

Nolako mutur beltzarekin agertu zaigun aurtengo negua! Azaroaren erdian edo, erakusi zigun sudurra, ta arrezkeroz eztugu, esateko, egun onik izan.

Azaroaren erditsuan 13 grado zeropetik, Aralar'en oso gutxitan ikusten dana ikusi dugu aurten. Eta ario ortara joan zaizkigu egunak (eta batez ere gauak) joan daneko bi illabete ontan: otza ta elurra; elurra ta otza.

Ez gaitu ordea asko ikaratu negu sarrera bortitz onek. Negu beltzari aurpegi emateko prest ginauden aurretik sanmigeldarrok, naiko egurra egurtegian, ta jatekorik aski janaritegian.

Guk ere san genezakean, esaera zarrak neguari buruz diona:

Elurre melurre!  
Eztiat ire bildurre!  
Baditiat etxean  
Artoa ta egurre!

Gu ezeze, badira beste batzuk neguari bildurrik eztiotenak. Mendigoizaleak, adierazbidez. Abenduak 21, festa polit-polit bat egin zuten San Migel'en Naparra'ko mendigoizaleak, urteari agur! esateko.

Aspladiko oitura dute.

Mendigoizalea berez gizon sanoa da, bai gorputzez, bai animaz. Oso Jainkozalea geienetan, Jainkoa bere eginkizunetan argi eta garbi ikusten baitu. izan ere, mendiek eta muñoek, ortziak eta izarrek, iruzkiak eta illaargiak, itxas-orrak eta bai doñu eztiak, iturri ta errekek, euri ta elurak, aize ta bisutsak, tximistak eta kazkarabarrak, denak aobetean Jaungoikoaren aunditasuna ta ederra goraiapatzen dute, ikusten eta ikertzen dakitenentzat.

Orrengatik da ain Jainkozale mendigoizalea.

Orrengatik Naparra'ko mendigoizaleak, urtero, urtearen bukaeran, jai aundi ori egin oi dute. San Migel'en, Jainkoari eskerrak emateko eta urteberrikari indarrak eskatzeko.

Meza nagusi ederra amaika t'erditan. Euskeraz, Jakiña. Eta biotza arrotzen eta ezitzen zitzaigun, Iruña'tar gazte askok ziur eta sendo euskeraz erantzuten zutela ikustean. Nor pentsatu olakorik garai batean?

Meza artean, beste urteetan bezela, emaitz edo erregalo polit bat egin zioten San Migel'go elizari, eskuikusi, kantu ederrak ezpañetan ta otoitz beroak biotzetan.

Apezak urteberri ona opa zien denei. Ta festaraetorri ezin izan ziranak ere aipatu zituen, batzuk bizia mendietan utzi zutelakoz; beste batzuk, politika dala ta, giltzapean atzi edo preso daudelakoz.

Meza ondoan, gosari lege bat egin da gero, Trintate zelaiean euskal giro polit-polit bat eratu zan. Txistulari talde bat bazegon; soñua jotzen asi ziran ta, zer esanik ez, gazteak krixkitin, ujuju ta zantzo, dantzari ekin zioten, irrintzika ta saltoka. (Ixo, Ixo! Apezaren baimenarekin egiñen zuten dantza, sobraade, besteetan ezpaitu uzten onek San Migel'en, ez soñu, ez dantza).

Ta jai-egun ura oso-osoan jai izan zedin, gure Jainko onak, aspalditxo ez bezela, egun argi dirdiratsu bat eman zigun, ozkarbi urdin-urdin batean, iruzki eder batek dir-dir zegigula, mendigoizale guzien pozgarri.

Benetan jai ederra alde guzietara.

Egun gogoangarria!

**MENDIGOIZALEAK!** Jarrai zuen bideetan!

Ekin aldapai, aldapak goitibera berarekin du ta!

Artxueta'ko Unaia

Principe de Viana, 1970, otsaila,

## ARALAR'KO AIZEAK (Ipuia)

Aspaldi aspaldi artan, abereak eta basapixtiak elkarrekin izketan aritzen ziraneko denbora aietan, axeri batek eta arrano batek berealdiko burruka egin omen zuten, ardi il bat zela ta, "Artxueta"ko iparraldeko ospelean, "Ezeltzeta" iturri inguruan.

- Nik il diat eta nereak duk -asi zakion axeria arranoari fi ta fu.
- Nik arrapatu dinat, eta ez dinat iretzat utziko, ergel alain orrentzat -bota zion agotik ortzera arranoak bi umedun axeriari.
- Ergela ni? Etortzen banakik, este gorria aterako diat, lepozikin, kakontzi orri!
- Ago ixilik, lapur zikina!
- Memel arraioa!
- Urde zerria!

Ez daizke paperean jarri ortik aurrera elkarri bota zitiotenak. Ain ziran zikinak eta laidozkoak.

Itzetatik egitetara ere laixter joan zirena, burrukari bortizki lotu ta bereak eta bost eman zitioten elkarri, ler eta zapart egiteko zorian gelditu artio. Arranoak mokokada batean ezkerreko begia ustu zion axeriari; onek aldiz, ozkaka ta atzaparkaka, lepoa bilixgorrian utzi zion arranoari (Arrezkeroz jaiotzen omen dira arranoak leposoil).

Aren batean zebiltzen eta etzan nagusi gelditu ez bat ez beste. Noiz baitere, nekearen nekez, zein bere alde jo zuten; axeria kilikolo, ikurka makurka, "Ubidegain"eko aitzulora; arranca, trinkilin trankulun, "Biaitzpe"ko malkorretara.

Jesusamen batean zabaldu zan burrukaldi onen berria "Aralar"ko pixti guzien artean, eta giro txa-txar bat sortzen asi egaztien eta lau ankakoen artean. Noiznai eta nunnai, burrukak sortzen ziren topo egiten zuten aldioro. Giroa are ta areago txartzen zijoan ta etziteken iñolaz ere elo artan bizi.

Buruzpide artaz aserik eta aserretzez eta burrukatzez asperturik, bein batez batzarre bat egin zuten "Ata"ko zelaiean; eta autuatan eta eztabaietan luzaro jardun ondoan, batera etorri ta erabaki bat artu zuten: urren asteko asteazkenean, eguerdi eguerdian, leiaketa bat eginen zuten an bertan, egaztiak alde batetik, lau ankakoak bestetik, burrukan zein geiago. Garai gelditzen zana, nagusi izango zan geroko guzian eta kitto! Gaurgero pakean biziko ziran eta burrukarik ez geiagoren geiago.

Lau ankakoak otsoa artu zuten buru; bi ankakoak arranoa. Otsoa, "Erroldan" arri gañera itzoro ta, onela esan zien, arroputz:

- Egazti faltsoak, entzun! Oraintxe ikusiko da zein dan geiago, zuek bi ankakoak ala gu laukoak. Lot gaitezen burrukan. Ni ementxe egongo natzaizue guzien buru, isetsa zutik. Baldin zuen artean ba dago potxolorik neri isetsa jetxiarazten ditunik, zuek izango zerate nagusi geroko guzian; bestela, gu. Ordu laurden bat ematen dizuet. Erne, ba, denok! Bat...! Bi...! IRU...! Aurrera, mutillak...!!

Asi ziran ba burrukan asi ziranez. Ango garraxiak eta orroak! Ango ixkanbillak eta zalapartak!Lau ankakoak ozkadaka ta atzaparkadaka; egaztiak egaldaka, pikoka ta atzaparka ok ere; otsoa, artean, beti malkor gañean, arro arro, buztana tente tente, martin-puntxo bat egiñik, egaztiai erdeñuzka begira, auek noiz akituko.

Bat batean (iñork ez jakin nundik) erlamin bat agertu zan, airean burrun burrun, jira ta bira denen inguru. Zer gertatzen zanez laixter konturatu zan; ta egazti gaixoai lagundu naiezkoa egiñaz, ara zer egin zuen: joan zakion atzetik arri gañean zegon otsoari, isats pean geldituta... zizt! eztena ondoraiño sartu zion ipurtzuloko aragi malputzean.

- Aiei...! Aiei... asi zan otsoa miñaren miñez, eta, isatsa ankartean, an joan zen, gizajo aundiputza, eriosuber, saunkaka ta garraxika, auskalo noraño.

Arrezkeroz egaztiak gelditu ziren nagusi ta pakea sortu zan "Aralar" mendian, ezpaitira basapixtiak geiago elkarrekin burrukatu.

Ipuiak ipui, ez ote da gure artean olako zerbait gertatzen? Edozein zirtzilkeria dala ta, beti asarre gabiltz euskaldunok elkarrekin, beti ñiki ñaka, ikastoletako aurrak baño makurrago. Eta badatorkigu, Jainkoak daki nundik, zorripalda edonor bat eta eztena sartzen digu auskalo nundik eta nagusitzen zaigu oarkabeen.

Negargarria baño egia!...

Noiz artio?...

Artxueta'ko Unaia

Principe de Viana, 1971, urria, 1. orr.

## ARALAR'KO AIZEAK

Aralar'ko San Migel Aingeruaren eliza Naparro'an den elizik zarrena omen da. Ta España'n diren zarrenetakoa, Iñiguez jaun arkitekto ospetsuak dionez.

Bedratzi garren mendean eraikitzen asia omen da bizigotiko eran edo estiloan, zimenduak eta auen aldemenak beintzapein.

San Migel'ko eliza ezagutzen dutenek eztiote olako zarkerarik artzen-ikusi batean berriki jasotako eliza bat nabari du, ain txukun eta garbi agertzen bai zaizkigu bere orma edo pareta guziak. Auek geienez porlanez estaliak daude; ta agirian dauden arriak ere, birlanduak izandu ziran duela berrogei ta bospat urte, zartankera kendu ta berri itxura emateko.

Orain berriz gauza zar guziak modan daude, ta arri zarrak agirian jartzea bere gogoko du jendeak. Arriya bezelakorik ezpaita deus, izan ere, begien atsegingarri!

Ba, Naparroa'ko Diputazioak, "Principe de Viana" delakoaren bitartez, San Migel'ko elizari bere zarkerua ta itxura itzuli nai ditio, ta lanbide ortan asiak dira, jo ta ke, zenbait langille trebe.

Lengo zurezko aldare nagusi, koru, kulpittu ta gañerako txingoteak kendu ta esmaltezko erretablo miragarria jarriko dute aldare buru, begi zuen atsegingarri.

Lanbide ederra ta baliosa gure Diputazioak San Migel'ko elizan eskutartean darabillena.

Naiko lan izanen dute gauzak bear bezela burutzen; baño bein lan guziak bukatu ezkeroz, a zer edertasuna goi artan ikusiko duguna!

Artzueta'ko Unaia

Principe de Viana, 1968, uztaila-abuztua, 4. orr.



## ARALAR'KO AIZEAK

### **Bide berria**

Ainbeste urtez "karreterarik ez", "karretera bai" izka-mizka ibilli ondoan, badira iru illabete Aralar'ko San Migelera bide berriari buru eman ziotela.

Esan bearrik ez, bide berri onek mendi santurako joan etorria milla aldiz erosotu ta errextu du; baño aurrerapen onekin San Migel'ek bere "giroa" galdu omen du, askok diotenez. Izan ere, lenago ikusten etziranak ikusi ditugu San Migel'en joan daneko iru illabete ontan: urteak auldutako atso ta agure xarrak (93 urteko amonatxo bat ere ikusi genun); bularretako aurtxoak ere bai, amaren edo iñudearen besotan edo aurtzaiarekin gurttoan tapa-tapa. Eta dena esan bear balin bada, eliza ta eliz inguruak jostalekutzat artu ditun ganberro lotsagabeenbat edo beste ere bai.

Atsegin artuko zuen, naski, ango mandazaleak, bere lan neketsua erabat errextu baitzaio: bost ajola orain udako sargoria edo neguko otzarengatik. Bere autoari esker, eztu orain, len bezela, izerdi paltsetan edo tintirria dariola, belarriak mindurik, eskuak mauturik edo mimukaraño bustirik ibilli bearrik, nun ta eztagon metro bat elur bide berrian.

Sukaldekoai ordea lana ugarituko zitzaien, len baño askoz jende geiago joaten baitzaie bazkaldu naiean, zeozer jateko txoko baten billa. Baño toki faltan ez bazkaririk etz txokorik ezin artuz, etorri diran bidetik itzuli bear izaten dute askok urdailluts. Geienak nai ta eziña konprenditzen dute ta itzik esan gabe, badijoaz etsirik. Badira ordea konprenditu nai eztutenak ere ta, ezetzkoa artutakoan, sukaldekoetaz zernai esanez, asarre ta moker fi ta fu alde egiten dutenak.

Zer naiagoko genduke guk, diote sukaldekoak mindurik, denendako naiko tokia izatea baño!

### **Ostatu berria**

"Aldapak gainbera berarekin du" esan oi dute sakandarrak. Egia. Karreterak berarekin ekarri dun alderdi txar ori bere kaboz joango da, bide berriak ostatu berri bat ekarriko baitigu aurki. Naparroa'ko Diputazioak bere gain artu du San Migel'en ostatu berri eder bat egitea ta ortarako lenbiziko urratsa emana du: Naparra'ko arkitektoai esan zien norbere egitamu edo proyektoa erakus zezan, ta oietan oberena iduritzen zitzaiona aukeratua izango zala. Zia ta Arteaga, bi arkitektoena aukeratua izandu da. Guk eztugu egitamu au ikusi; baño bi jaun oien jakitatea ta trebetasuna ezaguturik, ziur gaude ostatu berri au San Migelek eta Naparra osoak merezi alakoa izango dala. Eta Diputazioak dirukontuak onartzen balinbaditu, Jainkoak onez, datorren udaberrian gauzak bere bidetik jarraituko dute, etxe berri eraikitze lanai asiera emanaz. Eskerrak zuri, Naparro'ko Diputazio guziz Garaiari!

### **Telebista**

Arakil, Sakana ta Burundako jendeak telebista saioak ongi artzen ez dituztela ta Diputazioak uts au bete bearrez, Artxueta'ko tontorrean TV galdor-abe bat eraikitzea erabaki zun, toki oietan ezik, Araitz, Larraun, Imotz, Basaburu, Ultzama, Gulina, Txulapain eta Iruña'n bertan ere Telebixta saioak ongi ar zitzaten.

Ortarako lanak oso aurrera dijoaz ta baliteke lerro zirtzil auek argia ikusi orduko, Artxueta'ko abe edo poste ori bere lanean aritzea.

Txalogarria benetan gure Diputazioko edo au, beste gauza askotan bezela Naparroa'ko ongia ta aurrerapena billatzen eta erdixten baititu.

Bejoandaizuela, Diputazioko jaun guziz agurgarriak!

Artxuetako unaia

Principe de Viana, 1966, otsaila, 3. orr.

## ARALAR-MENDI TA ARALAR INGURUKO LEKU IZENAK

Nolako poza artu nuen, azkeneko euskal liburua eskutan artu nuenean! "ARALAR-MENDI TA ARALAR INGURUKO LEKU IZENAK" bere izen-burua. Elosegitar Jesus, Aralar eta inguruko errietan eta Euskalerra osoan ain ezaguna dan tolosar idazle ospetsua bere egillea. Donosti'ko "Sociedad de Ciencias ARANZADI" argitaratzallea.

Egia esan, beti kezkatan nebillen, gure erri ta errikkak artzen dijoazen giro ta jokabidea ikusirik. Orain artio nekazalgotik bizi izan diran gure jendeak, lurretik iñolaz ere bizi ezin dirala ta, lantegietara ta fabriketara jo dute ogi billa. Bearko!

Beraz, gure mutillek ez dute lengo joera nekazaritzara. Aitzitik, nekazalgoari iges egiten diote. Ez dute mendirako ez sororako gogorik. Eta kalean gelditu dira, soro ta mendiai gibel eginik. Ez dute ba, bere gurasoek bezela, beren errietako mendi, muño, zelai, baso, oyan, ibai, erreka, iturri eta zokoen berririk. Are gutxiago dakite oien izenik. Eta nik nere baitan nion: "*Berrogei urteren buru, lenago ez ba da, akabo gure mendien eta dermioen izen jator eta goxoak*" *Jendeak ez ditu geiago erabilliko. Joan zaizkiguk betiko!*".

Eta ara nun agertzen zaigun Jexus'en liburu jori au! Ongi etorri!

Orko eun da amar bat orrialdetan, nik dakita zenbat leku izen dakarzkina, Aralar eta inguruko errietako artzai, nekazari eta mendigizonen aotik ikasiak eta itzez itz, *abeze* errezkan aldatuak.

Orrialde bakoitzean ogei ta amar bat izen ba-dakarzki, jo zazu, irakurle, zenbatsu izan diran orotara.

Igarritzen diogu nolako lana artu zuen Jexus'ek bere gain onelako lan bati buru emateko. zenbat ibillaldi mendietan gora ta bera, zear eta zuzen, ezker eta eskubi! Zenbat galde modu bati ta besteai! Nolako lanaldia itz batez!

Liburuaren iturria ain errikoia izanik, berak ematen diguna benetako erri jakintza da, toponimiari buruz. Filologoendako gai bikaña. Euskal belarrientzat soñu goxo alai.

Zorionik beroena zuri, Jexus!

Zorionak guri, Aralar gaindegian edo bere itzalpean bizi geranoi!

Zorionak Euskalerra osoari, onelako lan naroak oso bakan, noiz edo bein, azaltzen bai zaizkigu!

Imitatzaillle asko ba-zenitu, Jexus!

Artxueta'ko Unaia

Principe de Viana, 1974 maiatza, 8. orr.

## LARRAUN'GO ETXEAK

"Artxueta" tontorrean nago, zutik, neguko egun argi epel batean. Auxe edertasuna!  
Goian iruzkia dirdir zeru urdin batean, batere laño, edo goibel, edo gandurik gabe.  
Iñoiz balinbada ozkarbirik, oraintxe.

Bean, beste lurralde polit eta mendi garai tartean LARRAUN ibarra edo ballea, eder, zabal, ikusgarri, bere berdetasun orlegia etxe txuriz ta errixka politaz an or-emen tinkaturik.

Ez ditut balleko erri guziak ikusten; baño ongi oroitzen banaiz, ona emen amazazpiak, aspaldi batean zortziko doñuarekin kantatu oi ziran bertso batzutan:

Madoz eta Oderiz, - urbillena Astitz,  
Andik ni Mugiro'ra - pasatu al banitz,  
Aldatz eta Etxarri - ni Uitzin banintz.  
Gorriti ta Azpirotz - urrena Lezeta,  
Errazkin ta Albixu - gaua pasa eta.  
Baraibar ta Iribas - Alli begietan,  
Goazen Lekunberri'ra - amazapi erritan.

Alderdi on asko ditu, izan ere, Larraun'go ibarrak: bere kristautasun bizia, euskaltasun jatorra, ikuspegi eder-ederra, jendearen xalotasun ta gizontasun uka eziñak. Eta nolako etxe ta etxondoak!!

Eztago ongi guk gerok esatea; baño gure errietako etxeak, besteen aldean, egiazko jauregiak ditugu, ziñezko palazioak.

Zoaz mundu guzia barna andikorik ortikora, ta eztuzu bear bada iñon arkituko Euskalerrria'n bezelako etxe ederrik. Zerbaiten gatik esaten zaie gure artean etxe jabeai "etxeke jaun" ta "etxeke andre". Euskalduna, bene benetako Jauna!

Ba, etxe ta etxondo eder gai ontan, LARRAUN ibarra joko nuke nik guzien buru ta nagusitzat. Bai apike! Or dauzkazute, ikuspidez, beste askoen artean: "Goldarazena" edo "Loperena" Aldatz'en; "Etxeberri" edo "Jaundurritzena" Baraibar'en; "Ausenea" edo "Juansantzenea" Etxarri'n; "Otxokiñena" Errazkiñ'en; "Antonea", "Ipiri", "Garaikoetxea", "Juanmartiñenea", "Zapatanea" edo "Zeztonea" Lekunberri'n; "Otsanbela", "Martinperena", "Joanenea" ("Orixe" zana azi zuten etxea), edo "Perutxenea" Uitzin. Ta ainbeste ta ainbeste!!

Oiek dira etxeak, oiek!!

Goitsu, luze, zabal, arri gogor bikañez egiñak, atari ta leio nasaiak inguru, armarri ikusgarriak aurrekoaldean; barnetik, ezkaratz, okullu, estrabi, ta gañerakoak; ganbaran sukaldea, jantokia, gelak eta beste egoitzak kutxaz, alkiz, zizalluz, ta beste altzari ta tresna zer ederrez apainduak; tellatuepean safaiak eta mandioak, selauruak eta belaartegi aseak. Denak zorrozpe edo odorrazpi zabal batek babestuak.

Merezi dute gure etxeak, zenbait erritan in duten bezela, aldaberritzea, arriya agirian jarriz, zarkera ederra ar dezaten.

Merezi lukete Larraun'go etxe bikaiñ oiek liburu aundi bat, argazki askorekin, beren edertasunaren agerpidetzat. Merezi lukete, ta noizbait lan ori egingo dalakoan nago.

Etxea! Gure etxea!! Zu zara biziaren iturri agor eziña; zu eziaroko kabi goxo beroa; zu otoitzaldian elizatztoa, lan orduan lantegia, jostatzekoan jostalekurik alaiena, gaixoaldian sendagailurik bizkorrena, asarrean ezta, negargunean malko oiala, noiznai ta nunnai gizontasunaren gordeleku, gure artean euskaltasunaren estalpe ta geriza.

Agur, etxea, gure etxea!!

Artxueta'ko Unaia

Principe de Viana, 1968, otsaila, 1. orr.

## Mendiz

### EUSKALDUNAK AMERIKETAN

Kolon Jaunak Amerikako Lurralde ezaugarazi zuan eskeroztik. Euskaldunak Amerika aldera izan dugun joera izugarria izan da. Euskal arrantzaleak Amerikako itxas-ertza Kolonek baño askoz ere lenago ezagutu zutela diontenak ere ba-dira, baño Amerikan diru mordoska bat eginda, sorterrira itzultzeko ametsa Kolonen ondorean sortu zan.

Kolonen ondorean gure Naparro zaarretik lenbizi joan ziranak, gerra-gizonak izan ziran. Istori-zaleak diotenez, lenbizi-lenbizi joan zan, Urrotz Pedro Iruñako semea izan zan. Onen ondorean, oso famatua izan zan Ursua'tar Pedro baztandarra ere, Kolonbiako Iruña eta Tudela izeneko uriak baztandar orrek sortu omen zituan.

Auen ondorean Artiedako Diego ere oso ezaguna izan zan eta orain "Costa Rica" dagon lekuan "Naparro berria" onek sortu zuan eta Naparro berri ortako Artieda eta Esparza izeneko bi erri ere bai.

Ondoren gerra-gizon pranko izan ba-dira ere, diru billa joan diranak askoz ere geiago izan ziran. Millaka ta millaka dira orduetzkerok itxasoa igaro dutenak. Amerikako lurralde orrek era berexi batean killakortu du Euskaldunen biotza. Berrogei ta amar urtetan ongi igarotako Sunbillako gizon bat, Ameriketara zijoalarik, orain berriro arkitu nuan Bilbaon.

Amets oietako asko ta asko egi biurtu dirala ezin ukatu. Baño, ta amets utsetan gelditu diranak zer?...

Arjentinako Panpa zabalak eta Nebada eta Kaliforniako mendi zokoak itzegiten ba-  
lekite... zenbatez ez bear eta naigaberen berri emango liguketen! Zenbat naigabe biotzetan!  
Zenbat negar begietan!

Nere erriko pralle Kaputxino batek, Ameriketean zegon gure erritar batez esan zidana askotan burura etorri zait. Gure erritar gizarajoa, berrogei ta amar urte luze ta neketsu Ameriketean igaro ondorean, zarra ta makala, metxero arriak saltzen arkitu omen zuan Buenos Airesko uri zabalean, pralle onek.

Ondasun billa joan ta premi gorria igaro ondorean, beren ezurak an utzi dituztenak ezin konta ainbat badirela, ziur nago.

Orain urte batzuek "Auspoa" liburu sortan Bedayoko Euskaldun bateko bere Ameriketako burrukak kontatuz atera zuan liburutxoa ez da gero berriketa!

Urrutiko intxaurrek beti beteak diradela dio gure esaera zaarrak. Baño inguratuta ondorean zer? Utsak arkitzen askotan!

Gure Euskaldunak Ameriketean igaro dituzten burrukak, ez-bearrak, zoritxarrak, nai ta sorterrira itzuli gabe il bearrak ez al lukete merezi monumentu bat? Gure Iparragirre zaarrak ongi aski esan zigun itz gutxitan sorterritik urrun dabillanaren gaitzik okerreina zein dan:

Errialde guztietan  
leku onak ba-dira...  
baño biotzak dio  
zoaz Euskal Errira!

Auñamendi

Principe de Viana, 1966, azaroa, 4. orr.

## GOÑIKO TEODOSIO JAUNAREN ELEZARRA

Gure Euskal baserrietako sutondoetan amaika aldiz entzun izan oi da onoko Elezarra au:

"Goñiko errian, Teodosio izeneko zaldun bat bizi zan. Gizon aberatsa eta zuzena zan. Bere emazteak Konstanza zuan izena. Errege laguntzeko edo, gerrara joan bearrean arkitu zan Teodosio egun batez eta bai joan ere. Orduan Konstanza, bere emaztea, Teodosioren gurasoekin bakarrik gelditu zan.

Denbora askoren burura, gerra bukatu zalakotz Teodosio itzuli zan bere emazte ta gurasoengana.

Goñira irixtean orra non arkitzen duan penitentzilari itxurako pralle bat. Arek urbilduta, onela galdegin zion Teodosiori:

- Kaxo Juan! Nondik zatorz?

- Gerra luze eta gogor bat igaro ondorean nere jauregira nator. Erantzun zion Teodosiok.

- Goñiko zalduna zaitugu ordun?

- Bai, ni naiz.

Orduan Pralle itxurako arek, maltzur-maltzur esaten dio:

- Ta zure emaztea beste batekin bizi dala ez al duzu entzun?

Teodosiok entzun duana siñestu gabe erantzuten dio:

- Zure biziarekin ordainduko duzu gezur ori!

Pralle itxurakoak irripar egiñaz:

- Gezurra e? Zoaz zure ezkongelara, ta antxen ikusiko duzu gezurra edo egia dan nik esandako.a

Teodosiok osotara siñestu ezpazuan ere, ezkon-gelara joan zan. Erdi illunbetan gizon eta emakume bat lotan ikusi zituan eta irain artaz itxuturik bertan ilda utzi zituan. Itxutasun eta kezkek eraginda atera zan bere etxetik laxterka eta orra non arkitzen duan, goiz-goiz meza entzunda datorren bere emazte Konstantza. Arriturik galdegin zion:

- Baño... zu emen? Gure ezkongelan lo zeudenak nor ziran ba?

- Zure gurasoak Teodosio, erantzun zion Konstanzak.

Orduan konturatu zan Teodosio egindakoaz. Bere pekatuaren aunditasunaz ikaratuta, barkapena erditxi nairik Erromara jo zuan. Pekatua barkatu ondorean, zazpi urtez katez jantzita ibiltzeko agindua eman zion Aita Santuak.

Erromatik itzuli ondorean, bere penitentzia beteaz Aralar mendian bizitu omen zan Teodosio. An zebilelarik, dragoiaren itxura zuan inpernuko etsaia atera omen zitzaion egun batez. Ikaratuta, Migel Goi-Aingerua deika asi omen zan Teodosio. Teodosiok deitu bezala etorri zan Migel Goi-Aingerua eta ezpata batekin dragoia il ere egin zuan, Dragoia illik gelditu zan bezin laxter, Teodosioren kateak autsita gelditu ziran.

Ondorean Teodosio eta bere emaztea, penitentzi egiñaz Aralarko mendi mutur ortan bizitu omen ziran eta oraingo Elizaren barruan dagon elizatxo aiek jasoa omen da".

Amak semetxoari kontatutakoa emen bukatzen da, baño begi-belarriak idekita galdegiten dio semetxoak amari:

- Ta, orain gure errira etortzen dan San Migel ori bera etorri al zan zerutik?

- Ez semetxo. Orren barruan dagon zurezko irudia orduan Migel Goi-Aingeruak Teodosiori emana omen da.

- Ta, Aralarko mendira noiz igoko gera Ama? Galdetzen du mutiltxoak.

- Geixago aunditzen zeranean. Oñez igotzeko aiñakoa egiten zeranean.

- Datorren urtean amatxo?

- Bai seme, datorren urtean...

Orra gure ama-semeen arteko izketa. Orra Euskalerrian gizaldiz-gizaldi, agotik agora igaro diran itzak.

Maita dezagun Aralarko Aingeru Santua ta eska dezaiozun oraindaniokoan bezala laguntza. "... gorde, gorde Euskalerria".

Auñamendi

Principe de Viana, 1966, maiatza, 4. orr.



## 1967'GO IÑAKI TA MARI KARMEN

... bat besterik ez dan zerbait ukitu nai dut. Pestetako berriak dakartzkiguten paper oiek, euskeraz ematen dizkiguten Aiuntamentuak zenbat dira gure artean, Euskalerrian alegia? Nik dakizkitenetan alerik ez! Euskal-usaia eta giroa ortan bakarrik dagola ez dut esan nai baño ori Euskal-giroaren palta dala ezin ukatu.

Paper oietan alkateak jarri oi duan itzaurrean, al duan erderarik "eleganteenean" euskaldun utsak diran erritarrei itzegitea ez al da euskal-usai palta ta astakeri galanta? Kultura-usaia ta jakinduria agertu nai duan gizon ori ez-jakiñ galanta dala, ezin esan ote genezake?

Txorakeri bat dala au? Batzuentzat ba-liteke, baño neretzat ez. Barrengo gaitz aundi eta makurrak, siñale txikien bidez agertu oi dira!

Auñamendi

Principe de Viana, 1967, abuztua, 5. orr.

## 1967'go IÑAKI TA MARI KARMEN

Gaztediari buruz asko ta askoren iritziak entzuten ditugu gaur. Gai ontaz zer edo zer esaten ez duan "Eguneroko" edo "Aldizkari" (Revista) rik ez da izango. Alde, batzuek... Aurka, besteak... Nora jo ez dakitela, bide gurutzean, besteak. Batzuek eta besteak, auek eta oiek alde edo kontrako arrazoak sortzen dituzte. Gaurko edo lengo gazteak ziran onenak jakin nairik burrukan ibiltzea, txorakeria iruditzen zait. Garai bakoitzeko gizadiaren ontasun edo txartasunaren enurria eman lezaken "termometro" antzeko tresnarik, eguzkipean ezpaita oraindik sortu. Ta, ezta sortuko ere! Txotxolo-burruka ortan ibiltzearen orde, gaurko gaztediak ditun alderdi onei begiratzea eta alderdi on oiek jorratzen saiatzea ez ote litzake obe?

Gaztedi orrek gizadiaren arazo edo problemei buruz zer pentsatzen duan... zarragokoengandik zer espero duan agertzen saiatzea ez al legoke ongi?

Egunkari edo "diario" baten bidez, batzuen eta besteen iritziak eta kezak josten, elkartzen saiatu nai genuke. Aurreko gizadi edo "jenerazio" eta gaurkoaren arteko koskak berdintzen, zurronek betetzen saiatzea ederra izango litzake. Oritxe deritzait onuragarrien eta "positivo"ena.

"1967'go Iñaki eta Mari Karmen" deitu genezaken txoko ontan, batzuen eta besteen iritziak bilduz, (guztiak on bai zaizkigu) ortantxe saiatu nai genuke.

Eztabaida eta alkarrizketa batzuek sortuko ba-lira... obe!

### 1967'go otsaillaren 5'ean

Nere iritzi eta asmoak, alaitasun eta kezak egutegi ontantxe jartzea erabaki dut. Nik nere barru-barruan darabiltzidan gogoetak ementxe agertu nai nituzke. Nere jokabideari eta gaurko gizadiaren artu-emaneri buruz egindako alkarrizketa bat izatea nai nuke egutegi au. Nere asmo ontan iraungo ote dut? Ala nai nuke beintzat.

### 1967'go otsaillaren 19'an (igandea)

Beste gaurko gazte asko ta asko bezala ibillaldi bat egitera joan naiz. Nora...? Erri txiki batera. Gure geste edozein erriren antzeko erri txiki batera. Nere adiñ inguruko gazte bat edo bestekin artu-emanak izan ditut. Gure erri txikietan igandea zertan nabaritzen ote da?

Jainkoak igandea beretzat aukeratu duala egia da. Baño gorputzak itxoiteko, deskantsatzeko ere egin duala ezin ukatu. Ta gorputzak itxoitea, asteaz baño obekixago jatea da... asteaz baño geixago dibertitzea... asteaz baño artu-eman geixago izatea... asteaz baño alaiagoxago bizitzea...

Ta nik erri txiki ortan ikusi nuana auxe da: tabernan asteaz baño jende geixago... errian gora ta beera, jiraka ta biraka neska geiago, kale-zokoetan marmarrean edo... emakume geiago...

Artu-emanak izan nituan mutil aietan arazo edo problemarik ez nuan ikusi. Etzutelakotz edo ikusteko jakintasun adiñera iritxi ez diralakotz ote zan? Zerbait palta ba-lute bezala alde batera eta bestera begira zebiltzen neska aiek zoriontsu ote dira? Gizartean erditxi liteken zoriontasun malla arrapatu ote dute alegia?

Gure erri txikietako "Igande arratsaldea" giza-arazo edo problema aundi xamarra ez ote da?

Burutsu-antzeko eta adiñetsu askorengandik prankotan entzun dugun "guk orrenbeste ez gendun egiten..." ori asko ote da? Zezenari adarretatik elduta benetan ikusi bearreko zerbait

ez ote da? Gure erri txikietako arazo eta problema prankoren iturria ementxe dagola iruditzen zait. Norbaitek argitasun pixka bat ez ote dit emango?

Auñamendi

Principe de Viana, 1967, apirila, 2. orr.

## 1967'GO IÑAKI TA MARI KARMEN

### 1967'go garagarrillaren 9'an

Udara garaiko lenengo "turistak" asi zaizkigu. Amaika eztabaida, esames eta jolas-bide sortuko dituzten zorioneko "turistak".

Zikinkeria, lotsagabekeria eta gordinkeria besterik ez dakarkigutela, esango digute, "Jakinduriz" eta giza-bizitzaren esperientziz betetako asko ta askok. Gure oitura onak galtzera besterik ez dirala eldu... Masoneri-zaleak eta Judiotarrak eratutako "kanpañak" dirala ta abar, beste batzuek.

Baño aurreko auek alde batera utzita, beste muturretik ekingo dutenak ere izango dira. Ala-ola jantzita eldu diran oiek, ziñezko askatasunaren jabe egin diralata... Gure aurrekoek, gizzadiari eta giza-jokabideari buruz izan dituzten iritziak ezer ez dute balio ta... ta, ta, ta abar.

Batzuek eta besteak, adarretatik eldu bearrean, belarrietatik eta buztanetik eltzen diote zezenari. Guztia txartzat jotzea, dana bedeinkatzea bezin kaltegarri da. Giza jokabide eta alderdi guztiak bezala, "turista" auenak ere, alde txarrak eta onak ba-dituzte, baño "positivo"ena, alderdi on ortaz baliatuz txarra menderatzen saiatzea izango da beti.

### 1967'go garagarrillaren 18'an

Igandea dalata, Mari Karmen nere andregaia ta biok, "Vespa" xaarrean, lasaitasun eta itzal billa atera gera. Ain gogoko zaigun erri-txiki inguruko ibai bazterreko itzal goxoaren billa. Ixiltasun eta pake billa atera arren, erri txiki eta ain txiki ez diran askotako, igande arratsaldeko ixiltasun eta pakea geiegikoa ez ote? Errietako Igande arratsaldearen arazo edo problema au barren barrenaño sartua daukat eta bein baño geiagotan Egunkari edo Diario ontan aipatzea ez arritu.

Gure errietako alkartasun eta pake palta asko, igande arratsaldeko pake eta lasaitasun "geiegi" ontatik sortzen ote diran uste baitut.

Otoitz egiteko eta lanerako alkartzen dan erria, "dibertitzeko" garaian erritik kanpora atera bearrean arkitzea, penagarri baita.

Noren erruz? "Zu pekataria" ez baño "Ni pekataria" esateko garaian arkitzen gera guztiok. Asmorik onenarekin jokabiderik txarrenak artu ditugula, ezagutzeko eta aitortzeko garaian gaudela uste dut.

Pekatu bildurrak eraginda, beste pekatu bide asko ez ote ditugu sortu? Amar aginduetako bat gorde nairik, beste bederatzietako batzuk, pikoetara ez ote ditugu bialdu? Zeinbait dibersio-bideen bildurrez, dibersio palta eta errietako alkartasunik eza, ez ote ditugu sortu?

Erri bateko gaztedia, igande arratsaldean erritik atera bearrean arkitzea ez al da arazo edo problema? Ta gure artean au gertatzen ari dala nork ukatuko?

Asi dezagun borondate onarekin jasotako azteaketa edo esamiña, "Dutena aski dute eta bestela or konpon" esanaz ez da ezer konpontzen!

Auñamendi

Principe de Viana, 1967, ekaina, 3. orr.

## NAFARROA-KO BIZITZA

Leireko pralletegi zaarrak, Naparro zarreko bizitzan zer ikusteko aundia izan zuala esan bearrik ez dago. Ikaskizun lanetan eta erlijio gaietan ez-ezik, politikako artu-emanetan ere ikusteko aundia izan zuan Naparroako errege asko, erabaki latz eta neketsuak artu aurretik, Leireko pralletegira, argitasun eta laguntza eske joan oi ziran.

Leireko bakardadetik amaika santu eta jakintsu sortu ziran. Ango pralletegi eta prallei buruz, erri artean amaika gertakizun eta istori, agotik agora igaro dira gure egunetaraño. Auetako negusienetako bat Birila izeneko Abade santuari gertatutakoa da. Gurasoengandik semeetaraño igaroz, gureganaño iritxi dana auxe da:

Pralletegi ortan aspaldi-aspaldian, santutasun mallan oso gora igotako Birila izeneko Abade edo pralle-nagusi bat ba omen zan. gizon onek, oso santua izanarren, kezka bat omen zeukan bere biotz barruan. Betikotasun guztian aspertu gabe zeruan nola egon ote zitekean ezin omen zuan konprenditu. Kezka au buruan zerabilkila, pake billa edo, mendiko bakardadera atera omen zan.

Maiz ura edaten zuan iturri baten ondoan exerita zegolarik, iñoiz entzun etzuan bezalako txori-kanta bat entzun omen zuan. Txoritxoaren kantaz liluratuta, txoratuta gelditu omen zan gure prallea. Entzun ta entzun aspertu eziñik egon omen zan Birila eta txoritxoak bukatu zuanean larrez ta sasiz inguratua arkitu zan. Pralletegira itzuli bearko zuelata, altxatu zanean, bidea ezin billaturik arkitu zan. nola edo ala zuzendu zan baño pralletegira irixtean oraindik gauz arrigarriagoa gertatu zitzaion. Ez berak beste pralleak eta ez beste pralleak bera, alkar ez omen zuten ezagutzen.

Pralletegiko liburu zaarrak ikusten asita, irureun urtez aurretik, Birila izeneko pralle nagusi bat izan omen zala ikusi zuten, baño liburuak ziotenez, pralle ori egun batez basora aterata, etzan geiago komentura itzuli. Baso-piztiak jana izango zan ustean gelditu ziran beste pralleak.

Orduan konturatu zan Birila, txori-kantarekin gertatutakoa, buruan zebiltzkin kezkek kentzeko Jainkoak egindako mirari bat izan zala. Orduan konturatu zan, txori bati entzunaz, irureun urte ain laxter igaro ba-ziran, Jainkoa ikusiaz eta aspertu gabe nola igaroko dan betikotasuna.

Jainkoari eskerrak emanaz eta azken sakramentuak artu ondorean, andik bi egunera il omen zan Birila santua.

Gaurko egunean ere, pralletegi inguruan ikusi diteke, irureun urtez, txori-kanta entzunaz Birila santua egon zan iturria.

Irudimena..., Egia..., Erriak egia dala dio!

Auñamendi

Principe de Viana, 1966, ekaina-uztaila, 5. orr.

## NAFARROA-KO BIZITZA

Naparroaren bizitzari dijoazkion gaiak ibilliko ditugu txoko ontan. Naparroaren bizitzan, mendeak zear, gertatu diran gora berak tokia izango dute. Naparroaren eta Napartarren izena goraiatu duten gertakizunak agertzen saiatuko gera.

Erri baten artu-emanetan, joka-bideetan, gertakizunetan, erri ortako izkuntzak zer ikusi aundia dauka. Erri batzuek besteetatik berexen dituan "zerbait" ori, zati aundi bat beintzat, izkuntzari zor zaiola uste dugu.

Gure Naparro zarraren bizi-bidean, izateko moduan, Euskerak izan duan eta oraindik ere duan ikustekoa ezin diteke ukatu. Gure artean erdaldunduenik arkitzen diran errietan bertan ere, non-naitik euskal-usaia, euskal-kutsua dario. Abizen edo apellidoetan, oituretan eta erdera josteko moduan bertan, euskalduntasuna ageri da. Naparroa euskaldun izan dala eta gai askotan Naparroak euskaldun jarraitzen duala, ezin ukatu.

Euskarari buruz amasei mendetik ona izan da Nafarroa-ko atzerapiderik bildurgarriena.

Zer dala-ta, Euskeraren atzerapide au?

Alde batetik (nere iritziz latzena), eskola palta. Euskal-eskolarik ez dugu izan. Ogeigarren menderaño Euskerarik etzala landu esan genezake. Maixu askotxok gure izkuntzaren kontra egin duten lanak ere, bere ikustekoa izan du eta ez txikia gañera. Ordukoari begiratu gabe, gaurko egunean bertan askotan zer gertatzen dan ikusten dugu. orain urte gutxi Inspektore batek orra zer kontselu utzi zion baixu bateri eskribituta: "Euskera menderatzen eta irakurtzen ez dakitenei erakusten saia zaitetz". Oro nere begiekin ikusia dut.

Beste aldetik Eliz-gizonak ere askotan kaltegarri izan dira Euskerarentzat. Errextasunari ta komodidadeari begiratu, Euskeraren aurka aritu diran amaika Eliz-gizon izan dirala eta oraindik ere ba-dirala esan bearrean arkitzen naiz. Elizaren Liturji-berritzea dalata, euskalerrietan jo ta ke erderaz ari diranak bat baño geiago ba-dira. Ta... Elizaren legeak zer?

Irugarrengo arrazoia euskaldunon utzikeria. Emakumeak buru dirala, euskaldunak gai ontan utzi-utziak izan gera. Erderaz itzegite ori "eleganteagoa" iruditzen dalako edo, euskera utzi ta erderara errex jotzen dugu. Beren burua "Euskal-zaletzat" agertu nai luketen askoren seme-alabak "birri-barra" erderaz ikusita, zer esan? Askotan beintzat gurasoen paltaz dala eta olakoen euskalduntasuna auntzaren gaberdiko eztula bezalakoa dala. Iñoiz euskalduntasun ori maitatu ba-zuten, aspaldin pikoetara joan zala.

Beste askoren artean, Euskera etxetik bota duten iru arrazoi nagusienak auek izan dirala uste dut. Gaizki esanak barkatu... eta kopradikoa ez danak argirik ez dezala artu.

Auñamendi

Principe de Viana, 1966, otsaila, 4. orr.

## ORREAGA (Roncesvalles)

Mendeak zear, Naparroako bizitzan gertatu diran gora-berak, txoko ontan agertzen saiatzeko itza eman gendun. Aste-oroko onen izena andik artua eta Naparroako lekurik zarrenetakoa dalakotz, Orreagari begiraldi bat eman dezaiogun gaur.

Naparro zarrean, Orreagako txoko orrek ainbat soñu ateratako leku gutxi izango dira noski. Naparroan ez-ezik. Kristau-erri osoan ere ezaguna zan bere izena garai batean.

Konpostela aldera zijoazten Erromesak (peregrinos), gaizkilleen eskuetatik gordetzeko aitzaki-maitzaki zetorren Erroldan arroari, or lur joazi zioten Euskaldunak. Istori-zaleak diotenez, garai artan kristau-erri oso-osoan ain aipatua zan Orreagako Erromes-etxea, Erroldan bialdu zuan Karlomagno errege aipatuak egiña omen zan. Erromes-etxe orrek garai artan zer-nolako izena zeukan esan bearrik ez dago. An egoten ziran Erromesak, ango arrera onaz eta kristau maitasunaz itzegiten ez omen ziran aspertzen. Nekatua zetorrenarentzat oatze biguña, gose zegorenarentzat jan goxo eta indartsuak eta gaizki irixten ziranentzat laguntza berexiak ez omen ziran palta an.

Erromes-etxe onen buru, erdiprale ta erdi-soldadu ziran gizon batzuek zeuden. Praille otoizlariak pake garaian baño soldadu bizkorrak premian arkitzen ziranean. Ezpata eta Gurutzea elkartuta. Orreagako armarrarian agertzen diran bezala. Batikanoko Eliz-batzar garaian ezin elkartu ditezken bi irudiak, maiz elkartu oi ziran kristau artean orduan. Garai bakoitzeko kristauak era batera edo bestera ikusten baitute kristau jokaera.

Kristau-erri osoan ezagutua eta maitatua zalakotz Orreagako Erromes-etxea, errege eta aundizkiak, erregaloak egiten etziran aspertzen. Europa guzia barna lurralde eta basoak ba omen zituan. Orreagako Andre Marirentzat zenbaterañoiko Eliz-ontzi ta txirla-arri pillak utzi zituzten esan ere ez liteke. Orreaganako maitasuna kristaudi luze-zabalean zabaldua zegon.

Aita Santuek berek, Agustin Santuaren erregla jarraitzen zuten prilleei eskubide aundiak eman eta omenaldi aundiak egin zizkieten.

Naparro zarreko jai-aldi nagusienetan, Orreagako prailleen Buru egiten zuanak aurreneneko lekuetan exeritzeko eskubidea ba-zuan. Orreagako Andre Mariaren Eliz ederra Naparroako Santxo "Bizkorra" deitzen zuten erregeak egiña omen da.

Maitatu eta ezagutu dezagun guk ere, gure-gurea dugun Orreaga.

Auñamendi

Principe de Viana, 1966, martxoa, 4. orr.

## SARTU-AURREAN

Baso aundi bat dakust.

Arbolen atzean illuntasuna; neskata euskaldun bat, basora sartu nairik agertzen da basoaren ertzean. Otza eta izugarriya da illuntasun ori. Basoren barrutik aize izoztu bat, boza nagi bat geldi geldi datoz.

- ¡Oh zu, sartzea nai dezunak! Badakizkizu zer gauzak aurkituko dituzu emen?
- Badakit.
- Badakizkizu gauza oriek otza, gosea, gorrotoa, meziprezioa, iraiña, ziega, eritasunak, eta eriotz uts-utsak dirala?
- Badakit
- Bakardadea, guzien utzierarik?
- Badakit; prest nago. Oñaze denak, patuaren kolpe denak, atsegiñ aundiaz jasango ditut.
- Eta etsayen kolpeaz gañera, adiskide eta anayenak ere?...
- Bai... oriek ere.
- Prest zaude, bada, zure buruari ukatzeko?
- Bai.
- Eta sakrifizio baterako, jakingo ez duenik iñork? Ilko zera, eta iñork zure oraimena ez du ohoratuko.
- Ez urrikirik, ez izen illezkorrik ere ez diot Kondairari eskatzen.

Bozak istan bat isildu zan eta gero esan zuben:

- Etorkizunaren egun batean, zuk siñisten dezuna gaur, siñistuko ote ezdezu; esango ote dezu utsirudi batek gezurtatu zaituela eta negar egingo ote dezu zure gaztetasun galdua ikusita?
- Bai, ori uste det ere... Eta ala ta guzi, nai det sartu.
- Sar zaite, bada.

Neskata sartu zan.

- Eroa! -kanpotik boza batek, ortz-karraska egiñik, oju egin zuben.

Beste bozak, baño ezti-eztiya airean soñu eginda, erantzun zuben:

- Santua!

*Euskaltzale on prestu guziei, gogorrago ta gaxoago dan erri au maite izaten duten guziei, lerro auek eskeintzen dizkie.*

*Iruña, 1883-ko Urrilla'ren 26'an.*

Arturo Campi3n

Principe de Viana, 1973, iraila, 1. orr.



## AITA OLAZARAN IL ZAIGU!

Garagarrillaren 3'an Jaunak eraman digu 79 urtekin. Lizarran (Estella) jaio ta bertako Kaputxinoen ikastetxean apaizgoa asirik 1917'an Iruña'n Meza emana. Geroz, 1936'eraño Lekarotz'ko Ikastetxean Irakasle.

Or zan artean, maite zuan euskera pixkat ikasirik, Euskal-erri geienetako dantza-soñuak txiskularietatik jasotzen saiatu zitzaigun. 1917'an Txistu-ikasbidea egin zuan eta bildutako euskal-dantza asko argitara eman zituan, Zeruko Argian eliz-kantuen batzuek ere idatziz noizbeinka.

Txile'rakoan Lisboa'ko Irrati bidez Euskalerrari txistuz agur egin zion, biramonean itsas-ontzian abiatzeko. Itsas-ontzian guruztatu zitzaizkigun bi itsasontzi Alemani ta Italiarrari, txistuz beren aberriko aberri-eresia jo zien, gure ta beste ontzietako bidariak poztuz. Txile'n bere Misiotan laguntzalle aundia izan zuan, txiletarrak biltzeko ta poztutzeko, beraien **Kueka** dantza ere joaz eta eliz-jirarik (prozesiorik) bikañenetan txistua joaz. Txistularien Kapellau izana bere txistuarekin itzuli zitzaigun aberrira.

Itzuli zan ezkerro ez da lotan egon. Argatik Txistulari Batzak eta Estella, Lizarra, bere sorterriak alako omenaldiak egin zizkioten, urrezko domiñak bietan berari eskeñiz. Ta lenengoa, berak Rokamador'ko Ama-Birjiñari. Ama onen aurrean oroi zaitez Euskalerriaz. Agur.

Intza'r Damaso

## ARGI BILLA

Orain berrogei ta zortzien bat urte Larraun-go, Alli deritzaion errian gertatua.

Jain egun batez erri ortatik urbil dan ar-zulo edo arkaitzpe bateko zuloa zernolakoa ote dan ikusi naia bi gizonei sartu zaiote. Iñorri deus ere esan gabe joan dira.

Illunpean sartzeko argizari kozkor bat artu dute, ta sartu dira malkorpean. Argizaria piztu ta asi dira barrenago sartzen. Malkope uste baño aundiagoan, alako argizari lodiak diruditen tenteka asko, goitik bera, zintzilika batzuk, eta besteak lurreraño irixten dirala arkitu dituzte.

Aiei begira egon dira aldi bat. Ea noraño zabaltzen dan arpe au, diote, ta asi dira ematen duan guzia ikusi bearrean. Baño argizaria urtuz ta akituz dijoa (die).

"Ba, ba, lenbait-len atera gaitezen" diote, ta asi dira makorpetik atera naiean. Baño, nondik sartu ziran igarritzerako, argizari kozkorra eskuartean urtu zaiote ta... Poxpoloen batzuk ba-zituzten baño, oiek gutxi irauten. Iñondik argi izpirik etzitzaien ageri, gizagaxoai. Iru gau ta egunez antxe ibilli ziran, goseak eta otzak galduko zituelakoan.

Artean erri osoa aien billa Mendiz, erriz ta ubalde ondoz, aien galdezka, arrastorik gabe. Norbaiti, azkenean, gogoratu zaio malkor-zulo artan sartuko ote diran.

Atetik oiuka asi dira. Ta orduko zutik ezin egonez zeudenak, eskuak erdi-larrutuirik, an azaldu ziran.

Euskaldunok ere, Euskaltzaindiarekin batera, Arantzazu-n, ango arkaizpen batera guziok sartu ba-genituzte bezala gabiltz aspaldian.

Batasuna billatu bear giñula-ta asi giñan. Ori billatzeko alako argizari kozkor batzuk eman zizkiguten eta si giñan... Artean giñeukan argitasuna galdurik... gure artean giñeukan batasuna ere galdurik... eta iñork nora jo eztakiala gelditu gera illunbetan.

Norbaitzuen setaz besterik ez gerala illunbetatik ateratzen, esateraño, iritxi gera, edo oiek berak itzali digutela argia, uste izateraño.

Baño zorionez ezta ori izan. Illunbeta ortan ¿nora jo? Nere lendabiziko irakasle ta Euskaltzain jakintsuetara itzuli nituan nere begiak.

Ziran bezain jakintsuak izanik, gure ikas-gai oni buruz zerbait ez ote zidaten esango. Berak Euskal-erri osorako ezarri zuten "abeza" k ez ote digu zerbait erakusten? Bai, ba!

Geroztik euskeraz idatziko zan guzia orren arabera idazteko arren! Ori eskatzean, ezagun zan Euskal-erriarentzat, eta euskerarentzat, ori baño bide egokiagorik etzutela berak ikusten.

Orduan "abezedea" orri begiraldi bat eman nion. Eta berortan arkitu ditut naiz Gipuzko ta Bizkai-ko *j* (*jo*), *y* (*ogiya*), *x* (*ogixa*); naiz Bidasoz arunzko *h* (*hau*, *hori*, *hura*), edo ta *ü* (*hirüa*), bizigarri dirala, bakoitza bere alderdirako. Euskaltzaindia ez duela oietako bat bakarrik ukitu nai izan: edo bere bizilekutik beste aldetara zabaldu nai izan. Ori agirian dago.

Baño Euskaltzaindi orrek; ez ote zekian gure *h* ori Euskal-erri osokoa izana ote zan, antziñetan, eta geroztik orri begiramen geixago zor zitzaiola?

Begiraldi batzuek emazkiegun berak utzi zizkiguten lanari. Eta laxter oartu gera *h* ori ederki ezagutzen zutela: bai noiztik sortua, bai nondik-nora erabillia, zein itzetan eta zergatik erabillia zan, baita noiztik zerabiltena zan ere.

Uhlenmbeeck alemanez, euskal-fonetikaz egindako lan eder-ederra, Lakonbe Euskaltzainak frantzeraturik, Urkixo jaunak argitara eman zuan "Revista Internacional de Estudios Vascos" ean.

Ori ta beste asko gauza erakutsi dizkidate, alakorik merezi gabe, beren tartean artu miñuten lendabiziko Euskaltzainak. Guzien berriak datorren "Euskera", Euskaltzaindiaren zanakian azalduko zaizkitzute. Argizari kozkor baten billa ibillia nauzute. Itxoin apur bat, mesedez!

Intza'r Damaso An.

Principe de Viana, 1970, apirila, 2. orr.

## ¡ARTZAI GIZAGAXOA!

-I-

Aritzutik Luberbera  
egin nintzen torri,  
lana franko eman diot  
nere buruari.  
Hazienda polit bat  
egin nuen karri;  
berriz ikusiko oteut  
eun buru ardi?

-II-

Beti esaten nuen  
aitz bildur nintzela;  
motiboa torri da,  
nik erran bezala.  
Enfermedade ortatik  
Jainkoak gorde gaitzala  
alako ardi izateak  
batere ez bezala.

-III-

Lenbixikan dira  
banaka, biñeka,  
beti ikaraturik  
oiei begiraka.  
Den gutxina asiz geroz  
illetik tiraka  
antxe daude serio  
lurrera botaka.

-IV-

Bat txutitu orduko  
bestea erori;  
¡A zer konsueloa,  
Biotz altxagarri!  
Amaika tristuria  
eman dira neri.  
Gustoa artu duana  
Konsolatu bedi.

-V-

Egun batez joan nintzen  
aize otzarekin,  
kazkaarra barra-barra

t'orma ai zuen biñipin,  
arratsian etxera  
nere ardiekin;  
dozenerdi bat buru  
bere koloekin.

-VI-

Etxera torri eta  
treiste biotzian.  
Zer kusi bear oteut  
aurtengo urtian!  
Gaua pasatu eta  
biramón goizian  
zaldalia ematia  
naiz gogo txarrian.

-VII-

Kontu oiek izotz-illan  
ziraden bai, gero  
asizgeroz jakitia  
obia da klaro;  
oraindikan mayatza  
lekutan baitago,  
nere ardi multzoa  
orduko akabo.

-VIII-

Izotz-illa joan eta  
otsailla tokatzen,  
illabete prestua  
nekez ateratzen;  
ez nazu broman ari  
bertsuok paratzen,  
oraintxe ari dire  
koloak bakantzen.

-IX-

Oiek izan banitu  
buru ordañian,  
¡a zer eskarmentua  
gero azkenian  
entregako denbora  
etortzen denian  
gizena idukoitek  
oiek nienian.

-X-

Larruketaria ere  
asi da aspertzen,  
oiekin ez duela  
deusik ateratzen;  
pixkat tiratuz geroz  
nondiñandik austen.  
Orain asiak gera  
bere gixa uzten.

-XI-

Kaikua artu eta  
joan naiz artegira.  
Orain ere koloak  
berriak ba-dira;  
ezkera indartuko, len  
me-xamar ba-gera;  
noizpaiz ere moduok  
aldatuko al dira.

-XII-

Orra amabi bertsu,  
nai tuenak ikasi  
motiborikan gabe  
eznindoan asi,  
gustu duenari  
nai tut adirazi;  
haziendarik gabe  
emen ezin bizi.

-XIII-

Amairugarrena  
bota dut neria  
Argi esan bear dut  
nor duten jabia.  
Antonio Ozarra da,  
¡au miserabilia!  
oiek baño obe dik  
batere gabia.

Onela izentatu ditut Ozarraren aspaldiko bertso oiek. Berrogei urte nonbait or ditu Olagüen bildu nitula. Ordoko bertso zarrak bezala esan zizkidaten. Bersolaria Aritzu bereko seme zen edo beste nonbaitekoa ez nun ikasi.

Berso auetan Naparroko bi alderditako itzak nasten ditu. Aritzun eta aren inguruko errietan bezala derabilzki: "Aitz bildur", "lana franko", "orma" (izotza), "izotz-illa", (il-beltza), "multzo" ta. Baño "Yainkoa, berzia, yakitia ta yabia" esaten zituztenen orde: "Jainko, beste, jakitia ta jabia" derabilzki. Beste bertsolarien kutsuz artuak ote zitun; edo-ta Luberben ala esaten ote zen, ez nezake esan.

Aditz batzuen erabilkerak bere gixekoak ditu: "torri, karri, kusi", etorri, ekarri ta ikasi'ren orde. Beste batzuetan alderdi aietako erritarren erara esaten ditu. "Oteut, idukoitek, tut", "ote dut, idukiko ditek, eta ditut" bearrean. Azkeneko "tut" ori euskalki artan alaxe esaten da non-nai.

Iru itz ez ezagunak ere ba-darabilz: "nienian" (gierrian) esateko naski; ta beste biak "nondiñandik" (nondinaitik) esateko, ta "lenbixikan" (lenbixian edo lenbizian) esateko.

Idazle geienok ba-dugu zerbait onik beragandik ikasteko. Gaurko geienok *ekarri nuen, etorri nintzen, esango giñukenean*, berak "ekarri egin nuen, etorri egin nintzen" esaten du, Altube'tar Xeber euskaltzain jakintsu ta argiak erakusten zigun eran. Egia da, bai, bersorako obeki zetorkionez berak "egin nintzen torri, egin nuen karri" esaten digula. Baño erabilkera jator eta erritar ori gogorazten digu.

Intza'r Damaso

Principe de Viana, 1966, azaroa, 3. orr.

## "AURRERA BETI"

Izen orrekiko liburu eder bat eskuratu digu Aita Migel Zubiaga, Jesus'en Lagundikoak.

Bi aldiz len "Zorion Bidea" bidali zigun. Oraingoan, ezaguradun guztiok Zoriona zer dan, zertan ez dagoan eta zertan dadukagun adierazten du lendabiziko ataletan. Gero, zorion ori nortzuk irabazten duten, dakar. Nor diran egiz zorionekoak, Jesus'ek ideki dizkigun zortzi zorion-bideak, bere zortzi esanetaz, ogei atal naiko argitasunez ematen dizkigu.

Bere euskara egiz jatorra. Esaera laburra, itz gutxizkoa, mamiz betea. Ez da aurrentzako egiten dana, ezta emakumetxo elizkoientzat bakarrik. Amabost urtetik gorakoentzat; baiña patxaraz irakurtzekoa, ez lasterka. Apaiz jaun, praille ta lekaiame (monja), Irakasle ta ikastun, nagusi ta etxeko-andre, mutil eta mirabe, guztientzat ondo datorrena.

Atal bakoitzean arkituko du, naiko zer ikasia. Itun-Zar eta Berriko esanekin, santuen eta gizon ospatsuen esanekin, erritar buru argiak esana ere nasteka, oso egoki dator. Zenbait itz eta esanak nondik dituan, azkeneko Oarmenetan dakar. Euskara gutxi irakurri duanari zailtxo egingo zaio asieran. Gogo guzizko zorionak eman bear dizkiogu egilleari.

Intza'r Damaso

Principe de Viana, 1978, maiatza-ekaina, 16. orr.

## BERRIRO GAZTEDIARI

Euskalerriko Gaztediari lengo batean itzezin nion "Orixe"ren onu batzuk gogoraziz. "Orixe" euskaltzale berebizikoa izan gendun. Ez, ordea, euskaltzale bero ta idazle ona bakarrik. Politika gaietan ere begi zorrotza zuelako, Bustintza ospetsuaren ondoan, "Euzkadi"n lan ederrik egin zuena.

Lengoan nekazkian aren esanak, bateon batek gogoan artu zituen; bañan geienak etzitzen irakurri edo garai ontako egiten direnik ez zuen uste izan. Gogorkeri bidean aurrera bai dijoaz oraindik. Ordea, gezurrik ezin esan dezakenak, Egia bere-bera dan Jesus Jaunak, Pedro'ri esana dasaigu: "*Ezpataz ari diran guziak, ezpatak ilko ditu*". Pakea genezan gizaldi guztian, il zan Bera.

Paulo Apostoluak adierazten digu Jainkoaren erri siñiste ta siñiste gabeko errien arteko gorrotozko orma (*pareta*) purrukatu zuela.

"*Maita itzazute etsaiak, egizute otoitz gorroto zaituztenen alde*", agindu zigun Jesus berak. Gurutzean josi zutenen alde. Aitari esaten zion: "*Aita, barka iezu, ez bait dakie zer ari diran*".

Donixtebek, juduak arrika il zutenean, gauza bera egin zuen; belaunikaturik, deadarka esan zuan: "*Jauna, ez zaiezu pekatu au egotzi*". (Ap. Eg. 7, 60). Eta ori esanda, il zan.

Juan Gualberto Santuak anai bat bakarra zuen; beren aide batek il egin zion. Andik laixter, bera izkillua berekin zula, estrada estu bat barrena zaldiz zidoaielarik, auzer aurre iltzaleakin topo egin zuen.

Iltzalea, bealuniko, bi besoak jasorik, ez zezala il eskatuz jarri zitzaion. Eta Ostiral Santua zala oroiturik, bere zañetako odol guztia irakiten zuala, zalditik jetxi zen eta besarkada eman zion.

Maria Goretti neskatx gaztea, iltzaleak nai zuen gaiztakerira ukatu zitzaiolako, amalau labankada emanik, il zen. Baña, il baño len, bere gurasoei eskatu zien, barka zezaiotela iltzaleari. Neskatx gazte Santu au Joan XXIII-gnak. Santuen mallean jarri zuen.

Ona, Batikano Batzarra II-gnak. pakeaz erakusten digun zerbait:

"*Pakea, gizartean, Jainko Sortzailleak landatu zuen zitu (arnari) bat da ta beti zuzentasun osogoaren egarriz dauden gizonak onduratu (eldu) arteraño eraman bear dutena. Gizadiaren ondasun guztientzakoa betiko legeaz, bidezkatzen da leenik; baña, aldi bakoitzeko eginkizun oiek dirauten artean noiznaiko aldaketak jasan bear; argatik, pakea ez da gauz osoa, ezarian-ezarian egin bearra baizik. Gizonen naimena zauritua dagon ezkerro, nornairi bere buruaren jabe izatea eskatzen dio beti; eta agintari egiazkoari erne egotea*".

"*Baña, ez da ori naikoa. Lurrean pake ori ezin iritxi da nornairen ondasunak ez ba'dira senperten (zurkaiztatzen), eta bai-ta-ere gizonen arteko jakintzazko eta gogozko aberastasunak. Ezin bestez bearrezkoak dira beste gizonen ta erriei dagokien begiramena izateko asmo sendoa, baita beren duintasuna ere eta senide antzeko ekintza guri-guria, pakezko burupidea izatekoz. Onela pakea ere maitasunaren zitu, zuzentasunaren gañezkoa da*".

"*Lagun urkoaren maitetasunaz lurraren gañean jaiotako pakea, Kristo'ren pakearen errañu ta zitu Aitagandik datorrena da. Alegia, gizon egin zen aren Seme, pakezko errege-gaiak gizon guziok pakerazi gaitu bere gurutzearen bidez, paketu gaitu Jaungoikoarekin, eta gizadi osoaz erri bat bakarra egin du, gorrotoari eriotza eman dio bere aragian (bera iltzen utziz) eta Berpiztearen garaipen ondorean, Maitasunezko Espiritua sartu du gizonen biotzetan*".

Jesus jaiotzean aingeruak gogo onekoei Pakea eskeñi zioten, eta Jesus berpiztuak bereai "*Pakea zuekin!*" esanez, eman zien.

Ontasun au gordetzen, azitzen eta senperten saia bedi gure Gaztedia. Ez aztu Sales'tar deunak esana: "*Euli geiago arrapatzen dira kutzare bat eztekin, kupel bat ozpiñekin baño*". Ez aztu ere, otoi, gure Jaunak esan diguna:

"*Gaizkilleentzat ez da pakerik*".

Intza'r Damaso

Principe de Viana, 1976, azaroa-abendua, 3. orr.



## ESAERA ZARRAK

**Aize egoa, eroa** ( AN. Mezkiritz).

**Espantu aundia** ( AN. Mezkiritz). Deus izan gabe izutzen denaz esana.

**Bertzen sagoietan belarrak aundi** ( AN. Mezkiritz). Gerenak baño, besteenak obiak iruditzen.

**Bertzen beiek erroak aundi** ( AN. Mezkiritz). Gauza bera.

**Gizon erdi, an erdi** ( AN. Mezkiritz). Gizon kaxkarra, lan kaxkarra, bezala.

**Gu beartu orduko, ugeldean eztun ureik izein** ( AN. Mezkiritz). Beartzen diran orduko norbaitek borondate gutxi izango duen bildurra.

**Aldiz joaten dire zorroak errotara** ( AN. Mezkiritz). Aldizka sortzen dira zori txarrak, bein batentzat, bein bestearentzat.

**Aldiz, jauna zaldiz** ( AN. Mezkiritz). Noizpait bear du beartsuak ere egun on bat.

**Urrungo eltziak urrez, ellegatu ta lurrez** ( AN. Mezkiritz). Urrutiko gauza aundia, askotan gezur aundia.

**Bertzen umeak atsa kirets** ( AN. Mezkiritz). Obena (kulpa) aldamenekoari erasten.

**Etxaur** (intxaur) **orrendako ez ote ze urbilego arriik?** ( AN. Mezkiritz). Ez al zan len norbait, orri zuzenbidea erakusteko esan nai du.

**Zorra duenak, burue apal** ( AN. Mezkiritz). Zorduna, lotsati.

**Zakue, petatxuen alde** ( AN. Mezkiritz). Lapurra, lapurraren alde.

**Artzale ona, mantzale txar** ( AN. Mezkiritz). Guzia nai lukenak, eskua motz.

**Lemexik, zure burue neur zazu, zein luze ta zein mear duzun** ( AN. Mezkiritz). **Beleak zozoari ipurbeltz**, bezala.

**Orren nabalak ere baitu bi ago** ( AN. Mezkiritz). Bi aldetara ebakitzen duan mingaña.

**Ongi daillena Yainkoak laguntzen du** ( AN. Mezkiritz).

**Aur zutie ta zar zutue, beti aur kontue** ( AN. Mezkiritz).

**Mezkiritz eta Olondritz. Ogi guti ta aur aunitz** ( AN. Mezkiritz).Gari gutxi ta aur asko izaten, Erro-ibarko bi erri oietan.

**Orren eltziai, esnia yaritzen ez** ( AN. Mezkiritz). Norbait ez dela esku-zabala esateko.

**Baztandar tuku-tuku. Kolkuan milla marra-kuku** ( AN. Mezkiritz). Batengandik besteangana, nondik ziria sartu dabillena esaten dena.

**Luze ta mear. mundu guzien bear (zer da?).** Jostorratza ta aria.

Intzar Damaso An.

Principe de Viana, 1970, urria, 3. orr.

## ESAERA ZARRAK

Naparroa-ko erranairu edo esaera zar aunitz, aspaldi, bildu nituan.

Sail bat Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian eman nituen ordun. Urte asko dira. Ordun irakurri zituztenen batzuk bizi ..ezke oraindik.

Baino gaurkoan, zorionez, gure Aldundiak ba-du bere aldizkari euskerazkoa Gure izkuntzaren alde "Principe de Viana"k, doarik, euskal-errietara bialtzen dizutena.

Naparro-erria ¿noiz iratzarriko zara zure lo-zorrotik?

Euskera galtzian, Naparro-erriaren izkuntza galtzian, ¿uste al duzu, deus ere galtzerik zer duzula? Odoletan zoaz; odol ixurtzen ari zara; bizia galtzen ari zara!

Euskera, gure aitzineko guzian bizigarri ez al da izan? Lotsagarri, alkegarri izan al dira gure Naparroaren bizi guziko gure guraso ziranak? ¿Ez-duzu aut-ematen edo etzera oartzen, aien izkuntza zapuztutzian, seme-alaba esker onik gabeko bat egiten zarala? Edo uste alduzu, zure aitzinekoak buru gabeko gizon-emazteki batzuk zirala? Alako iduritu txarrean ba-zeunde, begiraldi bat emaezu onako esaera edo erranairu zar auei, Zure lo-zorrotik ea ateratzen zaran.

### **Mezkiritz-kotatik sail bat polita emanen dizut lenik.**

**Etxamin onei, ¿nondik yoaten zaio kea?** Esan nai du: Etxe oni, etxealde oni, ¿nondik eldu zaio bere ondamena? ondatzen ari da-ta. (A.N. Mezkiritz).

**Etxe bateko kontrariorik aundienak: kea, itexure eta etxeko andre mozkorra.** (A.N. Mezkiritz). Orra, ordun, nondik eldu deiken (diteken) etxearen ondamena.

**Etxe ortako andreak, ezta etxaminetik kea ere ez du utzi nai atratze** (ateratzen). Esku estua, esku murrizta zala esan nai. (A.N. Mezkiritz).

**Orrek eztu bere etxea arriketiko, ez.** Al guzia bere etxearen alde egiten duana. Arriketu, arrika eman.

**Iretsi zar bat aiz.** Deusekin asetzen ez danaz.

**Mazteki** (emakume) **yardukilarien ele ederrez ez fie.** Emakume tzarragandik eta arrotzaren elexurietatik gurasoen esanak gordeko gaituztela dio Jaunak (Prov. 6, 24).

**Etxeko kontuek euspean estal** (estali). Etxeko zatar zikiñak etzazkio iñori erakutsi bear.

**Mazteki** (emakume) **kontulariek, maiz bazterra zikin.** Itzontzia, maiz alper.

**Gure etxeko nausiak, ezpaña makur.** Nagusia asarrekor daneko, edo asarretu zaigu, esateko.

**Badakik bai, zein aritzei darion ezkurre.** Laguntzalle onari eltzen dionaz esana.

**Sekule ez aiz zentzuen sartiko.** Gauzak arinkerian egiten dituenaz esana.

**Arbolario tzar bat da.** Ergel utsa danaz, edo diran baiño aundiagoak esanaz dabillena.

**Bi begiek baño geiago ikusten dute lauek.** Beste iduri zaiena jakitea, ez da kalte.

**Eure eltziaz gatz-ematen asten aizelaik, ikaskon** (ikasiko dun) **bai nola bizi.** Gaztea ez da oartzeko gauza bakoitza zenbat gogorik izaten den, bere lanaz gauzak erosten asten daneraño. Orduntxe ikasten du neurri ibiltzen.

Intzar Damaso An.

Principe de Viana, 1970, uztaila-abuztua, 3. orr.

## EUKARISTIRAREN MIRARIA PATIERNO'N

Patierno deritzan, Italiako Napoles ondoan Eukaristiaren jai aundiak egiten dituzte aurten. Korrako Ursi, Napolesko Goi-gotzai (arzobispoak) Mirari aundi baten bigarren eunurtea jaieztatu nai izan du bere eliz-barruti guziak.

1772'an Patiernoko parrokitik, bi kopoi, osti sagaratuekin ostu egin zituzten. Ilbeltzaren (Urtarrilla) 27, an ostu; eta otsaillaren 24'tik 28'ra, inguruko zelai batean arkitu zituzten. Lurpean, lur utsez estalirik egon ziran ostiak; gañean agertzen ziran argi arrigarriz azaldu ziran, baiño oso-osorik, garbi-garbi, ezeren utsik edo akatsik gabe. Otsaillan 200 urte agerturik; eta gaurdaño egin-berriak balira bezala.

Mirari orren berria, aurren-aurrena, Alfonso Maria. Ligoriotar Gotzai santuak eman zuan. Onek bee "Ragguaglio" liburuan onela zion: "Besteek esan bezate nai dutena gertatu dana oso egizkotzat daukat nik, eta argatik argitara eman nai dut guzientzat. Alegia, adierazi nai dudan mirariak, gizoneko siñistamena besterik ez duala merezi: giza-siñistamenezkotan, ezda beste bat nik adieraziak baiño siñiste geiago merezi duanik, Napolesko Gotzaitegian egin dan azterpena baiño ardura (Arreta) aundiagoz egiña ezin diteke izan. Egiztatzalle, ez emakume siñiskorrena, baizik 17 gizon galtzadun eta apaizena; auzianzin-pean (juramentuz), berak beren begiz ikusi dutena esan baidute. Gertatuari dagozkion atze-aurre guziak egiaren aldeko itxura dute ta gertatua, ezagutu alean, ziur-ziurra egiten dute. Argatik, nik uste, ori irakurtzen duen edozein ere, ez duala siñistakaitz izan naiko, baizik aldareko Sakramentu guziz Santuaren aintzarako jakitea eman naiko duala"

Alfonso santuak 77 urte zituan ori idaztean. Zillegiztilari (moralista) ospetsu ta misiolari asko ikusia, 1775'an Santa Ageda Goiti'ko Gotzai, buru erne ta begi zorrotzeko gizon ondua zan, eta beronek argatik zion: *Plures sun visiones falsae quam vere*: "goi-ikusketak gezurrezkoak, egizkoak baiño geiago dira". Ta onek egiztatu zuan mirari ori.

Gertaera onen garbitasuna egiteko Napoles'ko Goi-gotzaitegiak 17 lekuko ikusle, biziera ta mota guzietakoak, auzia garbitzera deiturik, Napoles'en, beren ikastolburu (universidade)ko iru Teologo ta beste iru Irakasle ezarri zituan lan ortan. Bi urte t'erdiz gauza zero azterturik, erabaki au eman zuan: "Ainbeste motetako argien agerketa eta Zatitxoak (Ostiak) lurpean oso-osorik irautea, ez dezakegu izatezko egibidez adierazi eta berezko indarrez goragokoa da; orrengatik mirarizko gauzatzat artu bear dugu". Irakeasleak: Giuseppe Melchiorre Vatro, Domenico Cotugno, D. Giovanni M. della Torre.

Mirariaren egia oraindik zalantzan ez zedin gelditu. Zatitxo (osti) oiek berak aztertu erazi zitzaizkion Napoles bereko giza-fisiolojiko Studi'an irakasle zegoan Pietro de Franciscis jaunari. Ardura (arreta) aundiz egindako azterpenaren azkenean, auxe idatzi zuan berak: "Orain esandako saioaldian, len aburubidez (jakinbidez) uste zana ta aurretik esana, oso-osorik egiztatzan du. Gogoan artu bear da, ba, ta okerkaitza bezala, ostu ta 27 egunen buruan, 1772'ko otsaillan arkitu ziran osti sagaratuak, oso-osorik eta garbi-garbi lurpean irautea, uste izan bear da, alegia, gure jakintzaz ikasitako ta saio guzien aurkakoa (kontrakoa) dala ta geroztik gertaera guziz berezia".

Eukaristiaren Patierno'ko mirarian, agerian dago, ba, Jainkoaren eskua. Orduko ta gaurko kristauon siñizmena bizkortzeko egiña ta gaurdaño dirauana.

Mirari onek asko poztutzen gaitu, beronek egiztatzan baidu Elizak beti erakutsi izan diguna: Ogiaren itxurapean Kristo'ren Gorputz berbera, egiazkoa ta berezkoa dagoala Sagarako itzak Apaizak esan ezker. Liburu Santuak (itun berriko liburuak), Elizaren ao-jakintzak, eta bere irakasguntza uts-eziñak beti erakutsia, egiztatzan zaigulako. "Spetabilissimo Miracolo" Mirari ikusgarri baiño ikusgarriagoa deitu dute.

Beronek egiztatzan digu Mezondoan, gure Jauna, Meza ematekoan bezalaxe, ogi itxura galdu gabe, bere Gorputz eta izate osoz ostian dagoala. Orduan Mezan bezalaxe gurtu,

eskerrak eman, barkazioa eskatu ta oraintzezko zerbait eskeñi dezaiokegula ta egin bear diogula gure Jaun Sakramentupekoari.

Napoles'ko Goi-Gotzaiak argatik, bere eliz-barruti guzirako Euskaristiaren urte izentatu ta aurtengoa, 1772'go Mirariak gaurdaino diraulako osti beraietan, batere zartu gabe.

Jainkoaren jakinduri ta esku guzieldunak egin duan Mirariak, piztu beza Euskal-Erriaren Aldareko Jaunaganako maitetasuna.

"L'Osservatore Romano'k otsaillaren 19'an ekarri du luze, or dakuszuena, S. Alfonso M. De'Liguori e il Miracolo de Patierno" saillean.

Intza'r Damaso An.

Principe de Viana, 1972, ekaina, 6. orr.

## EUSKAL-ERRIKO GAZTEDIARI

Illunbetan ongi ibiltzekoz, argia nai dugu; argia bear dugu. Garai ontako illunaldiak argia eskatzen du gure Erriarentzat.

Ortxe dugu Euskal-Erriari laguntzearren ainbat idatzi, egitez-egin eta jasan zuan gizona: "Orixe", Nikolas Ormaetxea jauna.

Entzun dezakiogun. Asarreak eta gorrotoak itsutu egiten duan bezela, aren esanak bear dugun bidean sartu gaitzazke-ta.

*"Ez da arritzekoa siñisgabeak baditezen. Baña, bide bat dugu Kristo'k erakutsia: goazen Aitagana. Ark eskutik ekartzen ba'gaitu, ondo ari gera. Gaitezen eskurakoi ta ikaskoi".*

*"Euskal-Erriko gaztedi maitea: zure txokoko mugak ausita nolabaiteko bideetan barna asi omen zera. Ezinegona, kezka, duda, ta oien billa bezela omen zabiltza. Billa ibilli gabe ere etorriko dira geiegi ere. gaitz berria da ori. Kristauak kristau bezela ta gizonak gizon bezela, bide txarra du ori pakean bizitzeko".*

*"Pilosopho antzean ote zabiltza? Ez da ori jakinzalearentzat jarduera egokia. Gure buruan iñola sartu ez ditekena sartu naiean ez gaitezen asi. Gure buru argiz utsez garbitu ez ditzakegun auziak asko dira, misterioz kanpora ere. Bizi gaitezen pakean al degun artean"<sup>1</sup>.*

*"Gure burruka aragi odolen aurka ez baña indar guzien aurka da, illunbe ontako buruzagien aurka, ots, eguratsean dabiltzen aingeru gaiztoen aurka. Argatik, Jainkoaren izkilluak jantzi ezazute, egun gaiztoari jazartzeko ta on batean irauteko. Zaudete, beraz, sendo, egia gerrikotzat eta zuzentasuna bularrekotzat arturik, pakezko berri ona zabaltzeko oñetaz jantzirik. Batez ere, ar zazute siñismena babes, etsaiaren gezi goriak oro itzali ditezen"<sup>2</sup>. "Gaaitz orde z gaitzik, ez iñori itzuli. On egin Jaikoaren ezen gizonen aurreane ere... Ez bengantzarik, ene maiteok, utzi, orde z, asarrea dagokionari. Idatzita dago: Nere gain apena. Nik ordainduko. Txarkeriari ez nagusitzen utzi; txarkeria, onez mendera zazu. Au dio Jaunak"<sup>3</sup>.*

Oneraiño "Orixe" ospetsuak. Onu auxe emango dizuet:

Naiko negarbide izan dugu leen eta oraiñaldian indarkeriaz; Eska zaiogun Jaunari Euskal-Erri'rako pakea.

Intza'r Damaso

Principe de Viana, 1976, uztaila, 5. orr.

---

<sup>1</sup> "ORIXE", *Jainkoaren billa*, 255-256 orr.

<sup>2</sup> "ORIXE", *Urte guziko Meza-Bezperak*, 601-602.

<sup>3</sup> DONE PAUL, *Erromatarrei*, 12, 16-21.

## EZKURRA ZAPALDU NAIEAN

Erderaz ta euskeraz  
bederatzi puntutan  
berrogei bertso dauzkit  
nik nere asentutan.  
Memoriz aritzen naiz  
ni oien kantutan;  
ez Ezkurra bezala,  
papera eskutan.  
Aditu t'ondoan  
ez artzea gogoan...  
Pensatzen ez nun zanik  
olakoik munduan;  
neri aztuko zaizkit  
kanposantuan.

Ezkurra: ola porfian  
deus ez gera ari;  
amorioz kar zagun  
nai bozu elkarri;  
prendaik artzen eztioguleik  
batek bertziari.  
*Si quiere usted a Juarbe,  
y sino a Illarregui.*  
Bide erdire etorri,  
testigua karri,  
zein giran ongi ari,  
kopletan elkarri.  
Siñalatu egune;  
ta torriko naiz ni.

Elegi detxazu;  
bat, bi, iru, lau bostian,  
seiean, nai bauzu;  
zazpi, zortzi, bederatzi,  
amar or daukazu.  
Era ona daukazu,  
nai zunik in zazu,  
ortxe kus dezazu,  
eleji dezazu,  
aditu nai bauzu,  
nere faltarik beintzet  
izango ez dezu.

<sup>1</sup>Trabesas izain gerala,  
Aren aldekoak,

gaztigatu dirade  
nere kontrarioak;  
ez nago, ba, ni ere  
batee gabekoa;  
ba-ditut bai nik ere  
naiko metituak,  
gizon adituak,  
diruz aunditsuak,  
eta aberastxuak,  
zuk izain tuzun bañan  
geiagoxokuak.

---

<sup>1</sup> Azkeneko ontan: **Trabesak izain dirala** bear luke.



Berso auen egille ausarditsu ta berokoi-xamar ori, nor ote zen? Antonio Auzarra, ¡Artzai gizagaxoa! deitu giñun bersoen egille bera ¿ez ote dugu? Au gogoratzen zait, berso auetan ere bi aldiz aditzaren aurreneko izkia ark bezelaxe jan egiten dulako; ikusi, ta etorri bearrean, *kusi* ta *torri* egiñez. Gañera Polainen bersotan bezalaxe auetan ere Ezkurra'ren zirikalari agertzen zaigu: iruetan euskera erderazko itzez, bearrik gabe, nasten digu; ta azkeneko auetan Ezkurra, Juarbera edo Illarregi'ra deituz, bide-erdira egiten dio dela, agi denean. Ark Luberbe deitzen dun erria Larunbe balitz, ortik Ultzama'ko erri aietara, Ezkurretik bezalatsu izango litzake, beren bide-erdia.

Irakurleok oartuko ziñeten goiko berso auetan, azkeneko bi eskutetan amairu berso agiri dirala, amalau bearrean. Buruz oiek ikasi zituenak berso bat atzentzea ezta arritzekoa, bukaera berdiña, iru-lau aldiz daokala ziranean. Nik eman zizkidaten bezala ematen ditut. Uts ori, bersolariarena ez baño ikaslearena izango dela nago, bersolaria, adirazten dun bezin buru onekoa izanik.

Berso auek, gaurko, gogo betegarriak ez ba-ditugu ere, gure bersolari bikañenei ere atsegin izango zaizkien ustean bialtzen ditut.

Intzar Damaso Aita  
Txile'tik

Principe de Viana, 1967, apirila, 3. orr.

## GIZONAREN ASIERAZ

Lasarte'ko kezka eta azkenaz idatzi nuanaz, badakizue nola izan zan gizonaren asiera. Baña, iraulketa edo eboluzio iritzietan lendik zeudenak ez zuten, noski, oso pozik ikusi, Moise'k Asiera'ko (Gen. 2,7) liburuan diona **siñismen ertzeko gauza dala**, irakurtzea.

Eta galdez daudela deritzat: -"Elizak erabaki al du Jainkoak, lendik lurrean egin zituan gauza biziak, ez zuela gizona egin?"

-Ez; Eliza ez du ori esan. Orrela egin zualako aipamen txikienik ez dala Liburu Santuetan (Itun Zar edo Berrian) arkitzen; Moise'k dionari dagozkion aipamenak, berriz, ugari.

Argatik, guziori jakitea on zaizkigu egi batzuk adierazi nai dizkitzuet.

Gai ontaz, gure egunetaz obekienik idatzi duenetako bat, Jose M<sup>a</sup> González Ruiz jauna dugu. Lan luze ta mamitsua da "Gizonaren egikeraz (Gen. 2, 7) esaten zaigunetan siñisteko zer dagon"<sup>1</sup>.

Lan orren laburpentxo bat egingo dut, Moise'n aurreko errietan era erlijiotan, zer uste zuten gizonaren asieraz, ikusiz.

Naiz Egito'ko erlijioa, naiz Babiloni'koa garbi-garbi gogokoiak (espiritualistas) ziran. Eztabairik gabe, gizonaren eginketan bi gaiki arkitzen dira lur eta gogoia (anima) elkarrekin bat egiñik.

Ori nola zitekean? Ludiaren eta gizonaren asiera berdintsu ikusten eta irakasten zuten Egito'ko alderdi batzuetan "Ptah" jainkoizunak estokan (tornuan) lurra oratuz egiña zala uste zuten. Goiko Egito'n "Ehmun" jainkoizunak egiña. Babiloniarrek, berriz, beren irakasgaietan jainko odolaz oratutako lurraz egiña zala; Babel'en uste zuten beren Marduk jainkoizunak egiña zala.

Ageri da, orduan, orko irakatsi ta erlijiozko siñiesteak erriari gizonaren asiera adierazteko zerabilzkien irakaspen mota bat bazutela.

Asierazko irakatsi mota au, ordea, bere muñean kondaira zan; ez, ordea, "mito" utsezkoa, esaten digu Gonzalez Ruiz jaunak.

Eta Moise'k, beronelaxe, Espiritu Santuak eragiñik, gizonaren egikera ain ederki jantzi digu Israel'en eta gizadi guziaren ikasbide.

Ona bere itzak:

**"Jaungoiko Jaunak esan zuan: ez da on gizona bakarrik egotea; egiogun bere antzeko laguna"** (Gen. 2, 18) **"Eta lozorroa bidali zion Adan'i Jaungoiko Jaunak eta loak artu zuenean, saiets-ezur bat kendu zion; eta, ordez, aragiz estali eta Adan'i kendu zion saiets-ezurraz ema egin zuan, eta Adan'engana eraman zuan. Eta Adan'ek esan zuan: ona nere ezurretako ezur eta nere aragizko aragi da; au gizaki dietuko da, gizoneti ateria dalako"** (Gen. 2, 21-23).

Oar gaitezen gertaera auetaz idatzi izan dana aztertu ta, J.M<sup>a</sup> Gonzalez Ruiz jakintsuak zer esaten duen.

"Genesis'ko lenengo iru buruetaz iruditu (hipótesis) bat egarazten dugu: Israel errian igarleak beti igarleak izan dirala ta, Israel erriko lendabiziko igarleen ikusketak izango zirala Espiritu Santuak eragin eta Moise'k bildu ta batera israeldarrentzat emanak. Genesis'ko esakuntza ortan, gure irudituz, igarleak ikusbide batean Jainkoa giza itxuran ikusi zuan. Eden, baratz zorionsuan erdian lenengo gizonaren soin (gorputza) buztiniez egiten eta aren sudurrera arnas bizia botatzen".

Onelaxe beste gertaera guzia, Jaunak Israel'go igarlei edo Moise berari goi-argizko ikusbiden batean jakitera emana bezala begira dezagun, ba. Artu dezagun, alegia, Agustin deunaren antzera, ez itzez itz or dagon eran, baizik Jaungoikoak irakatsi nai izan zuana.

---

<sup>1</sup> GONZALEZ rUIS, J. M<sup>a</sup> "Estudios Bíblicos", Vol. IX, pp. 399 y ss.

Berdin dana, Jaunak maitetasun bereziz egin zuala Adan-Eba'ren gorputza ta gero bere arnatsez ixuri gogo biziduna, au da, anima ezagumen eta naimendun ez ilkorra.

Intza'r Damaso

Principe de Viana, 1975, urtarrila, 3. orr.

## GORPUTZ-KRISTI EGUNA ARALAR'EN

Migel goi-aingeru deunaren sandutegiko Gorputz-eguna, aspaldiko jai berezia da.

Aralar mendian artzai sail aundia izaten zan mende onen asieran eta azken aldi ontaraño. Igandeoro San Migel'go sandutegira joaten ziran Mezara aietako asko, guziak ez badaere. Baño Gorputz-eguna egun nabarmena zan berentzat. Auxe zuten beren egun aundia.

Zer gertaere, bateonbat artalde pilla zaintzen utzi-ta, beste guziak, zar eta gazte, ara biltzen ziran, apain-apain jantzirik alare. Uarte ta Lakuntza'ko, Errazkin eta Araitz guzikoak, naparrak, Bedayo ta Amezketar kiputzak, guziak bat egiñik. Beren soñekorik oberenakin antze agertzen ziran. Guziak beren zata eta bartan berri ta zuri-oriak txongatillotik belaun-erdiraño, goraiti ederrez, pantaloi ertzak azpian zituela, dotore loturik gero. Batzuek lentxago, besteak geroxago, biñeka-iruñeka, aurrena aitortu ta Mezan Jauna artzeko. Artarako barurik, baño pozik alare; egun artako baruaz axolik gabe. Zergatik ala?

Ardi galduaren billa, zerutik etorritako Artzai Onari, bere ateraldian guregiteagatik, adoratzegatik. Gure artzaiak etziran atzentzen (aztutzen) Jesus Belen'en jaiotzean, aingeruak lendabizik, ua ezagutzera deitu zitunak, artzaiak izan zirala.

Gogoan zuen, baitare, Artzai guzien Buru eta gizaki guion Artzaia Jesus dugula, berak juduei esan zienaz:

"Ni artzai ona naiz, artzai onak bere burua ematen du bere ardien onez". Gure Jaunak alaxe egin bai zuan juduak bere billa Getsemani'ra joaten, eta berai galdetzean: Noren billa eldu zerate?

- Jesus Nazaretekoaren billa. Eta Jesusek:

- Esan dizuet ni naizela, baño nere billa ba'zatozte, auei (apostoluei) utzi pakean. Eta juduak orduan lotu zuten otso aien atzapparretan gugatik ilko zan Artzai Ona.

Aralar'ko gure artzai onak onetxengatik eldu ziran eta eldu dira gaurkoak, Gorputz-egunean, San Migela.

Mezaren akieran (bukaeran) mezemalleak jaun-ontzian, bere bi besoz jasorik, Zeruko Artzai ona bai derana egun ortako eliz-biran. Trintate eliztxoraño egin izan da beti girorik dan artean. Bira ontan gure Jaunari lagun egiteko biltzen dira gure artzaiak. Oiek dira Apezaren ondoan, beren argizari lodi galda darienak eskuetan dituela, guziak kantari, guzion Artzai Buruari omenik aundiena egun ortan ematen diotenak.

Jai ontarako joerarik aundiena, 1932-tik 33'ra asi zan; eta guda ondorean aziz joan da; Naparroetik asi zan eta Gipuzkoa ta Bilkaira (sic) zabaldu.

Ori ikuskizun zoragarria! Migel, aingeru guzien Agintariak bere guziak jaialdi eder au ikustera ta txalotzera deitzen ditula deritzat.

Jesus berak ez al digu, ba, esaten, ardi bakar galdu zitzaiona berenganatzean artzaiak egiten duana? Artzai lagunak pozez deitu-ta, aiei bere poza azalduz nola arrazten dien zerbait jan-edan, bere pozaren pozez? Baño zeruko aingeruak gaizkin (pekatari) bat bakarra, Jaunagana itzultzen danean, askoz ere jai aundiagoa egiten dutela dio Jesus berak? Nolako jaia egingo dute orduan, onenbeste artzai, menditar-tean galduak, Jesusengana, beren okerkeriz damuturik, nola datozen ikustean. Jesus Artzai onak bere besotan arturik, beren maitasun ots eta kantu gozoak entzutean?

Onetxengatik Aralar mendi inguruko erri guzietatik, naiz Gipuzkoa'tik, naiz Naparroa'tik ainbeste ta ainbeste kristau biltzen da San Migela, artzai oiekin poztutzera, Jauna artzera ta Ari bere abialdian (prozesioan) lagun egitera.

Gaurkoan edo gero, artzai utxiago ba'zerat ere, zuen aurrekoen oitura eder zoragarriari eutsi ta zeren erritarrei ere deitu, zuen etxekoz gañera Artzai Onari zor diogun omenaldi bikain-bikaiña egun ontan urteoro egitera.

D. Intza

Principe de Viana, 1974, ekaina, 6. orr.

## IKASTOLAK GURE ONDAMENERAKO?

"ZERUKO ARGIA" k Ekainaren 30-go zenbakian "Lasarte-Usurbilgo Ikastoletatik" ba'dakar sail bat, naigabez bete gaituana. Bi aurtxo, bosgarren eta laugarren urtekoenak dira, agidenean. Ume gaixoak! Zer erakusten dizute?

**LASARTE-USURBILKO GURASOAK: ESNATU ZAITEZTE!**

Zuen umeei siñisgabekeria erakusten diote. Bagiñakin Ikastol batzuetako Andereñoak Kristau-Ikasbiderik etzuela erakutsi nai, ezta erakutsiko ere. Okerrago dana, Apaizen batzuek ortan laguntzalle zituela. Ba'giñakin baita ere Deusto'k Ikastetxe Nagusian nexka batzuen azterketan gertatua. Galdetu nexkari Aztertzaletako Monja batek: Jaungoikoa nor da?: "Jaungoikorik ez baita" "Jaungoikorik ez da".

Orduzkero beti kezka geunden beste Ikastoletan orrelako zerbait erakutsiko ote zuten. Lasarte-Usurbilgoan gauza bera gertatzen dala agirian dago. Oraindik "ZERUKO ARGIA" deituz datorren asterokoak bi sailtxo dakarzki. "NOR GERA GU?" Arantxa Bengoetxea'k idatzia. Erakutsi zaion siñisgabekeria itz auetaz adierazten du ta zabaldu nai du: "Lehen, antziña, ximu antzeko abere batzuk ziratekean gure aurrekoak. Bainan gizaldiz gizaldi eboluzionatzen joan gera eta gizonak izatera ailegatu gera, lehen ximu antzekoak giñanok" dakar, eta ez ori bakarrik. Gizonak guardañoan gauza asko asmatu ditula ta asko aurreratu duala ta abar.

Onatx orduan aur oni, erakutsi zaiona: Jaungoiko Egille, Sortzalleak Adan eta Eba, berak egindakoagandik gatozenak ez baño, ximuengandik gatozen abere, gizon ezaguradun asmaketari izateraño etorri geranak, gerala. Lasarte-Usurbil-go bigarren ikasle "laugarren urtekoa" izenpetu danak, ILARGIA deitu da bere saila.

Nexka orrek bere aitonaz esaten dizkigun gauzak gizaldi ta gizaldietan Lasarten edo Usurbillen iñork ez ditu egin, ero bat ez ba'zan. Bere aitona gauero bezala, oietik jeiki-ta illargiarekin itzegiten egoten zala, berari gertatu guziak ari esanez: bazekila aitona ilargiak asko maite zuala eta muxu aundi bat botatzen zuala zerura, illargiaren aurpegiraño irixten zana, eta aitona pozik illargia beti betiko ikusten egongo zalako. Eta bukatzen du esanez: "Rta bera il baño lehenago antxe egongo zan bere ilargiarekin. Atzo hi zan". Jainkoarekin bear lukena illargiarekin egiten?

Umetxo oiei, siñismenezko Egi sendoen orde, beren irakasleak orrelako iduripen eta siñestekeriak buruan sartzen ba'dizkiote biarko egunean nork sartuko diote egia, erakutsi zaien gezurraren orde?

Ikastola ortan eta orren antzekotan bearrik gabeko hatxe kaltegarria da gure errirako, erakustea oker aundia da. Baño siñisgabekerirako bidea ematea oben eta pekatu oso larria da.

Ez gero aztu (atzen) Jesusen esan ontaz: "Nigan siñisten duten txiki auetako bati gaiztabidea ematen dionari, obe izango litzaioke, asto batek mugitzen duan errotarria lepoan loturik itsas-osiñera botako ba'luteke (Mat., 18,6).

Ageri danez, gure Ikastola h'dunetan erlijioaren orde siñisgabekeria eraiteko arrisku aundia dago.

Gurasoak beren etxetan eta Apaizak elizetan Kristau-ikasbidea erakustea naikoa dala ta ori beren eginkizuna dala diote Irakasle oiek. Naikoa al da?

Gurasoak etxetan eta Apaizak elizetan erakustea, iñolaz ere ez da naikoa.

Zergatik? Aurrena, ume oiek beren irakaslea, gurasoak baño jakintsugoa dala uste dutelako. Ta orduan aita-amak erakutsia, geienak ez dute gogo onez artzen. Edo aiek erakutsiaz parra (farra) egingo, Irakasleak bestela erakutsi ezkerro.

Apaizak erakustea ere ez da naikoa. Alde batetik erri asko apaizik gabe daudelako, bestetik astirik (betarik) asko ezin atera dutelako iru-lau elizetan mezak eman bearrez, eta

azkenean ume asko erraz iges egingo luketelako aien erakustalditik. Eta Guraso ta Apizak alegiñak egin arren egunoroko Irakasleak oker erakustia, nork zuzendu ote lezake?Guraso ta Apaizak gauden erne!

Intza'r Damaso

Principe de Viana, 1974, uztaila-abuztua, 3. orr.

## IRUÑA

"PRINCIPE DE VIANA-ren Uztailla-Abuztuko zenbakian LARROCHAPEA izenaz, Larraundar batek idatzi digu.

Lenik J.A. Gorriti-k itz ortaz len ziona, bere ustez zuzendu nai du. Berak esaten digu ARRESI-PE'tik ARRETXI-PE sortuko zela.

Baten eta bestearen iritziak irakurririk, esango dizuet, ERROCHAPEA, *Errekapea* ez ote zen esaten? alderdi ori Arga, ubaldearen azpiko aldean dagonez gero? Edo beste norbaiti gogoratu zaion ERROTAPEA ote zen? Idazti zarren batek argitasuna ematen digun artean, or bego ezta-baidan.

Gure larraundarrak aipatzen ditun Irurtzun ondoko "Las dos Hermanas"en euskal izena zuzendu bearrean nator. BI AITZ-PE = bajo las dos peñas" izentatu digu.

Baiño ez da ori bere izena. Larraunen (Urruzti osoan), Imotz-en eta Basaburu-an beti AXITE-ko ARRATEA; AXITE-ko Errota, AXITE-ko burniola edo burdinola, entzun izan dugu, autzarotik gaurdaiño, Billoslada nobelariak "Las dos Hermanas" deitua, AXITE = Atx-bite, erderaz *Dos peñas*, dugu ordun. AXITEKO ARRATEA = DESFILADERO DE LAS DOS PEÑAS, esan nai du.

Gure aurrekoetatik ikasi genitun toki-izenak zabaldu ditzagun, berririk asmatzen ibilli gabe.

Intza'r Damaso An.

Principe de Viana, 1971, azaroa-abendua, 2. orr.



## Euskal errietako iostaketak

### ITSU-KAPELU, JOSTAKETA

Lengo illabetean KIRIKETAN, KURIKETAN bezalaxe, gaur ere Lekarotz'ko iru aurrek emango digute ITSU-KAPELU jostaketaren berri.

"Itsu-Kapeluke yostatzeko, bildu aur aunitz; zenbat eta geyago ordun eta politago izaten da", zion Irenetxu Meoki'k.

"Lagun guziek biltzen gara. Ta asten gara "kontatzen bat, bide, iru, lau, ogeitaraño; eta nor erortzen den ogei, ari paratzen diogu pañulo bat begiak tapatzeko eta ure yarriko da buruz beti eta bertze gañerako guziek yotzen diogu bizkarrian, eta denek erten (erraten) diogu oyuka:

**Itsu Kapelu,  
non dun andria?  
- Sasian galdu.  
- Billa zak bertzia".**

Onela zion Maxterrena'tar Miren neskak. Indabere'ar Anjel'ek erasten zuan:

"Yotzen diote bizkarrian amar kaska eta amargarren kaska yotzen dioten bezala, asten da betezalea arpatzen".

Irenetxuk dio berriz: "Denak yoaten dire igesik, ta alo motellak! Itsue eken bille. Zer lana itsuentzat. Aurrek baño lasterrago arpatzen tu ate ta olako gauz aunitz, ta kasketako ederrak ere bai artu".

"Arpatzen duenian norpait, zautu (ezagutu) bear du nor den, bertzenaz lengoakin segitu. /E)zautzen ba'du, erori dena, orain, itsu. Eta lenbizikoakin bezala yostatu".

Aur oiek esan digutenaz ageri da, jostaketa ontan zenbat eta lagun geiago, orduan eta atsegingarrigo dala.

Bildu diranean:

1<sup>a</sup> Aurrak errenkan jarririk, bat'etik ogeitaraño kontatu aurrak.

2<sup>a</sup> Ogeigarrenak itsu bezala bete bear du.

3<sup>a</sup> Buruz beiti jarri-ta, besteen kaskan artu bear ditu.

4<sup>a</sup> Artean kantatzen dute: "**Itsu Kapelu...**".

5<sup>a</sup> Amargarren kaskatakoa artzean, denak igesi ta itsua arrapako.

6<sup>a</sup> Norbait arrapatzean, nor dan ezagutu ta esan bear. Ez ba'du ezagutzen, len bezala arrapaka ibilli bear. Norbait arrapatu ta ezagutzean, ori izan bear betetzalle Itsu Kapelua.

Orduan berriz asten da jokua lendabizian bezalaxe.

Bizi ba'dira josteketa oiek idatzi-ta eman zizkidatenak, zorionak berari ta beren guziei.

1926'an idatzi zizkidaten Yostaketa oiek. Aur oiek bidali zidatena itzez-itx artu nai izan dut, beren seme-alabak eta illobak ikusi dezaten; eta atzentzen (aantzitzen) ari ba'dire, berritu ditzaten gaurko umeen artean.

Intza'r Damaso An.

Principe de Viana, 1974, apirila, 8. orr.

Martxoko "Principe de Viana" zenbakian idatzi duzun sailak arriturik utzi nau.

Bost bat sei urteko aurrak *H* zer dan galdetu zenionean: "Letra muttuba" erantzun omen zizun. Aur orrek egi aundia erantzun zizun; erderaz letra ori muttua da-ta. Bidasoz onuntzik bizi geran euskaldun tartean muttua izan baita.

Zerorrek aitortzen duzu ori: "Ongi begiratuaz, utsa da *H* orren auzia" diozu. Ortan zurekin nago.

...hutsa da *H* orren auzia, baina gauza gehiegi esan nahi ditu diozu. Egia gauza geiegi esan nai ditula, baita gauza geiegi esan-arazi ditula.

"Ikurriña bezala da" diozu. Obeki esana izango zan, "ikurriña bezala izatea nai dugu". "*H*-zaleak eskualde guzietara ideki nahia ikusten dute letra mutuan".

Aizu, baño letra mutu ori ikurriña bezala artzerako, berorren auzia aurretik garbitzea ¿ez al zan bidezko ta bearrezkoa?

Arantzazun eman zitzaizkigun orren garbitasunak, an giñan asko ta asko ez giñuzten oso-oso bete. Argitasuna egin bearra zegoan, ba. Egia, osotara azaltzerako berorren garbitasunak billatu egin bear ziran. ¿Non? Antzintasunean eta Tradizioan. Bi oñarri oiek ezarri zitzaizkiolako *H* orri.

Antzintasuna ta Tradizio nola izan dugun argi ta garbi ezagutzeak lanak eman ditu.

*H* orrek batasuna sortzekotan, mintzaeran eta idazkeran ¿ez al litzake berdin artua ta erabillia izan bear? Baiño emen letra muttua bada, Bidasoz aruntzik berriz ots-duna ¿batasuna nondik izan giñezake? Utzi dezagun au, ez luzatzeko.

*H* ori idaztean badere Euskal-Erri osoan izan al du iñoiz? Arantzazun baietz esan zitzaigun. Baño garbitasun askotxo agertu zaizkigu, gure aldean, ori gabe. ¿Noizkoak? Antziñeko zar-zarrak eta ez ain zarrak. Aietatik poleki; auetatik ugari.

Naparroan (Naparro-goian) izan al dugu orrenik? *H*-ren ordezkari egiten zuten zenbait itzetan Erronkarin eta Saraitzun; eta ibar aietatik bera Iruñalderaño edo berago, berriz, *g* egiten zuten. Adibidez: au, ori, ura; *kau, kori, kura*. Erronkarin eta Saraitzen, ortik bera *Gau, gori, gura*. Baño *H*-rik ez dugu izan, edo ez da ageri iñon.

Euskaltzaindiaren Goien adierazi guzia, "Euskera" aldizkingian laxter azalduko da.

Intza'r Damaso An.

Principe de Viana, 1970 maiatza, 2. orr.

## Euskal errietako iostaketak

### "KIRIKETAN" (II)

KIRIKETA iokua nola den, lengoan erakutsi zigun Arrayotz'tar batek.  
Iostaketa au berdintsu egiten da alde guzietan. Betetzaleak kantatzen duena aldatzen da zerbait alde batetik bestera.

Ona Arizkun'goa:

**Kiriketan,  
karaketan,  
eperrak xokuetan,  
aingeruek konketan,  
trin, tran.  
Bale da?**

Erantzuna: "**Kirik, bai!**" edo "**Kirik, ez!**".

Etxalar'en esaten zuten:

**Kiriketan,  
karaketan,  
eperrak xokuetan,  
trin, tran.  
Bale da?**

Erantzuna: "**Kirik, bai!**" edo "**Kirik, ez!**".

Imotz, Ultzama ta Basaburu'ko ibarretan, KURIKETA esaten diote ioku oni.  
Onatx, Lizaso'ko betetzaleak ziotena:

**Kuriketan,  
txopetan,  
txortxillen,  
gabillen.  
Balio du?**

Erantzuna: "**Kurik...!**"

Gartzaru'n Basaburu'koan, kantatzen zuten:

**Kuriketan,  
txopetan,  
eperrak anketan.  
Bazaudete?**

Erantzuna: "**Kurik**" edo "**Ez!**".

Latasa'n (Imotz), bi eratara kantatzen zuten; lenik, Lizaso'n bezalaxe; ta bigarren aldian, onela:

**Bat, bi, iru, lau,  
ardiek amalau,  
auntzek adar bi,  
eldu naizela ni.  
Balio du?**

Erantzuna: "**Bai, kuri!**".

Imotz berean, Eraso'n, kantatzen zuten:

**Kuriketan,  
txopetan,  
ganbelapeko,  
ortzitzen eztenak  
berak beteko.  
Balezate?**

Erantzuna: "**Kurik!**" edo, "**Ez!**".

Etxaleku'n kantatzen zuten:

**Kurik-kuriketan,  
eper-eperretan,  
txorie kantus,  
eperra negarres.  
Balezate?**

Erantzuna: "**Kurik!**" edo, "**Ez!**".

Ioku au bera ba'dute Larraun'en ere. Zein erritakoak diran, ez dut gogoan. Bi eratara bildua dut:

**Kuri-kuriketan,  
eper-eperretan,  
txorie antxetan  
txintxili-mantxala.  
Balio du?**

**Kuiketan,  
txopetan,  
eperran txori,  
zangoa meia  
lepoa lodi.  
Etziate, baziате?**

Bi eratan, erantzuna: "**Kurik!**" edo, "**Ez!**".

Araitz'en, ioku berari KUKULANA deituz, kantatzen dute:

**Kukutan,  
betetan,  
eperran txori  
zangoa mea  
ta lepoa lori.  
Balere bai?  
Erantzuna: "Bale!"**

Bai ta ere:

**Kukuten  
betetzen;  
balezate?  
"Kuku!" erantzun.**

Intza'tar D.

Principe de Viana, 1974, martxoa, 8. orr.

## Euskal errietako iostaketak

### "KIRIKETAN" (I)

Gure errietako umeak, iostaketa arras politak izan dituzte len.

Orain dela berrogei ta amar urte baiño len bildu nituenak emanen dizkitzuet. Erri frankotan zituzten ioku berek. Baiño zenbait gauzetan aldaturik, eta geienik, beren kantuetan eta ioku aintzineko (aurreko) erranketetan.

Gaurkoz ikusi dezagun "KIRIKETAN" deitzen den iokua.

Etxenike'tar Eujeni, aur zenak, idatzi zuen bezelaxe emanen dizuet, lenbizi. "Iosteta unten -dio berak- beteko du batek. Ta gainde pareta baten ondora ta e(r)tsiko tu begiek. Ta bertziak altxatuko dire. Ta betetzaliak errain du:

**Kiriketan,  
konketan,  
eperrak txokotan,  
trin, tran.  
Bazerate?**

Ta bertziek errain dute: "Ez!"; edo "Kirik!".

Ta "ez" erten (erraten) balinbaute, egoin da pixket, ta berriz ere errain du ori; ta erten balin baute "kirik", gainde betetzen ari den ure, bertzen bilatzera ta bakarren bat kusi ta zautzen (ezagutzen) balin badu, gainde laxterka aixtien begiek etsi (erts) ta egon den pareta artara, ta errain du "Txartela, Pedro!"; edo Juan (mutikuak izena duen bezala). Ta bertze tarteko oiei ez man tare, azkenai maten (ematen) badio, orduen ezta arek bete izein; azkenik man duen arek bete izein da.

Baiño betetzalia baiño lenago tortzen (etortzen) badire, aixtien betetzalia begiek etsi (erts) ta egon den tokire ta maten balin badiote denek, galtzen du partide, ta berriz betetzeko lana".

Oar zaitezte irakurle guziok, Etxenike'tar Eujeni'k idatzi zuen bezalaxe, arek idatzi zidanetik itzez-itzez artua dagola. Ta aur orrek, nik ordu erdi batez, zortzi egun aurretik erakutsi nienaz idatzi zuala. Aurretik ez bai zakien ez berak eta ez beste lagunak euskeraz irakurtzen eta idazten.

Gaurkotan beren H, h'ekin erakutsi nai dutenen artean, nork iritxiko du ordu (oren) erdi batez eta ordu osoz ere, aur batek orrela idazten ikastea?

Eujeni'ri pozik eman nezaioken, eman nion bezala "Aurrezki Kutxako" diru pixka. Gaur ere zorionak ematen dizkiot lan ortaz eta beste jostaketa, onekin batera berak idatzirik, beste egunen batez jakiñen dituzuenaz. Arrayotz'koa da Eujeni.

Lekarotz'eko Jaimerena'tar Mirentxu'k onela eman zidan ioku ori bera:

"Bat jartzen da begiak etsieta, berzeak joaten dire laxterka altxatzera. Altxatu ta ondoan karraski egiten dute. Orduan begiak etsi (erts) ta dagona gaten da lasterka ikustera. Ikusten badu, joaten da lasterka lenago zeon lekura eta esaten du: Xartela (ikusi duanain izena). Berzeak etortzen badire lenago eta esaten badute, txartela nerea, orduan berriz jartzen da lenago bezala eta orrela aliketa norbaiti txartela eman artio".

Azkeneko lerroak dakarrena, argiago dakar Plaza, Lekarozkoak. Onela dio: "Bertzeak etortzen ba'dire lenago ta esaten ba'dute: Txartela nerea! Orduan, berriz, jartzen da lenago bezala eta alik-eta norbaiti txartela eman artio (artean)".

Orratx, zein polleki erakutsi diguten "**Kiriketan**" bi ume erne oiek.

Intza Damaso

Principe de Viana, 1974, otsaila, 8. orr.

## "LARREKO", IDAZLE, SENDAKIÑA

Larreko'z ain ederki lengoan idatzi zuan S'k galde egiten zigun: 1. **Asko idatzi ote zuan**, 2. **Non arkitu leizken bere lanak**, 3. **Nork bildu lezazken**.

Aurrenekoari erantzunen diot 1925-tik 27-ra ZERUKO ARGIA'n amika sailtxo idatzi zituala. "Euskal-esnalea"n etzuan deus ere idatzi naski, 1911-tik 20-rañokoan ezer ezta agerita. Napartarrean eztakit, baño erraz izanen da zerbait idatzi izatea, baita "Eskualduna"n ere, au berak beti artzen zuela nago-ta.

### **Bere idazkera**

Larreko bere idazkeran oso nabarmena da. Ematen du Liburu Santuak (Itun Zar-berria) artu zituela bere ikaspidetako.

Bere gogamen oro edo guziak aien arabera ematen zituan. Gogamen neurtuak, itz gutxitan argi esanak.

Guzia Napar-euskalkian, Bortz-errietako edo-ta Ultzama aldeko antzera. Ezta batere arritzekoa, Bera Bidasokoan Sendakin izanik.

### **Sendakin jakintsu lanak**

Larreko'k Zeruko Argian utzi zizkigun lan guziak Sendakin jakintsu bat azaltzen digute.

Bat ez beste guziak osasun gaiaz egiñak dira. Lendabizikoan "**Aire laxterra**" (corriente) az mintzatzen da. Bere bearraz, noiz liteken kaltegarri. Sendakin jakintsuekin aire laxter zale azaltzen zaigu, zein osasungarria dan adieraziz.

Urrengo saillean eskuen garbitasunaz ta esku zikiñaz itzegiten digu. Auen kalteak eta aien bearra, batez ere jan-edanakin ikustekoa duten garaietarako.

Irugarrenean Uliaz. "Uli", euli edo elbiak, tokirik zikiñenetan sorturik, zenbat gaitzen sortzalle eta edazle diran. "**Ba-gineki zer galbidetan ibiliazten gaituzten uliek!**" dio.

1926'ko idaztietan, Sendakin jakintsu onek erlijiozko bi gai erakutsi zizkigun. Lendabizikoan siñis gorregiak ez izaten erakusten digu.

"**Ikusgarriak**" izendatzen ditu mirari edo (**milagro**) tako artzen diran gertaerak. Ordea, Lourdes'en edo non-nai ikusten diran zenbait sendatzen uste etziranak, ez ditezkela "ikusgarri" edo miraritako artu nola-nai; alakotan sendakinak esan dezakela azken itza. Gauza beste bidez izan ditekelako, ta orduan siñiskaitzagoen aurrean parragarri jarri ginezakela gure siñiste edo fede bera.

Erljiozko bigarren gaia, "**Jesus'en zauria ¿zein aldetik?**" dakar. Geienean uste izan dan eta Sendakin zenbaitek ere uste zutena ezeztatzea dator Irigarai jauna. Uste bait-du zauria etzela ezker saietsetik, baizik eskuin aldetik.

1926-go azken sallean Irigarai jaunak Ertze-maskullo edo **apendicez** itzegiten du, zer den, zenbateko arrixkua sortu lezaken eta zer egin.

1927-goan berriz ere osasunez idatzi zuan; Etena edo herniaz azkeneko sallean eta aurrekotan berriz egiazko mediku ta alegiazko medikuaz, argi ta garbi.

"**Biak ¿zerk bereixten? Batek ikastaro luzeak egin dituela, bertzeak ezer ez. Baño erasten du "Mediku on bat osotzeko ezta aski jakinduria, begi-golpe ona bear du, esku apaña, eta ukitzeko, zapazteko eta indar egiteko bere beatzen jabe bear du beti "Mediku on bat nor den? Asko ikasi ta asko ikusia".**



Esaera bizi batzuk ere ba ditu **"Iñor ezta ikasi gabe jakintsu"**. **"Nornairen baitan, Jainkoaren doai bat siñistea, ez da zuurtzia"**, esaten du alegiazko medikuaz itzegiñez. Baita ere "Ainbat sendakin txar eta ainbat sasi-mediku geiago.

Ora bi itzetan Irigarai'tar Fermin, Iruñeko Eritegiko Buru izatea, Sendakin guzien txapelketaz irabazia zuen Sendakin jaun, gutxi bezalako onen berri zenbait.

Intza'tar Damaso An.

## "LARREKO" EUSKAL IDAZLE APAÑA

Larrekok euskera derabil buruan eta euskera dario lumara.

Naiz sendakin jakintzazko gaiak izan, euskeraz, eta adikorraz ematen dizkigu bere erakusketak.

Artzen ditun gaiak, gaitzen iturrizkoak, gaitz beraren azalketa, aren agiriko ezaupideak eta orduko eginbearrak, zein polleki. Eri aundi itzuli litekeneko, bere eriengandik ikasitako itz arrunta eta erritarrez edo bear bada berak asmatuaz, guzia garbi esaten zuan. Zerok ikusi dezakezute onako bere esan batzuetaz: **Eskuetaz itz egitean esaten digu:**

**"Ikasten ba-ginu, gure eskuetarik biltzen dugula gaitzen kutsua, gure gaitzak eta bertzenak askotan esku zikiñetan daudela"**

Uliaz, berriz: **"Ba-giñeki zer galbidetan ibilliazten gaituzten uliek. Ez da janari edo edaririk uliez ukitzen ez dutenik.**

**Ez da edan edo jan-untzirik ek ukitzen ez dutenik... orgatik uliak dira iruzpalau gaitz zikinen edazale ta kutsabide.**

**Sukar-ustela (tifus), berako urratzea edo disenteria; gora-berako gaitza edo kolera kanikulakoak. Gaitz oiek bedere emazkigun ulien gain".**

**"Uste baño etsai andigoak ditugu uliak".**

**"Osasungarrizko zerbeit" sallean dio: "Askotan gure gaitzak sabeleko miñez jotzen digute".**

**"Sabeleko miña oñaze andi denean eta betbetan (batbatean) eldu denean, kontu".**

**..."Sabeleko min andienak, ilgarrienak oñaze anditen dute asiera: eta oien gorabera guzia ordu gutxitan dutela".**

**"Orgatik olako oñazetan, zuen baitarik ezer ez egin eta sendakinari lenbailen deitu".**

**"Beste gaitzarik ere ba-da sabeleko miñaren asiera dutenak: beazun arriak batzutan ematen dutena, giltzurin ondoko gernibidetik eldu diren legar-trabak eta olako".**

**"Nola nai den dela: sabeleko miñez eritzen dena eri-andi (grave) diteke batzutan ta ez bestetan. Ori berexteko sendakiñentzat ere ez da beti gauza erraza: baño beti sendakinek egin bear duen lana".**

## Esan bizi ta gogoangarriak

**"Mediku on bat osotzeko ez da aski jakinduria, begi-golpe ona bear du; esku apaña, eta ukitzeko, zapatzeko ta indar egiteko bere beatzen jabe bear du beti".**

**"Jakinduria ta begi zorrotza bear dire, mediku on bat izateko. Eta oriek ere ez dira aski baldin ura ezpada gaitz billazale ona".**

**"Mediku on bat inor den? Asko ikasi ta ta asko ikusia".**

"Inor ez da ikasi gabe jakintsu".

"Gaitz guziak sendatzen dituen sortzekoa da orañik".

"Nornairen baitan, Jaungoikoaren doai bat siñestea, ez da zuurtzia".

"Sendakin geiago, ta alegiazko sendakin gutiago".

"Ainbat sendakin txar eta ainbat sasi-mediku geiago".

### Itz jakingarri egokiak

Azkuek bere iztegian bildu gabeko itz batzuek:

Giltz guziak **erdoildu** = endurecerse todas las junturas.

**Lurgin** edo nekazari.

**Etiko-eri** = tísico.

**Begi iduki** = kontu iduki.

**Sukar-ustela** = (tifus).

**Berako urratzea** = disenteria.

**Ertze-itsu** = apéndice.

**Beazun-arriak** = piedras de la vesícula.

**Este-korapillo** = extrangulación.

**Gernubideko legarrak** = arenillas del riñón.

**Gora-berako gaitza** = cólera kanikulakoa.

**Intzeuna** = Humedad nasal.

Principe de Viana, 1969, martxoa, 3. orr.

## LASARTE TA USURBIL'GO IKASTOLETAN

Uste ez nuan ikustaldi bat izan nuan: Lasarte'ko bi kristau zintzo etorri zitzaizkidan, bere errietako ikastolaz argitara eman nuanaz mindurik. Beren ikastolan, siñisgabekeria ez, baño Kristau-Ikasbidea erakusten dala, adieraziz. Berri onek poztu ninduan.

Aien aurrak **"Zeruko Argia"**n eman zituen lantxoak, umeri gogoratzen zitzaizkien txorakeriak zirala.

Nere ikustaleak arriturik utzi ninduten; aur batek tximuagandik gentozken irudittoa, nondik ikasia izan zezaken, nik adieraztean, gure gizonok zorrotz jarri zaizkit:

**"Nik teolojia ikasi nuen garaietatik gaurkora, teolojian ez dala gauza bera erakusten". "Eboluzioaren bidez, gizona tximuetatik sortua izaten ziteken gauza dala gaurkoan teologo edozeñek dakian gauza dala". "Jainkoak Adan'en gorputza egin zuala ipui bat irudi zitzaien".**

Nik orduan:

**"Eta sortzezko pekatua? Paulo Santuak ez al dio gizon batengatik sartu zala munduan, guzietara zabaldu zaigun pekatua?"**.

Ez dut geiago esan nai, itzegin gendun guzietatik; itz eman niela bai, ikasiko nuala Pio XII-gnak. erakutsia nere ta beren onerako. Auxe egitera nijoa.

### **Pio XII-gnak. erakutsia**

Pio XII-gn. Aita Santu jakintsu ta ospetsuak, 1950-ko Abuztua'ren 12'an, bi idazki, bi gauza, eman zituala, gizadi osoaren jakintzarako: **"Humani Generis"** enziklika, ta **Enziklikazko idaztiak** edo "literae" deitua. Onen bigarren izena da: **"Irakasketa Katolikoari oñarria azpitik jan nai dioten gezurrezko zenbat iritzietaz"**.

Gezurrezko iritzi oietan "eboluzioaren eraketa" dakar. Eboluzio ori, euskerazko aziketa, ugalketa, aldaketa, bultzaketa esan nai du.

"Badira -dio Aita Santuak- eboluzioaren eraketa (systema) oraindano ziur eta zentzuz osoro egiztatu gabea, izatezko jakintza artean artu ta, gauza guzien asiera ari eskuratu nai diotenak eta izadi (mundu) osoa, beti dabillen eboluziopean jarri, eta ximuen eta panteisten iduriketari loxintxa dira, beren (lur-uskeri esanketa) errazago sendotu ta edatzeko, jaungoikozko iritzi guzia gogoetatik botarik".

"Elizaren irakasgoak ez du debekatzen gaurko izatezko ikasbidetan, baita teolojizko azterketan eta eztabaidakotan ari diran jakintsunentzat alegia, giza-gorputzaren gaia lendik zerbait zanagandik, bizidunagandik bada ere ikasten saiatzea. Ordea katolikoak gogoan bear dugu, animak Jainko berberak sortzen ditula, gure siñiste (fedea) agintzen digunez, bi aldetako gizon jakintsuen zio (arrazoia) eta iritziak, naiz alde naiz aurka diranak, bear dan begiramenaz emeki ta ones-onean erabiltzen eta epaitzen badira. Baldin guziak azkenean Elizaren erabadira jartzeko gertu (prest) badaude, Kristo'k oni eman bait dio, Liburu Santuak egille-antzeria eta bedez siñestekoa zaintzea".

"Azkenean esan bearrean gaude, zenbat jakitun-gai jakintza bizidunak (positiva) deituak izan arren, alare kristau siñismenaren egiarekin nasten diranetaz. Eskatzen dutela bizi-bizi ta ez gutxi, erlijio katolikoak kontuan ar ditzan, al guzian, jakitun-gai oiek berak. Eta ori txalogarria litzake egintza edo gertaketa oiek ziur ziñeskoak dirala egiztatu danean; iritzietaz (hipotesibus) denean, jakintzari nolabait itsasiak egon arren, erakusketa ori Liburu Santuetan edo Ao-jakintzan (Traditio) dagonean, kontu aundia bear da. Eta orrelako iritzi idurituzkoak Jainkoak goi-argiz erakutsiaren aurka badaude zuzen edo ertzez (directe vel indirecte), orduan ez ditekela iñolas artu".

"Orregatik, Jaunaren aurrean gauza au ondotxo begiratu ta ausnaarturik, geren ekintzunean ez utsegiteko Apezpikuei ta Erlijiosoen Lagunditako Buruei agintzen diegu, beren kontzientzia zamapean gogor-gogor beartuz, ardurarik audienaz kontu iduki dezaten edozein eskoletan, billeretan, idatzietan (scriptis) orrelako iritziak ez ditezen jakitera eman (ne proferantur), ez eliz-gizon artean, ez ta kristau artean, iñolaz ere".

### **Aita Santuak dionaren laburpena**

1. Eboluziaren iritzia zabaltzea ta ontzat artzea, kaltegarri litzekela ta Komunisten laguntzalle.
2. Izadizko jakintzetan edo jakintza bizi ("disciplinae positivae") eta Teolojizkotan jakintsu direnei ez zaie debekatzen giza-gorputzaren asiera nondik izan dan ikasten saiatzea, alde bateko ta besteko iritziak dion eran ezarri ezker kristau siñisgaia, anima Jainkoagandik datorrela, gogoan iduzkiz, eta Elizaren azken-itza artzekotan.
3. Jakintzazko iritzia Liburu Santuen edo Ao-jakintzaren erakutsiak nisten bada, kontu andia bear dala, aurka badago, iñolaz ezin ontzat artua dala.
4. Apezpiku ta Erlijiosoren buru diranak konturik audienaz eragotzi bear, eskoletan, billeretan eta idatzietan iritzi oiek, elizgizonei, ta beste kristauei erakustea.

### **Nola ez nintzan arrituko bi lasartearrak neri esanaz?**

Intza'r Damaso

Principe de Viana, 1974, urria, 3. orr.

## LASARTE'KO ZALANTZAK

Pozik irakurri dut "**Arkait**"ek jakiter eman zigun guzia. Eta pozik erantzungo diet berak egiten dizkidan galde oiei.

Aurrena esan bear dut, ordea, oartu naizela Lasarte-Usurbil'go kristau zintzuok etzeundetela lotan, nik esnarazi naiez idatzi nuana jakiterako. Jaunari eskerrak, eta zuei txalo!

Or gertatzen danaz diozu:

**"Gai librean ipuiak asmatzen astean aurrak ateraldi xebreak egiten dituztela etxean ikusi a dakigunez, ikastolan ere ala egitearekin ez gera batere arritzen, bañan bat bezela ere bi ipui zalantza ortakoak aldizkarira bialtzeko aukeratzeak bere kezka ematen du".** Neri ere eman zidan. Urrena diozu: **"Egia da aurrak diotenez, Ada da Eba'ren kontu ori mitoa besterik ez dala eta tximuengandik gatzela irakasten diotela".**

Adan-Eba'rekin gertatua **"kontua** deitzen duzu zerorrek. Siñisgabekeria zeramazkien irixtari leun-leun bat ez ote da **mito** bat dala uste izatea?

Aita Santu Pio XII-garrenak erakutsia irakurri ondorean oraindik kezka zaute noski. Ikusi dezagun, ba, Jaunaren esanak nola diran.

Pedro Apostoluak dio:

**"Igarketa (profezia) ez da gizonen kabuz ekarria, Espiritu Santuaren goi-argiz eragiñik, itzegin zuen Jaungoikoaren gizon santuak"** (Petr. 1, 21). Ona, Jaunak (Gen. 2-7) zer dion: **"Jaunak lurreko autsez tajutu zuan bada gizona ta aren aurpegira asnas-egiñez bizitzako atsa (asnasea)ixuri zion, eta gizona bizidun egin zan** (Gen. 2-7).

Lateran'go IV-garren Eli-Batzar Nagusiak, ara nola adierazten dizkigun itz auek:

**"Ark (Jaungokoak) bere indar guzieldunaz garai guzien asieratik bi izaki deusezetik (ezerezetik) egin zituan, gogo-utsezkoak eta gorputzezkoak; aingeruak, alegia, ta lurrekoak: gero gizonetza, biak batera bezela, gogo eta gorputzez egindakoa"** (Denzinger, 428 zenbakian).

Pio XII-garrenak, 1941'ko Azaroaren 30'an Jakintzaen Akademiari Kardenal-taldea ta Eliz-gizon jakintsu askoren aurrean, onela adierazi zuan egi ori bera:

**"Bizidunen mallarik goienean Jaungoikoak jarria (ipiñia) izan zan gizona, anima gogozkoaz orniturik, abeldiko buru ta goieneko. Paleontologiaz, Biologiaz eta Morfologiaz oraindano gizonaren sorpenari buruz egin diran ainbeste azterpenek, baiezko deusik (ezer) , argi ta ziurrik (segurorik) ez dute azaldu.**

**Geroztik (jakintzak) billatzen dunaren erantzuna etorkizunari uztea besterik ez dago, ea jakintzak, goi-argiz argitu-ta bideraturik, argi ziur (seguro) ta bein betikoak noizpait emateraño iritxiko ote dan".**

Beronengatik mintzaldi ori egin da bederatzi urteren buruan "Humani Generis" Enziklikan berriro zion:

**"Batzuek, zentzurik eta zuurtasunik gabe, "eboluziozko iritziketa" on artzen dute, izadiko jakintza soroan oraindik zalantzarik gabe osotara egiztatu gabe egon arren".**

Argi ta garbi agiri da, ba, Adan-Eba'ren sortuerako gertaera, ipui, kontu, ala **mitoa** ez baño, siñismenezko oñarri diran onako egi auen irakasketa dala:

1. Gizona beste izakien ondorean egiña dala.
2. Bere gorputza lurrez egiña dala.
3. Gero aingeru antzeko gogo (ats) biziduna aurpegira asnas-emanen Jaunak ixuri ziola, ta gizon egiñik gelditu zala. **"Ori"** berez siñismeneko gauza da **"res fidei per se"**. Moise'k idatzia Espiritu Santuak eragiñik, dion eran diolako, siñismen ertzeko gauza da, **"res fidei per accidens"**, Tomas Santuak.

Ona orain zor dizudan erantzuna:

- a. Ipui (mito) deitu dutenaren esan naia, siñismenkeria ez da izango irakasleen agoan nai ba'duzu, baña siñismengaberirako irristarri arriskutsua bai dala. Eta Pio XII-garrenak gezur kaltegarrien arteko iritzia zala esan zigun. Eta argatik debekatzen zuan ori erakustea. Gordinkeriak utzi ditzagun gaurkoz.
- b. **"Irakastoan zear erlijio arazorik ez asko ta ez gutxi irakatsi ez arren..."**. Geldi gaitzen emen. Zurean diozuna irakasten al dute beraz? Besterik ageri da, ba, aurrak idatzi zuenean, eta Adan eta Eba'z irakatsi diotela diozunean. Eta aur kristauei Jaungoikoaz, Jesukristo gure Jaunaz, Elizaz eta bere Sakramentuetaz itzik ez aipatu ezker, siñismenezko gauza oiek guziak aurren begietan ezertarako ez diran gauzak bezala ez al dute emango? Eta Liburu Santuetako esana **mito'**tako arraztea, ez al da erlijiozko zerbait oker erakustea?
- c. **"Bere (Ikastolako) erakundea era ortan oñarritua daukan ikastetxe bat, siñistun (konfesional) jatorrikotzat ezagutu ditekean ala ez?** Nigana etorri ziran bi jaunak esan zidaten Ikastol ortan Apaiz jaun bat ba-dagola. Ortxe daukazute, ba, ortaz nik baño obeki erantzun dezakizukena. Aurren esanaz eta Zuk egiz esanaz ere, orren gauza larria ez dezaket epaitu. Urren arte.

Intza'r Damaso An.

Principe de Viana, 1974, azaroa-abendua, 3. orr.

## LEGE ZAHARREN

Donostian agertzen da "EGAN" izeneko aldizkari dotore ta txalogarri bat. Iruñen, gure Naparroko Aldundiaren jauregi aurrean dagon Lege Zaharren oroigarriaz idatzi digute bere ortan. Pozez irakurri dut sailtxo ori.

Baño ez nago osotora berarekin, edo oroigarriaren euskal itzulerarekin. Iberikoen izkuntzan idatzia dago, agi denean, alde batetik, eta euskeeraz bestetik. Eta idazleak dio: "euskeraz agertzen dena (iberiozkoa) berbera delakoan artzen dugu". "Adiskide nafar batek, ordea, aldatu digu paperera".

Nik uste ongi aldatua izango dela. Baño irakurgaia euskeraz eman baño len esaten duenak arritzen nau: "Euskeraz auxe adierazi nai duela dirudi" Euskeraz idatzia ¿ez al dago, ba, naiko argi irakurtzeko? Edo idazle onek euskeraratu ote du? Ez dut uste. Oroigarrian agertzen den bezala emango zigun, nere ustez.

Nola nai den; onatx ematen digun euskerazko itzulera:

**"Gu euskaldunok beste jaun eztegu Jaungoikoa baizik. Atzeroari ostatua ematen degu onirizero, baño eztegu nai aien uztarria jasan: daitu ezazute gure semeak".**

Onen atzetik idazle berak esaten digu: "Idazkera iberikoa, ordean, ez da orain oroigarri ori egin zenean bezala irakurtzen; oraingo ustez, gañera, orain, ongi irakurtzen da, lehen gaizki irakurtzen zena, Gomez Moreno jaunari eskerrak". Ta beste oar batzuen ondorean iberikeraz onelaxe ematen digu:

**"Ciu euscalduneuco biestiei boan et.... boauneicuibekua biaiteico atiteercuari ostiatua ematien taeciu euniriteereu bianicu etetieciu nai aien utetiarria boatean ataitiu ecuacuutie ontan ciure semeaco".**

Irakurgai au euskeraz ezarri zuenak, iberitarren izkuntzako idazkera ongi jakingo zun naski. Nik berriz, aitortzen dut, eztut ezagutzen. Ta ordun ez nezake esan irakurgai ori izkuntza artatik ongi artua dagon; ezta ere euskal itzulera ongi egiña, edo ez.

Baño itzen bat edo beste adikorragoak bear giñuzkela gure gaurko euskeran, bai. Baita ere itz bat gelditu zaiola euskeratu gabe, edo bestenaz oroigarritik artu duanari gelditu zaio artu gabe. "Ontao" itza ezta ageri euskeraz.

Argatik barkatu zaidazute irakurgai ortaz nere iritzia emanez itzen itzen batzuk aldatuta, gauza bera argiago geldituko dela ba-deritzait.

"Atzeroari" itzaren ordez "Atzerrikuari" jarriko nuke. Baño gogoratzen zait "Atzerrikuai" ez ote den izango iberikoz? Ta ala balitz, urrengo ematen **degu** (nere ustez gazki itzulirik dagona) "ematen diegu" bear luke euskeraz; eta "atzerrikuari" ba-da, "ematen diogo" bear luke.

"Ostatua ematen degu **onirizero**", dakar. **Onirizte** itzak, **maitetasun**, **biotz-on** esan nai du, ortik **oniritxi**, ezaguna. Gure oroigarri orren euskera-itzultzaleak sortu du, or dakarren **onirizero** itza; biotz-onez, gogoonez "**artzen degu**" esateko. Onelako itzetan Naparroan "**gi**" ta "**ki**" atzizkia erabiltzen dugu. Ta adikorragoa litzakela deritzait **onirizki** edo **onirixki** itza, an dakarrena baño.

Beste itz ez ezagun bat "**daitu**" or dakarren ori da ¿Zer esan nai ote du? **deitu**? Baño urrengo itzekin ez dator ongi. **Altu** edo **aditu** izango da? Ba-liteke; baño ordun zuzendu bear litzeke.

Euskeraratu gabe gelditu zaion "**ontao**" itza, **ontan** itzuli genezake naski.

Beste aldaketarik ez egitekotan, onelaxe geldituko litzaiguke:

**"Gu euskaldunok beste jaun eztegu, Jaungoikoa baizik. Atzerrikuari ostatua ematen diogu onirizki; baño eztegu nai aien uztarria jasan: aditu ezazute gure semeak?"**

Orrela ote da? Nik uste ezetz. Lenbiziko errenkan eta azkenekoan itz bat baño geiago oker daudela iruditzen zait. Baño Naparroan eta bere ikastetxe Nagusi edo Unibersidadean izango dira naski izkuntzlari jakintsu, antziñeko iberikoz naiko berri dakitenak.

Auen bidez laxter jakin diteke irakurgai ori ongi emana dagon; gaurko idazkeraz nola bear luken-eta...

Aurten dugu gure Lege Zahar oien eunkia edo urtaburua 1686-garren urtean egin ziran, **Espasa**'n ikusi dutenaz. Argatik ongi letorke berritzea, ta euskeraz bear luken eran ezartzea. Orrela gaurko ta biarko naparrak, jakin dezaten gure gurasoen legezko erabakia ta ondoreko guziori emandako agindua.

Gaurkoz orixe besterik ez.

Intza'r Damaso An

Chile'tik, 1966, Garagarrillaren 24'ean.

Principe de Viana, 1966, abuztua, 5. orr.



## Liburuak

"NAPARROA'KO EUSKAL-ESAERA ZARRAK"

EGILLEA: Intza'r Dámaso A.

MARRAZKIAK: Erentxun E. ta F.

ARGITARATU: Naparroa'ko Diputazioaren "Príncipe de Viana".

IRAKURTZEN DITUZTENERI:

Irakurle maitia, ez egon ixillik;  
liburu berri hor, laudazak gogotik!  
Zeren, Araitzar edo Garaztar izanik,  
erakusten baitauku, deneri, geroztik,  
Nafartarren artian ez dela mugarik!

1975-IV-10

*Piarren HEGITOA*

---

"AMA BIRJILA'GANAKO JAIRERA " J.Mª Baztarrika

Paulo VI-gnak.

### **"Marialis Cultus" enziklika**

*Ama Birjiñaz Aita Santuak egundaño eman izan duten Enziklikarik oberenatakoa dugu; aren jaierez mamitsugorik ez da, beintzat.*

*Badugu, ba, euskeraz Ama Birjiñazko irakurgai bikain bat. Ama Birjiñaren illabeterako, Sortze Garbiaren bederatziurrenetarako ta, oberik ezin. Gipuzkoera argiz, garbiz, errezaz eman ere digu. Zail da, onelako Enziklikak gure izkuntzara itzultzea, bear dan zeaztasunez, aixa aditzeko eran itzultzea. Baña Baztarrika jaunak euskera jatorraz, zailtasun aundirik gabe, jalki digu asieratik azkeneraño.*

*Enziklikak iru atal ditu. Bi lendabizikoak biña zati; irugarrenean, bi otoitz eder, Angelus eta Errosario santuaz ikasbide asko eman ondorean, Azken itzak deitzen duan*

*pusketan, AMA BIRJIÑAREN JAIERAK Jainko-jakin-tzarako (teolojirako) ta animak zaintzeko lanerako zenbat balio duan erakusten du.*

*Paulo VI-garrenaren itz uts-utsa da guzia, 32 orrialdeko liburuxka luzexka apain-  
apaiña, aurreko ta atzeko azaletan eta erdian margo eder-ederrezko irudi ta Izaskun'go Bas-  
eliz eta bazter politakin. Tolosa'ko A. G. San Juan'ek Donosti'n, argitara emana.*

**Baztarrika Saizar-Bitoria J.M<sup>a</sup>k** euskeratua  
**A.G. San Juan'ek, Tolosan** argitaratua  
32 orri.

Intza'r D.

Principe de Viana, 1975, apirila, 8. orr.

## LIZARRA'KO AITA HILARI OLAZARAN

Otsaillaren 9'an 79 urte beterik, Jaunak eraman zigun Garagarrillaren 28'an, G.B. Aurtzaroa berez alaia da. Egun-senti ta udaberriaren antzera. Hilari Aitaren bizitza osoa, iñoiz zartzen ez dan aurtzaroa izan da bere izakeran.

Aurtxoaren biotzbera, idurimen erne ta egakaria, olerkari izan ez bada ere, ameslari bizi-bizia zan bere mintzoan. Mingain ozpin gabe ta eztsua, ikuspegi onurakor ta beti baikorra.

Hilario Olazaran eta Maura Salanueba'gandik Lizarran jaioa eta bertan Kalasanz-darren ikastetxean lenengo ikastaroak egiña zan. Lizarra berean Kaputxinoak gendun ikastetxean egin zuan apaizgorako lendabiziko urtea. 1906'ean Ikastetxe ori Alsasu-ra aldaturik, 2909-garrenean, Zangoza'n sarberri urtea egin eta Eskeñitza emateraño. Apaizgora, 1917'an iritxi zuan, Ondarrabin eta Iruñan ikastaroak egin da. Urte baten buruko Lekarotz'a bidali zuten Irakasletako. Langintza ontan jarrai zuan, 1936'ean Txilera joateraño.

## EUSKALTZALE GOGATSU

Gurasoak Lizarrakoak ziralako, euskerarik ez zuan berengandik ikasi. Bai ordea Kaputxinoen Ikastetxean, Lizarra berean asirik, Alsasura aldatzean. Lekarotza joan zan ezkeroko askoz geiago; lasa itzegitara ez zan iritxi baño.

Berezko, euskal-eresiaren zaletasunak artara eragin zion eta txistulariekin ainbeste aldiz ibilliz zerbait itzegitara oitu zan. Aiek zekizkien soñu guziak jaso nai izan zituan. Aiek zekien guzia beren belarri onaz ta saiaketaz zekiela ikusirik zuan. Eta aien kupidez eta txistulari berriak errazago izateko asmoz, *Txistu ikaspidea* egin zuan. Eta "Euskalerrriaren Alde" batzak sariturik, amaika txistulari sortu ditu.

Gure alderdi geienetako txistularien dantza-soñuak artu ta argitara eman zizkigun. Mirariz bezala bildua zeritzaion "Tellarin" ena.

Aurtxoak jostaillu polittenarekin, A. Hilari biltzen zuan soñu berriarekin ainbat ez dira gozatzen. Ari eskerrak, Euskalerrriak ezagutzen ditu ainbat dantza mota, bein betiko jasoak.

## TXISTULARIA TXILERA BIDEAN

1936'ko Azaroaren 21'ean Lisboa'n arkitzen zan Hilari A. Agustinus bere anai zanarekin. Biramonean artu bear giñun Txile'rako itsas-ontzia. Bi anaiak Lisboa'ko Irrati-etxera joan ziran. Eta eskatu zuten, irratiz, Euskal-erria-ri txistuz agur egiteko baimena. Baita pozik eman ere.

Gure txistulariak, "Agur Yaunak" eta "Gernikako arbola" joaz agur egin zien Euskal-erriari ta txistulari guziei. Biramon eguerdian "Ave Maris Stella" kantatuz, abiatu giñan "Sierra Ventana" zeritzaion Alemak'k ontzian.

Irugarren mallean, Portugal'dar ogi billa zijoazon sail batekin giñan. Mutiko ta neskato multxo politta ba'zan gurekin. Laxter adiskidetu ziran Aita txistulariarekin. Onek orduan, euskal-dantzak joaz, baita erakutsi ere gure dantzak egiten.

Egunen batzuen buruan, itsas ontziko guziak umetxo aen dantzari begira, ta txistulari Kaputxinoari txaloka. Josta-giro ta jaialdi polittak jarri zituan biz-piru aldiz.

Itsas-ontzien bi guruzketa izan genitun Buenos-Aires-eño. Bata Alemaniarrak ta Italiarrak bestea. Eta Aita Hilario'k, itsas-ontziak beren ikurriñakin agertzean, artzen du bere txistua ta danborra ta batari ta besteari beren aberriko aberri kantua jotzean, aietako guziak beren txaloz ta sudur-zapiz adierazi zuen beren poza, arrigarrizko txistuaren otsaz.

Itsas-ontziak Brasil'go Santos'en egun osozko egonaldia egitean, Sao Paulo'ra jo gendun. Ango Kaputxinoen konbentuan arkitzen zan, ordun Montebioiko Goi-Gotzai ta gaur Kardenal, Antonio Barbieri. Eta oni esan genionean Hilari Aita alako txistulari zala, Goi-gotzaiak esan zigun bere aituna zanak, jotzen zuala alako txulubitu iru-lau txulo zituna ta berak gorderik, berekin zeukela. Joan zan eske ta ateratzen du gure txistuaren antzeko, baño lodiagokoa. Ori ikustean, gure Hilari Aitak, pixkat garbitu-ta, ardoaz busti zuan. Gero asten da jotzen eta orra txistu ederra. Bere biziko pozaldia eman zion Goi-gotzaiari ta ordu erdi batez gure dantzak joaz aritu zitzaigun. Italiko itsas aldekoa omen zan aituna. Portugal'en ere gure txistu ta dantzen berria utzi zuan.

Txile'ra ezkerro misiolaritzan ibiltzen zan askotan, eta beti bere txistuarekin. Ez zan biltzale txarra misiotarako. Aurreri kristau ikasbidea ikasteko biltzean, gutxi-asko jotzen zien bere txistua, aur guziak txoratur. Eta misio guzien bukaeran egiten zan eliz-jira (prozesioan) eliz-kantuei laguntzen zien txistuz.

Aita Santuaren onespén (bedeinkazioz) akitzean, erritarren jai alai bat egiten zan, urbil samar. Orduan gure Misiolaria, txistulari biurtzen zan. Txiletar guziek dakien dantza, *Kueka* dritzaiona, dantza askatu ta egokia, bere txistuz jotzen asten zan. Bi mutil edo gizon ateratzen ziran larrain erdira, begirale tarteko bi neskatxei edo andre ezkonduer deitzen zieten dantzara. Oiek bi dantzaldi ikusgarriak, beren jira-bira biziakin egiñik, beste mutil asko, neskatx bana berekin zuela ateratzen ziran erdira. Zenbait tokitan, iru-lau lagun, kitarrak berekin zituztela urbiltzen ziran txistulariaren ondora ta guziak batera jarraitzen zioten beren dantza atsegingarriari.

Txiletar guziak arriturik eta begitarterik oberenaz ikusten zuten gure Hilari Aita. Eta onek dantzariak utz-ta, alde egiten zuan bere lagunarekin, Misio egunetan egon zan etxera.

Concepción deritzaion uriko konbentuan Nagusi izan zan iru urtez. Tartean an egin zan Eukaristia'ren Bilduma Txile-orokoa. Azken egunean uri guzia barrena egin zuten eliz-jira bikaña. Eta bide guzian, gure Jaunaren aurrean txistua joaz, antxe joan zan Hilari Aita.

## ELIZ-MINTZALERI TA MISIOLARI BEREZIA

Organorako ere esku berezi zituan Hilari Aitak. Santiago Txileko Kaputxinoen parroko organo-jole urte askoz izan zan, misiotan ez zebillen artean. Auetan, ordea, aurren kristau-erakustaldiak, armonioa joaz ematen zizkien zenbait aldiz eta noiz-beinka zarragoei ere bai. Aiderazbide sartzen zituan ipui ta gertaerak entzulen gogoan betiko josten zituan, artean ain erraz ta ugari mintzatuz.

## ERESLARI: MUSIKALARI EZ NOLANAIKOA

Euskalerrri osoak daki organo-jotzalle bezin ereslari ona dugula. Gaztetandik noiz-beinka, *Zeruko Argian*, A. Donostiaren illabeteroko eresien tartean ematen zizkigun eliz-kantu politak. Aita Augustinus, bere anaia Santiago Txilekoan il zitzaiguneko, illen meza zoragarria egin zuan, eta lenengoz antxe abestu zan. *Zeruko Argia'n*, azkenik argitaratu zuen Iraizoz'ko Polikarpo A. ren "Zenbat izar" deritzan olerkiaren eresia.

Orain azkeneko Ilbeltzaren 27'an, Iruñeko Andoni Santuaren etxean, A. Intza'ri artu zion, onek Lezotar José A. zanari ikasitako eresi bat. Eguberriko zortzikoa deitu du Hilari Aitak. Ori berak ereskideturik, idatzi zidan: "*¿Será este mi último juguete musical?*" ¿Au izango ote da nere azkeneko jostatxu eresizkoa?

Txistularien aldizkingirako eraturik zeukan. Aldi laburreko bi omenalditan, urrezko bi domina arturik.

Aingeru tartean Jesus'i ori abestera joan zaigu. Agur.

Intza'r Damaso

Principe de Viana, 1973, uztaila, 3. orr.

## MANUEL DANBOLIÑEN KONTU ZARRAK

"Goaten zen Mañuel urtero Egui'ra tuntuna jotzera. Baño urte batez faltatu zuen, eri egon zelakoz...

Berze era aurreko urtean, gan zen berriz erri artara eta lenbiziko saludoa izan zen Eskribau jaunarekin.

- Non egon zara Mañuel ainbertze denboraz erri untara torri (etorri) gabe?

- A! Eskribau yauna, erran zion Mañuelek; egondu naiz, infernuan.

- Ta zer kusi (ikusi) duzu paraje artan?

- A! aunitz gauza, jauna. Zazpi ilabetez gau eta egun sagardi bat eskutan ibiltzen giñan su izigarria zirikatzen. Arront, arront asperturik nindagon. Eta kusi (ikusi) nuen sillon edo butaka eder bat, arront gorritua ta asi nintzen jartzten deskansabidea arrapatzeko. Baño gure deabru-nausiak ez ninduen utzi jartzera, esanez:

Mañuel, Mañuel! ezta sillon ori zuk asegiteko eta ez zaitut uzten jartzera, zerengatik altxatua dago, ta fite torri (etorri) biarra da. Eguiko Eskribaua, eta orrengatik, segitu zazu zure lanean".

"Bertze bein batez sortatu zen, Mañuel mendiz etortzera bere soñua jotzetik:

Eta mendi batean sortatu zen onyo aundi bat arpatzera. Eta erraten zuen: ain aundia zen onyoaren itzala! itzalpean bai zagon 100 buruko ardi-multzoa. Baño zago onyoaren kiderra bareak jana, eta gutxi faltatu zuen lurrera egortzeko. Bereala abisue eman zion ardi-multzoain (multzoaren) jabeari, eta bearrik. Bertzela ardiik gabe gelditzen da".

"Bertze bein Mañuel juan zen beti bezala txuntxuna jotzera eta oraiko aldien eldu zen karretara barna, bere txuntxuna bizkarrean, Irurita aldera. Eta karreteran zagon erbi propi bat, txotxoriko jarririk. Igan zen Mañuel aren gañera ta karri (ekarri) zuen Iruritako malda artraño. Eta erbia itzuli zen torri (etorri) zen bidetik.

### **Antonio Legarra**

*A. Kaputxino Hilari Olazaran, txistularia, Txile'n misiotan zebillelarik, Baztan'go adiskide batek idatzi zion. Antonio Legarra zaio idazleari. A. Hilari berak oraindik 1973'ko apirillaren 26'ean, bidali zizkidan ipui (kontu) oiek, berak dekaekin eskutitzarekin. Mañuel'en berri auek ematen zizkidan: Mañuel Dorremotz zeritzaion. Berroetan jaioa zen. Aipamen aundiko txistulari au, emeretzigarren gizaldi osoan (esaten zidan) bere txistu ta danboliñakin Baztango erriak eta Eugi, Auritz, Aurizperri ta beste Naparroako erri asko barrena ibillia zen. Eta bere ezagunak ziotenez, bere biziko kontu-kontaria zelako, txistu soñuan bezin pozik entzuten zioten ipuien bat esaten asten zenean. Ortxe ikusi, ba, baztandarrak igorriak.*

Intza Damaso An.

Principe de Viana, 1974, maiatza, 8. orr.

## MANUEL DANBOLIÑEN KONTU ZAARRAK

Antonio Legarraga

"Bertze bein sortatu zen (Mañuel) Egui'ko ostatuan mutil dantzariekin. Gau geiena jokuan aizen (aritu ziren) ta ondoan etzan ziren belarran gañian.

Eta Mañuel'en ondoko mutillak, poliki-poliki sartu zion eskue sakelan Mañueli. Eta onek somaturik, erran zion: "Beira zak, beira zak ongi, ya ik arrapazeuken (arrapatzen duken) zerbait. Nik iñalak iñik utzi diet; eta eztez (ez ta ez) daus arrapatu".

"Bertze bein, Mañuel gazte zelarikan, guan zen dotriña esamiñera, txartela artzeko.

Parroko jaunak galdetu zion: Zenbat Jaungokiko ziran? Eta lenbiziko esamiñan, erran zion: Zazpi bazirela. Arriturik Apeza, erran zion: ¿zenbat, zazpi? Orduan berriz. Sei. Nola sei? Geroztik, bortz.

Eta ontan apezak erran zion, ez ziola txartelik ematen.

Atera zen gure Mañuel Elizetik. Eta an galdetu zion bere adiskide bati: Aizak, zenbat Jaungoiko dire? Eta lagunak erran zion, bat zela Jaungoikoa.

- Alajeña, guaie, gauie, apezarengana, erratera bat bakarrik dela. Nik erran diekat ondarrik bortz direla, eta ez diakat eman txartelarik. Zerengatik?, gutxi iduritu zaiok".

"Bertze bein, Mañuel mutila zelarik, erribera gan zen lagun batekin. Eta igande batez juan ziran Mezara, baño beransko allegatu ziren; azken bedekazioa apeza ematera zuala. Ta **Dominus vobiscum** aitu zutelarik, erran zuen Mañuel'ek: eta apeza euskalduna duk emen ere. Eta bearrik etorri gaituk lasterka, bertzenaz Mezarik gabe gelditzen gaituk".

Antonio Legarraga baztandarrak bai polleki esan dizkigula Mañuel txuntzunlariaren kontu, ipui ta asmaketa biziak.

Legarraga jaunari itzez itz artu dizkiot bere eskutizetik ipui oiek guziak. Oraindik ez dut galtzen utzi nai Eskutitz orren azken alde. Onelaxe idazten zion A. Hilari'ri: *P. Hilario: lenbiziko aldia da euskeraz eskribitzen dutena, ta Baztango euskeraz, letra txarra, kontu fundamentu gabekuak eta euskera eztaikit ongi konprendituko duzun. Orregatik barkamendua eskatzen datzut (dizut) dinetaz. Nik uste diet Iruritan oñik (oraindik) izain dela Mañuel'en norbait yendakia, nik baño obeki aren kontuak dakiena".*

*Su affmo. y s.s. M. Bs. Antonio Legarraga.*

Apal-apal eskatzen zuen barkamena, ainbat xalo merexi duan Baztandar onek.

(Antonio Legarraga, baztandarrak Aita Hilario Olazaran zenari egindako eskutizatik).

Intzar D.

Principe de Viana, 1974, ekaina, 8. orr.

## "MOREA" TOKI-IZENA

"En torno al topónimo *Morea*" izenaz, José M<sup>a</sup> Iraburu, Iruña'ko legegizonak erakusketa bikaña eman digu. Gure Aldundiaren "Fontes Linguae Vasconum Studia et Monumenta" (sic) deritzaion aldizkariaren 12'gn. zenbakian, argitaratu du "Principe de Viana"ko Sallak.

Naparroa'ko toki askok daramate izen ori edo izen ortatik sortua. Baña, MOREA zer dugu? Zere san nai du ta nondik dator? Gure erriko jakintsu asko ibilli dira orri igarri naiez. Gure aldun, I. Baleztena zanak, 1928-gn. urtean jakitera eman zigun "Comptos Reales" deitzen diren garbitasunetan, beti ageri dala 1313 urtetik gora.

Agindenean Mitxelena jakintsuak, Araba'ko Almora, Arantzadi'ren Armora (tregu-arri bat), Axular eta Pouvreu'ren harmora gogoia narturik, arri-pilletatik ote zetorren uste izan zuen. López Mendizabal'ek, berriz, Morondo abizena, olo, orlo landarez izango dela. Oroz Arizkuren izkuntzalariak, Iruenñriko "Morea" k toki putzutsuak zirela oarturik, *mor*, *morg* sustraiatz germandarra egin zuen.

Ordea, gure Iraburu jaunak egin duen azterketaren ondoren eztabaidarik ez dago. Naparroa'n, 31 erritan eta Araba'n eta Bizkai'an toki bana ikusi ditu izen ori utsik edo beragandik daramatenak. Morea guziak, erderazko "pantano" direnak edo orren aide direnak. Guziak orain edo len putzu, aundi edo toki putzutsu izan dire. Naparroa'ko, euskera galdu duten erri askotan Mora ta moragandik sortutako izenak oraindik iraun dute. Iraburu jaunak aipatzen digun sail politta, ona emen:

"La Morea" ta "Las Moreas" deitzen dituztenaz gañera, or dauzkagu "Morea-bizkar" (morea'ren ondoko mendixka), Aranguren'en. "Morea biribil" Zizur Aundi'ko Etxabakoitz'en. "Morea biribilla" Motiloa Bekoan (Mutilva B.). "Morea burua", Motiloa Bekoan (Mutilva B.). "Morea burua", Motiloa Goikoan (Mutiva A.). "Morea txiki", Orkoien'en. "Moraga", "Las Basas deitzen ditue Argiñaritz'en. "Moraun", "Moragun", Ardanatz'en. "Moreaga", Urrotze'ko lurretatik Lerrutze'raño irixten dena. "Morartia", Villatuerta'n. "Morea"-lan, "Muria"-lan, Olatze'n. "Moralde", Olabe'n. "Morea"-bitarte, Galarko Espartza'n. "Morubia", Ibero'n. "Morubite", Arakil'en. "Morazoko", Grez'en. "Moralde", Larraona'ko Urbasa aldean. "Moraun" eta "Morara", Aranguren'en. Auek guziak, Naparroa'n.

Bizkai'ko Getxo errian ere ba'da Iraburu jaunak ikasi duenaz; "Moreaga"ko auzoa deitzen omen dute elizondoan dagona. Araba'ko Murua'n ere bai, "Morazabal" deitzen dan toki bat Manurga aldean.

Erri euskaldunetako edozeñek, izen oitaz bakarrik, badaki zer esan nai duen oietako bakoitzak; baita nola ta zenbat diran edo zein tokitan dauden ere batzuen batzuk. Ordun, toki-izen ori gure izkuntza berekoa ote den galde-egingo da? Ala Erromatarretatik edo beste errialdeen bateko izkuntzatik sartua ote dan "pantano" erderazkoa esateko? Gaurgero ez naski.

"Morea" eder baten argazkia dakar Iraburu jaunak bere lanaren bukaeran; Beriain'goa. 1923'gn. urtean, eta askoz geroago ere, bi ziren. Bata, bestea baño luzegoa. Azkeneko oni, "Morea-luzia" esaten zioten, zer esan nai zuan orduko Beriaindarra aditu gabe. Ura ikustean pozez bete nintzan: bera ederra zelako, baña geiago euskal-izena zeramalako. Artean ez bai nekien "pantano" euskeraz "morea" zenik. Aintzira ta zingira izzenak banekizkin, baña "Morea-luzia" deitzen ziotela entzutean, zalantzarik gabe esan nien: izen orrek au esan nai du. Ordun, Euskaltzaindi'ari eraman nion "pantano" esateko, Naparroa'n giñueken "morea" izena. Orra orain, Iraburu jaunak zenbat "Morea" azaldu dizkigun.

Baña, ortaz gañera, gure gizon arretatsuak izen orren antza badute ere, "morea" izenetik, ez baña "muru" izenetik, sortu ziran iru-lau izen aipatzen dizkigu bere lan eder ortan: "Morube", "Moraterupe" ta "Morukoa". Enzia-Urbasa ta Aezkoa'ko izen oiek, ango, muru-antza duten arkaitzak emen dira. Argatik, "Murube", "Murupe", ango tokiak.



Azkenean, Iratxe'ko larruzki (Becerro) bateko "Mora" ta "more" dauzken idazki baten argitasuna ematen digu. Mitxelena jakintsuak uste zuena ez dela adieraziz. Legarda'ko bide ondoan ba'zen "uilla Mezkina" izena zuen etxeen bat. Eta aren ondoan "mora" deitzen zuen putzu aundia bat. "Morea" bat zen ori, orduan. Baña, besteren aztarnik an ez dela.

23 orrialdetan "Morea"z jaun orrek eman digun ikaskuntza bezalakorik, ez da iñoiz gure beste toki-izenen batez eman. Ainbeste toki izenez aberastu gaitu gañera. Zorionak!

Intza'tar D.

Principe de Viana, 1974, urtarrila, 3. orr.

## NAFARROA'KO ESAERA ZARRAK

### AEZKOAKO ESAERAK

**Goiz gorri, artsian iturri berri** ( AN. Aezkoa). Artsian arratsian.

**Lurrak ekarri ta lurrak xan** ( AN. Aezkoa). Eguraldi tzarraz galtzen denaz. Xan-jan.

**Sasian jaio ta sasian il** ( AN. Aezkoa). Zizak eta ainbeste gauza.

**Beñere eztena izaten al da** ( AN. Aezkoa). Gaurkoan ainbeste gauza berri sortzen.

**Etxe utsa, gerla utsa** ( AN. Aezkoa). Alakoan, bizi diranen artean, naiko naigabe; ta ondorekoentzat ere bai askotan. Gerla-gerra.

**Biar eztuen potroak bi almute olo** ( AN. Aezkoa). Bearrik ezduenari ematen zaio, ta gosez iltzen danari, deus ez.

**Bazkoa goiz balitz! Martxoan balitz!** ( AN. Aezkoa). Garizuma beti negu jotzen dutelako; Bazkoaren zai.

**Arre ta so, orrek deusik ezetik aitzen** ( AN. Aezkoa). Iñoren esanera jartzen ez dana.

**Urrungo eltzia urrez; llegatu-ta lurrez** ( AN. Aezkoa). Urrutiko intxaurrena.

**Juantzar batendako, maritzar bat ezta faltako** ( AN. Aezkoa).

**Eztuk ez ori zangotik erorko** ( AN. Aezkoa). Uste duten baiño bizigoa duk ori, esateko.

**Lemixiko** (lenbiziko) **aurtasuna eder: bigarrena kirats!** ( AN. Aezkoa).

**Bakoitzak bere sandua alaba** ( AN. Aezkoa). Saltzailleak, bere gauza ederrena.

**Yostatzeko bertzeik jaioak ziralakoan, xuriz yazten ziren** ( AN. Aezkoa).

**Mutiko, mutiko! Axola gutiko!** ( AN. Aezkoa). Umeak ez ikusten, zer kalte egin lezaken.

**Gauza guziak uzten tu zuputs** ( AN. Aezkoa). Zuputs (azpikoz gora) esan nai du.

**Kattalin, Kattalin:**

**ollo xuriak erro in din** (egin din)

**beltzak ere mokoan din;**

**arek ezpadu erro iten** (egiten)

**ire bizkarrak pagaturen din** ( AN. Aezkoa).

Abaurrepeako Gregoria Jabat Jabat zeritzaion, Andre, buru oneko xalo bati artuak ditut. Otoitz egigun bere alde.

Intza'r Damaso An.

Principe de Viana, 1972, urtarrila, 7. orr.

Tarancón Kard. "Kristau-Eskutitza"

ZILLEGIA EZ DA ALDATZEN

Jainkoaren legearen oiñarriak ez dira aldatzen, Legediak zillegi ez diran egingarrietara aldatu arren.

"Erridiko legeketa eta kristau konzientzia" izenaz, eman du aste ontako bere eskutitza, Tarancón Kardenalak. Zillegi danaz Elizak, oraindaiño, aspaldian erakutsi duana gaurko gizaldirako ez dela egiten, diotenen aurka egiztaten du; eta beste neur-mail bat lengo garaietan zerabillena ez bezalako gai baliotsuaz egiña daramala diotenen aurka.

Erri-Agintaritza eta Eliz-Agintaritzaren zelai bereziak gogorazten ditu; ontan Elizak Jaungoikoaren legea gordetzeko baitdu agintaritza".

Erasten du Kardenalak: "Erri-agintaritzak bere berezkoa du ta bere zelaian menpetasunik ez duena. Lurreko eginkizunetan, agintaritza guren goiena du, lege zuzenak eta zuzen-ezak, politikoak eta politiko-ezak, errikoiak edo aberaskoiak emateko. Lege oiek, ordea, lege indarra izanik, ziltasunari eta konzientziari buruz ez dute gatzik azkeneko".

"Gizonen eginkizunak konzientziak, ziltasunak, zuzentzen ditu, ez legezkoari buruz, baizik gure siñiste kristauaren eran, gizez eta Jaungoikoagandik dugunari buruz".

Gogorazten du Kardenalak: "Gauza bat ona edo gaiztoa ez dala legeal lasa-uzten duelako, izan bai diteke legeak lasa-uzte zenbait okerkeritako. Gauzak onak edo gaiztoak izango dira, erriz-legez utziak edo debekatuak izan da ere".

Onela lizunkereri, likixkeria beti "pekatu" izango da Elizaren izkuntzan erri alde guztietan lasa-utziak izan arren. Ezkontza austeak pekatu izango da, erri-legeak ez ba'dute ziorkatzen ere".

("Deia"k, Abend. 17'an zekarren'tik euskeratua)

Intza'r D.

Principe de Viana, 1977, urria-azaroa-abendua, 4. orr.

## TXILE ITSUSKI BEZTUA

Allende zanaren alde ta Guda-Agintaritzza Txile'koaren aurka geiegi esan digute gure astekariak.

Ango gertaerak ez dira izan len idatzi diguten eran, eta gaurkoz esanak ere ez dira egiak. Andik eldu zitzaizkigun berria eta gaurkoan eldu zaizkigunak, oso bestelakoak dira.

Azkeneko uztan, 46 urte Txile'n daramazkin Aita batek idazten zidan: "*Erri gaxo au azkeneko urte auetan gogor astindua dakusgu. Komunista ta U.P.E.'koak larri erabilli ginduzten iru urtez; gero beroiek beren zatarkeri ta nasketaz lurreratu zuten etxea nolabait berriz jeiki bear; eta azkenez, etsai oiek berak atzerrian, bertako batzuen laguntzakin noski, zabaltzen dituzten gezurrai erantzun bear. Misiolari askoren biotzak nola mintzen dituzte!...*

*Bañan ez uste: burua beren lekuan daukatenak diotenez, Txile geldi baño zuzen dijoa bear duen bidetik. Zuk ondo dakizu zer gertatzen dan lur-ikara aundi batek jotzen gaituenean: nola gelditzen dan etxea: dana urratua ta ankaiz gora. Olaxe arkitu giñan orain amar illabete: nasketak, gorrotokeria, lapurretak, gosea, atzeritik sartutakoen arrokeria, gerokoaren bildurra... Olako arriskuan, Txile'ko erriak gudarien bidez, eman zun bear zuen Zartada. Geroztik, oñarri berriak ezartzen ari dira eta gero bearako diran etxegintzeko gaiak andik eta emendik ba'datoz. Oraingoan neke ta zailtasunean bizi bear bada ere. Txiletar geien-geienak ondo ikusten dute, lanari bizi ekiten diote, jatekoa ba-dago ta pozik daude".*

Lengo nere adiskide batek idatzi zidan: "*Emen zuzentasuna, begiramena ta ziurtasuna (seguridad) zuti daude. Egonera oso arriskutsuak igaro genituan luzaroan. Jaungoikoaren laguntzari eskerrak, guk deusen (ezeren) gaitzik gabe igaro dugu. Irailla'ren 11-an, deus ere jakin gabe, Konstituzion'era joana nintzan. Forel'go nere lanetik aldegiñik negoan, orduko artua bai'zuten ango barrutia, nere zar-saritzearen eskea egin-da".*

*"Allende'ren laguntxoaren erakeria ondaketa bat zan eta egun batetik besterako akitu (bukatu) zan. Zorionez Txiletarrak komunismoaren saretatik iges-egin zituen. Aren egintza osoa oraindik ez zuen ezagutu pixka bat besterik".*

Allende'ren agintaritzazko ta azken egunetako berri egiazkoak, bertako gaurko Agintaritzak eman dizkigu. Berak ezkatzen du irakurtzeko, "*LIBRO BLANCO del cambio de Gobierno en Chile*" deitzen dana. Onela dio asieran: "*Txile'ko erriak eta bere agintaritzak (Gobernuak) ez dio bildurrik egiari eta "LIBRO BLANCO" onen bidez eta guzien irizpenerako azaltzen ditu (bere) aurretikakoak eta ikuspide guziekin".*

Oraindik "*Anatomía de un fracaso*" izena duan beste liburu bat irakurri dezazke gertaera guziaren berri egiztatuak ikasi nai dituenak.

*"Auzi egin dezake berak -dio-, eta txiletarrak eskubiderik izan ote dugun ala ez, 1973-eko Irailla'ren 11-an erri-gobernu zital eta lotsagarriaren uztarria botarik, laterriaren zar-berritzeari ta berriztatze bidean asteko".*

Gure astekarietan idazti diran gezurrak irakurri ditugu. Eta Txile'n urte askoz egon izan geranok, ez gaitezke geiago itz bat Txile'ren alde esan gabe gelditu.

Andik eskutitzez eldu zaizkigun berriak eta gure ango Aiten Buruzagi, emen izan dugunaz ba'dakigu, pixkeka pixkeka guzien buruzpide onurakorra daramala ango Agintaritzak orain artean.

Intza'r Damaso

Principe de Viana, 1975, otsaila, 3. orr.

## TXILE'REN ALDE

Txile'ko Agintaritzak (gubernua) lenengo egunetik erabakia ta jakitera emana ez da nolanaikoa; ona emen bere itzak:

Aberria

### **Txile'ko agintaritzaren oñarri-itzak**

Txile'ko Agintaritzak oñarri-itzak naiago ditu, adirazgarriak baño; ekintza berak, egitarauak baño; oituerak, lege utsak baño; lege-erabidea, iritziak baño; eta egintzak berazkoak, itz-ederrak baño.

*Txile ez da ez-ur ta ez-ardo marxismoaren aurrean, marxi-etasi dala aitortzeko ez du bildurrik.*

### **I. Txile nola izendatu liteken gizadi tartean**

Marx-erazko giza aldartea Txile'k baztatu egin bear du, berori guzi-guzialdun itxurekoa eta gizonaren eta giza-nortasunaren ondatzaille dalako, ori guzia gure kristau-erazko ta españerazko ikasi gendunaren kaltetan baita. Txile itzuleran dator. gañera, ikusiak adierazi digu marxisketak ez dakarrela zorionik...

*Orduan, Txile'k saiatu bear du bere, al dan lasterreneko ondasuntza edo erri-zuzentza batera alkarganatzen dagokion bezala.*

### **II. Gizonari zer eta erritaldeari zer**

Gure aurreagoko kondaira eta gure erritar geien-geienen guraria gogoan arturik, Txile'ko Agintaritzak begiramena dakarkio gizonaz eta erritaldeaz daukan kristau usteari. Ori izan zan Sartaldeko errigintzari buruzpidea eman ziona ta orren alde bat gera; ta galtzeak eta ori ikusteak eragin dio asko-samar gaurkoan oitura onen elbarriketa sortzeko, eta gizarteko bizitza bera arrixkuan jartzeko.

Aurreko onengatik gizona gogodun (animadun) artzen dugu. Oñarri ortatik dator gizonaren deitasuna ta nortasuna. Ortik jaikitzen dira ondoreko auk:

*Gizonak baditu berezko eskubide agintaritza baño aurreragoko ta aundiagoak.*

*Agintaritza gizaiari laguntzeko egon bear du ez okerrek aldera.*

*Agintaritza geienen onerako da.*

*Geienen onaz aundia txikiari lagundu, onen irabazbideak ez galarazi ta ez jatea agintzen du.*

*Laterrian guzien onerako sortzen diran Elkarte aundiak, txikiagoa ez dute jan bear, ezta bere eginbidea, bizi ta azibidea galarazi bear ere. Elkarren begiramenezko eginkizuna, gizarteko azkatasun egiazkoaren bizigarri da.*

*Elkarren arteko begiramena izateak bakoitzaren jabetasunezko eskubide ta bere eskuko langintzarako aukera berekin dakartza.*

*Txile'ko Agintaritzak, jakinduriz, gure kondairaren muña ta orain aldiko munduaren aurrerapenak artu nai lituzke.*

*Batzuek besteri laguntzeko itz-oñarriaren begiramenak berekin du gauzen jabetasunaren eskubidea ondasunak ugaritzeko lanetan.*

*Ondasunak ugaritzeko lanetan asteko eskubidea, aurreagokoa da elkarri laguntzeko itz-oñarria baño ere.*

*Jabetasunazko eskubidea, gizona ta erritaldea zer dan ezagutzetik jalkitzen da nai-ta-naiezko gauza bezela, baita elkarrekiko itz-oñarritik ere, naiz beronengandik sortzen dana izan. Jabetasuna, berez, norberari dagokio; izan liteke, ordea, giza-talde bati dagokiona, batzuk bestekin itz emana ta ontzat artua danean.*

*Aberria zaintzeko ta bere bizitzarako bearrezko egiten dana ta besteen batzuen eskuetan uztea on ez litzakenaren jabetasuna bakarrik gorde bear du beretzat Agintaritzak, beste guziaren jabetasuna bakoitzaren eskura lasa utziz.*

Onetarañoko guzia, Agintaritzak (gobernu) erabaki ta idatzi duanetik euskeratua dezute.

Txile'ko Agintaritzak ez du bere ardura (arretaz) bakarrik zaindu ta zuzendu, edo bere eskutik bakarrik eduki nai. Laterri oso luzea da Txile. Alderdi bakoitzean bizibide bereziak, baita eginkizun, lanbide, irabazbide bereziak dituna, alderdi aietako lur-giroak ere ez berdiñak diralako; orrengatik Agintaritzak oso neurri egokiak artu ditu alderdi bakoitzeko.

Nola? Goitik bera bere alderdi bakoitzean uri-buru bat izendatuz. Zertarako? Ortxe izan ditzaten beren alderdi artako ardura (arreta) daramaten denetako ordezkariak. An beren Zaindariak, epaille, lege-gizon, sendalari, irakasle, etxegille ta, alderdi artan, bearko dituen guziak.

Orrela begiratzen du, laterriko Uri-buru Santiago'ra ainbeste joan-etorri egin bearrak ez dezaten izan txiletarrak; Agintaritza'ren ordezkariak begiratu ta ornituko dituzte toki bakoitzeko bearrak.

Txile buruzpide onez dijoala dirudi, ba.

Intza'r Damaso

Principe de Viana, 1975, martxoa, 3. orr.

"ULTZAMA'TIK JALKIA"

## IRURITA ALMANDOZ MANUEL JAUNA GOTZAI TA MARTIRIA

Aita Aginagalde Bitor Mari, Jesus'en Lagundikoak argitara eman du. Ogeita amabi orrialde ditu liburutxo onek. Lenagotik "PRINCIPE DE VIANA" euskal aldizkari ontan irakurri izan dezakegu illero piskat.

Irurita Almandoz Manuel Jauna, "Ultzama'ko semerik bikaiñena". Ultzama ibar apain eta zelaitzuko Larrantzar'en jaiorik, bertako eskolan artu zuan ondorerako ikasbidea.

Amaika urtetan Monteano'ko Kaputxinotara jo zuan, apaizgorako asmoan. Lenengo iru urteak an egin eta Lakarotz'ko Kaputxinotara aldatu zuten. Bi urteren buruan Basurto Bilbo'koan Nobiziadua egiñik, Ondarrabi'ko Kaputxinotan agertzen zaigu iru urtez.

Ordun egin bear zuan bizi guztiko Profesioa edo eskeintza nagusia; zer gertatu zitzaion?

Bere abots atsegiñak eta musikarako zaletasunak arroxko zala iruditurik, bidali ote zuten bere etxera?

Ala, bere gurasoak il-da, senide txikiak laguntza bearrean arkitzen ziralako, itzuli ote zan bere etxera? Auxe entzun izan nuan nere gaztetasunean. Egia ikasi naiez ibilli naiz; baña, argitasun osorik ezin egin izan dut. Ala ere, arek senideei eman zien buruzpidez, eta berak azkena artu zuenaz, orixe iduritzen zait.

Ostiz eta Zugarramurdi'n Irakasle egon zan. Orduntxe gertatu zitzaion noski, Irurita beronek neri Lekarotz'en jalki zidan gertaera pozgarri au: Aita kaputxino on-on bati zor ziola bera apaiz egitea.

Iruñe'ra joan zala bere bizi guztiko aitortza (konfesioa) egiteko asmotan. Ortarako Kaputxinoetara joan zan. Atetan eskatu zuan Aita bat aitortzeko. Inbuluzketa'ko Leon Aita jetxi zan. Lasai-lasai bere aitortza osoa bukatzean, Aita Leon'ek esan zion:

- **"Jaungoikoak apaizetako nai ziatu; apaiz izan bear duzu".**

Bera arriturik gelditu omen an Aita aren ateraldiaz, eta bertatik apaiz egiteko bideak artu zituan, A. Aginagalde'k dion eran.

Jolasaldi onen berria A. Aginagalde'ri eman diot. Baña neronek egiztaraturik utzi nai dut. Baita ere udatako oporraldietan Almandotz'a zetorreanean, ez zala Baztan'dik joaten, Lekarotz'ko Kaputxino'en Ikastetxean gogo-jardunak (Ejertzioak) egin gabe. Oietan zegoala, antxe izan nintzan egun batzuz. Eta egun batez, afal-ondoan, biok eliz aurreko bidera atera giñan. Geren joan-etorritako izketan asi giñan. Eta orduntxe esan zidan Inbuluzketa'ko Aita Leon'ekin gertatu zitzaion ori. Gure izketa 1932 edo 33 zala nago.

Oso pozgarriak dira Aita Aginagalde'k liburutxo ortan damazkigun Irurita agurgarri ta ospetsuaren berriak.

Intza'r Damaso

Principe de Viana, 1977, ekaina, 11. orr.



## UMEAK

Umeak maitagarri dira. Nork bere umea, berez maitatzen du. Izadi osoan ageri da ori; biztanle guziak berdintsu. Ez gizartean bakarrik, baita beste edozein bizidunetan ere.

Guzien Egille berak, umen onerako, gurasoen biotz, barrenbean ezarri baidu maitetasun ori.

Ala ageri zaigu egazti, abere, narrazti, arrastakari beretan ere. Naiz txoriek, naiz oilloek, azkar adiedazten dute beren umen maitetasuna, aientzat arriskuen bat sortzen deneko. Beti txio-txioz edo garrati latzaz eta luzeaz. Umeak egalpean artzen ditu oilloak, eta kabi inguruko jira-biraz, txoriak bere kezka ta biotz-miña adierazten digu.

Ardi ta auntzak, beiak, txakur eta urdeak berek, beren umien alde zorrotz jartzen dira.

Umien kezka ta maitetasuna ez da txikiagoa ama on guzietan, gizartean. Bidez alare. Giza-sume edo alabatxo baten aldean, zer balio dute lurreko beste biztanle guzien umeak? Auek ez ald ira beste guzien jabe ta gozatzale izateko jaiok?

Guzien egilleak ez al du umetxo ori, aingeruak baiño pixkat txikixiango egin, aintzazko ta argizko horoia orren buruan jarritz? (Salm.6).

Edozein giza-sume-alaba, naiz zuri, naiz beltz edo ori izan, Jainko beraren iduri ba-da, berorretxengatik, beste lurreko gizaki ez den biztanle guziak baiño, maitagarriago da. Beste ezer baiño eskubide geiagoz jantzirik dator sortu ba-zen sortu. Ume ori Jainko Semearen odolez zerurako eresia da.

Aur orrek, sortu ezkeroz, berekin zuan, Bataioaren bidez jainko-sume, ta egun batez betiko zerutar izateko eskubidea. Gurasoen ondasun guzietarako eskubideak berdin zituan. Aur ori berez, errugabe da. Errugabe bat iltzea, galtzea, oben (**pekatu**) larria ba-da; bere alde deus ezin dezaken ori galtzea, ze larritasunezko oben (**pekatu**) izanen ba da?

Eliza Ama santuak zenbatez zio (arrazoi) geiagoz gaitzetsiko du ume sortu-berriek galtzea?

Umeak maitagarri dira. Biarko gizadia oietantxe dago. Ori oben (pekatu) oiek galtzea!

Intzar D.

Principe de Viana, 1973, azaroa-abendua, 8. orr.

## Liburuak

### "ZORION BIDEA"

M.M. Zubiaga, Jesus'en Lagundiko Aita mixioemalle aspaldikoak egiña. Bigarren argitaraldia du liburutxo onek. Urte gutxiren buruan eldu zaigu. Poztu gaitu onetxek.

"*Zorion Bidea*" du izena; ta, askorentzat alaxe izango dala uste dut. "Maitasun damua" da bide ori. Laixterbide ederra or erakusten diguna. Askok ez dute ezagutzen, guztiontzat bearrezkoa izan arren.

Jaungoikoaren grazia irixteko, berori azitzeko, kezketan ez bizitzeko, irakurri ezazute. Lengoa irakurri ziñutenak, jakitea emazue au, adiskide ta ezagun artean. Ez zerate damutuko. Gaurko egunetan aitortzeko sortzen diran eragozpenaz eta egunoroko bizitza galtzeko arriskuaz, inoiz baño obeki dator liburu kozkor, kozkordun au.

Gipuzkoa'ko euskera jatorrean dago. Itz gutxigotan nekez adierazi liteke or erakusten duan guztia.

Poztu giñan beraz "Goiz-Argi" k esan zuanaz; zor zitzaion.

Intza'r Damaso

Principe de Viana, 1976, iraila-urria, 16. orr.

## ANDRES NARBARTE ZANAREN EROITZAPENEZ

Andres Narbarte Olaizola, "Shalto" izenordez ezaguna bere herrian. Txemeneko bordan jaio eta bizi izan da il arte. Berrogei ta lau urtekin il zaigu.

Gizon ezkongabea zan.

Goizuetako seme hau bertsolari oso ona izan zan. Nafarroako Bertsolari Txapelketan irabaztaile edo bigarrena beti gertatzen zan. Beraz Nafarroako bertsolaririk onenetakoa, Lasarte ta Arozamenaren parean. Bat bateko bertso egile jatorra, paregabeko gatza ta piperra zeuzkana. Bere abotsak etzion bertso kantatzeari laguntzen; gañerakoak, bertsolari ona izateko behar diran gañerako dohain guziak berez zituen. Aotik ortzerako bertsoak konpontzeko trebetasun, erraztasun eta aisatasuna gure Narbarten sortzetikoak zeuzkan.

Bere eriotza honelako moduan gertatu zan: Narbarte bere baserriko alorretan nekazalgo lanetan ibiltzen zela sasilar batzuk kendu nahiez sua eman zien. Sua ustegabeen indar asko harturik, gehiegi aunditu eta zabaldu zan. Narbarte sua itzaltzen ahal eginez eriotza aurkitu!

GOIAN BEGO.

Bertso horrialde hontan Andres Narbarten paratutako zenbait bertso argitaratzen ditut beraren oroimen eta bere izen ona (ohorea) gure gogora ekarerez.

### AGUR BERTSOAK

Lendabiziko artu ditzagun  
gradorik aundienekoak:  
Alkate Ayuntamenduarekin,  
Obispo, Apaiz Jaun prestoak;  
oain biotzetik maite ditugun  
Nagusi Diputadoak,  
gañerantzeko bertso-entzulek  
gugana etorritakoak.  
Eskerrik asko danari eta  
arratsalde on Jainkoak.  
(Lekunberrin, 1960-6-26)

Txoko goxo au gure etxetik  
egonagatik aparte,  
pozaren pozez zure ondora  
etorria da Narbarte.  
Anai-arrebak maitagarriak  
danak ondo al zerate?  
Neure biotza ezta lasaitu  
gaur zuek ikusi arte.  
(Leitzen, 1961-8-29)

Orain entzuten yarri zaitea  
goizutar onen berria,  
damutasunez eznago bate  
Bera'ngana etorria.  
Sortzegatikan nola izan dan  
oso txoko pozgarria,  
zuri begira ementxe nago  
ezin aspertuik jarria.  
Lendabiziko agur biotzez  
Bera erri maitagarria.  
(Beran, 1962-9-23)

Len kantatzen izena naiz emen  
gaur det bigarren urtea,  
aspalditikan txoko ontako  
badaukat borondatea.  
Ez nuan uste, lore polita,  
berriro zu ikustea.  
Nik biotzetik asko nai dizut  
Agur Areso maitea.  
(Areson, 1963-5-19)

Erri eder au nola baitegun  
aundia eta apaiña  
orrenxentzako beti izan det  
borondatea biguña.

Oraindik emen bizirik dago  
Euskera xarraren muña,  
nik orrengatik maite zaitut zu.  
Agur biotzez Iruña!  
(Iruñean, 1964-9-27)

#### APAIZEI BERTSOAK

Geuren Obispo ta Apaiz jaun oiek  
aitxen dute biotz fiña,  
errietan zabaltzen ai zaizkigu  
Jaungoikoaren dotriña.  
Ez dakigunei erakutsitzen  
egiten dute alegiña.  
Beran faltikan ez genduke guk  
gero jatorrak bagiña.  
(Lekunberrin)

#### APUSTUEN KONTRA

Pobria dala gizon onek oain  
esan digu emendikan;  
obligatuzten banau pixka bat  
aituko du ederrikan:  
Jokatu gabe ez du utzitzen  
irabazitzen dunikan.  
Diru kontatzen onek etxean  
batere ez du lanikan.

Onek gaur diru gutxi duela  
berak eman digu itza.  
Bear bezala zer dan ez daki  
mundu ontako bizitza.  
Bizio txarra berekin dauka,  
beti kartera murrizta  
Berriz e pobre egongo zera  
apustuan bazabiltza.  
(Lekunberrin)

#### ESNEARI

Bear bezala gaur naon lekutik  
egin bear ditut lau itz:  
aman bularra txupaturikan  
gaur bertotan emen gabiltz.  
Mutil galantak egiñak gaude,  
gorputzaz ez gaude murrizt.  
Iñor ez leike bizirik egon  
lagun esnerik ezbalitz.  
(Lesakan)

#### EZKONTZEKO GAIA

Pentsamenduan jarrita nago  
nola izan leitekean;  
ezkondutzeko NARBARTE dago  
gutzizko borondatean.  
Ama ta biok bizi baigera  
baxerri koxkor batean.  
Nik andrerikan ezdet artuko  
izatekotan kaltean.

Au esateko nik ez deraukat  
gaur aurpegian lotsikan;  
ama gaixoa iñor e gabe  
antxen baidaukat utzikan.  
Nik berriz ez det neskatxetako  
beñere kurajerikan,  
ark emakume txintxo polit bat  
artuko nuke pozikan.

Neskatxetako koarde xamarra  
nola izan nintzan berez,  
ni ikusita emakumeak  
egiten baitute iges.  
Esan zazute, andrean billa  
asita dagola Andres.  
Gure etxera juaten dana  
ezta biziko "aldrebes".  
(Leitzan)

#### OFIZIOA EMANDA; NARBARTE NESKA ZARRA ZAN ETA BESTEA GIZON ALARGUNA

Gizon jator bat ondoan daukat  
oso umilla ta fiña,  
au neretzako izategatik  
ein bear det alegiña.  
Zubi ondoan or ikusita  
biotzan artzen det miña;  
naiago nuke milloi bat baño  
neure senarra baziña.

Nik aartzen badet alargun on au  
maitatuko't gogotikan,  
katillu aundi bat bete kaf'esne  
emango diot goizetikan,  
amaiketan e salda beroa  
atrako det eltzetikan;

neure senarrak eztu izango  
gose ta egarririkan.

Au esateko neskaxar onek  
bat'e ezdauka lotsikan,  
neure senarra eztu artuko  
beñere kafe otzikan.  
Andregai onek ezbeitu egin  
ortarako promesikan,  
arrautze pare bat ere oneri  
jarri nezake pozikan.  
(Etxarri Aranatzen)

#### NOLA EGINGO LIOKEN NESKA GAZTE BATI ARTURIK EZKONTZEKO MANDATUA MANDATUA

Etorri ezgeroz begira nago  
ementxen neskatz bateri,  
ain da zuri ta gorria eta  
asko gustatzen zait neri.  
Beitu batian orren begiak  
Ama Birjiña dirudi;  
Badakit eta kariño piskat  
berak dio Narbarteri.

Zu zera neskatz aintxen polita  
nik emango zaitut ontzat,  
aspalditikan neure biotza  
gustatuik dago zuretzat.  
Gure etxean bada lekua  
olako neskatz batentzat,  
eta moldatuko ote geraden  
neri iruditutzen zat.

Oei t'amar ardi mendian dauzkat  
etxian ditut antzuak,  
bi bei bikañak beren txalakin  
ukullun dauzkat lotuak;  
koneju sail bat badaukat eta  
ausarki dittut olluak.  
Neskatz ederra, zuk non billatu  
mutil aberatsaguak?  
(Etxarri Aranatzen)

#### GERRAREN KONTRA

Nik gorrotuan ezdet ikus nai  
andre eta gizonikan,

ez pentsa emen Narbartek esan  
bear duenik gezurrikan.  
Mundu onetan nola ezdegun  
pake bezelakorikan  
bide zuzenen jarraitu zagon  
gerrak eztu gauz onikan.

Orain ez degu Euskal Errian  
jaunak, lizar makillikan,  
pentsatu euskaldun gaixoak guk  
ezdaukagula indarrikan.  
Kararik-kara indarrik ezta,  
irten da bonba atomikan,  
naiago nuke ezpalitz muituko  
lenao dagon lekutikan.

Gerra gaixtua sortzen bazaigu  
danentzat degu kaltean;  
gu euskaldunak elkarrentzako  
bai gauden borondatean.  
Esan gentzake azi gerala  
auzotxo polit batean;  
txarkeri oiek alde bat utzi  
jarrai dezagun pakean.  
(Etxarri Aranatzen)

(Donostian, Euskal Erri  
guzikoBertsolarien Txapelketa batean  
Fabiola Erreginari buruz Elkarrri puntua  
emanda moduan puntu hau emailleak  
kantatu zion:

"Belgatarren erregin  
egin da Fabiola"

Baño gure Narbartek, eskola gutxiko  
gizona izanik, etzion gaiari errespuesta  
egokia eman).

Narbarteren bertsoa onelakoa izan zan:

Igerri diot, Alfonso  
egia diola;  
beste gañekoa etzan  
mintzatuko orla,  
antxen pensatuzten det  
zerbait badagola.

(Orduan Narbarte etzan Txapelketan  
aurrera pasatu eta Teatrotik ateratzean  
Pedro Diez de Ulzurrun apez jaunari esan  
zion: *Nor dan Fabiola ori?* Gertaera hau

Bertsozaleen artean bereala barreatu zan).  
Baño bi urte pasatu ez geroz Goizuetan,  
bere herrian, Nafarroako Bertsolarien  
Irugarren Txapelketan Juradukoak  
Bertsolariei bertsoaren bukaera emanaz  
bertso guzia egin dezatelako lana jarri  
zieten. Narbarteri bukaera au tokatu  
zitzaion:

"Gero juezak irakurri zun  
sententzia bat larria".

Eta orduan Narbarrek aotik ortzera  
bertso au konpondu zuen:

Ni Donostira neure ustetan  
joan nintzan bertsolaria,  
aitortuko det dotore asko  
eskolarikan gabia.  
Eman zidaten ustegabian  
Fabiolaren berria,  
gero Juezak irakurri zun  
sententzia bat larria.

(Orduan erakutsi zitun Narbarrek bere  
bertsolaritzako doahiak, Alajaina!)

(Lau puntuak emanda bertso osoa  
egiten gizon prestua ere bazan)

Puntuak:  
"Ardiak, erdiak, mendiak, piñudiak"  
Goseak dabilz Goizuetan  
aurten e ardiak,  
neri beintzat il zaizkit  
ia ia erdiak.  
Itxita baidauzkagu  
ziaro mendiak,  
Nik erreko nituzke  
orko piñudiak!  
(Goizuetan)

#### PUNTUAK JARRITA

Emaileak:  
Nolakoa nai dezun  
zure andregaia?

Ez dakit zein dan baña  
badet ikusnaia.  
Urrutitik aitzen det

nik orren usaia.  
Nai nuke baldin balitz  
ni bezin lasaia.  
(Lesakan)

Emaileak:  
Ezpañetan daukazu  
mats beltzaren tinta?

Len itsusia banintzan  
gaur eznago polita.  
Denak ikaratzen dira  
Andres ikusita.  
Banijua igesi  
lagunak utzita.  
(Goizuetan)

#### AZKEN BERTSOAK

Ixilik ezin egon naiz eta  
astera nua kantari  
biotz gañeko alaitasun au  
adirerazten berari.  
Batek bear dun kopa eder au  
eman didazute neri;  
Estimatzen det borondatia  
eskerrik asko danori!

Neure ondoan ikusten det nik  
Lekunberriko Alkate;  
ona da eta gende guziok  
biotzez baidegu maite;  
erria ondo gobernatzen du  
gizon txarra ezta bate;  
izen ori ez dezala galdu  
bizirikan dagon arte.

Beste bertso bat egin nai nuke  
Lekunberriko partean;  
emengo gende onarentzako  
bai nago borondatean.  
Bata besteren gorroto txarra  
geuren buruan kaltean,  
okasio eta zapuzkeik gabe  
bizi gaitezen pakean.  
Orain "adios" beste bat arte  
Jaungoikoaren onean;  
entzule danai, Eskerrik asko!  
beste egun bat artean.  
(Lekunberrin)

Bakar bakarrik motxez egonda  
orain gu gaituk lagunak;  
Nik onengatik azaltzen ditut  
kantari gau eta egunak.  
Bertsolariak gera izkuntz au  
bizkortu bear dugunak,  
bestela laister esango dute  
ezgerala euskaldunak!

Pentsatutzen det agur egiñez  
emen zerbait esatea;  
poza artzen det diru mordo au  
berak neri ematea.  
Alkate jauna, eskerrik asko,  
maiez artzen det partea,  
iñoiz gertatzen baldin bazate  
Goizuetara joatea,  
zabal zabalik an egongo da  
gure etxeko atea;  
dagonatikan emango'izutet  
jatea ta edatea;  
orratx eskeiniz biotz barrendik  
nik duten borondatea.  
Entzule onak ondo izanda  
beste aldi bat artea.  
(Etxarri Aranatzen)

Aitortutzera banijua asten  
eman dituzten ordenak,  
gu gera Iruñeko Radiotik  
gaur itzegiten degunak.  
Eta pozez atxoratzen dauden  
Euskal Erriko euskaldunak,  
izan ditezen zoriontsuak  
neri entzuten daudenak.

Nere pozakin negarrez nago  
senide ta gurasoak,  
diru sorta bat eskuan daukat  
eta kopa kuriosoak;  
poliki irabazten eztarri-buruz  
egin ditudan pausoak,  
izan zaitezte zoriontsuak  
anai-arreba gaixoak.  
(Goizuetan)

BEDERATZI PUNTUKOA

Zerbait esan nai nuke

nere gogotikan  
gure izkera gaxo  
onengatikan;  
auxe ikasi gendun  
txikiagandikan,  
orduan ez genduan  
bera besterikan,  
ezta izkuntzikan  
onelakorikan;  
emen dagonikan  
au bezin onikan,  
ez utzi galdutzera  
Euskerarikan,  
ez utzi galdutzera  
Euskerarikan.  
(Iruñean)

Jurado jaunak txapel aundi au  
eman diote Narbarteri  
eta nik orain bertso goxo bat  
kantako diet berari.  
Kariño pisko bat didatela  
jaunak ez al da nabari?  
Ondo bizi ta urrengor'arte  
egun on pasa danari.  
(Iruñean)

Hemen dituzute irakurleak Narbartek  
utzi zizkigun zenbait bertso Nafarroako  
Bertsolarien Txapelketan kantatuak.  
Hemen bere bizitza, bere gorputza eta  
arima, bere euskal izkera, bere izaera  
daude.

Goiko izarren erdian egongo al da  
Narbarte bukaeziñako bertso-kantaldian...

Pedro Diez de Ulzurrun

Principe de Viana, 1971, otsaila, 3. orr.

## DEUN ORO-REN GOTUN IREKIARI ERANTZUNA

Ioan berri den Maiatzaren ogeitagarren "ANAITASUNA" amabosteroko maitean neri zuzendutako zure "gutun idekia" leitu dut.

Han esaten dituzunak on zaizkit. Azaltzen dituzun iritziak zureak bezin nereak izan zitezken. Azaltzen dituzun asmoekin ados nago.

Nik ere bertsolarieek elkar lagundu behar luketelakoan uste dut, eta baita ere bertsolarieek gure euskerari bizi sendo ta bizkorra ematen dizkiotela.

Badakit ere euskeraren arnasik dagon tokian bertsolaria ongi hartua izaten dela, baño jakiñean nago ere Euskal Herrian egonik ere euskera mintzatzan ez den herrian bertsolarieek ezdutela ezer egiten gure bertsolarieek euskera bere baitan baidaramate aurretik.

Bertsolari esatea euskera beti ahoan erabiltzen duen gizon bat dela denok dakigun gauza da. Eta badakigu ere bertsolari bat ikusteak berarekin batean euskeraz aditzea dakarrela.

Hau bakarrik izaten bada ere euskera maite dugunei nahikoa zaigu Bertsolaritza iraun, indartu, zabaldu, goraldtu eta gaurkotutzeko ahaleginak egin ditzagun.

Arrazoi duzu esatean bertsolarieek elkarren arteko laguntzeko Elkarte bat behar dutela baño... Zu bertsolaria izan arren, eta amar urtez Elkarte honen alde ainbeste lan eginez "gutxi, edo ezer gutxi egitea lortu" zuk diozun bezelako horrek nahi dit esan ez zuk ezta nik ere zerbait egingo dugunik.

Gañera ni ez naiz gauza afer hauek guziak aurrera eramane eta lortzeko. Nere eguneko lanak, fameliak, "Euskal Principe de Viana" aldizkariak "Diario de Navarra"ren amabostean behin agertzen den euskal orriak... eta... nere denbora kentzen didate beste gauza maiteei arpegia emateko.

Uste dut, nere iritzi apal eta umilean, bertsolariak lagundu ta batutzeko, bertsolari berriak sortzeko, bertsolaritza bere gaurko eguneko molde, joera, kultura moda eta nahiei jarraitzeko gure Euskaltzaindiak, Bertsolaritzaren alde egiten duen guzia harturik ere (bertsolarien Txapelketak, eta bertso-paperen Sariketak), Bertsolarien Elkarte hori asmatzen, eratzen eta sortzen lagundu behar lukela. Oraindik gehiago Euskaltzaindiak ber-berak bere barruan Bertsolarien Elkarte Sortu izan beharko luke.

Euskaltzaindiak bere nortasun eta ahalmenarekin, bere jakintasuna ta berezko eginkizunarekin, bere agintaritza ta nagusigorekin, Euskal Herri guziko Bertsolarien Elkarte sortueraziko lezake.

Elkarte horrek "Narbarte" ren izengoitia eramane lezakela esaten didazu. Neretzako oso atsegingarri izango litzaidake.

Baño Narbarte ainbeste bertsolari izandakoen artean bat besterik ez da eta lehengo bertsolari zaharren oroimenak ere nik uste besteek ere aurrean izango dituztenik.

Dena dela, zurekin nago eta Euskaltzaindiak, nere iritzi, lehengo eta azken hitza eman behar ditu.

Besterik ezean, eta beste esatekorik ez izanik, Agur bero bat bialtzen dizut, eta agindu zuk ere nahi duzun eran zure lagun berri honi.

Diez de Ulzurrun

Principe de Viana, 1971, uztaila-abuztua, 3. orr.



EMILIO ESPARTZA zanaren oroitzapenez

Urrilaren emeretzigarrenean Iruñean Jose Emilio Espartza jauna il zitzaigun minbizi batek jota berrogeitamar urte zituelarik. Euskaldun guziok dakigun aspaldiko berri garratza izaten bada ere nik hemen, ainbeste maitatzen zuen euskal "Principe de Viana" aldizkari hontan, ezdut biotzeko pilpiraz betetako lerro batzuek azaldu gabea utzi nahi.

Joshe Emilio Espartza zana errotik euskalduna izan zen. Lesakako herrian sortua Iruñean bizitzen zan Nafarroako "Información y Turismo" delakoaren sekretarioa ogeitazazpi urtez izanik.

Adiskide on honek gogotik zaukan euskera, biotzaren erditik maite zuen Euskal Herria, bere ezur guzietako muinetatik sentitzen zituen gure Herriari dagozkien gauza guziak. Egitan Nafarroak, Euskal Herriak, seme zintzo, zinezko, jator bat galdu dute, eta nik nere lagun guzietatik lagunenetakoa.

Bego pakean Goian betiko Jose Emilio Espartza adiskide maitea.

Pedro Diez de Ulzurrun

Principe de Viana, 1970, azaroa-abendua, 3. orr.

## EUSKAL IZENDEGIA

Euskaltzaindiaren aginduz gure aldizkari hontako idazle bikain eta prestu den Joshe Mari Satrustegi apez jaunak "EUSKAL IZENDEGIA" izeneko euskal izen-zerrenda eder eta luzea eratu eta argitara eman berri du.

"Euskal Izendegia" delako hau ongi eginikako eta irudi ederrez ornitutako liburutxo batean dago. Iruñeko "La Vasconia" diru-etxeak "Izendegi" honen argiratzearen diru-kontuak eta zabalkundea bere gain artu ditu. Bera izan da argitaratu duena. Gainera berrogei eta hamar mila ale atara ditu (50.000), Euskaltzaindiari dirurik batezere kostatzen ez delarik.

Euskaldunok bi "Izendegia" ba genituen gure eskuetan biak txikiak erdi osoak edo erdi eginak zirenak.

Lehenbizikoa "Arana-Elizalde"-ren "Ixendegia" deritzana da eta 1897 garrean agertua. Bestea Euskaltzaindiak izendutako komisione batek egindakoa eta 1966 garrean azaldua. "Arana-Elizalde"-renari bere egunean arrera izugarria egin zioten euskalduneez. "Ixendegi" hontan euskal izenak guziak euskeratuak dira hau da beste hizkuntzetatik artuak eta euskerara itzuliak. Izen politak, aditze onekoak dira: hala nola *Garbiñe, Nekane, Gotzone, Jaione, Bakarne, Iosune, Miren*, eta, eta emakume izen artean: eta *Ioseba, Imanol, Koldo, Aingeru, Patxi, Txomin, Mikel*, eta, eta gizon izen artean.

1966ko Izendegian, "Arana-Elizalde"-renean agertzen diranetaz gainera beste asko jatorrasunez beterikako euskal izenak Nafarroako paper zaharretan bilatuak, eta beste batzuek aspalditik euskaldunen artean txit ezagunak eta erabiliak agertzen dira; Hala nola: *Asier, Oier, Xemein, Eztebe, Eneko*, eta, eta. Hauetaz gainera Euskal Herri guziko Ama Birgin aunitzen izenak daude bilduak.

"EUSKAL IZENDEGIA" berri hau, haundi eta nagusia da, osoa, alde guzietatik bilatutako euskal izenak dituena.

Lendabiziko bidea, euskal izenen aldekoa, Sabino Arana zenak iriki ba zuen, 1966-garrean, bigarrena, bestea baiño haundiagoa Euskaltzaindiaren Batzorde batek -Aingeru Irigaray sendagile jauna Buru zelarik- zabaldu zuen. Oraingo eguneko Satrustegi jaunak prestatu duena euskal izenen bide berri, zabala, eta zuzena bezelakoa da.

Zazpiehun euskal izen inguruan daude bilduak denek liburutxo polit eta txukun batean ezarriak.

Azala eta orrietan dauden irudiak Iruñeko "Artzai" jaunak egin ditu. Euskal jatorrik betetako irudi hauek txit ikusgarriak dira.

Orain euskalduneez badakite nora jua, nun iakin, eta nundik bilatu eta bereixtu bere euskal izen kutunak.

Euskaltzaindiak urrats haundia eman du Satrustegiren bitartez eta "La Vasconia" diru Etxeak ukazineko tanto ederra irabazi du bere alde. Goresmenak denoiri.

P. Diez de Ulzurrun

Principe de Viana, 1972, azaroa-abendua, 8. orr.

## JOSE ARTETXE IDALARIA IL DA

Jose Artetxe Gipuzkoako idazlari ospetsua bere Donostiko etxeko lan-aretoan ioan berri den Irailaren 21 garrenean il zen irutan ogei ta bost urte zituelarik.

Bere alabetatik batek biotzeko min batek jota bere lan-mahian eroria aurkitu zuen.

Artetxe zana Azpeitiko herrian sortua zan. Aparteko idazlaria, erderaz bereziki liburu aunitz idatziak zauzkan. Erdal liburuaz gainera agerkari eta egunerokotan erdalartikuloak ausarki idatzi zituen. Euskeraren aldetik ere jo zuen eta azken urte hauetan "Zeruko Argia"-n, "Arantzazu"-n eta berriki Gipuzkoako "Astelehenan Orria"-n ere euskeraz idazten zuen.

Bere erdal liburuetan aipagarrienak dira: "Loiolako Inazio Saindua", "Elkano", "Urdaneta", "Legazpi", "Xabierreko Frantzisko Saindua", "Nere Gipuzkoa", "Saint Cyran", "Lavigerie", eta "El Abrazo de los muertos". Azken hau orain urtebete inguru besterik ez du argitaratu zuela.

Oso interesgarria, bere liburu guziak bezala, da. Gaia: Españaiko azken gerrari buruzkoa.

Artetxe zanak bere Gipuzkoa asko maitatzen zuen, baita ere gure Nafarroa eta gure Euskal Herri osoa ere. Errotik euskalduna zan eta bere denborako gizona izan bazan ere, gaur eguneko gazten problemak, kezak, asmo eta griñak konprenitzegatik ahaleginak egin zituen beti.

Goian bego.

Pedro Diez de Ulzurrun

Principe de Viana, 1971, urria, 4. orr.

**Autor: Andrés Méndez García (Inspector de Enseñanza Primaria).**

**Versión al vascuence: Dr. D. Angel Irigaray (Académico de la Lengua Vasca) con la cooperación de P. Berrondo, S. Garmendia y J.A. Irigaray.**

**Ediciones: ANAYA, de Primera Enseñanza.**

El título original de este libro dedicado a la enseñanza es el siguiente: "El mundo de las Palabras" y su autor, como queda dicho más arriba, el Inspector de Primera Enseñanza don Andrés Méndez García. La novedad de su contenido radica en la forma de enseñanza del Idioma castellano pensando en la edad de los alumnos a los que se dedica y que el autor conoce perfectamente.

Como el prólogo dice y aclara bien, en este libro se enseña a hablar sin la pesadez del aprendizaje de memoria de las reglas gramaticales que en estas primeras edades escolares son carga, confusión y fatiga intelectual para el niño, dejando la gramática como una asignatura para edades posteriores. Si se inicia desde los primeros cursos de la Enseñanza Primaria con lecciones de la Gramática aparte de ser ininteligibles para estos niños, se les presenta el idioma (de las gracias más hermosas del hombre) como objeto de estudio desagradable e incluso odioso.

Teniendo en cuenta lo dicho, el autor quiere ayudar al niño presentándole unos ejercicios prácticos del idioma a la altura de su nivel intelectual, continuando por el mismo camino y sentido a medida que el niño va desarrollando su inteligencia por medio de frases, palabras, lecturas sencillas, acompañadas de representaciones gráficas que agudizan su capacidad de observación y cultivan la memoria sin apenas trabajo, no habiendo necesidad del aprendizaje de reglas memorísticas sino que por medio de la conversación o la lectura colocan cada palabra en el lugar conveniente de forma correcta y bella.

En las páginas de este libro en vez de temas de estudio confusos y áridos se enseñan frases y ejercicios para hablar correctamente, pero como una diversión, un juego, enseñando desde el principio al niño a leerlos a pensar por sí mismo.

La importancia de este método acreditado en otros idiomas se verá inmediatamente con su 1ª edición de este año de 1969 en Salamanca.

Nuestro autor Sr. Méndez García descendiendo a la forma de pensar y psicología del niño piensa, y con razón, que de esta forma los niños tendrán recuerdo alegre y agradable para toda su vida de los primeros años de sus estudios escolares, al paso que les brinda un útil, ameno y práctico sistema de enseñanza de un idioma.

La Academia de la Lengua Vasca en su campaña de alfabetización en euskera de los niños vascófonos en edad escolar confió al Doctor don Angel Irigaray, ilustre médico navarro y colaborador de "Diario de Navarra", la versión al euskera de este magnífico y práctico método pedagógico de idiomas, y lo ha realizado a la perfección llevando el peso de la obra y redacción con la cooperación de su hijo, el Doctor José Angel Irigaray, y señores Berrondo y Garmendia.

Queremos aclarar que el seudónimo en el campo de las letras vascas del Dr. Irigaray es el de A. Apat Echebarne y así figura en dicho método euskerificado.

En esta traducción al vascuence se ha intentado por primera vez la aproximación dialectal vasca o unificación literaria que actualmente la Academia de la Lengua Vasca recomienda con gran interés y lógica.

Tiene como base, en este intento de unificación del euskera, naturalmente, pero la forma que utilizaban los autores guipuzcoanos antiguos, como Aguirre de Asteasu, Gregorio

Arrue y el Padre Mendiburu (de Oyarzun, uno de los predicadores en vascuence más conocido en toda la Navarra euskalduna del siglo XVIII) que tendieron a la unificación literaria mucho más que algunos escritores modernos. Contiene el método aportación de las formas navarro-labortanas sobre todo en formas verbales y léxico a imitación de los autores guipuzcoanos más modernos como Bedoña, Jaca, Cortajarena, Lizardi y "Orixe" que ya marcaron esa tendencia. Por todo esto es muy utilizable en las clases de las distintas partes de la Navarra vascoparlante, y en las escuelas bilingües de las distintas parte de Navarra.

Una aclaración importante hay que hacer constar, y es que no se trata de una traducción literal del Método de Méndez García, sino de una versión libre de las ideas y lecciones del autor original citado, adornadas con ejemplos del vascuence popular, leyendas, juegos, canciones, etc.

Esta utilización escrita no será obstáculo al habla peculiar de cada niño que seguirá utilizándolo de igual forma que el niño sevillano sigue con los modismos andaluces que no los lee en los libros de texto.

Vemos que para su mayor difusión se ha tenido en cuenta y cuidado de eliminar los **fonestismos**, es decir, las contracciones de las palabras y deformaciones del vascófono, escribiéndose los vocablos enteramente. (Ejemplo: **Etxea** por Etxia, **Egin ditut** por in tut, **Aditu** por aitu, etc.).

Para terminar: los profesores saben muy bien que los niños más actúan, muchos más, por lo que ven que por lo que se les dice. Bien lo dice el refrán vasco: AURRAK IKUSI, HURA IKASI (lo que el niño ve aquello lo aprende).

Recomendamos con interés a los Directores de las Escuelas bilingües de Navarra, y a las profesoras (andereños) de nuestras ikastolas la utilización de este gran método moderno de enseñanza práctica y correcta del idioma vasco...

Al traductor y redactor, doctor don Angel Irigaray, nuestra enhorabuena por su magnífico trabajo, extensivo a sus colaboradores.

Pedro Diez de Ulzurrun

Principe de Viana, 1970, martxoa, 2. orr.

## BAZTAN

### Eguberriak

Aurtengo Gabon eguneko ilunabarrean Elizondo'ko karriketari bozkarioa nabari zen, bozkario sanoa euskal kutsua berakin zaukela. Aurten beñere ez bezala "Olentzero" festa izan dugu Elizondo'n, herriko gazte multxo bat euskal-abestiak kantatuaz, txistulariak aintzinean eta "Olentzero" soñean zeramatela, karrikaz karrika ibiliak dira Elizondo'ko herria bozkarioz bete dutela. Denbora berean Miserikordiaren alde ere eskea egin zuten, neskatxa gazteak atez ate sosa biltzen zabiltzela. Yendeak ongi eman zuten eta Miserikordiak laguntza ederra izan du.

Gure herriko gazte erdaldunduen bihotzetan euskal-giroa sortzea lan ederra da, euskal-kantak erakustea eta oitura eder hoiek piztu eraztea bai lan goresgarria. Zorionak gazte guzietan eta gure goresmen bizienak irakasleari.

"Baztandarren Biltzarra" deitutako batasunak antolaturik ospatu da Elizondo'n "Semana de la Juventud" deritzaion kultura festa. Egin dituzte itzaldiak, Gabon kantuetako Sariketa, Meza moda berriko orkestarekin eta azkenean festa bururatzeko, afaria eta dantza Kasinoan.

Gabon abestietako leiyaketak errekiste aundia izan zuten, kantari-talde aunitz aritu ziren eta denak ongi ari izanak dira. Lendabizko saria Iruritarrek irabazi zuten eta hoien ondotik, Arrayotz, Elizondo eta Arizkun. Aurren arteko sariketa Elizondo'ko neskatikoek erdietsi zuten. Sariketatik kanpo Elizondo'ko korala ere aritu zen eta hauen kantaldia beti bezala, ongi apaindua eta denen gogokoa.

Itzaldietaz eta erakutsi zuten "filma" eta bai Meza ere zerbait erran dezagun: Zenbait itzaldi akats batzuk izan omen dituzte; itzaldi guzietan erdaraz eta gañera erdal-giroa berekin zauketela, ez ordea gure eskualdeko gazteriarik dagokion gaia. Hoenkin ez dut erran nai itzaldi guzietan eskuaraz behar zutela, bañan bai bat bederen, baztandar herrietan ez al da ba euskaldunik? Eta nafartarrak baldin bagera zein dan Nafarroa'ko egiazko mintzaira?

Meza ere arras erdalduna eta ez egokia hemengo. "Filma" ri buruz eginekako elkar-izketak sortu zuten eztabaida, eta arrazoin zuenari ixilazi eta agintaria garai.

Akatsak dituzten gauzak ez dute laudorioak merexi.

Entzule

Principe de Viana, 1970, otsaila, 5. orr.

## BAZTAN

### Ikastaroa

Kursoa bukatu da eta ikasle eta irakasleek atsedean garaia ardietsi dute. Euskeraren ikastaroak ere izan dute beren lekua hemen Baztanen eta Elizondoko eskoletan aurren artean emanikako euskerazko ikastaldiak uste dugu onuragarriak izandu direla. Ogeitabi muttiko eta ogeitabederatzi neskattiko euskera ikasten, hoiere artean zenbaitzuk euskaldun garbiak, bertze pizka batzuk erdi-euskaldun eta bertze gainerako gehienak deus ere etzakitenak. Denak zerbait ikasi dute eta badut uste irakasleen lanak eta ereintzak ez direla alperrikakoak izan.

"Escuela Laboral" deitutako eskolan aurren izan dituzte euskera-ikasketak, baina egia erran aurtengoak ez dute igazkoak bezalako arrakastarik izan; iende gutxiago aurren eta ikastaldiak ere probetxu gutxiak. Zaletasunik ezpadago ez da deus egitekorik eta zertako balio dute itzak eta alfersolasak gero eginkizunetan deus agertzen ez bada?

Lamierriteko eskolan ere bada zerbait arrankura eta aurren ez omen dira gauzak ain ongi joan. Badirudi zenbaitzuk deskontent daudela, eta arrazoina ere berekin daukatela.

Datorren kursoan guzien gaineratik Lamierritera bi andereño baztandar euskaldun ekarri beharra dira, irakasle erdaldunak alde batea utzirik. Negargarria da.

Lamierriteko eskolako aurre euskaldunei erakusteko, irakasle erdaldunak ekartzea eta gainera hauek ezpaitute ongi erakusten ahal, aurrekin elkar ezin ulertuz, iragaitzen baitzaiete kurso guzia deus probetxurik gabe. Datorren kursoarako gauzak ongi zuzendu daitezke bi andereño baztandar euskaldun ekarri ezgeroz.

Datorren kursoatik asita izango dugu Elizondon Ikastola bat. Ikastola hau 3-6 urteko parbuluentzat irekitzen da eta NAFARROAKO DIPUTAZIOKO "INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA"ren babesean dago. Berri horrek asko poztu gaitu eta gehiago oraindik iakin dugularik Ikastolako andereñoa baztandarra dela. Orain gurasoen zaletasuna ager dadiela beren laguntza osoa emanaz. Gauzak bide onetik goan daitezila, hori desiratzen baitdugu biotzaren erditik.

Igaz bezala aurren ere badugu Baztanen aurrenarteko IDATZ-SARIKETA. Sorginkontu, ele xahar, eta historioak dituzte egin beharrak eta ziur nago aurtengo leiaketa honek igazkoa bezenbat errekkiste izanen duela, aurrak ikasten ari dira eta badut uste aurren lan politagoak agertuko dituztela.

Aurre hoierean dugu Nafarroako idazleen etorkizuna eta itxaropena.

IDATZ-SARIKETA hau "INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA" antolatzen du eta Baztango Balleko Etxearen laguntza dauka.

Principe de Viana, 1970, uztaila-abuztua, 5. orr.



## ESKOLAK

Urriko ilabetea ikastaroaren garaia. Ikastolak eta Ikastetxeak ikaslez beteta. Gizadia aurrera doa eta oraiko biziak kultura eskatzen du eta zenbatenez ta geiago ta obe, gaurko egunean kulturik gabe deus ezpaita. Eta gure euskal-kultura zertan dago? Zer egiten dugu euskal-kulturaren alde? Euskalerrian barna eta batez ere Gipuzkoa aldean badira ikastolak, aurrentzat eta bai aundiagokoentzat eta badira ere euskal irakasleak alfabetatze lanean gogor ari direnak. Orrela yokatzen direnak badute euskal-kontzientzia, badute zaletasuna.

Eta gure eskualdean bai al da olakorik? Zer edo zer ageri da, badakigu Olazagutia'n, Iruñe'n, Tafalla'n, Altsasu'n badirela ikastolak, badakigu ere Elizondo eta Irurite'ko eskoletan egunero ordu erdi batekin eskuarazko erakustaldiak ematen dituztela. Eztakit ikastaldi oiek probetxu aundikoak izango ote diren, deusere eztakitenendako oso zaila baita ikaslea, ortarako aunitz mintzatu bear baita eta bai zaletasun aundia ere, au gabe ezpaita deusere egiten ahal. Bañan ari izanez ikasten baita irakasleen lanak zitu onak eman dezazkete.

Lamierrite'ko eskolan, yaz bezala aurten ere ari dire, bañan erraten dutenez aurten gauzak aldaketa aundia izan omen dute. Igaz bi maestrak euskaldunak ziren eta erakustaldiak zuzentasun osoarekin egin omen zituzten aur euskaldunei ikaskai guziak ongi adieraziaz eta lan ederra eginik. Aurten erakusketa oiek aldakuntza aundia egin omen dute, orai ekarri dituzten bi maestra berriak ezpaitakite eskuaraz eta or omen dabilta aunitz aldiz aur euskaldun oiekin elkar ezin konprendituz. Negargarria da gertatzen dena, alde batetik euskeraz ez dakitenei gure mintzaira erakusten eta bertze aldetik aur oiek bear dutela erdara ikasi. Bai ori egia da bañan aunitzez obekiago erakusten al dabe erakustale euskaldun batek erdaldun batek baño, eta gañera eskuarari kalterik egin gabe. Guk eztugu neskatxa oientzat deus erratekorik oiek ezpaitute errurik.

Baztan'go erri batean ere gauza berdintsua gertatu da. Igaz umetxoen eskolan maestra euskalduna zuten eta gauzak ongi gan omen ziren, bañan aurten maestra ori Erriberara igorri omen dute eta orren orde z bertze maestra erdalduna ekarri. Nork egiten ditu olako bidegabekariak? Zenbaitzuk orreri ez diote inportantzi aundirik emanen, gure eskualdean aunitz eta aunitz baitira gure eskuara ez dutela bi sos baño geiago estimetzen. Bañan zer ari gara geren buruari arrika? Gauza oiek guziak ongi zuzendu zaizken bear den bezalako euskaldunak izan baginezke.

Entzule

Principe de Viana, 1970, urtarrila 5. orr.

## EUSKALTZAINDIAREN BILTZARRA

Buruilaren 21'ean Donostia'ko Diputazioan Euskaltzaindia bildu zaigu, bere Urrezko Eztaien oroitza ospatuaz.

Lenbizi Euskaltzain eta laguntzaleak beren ixilleko bilgura zuten. Gero agiriko Biltzarra egin zen, yende guziarentzat.

Mai-buruan zauden, Lekuona yauna Euskaltzain Buruzagia, Aita Intza Yaun Agurgarria, San Martin idazkaria eta Ezkiaga diruzaina. Euskaltzainek ilabeteko lanen berriak eman dituzte. San Martin'ek esku artean zauzken idazki ta kontu batzuen berri eman zigun. Alfabetatze lana Kintana ta Begoña Arregi'ren gain gelditzen zela. Satrustegi apez yaun euskaltzainak ere eskutitzez yakin-arazi digu, delako Symposium Nafarroa'n egitekoa, ontzat emana izan dela. Gero bertze gauz aunitzetaz ere mintzatu ziren. Azkenik Eusebio Erkiaga diruzainak Euskaltzaindiaren diruketa kontua nola zijoan azaldu zuen.

Euskaltzaindiaren bilgura egin ondorean, Agiriko Biltzarra egin zen. Probintziko eta hiriko buruzagiak hor ziren eta bai aunitz euskaltzale ere.

Diputazioko Buruzagi den Araluze yaunak eman dio asiera billerari Euskaltzaindiko lagunei bere ongi-etorria adieraziaz eta beren euskera aldeko lanengatik eskerrak emanaz. Manuel Lekuona apez yaun eta Euskaltzaindiko Buru denak erantzuten dio Araluze yaunari bere itz eta arrera gozoagatik esker ona erakutsiaz.

San Martin idazkariak Euskaltzaindiak orai berrogei ta amar urte egin zuen Billeraren Agiria irakurri zuen. Han ziren aurrengo euskaltzainen izenak:

Resurekzion Maria Azkue, Arturo Kanpion, Luis Eleizalde, Julio Urkixo, yaunak. Gero izendatuak ziren Karmelo Etxegaray, Txomin Agirre eta bertze batzuek.

Gero lau itzaldi eder eta mamitsu entzun izan dria, izlari bakotxak Euskaltzain zar bat aipatuaz.

Luis Mitxelena'k aipatu du:	Luis Eleizalde	(1873 - 1923)
Anizeto Zugasti'k:	Ramon Itzagaray	(1878 - 1947)
Luis Billasantek:	Sebero Altube	(1877 - 1963)
Jose Artetxe'k:	Karmelo Etxegaray	(1865 - 1925)

Bazen zer ikas itzaldi bikain hoietan, agian nunbait agertuko al dira eskuarazko lan argitsu hoiek guziak.

Entzule

Principe de Viana, 1969, urria, 1. orr.

## NEKAZARIAK

Bertze lekuetan bezala Baztan aldean ere baserriak ustutzen ari zaizkigu. Zenbaitzuk taxutzen dute joandaneke ogei urte hokentan 80 tik goiti izanen direla ustuak eta bertze zenbaitzuk diote 100 etik pasa izango direla. Gaitz hau barreyatzen ari da eta eztakigu hemendik amar urtetara zer ikusi behar ote dugun. Gehienak maixterrak dira eta hoetarik gehientsuenak baserri ttipiak eta probetxu gutikoak, hortako dine bai omen dire hoiere artean aski onak. Bazterrak ez dira ez arras galduak, bertze baserriarrek beren gain hartuak bait-dituzte. Halare zenbait lekutan lenago beiai ta landa ederrak zirenak, orai sasiz estaliak dagozi. Eta gure eskualdean zenbat yende gutiago, batzuek herrira yautsi direla eta bertzeek Frantziara, Ameriketara eta hiri aundietara lanaren billa eta bizi-bide hobegoko baten billa. Zer zorigaitza gure eskualdea ari da ustutzen.

Baserriak ustutzen eta mendiak zikintzen. Lenagoko aldian iretze gutiago mozten da eta denbora batez ire-zelai ederrak zirenak orai denak ote ta sasiz beteak ikusten ditugu. Hori dela bide basurdeak nausitzen hasi zaizkigu eta erraten dutenez urte hauetan asko ugaritu omen dira. Eiztariak hortxe dabilta basurdeen gibeletik eta aurtengo negu hontan bai omen dituzte bat baño gehiago botaiak. Erraten dute basurdea aunitz ugaritzen balin bada, gure mendietara otsoa ere etorriko dela, pizti hunek basurde-kumea asko maite bait-du eta janari horren atzetik ibiltzen baita. Beti ere eztugu pizti tzar horren beharrik.

Nekazariak ere baditu bere kezkek eta arrazoñarekin, joan den udazkenean idortekak belaiak erre zituen eta hortaz soro guti bildu omen zen eta orai neguaren biotzean eta sabaiak ustutsek bada bazkaren eskaxia, gero azienda bazkatzeko pentsuek erosi behar eta hok ere garesti, gauzak ez doazi yendeak nai bezala. "Siloak" edo belar-karobiak dituztenak hoiere hobekixago daude, badute siloko bazka berdea, sabaiko belar idorra eta bertzeek bezala arbia ere. Belar-karobiak dituztenak hoiere hobekixago daude, badute siloko bazka berdea, sabaiko belar idorra eta bertzeek bezala arbia ere. Belar-karobi edo "silo" hoiere abantailak, orai Baztan-Bidasoko eskualdean bai omen dira 120 belar-karobi 9000 metro kubiko belar gordetzen dituztenak, eta badugu uste aurren ere andana bat gehiago eginen dituztela.

Baztan aldean beti izan dira artalde onak eta emengo bildotsak fama aundia dute, onak eta goxoak yateko. Artaldeak tipituz doazi eta ezta arritzekoa, alde batetik emndiak zikintzen eta esten adir direla, bertzetik artzain gutiago eta mendietan bizi direnak ere gutiago direla, beti ere arrankure franko bazterretan. Erraten dute Baztanen badirela 35000 ardi eta 25000 Malderrekan; badira bai oraindik baina hara Erratzun zer gertatzen den. Orai dela 10 urte herri hontan bai omen ziren 15000 ardi eta orai 7000 bertzerik ez dire. Gañerako herrietan ere gauzak gisa hortan doazi.

Baztango aratxearen fama bazter guzietara barreyatua dago eta hemengo txekorrak badute arrakasta. Igaro den urte hortan Baztandik atera omen dira 2000 aratxe denen artean 400.000 kilo eman dituztela.

Zerrikumeak ere izen aundikoak dire eta paperak diotenez Baztan-Bidasoko eskualdetik astero aste 1000 zerrikume ateratzen omen dire. Bainan zoritxarrez prezioak edo sal-neurriak arras bajo daude, eta orai illabete batzuk zerrikume bakarra 1250 pezta pagatzen zituztenak, orai 600-700 pezta besterik ez dute ordaintzen. Nekazalgoak irautekotan laguntza geiago behar luke.

Beti ere arrankura bazterretan, yendea kexu eta gazteek aisetasunak eta bizi ona maite, lan bortitzak alde batera utzirik. Bizi beharrak nekeak eta naigabeak dakarzki eta bizitzekotan lana egin behar eta lanak "purdi-beltz".

Entzule

Principe de Viana, 1971, otsaila, 5. orr.

## PATXI ARRARAS JAUNAREN ITZALDIA

Arraras jauna, "Patxi Arraras" esaten dugunez, oso gizon ezaguna da euskal dantza ta euskal "folklore" alorretan.

Dudarik gabe, gai ortaz jakintsu andia dugu; ongi egin du, orduan, napar Diputazioak PRINCIPE DE VIANA izeneko Elkargo-ra Arraras jauna izendatzean.

Donostian eman zuen mintzaldiaren ondotik, txalo asko jaso ditu gure lankide on orrek; aien artean, Patxi, artzazu gurea!

Joan den Martxo'ren 15'an Donosti'ko Erriko-Etxean Batzar Gela Nagusian, itzaldi atsegingarri bat egin zuen Patxi Arraras Jauna'k. "Baztan'go "folklorea" izan zen bere gaia.

"Goizaldi" taldeak antolatua izan zen bere 25'garren urteburuan.

Donosti'ko Alkate Jauna, Gipuzkoar Diputazio'ko Lendakari-orde Jauna, Baztan'go Alkate Jauna, "Goizaldi" taldeko Lendakari eta bere Batzarreko lankideak maiburu ziran. Mintzalariak, lenengoz Baztan'go lurraldea auzpertz eta goratu zuen, bere euskaltasuna eta Naparroan beste arankiko bereixtasuna ikus-araziaz.

Baztan'go dantza mota guztiak Patxi Arraras'ek adierazi zituen eta une berean Arizkun'go txistulari ta dantzariak urratsez-urrats erakusketa ematen ziguten.

Erriko-etxeko Gela Nagusia betetzen zuen gendetzak; arreta aundiz entzun zuen, Patxi Arraras'ek Baztan'go erri-jakintzaz atera zuena.

Ango ikas naia ta an ikusten ziran magnetofon tresnak itzaldi ta soñu zoragarri aiek leialki jasotzeko! Patxi Arraras'en itzaldiak oso arrera ona zuen; azkenean ben-benetan txalotua.

Gizon ospetsu oneri gure zorionak eta "Goizaldi" talde antolatzalleari ere bai.

Entzule

Principe de Viana, 1973, martxoa, 6. orr.

## SAKANA

Huarte-Arakil

Aralar'erako bide-berria

Mikel Aingeruaren eguna zela-ta, bide-berri bat idiki dute ugartearrek bere Aralar Mendiko egalpetan. Laguntza ederra ekarriko du bide onek oyanetako lanetan, arbola moztu ta ateratzekoan.

Orai berrogei ta amar urte asi zirela ugartearrak asmo orrekin; baiña, alde batetik diru falta, beste aldetik bear zituzten laguntzak, gaur egun arte bide-gale ziren.

Zorionez eldu zaie egoera ohea, eta ala bete dute beren amets zaarra: San Migel'erako bide-berria.

Arruazu

VII'gn. Ezkila Txapelketa

Antonio Senar, Lizarraga'koak, irabazi zuen aurtengo "Ezkila Jolarien Txapelketa", Iraila'k 20'ean Arbazu'ko ezkil-dorrean izan zena, zortzi jolari zirelarik.

Jende multzoa bildu zen erriko plazan, eta ixilik segitzen zituen jokalarien pauso guztiak; Martin Martirena uziarrak irugarren lekua bereganatu zuenean, orduan bakarrik asi zen jendea txaloka.

Asieran, Tomas Ganboa, Arbazu'koak, eman zion; joan den urtean, bera gelditu zen garaitzaile, eta azken urteotan, zazpi Txapelketatik lau irabaziak ditu. Epaimaiak orrela erabaki zuen:

1. Antonio Senar
2. Tomas Ganboa
3. Martin Martirena

Geroago, dantzaldi ederra erriko plazan. Zorionak parte artu zutenei Ezkila Jolarien Txapelketan.

Entzule

Principe de Viana, 1981, iraila, 14. orr.

## BASABURUA

### Basaburu'ko eguna

Basaburu Andia dugu Nafarroa'ko aranetatik ederrenetako bat, mendi ta basoz ornitutakoa.

Orain lau urte gazteek eratutako "Herri bat, Hizkuntz bat" festari jarraipena eman diote; itxaropenez betea, orain orlegiz jantzitako aranaren gisakoa.

Illabete batez eratu zituzten zenbait kultur ekintza. Bukaera, berriz, festa onekin eman zitzaion:

Igoa'n aizkora-apustu berexia. Erdozia, esku batez bi onbor autsi zituen; biak, 54'koak; gero, beste zortzi, auek ere 54'koak, baiñan etzanik.

Gero, pilota-partiduak.

Iruetan, bazkaria Gartzaron'go frontoian; bitartean, Zaldibia'ko trikititxalariak ari ziren arana, Eguna ta euskara goralduz. Arratsaldean, bertsolariak eta dantzak.

Ala bukatu zen "Basaburu'ko Eguna", baiña anaitasun jaialdi orrek merezi du jarraipena, batez ere, kultur ekintzetan. Bear ba'da bertze lekutan baiño geiago egiten den; or daude Eskolako aurtxoek bidali dizkiguten idazti politak aldizkari ontan agertzeko,e ta urrengoan agertuko dira.

S. Erbiti

Principe de Viana, 1983, ekaina, 13. orr.

## BAZTANDAR M. IZETA JAUNAREKIN

Bere "**nigarrez sortu nintzan**" liburu berria argitara emanez gero

Noiznai bazen garaia, Mariano Izeta gure baztandar idazle onaz zerbait erraiteko. Zerbait baiño geiago erran digu Mariano'k gure Aldizkari ontan zintzo-zintzo illero idazten, "PRINCIPE DE VIANA" agertu zenetik.

Elizondo'n sortua da, 1915'gn. urtean Izeta Yauna; bet euskaltzale, ez du berak sekulan aurpegia altxatu, ez eta denbora okerrenetan ere. Baiña, iñork ez daki, lengo ala oraingo denboretan, zein den txarrenik...

Euskal aldizkari geienek laguntzaille leiatsua izan dute Mariano; aipa ditzagun "Zeruko Argia", Baiona'ko "Herria", "Arantzazu", Diario de Navarra'k ateratzen zuen "Nafar Izkuntzaren Orria" ta "PRINCIPE DE VIANA" onen ale guzietan.

Baita Euskaltzaindia'k ere izendatu zuen bere laguntzailleen artean.

Eguneroko ogia irabazteko, lotua dugu egunero M. Izeta Elizondo'ko ordulari lantegi ta dendan, gaiñerako denbora guzia euskal kulturari ematen: Baztan'go dantzak gazteei erakusten, bertsolariak biltzen eta, batez ere, euskaraz idazten.

Gure gizona, 1962'an ausarta zen liburu bat argitara emateko; zorionez! Or dugu "**Dirua galgarri**", polizi-nobela ederra, Baztan'go giroan eta ango mintzairaz. Aingeru Irigaray Yaunak erran zuen:

**"Irakurleak ikusiko duen bezala, interes haundienarekin segitzen zaio asmakizunaren koropilloari. Eskuara ere herrikoa erabiltzen du eta erreza baztandar izkiratzaileak".**

Orain, bertze frutu berria ematen digu Izeta'ren euskaltzaletasunak: "**nigarrez sortu nintzan**" liburua. Liburua irakurtzean Baztan'go bizimodua ta nortasuna ditugu begien aurrean; or dabiltz, mugaldean, nekazari, artzai, kontrabandistak; or dabiltz lanean, elizan, tabernan, festetan; eta geienetan, Baztan'go mintzaira suabea, egilleak oroit-arazten digu guk ere bizitutako denbora.

Au dena Izeta'ri erraiteko ta zenbait berri geiago jakiteko, arekin mintzatu naiz.

-...?

-Ez da oraingo lana nere liburu au. Duela zortzi urte egona da zokoan. Joxe Anjel Irigaray egon zen nerekin eta nere lana ikusiz gero, argitaratzekoan pentsatu genuen, eta Gipuzkoa'ko Aurrezki Kutxa... An egon da lau urtez eta, noizbait, argitara eman dute. Iduri du arrakasta izan duela. Gaia, baztandar baten bizi tristea da; liburuaren izenburua, berriz, Basse-Nafarroa'ko kanta polit batetik artua dut: "**Nigarrez sortu nintzan, nigarrez iltzeko**". Badira liburuan gertatutako zenbait gauza ere.

-Nolakoa da, Mariano, Baztan'en, euskararen egoera?

-Badakizu ongi -ñardeste dit- ainbat diren, egun, gure euskara zaarrari kontra egiten dioten etsaiak.

-Baiña, zerbait egin bear!

-Bai, ori bai; beti euskararen alde egin bear dugu. Begira, orain berean, antolatu dut idatz-sariketa "**Escuela Profesional**" COU ta **EGB**'ko ikasle guzien tartean. Guztira, 283 idatz-lantxo bildu ditut, batez ere Lantegi Eskola'koak; baita alaxe, 87 lantxo **EGB**'koak ere.

Entzun dezagun Izeta yauna bere biotzeko asmoari jarraituz:

-Gauza ona litzake "**PRINCIPE DE VIANA**" asiko ba'litz baztandar gazteen idatz-lanak argitaratzen, aldi berean zenbait sari ematen, garrantzizkoa bait da politika gabeko Aldizkari ori etxe guzietan sartzea.



"Esker milla!" batekin bukatu nuen gure elkarrizketa. Bai; esker milla, Mariano, euskararen alde ainbertze lanengatik".

S. Erbiti

Principe de Viana, 1983, otsaila, 16 orr.

## BERAMENDI

Udabe-Beramendi Kontzeju ontako sailletan belardiak eratuko dituzte, ain zuzen ere erri-lurretan. Ortarako, 65 Hektarea lur gorrituko dituzte, bertako sastraka ta zugaixkak garbitu ondoren. Kareztatu, ongarritu ta azia ereitea datoz urrena.

Obeki zaintzeko asmotan, 10.500 metro luzeko esiaz inguratuko dituzte saillak, eta oietara 4.365 metroko bide berria egingo dute. Lan auek guztiak burutu aal izateko, 12.372.938 pezta bear dituzte. Dirutza au oso-osorik Diputazioak utziko du orain, baiña gero erriak ordaintzen joan bear du, urtean milloi bat oster a itzuliz. Oso mesedegarria da diru-aurreratze au, korriturik ez bait du eskatuko Diputazioak.

S. Erbiti

Principe de Viana, 1983, maiatza, 14. orr.

## LEKUONA'TAR M. JAUNARI OMENALDIAK

Don Manuel dugu euskal apez idazle jakintsua. Oiartzun'en jaioa eta bere bizi guztia Jainko eta euskal jakinduriaren alde eskeiña.

Don Manuel Gazteiz'ko Seminarioan txikitandik ikasia, "Euskaltzaindia"ren zuzendaria; "Kardaberaz" sortzailea, ikerlari... Jainkoak emandako grazia, zindo, landu eta zabaldu duena.

Bide au jarraitzeagatik ez zaizkio falta izan odol eta gerrateko zailtasun eta tristura ugari; baiñan, utzi dezagun barkamen eta aaztuan.

Eldu zaio ba omenezko ordua, eta Gipuzkoa'ko Diputazioak bere urrezko domiña eskeiñi zion orain gutxi, eta Eusko Ikaskuntzak, bere aldetik, beste omenaldia, soiñuz betea, Victoria Eugenia antzokian eta gero bazkaria "Hotel Maria Cristina" delakoan. Antxe eskertu zioten gure agintariek Don Manuel'i ainbeste eta ainbeste lan egiñak euskararen alde.

Aien artean aipatu dezazkegu bere "Euskal Literatura", eta batez ere "Aozko Literatura lanak", azter-metodo berria erabilliz; oroimenezkoa, pentsamendua zulatzaile eta sintetiztailea. Etnologjia, eta antropologjia lanak sendoenetakoak dira. Historia alorrean bere lan asko eta jakingarrietakoak dira. Euskarazko lan zientifikoak. Umeendako egindako liburuak; aien artean "Txuri-Gorri eta Kirriki", eta ainbeste olako politak. Ontaz gaiñera, Don Manuel'en idazlan guztiak bear dira argitaratu eta ezagutu, gure kultur oiñarri dira, bearrezkoak gure kultura oinarrizteko, nortasuna ezagutzeko eta ez aaztutzeko. Munduan zear zabaldu dezatela gure bereixtasuna, guk gure aldetik bultzatu dezagun gure ikasleak aietxek irakurtzera... maixu aundi baten lana bait dugu.

Milla esker denengatik, Don Manuel.

S. Erbiti

Principe de Viana, 1983, martxoa, 12. orr.

## BIDANGOTZAKO EKUTE ON BAT

Una buena costumbre de Bidangoz

(Erronkariko mintzaeraz)

Orai dra ein urte obroago Luziano Bonparte Prinzipea sin zen Erronkariko uskara ikastra. Bidangotzen erden ztion bi uskaldun agudo. Bata D. Prudenzio Hualde Mayo, iriko abade eta D. Mariano Mendigatxa. Prinzipearen mezua egitako Hualdek uskaraz eskribitu zion S. Mateoren Ebanjelioa.

Berroegi ta amar urte gero Bizkaiko gizon andienen bat, D. Resurrezion Maria de Azkue xin zen eta izagunto zion Mendigatxa jeinari, orduan zar baia uskararen altez lan egitako naiari. Ilabetian bein Bidangotzetik Bilbora karta bat erronkarriko uskaraz oilten zaun Mendigatxak Azkueri.

Karta kuetan anitx gaiza ikastan dra. Amairorgarnean Bidangotzeko ekute baten berri emoitan daikugu erranez: “Bihar Ama Berjina Kandelariazko eguna; bezperak erran, eta portikoan, iriko bezino guzuen izenak isartan dra bapana bere zeduletan, gero xuntatan tei sonbrero batean; onki errebolbi edo nastekatiarekin, deitan dei bi morroin; eta batak erkitan du zedula bat eta emoitan dau apezari; berze morroinak erkitan du berze zedula bat, eta emoitan dau alkateari; biak leitan dei, eta noren izenak erkitan baitdra, bear dei izan xunto; gisa kontan xuntatan da bezino guzua bira-bira; gero faitan dra guzuak askaltra etxe batra eta aigaltra berzeara, gero Santa Ageda egunea, baita konen borzgarnean xuntatan dra pareja berak egun guzuko xan eta edatra; beren artean etxe eslejitan deineara. Lein obliga arazten ztein xuntatra bi pezeta eta libra bat kandraren bakotxaren penan; orai ez dago penarik, xuntatan dra borontate dionak, baia orainore xuntatan dra obroak; anke ez obro ezin aparrio baten egitra; leineko zarrer entzuteaz digu, gaiza kaur, isaririk

zegola, ankartruk zaudenen bakean isartako; orai ere, erreparatruk dakagu, komunkixe erortan dra xunto, zomait badaude ankartruk edo enuxatruk, eta oboroek egiten tei bakeak, xuntagune kontan. Gaiza koni erraitan diegu urrutxkideak”.

Korrela bizi zren, 1904'gn urtean, Bidangotzeko bizikariak. Ekute on bat zen bakea isartako eizien artean eta bakezko urte berri bat ekuntako. Oraiko soziologoak txerkatan daude kan-kebenik pakea gordetako egin-bideak. Ene ustean gore irien antzineko ekuteak beiratu bear tei ketan anitx gaiza ikastan bitra. Kanpotik ekuteak eregu bino lein nola izan dran goreak ikasi bear diegu eta onak balidra berriz artu tzagun.

Hace más de cien años el Príncipe Luciano Bonaparte vino a estudiar el bascuence de Roncal. Encontró en Bidangoz a dos sabios uskaldunes. El uno don Prudencio Hualde Mayo, párroco del pueblo y el otro don Mariano Mendigacha. Para cumplir el encargo del Príncipe Hualde escribió el Evangelio de San Mateo en vasco roncalés.

Cincuenta años después, un gran vizcaíno, don Resurrección María de Azkue vino y conoció al señor Mendigacha, ya viejo pero deseoso de trabajar a favor del idioma vasco. Una vez al mes enviaba Mendigatxa una carta en vascuence desde Bidangoz a Azkue que vivía en Bilbao.

En estas cartas se aprenden muchas cosas. En la número trece nos da noticia de una costumbre de Bidangoz diciendo: “Mañana día de la Madre Virgen de la Candelaria; dichas las vísperas, en el

pórtico, todos los nombres de los vecinos del pueblo se ponen cada uno en un papel y luego se juntan en un sombrero; bien revueltos se llama a dos chicos y uno saca un papel y se le da al cura; el otro chico saca otro papel y se lo da al alcalde; se leen los dos; aquellos cuyos nombres han salido deben estar juntos; de esta forma se juntan todos los vecinos por parejas; después se van todos a comer a una casa y a cenar a la otra; después el día de Santa Águeda, que es cinco días después se van a todos a comer a una casa y a cenar a la otra; después, se juntan las mismas parejas a comer y beber todo el día; en la casa que ellos elijan. Antes se les obliga a juntarse bajo la multa de dos pesetas y una libra de cera a cada uno; ahora no hay multa, se juntan los que quieren, pero todavía se juntan la mayoría; aunque no sea sino a cenar; tenemos oído a los viejos de antes que esta costumbre se puso para poner en paz a los que estaban enfadados; ahora también observamos que algunos que caen juntos algunas veces están enfadados o enojados y los más hacen las paces en esta reunión”.

Así vivían en 1904 los habitantes de Bidangoz. Era una buena costumbre para poner paz entre los vecinos y tener un nuevo año de paz. Los sociólogos de ahora andan buscando por todas partes los medios para preservar la paz entre los hombres. A mi juicio se debe mirar a las antiguas costumbres de nuestros pueblos pues en ellas se aprenden muchas cosas. Antes que importar las costumbres foráneas debemos mirar cómo han sido las nuestras y si fueran buenas implantarlas.

José Estornés Lasa

Principe de Viana, 1968, otsaila, 5. orr.

## Erronkari

### EKOLOGIARI BURUZ

Oraiko denboretan, guziek ekustan dugu nola gore ungunia geroago ta obroago gaiztotan da, eta gaiza anitx galtan drela sekulako. Nexargarri da.

Gore mendietarik abre eder anitx xolan dra berze mendi goragoetra, edo il dra azkenak.

Genteak ezta goartan, eta atze egin tei abre koriek. Oraiko gazteek eztei ekusi, egoal gaiztoz.

Azkue gore adeskide andiak, bere Eletegi famatu kartan, berri bat emaiten daikugu erranez: “Obro ezik ein **mendiollar** il tu aurten jein batek gore irian”.

Ene gaztezutuan Uztarrotze’ko egoatxan, Izaba’ko altekan, “Eperraren Zubia”n bustitan gintzen, eta gore ungunian **mendiollarrak** ebiltan zren boztarioz.

Non daude orai txori eder koriek?

### KOPLAK KANTATAKO

Karrika gaintik goatza  
mitilak musikareki,  
gitarrez erraiten dugu  
bordaltako goreki.

### ERRAPENAK

“Adexkiderik bage bizitea da orobat nola testigorik bage iltea”.

José Estornés Lasa

Principe de Viana, 1983, maiatza, 14. orr.

## EZTAN ILEN ERRONKARI'N USKARA

(*Ene arreba Feli'ri*)

Nafarra'ko Ipar-altean Erronkari Ibaxa, mendi andi lerren artean daude zazpi iriak.	<i>Ezta ilen Erronkari'n Uskara.</i>	¿non daude berriak?	eztakizu, zore etxe, izenburia ezta deus zoretako.
Arri-pean ardi ñoa, ardi-altean axuria, irietan etxe zarrak etxe-barnean erdara.	Almadieroak negu gorrian xaitan dra egoatxetik, ardi, txakur eta artzaiak Bardean bidetarik.	<i>Ezta ilen Ezta ilen Erronkari'n Uskara.</i>	Gore uskara iltan dago ;xoan fite neskatoa! matto bero, matto andi uskarari emoitra.
<i>Ezta ilen</i>	Hogei gizon eta mazte dra oraiko Uskaldunak, Uskaldun zar xoanen geroz	Gora uskara iltan bada zore izena eztakizu, zore etxe, izenburia ezta deus zoretako.	<i>Ezta ilen Ezta ilen Erronkari'n Uskara.</i>
		Gore uskara iltan bada zore izena	

### Argibideak:

*Lerra:* Piñua.

*Xaitan dra:* Etortzen dira.

*Egoatxetik:* Urbidetik, Ibaitek.

*Bardean bidetarik:* Bardenan bidetatik.

*Matto:* Muxu.

José Estornés Lasa

Principe de Viana, 1968, apirila, 3. orr.

## GAIRON-GAIRONA

(*“Oro del Eska” ‘tik artruk eta uskarara utzulirik*)

Erronkari’ko irietan egitan zena gai onaren egunaz

Elurpean ortzitruk, aziek lo egitan zien. Abentuarena da.

Elur eta otzen tartean, moitarzun bageko bigotzen tartean sortu zen lur gainean  
Jainkoaren Azi Ona, sortu Belen’en Argi Berria.

Gaion; Uskal Auñamendi’an Gaiona. “Oxanea” zuri-zuri eta andi-andi dago. Beste  
mendiek, xorrotxago izanik, beren punttaz urratu dei elur estalkia.

Etsagainen zurajeak, elurrez jantzirik, familiak altxatan dutu. Toska-txamidren ke-  
maltak eta urzotalde baten egakada, iñon ere baratu bage urzotegiara berriz xitan denean, bizi-  
señale bakotxak dra Auñamendi’ko iri ñottoan.

Ogeita laugarren eguneko goxa da. Belagua’ko atehotik aizeak bultzatan du eta  
etsegainetatik elur-auts egoxtan du.

Erronkari’ko Eskutu glorioso paretan dun etsezar baten aurkian, aur-saldo batek  
kantatan du, eskuetan zakuto zuri-zuri ekunik.

Ai, maria!

Gairon-gairona:

sortu da Jein Ona.

Natara bitate

Urteren bitarte

Argizaya,

mirall andia.

Zutara mendatan da

mundu guzua.

Sandoro’petik dakorte.

Paradusu’ko zabala,

kanko unrra sagarra;

sagar kartarik xan lezana

Jeinaren seme eta alaba.

Jesus, Santa Maria

dakigula balia

ilean eta bizian,

arimaren orduan.

Ollarrak txuria mundutik,

Ainguru Ona zeuritik.

Ogi Ona Ostiarako,

Ardau Ona Kalizarako,

Ketan bietan konbertitruk

Jesukristo goretako.

Ekusirik birtute

gore Jeinaren Kandelariak

graziaz beterik dakorte.



Azken estrofa kantatuz geroz, bozkariozko iragoka asten dra. Etseko anderiak gaztain eta etzagur anitx eragu eta errepartitan dutu aurrer. Askaziagoak sukaltra igan-araztan dutu goxorik emoitako; baya, leinik, bapanari pattata bana eskeintan dabe, eta ekusgarri dra aurren beitate ullunak.

Etseko anderiari erakustan dabe biltu deina eta puskat berotan dra. Emazteak, txungaz, bai serioz bai barrez, goxoen parte eskatan zabe.

Aurak kantik erkitan dra lasterka, karrika gora edo karrika bera xoan dren beste aurrer eltako.

Korrikaldia akabatan, sukaltien sukaldarrean arrapaketa zenbatan dei: etzagur, gaztain, sagar zimurtruk, ogi-roska, katamora eta beste goxo, guzua tasta onenetako.

José Estornés Lasa

Principe de Viana, 1981, azaroa-abendua, 11. orr.

Erronkari

## IKASGUARI BURUZ

Orai, ikasguetan, gisa onez eta belloki ebiltan ditugu morroiak. Ta korrela egitan da pedagojiak erraitan daikuguna betetako; berzela morroiek konplejo anitx artuten lozkei eta traumatruk anditu zaitekian.

Gore tenpran bizia gogorrago zen eta ekuteak ere. Ikasguetan, makilakaldiak eguneroko gaizak ziren.

Kona keben Mendigatxa'k Azkue'ri erraitan zauna karta batean:

“Maistroek ene tenpran zakien txikiago ezik oraikoek, baya eratsukitan zien obro, zafratan baigintien”.

Beste altetik, onki dakigu Erronkari'ko guzuetan “Oillokunde eguna” xei andi bat zela.

“Oillokunde egunean, oilloa makila baten puntan lotruk, morroier begiak estalten ziozkan maisuak; gunean, iru makilakaldi aldi bapanean emon tan iltan ziona, maisuareki xoaitan zen oilloaren xatra”. Eta kau ekusteko, iri guzua eta alkate eta apeza.

## KOPLA GITARRARENTAKO

Aita batek alabari  
egun batez erran zaun:  
badun ogeitaborz urte  
eta bordaltu bear dun.

## ERRAPENA

“Anitx daki saguak, baya obro gatuak”.

José Estornés Lasa

Principe de Viana, 1982, otsaila, 14. orr.

## Uztarrotzeko azken uskaldun zarrak

(Erronkariko euskaraz iskribitua)

### PEREZ ETA MARKO'tar ERRIKARDA IL ZAIKU

Naferrako berze irietan bikala, Erronkarin uskara galtan da. Solo uskaldun zar bizpor baratan dra. Korrelako kanko uskaldun zarren bat iltan denean bigotza erdiratan zaiku.

Almadieroak  
negu gorrian  
xoaitan dra  
egoatxetik;  
ardi, txakur  
eta artzaiak  
Bardean  
bidetarik.

Eta almadieroak bikala urte uskaldun bat xoaitan da sekulako, oraikoa Rikarda Pérez Marko izan da ebilkaria. Uskalzale andi zen. Uztarrotzera eltu zuren uskalzale guzuer laguntu zabein bikotzez.

Aren uskara garbi, eder eta goxo uskal lanetan ageri da. Bere izena ez da uskalzaleen bigotzetan atzeren.

Ogei gizon  
eta mazte  
dra oraiko  
uskaldunak,  
uskaldun zar  
xoanez geroz  
¿non daude  
berriak?

Ea lurreraino eltu izan gintzen. Uskara galten zen Erronkarin. Gore Diputazioneri eskerrik Izaba ta Erronkariko ikasguetan uskara irakasten da. Berriz gore irietan uskal sonuak entzutan dra. Egunko morroi-neskatoak biarko uskaldunak izanen dra. Ezta ilen Erronkarin uskara. Guzuen lana da. Gere gaizak salbatako guzuak lan egin bear dugu.

Rikarda Anderearen seme-alaber Julita, Paula, Leon eta Anparo gere sentimentuazko itza eilten dabei uskara maitatan deinen izenean. Jangeikuak glorian ekun deila.

**PEREZ ETA MARKO'TAR ERRIKARDA**  
**(Mayo'tar Pankrazioren alarguna)**  
**il da.**

Seme –alabak Julita, Paula, Leon eta Anparo ta beste azkaziak.  
Otoi egin zazei Jaingeikoari bere arimaren aldez.  
Uztarrotz'en Garagarzoaren 23' gn.

José Estornés Lasa

Principe de Viana, 1969, iraila, 3. orr.

## Erronkari

### URZAINKI'KO AZKEN USKALDUNA

Egun eder batian Urzainki'n egon gara. Kori da Erronkari'ko iririk nottoena. Iri konek du arrizko eliz zar bat orai anitx eder, frontoi andi, ikasgu zabal eta Xalbatroren Ama Birjinaren Ermita. Giza atze artian, egotxaren altean. Zubi zarra lurreratu zein orai dra anitx urte eta oraikoa penagarri da, zementozko.

Erronkari'n uskara galtan dago. Urzainki'n dion emazte bat uskaraz ele erraitan dula: Maria Ezker, Urralegi egotxaren altean bizitan dena. Eurk obroago eztaki uskaraz. Kan zegon, elizaren bortan, iriko apezareki, ni eltu nindenean.

- Zer gisa, zu, tia María? (Iri kuetan emazte guzier tía erraitan zazkabei).

María Ezker anderiak apezari eta niri begiratan zaiku eta bere begietan arrigarrizko tximist bat ekustan da.

- Anitx onki eta zu?

- Eta osagarria onki dia?

- Anitx onki ere bai.

Kor doa tía María bere etxeara, negia igartra, uskaraz ele erran bage. Kareki eramaitan du Urzainki'ko uskara guzia.

Gunian, iriko zubia bizpor nexkaxier igar dena kontatan dur erranaz: alke andi izanen leidake gore uskara ilten balinbaleti. Nexkaxi kuek uskara moite dei eta ikasi nai lokei negu kontan libru bat ba lezei...

Bear da il bino lein azken uskaldunari uskaldun berrien eskia emoitia.

Urzainki'ko eliza, ermita, ikasgia, mendiak baia bitxirik ederrena uskara.

Gentiak erraitan den bikala "Ari koropilatua ezta sekula oso" baia...

Hemos estado en Urzaiki en un hermoso día. Este es el pueblo más pequeño de Erronkari. Tiene una vieja y hermosa iglesia ahora restaurada con mucho gusto, frontón grande, escuela espaciosa y la Ermita de la Madre Virgen del Salvador. El conjunto está entre árboles, al lado del río. El viejo puente romano hace muchos años que lo derribaron y el de ahora da pena, de cemento.

El euskera se está perdiendo en Erronkari. En Urzainki hay sólo una mujer que habla vascuence: María Ezker que vive al lado del Barranco de Urralegi. Nadie más sabe euskera en el pueblo. Allí estaba, en la puerta de la iglesia, con el párroco, cuando llegué.

- ¿Cómo está Vd.? tía María?

(allí a todas las mujeres se les llama tía).

La señora María Ezker, elegante con su mantilla roncalesa, nos miró a los dos y por sus ojos pasó un relámpago de sorpresa.

- Muy bien y Vd.?

- Y cómo está da salud?

- Muy bien también.

A poco, allí va doña María Ezker a su casa, a pasar todo el invierno sin hablar en vascuence. Con ella se lleva todo el vascuence de un pueblo.

Entonces, en el puente les cuento lo que ha pasado a unas chicas diciéndoles: Sería una gran vergüenza para nosotros si muriera el vascuence. Estas señoritas aman su lengua y querrían aprender si tuvieran un libro para estudiar en el invierno...

Es necesario que antes de morir los antiguos euskaldunes los nuevos les tiendan su mano y les den su promesa de conservar el idioma para siempre.

La iglesia, la ermita, el frontón, la escuela pero la más preciada joya el uskara, la lengua de los navarros.

José Estornés Lasa

Principe de Viana, 1967, azaroa-abendua, 8. orr.

## ZANGOTZA'KO II'gn LILI XOKUAK

(*Erronkari'ko euskeraz idatzia*)

Zangotza'n izan tugu Bigarnen Lili-Xokuak eta lein aldiz uskara xin da xokuetara. Hamasei uskal kanta eta korientako zortzi Erronkari'ko uskaraz.

Kuek dira sariak irabazi diteinak: Erronkari'ko Iboxaren saria iror mila pesetako: BERNARDO ESTORNES LASA, Euskal-Yakite'ren Adademiarena iror mila pesetako saria: FERNANDO ARTOLA SAGARZAZU (BORDARI), leina eta AMBROSIO ZATARAIN lein akzesit; bigarnen akzesit AGUSTIN ZUBIKARAI jeinari.

Kau gaiza eder eta zoragarri! Erronkari'ko azken uskaldunek xoatran dra mundu kontatik bestera ta zekin eramaitan dei uskara. Sekulako? Eztakir. Ñork ez daki. Uskara iltan dago ibaxa kortan eta tenpra berian uskaldun-berri banek bertso eder egitan daure. Onki urdu zitazu baia obroago egin bar da kango uskara karen lekian izari nai badugu. Erronkari'ko irietatik uskara xoan zaiku.

Bitartian begira tzatzei "Erronkari'ko Iror Gizon"-en bizpor zati. Egilea, izabar, Estornes Lasa, Bernardo.

(Hemos tenido en Sangüesa los Segundos Juegos Florales y por primera vez ha venido el vascuence a los juegos. Dieciséis poesías vascas y de ellas ocho en roncalés. Han ganado los premios así: **Premios del Valle del Roncal, de tres mil pesetas: BERNARDO ESTORNES LASA, Premio de la Academia Vasca, de tres mil pesetas, FERNANDO ARTOLA SAGARZAZU (Bordari). Primer accésit: AMBROSIO ZATARAIN y segundo accésit: AGUSTÍN ZUBICARAY.** ¡Cosa sorprendente y entrañable! Se van los últimos euskaldunas llevándose el idioma al otro mundo. Se está muriendo el uskara, la lengua de los navarros, y al mismo tiempo unos nuevos euskaldunes componen hermosos versos. Esto está muy bien pero hace falta mucho más para poner nuestro idioma en el lugar que le corresponde si no queremos que muera. Se ha ido el vascuence de los pueblos del Valle del Roncal. Veamos ahora algunos fragmentos de tres hombres del Roncal cuyo autor es Bernardo Estornés Lasa).

### **Julian kantari**

**Ai laborari, ene Mariano ona,  
entzun zore seme  
bozkaria kantatan denian,  
bere olaren barnian, banaku,  
edo lasterkan, errepatan bikala.  
Egun, bartzan, atxurka,  
bihar eregoztra doa;  
baia erne egon, ezteizun ies egin  
ezka egutx edo bidezkotik  
Erronkari'tik kanpora.  
Kanta eta kanta zazu libre zrela,  
ogia irabaztan bitzu  
eta artzai bizkor bikala  
Bardeara xaxtan bizra.**

**Txintxerkoen dulunduna aizetan**

[dabila:

**bidean ekustan ztei orik,  
urrinera orai zoatza,  
ta beste, anitx berririk sentitan**

[zra.

**¡Kau negu luze ta gogor!  
Baia, gaiztoago, maizterra!**

*(130 bertso obroago du)*

(Hay, labrador, mi buen Mariano,  
escucha a tu hijo cantar, encerrado  
en su cabaña o correteando de zagal.  
Hoy cava la huerta, mañana se va a  
segar, pero cuida, no se te vaya por  
el Ezka o por la senda fuera de su  
Roncal. Canta, canta que eres libre,  
que ya te ganas tu pan y como pastor  
bajas a la Bardena Real. El sonar de  
los cencerros el aire llena: todos te ven  
pasar. Lejos vas y otro, muy nuevo, te  
sientes ya ¡Qué invierno más largo y  
duro! ¡Peor aún el caporal!)

*(Tiene 130 versos más)*

**Xipian mixiolaria**

**Gore Xipian, ene eronkaliar ona,  
Guzi moitetarzun, min ta egin bear**

[zra

**baia ¿zer egin? Ken atzetik zoaz**

[zu.

**¡Kinbeste arrietan topatan dei zore**

[oinak!

**Bide gogor dela ekus dokezu  
eta txutik zaude, kirromarroka.  
Lerrak, finki, eblitan, bere kukula,  
talangaka , ikaraka, ta ¡tente!  
zore ekusketa kau, bei gaiza zaila;  
motz zore bizia, ¡egia!: xakin nien:  
oixan andia zore bartza zela  
indiar eta lurra, zore moite-gei.**

*(Batu ogoitasei bertso obroago)*

(Nuestro Cipriano, mi roncalés,  
todo amor, todo; dolor, deber, tras  
ellos vas pues, pero ¡qué hacer?)



en tantas piedras topan tus pies! Y  
a duras penas estás de pie; ruta  
difícil, lo puedes ver. El pino, osci-  
la, leve, su fiel; te tambaleas, tiem-  
blas, y ¡en pie!, caso difícil, éste tu  
ver, breve tu vida: ya me enteré. La  
selva virgen fue tu vergel, e indios  
y tierra, tu gran querer.

*(Tiene 26 versos más)*

### **Petri capitan**

**Mustazai, erronkaliar zarra,  
zore seme beigra,  
gatxitan,  
zore Garde'ko izkindegian  
arridoi baten altean,  
mendien terraskak atxurka  
azikatako;  
ardiak, uzkatan, alegunetan  
baia, beigra, ezteizun ies egin  
Erronkaritik kanpora  
Napoles uri italiar andian  
katedral erdietan,  
arri-zurizko ederren  
urrez bere izen izaririk  
altare nausi ullan:  
kor datza orzitruk ohoreki  
Petri injenierua,  
Olibeto'ko Kuntia,  
Pedro Nabarro kapitan andia  
Erronkari'ko mustazaia.**

*(Batu 110 bertso obroago)*

(Hatajero, viejo erronkaliar, mira a tu hijo rabiar. Encerrado en su Garde junto al pedregal las costaretascava para sembrar; las ovejas, cría, en el yerbal, pero, mira, no se te escape de tu Roncal. En la gran ciudad de Nápoles, en la Catedral, en hermoso sepulcro de mármol esculpido en oro su nombre está: allí yace, enterrado, y con honor, junto al altar mayor Petri el Ingeniero, Conde Oliveto, Gran Capitán, hatajero de Roncal).

*(Tiene 110 versos más)*

### **Azkenean irorak bat egitan:**

**Julian cantaría izan nai noke  
Zori  
Erronkari**

**Kantatako**  
eta besten bigotzetra ermaitako.  
Petri capitán andia izan nai noke  
kola irabazteko  
libertade fórrala  
zoretako  
eta beste uskalduneki guziak-bat  
[egitako.  
Xipian mixiolaria izan nai noke  
sutsu  
ta gartsu  
moite xakitako  
eta baten ona, besteen ona dela  
[xakiaraztako

(Quisiera ser Julián el Cantor  
para cantarte a ti, Erronkari y llevarte  
al corazón de los demás. Quisiera ser  
Petri el Gran Capitán para conseguirte,  
para ti, la Libertad Foral y con los demás  
vascos hacer de todos un haz. Quisiera ser  
Ciprian el Misionero para aprender a  
amar, con ardor y con pasión y hacer  
comprender al mundo que tu bien, tu  
libertad es del bien general)

**Erronkari'ko uskarak eztu  
nai il. Lagundu bar digu libururik  
egitan, ikasgurik izartan eta Erron-  
kariko gentearen biotzean uskarari  
moitetarzuna sartan.**

(El euskera roncalés no quiere  
morir. Debemos ayudarle haciendo  
libros, poniendo escuelas e introdu-  
ciendo el amor a la lengua de los  
navarros en el corazón de la gente  
roncalesa).

José Estornés Lasa

Principe de Viana, 1968, urtarrila, 3. orr.

## NAFAR IZKUNTZAREN EGUNA

Agur danari; gaur Elizondo'n  
gure Euskeraren Eguna;  
denen artean beraren alde  
gaur egin dezagun lana;  
Diputazioak laguntzeko du  
borondate oberena.  
Biba nafartar Diputazioa  
eta "Principe de Viana".

Garai batean, gure Euskerak  
izandu ditu lañuak;  
bañan berari lagundutzeko  
gaur badira enpeñuak.  
Aur guztiai gaur dazkiote  
guzizko kariñuak;  
gora Ikastola eta aurrak eta  
gure Andereñuak.

Lendabiziko lana euskeraz  
aritu gera Elizan;  
zure onoretan ainbeste gaude gaur  
Elizondoko plazan.

Euskera, zu noiz, non sortu ziñan,  
eztu oraindik iñork esan;  
zu betikoa izan, bearzu,  
gure Jaungoikoaren gisan.

Gure Alkatea euskaldun ote,  
batek egin zidan galde;  
nere erantzuna, apelliduak  
kenduko ziola dude.  
Diputadua Iratzoki ta  
Ezponda ta Iturralde,  
lan-ein zazute Naparroa ta  
gure Euskeraren alde.

Pozez nago Elziondo'n ainbeste  
euskaldun ikusita,  
euskerari jarraitzen zaio  
berak ala merezita.  
Gure izkuntzan bizi gerade  
gurasoai ikasita;  
beste mundura joan bear degu  
Euskera bizirik utzita.

Klemente Ezkurdiak jarriak

Principe de Viana, 1974, uztaila-abuztua, 6. orr.

## APEZ AUNDIA

Alaxe izan zen, gisa guzietara, Don Jose Apeztegi. Euskalduna zen, baztandarra, Erratzu Apeztegiko semea. Lege ikasketak Salamancan egin zituen. 1716-tik Iruñeko kanonigo, 1727-1746 tartean, kanonigoen Buru, Prior izan zen. Apez on ta yakintsua. Obispo orde, bein baño geiagotan, egin zuen.

Luzetasunaz famatua zen. Salamancan zegolarik, "el altísimo" deitzen zuten. Ez omen zen denbora artan España guzian ain gizon luzerik. Ala ere gizon berdina eta ongi egina. Bein batean, Felipe V erregea bazkaltzen ikustera goan zen (alaxekoa zen oitura) eta erregek, berzeak baño aunitzez gorago ageri zela oarturik, ya alkiren baten gañean zegon galdetu zuen. Ezetz. Orren luzea zela. Ez arras sinesten eta, yende artetik aterazi zuen. Lotsatuxea erregeren eta onen ondokoen aitzinean agertu bear izan zuen. Erregek, orren mutil ederra ikusi eta, bere Guardiakoa izatea eskeñi zion; are, eskerrak emanez, Epistolaz ordenatua zela ta Yainkoari eskeñia zegola.

Iruñeko eliz nagusian, klaustrotik sartzean, aldioro, an ageri den Ama Birjinaren oin muturrari, bera zango puntan jarri gabe, musu ematen zion. Gizon luze batek, besoa luzetu bear du, oin ori beatez ukitzeko.

Erratzun il zen 1746 urtean. Katedraleko Barbazanapean lurperatu zuten. Il obiak bi sepulturen luzetasuna zuen.

Blas Fagoaga Apez Yaun zenak izkiriatua.

Principe de Viana, 1967, uztaila, 2. orr.

## CERVANTES ETA HUARTE

Gure ogeigarren mende asieran, Huarte'n liburuak zaletasun berri bat sortu zuen. 1905'ean Don Quijote de la Mancha" delako liburuak iru eun urte buruan, mota askotako idazkiak agertu ziran. Lan orien artean Rafael Salillas'ek egindako idazki sakon bat: "Un gran inspirador de Cervantes, el doctor Huarte de San Juan y su Examen de ingenios".

Cervantistak arriturik gelditu ziran eta batek, "peregrina tesis, tan inusitada como irreverente", gaitzetsi zuen Salillas'ek zabaldu gaia. Azkenian españiar eta kanpoko yakintsuek bereganatu zuten Salillas'en ikustapen berria. Arrunt trebea Cervantes'en bizitza ta egitetan Salillas jauna danik, ezin ukatu. Orregatik bere erakuspina txit baliaduna deritzaigu. Erdi-iñaka ta gogo txarrez Camille Pitolet aurka jarri zitzaion Salillas'i, bañan beste idazle askoren artean William Confort'ek xehakatu zituen ustekeri eta iritzi kontrakoak.

Gure artean Bonillas San Martin eta Diaz idazleak, Salillas'en jarduna gogotik onetsi zuten. Bere aldetik, Aita Iriarte'k gai ortaz libururik bikañena argitaratu zuen, eta goi mallako egokitasuna iritxi zuala ezin ukatu.

Beste lerro ainitzen artean ara zer dion jesulagun agurgarriak: "Cervantes utilizó en sus obras la del doctor Huarte y no sólo episódicamente, sino de manera que toca al nervio mismo de sus creaciones. El Quijote vivió y murió bajo el signo del "Examen de los ingenios". La gran inspiración que Cervantes debe al doctor Huarte es el haber sabido fingir y conducir el carácter del héroe con armónica correspondencia de las dos estructuras: la psicológica y la temperamental. Y su autor tuvo de ello plena conciencia, persuadido por aquella lectura de que, por las cualidades corporales era posible llegar a noticia de las del alma, y de estas, a su vez, deducir las exteriores o físicas".

Bi moldetan bere Don Quijote Cervantesek eratu zuela, agerian da; eta ori Huarteri eskerrak. Gorputz-izaera arimarena unkitzen duela; eta arimaren indarra gorputzari dagokiola... Erotuta zebilela Don Quijote erakusteko, ara zer dion Cervantes'ek: "Del poco dormir y del mucho leer se le secó el cerebro". Lehenago gauza bera esan zuen gure mediku napartarrak: "la vigilia de todo el día deseca y entumece el cerebro, y el sueño de la noche lo humedece y fortifica".

"Examen de Ingenios" liburuak bear bearrezkoa zaigu nai balin ba dugu ezagutu Don Quijote'n nortasun mamitsua. Orrela, bear ba da ustegabea, mediku euskaldunari eskeintza agurgarria erakutsi zion "Príncipe de nuestros ingenios" delako idazle españiarrak. Batzutan, olako bidean zorrak ordaintzen omen dira. Orrela, beñepein, gure alderdi auetan gertatu zan bi adimen argitsuenetakoen artean.

Fagoaga'tar Isidoro'k egiña.  
Juan Thalamás Landibar'ek euskeratua.

Principe de Viana, 1969, uztaila-abuztua, 3. orr.

## GOGO YAKINTZAN AINTZINDARI IAIO BAT

Naiz Donibandarra izan, Huarte'ko jendekiak Castilla'ko burupea onartu zuten; ego aldeko eremuetara urrundu ziran, beren seme gazte Joanes Alcalá'ko ikastetxe nagusira bialtzeko asmoan. Errialde zabal berrian sarri sumatu zuan erri-miñ bizia eta ezkontzeko garaya etorri zitzaionean, bere sorlekuko emazte galanta bat berezi zuan, Agueda de Velasco zeritzana.

Oro gorrixka dager gaurko egunean ere Donibane Garazi'ko uri pollitan: eleiza bere kanpan dorrearekin, zubi zaharra, bilkura etxia, gotzai presondegia, iri arresiak, bai ta Urandi ibaian -gaurko La Nive- agertzen diran etxe-orma sendoak. Bere errialde goxoa utzirik Castilla mugagabeko eremu latzak saminki nabaitu zuanik ez dago dudarik.

Alcalá de Henares'ko ikastolara joan baño lehenago, bere gurasoekin Linares urian zonbeit urte bizi izan zan (Marañon ospetsuak uste-gabeen esaten digu Huesca'n egin zuela bere jakinbidea, bañan jakiña da Alcalá'n irabazi zuela aipamen eder batekin bere doctor mallá).

Bere ikasle-aroan etzuan beste lagunak zalaparta ta iskanbilletan ibiltzeko gurarik, berez lañogarri zelako-inguruan zeuzkan jendeen nortasuna ta izantza asi zan ikustatzen: "hacer cala y cata de ingenios". Gai ori sakonki miaztea izan zan bere bizitzaren elburua. Naiz sendagille bidean doctor mallara eldu 1559 gn. urtean, berak, mediku ordez "filósofo de la naturaleza" bezala izendatzen zituan bere jardun ta lanak.

Ustegabeen bere jakinduria azaltzeko garaia etorri zitzaion, Baeza urian gaitz izigarri bat zabaldu zanean. Bertan agertu zan mediku berria ta bere egiñalei eskerrak eri zeuden artean geyenak sendatuak zian ziran. Orduan erriko agindariek Huarte izendatu zuten auzoko mediku, bere trebetasun eta yakintza ugarien gaitik (por su "mucha habilidad en la profesión y ser hombre de muchas letras").

Urte gutxi buruan Donibane'ko semiak argitaratu zuen munduan zear ain aipatua izan bear zuen idazkia. Bi elburu dauzka idazki bikain orrek: bear den bezala gure adimena azterkatu, ta gero bearreko tartekoak ezarri bakoitzak bere nortasun osoa egizko bidean eratu zezan... Gaurko egunean ba dakigu gorputza ta arimaren artean badirala unkitze sakonak; bañan XVI garren mendean Huarte'k lendabiziko aldiz agerarazi zuen egi ori, ta ortan ikusi bear dugu ere bere merezimendu andia.

### Liburuaren gora berak

"Examen de Ingenios" delako idazkiak 1936 gn. urteraiño ezagutu omen zituan irurogei ta amasei argitaldi, askotan arrotzeko izkuntzetan biurtuak, Aita Mauricio Iriarte, jesulagunak dionez.

Gure alderdietan, ondikotz, etzuten orok begi onez artu Huarteren idazkia. Txit ospetsua izanik ere, Aita Feijoo ausartu zan itz gaizto auek esaten: "La física del autor apenas vale la tinta con que se escribió". Nardagarriko oitura izan da beti gure artean, Ramon y Cajal'ek zionez, "la indiferencia filosófica y científica asociada a un sanchopancismo desolador".

Huarte'n liburua eleiz-gizon aldetik onartua izan arren, inkisidoreak gaitzetsi zuten.

Europa'ko giza-yakintsuen artean begiramen kartsua irabazi zuen. Bere "L'esprit des Lois" idatzi zuenian, Montesquieu'k eskuetan Huarte'n idazkia euki oi zuan. Gaurko "frenología" bidean egizko aintzindaria dugula Huarte diote Gall eta Lavater yakintzuak.

Bertzalde, Boronsky'k miresten du gure napartarraren liburua esaten duelarik idazki ortan arkitzen dela lendabiziko "muin-landalana" (topografía del cerebro).

XVIII'gn. mendean, Diego de Aroza Erronkari'ko semeak idatzi zuen "Tesoro de las excelencias y utilidades de la medicina y espejo de sabio y prudente médico" delako liburu bikaña. Liburu ortan agerian ezarri zuan zoin mamitsua dan gure adimen ta gorputz-indarta kemen artean dagon atxikia.

J. Thalamás Landibar'ek euskeratua.  
Fagoaga'tar Isidoro, egile.

Principe de Viana, 1968, uztaila-abuztua, 3. orr.

## A. CAMPION: DISCURSOS POLÍTICOS Y LITERARIOS

Bigarrenez argitara eman-berria izan da -bigarren aldiz irurogeitamar urtetara- Arturo Kanpion'en "Discursos políticos y literarios" liburua.

Bilbao'ko "La Gran Enciclopedia Vasca" izeneko Argitaldaria eskeintzen digu, egun auetan anitz konbeni zaigun liburua: azalez, benetan ederra, dotorea, barnera begira, mamitsua, kartsua, aberats-aberatsa, Kanpion bezalakoa.

Naparrentzat, nor ka Kanpion ori? Eguneko naparrentzat, noski, ez da ezagunegi. Bañan, ona emen aren irudia, napar idazle gazte baten itzez:

"Arturo Kanpion: Naparroa'k XIX-gn. mendean sortutako gizonik aundiena; eta, denbora orotako napar idazle guzien artean, lenengo maillakoetan bat".

Kanpion'ek, beste iñork ez bezala, Naparroa ezagun eta maite izan zuen. Eta Naparroa ezagun-arazi eta maite izan-arazi ere, Kanpionek beste iñork ez bezala. Ala ere, ez du Naparroa'k magaleko semetzat oraindik artu.

Baldin beste iruñ-eme "Moret ospetsuak, Naparroa'ri nor-beraren kontzientzia eman" ba'zion, Kanpion'ek berak erran bezala, uste dut Kanpion bera izan zela, napar kontzientzia orri deia ta karraxia eskeiñi zizkiona.

Artuko Kanpion'ek eten gabeko lana egin zuen euskal alor guztietan: Euskara, Kondaira, Politika, Ele-ederti edo Literatura; eta beti, ezaupide onen pean: "Euskal-Erria'ren alde". Ez da sekulan beste orrelakorik Naparroa'n ikusi.

Gaiaz, idazkeraz, indarraz, orai-aldiko idazle agertzen zaigu Kanpion, gaurko egunean ere. Kanpion'ek aundieneko balioa izanarren, badira isiltasunpean ito nai dutenak. Ez ote da izango, Kanpion'en deia ta karraxia, Naparroa'rena, Euskal-Erria'rena direlakoz? Alperrik! Nai ta nai ez, napar ele-edertian Maixu Nagusia izanez irauten du Kanpion'ek; baita napartzaletasunean ere!

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1977, urtarrila-otsaila-martxoa, 3. orr.



## AGUR XUBEROA

*Jaureguiberry Andrearen eskietan, Uruña-rat  
xitian, bere herri maitiaz elerraiteko.*

Uskaldunok uskaraz elerran bear dugu.  
Zomaiten ezpainetan, apeza ¿non sortu?  
Neurk ere bere amaz eztu bear alketu:  
ene hiri moitia zutut, Kargaztulu.

Erriberan sorturuk, korrengatik naparra;  
beino zainetan daukat odol züberotarra.  
Kanko artzainek moite Bardearen belarra,  
ta kuek bihotzen sartu Iparreko beharra.

Jinkoaren graziaz, haurra nintzekian,  
aitzinekoen dela nik entzun barnian.  
-"Ikaszak gore Uskara, hedazak ungunian,  
berareki mugarik ezta gore artian".

Bortiaraino helturuk, anitx aldiz, lañoa;  
buria zutik, Orhy da gidari zintzoa;  
konon bazterren txerka bide zaharra doa;  
lanxarra xoan-eta, kor dugu Xuberoa!

Kantik ekustan dena, bai den ekusgarri!:  
oihanean Larraiñe, urzo zuri zuri;  
Santiaren budarra "Madelena" üduri.  
Xuberotik norbaitek: -"Semia, xin adi!".

Izagun eta bertan nik moit dut herria:  
artzain, laborari ta, bai, bertsularia;  
batek erraitan deit Berterretx-en hiltia.  
Eztiki sartu zaigu Xuberoa moitia.

1966-ko VI-en 4-an  
Uruñan, M. Garde

Principe de Viana, 1966, uztaila-abuztua, 3. orr.

AINGERU IRIGARAY, nappar jatorra beti, Euskararen alorrean langille txalogarria, bai ta irakasle agurgarria ere, adiskide ona, pakezko gizona.

Iltzerakoan ere berekin zeraman Euskarari, buruzko kezka. Illeta-egunean, Aingeru'ren seme Joxe Anjel'ek erran zidan:

"Il baiño ordu gutxi leenago eldu zen gurera PRINCIPE DE VIANA euskal aldizkaria, ta ikusteko eskatu zidan".

Bere jakitate sakontatik eman ziguna, batez ere gurendako zuen maitasun andia, ordain dezaiola Jinkoak.

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1983, abendua, 16. orr.

## AKULLU SUSPERGARRI

Biana'ko Printzearen irudia,  
napar guziendako akullu suspergarri.  
"Agramont!", "Beaumont!", napparren oiua artean,  
askatasuna galdu zen.  
Napparrok kanpora begira ari geranean,  
Napparroa'ri beti galdu zaio zerbait;  
euskal lurraldeak, Fueroak,  
euskara, nortasuna...  
Ta, berez dagokion bizia bera ere!  
Noiz arte leiotik kanpora begira?  
Kondairaren liburua zabal-zabalik dago;  
ikasi bear duguna, argirik.  
Napparroa'k euskal sustraiak ditu;  
gure sustraien odola, euskara.  
Egitazko sustraietan as gaitezen,  
ongi oiñarriturik geoari aurpegia eman dezagun.  
Euskarak ezik,  
iñungo izkuntzak ez du guretako  
ez indarrik, ez ta ezirik ere,  
sekulan ez bezala  
orain bear dugun oiua biotzez erraiteko:  
**NAPARROK, BETI AURRERA!**

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1976, uztaila, 4. orr.

## ALMADIEROEI OMENALDIA

Zankotza'ko Merindadeak eta Naparroa guziak, orain ogei urte dirala galdutako ogibide gogor baten gizonei omenaldi bat egin diete.

Langintza au zen, Auñamendi'ko lerdoietako enborrak ibaietatik eramatea, Zankotza, Muskaria, Zalduba (Zaragoza) eta Tortosa'raño ere bai.

Lan onetarako garai egokiena, "bortu"-etako elurrak urtutzen zanean.

Ur biziak, arri andiak eta ibaietako ur-askak "portu"-gainetik jeixteak langintza arriskugarria, benetan, egiten zuten; eta negarra etxe askotara eraman ere.

Neronek Erronkari'ko elizetan Meza ugari eman nitun, denbora artan ito-berrien alde.

Au dena esatean, nere txikietako "pekatu" larri bat gogoratzen zait. Erribera'ko mutiko bat bezala, ibai zabalaren erdian, aterpe-gabeko almadieroekin, arrika ibilli giñan, eta ura adierazten:

Almadierooo...  
mucha bota,  
poco dinero...

Erantzuna, jakiña; nolako madarikazioak!

Alaz ere, gure erriko "portua" jeixten ikustean, gizon indartsu aiek, txaloka artzen genituen.

Nere uztarroztar denboran, andik atera zen azkeneko almadia gañean, erritik errotaraiño, jetxi nintzen; oroituko ote duen orduko "aurrelaria" zan Domingo Sola nere aspaldiko adiskideak?

Gizon aiek ongi irabazia dute joan dan 16-gnean, Zankotza'n eskeiñitako omenaldia.

Festa ontan, mai-buru, On Amadeo Marko izan zan, Merindade'ko Diputadua ta Diputazioa'ren burua ere; bere ondoan Sautze'ko (Sos) Mazteki-alkatea, Zankotza'koa, "Principe de Viana" Elkargoaren Zuzendaria dan on Bingen Galbete, Trafico'ko Buruzagia dan Sagaseta de Ilurdoz jauna, ta Erronkari, Saraitzu ta Aezkoa'ko Batzar Nausien ordezkioak, etab.

Itzaldiak, egokienak; opariak, biotzekoak; Meza Nausia, bero-beroa. Uri guzia margoz eta soñuz bete izan zen, lurraldeko jantzi berezi ta txistuekin.

Ordu batetan, oraingorako egin dan almadia ari zen ibaitik jeixten.

Bi kilometro ibilli eta ibaiaren ur-aska garbiki jautzi ondoren, naparretatik millaka joan zirenen txalo beroenekin, almadia baztertu zuten eta, aintzin bezala... ostatura.

M. Garde

Principe de Viana, 1974, ekaina, 3. orr.

## APEZPIKU ZILLAR-EZTAIETAN

Gipuzkoa'n ospatu ditute Argaiatar Apezpiku Jauna, onen "Zillar Eztaietan". Badira 25 urte Apezpiku egin zutela: 1952'gn. urtean, Valencia'ra joan zen; geroago, Mondoñedo'ra, 1968'tik aurrera, Donostia'n dago.

Urrilla'ren 26'ean, Argaiatar Apezpiku Jaunaren ondora joan nintzen, "gure" On Jazinto'rengana.

"Gurea" dela On Jazinto esan dut; alaxe. Naparra delarik, Naparroa osoa maite du biotz-biotzez; baita, era berean, ezagun ere. Sortzez, bidasotarra, euskalduna; Iruña'n apezta, Iruña'n eta Erribera'ko bi erritan izan zen apez.

Nere aurtzaroko apezta nuen On Jazinto, ta nere gaztaro-koa. Berak lagundu zuen gure aitona illobira; berak bataiatu zituen nere anai-arrebatxoak. Eta 1936'ko egun beltz aietan, berak egin zion mesede aundia gur aitari, gure erriari.

On Jazinto'ren eskuetatik Jauna-artu nuen lenengo aldiz. Eta, 1939'ko udaldian, Kargaztulu'ko apez ura anitzetan "Mugarria"ko bidera atera zitzaidala, "Labeona" zalduatik beiekin ni etxera etortzekoan, apez izateko gogoaz galdetzen zidan...

Donostia'ko "Artzai Ona" Eliza Nagusiko elizkizunetan, burura etortzen zitzaidan nere aurtzaroko Artzai Onaren irudia.

Aunitz urtez, "On Gazinto"!

M.G.

Principe de Viana, 1977, urria-azaroa-abendua, 9. orr.

## AXULAR'EN HIZTEGIA

Urte aunitzeko lana dela, ikusten dugu; 673 orrialdeko liburua ez da egun batean egiten. Axular napar idazlearen itz danak bildu ditu. Itz oiek beren lerroaldietan daude gañera. Itz oiek dauzkaten esanaiak ezagutu-arazten dizkigu. Lan gogor ta bearrezko ori, garrantzi aundiko liburu ortan egin diguna da.

Itz aurrean, Axular'en argitaraldiak, noiz eta nun egin diran, erraten du.

Iru izkuntzetan egiña dago liburu au: euskaraz, españolez eta frantzesez.

Egillea, berriz, euskal jakintsuen artean onenetakoa dugu; Aita Luis Villasante, langille benetakoa ta gizon argia, liburu aunitzen egillea, Euskaltzaindiaren Lendakaria.

Orain Axular'en izkuntza nolakoa den ezagutzen dugula, liburu onen antzekoak bertze aunitz, idazle ezagunenetakoenak bear genituzke: Beñat Etxepare, Lizarraga, Kardaberaz, Mendiburu, Mogel, Orixe, Lizardi...

Liburu onekin Aita Villasantek, mesede aundi bat euskaltzalei egin diela, aitortu bearra dago.

M. Garde

Principe de Viana, 1974, urtarrila, 8. orr.

## "BASARRI" GUREKIN

"Basarri", euskaldun bertsolari aundiak bidali dio agur bero bat gure Aldizkariari, berriz ateratzen dalakoz.

Biotzez eskertzen dizkiogu "Basarri" aundiari bere oroipena ta bere txaloa. Eta aren baimenaz, argitaratzen ditugu berak aintziñean kantatu zituen bertsoak: beti gaurkoak dira, Eguberri ta Urteberri egun auetan egokienak. Gure irakurle guztiei zabaltzen diegu "Basarri" bertsolariaren biotzeko opa.

G'tar M.

## "GABON-ZAR" GABEAN

Anai arrebok, ementxe nator  
alaitasunez kantari;  
lendabiziki, esker beroak  
zeruetako Jaunari.  
Gure saioak entzuten zintzo  
egoten zeratenori,  
"Urte Berri ON!" opa dizutet,  
biotz-biotzez, danori.

Urte gozo ta eztitsua da  
nik opa dedan urtea;  
gorrotoaren izpirik gabe,  
maitetasunez betea.  
Komeni zaigu anaitasunez  
lan egin eta jatea,  
gure artean izan dedilla  
zoriona ta pakea.

Urte on beza arrantzaleak;  
urte on nekazariak;  
urte on beza kale zuloko  
langille maitagarriak.  
Alaitu bitez soro-baratzak;  
alaitu bitez mendiak;  
irriparrezka ikus ditezen  
beti gure euskal erriak.

A, zer paraje amesgarria  
Jainkoak eman diguna!  
Garbi ta sendo iraun-aztea  
guri komeni zaiguna.  
Gorde ditzagun gure oiturak,  
gorde izkuntza kuttuna:

au da euskaldun guzti-guztiok  
daukagun eginkizuna.

Millaka urtez or iraun dute  
gizalditik gizaldira;  
gure denboran ez dute oiek  
joan bearrik lur azpira.  
Izkuntz-oiturak jaso ditzagun  
merezi duten tokira;  
bizi-pozikan ez dago emen  
oiek ondatzen ba'dira.

**Basarri**

Principe de Viana, 1981, azaroa-abendua, 10. orr.



BERTSO ZAARRAK  
BAZTANDAR BATEN

Bertso auek, Jauregizar'ko Markes Jaunak billatu zituen bere etxeko paperen artean. Amairu bertso ziren, zoritxarrez, izenburua ta bi aurreneko bertsoak galduak dira.

Errazu'n, 1766'gn. urtean sortu zen Irigoyen eta Larrea'tar Frantzisko Jaunak idatziak izan ziren. Gaston eta Iriarte'tar Ana Maria Andrearengandik lagunduz geroz, apeztu zen Jaun ori, 1814'gnean. il zelarik.

Orain erabiltzen ez den moduan idatziak dira ekartzen ditugun bertsoak; euskara zarrean, Baztan'goan, jakiña.

Egilleak idatzi bezala, argitara ematen dizkugu; bakoitzak ikus ditzala ta jakintsuenek ondorioak eman diezazkigutela. Idazteko eran zalantza batzuk oartuko ditu edozeinek: bano/baño; gabian /gavaz. Baiña, "h"ri buruz, argi-argi ikusten da ez duela gure baztandarrak "h" erabiltzen, latin-itzetan baizik: christau, humilian, hostian; au, or, ala, onela, orrela, nai, emen, eta antzekoak, beti "h" gabe.

Dudarik gabe, erdararen bertsogintza ezagutzen zuen Irigoyen'dar Frantzisko'k: zazpi lerroko bertsoak, eta neurri laburrean, "seguidilla" edo "dabiltzentxoaren" ren usaia dauka.

Jauregizar'ko Markes Jaunari eskerrak ematekoan, betiko eskea, gure aspaldiko adiskidetasunari eutsirik: aren euskal jatorriaren paperetan euskarazko zerbait billatzen ba'du, argitara eman dezala. Berak ain maite duen euskal kulturarengatik!

*Arima nerea,  
considerazazu;  
nere christau maitea,  
otoy, pensazazu;  
ta zure goguan  
beti iduquizazu  
Dagoena onela munduban.*

*Andia izan ta ere,  
guztien gañean,  
ez duzu batere  
ezagun hostiyan.  
Zu or sinesturic  
modu admiragarriyan,  
gaude guztic arrituric.*

*Nere atseguñac  
dire guizonaiquin;  
nere aleguñac  
izatea beraiquin.  
Ala nai izan nuben  
-milagro andiyaquin-  
guelditu zubequin emen.*

*O, cer pensatzen dut  
nic egun guztian?  
Cer nic eguiten dut  
egun eta gabian?  
Ez dut nic pensatzen  
gauza ain aundiyan;  
ala ez dut adoratzen...*

*Bano, Jesus ona,  
minzatu bear dizut,  
naiz bada gizona,  
au galdetzen dizut:  
Cer gusto cenuben  
-aditu nai duzut-  
orrela guelditzeco emen?*

*Amoriyo onetaz,  
nor da orai oroizen?  
Mundu ero orretaz  
zarate zoratzen.  
Ah, esquer gabiac,  
nola da au pasatzen,  
esquer gaisto emaliac?*

*Yaun paregabea,  
adoratzen zaitut.  
Yaun guztic maitea,  
nic maitatzen zaitut;  
bada, Aldarian,  
or icusten zaitut  
modu guztic humilian.*

*Ai, christau maitea,  
erraten dirazu:  
naiz zure Yabea,  
bada adizazu.  
Amorec ninzala,  
otoy sineszazu,  
yarri nagon bezala.*

*Gavaz ta egunez,  
Ni bieti elizan;  
zubec casuric ez,  
baicican gutitan...  
Ah, cristau eroac,  
nai duzube izan  
orre esquer gaistocoac?*

*Munduco aundiyac,  
aconpañatubac;  
ta Nitaz guztiyac  
arras atzendubac.  
Ah, viotz gogorrac!  
Ah, engañatubac!*

*Zarate neretaz sorrac.*

*Lagun onarequin  
egoin nai duzube;  
baño, gutirequin  
logratzen duzube.*

*Ona emen nago,  
Ni bai banazube;  
Ni bizin onic ez dago...*

**Irigoyen'dar F.**  
(1766-1814)

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1983, ekaina, 16. orr.

## BIOTZEZ, BERTSOLARIOK!

Bertsolariak, Euskal-erriaren txoriak. Abestu nai nuke zuei eskerrak emateko, zuen bidez, bizitza maitagarriago biurtzen zaigu-eta.

Goitik artutako arnats eta indarrez, ederki esaten dizkiguzue gauz ederrenak. Nolanaiko gizonek begiak ditugu ta ezin ikusi; belarriak ere, ta entzun ez. Tamalez, ez gera konturatzen noiz sartu den udaberria; baratzeko sagarratzea nola loratu den dena; auzoko neskatxak aldatu dituela soiñekoa ta bertze irripar berria.

Ainbertze gau sakonagoak zuek esan ere; itxaropenazko gauzak, maitasunezkoak! Kanta ezazue, otoi, euskal txoriok, illun dauden biotzentzat! Norbaitek esan zun mundua olerkariak erabiltzen dutela.

Garde'tar Markelin

Principe de Viana, 1973, apirila, 5. orr.

## Liburuak

### EKAITZA

(Iruña'ko Aurrezki Kutxa'k 100.000 pztaz. saritua).

Idazle: J.M. Satrustegi

Argitaratu: JAKIN

Apaingarriak: X. Egañaç

Saria: 120 pzta.; 198 orri.

Urdiain'go apez eta Euskaltzaindiko Satrustegi jaunaren EKAITZA euskal liburu onek, Iruña'ko Aurrezki Kutxa'ri esker, sari ederra jaso du.

Izkuntzari dagokionez, egillearen euskara atsegingarri, bikain, errex, ezin obe. Gaia, berriz, garrantzitsu noski: euskal erri baten aldaketa; gaia, "arriskugarri" ere: Euskalerrian sartu zaigun iraultza.

"*Iraultza laguntzen ez duena, aurka dago*", liburuan esaten du "*Iosune*" batek; Satrustegi'k, ordez, beste lekuan esaten digu "*EKAITZA-k ez duela epaitzen*". Alferrikako itzak! Badira *Iosune* batzuek Satrustegi'ren kontra arrika asi direnak; nigandik urrun, jakiña.

Dena dela, izugarritzko *ekaitza*, oraindik lotan daudenentzat, irazartzalle eder; naiz besterik ez izan -bai dala!- lan txalogarria. Zoionak!

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1973, urria, 8. orr.

## ERRIBERA'KO TXISTULARIA

Nor zaitugu, arrizko gizontxo arrigarria? Nor zaitugu Erriberan? Bertakoa ote? Ala, kanpotik ekarritako naikeria?

An pean, gure napar Erregeek eragindako Monastegi zarrean zaude, **Oliva** izeneko napar eliz andienaren atarian. An pean, 800 urtez gero zaitugu; nungoa, ba?

Egitan, Erdi Aro'tik, XII-garren mendetik, guzien ixiltasunak inguratu zaitu; ixiltasuna ta gizonen oztasunak ere.

Etzan bazterretan bertzerik entzuten, lekaideen salmu-eresia baizik; eta dorre goienean, zutik eta geldi-geldirik, egoten diren zikoinen kalaka, aien maitasunezko leloa.

Eta zu, arrizko gizon arrigarria, 800 urte auetan, zu eten gabe ari zera zure arrizko txistua jotzen; zu bakarrik, inguruko bakardadean galdurik, bertze "Erraondo'ko azken txistularia" bezalakoa; edo, aspaldiko egunetan bezala, bertze Maurishio zintzo bezalakoa, nunbaiteko yende-gabeko enparantza batean.

Otoitza, ta maitasunezko eresia, benetan, zure betiko txisturaren soñua!

Eta 1930-garren urtean, zori-oneko egun batean, Aita Olazaran, praile ta txistulari maitagarria zana, leenik begiz jo zuen gure Erribera'ko txistulari arrizkoa. Eta berealaxe, nun-nai jakin arazi zuen, an pean, Kargaztulu'n, "Euskalerrri'ko txistulari zarrena agertu izan zala".

Napar Erribera'n, "**Euskalerrri'ko txistulari zarrena**" dugu; ori zaitugu, bai, arrizko agure xarmagarria; baiñan, nere ustean, ori baño geiago ere.



Naparroa'ko Erribera'n, Bardenetako ertzean, Kargaztulu errian, OLIA'ko Monastegi zar-zarra dugu. Atari nagusi gaiñean, Euskalerrri'ko TXISTULARI ZARRENA. Zortzi eunki -800 urte-dela, eten gabe, aren txistua jotzen ari dugu gure gizona. Txalogarria, benetan, aren asmoa; lotan dagon Erribera'ren euskal gogoa, berriz irazartzea, ango napar lurraldea ber-bera izan dedin, menditar Erregeen denboretan bezala.

Iruña'ko Erregeak mairu-guduen tarteketan, Oliba'n atsedanak zituzten, eta eizaldiak ere "*Einzazaldua*"n, "alduzafarra"n, eta orain artio euskal izenez erabiltzen ditugun bazterretan: "Larrate", "Mugarria", ta abar.

PRINCIPE DE VIANA'rendako Orella Unzue'tar A.  
Praileak egindako argazkia

Garde'tar Markelin

Principe de Viana, 1974, martxoa, 1. orr.

## ERRONKARI ZAZPIRA BAT

*(Erronkari-ko zazpi hirier,  
bihotz guziareki).*

Zazpi hiri  
-mendi, saldo, lerdoi-  
Erronkari.

Zrei anaxi;  
mintzoz, begitartez,  
uskal hazi.

Alkar betik!  
Xinkoak egin ziona,  
zeren autsi?

Aurridiak xoan  
-eskietarik artruk-  
karriketan.

Zeurietan,  
zazpi urzo hegalez  
saldo batan.

Txek bortian:  
ardia barriatruk  
otsoak xan.

Eder, andi  
kainbat egin bear,  
Erronkari!

Yl, goart-adi  
zazpi anaxe zreila;  
kortik asi.

Zomat argi!  
Zazpirak alkar artio,  
ez indarririk.

M. Garde

Principe de Viana, 1966, abuztua, 3. orr.

## EUSKARA TA TXISTUA

Naparroa'ko mendiak, txistua gogor entzuten dute; atsegin zaie; alaitzen dira. Bein, autobusean Saraitzu aldetik etortzen gerala, irratiak txistua jotzen zuen eta mendi gallur aiek, bertze itxura bat zekaten. Ezin ukatu.

Euskaldunak txistua maite du. Bizirik dagon errietan bearrezkoa dugu. Euskalerriko erdal errietan, berriz txistuak esnatzen du euskal zaletasuna. Txistua entzuten dutela, zerbait sortzen zaie. Zangotza'n, Muskaria'n, Tafalla'n, Lizarra'n, txistuaren atzetik euskara dator. Txistua dei bat da; erantzuna, euskara.

Txistuak erriko plaza betetzen du ta erdal giroa era bat aldatzen. Txistua entzunez, barne muiñetaraño euskal gosea sartzen da.

Bertze aldetik, berriz, berdin erran dezakegu. Euskara bakarrik egiten duten gure errietan, txistua ikasten dutela, euskerari gogo aundiagoakin eusten diote. Orduan euskara ez da geiago beldurturik, izkutuan egiten dan izkuntza. Txistuak on aundia egiten dio euskarari.

Orregatik bearrezkoa da, gure erri, bazter, iri, ikastetxetan, gaztetxoekin txistua ikasteko taldetxoekin astea. Bizpairu bildu, jotzen dakin bat ekarri. Bein ikusitakoak, maiz jo arazi. Zerbait ikasi dutenean, gutxinaz gurasoen aurrean jo. Geiago ikasitakoan, erriko festetan txistulari gazteak atera. Al danean dantzari talde bat sortu. Bertako edo ingurutako doñuak ikasi ta zabaldu. Ara ekintza polita; ta eziketa aldetik, zoragarria. Gaztetxoak eresia jotzen ikasten dutela, barrena betetzen dute ta nortasuna zuzentzen. Erriak bizi berri bat artzen dute. Gurasoak zoraturik, gelditzen dira, euskal kulturaren alde zerbait egin nairik. Ortzen giro ortan, euskeraren garrantzia ikusten dute ta, nola ez?, gure nortasunaren aberastasuna.

Txistua gaztetxoei erakusten ari diranak gauza polita bat dalakoan asten dira baiñan jokaera onen muga, oso urrutia dago. Txistuarekin batean, gazteak ezitzen dira, gure oiturak berpizten, erriak esnatzen ta euskara jaiotzen berriz.

Txistua entzuten dugula, ez dugu eresiaz pentsatzen, Euskalerriaz baizik. Txistuak eresia baiño geiago erraten digu.

Txistua ikasteakin batean, ez aztu, eresi tresna zarrak biltzea. Danbolin zarrak ustutako enborrakin egiñak ziran. Egunen batean erakusketa bat antolatzea merezi luke.

Berdin doñu ta eresiekin, danak bildu. Oraindik ba daude jaso gabe, gure mendi tartetan. Gure erriaren kultura nolakoa den ezagutzeko, ortxen daukagu jokabide bikaña. Gure zarretik, uste baiño geiago ikasi bearra dago. Kultura ez da gurekin asi ta Euskalerria askoz ez gutxiago.

Txistua ikasten, txistua jotzen, txistua zabaltzen dugula, gure barrenean gure izkuntzak dauzkan oñarriak zuzperten eta indartzen ditugu. Txistua joaz, euskarak irabazten du.

Garde'tar Markelin

Principe de Viana, 1974, martxoa, 1. orr.

## Liburuak

### EUSKERA ETA NAFARROA

Idazle: J.A. Irigarai

Argitaratu: Aranzadi (Iruña)

Saria: 150 pza.; 183 orrialde

"*Euskera eta Nafarroa*": bertze liburu berri bat, Nafarroa'ri buruz egiña argitaratu da.

Gaia, gure-gurea: euskeraren gora-berak Nafarroa'ren Kondairan zear; etzait, eguneko euskal-giroan, alferrikakoa, adiskide batek esaten oi duena: "nora xoan xakiteko, nondik xin xakin bear".

Liburuaren egillea, berriz, Jose Angel Irigaray: gizon gaztea, sendagillea, euskal idazle ta kantari famatu, Nafarroa guzian anitz ezaguna.

Nafarroa'n euskeraren bizia aipatzen zaigu: aintziñatik asita noraño edatua zegoen; Erromatarrekin izandako ar-emanak; gero datoz Nafarroa'ko Erresumaren sortzea ta euskal giroa.

Dakusgunez, Erdi-Aroan beruntz doa euskera Nafarroa'n, joan dan mende arte. Bonaparte Printzeari ta Iruña'ko *Euskara Elkarteari* esker berpizte bat nabaritzen da. Ez da, orduan piztutako sua, itzali.

Ondotik euskal literaturari buruz, orrialde anitz idatziak daude; lenengo euskal idazle danak, naparrak ditugu: Etxepare, Leizarraga, Axular. (Etxepare'nak, napar idazle sutsu batenak, dira PRINCIPE DE VIANA Aldizkarian argitaratu genituen itz nagusi aiek: *Euskara, ialgi adi plazara!*).

XVII-gn. mendean, Moret eta Alenson naparrak agertzen dire.

Ezin aztu bertze izartxo batzuek: Juan de Beriain, Mendiburu (naiz gipuzkoarra izan, Oiartzun'go euskeragatik naparra), Elkano'ko Lizarraga, Mikelestorena, Lapitza.

Abbadie ziberotarra asi zen *Euskal-Jaiak* ospatzen; ezagunenak: Elizondo'koa, Bera'koa, Doneztebe'koa. "Euskara" taldea orduntxe sortzen zaigu. Campion, izar andiena, merezi luke geiago aipatzea; ez da lerro tartean galtzen den izena. Naparra'k euskal konzientzia Campion'i zor diogu, geienetan. Campion'en *Gramática*, euskal kulturaren *monumento* andienetakoa dugu; ori ala da.

"Manezaundi" ta "Larreko" etxeok ditugu. Eta ongi da "Orixe" andia aipatzea; bere euskal kultura Nafarroa'n xurgatu zuen.

Napar euskaltzaleak eta euskal idazleak aipatzen zaizkigu; ortxen ditugu euskaltzaindiko naparrak; interesgarria izen guziak ezagutzea: zorigaistoz, ez dira geiegi; ala ere, ez dizkigu eman. Erronkari'n, adibidez, Bidankotze'ko Mendigatxa, anitx andi, bai. Eta Estornes anaiak, zer? Euskaltziandiko laguntzailleak ditugu, "*Erronkari'ko Uskara*" eman digute, ta euskal kulturaren zabalkundean neurrigabeko langilleak. Ori ta guzti, utsune oiek ez dira ezer, liburuak daukan garrantziaren ondoan.

Bukaera aldera, Diputazioak euskeraren alde egindako lana aipatzen du; bearrezkoa zen aipatzea. Azkenean, liburuaren laburpen batzuek erdaraz idazten ditu.

Liburu au 183 orrialdekin betea dago. Ematen ditun berri geienak ezagunak genituen, baiñan egilleak bilduma eder bat eman digu. Jose Angel'ek aitaxiri eskeiñi dio, "Larreko" zanari. On Angel Irigaray, egillearen aita, idazle argi ta trebea dugu; berari esker, berri aunitz eta aunitz jasoak daude; orrelako maixuaren aztarna ikusten da liburuan.

Irigaray Jose Angel'i euskera errex ateratzen zaio; itsu batek ere ikusiko luke etxean erabiltzen duela.



Irigaray sendiak euskal kulturaren alde beti agertu zaigu, aitonakin asi-ta, On Aingeru'kin jarraitzen; orain billoba dator bitxi polit onekin. Eskerrak eta zorionak!

Garde'tar Markelin

Principe de Viana, 1974, urtarrila, 8. orr.

## H. DE MENDOZA (GOIKOETXEA'TAR AINGERU) NAFARTAR APEZ EUSKALTZALEA (G.B.)

Nafartar Xabier Sainduaren eguna pasaturik, Abendua'ren 4'ean, H. de Mendoza Goikoetxea'tar Aingeru apez jauna, il zaigu Iruñe'an. Bazen buru argiko gizona, biotz sutuko apeza, napar eta euskal zaletasunez betea.

"Lizarra lurraldean", Jurra mendi-pean dagon Dicastillo errian sorturik. Lizarra'ko euskal egun andiak osorik bizi izan zituen; geroxoagoan, Lizarra'n bertan, arrisku ta neke frango...

Beti igorri zuten apez au izen gutxiko errietara; baina pozik agertu zitzaigun, errikoia baitzen. nola maite izan duten Ganuza, Lerga ta Olabe'ko nekazariak! Orobat, azkeneko urtetan Iruñe'ko "Rotxapea" auzoan ezagun izan duten langilleak. Leku guzietan gauz onurakorak egin zituen, jendearekin batera, bera indargille edo motorra izanik.

Aingeru onen adimena, benetan zolia! Zerbait argi ikusiz gero, tximista bezain azkarra, ara, aren biotzeko indar guzia; zuzen, zuzen joaten zen, inguruko maltzurkeriaz konturik batere egin gabe. Iruñe'ko ikastolaren arazoan, buruz sartu zen. "Ortik, esaten oi zuen, norbait dabil". Bazekien berak "norbait" ori nor den; makiña bat aldiz entzun diot: - "Orrek zapalduko du Euskalerra, auts egin arte!".

Adiskide kutun zanaren irudia xixelatuko digute, nik baño obeki, On Alberto Onaindia'k igorritako eskutitzek:

"Dena biotza, gure Aingeru zana; bere napar sendotasunak beti zintzo jokatu zuen. Ez zuen deus ixildu bearrik, bere barrua, itzez eta egitez, agiria zegoen. Bere egitasunez, bat baño geiagotan sufritu ere!

Azken urteotan, baziren Aingeru ulertu ez zutenak. Aingeru, apez zintzoa genuen; berak, beintzat, ez zuen beñere atzendu; denen gaiñetik, bere Siñismena; ta gaztaroan ongi ikasi zituen oiñarriak, zintzoki zaindu zituen. Ez dakit denek, azken urteotan, zintzotasun ori ikusten jakin duten.

Oraingo gizona zen. Berritasuna maite izaten zuen; berrikeriak, ordean, batez ere erlijioarendako kaltegarriak, ez; orain edatzen diren "berrikeri" askori gogor egin zion, urtez lenagotik.

Bazen benetako euskal abertzalea ere; euskal elburuen alde anitz lan egin du".

Iruñe'ko "Paz de Ziganda" ikastolari, izen argitsu ori ta zerbait geiago eman zizkion, bertze batzuekin sortu ta aurrera eramanean.

Forudun Diputazioak bere "Euskeraren aldeko Sailla"ren kidea izendatu zuen, iritzi zuzeneko lankidea izan delarik.

Naparroa'ren kondaira oso ezaguna zuen eta norbaitek uste baiño geiago euskeraz bazekien, illero, euskal PRINCIPE DE VIANA'ren gora-berak bereganatzen zituen, ematen dugun *Sumario* edo laburpenaz, eta niauren laguntzaz.

Illetan, jende anitz: giza-arte guziko jendea, baita ideia-mota guzikoak ere. Iruñe'ko Apezpikuak elizkizunak egin zituen, eta itzalditxoan -itz bero, itz egoki- ikusi genuen Aingeru ongi ezagun, anitz estimatzen zuela. Aldarean eta nunnai, Aingeru'ren apezkide naparrak, baita Gipuzkoa'tik eta Bizkai'tik etorritakoak ere.

On Alberto Onaindia agurgarriaren biotzeko itzak ditugu bukatzeko egokienak:

"Lagun ona ta zintzoa guretzat izan da beti Aingeru; beti maitasunez oroitzean ukanen dugu".

Garde'tar Markelin

Principe de Viana, 1974, azaroa-abendua, 3. orr.

## Liburuak

### HISTORIA JURIDICA Y SOCIAL DE SEGOVIA

476 orr

Egille: M. González Herrero

Banatzalle: J. Martínez - Albuera B. kaleko, 3 - SEGOVIA'N

Arrigarri, noski, napar askorentzat liburu au. Ala ere, Gaztela'ko foru-zaletasuna ez da gaur asmatua. Bazituzten ango "lurreak" beren "foruak" eta, Aragoia, Katalunya ta Euskalerra'ri baño lenago arrapatu zizkieten. Ala ta guziz, irauten badu -Segovia'n beintzat-Ximenez Carretero'ren eskola foru-zaleak, eta Juan Bravo'ren gogo ta itzala bizirik agertzen zazkigu.

Bizia ez da gaur asi, aspalditik etortzen diren erriek ez dute beren aintzintasuna galdu bear, "Aitzina -dio Egilleak- ez da, berez, atzerakoa: ez du uzten -ori, bai- gizonak eta erriak utsean erortzen. Aintzinekoa, berriz, oraingo bizian sarturik, aurrerakuntzaren akullu, mami ta gaia dugu".

"Kezkaz eta itxaropenez idatzitako liburua". Sendimendu orietzek kutsatzen gaitue Forudun Naparroa ontan, ez baitugu Villalar bat bakarrik izan, bi baizik: Amaiur gaztelua, 1521-gn. urtean ere, eta joan den mendean, Bergara'ko Besarkada.

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1975, urtarrila, 8. orr.

## IBARREKO EGUNARI EUTSI

Naparroa, ibarrez edo baillaraz betea dugu; aunitz, ezin konta dira, txikiak eta aundiak, adibidez Baztan, Artzibar, Erroibar, Anozibar, Yerri, Saraitu, Erronkari eta abar eta abar...

Ibar guzti oiek, Naparroa'ko zañak dira ta Naparroa'ko nortasuna egiten dute. Ibar bakoitzak bere bizia, nortasuna ta edestia edo ixtoria dauzka. Ibar oiek gabe, Naparroa etzan gauz bardiña izango. Zoritxarrez, ibar aunitz il zorian daude, erriak ustutzen, gazteak alde, mendiak larrak jaten, illerriak belarpean itotzen, etxeak erortzen. Ibarrek arnas berri bat bear dute, bizi berritze bat, batez ere errixka guztien alkartasuna. Len biltzen ziran ba ibar danetan. Batzuek, urtean bein, bertako perian; bertzeak baseliza batean; bertzeak mendi tontorrean. Sakabanatzen asi ziran ibar aunitzetan; eta azkenean, batasunaren ezak galdu ditu.

Dana ez da negarra, Jaunari esker. Ortzen ditugu eredu ederrak, ibar danetan berritu bear lituzketenak. Zer erran Baztan eta baztandarren biltzarra ikusten dugula? Gaur EuskalERRI osoan ezaguna. Ortzen dugu Larraun ibarreko eguna urtero Lekunberri'n egiten dena. Eta Ultzaman, bai ta ere.

Toki batzuetan, enparantza izango da biltokia; bertzentzat, baseliza. Erromanzado'ko ibarra Usun'go San Pedro'en baseliza bisigotikoan biltzen da. Erriak bildu, gurutzpean otoitz egin biotza alaitu ta anaidiko bazkaria alkartean artu. Ibar danak ba zituzten, beren biltoki berexiak eta egun izendatuak. Ibarren bizia egun oietan agertzen da. Merezi luke, bertze toki ezagunetan egin dan bezala, ibar danetan berritzea. Ortarako ibar aunitzetan kemenik ez dute gaur izango, Iruña'ko elkarte aundiak beren gain artu bear lituzkete egin bear litzaken urratsak, eta eskua zabaldu, asmo oiek aurrera eramateko.

Jakiña, gizonak alkartzeko, biotzak batu bear dira. Naiz bide aunitz itxiak euki, alegintzea merezi luke. Beti arkitzen da apez, sendagille, albaiteru, idazkari edo erriko semen bat kezkatuta dabillena, zerbait egin naian, bakarrik, bakardadean, lotsatua baiñan itxaropenarekin. Ogei esku luzatu bear litzaeike ain bakarrik ez arkitze arren. Naparroan nunai ikusten dira biotz oneko gizonak. Gaur erdi illik dauden ibar aunitzetan, esku bat naikoa litzake bizi berri bat berpizteko.

Ibarretako egun oiek izan bear lukete, Naparroa'ko egunik aundienak; alkartu, bildu, otoitz egin. Ortik asiko litzake anaidiko berritze bat eta ibarretako koropilloak askatzen. Naparroa'n ez dago alperrik galtzeko lurrik. Gizonak bear dira lur oyei indar berri bat emateko. Bertako semeak alkarturik egin lezakete ori. Aintziñako gizonak egin dutena, zergatik ez gaurkoak? Ortarako sinismena, kemena ta erriaren maitasuna bear da.

Eutsi ba, bazter guztietan ibarreko edo baillarako egunari. Indartu al duzuten guztia, zuen ibarrendako maitasuna eta inguruan erdi illik daudenei besoa zabaldu...

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1974, iraila, 1. orr.

## IRU ANDRE, OOREZKO EUSKALTZAIN

Euskaltzaindiak iru euskal idazle emazteki, Oorezko Euskaltzaiñak izendatu ditu. Bidezko erabakia; denborak, merezi zutela.

Goi-maillara eraman dute euskal emaztekiaren nortasuna, sukaldeko euskera nola landuz, beren bizia, aiek maite duten erriarengatik, ustu arte.

**Azpeitia'tar Julene.** Zumaia'n 1888'an jaio zen; 1907'an bazegoen aur-irakasle bezala; orrela, berrogeitama urtez, Bizkai'ko eskoletan. Idazlan eder, itzaldi jakingarri, sari asko, liburu batzuek: "Irakurri, maite", "Umien adizkidea", "Amandriaren altzoan", "Zuentzat"...

**Madeleine Jauregiberry.** Zuberoa'ko Alotz'en, 1884'gn. urtean sorturik, joan den Urrilla'ren 13'an laurogei t'amarrak bete izan zituen. Orain ere, Atarratze bertako kantoinetan bizi da, Sibas irixkoan, alegia. Etzen gure Madeleine, anai ospetsuen artean, gibeleratu.

Emazteki onek, Pabe'n (Pau) goi-ikasketak egin zituen, Euskeraren erakusketan trebea da, ta bertze aldeko eskoletarako euskal ikasbide bat egiña du. Aren idazlan aunitz agertu da Euskalerrri ta Atzerriko egunkari ta aldizkarietan; beti Euskal Erriaren alde. Antzerki batzuk eman dizkigu: "Mirakuilu bat", "Zikoitza", "Euskaldun jauntziak". Ziberotar uskaraz, kantari mintzatzen da, xoriño baten gisan.

**"Tene" Muxika.** Debatarra, 1888-gn. urtean jaioa. Bere len olerki-liburua, 1923'an argitaratu zuen.

Aren antzerki artean ditugu: "Gogo oñazeak", "Gogo negarra", "Gabon" eta "Joan Joxe".

Eta "Tene" itzaldietakoa! Bazekien suzko euskera batez uskaldunak piztutzen!

"PRINCIPE DE VIANA" k, Oorezko emateki aueri, biotz-biotzez, ZORIONAK!  
Badieten utzi, oraingo Euskalerrri'ko andereñoeri jarraibide ederra!

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1975, ekaina, 3. orr.

## GOIAN BEGO ON J. ALDABE JOANIKOTENA

Uztailla'ren, bere 80 urtetan, Aldabe Joanikotena Jokin jauna, PRINCIPE DE VIANA'ko lankide ugaritsu ta maite-maitea, il zaigu Gipuzkoa'ko Orio errian.

Gure dolumiña Lertxundi Ascención andre alargunari, Iñaki semeari, Petri errañari, billobei, eta zanaren anaiei: Oiartzun'en bizi dan Alfonsori, ta Ziordia'n apez dagon On José maiteari. Etxekoei, gaiñera, nere esker ona, etxean egin zidaten abegi onagatik.

Berez beratarra, gaztaroan joan zen Orio'ra; an lanegin, lanegin ere!, an bertan ezkondu, an ia irurogei urtez bizi, orain il arte. Bere il-berrik guztiok astindu gaitu, guzien serbitzari, lagun, adiskide bait-zen.

Orio'ko Elizan, Udaletxean, Arrantzalien Lagunartean, ainbeste urtez ari izan den Aldabe jauna! Egunoroko lana, egun bakoitzaren ogia.

Munduan bizi izan da, baiñan zerura begiratzen; etzuen iñoiz kristau-eziera ukatu; beren azken itza: "Etorri, Jesús, nigana!", siñismenez beterik zegon.

Euskal-zaletasuna, berriz, argi dago euskal aldizkari guzietan.

Etzan berekoia gure gizona; barneko aberastasuna -besterik etzuen- eman ta zabaldu zun.

Arek Orio maite; Orio'k, bai, bera maite ere. Erriaren ordean, Alkate jauna, etxekoen artean lagundu zion illerrirakoan. Arrantzaleak, beste illetak eratu dizkiote geienak itxasotik etorri-ta gerorako.

Bere urrezko eztaietan, nola samurtu zen Parrokiak eskeñitako omenaldian! Egun artan, aldarean maiburu, bere erkide beratarra, Donostia'ko Apezpikua, gure Argaya'tar On Jazinto maitea.

On Jokin Aldabe Joanikotena etzan nolanaiko gizona. Kristau zintzoa, euskaldun jatorra, oso langille ona; olakoa zen galdu zaigun lankide ez-aztukorra.

Beste lekuan argitaratzen dugun berak egindako lanetik, lerro bat artuko nuke, nere ustez illobian idazteko egokiena: "*alderdi onez jantziya*".

Garde'tar Markelin

Principe de Viana, 1973, uztailla-abuztua, 3. orr.

## JAUREGIBERRI ANDEREA ZENARI

Madelen Jauregiberri Anderea izan da; Urrilla'ren 13'an, bere 93 urte aundien buruan, Zuberoa'ko txoko maitean, Oorezko Euskaltzaindi'koa zen. Bere bizitza luzea, Jinkoa'ri ta Uskal-Herriari serbitzu egiten eman du.

Orai 14 urte direlarik, "Iruña'ko Euskalerrri'aren Adiskideak" deituta, Iruña'n mintzatu zen, "Iru Errege" Ostatu dotorean. Antxe irakurri ta eskaiñi nizkion, orri ontan -berriz-agertzen drien bertsoak, Erronkari'ko uskaraz egiñak, Zuberotarratik urbillena izan naiean. Bai ziñen eskertu! Bere Uskara txiolari artaz, erran zidan:

*-"Ontsa erran diüzü, Erribrakumia, euskerareki ez dela mugarik Bortian!"*

Urte batzuz geroago, aren ikustera joan nintzen "bortiaren gaintik"; atsegiñez artu ninduen. Maitasunez gorderik dauzkat nik, berak maitasunez eman zizkidan anaxaren liburuak: "Le Basque moyen" eta "Basabürrian"; baita bere biotz onaren "orhitzapena". Ez dut damurik, ez, Jauregiberri Anderea ezagutu izana. Goian bedi!

## AGUR, XUBEROA!

Jaureguiberry Anderearen eskietan,  
Uruña'rat jitian, bere herri moitiaz  
elerraiteko.

"Uskaldunok uskaraz elerran bat dugu".  
Zomaiten ezpainetan: -Apeza, non sartu?"  
Ñork ere bere amaz eztu bar alketu:  
-"Hiri moite-moitia zutut, Kargaztulu".  
Erribera'n sorturuk, korrengatik naparra;  
beino, zainetan daukat odol zuberotarra.  
Kanko artzainek moite Bardea'ren belarra;  
kala bigotzan sartu Bortiaren beharra.  
Jinkoaren graziaz, haurra nintzenean,  
aintzinekoen deia nik entzun barnean:  
-"Ikas, ikas uskara; hedazak altean;  
berareki eztugu mugarik artean".  
Bortiarat helturuk, anitx aldiz lañoa.  
Buria zutruk, Orhy da gidari zintzoa;  
korren bazterren txerka bide zaharra doa.  
Lanxarra joan-eta, kor dugu Xuberoa!  
Kantik ekustan dena, bai den ekusgarri!  
Ohianean, Larraiñe; urzo zuri-zuri;  
"Maidalena" mendiak budar bat uduri.  
Xubero'tik norbaitek: -"Semia, jin adi!"  
Izagun eta bertan, nik moite dut herria:  
artzain, laborari, baita bertsularia;  
kuen batek erran deit "Berterretx'en hiltia".  
Eztiki sartu zaigu Xuberoa moitia.



M. Garde

Principe de Viana, 1977, urria-azaroa-abendua, 8. orr.

## JOXE IXTEBE URANGA JAUNAK ATSEDENA ARTU DU

Guziok anitz ezaguna dugu On Joxe Ixtebe Uranga, gizon jakintsua, aspergabeko langillea. Ongi irabazi duen atsedena orain artu du. Aurten, irurogei ta amabortzak bete izango ditu, baña ez du ajolik gure gizona bezalako langile batentzat.

Bizi guzia, Ederti gaietan; Naparroa'ko gauzetan. Ez da errexa bertze bat billatuko, gure Naparroa Uranga jauna bezala etzagutzen duenik. Erran leike Naparroa'ko edertasuna bere maitagarria dela. Eta maitearen aurpegiko argazki ugariak altxatuak ditu.

Leku guzietan egona izan da Uranga jauna, beti asmo batekin: Naparroa'ren edergordailuari eustea.

Anitz urtez, "Principe de Viana" Elkargoaren buru izan dugu On Joxe Ixtebe Uranga. Bere zuzendaritzapean eta alor guzietan, Diputazioaren agindua bete naiez egindako lanak, ezin konta.

Orain arte, gure Aldizkari ontako izen-buruan, "J.E. Uranga, Zuzendari" agertu zaigu. Aren ondoan lanegin dutenei, etzaie iñoiz Uranga jaunaren jarrai-bidea aztuko.

Naparroa guziaren aldetik, esker oberena!

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1973, iraila, 2. orr.

## KARDABERAZTARREK OSPATU DUTE LEKUONA ZAARRA

Abenduar'ren 28'an, "Kardaberatz Bazkuna" izeneko taldeak eskaiñi zion omenaldi bat Lekuona'tar Manuel jaun agurgarriari.

Ez da Lekuona eldu berria euskal-kulturaren alorrera, anitz ezaguna baizik Barandiaran bere adiskidearekin batera. Ah, ze-nolako paregabeko pare! Biak euskeldunak, Gipuzkoa'ko semeak, baita apezak ere. Biak benetako langilleak, jakintsu apalak, biotzeko adiskideak; or daude beren bizitze luze ta beteak, ortxe bakoitzaren lan ugari tan on-onak.

### **Lekuona'ren nortasuna**

Oiartzun'en jaio zen 1894'eko Iraila'ren 9'an. Beti apez eta beti euskaltzale izan da On Manuel Lekuona; etzaizkio falta izan gure erriaren min eta nekeak. Baiña, ez du sekulan gaztetan artu zuen biderik okertu, ez bere apezgoan ezta bere euskaltzaletasunean ere. Orduan egoki ta bidezkoa iritzi zitzaion jokabidea, euskerari buruzkoa noski, beti ontzat eman eta jarraitu izan du; ez da izan "aizea nora, zapiak era" oietakoa.

Bere lanak -denborari gogor egiñez- or geldituko dira, bait dakigu "bere iritziak azken-iritziak izan dirala gauza askotan". Lekuona'ren "Literatura oral euskérica" liburu eder artaz, L. Mitxelena'k esan du:

"Bere saillean, ez dugu izan geroztik aren ordezkorik ezta inguratzekorik ere. Euskal gauzetarako gogorik duenak irakur beza lehen-bait-lehen liburu aberats bezain argi au, ezagutzen ez badu, ezagutzen bait duenak bein ta berriro joko du, iñork eragin gabe, iturri garbi ortara".

F. Arozena'k espaldian utzi zigun Lekuona'ren irudia, baliotsuago biurtu zaigu joan diren urteekin:

"Aundia da, benetan, M. Lekuona'ren nortasuna. Aurrerapen asko zor dizkio euskal-jakintzak. Olerkari ta euskaltzaina, bere erriarentzat bizi izan da beti. Ta bere erriari eman dizkio, Gasteiz'ko Apaizgaitegian Euskera, Gerkera ta Eberkera irakasle zalarik, azaldu izan zituan adimen-doai aundiak. Bañan Euskerari zor ba'dio bere nortasun aundi ori, ez dio gutxiago zor Erti-landan izan zituan ondore zoriontsueri".

### **Kardaberatz bazkuna", zer dugu?**

Apezgai talde bat, 1924'ean eratua, Lekuona irakaslea ardatz zelarik, XVIII'gn. mendeko Aita Kardaberatz'en elburua aurrera eramateko: "Askoren animak salbatzeko, Euskarak burua jasotzea Jainkoak nai du". Auxe zen kardaberaztarren ekintza: euskeraz idazten trebatzea.

Baiñan, 1936'eko gerratean, apezgai eta apez gazteen Elkartea il zen... Aita Kardaberatz'en 200'gn. urteburua zelarik, 1970'gnean., berriz burua jaso du. Oraingo "Kardaberatz Bazkuna" berrian sartu dira asieran ziñenetatik bizi direnak eta beste asko: lagun izan nai duten guziek, dela gizon, mazteki edo eliz-gizon. Eta leengo asmoarekin: euskera ikasi, idatzi, erakutsi, euskera eder baten bidez kristau-pentsamentua edatzeko.

Azken urteotan kardaberaztarrak ugaritu egin dira euskera ederrean argitaratu dituzten liburuak ugaritu ere: bi dozena t'erdi, gutxienez.

Leengo denboretan bezala, Lekuona apezta ta euskaltzale zintzoa dugu Bazkuna berpiztuaren ardatz tinkoa.

Orrenbeste gauzatik eskaiñi genion omenaldi bat kardaberaztarrek, jakiña, lagun arteko omenaldi goxo, maitekorra.

## **Nolako omenaldia?**

Tolosa'ko "Iparragirre" aretoan izan zen, Abendua'ren 28'an, goizeko 11'tan. Zenbait mintzale izan genituen. Laburki, gauza asko esan zizkiguten: aspaldiko ta oraingo gauzak, pozgarriak baita kezkarriak ere; besterik esan gabe, Lekuona'ren zenbait ikuspegi buruzko gauzak.

A. Albisu'k "Kardaberatz Bazkuna"ren edestia. P. Berrondo'k "Bazkuna'ren berpiztea". Lino Akesolo'k agertu zigun Lekuona euskaltzale, euskaltzain eta Euskaltzaindi'ko Buru bezala J. Gaztañaga, berriz, Lekuona'ren lanaz "Aozko Literatura"ren gaia: "Lekuona, Erti-lanen zelatari", anitz par egin-arazi zigularik. J. Elozegi'k "Omenezko Liburuak" aurkeztu zizkigun: txantxetan, 3 ale 400 orrialde dituztelarik; 137 idazlan, 115 euskal idazlek igorriarik.

Eliz-barrutiaren izenean, Argaya Apezpikuak eskerrak eman zizkion On Manuel'i, beti apez izan delako eta Elizaren alde ainbeste lan egin duelako. Barandiaran Joxe Miel Jaunak azaldu zigun: "Lekuona adiskidea, Lekuona ikas-laguna".

Azkenik, On Manuel berak itz egin zuen. Ongi artu genuen berak anitz ongi esana: "Orain artio euskeraren alde izan diran bezala, apezak berriz ere orrela izan bearko, euskera salbatzeko lanean".

Au dena pozik entzun ondoren, Tolosa'ko ostatu batean bildu giñen kardaberaztarrak, lagun-arteko bazkaria egiteko, On Manuel Lekuona -bere gogozko irri-barrez- maiburu genuela.

Arrats-aldera, Iruña'ra itzuli giñen goizean joan izan giñenak. Lekuona euskaltzalearen bizitze luzea esku-zartaz saritzera joan-eta, etxeratzeoan gurekin genekarzkien On Manuel'en betiko irri-par gozoa ta beste akullu suzpergarri bat:

"... apezak berriz ere..., euskera salbatzeko lanean".

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1977, urria-azaroa-abendua, 12. orr.

## KARGAZTULU

### **Euskal giroa?**

Beti atsegingarri zaigu sortu giñan errira itzultzea; batez ere, ango "mezetan". Egun orietan bereziki, gure baitan lotan daukagun munduan iratzartzen digute betiko karririk, aspaldiko yendeak. Mirarizko mundu orri esker, iraganak "gure" irauten du; an bertan daude oraingo gauza askoren zainak, ez bait da gauza baterik naiko arrazoirik gabe.

Aurtengo jaietara joan naiz bizkaitar adiskide batekin; berak Oliba'ko Monastegia ezagutu nai zuen. An erakutsi diot Euskalerrri'ko txistularirik zarrena: kargaztular bat, orain 800 urte arrian landua.

Bizkaitarra naitz arritu du Kargáztulu'n arkitutako "euskal giroak"; Aragoi'ko pusketaren bat giña uste zuen; emengoek, ordean, badakigu "muga" non dagoen.

Bazkarikoan, euskal itz anitz biltzen ditu gure etxekoen agotik; baita abizen asko, ta mendi-bazterren batzuenak ere.

- *"Zenbat euskal abizen! Zelango izenak! Zuen erriak oso euskaldun izana dau!"*.

Geroago, euskeraz mintzo da nere illobatxoekin. Ikastolan ibilliak baitira.

Karriketan, txistu ta gaitak entzuten ditugu; orain toki guzietan abesten diren euskal abestiak ere bai. Elizako "plaztan" betiko bei gorriak eta erriko gazte ausartak. Talde batekoek daramate ZARRAKASTELU ikurra atorretan idatzirik; bixitariei, beste atsegin bat; neri, ordean, ez! Nondik atera ote dute ZARRAKASTELU itsusi ori? Erronkari'ko "uskaldun" artzai zaarrek, bet KARGÁZTULU erraten zuten; orrela, obeki dagokio erromatarrek entzun eta idatzi zutenari.

Oraindik, "NAFARROA" izena duen liburu-dena ikusi du gure lagun bizkaitarrak; orren txunditasuna! -*"Kargástulu'n au be? Au kultura-bide ederra! Benetan "euskal giroa" dozue Kargáztulu'n"*. Iritzia eskatzen dit, baiñan ez diot agertu; ain berria danez, onek ni ere arritu nau. Geroak erranen du. Bestaldetik, nor ausartuko da, kargaztular nekazarieri, erakusten lurra giroturik dagoen ala ez?

Garde'tar Markelin

Principe de Viana, 1976, abuztua, 15. orr.

## "KILI-KILI" ALDIZKARIA KALEAN

Luzaro isilik egonez gero, berriz kaleratu da "Kili-kili"; berriz ere gure eskuetan. Eta, batez ere, berriz euskal baserrietan, euskaldun umeen eskuetan! Aunitz poztu gaitu "Kili-kili"ren agerraldi berri onek inportantzirik aundiena duelakoz.

Euskaldun ume ta gaztetxoek aldizkari maitagarria dugu "Kili-kili"; baiñan, ez da aldizkaria bakarrik: ori ta geiago da: **umeen bidez Euskera salbatzeko Erakunde egokia, bearrezoena.**

"Kili-kili"ren sortzaillea den Joxe Antonio Retolaza'k argi ikusi ta garbi esan du nola aterako da Euskera dagoen il-zoriatik:

**"Etxeko euskera, euskera bizi ori zuzendu, orraztu, landu, aberastu, sendotu, indartu... alfabetatu eta gauza egin non-nai agertzeko. Norberarena lantzea, erreza da; norberarena landuz gero, non-naiko euskera landua ulertzea erreza da".**

Retolaza'ren uste berekoak gera, ta "biotzean min dugu" ainbeste itsu ta gor Euskera gaixoaren bidetan gidari izatekoan. Esan dezagun, beingoz, ez daudela Madril'en bakarrik Euskera'ren etsairik kaltegarrienak.

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1983, martxoa, 4. orr.

## KRISTAUTASUNAREN BIOTZA DEN ERROMA'N

Aurtengo Maiatza, garrantzi aundieneko bat izan da Nparroa'rendako, batez ere, fedetasunari dagokionez. Kristautasunaren biotza den Erroma ontan, Maiatza'ren 25'ean, Paulo VI'gn. Aita Sanduak, Sandu-maillara jaso du Vicenta María López Bikuña, "*Naparroa'ko kristau lurralde zintzoetan sortua*".

Erroma'ko Pedro Sanduaren Eliz Nagusia, munduan den aundiena da. Elizkizuna asi baño lenago, jendez beterik zegoen. An bilduak gera mundu guziaren lurraldetatik etorritako erromesak; anaiak bezala gaude geren aitaren etxean. Arraza, izkuntz eta kolore askotako jendeak, bañan elkarturik abesten dugun Fede bakarrekin: *Credo in unum Deum... Siñesten dut Jainkoa*.

### **Mota guziko erromesak**

Mota guziko erromesak dena betetzen dute; itxasoz, legorrez, egazkiñez etorri dira; ta millaka etorri ere. Naparrak, 4.000 ta geiago. Guzien aurrean Forudun Diputazioa ta Iruña'ko Goi-Apezpiku Agurgarria; Iruña'ko ta errietako jendea; Erribera'koak (kaskantiarrak geienak) eta Mendietakoak; euskeraz eta erderaz itzegiten, abesten eta erreztatzen duen jendea; apez, monja, praile ta albistariak ere; an gaude guziak.

Ez da errez, eliz barnean, leku ona billatzea. Leku berezietan Kardenal Jaunen Sailla, Diplomatikuen Taldea, España'ko Ministru Jauna, Naparroa'ko Forudun Diputazioa, Kaskante (edo aintzinean bezala: *Kaskantui* edo *Basakontu*)'ko Udal-Batzarra. Beste leku berezi batzuetan *Trinitario* (Irukoztarren) Buruak eta "*Hijas de María Inmaculada*" Seroragoaren Nagusiak. Eta munduan ainbeste almen dutenak: albistariak! Iruña'ko "*El Pensamiento Navarro*"ren Zuzendariaren Indabe jaunari, ta bere idazlea den "*Shanti de Andia*" gazteari esker, irugarren lerroan jarri nindeken eta, ala, aditu ta ikusi nuen dena, euskal Aldizkari PRINCIPE DE VIANA ontan zerbait esateko.

### **Meza sandua ta guren-aitortzea**

Bederatzi t'erdietan Basilikaren argi guziak piztutzen dira; organu aundietatik, eliz-soñuzko burrunbak jeisten dira, inguraten gaituelarik.

Eliz-ondoetatik asita, Mikel Aingeru'ren "*Pietá*" ondotik, badator poliki, poliki, Aldareruntz gure Aita Sandua; bizkarraren gaiñean daramate, eramateko alkian, zortzi lagun artean. Aita Sandua, giza-buruen itxaso baten gaiñetik agertzen zaigu pixka zaarturik, kolore galdurik, zuri-zuria den-dena. Aurpegi aunitzetan, negarrak dariotela; atzendu ez daiteken ikuskizuna.

Aita Sanduak Mezari asiera ematen dio: "*Aitaren eta Semearen...*" Geroxeako, aren ondora Belmondi Kardenala ta, ziña emateko, Eliz-Escribau Nagusia, ta gaurko bi Sandu berrien afera aurrera-emaillea den Aita Zamalloa, euskalduna. Azkeneko onexek, Aita Sanduaren aurrean azaltzen ditu bi Sanduen bizi ta mirariak; eta arrazoiak emanez gero, bukatzen du au erranez:

"*Aita Sandua, auspez eskatzen diogu Berorren Sandutasunari bi auexek SANDUAK direla erran dezala*".

Letariak. Eta gizon makal baten abotsa, Jainkoaren gauzetaz mintzatzen dana:

"*Juan Bautista de la Concepción eta Vicenta M<sup>a</sup> López Bikuña SANDUAK direla esaten eta aitortzen dugu. Orrengatik, Sanduen Maillara jasotzen ditugu*".

Aita Sanduak legezko itz oriek esan ondoan, orduari so egin diot: amarrak eta ogei minutu dira. Dagon ixiltasuna, unkiarra da. Eztarriak koropilloturik daude. Ta, bat-batean, burrunba otzentsuena: Jainkoaren erria, millaka ta millaka, txaloka ta txaloka.

### **Aita Sanduaren predikua**

Aita Sanduaren mintzaldia, luze ta sutua izan da. Ta guziendakoa: sei izkuntzetan mintzo zaigu. Askotan, Aita Sanduaren itzak indarrez dardarazi gaitu, "*Naparroa*" esan duenean bezala.

*"Eliza bizirik dago. Gaurko egunean Sandutasunaren loreak, Juan Bautista de la Concepción: esanekotasunik gabe, berrizkuntzarik ez da; sandutasunak bakarrik egiten du berizuntza.*

*María Vicenta López Bikuña, gure egunetarik urbillago dugu. Naparroa'ko kristau lurralde zintzoetan sorturik. Bere kristau azieran, sutondoko aztarnak -bestek ez bezalakoak- berekin zituen; amarenak, osaba, apez eta izeba monjarenak. Etxe zokoan erakutsien garrantziaz, iñoiz ez dugu naikoa esango!*

*Denok elkaturik, Kristo'ren mezuari zintzoak zaitezte, zuen Aberrian arimako ontasuna ta giza-arteko aurrerapena eragiñez. Au da gure itxaropena, auetxek gure gogoak; egun argitsu ontan, bi Santu berrien eskuetan jarri ditugu, Jainkoaren aintzarako izan ditezen".*

### **Meza-eskeintza**

Aita Sanduari Meza ematen laguntzen zioten artean, ezagunak ditut: Tabera, Tarancón, eta Bueno Monreal Kardenalak, Gasteiz'ko Peralta Apezpikua, ta Kordoba'ko Zirarda'tar Joseba Mirena; Trinitario ta Jesuiten Buruak, bizkaitarrak diren Bizkargüenaga ta Arrupe.

Monja batzuek eta neska batzuek ere eskeintzen dizkiote "*olatak*" Aita Sanduari; neskatxak, Mantxa'ko, mexikar eta naparrak, beren lurraldetako soñeko bereziz jantzirik agertzen zazkigu. Opariak, lurak ematen duena: ogi ta ardo, olio, argizari, lore, usakume bi pare, Mantxa'ko gazta eta napar Erribera'ko aspergak. "*Oberen-oberena; dena merezi bait du*", kaskantiar batek zion bezala.

### **Jaun-artzea ta azkeneko bedeinkazioa**

Komunio'ko denbora, luze ta sutua. Naparrentzat, "*egun andiena*" da; mundu denarentzat, berriz, "*Urte Sandua*"; Aita Sanduaren Mezan gaude. Zerbaitetarako etortzen da Erroma'ra.

Eun apez, Gotzai, Kardenalak baño geiago, Aita Sanduari laguntzen diote Ogi Zerukoa banatzen.

Guzien azkenean, Aita Sanduaren Bedeinkazio berexia: elizkizun ontara joanez, Urte Sanduaren Grazia irabazi dugu beste baldintzak beteta.

"*Capilla Pontificia*" izeneko Abestaldeak "*Te Deum*" Ereserkia abesten du. Aren Zuzendaria den Aita Colino, irunsheme orrek, bukaera egokiena erabaki digu "*Cantemos al Amor de los Amores*" soiñua ematen.

### **Aita Sandua joan**

Dena bukatu denean, 11,50 dira. Aita Sandua doa; oraingoan, gure aldetik pasatu bear du. Alaxe da ta anitz ongi ikusi dugu: zaartua, makaldua, kolore gabekoa, zuri-zuria. Buru-



itxas baten gañetik igarotzen da; eramateko besalki berexi ortan daramate. Bere begiak gelditzen dira betiko bakoitzaren biotzean; ezin erran sentitzen dena.

### **Eguerdiko otoitza**

Igandetako oitura den bezala, Aita Sandua bere gelako leiora ateratzen da, kristau erriarekin batera Ama Birjiñari eguerdiko otoitza eskeintzeko.

- *"Iñoiz ez da ikusi San Pedro'ko enparantza gaur bezala beterik"*, esa dit Erroma'n bizi dan albistari batek. Geroago, ordean, dio: - *"Bearbada, 1950'ko urtean, Pio XII-gnak, Ama Birjiñaren Jasokundea siñes-bearra erabaki zuenean"*.

Aita Sanduak errezatzen du eta jendetzak erantzuten dio. Itz bi Elizak gaurko egunean bizitzen duen jai ontaz. Aita Sanduak bedeinkatzen gaitu.

Festa-giroa, neurri-bako enparantzan: batzarrak, agurrak, deiak, alkar-izketak, izkuntza guzietan mintzatuaz. Ta gutxi-gutxika, banatzen dira Uri barnetik.

### **Goitik beera**

Ezin bukatu dut goiztiri aundi au neronen bi esperientzi erran gabe.

*Bramante*'k eta *Miguel Angel*'ek egin zuten "*tipula*"ra igo naiz: 132 metro goitik beera. Aren pean, Erroma guzia; Erroma guziak. *"Andik ikusten dena, bai dela ikusgarri!"*.

Erroma ez da Eliza bakarrik. Bada ere eguneko biziaren iskamila; or daude, izkiñetan, jostaldi arin eta urrengo auteskunderen oiua. Roma da arri landu politen Uria, unkitzen eta aberastuten gaituzten "*ondar*" ederren Uria.

Baña, Maiatz ontan, beste gauz batengatik etorri gera Erroma'ra; obeki, beste Erroma'ra etorri gera; animen Erromara, betiko Erroma'ra, Zeruan izango den Uriaren irudia dugun Erroma'ra.

San Pedro'ko eliz-pera jetxi naiz, guziaren oiñarria dagon lekura. Ordu ontan ez da iñor; au ixiltasuna! Nolako garaia, Pedro'ren illobi ondoan otoitz egiteko!

Araxeago, Juan XXIII garrenaren illobi ondoan, biotz ondolik ateratzen zait Ronkali Aita Sanduari, Erronkari'ko uskaraz, gure artekoa izan bear den uskaraz, au esatea:

*Zu, gore Erronkari'ra xin ziñena zore izenburien txerka, ni kanko iri batean apez nintzenian; zu, gore Sandu ezin-ekuriaren gisan, Xabier'ko Gaztulan ezin lo egin zenduena; zu, kain onki Uruña'n artruk; zu, gore Uskalerrria izagun da kainbeste moite ekun duzuna, eginzazu gore altia Jinko Jeinaren aintzinian"*.

Garte'tar M.

Principe de Viana, 1975, maiatza, 2. orr.

## LEKU SAINDUTARAKO IBILLALDIA

Kristauori etzaio manatzen "Lur Saindu"ra joaterik. Baiñan Leku Sainduetara joateko "suertia" izanez gero, nor-berak daki zeinen gauza bikaiña den ori.

Joan den Irailla'ren azken egunetan eta Urrilla'ren asierakoetan, izan dut nik ibillaldi ori egiteko zoria. Aurten bete dira apeztu nintzenetik 25 urte, eta mesede on ontaz ematen dizkiot Jainkoari eskerrak.

Gure Maisu Onak bere erakutsiz eta bere ibilliz saildutu zituen bazterrak ikustean, nork asmatu, kristau batek, apez batek sentitzen duena? Biotz barruan gordetzeko zerbait, esker ona, lotsa...

Baiñan, badira joan-etorrian agertzeko gertakizun batzuek eta esateko asmotan nago.

Norbaitek esan zuen, Palestina'ko lurraldea nork bere begiz ikustea, "*bostgarren Ebanjelioa*" irakurtzearen antzekoa dela. Gure barruan egiñik daukagu Jesus'en irudia; baiñan, ango lurrak, jendeak, oiturak eta bizi-giroa ikusi ondoren, argiago ta sakonago ezartzen zaigu barruan Aren irudia.

"Lur Saindu" deitzen zaio Palestina'ri, lur berezi, zail eta elkorra; baiñan, oroigarri bikaiñez aberats eta emankorra. Iru erlijio-eraren sor-leku izan da, bai ta ere kultura askotako bide-gurutzea. "Lur saindu" artan zegon tokirik egokiena, maitasun-mezurik bikaiñena mundu guzira zabaltzeko: "*Elkar maita zazue! Nik maite izan zaituztedan bezalaxe maita zazue elkar*". Eta ori esan zuen, "*Ni naiz Bidea, Egia ta Bizia*" esan zezakenak.

### **As gaitzen**

Irailla'ren 20'an, berrogei lagun bat atera giñen Iruña'tik, Armendaritz H. Jauna, Diputazioaren Kapellaua, buruzagi genuelarik. Barcelona'rako bidea aski izan zen gure artean adiskidetasuna sortzeko.

Barcelona'ko portu aundian, "Cabo San Vicente" izeneko itxasontzi aundiak erraz irentsi zituen bere sabel zabalera 800 erromes ibiltariak; arratsaldeko 6'etan, aingura jaso zuten. Lendabiziko aldiz ezagutu nuen itxasontzi aundiko bizia zer gauza miragarria den. Dena garbi, dena egoki, ziñez lasai ibiltzeko egiña dago oietako itxasontzi bat.

Elizkizun ederrak ziran egun aietakoak; eun apez eta geiago batera elkar-meza ematen, billerako aretoa jendez beterik. Sor Edurne'ren abots eztiak, "*Ogi zerutik*" abestiaren doiña euskaldunon biotzetaraino sartzen zigun.

Egun aietan, itzaldi jakingarririk ere entzun genuen Liburu-Sainduetan jakintsuek emandakoak, Ejipto ta Israel ezagutzeko gu gertutu naiean.

Bare-bare aurkitu genuen itsasoa, joan-etorri osoan argiz eta urdiñez asetzen genituela gure begiak; legortarrendako, bai atsegin aundia itxasoko giroa! Irugarren egunean, gutxienik uste genuela, izurde-talde bat agertu zen gure inguruan jostari ta jauzika. Uratxe zen alaitasun ekarri zigutena, itxaso zabaleko bakardadean!

Irailla'ren 24'ko argiztean kai artu genuen Alexandria'n. Antxe, gure begien aurrean, misteriozko Sortaldea!

### **Lengo ta oraingo Ejipto'n**

Legorreratu ta bereala Kairo uriburu ospetsura abiatu giñen, 250 kilometro 20 autobusez egiñaz.

Ejipto zabalaren lur idor eta ondartsuen artean, Nilo ibaiaren ezker-eskubitan bakarrik ageri ziren lur gorri landuak.

Errixkak benetan atzeratuak eta errukarriak; jendeak, beartsuak. Etxeak, txikiak eta lurrezkoak, jendea eta abereak elkarrekin bizi zirelarik, "jitoak" bezala, garbitasun ttanttarik gabe.

Kotoi edo algodoi landare-alorretatik agur egiten ziguten bertakoek. Beartsuak dira; illunak, ez. Kotoin-biltzailleak, txoriak bezala kantari; emakumeen jantziek lore guzietako margo alaiak zituzten. Eta umetxoen begi aundi, beltzetan, dir-dir dago aingeruen garbitasun guztia.

Arriturik geunden. Abduh gure gidariak esaten zigunez, guk ez dakigu Sortaldea ezagutzen; ala izango da, bai.

Ona emen euskeratua, Abduh'k abestu zizkiguna:

**Nere aberria  
guztien ama da;  
nik anitz maite dut  
nere aberria.**

### **Kairo uriburuan**

Uri izugarria da Kairo uriburua. Iñork ez daki zenbat milloi bizilagun dituen... -bost, sei, zazpi?-, ez da "posible" Sortaldean ori jakitea. Dena naastua aurkezten zaigu: zarra ta berria, apain-geikeria ta bearra. Berebil garestiak, astoak, kamelluak eta jendea, denak elkarrekin dabiltz nonnai, Kairo'ko kale berri apaiñetan eta karrika mearretan barna. Eta iñor ez da asarretzen.

"*Ramadan*" deritzaion aldia da, gure Garizumaren antzekoa. Argia dagon bitartean ez da jaten. "*Ari biru bat zuri ala beltza nabaritzen den bitartean*", Mohama'k agindu zuenez. Gure gidariak, adibidez, artu bai artzen zituen guk emandako zigarroak; baiña, gerorako gordetzen zituen; "*Ramadan dugu, oso-osoko baraua*".

An entzuten genituen dorre luzeetatik egindako deiak; biotz ondoraiño sartzen ziren otoitz dei zoli ta biziak. Ba'dugu zer ikasirik guk ere! Eta jende aunitz belaunikatzen zen antxe, karrikan bertan, lurreraiño makurtuz egiten zituzten beren agurrak eta otoitzak; antxe, 5, 6 edo 7 milloiko uri baten erdian.

Eguerdi arte Museoa ikusten egon giñen. Arratsaldean berriz, "*Piramide*" famatuak ikusten. Egun bat besterik ez genuen izan 6.000 urte eta geiago dauzkaten ainbeste gauz miragarri aiek ikusteko; itz gutxitan ezin esan...

Piramide arrigarrien ondoan dagon "*Mena Errege*" ostatu aundiaren lorategi zoragarrian bildu giñen afaltzeko. Sortaldeko gauaren sorgiñezko giroan, jaialdi atsegiña eskeiñi ziguten; ametsetan ere asmatu eziñezko dantzak ziran. Salome dantzariaz oroitu giñen. Ez da arritzekoa, ba, Herode'k burua galtzea eta San Juan Bautista'ri galdu araztea.

Berriz itxasontzira itzultzea basa-mortuko beste bide batetik izan zen, eta gauz arrigarria; euria egin zuen" Bai, eun urtez egin gabeko euria. Autobusen gidari edo txauferrak ez daude oiturik euritan ibiltzen. Ez arritu, beraz, lau autobus baiño geiago bidetik kanpora atera zirela, ez bai dute autobusak aurreko kristala garbitzeko tresnarik.

### **Alexandria portu aundia**

Iraila'ren 25'an Alexandria ikusten ibilli giñan. Mediterraneo itsasoko porturik aundienetako bat da. Aspalditik oso ezaguna izan den uria. Alexandro Aundiak eman zion izena.

Bertako Argi-dorrea ta Liburutegia, orra aintziñatearen arrigarrietako bi. Urteek eta gizakiek dena desegiten dute; ala ere, antxe dago aspaldiko antziñatearen lekuko ixil eta mutu, Ponpeyo-ren zutarria, 42 metro edo luzeko, arri bakarreko ta osokoa.

Gure gidaritzat ejipto-jakintsu bat dugu; kristau "koptoa" da, ta bere elizaz mintzatzean zaletasun aundia jartzen du.

*- "Markox Ebanjelista izan zen, gure lurralde auetan, Kristo'ren 47'garren urtean, Kristautasuna erein zuena. Ebanjelioan dauka bere sustraia Alexandria'ko Eliza onek. Lau orduz irauten du "kopto" en mezak; baiñan, igandea Jaunaren eguna da; ta, gaiñera, Apostoluak egin zutena guk ez dezakegu aldatu".*

Katakunbetan, predikalari sutsua iduri zuen. *- "Ejipto'n aunitz ixuri da odola, kristauen odola; leendik eta geroago; erromatarrekin bai ta arabitarrekin ere. Izan zen "Sultan" bat, kristau-odoletan ingiritan bere zaldia ikusi nai zuena, ta ikusi; egun bakar batean, 37.000 anai il zuten Alexandria'n. Beti zailla izan da Ejipto'n Kristau izatea. Nai nuke nik jakin nor den Erroma'n Kristo'rengatik beatz bat eman nai duenik".*

Errespetuz entzuten genion; bere ezpaiñetatik mintzo ziren maitasuna ta miña. Berak ez dakizki Erroma'ko Elizaren gauza ederrenak; baiñan, guk ere ez dakigu aunitz, bi mille urte bitartean, basamortuan loratzen duen Eliza martiri ta saindu batez.

Gaur, Irailla'ren 25'garren eguna, "Premin Txiki" Sainduaren jaia dugu naparrek, aren iltzearen jaia. Naparra, iruñ-semea, iruña'ko lendabiziko apezpikua. Kristo'rengatik eman zuen bere odola. Eta ez eusko lurean.

Itxasoz beste egun ta gau bat. Orain, bai, Leku Saindutara, Israel aldera. "Eretz Israel", Jaunaren Etxea, fededun guztien Aberria.

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1975, urria, 6. orr.

## LEKU SAINDUTARAKO IBILLALDIA (III)

Haifa'ko portu ederrean, eder eta geldirik dago gure itxasontzia; bera baiño oberik ez dago ostaturik.

Irailla'ren 27'ko ondar... ondakiñak ikustera; "moruak" an sartuz geroztik, kondaira antxe bukatu zen.

Haifa'ko "Aduana"n, betiko azterketa, beti bezain zorrotz. Ortarako ez ba'da, zertarako, ba, an dauden neska-mutil begirale ain ongi-ikasi aiek? Esku-zorroak, argazki-makiñak, bai ta gure gorputzak ere, zeatz-meatz aztertzen ginduzten.

### **Itxas-ertzean barrena**

Azkenik, egoaldera jo genuen itxasertzeko bide-zabaletik.

Ez dago ertzean aitz aundirik; baiñan, aren geiena, arrizkoa da. Ondartzak, berriz, gutxi ta txipi. Gatzaga aundiak ageri dira; ortarako ur gazia, bonbaz, jasotzen dute. Leku loizunetan, Australia'ko eukaliptu zugaitzak landatu dituzte, geiegizko ura xurgatzen dutelarik, lurra legortzeko.

Ezkerretan, Saron'go Ibarra, anitz zabal eta eder. Mende onekin batean, emen asi ziren judutarrak lenengo etxeak egiten, eta "kibbutz" izenekoak eraikitzen. Ontan, laguntza aundia eman zien Rothschild dirudunak; ala ere, neketsu ta gogor aien lana. Aurrena, aizeak eramandako area edo ondarra kendu bear izan zuten; belaunetaraño lodiko ondar-azalak estaltzen zuen, azpian zegon lur eze ta emankorra. ongi zaindutako naranjadiak, sasiz inguraturik daduzkate, aize legortzailleetatik babesteko. "Kibbutz" edo "liberri" au da lurgintza elkartuetan, algodoi-soro aundiak ageri dira. (Oraiko Israel'go irudizat artu dute algodoi-lore lerdena.) Soroetan, uztagaillu galantak lanean; "kibbutz" auetan, lan obe ta geiago egiten du gizon batek bere tresna aundiz, Faraon'en Ejipto'n ikusi genituen "jitu" talde aiek baiño.

### **Itxasaldeko zesarea**

Egoaldera 30 kilometro joanik, Itxasaldeko Zesarea'ren ondakiñak; zin-ziñez, zerbait aundi izandakoaren ondarrak ditugu.

Iri au Eleniko-Aroan indartu zen; bazuen orduko jendeek egindako portu bat, gaur, puskaturik eta urpean ikusten dira portuko kaiak. Zesarea'ko aberastasun ugarien atea zen portua. An bertan ezarri zituen Herode Nagusia'k 12 arrizko giz-irudi gaitzak, 20 millaz urrutitik ikusten ziranak; gaur, lurrean daude, puskak eta puskak...

Ementxe bizi zen Arkelao; bai ta ere Erroma'k bidalitako Gobernadoreak, judutarrak menpean zitzatzen; Festo Gobernadoreak ementxe epaitu zuen Jon-Done Paulo.

## LEKU SAINDUTARAKO IBILLALDIA (III)

Haifa'ko portu ederrean, eder eta geldirik dago gure itxasontzia; bera baiño oberik ez dago ostaturik.

Irailla'ren 27'ko ondar... ondakiñak ikustera; "moruak" an sartuz geroztik, kondaira antxe bukatu zen.

Haifa'ko "Aduana"-n, betiko azterketa, beti bezain zorrotz. Ortarako ez ba'da, zertarako, ba, an dauden neska-mutil begirale ain ongi-ikasi aiek? Esku-zorroak, argazki-makiñak, bai ta gure gorputzak ere, zeatz-meatz aztertzen ginduzten.

### **Itxas-ertzean barrena**

Azkenik, egoaldera jo genuen itxasertzeko bide-zabaletik.

Ez dago ertzean aitz aundirik; baiñan, aren geiena, arrizkoa da. Ondartzak, berriz, gutxi ta txipi. Gatzaga aundiak ageri dira; ortarako ur gazia, bonbaz, jasotzen dute. Leku loizunetan, Australia'ko eukaliptu zugaitzak landatu dituzte, geiegizko ura xurgatzen dutelarik, lurra legortzeko.

Ezkerretan, Saron'go Ibarra, anitz zabal eta eder. Mende onekin batean, emen asi ziren judutarrak lenengo etxeak egiten, eta "kibbutz" izenekoak eraikitzen. Ontan, laguntza aundia eman zien Rothschild dirudunak; ala ere, neketsu ta gogor aien lana. Aurrena, aizeak eramandako area edo ondarra kendu bear izan zuten; belaunetaraño lodiko ondar-azalak estaltzen zuen, azpian zegon lur eze ta emankorra. ongi zaindutako naranjadiak, sasiz inguraturik daduzkate, aize legortzailleetatik babesteko. "Kibbutz" edo "liberri" au da lurgintza elkartuetan, algodoi-soro aundiak ageri dira. (Oraiko Israel'go irudizat artu dute algodoi-lore lerdena.) Soroetan, uztagaillu galantak lanean; "kibbutz" auetan, lan obe ta geiago egiten du gizon batek bere tresna aundiz, Faraon'en Ejipto'n ikusi genituen "jitu" talde aiek baiño.

### **Itxasaldeko zesarea**

Egoaldera 30 kilometro joanik, Itxasaldeko Zesarea'ren ondakiñak; zin-ziñez, zerbait aundi izandakoaren ondarrak ditugu.

Iri au Eleniko-Aroan indartu zen; bazuen orduko jendeek egindako portu bat, gaur, puskaturik eta urpean ikusten dira portuko kaiak. Zesarea'ko aberastasun ugarien atea zen portua. An bertan ezarri zituen Herode Nagusia'k 12 arrizko giz-irudi gaitzak, 20 millaz urrutitik ikusten ziranak; gaur, lurrean daude, puskak eta puskak...

Ementxe bizi zen Arkelao; bai ta ere Erroma'k bidalitako Gobernadoreak, judutarrak menpean zitzatzen; Festo Gobernadoreak ementxe epaitu zuen Jon-Dono Paulo.

Kristau-giroan, emen egitazko "igarleak": Agabo ta Felipe Diakonoaren alabak; emengo Apezpikua izan zen Zesarea'ko Eusebio idazlea, Elizazko Kondaira'ren sortzaillea dugu. Ta emen izan zituen itzaldi ta mintzaldi asko, Alexandria'ko Origenes aundiak.

"Gurutzada" zaleak katedral aundia egiten asi ziren; or daude ondakiñak; aiek egindako gaztelu ta arresiak, gaur ondaturik daude.

Judutarren Estadu berriak berriztatu da "anfiteatro" edo antzerki-toki borobilla; egia esateko, anitz ongi gorderik zegon, zabor eta arearenpean. Antxe ospatzen dituzte, uda orotan, Israel Laterriko Musike-jaialdiak eta Antzerki-saioak. Zesarea'ko arrigarriena, an bertan aurkitutako arri bat. Elizaren aurkako mingain asko ixilarazi dituana. Esaten oi zuten:

- "Pilatos ori, kristauen ipuia, besterik ez da; iñon ez da ageri aren izena Erroma'ren Kondairan..."

Ta, orain zortzi-amar urte, agertu zen oroitarri jatorra, itz auek dituana:  
"Zesarea'ko erriari TIBERIEVM edo anfiteatro au eskeintzen dio PONTIVS  
PILATVS jauna".

Naiz, nik artutako argazkia ona ez izan, ez nuen oroigarri berezia galdu nai, ta nolanaikoa dela argitara ematen dut.

Oroitarri ori gabe ere, ziur geunden Elizak erakutsi digunaz:

**"... Pontzio Pilato'ren menpean, gugatik gurutzatua izan zela..."**

### **Karmel mendi gaiñean**

Arratsalde erdia da. itzuleran, Haifa gain-gaiñean dagon Karmel Mendira igo gera. Uriko karririk mendian goraka daude; gorago, "piñu" edo ler artean, "txalet" izeneko etxeño politak.

Goienean, Karmeldarren Santutegia dago, Karmeldar Ordenaren sorlekua. "Gurutzada" zaleen aroan sortu zen Ordean; baiña, bere sustriak aspaldiagokoak ditugu: Elia Profetaren gisara, mendi ontako bakardadean beti bizi izan diren kristau anakoreteen artean galtzen dira Karmeldarren erroak.

Lau mende luzez, arabitarrak edo moruak iraun zuten bazter ontako jaun eta jabeak. Oroitarri batean idatzia danez, 1631 gn. urtean berriz ere Karmeldarren esku egotea lortu zuen Garaizabal abizeneko euskaldun fraile batek.

Esaten oi dutenez, aldare nagusiarenpean dagon aitz-zuloan bizi izan zen Elia Igarlea. Orrela ezin-besteko oroitarriak:

**Hanc aliqvando spelvncam incolvit  
magnvs ille prophetarvm  
dvx et pater Elias Thesbites**

**Bat-beinka, leze ontan bizi zen  
Elia Tesbitarra,  
Igarlien Aita-Buruzagi Nagusia.**

Ango praile batek kontatzen digu:

*- Inguruetako arabitarrak jaiera aundia diote Elia Profetari. Beren aurrak Agorrilla'ren 16'an igotzen dira gurutz-antzeko mozqueta egin dezakiegun, eta ala poz-pozik jeixten dira, uste bait dute orrela bereganatu dutela "Su-Profeta"ren babesa.*

Eliza aurre aldeko zelaian badago "piramide" txiki bat, gurutz batez gallurraturik, 1799 gn. urtean, urbilleko Acre'n, Napoleon'en bi mille ildako gudariei eskeiñita. Alde batean irakur daike:

**Qvomodo cecidervnt  
fortes in bello!**

**Azkarrak burrukan  
orrela erortzea!**

Karmel mendi-pean, itxasoaren bazter berean, "Exodus" izeneko gabarra famatua, monumento egiñik. Munduari oroit-arazi bear zaio gaizki dagola bestek menperatzea. Eta oraindik direla munduan, Aberri baten alde bizia emateko gizon on prestuak.

Illuntzean gaude. Uretan sartzen den eguzkiak odolez gorritu du itxasoa.

"Bista-Eder" balkoitik, ari gera Haiffa'ra begira, gabeko Haiffa'ren ederra. Ortzadar bat, milleka argiz orniturik, ematen du itxas-ertzeko kolkoak. Beste buruan, Acre. Or bizirik agertzen zaigu Naparroa'ren Kondaira, 1238-1243 gn. urtetan, ortxe baitziren egonak napar zaldunak, I'go Thibalt Erregekin. Eta Naparroa'ko Errege "Gurutz-zale" ta "Koblari"aren LIV'gn. "Chanson" ura bururatu zaigu:

**Yakinzak, yaona,  
Yinkoa bizi ta il zen errialderat  
yoana,ez dela, ez, Eburnirat  
yoanen, bainan Paradisurat.  
Goiko Yaonaren Krush Saintia  
gure gain arturik,  
egin zagun indarra  
Aren Erri ta Lurra  
izan deila libraturik.**

Larunbata dugu, Nazaret'eko Neskan-eguna. Kristau ezkilantto alai batek, itxaso ta mendi guzietan barreatzen du Karmel'go dei ezitia. Sartu gera elizan. Ama Birjiña'rengana gure otoitza:

**"Agur, Erregiña, Ama errukiorra!"**

Norbaitek nabaritu gaitu, gure txapel aundiak ezaugarri izanik.

Biotzetaraiño sartu zaigu, Sortaldeko gau eder ontan entzuten den oiua. Alzugaray lesakarra ta Guipuzkoa'ko Zubizarreta, emen bizi diren bi euskaldun praile karmeldar. Aanztu ez daiken oiua bat, nunnai gauden eta nolanaikoak geran, elkartzen gaituen itz berezia; Abendaren deitura:

- Euskaldunak?

**Ona emen, Jerusalem'a igoten gera!**

Jon-Done Mikel'en egunean, 4 t'erditan iratzarri gaituzte.

Jerusalem'en bi egun pasa bearrean, emazteki-taldeak daramazki ezin kontako zorro, beroki, soiñeko ta maletak. Nolako muga-azterketa! Goizeko 6 t'erdietan abiatzen da autobusen errenkada luzea.

Samaria erditik dijoa bidea. Aingeru, gure gidari jakintsuak, aipatzen dizkigu gure bideko bi alderdietan gertatu diren gauzak, mundua asiz geroztik gaurko amabitariño.

Samaria'ko zelaletan, judutarrek -indarrez area kendu dutelarik- deserturrari lurra irabazi diote; arrazoinez, arro-arro dabiltz. Aurreragoan, errialdea menditsua da, arriz jositakoa. Denbora gutxi arte, Jordania'rena zen. Arabitarren nekazaritza, oso atzeratua. Judutarrek ez dute sartu nai emengo aferetan, berdin alde egin bearko dute; bideberria, bai egin dute guduari buruz.

Naplus: 30.000 bizi-lagun, arabitar denez. Sikem: "Samaritarraren Putzuan" greko-ortodoxo batek bertako ur ona ematen digu. Ortxe, 868 metroko "Garizim" Mendia.

Aurreruntz jo ta, malda gora, malda bera, azkenik, Jerusalem!

**Ona emen, Jerusalem'a igoten gera!**



Jerusalen, Iri Saindua, iri zar-zarra! Zure erresia, atari ederrak, ezkil-dorreak, urrezko "tipulak", zeruetako Jerusalem'go irudia! Or dago, ta ezin uste emen gaudela!

"Olibeta" Mendian ikusten dugu gure Jaunaren zeruratzeko lekua. "Pater Noster" dioten elizan sarturik, arkupetan ikusten dugu, beste izkuntza "Aita Gurea". Arana Goiri'tar Sabin'en "Idaz-lan osoa" liburuari esker, banuen ezaguna nola eldu izan zen euskal otoitza 1902'gn. urtean. Ta, Jaunaren itzekin eta Berak esan zizkiguten lekuan, Goiko Aitari eskatzen diogu, euskaldunen arteko burrukak ken dezazkigun.

Jon-Done Mikel'en gau ontan, "Jetsemani" Baratzean, gure "Zillarrezko Eztaietan" Meza; "Agonia"ren arri gaiñean. Orrek ikarutzen gaitu, benetan! Nere lagun den B. Urtasun, Oroz-Betelu'ko apez eta biok "Aralar" Anai-arteke Otoitza bota egin dugu, beste lagun guziz oroitzen:

**Jesukristo, gure Jauna, Maitasun-Apezburua ta Maitasun-oparia, Eukaristia ta Apezgoaren Gau Saindu artan...**

**Eta, Aralar'ko Goi-Aingerua, gure "Ikastalde"ko Gidaria, lagun bekigu, Jainko-Aintzaren billa, aren gisan, besteen aurretik joan gaitzen...**

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1976, urtarrila, 6. orr.

## LEKU SAINDUTARAKO IBILLALDIA (II)

### Egitazko Lur Saindua

Iraila'ren 26'ko argiztean, ikusi genuen egizko "Lur Saindua". Batzuk igo gera itxas-ontziko bizkar nagusiraño goizetik, merezi bait zuen. Andik ikusten dena, ikusgarria da. Urrutiko mendi-zerrenda gaiñetik, eguzkia datorkigu dena urrezko su-garretan pizturik. Esango nuke Elia'k "Suzko Profeta" k, Karmel Mendiko lezea utzirik, atera zela "Ongi-etorri!" esatera.

### Haifa, iri berri ta kai aundi

Baditu 300.000 bizilagun; eta Sortalde ontan, dena zaarra den lekuan, Haifa iri berri bat da.

Etxeak, lerdoi artetan, igo dira Karmel Mendi gora. Emen daude "Teknion" eta beste Ikastetxe garrantzitsu batzuk. Au da Israel'go lantegi-alde nagusiena: altzairu, leiar, arrolio... Haifa da, batez ere, bere kaia. Au da Inglesek Palestina'n utzitako gauzarik oberena. Bost milloi tonela sal-eros-gaiak pasatzen dira kai ontatik urtero. Orain eun urte, T. Herzl'ek izan zuen ametsa, bete beterik ikusten dugu. Eguneko arabi-judutarren asarrean, Haifa'ko kaia, Israel'go zilbor-estea munduarekin da. Andtxe, alderdi guzietan "moruak" daude, itxas-ertzean ezik...

Bazkal ondoan, ontzitik jetxi gera. Mugazainek, jendetasun guzia; baiñan zakel eta zorroen ikusketa, zorrotz egiten dute. Israel beti erene; etsai-giropean dago. Orregatik, uste baiño begi geiago zure gain.

- "*Beldurrik ez, esan zuten; munduko iñungo lekutan baiño, zainduago zaudete emen*". Eta jakin genuen "gizon-igelak" ur-petik zebiltzela itxasontzia gordetzen. Aldi berean, kaia, Erriaren izena ta turisteen dirua zaintzen dituzte judutarrek.

"Sabbat" edo juduen jaiaren bezpera da, ta jendeak lana utzirik, etxean pasatzen du arratsaldea, egunkariak irakurtzen balkoietan. Illuntzean, afaria familian egiten dute. Ostatu, taberna ta "bar" oiek, arrotzarendako, ura danetz: "Pasako txoriari, arri-koxkor!". Dena dago emen garesti.

Ez da auto edo beribil askorik ikusten. Jende geiena, Estaduko autobus urdiñetan ibiltzen da. Israel guziak ongi ezagutzen du itz gogor bat: *larritasuna*. Egia esateko, aldamenekoek daukate "gasolina". Erdi irri-par batekin, gure gidariak azaltzen digu bere erritarren barrengo kezka:

- *Jainkoak eman ba'ligu beste Moishe berria, bere makillakin arrolioa jario-arazteko basamortuan...*".

Iruña'n eta gure errietan ainbeste "tarrantakin" ikus ez daikenik, Haifa aundiko karriketetan ikusten da. Mutikoak futboleant, animarroan, jostatzen ari dira arrigarritzko bitxitegien leio aundi artean, Haifa bat da "diamante" edo ikatz-arri ederren munduko Uri-burua.

Afal-ondoan itxas-ontzira datorkigu Israel'go dantza-talde bat. Zein urrun dago au Kairo'n ikus-arazi zigutenetik!

Batzuk "minué" antzakoak dira: mutillen jantziak Erronakari'koak dirudite. Nere ustez Europa-erdian judotarrak bildutako dantzak: Hungria'n, Polonia'n, etab.

Azkenean "karrika-dantza" itxura duena. Nigana datorkit 17 urteko neskatil tematsua, dantzara atera naiean. Euskeraz esan diot:

- "*Beste ate batean, jo bear*".

- Arek, berriro:

- "*Kastillano!*"

Orduen bota nion nere erriberatik gordetzen dudan oberena:

- *Aivate diay, mueta, que no me cuaca. Quió que risión hariay!*

Ez dut uste ulertu zuenik. Baiñan bakean utzi ninduen. Baziren an ulertu zutenak eta oraindik irriparez daudenak: On Honorio, Azkoien'go sendagillea ta bere andrea, ni bezala, kargaztulutarrak.

Azkenean eta denen artean, judutarren aberri-agurra, Bibliazko itzez ta kristau mamiz: "*Pakea zuekin!*".

**Evenuh Shalom aleijem;  
Evenuh Shalom aleijem;  
Evenuh Shalom aleijem;  
Evenuh Shalom  
Shalom, Shalom  
aleijem.**

### **Nazaret alderuntz**

Biamonean, 5,30-etan ezarri-arazten gaitu aize ezagun batek: "*Levántate, pamplonica...*" Irun-sheme txorri-arrapatzale batek ala ospatu nai izan du Arrizabalaga Kapitain emaztearen sorteguna.

Nazaret aldera goaz, 40 kilometro, Kristauendako, Nazaret Galilea'ko biotza. Nazaret'i "*Nasrat*" deitzen diote; "*begirale*" esan nai du. Ortatik kristauei ere "*nasratim*" deitzen diete.

Jesus'en denboretan 40 etxe zituen erri onek, gaur 40.000 biztanle ditu. Geienak arabi ta kristauak dira. Zoritxarrez, arraza ta erlijioaren ezberdintasunak erabiltzen dituzte komunistek Udaletxea (Aiuntamentua) bereganatzeko.

Uri gaiñean, Anunziazion'eko Eliz Nagusia, Paulo VI-gnak, saildutu zuen Martxoaren 23'an. Eliz "*tipula*" arri zuri-arrosaz egiña dago, ta urrundik zerutik jeitxitako lili aundi bat dirudi. Gaiñean dauken gurutza, Israel'go Gobernuaren gogo-oneko oparia da.

Meza Nagusia, 110 apaizek elkarrekin emana; erromes geienak jaun-artu zuten. Gero, Basilikaren barrena ikustatu genuen. Orain egiña, arrigarria da; lenagokoa, unkiarriago, Ebanjelioko denboretaraiño eten gabe eltzen geralakoz.

"Kruzada"-etako eliza baten orma bat oraindik zutik dago. Oraindik ere irauten du bizantinoen eliza baten "*mosaiko*" batek. Orren azpian, aintziñako eliza judeo-kristauaren arri zaar batzuk oaptu dira, eta aietan irakurri leike: "*Jaire Maria!*", au da: "*Agur Maria!*"; eta "*Kyrie, soon!*", au da: "*Jauna, salba gaitzazu!*".

Eta denetatik unkiarriena aitz bizian egindako gela, aintziñako etxe pobre baten itxurarekin: bertan irakurtzen da:

### **Verbvm caro hic factvm est itza aragi emen egin zen**

Eta begirun audienaz musu bat jartzen dugu arrian.

Eman, zer beste oberenik, "*Agur Maria*" esatea ta lekuko oroigarria gordetzea baiño?

Nazaret errian gauza aunitz ikusi daitezke: katoliko, ortodoxo, melkita ta -azkenean- protestanteen elizak. Galilea guztiak, baiña batez ere kristau guztien biotza. Emen denbora geienez bizitu bait zen Jesukristo.

Lenbiziko mendearen il-obi bat ikusi genuen; antza ta denbora bera duen beste bat Jerusalem'en dago. Eta Ama Birjiñaren Iturria.

Arabitarren "azoka"tik ibilli giñen "txutxeri" ta betiko oroigarriak erosten.  
Haifa'rakoan, Kana'tik igarotzen, Frantziskotarren eliza txiki batean gelditzen gera.  
Atarian, arabitar kankaillu batek saldu nai digu, urrez pagatuz, bertako eztai famatuetan  
sobratu zen ardoa...

Lur miserable, arriz jositakoak dira alderdi auetan: ez dago maasti txar, piku-ondo,  
milgranak, ta olio-arbol bat besterik.

Jesus'en itza ez da unkaillu bat; olako pobretasunen artian, gure diru-gosearen  
garbigaillu bat baizik.

Afalondoan, Iraola arrebak nigana urbildurik, itz gogor au jakin-arazten dit:

-Egin dute...!

## Galilea'ren barna

Bart artu genuen zorigaistoko berriakin gaua gaizki igaro.

Bost t'erdietan jeiki, ta berriz Galilea'runtz. Anjel Perez Gordo, España'ko praile bat  
gure gidaria da; bidaldian, tar-tar-tar... Ainbeste itzak eta beste denboretako kondairak  
minduten naute, Gaurkoak, obeki ixillik eta otoitz egin...

Tabor mendia, Galilea'n nagusienak 770 m. ditu, Tiberiade'tik. Andik, Israel  
lurraldeko zati aundi bat ikusten da. Ez daike arritu San Pedro'k esan zuenez: "*Jauna, emen  
ederki gaude!*", Jesus'en irudi-aldatzea ikusirik.

Mendi tontorreko elizan, meza ematen dut España'n illak izan diren bost gaztien alde,  
beren senideen alde, gure Erri ta jende guziaren alde. An bertan dagon Izen-liburuan,  
euskaldunen miña nik idatzitako itz auetan geldituko da:

"*Bai, poza emen egotea! Baiñan, gure erria ez dago gaur Tabor mendian, Golgotan  
baizik. Erruki, Jauna!*"

Eguerdi baiño lentxeago, Jordan ibai ertzean gaude; ur pixka bat biltzen dut, Iruña'n  
bataiatzeko an zai dauden Asier eta Imanol.

Bazkaria an urbillean, Tiberiade'ko Ostatu eder batean; itxas-ertzean. Ematen digute  
jatera, bertako "San Pedro'ren Arraiña", su bizian erretakoa. Ez dut sekulan aurkitu ainbeste  
errenik. Litro batek ardo, 4 dolar. Etxe artako Nagusia, arabitarra ba'zen, judetu zorian zegola  
uste dut.

"Zoriontasunetako Eliza" ere ikusi genituen, baita "Ogiaren Ugaritzekoa" ere, IV-gn,  
mendeko "mosaiko" batekin, eta Kafar-Nahun'eko ondakiñetan Sinagoga ederra eta judeo-  
kristau eliz txiki bat, Pedro arrantzalearen etxea zen-lekuan.

Txalupetan sartu giñan, berriz Tiberiade aldera, itxasoaren barna joateko.

Jesus eta bere ikasle joan-etorriaz oroitu giñen. Itxasoko erdian "Boga-Boga" abestu  
zen.

Golan Mendietatik, Siria'ren izkilluak guri begira. Gure ondotik, itxas-ontzi judutar  
batek bere kañoiak atera zitun eguzkitara.

Eta gure Yaunak "Pakea zuekin!" esan zuen lekua, Galilea burrukalari au omen zen...

Garde'tar M.

## Liburuak

### MAITE DEDANA

Ez da errexa bizia; au ongi ikasia du Olabeaga'tar Iñaki Anaiak. Euskalerriko ikastetxetan utzi du bere bizi luzearen geiena; gure mutikoen eziketaren alde eman du. Biotzeko Anai onek ez du sekulan eskutuan izan bere elburu bikoitz eta argitsua: "*Jainkoa ta Euskalerria*".

- Poztasun eta atsedeen aundirik, bide ortatik?, galdetu nion bein batean.

- Ezin konta!, esan zidan.

Nik berriz:

- Eta amets-etenak, bai ta nekeak ere?

- Egia da; naikoa ta ez-naikoak ere!

"Bizitzaren udazkenean"-aren itzak erabiltzeko-, Olabeaga'k "maite duena" olerki-bidetik datorkigu. Ta olerkari fiñe, bikaiña, agertzen zaigu maixu jakituna izan den Anaia.

Bere bertso guztiak samurtasunaz beterik daude, Jainkoarendako, Izadiarendako, Euskal Erriarendako maitasunez beterik. Gaurko ta biarko euskaldunen biotzetan "kilikarri" ditezen.

Eskerrik asko, "Txotx" maite ori, zure opariagatik!

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1975, azaroa-abendua, 8. orr.

## Liburuak

"NAPARROA, EUSKAL-ARROBIA "

Idazle: "LATXAGA"

Argitaratu: EDILI

276 orri; argazki ugari

Eder, anitz eder, "Latxaga" k eman digun liburu berria. Ez naiz ni orain ari kanpotikako edertasuna: azal gorria, argazkiak, paper lodia, izki garbia, ez. Liburu orren barneko ederra aipatu nai nuke.

Zertan dugu? Nere ustean, egilleak artu duen gaia bera: Naparroa-ren euskal biotzeko taupada. "Latxaga" k napar bazter guziak jota, aien euskal odol-bultzak maitasunez bildu ta esku zabalez eman dizkigu.

Arritzeko lana! Maitasunezko semea dugu "Latxaga" k sortutako liburua. Eta, jakiña!, "maite-saria, neke ta miña".

Oso langille ta Naparroa k lilluratuta dan "Latxaga" ri esker, badugu naparrok - euskeraz- zerbait zoragarri, aberatsgarri, astingarri. Liburu ortara, berriz eta berriz, itzuli bearko dugu, gure Naparroa obeki etzagutzeko eta maiteago izateko.

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1973, iraila, 8. orr.

## NAPAR LIBURU ZARREN ERAKUSKETA

*Refranes y sentencias comunes en bascuence, declaradas en Romance con numeros sobre cada palabra, para que se entiendan las dos lenguas. Impreso con licencia en Pamplona por Pedro Porralis de Amberes, 1596.*

Negargarria da 1596'gnean. Iruña'n argitara emana zuten liburuarekin gertatu zena. Goiko argazkian ikusten dugun "Refranes y Sentencias" izeneko liburua, Van Eys euskalzaleak aurkitu zuen Alemania'n. Urrengo 1939-45'ko gerratean, bonbaketa batetan, Darmstadt Erriko Liburutegian kixkaldu zen liburu berexi orren ale bakarra.

Badakit zuek, gure errietako jende leial oiek, liburutarako denbora geiegirik ez duzuela izaten; bear ba'da ez zaizkizue liburuak geiegi inporta. Baiña liburua, lanarekin batera, izan da mundua aurreruntz joateko tresnarik nagusia. Eta ortan gaude.

Urrilla'ren erdiraño zabalduz izan da Naparroa'ko Erakustoki edo Museoa, eguneko eta antziñako napar liburuak erakusteko asmoz. "Europa'ko Argitaratzaileen V'gn. Billera", aurten Iruñan izana, izan da garrantzidun Erakusketa onen aitzakia.

Naparroan orain ditugun Argital-etxe ta Erakundeek aurkeztu dituzte beren goi-maillako liburuak.

Ortiz gaiñera, "Principe de Viana" Erakundeak, Fernando Redón Jaunaren zuzendaritzapean, antolatu zuen Napar Liburu Zaarren Erakusketa. Baita arrera ona eskeiñi ere Europa'ko Argitaratzaileei, Erakustoki edo Museo'ko Areto Nagusian.

Xabier Zubiaur, "Príncipe de Viana" argitalpenen arduradun dena, mintzatu zen Naparroa'n irargintzaz eta lenengo denbora artan atera izan ziren liburuaz.

Iruña'n lendabiziko agertzen zaigun moldiztegia, Gilen Brocar'ena da, eta lenengo liburua, "Manuale Ecclesiae Pampilonensis" edo "Iruña'ko Eliz-barrutiko oituren esku-liburua", 1486'gn. urtean aterata.

Brocar, aleman edo frantsa -iñork ez daki-, Gutemberg'en ikaslea zen; Naparroa'ra etorri ta Maria Zozaiakin ezkontuta, iru seme-alaba izan zituen, Lizarra'ko Miguel de Eguia bere suiña zelarik. Brocar, Nebrixa'k zionez "irartzalle trebe ta oberena", deitu zuen Cisneros Kardenalak Alcalá Unibertsidadera "Polyglota" edo "izuntz askotako Biblia" argitaratzeko.

Atsegin izanen zaizue esanen dizuena. Irarkolak ez zituen euskarazko liburuak baztertu. Naparroa'n Liburu-argitaratzen asi ziren bezain laster, asi ziren euskal liburuak eta euskaldunenak argitaratzen. Adibidez, "Regulae" edo "Atsotitzak egiteko araudia", benafatar Masparraute'ko Istebe'k egindako, eta Brocar moldiztegian 1492'gn. urtean ateratako liburua.

Euskal liburu bat agertu zen 1561'gnean. Lizarra'n, Anvers'ko Adrian'en irarkolan: "Doctrina Christiana" edo "Kristau Dotrina", Elso'rena.

Au bukatzeko esan dezagun aipatu dugun Erakusketan nafartar Axular'en GVERO famatuari leku ederra eman ziotela. Orreaga'ko Kalonje Jaun agurgarriek utzi dute Erakusketa ontan erakusteko.

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1981, iraila, 16. orr.

NORBERT TAUER

## **Euskaldunek Txekoslovakia'n dugun adiskidea**

Euskaltzale zintzoa ta Oore-Euskaltzaina den Norbert Tauer jaunaren agurra etorri zaigu, Praga'tik ibilli den San Martin Euskaltzaindiko Idazlaren bidez.

Olako mezua, norena den izangatik, begi onez ikusiko genuke Euskaltzaindia'ren EUSKERA Aldizkarian argitara emana.

Bitartean, "PRINCIPE DE VIANA" ontan ematen dugu Tauer euskaltzalearen aspaldiko "Urrutiko agurra". Mamia argi, azala errex, eta dena bero-bero, biotzez igorri zigun ordu artako "Zeruko Argia"ren irakurle guziera. Nola sartu zitzaigun ordu artan irakurtzean! Nola minberatzen nau 23 urtez geroagoko irakurtze onek!

"Europa erdian" euskaldunen adiskiderik onenak, bere 80'gn. urtebetetzean, ar bitza Euskalerraren esker-onak eta beraren alde Jainkoari eskatzen diogun zoriona.

Garde'tar M.

OARRA: N. Tauer jaunak Ekaina'ren 6'gnean. ospatzen du bere jaioteguna, Euskaldunengandik orrenbeste merezi duen gizonari, edozeinek euskaraz idazteko, ona emen aren zuzenbidea:

Norbert Tauer jauna  
Vinohradská, 126  
CS-13000, PRAGA-3  
(Tchécoslovaquie)

## **URRUTIKO AGURRA**

Urrundik, Europa'ko erdian dagon Praga uritik, agurrik beroenak bialtzen dizkiet "Zeruko Argia" deritzaion illeroko politaren irakurle guziera.

Nere adiskide maite ta euskal-idazle ospetsua den Labayen'dar Antonio M<sup>a</sup> jaunari esker, lenengo amabi zenbakiak nere eskuetara zaizkit.

Illeroko eder au Espainia'ko gudaren lenagoko denboretatik ongi ezagutzen dut. Atsegiñez beterik irakurtzen nituen bertan zeuden idazkai guziak eta euskeraren alde lan gaitza egin duela.

Orregatik, ez da arritzekoa "Zeruko Argia" berriz agertzea, 1954'garren urteko asieran, pozik agurtu dut eta ziur nago, nerekin batean, Euskalerriko fededun eta erri-zale guziak.

Gure aldizkari maite-maite onen elbururik nagusia da euskaldunen biotzetan fede katolikoa bizia gordetzea euskeraren bidez.

Katoliko zintzo guziak, gaurko egunetan, atsekabez ikusten dugu nola, alde guzietan, apostolu gezurtiak gizonen gogoetatik Kristo'ren fedea atera eta kristauaren ezaubide bakarra den Gurutze saindua beste ezaubide batzuekin ordeztu nai duten. Gaitz-bide au baztartzeko, mundu guziko kristauak etengabe lan-egin bear dute Kristo'ren fedearen berritzearen asmoz.

Mundu ontan, errien eta gizonen arteko bizi zuzen bat antolatze bide bakarra da Kristo'ren fedeari jarraitzea.



Egi aundi au Paul Apostolu doatsuak, bere Korinto'koei irakurgaian, ongi adierazten digu esanaz:

"Iñork ezin dezake beste oñarri bat ipiñi, ipiñita dagoena baño, eta auxe Jesukristo da".  
Euskaldunak izkillu aundi bat daukate beren fedea zaitzeko: EUSKERA.

Guziok badakigu euskaldunak dirala Europa'ko katoliko onenak. Euskera galtzorian arkitzen dan errietan, euskeraren batean, fedea eta fedetik darioten bizibide zuzena eta oitura onak ere galtzen dijoaz.

Orregatik, Euskalerriko katoliko zintzoen eginbearrik nagusiena, euskera bizkortzeko lan-egin eta erri-izkuntza beti eta toki guzietan, batez ere bere sendietan (pamilietan), itzez eta idatziz erabiltzea da.

Gora Euskera!

Praga'tik, 1955'garreneko, Garagarrilla'ren 14'ean.

Principe de Viana, 1978, maiatza-ekaina, 4. orr.

## OLERKARIEI

Eguberria eldu danean, gizonen biotzak biguntzen dira. Aintziñatik eta ez alferrikan, Euskalerrriak entzun du Zerutik jeixten dan itz ona:

*"Aintza Jainkoari goienetan  
eta pakea lurrean biotz oneko gizonei".*

Eguberriko Egunetan, "biotz oneko gizon" oiek izan nai genuke, baita izan ere, asmo eder ori gure barnean artuz gero.

Lenengo eguberriko gau artan aingeruak kantari. Eguberria noiznai ba litz, mundu gaxo onen negu luze beltzean!

Urte oro Eguberria. Euskalerrriko olerkariok, jarrai kantatzen. Barneko edertasun tantak, ereintza ederrena. Mundu illun ontan zuen izarren bearrean gaude; jarrai kantatzen, mesedez, eta denbora lagun, egin gaitzazute obeak.

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1973, azaroa-abendua, 5. orr.

## ONGI ETORRI, ON MANUEL!

Argazkian agertzen zaigu bezala, ikusi genuen Irujo Jaunaren irudia; besoak, zabalik; biotza, berriz, zabalagorik.

Ezin, ez bestelakoa izan. Martxoak 24: Gabirel Goi-aingeruaren eguna. Eta aingeru baten gisa zuen gure erbesteratuak egazkiñetik jetxi zitzaigunean. Etzen aren ezpaitan nabari Iragarkunde berri baten mezua: "Agur, Naparroa, grazia guziz eta maitasunez betea"?

Ura zen, ura, On Manuel'en benetako irudia, goitik jeistekoan: den-dena naparra, euskotarra, kristaua, zintzotasun goienetako mailletan.

Biotz sendoa eman zion Jaunak, euskal mendietako aritzetan jarri zuen antzekoa. Berari esker, lan asko, neke ugari eraman ditu bere Erriaren alde, edozein gizonaren alde; saria, ordean, zuzengabekeririk aundiena. Lege-gizona ta kristau zintzoa izanik, etzuen sekulan bizkar-egurra makurtu Jainkoaren eta Zuzenbidearen aurrean baizik. Pekatu larria, "INDAR" Jainkordea gure artean nausitu zelarik; orduantxe zigortu zituzten gogotik Irujo'ren izena ta izana. "On Manuel on eta martiri" izenez bataiatu du berriz, nik anitz ezaguna dudan "Monseñor" batek.

Joanak, joan. Nolako etxeratze gogoangarria!

Eguna, ezin ederragorik; naparrak, millaka Noain'go egazkin-zelaiean; ikurrin frango - Naparroa'rena ta euskaldun guziena- mutillek goratzen zituztelarik. Antxe zegon Naparroa den-dena: atzokoa, egunekoa, biarkoa; zenbait agintari; erri xee naikoa: baztandarrak, Lizarra'koak, erriberako seme sutsuak, Iruña'koak esanik gabe.

Anitz alorretan aundia dugu Irujo Jauna, batez ere, politikakoan; mundu zabalean, noski, oraingo napa ezagunena. Askoren maitasunez eta guzien errespetuaz artu du Naparroa'k bere seme agurgarri au; olako gizonari, orrelako sari.

Itxaropena piztu digu Irujo'ren etorrerak; arrigarrizko "beti-gazte" agertu zaigu bere laurogei ta bostetan; ez da gutxi arengandik zai gaudena. Politika-senaz eta zentzu onez, gidari ona; kristautasunean eta bizikidegoan, etengabeko eredu bikaiña eman digu bere bizi luzean. Ago zabalez esan leike, bere buruari dagokionez, ez duela etsairik; berez, ordean, zuzenzale beti ta, al den guzian, pakegille; orregatik, eskuin-eskerretan orrenbeste adiskide.

Mugarik gabeko maitasuna agertu du beti gizonen artean, baita errien artean ere; Naparroa maitatzeatik as, eta Euskalerra, España ta Europa'n barna, mundu guzia maitatzeraiño. Gaur-eguneko Naparroa'n bear genuen jarraibide bizia.

Noain'go zelaiean elkarrekin emandako besarkadan bezala, aunitz urtez! Eta guzien onerako, ONGI ETORRI ETXERA, On Manuel!

Garde'tar M.

## ORDUEN LITURGIA

Abendu-aldiarekin batera eskuratu dugu euskaraz argitaratu-berri den "ORDUEN LITURGIA".

"Brebiarioa", otoitz-era berezia ta nagusia da; liburu onek Elizaren eguneroko otoitz ofizialak dakarzki; orregatik, egunero erabiltzen dute ainbeste eliz-gizonek eta monjatxoek.

"II Batikano Batzarra" mintzatu zen liburu ontaz. Aita batzuek laburtu nai izan zuten: "jende artean ibiltzen diren apezek ez bait dute alako otoitz luzeegiak egiteko astirik". Beste Aita batzuek etziren uste berekoak.

"Orduen Liturgia" balio andiko liburua da: Jainkoari zor zaion ospea emateko, Berari gizon guzien eskariak aurkezteko. Biotzak berotzen ditu liburu onek, buruak argitzen dituen aldi berean. Polonia'ko Wyszynsky Kardinalak esan zuenen: "Brebiarioaren esatea, otoitzegitea, apezendako poz-iturria ta indar-emallea dugu, batez ere ekaizpean gauden garaietan". Auxe egiztatzen du gure Aita Yurre'k: "Nolako atsegin eta indar artu Brebiarioa irakurritz ta otoituz. "Gorrien" menpean izan diren Mixiolareiek, ura bakarrik zuten -anitz aldiz- euren egiazko adiskide. Nolako adi-arretaz irakurri ta otoitzu, "gorrien" yartzapenak ta nekeak, kemenez, irauteko!" Ez aaztu Altxasu'ko Kaputxinoa aunitz urtez Txina'ko mixioetan izan zela, "maotarrek" kanpora igorri arte.

Lan luzea ta astuna izan da "Orduen" liburu garrantzitsu au euskaraz gertutzea. Eta txirrintxa andiz euskal Brebiarioaren zai egon gera urteotan.

"Liturgian Jainkoak bere erriari itz egiten dio, ta o nek Jainkoari erantzun egiten dio kantuz eta otoitzez". "Liturgia" itz onek "erri-etxeko ekintza" esan nai du; ta "liturgia"ri dagokio "Orduen" otoitz-egitea. Orregatik, Jainko ta euskaldunen aferak, euskaraz, "sentimentu sakonenen eta barnekoenen mintzaira ontaz". Orregatik, "Orduen Liturgia" euskaraz.

Esan dezagun Liturgi-euskeratzalleek emaitza bikaiñena eman digutela. "ORDUEN LITURGIA", 1400 orrialdeko liburu mardula dugu; aren euskara, batasunaren bide oberenetik doa; orra or euskara xamur, indartsu ta bizia; aberats eta aditzeko erraza; erriarena eta Jainkozko gai goienak esateko landua.

Fededunak eta euskaltzaleak poztu gaituen liburua da Euskarazko "ORDUEN LITURGIA". Elizaren eta Euskararen onerako izan deila!

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1978, urtarrila-otsaila-martxoa, 6. orr.

## "ORIXE" TA OLERKIA (I)

J.I. Goikoetxea, "*Gaztelu*" olerkariak egindako "*Musika ixilla*" liburuan, Sarrera bikaiña "*Orix*"-rena dugu. Antxe, olerki edo poesiari buruz, erakuspen ugari. Euskal bertsoan ibiltzen denaren onurako, alor jorian sartu gera galburu batzuen billa.

Gramatika asi nintzanetik autemana nendukan, euskera lur aitorra zala izan-izate, ots, metafisikarako.

Bai bi aditz-izenak, itzen alkarketa, banaketa, ta aldaskak beste oinbeste bide ikusten nitun erabateko gogaiak adierazteko. Betoz Vinson gure adiskide nolabaitekoa ta aren "perutxo" Unamuno, besterik esatera.

Bañan, ez nintzan baitaratu olerkirako ere on zala, urteetan sartutxo nintzan arte.

Urli egunean, euskal-olerki-bilduma batean, Luis Leon'en "*Zeruko Bizia*" arkitu nendun, euskeraz, poliki itzulia alaere. Nor ote dogu, esan ere nere artean, gizon ausarti ori? Eta, *Gaztelu* jauna.

Egia esan, eziña irudi zitzaidan gaztedaniko nire maisu ura gure izkuntza landugabeen emaita; eta, ez nintzan artara saiatu ere, beste itzulkizun aski zailletan oitua banindagon ere. Eta arritu zitzaidana: *Gaztelu*'k zertanbait kendu egiten ziola jatorrizkoari.

Sandi egunean, "*OLERTI*" deritzaion aldizkarian, Donibane Gurutz'en "*Jainkorako Maite-eresia*" begi egin nizun, eta bi aldiz arritu. Nik ia eziñago uste nenduna. Ordun iruditu zitzaidan euskerara itzuli zitekela xuxen, eta ez "*traduttore traditore*" antzean.

Aspaldi aundian, ikaslanak asi ta laister, baitara nintzan euskera bere zarpillean areago zoala jakingai batzuetan inguruko erderak baiño. Baiñan, olerkirako oinbeste balio zezaenik ez nendun ametsik ere. Eta orduko, itzuliak nenduzkan neurri berberean Eliza'ko goratzarreak, inguruko izkuntzeak egin ez dutena, eta egiñen ere neketan, naski.

Gure euskera gaixo onek itzak luze eta eder ditu, itz-zati bakarrik ez du, gutxi batzuk baizik; eta alaere, iritxi da gaztelania eta frantsesa iritxi ez diranera. Eta oraindik ere, nola ausartu ni gaztel-olerkian aisa nagusi diranok euskeraz emaiten?

Rousselot batek au esan zigun: eguzkipeko lirikurik aundiena Fray Luis León zala. Ez daukate gutxiagotzat Donibane Gurutz erdaldunik geienak.

Beraz, *Gaztelu*'k bi aundienetara jo du; euskeraz poliki jantzi ditu bi aundien orien olerkirik onenak. Ez ote du joko laister goiena gure izkuntzak? Gutxi al lizake gure ele ederrarentzat, bestearenak olan emaita, geronetik aiek lako olerkaririk atera ez ba'ledi ere?

G'tar M.

Principe de Viana, 1976, abuztua, 7. orr.

## PASTORALGINTZA ALDETIK EUSKERARI BURUZ

Il ontako azken egunetan, Pastoralgintza aldetik, Euskerari buruzko Agiri bat ezagutarazi digu Iruña'ko Goi-Apezpiku Jaun Agurgarriak.

Orren berri, egunkari ta aldizkari askotan eman dute; baita Madrid'eko Tele-ikuskiña ere, ortaz, errespetuki mintzatu.

Ezin bestela izan. gure Goi-Apezpiku maiteak esana, Ebangelioaren oiartzuna baiño besterik ez da. "Predika zaiezue Berri-ona erri guziei". Euskal erriari, bai ere bai; euskeraz, jakiña!

Ain argi zan gauza, esan bearrezkoa al zan? Alaxe dirudi. Ba, "Pastoralgintza aldetik" bereziki esana dago. Pastoralgintza, Elizaren gain: "Berak betiko bizia eman dezaien aren kontuan utzi dituzun guziei. Eta betiko bizia au da: zu egiazko Jainko bakar ori ta zuk bidalitako Jesu-Kristo ezagutzea".

Bere lekuan ongi finkaturik Eliza, Euskal erriari euskeraz, Jainkoz mintzatzen danean.

Irail ontako 27-gn. egunean, Goi-Apezpikuaren Agiria ezagutu bezain laster, Napar Diputazioaren "Euskal-Yakintza" Euskeraren Aldeko Saillak atsegiñez artu ta berealaxe erabaki zuen Goi-Apezpikuari ori jakin-araztea.

Gure aldetik, PRINCIPE DE VIANA zenbaki ontako 2-gn. orrian, Agiri den-dena argitaratzen dugu: pozik, esker onez, eta -ain biotz-berogarri diren itz oriek- euskaldunen artean zabaltzeko asmoz.

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1974, iraila, 1. orr.

Bere eriotzaren XXV-gn. urtebetean, eta sortu zenetik orain 109 urte diren egunean

## PIO BAROJA'RI OMENALDI BIKAIÑENA

XIX-gn. mendeko irudien bilduma baliotsua, osabarena zena, utzi du J. Caro Baroja'k Naparroa'ko Erakustoki edo Museoan.

Pio Baroja idazleari, bere eriotzaren XXV-gn. urteburuko aitzakiz, aurten ainbeste eskeiñitako omenaldietan, Caro Baroja'rena dugu guzien nabarmenena.

Alde batetik, illobarena da. Baroja'ri buruzko gauzetan, D. Julio'k bearrez, Baroxa'tar baten biotz-ikara ixuriko du.

Beste aldetik, Kondairaren alorrean eta onen ingurukoetan mugitzen da Caro Baroja, eta gai orrekin zer ikusirik du berak egin duenak.

Ain zuzen, Julio Caro Baroja'k, osabarena zen bilduma, 1500 irudiz osaturik, utzi dio Napar Diputazioari txalogarritzko asmo onez: guziek ikus lezake XIX-garren. mendeko irudien bilduma ori, aipatutako mendea obeki ezagutzeko.

Ori da Julio Caro Baroja'k osabari egin dion omenaldi ederra, baita Yakintzari mesede aundia ere. Bere emaitza egin berria du egun gogoangarrian benetan, Abendua'ren 28'an sortu bait zen Baroxa'tarren famatuena.

Garrantzitsua, zalantzarik gabe, bilduma ori. Argazkia edo fotografia idoro baiño lenago, marrazki ta iduri ongi egiñak ditugu bide bakarra antziñakoa erakusten diguna: gizona ta orduko giroa.

Euskaldunentzat, batez ere, garrantzi aundienetakoa izan zaigu joan den mendea, naiz "XIX-gn. mende ttuntun ori" norbaitek esan. Ez dezagun aztu aren egunetan lurrun-indarra ta argi-indarra menperatu zituela gizonak; Euskalerrria'k ikusi bi bi gerrate galgarri ta Foruen kentze kaltegarria, baita euskal nortasunaren pizkundera ere; eta biziaren alde guzietan, izugarrizko aldaketa izan zela XIX-gn. mendean zear.

Emandako bildumaren balioa ikusirik, Forudun Diputazioak erabaki du Naparroa'ko Erakustoki edo Museoan areto berezi bat prestatzea, Baroja'ren irudiak erakusteko; ta prestatze ori egoki egiteko, 700 mile pezta eta geiago erabilli daitezkel.

Beste erabakia artu du ere Diputazioak: Forudun Erakundearen esker-ona Caro Baroja Jaunari biziki adieraztea. Ber-bera egin bear dugu napar guziek, jakintzale guziek.

Garde'tar M.

Pincipe de Viana, 1981, azaroa-abendua, 16. orr.

## Tulebras

### **ABADESA BERIA**

Tulebras, napar ego-lurraldean erri txiki bat. Aspaldian euskal eta kristauak ziren Ebro ibaieko lurraldeak, berriz irabazi zituzten gure Erregeak, beren mendi-mutullekin, moruak menperatuz gero; ez da geroztik napartzaletasuna galdu.

Eta Naparroa'ko mugan bertan, XII-gn. mendean eratu zen Zister'ko Seroraen emengo Monastegi zarrena. Inguruetako moruek, Tulebras'ko Serorei emango zizkieten urtero uztaren "amarrenak". Ala eskeindu ta bete "Aiza de Barellas", "Abdelmeck", "Zaheit" eta beste batzuek.

Denbora artatik, 1149'tik gaurdaño, Monastegia zuzendu duten 116 Andre Nagusien izenak irakurtzen ditugu bertan gorde den "Izpillu" liburuan.

Agorrilla'ren 25-gnean., 12 urtez Zuzendari bezala egon den Iñigo Berisa Laura naparrak bere ardura utzi du, ta Garamendi Larrañaga Miren Gixane bizkaitarra izendatu dute. Nagusi berriak baditu, sei urtetarako lan eta kezka ugari: bai, arri zaarrak lengoratzekoan, bai ta bere ardurapean dauden arimak gidatzekoan ere.

Zister'ko Monastegi bat "*Jai-Aretoa*" ez izan arren, neskatx aunitzek jotzen dituzte atariak. Joan diren zortzi mendetan bezala, oraingoek dakite iñork ez dezakela barneko utsunea bete; Jainkoak bakarrik: "*Pakea uzten dizuet, nere pakea ematen...*". Eta 800 urte direlarik, gure Erribera'ko baratze ortan loratzen dira lan eta otoitz lore usaidun oriek, beti irauten duen frutuak ematen.

Illero artu, eta ango euskal serorak pozik irakurtzen duten PRINCIPE DE VIANA aldizkari onen bidez, Tulebras'ko Monastegiari gure opa zintzoena: Jainkoa beti lagun zaiela!

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1975, iraila, 6. orr.



## Liburuak

### "TXIKI" MARRAZKILARI TA UMOREDUN

Bildumari: Matxin Labayen

Argitaratu: AUÑAMENDI (Donostia)

Atsegin aundiz jaso dugu "Auñamendi" Argitaldaria eskeiñi digun bere liburu berria. Liburua, irri-egingarri ta irakurtzeko errea: "TXIKI" marrazkilarien irudi ta esaera parregarriak.

Bertze denboretan, an-emenka ikusitako "TXIKI"ren marrazki ederrak, orain liburu batean bildurik, poz-pozik eta xamurki ere, berriz ikusi ditugu.

Ziur nago, euskaldunentzat, liburu berri ori pozgarri izanen zaiela.

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1974, martxoa, 8. orr.



## UDAKO OTSOAK

Lirain, bizkor, otsoaren irudia; or, arri utsaren gaiñean, muturra luze, begiak erne, belarriak zutik, otsoa eder izango litzake. Otsoak, baiñan, bere aipu gaistoa darama berekin, bere odolezko aipua. Otsoa ankerra omen da: aztaparrak, gogor; betagiña, zorrotz. Otsoaren begietan diztira odoltiak pizten direla erraiten dute ura ikusia dutenek.

Aurtzarroan, aitonak erraiten zizkigun izugarrizko gauzak; otsoenak, geienetan. "*Negiaren gaietan, otsoak xaistan zren iriaraino. Aztaparka ebili zren bortan. Beiak eta beorrek lotsez marraka ta irrintzika zeuden sotoan. Neork ez genuen kalako gaietan lo egitan*".

Egunero aurrek ez zekiten gure mendietan otsoak izan direla, bai ta errietaraiño jetxi ere. "*Txano Gorritxo*" ipuiñaren otsoa bakarrik ezaguna zuten. Zoritxarrez, egun, denek dakigu egi negargarria, egunkarietan agertu bait da; otso-uda, odol-uda izan dugu aurtengoa. Otsoak ardiak, beiak, pottokak, il. Eta Galizi'ko lurraldetan aurrak il ere! Seaska batzuek eta ama guzien biotzak, odolez gorritu.

Gizona, gizona dugu. Ez beti, baiñan; geiegietan, ez da gizabidea gizonaren bizikera. Bazuten erran erromatarrek: "*Homo homini, lupus*". Oñarri garratz orren gaiñean ezarri zuen Hobbes izeneko filosofoak bere jakinduri dena; maitasunik, itxaropenik gabeko jakinkeria. Nor daki, artzai baten seme izanik Hobbes orrek, zenbat aldiz ikusiak ote zituen egitazko otsoak, bere Ingalaterra'ko laño artean!

Saindu batek, ordean, otso bat eztitu zuen; Saindu maitagarria, Frantzisko Asis'tarra; otsoa, berriz, Gubbio'ko otso ankerra. Beratsa, paketsua, txakur baten gisa, ibiltzen zen gure otsoa jendearen artean. Egun batean eldu zion arte; orduan, otsoa mendiko kabira, azkatasun arriskugarria itzuli zen; eta bai bere lengo odolketara ere.

- "Zergatik?", galde egin zion arengana joan zen Sainduak.

- "Gizonek, len baiño gaistoago biurtu nautelako. Ase nintzen aien artean gaistokeriak ikusten, ni baiño otsoagoak bait dire: ebatsi, erail, gezurra egin! Ta ez gosez, ez eta bearrez; atsegiñez, baizik". Etziren makalak otsoaren aitzakiak. Aietarik bat ikasten balin badugu ezta dena galduko; au, beintzat: "Otsoak baiño otsoagoak egiten gaituela, bertzeak sufritu-arazteko atsegin kaltegarriak".

Garde'tar Markelin

Principe de Viana, 1974, uztaila-abuztua, 8. orr.

## "XALBADOR" SARIKETA

Nafartar idazle batek jaso du aurten saria

Bederatzi lan aurkeztu dira aurtengo "Xalbador" sarketan. Orain dela denbora franko Iruña'ko Aurrezki Kutxa'k antolatu zuen Sari ori urepeldar Aldude'ko bertsolari zenaren izenarekin. Auxtin Zubikarai eta Bingen Zubiria ziren Epai-maikoa, eta beren erabakia "Irri-solas" liburuaren alde izan zen.

Xiprien Arbelbide dugu liburu orren egillea, gure aspaldiko Xiprien, orain Uharte-Garzi'n apezka, gure Be-Nafarroa'n edo Seigarren Merindadean.

Arbelbide apezak, Afrika'n mixiolari egonik, anitz ongi daki mintzaera berezia dela erri bakoitza kristautatzeko bidea. Orrengatik, Euskal-Erri'ra bueltaturik, euskarari eutsi dio bere lanetan. Aldi berean, euskararen balioa gorazten du bera maiteki lantzen: or ditugu o rain Iruña'n saritutako liburua eta "Gure Irratia" izeneko euskaldun irrati txiki batean egiten dituen saioak.

"Xalbador Saria"ren V'gn. argitaldi au, ogei ta bost mille durokin orniturik dago, eta alaxe jasoko ditu benefartar idazleak.

Aurtengo sariketan aipamen berexia merezi izan zuen "Arantza" izenburuaz aurkeztutako lanak; lau arantzatar lagunek: M. Legarra, L. Andueza, Kontxi ta Klemen Irigoyen'ek egin zuten lan ori. Aipamena merezi izan duen lanaren alde, Epai-maiak esan du 50.000 pezta. saria emateko.

Gure txaloa irabazi duten euskal idazleei, baita Iruña'ko Aurrezki Kutxa'ri ere.

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1982, otsaila, 16. orr.

XEFEINO:

Anitz unkitu nauzu, Xefeino, PRINCIPE DE VIANA aldizkari oni zuk bidali zigun karta ortaz. Onela diguzu:

"Goizueta'tik, San Martin egunean. Egun onek neretzat oroimen bat badu, bada gaurko egunakin, 1936'gnean. Iruña'ko kartzela edo espetxetik atera bait ninduten, egun batzuk an eduki-ta euskaltzale nintzalako".

Unkitu nauzu, benetan, oroimen ortaz. Amar urteko mutikoa nintzen ni egun negargarri aietan. Osaba arrapatu zuten eta zuk aipatu duzun lekuan sartu ere. Ene ustean, egun batzutan elkar egon ziñeten.

Nere amona anitz gorra zen; edozein lekutara joan bear zuenean, ni eramaten oi ninduen -bere magalean azita- aise mintzaten bait nintzen berarekin.

- "Ene umia, erran zidan urte artako San Frantzisko Xabier'en egunean, biar xoenen gra Uruña'ra xunto, osabari lotura bat eramatra"

Eta biaramunean joan giñen Iruña'ra. Espetxeko atarian lotura uzterakoan, esan zidaten ez berriz an agertzeko, osabak ez bait zuen geiagorik bear. Eta amonari esan bear nion.

- "Kau mingoztasun, Jeina!", esan amonak; eta negar anitz. Arratsaldean itzuli giñen gure iriara, Erribera'ko Kargaztulu'ra. Eta ortaz gero, ez genuen sekulan osaba ikusi.

Eta unkitu nauzu, Xefeino, egitez ere. Zure idaz-lantxo ederra bidaltzekoan, onela diguzu:

"Len bezela, gaur ere gogoa or dago zuekin; oso zartua naiz, bait ditut larogei urte: begiak itxitzen ari dira, beatzak gogortu, eta burua ere -egunetik egunera- ariñago. Alaz ere, egiñala egingo dut lerro bat edo beste bialduz, PRINCIPE DE VIANA bizi dedin".

Eta egiñala egin duzu, egin!

Xefeino: idatzi, len bezala, zuk maite duzun aldizkari ontan; eman zaiguzu pixkaka zure biotzeko edertasuna; euskeraren alde maitasunez sufritu denean, ez dago barnean maitasuna baizik. Eta, agian, Goizueta'ko norbaitek apaiz, praile, neska, jakitun, mutil edo aur batek, zure bideari jarraituko dion, Euskera sekulan ez dedin il.

Garde'tar Markelin

Principe de Viana, 1981, azaroa-abendua, 13. orr.

## ZERIO'TAR PAUSTIN JAUN AGURGARRIA

Apez jato ta berezi onekin zorretan geunden  
Aldizkari ontan. Irakurle gogotsua genuen, eta euskeraz  
egiten zituen idaz-lantxoak, bein baiño geiagotan igorri  
zizkigun. Bera il zenean, joan den urteko Maiatze'an,  
isilpean zegoen Aldizkaria.

Orduan, adiskide zintzoari ta maisu jakintsuari ez  
genion egin bearrezko omenaldia. Gizon betea, apez saiatua  
ta napar jatorra izan zen. Eta irutasun ortan -gizona, naparra  
ta apeza bezala- eredu bikaiña izan zaigu D. Faustino zena.

Bargota'n jaio zen 1913'ko Abendua'ren 15'ean. Bargota, Kastilla'ri begira dauden  
napar bazterretan dago; ala ere, gure gizona zin-ziñezko euskaldun jatorra izan zen.

Aurtzarotik agertu zen apezetarako gogotsu, otoitz-zaletasun bizia ekarri bai zuen.  
Artu-eman bereziak zituen Faustino'k, aurra zenean, bai umeeekin, bai abereekin eta baita  
aingeruekin ere, etxekoek agertu digutenez. Asis'ko Franzisko'aren "Loretxoak" liburu  
xumearen antzekoa idatzi genezake D. Faustino naparraren bizitzatik.

Iruña'ko Apezgaitegian sartu zen ikasketak egitera. Iruña'ko Eliz-barrutiari -onen  
edozein lekutan- serbitzu egiteko prest egon bear duela apezak, ongi zekien Zerio'tar  
apezgaiak, baita Naparroa'ren euskal nortasunari begirunea zor zaiola ere. Orrengatik, ausartu  
zen au eskatzera: "Iruña'ko apezgaiek euskeraz ongi ikasteko bideak izan bear zituela".

Zer gertatu zen? Bota izan egin zuten Iruña'ko Seminarioagatik? Itota, joan bear?  
Norbaitek jakin bear du, nik uste.

Logroño'n jarraiki zituen apez-ikasketak; antxe apeztu 1936'gnaren. Urrille'an, eta an  
bete izan zuen apez-bizitza guzia.

Beti argi ta aurreralari izan zen D. Faustino; berarentzat ez zen laiñoetako gizonik;  
aragizkoa, leku jakiñetakoa, bere giro bereziz inguratua zen gizakume bakoitza. Orrelakoak  
maite zituen eta begirunez artzen zituen, bakoitzaren kezka arduraturik. Zuzengabekeriek  
sutan jartzen zioten odola; bere lurraren ain maitale sutsu izan zen, arras Jainkozale zelako.

Lenengo apez-lana, Errioxa'ko Matute, Badaran eta Angiriano'n zen; gogorra, bai  
1936'gn. urtea, ilketa ugariz zaurituriko lurraldean apez izaten asteko! Ta nolakoa izan zen D.  
Faustino! Ez da nolana aztuko Errioxa ortan napar apez gaztearen izena!

Orduko "loretxo" bat; neskatxa itsuarena. Bazen neskatxa bat itsua, gaztea ta Mezetara  
joaten ez zena, otoitz eta Elizako gauzarik nai ez zuena. Ura zen apezaren kezka! D.  
Faustino'k erakutsi zion bioliña jotzen eta, aldi berean, liburuak irakurtzen itsuendako Braille  
xistima bereziaz. Orrela itzuli zituzain neskatxa itsuari bizitzeko poztasuna.

— *"D. Faustino, aitortu nai dut"*. Eta aurrerakoan kristau siñestun eta elizkoi jatorra  
izan zen.

Logroño'ko Apezgaitegira eraman zuten D. Faustino 1940'gn. urtean, irakasle ta  
ezitzaile izateko; ta ia bere azkena arte izan ere! Izkuntzak ikasteko erraztasun aundia  
zuenez, asko zekizkien. Gerketa ta latiña erakusten zituen; eta Filosofia ere bai.

Izkuntza artetik, euskera zuen maiteena.

*"Euskera da -esaten zuen berak- nere barnean sakonera eldu nadin biderik laburrena  
ta argiena; eta gure aurrekoen izaera ezagutzeko ere bai"*.

Bazekien euskeraz mintzatzen eta idazten; eta, batez ere, bazekien euskeraz maitatzen  
eta besteen baitan euskerari maitasuna pizten.

Anitz maite izan zuten D. Faustino Logroño'n. Apezpikuek "*kanonigo*" egin nai izan zuten; gure gizonaren apaltasunak, "ezetz!".

Atsekabeak ere izan zituen, ez gutxi. Beti aurrera egiten zuen, batetik egiarekin, eta bestetik apaltasunez. Logroño'ko "*Gobierno Civil*" delakoan asarre eraso zioten, bere abizena "Z" izkiaz baliaturik, beti *Zerio* idazten zuelako. Beraren erantzuna:

*-Onelaxe dago antziñatik idatzita; baita arrian ere".*

Naparroa biotzaren barnean zeramkien beti. Ainbeste naparrek beren euskaltasuna galdu dutelako eta orrela ainbeste naparrek beren nortasuna galdu dutelako, samindurik bizi izan zen. "*Naparroa'ren Lege Zaarra*" edo "*Fueroak*" liburuxkaren bat idatzi nairik ibilli zen azken illabeteetan. "*Preliminares del Convenio del Vergara*" liburuaren bearrean zeuden, eta Naparroa'n ez aurkiturik, dena utzi. Naparroa'ri buruzko lan batzuk ere argitaratu zituen "*Euzkadi*" Aldizkarian, izenordez, jakiña.

Azken eritasunaren ordu luzeetan, olerkitxoak idazten zituen, euskeraz, Euskalerra'ko zazpi txokoetako Ama Birjiñak gai artuta.

- "*Ez uste, esaten zuen, anitz onak direnik; zuzenketa ugari bear dituzte; baliorik aundiena, sartu dudan maitasuna*". Beti D. Faustino'ren apaltasuna! Baiñan, aldamenean daukazu aren "*Orreaga'n*" olerkitxoa, irakurle, zure iritzia adierazteko euskaldun berri baten kasu berezi ontan.

Eskerrak zuri, D. Faustino! Eskerrak, orain 25 urte direlarik Uxanabilla'n (Genevilla) apez nintzenez, napar liburu bitxi arengatik.

Eskerrak, Logroño'n (geroago Ilunberri'n) zurekin izan nituen izketaldi aiengatik.

Eskerrak, 1960-63'gn. urtetan, "*Clero Vasco*" taldean zure izena sartu zenuelako, Agiri arriskugarriak bildurrik gabe, izenpetu naiez, izenpetuz.

Eskerrak eta eskerrak zure maisutasunagatik, zure adiskidetasunagatik. Izan zaitez zoriontsu betiko Aberrian!

### Orreaga'n

Naparroa'ko bazter batean,  
lur santu baten erdian,  
agertu zan bein Ama Birjiña,  
Orreaga'ko tokian.

Itaropenez bete-beterik,  
-urtero, udaraldian-  
andik-emendik etortzen dira  
jendeak erromerian.

- "Orreaga'ko Ama samurra,  
entzun otoitza nigandik,  
gure biotzen sendagarria  
izan bait zera aspalditik".

- "Gorroto ta apen oso-osoa  
ken erabat geurengandik,  
guk elkar maite izan dezagun  
bein-da-betiko gaurdanik".

Etsaiak eta azpi-sugeak  
zatitu dute Erri zarra,  
naiz bi aldetan napar guztiek  
izan biotz bat-bakarra.

- "Orreaga'ko Ama, izan zaite,  
gure lokarri azkarra,  
gero ta geigo indartu dedin  
anai-artekougarra".

Zerio'tar Paustin

Garde'tar M.

Principe de Viana, 1983, ekaina, 14. orr.



## Liburuak

### ZUENTZAT



Argazkian, oraingo "ZUENTZAT" liburuaren egillea, Azpeitia'tar Julene, zumaiarra, irakaslea, berrogeitamar urte edo direlarik.

Naiz-ta gauz asko gertatu ere, ez da deus gertatzen, aspaldiko maitasunak bizirik iraun bitartean; denera, buru gaiñean:

"anitz neguetako elurra gelditu eta ile urdinak zeraizko xuritu".

Bizkai'ko eskoletan berrogeitamar urte erre ta geroz, emakume onen maitasunak ber-bera, osorik, pizturik irauten du. Bere 86 urtetako betetasunean, eskeintzen digu "ZUENTZAT" liburu xamur au. Orrelakorik asko ote?

Azaroa'ren 22'an, Donosti'n, Gipuzkoar Argitaratzale Elkartearen Zuzendaria den Garmendia Elozegi J.A. jaunari eskerrak, Azpeitia'tar Julene'ren "ZUENTZAT" liburuaren aurkezpena egin ziguten.

Pozgarria, euskal liburu baten agerpena; geiago, oraindik, umeentzat egindako batena, geroari buruzko ereintz emankorra bait da.

Egilleak ongi merezi zuen maitasunezko omenalditxoa; an geunden zenbait ikastoletako andereño, euskaltzaindiko, idazle, berri-emaile, euskaltzale...

Zumaia'n, 1888'an jaio zen Azpeitia Julene, 1907'an bazegoen, irakasle bezala, Abadiño'n; 1958'an eskola utzirik, Durango'n bizi da.

Bizi luze batean, amaika idazlan eder, baita itzaldi jakingarri, sari asko jasorik. Liburu batzuek argirataru ere: "IRAKURRI, MAITE", "UMEEN ADIZKIDEA", "AMANDRIAREN ALTZOAN" eta, egun auetan, "ZUENTZAT".

"ZUENTZAT" liburuak, 217 orrialdetan, baditu 47 irakurgai, batzuek itzulpen egokiak direlarik, baita Kortadi'ren 14 marrazki ere; ongi egindako liburua, naiz-ta irar-utsak an-emen agertu ere.

Pedagojiari buruz, egillearen urte askoren lana ikasi daike: aurraren irudimen eta eziketaren azalpena, irakurgai atsegingarrien bidez. "Andereño"ak ikasle onen bideari jarraitzen, umetxoak, bear den bezalakoak aterako dire.

Labaien jaunak aurkezpena egin. Azkenean, Julene'k eskerrak eman zizkion danori; andre onen mintzo ezta! Egitaz, 86 urteko zamak soinaren lengo ederra, ximeldu; bizkortasuna, maitasuna, berriz, agirian zeuden, Barbier'ek erran bezala:

**"I gandetan ederrik, iduri panpina, ziñez erran liteke; Orra Erregina! Begia irriz dago, alaber ezpaina; oi, zer atso polita Jainkoak egina!"**

Garde'tar M.

## AITA ADRIEN GATXITEGY GORTARI, MIXIOLARIA

Afrika beltz barrendik etorri-ta gure artean arkitzen da Aita Adrien Gatzitegy Gortari, mugaz beste aldeko euskaldun Beneditar Mixiolaria.

Ixtori ta kondaira aundiko praille euskalduna degu Gatzitegy Jauna. Milla bederatzieun ta ogeitabatgarren urtean etorriko zan mundura. Bere guraso agurgarriak, aita Aldudearra, eta ama Arraiotztarra, "benetako guraso" zintzoak ziran. Bederatzi seme-alaba izan zituzten.

Gure Adrien muttiko koxkorra zela ta bere anai Jean Baptiste zenaren bidea jarraituz, praille sartu zan "Abbaye de Belloc" izen sonatuko Beneditarren kontentuan.

Meza berria eman zuan bere sorterri Aldude'n. Andik bi urtera asi zan Paris'tik berreun kilometrotara dagoen Angers irian "Ingeniero Agronomo" karrera egiten. Ta bai egine re. Baditu lan batzuek argitaratuak agronomiari buruz. Frantzes ta euskera dabilki lan orietan.

Bai ta ere, eta gerora, Frantzi'ko Gobernuak agindurik, joan zan uraz beste aldeko txoko urrutietara, au da, Ipar-Ameriketara, artzai euskaldunei buruz "estudio" bat egiteko. Beste liburu interesgarri bat badauka argitaratua Ameriketako artzai euskaldunak dirala-ta.

Aundiak eta luzeak izan ziran bere Ameriketa'ko ibillaldiak. Eta ango ainbesteko gertakizunen tartetik, ainbeste dira!, bat artuko dut: Bide luzearen zear zijoalarik egun batez, "topatu" zan artalde aundi batekin, eta, ardiak, autoaren asotsa entzunik ta gañean zutela ikusirik, banatu ziran alde guzietara. Artalde atzetik zijoan artzaia, arrazoi aundiarekin, asarretu egin zan. Gure praille euskaldun jatorrak ikusirik zer lana jarri zion artzaiari, lagundu zion ardiak berriz elkartzen. Au ikusirik artzaiak, ondoratu zanean, "eskerrikasko", esan zion ingelesez. "Badirudi entenditzen zaiola ardietan". Gure prailleak bereala igarri zion artzaiaren ingelesez mintzatze ura etzela amerikano batena, euskaldun batena baizik. ¿Nungoa zera?, esan zion prailleak euskeraz, eta artzaia gizajoak ura entzun zuanean buruko illak zutik jarri omen zitzaizkion ta biotza bete, ikusirik lurralde aietan apaiz euskaldun batek mintzo ziola. Artzaia larriturik: Ooo! ¿zu euskalduna? ¿Nungoa zera?, galde egin zion berrero prailleak. Artzaiak: Ni, Arraiotz'koa. ¿Arraiotz'koa? Bai. Nere ama Arraiotztarra zen! ¿Nor? ¿Nungoa? Onelako etxetako. Egon ta ibilli, bere amaren lengusua bai zan, berrogeitamar urte aietan Kalifornia'n zegoena.

Ameriketan emezortzi illabete egin ondoren, berriz itzuli zan Frantzi'ra ta ekin zion bere lanari.

Eta, azkenez, Eliz Amaren deadar aundiari erantzute arren, mixiolariak bearrez, nola or barna joan zitzaigun Afrika beltzeko lurraldetara, Dahomey deitzen zaion Republikan arkitzen dan bere eginbearra. Ezin esan alako klima txarrak, bero ikaragarriak, ta kezka aundiak euki bear ango itsusgarrizko subeen ta beste mota askotako zikinkerientatik.

An daramazkien urte labor oien zear, iru-lau, jasota dauzka etxe ta eliz kozkor batzuek. Bertako zurgintza, igeltserokoa eta arotzkoa beurek egiña daukate den-dena.

Lan oiek denak eta beste milla gauzen "bizia eta argia" ikusi ta ondoren, ementxe degu, Euskal Errian, gure Aita Adrien. Sulduta, makalduta, etorria da piska bat.

Asper eziña da berari entzutea ta asko idazten al genduke beragandik.

Ongi etorria, izan zaitez, Aita Adrien, ta atsedean izan ezazu. "Principe de Viana" illeroko onen bitartez, agurtzen zaitugu euskaldunok.

Gortari Ugarte tar Yon

Principe de Viana, 1966, abendua, 4. orr.

## BAZTAN

### Eriotza

Joan zan Martxo'ko ogei ta seigarrenean, ARRAIOTZ'ko "Etxenike" etxean, il zan denon adixkide Bengoetxea ta Dolagarai'tar Xalbador jauna. Uste gabeko berri txar arrek mindu ta naigabeturik utzi zigun. Iruogei ta zortzi urte zeuzkala, Jaunak dei egin zion. Goian bego.

Uste gabeen, bañan, bere animaren aldezko gauzak ongi bete-ta, Jaunak bere-ganatu zuen. Il bear degula -jaiotzari, iltzea zor- ongi dakigu, bañan... "iltze ori etzaigu bein-ere ongi etortzen". Eriotzak uzten duen utsunea, ezin betetakoa izaten baita.

Bada Euskal-Errian esaera xaar bat, mami aundiko esaera, gañera: "Nola bizi, ala il". Auxe bera eta dudari tokirik eman gabe, esaten al degu Xalbador gizon zintzo zanaren gatik. Nola bizi, ala il egin bai zan.

Gizon zintzo bat galdu du Arraiotz'ko erriak. Gizon leial, zentzu argi ta erakutsia. Beti zuzentasunaren gose-egarri agertu izan oi zan gizona. Benetako kristaua. Eta, euskaldun zan aldetik -Arraiotz'ko guztiak bezela- euskera biotzez maite ta bere zabalkundean gertu lan egin zuena. Xalbador, denen adixkidea zan. Arjentinatarra zan jaiotzez. Amar edo amaika urteekin eta bere guratsu ta senideekin etorri zan Arraiotz'ko xokora.

Len aipatu bezela, iruogei ta zortzi urte mundu ontan pasaturik, eraman zigun gure Yainko maiteak. Benetan maite zuen Euskal-Erriko "Arraiotz'ko xokoa" utzirik, an goian, betiko gure "aberrian", daukagu merezi izan zuen sariaren jabe egiñik.

PRINCIPE DE VIANA onen lerroetatik agertzen diegu gure dolu-miña-ta lagun egiten naigabeen. Tiburtxi Etxenike emazteari, Joxe Xabier semearekin batera, senide ta aide guzieren. Itxaropen ta indarkor dan Zeruko Aitak eman dezaiola illari betiko atsedena. Eta lurrean negarrez utzi zituen maite-kuttuneri biotzeko pake ta sinismen-bizi.

### BASERRITARRAK KEJO DIRA

¡Orrela ez dago nekazaritzan bizitzerik!

Auxe da gure errietan entzuten dan keja: "Bururik ez degu altxatuko jarri dizkiguten kargen-gatik". ¡Egi galanta! Arrazoi osoa ba-daukate.

Itz ederrez ta "discurso" bikañez asperturik dago jendea. Itzaldi ederrak bai ta ¿gero zer! ¡Porru-salda! Gaurko egunean tontorik ez dago. Geixeago edo gutxixeago, jendea, jakiñen gañean dago zer pasatzen dan. Pezeta, duroaren alde kanbiatzerik ez dago... "Eginkizunak dira egi, ta ez itz ederrak", alaxe dio esaera xarrak.

Gaurko mundua, leporaño beteta dago esaten ta agintzen diran gauzetaz. Nazkatuta-ere bai. Aurrerapenak ta erreztasunak ttantoka-ttantoka dira nekazari ta baserritarrentzat. Ta, kargak ¿nolakoak dira?

Berritu diran kontribuzioak, ikaragarriak dira. Ganaduak, pagatu bear aundiak daukate. Larreko iratze (garo) metak ere beren pagatu bearrak badituzte (Baztan'en, peseta, meta bakoitzarentzat). Nor-beraren arbol bakoitzak ere pagamenta aundiak ditu. Eta dena orrela.

Ez, ez ta ez. Orrela bizitzerik ez dago. Egiten dana, besteantzat egiten da. Kontribuzioarentzat, alegia. Nekazariak, baserritarrak, edozein bide artzera beartuak arkitzen dira. Baserriak ustutzen? Ez da mixterio!

Gortari ta ugarte'tar Yon

Principe de Viana, 1968, maiatza, 5. orr.

## BAZTAN

### Eriotza Arraiotz'en

Askotan esan izan oi dugu jaiotzari eriotza zor zaiola. Zar eta gazte, aundi eta txiki; aberats ta beartsu, agintari ta mendeko; jaiotako denek azken berdiña dutela: eriotza. Noiz, ez dakigu; bañan, bein bakarrik dela, bai.

Gaur, berriz-ere, Arraiotz ekartzen dugu PRINCIPE DE VIANA'ren lerro auetara. Arraiotz aipatzean, gauz aundiak ekarri genezazke gogora: antziñako etxe-jauregi eder oiek dirala... apaizgintzarako loretegi bat dela... erri zintzo ta euskalduna dela ta abar.

Ez noa, ordea, gaur kondaira ta ixtori aundiko etxe aundi oien goraberak ibiltzera, erriko seme baten uste-gabeko eriotzari buruz baizik. Don Eujenio Etxenike Goñi, Goizueta'ko Erretor jaunarena, alegia.

Agorra'ren (Burulla) ogei ta bigarreanean, Jainkoak bere-ganatu zuen, adiñik ederrenean, berrogei ta amalau urte zeuzkala. Goizueta'ko jendea, arri-il-otza gelditu zan bat-batean zabaldu zanean "Don Eujenio il omen da". BA-NOA AITA'REN GANA... esateko astirik gabe, mutu ta ustelkor gelditu zan. Goizueta'ko artalde ederraren artzaiak bizia eman zuen. Egilleak eskatu zion. Negarrez ta umezurtz utzi ditu. Bañan, Goizuetarre, ba-dute sinismena, fedea ta "egin bedi zure borondatea..." biotzkor bat izango zan momentu aietan otoitzik ederrena. Luzaroan, beti, izango dio Goizuetak oritzapen aundi bat.

Don Eujenio Etxenike Goñi, apaigintzara iritxi zanean, osorik ta bete-betean, eman zan ardien alde, arimen alde. Ogei ta bost urte, or nunbait, apaiz egin zala. Urte oien zear, zenbat meza eman ote zituen! Zenbat aitortza, konfesio entzun! Zenbat komunio eman! Zenbat itzaldi! Eta zenbatekin arkitu ote zan eriotzeko orduan! Lan bikaña. Lan saindua. Orain berriz, bera an, zerugoietan. Ainbeste aldiz ta ainbesteri ongi bizitzen ta ongi iltzen lagundu zien aien artean. Bere izpirituak, arimak, an du jar-leku. Gorputza, gurekin. Gure tartean, ustelkor. Otoitz dezaiozun.

Eta... ildakoaren adixkide giñanok, Arraiotz tar geranok, zer esango dutu? Ezin ta geiago maite dugula geren sort-erria. Maite ditugu erritarrak. Zikin ta zimur zerbait azaltzen bazaigu aurrean, kentzera egiten dugu. Maite gera. Eta, maite geralako, maite-ere genun Etxenike ta Goñi'tar Eujenio apaiza. Orregatik, bere arimaren aldeko illeta ta elizkizunetan ainbesteko edertasun; ainbesteko debozio ta errespetu; ainbesteko jendeketa. Goian bego!

Uste dugunez, Arraiotz erri txikia izanarren ta bere bizi-lagunen eraberara, Naparroan geien apaiz eman duen erri bat da. Egiazko "loretegi" bat izan da Arraiotz apaizgintzaren gañean. Orain zoritxarrez, zazpi apaiz gelditzen zaizkigu. Jaunak luzaroan gorde ditzraigula.

Gure dolu-min bizi batekin, lagun egiten diegu Don Eujenio zenaren senide (aurride) illoba ta familiar guzieri.

Gortari ta Ugarte'tar Yon

Principe de Viana, 1968, urria, 5. orr.

## BAZTAN

### Lenengo Jaun-artzeak Oronotz'en

Maiatzaren ogei ta irugarrenean, Igokunde egunez, egin zuten lenengo Jaun-aurtzea amabost aurtxoek, bederatzi nexka ta sei muttikok, alegia. Ona, emen, bere izenak:

Maria Jesus Arregi Almandoz, Maria Karmen Torroa Sanzberro, Maria Kristina Ugarte Gortari, Maria Rokamador Balda Jauregi, Maria Koro Gartzia Maia, Maria Rosario Martinez de Lizarrondo Galañena, Juana Mari Berho Iriarte, Maria Krutz Apezetxea, Maria Jesus Krespo; Kiriko Oteiza Ugarte, Jesus Maria Intziarte Irureta, Karmelo Maria Berho Apezetxea, Bernardo Ugarte Gortari, Josetxo Etxandi eta Jose Antonio Santxez.

Sakramentu guztiak (¿zenbat dira? dotriñaren Lenengo Zatiko galdera) santu ta aundiak dira, bañan... guratso guztientzat, "bat" bada aundia: komunioa. Aurren lenengo Jaun-artzea, alegia.

Zenbat buru-auste ekartzen ote dizkie guratsoeri aurren LENENGO JAUN-ARTZE orrek! Kezka aundiak sortzen zaizkie nai ta naiez ikasbidea (dotriña) nola ikasiko ote duten; aski prestatuko ote diran Komuniorako; buru gogorra omen duela bere umetxoak; apaizak ere "piper" egiten omen duela dotriña erakuste orren gañean... Aldameneko famili orren nexka baño gurea obekixago, edertxago eraman bear orrek; orrenbeste familiar itxo (espero ditudan ezkerok, bazkaria ere eder-xamarra prestatu bearrak... Ta, orrelaxe guratso guziekin ta urte guziz.

Aipatutako "kezka" oiek denak, daramate beren arrazoi puxka. Ez da ulertu (entenditu) eziña AMA batek kezkek ta ilusioak izatea. Denok daramakigu geren arrokeria, aulak eta erorkorak geranez. "Geiegikeriari etzaiola tokirik eman bear" oroituazten digute, bañan, ni segur nago iñor ez dala izango eliz-maixu oien erakutsiak "utsean" botako dituztenik. Ez. Alakoxeko eder-zaletasun bat besterik ez da izaten. Gauzak egoki ta ongi atera naia. Jainkoak barka deigula oben txiki ori!

Zorionak aurtxo oieri ta bai ta ere beren guratsoeri.

Gortari ta Ugarte'tar Yon

Principe de Viana, 1968, uztaila-abuztua, 5. orr.

## BAZTANDARRAK XABIER'EN

¡Xabier! Izen aundi. Izen ospetsu. Izen saindu... Xabier aipatzen degunean, etxekotar batez mintzo gera. Biotzez pozten ta alaitzen gera. ¡O Xabier, baztandar! O, Xabier, napartar! O, Xabier, euskaldun! O, Xabier, saindu!

Euskal lurretan jaio zitekean gizonik ospetsuena, Xabier'tar Frantzisko dugu. Benetako gizon jakintsu ta saindu. izen ta ots aundiko "Juan da Jasso ta Maria Azpilkueta" guratso aberatsen semea.

Juan de Jasso, Frantzisko'ren aita, naparroko erregearen kontsejulari zan. Ama berriz, Baztan'go Azpilkueta errikoa. ¡Zorionekoak, Azpilkuetarrak!

Milla bost eun ta seigarren urtean jaioko zan Frantzisko, Xabier'ko gazteluan. berrogei ta amabost urte gerora, il zan Goan'an, Sanzian izeneko ugartetxo batean.

Gazten denboran, aundikien seme bezela, guratsoek erabaki zuten -milla bosteun ta ogei ta bostgarrenean- Paris'ko Ikastetxe Nagusira eramatea bere ikastaroak egin zitzaizkan. Xabier'en asmoak "aundia" izatekoak ziran. Zezaken diruz eta geiago buruz... Ikasketan asko saiatzen zan, bañan, bere arimako gauzetan etzuen ajola aundirik jartzen. Arrixku aundien tartean bizi zan.

Milla bosteun ta ogei ta bederatzigarren urtean, Ikastetxe berera joan zan Loiola'ko Iñazio. Biak adixkide egin ziran. Egun batez, Iñaziok, Xabier aundikerian ta arro xamar pentsatzen zuela oarturik, esan zion: "Xabier, zertarako dezu munduan aberatsa izatea... Jakintsua izatea... mundu guziaren jabe izatea, zure arima galtzen ba-dezu?". Lenengoz, Xabier'ek irri egiten zion itz auetaz. Munduaren aunditasunetan besterik etzuen pentsatzen. Bañan, Loiola'ko Iñazio'ren itz aiek, egunean baño egunean zorrotzago sartzen zitzaizkion biotzean. Eta, bere baitan zion: "Ba-ote da mundu ontako aunditasuna jarraitzea baño gauz aundiagorik?".

Burutapen aundia sortu zitzaizkion eta "arrokeriak" alde batera utzirik, artu zuen apaizgoko bizitza (Jesus'en Lagundikoa) eta joan Indietara mixiolari. Lurralde aietan millaka ta milloika kristautu ondoren ta oso makalduta arkitzen zelarik, Xabier'ek ezagutu zuen eriotza urbil zeukala. Sukar gaizto batek indar-galduta utzi zuen. Biotza bakarrik zeukan bero ta maitekor. Milla bosteun ta berrogei ta amabostgarren abenduaren bian itzik gabe gelditu zan. An zegoen eriotza. urrengo goizeko argi-piztueran zerura egatu zan. Xabier'ek kristaututako mutil gazte bat, Antonio izenekoa ta txinatarra jatorriz, au bakarrik omen zegoen santuaren ondoan. "Aita gurea zeruetan zaudena..." euskeraz errezatuz omen ziran Xabier'en azken otoitzak.

Abenduaren irugarrenean zelebratzen dugu naparroko Xabier'tar Frantziskoren jai aundia. Bañana, beraganako "*eskerrezko bederatzi-urrena*" egiten da urtero martxoaren lau'tik amabi'ra. Aurten, Baztandarren txanda, illabetearen amabian izan da.

Autobus talde ederrak atera ziran Baztan'dik Xabier'era. Egun orretan ikusgarritzko elizkizun berezi bat izan zuten Baztandarrek; euskerazko meza kontzelebratua, amabi apaiz-erretor baztandar, Larrañaga Gotzaia (Obispoa) buru zutela "elkar-mezan", Arizkun'go Erretor dan don Jose Plaza jaunak, Baztan'go Artziprestea danak, euskerazko itzaldi bikain baten bidez, goraldu zituen erromesak eta Xabier.

¡Gora dezagun guztiok  
Frantzisko Xabier Deuna  
Jaungoikoarentzat milla erri  
irabazi zuena...



Gortari ta Ugarte'tar Yon

Principe de Viana, 1968, apirila, 5. orr.

## BERTSOLARITZA

Gure euskal-erriak berekin ditu edo berezkoak zaizkio beti pelotariak, aizkolariak, arrijasotzaleak, txixtulariak, akordeonixtak, dantzariak ta abar. Ez da erririk, txikienetakoa izan arren, aitatutako kirol edo deporte oietatik ez daramakitenik. Badute, bat ez bada bestea.

Bañan, euskaldun guztiok, denok, barren-barrendik maite ta poztutzen gaituen gauz bat "bertsolaritza" degu. Zorionez, gure errietan bertsolari asko ditugu; batzuek onak, besteak obeagoak. Danok, txalogarriak dira. Danoi, Jainkoak eman die almen ta doai aundi ori. Kulturik gabekoa izanagatik, au da, ezjakiña izan ta ere, bertso ederrak egiten ditu. Jakintza (kultura) izan edo ez izan -obe izatea- berdin antolatzen ditu bertsoak.

Asko dira ezagutzen ditugun bertsolariak, bañan, askoz geiago dira ezagutzen ez ditugunak; edo, beñepein, txapelketa ta beste okasio askotan azaltzen ez diranak. Ortxe, arkitzen dira bada, ixillean ta izkutuan etorrera ta ongi antolatzalle diran bertsolari lotsatiak; jendearen aurrera azaltzea kantari lotsatzen diranak.

Ongi deritzait illeroko "PRINCIPE DE VIANA"n argitaratzea napartar euskaldunok irakurri ta ausnartu ditzaten, onako amar bertso polit ta mamitsu auk. Euskerari buruz egiñak dira "ixillean" egoten den mutil gazte buru argitsu batek. Ona zer dion:

-1-

Lagun euskaldun irakurleak  
kantari nator zuengan,  
biotz barrengo naigabetxo au  
iya aitortutzen dedan.  
Neure ustetan gu euskaldunok  
lasaitxo bizi aukeran,  
ezpaitakigu gu zer ontasun  
lurperatzen ai geran;  
urtetik urtera gure izkuntza  
galduaz dator gainberan.

-2-

Gure artean ezagutu zan  
bizitzaren lenbizitik  
izkuntza goxo eta sakona,  
garbia beste aldetik;  
lenengo itzak ¿ze ote ziran  
Betiko Aitaren aotik?  
Esan leiteke aingerutxoak  
jetxi zutela zerutik  
lur ontan gendun millaka urtetan  
Jesukristoren aurretik.

-3-

Ainbat urtetan zenbat naigabe  
sortu dan Euskal-errira,  
izkuntzaketik bizia emanak

ainbat aitona badira;  
esaten zuten: gure euskera  
askatzea komeni-da,  
guratso aiek izan artetik  
an daude guri begira,  
negargarri da: aien legeak  
utsera biurtu dira.

-4-

Guratso aiek eskatzen zuten  
maitetasun guztiarekin:  
bildurrik gabe toki danetan  
izkuntza garbiz itz egin;  
zuek zerate gure oiñarri  
euskera galdu ez dedin,  
indar berritzen eta zabaltzen  
egin zazute alegin",  
ni lotsatzen naiz ikusitzean  
ez degula ezer egin.

-5-

Aurrerapenak ta erreztasuna  
borobildurik lurrian  
gauza geienak indartu dira,  
danak nai dute aurrian  
gure izkuntza bakar bakarrik  
oraindik lengo neurrian,  
urtetik urtera atzeraka

ain era negargarrian  
lengo guratso aien odola  
¿nun da gaur Euskalherrian?

-6-

Ikusten degu nundik datorren  
ekaitzikan gogorrena,  
erderaz asko, euskeraz gutxi,  
gaurko gaztedi geiena;  
txorakeritzat artutzen dute  
erakutsitzen zaiena,  
lagun taldea geiena dela  
euskeraz ez dakiena,  
gaztedi maite ¿zuk al damazu  
gure izkuntzan azkena?

-7-

Arnasik eman nai badiogu  
zuzen jokutzen ikasi,  
lenengo lana nork bere etxean  
euskera ona erakutsi;  
lagun artean dabiltzanean  
beti erderaz ez utzi,  
gure izkuntzak ez ote dauka  
beste batek ainbat grazi?  
Bere lurrean dabillen arte  
¿zergatikan galerazi?

-8-

Iñoiz okerrik ez du ekarri  
izkuntz asko ikasteak,  
maixu euskaldunak bear dituzte  
nexka-mutiko gazteak;  
lenengotik ar dezan indarra  
batek bezela besteak,

ai; zenbat oker ekarri duan  
anai-arreba maiteak,  
gure gazteak ikastetxean  
euskera ez entzuteak.

-9-

Guratso zarren oitura onak  
galtzerik ez du merezi,  
alkartutzera saia gaitezen  
ta gogoz lanean asi;  
euskera jarri erreztasunak  
nai duten danak ikasi,  
Euskal-erriko soñu ta dantza,  
zenbat oitura ta jantzi,  
munduan berdin gabeak dira,  
bañan IZKUNTZA lenbizi.

-10-

Euskal-anaiak, euskal-arrebak,  
alkartu danok batera,  
guratso aiek eska zutena  
guk eska zagun ostera;  
mami mamitik landu dezagun  
euskaldun onak bagera,  
noiztik zatozen iñork ez daki  
¿noiz arteraño ote zera?  
Munduan, azken egun bitarte  
entzun dedilla EUSKERA!

Gortari Ugarte'tar Yon

Principe de Viana, 1967, otsaila, 3. orr.

## BI APAIZ ILLEN OROIMENEZ

Gaur, bi apaiz illen oroimena ekarri dut lerro auetara, bat urtemugakoa ta bestea ilberri dugunarena. Biak, apez saindu ta euskaldunak gañera. Biak, jakintsu ta langille amorratuak. Biak gazteak. Biak, bat-bateko, "derrepente"ko eriotz batek eramanak. Lenengoa, Etxenike ta Goñi'tar Eugenio, Arraiotztarra ta Goizueta'ko Bikario jauna. Bigarrena, Arburua ta Mihura'tar Xabier, Etxalartarra ta Aranatzten Bikario jaunaren Laguntzale zegona.

DON EUGENIO. Buruillaren ogei ta bian zelebratu zan lenengo urte-betetzeko elizkizun ederra, bere sort-erri Arraiotzko elizan. Illik urte bat izanarren, yendeak etzeukan atzendua urte-mugaren elizkizuna. Apaiz sailtxo batek ere lagundu nai izan zion. Goian bego. Otoitz bero bat beraren alde.

Ta, azkenean, beraren eriotz-ondorengo omenez, argitaratu nai ditugu amabi bertso auek, Arraiotztar batek Don Eugenio zenari maitasun, zintzotasun ta adixkidetasun aundienaz eskeintzen dizkionak.

DON XABIER ARBURUA MIHURA! Oraindik il berri duguna. Oker ez banago beintzat, abuztuaren zortzia zan. Ogei ta amairu urte, "Kristoren adiña", esaten dugu askotan. Urte oietxek zeuzkala, eraman zigun Jainkoak. Badugu Euskalerrian esaera xaar bat: "jaiotzeari, iltzea zor". Ta nola il? ¿hoiz? ¿nun?

Len aipatu dugun bezela, don Xabier Arburua, zortzi-amar urte auetan (meza eman ezkeroztik) Aranatzten zegon Bikario jaunaren Laguntzale, garai batean don Matias Barberia zenarekin ta azkeneko urte auetan don Esteban Irigoienekin. Biak, don Esteban ta don Xabier, Erretore ta Laguntzalle baño, bi anai, "biak bat" ziran. Bi apaiz jator, bi langille ezin ta obeak apaiz-lanetan.

Etxalartarra zan don Xabier, bañan, maite zuen benetan Aranatz. Maite zituen baserriak; maite zituen langilleak; maite zituen aurrak; maite zuen gaztedia ta maite zituen, itz batean, Aranatztar denak. Alako biotz zabaleko apaizagan etza izaten al etsairik. Bera-ere maite baño maiteago zuten. Eta... maite zuelako-ere mendia, mendietako ibillaldiak, jainbat on egiten bai zioten! atera zan goizean, amarrak aldean "Mendaur" gallurrera, tontorrera. Arratsalde erortzerakoan, Aranatz'en larri, bildurtu egin ziran apaizik azaltzen etzalako. Asi ziran zenbait gizon apaiz billa, bañan... gizonak baño lenago ateria zan eriotza bidera, apaizaren billa. ¡Antxen! bide-ertzean, azkeneko baseritik urbil, gertu, arkitu zuten il-otza. ¿Ze gertatu zan? ¡Ala bedi ta goian bego.

Esaerak diona: "xaarrek nai ta nai-ezkoa" (il bearra) ta "gazteek seguru-antzik ez", orra, or gizona'ren azkena. Deusereza, ezereza. "Gazte ziñala utzi gintuzun bai, bañan, gazte ziñala, zuk ereindako azitik arbol ederra egingo de ta orren frutuak jango dituztenak asko izango dira".

Aranatzko erriak ez omen du sekulan ezagutu orrenbesteko yendeketarik nola don Xabier zenaren mezetan. Sei apaizek, Donostiko Gotzai (obispu) dan don Jazinto Argaia Goikoetxea jauna buru zutela, eman zuten meza. Iruñako Kardenal jaunak, don Arturo Tabera Araozek, egin zuen erderaz sermoi bikain bat ildako apaizaren birtuteak ta nortasuna goraiatuaz. Aranatztar geienek negar tanto samiñak ixuri omen zituzten. ¡Maite bai zuten benetan!

Beranduxago badaere, doaiela gure dolu-miñik xamurrena bere guratso zintzo, senide ta senidetar guzieri.

-1-

Arraiotz'en jaió zan  
Sendi on batean,  
Milla bederatzi eun ta  
Amalau urtean;  
Eriotza izan du  
Goizueta'ko errian;  
Orain zeruan dago  
Atsedén tokian.

-2-

Animen egarri zan  
Txiki txikitikan,  
Amets zoragarri au  
Zeukan biotzean;  
Apez-deia entzunez  
Bere barrenean,  
Iruñan sartu zaigu  
Seminarioan.

-3-

Santutasunarekin  
Jakintza batean,  
Apez-jaun agertu da  
Gizonen aurrean;  
Meza berria eman zun  
Arraiotz'ko errian,  
Bereala asteko  
Animen lanetan.

-4-

Ain zen Apez jatorra!  
Ain zen txintxi-fiña!  
Ain Jaungoikozale ta  
Denentzat berdiña;  
Apez-lanetan, beti,  
Aspertu eziña.  
Bere lana izan da  
Egoki egiña.

-5-

Abizen Etxenike,  
Eugenio izena,  
Onentzat esan bear:  
¡Au zen maitagarria!  
¡Ain zen bai zuzena!  
Ezin dugu atzendu  
Bere oroipena.

-6-

Jaunaren mastian zen  
Langille agertu,  
Gure poz eta miñak  
Berak ditu artu;  
Artzai onak ba-dira,  
Eugenioz nor aztu?  
Norbaitek bere utsa  
bear du nabaitu.

-7-

Ain ziñan elizkoia!  
Ain ziñan ixilla!  
Otoitz aundikoa ta  
Izlari sotilla;  
Ama Birgiñ zalea  
T'uste gabe illa?  
Zerura joan zaigu  
Antzekoen billa.

-8-

Bat-batean jarri zan  
Gaxo Goizuetan,  
Iru meza igandez,  
Eman ondorean;  
Elizakoak artu  
Ezaguera osoan;  
Begiak itxi zitun  
Jaunaren pakean.

-9-

Ainbeste maite zuen  
Gure Jesus ona!  
Nork esa Bere alde  
Egun duen lana?  
Kristo'ren usai gozo  
Zabaldu zuena,  
Jaunak eraman digu  
Orain beregana.

-10-

Gure alde Jaunari  
Egin errekuak,  
Izan gaitezen danok  
Zure antzekuak;  
Munduan emen gabiltz  
Larri ta estuak,  
Ez ditugu aztuko  
Zure kontsejuak.

-11-

Animak zeruratu,  
Jaunari eraman,  
Orixen bere lana  
Izan zen munduan;  
Orain atsedan artu  
Betiko zorian,  
Zure zeruko Aita  
T'Amaren ondoan.

-12-

Agur, anai maitea,  
Bañan, ez betiko;  
Agur zeruan laster  
Elkar ikusteko:  
Jaunari eskatzen diot  
Zu zeruratzeko;  
Zuri eskatzen dizut  
Gutaz oroitzeko.

Gortari ta Ugarte'tar Yon

Principe de Viana, 1969, urria, 3. orr.

## DONEZTEBE

Agur, Mendaur

Eta, bai. Agur, Mendaur! Agur, Joxe Mari! Umezurtz bezela utzi gaituzu Malda-Erreka alde auetan. Maite zinduztegun. Bañan, bai zuk ere gu. Urte mordoxka alde bat egin dezu Napar-mendi alde auetan. Bejondeizula.

Ongi aitortu dezu "joatea, pixka bat iltzea dela". Non omnis moriar. Dena il gabe geldituko naiz. Ezin naiz aldegin dena... Zu, irakasle (maixu) ona. Zu, idazle bikaña. Zu, legegizon zintzoa. Zu, napartar ta euskalzale leiala. Zu... gu-tzaz aztu? Ez degu orixe uste. Gogoz gurekin izango zera. Gure erri paketsu auen gora-berak ongi ausnartzen zenituen. Zure idazlanetan, izparringien bidez, majiña bat goraltze izan dezu gure erriak, gure nortasuna delata. Eskerrik asko. Milla esker!

"Mendaur" goi-gallurretatik zenbat begiraldi ta egonaldi egin ote zendun... ¡Mendaur ain atsegingarri zitzaitzulako, bere izena artu zendun izen-ordekotzat. Berak ekartzen zizkitzun gaur asko burutara. Bertatik ikusten zenituen Euskal-Erriko zati ederra. Eta bertantxe indartzen ziñan, eta beragatik idaztera beartzen ziñan. "Iparragirre"ren antzera zoraturik, abesten zendun askotan:

Ara, nun diran, mendi maiteak  
ara, nun diran zelaiak  
baserri eder zuri-zuriak  
iturri eta ibaiak;  
ementxen nago zoraturikan  
zabal-zabalik begiak,  
ara, Euskal-Erri! lur oberikan  
ez dala mundu guztian...

Agur, bai, Joxe Mari. Bañan, zure gogoia ta biotza, badakigu geldituko direla, Malda-Errekan. Bost-Errietan, Baztan'en eta abar. Jarrai zure idaz-lanekin. Ekin eta jarrai gure baseriaren alde; langilleen alde; jakintzaren (kulturaren) alde; industriaren alde; folklore ta euskeraren alde. Gure nortasunaren alde. Ekin eta jarrai!

Gortari ta Ugarte'tar Yon

Principe de Viana, 1969, azaroa-abendua, 9. orr.

## DONEZTEBE

Baztan ta Malda-erreka'ko erriko jaiak

Gure lurralde maite auetako erriko jaiak, bestak, Irurita'n ta Urdezubi'n (Urdax'en) Igokunde edo Slabatore egunez asiera eman ta Gartzain'en, Berroeta'n ta Ituren'en Sanmartiñ egunez bukaera ematen zaie.

Esan bezela, Irurita'k ta Urdezubi'k, Salbatore egunez ospatzen, zeledratzen dituzte; Arizkun, Oieregi ta Saldis'ek, Sanjuanak; Erratzu, Almandotz, Doneztebe ta Beintza-Labaien'ek Sanpedrotan Azpilkueta ta Lesaka'k, Sanfermiñak; Elizondo ta Elgorriaga'k, Santio egunez; Bidaso'ko Bera'k, Santestebanetan (abuztuaren irugarrenean); Gaztelu'k, Santodomingotan (abuztuaren laugarrenean); Ziga'n, Salorentzo'tan (abuztuaren amargarrenean); Sunbilla'k, Sandiburtziotan (abuztuaren amaikagarrenean); Zugarramurdi, Amaiur (bi erri auek ez dira Baztangoak), Arraiotz, Aniz, Oronotz, Donamari, Ezkurra, Zubieta, Aranatz ta Etxalar'en, abuztuko Amabirjin eguna; Narbarte'k, Sanfelipe Neri (abuztuaren ogei ta irugarrenean); Lekarotz'ek, Sanbartolometan (abuztuaren ogeita laugarrenean); Legasa'k, Sanagustiñetan (abuztuaren ogei ta zortzigarrenean); Oitz ta Eratsun'ek, Solbeziotan (buruillaren edo agorraren zortzigarrenean, Amabirjiñaren jaiotza egunean); Eluete'k (Elbete), Santakruz (buruillaren amalaugarrenekoa); Urrotz ta Igantzi'k, Sanmigelak; eta, Gartzain, Berroeta ta Ituren'ek, Sanmartiñak.

Zaindaririk ez duen erririk ez da. Bitarteko bezela, Zeruetan dago Zaindari ori. Erriak maite dio ta erregutzen biotzez. Jai oiek zeledratzeko, ba-dauzka erri bakoitzak bere usalegeak, oiturak; al duenak al duen eran, zeledratzen ditu. Batzuek programa onakin ta besteak obeekin.

Santioak pasa ziran. Elizondo'koen berri eman dezakegu -Elgorriaga'ri deusere kendu gabe- ta txalogarriak zirala esan. Mami aundia zeukaten egun denek. Bañan, guziz, batek: azkeneko egunak (ogei ta zortzigarrenak). Ezin dezakegu denek berdin pentsa. Nik nerea aitortzen dut: ez ditekela gure errietan gauza ederragorik arkitu, nola bertsolariak, pelotariak, mutil-dantzariak ta bikoteak (parejak) fandango batzaldian, konkurtsoan baizik.

Aspertu eziñezko leiaketa bat egin zuten amaika bikotek. Bost ziran Bizkaitarrak, iru Naparrak (Iruña'koak), bi Gipuzkoarrak ta bat mugaz-beste aldekoa, Ezpeletarra. Lenengo bost bikote sarituak, bizkaitarrak izan ziran. "Basarri" jaunak ongi esan zuen bikote denak onak zirala eta etzala lan erraza juradoarentzat erabakiak artzeko zein zeñen ondolik jarri. Ta alaxen zan benetan. Denak, onak baño obeak. Lenengo sariak ere ontan asi ziran: Xabier ta Mariñe, Bilbokoak; Kareaga ta Arrate, Markiñakoak; Ortega ta Ermosilla, Bilbokoak; Etxaburu ta Bilbao, Ondarroa'koak ta abar. Bein ta berriz izan zuen jendeak zer ikusteko "Iriarte" frontoi ederrean. Bete-bete egin bai zan.

Bañan... bai ta ere programa eder ta jendearen alaitasun ura illundu egin zan. Nai-gabe bat sortu bai zan uste gabeko eriotz bat zala-ta. Federiko Izeta Larrañaga jaun zenaren eriotza, alegia. Gure adixkide Mariano izeta Juanikotena'ren aita il zan. Goian bego. Zarautztarra zen bera, berrogei ta amar urte luzean Elizondon bizi zana. Famili luze ta onradun baten aita zintzoa. Kristau sutsu ta benetako euskalduna.

Santuen modura "dena Jainkoaren aintzarako" egiten saiatu zen ezkerero, orain, Jainkoaren aintzatic, badakigu alegiñak egingo dituela ain maite zuen Euskal-erriari bear dituen graziak Jainkoagandik erdiesten ta bialtzen. Ala bedi ta goian bego. Gure dolu-miñik bizienak ildakoaren emazte alargun ta seme-alaba guzieri.



G. U. YON

Principe de Viana, 1968, iraila, 5. orr.

## DONEZTEBE

Euskera'ren alde gera

Iruña'ko Eliz-Barrutiak astero argitaratzen duen LA VERDAD orritxoan, Martxoaren 31-garrenekoan. Irakurri gendun onako au: CIENTO CINCUENTA NIÑOS ESTUDIAN Y REZAN EN VASCO EN PAMPLONA.

Zorionez, ba-genekian azkeneko iru urte auetan Ikastola orrek denentzat atea idekiak zuezkala ta on aundia egiten ari zala euskera'ren alde. Pozgarri zaigu LA VERDAD'ek bere onura ta ardura jartzen duelakotz Naparroko Iri-Buruan euskera erakusteagatik.

Bertako erakusketak, euskera utsean dira: irakurtzen da, idazten, abesten, erreztatzen ta jostatzen. Lan bikaña!

Bai. Naparroko Iri-Buru Iruña ederrean euskeraz erakusten da. Ikaskizun edo ejenplu ederra ematen digute gure, erri txiki ta mendi tartean bizi geranoi, ta, gure epeltasun, zabarkeri ta euskeraganako ajola-gabetasuna pixka bat astintzen degun. Iruogei ta amar milla (70.000 milla) napartar mintzatzen dira oraindik euskeraz. Gu, zorionez, talde orretan gaude. Bañan... mintzatze utsarekin edo euskera "ezgaltze" utsarekin gelditu bear ote degu? Ez ote genduke geixeago euki bear? Ez ote degu merezi eskoletan euskera erakustea? Iruñan... Altsasun... Elizondon... euskera erakustend elako berri badegu, bañan, entzun-ta nago ere, Malda-Erreka alde ontan beste otsak diranik, au da, trabak jartzen dituztelakoz.

Premi aundiko ta bear-bearrezko dan lan oni, erakusketa oni, ez dira goi-agintariak "uko" egiten diotenak -zorionez, goi-agintariak eskubide onak ematen bai dizkigute erakusketa onetarako- baizik, bertako agintariak dira nai ez dutenak ta gogorkerizko "ezetzari" eusten diotenak.

Ez ditut erri ta aiuntamentu oien izenak emen agertu nai, ez merezi ez dutelako, baizik, egunen batez euren gain eroriko baita justizizko ordaña. Ez baitu sekulan balio "bildots-itxuran" azaltzea, "ozka" otsoarena gelditzen bada. Itz batean: EUSKERA, GORROTATUA DAGO.

G. ta U. YON

Principe de Viana, 1968, maiatza, 5. orr.

## DONEZTEBE

Asko dira Naparroan errebixta edo periodiku au artzen dutenak eta oso pozik artzen dutela, bañan, badira beste asko artzen ez dutenak; eta ez artu bakarrik, ez dute ezagutzen-ere. Zabarkeri puska bat badago gure errietan ta lan poliki geiago egin bearra dago. Gure apaiz jaunek ere geixeago saiatu bear luteke, arreta geixeago artuz, Diputazioak, ta onen izenean Ordezkarriak eskatzen duten bezela.

Ez da txan(-)tetako gauza gure Fuedun Diputazioak esku-tartean daraman eginkizuna: euskera goratzea ta zabaltzea. Gure Agintarien aldetik orrelako erreztasunak ditugun ezkeru, gu lo egon? Gure Erri maitea ez degu goratu ta salbatu bear? Bai erantzun, ta deus ere ez egin? Ori gezurtia izatea da.

Sei milla arpidedun badira Naparroan (badakizue "debaldekoa" dela, ordaindu bearrik ez dagola) eta beste sei milla bear dirala esatea, gutxi esatea da, Naparroan badira Jaunari eskerrak, iruogei millatik gora euskera mintzatzan dutenak, eta oietatik orren gutxik ematea beren izenak ta apelliduak, gauza lotsagarria da. ¡Lan egin bear da!

### Baserritarrak

Gure baserritarrak "zorionez" daude. Zer dela ta? Naparroako Diputazioak akordua artuta dauka sei urteen barrenean bide berriak ta zabalketak egiteko baserri guzietara. Baserririk urrutienetara ere egingo dira pista oiek. Modu ontan, gure baserriak salbatuak daude. Eta gañera, nekazariak orrela arreta aundiagoak artuko ditu nekazalgoan.

Milla ta zazpireun baserri (bizileku) dauzka naparroak gaurko egunean, ta, baserri-atariraño karretera izate orrek, ontasun ta gauz aundiak uste izaten al dituzte. Ez bildurrik izan, modu orretan arkituz baserria ta erreztasun oiek emanez, baserria utzi-ta karrrikarako joera artuko dutenik...

### Mendi Mutillak

Malda-erreka ta Baztan aldeko mutillak, asi dira sailtxoka sailtxoka Frantzi, Suiza ta Itali aldeko bideak artzen Otsalla'ko egualdi onak animaturik, or dijoaz, beren zortzi edo bederatzi illabeteko "ekiñaldia" itsu-itsuan egitera. Dudarik ez dago pena aundia ematen diela gure gazte jator aueri guratsoak, senideak, sort-erria ta lagunak emen uzteak, bañan, ongi dakite, emen, gastatu bai ta irabazi gutxi egiten dela. Oianeko bizimodua, bizimodu gogorra, bañan, diru egitekoa, Emengoa, ordea, leuntxagoa, bañan gazta-erraxa...

Izan dezazuela osasun ta Jaunak lagundu deizuela laneko arrixku guzietan.

Gortari Ugarte

Principe de Viana, 1967, martxoa, 5. orr.

## DONEZTEBE

Ilbeltzaren 29-garrenez eta arratsaldeko lau terdietan, Doneztebe'ko errian izan genituen ikusteko politak. Malda-erreka errietako biotza bezela degu Doneztebe. Erri asko artzen ditu aldamenean eta auek beti izan oi dute bil-toki, Doneztebe.

Aitatutako igande orretan, izan zuen jendeak nun ibilli ta nun josta. Uda-berriko egun bat iduri zuen egun orrek. Bero egiten zuen. Ilbeltzak asiera txarra eman zigun txuri-txuri jantzi-ta azaldu zitzaigulakotz lenengo egunetna, bañan, gero, onera biurtu zan ta bero egiten jarraitzen du idaztitxo au antolatzen ari geran garaian.

Eta, goaze arira. Donezteben gabiltz... BEAR-ZANA pelota-plazan jokatu ziran aizkolari, bertsolari ta aari-jokuak. Saioari asiera eman zioten iruna bertsokin Uztapide, Arotzarena ta Lasartek. Oso azertak egon ziran.

Gero, azaldu ziran gure egunetako aizkolari famatuak: LATASA altsua, Martzelino ZEBERIO (Ataundarra) eta Juan Krutz Azpirotz, ARRUIZ'ko TXIKITO'ren aurka amabira enbor kana-erdiko mozteko. Latasak irabazi zien. Kemen ta indar aundian arkitzen da Erramun Latasa.

Aari-jokua ikusteko-ere bazebillan jendearen tartean iduripen ta iritzi pranko... Batzuek, gipuzkoarrak eramango zuela, ta besteak, napartarrak; au obeagoa dela ura baño; alako tokitan onenbeste "zanpetako" eman zizkiola ta dena odoletan utzi omen ziola... Dakiguna da, batek irabazi zuela. Eta aixa gañera, Juan Mariezkurrena. ERATSUN'darrenak aixa kendu zion, BEDAIO'ko Antonio Beloki'renari.

Esan digutenez, Antonio Beloki'ren aaria, gipuzkoa'ko aari jokolarietan onenetik gelditutakoa omen da. Bañan, Doneztebe'ko errian "alde" txarra izan zuan. Bigarren kolperako izutua zegola nabari izan zitzaion. Eta, irugarrenerako, iges egin zion kontrarioari eta... ¡galdu! Erne ta brabeslari zegon jendea, bañan, uste etzan ederra-ere eraman zuen; diru poliki galdu bai zuten. Bost eun ta milla pezetakoak aixa zebiltzen Bedaio'tarraren alde.

Zer egingo da, bada. Jokoak bereak ditu beti irabazteak ta galtzeak. Iñoiz ezin esaten aal ziur: onek edo arrek eramango du. Utsak ta okerrak denontzat bai dira beti.

Eta, azkenez, iru bertsolariek izan zuten beren saioketa apostueri buruz. Gero orkesta "Beti-Jai" ospetsuak, jarraitu zion jaiari illunabar aldera arte. BEAR-ZANA plazak etzuen jende geiago artzen aal. Milla bost eun pertsonetarik gora omen zan. ¡Zorionak denoi!.

Gortari'tar Yon

Principe de Viana, 1967, otsaila, 6. orr.

## DONEZTEBE

### Doneztebeko feriak

Azaroako amazpian, ostiralez, antziñatik ta aspalditik ezagutu izan oi diran feri sonatuak, zelebratu ziran Doneztebe'ko errian.

Garai batean, toki askotatik, batez ere aldameneko errietatik, biltzen ziran jendeketak, "kondaira edo ixtori" batean gelditu dira...Gure erri-buruetako feriak ta merkatuak, galdu dituzte izen eder oien antzak. Deus-gutxi ikusten da gaurko egunetan. Etxetik saltzen dira on diran azindak edo ganaduak.

Agitz azinda gutxi azaldu zan Doneztebe'ko merkatuko plazan. Gora-bera txikia zeukaten sal-erosteak. Lengo gure xaarrek esaten zuten Doneztebe'ko feriak ibiltzen zituztela beste errietako ferien sal-neurriak; au da, Donezteben prezio bixi xamarrak ibiltzen baziran, siñale edo ageri ona beste errietako. Aurten beintzat, ez "bixi ta ez motel" bearko dute izan, ezer-gutxi bai zegon...

### Apaiz billera

Bertir-Arana baillarako "*Bertiz*" jauregian, izan dituzte billera ta elkar-izketa batzuek, Baztan ta Bidasoa aldeko apaiz talde batek, "oian-mutillak" ta "hoteletako neskatxak" elburu dituztela.

"Oian-mutillak" gai oni buruz itz egin edo mintzatu zan jatorki Arantzako Erretor dan Irigoien'dar Esteban apaiza. Eta, "hoteletako neskatxaz" mintzatu zana, don José Pérez ta Balda. Beran dagoen apaiza. Don Esteban apaizak ongi daki, edo beintzat, bein baño geiagotan ikusi du nolako bizimodua, zer irabazpideak ta nolako lantegiak izaten dituzten gure euskal mendi-mutillak.

Elkar-izketa oietan artu dituzten erabakiak, on aundiak ekarriko dizkiela gure mutillei uste osoan gaude. Eta joka-bide bera gure neskatxentzat.

### ERRALDALE EDO "EMIGRANTE" EGUNARI BURUZ

Españi'ko estadistikak garbi diotenez, iru milloi urbil españitar badira Europa zabalean, gizonezko ta emakumezko, lan egiten dutenak. Au, ez al da lotsagarri, orrenbesteko pillak atzerrira, extranjerira ogi billa joan bearra izatea? Zertarako bota etxea leiotik kanpora, esanez: au badegu ta ura ere bai, egon eta ibilli aldameneko naziotarako bideak artzera beartzen bagera, gu ta gure ondokoen "etorkizuna" zuzentzearren ta obetzeagatik?

*"Kanpora lan billa joan bearrak, ezbear ta buruauste aundiak sortzen ta ekartzen dizkio gizonari"*, esaten digu Batikano Bigarrenak, gaurko munduaz itz egiten duenian. Eta, jarraitzen du: *"Alegin guztiak egin bear dira lantegiak sortzen nor-beraren aberrian. Agintariak ta altsuak bearturik daude, bizipide garbi, lasai ta egokiak irixteko era guztietako langilleeri"*.

Negargarria da benetan gure mundu txiki au nola dabillen ta nola arkitzen dan aitortu bearra izatea. Egia, egi da. Eta beti orrela goaz... Noiz arte?

Principe de Viana, 1968, urtarrila, 5. orr.

## ERIoTZA ARRAIoTZ'EN

Laskibar ta Larreta'tar Errosario, il zan. Agorrako (Buruillako) illabetearen amarrean, Elizaren Laguntzaz Indartu ta Aita Santuaren Onespena, Bedeinkazioa arturik, joan zitzaignun Betiko Aitaren besoetara, Goian bego.

ZERUKO ARGIA gure asteroko maiean, 238-garren zenbakian, lumeroan, zabaldu gendun berri trixte au. Agitz naigabeturik utzi gintuelako Laskibat'tar Errosario'ren eriotzak, orretxegatik zabaldu gendun Zeruko Argia irakurtzen duten guztiak jakin ta bere animaren alde otoitz bat izan zezaten. Eta, orain berriz, "Principe de Viana"ren irakurleeri ere adierazi nai diegu ain garrantzi eta inportantzi aundiko den eriotz au.

Gure artetik alde egin zuen betiko, bañan, bere oroimena, baita ere gu-tartean dago betiko. Izate ta nortasun aundiko adixkide baten gatik ez gera sekulan azten aal Iruogei ta amaika urteko gorputz ura ustelkor gelditu bazan ere emen lurrean, illezkor dan animak artuko zuen betiko atsedena. Mundu ontan eraman zuen "bizitz garbiari" zegokionez, zorionezko zeruan arkitu bedi gure adixkide Laskibat'tar Errosario.

Arraiotz'ko txokoa, maite ta atsegingarri zitzaiolakotz, egonaldi batzuek egiten zituen urtero bere aideekin batera "Barrentxe-berria" izenezko etxe egoki ta dotorean. Euskal-Erriko zatitxo bat zalakotz, maite zuan Arraiotz. Maite zuan Tolosa, Tolosarra zalakotz. Itz batean esateko ¡maite zuan Euskal-Erri osoa! Eta bera biotzez maite zualakotz, zoritxarrezko egun batez, utzi bere sortetxe, sorterri ta ¡Euskal-Erri osoa! ta iges egitera beartua izan zan arrotz-errietara, extranjerira. Gorroto txarrez ta maltzurkerizko eginkizunekin ordainduak izan ziran Errosario zenaren goxotasun ta biguntasunezko alegin ta leiaketak.

Onbidearen egarri izan zan beti Laskibar'tar Errosario. Eta, emakume zuzen ta leiala baizan, argi ta garbi nabari izan zan bere animaren aldezko illetak, mezak, egin ziranean. Baztarretan adixkideak bazeuzkala ongi ikusi zan. Urbillekoak ta urrutietakoak samindurik ta naigabeturik utzi bai zituan, ortxe ziran Arraiotz'ko Eliz-nagusian azken agurra emate arren etorriak. "Puntu" bat ikuttu (ukittu) bearra daukat, eta auxe da: Arriturik juan zirala jende guztiak, ikusirik ta entzunik nola Arraiotz'ko erriak abesten (kantatzen) duen euskeraz elizan. Alaxen da benetan. Goragarria da. Neroni ere zoraturik egoten naiz bertako elizkizunak ikusita. Ez da Salmo bat ere latiñez abesten. ¡Jakiña, artzai onak, ardiak ere era berekoak izaten ditu...

Gero, azkenez, Laskibar'tar Errosario zenaren naia betez, bere gorputza Arraiotz'ko obitegian (kanpo-santuan) eortzi zuten. Oroi, bera-gatik. Goian bego.

Gortari ta Ugarte'tar Yon

Principe de Viana, 1967, urria, 5. orr.

## ... ETA BETI EUSKERA ELBURU

Etzaigu iñoiz aspergarri euskera gatik idaztea, mintzatzea ta jo-ta-ke aritzea Zorionez, politikxo goaz euskera'ri buruzko gauzetan. Egin dan lanari begiratu ta bera aztertuz pozten gaitu. Bañan... aurrera begira dezagun eta izenbat egiteko ikusten degun oraindik!

Euskal-erria aunditzen jarrai dezagun. Obeagotzen "Uztarri" baten bidez euskaldun guziak batzen. Ez degu besterik billatu ta nai bear, baizi, gure errien ona, beti bide zuzenetik jarrai dezan.

Maite dezagun euskera ta, maiterazi. Otzak dabiltzan euskaldunak epeldu ditezela; ta epelak berotu. "Gurea" izan dedilla beti orain arte izan degun NORTASUN ta JATORTASUN ori. Millaka ta millaka urteetan dabilkigun euskera au, arrigarrizko izkuntza au, maiterazi ta zabaldu dezagun.

Europa geieneko izkuntzak, elkarturik bezela daude, batzuek batzueri, ta besteak besteeri, famili ta aideko diran eran, bañan, gure euskera, ¡gure antziñako euskera xaarrak! ez dauka iñortxoren antzik. Ez du izan seniderik -izango ere ez- ta ez lengusurik. Adixkiderik ere ez... Bere baitatik ta bere bidez jarraitu izan du Europa berak, etzeuzkan gaur dituan izkuntzak; oraindik etzituen ezagutzen. Bañan, gure euskera bazan. Ordurako "amona" xaarra zan. Ain zuzen, arira ekarriko dut ipui bat Obekiago esateko, gertaera bat:

Esaten zaigu, nola bein batian, Grezi'ko gizon bat, panparroi omen zegon bere antziñako jatorriari begiratuta. Eta egun batian or nunbait, mundu zabal oietan... topatu omen zan euskaldun "aiton" xaar batekin. Beren izketaren barrenean zeudela, onela esan omen zion "grezitarrak" euskaldunari: ¡Ba-aldakizu, adixkide, gu, grezitarrok, orain dela milla urtetik onuntz gatozela? "Aitonak", estualdi gutxi emanik bere buruari, au erantzun omen zion: "Gu, euskaldunok, ez gatoz, baizik-ta betitik bagera"... Eta arrazoi aundia zeraman Euskaldunak ez gerala orain milla urtekoak... lauekuak... amarrekuak, baizik, amalau milla urtetik gorakoak.

¡O, zu, arrigarrizko euskera, iraun ta jarrai zazu menderen-mendez! ¡Zerutik jetxia zeran ezkeru, iraun, denok zerura juan arte!!!

G'tar Y.

Principe de Viana, 1967, maiatza, 6. orr.



## EUSKAL MUTILLAK EXTRANJERI'KO LANTEGIETARA

Urtearen lenengo bi illabeteak joan zaizkigu. Aurten, Otsailla, egun bat geiagokin gendun, "bisiesto-urtea" delako, alegia. Etzaigu ain gaizki portatu, eguraldi politak egin bai dizkigu. Orian, ikusi egin bear zer eskeintzen digun Aingeru Zaintzalea'ren egunez asi dugun Epaila edo Martxo'ko illabete onekin. Uda-berria'ren asiera, berak darama ta ez liguke bekoki txarrik azaldu bear...

Bi illabete joan ta egunak poliki luzatzen ari diran ezkeru, alakoxeko "ezin-egon" batekin bezela, nabaitzen ditugu gure mendi-mutillak. Batek au, ta besteak onenbeste agintzen dietela, or dabilz zeneri itzeman ez dakitela. Eskeintzak agitz onak diralako otsak dira. urterik urtera, poliki geiago. Ez da, orregatik, arritzeko, emengo fabriketako irabazpideak, ezereztako (deuseztako) botatzea ta Frantzi, Suiza edo Itali aldeko bideak artzea. Len, "krisis" ta orain krisis ta erdi... nor geldituko da emen? Al dezakenak beintzat, agitz ongi egiten du.

Mutil geientxoenek, seguruaski "agur" egingo digute Eguerri alderaño. Bakarren batzuek egingo dute bai beren itzultitxoak. San Pedroak, Ama Birjiñak ta onelako erriko bestak dirala-ta, bañan, oietakoak agitz gutxi izaten dira. Gañerakoak, ez oroitzen ez diralako erriko jaez, jasko gañera! baizik, oso urruti ta gaizki gelditzen zaielakotz etortzea; orregatik, ez dituzte bide luze oiek artzen. "Ximiko" (murtzika) aundi bat somatzen dutela erriko jaien eguna etortzen zaienian, ongi pensatzen dugu ¿nola ez! ta biotzpean diximulo pixka batekin gordetzen dutela pena ura. Gizajoak! Ez da munduan berdin bizi.

Irabazpide obeen billa joan bear orrek, ez dezaizuela okerrrik ekarri, orain suerte on baten bidez, geroko zoriona baizik.

Gortari ta Ugarte Yon

Principe de Viana, 1968, martxoa, 4. orr.

## EUSKALDUNAK EUSKERAZ

Gure izkuntzak orain arte, ogeigarren gizaldi ontara arte iraun badu ainbesteko "ekaitzi"ren zear, ta beti aurrera ekin ba-dio, gu, "mende-berriko" gazte euskaldunok, nolataz aztu? Nolataz lo egon? Euskaldunok, euskeraz mintzo bear degu. ¡Ta ori gutxi da! Euskera'ri, erro-erroraño, kultura sartu bear zaio. Eta orduan, orduan bai, "zuaitzak, beren frutuetatik ezagutu ta bereixten badira", erriak-ere, beren izkuntza gatik ezagutuko dira.

Jatorri bateko izkuntzaren inguruan, ainbat adar sortu duanean, aldaketa bakoitzak kimu berri bat darama berekin. Orra, adibidez latiñetik sortu diran adarrak. Eta adar oiek ez dira orri edo orbel berdiñez jantzi. Erderak berak-ere, orra aldaxka nabariak, erri mintzoeran beintzat; Andaluzi ta Kastilla aldean, ez da berdín itz egiten, ta gutxiago Mexiko ta Arjentina'n. Gauza berdiña esaten al genezake Washinton ta Londres'ko mintzoeraz.

Enbor batetik orrenbeste adar berdingabeak zabaldu badira, zer esango degu, ez erroz ta ez jatorriz aideko (familiko) ez dan euskera'ri buruz? Ezpairik edo dudarik gabe, euskaldunon ezaugarriak nabarmenena, orixe degu: euskera.

Pareta baten euslari sendoena, bere oñarria degula badakigu. Zenbat eta aundiagoa pareta, ainbat ta sendoagoa oñarria. Onek uts egiten badu, ura lurrera dijoa. Euskera ez zaitu ta galdu ezkerok, Euskal-Erria, ez da Euskal-Erri. Bene-benetan garrantzi edo inportantzi osoa du guretzat euskera'ren irauteak.

Orregatik, egoki ta bidezko da gure alegin gartsuenak euskera'ren alde jartzeak; bidezko ta bear-bearrezko da euskera'ren berpizte osoa irixtea.

Al izateak baño nai izateak indar geiago du. Orregatik, ekin dezaiozun lanari, bidea latza ta aldapetsua dela begiratu gabe. Zabarkeri aundi bat ba-daukagu zoritxarrez, euskaldunok, euskal lanerako. Eta zabarkeri ori, "korapillo" ori, urratu bear da lanari jarraitzeko. Ez da oren estu ibilli bear korapillo ori...

Alperkeria, askoren ondarena da. Ta alperkeriaren korapillo ori askatu dezagun. Askatu-eziña bada, artu dezagun errege batek artu zuen erabakia, bere ezpatarekin egin zuena: zirt eta zart, lokarria moztu; ta alik eta azkarrena erdiko bidetik, bide laburrenetik jo. Itz gutxi, ta aiek onak. Auxe da denok egin bear deguna. Eta ez egon besteek egiten duten lanari begira. Denon lana da euskera aurrera eraman bear izatea. Etxean bai ta auzoan ez, ori alperkeria da. Lan egin bearrak ta "bizkarra arrimatu bearrak", ez gaitzatela bildurtu ta atzerazi.

Gortari Yon

Principe de Viana, 1967, apirila, 6. orr.

## GURE "BASAMUTILLEN" BILTZARRAK

Doneztebe'tik Alpes'tara...

Gutxitan ikusi oi degun jai eder bat izan gendun Donezteben, Ilbeltzaren ogei ta zortzigarrenean.

Ez du bear bada Doneztebe'ko erriak sekulan ezagutu orrenbesteko jendeketarik bertan bilduta. Ez, ez da errex. Ba, biotz aundiko gizon batek, denen alaitasunerako, bañan, batez ere "mendi-mutillei" eskeindu nai izan zien egun eder ori.

JUAN MARIEZKURRENA, Europa zabaleko lurraldeetan zortzieun mutilleri irabazpide onak eskutarazten dizkioten gizon esku zabalekoa degu. Berak ere antxen, lurralde aietan pasatzen ditu illabeteak euskal-mutillekin batera. Zortzieun mutil oiek baztarretan andanaka zabalduak egoten dira eta auen lantokiak berak urbilletik jarraitzen ditu; bera da denen buru ta gidari; berak eramaten ditu egiten dan lanaren kontu ta neurriak. Itz batean, denak daude onen esanera.

Garai batean, Mariezkurrena'ren mutillen lana, arbolak bota ta apaintzeak ziran, bañan, gaurko egunean beste lan klase asko ere egiten dituzte, au da, obra au dietan, bide zabal ta pista aundiak egiten ta orrela. Grenoble aldean, Olinpiada'etako pistak ere egin dituzte. Or ikusi, ba, Juan Mariezkurrena'ren lan bikaña.

Laxter eramango dizkigu gure errietako mutillak, eta orrengatik, eman nai izan du beste eder ori "langilleak" maite dituelakotz auek berari bezelaxe.

Eta, ona, zenbaterañoko jendeketak bilduarazi zituen Donezteben: Goizerdi aldera asi ziran karrikak betetzen. Eguraldiak bildur ematen zuen goizetik eri-eri ta eguzkia agitz aul azaldu baizan... ala ta guztiz ere, egun guztian iraun zuen euri ttanttorik erori gabe.

Eldu zan mezako ordua, amar t'erdietan. Lesaka'ko txistulariak sartu ziran elizara guziekin batera. Eliza bete, bete egin zan. Meza, *euskerazko meza ederra*. Eskeintzako garaian, "Basarri" jaunak bertso batzuen bidez, eskatu zion Jainkoari mendi-mutillen alde, eta erriak erantzun zion azkeneko estrofari. Txistulariek jarraitu zioten mezaren asieran, sagaran eta azkenean. ¡Benetan, uraxe zan ikusgarrizko meza! Meza ondoren, kalejira, zortzikoak, irrintzik, poza ta alaitasuna bazter guzietan.

Gero, BEAR ZANA Pelota-joku tokian: *Bost bertsoariak, Uztapide, Lasarte, Lopategi, Lazkao-Txiki ta Aldaz'*ek azaldu zituzten beren almenak apustuen asieran ta azkenean. Oso ongi ari izan ziran eta txalo ederrik artu ere...!

ARRI GORATZALEAK (jasotzaleak): URTAIN, Arrona'koa eta ITURRALDE, Aizarnazabal'goa. Urtain esku batez eta Iturralde biaz, eun kiloko arri borobilla zenbat aldiz jaso. Ona emen nola: Iturralde'ren lenengo txande, ogei ta amaika jasoaldi. Ogei ta zazpi, bigarren aldian. Uratin'en lenengo txanda: ogei ta bederatzi jasoaldi. Ogei ta bost, bigarren aldian.

Aizkolariak:

Latasa-Arria gelditu ziran irabazdun, Berekotxea-Astibia'ren kontra, bañan, oso diferentzi txikiarekin. Irabazi zutenak sartu zituzten ogei zuretan (onborretan), kana-erdikoak, ogei ta amazpi miñuto ta amalu segundo. Galdu zutenak, ogei ta amazpi miñuto ta ogei ta bederatzi segundo. Laurak egon ziran bat bezein beste. Agitz onak.

Pelotariak:

Arratsaldeko bostetan pelota partidua, Ezkurra-Andueza, Chikuri-Gartzia Ariño bigarrena'ren aurka. Ezkurak eta ANduezak aixa irabazi zuten 22-14 geldituaz. Frontoia, leporaño bete zan. Mariezkurrena jaunak "entrada libre" utzi zuen. Gero, azkenean, aari-yokoa. Auxen ere ikusteko polita izan zan. Berrogei ta zortzira kopetako eman zizkioten elkarri. Berdin gelditu ziran. Bata Mariezkurrena ta bestea Zabaleta'renak ziran. Agitz aari biziak ziran.

Txistu ta soñuarekin (au gazteentzat) bukatu zan besta eder ura. Aixa aztuko ez dan Mariezkurrenak eskeindutako besta ederra. ¡Zorionak ta eskerrik asko berari!.

Gortari ta Ugarte'tar Yon

Principe de Viana, 1968, otsaila, 4. orr.

## GURE BASERRITAR TA NEKAZARIAK

Auxe da gaurko egunean nekazariak esaten dutena: "nekazari jendea baño arloteagorik ez da iñor".

"Arlote" itz onekin bear bada ez dute esan nai itzez-itzez, zoritxar, utskeri edo orrelako beste zerbait, baizik, nekazariak ta baserritarrak baño neketsuago, zorrotzago ta arrastago ez dela iñor bizi.

Ez dakigu etorkizunaren berri. Bañan, gaur, gaurkoz, arrazoi ederra badaukate gure baserritar ta nekazariak. Argi ta garbi dakiguna da baserria utzi, nekazaritzakoa utzi ta or barna dijoztela famili sail ederrak. Eta au ez bada, etxalde ta maiorazgo askotako seme ta alabak, mutilzar ta neskazar gelditzen ari dira ez dutelakotz ikusten baserriaren etorkizunik. Ez du iñork ezkondu nai baserrira. ¿Nun dago errua? Zer egin? Nundik asi? Nola jarrai?

Industri gauzak indar aundian sartuak daude ta ongi dijoaz.

Dendetako ta komertzioetako jendeak, orain bezela ez dira sekulan bizi izan. Gauzak urrutira ikusi dituzte eta aintzina, aurrera jua dira. Gaurko egunera daude.

Gure baserritar-nekazariak berriz, zalantzetan daude: erenegun gaizki, atzo okerrago, gaur juxtu juxtuan bizi, ta biar il. Orrelaxe bizi da gure baserritarra. Industriak, komertzioak eta beste lanbide guztiak, bestelako aurrerapenak eta laguntzak arkitu dituzte.

Nekazaritzari buruz amets ta itzaldi franko egiten da: elkarte-kooperatibak egin bearrez; erreztasunak arkitu nairik; egunera bizitzearren, bañan... agitz bare, ttantto emendik ta ttantto andik, ikusten dira laguntza, erreztasun ta aurrerapen oiek.

Gure errietan nekazaritza bear-bearrezkoa degu. Garrantzi aundienetako gauz bat degu baserria, nekazaria. Eta gure baserritarrek, nekazariak, milla oztopo ta ezbear arkitzen dituzte zerbait egin nairik-ere. Nekazariak, baserriak, bereak izan bear ditu abereak edo ganaduak. Eta orretarako mendiaz baliatu bear. Abere mota guztiak ugaldtu bear badira, au da, gure lurralde aueri egoki zaizkionak: beiak, ardiak, zaldiak eta txerriak, zergatik jarri trabak, oztopoak?

Zein dira oztopo ta traba oiek? Lenbizikoak ta inportantzienekoenak, ardienak eta beienak. Ardienak: mendi librerik ez badago, ardirik ezin euki. Beienak: iratze tokiak (irazelaiak), garo tokiak piñuz betetzen badira, zerekin egin ongarria (gorotza) alorak eta soroak goroztatzeko, abonatzeko? Erribera'ko lastoarekin? Ura nun dago? Eta gero noraraño erman bear?...

Baserri asko iratze adar bat gabe gelditzera dijoaz. Etxe atariraño itxi dizkie bazter guztiak, alde batetik diputazioak eta bestetik erri bakoitzako aiuntamentuak. Gisa ontan nola ugaldtu abereak? Nai ta nai ez erreztasunak eman bear zaizkio baserriari, eta ez itto, ez estutu iñundik-ere. Lasaitasun ta bideak idekiak arkitu bear ditu.

Gortari Ugarte'tar Juan

Principe de Viana, 1966, urria, 5. orr.

## MALDA-ERREKA'KO LAU-ERRIETA'TIK

Uztailla-Agorrilla'ko "Principe de Viana" illerokoan, 29-30'garren zenbakian, denok dakizuten bezela, argitaratu zen "karta-protesta" bat, nik, illeroko maitagarri onen 27-garren zenbakian, lumeroan, euskerari buruz idatzitakoari egiten zitzaion erantzun mingotza. Erantzuten zidan idazlea ta izenpetzen zana, Francisco Eraso Alduncin jauna da.

Iskanbilla ikaragarritzko idaz-lana izan bear zuen nunbait nereak, Eraso jaunak, "berentzat" arturik gauzak, aldezen ta defenditzen delakotz. Karta orren aurrean "ixillean" gelditzea, etzait batere egoki. Erantzun nai diot gauzak beren tokietan ongi uzteko asmo onarekin. Gizon ta euskaldun bezela. Bera-gana gorroto txikienik azaldu gabe.

Gañera, nik euskera utsean erantzungo diot, zergatik, Principe de Viana irakurtzen duten guztiak -zazpi edo zortzi millak- euskaldunak dira. Erdera erabiltzen det bear danerako. Euskalduneri, euskeraz diet beti.

Eraso jauna: Dijoaztela aurretik zorionak orrenbesteko euskalzaletasunaren aitorle azaltzen zeralako.

Urte batzuek badira nere are-pikorra jartzen dedala gure errien alde. Gure lurraldeen gora-berak poliki xamar ausnartuak ditut. Adixkideak-ere baditut baztarretan -kontrarioak ere izango dira- bañan, oraindik ez dit inortxok esan edo arpegira bota gezurtia naizenik, zuk baizik. Eraso jauna.

Barkatu, bañan, ez uste izan inola ere, zuk bakarrik daukazunik arrazoia. Zu, zure iruogei urtekin, ni berrogeiekin bezein oker ta ez-jakin egotea gauz askori buruz, baliteke oso errez. Barkatzen dizkitzut irain guztiak, bañan kontuan lasai eukitzen al dezu, zure ta nere aldamenekoak izango dirala zu eta ni juzgatuko gaituztenak. Auek emango digute bakoitzari gerena...

Mesedez, gauzak ez okerrean artu. Nik ez nuen ezertarako ere aipatzen Doneztebe. Malda-Erreka aipatzen danean, lurralde aundiak entenditzen dira. Guk beñepein. Ez da Doneztebe'kin bukatzen. Gaizki ta okerrean zuentzat artu dezutenean nere idaztitxoarena, pekatuen batek jo-ta arkitzen zeratela badu-iduri. Ba, orrelakorik baldin balitzake zuen tartean, zuzendu ta korrejitu al bezein ondo ta azkar.

Zuk ikutzen (ukitzen) dituzun puntu zenbait, ikuttuko ditut nik ere.

Goazen euskeraren gana: Ba-ote dago euskerarentzat gorroto aundiagorik ez erakustea baño? Edo-ta "zertarako euskera" baño? Eta, ezer ez, galerazterik ez badago.

Aita bat euskalzale aiotrtzen danean, aita orren euskalzaletasunik aundiena ta benetakoena, seme-alaberi bere izkuntza, euskera erakustea da. Aita ori gezurti bat izango da euskalzalea dela esatea esandako bide ori jarraitzen ez badu. Obligazio ori betetzen ez badu. Orra or euskera gorrotatzea; bera-gatik ezer ez egitea; dana utsean gelditzea. Au esatea, gezurtia izatea al da?

Benetako naparra zerala-ere esaten didazu. Ba, ni ere bai. Gai ontaz aurreko aldea ez didazu kenduko, erroz-erro naparra nauzu ta azkeneko odol-ttanttorañ euskalduna. Bañan, badira zoritxarrez gure aldamenean "azpi-jale" asko. Gauz bat azaldu nai izan ta beste aldera jokutzen diranak. Kontuz oiekin.

Eraso jauna, beste xeetasun asko alde batera uzten ditut emen aipatu gabe. Eta zure ta nere arteko "xalaparta" txiki au izan dedilla euskeraren onerako ta elkarren lasaipiderako.

Principe de Viana, 1968, iraila, 5. orr.

## MENDE EDO GIZALDI ERDI BAT JOAN DA...

Berrogei ta amar urte joan dira. Milla bederatzi eun ta amabostgarrena zan. Agorrako (Buruillako) illabetea. Etorkizun illunaren egunak izango ziran noski. Amalauko gudak, gerrateak, baztarrak naasi ta irakiten utzi zituen. Ezta-baida aundi batean arkitzen zan mundua: odol-ixurtze aundiak, gorrotoa, gaitz ta zikinkeria besterik etzegon gizartean.

Mundu naastu ta egun illun aietan gertatu zan ikaragarritzko gauz bat, lapurketa bat, Baztango ARRAIOTZ erri paketsuan. Donauste edo sakrilejiozko lapurreta bat.

Arratseko amar t'erdia edo amaikak aldera izango omen zan. Don Esteban Irañeta Insausti (Goian bego) zan Erretor, etorri berritsua seguru aski, gero berrogei urte luzez -il artaraño- arraiotzarren "artzai ona" izango zana. "Benta-berriko" Zezilio Iturralde -au ere ill eta Goian bego- illuntzean, euskal-errian oitura den bezela, jo omen zuen illun-ezkillak; begiratu ere omen zion aldareko olioizko lanparari (eta nai badezute xeetasun geiago, lanparari metxa ere aldatu omen zion Zezilio zenak esaten zuenez), atek itxi eta etxeratu zan geiagoko zerik gabe.

Urrengo goizean, apaiza elizaratu zanean, atek zabalik ta bortxatuak arkitu zituan. Arriturik ta naigabeturik -negar ere egin omen zuan- gelditu zan ikusi zunean ango ondamera ta donaustea, sakrilejioa. Sagaratutako osti guztiak barreatuak omen zeuden elizan ta gizonen aldeko eliz atarian. Sagrarioa, idekia. Sakristia, goitik beera itzuli-ipurdikatua ta urrezko ta zillarrezko gauz guztiak eramanak. Negargarri omen zan benetan ala arkituta ikustea.

Lapurtu (ebatsi) zituzten gauzak auetxek ziran: iru kopoi, iru kalitz, intzentsuaren ontzitxo (naveta) bat; Elizakoak eramaten ziran kaja ta beste kutxarilla bat, auek denak zillarrezkoak. Gero, beste kajatxo bat sagaratu gabeko ostiak eukitzen zituana, au, nikelazkoa; beste kutxarilla bat urrezkoa, kustodia bat zillarrezkoa eta beste eliz-arropa zombait 135 pezetakin batera.

Erriko gizon batzuek ta "guardizibillak" lapur billa asi omen ziran, bañan, alperrik. Lapurren buru-belarririk etzuten ikusi. Ez eta errestorik billatu ere.

Oraingo Arraiotzko gazteetan gutxi izango dirala lapurreta onen berri dakitenak, dudarik ez dago. Berrogei ta amar urte bai dira au gertatu zala, bañan, ala ta guztiz ere, asko dira Arraiotzen zoritxarrezko gertakizun au kontatzen digutenak. Kontatzeko baño ez kontatzeko obeak dira orrelako gauzak.

G. ta U. Y.

Principe de Viana, 1967, azaroa-abendua, 7. orr.



## "MENDI MUTILLEN" BILLERA

Bidasoz gora, Baztan'go sarreran arkitzen den ORONoz'ko erri txukun ta politik, egun aundi ta gogoandarri bat zelebratu zuen Ilbeltza'ren irugarrenean, MENDI MUTILLEN BILLERA zala-ta. "San Martin" Ikastetxea izan zan bestaren biltoki.

Egun gutxi aurretik azaldu zan galdebidea (programa) ederra ta zabala zan. Ala ta guztiz ere, ongi ta egoki ta xehetasun aundiarekin eraman zan aurrera besta eder hura.

Orduak agintzen zuen bezela, eldu ziran Naparroko zenbait agintari ta izperlariak (periodistak). Ikastetxeko sarrera nagusienak oso ongi apainduak zeuden deneri ;ONGI ETORRI! ta orrela agurtuaz. *Iruña'ko Gotzaiak (Obispuak)* eskua luzatuaz mutil geienak agurtu zituen. ;Gotzaiaren apaltasuna! *Mikel Xabier Urmeneta Diputadu jauna* ere ortxe zan don *Pedro Maria Zabaltza Kalonjea* ta *Gotzaiaren Ordezkarri Berizia*; *don Arturo Begiristain, Naparroko erraldale edo emigranteen Jaunordekoa (Delegadua)*, izperlari ta abar.

Denok bildurik Ikastetxeko sala nagusian, mintzatu ziran agintar ta apaiz zenbait gure euskal mutillen ta gañerako emigranteen bizimoduari buruz, Urmeneta jaunak, bere sendimentu biotzkorrenaz esan zien: "*ez, geiago! agur! sorterriari*"; "*ez, geiago! agur! aita-amari*"; "*ez, geiago! agur! andregaiari...*".

Gero, eguardiko amabiterdiak aldera jetxi ziran elizatzora. *Arturo Tabera* ta *Araoz'tar Gotzai jaunak beste sei apaizekin batera eman zuen elkar-meza, euskeraz, alegia.*

Arrigarrizko gauza: Avila'ko seme den Iruña'ko Artxapezpikuak meza euskeraz ematen... Orrela egingo baluteke Euskalerriko apaiz denek! Kastillar batek euskaldun askori ejenplua eman bear...

Mezaren ondotik bazkaria. Egoterik goxoena, antxe zegon noski... Bazkaria, apaiz jaunek zerbitzatu zien mutil guzietan, Apaizak zerbitzatzen ikusi zituztenian, baten-batek esan zuen. "*¡Kasu, motellak, oraintxe bizimodua merkatuko duk; apezak lanean asi dituk-ta...!*" "Umore ederrean pasa zan, *Uztapide* ta *Lasartek* naiko irri egiñarazi zien deneri. Au aski etzala ta bazkariak on geiago egin zezan, antxe ziran *Etxeberria* akordion-jotzallea ta España'ko Txapelduna bera; *Mikel Laboa* ta *Lertxundi* kiter-jotzalleak ta Iruña'ko "*Oberena*" zortzikotea.

Arratsaldeko lauterdiak aldera, pelota partidu eder bat jokatu zan, gero berriz, sala nagusira biurtzeko bertsolarien ta kitarlarien saioaldi luze bat entzuteko. Onetxeekin bukatu zan MENDI MUTILLEN besta eder ura.

Gortari ta Ugarte'tar Yon

Principe de Viana, 1969, otsaila, 6. orr.

## NAPARROA EUSKALDUN

Erri baten izakera, bera izkuntzarenpean, barrenean sartzen zaio. Izkuntzak adierazten du erri orren nortasuna. Guk ere, napartarrok, LINGUA NAVARRORUM ezagutzen degu guretzat. EUSKERA da napartarren izkuntza.

Urte asko dira "atzerakada" aundi bat eman zuela euskerak Naparroan; Erribera aldetik uxatuta bezela, mendi tartean gorde-ta gelditu zan; emen ere, askoren beranganako gorrotoak ta beste askoren ulertu-eziñak edo entenditu-eznaiak, oinperaturik egon izan oi da; ezertan ere etzaio esku bat eman, zigorraztatzeko ez bada baizik. Bera bakarrik zaitu da. Benetan, il-ezkorra izaki...!

Gaur, zorionez, beste moduzko aize batzuek irri-par egiten digute. Euskera zapaldu naiez ta itto bearrez ibiltzen ziran aiek berak garai onean konturatu dira. Garai batean "ze falta egiten du euskerak" esaten zuten aiek, gaur. "euskera nai ta naiez bear degu" esaten ta eskatzen dute. ¿Zergatik? ¿Zer "fenómeno" gertatu da tarte orretan? Erri batek bere IZKUNTZA galtzen badu, dena galdua daukalakotz: oiturak, nortasuna ta abar. Bear bada erri orreri geldituko litzaiozke, ibaiak, mendiak, basoak (oianak)... bañan, izkuntza galtzearekin batean, ilko litzaioke bere jatorrizko izakera.

Naparroako euskeraganako "berpizte" onek, on aundiak ekarriko dituala, dudarik ez dago. Pixka bat geiago ernatzen bagera, euskal-mende berriak izango du jakintza edo kultura egoki bat; ez-jakin ta analfabetoak gutxituko dira; euskal-erriko NAPARRO aundi au, gertu ta ¡zutik! egongo da gauz guztietarako.

Bañan, au bai! Etxetik asi bear degu. Berbizte bat baldin badatorkigu erriberatarrengandik, Zangotza, Erronkari ta Auritz aldetik; Iruña, Lizarra ta beste aldeetatik, guk emen ¿zer egin bear degu? ¿besteak egiten dutenari begira egon? Badegu noski nundik asi! ¡O, Baztan... ¡Bertiz-Arana! Doneztebe! Sunbilla ta Bidaso'ko bost-erriak! Gure Jainkoak ala nai-ta, Kontserbatu izan da -zalantzetan bederen- gure eusker agixo au, bañan ez alegiñak jarri ditugulakotz zaitzearren, zabaltzearren ta maitatzearren. Lotsagarri baida gure erri auetan pasatzen dana. Elizondo'ko gazte geienek, ez dakite euskeraz. Irurita'koek ere ez. Oronoz'en, ogei urtetik beerakoak, erdiak ez dakite. Donezteben, lauetatik iruk ez dakite. Beran, beste orrenbeste esan dezakegu. Lotsagarri benetan. Bañan, egia.

Uste dut askok jakingo dezutela orain dela aste batzuek, Naparro'ko eguneroko batzutan, ze "polemikak" izan diran euskerari buruz. Zorionez, gizon ta emakume jakintsu asko izan dira itz egin dutenak ta beren iritziak eman dituztenak gai oni buruz. Baten batek esaten zuen, euskeraren etsairik aundienak, gure errietako apaiz ta maixu asko zirala. ¡Ze egi jatorra! Nik ere, iñortxori miñik eman gabe, "baietz" esaten dut. Ez denentzat, zorionez, bañan bai askorentzat. Zer nai dezute etsai aundiagorik izatea gure erri auetan edo oietan pasatzen dana ikusi-ta baizik apaiz batzuekin? ...atutako erri oietan "bilingüe", au da, euskeraz ta erderaz egin bearra daukate gure apaizek, zoritxarrez; bañan, gure erreka ontako ta Bidasoa aldeko erri askotan badira eunetik bat erdaldun alletzen ez dana ta ala ta guztiz ere, bi edo iru mezak erderaz ta aur gaixoeri dotrina dena erderaz ematen zaiena. Au, EUSKERARI laguntzea al da? Ori ez al da alperkeri, zikoizkeri ta zitalkeri bat?

Iñor ez da nor erri baten izkuntza, oiturak, erlijioa ta beste gauzak menperatzeko ta zokoratzeko. Apaizak, maixuak ta denek, aintzat artu bear dituzte erriaren eskubideak. Iñor ez dedilla ausarditu berak nai duena egitera izakera guzien jaun ta jabe dalakoan.

Principe de Viana, 1968, urtarrila, 6. orr.

## NEKAZARITZA ETA ABEREA

### Nekazaritza dala-ta

Orain artarañoeko nekazarien bizipidea erabat aldatu ta berritu bear omen dutela, aditzen degu. Nekazariari bizipide obeago bat iritxi ta eman bear zaiola, auxe izan bear du goi-agintarien erabakia. Erabakiak artzea, agitz gauz ona da, bañan, obeagoa da gauzak egunera jartzea, aginte ta erabaki oien "ondorea" luzaroan ez ikustea baño. Zoritxarrez, oso "gero" ikustera oituak gaude artzen diran erabakien frutuak.

Gutxi gora-bera, deitzen dioten jokabide berri oietako asmoak, auetxek izan bear dute: aragia ugaritu, geitu, asko izaten baita kanpotik erosi bearra; ta lau edo bost urteen barrenean egin bear dela Españin, berregun ta iruogei ta amar milla (270.000) kilo aragitako azinda edo ganadu.

Gaur dauden baño irueun milla (300.000) hektara geiago bear omen dira arto-landetarako; eta, bai ta ere beste seieun (600.000) milla hektara geiago bear dirala garagarra ta oloa ereiteko. Onetaz gañera, berregun ta berrogei (240.000) milla hektara luzerna-landak erein.

Alde guziak jo-ta, nai litzake-ere zazpieun (700.000) milla hektara gari gutxiago ereitea, zergatik, geiegi izaten delako eta onen tokian, beste falta diran gauz asko sortu nai lirake. Masti zati aundi batzuek kendu ta soroak, belartegiak jarri; azi obeagoak ta aukeratuagoak erein, landare ederragoak ta mardulagoak etorri ditezen; zabaltzen dan baño ongarrri geiago ta abonuak eman; lur-lanetarako tresna geiagoki saiatu, au da, makiñaria ugaritu, geitu ta abar.

Lur sail-banaketa, au da, lurralde aundiak zatitu eta txikiak bildu, egin bear den lana obeki ta aixago egiteko, au ere erabakia omen dago. Era ontara jokatzuz, askoz errezago lana egin ta aberastasun aundiagok aterako zaizkiola lurrari.

Bañan, esaten danez, malla onetara iritxi ta gero, laueun (400.000) milla nekazari, lanik gabe geldituko diralako bildurra badago Españi barruan, aurrerapen ta makiñari berri oiek dirala-ta langille gutxiago bear izango dalako; bañan, nekazaria, beste edozein eratako langillek bezein ongi bizitzera iritxiko omen da.

Eta, orain galdera bat: ¿Zer egin laueun milla lanik gabe gelditzen diran oiekin? Ez omen dela bildurtzekoa izango oien etorkizuna, diote "itza" daukaten goi-agintariek. Guzientzat, lan-toki egokiak beste leku batean izango dituztela, diote-ere. Ikusi egin bear... Ori orrela izanean, ez litzake oso gaizki, mesede baizik.

Erabakiak, berez onak, oso onak dira, ¿bañan, noiz ikusiko ote beren frutu-argiak?

Gortari ta Ugarte'tar Yon

Principe de Viana, 1968, otsaila, 5. orr.

## ORONOTZ'EN PELOTA'KO EGUNA

Erri polit, ontako Anai Maristen Ikasketxeak, XXV garren aldiz jokatuko du "pelota'ko eguna".

Maiatza'ren ogei ta bederatzi garren egunean eskuz-esku ta aurrez-aurre, jokatuko dute gaurko egunetako pelotaririk onenak. Jaunak lagun, goizeko amar terdietan asiko dira zein geiagoka.

Ez da oraintzeko eginkizuna Oronotz'ek, Ikastetxe onek, aurrera ta argitara ereman bear duen egun orretako "pelota'ko eguna". Milla bederatzi eun ta ogei ta zortzigarren urtean, ikusiko zituen Oronotz'ko erriak Ikastetxe onen ateaq zabalik ikaskintzarako.

Don Martin Urrutia Ezkurra, Oronotz'ko "Enondoa" etxeko semeak, bere sort-erriari utzi nai izan zion oroitzapen aundi bat; eta auxe izan zan bere erriari uzten al izan zion oroimenik ederrena ta bikañena: bi Ikastetxe, bat mutil ta bestea nexkeen ezierako.

Bañan, eziera ez-ezik, eziera orren parez-pare juañ izan oi da kirolik (deporterik) ederren ta goragarriena: PELOTA. Eta... orain galdera bat: ¿nor izan da Oronotz'ko Ikastetxeko kirolaririk, deportixtarik azkarrena, argitsuena ta bikañena? Nortasun, jatortasun ta bizkortasun ikaragarritzko gizon bat: DON XEGUNDO GANGOITIA praille Marista. DON XEGUNDO izenez, bañan, DON "PRIMERO" obe litzaiokena... zergatik, "aurea" gutxik kenduko dioten praille umill-buru-argi ta biotz zabalekoa dalakotz; itz batean, uskaldun jator, "deportixta" bikain ta benetako praille bat, dalakotz.

San Martin izeneko Ikastetxe onen ateaq zabaldu baziran zabaldu, bertantxe izan du Oronotz'ek "zorion" aundi bat; au da, Ikastetxe orretan denontzat izan dan maixu edo irakasle; laguntzalle askoren estualdietan, ta aolkulari (kontsejatzalle) bearretan arkitu izan diran guzientzat. Praille langille amorratu oneri esker, ikusteko franko izan oi da pelota'ri buruz.

Emen jokatu izan zuten garai batean. Frantzin txapeldun ziran LADOCHE, ARRAMBILLET, AGUERRE ta beste zenbaitek emengo oberenen aurka. Aurten ere, ez mugaz beste aldekoak, bañan bai emengo onenak (txapeldunak) ikusiko ditugu, Jaunak lagun. Ana i Maristen "Santiago" frontoi ederrean.

Aurretik, denoi ¡¡ongi etorri!!

Gortari Yon

Principe de Viana, 1967, maiatza, 6. orr.

## ORONOZ

### Pelota'ko eguna

Oriandik denbora asko ez da aipatzen gendula nola Oronotz'ek, Anai Maristen Ikastetxeak, antolatzena zeraman "pelota'ko eguna" XXVI garren aldiz. Eta ain zuzen lore-illako (maiatza'ren) ogei ta bederatzi garreneko egunaren "argia" ikusi ta ondoren, berri zerbait eman nai dugu lerro auen bidez.

Lengoan, zillegi ta bidezko zela iduritzen bazitzaigun egun orreri buruz zerbait idaztea, izkribitzea, bidezkoago izango da noski ikusi ta ondoren arrazoi ematea.

Lan latza ta samiña dela argitara eramateko orrelako egun bat, dudarik ez dago. Gauz txikietan ez-bearrak sortzen dirala denok dakigu. Aundietan, zer esanik ez... Ala ta guztiz ere, "ez-bear" guziak garaitu ziran eta izan gendun zer ikusi Maristen "Santiago" pelota-leku ederrean.

Goizeko amarrak aldera asi ziran farra... farra... farra kotxeak, motoak ta oñezkoak etortzen. Berregun kotxetik gora ta iruogei moto omen ziran guardiazibilek erran zutenek. Kolejioko futboleko belardi aundiak, iduri zuen Madrid'ko Bernabeu... Pelota ganako arreta aundia daukala jendeak dudarik ez dago. Pelota-gose dabil. Ta onek pozten gaitu. ¡Bazegoen ementxe jende! Agintari jaunen kontukoetik ikusi genituen: Juan Antonio Elola Olaso, España'ko deporteen jaun-ordea izana eta Madrid'tik etorria; Azkue jauna, au ere Madrid'tik etorria; Migel Latasa; Jabier Artxanko; Frantzisko Errodrigez; Migel Gortari; Sagardoy jenerala ta beste gizon asko aundiki. Baita-ere mai-buruan arkitzen zan "Santi de Andia" zanaren emazte alarguna bere bi seme-alabekin, biotzez maite gendun Xanti zanaren omenez ospatzen bai zan aurtengo "pelota'ko egun" ori.

Programak zion bezela, onela izan zan lenbiziko partidua: Erretegi-Andueza, Pierola-Lajos'en aurka. Zortzi ta batez egun ziran irabazi zutenak (Erretegi-Andueza) bañan, gero, pixkana-pixkana urbilduz Juan ziran besteak, au da, 9-5, 13-6, 13-11, 15-13; bañan, berdintzera etzitzaien baliatu. Irabazi zuten "Eratsun'go ezkerak" ta Modexto Anduezak: 22-18.

Gero etorri zan bigarren partidua, jendeari asko ta asko gustatu zitzaiona; Tapia anaiak Bergara-Etxabe amargarrena'ren aurka. ¡Motellak, ura zan ura partidua! "Joxtaketa" bat izango zela esana zeukan norbaitek; "egurra" ematea zan ura, eta ez "joxtaketa"... Sei ta batez zijoazten Tapia anaiak irabaziaz. Asi zan Bergara berotzen, ta 6-5 jarri ziran beala; 8-6, 9-8, bederatzira berdin; 9-14 Bergara-Etxabek. Berriz berdindu amalaura, amabostera ta amaseira, bañan, azkeneko bi tantoak saketik egin zituen Bergarak, au da, 18-16 geldituaz. Bear bada Oronoz'ek orrelako partidurik euki ez duela zioten askok ta askok. Baditeke ezetz. Pasatuak aaztu arren. Jendeak oroimen eder bat eramango zuelako ustean gaude ba.

Eta onetxekin bukatu nai dut: Don Xegundo Gangoitiak, bere 73 urteekin, jarrai dezala "bixkor ta animoxo" aurrerantzean ere ORONOTZ'ko "pelotak" erretegi aundi bat izateko. Jaunak urte aunitzetako zaitu dezala ta ¡zorianak! biotzetik.

Gortari Ugarte'tar Yon

Principe de Viana, 1967, ekaina, 5. orr.

## SALDIS'EN EUSKAL-BESTA

Bein ta berriz egin da aurren sari-banaketa euskeraz ongi mintzatzen dakitelakotz. Principe de Vianari esker izaten ditugu euskal-jai auek euskeraganako arreta geixeago izan dedin gure errietan. Oraingo aldian, Saldis'ko erria aukeratua izan da.

Zer esanik ez dago Saldis'en euskera utsa -eta garbia gañera- erabiltzen dela, bañan, emen ere, euskal-erriko beste erri askoren antzera, zoritxarrez arrixku aundi bat badago, "erorialdi ta makalaldi" baten arrixkua, au da, erderak "sarrera" aundi bat egingo duelakoa. Ez degu erderaren etsai izan nai, izkuntz guztiak aintzakotzat eta errespetatu bear diralako. Bañan, bai bear degula ta eutsiko diogula euskerari Euskal-Errian, gure "izkuntz ofiziala" bezela aitortuz. Estaduarena da erdera. Euskaldunena berriz, euskera. Iñor ez da nor au ukatzeko.

Saldias. Mendi tartean galduta bezela arkitzen zaigu erri zoragarri au, Labaien eskuiko aldetik, Eratsun ezkerreti eta Ezkurra aurreko aldetik dauzkala. Ezkurra'ko ualdetxoa, bere eskubitik pasatzen zaio. Iru eun ta berrogei ta amar bat bizilagun ditu. Oso bizikoia da saldistarra, denak edo geienak beintzat, nekazaritzatik bizi diranak. Au ala izanik ere, badauka erri ontako gaztediak oianbideak ta Ameriketara artzaintza artu bearra. Gure gaztediraren gaitzik aundiena auxe da: erbestera (extranjerira) juan bearra diru billa, emengo lukainekin aixa baitira txakurrak lotzen...

Ba, aurretik egunerokoetan programak adierazi bezela, Urrilla'ren zortzigarreanean, arratsalde, ikusteko politik izan ziran, ordu goxo batzuek eskeñiaz jendeari. Arratsaldeko lauak aldera eldu giñan erri orretara eta agintariak agurtuta ondoren, biurtu giñan elizara; eliza, bete-betetik, abots batez erri guztia apaizarekin kantari: "Yerusalene, Jainko Jaunari kantuz egon... Zure Jaunari kantu Sion...". Arriturik gelditu giñan Saldis'en nola abesten dan entzun-ta. ¡Nolako edertasuna!

Gero, ondoren, bildu giñan erriko plazan, milla bederatzi eun ta ogeita zortzigarreanean egindako errebote ederrean. Dena prest zegon. Bertantxe antolaturik ta apaindurik zegon "kioskoa", oso esan-nai aundiko zan. Nai badezute, agitz xelebrea... Arrek etzuen asmakizunik izan Aintziñako ta errikoitasun aundiko tresnakin egindako kioskoa: aizkorak-igitiak-tailluak-aitzurak-lur-itzultzeko burni batzuek (laiak)-altxasa-gardiak-eskalapuñak-taloburniak-artamantenuak (auek burnizkoak)-danboliñak-goaleak eta beste gogoan ez dauzkadan tresna batzuekin egindakoa.

Lenbizi "Agur Jaunak" abestuaz erriko neska talde batek, jarraitu zion Saldis'ko Erretor langille dan don Tomas Otxandorena jaunak itzaldi sutsu ta mamitsu batekin, argi ta garbi utziaz gauzak beren tokietan. Ongi adierazi zuen zer zan euskal-jaiaren esan-naia eta nolakoak ziran Diputazioko PRINCIPE DE VIANA'ren ardurak ta laguntzak euskera zabaldu ta ziantzeko. Don Tomas'ek irakasle ta maixu aundi bat izan bear du, zergatik, badauka abeslari talde bat oso ongi ezia. "*Aurren ingurutxo, elurra tellatuan, boga-boga, nere aitak amari gona gorria ekarri...*" eta onelako kantu politik abestu zituzten. Txalogarriak denak, bañan, guziz onako lau bertso auek, aurrak eta guratsoak jakin bear lituztekenak. Entzun:

-1-

Aurrak ikasi ezazue  
euskeraz mintzatzen  
ongi pelotan eta  
oneski dantzaten.

-2-

Gure kantu zarrak  
kontserba ditzagun  
aire politagorik  
ez da sortu iñun.

-3-

Ez aztu bein ere  
sorterri ederra  
aren mendiak eta  
itxaso bazterra.

-4-

Airekun txikitun  
airekun laire  
airekun txikitun  
airekun laira (bis).

Gero ekin zioten bertsoan Arotzamina ta Lasartek, Izeta jauna zutelarik gai emalle. Txalo ugariak artu zituzten. Bertso-egarri gelditu zan oraindik jendea. Peru Txikik ere artu zuen partea, irri naikoa jendeari egiñaraziaz bere txixte ta kiter-jotzearekin. Bereala aurreri egin zitzairen sari-banaketa. Berrogei ta amaika nexka-muttiko ziran diplomak ta Aurrezti Kutxako (kaja ahorros'ko) kartillak berrogeina durokin eta gozoak eman zaizkietenak.

Ta azkenik, zortziko-dantza, soka-dantza, fandango ta purrusalda'kin ekiñaldi berezi bat egin zuten. Uste degu oroitzapen eder bat izanen duela jendeak Saldis'ko euskal-besta gatik. Eskerrak ta zorionak ematen dizkiegu don Pedro Diez de Ultzurrun ta don Luis Irigarai jauneri ainbesteko arreta artzen dutelakotz, eta gauza bera PRINCIPE DE VIANA'ko gañerako guziei. Agur! Ta zorion.

G. ta U. YON

Principe de Viana, 1967, azaroa-abendua, 7. orr.



## URREZKO ESTAIAK

Apirilla'ren emeretzigarrenean zelebratu zituen apaiz egin zaneko berrogei ta amar urteak, "urrezko eztaiak", *Larrañaga ta Lasa'tar Iñazio Gotzai (Obispu) Kaputxinoak*. Ixil ta apaltasun aundienian egitea zan beraren naia. Ta, alaxe egin ere.

Guk, ordea, Naparroko euskal PRINCIPE DE VIANA ontatik jagur! egin nahi diogu. ¡Zorionak! biali nai dizkiogu. Bere apaltasun aundiari dagokionez, zertxo batean mintzen badiogu, barka deigula.

Larrañaga'tar Gotzai jauna, oso ezaguna da Euskal-erri guztian. Errikoitasun aundia dauka. Gipuzkoa'ko ALDABA errian, "Muño-Zabal" baserrian jaia zan 1892'ko Urrilla'ren laugarrenean. Bere guratso zintzo Migel ta Eusebia'ren gandik lau seme ta lau alaba etorriko ziran mundura; oietatik iru anai (bat gure Gotzai aundia) ta iru aizpa bizi dira.

Gazterik praille kaputxino sartu zan. Lenengo urteak Altsasun egin ondoren, Iruñan bukatu zituen ikasketa nagusiak. 1919'ko apirilla'ren emeretzigarrenean eman zuen meza. Urte batzuez, Lekarotz'ko Ikastetxean egon zan irakasle. 1926'ko urtean ta berak eskaturik, joan zan mixiolari Txina'ko Kantsu aldeko toki urrutietara. Irailla'ren (buruilla) amarrean zan noski. Beste praille euskaldun batzuekin asi zan antxe mixiolaritzan.

Euskal mixiolari aiek areindako azia, aunditzen ta ugaritzen zijoan. Lan aundia zan. Ordurarteko lan bikain ura aztertuta, examiñatuta, bearrezko zan izendatzea Bidali-Buruzagi edo "Prefecto Apostoliku" bat. Ta, ain zuzen, Aita Santu Pio amaikagarrenak, Larrañaga'tar Aita Iñazio izendatu zuen 1930'ko maiatza'ren 2-an. Eta 1950'ko garagarrilla'ren 25'an, amabigarren Pio Aita Santuak, Pingliang'go lenengo Gotzai autatu zuen. Shanghai uri-buruan (kapitalean) kotsagratua izan zan, urrilla'ren 1-an, garai artan Shanghai'en Nuntzio zegon Riberi jaunak, gerora Españi'ko Nuntzioa izango zanak.

Lan bijkaña bentean, Larrañaga Gotzai jaunarena, beste euskaldun mixiolari batzuekin batera. Bañan, laixter, euskaldun aiek landatutako zuaitz (arbol) eder ura moztua izan zan. Ainbeste urteen zear egindako guzia, "uzta" eder ura, komunismoa'ren igitaiek ebakia izan zan. Ez sabaira eramateko, baizik ta lurperatzeko. Ta, azkenean, kalbario luza. Naigabe guzien "kaliza" edan-ta, dena Jauna'ren eskuetan utzi-ta, andik alde egin bearra. Miñaren-miñez matsti ura umezurtz utzirik, etorri zan gure Gotzai euskaldun aundia jaiotzen ikusi zion lurraldera. Euskal-erria. 1953'ko uztailla'ren emeretzigarrena zan. Antxen, urrutietan, gelditu zan bere Diozesis maitea. Beragan beti ametsetan, ezer jakin gabe.

Azken aldi ontan berri-pozgarri'enbat izan omen du zerbait jakin duenian berak egindako txina'tar apaiz sailtxo ura ZUTIK arkitzen dala jakin-ta. ¡Nola ez! Ainbeste neke, ezbear ta beartasunen tartean egindako apaizak galdu baziran, apaizgontzari UKO egin balieteke -¡ainbeste bortxatuak izaten omen dira komunisten aldetik-! nolako naigabea izango litzaken Artzaia'ren txat. Bañan, ez; Jainkoaren grazia aiekin dago. Ta ala izan bedi beti!

Apirilla'ren emeretzigarrena etzan Larrañaga'rentzat jai bat egitearren izan, baizik, Jainkoari eskerrak emateko. Bere inguruan bildu nai izan dituen berarekin batean Txinan mixiolari izan ziranak, meza "konzelebratu" baten bidez eskerrak emateko Jaunari. Itzaldia, Aita Olazaran'ek. Lizarra'ko Aita Illariok, alegia, egin zuen.

Igandean, ogeigarrenean, ta Gotzaia'ren omenez, Donosti'ko, Errenderi'ko ta Ondarrabi'ko gazteek "erri meza" abestu zuten. Meza au, txixtu, txun-txunta txalaparta'kin

lagundua izan zan. Sagara ondoren, Donosti'ko gazte batek, arrantzale arropaz jantzia, "auresku" dantzatu zuen aldare erdian. Meza ontan Bidani'ko Aita Ladislaok egin zuen bere itzaldia.

Eliz-Agintarien aldetik ta beste askoren aldetik artu izan ditu "telegrama" ta zorionak. Dijoala gurea, naparro aldetik, ixilla ta apala, bañan "biotzkorra". Jaunak eman deiola urte luzetako bizia. Gotzai jauna, Eliz-Amak bear zaitu. Ta, Euskal-erriak ere bai. ¡Aurrera!

Gortari ta Ugarte'tar Yon

Principe de Viana, 1969, ekaina, 6. orr.

## LEITZA

Inguru zaizkigu zeinbait leitzetar galderatuaz, ia "GURATZ" mututu al zan betiko, edo kukuaren antzera aldizkari diran beren ariketak. Oroitzen dirala, Gurazko laño ta aintzigarran azpitik esan giñuzen berrietaz; eta eskatu digute zerbait idatzi dezagun "Zeruko Argia" ta "PRINCIPE BIANA"-n, ba aspaldi ontan ez da iñor oroitu Leitzaz.

Oar au entzunaz, emen gatoz, gure leitzarrak, zuen nai ori betetzera. Gai aunitz ta onak dauzkagu bilduta gure txabolan, lantegi begiko ontan. Gai onak esan degu, gure ustez, jakiña, eta danari ala ez balitziokete iduri...! Ez degu ordea iñor miñean jo nai, ta poliki-poliki ibilli bearra dago. Beti egia esatea atsegin zaigu, baño onek ematen ditu eznaiak.

Gaurkoz beintzat, gai oietan goxoena, kuttunena, begikoena nai degu idatzi: *Mikel Arangeruaren etorrera Leitze'ra*. ¡Zer arratsalde zorionsua izan zan Jorraillaren lenbiziko larunbatan! 7'ak aldean egin zun bere sarrera Aingeruak Iruña aldetik eta bidera atera zizkitzaion ostetalde aundiak, ezkill berrian doñu atsegiñak laguntzen ziela, ongi etorri bat ematera, betiko antzera, gure Elizako Gurutze ederra eta Mikel Aingeruan iduri begikoa elkartu ziran muin batean; bereala Aralar'ko Apaiz jaunak onetsi zitun gure soro, belardi ta mendiak, eskatuaz Goiko Jaunari nekazarien lana alperrik ez dedin izan, eta gaizgabtuak landare ta arnariak, ekaitz eta izotzangandik, xagu ta bestelako pixti guztietatik. Erria ingurutuaz agurtza otoiztutzen zan bitarte, ibili eder ontan, gure Apaiz ta agintari jaunak buru zirala, alderdi guztietara zabaldu ziran Mikel Deunaren bitartez, ziñezko eskariak. Elizan, aundia izan arren, etzan tokirik an bildu ziranak lasatasun pixka batekin sartzeko. Zenbat gizonezko (au atsegingarria gaurko egunetan) emazteki, gazte ta adin aurreratuak, batezere ainbeste ama gazte beren aurtxo mardulak besoetan zaramazkitela, Mikel Aingeruaren iduria muxukatzerara. Iru laurdenetik ordu osora iraundu zun, Irudi au jauresteak. Denbora ontan etzan ixildu abestetik "Mikel-Mikel gurea zaitu Euskal Erria" eta beste era bereko gai jakiñak, ariñ-ariñ abestuak erri guztiangatik.

¡Ura oste saillan emana! ¿Zer dezu Mikel Donea, ola biotzak beroazteko? ¿nork ote du indarrrik aski, ainbeste gizon-emakume, gazte ta aur astintzeko? ¿ezkill berrian doñu eder ori ote da gertakizun au gure begien aurrean jarri diguna? Dana on da Jaungoikoa Goresteko, bai baña, Berari atsegiñena zaiona, erriaren siñismena agertu dana, Mikel Aingeruaren bitartez, batezere aurtxo txikiak, arkume antzeko marraskakin pillaka aurkeztera Mikel Donearen oñetara. Beste bat artio.

Guratz

Principe de Viana, 1969, uztaila-abuztua, 5. orr.

## LEITZE

Gure erri polit ontan, ba dauzkagu zeinbait gauz, deusere esaten ez duenak bere edertasunaren alde.

Orain dala urte gutxi, egin zan indarka bat apaintzen; etxe zuritzeak, errin erdian arkitzen diran baratzan itxituak txukuntzen eta karrikak edozein uri ederrenaren antzera utziaz, batere loik gabe negu gorrigorrian. Au egin zan, egia esan nai badegu, Lizarraga'tar Premin jaunaren denboran, bera Udaleko batzarraren buru zala, zeñ, zoriondu giñun bere garaian, eta gaur berritzen diogu, baita eskerrak eman ere.

Gero etorri ziran olak edo fabrikak eta ondoretik gure Ikastol ederrak, erriko ta inguruetako gazteak ikasi zezaten, bai nekazaritza ta aberetaz, bai olatarako. Olaak bereganatu zitun lur zati batzuek bere lantokiak ipintzeko, nola Ikastolak ere bere gora-beratarako. Ikusten ditugu zein apaiñak dauzkaten, olak eta Ikastolak, beren bideak eta inguru guztiak, eskeintzen diguela ikasgai eder bat, bakoitxak bere txokoak txukuntzeko.

Erriko biztanleak, ez degu ordea ikusten ispilu ortan, gure etxe ondoetan zer egin genazeken, bideak eta enparantzak garbiak edukiaz, ainbeste egur ta zakar pillaratu gabe orobe guztiak gerenak ba giñuz bezala. Nonnai daude zama-gurdi aundiak (kamionak) bideak erdi-itxiak uzten dituela, tokirik politenak eta atsegiñenak urratzen dituela bat ere ajolarik gabe, beren jabeari ongi datorkielako. Agintarien aldetik txintik ere esaten etzaioala, Erriko apaintasuna, beste gaien artean, Udal-batzarraren egitekoa da, ta erritarrak egiten ez degunean geren buruz, beartu bear gaitu zabarrak ez izatea. Bestenaz ez da Agintaria.

Oneraño esaten deguna ez ba dago ongi, eta bai tioso gaizki, beste gai batek gauzkagu lotsaz beterik eta biotz-mindurik: gure illerriaz, (camposanto). Iñorena ez balitz bezala arkitzen da. Bide txarra Aizpe aldetik; ate-aurreko zelaitxo ura, arri-kazkarrez, lurraz eta larraz gallurrerako betea, aurki zerraldoakin diezenak igaroko ez diran eraño, orma guztiak larraz ta untzez estaliak, zinkikeria dariotela, barrendik ta kanpotik. Barrengo bidetxoak askotan belarrakin estaliak, intz pixka batekin ibilli ez ditekela busti-busti gabe, eta biderik ez dagoan tokian zer esanik ez.

Ez da egun asko, lotsatu giñala antxeko ate aurrean, leitzarrak giñela esatea tolosar batzuen aurrean, zai baitzeuden gu bezala atea iriki zezaten.

Galdera bi orain: 1'go. ¿Ez da gure erria gai, olaxe baño begirakun geixago izateko berari?

2'gn. Siñismenaren ezaubideakin aurretik joan zaizkigun eta pakeloan dauden gure odoleko diran ta ez diranak, olako zabarkeri ta utzieran gai dira? ¡Gaxoak!

Esango zaigu bear bada, ez dula iñork ari nai lan ortan. Izango da egia noraño bada ere; bai baña nai giñuke jakin, zer egin dan, ortara beartuak daudenan aldetik, gai orri bere bidea emateko Jaungoikoaren izenean eta txanponan bidez. Ez gera nolana eskuratuko, ez dala iñor ortarako argi-bide ori esatekin. Ez gera arrituko ere entzutean, ez dagoala txanponik. ¿Ez dagoala? Nai ez denantzako ez noski, baño gai au ere aztertuko da pixkaka-pixkaka, Jaungoikoa bitarte, ba gure erri kuttunari diogun maitetasunak bulkatzen gaitu ortara. Ez iñor mintzeagatik.

Principe de Viana, 1967, maiatza, 5. orr.

## LEITZE

Ez giñake bear dan bidetik ibilliko, toki ontan berean, esan gabe uzteakin, gure errian gauzak aldatu dirala azkeneko berriak eman giñuzen ezkeroztik. Oso txukundu daizkigute bide ta etxe-atariak. Berri auxe poxtasun osoakin ematen degu gaur, ba atsegiñago baita berri onak adieraztea txarrak baño, denbora berean txalo ziñezko batekin, gure agintari jaunentzat, entzun digutelakoz gure oarra. Baita txalo au nai giñuke zabaldu txukuntasun au lortzeko ariketak egin dituenari.

Orain, ikusirik zenbat ederrago dan gure erria, ziur gaude, aurrera jarraiko dala gelditzen diran txokoak apaintzen. Beti bear giñuke txukuntasunerako griña ona, gauz guztietan jakiña, ori baita gure izakeraren ezagun biderik agiriena.

Gaur, ainbeste ikusketari etortzen zaizkigu errietara, naiz ok txikiak izan arren, bazter guztietatik, eta orrengatik dira ainbeste indarka, Madrilgo Buruzagietatik asita azkeneko erriskatarano. Naparroan bertan dauzkagu ezarriak sariak, apaintzen diran errientzat. ¿Ez da ala? Guk aitzea degunez, Lesaka ortxe dago noski arri apañena bezala saritua.

¿Zergatik ez degu artzen guk ere arreta pittin bat, Leitze eukitzeko berari dagokion era ta mallan? Au egingo ba giñuke indarka pixka baten bidez, danak egongo gera ordun poxik, ba toki guztietatik entzungo bai litzake goraltza gure erri eder onentzat. Auxe besterik ez degu billatzen gure aldetik. Ziur aski iritsiko degula noski nai au zorionez. Gai ontaz lenbizitik esan giñuna, etzan iñolaz iñor biotz-mintzeagatik, idatzi artan adierazi zan bezala, bai baña norbaitek beste alderditik artu ba du azketsi, edo barkatu dezala.

Alor lanak, tioso atzera dabilta aurten. Igandetan aritu bearrean arkitzen dira nekazariak, berandu xamar baita, arto ta babarronan ereitea. Udaberri otzak, belarrak ere motxak dauzka. Toki sendoenetan nonbaitor, baña aldapaxka ta toki goienetan murrixtasun aundian daude. Egin lezake bai, oraindik giro egokia, oraindañako okerrak zuzentzeko. Nekazaria askotan arkitzen da larritasun zeinbaitetan, baño azkenean ateratzen zaio beti bear dun ura. Goiko Nagusi On Ura begira bai dago arriskoan erori ez ditezen.

Bordarien elkartzea asi da, Jaungoikoari esker. Au bai dala bearritzko gaia nekazarintzat. Nagitasun aundi batek illundu-ta dauzka gure basoetxetarrak, eta baliteke ere zeinbat kezkaikin elkarrenganako. Ez da arritzekoa au zertaraño ba da ere, baño kezka ta nagitasun ok alde batera utzirik, ohea izango dezue elkar-ganatzea. Gaurko bizierak ala eskatzen bai du.

Jakintza (cultura) dala ta gaurko egun otan, itz egiten degu danak, asko jakiñak geralako ustean gaudela. Errian bizi-malla goratzea gora ta bera, baño geienean dirutzaren inguruan. Iduri zaigu, txanpon ugari erabiltzea esku-artean, dena egiña dagoala, bizi-malla goratua dala. Bear bada, au ez degu baztertzen, txanponan bidez ipindua dagolakoz lurreko biziera; bai baño guretzat, erriaren malla-goratze egizkoa, Jakintza da, bere alderdi guztiakin, dirutza ez direnakin, ta au beño onurakoiagoak noski gizadiarentzat. Alaxe uste izandu du ere Leitze'ko gizaki ta emakumezko talde batek, sortuaz "LEITZE'KO ABEST-BATZA", Kantari Taldea (Orfeoia) ez nola naikoa alajaña. Aurretik ba giñikin zerbait, etzala txantxetako txoria, baño Ostiel Done egunean txoraturik egon ziran entzule guztiak, eta etziran gutxi gañera, abestu zuen lekua bete baitzan gallurreraño. Talde aundia au, erriaren ariora izateko. Agertu ziran jazkera apaiñakin, emakumezkoak aingeruak bezin txuri, eta gizakiak edozein talde aundiko abeslarien antzera. Ez da gutxi gertutasun ontara iristea; bear baidu izan gogonaia,

aala, kemena ta abar, Irurtia jaun gaztea omen degu zuzendari eta berari dakio noski, "Abest-batz" onen sortzea, bere gora-bera guztiakin, lana, naigabeak eta zeñek daki, beste zerbait garaitu bearra ere. Beste egun batez, azalduko ditugu berri geiago ta xeatuagokoak Abes-talde ontaz, Jaungoikoa bitarte. Oraingoz, gure aldetik zorionik sutsu ta biotzekoenak danari.

Ez da gure erria malla-goratu lantegik sortuaz ta ardan-gelak geituz bakarrik, baita Jakintzaz jazteko bidetan re. Beste bar arte.

Guratz

Principe de Viana, 1967, uztaila, 5. orr.

"OSASUNA", AURRERA!

Gaur Iruñeko "Osasuna" Futbol talde edo ekipoa gure euskal illeroko onen orrietara nai dugu ekarri. Or goiko erretratoan dauden fubolariak "Osasuna" taldea osotuzten (osatzen) duten gizonak dira. "Osasuna" Nafarroko fubol talde edo ekiporik oberena da, eki poetan nagusia eta nappar guziok aunitz maite duguna.

Aurtengo Txapelketetan ongi xamar gelditu da alde batetik ikusirik eta batzuen iritziz, baño beste alde batetik ikusten baldin bada, eta geienen iduripen eta uste dena, ezin ukatu dezakena txarki xamar yokatu da eta azkenean laugarren tokian geratu bada ere, jo-muga nagusia, xede aundia, au da Bigarren Maillako Saillatik Lenengo Maillara igotzea, altxatzeak beste urte baten zai "Osasuna" utzi du, eta guk uste dugu "Osasunak" Fubolaren Lenengo Maillan egon bear du Españiako Fubol-multzorik oberenekin elkarri yokatzeko.

Azkeneko Norgeiagoketan, aurtengoan, lenbiziko partiduetan oso aula egon zen gure "Osasuna", eta bere Erakasle zen Garzia Andoain jaunak bere lekua utzi bear izan zion beste Erakasle bateri, bigarren Erakasle au aurkitu arteko bitartekoan Iruñeko gazte den Mikel Blankok bere esku "osasunatarren" saioaldiak artu zittun eta iru edo lau partiduetan makur zegoena, arras ongi, "xarmanki" (baxtandarrek erraten duten bezelaxe) zuzendu zuen, eta "Osasunak" berriro partiduak garaitzen, irabazten fubolari profesionalak irakasteko baimenik etzuelakoz eta Madrileko Martialay jaunari utzi zion irakaskintza.

Ziur gaude asieratik, asmentatik, "Osasunak" Erakasle ona izan banu beste ollar batek kukurruku gantatu izan lukela, eta orain Lenengo Maillan egonen litzakela; ustean gaude, alaz ere, datorren denboraldian gure "Osasuna" jatorra Bigarren Maillako Txapelduna izanen dela. Aurrera, bada, "Osasuna".

Guratz

Principe de Viana, 1967, ekaina, 6. orr.



Gorriti

## PAKITA ALDUNZIN IL ZAIGU!

Martxo onen 9'an Aldunzin'dar Pakita izeneko anderea, Jaunak Bere aldamenera eramán digu, laurogei ta bi urtekin.

Ura zan emakumea; elizkoia, euskaltzalea eta oso langillea. Erria betetzen zuen!

Elizkoia: bere denboretako elizkizunetara erantsia zegon. Erlijioan arkitzen zuen bere bizitzako sufrimentuak eramateko indarra.

Euskaltzalea: zintzoa eta euskal-irakurle amorratua. A zer adibide ederra eman digun Pakita'k gorritiar eta euskaldun guztiei! Beti bere eskuetan liburu eta aldizkariak. Eta nondik zaletasun au? Pakita'k anai apez jator bat bazuen eta bere ondoan gure Euskalerria ezagutu ta maitatu.

"Principe de Viana" aldizkaria irakurriaz jakiten zituen Naparro'ko erri geienetako gora-berak. Azken urte otako kezkik aundienak Ikastola'k ziren. Kezka oek, Satrustegi Jauna'k sartu zizkion, bere idaz lana "Aingeru txuriak" irakurri zuenez gero.

Erriko jostuna zen eta oso langillea. Gorriti'n ez da gizonik Pakita'k jositako galtzak jantzi ez duanik.

Atsekabez beretik utzi gaitu, baña Jaungoiko'aren naia onartzen degu ta emen lurrean arkitu etzuen zorientasuna, zeru eder ortan arki dezala. Bitartean emen gelditzen geranok ikasi dezagun bere bide argia.

Guratz

Principe de Viana, 1973, martxoa, 7. orr.

## RETEGUI JON IÑAKI JAUNARI ESKUTITZ AGIRIA

Zure aita zenaren adiskide zaar batek idazten dizu, zu ezagutzeko zoriona ez badut ere oraindik.

Barkatu bearco didazu, bear bada, nere ausardia; bai baña ikusirik zure egikunde itzal gabe ori, Atano X'garren aurka Bergara'ko pillota enparantzan, eziñ utzi degu lerro batzuek, Eratsungo "Sastin estankeroan" (zure aitari aunitzek olaxe deitzen zioan alderdi ortan) semeari zuzendu gabe.

Toki guztietan jaioazten ditu Jaungoikoak, gizon eta emakume azkarrak, eta ala, Eratsun erri txiki, mendi tartean, ospel-antzako leku artan, sortu zan, gure txapeldun egiazko auxe, Atano X'garrena menperatuaz argi ta garbi.

Ez da txantxetako egikundea zuk aurrera atera dezuna, ainbeste gorabera erabilli ondoren, illabete bat, bi ta iru baño geiago aurretik, au ta bestea dala; gaur jokatuko ote zan, biar izango zala saioa ta abar...

Ez dezu noski garaitu Atano X'garrena, bera, sasoi onean etzegolako, urte batzuek ba daramazki ere bere bizkar gañean, zuk baiño geiago. Ziur aski, ongi gerturik bear zun egon, denbora aski izandu edo artu bai zun ortarako, iñork eragozpenik jarri gabe. Ez, Atano X'garrena, ala beste bere taldeko guztiak, ez dira nola naiko gizonak, pillotari bezala berenez, e ta oni erasten bazaizkio beren jakintzak gai ontan; esan nai degu, jokoan txokoak ta beste jokalarien izakera, dakizkiela edozeñek bezin ongi edo obeki, irakasle bai dira aspalditik, batezere III'garrena... Orrengatik diogu, ez zerala Retegi, makala, zuk egin dezuna egiteko txapelketa ontan, Atano X'garrenari "txapel zaletu" ori kentzeko. ¡Bejondaizula!

Aurretik esan degun bezala, itzal gabeko garaikundea zurea, Jon Iñaki, egun ortan aurre-aurre, Atano X'garrena baño geiago agertzean Bergara'ko enparantzan, jokoan ta gañerako era guztietan. Naparroa'ri eman diozu esku jokoan aintza aundia, beste zeinbait azkarrak (ixiltzen ditut izenak iñor ez biotz-mintzeagatik) beste joka-eratan, pillotan jakiña, antziñeko denboretan. Jokalari bezela jatorki ta kementsu agertu ba zera, napar bezela zer esanik ez dago, zure zori-on ori eskeñiaz Naparroa'ri ta napar guztiari.

Esker aunitz ematen daizkitzugu, eta urte aunitzetan ere iraun dezala Bergara'n zureganatu dezun txapel orrek zure buru argi ortan, ez baita toki txarrean ezarri.

Guratz

Principe de Viana, 1970, urtarrila, 4. orr.

## ARALAR'KO AIZEAK

Euskalerriko biotz eta muñ dan ARALAR mendiko tontor baten gañean, itxasotik 1.237 metro gora, duela milla ta geiago urte ezkeroz, dago jasorik Mikel Aingeru Santuaren eliza, euskal fedearen ezaugarri ta begiratzaille.

Zer dala ta eraiki zuten eliza eder au olako toki elkaitz batean, denok dakigun gauza da, gure aurrekoetatik belaunez belaun, ikasi baitugu Goñi'ko Teodosio zaldunaren kondaira, ots, nola deabruak edo engañaturik, bere gurasoak il zitun, eta nola, pekatu orrengatik Aralar mendian, "Ezeltzeta" izeneko barruti inguruan, penitentzi egiten zebillela, San Migel Aingerua agertu zitzaion, erensuge ikaragarri batek iretsi nai zuelarik.

Zoritxarrez gertaera auen sustraiak lañopean izkutatuak daude, aoz ao bakarrik eldu baizazkigu; beraz ez dezazkegu istori bidez egiztatu. Baño agirian da zerbait izandu zela, olako eliz aundi ta ederra toki ortan ainbeste kostata ta nekeekin jaso zuteneko.

Dana dala, agitz beneragarriak ditugu bai San Migel'en eliza bai beraren irudia.

### Eliza

Bisigotiko ta erromaniko tankerak edo estiloak erakusten ditu eliz-basilika onek; beraz esan dezakegu bedratzigarren gizaldian asi ta amaika edo amabigarrenean buru eman ziotela. Euskalerriko elizik zaarrena da beraz. Dudik gabe, XI'garren gizaldiaren asieran bazan eliz au, eta ongi aipatua izan ere. Ala erakusten digu 1.027'garren urteko Naparra'ko Errege Santxo Aundienaren agiri batek: onek, Iruñako Eliz-barrutiko mugak eta onibarrak aipatzen eta neurritzen ditu, eta beste gauza askoen artean onela dio: "Bestaldetik Arakil ibar osoa, ZAMARTZE'ko Santa Maria deitzen dan Monasterioa ta EXCELSIS'ko SAN MIGEL'en ELIZAREKIN eta oni dagozkion guziekin. (Ona emen, latinez, Arijita'k bere liburuan dakarzkien bezelaxen: "Ex alia igitur parte tota vallis de Araquil, quod dicitur S. Mariae Zamarzes, Et cum sua Ecclesia S. Michaelis de Excelsis, cum eorum pertinentiis...").

Arri bikañez egindakoa da (arbera edo arrigarratzaz eta galtziñarriz); 37'5 metro luze ta 14'7 zabal ditu; bere erdian, ollalokak bere azpian txitak bezela, beste elizatxo bat artzen du, 5'5 metro luze ta 3'5 zabalekoa.

Elizatxo onen barnean daude Aingeruaren irudi beneragarria eta erensugea atera omen zen leize-zuloa; kanpoaldetik berriz, orma edo paretatik txintxilikan Don Teodosio'k gerrian loturik zerabilzkien burnizko kate lodi pixuak.

"Oiek denak egiak ote dira?" galtdetzen dute askok.

Erensugerik izan danik, ez dut uste. Baño Don Teodosio, beste asko bezela, gerrian kateak penitentzi bidez, ibilltu izatea ta Aingeruarengandik mesede berexiren bat artu izatea, errax ditezkenak eta egitzat artzekoak bide dira.

Ta aingerua bera agertu zitzaioa ere, zergatik ez?

I.A.

## URDIAIN

Lengo batean, Donosti'ra bidean nioala, Urdiain errira iritzi giñanean, an sartu ziran "Burundesa"n amalauzpamabost mutiko, dena irri ta barre, algara alaiean, itz-jario ta mutxikagura, liburuak edo karterak eskutan.

- Nora zoazte, mutikoak?- galde egin nien.
- Altsasu'ko Istitutora, eskolara- erantzun zidan orko amaika urteko begiurdin marduk batek.

Poz aundia ematen zun olako mutiko eder saila eskolara bidean ikusteak. Baño oraindik poz aundiagoa eman zidan denak elkarrekin euskera garbian ari zirala ikusteak. uraxe bai edertasuna!

Nik nere baitan: Gero esango dute eskola ikasteko euskeraz egitea traba bat besterik eztala. Ona emen mutiko auk, euskaldun jator, ikasle trebe, erdalerriko beste edozein bezin trebeak, geiago ezpada. Izan ere, nun daude analfabetorik gutxienak España guzian? Euskalerrian ta Katalunian, bi izkuntz erabiltzen diran lurraldetan alegia.

Euskal arazoan, Urdiain erria eredu ta ikaspidetzat ar dezakegu dudik gabe, zaarrenetatik asi ta aurtxo txikienetaraño, denak euskeraz egiten baitute elkarrekin, bai etxean, bai elizan, baita kalean ere.

Nortasun aundiko jendea izaki nunbait, eta nortasun ori euskerak ematen die aundizki. Eztute jotzen beren burua, erderaz egiten dutela ta, aundiputz, beste askok bezela. Bai-baitakite euskera Jaungoikoak berak emandako izkuntza dugula euskaldunok. Erdera ikasi, bai; geiago ta obe. Baño euskerari eutsi, euskera maitatu, zaindu eta landu, gurea delakotz.

Ez euskera kontuan bakarrik; beste arlo askotan ere espillu ta eredu dugu Urdiain'go erria.

Goazen gizarte edo erderaz "social" esaten dan girora ta ikusko dugu: gorputz eta animaz jende sana, artu-emanetan zuzena, jokabide guzitan zintzoa, langillea, urkoari laguntzeko beti "pronto" dagona. Eztut esango Urdiain'en pekaturik eztatola; baño aipatu ditugun birtute oiek, toki gutxitan bezela, urdintarren artean aratz eta jori ikusten ditugula, bai.

Ona emen proba batzuk:

Gizarte giro eder oni esker, eta buruzagiek bide zuzenetik eramaten jakin dutelakotz, egin dituzte urdintarrak egin dituztenak erriaren bizi-bideari buruz. erriko lenbiziko ogibidea nekazalgora da, erri geienetan bezela. "Concentración parcelaria" delakoa sortu zaneko, egin zuten urdintarrak bere barruti edo dermiuan.

Erriko bigarren ogibidea industri bidea da, ta aspaldi-aspalditik izan ere: oraiño Naparroan industriarik etzegola, urdintarrak Bizkaia'ko bidea artzen zuten, lurra ematen etzien dirua ango fabrika edo meatzegatik (minetatik) ekar zezaten. Ta Olazti'ko ta Altsasu'ko lantokiak eraiki ziralarik, an zuten urdintarrak lanbiderik egokiena. Eta (ziur-ziur badakit) oso estimatuak izandu dira beti, langilleak eta zintzoak diralako.

Azken urte autan berriz, errian bertan jaso dute ola edo fabrika eder bat, beljikatarrak buru direla ta urdintarrak langile. Diotenez, oso ondo omen dioa fabrika ori. Jarrai beza ortan.

Baño ez uste izan gauzak intsumutsuka edo nolana egin dituztela: oiñarri ta zimendu sendoak jarri zizkioten bere lanari. Aurretik, erriko gazte guztiak elkar arturik, "Sociología" ta "Economía" ikastaldi edo Kurtso batzuk egin zituzten, erakustaile bikañak gidari zituztela; ta seriooki ta sakonki egin ere, konturatu baitira urdintarrak, edozein lanbideetan, eskuak eta anak baño areago, burua ibili bear dela ongi jantzirik.

Lana bear-bearrezkoa zaio gizonari bizitzeko; ainbat bearrezko atsedena ta dibersua. Ontan ere etzaizkigu makalak agertu urdintarrak. Or daude, mundu guziaren ikusgarri, mutillek beren izerdiz eta beren diruz egindako igeritegi edo pizine ederra; or fubolean aritzeko zelaia; or erri guziko ta etxe askoko berritze ta apaintzeak, eta aurren baratza.

Eta eliza berotzeko berogailuak jartzen ari dira.

Eta pilota plaza berri bat egiteko asmotan dabiltz.

Eta jaitoki edo saloi bat.

Eta beti lanean geroari begira.

Eta beti zintzo.

Eta beti euskaldun.

Urdiain bezelako gutxi.

Gora URDIAIN!!

I.A.

Principe de Viana, 1969, martxoa, 5. orr.

**“La Verdad” batean ta berze paper batzuetan ere agertu izan dire bi berri ok beren orduen.**

**Lendabizikoa:** Menditartean gertu-gertu dagon Andorra Xaharrak, irueun pezetekin ornituko ditu aurtengo gerrarako beharrezko guziak. Iruen pezetekin zaindeko dute ango gizonak beren lur maitea.

Andorra danetik, bakean bizi izan da orai arte Andorra. Bakean bizi nai du gero re.

Norbaitek (ez naiz oroitzen nork) dolar sailtxo bat bidali omen dio Andorrtarren buruzagiari, unek erriko irueun pezeta oiek dolarrekin elkartzuz azkartzeko. Elkartzean dagola indarra ez diote ba?

Baña, buruzagi au buruz argi da ere. Dolorrek iabeari itzuli dizkio, behartsueri ematean ederki eginen lukela eztiki adieraziz. Dolarren beharrik ez dauka buruzagiak. Behartsurik ere ez da naski Andorra Xahar ortan. Ez baidu diru pilla aundixago edo ttipixagoak bakarrik behartsu edo aberats egiten bat.

**Bigarrena:** Jabier erritxoan, emakumezko Misio-Etxeko bizitz indartsu ura sortu zala, martxoaren amalauean ogeitaborz urte bete dira.

Ogeitaborz urte oketan, gutarteko 300 neskatx, beren lana, biotza ta izate osoa Kristori ta animen onarako egin behar danari osoki emanik dabilz. Indian, Japonen, Kongon, Benexuelan ta berze leku aski zailtan, lan ta lan ari dira, lurreko atsegikeri ta ontasuneri gutxi begiratuz, baña animen alde dezaketen guzia egiñaz.

On gutxi ekarri digute gerrek, ziurki. Ala ere, gerra baten ondorio ona izan da 300 emazteki oken Misiotarako ioera.

Emengoen biotzak Misio-lanetara bulkatzeko asmoakin etorri zitzaigun A. Domezain Japondik gutartera. Ain zuzen, gerra berri ikaragarri bat piztu zan: ta Aita au ezin itzuli Japonera iñolaz!

Berriz arat joateko ordua arte, batean ta berzean itzegin ta lan, biotz azkarren billa ibili zan. Bere lan auetatik bat, Jabierko Misio-Famili au, gotzaiaren baimenakin, sortzea da.

Iruenun aldiz irueunean barratu ta zabaldu bedi Jabierko Misio-Familia gutarteko neskatx Iaungoikozale ta biotza azkarrekoekin.

Dolarrik gabe; bakean: ederki.

Lana, biotza ta izate osoa, animak zeruratzeko: ederki baño obeki.

Zorionak!!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, apirila, 1. orr.

“ABENDUA” AMETS NAHASI BAT...

Neketan,  
Bizitz arantzetan,  
Makur burua;  
Eguzki sua  
Gure on lanetan;  
Neketan.

Lagundu;  
Nekeak leundu;  
Besten beharra  
Gure negarra;  
Biotza bigundu;  
Lagundu.

Alkartuz;  
Bekaitzak baztartuz;  
Batasunean,  
Maitasunean,  
Lanean azkartuz  
Alkartuz.

Etxetan;  
Gela, sukaldetan;  
Begi ariñak,  
Itz atsegiñak,  
Bake biotzetan;  
Etxetan.

Etxeak  
Ta beren labeak,  
Bakarka ez on;  
Elkartuz konpon;  
Berritu legeak,  
Etxeak.

Beiakin,  
Goaz alkarrekin  
Lurrak lantzerak;  
Azi ereitera...;  
Asmo ber-berakin;  
Beiakin.

Neguan,  
Garai soseguan,  
Asma, udako  
Lana arintzeko  
Zer dugun buruan;  
Neguan.

Gaztea;  
Senar, emaztea  
Ta ezkongai,  
Gutako nornai,  
On zaizu elkartzea;  
Gaztea.

Bakarra;  
Begian negarra;  
Laneko urri;  
Alperrik kurri;  
Bizitza zakarra;  
Bakarra.

Danokin,  
Lan egin gogokin;  
Alkar maitatuz;  
Alkar lagunduz;  
Nekean pozakin;  
Danokin.

Barride!  
Gauden adiskide!  
Zuek, gurekin;  
Ta gu, zuekin;  
Guzion onbide!  
Barride!

Ametsa?  
Amets ain kiretsa  
Ain biotz onez,  
Ain maitasunez  
Suturik saietsa?  
Ametsa?

Ibarrondo

Principe de Viana, 1966, abendua, 3. orr.

## AIZE ZAMIÑA

Osasun ona, sabel azkarra ta sasoñik oberena zeukan alabak. Aragiz ere ongi orniturik zebilen.

Alabaren gizentasun au ezitzaion ain eder amari. Nolazbaitere mehatu nai zuen nexka: baño... ixilean; mehatzeko konturik alabari aipatu gabe. Iana ta edana, bai, negurriz ta xuurki ematen abiatu zitzaion; au osasuna zaintzeko ta bizitza luzatzeko ona zela ta.

Aldapan gora aldapan bera ibilazten zuen, egunetik egunera aultzen ari zen nexka: ta onek, nai-tanaiez, kilo batzuk, poliki ere, galdu bear!

Kiloekin batean, arpegiko irri goxoaren pollita eta eztarriko kantu eztiaren iturri ioria agortzen abiatu! Ez zakien bada aingerutxoak zertaz zeuken gose-egarritan amak!

Aldapan gora-aldapan bera zebilen atsalde batez, menditar-tean zegoen basetxe baten larrainean arkitu zan auldutako nexka. Etxe artako alaba, ain zuzen, bere adintsua ta errian zuen adiskiderik oberena. Onek sarrarazten du sukaldean: alkitto bat ematen dio iar dedin: ta, amaren baimenarekin, orduantxe erretako gaztain epel goxoak eskeintzen dizkio ian ditzan; extañu bat bete pitar, urrin ezti-pintarkari, begien aitzinerat ekarriz.

Gaztain saila ian du karrikar nexka gosetuak: pitar guzia irentsi: ximur zeukan sabela bete zaio, ta poza dario.

Basetxe artako atea, nai zuen guzietan, beretzat zabalik arkituko zuela erran zioten biotz osoakin, ta ez bein ango etxekoandre ta alaba on aiek.

Gonbit au atsegin zaio nexkari: ta or non abiatzen den atsaldeoro basetxe artara: ta basetxeko ama-alabak, orra nola asten zaizkion naiko gaztain ta pitar atsaldeoro ematen.

Egun guztiz bereganatzen ditu goseak ebatsitako aragi kilo guziak eta gehiago. Ama oartzen da: iana ta edana negurriz ttipitzen dio. Baño basetxeko paderak zorro aundia du; nexka, egunean bein bedere, bear bezala asetzen da.

Ama ixilik, zer egin ezin asmatuz. Nexka ixilago, amaren biotzako maitasunaz zer asma ezin. Basetxekoak arriturik, neskaren gose ura unezkoa ote zan edo...

Bere asmaketa guzien gañetik alaba leertzeurren iarri zitzaiolata, medikuarengana eramatea erebakitzen du amak. Au, nai izatea ez da asko. Osasuna saltzeko ere daukala dio alabak. Doazila eriak medikuarengana “Iana, iana neri; ez sendakiña!”.

Orduan, gizenegi dagola, aize samiñak dituela, mehexago obe lukela..., asten zaio ama. “Ianean ta edanean exkaxago ta xuurrago zurekin ibili naizela, ezara oartu, maita?”

Alabak berriz. “Ez ni bakarrik; Erraktxuloko ama-alabak ere bai. Zure agotik iakin banu lenbiziko egunetik ni goseak idukitzea zergatik zan, ez zinuen nere osasunez gaur kazkarik izanen; ez ta nik ere nere buruan zure biotzeko maitasunaren dudarik ibiliko. Ta gorputzez, aski eder nabil. Gose bearrik!”.

Adiskide: Gosearen bidez alaba gorputzez me ta lirain ikusi nai duen amarik ez duzu ezagutzen. Aragiak galtzeko beren negurriak, alabek berek artzen dituzte gaur.

Baño... elkarrekin itz eginez ta bat bertzeakin konponduz zuzendu dezazkegun zenbat gauz makur doazin, bakoitza geren buru ta gerena gogoan ari geralakoz!

Ta gero... aize samiñetaz arritzen gu.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1967, urria, 4. orr.



### AMA MINTZO (III)

Berriz emen naiz, seme-alabok,  
zuekin solas-aldian.  
Nere itzekin aspertzeraño  
aserik zauzte agian.  
Gezurrek ondameneko lana  
egiten badu errian,  
Amak zuzendu eta sendotu  
bearko denak egian.

Oraiko umeak eldu direla  
arro ta ezin eziak,  
guratsoen ta nere itzari  
buru-biotzez etsiak;  
nereak ezin ditezkelako  
gezur ikeragarriak  
bere nagusitasunek dauzke  
guratsoetan iarriak.

Saiatu zara, guratso ori,  
gezurtto unen garaitzen?  
Egin-alikan egin ote zuk  
umen eskuara aditzen?  
Ez ote zara, axola-gabe,  
nere lanean nagitzen?  
ikusik ere nere etsaia  
zure umez nagusitzen?

Guratsoaren ioera balitz  
bere itzkuntza zaintzea,  
nekez gertako gauze litzake  
itzkuntza umek galtzea.  
Berea bazter utzi ondoan...,  
berri bat etxeratzea...  
bera maitetu bearrean,  
bertzean truk bialtzea!

Mundu zabalak dituen txoko  
ta erri urrunetan,  
baditut zenbait guratso zintzo  
maite nautenak benetan.  
Nerekin beti bizi nai dute,  
ni nabil eken itzetan.  
ni naute erein, pozik alare!  
umetxoen biotzetan.  
Guratso-ume, itzkuntz batean  
dabiltz beren aferetan.

Oken umeak, etxetik kanpo  
berze itzkuntza batean.  
Ortara daude bearturikan  
an bizi diren artean.  
Baña kanpoko lanak akitu  
dituztenean berean  
etxera doaz ni aupatzera,  
bertzea utziz atean.

Parisen dauden aiten umeak  
Franzeraz ari bearra  
ni zokoratu ta ondatzeko  
liteke naiko indarra.  
Alare beren sukaldetxoan  
ni banilkete bakarra.  
Ok naute maite. oken biotza  
bai dela egiz azkarra!

Arjentinen ta Mejikon ere  
nere ume zintzo danak,  
ni ez antzeko, ni zaindutzeko,  
eginen ditu bai lanak.  
Euskal errien, euskal tartean,  
gaur bizitza daramanak,  
zabarkeriez ez bitza utzi  
nik maitasunez erranak.

Nere zaitudan guratso maite,  
zu orrelaxe baziña,  
zure etxean nik irautea  
litzake lan bat ariña.  
Parisko edo Arjentinako  
sukaldetxotan egiña  
egiz diozut, zure etxean  
iñolaz leike eziña!

Ain saminkiro ni mintzatzeaz  
baldin asper ezbazera,  
nere umetxo oberenetan  
ziur arkituko zera.  
Neke gehiago ez emateko,  
orai noa ixiltzera.  
Nere izateaz ez urrikirik!  
Nerea zaitez! EUSKERA.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1968, azaroa-abendua, 5. orr.

## AMA MINTZO

1

Ama ona ni umeendako  
Beti ala naiz izena.  
Umeak apain ikusi naia  
Nere asmo aundiena.  
Umeak eder, azkar ta garbi  
Mundu guzien barrena:  
Mundu guziak aitortu dezan  
Nere umeen kemena.

2

Nere asmoa beti izen da  
Nereak nere zaintzea;  
Nere itz bakar beren agotan  
Elkarrekin ibiltzea;  
Bizimoduan nere oiturak  
Beti zintzo gordetzea;  
Beren barnean nere anima  
Bizirik idukitzea.

3

Badakit ongi, nere etsaiak  
Il naiean nabilkate;  
Merezi gabe eraman ditut  
Zenbait eta zenbait kate!  
Merezi gabe etsi zaizkida  
An-emen ameka ate!  
Amorratuak irri auserki  
Nere gain egin didate!

4

Etsaien irri nazkagarriek  
Miña dakargit egitan;  
Lanean ari dire lasaiki  
Ilunbe eta argitan.  
Baña egia erran bearke  
Negarrarekin begitan;  
Nereak makurrago dabilta  
Itxurez zenbait alditan.

5

Nere ez denak ni gaitzesteak  
Ez nau iñolaz arritzen.  
Nereak nitaz alke izeteak  
Nau egiazki samintzen.  
Amaren alde ateratzeak  
Zertaz zaitue izitzen?

Ama onakin ona izetea  
Biotzak ez du agintzen?

6

Nere bularraz azietako  
Ume bat baño gehiago  
Ikusten dut nik bertze bidetik  
Gatea dula naiago;  
Nik erakutsitako guzia  
Deus ez delakoan dago;  
Ni utziz uste du gizajoak  
Dela nonbait argiago!

7

Neri yarraikiz ez omen daike  
Irabaz iñon dirurik;  
Nere itzekin ez omen ere  
Erdietsi yakindurik;  
Ez eta ere iñolakoan  
Kurritu gaurko mundurik;  
Nere alde denak ez omen dauke  
Buruen aunitz zentzurik.

8

Ni ilez geroz omen litzake  
Argitasune aurretan;  
Ni gabe, arki omen leiteke  
Poz ta zorion gaztetan;  
Ni kendu, eta erreztasuna  
Mendi, etxe, errietan;  
Ni ilko banintz, txakurrek ere  
Lukainkakin lepoetan!

9

Baña nereak ez doaz denak  
Bide untatik eroki;  
Munduan bada (bearrik ere!)  
Zentzudunarentzat toki;  
Nere aunitzek ikusten dute  
Zer den denentzat egoki;  
Amari yarra nai diote  
Bizitz guzien sendoki.

10

Biotzez maite ditut nik ume  
Yakinduri gutikoak;  
Nik ez dezazket bazterreratu

Maite dituzten Yainkoak.  
Maite ditut nik biotzez ume  
Yakinduriz betekoak.  
Nik maite ere biotz biotzez  
Bi sail oken tartekoak.

11

Nere umetan arki ditezke  
Sendagile ta gotzaiak;  
Nekazari ta itsasgizonak,  
Abogadu ta artzaiak;  
Praile, monjatxo, organo yole,  
Kantari aski alaiak;  
Denok alare alkerik gabe  
Izkuntzan beti anaiak.

12

Etsaiak! Utzi txorakeriak  
Beingoan alde batera;  
Nik emaneko itzkuntzarekin  
Ez zoazte ta galtzera.  
Gizon mazteki aski aundiak  
Dire nigandik atera.  
Zerbaitengandik denen Ama naiz!  
Izenen ere! EUSKERA.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1968, iraila, 1. orr.

## AMA MINTZO (II)

1

Egi batzuek adierazi  
Nai nituzke umeri:  
On egitekoasmoarekin  
Mintzo naiz gazte-zarrereri:  
Ama ixilik ezin egon da  
Ikusiz bereak eri:  
Amak eman nai sendotasuna  
Ta osasuna deneri.

2

Urtean beingoz nere eguna  
plantatzen dutenerritan,  
ni maiz nabile biotza ilun  
ta malkoakin begitan,  
aski garbiki ikusten baidut,  
erraten datzet egitan,  
nere ez direnak asma dutela  
egun bakar au sarritan.

3

Nerekin deusik ezdute naiko  
egun ortatik kanpora:  
nere itz batik bakarrik ere  
etzaie eldu agora:  
lau txanpon zikin ateratzeko  
bakarrik naute gogora:  
gezur auserkiekin or dabilz  
“Gora, Amatxo, goi-gora!”

4

Txistu-soñua urte guzien  
inguraturik etsaiez.  
Txistua bere atabalakin  
egun ortan, “Naitanaiez!”  
orregatikan egun ortantxe  
plaza beterik “ezkaiez”.  
Dantzan ez ariz, ezda iakiten  
dantzatzen pausu lasaiez.

5

Zenbait etxetan prest-presta daude  
paxa gorri, espartiñak,  
lengo iauntzi ta buruko zapi,  
egun ortako egiñak.  
Mutillak, euskal antza daukate;  
neskak, ustez, poxpoltiñak.  
Baña deus guti arki dezake  
itzkuntzako azterkiñak.

6

“Neska polita” bakar bakarrik  
erraten daki mutillak:  
“Aitatxo” eta “Amatxo” ditu  
ikasirik neskatiñak.  
Pozik negoke umetxo okin;  
itzkuntzan ditut abillak!  
Tantai sendorik..., nekez otatik!  
ziri aldakor zingillak!

7

Nere eguna maite duenak,  
ni ere maite nazala.  
Umeak beti ari bear du  
bere amatxok bezala.  
Berze gauz oiek nere ustez dire  
naimen eri ta argala;  
arrabots pixka, itxura zerbait,  
barren gabeko azala.

8

Zuk ongi ikesirik daukezu  
ni maitatzeko ioera:  
zure agotik etzazu utzi  
zure lengoen itzkera:  
zurekin ari diren guziek  
egin bezate lan bera:  
lan ortaz danoi, ume maiteok,  
eskerrak beti. EUSKERA

Ibarrondo

Principe de Viana, 1968, urria, 3. orr.

## ARROTZEKIN ERE BAI

Era guzietako iendeak etorriko zaizkigu gure errietara gauden egunean. Nik nerean bezala zuek zeratenean ere alde guzietakoak ikusten dituzute noiznai.

Iende auetatik aunitz bakantzak, atsegiñez atsegin, ahal bezein ongi betetzera datorz.

Bertze aunitz berriz, bakantzetan ere, dezazketen on guziekin beren iakitatea aberastera agertzen zaizkigu, adimen ta oroimen argiz, gure errietan izen ditezken gauz onetan ohartzuz eta denak kontuan artuz.

Alderdi on aunitz ager dezazke erri bakoitzak: alderdi txar bat edo bertze izan dezaken bezala. Alderdi txarra zuzentzera saiatu behar. Bai ta onak zaintzera ta, baldin baditeke, obetzera ere, lan ontan gu iñoiz aspertu gabe, begi erne ta argiekin gure errietako alderdi on oien ikustera datortzen iendeek, berek bezenbat seurik geiago ez bada maite ditugula ikus dezaten.

Kristauak garella diogunez geroz, gure alderdi onetan lehena ta oberena kristau onak izatean daukegu. Ez dezagun on au gorde edo zokoratu, kanpotik datorzkgunek "zer erranen oten duten" orri bildurrez; etzaiote ta arrotz arin xamarrei gure sinismenez axola aundirik; bai ordea gure gauz onetan ohartzera eldu zaizkigunei. Ta, nola nai dela, ez gaude arrotzen mendeerako, gure Iaun ta Iabearen zerbitzurako baizik.

Euskaldunak garella diogunez geroz, ez gaitezen arrotzen artean garen bezalakoak izateaz lotsatu. Kanpotar geienek gure izkuntzari duen balio aundi ori ukatzea, edo bertan ez ohartzera baditeke: ez gara, bada, geienok, alde batera ta bertzera gabiltzenean, ango ta orko izkuntzaren aberatstasunean ohartzten (ez ta garenarenean ere zoritxarrez): au baño atsegiñago zaizkigu munduak gure begi, belarri ta biotzarentzat ain polliki bideratzen dazkigun xoramenak.

Baña, ziur egon: arrotz oien artean, gure izkuntzez xoratuko direnak ere agertuko zaizkigu, zuek eta nik uste baño geiago beharbada. Ez, bada, alketu eskuaraz: ez lotsatu zure amaren agotik ikasitako mintzairaz.

Errietako oitura zahar onak ere billatzen dituzte gauz onen atzetik dabilten kanpotar iakintsuek. Ez ginuzke oitura on oiek galtzera utzi behar.

Era berriek artzea, familien eta errien onerako direnean, on baño ohea da. Oitura zaharrak, len-orai-ta gero ere denentzat on utse dakartenak, iraun bezate, iraun, guretzat protxugarri ta arrotzentzat arrigarri, beti beti gutartean.

Beti ona dakarren oitura, beti gazte zaigu, aspaldikoa izenik ere, aspaldiko zuaitz zitu on emalearen antzeko.

Ta, gure errietan orrelako aspaldiko oitura gazte ta zitu on emale, arrotzen begientzat ager dezazkegu, geren bizimoduen gerok NOR izenezgeroz.

Etor bitez zorionean arrotz aunitz uda aldean gutartera: ta, ikas bezate, zorionean ere, gauz on aunitz gugandik, emengo erriek, eta gu, beren begi-biotzentzat atsegin izanez.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1970, ekaina, 1. orr.

## AURTZARO LUZEA

aurtzaro-urtetan  
aurrak egiñari,  
izena guk eman  
diegu “aurkeri”.  
Aundien amets ta  
nekealdieri,  
“asmakizun, behar,  
izerdi, naikeri”.

Aurrak egiten du  
(arri ta logian)  
ezponda azkarra,  
erreka ttipian.  
Aundiek dakarte,  
ibai ur-aundian,  
argi ta beroa,  
tximist-indarrian.

Aurra asertzen da  
laguntxo batekin:  
ezponda, desegin  
unek, makilekin.  
Aundiok, burrukan  
lurreko onekin,  
berdintsu gabilta  
danok alkarrekin.

Aurrak, beti nai du  
garaile atera:  
ona naiko luke  
bil bere aldera.  
Aundien artean,  
pixka gora-bera,  
negurri berean  
daukagu afera.

Aurren artean au,  
noiznai ikusia:  
bat besten gañetik,  
denen nagusia.  
“Aundiaren mene  
bizi ta ttipia!!”  
azi geranetan,  
gure erausia...

Menekoek zerbait,  
nagusitza-sari,

ematen diote  
aur nagusiari.  
Aunditu geranok,  
Berdin gera ari;  
lotsatiak eman  
lotsagabeari.

Zein-geiakoketan,  
maiz aski ariak  
burrukan, ikusiz  
beltx eta txuriak!  
Aurren gatazka au  
darama aiziak;  
aundien kasailak,  
bai egiz luziak!

Fildazko pilotaz,  
eliza-txokuan...:  
larruzko zauliaz,  
pilota-lekuan...  
Aundietan, berdin  
gerta da munduan,  
menekoa, zolan;  
goikoa, buruan.

Nork “pix” urrunago,  
gure mutikoak:  
arresi gañetik  
doaz ur beroak.  
Illargin lenago  
nor, “politikoak”,  
estutuz, ta ongi,  
zenbaitzun gogoak.

Aurrentzat merke da  
ur botatze ori,  
ez datorkio-ta  
xaupenik iñori.  
Illargiratzeak,  
zenbat urre ori  
xautzen ote digun  
munduko orori.

Aurrak autatzen du  
gogoan duena,  
bertzentzat utziaz  
lanarik zallena.  
Aundiak beretzat

nai luke omena,  
neke-izerdia  
izanik bertzena.

Iakin-nai aundiak  
dituzte aurtxoak,  
ernerik belarri  
eta begitxoak.  
Aundiok, ustean  
gu Salomontxoak,  
itsirik begi ta  
belarri xuloak.

Gizonak daraman  
aurtzaro luzea,

noizean daukegu  
aurkeriz betea:  
iaio giñanean,  
izan zun astea;  
eriotz-orduan,  
bere akitzea.

Irakurle maite;  
ez artu gaizkian:  
ez naiz zutaz ari;  
nitaz bai agian.  
Zetabean sar, ta  
ibil-ibilian,  
ikus nor gelditzen  
goi eta azpian.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, ekaina, 3. orr.



## BARATZERAKO BIDEAN

Bidelariak, bide kurri doanean seurik, nekea berekin du.

Bidean zoan bidelaria; baratzerako bidean; ez naski ahin bide zabal eta errazan.

Oztopoak garaitu egin behar: ezker-eskuin, apo-saltorik gabe, ongi non eman zangoak ohartzuz: kontuak obekienik aintzinetik ateraz.

Zoaz nalanahi, zoaz; erdi lo! Debruz-egin batzuk zure mainguetara erne daude, nahiz ez zaituten makurretik zuzenera etortzen lagunduko.

Aurreraka ibiltzeak, aitzina iarraitzeak, iraupena eskatzen du. Iraupena, bai; oinkada bakoitza aldiero negurrian emateko; arkaitza, lur gertua, arki dezaten zangoek; utsegin ez dezan anka baoitzaren ioerak.

Zer bide artu ordea? Nori iarraiki?

Bat baiño bide ta gidari geiago dabiltz eta emen.

Elkarrekin ados ez doazin bide-erakusleak nonnahi arkitzen ditu batek.

Erakusle batzuk, bide-ertz estuak nahi dituzte: bertze batzuk ez ainbertze.

Arriz geiegi ornitako kaltzada ez dela ongi dio hunek. Arri eskasizkoa kaltegarri ikusten du harek.

Arri bakoitza non sartu eta kokatu behar den ere, ez dute denek era berean ikusten.

Bizkitartean, kezkatik kezgara, gorgoinetan, bidelaria; ez badu, an-eman diren gidari on oietatik, bakarren bat arkitzeko zorion aundi ori izen, doanean.

Baratzerako bidean doana, zitu ona bereganatzera eraman behar luke bideak. Ango zugaitzak eta zugaitzen zaintzaleak onak izenezgeroz. Untan ere, batek ez daki zer erran ta zer pentsa.

Baratze-zain batzuk su ta gar dabiltz zugaitzen abar iñarrak berpiztuazi nahiean. Bertze batzuk, zugaitzen zaiñak bakantzen.

Nahiz badiren, Iaunari esker, zugaitz osoaren bizitz osoari ta bidelariaren neke ta asmo onari maiteki begirutzen dietenak.

Iabeak, (hau bai egia dela) garbi erakutsi du nola zaindu baratza, nola indartu zugaitzak, nola emanazi zitu goxo, mamitsu eta onak. Nausiak erakutsi du ere zer ta nolako bidea den baratzeratzeko oberena.

Bide hortako ta baratzeko lanari buru-emanen dioten batzuk ere autatzen ditu: lanaren berri ongi dakien nausi zintzoa da ta bera.

Aski garbi mintzo dire (hau ere bai egia dela) buru-emaleak; aski ongi adierazten dute zer on zaion ta zer ez bideari, zer kalte zaion ta zer ez baratze ederrari: aski zuzen erakusten dute zugaitz bakoitza nola moldatu; zitu-bilatzalea nondik eta nola ekarrazi.

Baiña, hoken menea dauden langiletatik, batzuk abar iñarrak berpiztu behar direla, ta bertze batzuk zugaitzei zainak bakantzea on zaiela ari dire io ta ke. Bidelariari bidea erakutsi orde, bideko arriak bidetik amelka hok, bidera amelka hek, iraultzen ariz bide-erakusleak.

Batzuk erran dut, batzuk.

Hoken eskutan eroritako bidelari gaixoa!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1972, maiatza, 2. orr.

## BAT ALA BI

Norbaitek erran zidan ainzin ortan:

Berriak iakite atsegin zaioken baten lantegitxoan sartu ninduken lengoan. Eskulana harek; izketaldia biok, pozik ere.

Hontan ari gindukela, aldizkari bat eta bi eskutitz uzten zizkiok hortarako denak mahi gañean langileari.

Idazle batek aldizkarian bere lankide bateri iarritako "egi" batzuk biontzat irakurtzen abiatzen nauk. Eta entzulea, bere eskulana utzi gabe, tarteka-tarteka, nik noizbehinka arnas luze bat artzeko edo, zarrazteko otsak botatzen asten duk:

"Bekaizkeriak meneratu duena amorrazioak itotzen du; bere azazkalak ian nahiean; berzeei ausikika; atsedean pixka bat artzeko astirik gabe; leher ta zapart...

Arrokeriak ere, onik ez du iñon ikusten, bere egiteetan ez bada seurik: hok ongi eginak dituelakoan dago, bai.

Ezerezak eta deusezak bertzeen ongiegiñak: hortaz ez ditu aipatzen. Kaltegarri ta ezin estalitakoak berriz urkoaren uts ttipienak; hortaz barreatzen ditu nunnahi...

Bere antzeko ta negurrikoak, ala ez izan arren, etsaitzat dauzka bekaiztiak...

Beña baño gorago dituenak ikuste utsak dardar egiazten dio bihotz barrenean: ta horrekin amorrazio aundiagoan bizitzea bereganatzen ari dala ez da konturatzen...

Zakurra erbi-eizian bezala, bekaiztia lendeen uts-eizian dabil...

Berak daraman ogibide ta irabazpide berdinatik doazinak zaizkio gaizkienik dabiltzanak: begiratze xorrotxak, iuzko gaistoena, itz mingarrienak hokentzat ditu...

Arroak ere, baditu, bai, bereak! Betebeharrak, berzeentzat: eskubideak, beretzat...

Eztabaida zerbait laguneren artean sortzen bada, "bakotzari berea!" da, zizelakin kopetan idatzia balu bezala, berehala ahora datorkion behin-betiko erabakia...

Iñork ez du berak baño urrats bat aurrerago eman behar: iñor ez diteke atzerago geldi. Aurreratu dena, ausart, kopetadun, sarkor bat da: horrelakoak, bazterrak nahasi besterik ez! Atzeraturik badilena, alfer, bildurti, ttittiko bat baizik ez delakoz, eragozpen ta kakol bat da...

Berzeen ibilerari ta egiteeri begira egonez, on den ezer guti egiten dute arroak eta bekaiztiak. Onean iarraitzeko gogoa ere kentzen diete beren mingain gaistoekin lagun urkoeri...

Lanak, orrela, atzera doaz: ona ahultzen da: gaitza nausitzen: xehar-porrokatzen batasuna...

Gutartean gaur arrokeria ta bekaizkeria indartzen doaz. Gure akats aundientatik bat dugu hau...

Aitzeki gutti aski dugu alkarri aztapar egiteko: gure gogokoa ez zaigunaren izen ona aragi bizitan uzteko..."

Zerrenda osoa (la luzea!) irakurri ta ixildu nindukenean, berzearen "argipenak" ere itzali itukan.

Arritzeko gauza! Aurreko zenbakietatik batean agertutako zerrenda baten egilea, idazlea, aipatzen ziken oraikoak ta beretzat botatzen zitiken "egiak".

Eta ikusak: era berean ta lantoki berean irakurri nian orduko zerrenda ere, zarraztako ber-berak ago berberatik entzunez. Bere eskulana utzi gabe, iakiña!

Ez duk errex, ez, zenbaitzun gogokoa izatea, ez duk errex! Beren eskulana bakarrik zeok nonbait ongi...

Ibarrondo

Principe de Viana, 1972, urtarrila, 6. orr.

## BELENGO BIDEXKA TA KARRIKETAN, NOR?

Non bil ezin arkituz dabiltzanak. Gauaren beltzak ta bateri datorkiona gau ortan gertatuko zaiolako kezka eta arrixkuak, zenbat arat-unat eginazten dituen urrikaltasun pixka baten bila, azkenean estalpe xahar batean biltze utsa gertatuko bazaio ere! Bera bakarrik balitz, nonbaitor: bereak ere or ditu atzetik, atsedean apur baten eskean.

Beteta daudenak. "Berandu zabilzate, gaxuak" Lagundu nairik ere, ezin lagundu guk: etxea, betea: etxe ondoko aterbea ere, betea: azkenik etorri denari ezetza ematea zail zaigu, bai: baña, aski errateko ordua etorri zaigu: barkatu! barkatu!". Ordu au "aski" unekin, non erori ere ez dauketenentzat beharra zen nonbait...

Izen-Abizen artzaleak, Eskribak. Erromako agindua betetzeko, an daude leku autan. Arat doaz, Belenen egun oietan ortara, beren izen-abizenak ematera, bildu diran guziak. Gaur izen aundikoak diranak, idazlarientzat ere ezagunak dira ziurki; ta nonnai bezala an ere arpegi ariñakin artuak. Lengo izen aundia ttipituz ioan zaienak, ez ditu iñork ezagutzen gaur, Errege-odoletik datozenak badire ere.

Estalpe xaharraren ingurukoak. Ez dugu zalantzarik izaten ahal: toki guzietan gertatzen dana, gertatzen da Belenen ere. Behartsua, behartsuaren laguntz estualdian. An doaz biotz bete maitasunakin, nai eskuak erdi-uts, zerekin bete ez daukatelakotz. Zer poza estalpe xaharrean, antzekoen maitasun betea ikusiz!

Aurtxoaren negarra gau erdian. Beharrezko negarra gau artan. Beharrezkoa, lurreko ontasunetatik utsik arkitzen direnen artean. Beharrezkoa, lurreko negarrari bere balioa itzultzera datorren Aurtxo artan. Ainbertze guratso behartsu ta ainbertze aur negartsuzko zenbat Belen ez dago mundu zabal untan!

Axolagabeak. Deus guttiko gauza okentzat arrotz batzuk erriratzea ta arrotzen aurtxo batek erri bazterrean leenengo negarra egitea, non ta etzaien bereei, arrotzen onetan, zerbait ematea edo egitea eskatzen. Eskatzen bazaie ahatik, erantzun murriz eta zorrotza prest daukate laguntzaren ordez.

Deiari erantzun ona emaleak. Batean aingeruak, bertzean izarrak, ala gertakizun batek (ez zaio axolik uni), dei egiten du gizonaren buru-biotzean. Artzaiek ongi zakiten au: Aztiek ere, Magoek ere, bai. Eta ederki erantzun dute, borondaterik oberenean, eskura daukatenakin behartsuak lagunduz; eta apaltasunakin gertaeraren Iaun eta Iaungoikoa ta Bere lana ta naia garbi ikusiz, biotz onakin onartuz ta gurtuz.

Lanakin ianbidea emaleak. Ama-Semeak irautekotan, aitag lan saritsua behar, nai ta naiez: ez daude eskerako. Erriko batzuk aski ongi dakite au, egun gutti aski izan dituzte estalpe xaharrekoak ezagutzeko: ta gizonari lana ematera doaz, nekearen ordeko saria eskeñiz. Ez da alferra gizona: ez da nagia emaztea: ez da ere gaitseza lana etxetxo artan. Senar-emazte gazteak badoaz eskatzen zaien lana ongi eginez eta ongi eginaren saritxoakin eguneroko lana ta bizitzarako beharrezko diren gañerakoak etxeratuz.

Arrixkutik ateratzen laguntzalea. Bai. Arrixkuan zegon Aurtxoaren bizia. Eta au zakienak, maiteki biali zuan famili artara gabazko albistea. Ez dago etsaiaren saretan erortzen uzterik. Ez dago ere, abisua kaltegarritzat artu ta goatzean lotan iarraitzerik.

Bertze aunitz eta aunitz dabilz ere Belengo bidexka eta karriketan. Ikusteko gogoia daukanak, ikus bitza.

Eguberri on danontzat!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1971, azaroa-abendua, 1. orr.

## BIZI

Negutik atera bezin laister lanera doa erlea: ez da aspertuko, nekeak porrokatuko badu ere. Kofoinera, lanerakoan arin, etxerakoan pisu; aruntz ona billatzeko ta onuntz ona erakartzeko asmoakin.

Lorez lore erletxo  
goiztik arratsera dabil;  
arat-onat, neke ta lan,  
onak biltzen, erne, abil;  
ankak eztigaiatz bete;  
mami goxoz bera iabil;  
or ari da, langilea,  
behar duna bil etal!

Bi txori dabiltz, lehenik kabi egiteko toki egoki bat autatzen; gero, umeetan amestuz, ohandze goxo ta guri ori maiteki egiten. Abarrak nonnai arkitzen al dituzte; baña zoazi nondik dakarzten ganerako gurigarri ta berokiak! Akitzeraño iarraitzen dute biok lan ortan, aspertu gabe.

Bi txoriak, bat eginik,  
aritu dira lanean,  
umeentzat kabitxo bat  
egin nairik oianean;  
ain egoki datorkien  
ostoaren kerizpean  
ardi-ile, ume guri,  
abar batzuen gañean.

Gari landareak negua garaitu du ta buru aberats bat dakar udarako. Artoa lurpetik sendo dator, ta giroak lagunduz, iaun bizertsu ta urrezko ontasundun agertuko zaigu udazken aldera, agar, udare, aran... neguan utsik, baña beteak orain.

Gari, arto, zuaitz, aspertu gabe lanean, lanordua datorkianean.

Gari landare me oiek  
lore ugari buruan;  
arto beltz eta azkarrak  
bizer ta pikor barruan.  
Sagar, udare, aranak...  
ezin idukiz larruan,  
daude or zitu ugari  
erakartzeko asmuan.

Soroarentzat kalte dalako lizar orrek ere ostu goxoa dakar, ardientzat ianari. Neguan ain arantz zorrotzeko larra, udaberrian bidelariekin baketu dela dirudi, ziapoteak gordea bada ere. Ta ilbeltz-otsailan ain itsu ta zulotsu agertzen zitzaigun oiana, leun-leun ta apain-apain ikus dezakegu maiatzean. Dana berritzen, apaintzen, gaztetzen, aspertu gabe.

Neguaren belztasuna  
kendu du udaberriak;

atzo ilik ginauzkenak  
dauzkagu gaur ain biziak;  
biluxik zauden astion  
orain apainki iauntziak;  
zer aldaketa atzotik  
gaurrera baso-mendiak!

Bizi den guzia, lanean udaberriakin, Ila bakarrik gelditzen da biluxik, ezer eman gabe  
ta ezer artu gabe; inguruan gertatzen denaz ajolik gabe.

Maiatzaren azken ontan,  
gaur bizien gaztetzean,  
asmo berri ta sendoa  
ar dezagun biotzean:  
Oiturak eta izkuntza  
gaztetzea gure etxean,  
EUSKERA BETI IBILIZ,  
POZIK ERE, GUTARTEAN.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1970, maiatza, 1. orr.

## DEUS GUTXI

Plast-plast-plast, soñu bakan iluna ganbaran.

"Deus gutxi!" Zer kalte ur tanta pizer oketatik nere etxe aundi ta azkar oni?"

Euria iausti ahala ari duanean ez omen da tellatura zentzu dunik igotzen. Samurtzen noski tellak ta oinpean errazki puskatzen. Gain-behera irristaldi batean erortzeko arrixkuari ere begiratzen zaio olakotan.

Ongi atertu artean, ontzi batzutera biltzen da, ahal bada, itatxuretako ura ondatzerik etxeari ekarri ez dezaion. Ontzia billatzea nagitasunari zail zaionean, "deus gutxi; zer kalte...", erran ta kitto. Atertuz geroz berriz, nor oroitu tellatuko txulotxotaz?

Egia: bein baño geiagotan emazteak ta alabek zeruleunean agertu diren belztasun borobiltsu aietan oharrazi dute etxeko iauna. Konpontzalea etorriazteko ori ordea, beti biarko. "Deus gutxi" baida ur tanta bat; "deus gutxi" ta txuritzeko errazak goi-leuneko belztasun borobiltsu pixka oriek.

Eurite aundi batean, azken "deus gutxi" errateakin batera lotara doa senarra. Emaztea ta alabak berriz, ontziak batera ta ontziak bertzera, zetozen ur guziak ezin bilduz.

Ontzira ez zoan itatxura batek, ain zuzen, nagusiaren goatzeko burukiaren parean zeukan, plastaka eroriz, bere atsedeen lekua.

Iakiña: oholean putxukela aundituz eta edatuz, azkenean sorailu arteketatik ura belarri zulora iausten abiatu zitzaion goiz-aldera. Ta, "deus gutxi" ziona bezperan, ur zartakoarekin iratzarri zan biaramun goizean. "Deus gutxiak deus gutxiakin" elkartuz geroz zerbait badezaketelakoan ohartu zan orduan, berantegi ahatik.

Ezdala-badala, baiote-ezote, iñoiz erabaki on bat artu gabe, "deus gutxiak" nai duena egitera uzteak belarrindoko franko, ta zinez samiñak, dakarzutartera.

"Noizean bein panparrotzea, deus gutxi da" erranez artu zuten arno-oitura len, gaur nolana ta noiznai mozkor ikusten ditugun amikek.

"Egun batez edo bertzez Iainkoaz ez oroitzea, "deus gutxi da"tik asi leike sinismenean lenik epeltzea ta azkenik oztea, "deus gutxi" orrek bertze "deus gutxi" batzuekin elkartzen iarrai dezakelakoz kristauaren biotzean, erraztasun kaltegarriko bide zabala, gainbeherakoa, artuz.

"Lau itz erderaz etxean egitea, deus gutxi da" unek etxetik euskera arrunt botatzea berekin dakar, itatxur ttipi arek belarrarian ioz gizona goatzetik bota zuen bezala, baldin ta baldin ez badituzte etxeko euskeraren alde beharrezko diran erabakiak etxekoek berek lenbaitlen artzen.

Ez beñere panparrotze utsean iarririk daukadala nik baten nortasuna? Ez uste, ez. Alderdi aunitz ditu nortasunak.

Iainkoaz egunero oroitze soil soilan jarririk nik kristautasuna? Zaude pitta bat! Iainkoaz oroitzeaz landara, egin-behar zail franko eskatzen dazkit kristautasunak: ta afera ontan garaile ateratzeko laguntza eske, norat nik lehenik io gaur ta beti?

Etxekoen erdera etxean ixilaztean daukadala nik euskaltasuna? Euskera iakiteak ta mintzatzeak ematen dion erraztasunakin bertze izkuntzak, ahalik geienak, dazkiena da euskaldun jatorrenetatik bat neretzat.

"Deus gutxi" batean goxoki lo gaudela, aldika ta bai aunitzetan ere datorkigunaz, letorkigunaz, mintzo naiz.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1971, uztaila-abuztua, 6. orr.

## DEZAKEGUN NEGURRIAN

Iñor ezdugu gure oinkada edo pausu berean ibilarazten ahal. Bere urratsetan utzi behar bakoitza. Iñork ez dezake, bada, unen ta aren anken ezberdin ori berdindu.

Bere erruz kirrikildu danari, edo bere zango-zurrumak nahi duten aldera iokatzen utzi dituanari, maingueria garaitzen eta zurrumak zuzentzen laguntzea gauz ederra litzaioke artarakoa danari, non ta sendatu beharra ezduen negurriko ibileratik ateratzera behartzen.

Anken luzerak eta ibiltzeko zailtasun edo erraztasunak ematen dioten negurrian ibil bedi bakoitza.

Soldaugo egunetan, ta batezere asmentako zallenetan, naiko neke eramaten dituzte zenbait mutil gaztek, bertzeen negurrian ibili nahi ta ezin orrekin.

Izpiritu edo arimek ere, gorputzek bezala, beren ibilera edo gisa daukate: Iaungoikoak bakoitzari bere negurrian emanekoa.

Iaungoikoak eman dion eran edo gisan izpirituzko argi ori dabilkienak, oinkada zuzenak ematen ditu: ongi dabil, Iaungoikoak iarri duen bide ortan dezaken guzia egiñaz. Behar baño gutiagorik ezdu ematen: dezaken baño geiagorik etzaio eskatzen ahal.

Bere erruz, oitura txarrez, zitalkeriz, alferkeriz, izpiritu aldetik maingu dana maingueri ortatik sendatzen laguntzea, gauz ederra da; baño, eri ori bere izpirituko albidearen negurrietatik ateratzera bulkatu ta behartu gabe; Iaungoikoak eman dizkio-ta negurri oiek.

Ezin badugu ñor gure onkadaren negurri berean ibiltzera behartzen ahal; gure zangoen negurriko oñetakoak iauntztera, aisa gutiago oraindik.

Izpirituaren gauzetan, berdin. Izpiritu bakoitzak, bere negurrian ibili behar du; ez bertzeen kasketaldienean, Iaungoikoak eman dion ta beretzat bakarrik egoki zaion argi berezi ori. Izpiritu bakoitzak iarrai beza bizitzako bidean, Iaungoikoak emaneko argia, beti ta ahal bezein gartsu, berekin eramanez.

Danok, elkar bidean laguntzeko gaude, bai. Ortarako gabiltz munduan: onean elkar laguntzeko: bakoitzak dezakegun pixkan alkarri bizitzako bidean argitzeko. Baña au, gure usteari bertzeak lotu gabe, “uste” ori guretzat gauzik “ziurrena” bazaigu ere. (Sinismenekoetan, ziurtasuna: Iaungoikoari ta Elizari esker).

Izkuntz-bidean ere, -ta ontara noa ain zuzen-, ala behar genuke danok. Ez batek bere izkerara edo bere solas gisara bertze guziak ekarri naiaz, ez. Baizik eta bakoitzak bere izkeraren onakin bertzeak izkuntz-bidean ta bizi-bidean ere argituz, aberastuz. Ta bata bertzearen argiaz ahal bezein ongi baliatuz. Ta gure izkeran sendatu beharrezkoak ditugun maingueriak danon artena polliki-polliki sendatuz.

Alkarrekin kasaillan ta matrakan ibiltzeak, on baño kalte gehiago dakar gutartera.

Izkuntz-bidean danak batasunera bat-batean bortxatzea, gaurkoan ezin erdietsitako amets bat da naski. Nire iduriz, alo!

Bakoitzaren ioerak, erro luzeak ta zaharrak ditu gu bakoitz oken barrenetan.

Illak goiko pakean utziz, bizen artean bat edo bertze aipatzeko, Abeletxe ta Basarri ezin berdineratuak ditugu.

Xalbador ta Mattin, kaiol bereko ezin. Zeruko Argian idazle, lenbiziko biak; erriz erri bertsolari dabilzanak, bertze biak.

Lau izen okin dabilzan izpirituak, ta emen aipatzen ez ditudan izenekin idatziz edo kantatuz izkuntz-lanean ari diran gañerakoak, bakoitza bere ioerakin, bere oiturekin, bere iduripenekin; naiz danak euskaldun; ta au, ori, ura ta bertzeak euskeraren edergarri ta pollit-tasun baten edo bien edo baita aunitzen iabe.



Ioera, oitura, iduripen ezberdiñak izan arren, alkarrekin konpontzera saiatu behar izpirituak; alkarri arrika ariz, alkarren kopetak zulatuta, danok ilik gelditu nahi ezbadugu seurik.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, maiatza, 1. orr.

## ELIZAREN ITZA

Mezua nola, entzutea ala

Otsail samin bat zan. Mendi ta zelai, txuri-txuri; elurrekin estalirik. Danok, aski estu: ta artzañak, larri-larri; bildotsak elduki, ardiek indar-bear, belar izpirik ere ez ikusten iñon. Ipar aize otza egunez: goian izarrak dirdir gauaz, eguneko orma biaramonekoak aundituz.

Egunoro bere agerraldixka egiten zakun eguzkiak, argiak pixka bat saetska ta urrundik bidaliz, berotasun guti ta itzal luzeakin.

Otzak ez il naiean, larre-beor ta pottokak, iabeen lokarrietaratzen ziren, ta ez ain bortxaka ere, epeldegian sartzeko.

Beiak, orro; astoek, irrintzi; ardiek, ianba; txerrien, kurrink. Alde guzietatik eskea. Soñu mingarri arekin, naiko dantza iabe gizajoek!

Otz latz ta bortitz aren luzearen luzez asperturik, ta bere eliztar maite nekazari ta artzain prestu aietaz urrikalduta, erretor iaunak igandeko Mezan, Aitagurea astean, erraten dabe: “Danok batean, Jesukristok Berak erakutsitako otoitz eder au, gure aberen orro-irrintzi-ianbata kurrinkakin batu dezagun, zin-zinez zeruko Aitari bialtzeko, gutaz ta guretaz urrikaldu dedin, ta aize ego gozo batekin orma ta elurrak urrundu ditzan”.

Denen gogoak erretor iaunarenakin elkartu ziran, ta orduan arte iñoiz entzun etzen indarreko Aitagurea igo zan kristau eken biotzetik, zuzen-zuzen, indartsu-indartsu, sinismendun-sinismendun, zeruraño, Iaungoikoaren urrikaltasun ta indar negurrigabeen beren uste osoa iarriz.

“Iaungoikoari eskerrak!” zioten denek. Aitagurearen indarrez, edo ala bear-ta, atsalde erdiko, bar-bar-bar egoa: itaixurak nonai: erreketan beiti ura ausarki: gero ta berratuago araukia. Biaramuneko, belai ta larre, garbi aberentzat: xixtu ta kantu eder, gizonen agotatik.

Esker ona makurtzea, zenbait aldiz erraz izaten da. Emen ere makurtu zan, eletsu batzuen erruz! “Gure erretor iauna zein na dan! Aunitz badezake! Emengo otzak ta kezak nola aizketu ikustea aski!”. Eta erretor iaunaren ontasuna ta albidea agoz-ago zabalduz eta beren uste guzia ortan finkatuz, ondoko igandetik bertatik, Jesukristorenakin batean apezaren Aitagurea bakar-bakarrik, erdi lotsatua bezela, parroko aldaretik zerura!

Urteak bere itzulia eman bezala, kopeta idor ta atzapparretan zigor agertzen zaigu berriz ere otsail koxkorra.

Orma ta elurra: berriz ere orma ta elurra, ipar aize zorrotzakin: ta luze! Lengoan bezenbat!

“Aitagure indartsu ura, noizko ote dauke gure erretor iaunak?”, zioten denek.

Aski etsitu zutenean, Aitagurearen billa doaz apezarengana. Ta elizako leio barnetik geienxkoenek ikusteko negurrian, aga luze baten goi-goian, oial txuri aundi bat iarri zuten, apezak otoitza erran bezein laster egoak balantzaten ote zuen ikusteko.

Erretor iaunak Jesukristoren batean erran zuen, bai, otoitza. Baña, gorputzez Jesukristoren ta apezaren inguru zaudenak, gogoz ta biotzez aga luzearen oial zurian zauden. Ta alako zama iasan bearrakin, oiala ibili ezin...

Zeruko Aitak lenbiziko mezua bereala entzun zuen noski, Jesukristok, apezak ta kristauek, denak bat eginik, zuzen bidali zutelako zerura. Bigarreanean berriz, etzagon batasunik: zuzen bialtzetik ere ez: non daukagun egizko indarduna oharterik ere ez.

Guk nai duguna Iaungoikoak nai duenarekin batera iarri bear dugulakoa ere or dabil nonbait, kexadura ta larritasunakin geren buruak ta bertzenak ez ondaporrokatzeko. Bera da iabe: Aren nerabe, gu.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, martxoa, 2. orr.

## ERIOZARA DARAMAGU ASPALDIKO BIZIA?...

Gure Erria aspaldikoa dala, aspaldikoenetatik, diote iakintsuek.  
Gure dantzak ere aspaldikoak ditugula entzuten dugu noiznai.  
Gure izkuntza, mintzaira-lanetan dakitenek diotenez, aspaldikoenetatik omen dugu.  
Iakintsuek erratea ezda aski: guk, gerok, siñetsi behar, gauzak ongi ibiltzekotan.

Egiz siñesten dugulako agertzen ote ditugu iauntzi xahar itxurako soñekoekin,  
aspaldiko gure dantzetara, gutarteko gazte taldeak?

Egiz siñesten dugulako, eta (xaharren-xaharrez) agotan ibiliz suntsitu ezdedin  
txokoratzen ote dugu aspaldiko gure izkuntza? Kutxean sartu ta ongi zaindu, purruskatu  
ezdedin?

Aspaldiko Erriek, gazte bizi behar dute, gaurko ona onartuz zaharrieriak io gabe  
irauteko.

Aspaldiko dantzak, aldian aldiko iauntzi edo soñekoekin (gaur, oraikoekin) ibili behar  
du, ibili, soro ta zelaietan, errietako iostaleketan, guk egiz gurea dugula, dantzan ariz  
agertzekotz.

Aspaldiko izkuntzak, zauli ta arin, agoz ago, danon artean behar du, guk ez daukagula  
saltzeko ta maiteki bizik dabilkigula, ziñez ta egiz nornairi bildurrik gabe adieraztekotan.

Aspaldikoa dugun gure Erriak, beti gazte behar luke, egunean eguneko on zaizkion  
berritzeak bereganatuz. (Bere gauz xaharrak ahantztera utzi gabe, bai, oroigarriak  
izanezgeroz; baña, kaikua oporrari ta zimitzari bezala gu lengoari bakarrik iosirik egon gabe).

Aspaldikoa dugun Erriaren aspaldiko izkuntza, beti gazte bizi bedi gubaitan, bere ots  
bai oxen bai ezti ori gure etxe, eliz, lantegi, iostaleku, bide, ostatu, zelai ta menditan guztion  
agotatik garbi ateraz, ta guztiok ontasun oberenetatik bat bezala, guretzat eta gure  
ondokoentzat zainduz, apainduz, aberastuz, edertuz, indartuz, zabalduz.

Amaren soñeko xaharrekin noizean beinka karrikara agertu, ta Ama iltzera uztea,  
Iñauterik lotsagarriena!!!

Gure izkuntza maite duela dakigunakin bakarrik izkuntz ontan mintzatuz, eta bertze  
guziekin emengoak ez bagiña bezala ariz, nekez eginen diogu onik gure guratsoengandik  
artutako izkuntz urrikgarri oni!!

Gure dantzak obekienik dantzatzen dituztenei noizean beinka sari batzuk emanez  
bakarrik, sari oiek gutarrek gora dezazkete beharbada; baña, gure etxeok, gure erriok,  
ez!!

Gure Erria, gure oiturak, gure izkuntza, aspaldikoak izanik ere, oraikoak izan bitez;  
betikoak; zahartzera, ezintzera, iltzera gure erruz utzi gabe.

Sortzez, aspaldikoak; izatez eta bizitzaz, oraikoak; irautez, betikoak. Xahartzera utzi,  
iñoiz sekulan!!!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, ekaina, 1. orr.

## EUSKERA, BETI AUR?

Aurrekin nola moldatzen geran badakigu. Ekenean guti sartuz; alkarrekin ibil ditezela utziz; etaz ardura daukagula, eken pozarako, noizean bein berei agertuz.

Urtean egun bat ematen diegu osoa aurrei; "Egun ttun ttun eguna" gure errian: egun ortan goizetik arratserako guzia, aurrentzat.

Erriko bestetan, an edo or, aurrentzat on dan zerbait-zerbait antolatzen dute, deus gutti, umen goxagarri bezala.

Aurrek ez dute itzik ateratzen al aundien bilguretari.

Beren etxetan bertan ere, aurrentzat, zer? Etxeko ez dan norbaitek, datorrenean, aurzalea bada, goxo zaien zerbait ekarriko dabe, itz ezti ta maitetsuekin emanez: ikusaria artu, ta andik baztertu beharrean dire aurtxoak, bidaliak izatea ez badute naiago.

Aurra entzuna izatea, baditeke: baña, ongi erantzuna, guttitan. Geienean, ez entzuna: geientsuetan, ez erantzuna ere.

Ez lukela ola behar? Badakit: baña gutartean ola dela ere ezin uka. Au egin ziguten gure aurzaroan: au egiten diegu geren aurrei. Len ta orai, kaiero aurrak.

Euskerakin nola moldatzen geran, badakigu: edo ez dakigu: ohar gaituz.

Gutti sartzen gera euskerari: bertzen agotan ibil dedila uzten degu, beraz arduratzen gerala, bere pozarako edo, noizean bein agertuz.

Urtean egun bat ematen diegu osoa Euskerari, egun orri izen pollit batekin bataioa emanez.

Egun ortan, goizetik arratserako guzia (itz egitea ere bai ote?) euskerarentzat.

Erriko bestetan, an edo or, euskerarentzat zerbait-zerbait antolatzen dugu, deus gutti, euskeraren goxagarri bezala.

Euskerak ezdu itzik ateratzen al garrantzi edo funts aundiko bilguretari.

Geren etxetan bertan ere, euskerarentzat deus gutti. Etxeko ez den norbait datorkigunean, euskalzalea bada (au eder zaigulako), euskerari goxo zaion zerbait ekarriko du, euskeraz itz ezti xamur zerbait erranez: ori artu, ta baztertu behar du euskerak, bidalia izatea ezbadu nai.

Euskera entzuna izatea gutartean, baditeke: baña, erantzuna, guttitan. Geienean, ez entzuna: nonbat-nonbait debekatua: erantzuna, Iainkoak daki non.

Ez lukela ola behar? Badakit. Baña, gutartean ola dala ere, ezin uka! Au egin zioten lengo batzuk euskerari: au egiten diegu oraiko geiagok. len ta orai, kaiero, euskera!

**Euskera, beti aur? Gu nor baginezke, ez uke ola behar!**

Ibarrondo

Principe de Viana, 1970, martxoa, 1. orr.

## EZ AIN ONGI

Martxoaren asmentako egun batez erradioa entzuten ari nintzela, bere izena aunitzen agotan dabilen euskaldun baten emaztearen itz batzuk entzun nituen.

Galde ta galde ari zitzaion norbait. Eranzun ta eranzun emakumea; al zuen eran.

Al zuen eran, bai: etzizkion, bada, galderak bere itzkuntzan egiten, naiz galdegileak azken agurra euskeraz eman.

Erruren bat balitz solasaldi artan, norena zen nik ezdakit. Azken itzetan agertu zuen bezala, galdera egilea euskalduna bazen, erderaz baño egokiago ziren euskeraz euskal-etxe bateko sukaldean euskaldunen arteko solasak.

Itzal, begirun ta ohore merexi du iendeak. Itzal, begirun ta ohore merexi du bere izkuntzak.

Aje ta akatz au daukagu gutartean. Gurea errax bazterreratzen dugu, bertzena berehala onartuz; gurea deus ezbalitz bezala; bertzena beti artzera beharturik gaudelakoan.

Makurragokoa oraindik. Gerok, gerenei, gurea ez den izkuntzan solas eginazten diegu; ta uts egiten dutenean poz artzen dugu, eken sakeskeriak gogoan ongi artuz, ta al badugu, norbaitzukin irriz asetzeko, an ta or barreatuz, gaizki itz egin duenaren lotsarako.

Kalte aundia dator untik, dudik gabe.

Berea ez den izkuntzan aritzera behartzeakin, lotsabidean iartzen dugu bat.

Eta au bein ta berriz egiñaz, bere eziakiña ta izkuntza madarikatzera bulkatuta uzten dugu edozein.

Untik dator gero, erderaz lau itz iakinezgeroz, gureak, erderaz badakitelata, erderan plantatzea, euskera noiznai aldebat utziz, sakeskeriak sakeskerien atzetik botako badituzte ere.

Gure artean dauzkagun ontasunen berri dakigunok edo iakin behar ginukienok, ontasun bakoitxari bere balioa ematen bagenioke, ta gure inguru ditugunei balio au ikustarazten bagenieke, bertzerik izanen litezke euskeraren indar ta iraupena.

Gure iendeak Iruñara, Donostira edo bertze erri aundietara, medikuz, abogaduz, apeztez naiz bertze iaun batzuz behartuta ioaten diranean, zer poza ekena billatzen dituzten oietatik norbai euskeraz dakiena ta izkuntz ortan xalotasun osoan mintzatzen zaiena arkitzen dutenean!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1970, apirila, 7. orr.

## EZ ASKI NABIL NI

Nik adiskide nintuenak  
lan errazetan,  
lan errazetan,  
zuzen iokatzen ziren danak.  
Begi oneko lagunakin,  
keneratuz,  
aiekin batuz,  
nintuzke gauzak ongi iakin.

Ekeneratuz nik gogoia,  
nere itzetan,  
nere lanetan,  
nuke begi-on os-osoia.  
Aiekin batuz nire lana,  
aien txaloak  
ta itz goxoak  
etor litezke neregarana.

Baña ez naben amor eman;  
ergel izena,  
kaxkarrarena,  
orain beharko nik eraman.  
Lanetan ez naiz arrigarri:  
makur batean,  
gaizki bertzean,

denetan beti irringarri.

Egun guziko ibillerak  
bakardadean,  
laguntartean,  
ornitu dazkit irri berak.  
Eginkizuna dedanean,  
nondik asiko  
ta iarraikiko  
milla istillu barrenean.

Eginbeharra akitzean  
danak parretan  
(edo garretan?...),  
ni, lotsaturik, an, gordean.  
Nere lagunen lan ederra!  
Dena, zuzenki,  
Oso ederki;  
Ez da, ez, ura lan alferra!

Nere ioeraz irriz nabil;  
nere lanetan,  
ibilleretan,  
ez naizelako aski abil.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, uztaila-abuztua, 3. orr.

## EZ DAKIT BAI..

Agiñeko miñetan, ateratzeko kontuak; miñek uzten zutenean, ateratzerik aipatzen ere! Adiskide batek erraten dio: “Uaie sendagilearengana, gizona! Zer abil horrela? “Ta berak: Ezekiak ba! Ziztakoa..., matelezurra austeko arrixkua..., hoge duroak...: ezekiat ba!” Ibili ta ibili, agiña ondatu zitzaion, erroa aragitarlean estalita geldituz. Goxo baten negurriko koxkor batek bere “ezdakit ba” ura salatzen zion ordutik geroz garbiki.

Ezkondu doazi bere lagun geienak. Ezkondu nai luke bera ere: eta or dabil urduoro San Antoniori otoitz ta otoitz. Lanak ematen dizkio ezkonlaguna autatze orrek! “Ezdakit ba: au gaztegi, ura zarregi; bat apainketari, bertzea zakarripurdi; emen sosgabea, an sakelutsa”. Buruko ileak bakandu zaizkio nekearen nekez. San Antoniok ere otoitza entzun, egoki zaion ezkon-lgun bat emanez. Apezak elizan ia artzen duen galdetu dionean, doi-doi ezdu bere zoriona “ezdakit bat” batekin ondatu: lagunak ukondoakin kask eman diola bearrik!

Galtzalaxatze batean galdu zituen beti berekin zaramazkin diruak. Etxeko txakurrak, susmo onez sukalderatu zion maxoa. Ordutik seaska xarrean biribildurik. Irabazpide on batean bien diruak iartzeaz itzegiten gio barridekoak: alferrik dena. “Ezdakit ba! Alakok eta olakok, beren buruauste guziekin ere, ttirit egin dute. Bakoitxak bere etxean baño obeki, non?” Nunai bezala etxe artan ere sagu-arratoi bat edo bertze elkartzen ziren, ondokoak munduan uzteko edo... Lan ortako txokorik egokiena billatzean, seaska xarra autatzen dute: ta “billeteak” xeha xehatuz, etzauntz goxoa plantatu. Orra or “ezdakit ba” sagu-etzauntz biurturik.

Urteak pilatzen ta lanak zailtzen doazkio. Lanerako elkartze ori aipatzen diote lagunek: laneko tresnak berriku bearra ere bai. “Ezdakit ba! Nere onagatik ote dabiltz? edo nere ontasuna berenganatu naiez? Tresna berriek ere, zaharretan truk balire, nonbaitor! Baño zaharrak zokora ta berrientzat diruz leher!” Eta “ezdakit ba” onen bidez etxe bete tresna zar. Bera berriz gero ta “tresnago”.

Bere barrenean makur zerbait nabari gizajoak: baño beldur gogorra dio medikuari: Don Juan Debalde ezala farmazeutikoa bazekien gañera. Ortaz, gostatzen zana gosta, merkeenari lotzen da, medikuarengana ioatia gaur biarko ta bihar etziko utziz. “Ezdakit ba! Medikuek ere, iltzen dana... iltzera uzten”. Medikuari lanik eman gabe eta “ezdakit ba” ezti-gozo batean il zan.

Ateratzen ditugu min ematen dakuten agiñak: diruak ere, gauzak erosiz, barreatu: geren adinean bizibidea artu: lanetan egoki zaigun laguntzaz baliatu: ta eritasunetan, sendatzen dakiana billatu.

Baño agin erro batek emanen lizuken miñe, zurea liteke. Nik zabarkeriz ondatutako diru pixka, nere kaltetan.

“Zureaz” ta “nereaz” landara, “denena” ere or dabil. Eta, ain zuzen, “denena” dan ortan “ezdakit bat” bakoitza botatzen da!...

Bide zuzenena autatuz, dezazkegun gauz guzietan erabaki sendoak artzen baginuzke, ta “ezdakit ba” guziak alde bat utziz, erabaki oiek betetzera saiatzen baginezke, a ze mutillak gu!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1967, azaroa-abendua, 4. orr.



## aGAZTAIÑEDIAN BARNA

Lurrean non-nai ostoak usteltzen doz. Gizonak ere, alatsu. Ostoaren bizitza bezain auala gizonarena: xamur eta ttipi lenik: sendo ta gertu, gero: gogor, ori, xehatzeko erraz, orai.

Etzuen aizeak aunitz zafratzen ostoa ttipia zenean: etzion ostoak aizeari bildurrik gaztetasunean, gerrontze liraiñaz ederki baliatzen zen ta, aizeari bidea zabaltzeko, batera ta bertzera zehartuz. Karrask eginazten dio aizeak gaur, idortu ta zahartu ta iñartu ta lurraren ongarri izatera abiatu delakoz. Ortxe ortxe gizona ere. Gorputzaz, bai: izpirituan, ilezkorrak, betirako bizi gera.

Ostoak ustel ondoan ere zerbaitetarako balio du. Igaz ostoaren iabe ziren zugaitzak, osto ustelek emanen dieten ongarriaren iabe izan nai dute, ongarri orren indarrarekin aurten ere osto berri batzuk beren zerbitzurako ekartzeko.

Bere-buru, iabe, ostoa? Ez: zugaitzarena da, berari ongi loturik dagoenean eta aren oñetara erori ondoan; ez badu seurik norbaitek, zerbaitek, aizeak, zugaitzarenpetik artu ta eramaten.

Lurreratzen den ostoa aizeak noiznai arat unat darabil. Lurrean eroritako ostoaren otsa entzungarri biurtzen da batzutan, eta arrialdura ederrik ematen du ere bein edo bertze.

Azaroan zen. Basetxe bateko bi aizpa erriratzen ziren atsaldero, lagunetara, iosten aritzera: gaitz-orratzekin ere lan egiten zuten tarteka, beti batean aspertzen delakoz bat. Arrats batez abiatzen dire beti bezala biok etxealdera, orratz ta ari-mataxa xakuttoetan sartu ondoan. Ilun zegon gaua eta aize pipitik ere ez. Galtzadan beiti doaz, ixiltasun osoan. Andik bertzeko, gaztaiñedian barna zoazela, ek oinkada eman aldiero, fra, fra, fra ezti bat, ahal bezein ixilik norbait atzetik zetorkielako antzan. Neskak geldi: otsa ixil: neskak berriz abi: otsa ere bai: gibelat begiratu eta, ilunaren ilunez, ezer ez ageri. "Guazen abudo!" diote elkarri, ta laisterrari eman ere bai. Baiña atzetik datorkie otsa ere, len baiño sendoago ta ustez urbilago.

Atsegin ta atsegin, basetxeratu zirenean! Zinpi zanpa atea itxi ta sukaldera! Xakuttoak ez dio aizpatik batteri iarraiki nai: zerk eragozten ote dion begiratzen du neskak, ta mataxatik atara ta luzatutako aria autsikian arturik zeukala atea ikusten du: irikitzen dio ateari agoa; ta biltzen asten danean aria, unek bere punttaren punttan zekarren osto mordoska zirikaria an agertzen da, ia biluxik, ta bere lagunetatik berexi delakoz otsik geiago ezin eginez, lotsaz itoa.

Nora ioan naizen, nora! Nere deusezan ohartzen asi ta Arantzako gaztaiñadi bateko ostotartean nere oharkuntza itotzeraño!

Zenbat aldiz gerta diteken itotze au, egiteko zentzukoenen aria ere txorakerizko sasitaratean nahasiz!

Ametsak, irudimenak, imajinazioak, gure buruaz iabilduz geroz, otsa bai, ausarki; baiña, neskatx aren ari punttaren punttako osto-zain biluxien antzera, biluxi utsa azkenean.

Gorputz utsa ez naiz ni; iñolaz. Nabarmenena izanagatik, gutiena dugu gorputza. Bere-buru, iabe, nere gorputza? Ez. Ostoa zugaitzarena den bezala, gorputza arimarena da, unen zerbitzurako, orai eta gero ere.

Ortaz, ostoa ta gorputza ixilean eroriko dire, ixilean ondatzeko ixilean beren geroa iabearen esku uzteko.

Iabeek, Egilearen naia bete bezalte, zugaitzak ostoa ta gizonak gorputza Arek nai duen eran eramanez.

Zugaitzak beteko du, bai, ohargabea bada ere. Egilearen nai ori. Nik, ezaguerarekin eta guzti, bai ote? Ala behar nuke...

Ibarrondo

Principe de Viana, 1972, otsaila, 8. orr.

## GORA IASO DITU UMILLAK

Arri-morru tartean lur pixka bat: lur zati ttipi ortan belar multxuska, iru lorekin, udaberriari kantuz.

Nork ikusi ta nork entzun? Egileak seurik bai. Belar ta lorrentzat, ez ahal da aski au?

Nik ikusi ditut ordea: zuk ere, agian bai. Ta eken esker oneko irrintzia arri ta zur entzuten dut ixilean.

Belai zabalean sagardia. Negu-sagarren, ezti zuri gorri beltzen, udare-sagarren txertoak: basaki bat edo bertze, mandaka batekin.

Osto ta lorez iori iori udaberriz, lenbizian: loretan bakanduz, gero: zituan, bakanago.

Lore pilla guzitsu ura alferrik?

Udaberria loreek apaintzea, ez da gutti. Erleeri ere lana ta iangaia ematea, bada zerbait. Ez idurian ere, lore bakoitxak bere ona eman du. Zenbait loreek zekarketen sagarrik ezin ian guk. Baiña eken irin errautsetik atera den ezti, nork daki!...

Bere onak emanik, lurrean, beharbada logian ta gure zangopetan ongatu den loretxoa iuzgatzeko, ez gera gauza gu!

Amatxi xaharra ta illobatxi aurra: adin geiegikoa bat, iakin-eza bertzea. Biok maiatzean, eguerdi inguru, itzaleguzkitan.

Itxurazko zerbait egin nairik ere, batek eta bertzeak ezin. Gorputzeko begiekin ikus genezaken onik ez digute berek egiña bezala erakusten ahal gauz-ez diran biok.

Nork erran "gauzeza" amonari? "Txotxolo ta ez-deus" nork aurtxoari?

Illobatxo orren biotz gurian, bizitzarako behar izanen dituen azi onak ereinez ta ongarrituz, emaitz eta fruitu oberena ez ote da bada bizitzan ematen ari (bera nor izanez) itxuraz ezindutako amatxi au?

Maiatz ostarra; ostoaren musker ezea: gorenez egun bat iraun alako lorea; txorien maite-kantua; kukuaren oiubasa; ...iraupen guttikoak naski: erakuspen aundikoak egiz. Egilearen maitasunezko lanaz ohartu nai dugunentzat.

Anbulo ta bas-arrosazko eskutara batek, deus guti balio du. Ala ere, bi nexka-koxkorrek an-emen bilduta, Zeruko Amari otoitzez ta biotzez eskeintzen badiote. Zerua atsegin ta lurrekoendako urrikaltasun bihurtzen da.

Pixka emen, pixka an ta pixka or, edertu digu Iainkoak on aunitzekin gure bizilekua.

Pixka oken artean, pixkak iarri gaitu gu ere. Pixka utsak gerala umilki ohartzen bagera, buru-biotzeko amets arroak itzaliz, ona dezakegu munduan.

Zein ongi guretzat orrela, Zeruko gure Amak diona:

"Iaunak bere besoan indarra erabilli du

buru-arroak umildu ditu.

Bota ditu beren alkitik aundikiak,

eta gora iaso ditu umillak"

(Orixetik)

## GURE GAITZAT BI ITZ

Gure gaitza gaitz gogorra: gu ain prest bekaitzera!  
Gerok bakarrik nai goiti: bertzeak buruz bera:  
Bizi gu zorionean: anayak, negarrera:  
Gurea ontako eman: lagunena, txarrera.

Gure landako zikiñak; belai bazterrekoak,  
Ankapetan onda bitza gure barridekoak:  
Bidera guk botaz geroz, ditugu egin naikoak:  
Ez gara gu bide ortaz orain beartzekoak.

Guk dabilgun bidetxoa, eduki dezagun garbi:  
Ez ba utzi or ibiltzen txerri muturkelari:  
Barrideko oyek ere, ez asto ta ez ardi:  
Bidea gurea data, ya nork ote ausardi!

Lanetan atzeraturik dabil barridekoa:  
Baño bera laguntzea ez zait bearrezkoa:  
Nere lanak egin eta orrenak artzekoa  
Gauz goxoa bearrean, zait arrunt nekezkoa.

Barrideko iratzeak, metan eder zaudenak,  
Erre-kixkalli ditut nik, auts biurtuaz denak:  
Mozkoraldian nintzanta, ondatu bai arenak!  
Baño berak ez ditzala ukiture geurenak!  
Barrideko aur ttipiak, yostetan ari dala,  
Xeatu daku gaur goizik sukaldeko kristala.  
Aur aundia tzarkerian, naiz ttipia itzala!  
Kristalaren balioa, laster ordain dezala!

Gure etxeko alaba, neskatx garbi-garbia:  
Txuriketak egiteko, ura bear garbia:  
Giltza lasairik uzten du gau osoz irikia:  
Zenbait aldiz busti daku urez etxe guztia!

Aldamenean daukagu etxekoandre kexoa!  
Arpegia garbitzeko urik ez dulakoa  
Agertzen du aunitz aldiz goratuaz besoa.  
Ez da nere emaztea bezein andre goxoa!

Ur eskasia dalata, milla istillu emen.  
Ura ondatzen dugula, auzoan diote, omen.  
Auzokoak, goraxago: gu berriz, beiti, azken...:  
Urak, beti, indar beiti: aurrera ere... amen!

Elkartzea ona dela diote batzuk naski:  
Nere gauzak konpontzeko, banaiz oraindik aski:  
Noizbait, gero, zaartzean, yartzen banitz ni gaizki,  
Laguntzak izanen ditut diruakin errazki.

Orrela ari direnak, ditugu gutartean.  
Min, arantz, neke ta lanak, aundituz bitartean.  
Zer kalte ikusten ote dute ok elkartzean?  
Berexkuntzaren pozoiña, noiz arte biotzean?

Noiz entzunen ote dugu maitasunezko itza?  
Biotzak erekitzeko nork ekarriko giltza?  
Batasunean yarriko gaituena balitza,  
Sendatuko litzake, bai, laisterrik gure gaitza!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1967, urria, 3. orr.

## JESUS AURTZOAREN ZATI

-1-

Aunditzak nork ar dezake  
goroldi apala?  
Noren begiarentzat on  
"aritzen" axala?  
berin (kristal), zerra-zagi,  
abar txotx, ezpala,  
parer puxka, filda urdin,  
mai xar ta makala?

-2-

"Belentxo" baten zatiak  
ibil gaur buruan:  
ola negur dezakegu  
zer garen munduan:  
ienden ustean daudenak  
ezeren lekuan,  
negur gabe aundi dira  
ziurki zeruan.

-3-

Mai xar baten zelaiean  
... ..  
"Belentxo" dabil aur bat  
"Gabon" bezperein:  
tokirik egokiena  
arki duenean,  
zitu-zituan asten da  
"Estalpe" lanean.

-4-

Ezpal aundiaz, an-emen  
maiaren gañean,  
sortuko ditu mendiak  
zelaiean tartean;  
ezpal ttipiekin berriz,  
ezarriz an bean,  
asma ditu zubitxoak  
erreka batean.

-5-

Urik gabeko erreka  
zertako zubikin?  
Urez ongi beteko du,  
bai, berin zatikin:  
ziliar paper dirdiratsu  
puskatxo batzukin

putzu zabal ta ederra  
arrai ta pirukin.

-6-

Prestaturik antxe dauzka  
goraldi multxuak:  
xabal-xabal edatuaz  
zatixka batzuak,  
ederturik uzten ditu  
mendien kaskuak,  
an-emenka berezirik  
basauntzen lekuak.

-7-

Abartxoekin sortu du  
oiantxo ederra:  
abar luze-luzenean  
iarri du "Izerra";  
oian artean, txoriak,  
uso ta eperra;  
beko lezetxoan berriz...  
"infernu-akerra".

-8-

Fildatxo urdin batekin  
zerua asmatu:  
Aingeru ttipi pollit bat  
antxen du kokatu:  
artzañak ere bezate  
"Gloria" kantatu:  
iauregian Erodes de  
ikaraz landatu.

-9-

Zerra-zagiakin ditu  
bideak antola:  
"Aritz" axalekin sortu  
Iesusen txabola:  
Iaunko-Aurtxo seaskan  
agiri dagola,  
aurtxoak prestatu digu  
Kristoren Eskola.

-10-

Aundiusten begirako  
uts eta ezetzak  
"Eguberriz" bete ditu

aurraren ametsak:  
argia dakar noizean  
ain beltz dan iketzak:  
oñarri apalak nonbait  
Zeru-Erregetzak.

-11-

Ez arritu, adiskide,  
"goroldi" bazera:

munduak bota bazaitu  
ezpalek antzera:  
iduri izanik ere  
abar txotx, papera.

IESUS AURTZOAREKIN BAT,  
AREN "ZATI" ZERA.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, azaroa-abendua, 3. orr.

JOSE LANGILE!

Gauz guziak ez dira argitasun berakin ikusten ahal munduan. Ez da ere egite bakoitzaren ondorioa, ona edo txarra, berehala nabari aldika.

Bide zabalak ezezik, bidexka estuak ere kurritzen ditu bizitzak. Lenbizikoak atsegingarri badira latz eta mingarri zaizkigu bigarrenak.

Geroak kezkatzen gaitu geienik. Geroakin datorkiguna iadanik ikusi nai dugu, ta ezin.

Emengo gure geroa iluna da guretzat. Orrela izatea, ordea, obe zaigu agian...

Gertakizunak ere, batzuk arpegia agirian dakarte; bertze batzuk, estalita. Batzuk, norat doazin asmentatik diote; bertze batzuen ioera, nork asma? Beren baitatik datorz bat edo bertzen; gizonek asmatuak dire aunitz. Onerako edo txarrerako, nork daki?

Gurekin dabilzanak, danak adiskide? Gutartekoren bat, estsai?

Lengoa eta oraingoa geroakin iosiz dator, adiskidetasun eta esango bakoitzean, erantzun zuzena.

Azkenaldera, geroztik, azkenaldera:

Mangun aunitz, mangun aunitz bitartean:

Zoritxarrez edo zorionez, aldakor xamarrak ditugulakotz biotzak:

Irakitan balbalka, batzutan: bare-bare, tarteka,

Irakitan dabilena, geldirik ezin egon:

Eta, bota dezazken talastekin, bakean ezin utzi bertzeak!

Epeltzeak, ordea, ezitzeak, ortara prest balegoke taplastak io duena ere, lengo orrira dezake dana, minak kenduz eta zauriak sendatuz.

Irakitan "plast" datorkionarekin egosia, minaren minez arrankuratzeaz ez arritu. Bizi da: ta bizian io dio bat-batean beroegiak.

Konpon leizke ahatik, ortaratuz geroz, egoslea eta egosia, biak. Nola?

Gaurko gaitza, len ikasitako onarekin ta geroko obeagoaren itxaropenarekin, esperantzarekin, sendatzen saiatuz.

Zure bizitzan, *Jose langile*, ordu ilunak izan zenituen; bide estu ta bidexka mehar; geroa, beltz; gertakizun nahasi; noiznahi adiskide berri; Erodes ta bertze bihotz-irakigile: hau dena ta geiago zure nguru, bizitza osoan.

Ala ere, ahal zinuen guziekin ongi konpondu zinen, nahiz ongi konpontze hau lan zaila izan batzuetan.

Len ikasitako ona etzinuen baztertu: ortan sendo iraun zenuen.

Geroak zakarkizun obeagoaren itxaropenean tinko zinauden.

Bi sendogarriokin zure egunerokoa gantzutzen ta indartzen zoan beti.

Gaurkoak, gaurko uts-utsak, itsutzeko ta iltzeko arrixkuan gabiltz gu: prisaka; atzera-aurrera begiak ibiltzeko astirik gabe.

Lengoaren ona maitatuz eta geroaren obeagoa bilatuz, gaurko gaitza gugandik eta bertzeengandik ahal dugun obekienik kentzen lagundu zuk zerutik!

Itxaropenean, ukatuko etzaigun obeagoaren esperantzan, gaurko lanetan ta neketan sendo irauten erautsi!

Asmo onaz bete betetako bertzeen lanak eta nekeak geren mingain zorrotzekin guk ez ondatzeko, zure ixiltasun saindu ortatik ausarki emauguzu!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1972, apirila, 6. orr.



## LAN ZALLA

Gure gerratean zan. Muga inguru oketan, soldauak nunnai. Bostbatsei gizoneri, soin bana metazirikin iratzetara zoazinean, “alto” bota zieten soldauek, norat abian ziren galdetuz: behar bezalako erantzun aski garbia artu ere bai metaziri tartetik, “a escribir!”.

Beso ta beatza laneko tresnetara luzetuz, “auetxek dire gure liburuak” bein baño geiagotan diote nekazariak. Baña, danok ez gara nekazari.

Egun osoan lanean leher egin duen bat, paper batek dionari nekez lotuko da arratsean. Ez gabiltz ordea egunoro lan ta leher goizetik arratsera. Nork iraun?...

Gure izkuntzan irakurtzea edo leitzea gauz zalla dala ere edatzen dugu gañera, duenari kendu naiaz bezala gure paperak eskuratzeko gogo.

Gaitza ez daukegu astirik ez izatean, ez eta nekean. Bertze aunitz gauzetarako artzen dugun bezala, leitzeko ere ar genezake astia, guk ala nai izanez geroz.

Euskal liburu gutxien iabe gara: ni seurik bai, egia errateko. Euskal paper gutxi eskuratzen ditugu: len, “esku motxa” ta bertze bertso-berri saltzale batzuk erriz erri kantari ibiltzen zitzaizkigunean baño gutxiago naski. Eta, gutxi oketatik, zenbat irakurtzen ditugu asieratik akitzerañokoan?

Eskuetan daukezun illeroko au artzen zuela nekien gazte bateri galdegin nion bein: “zeintzu da zatirik atsegingarriena zuretzat paper ontan?” eta, erantzun auxe artu nuen: “noizean beinka, irakurri naiez asten naiz: baña, ain zalla zait!... Erderazkoentzat, bazeuken asti; illeroko unekin adiskidetzeko gogo behar ordea...

Bere osaba xaharraz mintzo zen zatitxo batean ohartu zanetz galdegin nion paper au artzen duen ez ain gazte bateri “Noiz ekarri du, noiz? Illero artzen dugu errebista”. Artzea aski balitz! Illabete artan bertan ekarria zuen zuzenki osaba zelakoaren potreta ta guzti.

Artu, bai: leitu, ez. Ez da deus gostatzen artzea: on zerbait ekar dezaiguke gañera: su piezteko, gosariak biribilkatzeko... on zaizkigu paper ok.

Saririk ordaindu behar ezak ere balioa txipitzen ote dion illeroko uni... Garestien soñua dakarkigute berriz euskal liburuek. Balioeza balio ez duelako ta garestia garesti zaigulako, ez dabiltz bat eta bertze ain ados gurekin.

Osasunaren kaltetan omen da geiegi irakurtzea. Ez bildurtu: ez gara, ez, gaitz unekin ilko. Gutxiegiaren kalteak nabari ditugu nonnai.

Nerau ere aski alferra nauzute eta, aunitz-aunitz eskatzera ez noa: astean minutu batzuk bedere ez ote dezazkegu gure izkuntzan zerbait-zerbait irakurtzeko edo leitzeko ar?

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, uztaila-abuztua, 2. orr.

## LEIOZ LEIO (I)

Etzetan, aunitz gauzetako ditugu leioak. Argia etxe barrenera sartzen uzteko. bertan bizi direnek arnas alik osasungarriena artzeko: bertan bizitzea guziori atsegingarri biurtzeko: aunitz giro txarretan seurik, lana legorrean, berokian, edo gorputzari goxo dagokion erarik oberenean egiteko. ...eta azkenik, etxe inguruan zer gertatzen den ikusteko.

Egunaz leiotik datorren argi onak etxe barrena pozten du. Leio ttipi ttipiak dauzkan bizitegia, toki ttuttulua duzu, gizona! Zenbatenez leio aundiago, obe. Egunezko argiak ez dio etxe barrenari kalterik egiten: ez ta bertan bizi direnei ere: ona berriz, pileka!

Leio ttipi dun etxean, arnagai on ta garbi gutxi arkitzearen arrixkua dago: etxe barrenean bizi garenean, etxetik kanpo bizi garenean ta gabiltzenean bezenbat arnas artze ta uzte daramazkigu: arnas garbia artuz, odola (sendagilleek diote, ez nik) garbi dabilkigu; arnas zikiñakin berriz odola ere zikin. Zabal leioak lasai, adiskide: kanpoko arnagai garbi ori iabil bedi zure etxeko txoko guzietaz: eta ortarako ainbateko leiorik ez badaukezu, aunditu bildurrik gabe dituzunak, zabaldu, zure biriak ta etxeko gurienak al bezein garbi ta indartsu iraun dezaten.

Argi ausarki sartzen den etxean pozik arkitzen da bat: atsegin zaio an bizitzea. Exe ilunean berriz laister aspertzen da, argitik igeslari ez bada seurik bat.

Lanean pozik aritzeko laguntz oberenetatik bat argi ona izaten dugu. Erdizkako argiak gogogabetzen gaitu, batez ere ordu luzetan ta egunoro-egunoro erdizkako orrekin lanean ari behar badugu.

Etxe inguruan, ta al bada urruntxagoan ere, zer gertatzen dan ta nor dabilen ikusteko ere ongi dator naski leioa, naiz leio au aundi edo ttipi izatea etzaion axolik ontarako. Leiolari amorratuerei, ttipia edo, aundia bada, erdi etsia egokiago zaie leiotik gauzak ikustera ain oituak baidaude, edozer leio artekatik ta begi bakarrarekin ere ederki ikusten dute inguruan gertatzen den guzia: ta kanpokoek barren aldeko ok ikusi gabe gañera. Zenbait sudur ormatze artzen dute orrelako leiolari berriktariak, negu aldean batez ere!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1970, uztaila-abuztua, 6. orr.

## LEIOZ LEIO (II)

Etxeak bereak daramazkin bezala, guk ere geren leioak (begi, belarri, sudur...), daramazkigu gorputzean; oien bidez gure barrena argitzeko; gure barrenera arnasgai ona sartzeko; gure barrenean lana pozik egiteko; gure barreneko bakean poza arkitzeko: bai ta ere kanpoan gertatzen den ona leio oietatik ikusteko, gerengana bil dezagun.

Leioa ok geienean itsirik, zikindurik, ttipiturik balituzte bezala bizi dire zenbait, barrenean beharrezkoa zaien argia beren kaltetan letorkelako ustean.

Zer argitasun ederra sar diteken gure barnera gorputzean daramazkigun leioak, behar den ordu ta eran, aski garbi ta aski zabal idukitzera saiatzen bagara!

Bizulekuak bezala, arnasgai garbia behar dio ekarri izpirituari gorputzak. Arnasgai zikiña sartzen zaion izpiritua, laister edo luze ondutzen da. Kontuz ibili bedi anima arnasgai ona leioetatik artuz ta arnasgai txarrari leioak itsiz. Etxearen iabeak noiz leioak iriki noiz itsi dakien bezala, gorputzaren iabe den izpirituak ere, noiz gorputzeko leio oiek zabal ta noiz bil iakin behar du, on ta txar nahaste, barrena pozoinduz, ontako artu gabe.

Lana egiteko dabil munduan izpiritua: ortarako eman zaio bizilekutzat gorputza. Lan au ona ta pozik egiña izatekotz, kontuz ibil gaitezen leioekin, gaizki argituak izateko arrixkuan gaude ta bestela. Gaizki argituak izateak lan txarra egitea edo lan onean bortxaka aritzea dakar: eta bi gaitz ok argi onari iarraikiz bakarrik garaituko ditugu gubaitan.

Bakea nai ta naiezko du, pozik arkitzekotan, izpirituak. Erne ibili gaitezen leioekin, bake au zainduz, eta on au galtzeko arrixkua datorkigunean ongi zabalduz. Izpirituaren nahasaldiak eta biotzeko bakearen galtzeak gorputzaren leio oiek kontuz ez ibiltzetik sortzen zaikigu aunitzetan.

Kanpoan gertatzen den ona ikusteko ere on zaizkio animari gorputzean dituen leioak. Begiz, belarriz, usmoz..., zer zaion kalte ta zer on ikus dezake izpirituak, bere inguru ongi begiratzen badu beintzat; eta kaltegarritik ihes egiñez, aute dezake ona. Baiña ongi begiratu behar ontan dago gure zailtasuna; ez zaio, bada, bere inguru dabilen guzia on izpirituari, iñolaz ere. Eta kaltegarri dena onaren iauntzi apañakin agertzera aspalditik oitua daukegu mundua.

On gutti dabillela gure inguru? Baliteke! Iende geiena gaurkora, orduan ordukora bakarrik lotzen dela? Badirudi! Deporteak, iostabideak, kurri ibiltzeak, bestek, atsegiñekin al bezein ongi ase naiak, dirua bide errexenetik eskuratzeak, iendeen artean aipatua izateak eta abarrek loturik dauketela gaurko giza-emakumea? Ortxe-ortxe!

Eta bizkitartean, egiz balio duen ona, geienentzat, baztertua gelditzen dela eta geiena itsu ta gerokoaz ilun arkitzen direla? Bide ilun ortatik iarraikiz, nai ta naiez!

Ilunbe onen zoritxarra geroak adieraziko daku, geren kaltetan gañera, ez bagara seurik ordua dela lozorrotik esanaten eta gure leioetaz, izpirituaren onetan, oraitik bertatik beti ongi baliatzen.

Ur zikiña doan bezala geien okin batean gainbehera io beharrean, goazen gu beti gora geren nortasuna sendotuz ta egiz ona zaigunari bere balioa emanaz.

Ona ongi autatzean eta autatuari ongi iarraitzean daukegu geren buruaren iabe izanez on zaigunaren iabe ere izatea: berdin euskaltasunean nola kristautasunean.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1970, iraila, 6. orr.

## LERTXOIN LERROA

Ekaizte bezpera batean, lertxoin lerro bat zoan kantari, bere bidean. Lertxoin bakoitxak, bazeukan zer erran.

Baten kantuak horrela zion: “On den zerbait ematen asten zeranean, ona zera. Iarrai zazu on ematen, iarrai... azkenean, ortara beartua zaudela usteko dute artzaleak!”.

Bigarrenak, geroxeago, au erantzun zion: “Eman duzun lenbiziko onak, ots edo soñu zerbait egin dezake, zuk ixilean emanik ere”.

Lerroko gidariaren txandatzea etorri zitzaaien lertxoineri, ta leank azkeneratzean, auxe dio poz-pezik: “Bigarrenetik gorako onak, gero ta ots edo soñu gutiago”.

Ibillera zaildu zitzaaien lertxoin gaixoei. Aizea sendotu edo...: neketan zeramaten beren bidea, zerbaitekin burrukan ari balire bezala.

Burrukaren erdian, karrasi bat: “On zerbait egizu laguntzik eskatu gabe: iñork ezdu aipatuko on ori, denen onetan egiña izanik ere!”.

Bazterrak beltz zauden nonbait goi artan. Gidari berritzea orai ere. Ta berria, ez zan ain bereala lenbiziko iarri.

Ontan, denen atzetik zoazin zazpi-zortzi neska-porrokatuak, bat-batean asten dire: “On egiteko laguntza eska zazu; ta iende tartean marmara franko zutaz, naiz zu denen onetan ari!”.

Ez nuen geiagokorik aditu, urrundu ziren-ta egaztiñak. Oiuka ta arramaka iarraitu zuten, zentzugabe itz egiñaz, ohar gabean, egi ta gezur elkarrekin nahastuz. Arrazoinez edo arrazoigabe, an doaz kanta ta kanta, agora eldu zaiena botaz.

Egizko onak, on dezake beti. Gezurrezkoak, ez. Onaren izenean, ona eman bear; ez gaitza; ez kalte-garraiaria. Egiz ona ta itxuraz bakarrik ona ez direla berdin, deus ez dakien Lertxoin-Kepak ere garbi ikus dezake. Zerk balio ote gehiago? Iñoren laguntzik gabe egin duzun onak? Berzeen laguntzaz baliatuz egin duzunak? Ez al ditugu, aunitz aldiz, gerok zernai bagarelakoan, gauz onak makurtu?

Onarako laguntza eskatzeaz marmaratze orrek, batek bere barrenean daraman biotz idorra agertzen du.

Baña, zenbait aferetan, elkarrekin batuta egitea egokiago den aferetan, batek on egiteko eskubidea, iñoren laguntzarik bear gabe daukela uste izatea, buru ta biotzeko arrokeri aundi bat izen leike bein edo bertze, beti ez bada re.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, otsaila, 1. orr.

## LURRA, ZIUTA, BELARRA

Landa polit batean gabiltz. Landa onek aspaldiko urtetatik zitu aberats bat dakar guztiondako. An, or ta emen zitu bera. Naiz landaren zatitxo batekoari, berekin datorkion belar batek alako zer bat ematen dion, gañerakoetatik nabarmentzen duena.

Belar onek deus guti balio duelakoan gaude geienok: ala ere, bere balioa badauka an, sortzen dan zatitxo artan.

Landaren zitu onaz baliatzen geran geienok, axolik ezta, urteak eta urteak eraman ditugu belar orri begiratzan bat ere eman gabe: "Onik ez dik: txarrik ere ez: paso!" diogu gerenbaitan...

Landa-zaiak ordea lanean ari dira, landa ondu naiean; lurra ikusiz; bere sakontasuna negurtuz; azi onak autatuz; okentzat indargarriak bilatuz; belar gaiztoak kenduz;...

Ontan,... belar ura!!! Lur zatitxo artan sortzen da itxuraz seurik ain guti balio duen belarra!!!

Zer egin? iraupena eman? Erroetatik atera ta sutara bota? Bein betiko kasatu?

Landa-zai batzuk, berea duen lur zati ortarako on ta egoki dala diote: bertze batzuk, landa guzian edatu behar litzakela: norbaitzuk, zañetatik ateratzeko ohea dala.

Eztabaida ta borroka onek iarraitzen du, belar gaixoa batzuk beren lurretan zainduz; bertze batzuk, zorro aundi batean azia artuta, landa guzian barreatuz; nork edo nork, gerrontze guziak makurka minberaturik, ateraz ta sutan kixkaliz.

Landa-zai bakoitzak egin alak egin behar lituzke landa ontzen eta zitua obetzen, ortarako bertze landa-zaiekin ongi elkartuz, landaren egizko beharretan ohartzeko ta landari ta zituari on zaien lanean zin-zinetan iarraitzeko, belar batengatik landa aultzen ta zitu guzia galtzen utzi gabe.

Landaren zituaz baliatzen geran geienok, landa aultzen doaiela ta bere zitua ttipitzen doala ikusiz, bertze landetara ta zitueta ioanen gerala, normaik gaur ikus dezaken gauza da, errazenera iotzen dugu ta zoritxarrez.

Utz pakean belar ori, ongi zaionak ibil dezan: an-emen landatzea, atsegin zait neri ere, ta kalterik iñori egiten diodanik ez dut uste!

Eta, landaren lurra, konpondu, konpondu; zitua, ondu ta berratu ondu ta berratu. Bai ta zituaz baliatzen geranok, mesedez, zituaren balio aundiaz ongi ohar gaitezen, lagundu, lagundu; zituaz baliatzen geran baño geiago baliatzeko.

**"h" edo ez "h"; mintza, mintza euskeraz. Gañerakoa, ttun-ttun utsaren otsa naski...**

Ibarrondo

Principe de Viana, 1970, otsaila, 6. orr.

## MARZEL IKASKIÑAREN EGUN TXURI-BELTXA

1

Marzel Otarte, gizon  
prestuak  
oian zatia erosirik,  
pozez marruskan dabitz  
eskuak  
irabaz ona ikusirik.  
Kerizu, itzel dauka  
lekuak:  
mendiak ez du sasirik.  
Egurak ere, bear alakuak,  
Bazeukan noiz merezirik!

2

Bere bordatik bide luzea  
zegen ikaztegiara.  
Emaztearentzat, zer  
gurutzea!  
petik-gora ta gain-bera!  
Iatekoak arat burutzeak  
iartzen zun beti minbera,  
Senarra berriz gosez iltzea  
iasateko gaitz sobera!

3

Ur bazterrean zuen  
gizonak  
ikaztegia antolatu:  
egur ta abar; zogi  
sakonak;  
an ditu denak autatu.  
Britxka ta britxka!  
Amuarrain onak  
beren buruak salatu.  
Orduan bertan bere  
Erramonak  
ibil bearra salbatu!

4

Aste guziko ogi ta ardoa,  
bada, irin ta koipeakin  
naikoa diñat, andre  
gaixoa,  
errek'untako arraiñekin.

Zaindu zan ongi gure  
aurtxoa,  
eorrek dakin gauzekin.  
Aldiz ikazkin, aldiz atxoa,  
konponduko naun  
neurekin.

5

Lotzen da pozik bere  
lanari;  
iaun ta iabe bere ustean:  
noizean bein txurrut  
xatoari;  
txintxur idor, ke-tartean:  
gozaltzekotan, koipe  
babari!  
amorraiak, bazkaltzean!  
baña emateko zartagiari,  
sartu bearko urean!

6

Arrantzan ari dan  
bitartean,  
Adanez, nola? oroitzen  
da.  
“Adan, bakarrik, abere  
artean,  
eritzen bada, ezin senda.  
Piko ostozko atorra  
austean,  
zer moduz iarri zerrenda?  
Emakumerik ez balu  
aurrean,  
egun gutiz, a zer  
“prenda”!”.

7

Iainkoak ongi asmatu  
zuen  
senarrantzat emaztea.  
Oraintxe arte nik ezin  
nuen  
iñolaz au asmatzea.

Berdin udaran, berdin  
neguen,  
gizonak bear laguntzea.  
Marzel, gauz au ez zuken  
buruen?  
Gizajo perkal trastea!

8

Untan zabillen buru  
berotzen,  
amorraien atzetikan:  
Artan berean, oiubat  
ozen:  
“Alto, Marzel”! ta  
geldikan,  
iñora etzun iñolaz iotzen;  
nai izan ere, ez alikan!  
Ez zuen bada gorputza  
lotzen  
pantaloit ta atorgatikan!

9

Ikaraturik urperatu da,  
bañan ez an ats artzerik.  
Bere buruan da sortu duda  
“guarda” zan edo  
bertzerik...  
gizonak lezake bada muda  
bere mintzo truk  
bertzerik.  
Pixkaka-pixkaka, ateratu  
da:  
“emen ez zeok  
iauntzirik!”.

10

Oiuka ari da egin alean  
ikazkin gizagaizua:  
”Lapur zikiña ari  
lanean...?  
utzi nauk orai xautua!  
Nere arropak, ik  
besapean;  
ta ni Adan uts biurtua!

Nere Erramuna  
datorrean,  
Entzunen diat “preikua”!

11

Adiskidea urrikalduta  
badator iauntziarekin.  
Aserretikan ia baketu ta,  
Konpontzen dire  
elkarrekin.  
Adiskideak sua piztuta;  
baba ta amorraiekin;  
Ardotik ere, bota zurruta!  
ederki daude elkarrekin.

12

Baño Marzelek egun  
txarra du:  
gaizki zeñatu dan edo...  
etorri zaizko iru soldadu,  
(nekez, errezatzen Kredo:  
¿Quién ha quemado ese  
arbuladu?  
galleko batek galde do.

Marzel gaizuak naiko lan  
badu:  
“musika” artan, ez ta re  
“do”.

13

Soldadu aiek ari zaizkio  
erran ta erran, erderaz:  
berak bateri erantzun dio:  
“bakarrik dakit euskeraz”  
Orduan unek zafratu dio  
atzekoaldea uhelaz  
Marzelek, nola an desafio,  
nagusi badire inderraz?

14

“Si no declaras vas a la  
cárcel”  
dio irutan zarrenak.  
“Ori eginik, adio Marzel!  
(dio beraren barrenak)  
iru oketxen bidena mazel  
pasa ditzala kerrenak!  
Ameka olako itsusi  
partzel

baditik mundu barrenak”!.

15

Erramona agertzen da  
Ikus naiez gizona  
“¡Ola, qué tal, linda  
prenda!”  
Marzelen “etor-ona”.  
“Nire senarra nork  
senda?”  
“agoratu zaiona  
erotzean erraten da;  
zaude ixil attona!”

16

Bearra bezalakorik,  
nere emazte gaixoa,  
ez duzu autetzekorik  
oroitzeko lengoa.  
Ikus duzu gallegorik  
bidean? Arraioa!  
Ark eman neri osorik  
Erdera ta griegoa!

Amaiurko IBARRONDOK jarriak

Principe de Viana, 1966, ekaina-uztaila, 3. orr.

## NEGUA

Beti bezala, gau luzetan sartu gera aurten ere: udazkenak eta neguak au dakarte berekin. Gure lur oketan urtero au gertatzea nai izan du Egileak; ta Arek bakarrik daki zer zaigun on urtearen giroaldi bakoitzan.

Udaberria egunetik egunera luzatzearen edertasuna pozgarri izaten zaigu danoi. Udaren argi luzeak eta argi orrek ekartzen digun epeltasunak ere lasaitzen digu bizitza eta zabaltzen dizkigu bazterrak.

Naiz emen, ikuspegi edo panorama luze-zabalarekin gure begiak asetzekotan, mendian goiti io behar, beko xolan ere pozgarri aunitz arki dezazkegu udaberrin ta udan, eguzkiaren indarrak bizitz berri ta pollita lurpetik gora dakarrelako, argi luzeak ilun beltza zokotaratu.

Udaberri ta udako lana, neketsua bada ere, ezda nekazariantzat aspergarri bihurtzen, zitu aztea ta biltzea baidakar berekin. Nekazaria ez dana berriz, udara urbilduz bezala atsedenezko egon-aldia ere datorkiolako pozak arintzen du, ta udako aietasunari azken zuku ta muñaraño kentzeko ta bereganatzeko asmotan dabil.

Asmo au amets utsan gelditzea, bertzerik da. bakoitzak daki bere berri. Matsatik matsara ta sagarratik sagarrara ezberdintasun zerbait diteken bezala, batzuen ta bertzen udako atsedenean ere izan leike naski. Ebanjelioak dakarren Epulon ura bezelako guti ta Laxaro erremes orren antzeko aunitz gabiltzalakoz munduan.

Erremesok ere neguari baño arpegi ariñagoa iartzen diogu, bai udaberriari bai eta udari, otza ta gosea garaitzeko erraztasuna ekartzen digutelako, errixka ta basetxe inguruetakoei batez ere.

Udazkenaren asmenta ere ona zaigu geienean: urrian ta azaroan, badaukagu neguko zer bil: bi ok, badaukate nondik lot; badaukate zer eman.

Udazken akitzera, ordea, uzkuetzen gera: aritz ta pagoen ostoeekin batean gure aisatasuna ta lasaitasuna ere lurrera doaz; Laxaroenak beintzat...

Argi baño ilunbe geiago iresten dugu berriz neguan; iresten, bai. Ain beltza da negua! ain gizen ilunbea! Ain barren sartzen da otza! Atsartze bakoitzean atsiki egiten diogu neguko otzari; aokada bakoitza bulkatzeko, ilunbea danga-danga iretsiz.

Ilun ta otz okin batean on aundiak ere ekar dezazke neguak, urtearen zati au geroko on zaigun zerbaiterako baliatzen iakinez geroz.

Ohartu behar genuke protxuzko on oketan, atsegin zaigun lan batekin negua arinduz.

Ilun luzearen ixiltasunak ta etxetik kanpo ezin ibili izateak dakarkiguten gau luzearen asmentako zati on bat balio duen zerbaitan erabiltzeko erraztasun ta egokitasuna.

Geren trebetasun ta adimenean nola gabiltzan ikusiz, egokien zaiguna auta zagun, ta negu ilun luzeaz bizitzaren geroa argitzeko balia gaitezen.

Errazena non dagon billatu gabe. Trebetasuna, adimena ta izpirituaren argia, oietaz ongi baliatzeko eman dizkigu Egileak.

Bizitzako on zaigun zerbaitan trebetzen beginezke ta gaur ain ongi datorzen ta biarko ain beharrezko izanen diren iakinbehar batzuk guganaten bagenitu, ditugun baño maiteago genituzke neguko gau luzearen ixila ta etxeko lantegi txokoan arki dezakegun ontasuna.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, azaroa-abendua, 1. orr.



## NEGUAKIN

Negu otza,  
Egun labur:  
Suan egur,  
Gau zorrotza;  
Ordu beltzak;  
Ezin piztuz,  
Ezin gartuz  
Su-iketzak.

Aizeakin,  
Eskuetan  
Ta oñetan  
Gu miñakin:  
Sudurrian  
Otz eta otz;  
Estul-abots  
Bularrian.

Beatzetan  
Min delako,  
Kasketako  
Ezin eman  
Pilotari  
Saietsetan:  
Kaliketan  
Ezin ari!

Uzkur bear;  
Daldaraka,  
Kazkaraka,  
Mendi-zear:  
Txori gaixo!  
Gose zaude!  
Danok gaude  
Itxil: ixo!

Elurrakin  
Zamatuak,  
Makurtuak  
Pisuakin,  
Amon xarrak  
Antzo dira  
Bai, begira,  
Or, belarrak!

Bideetan

Zoaz goiti,  
Geldi, ezti,  
Nekeetan;  
Iausteetan  
Irrist nabil,  
Ezin ibil  
Lausoetan.

Horma gogor;  
Bere eztena  
Zorrotz dena;  
Kerren sarkor!  
Erorikan,  
Irristadak;  
Etzankadak  
Biribilkan.

Etxetxoan,  
Zein egoki!  
Zein goxoki  
Su-ondoan!  
Iaunarekin  
Otoitzean  
Ta pozean  
Lanarekin.

Zugaitzetan  
Ostorik ez;  
Baña zañez  
Indarretan;  
Landa-belai  
In-antzean;  
Ernatzean,  
Onaren zai.

Ikas bear  
Au guk ere:  
Ez beinere  
Zentzuz mehar!  
Eskuakin  
Lana noiz as,  
Buruz ikas  
Neguakin!

Udarako  
Sendotasun;

Argitasun  
Lanerako;  
Neguakin  
Bil ditzagun,  
Bear dugun  
Indarrakin!

Negutea

Ez da alferra;  
Da fierra;  
Moldatzea.  
Ixilean  
Ikas zangun,  
Iauna lagun,  
Guk lanean.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, urtarrila, 3. orr.

## NIK, UTSIK EZ

Bazen, bazen...

Lagunetaz baliatzea atsegin zitzaion: aien laguntza sakeskerien batekin ordaintzea ere bai. Bakardadean artzen zituen azkeneko ortarako erabakia. Ixilean zuen bere iokoa; aiez iñor ohartu gabe ariz, ta txarkeria egin ondoan, eskuak garbituz.

Iñor nabari etzanean, an zoan gure gizona, arin arin, norbaiteri papartzakeriren bat egiteko asmo biziakin.

Negurriak ongi artzen zituen aitzinetik; ta gogoan zeukana azkenearno osatzen zuen. Gero..., laister andik, ta etxean sar. Ziur ezdakigu; baña, ziotenez, eskaleraburuko bost ol, ilzez iosi gabe zeuzkanak, kentzen omen zituen sorailura iotzen zenean, norbait aren atzetik bazioan, buruz bera zulotik erori zedin. Lasai zeiteken lotaratu orrela, iñoren bildurrik gabe.

Berez maltzurra zanez, ziria bateri ta bertzeari eztena sartzea izaten zan bere besta, xikenakin lan guziak bertzei eginaziz ta, al bazuen, irabazi ta protxu guzia osorik beretzat bilduz.

Danak partzuar nai zituen lanean; bera bakarrik aski izaten zan biltzean. laneko garaian, erdi eri erdi lo zagola zirudin, naiz ez ala egon.

Salatzalea ere bazeukan, bera bezein maltzurra, unena ekenakin, ta ekena unenakin nasi ta, uni ta bertzei kalte egitera prest zagona; urak nasi ta arrantza ohea zetorkiola ongi zakiena.

Orrela, zuzen edo makur, denen berri zakin, denen ibileretan ohar, ta denetaz zer esan bazeukan. Ez omen zan lan latzetarako on: agitz on ordea bere alde izpiritu argiz iokatzeke.

Lanean ongi ari dana ezdala esamesetaz konturatzen, aspaldi ikasitako gizona zan. Bere eginbearra ongi egiteari loturik dagona, berean bakarrik dabil, geiagoko berrikeretan sartu gabe. Orretako langile oken balioa, bere ontasunen azteko ongi zitzaion. Baña, iendeak balio ontan ohartzea, etzitzaion ain egoki.: untik sortzen zitzaion laneko lagunetaz noiznai gaizki mintzatze zikiña.

Laneko lagunuen belarrietaratu zan noizbait gaizki mintzatze ori; oken atsekaberako; ienden marmaratako; bere zoritxarrerako. Ienden marmarek ttipitu zioten bere gizontasuna: gezur-elez aspertu zituen, lanean pozik ari zitzaizkion lagunak: ta aspertze unekin aunditu zitzaion gure gizonari, bere gain artutakoaz erantzun beharra.

Baña, bereusteko ta aundi baitzan, etzeukan amor ematerik; ta aferak lagunekin baño obeki zeramazkiela zion bein ta bitan nonnai.

Errankurak asi ziran ienden artean: ondamera ere nabarmendu zan lantokian; on baño kalte geiago etorki, nai ta naiez: norbaitek berari denen onetan, arpegira bota ere bai makurraren errua: ta gure gizona ostikoka abiatu, manduliek arrotu balute bezala.

Erran behar ta ere, aren gauzak gaizki zoazila, nork erran? Lanak ongi egiten etzituela, nork?

Uzta..., Frutua...; ori, besterik da "NI" laguntzeko daudenek "NI" ez laguntzetik datorkizue makurra. Makur osoa gero!! Zerbaitengatik gaizki mintzo izan naiz "NERE" laneko lagunetaz!

Len gertatukotik, bakoitxok gerok on zaigun esannai (moraleja) egokiak atera ditzagun.

Izpiritu alorrean, ez al dabilzan bat edo bi gutartean, bildur naiz, bildur. Maltzur oketatik esan nai dut, maltzur oketatik. Bestentzat, lana; berentzat ohore. Besteak neke: berek irebaz. Besteak asperrazi: berek: "NI" laguntzeko daudenek "NI" ez l aguntzetik datorkizue makurra NIK; UTSIK EZ!".

Ibarrondo

Principe de Viana, 1970, urtarrila, 6. orr.

## NORTASUNEAN BAT

Amets txoraturik  
zoana gaztean,  
onelaxe mintzo zan  
lagunen artean,  
sorterrian agertu  
zan aldi batean,  
gaztetxoei lagunduz  
zentzuan sartzean.

“Beltza, bai, beltza zala  
etxetik ioatea;  
bat-batean negarrez  
ait-amak uztea;  
bakebizitza, latzan,  
gogor trukatzea;  
ta estea (noiz arte?)  
etxeko atea!

Emendik bota nindun  
ianaren beharrak;  
nere urdallak aldiz  
gose-deadarrak:  
nere bizi lagunak  
an, zugaitz, belarrak;  
noizean beinka ere  
amets ain zakarrak!...

Neke, lan eta negar,  
nintuen nerekin  
nai ez banuke ere,  
nik behar aiekin:  
ez netzazken iruak  
arindu deusekin;  
solasik ezin nuen  
egin ta bestekin.

Mingarri izan zirean  
nere asierak;  
beltz ikusten nituen  
laneko aferak;  
ez nekin nori egin  
bidezko galderak:  
zailtasuna ekartzen  
zidan aldaerak.

Leku artara noizbait  
gazte euskalduna

agertu zitzaidan, ta  
baneukan laguna:  
arekin arintxago  
zitzaidan eguna:  
bizkortu ere naski  
nere osasuna.

Irabaz ta galduak  
artuz berdinean,  
biok lanean ongi,  
elkartasunean,  
pozik eta indartsu  
asi giñanean,  
zerua zabaldu zan  
gure biotzean.

Sorterrietik berriak...  
murrizt guregana:  
gurea ere arat...  
llabur ta bakana:  
(nola gabiltzan emen  
iakin nai duana,  
betor, ta artu beza  
guk daukagun lana!).

Bizi nintzalakoa  
zekin erritarra,  
ustegabeen ager  
zitzaidan, bakarra:  
alfer solasetako  
ni bezain baldarra:  
lanerako ordea  
abil ta azkarra.

Gure lanean, morroi,  
sartu zan gaztea:  
horrela eraman zun  
gurekin urtea:  
bere gisa, gehiago  
uste irabaztea...;  
eman zion lanari  
bakarrik astea.

Nolaz iru gizajo  
emazte gabeak,  
egon gindezke apain,  
garbi ta aseak?

etxea burutzeko,  
bertako andrak  
etzizaizkigun ustez  
nai bezein trebeak.

Asi giñan bakoitza  
geren ametsetan;  
gure gogoa iartzen  
sorterrikoetan:  
aipatzen gintun salla  
gure solasetan;  
bai eta abiatu  
eki mezuetan.

Neskatx batzuegandik  
erantzun ezia;  
beste batzuek berriz,  
zorrotzki “etsia”:  
andre baten eskutan  
iartzekoz etxia,  
nai ta naiez beharko  
ernatu begia.

Lenbizikoa nintzan  
etorri errira;  
nerau bai nintzan lenik  
ioan urrutira;  
belaxen asi ere  
begira-begira,  
noiz agerteko neskatx  
on-on bat argira.

Batzuegandik “eza”:  
nork edo nork “gero!”:  
asieran iñor ez  
ezkontzera bero:  
lenbizi topatuak...  
aundi eta ero?  
Zentzukoa ta ona,  
Agertu zan gero.

Ezkondu giñan, eta  
itzuli lanera:

nai nuen andrea nun  
ekarri etxera:  
lagunek egin zuten  
ondotik au bea:  
orai apain, garbi ta  
bake bizi gera.

Ume argi, zintzoak,  
dauzkagu etxean;  
pozik azten ditugu  
Iaunaren Legean:  
oituran goaz beti  
guratsoenean:  
Euskal Erri bat sortu  
dugu urrunean.

Nere erritik urrun,  
nekeen artean,  
nereetaz oroitzuz,  
min nun biotzean:  
baña etxea utzi  
banuen gaztean,  
etxe maite berrian  
bizi naiz zartzean.

Etzetik urrundua  
bazabiltz lanean,  
etzaitz, gazte, bizi  
otz, bakardadean;  
etxe-epeltasuna  
arki ezkontzean,  
damurik ez dezazun  
gero zahartzean.

Ortarako, adizu,  
mutil euskalduna!  
iñoiz etzazu galdu  
zure nortasuna!  
eta emaztetako  
autatzen dezuna  
beizu nortasunean  
ados ta laguna!”.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, iraila, 3. orr.

## OLIOA TA GATZA

Urtean bortz-sei aldiz bakarrik iaten ginuen etxean arroltzea nere aurtzaroan. Ez zen bikoitzkeriz, ez; ezin bertzean baizik. Gauz aunitz, eta beharrezkoak zirenak gaiñera, ekartzen zituen etxera gure ama onak arroltzetan truk. Beharko! Diru agorteak estutzen zen eta gaixoa!

Egun batez, amar urtekoa ni, etxe-zain utzi ninduten, guratso ta gaiñerakoak lanera lasai ioateko.

"*Oraintxe, oraintxe!*" nion: eta oilo-kafiz oilo-kafi, arroltze bilen abietu nintzen: eta bat, ederrena, artu ere nuen pozik. Sukal-ondoko saskitxotik artzea baiño estaliago zitzaidan amaren begientzat kafitik. Xaretoan zenbat zituen bilduak iakinik ere, kafietako berri nekez zekien, etzituen bada oiloen karakak lantokiraiño entzuten ahal.

Agoa uretan sukalderatu, eta zirikatu nuen sua; zartaina bertan iarri: ta, nere ustean amak bezala, su-burdinaren izkin batean ioz, kaska on bat eman arroltzeari eta koskoaren barrenekoa zartainera bota nuen: baiña, ezkerreko eskuko beatz aundia ahatik kosko-artekan barnasko sartuz.

Amak etzuen orrelakorik egiten; ez eta, kaska ematean, xuringoaren erdia, nik bezala su-burdinean behiti zirriztaka erortzera uzten: harek emana, osoa izaten ginuen beti: nik autsitakoaren erditsua, beatzak eta su-burdinak ian zuten: bertze erditsua..

Zartainera erori bezein laister, zarrastako sendo bat sortu zen; eke beltz samin bat sukalde guzien zabaldu; eta zartaina, aunditsu zikin bat bere zorroaren erdian sortu balitzaio bezala, itsusi bai itsusi gelditu! Naiko katazkek egin nituen, ezin garbituz.

Nere utsa non ote zegon iakin nahiean, lenbiziko besta aundia etorri zitzaigunean, ongi ohartu nintzen, arroltzeak puxitzea, amak ibili zituen aratunat guzietan.

Sua zirikatu, nik bezala harek ere; zartaina su gainean, berdin; arroltzeak zartainera ere (beatza gorringoan sartu gabe, bai), bota zituen. Baiña, nik nereari eman ez nition bi gauz an ioan ziren, bat aitzinetik, bertzea ondolik, zartainera: olio xorta bat lehenik; gatz pikor xehe batzuk gero. Eta arroltzeak ez ziren zartainari lotzen, ez ere kixkaltzen. Putxukela hartan pil pil igerikan pozik ibil-aldi bat egin ondoan, platerera, gure amak lagundu ta , plast erortzen ziren, "*ian nazak orai*" erranez.

Oilo beraren arroltzeak ziren beharbada nik ondatutakoa ta amak prestatutakoetatik bakarren bat. Nik ondatua... ori: ondatua: amak puxituak, bai goxoak!

Nere bizitzan maiz aski gogora eldu zait gertaeratxo au; lagunurkoarekin gauzaren batean behar nuken gisan ibili izan ez naizetan batez ere. Leundu, goxatu eta goxotu lezaketen olioaz eta gatzaz atzendu izen naizelako?

Batzukin edo bertzeekin zerbaitetan ari giñanean, elkarrenganako egizko maitasunak eta eramankizunak eskatzen diguten olio eta gatz pixka, bakoitza bere orduan, gure aldetik iarri izan bagenu, ez ginuke gero norbaitsueri barkazioa eskatzen ibili beharrik.

Olio, etzagon: gatza berriz, eskas edo geiegi: eta, goxo goxo aitzina eraman zitekera, zarrastako batek ondatuta utzi zuen: eke beltz tartean kixkalita. Nola konpondu gero ondorio txarra?

Asieratik olio: ari geranean, gatz. Eta olioaren, gatzaren, edo bien eskasian bagabiltz, bego arroltzea esku obeagoa duenaren kontu. Aurkerietan erori gabe.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1972, ekaina, 2. orr.

## ON-BIDEA, AMA

Illunabar batez, berze aunitzetan bezala, gizon sailtxo bat bildu zan erriko arandegi batera. Olakoetan gertatzen dana, danok dakigu. Lagunek laguneri, erran behar aunitz. Ardoa edan, belarra erretzeko: ta belarra erre, ardoa goxokiago iresteko. Ta bizkitartean bakoitzak, ongi badator, bere alderdi onak agertu ere bai. Trabeslariak, kantariak, ateraldizaleak, bersolariak, piztahazten ditu ardo onak bilkura oietan.

Illunabar ortan, ardangelako txoko batean iarrira zeuden bi gizon; adinean sartuak, baña osasunez bizkor biak, beren muxu-gorriarekin ardoak on egiten zabela adieraziz.

Ostatuko lagunak ohartzen dira bi oietan, ta “alkarri bersotan ari dituk: gozaen entzun” diote. Baña, ixildurik ere, etzuten entzuten ezer, apal-apal ta elkarrentzat ari zirelako, ardo-potaxa bakarrik beren etzuletzat autatu balute bezala. Urbildu beharko entzutekotan.

Solas funtsezkoak zituzten biok elkarrekin:

Zure ama zenak, on aundiak utzi  
zizkizun?

“Amak eman zidan  
biotz maitasun:  
Amak eman zidan  
on aziera:  
Amak eman zidan  
indar, naitasun.  
Amak eman zidan bizitz ioera”.

Bere erakusteak, norañoakoak?

“Amagandik dakit  
Aita maitatzen:  
Amagandik dakit  
Ait-amen ona:  
Aita-amen bidetan  
pozik saiatzen:  
Ait-amek dakarte  
bai, zoriona!”.

Zure amakin izaten zinuen  
solasbide?

“Amakin euskeraz  
nere itzketak:  
Amakin xamurki  
nere otoitzak;  
Amakin, altzoan,  
nere iostetak:  
Amakin taupadak  
nere biotzak”.

Arek erein zuan azi on orrek, iraun  
du zure biotzean?

“Amarengandikan  
itzkuntz ezta:  
Amarengandikan  
kirstautasuna:  
Amarengandikan  
eusko bizia:  
Amarengandikan  
sinismenduna”.

Itzez gañera, egitetan ere ona  
izango zan zure ama?

“Amak asetzen zun  
nere gosea:  
Amak epeltzen zun  
nere otz-miña:  
Amak sendatzen zun  
gaitz nai-gabea:  
Amak egiten zun...  
nik ez egiña”.

Amaren baitan zinuen ustea, osoa al  
zan beti?

“Amari nik oi  
estu-aldian:  
Amari nik aitor  
nere bildurrak:  
Amakin itz goxo  
pozen tartian  
Amak ontzen zitun



nere makurrak”.

Zerbait-zerbait gordeko zinuen zure  
kolkorako?

“Amak bazazkin, bai  
nere asmoak:  
Amak bazazkin, bai  
nere illunak:  
nere eritasun  
ta ezin loak:  
ixilean gorde  
nahi nitunak”.

Ta, zure zakarkeriak, aitortzen  
zenizkion?

“Amaren begiak  
dana iksuten:  
Amaren biotzan  
dana nabari:  
Gaizkian, Arentzat  
nintzan itsusten:  
onean , ordea,

eder Amari”.

Zure txarkerietan, ederrak entzunen  
zenituen bada?

“Amaren burutik  
egi garbiak:  
amaren egotik  
itz indartsuak:  
Biotzetik zitun  
Ama gartsuak  
ugari neretzat  
Goi-iturriak”.

Orelako ama, ze ontasun ederra!

“Ama maitagarri!  
Ama osoa!  
Mehatze oneko  
Urre garbia!  
Izazu zeruan  
bizitz gozoa!  
Nik, Zuri iarraikiz,  
Ango argia!”.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, apirila, 4. orr.

## PAKEA NON OTE?

"Erraz da Pakea"  
zion zalduna.  
"Errazago gerla"  
ots oiartzunak.

"Dirua izanez,  
pake naiteke".  
Oiartzunak berriz:  
"Dirua, neke".

"Izen onarekin...  
nai dan guzia".  
Oiartzunak: "Ori  
ez da egia".

"Osasun onakin,  
zernai banauzu".  
Oiartzunak: "Arro!  
Deus etzara zu!".

"Pake bizitzeko,  
aski lagunak".  
"gerlako ere bai",  
dart oiartzunak.

"Besten aferetan  
ez sar ta pake".  
Oiartzunak: "Ori,  
nortzuk lezake?".

"Pakezko bizitza,  
agintaritza".  
"Billa (oiartzunak)  
urrak aritzan".

"Gudari azkarrak,  
pakea ziur".  
Oiartzunak: "Ez zuk  
gerletan biur".

"Pakea berekin,  
indartsu danak".  
"Indartsu arroak,  
ez!" oiartzunak.

"Argiak lezake  
ikus pakea".

Oiartzunak: "Baita  
galdu bidea".

"Pakea, ba, non nik  
arki lurrean?".  
Oiartzunak: "Zuk non?  
Maitasunean".

"Ta nik nor behar dut  
emen maitatu?"  
Oiartzunak oiuz:  
"Danetaratu!!!".

"Erremesa dana,  
maite behar nik?"  
Oiartzunak: "Zuk, bai,  
orixe lenik".

"Esker txarrekoa,  
pake-etsaia".  
Oiartzunak: "Ori  
maitzen saia".

"Nere gogokoa  
dana, nik maite".  
Oiartzunak: "Ez da aski:  
zabaldu zaite".

"Ni maite ez nauna,  
nola nik artu?"  
Oiartzunak: "Ori,  
zeuretan sartu".

"Iñor ez dezaket  
baztertu beraz?"  
Oiartzunak: "Iñor!  
Pake izateraz!!".  
"Etzaitzu lege on  
zallen zallena?"  
"Zalla (oiartzunak)  
ta oberena".

"Munduak ez du ba  
ain ontzat artzen".  
Oiartzunak: "Ez da  
Pake arkitzen".

"Beste bideren bat  
Pakearentzat?"

"Ez da (oiartzunak)  
egizko beintzat".

Ibarrondo

Principe de Viana, 1970, urtarrila, 3. orr.

## PIKA TA USOA

Pauma (pavo real) bikaintasun aundikoa zelako otsa zabaldu zuten egaztin batzuk oianean. Au egia ote zan beren begiz ikusteko, arat doaz Pika ta Usoa. Betaurreko ezberdiñekin. Paumaren bizilekuan ibiliz ta ango zer-nola guziak gogoan artuz, ongi ohartu ziran arkitu nai zituzten xehetasun guzietan.

Naiz bere erranari balio aundirik ez eman, solas ere egin zuten Paumarekin. An luze xamar egoteko ta inguru aietan araxe-onaxe ibiltzeko aitzeki bat bakarrik zan eken solasa, Pauma ez bazan ontan ohartu ere.

Nai zutena iritxi ondoan, badoaz andik Pika ta Usoa beren alderdietara. Eta, asten da bidean Pika: "Adizu! Ohartu zera?... Bai ezin negurtu halako lepo luzea Pauma zerrenda orrena!... Bere mintzo itsusia?... Gare zaharraren sonua dirudi!... Ankak ere... ze anka zingil iñarrak!... Atzazkal puntatik pikoraño, bai itsusia egaztin gaizoa!... Ez zaizu ala, Uso?..."

Ixilik zoan usoa: ixilik iarrai ere pitta batean. pikarenak urrun eraman zituenen aizeak, asten da: "Paumaren lumeen koloreak, bai pollitak!... Nere ustean, alo!... Kukulin apaña berea, zin-zinez!... Batez ere-batez ere, ongi artu gaitu... Guk nai ginuenera etorri da; eta dituen edertasunekin gure begi ta biotzak pozez bete dezkingu!... Guretzat zabaldu dituen edergarriek txoratuta utzi naut ni seurik!..."

Len, gertaeren berriak zaillago gerenganatzen gintuenean, gutarteko bakoitxok geren aferetara begiraldi geiago ematen ginuen naski, bertzeen istilluak bertzeentzat aisa utziz.

Aurrean zoanari ez ginion oztoporik iartzen: ezin! Atzetik nor zetorkigunak ez zigun bururik berotzen. Aurrera ginoazin nolabaitere. Atzera begiratzuz, bai, noizean beinka, ta ordu txarrean gañera, anka gibelat pixka goratuz, gure galtzerdiek zurrumetan xulorik ote zeukaten ikusteko: ez gintuen, bada, oraikoak bezein zallak izatea: ibili ere, geiago ibiltzen ginen oinez.

Galtzerdiekin gertatzen zitzaiguna gertatzen zitzaigun garrantzi aundiagoko gertakizun frankokin ere.

Gerenari begirutzen ginion ordea: geren makurrak nolabait zuzentzeko. Bertzeen utskerien eta utseen arrantzan egonez orduak eta egunak galtzeko astirik gabe, geurea zuzentzeakin naiko lan genuen. Ez Pika, ez Uso: ta betaurrekoak, bertzeenari baiño gerenari begiratzeko beharrago. Gerenkoitasuna? Baziteken!

Ez gabiltz batzuk orrela gaur. Gure eginbeharren zama arintzen dugu. Lanaren goseak ez gaitu soberik atxukatzen. Bertzeen gain doazila lanak; doazila ere erruak.

Berri guzietan iakintsu izateko, nonnai dauzkagun zabalbideetaz baliatzen gera, Pikaren betaurrekoak sudur gañean iarritz.

Datozela berriak, bai; bide errezenetatik ahalez: gure pakerako eta goxotasunerako obekien zaizkigun berriak: eta gure alperkerirako egokienak.

Betorz ere, bertzeen zurrumetako xuloak zulo aunditan bihurtzen dituzten berriak. Betorz, aren do orren boneta ezker edo eskuin aldera zeharturik dabilela salatzen duten berriak. Betorz, il-zorian dauzkagun gure onak zaintzen eta ahal bada obetzen saiatzea, txarkeritzat botaz, oinperatu dezaketen berriak.

Gerenkoiak? Zalantzik gabe!

Pikatarra Pika? Ez ote ditugu Usoaren betaurrekoak danok obe?

Danok, Paumik aundiena ere, danontzat on izan diteken on zerbait daramagu: Uso izanez, nonnai ikus dezakegun ona.

Principe de Viana, 1971, urria, 6. orr.

“PINPIRRIN”-ek, ERRITIK ETXERAKOAN

Errira iautsi bear izen dut  
Etxeko lanak utzirik;  
Aspalditikan ontara nago  
Ongi ta bizkor ezirik.  
Guk baserrian beti egonez,  
Ezin genuke bizirik;  
Baño maizago beiti iausteko  
Nik ezin artu astirik.

Errian egin nere aferak;  
Lagun xaharrak ikusi;  
Elizan otoitz, zeru bidez  
Zerbait entzun ta ikasi;  
Musean ari eta pozikan  
Egi ta gezur nahasi;  
Yainko onari etzaio, ustez,  
Irudituko itsusi...

Ustegabeen ioan zait eguna,  
Ta ohargabeen gaua;  
Orain goizean “txintxo antzera”  
Etxeari buruz noa:  
“Txintxo antzera” erran bearko,  
egiak dezan lekua:  
oso txoroen gisan bai daukat  
goizalde ontan burua.

Txoriak kantuz abiatu-rik,  
Alkarri zerbait diote:  
Oken izkuntz ain arrigarria  
Ulertzen dunik bai ote?  
Maurizio gure txiatulariak  
Egin dik zerbait egote  
Txori entzuten, utzirik dana,  
Aitzur, aizkora, makote...  
Ortxen badator (mezara edo...)  
Joxepa Burdintzakoa:  
Dena galde ta ikasi naia,  
Berriketari gaixoa:  
Nik oni nola sartu ziria?  
Zertan nabillenekoa?  
Bidetik iges egin bearko!  
Au duk usteketakoa!

To!... Antxe doa Patxi Larreko,  
Goizean goizik ieikirik;  
Sasi basterrak erne ikustera,

Artetan baden erbirik:  
Amak ezdio gaur ere emanen  
Gosea iltzeko iakirik  
Eizi koxkor bat arkitutzeko  
Ezbadu izan zoririk.

Ardo beltzaren egarri nago;  
Edan nezake atsegiñez;  
Emen ezdago eskatzerikan  
Ez euskeraz, ez latinez;  
Unako iturri iori ontatik  
Xurupaldi bat eginez,  
Asi bearko aldapan gora  
Mendi aldera zin-zinez.

Alzaberriko Joxek badakar  
Astoa egur zamakin;  
Kantari dabil gure mutilla  
Goizik egin du lanakin;  
Zuzen dabillen gizonak eztu  
Lan au egiten gauakin;  
Nori ebatsi dion egurra  
Nil al banezake iakin!

Eskui aldeko belaitxo ortan  
Mutil ta neska itzketan...  
Banekin lendik asi zirela  
Eztaietako lanetan;  
Ezkontzak dakar buruauste ta  
Ixtillu franko etxetan...  
Gauz au ez bedi beñere artu  
Irri, trufa ta txantzeta...

Mendi lepoa gora zeok, ba!  
Mutillak, auxe nekea!  
Gorputza ari duk eska ta eska  
Bide bazterran iartzea;  
Alo! Goazen mendi lepora!!  
Ia ageri ukan etxea:  
Orduantxe bai, ederki zeok  
Pipatxo bat erretzea!

Goi oketatik begiratzeaz  
Ni ezin aspertu naike;  
Zenbat baserrian, emen ta or!  
Ederki ikus daiteke!  
Baserri otan zenbat zorion,

Lan, atsegin eta neke!  
Ixiltasuna, bakardadea,  
Aldiz asarre ta bake!

Noa emendik, aldapan bera;  
Alperrik da luzatzea;  
Sermoi galanta asmatu-  
Antxe daukat emaztea;  
Erratsa balitz etsiko zidan  
Pozik etxeko atea;  
Bein ta bietan logela izan dut  
Etxeondoko labea.

An agiri dan baserri artan  
Seme bat dute frailea;  
Beste bat berriz Ameriketan,  
Diru aunitzen iabea;  
Misio lanetan dabil alaba,  
Animen salbatzalea;  
Seme gaztena atera zaie...  
Etxeko ontasun ialea...

Besten bizitza utzi bakean,  
Nereakin daukat lana;  
Etxera urbiltzen ari naiz, eta

Leiotik erne Susana;  
Emazte on ta biotz ezta!  
Etorri zaitetz nigan!  
Ikusi ongi nola ez nagon  
Zuk uste bezain edana!

Hamabost egun emen sarturik,  
Lanean egun guzian;  
Ez dut merezi atsedentxo bat  
Noizeanbeinka errian?  
Lanean ariz, Susana maite,  
Miña egiten zait gerrian;  
Gaitz au sendatu bear badugu  
Ari bearko musian!...

Itz leunekin ezin txoratu  
Nik orain nere emaztea;  
Oberena dut nere ustean  
Bera bezala ixiltzea;  
Al bezain laster aizkora artu,  
Lanean sendo astea;  
Hamabost egun lo lanean! Ta...  
Eginen diot bestea...

Ibarrondo

Principe de Viana, 1967, uztaila, 3. orr.

## SAGARDIZ SAGARDI

Aurrean ez zaudenen utsak eta akatzak usmatzeko ta aizetzeko bakarrik balio zuen marmarketa batean, ixiltzea obe ez ote zen erran zuenean batek, hau entzuteko lana izan zuen:

"Egon aisa; ez estutu: auzoko etxolen tellautuetara arri koxkorak botatzen, saiatzen gara, bai: gezur-eztul ttipi batzuk ere, noizean behinka egiten ditugu maltzurki, haren edo horren izenak aipatzen ditugunean: izen onaren eskindeiak pasatzen ditugu aldika, sar-atera eta ahin laburrak ere bertzeen bizitzetan eginez. Zer kalte emendik iñoiri? Denbora pasa gabiltz".

Aurtzaroan erri inguru ginituen sagardietara zoan nere oroimena, hau entzuterakoan.

Sagardi ta sagarren berri bagenekien lenbiziko aurtzaro ederrean. Zein lekutan zegon sagardi bakoitzean sagar goxoena ere bai. Agoz ago, batetik bertzera kurri zebilen berri hori, denen gogotan hartarako egartsu bizi bat sortzeraiño.

Ixilka sagardietaratzeko, geren bidea ginaukan bakoitzok; iabearen atzaparretatik ies egiteko bide errazena nonbait.

Iabeen harat-hunatak, etxetik ateratzen eta bertaratzen zen orduak, non zituen egiten lan eta egote luzeenak, den-dena ikusi beharra izeten zen, dirurik eta ustegabe aundirik ere gabe, sagar on-onekin sabela betetzeko.

Sagardiz ornituak zauden bazterrak: batean ez bazen, bertzean sarbidea gure esku beti.

Lastozko edo iretzezko legordun etxola zeukaten, erditsuen, batzuek. haren barrenean zer edo nor ote zagon, ez iakinki guk! Gizonki bat balitz... nonbaitor; laisterka nagusi ginezke ta: bildur geiago ginion xakurrari, ez ezaguera ta ez sinismen, ahal zuen autsikirik aundiena egiteko asmotan etorriko zitzaikulekotz. Zer gerta ere, arri koxkor batzuk botaz, gezur-eztul ttipi batzuk eginez, eskindegitik sar-atera batzuekin, etxola utsik ote zagon taxutzen ginuen aitzinetik.

Bertzeen sagarditakoetaz ase; geren sagarditakoetaz ahantzi: hauxe zen funtsean egiten ginuena: hango ta horko belar xamur goxoak zanhopetan tapitu, kalkatu eta zikindu ere bai, iabeen kalte ta naigaberako.

Azken hau, kaltea, ez ginuen lenbiziko aurtzaroan ikusten. Ez gara, ez, orduen bezala ibiliko horai. Agin eta ortzak alfertu zaizkigu ere. Ankak berriz moteldu. Mingaña bakarrik trebe.

Bertzeen uts eta akatzak bilan ote dabil mundu osoa?

"Nere nahi ta nahiezko zaletasun eta ioera hau da: munduko negar-malkoak idortzea, xukatzea, begietara datozkion guzi guzietan. Nerekin batean negar-malko hoken idortzen, xukatzen, saiatu nahi luketenen bila nabil aspalditik, urte hotan".

Errana du batek. Arkitzen ere omen ditu lanerako lagunak.

Pozgarri, egiz. Beren sagarditara daramazkite, gozotasunaren gosean arkitzen dituztenak, biotz maitasunez asetzeko; iñoren baratzik ondatu gabe; iñoren legorrik arrikatu gabe; iñoren uts eta akatzetan mutturik sartu ta zikindu gabe.

Pozgarri, pozgarri.

Agur.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1972, uztaila-abuztua, 8. orr.



## SEI MIÑAURI, URRIAN

1) Gaztain-ondo gainean, agakin zafra-zafra, gizon bat lan ta lan ari da. Adar-nagusiari bizkerra eman, bi zehar-adarretan bi ankak iosi, eta, iarraiki gertu ta lasai batetik bezala, murkutseri eman ta eman, gaztain-ondoa arront ustua utzi arte.

Laguna, lurrean dabil; erori diren murkuts guziak ezin bilduz. halako batean hunek betik gora: !Aizak, i: utzak ordu baterako bedere lan hori neretzat: ez duk beti errexena ik egin behar!".

"Igo adi: ta non obe, ikus!".

Igo da: gaztainaga eskuratu diote: alde batera ta bertzera dabilzki begiak, eta murkuts bat ere iñon ikusten es.

Dil-dil-dilka asten zaizkio belaunak; eta izialdurezko dardar horrekin, ez pentsa gero!, eroriazten ditu ere lurreratu naiez dauden murkuts batzuk.

Abarretan ibiltzeko oiturarekin bat: oitzekoa bertzea.

2) Egunero basetxez basetxe dbil sendagilea, osasuneratu naiez eriak. Hala ere..., hala ere, ez daude denak hunen alde: noizean behin miña ematen baitu sendatzean: bat edo bertze, banaka banaka, iltzen ere zaizkio ta. Arrankurekin hase, asperrazi, handik bulkatu dute.

Sendagile berri bat agertu da; berek nahi bezalakoa; aunitz dakiena. Honek, iakintsuki, bidean ibiltzerako on diren eriak bere etxera etorriazten ditu: ezin etorritakoa astetik eriotzarakoaren tartean aski neketan dabilzeneri ikustalditxoak egiten dizkie: auzokoek errirateko dituztela ilak badaki.

Nork edo nork "mendik mendi oitua zen hura hemen bagenu gaur!", omen dio kolkorako, horaiko ioerari ezin oituz.

3) "Elizatzkoa, ez naski katedrala, baiña, bai polita! Emengo iendea ere, elizkoia! multxo ederra biltzen omen da elizkizunetara; eta... nola erantzuten maiteki artzaiñaren deiari! Ementxe banintz, a zein apez ona ni! Berezko ontasuna duen erriarekin, lana ez da lana!

Harat bialdua izatea eskatzen du eta ematen diote.

Handik bertzeko..., elizen bertan, ixilen ixilez, bazkal-ondoko kuluxkak egin zezazken: bai ta arratseko lo luzea ere.

Hartara oitu zuelakoz "berezko ontasuna"rentzat artu (edo utzi) zuen "lan ez-lana"k.

4) Erri ta hizkuntza berean haziak bi. Urteekin, erritik lekutu dire ta elkargandik urrundu. Gero, noizbait, solasbidea izan dute. Bat, aurtzaroko izkuntzan trebe-trebe; bertzea, kiskili kaskala neketan. Hontaz arront arriturik bigarrena. Aurtzaroko oiturak noratnahi iarraiki dio maiteki lenbizikoari. Bigarrena, lazoren lazoz, ez kai bihurtu da.

5) Bi mutil koxkor ikasketan dabilz. Hau, pilota iokoan lotzen dana da; iostaorduetan bakarrik ahatik. Harek, dirurik ez duenean kaxkabil merkeekin eta erosteko ahinbat duelarik kañikekin, denbora galtzen du, sasetako xaguentzat liburuak bide bazterretan lasai utziz.

Biok ikaste-saria (beka) irabazi nahi dute. Biok azterketak (examinak) izan dituzte. Lenak irabazi du saria: bigarrenak, kaxkabilak bakarrik ekarri ditu; hok aundiak, baita borobilak. Bere oitzeari dagokiona bakoitzak!

6) Egunkari (diario) batek diona bakar bakarrik siñesten du gizajoak, hartan bakarrik dagola egi osoa ta bakarra ustein. Beraren bila doa goizean goiz tarrapatata: eta otamen goxoena baiño gose geiagorekin graka-graka irensten du dakarren funs guzia. Gero, hartan sinismenaren herroak indartu eta mundukoak beren gora-bera guziekin iuzkatu. Nor egian tinkoago bera baiño?

Behin ta bitan idazlan (escrito) samiñak eta bere gogoko ez diren batzuentzat mingarriak irakurri ditu; eta, eskuak marruxkatzen dituela, idazle hoken ausardiakin poztu da. Hortara Goi-Maitasunara baiño obeki oiturik daukelako biotza.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1972, urria, 6. orr.

## SOLAS TA SOLAS

**Maritxuk:** Bidexka artatik datorren gizon ure Zenon ez alda?

**Engraxik:** Ure ber-bera arront.

**M.:** Ez nuke bada berarekin topost egin nai: aspaldi itzketatu ginen biok bizkorki: ta ordutik mutur gaude; gurutzetean, elkar itz murriz batzuk, ta aski! Pelixekin apustu irringarri bat egin omen du ere gañera nere bizker, arrano orrek!

**E.:** Zer apustu?

**M.:** Nik ematen dioten itz bakoitzari, berak itz laburragokoakin erantzunen diolako.

**E.:** Orduen, zuen aserrea ez da bekatureño urbilzen ere: franko kristauki zabiltzate. Eta... saiatu al zerate Pelixen aitzininean noizbait?

**M.:** Pelixek eta Zenonek nai bai: baño ez dine irrik eginen: ez zeon deus egitekorik, nik nai ez izenezgeroz.

**E.:** Ez datzute saririk eskeñi?... Apustue ontzat artzealde edo?

**M.:** Pelixek, bai: bertze orrek? Iñer ona!

**E.:** Pelixen eskeintze, ona izenez geroz, naikoa duzu naski.

**M.:** Txarra ere ez da: hogeï astokarga egur Zenonen xararik, au lo dagonean artu, ta nere gorapera ekartzea; neretako, iakine!

**E.:** Zenonen xararik bera lo dagonean Pelixek hogeï astokarga egur ebatsi? Ez diñet uste! Gañera, egiten al balu ere, ez dezakezu ori iñolaz ontako artu: bere xararik ekar ditzala Pelixek: ez da zil ebastea.

**M.:** Arrazoin duzu: erran nion berari ere: Zenonen errekiekin nik etxeko sukaldea urrindu? Ez orixe! Azkenerako ia-ia bere egurretik ekartzekotan gelditu zen Pelix. Baño nik apustu au galtzeko beldur gogorra dauket: Zenon nor den badakizu gero! Garaitu nai nuke berriz nik, eta...

**E.:** Bai, bai: bildugarri eta ernea da Zenon. Bidean gurutzetu zeraten bakarretan, itz gutien ta laburrenak, nork?

**M.:** Berak, emakumea, berak! Ni, beti oharketan; eta ure, beti erne ta erantzun motz!

**E.:** Zer geratuko ote gaurko ontan? Urbilduz datorkigu gizona. Ikus dezagun, alo! Zure barren ortan sar zaitze ta asmatu: eta bat-batean bota iozu itzik egokien eta motzen-motzena. Ia zer erantzuten datzun.

**M.:** Oraingoan... bai! Nik uste baietz: garaituko dut: nai badu ta ezbadu, ixilik gelditu bearke gaur gizajoak: nire itza baño laburragokorik ez du arkitzen al iñolaz ere.

**E.:** Alo, alo! Eleak utzi, ta erne ibili; emen daukezu Zenon: bota iozu bat-batean zurea!

**M.:** (Zenoreri) IBILKI?

**Zenonek:** ERE?

Ibarrondo

Principe de Viana, 1967, abuztua, 4. orr.

## SOLAS TA SOLAS

**Maritxuk:** Baru ta bijiliez zuk baño gehiago dakitenak badirela, Engraxi!

**Engraxik:** Ez dun gaitz: iakitanean ni baño gehiago, edozein: ortaz biali nai nanen apezarengana. Zertan zeon makurre?

**M.:** Urtearen orzilarre guziek bijili egunek omen dire: zuk garizumekoak bijili egunek deitzen dituzu; gañerakoak berriz penitenzi egunek...

**E.:** Bai; baño bigarren egun oietan autetzen al duzun gauze bijili egitea ere dela erran natzun; ez zara ooitzen? Au duzu gañera urte guzien Elizaren lege au betetzeko bide oberenetatik bat.

**M.:** Bai, bai; baño... elizeko kutxatxo batean diru pixka bat urtean bein bota... eta urte guzien lasai-lasai egon gaitezke, non zeneukezun? Estu samarra zara gero zu!

**E.:** Ez duzu gerore maukezabal orrek orzilarero Dotriña edo Ebanjelioak ikasten aritzea autetu! Urte guziko orzilerak penitenzi egunek dire, zuri eta zu bezelakoeri egi au atsegingarri ez bazaitzue ere!

**M.:** Orzilerre guziek, ez. San Jose, Salbatore, Bestaberri, San Pedro, Santiago, Amabirjin egunek ta bertze bateonbat orzilerrean izeten bada, ez da egun ortan bijili egin bearrik, ez ta penitentzik.

**E.:** Salbatore ta Bestaberri orzilerrean izenen diren urtean, egun oietatik bakoitzerako, pozik alare, emanen datzet aratxe eder bat.

**M.:** Itzeko emaztekie zaitugu?

**E.:** Bai; beti; ta untan batez ere! Goazen orai aferar garbitu. Penitentzi egunek baldin badire orzilerreak, penitentzi egin beariko guk orzileretan. Urtean bein sos pizer bat emanen, gure Eliz Amari leialtasune eta gure Iainkoari gure bekatuen zorren ordaintzeko naia guk nola agertu? Saltsa zikin guziek diruekin estaltzera oituek gaude; animekoak ere sosakin kalamelatuko ditugula uste naski...: baño untan ere ez nenbilen lengoan burutik maingu, ez; bearretan dagon bat, orzileretan laguntzen al duzule, NAI BADUZU DIRUZ, erran natzun. Untan eta gañerako gauzetan, egin bear dugune ongi autetzean eta zintzo egitean dago aferar; ez, legetik igeska bezala, errazena autetzean. Eta... autetzen dugune, geren onetan bezala lagun urkoaren onetan egiten al ditugunetatik baldin bada, negurrigabe obe guretzat.

**M.:** Zuk diozun penitentzi au, orzileretan, ta bakar-bakarrik orzileretan egin bear dugune dala erran daut bada bertze norbaitek...: ta zuk, gure gizonkiendako seurik, igande arratsera aldatu nai zinukela zenion: orai, zer?

**E.:** Zu ere aski sendo zineuden nire alde egun artan itxurez! Baño aizea bezein aldakorra beti zu!

Dirue urtean bein eman, eta kitto: astelenakin ematen baduzu ere: gauz erraza da, eta pozik zaude unekin, ez da ala?

Baño geren onetan eta gure famili osoaren eta erri guziaren onetan den sakrifizio bat, orzileretik igandera aldatzea, (atx! Eginazten duelakoz) ooo zer bekatue!

Gaixoak gu! Diruekin, diruekin erosi nai dugu, bai, zeruko zoriona ere!

Ni baño iakintsuagoak, nonnai arkituko dituzu: zoaz, ongi bazaitzu, ek erakutsitako bide goxo ta errazetik.

Eta..., ez neri etorri baru-bijilik geiago aipetuz!

**M.:** Ezetz? Datorren Salbatore ta Bestaberritan, Ikusikon! Iaz orzegunekin zitunen gero! Oroitzen naun ederki! Ze aseak egun oietan ire bizker, aspaldiko partez!...

Principe de Viana, 1967, ekain, 4. orr.

## SOLAS TA SOLAS

**Maritxuk:** Orai oroitzen naizena; aizu; arkitu zinuen azkenean etxekoandre gazte gaie?

**Engraxik:** Bai: nola ez bada? Asmo onakin ta danok bat eginik saiatzea aski.

**M.:** Gero agiriko! Gaurko egunean ez da nekazal etxera ezkondu nai duen neskatxik: aski ongi dakit nik au; erran natzun len ere.

**E.:** Zuk iakin, ez; uste. Oraikoari, gaurkoari bakarrik begiratuz bizi direnak, sailtxoa izeki zoritxarrez gutartean; baño zentzu onekoak ere badauzkegu, eta ez gutti, iainkoari esker; naiz ok ez ainbertze burrunbe atera: au de egie.

**M.:** Nekazariekin ezkondu nai ez duen neskatxa, zentzu gabea geroztik?

**E.:** Neskatx batzuk nekazal etxerako ta bertze batzuk bertzeetarako egin ditu Iaungoikoak. Ez eta ok bide ber-bera eraman bear luketela diotenak zoroak dire, nire ustez behintzat, alo...

**M.:** Ez dakit bada! Neska bakoitza, arrankure dariola!...

**E.:** Arrazoñezkoak direnean, arrankurek agertzea, gauz ederra ta bearrezkoa da. Orain arte, makur iokatu gara gauz untan; bertze aunitzetan bezala gañera, menekoak eta gazteak beti ixilziz.

**M.:** Engraxi! Au bizkorra erran duzu!

**E.:** Zertaz? Ixilik egonez makur zoazin gauz franko, elkarrekin mintzetuz zuzentzen ari dire; eta aintzinat ere zuzendeko dire.

**M.:** Nola? Nola? Zarhañe kiderretik uzteko ordue neri ere etorri orduko ikesi nai nuke zure agotik...

**E.:** Batek eta bertzeak gauz batzuetan amor ematean dago aunitz aldiz dena edo geiena. Ibili ta ibili, gutti dire nekazal etxe batera ezkontzeko gogoa neskatxei ttipitzen daben gauzek.

**E.:** Zenbait seurik, arront egizkoak.

**M.:** Zuenarenak? Ia ikusi!

**E.:** Au sorgine! Iakin bear! Una emen gure etxekoandre gaiaren arrankure bat: etxerako bidea. Gu, ibiliz-ibiliz larriek, ez ginen aunitz aldiz ohartzen ere: bera berriz, karretera bazterrean ez bada, ondo-odnoan bizi delakoz, gure etxerako lohiek izitzen...: nola xuxendu? Berari arrazoñe emanaz: eztaietako ongi ta bear bezalakoa eginen dugula itz eman diogu.

**M.:** Arrankure ori bakarrik? Ez dinez uste! Nai duen tokire lohiengatik prest izenen dun, bai!

**E.:** Lanarena ere bai. Belarrak, iratzeak eta bertze lur-lanak ikeratzen dute; ta nor ez?

**M.:** Or zeon, or! Ez dun, ez, zuen etxean iñor gaitz ori sendatuko dionik!

**E.:** Ustez behintzat bai. Beitegi berrie egiten ari garela ikusi du: “silo” baten asmoa ere agertu ginion: idortu bear dugun belarra igitzeko ta biltzeko tresnak baditugu lendik: txerrien moldatzeko lana erraztu ginuen: lur-lan geienak gizonen egiteko gisen iarriko ditugu, etxekoandrea, alez, etxeko lanekin bakarrik gelditu dedin.

**M.:** Sosa azkar izeki zuen etxean!

**E.:** Xuhur ta neketan, zuen etxean bezala gurean ere. Baño etxearen eta etxeko onetan diru gastatzeak ez daku minik ematen.

**M.:** Orai au: zuek arenera, osoki denetan: ure zuenera, zertan?

**E.:** Gu denetan arenera, ez: arrazoizkoetan bakarrik. Bera ere, batean baño geiagotan gururatu da. “Telebisiok” txoratzen du: baño nekazari etxean, aurrerapen aundi ta arrigarri orri geiegi begire egonezgeroz, lanek atzerapen aundiago ta arrigarriago nai ta naiez. Lanari ta atsedinari kalterik ez egiteko negurrien bakarrik begiretzeko diola itz eman dau.

**M.:** Itz ori betetzen badu...: eta::: etxeko lanak, norentzat?

**E.:** Eguraldiek dauzke zurekin asten den neskatzak! Bizitzekotan, etxe guzietan lana egin bearke dela, garbi ikusten du buru argiko neskatxak. Eta dena erosiz bizitzeko, edo diru zaku aundi aundi bet, edo aste bakoitzean baru bat baño gehiago bearrezkoa dela ere bai. Nekazari etxetan eltzea zurekin gizendu ta konpondu eta kanabitekin zerei sakail egin, urtearen egun geienetan, badagola ohartzen da neskatx argie.

**M.:** Arrazoin din, bai, zenbaitzuk uste ezbadine ere!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1967, maiatza, 4. orr.

## SOLA TA SOLAS

**Maritxu.:** Engraxi! Baru-bigiliek nola egin aurten, erakutsiko datazu gaixo orrek!...

**Engraxi.:** Apez iauna gauz berean ari zaigu bada aspaldion: igandean azkenik...

**M.:** Bai? Ez nion aditu. Txerrie erdi bearra, ta San Anton'i arrosarioa erreza ta erreza aritu nintzen.

**E.:** Zer?

**M.:** Badakizu...: egun guzien ta aste guzien lan ta lan...: ta igandean, elizeko ordutxo ortan gauz aunitz egin bear...

**E.:** Auxe bai egi borobile! Gauz aunitz egin bear; eta denak ankaz goiti. Gero gertatzen zaitze...

**M.:** Bon! Bon! Ez aserretu! Nik uste nuen apezek "pedrikuetan" beti gauz berak erraten zituztela: onak izateko...: dantza lotuen ez aritzeko...: soñeko luzekin eta galtzerdiekin ibiltzeko...: neskatxak mutilekin egunez bakarrik solastatzeko... ta ola...

**E.:** Gazte zinenean zerbait-zerbait entzun zinuela, ikusten da: baño orduko pixka ta "modatik" pasatuekin bakarrik gelditu zarela ere, nabarmen duzu. Goazen baru-bijilietara. Nire erranakin ez bazara fido, io apezarengana!

**M.:** Zure agotik baño aundiagokoak arenetik entzuteko? Ez alaxeme!

**E.:** Oartu ongi. Orai, nire iduriko, baru-bijili egunek badire: bijile egunek badire: ta penitentzi egunek badire, naiz ok ere bijili egunen izena eraman.

**M.:** Baru-bijili egunek, gutti izenen al dire!... Biek batean egitea, batez ere gure gizonkientzat, gauz zalla da gero!

**E.:** Ba! Ez da zure zorroa ere porrusalda utsekin ixiltzen dena, ez! Baru-bijili egunek, bakar-bakarrik bi dire: Austerre egune ta Orzilare Saindua.

**M.:** Austerre egunekoa, ederi; gure gizonen iñautetako sukarra kentzeko! Bijili egunek, zein dire?

**E.:** Bijili egunek, Garizumeko orzilare guziek. Eta bijili egitera hamalau urte bete guziek bearturik gaude: baru egitera berriz, ogeitabatetik iruantanogei artekoak. Garbi dago?

**M.:** Bai, bai! Gure apezak olaxe erakusten balitu..., gogoan artuko nuzke, bai, nik gauzek!

**E.:** Aski garbi montzo da apeza: Zu linboan bizi, zu! Goazen aitzine, Garizumetik landara orzilare guziek, penitentzi egunek dire.

**M.:** Oi, oi, zenbat! Oietan guzietan, zer egin bear dugu?

**E.:** Geren burueri bortxa: egitea gostatzen diren gauz onak egitera geren buru-biotzak oitu. Zuk eta nik, zure etxekoek eta nire etxekoek, egiten al ditugun gauz batzuk erranen dazkitzut. Egun oietan, nai baduzute, bijili egiten ahal duzute. Naiago izenez, baru. Obeki bazaitzute, Meza saindua entzun. Edo etxeko guziok bateratu ta Errosario saindue erran. Edo famili osoak sukaldean "Dotriña"ri begiraldi on bat eman.

**M.:** Bañegu bearra, no!

**E.:** Edo Liburu Saindu edo Bibliaren zati bat etxeko batek irakurri edo leitu, eta danok entzun eta gogoan artu.

Bai eta autatzen ahal duzute ere ttantta uztea: pipatzeleek, ez pipatzea: eta aski penitentzi zalla, lagunurkoaz egun guzien ongi mintzatzea.

**M.:** Ortzilareoro penitentzi auxe bakarrik ongi eginez, saindutuko ginezke nik uste!

**E.:** Berdin, bearrean dagona laguntzea (lanetan, edo diruz, edo erakuste on batekin, edo bere zalantz edo dudetan argitasuna emanaz ta bide onetik lagunduz). Eta zenbat orrelako gauz on ez ditezken egin elgarren onetan!... Gauz ok ez bazaizkitzue gogokoak, zoazte apezarengana, ia arek...

**M.:** Ongi nonbait apezarengana bialtzekotan zabilte! Otx xamarra naizela zuk uste naski!... Galdera bat: eta preziski au ortzilarean egin bear dugu beti?



**E.:** Arrazoin aski baldin bada, alda daike berze egun batera nik uste. Eta untan, zuk eta nik, berze frankok bezala, zer egin eta eginazi baginuke alaintso!

**M.:** Zer bada?

**E.:** Gure senarrentzat, gure seme-alaba kozkortuentzat, ortzilaretik igande, merkatu, feri ta zorrobetetara penitentzi egune aldatzea. Afalordurako etxerat egun oietan ere etortzea, izen bedi okentzat penitentzie: baño afalondoan etxean gelditzekotan!

**M.:** Or zeon, or! Nere Pello afaltzera... etortzeun noizbaitere! Bai ordea berriz ateratzen! Penitentzie... penitentzie... nerea, nerea penitentzie!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1967, otsaila, 6. orr.

## SOLAS TA SOLAS

**Maritxuk:** Non zbiltz, Engraxi, orrelako laisterretan?

**Engraxik:** Ementxe, leher egina, nire semearentzat andregai bilen. Lenago, nolainai arkitzen zen etxekoandregai; orai..., ezta arrixin argiekin ere!

**M.:** Ondoko bilen zbiltzela egie badiozu, gaixoa zu! Oraiko neskatxak ez daude gu eskongaietan gineuden negurrien: guk geren gaztetasunean ikusi ta ikasi ginuen baño egun aldiz gehiago ikusten eta ikasten dute oraikoek!

**E.:** Ikusten eta ikasten..., zer?

**M.:** Gauz aunitz, Engraxi, gauz aunitz; guk, zoko unteko berri genekien bakarrik; oraikoek, emengoa ta bertzena dakite: itxurez seurik...

**E.:** Ta zer, Maritxu, ta zer?

**M.:** Ez dkait, bada! Berek nautena egin; ta gu, ixilik egon bearke. Eta nai duena egitera iartzen denak, ez baitu menean betiko iarri nai...; ez baitu nerabe bizi nai...

**E.:** Etxekoandre... ta nerabe? Etxekoandre... ta menean? Zure ateraldi sakets okin kixkaltzen naizu!

**M.:** Menean, bai, ta nerabe. Ez duzu uste? Ikusi! Zu, izenez etxekoandrea zara; ni ere bai. Baño izetetz? Zu te ni, sukaldeko lanaren menean; txerri te olloen menean; igande, besta merkatuetan berriz, bei aratxe, beor ta astoaren menean. Senarraren nerabe; ta umeen nerabe; umeak amabi-amairu urteetarazgeroz batez ere: itz erdi bet ezin erran oki gure arrazoñek adierazteko. Auxe gertatzen zaiku nekazari etxetan. Ia zer diozun!

**E.:** Eta Iruñeko ta Donostiko karriketan bizi diren etxekoandre guziek, iduri duten bezein etxekoandre ote dire? Ala uste al duzu zuk?

**M.:** Nik ez ala uste; gogoan pasatzeko ere! Baño zure ta nere alaba xorandek, bai!

**E.:** Nekazari etxetako bizitzaz, nerekin mintzatu zaren bezein beltz mintzaten bazara zure alabekin..., zure umeek nekazari bizitza ez gogokoa izetea ez da arritzeko! Zertaz ez dabezu nekazari etxetako onak ere maiz-maiz aipatzen? Ohartu daitezela onetaz ere!

**M.:** Zuk aipatzen...

**E.:** Nik, bai; ta ez guti; ta ez guttiten. Etxeko ogie barrideko artoa baño obea delako ori ongi sartu bear gure umeen buru-biotzetan!

**M.:** Eta ala ere zu, etxekoandre gaztea ezin billetuz...

**E.:** Ara, betiko trastea! Nik nere alabak ahal bezein ongi ezten ditut; ta zuk, zureak ezitzu. Ama bakoitxak, bereak ezi behar ditu. Ta... semea alabakin ez dezazket ezkonazi, aski ongi dakizun bezala. Danok gure alabei sortetxea ta errie maiteazten saiatzen bagara nagusigai guzientzat etxekoandregai sega!

**M.:** Adi zan, adi zan, traste unen agotik ik ezin uketutako egi bet. Guk bakarrik; ama ok bakarrik ari behar diñegu lan unten? Gure senarrek, ez diñe deus egitekorik? Gure mutillek, beren aiteen bidetik iarritzeko asmoak ditiñe ezkon ondoan? Gu ta gure alabak, igande ta astelen, lanean leher egiteko; senarrak berriz, igande, besta, merkatu, te atxiki-matxiki bertze egun frankotan, pulpe-zakuek balitun bezala, danp-asean ta ohupelakoan? Engraxi, Engraxi! Gauden eguneko nexkatxek emazte-nerabe izete au ez diñe ongi artzen. Eta ez zekiñet ez ote...

**E.:** Ixoooo!

**M.:** Ze ixo ta mixo! Egi bet dantzatzea ez diñet zil edo?

**E.:** Egie... egie...! Baño... mando pusterkari au ferratu, nork?

**M.:** Begire zan! Zuzen edo makur, mando orren puzter ostikotik igeska dabilten beren ustez gure neskatxak. Ezeon aratunetik.

**E.:** Norbaitek ernatu bearke geroztik! Baño gizonki guziek ire Pello ta semeak bezalakoak direla, ez zanela uste!

**M.:** Gerore! Piko azkenean...

Ibarrondo  
Principe de Viana, 1967, urtarrila, 6. orr.

## SOLAS TA SOLAS

**Marik:** Zuen etxean egun oketan daukazuten neskatx ori, nungoa duzute?

**Engraxik:** Ez al zera ohartu? Gure osabaren alaba duzu.

**M.:** Arrazoi duzu! Azi bai azi neska! Bere indar oiekin, lanetik diru aunitz aterako du?

**E.:** Orai asi bearra...

**M.:** Baño... oraindik sos bat ere irabazi gabe adin ortan?

**E.:** Orai arteko urte oketan, ikasten ibili da: emendik goiti, bainkoa lagun, lanean abiatuko da.

**M.:** Eta hainbeste urte ikasten..., nitz zor dabela errateaz lotsatzen ez dana.

**M.:** Au ere badugu? Ximixta! Zer ateratzen du ainbertze itzkuntz iakinez?

**E.:** Zer ateratzen duen? Itzkuntzak iakiteakin bakarrik, deus guti: itzkuntzekin batean bertze gauz batzuk ere ikasi dituen bezala ikasteakin, aunitz.

**M.:** Zu ta ni bezalako baserritarrak eta baserritarren umeak ez dezake orrelako gauzik ikasi.

**E.:** Aski ongi dakizun bezala, zu ta ni bezein baserritarra da gure osaba: ta aren umea da neskatx au. Baserritarren buruetan ere Iaungoikoak argia iartzen du. Argi ori, itzaltzera utzi bearrean, sendotzea da neskatx unek bere guratsoen laguntzakin egin duena. Iaungoikoak emanako argi eder ori itzaltzera utzi dugun aunitz baserritar ez al garen nago.

**M.:** Baliteke, baliteke: baño ikastera doazen baserritarrak, arrotuta datorz; beren erritar nekazarietaz irri gogotik egiten dute!

**E.:** Ez denek; gure lengusinek, gutiago. Pozik ari da nekazantzan; eta baratzako bere lana, ikustekoa da. Danok elkarren bear gerala, bein baño geiagotan entzun dugu etxean bere agotik.

**M.:** Ez dakit bada... ez dakit bada...! Nere alabek diotenez, naiko bazterreratze eraman bear omen nekazalgoko umeek...

**E.:** Begira: utsarte aundi bat dago nekazari ta bertze oien artean: auxe da gure istillu gorria. Zu eta ni bezala, Auzpegiko ta Xarako nagusi-etxeoandreak eta beren seme-alaba geienak, eziakiñak eta lanean lehertzen: Auzpegiko Joxe, "beterinario"; ta Xarako Mirentxu, "enfermera". Biok, beren etxeoeri eta guri gainbehera begira; eta gu... petik-gora, ek ezin ikusiz eta ekena ezin eramanez. Auzpegiko eta Xarako bertze umeek, eskola geixago izan zezaketen, nik uste, beren ta Joxe ta Mirentxuren tarteko utsarte ori obekixago bete arkitzeko. Ta zuk eta nik ez badezakegu eskolik ikasi, gure umeek bedere ikasi bezate geixago, gutaz eta gure umeetaz irri egiten duten oiek ixildu ditezen, eta gure iendaki iakintsu alfer-gastu ez zaizu?

**E.:** Zuk bezla uste nuen nik ere: baño neskatxaren erranakin, eta nerau berebaitan agertzen dan ez dakit zer batean ohartzuz, nire ustea ustela zela ikusi dut.

**M.:** Zer erran datzu neskatxak? Zer ikusi duzu berebaitan, urte oiek alfer-gastu ez direla izan zuk neri errateko?

**E.:** Begira: nere lengusin unek, lenbiziko dirua non arkituko, gu bezala asi balitz, bere bizi guzian, Iaungoikoak emaneko argia zokoan idukiz, gu bezala lan arrontetan ari bearko luke. Guratsoek lagunduz, bere buruari gogor egiten iakin izan du: dirua eskuratzea, geroko utzi du: iakitatea bildu lehenik: iakitateak, era aunitzetako lanak egiteko erraztasuna ekarri dio: berak nai duen lana autatzeko eskubidea dauke orai; ta ongi saritutako lana gañera: guk, lan bat bakarrik dakigu ta xakarki: guk, lan unen ondorioa, nekea ta ezintzea; neskatx unek, bizitzak laguntzen badu, kezka gabeko xahartze goxo.

**M.:** Ba! Itz ederrak! Urte oketan guzietan, beti liburuen artean egonez, diaburrik ez badu, kalia aski berotu ta naikoa ikasi izanen du?

**E.:** Ez da beti liburuen artean egon. Urteoro bakazio ederrak izan ditu. Bein baño geiagotan unat ere etorri izen da, zu ez ohartu arren. Ta... berak diona, entzutekoa batek bere

atsegiñezko gauzak autatuz, bertze lanetan bezala buruzko lanetan ere nekearen bat poz artzen duela dio: atsegin zaizkion lanak autatu dituaneez, aunitz eta pozik ikasi du.

**M.:** Zer gauz ikasi ditu bada? Emazteki batek, guk baño gehiago zer?

**E.:** Ez ditut gogoan artu: berak ikasitako gauzen izenak ez ditut ezagunak; arrotzak dira neretzat: bost itzkuntz darabilzkiela dakit bakarrik.

**M.:** Ba! Geroztik zuen lengusin orrek euskera aspaldi zokora utzi zuen...!

**E.:** Ez! Ez! Zu bezein euskalduna da: ez baliz, nola itz egin nerekin? Burutik zangapuntaraño euskalduna: euskerari esker bertze itzkuntzak ikasteko erraztasun aundia izan duela aski garbi diona; euskaldun azi zutelakoz, guratsoeri aunitz eta auta on unek eta unen antzekoek, beren errietaz eta errikoetaz poz aundi-aundi bat artu dezaten. Nekazari ta mediku; nekazari ta apez; nekazari ta abogadu; nekazari ta bankero; nekazari ta notario ta sekretario...: tartean, deus: unek porrokatzen gaitu. Eta kontuan ar zazu: nekazariaren izenakin eziakiña erran nai du; eskolgabea; “Impreso” errax-errax bat betetzen ez dakiena. Nekazari bakoitxari Iaungoikoak behar duen argia eman badio, nekazari bakoitxak, lurreko ta etxeko lanetaz gañera, bertze gauzetarako aisetasun gehiago izatea bearrezkoa duela nago. Orduan ez giñazke bertze oien aitzinean lotsatzen garen bezala lotsatuko.

**M.:** Arrazoi duzu; arrazoi duzu: paper pusken bat bete bear badugu, antxe guazi ilun-ilun “sekretarioarengana”: ta dakizun bezala, oiek ez dute “alfer-letrik” egiten...

**E.:** Ai, enne! Au kixkal urriña! Banoa sukaldera! Nere eltzekari goxoa...!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1966, urria, 2. orr.

## SOLAS TA SOLAS

**Maritxuk:** Aspaldion atzendurik ginauzkegun “botuek” izan ditugu: an ikusi natzun zu ere “papeleta” eskuetan...

**Engraxik:** Bai, ta “botu” ok, ongi eman ez geroz autatu bear danaren alde geroz, gauz onak direla ezin uka.

**M.:** Ongi eman...; bear dana autatu...; untan dago bada lana; nor nolakoa izanen dan, nola ezagutu? Itzeder agertzea, zenbaitentzat gauz erraza da; autatua izan ondoan eskeñitakoa egitea berriz, zalla: eta egingo ez duenari ematen badiogu, urriki franko gero, baño alferrik.

**E.:** Ez al zera agian “botua” eman gabe gelditu?

**M.:** E, eman gabe? Ez orixe! Iru “papeleta” eskutaratu zitzaizkidan, eta iruak elkarrenganatuta iñor ohartu gabe bota nituen xulotik. Nork obeki eman?

**E.:** Baño Maritxu! Ain funs gabea ziñela ez nuen uste!

**M.:** Nai duzu bateri emateagatik bertzeekin gaizki gelditzea edo zer? Ez duzu irrik eginen. Nik denekin ongi bizi nai dut ta kitto. Asarre ausarki bada munduen, geyagokorik plantatu gabe. Aita Saindua ere or ari zaigu bakearen alde otoitz eske...

**E.:** Utzazu, maztekoa, Aita Saindua bakean! Zuk egin duzuna danok egiñaz, poz guti artuko luke Elizaren Buruak.

**M.:** Nai duenak, nai duena! Nik nire erriko “Konzejal”-gayakin bakea nai dut; ta errikoak errikoekin bakean bizitzea nik uste Aita Sainduak naiko duen...; aldameneko errikoa ere bake nai nuke ikusi; ondoko errira yoanta, arrikoaldi bat edo bi artzea ez zait bada goxo: irugarrena, dakizun bezala, gu danon putzutik ateratzalea dugu; bazterrera utzagun, ta gure paperrak kirrimorrotuko dazkigu amatxik! Ta bertze biek ere, obe adiskide iduki: ez zuk ta ez nik dakigu besapean zer dakarren bakoitxarentzat biaramonak; aurra ninzanean, aski irri egiten nuen Pelloz; koxkortu zanean, zenbait goxo yanak aren bizkar! Ta azkenean (nork erran?) ni Pellokin ezkondu!

**E.:** Ez naiz arritzen. Baño iru “papeletak” batean eman ez, mesederik iñori; kalte norbaiteri, baliteke. Gauz ok ez dira txanzetan artu bear. Nor dan oberena, ura autatu bear da. Eman bear zayon lanerako nor dan oberena erran nai dut; bat bere etxeko lanetan eta bizitzan on puska izatea eta “konzejal”-tako balio ez, gerta leike, ta. Untarako bertze aunitz gauzatarako bezala “berezkoa” bear da. Baño berezko ori dutenetan, autatu dezagun oberena. Erri osoaren ona billatuko duen, edo billatzen sayatuko dan bat autatu bear da zuzenpidean. Itz ederrekin txoratu ez gaitzaten, bakoitxaren nortasunari begiratu zayogun. Berekoirik ez da iñolaz ere autatu bear, nai bezein itz pollitak baditu ere. Sagar batean baratza trukatu nai digunik ez dugu “konzejal” tako berexi bear, sagarrik goxoena eskeintzen badigu ere. “Nik nerea; bertzeak or konpon” diona ere ez, nai duen bezein izen aundikoa izanik ere... Orrelakoak bazterrera utzi bear ditugu, beren bidean “tuku-tuku” yarra dezatela. Eta zorrak ez baduzu zere burua salatzen, Maritxu, iñork ez daki noren alde eman duzun zure “botua”.

**M.:** Zuk, Engraxi, norel alde eman duzu?

**E.:** Ixooo!

**M.:** A filde! Nik dana, nire Pellorena ta guzi, erran danati eta ik elerik deus? Ago, Ago!...

Ibarrondo

Principe de Viana, 1966, abendua, 6. orr.

## UDAZKENA

Neketsu izaten da nekazariarentzat udazkena, sasoin berean, geroko ezin utziko lan aunitz egin beharra izaten dalako. Eguna ere murriztuz ioaten zaigu, uste ez dugunean iluntzen zaigula.

Gauzak erraztuz doaz, bai, azkeneko urte otan: nekeak ere txipituz; ta minartzeko ta iltzeko arrixkuak baztartuz.

Gaztaiñ ustea bera, ain lan latz ta bildurgarria zana len, alde bat utzia daukagu, gaztain ondoak iñartu etzaizkigun mendi zeharretan.

Datorrela berebaitatik miauri goxo ta oria, onduz bezala lurrera; ez dakar-ta arrixkurik lurretik biltze orrek, makurtu ta makurtu ibiltzetik gerrontzeko miñarena ez bada seurik.

Iralekuko lana ta nekea ere arinduz doa. Gero ta iratzelai zafla geiago ebaki gabeak ikusten ditugu, neguan sartzean, mendi zehar mazeletan: ezbaitute oraiko aberetegi berriak lengoak bezenbat iñaurki beharrik. Langile eskasiak ere erru zerbait izan dezake, bai naski atera ontan.

Len landa ziren lur zati aunitz azitu dituzte nonnai, buru geiago bazkatzeko asmoakin belaiak aundituz. Onekin arto ta ilar biltzeko lana motzta da.

Ogi saltzaleak txoko guzietara etortzen zaizkigulakoak gari ereitea kendu daku; ta arbi iorratze azpergarria ta bazkar au neguan etxeratzeko neke latza berekin eraman du, etxetxoriei ta bertze egaztin batzueri atsekabe zerbait goseakin ekarriz.

Bideak ere obetuz doaz; ta iendea erraz ibiltzeko tresnak, len amesten al etzen tokietan lasai dabiltz, langileak lantokietara nekerik gabe ta berehala eramanez. Ez dago orai, aunitzarentzat seurik, len bezalako ilunbetan lantokitara ioaterik ta andik ilun kozkortuta etxera itzultzerik.

Udazkena arindu zaigu gure lanetako. Arintzearen beharra bezegon naski: ta oraindik geiago arintze al bada, obe.

Arintzeakin batean datorrela, urtean gorputzek behar duten ianaz ta gañerako bizigarrietaz etxeak len ornitzen ziren baño geiago ta obeki ornitzea.

Len bezala baida orai ere: bizitzekotan, ian behar: ez dago arat-unatik! Agora zer eramanik ez dagonean...

Izpirituarentzat ere, lana berekin dakar udazkenak. Eskolak erekitzen dire udazkenean, aurrak eta gazteak leku oietan lan eginez, geroan iakitea on izanen zaiena ikasteko.

Lengoak baño iakitate geiago eskatzen daku gaurkoak: gaurko umei geiago eskatzen dabe geroak. Guratso; zure umen geroaz oroit! Ez lo egon, gazte!!

Izpiritura zer eramanik ez dagonean...

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, urria, 1. orr.

## UR ZURRUTZA

Arkaitzean beiti, indartsu ta aparra dariola, iausten dan ur-zurruzta sendoa... zein eder zagiun, zein eder!

Uoldearen inguruetan pozik nabil, arimarik ez dabilenean an urbil, Iturri-ondo au ta ni elkarrenak gera, aspalditik.

Urak eta urak dakarz iturriak; aldiero berriak. urak eta urak datorz gainbehera; ta bat bakarrik ere aurrekoaren ta atzekoaren era berekorik. Urak eta urak doaz gelditu gabe; danak garbi, zauli, dantzari trebe.

Iturri untako ur danak purruskatzen ta abarrikatzen ditu beheko osin zorro aundi ezin aseak, bertatik beiti prestuago ta eztiago iarrai dezaten beren bidea ta lana.

Prestutuz bezala onduz ere ioanen dira, ezetasun gozoakin lurra laguntzeko. Eztiago iauntsiz, ta gureztat eskurago iarritz, bizi geran guziok iñartzetik zainduko gaituzte, gure gorputza emeki emeki ureztuz.

Lar bat edo bertze, ote ta belar tzar batzukin, ur-zurruzta orren bi aldetan: ziturik ez dakarte iñoiz.

Zumarika antzeko zartaka bat ere, bazen an artemein arte, osina baiño lau bat zegaz gorago zegona. Unen bizitza ta bere egitekoa, ikusgarriak; neretzat seurik...

Norabait, arkaitz tartetan, sartuak zeuzkan erroak: ta amatzat lurraren ordez arkaitza artu balu bezala bizi zan.

Ongi bustia kanpotik; baiño barrenez idor; amaren antzera.

Bere lana? Arritzekoa, zugaitza izateko. Iturritik beiti zetorren ur mota guziari gau ta egun gelditu gabe agur ta agur aritzea, zurrutzaren oñetan tinko egonez. Bertze ezertarako ere ez zeukan astirik.

*"Egon ta zahartzen; datorrena ongi artzen; doana bialtzen"* zeraman bizitza landare koxkorak, lengo sorgiñak bere xahartzaro luzea zeramala zion bezala.

Noizbait, gaur egite batean geiegi makurtu zelakoz edo, esker gabeko ur bolada arro batzuk errotik atera ta leze zolarano eraman zuten betiko.

Orduan orduko launtxoei beti "amen" erantzunak bizitzeak ta deneei "agur" egiteak au ekarri dio azkenean. Sari au dago olakoentzat geienean.

Zuaiztto goresleari gertatutako zoritzarrean, ez da ohartu ere ur-zurruzta sendoa. Aundi da, aundi, ttipian ohartzeko.

Uda beroko gauaz lorea maiteki ta ixilean ezatzen duan intza... bertzerik da!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1971, ekaina, 3. orr.



## URA

Ur ixilkoia; ur marmaratsua: biak, ura; ezti-gordina.

Urtero berdin: negu-udaberri-udaz ikusten dut, ixilik ta arkaitza eztiki bustiz,  
gainbehera doala kare-ur xirrixta bat: iturritxo polita egiz.

Bertaratzen ez banaiz beñepein, ez dut aren otsik entzuten ahal.

Giltxaur ostoa batzuek soñulari iartzen dute far-farfar udazkenean ur ixila, aren pean  
zorroz goiti etzanez ta bere balaku-ferekakin ok gorputz osoa pozaren pozez iñaurrosiz.

Giltxaur ostoa usteldu arte, edo erauntsi aundi batek bulkatu ta andik biali arte irauten  
du iturriaren soñuak.

Gero, ixilean darama urak berriz bere bidea.

Ur-negar ixilkoia mintzahazten al du zerbaitek aldika: ixilazi ere bai noiz edo noiz  
solasturia.

Iturriko ur kantari; ur ixila; beren bidean doazila: ez dago ontan makurrik.

Iturri sendo elezua, ezin ixil. nork mintzahazi ubar lodi ixilkoia?

Maitagarri zaigu lena: bildurgarri bigarrena: beharrezkoak naski biak.

Ur tanta, lorean.

Udaberri goiz argi batez:

Eguzkiari danak begira:

Ta, il baiño len, dezazken edertasun guziak oni eskeintzen.

Axeri-zubiaren zazpi koloreak, perla dirdiratsu antzera, eskeintzen dizkio bizitza  
kixkaltzen eta urtzen ari zaion eguzki bero ederrari.

Intzak ezetasuna eman dio, bai, loreari gauaz: ez da alfer egon.

Bizitz laburrean, on aundia egin du: zezaken on guzia.

Apain eta langile; langile, naiz apain.

Ttipi, garbi, polit, behartsu-aberats, on...

On. Batez ere. On.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1970, apirila, 6. orr.

## USTEGABE TA USTEDUN...

Zintzoa zaren  
Edo malzurra;  
Biotzez zuzen  
Edo makurra,  
Nik ez dakit.

Egun untako  
Zure bizia  
Zikiña ote  
Ala garbia,  
Nik ez dakit.

Zure lanetik  
Duzun nekea,  
Aberats edo  
Sari gabea,  
Nik ez dakit.

Gaur goiz txoriak  
Kantuz diona,  
Illunabarrez  
Gaitz edo ona,  
Nik ez dakit.

Txerri urdamak  
Zenbatsu ume?  
Ta zumarikak  
Zenbatsu zume?  
Nik ez dakit.

Ongi datorren  
Lur idortea;  
Bearrezko den  
Ur agortea,  
Nik ez dakit.

Bihar saltzeko  
Non aratxea...  
Obe gaur ilta  
Zuloratzea?...  
Nik ez dakit.

Atzorañoko  
Adiskidea  
On dan gaurtikan  
Etsaitutzea,  
Nik ez dakit.

Zintzo bizita  
Zintzo iltzea  
Guretzat dela  
Beti ohea  
Nik badakit.

Zeruko poza  
Bizitz garbia;  
Zuzena, beti  
Munduko argia:  
Nik badakit.

Lanean ongi  
Baldin gabiltza,  
Gurekin dugu  
Zeruko giltza;  
Nik badakit.

Egun guzian  
Zintzo danari,  
Illunabarrez  
Bake ugari:  
Nik badakit.

Iaunarengandik  
Datorriguna,  
Guretzat aski;  
Bear duguna:  
Nik badakit.

Lur idortea  
Ta ur agorte,  
Zeruko Yaunak  
Nai duen arte:  
Nik badakit.

Yaunaren esku  
Dago den-dena;  
Baño gu gaitu  
Biotzan lena:  
Nik badakit.

Adiskide ezik  
Aita goxoa  
Bai dala egiz  
Gure Yainkoa:  
Nik badakit.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1967, otsaila, 3. orr.

## ZALLA ERRAZTU

Gure aurretan euskerarenganako maitasuna sartzea, gauz ederra ta bearrezkoa da; gure aurren eskuetan dago-ta euskeraren iraupena edo bere eriotza.

Gure izkuntz garbia urte guti gabe ilko da aurrak euskeraz mintzatzetik ixiltzen bazaizkigu. Gure mintzoan iarraitzen badute berriz, sendotuko zaigu euskeraren bizitza indar berri azkar batekin.

Ortaz, gure aurrak izkuntz ontan gero ta trebeago iartzera saiatu bear euskaldunok, euskeraz beti mintzatzuz, ekin ditugun solasaldi guzietan.

Eginalak egin bear ginuze geren ondoan dauzkagun aurrak alik geien trebetzen euskeraz irakurtze edo leitze ta idazte edo eskribitzeko lanean.

Sariak aur euskaldunen artean noizean bein banatzea, gauz egokia alda? Naiz ni ez naizen banatze orren alde, erabaki au artzen dutenak beren arrazoñak dituzte naski.

Ez naiz sari banatze orren alde, izkuntzari maitasuna aurren biotzean sartzeak, izkuntzagatik sari bat artzeak baño iraupen gehiago izan dezakelako gerorako.

Sari emate onek, gañera, bere zailtasunak ditu, nork duen merezi ta ork ez erabaki bear duanari ziria erraz sarditekelako, nork edo nork ortarako endrezu ta maltzurkeri pixka bat izanez geroz.

Aurren onaren atzetik ibili bear du batek, okei al guzia ta al bezein ongi erakutsiz. Ez du batek iñolaz ere, aurrentzat sari bat izanen dalakoa datorrenean, bera ongi gelditzeko aurretaz baliatu bear, berak egina aurrek egina balitz bezala agertuz, eta izen ona, gezurrean, bereganatuz.

Au ez da egoki iñolaz ere: erakusle orrek alde batetik zuzenpideari kalte egiten diolako, ta bertze aldetik aur gaixoai ttipitik gaizkibidea erakusten dabelako, berena ez den lana ala balitz bezala agerraziz, ta bertze aur batek zuzenez eramanen zuen saria bide makurretik bereganatuz.

Aurrak, gañera, ez du sariari begiretuz ikasi bear gure izkuntz eder au; baizik eta, berea duelako, ortan ari bear du ikastetik geiagoko sarik billatu gabe.

Noizbait saria datorrela? Orduan ikus nor dan trebena, aur bakoitxari lana laguntzik gabe, bere baitatik eginaziz. Ta oberenak eraman beza saria, zorionean. Bertze aurrak ez dute deus erratekorik izanen orduan. Doazila ok ere egunetik egunera irakurtzea, idaztean ta mintzatzean gero ta obeki trebetuz, ondoko aldiko saria berenganatzeko.

Ixilik idukiko dutelako ustean eginazi zaien lana nola egin zuten agertzen dute aurrak, gaur ez bada bihar, iñork ortara bortxatu gabe.

Ibarrondo

Principe de Viana, 1969, iraila, 4. orr.

## ZURETZAT, NERETZAT, BIONTZAT...

Goazen berriz alkarrekin? “Besteak bizitz erraza eta deuseza daramatela? Ortaz beraz zure bizitz ori izan bedi beti bizitz oso, barrenko, bete-bete bat”.

“Besteak” esatean, “mukulukoak” esan nai duela garbi dago. Ok, bizitz erraza eta deuseza daramate. Maldan beiti, gainbeera doazi; betik gora baño aisago baita. Zerbait-zerbait (batzutan aunitz) nekatzen direla, ezin uka, egia: bortxatzen direla, agiri da: baño oken bortxatzea eta nekatzea, llabur-llaburra eta gogoak eskatzen dabena belaxen ekartzalea da. Gerokoaren ustean luze aritzea, ez da on okentzat. Nekearen ona (naiz itxurazkoa), bortxatzearen saria (gezur-sari izanik ere), lenbailen eskuratu nai dute: gaurkoaz gaur iabildu nai, iraupenakoari begiratu gabe.

“Ain ogi ona emanen luken gari pikor dirdiratsua lurpera, ustel-dedin, botatzea, ez da erokeri?” diote orrelakoak.

“Neguan gari pikorra lurpera botatzeko erokeririk ez balitz, udaran ez genuke gari ta ogirik”, erantzun bear orrelakoeri.

Gure bizitza, zein llaburra dan! Luzea dala idurik ere! Eta bizitz llabur untan gari au (gari ori, eder, dirdiratsu au) erein, sortu, azi eta zitudun bear!

Ez da bat batean egiten dan gauza gizona. Norbera landu gabe, bortxatu gabe, bere buruari aunitzetan uko egin gae, ez dator bear bezalako gizonik.

Emengo bizitza, laisterka ta igeska bezala doan bizitz bat da. Bizitz au nola bete iakinki, eta utsik ioatera utziko dugu? Bizitz untan, zitu on ta aberats bat dakarren gari eder bat izatea, eta sabaiko zurartean etzanik, errautsez estalita egon? Iñoiz saiatu al gara gari eder eta mamitsu ote garen iakiten? Zurartean errautsez estalirik ote gu? Galdeera au ez gaizki artu, adiskide: biondako balitz bezala doa; baño nere buruari bakarrik egin bear niokela nago: ez naiz nor zure barrenean sartzeko.

Dena eskure etortzea nai badut...; ezti goxoa neretzat, eta ezten zorrotza bertzeendako...; beti errazenaren atzetik banabil...; nekea gaitzes badut...; iñor onean laguntzeaz axolik ez badut...; beldur ni ez al noiaien zurartean etzanik, nagitasunezko erraztasunean goxo goxo, bizitzan bera irristaka.

Eta, badakizu, maldetan bera irristaka... aurrak bakar bakarrik: berriz ere; aurrak bakar bakarrik; beren ipurtakoak xehatu arte.

Aurtzarotik atera eta adinean sartu geran ok, aurkerietan iarraiki bear? Zure eranzuna zein dan aski ongi badakit: “Bizitzan goiti; aldapan gora” diozu. Zail bazaitzu ere? “Zail bazait ere”. Zere buruari bortxa egin bear badiozu ere? “Nere buruari bortxa egin bear badiot ere”. Gezurrezko adiskide filus oiek bazterretik irri egiten badatzute ere? “Gezurrezko adiskide guziek, batean iarririk, irri egiten badidate ere”.

Iraun ortan, adiskide. Ibili ta ibili, azkenean zu garaille!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1967, apirila, 6. orr.

## ZURETZAT; NERETZAT; BIONTZAT.

Emen arkituko dituzun gauz oketatik bakarrenbat, on-ona dela ikusten baduzu, ez dela nerea siñes zazu. Liburuetatik biontzat osasungarri den zerbait atera naiez nabil. Iauntzi bat edo beste (eta egia esateko, ez ain ongi ebakia eta iosia) nerea izatea, baliteke. Ez iauntziari begira gelditu: iauntzia daraman mamiari, erne egon.

Eskuetan daukaten liburu on batek itz okin asten du zurekin eta nerekin itzketa edo solasaldia (eta liburuaren iabeak barkatuko al daut bere gauzaz iabiltze au: ebaskoarentzat zazpigarren agindu edo manamendua ere or izaki): “Noiz arte zuk zere barreneko orri beldur? Noiz arte zu zeroigandik igeska?”

Bi galdeera oietaz arritzen zera agian? Liburua egin duena, ez da ba arritzen. Eta ez uste izan; ez da zaharra liburua, ez ta egilea. Au, bizi da: lanerako adin eta sasoin oberenean dabil. Zer ikusi ote du gizon unek gazteen eta gazte ez direnen baitan, galdeera au zuri eta neri egiteko?

Barrenean daramaguna ezagutzea, noizko daukagu? “Noiz arte zuk zer barreneko orri beldur?”

Betiko gaitza au; egia; baño oraiko gaitza batez ere. Geren barrenean daramaguna ezagutzeko geren barrenean sartzea, zer gauz zalla den! Zer lan bortitza zaigun!

“Noiz arte zu zeroigandik igeska?” Ordu bakoitzean nor geran eta non-nola arkitzen geran ohartzea gauz gogorra ta neketsua guretzat!

Zenbat aldiz ez gera ohartu gauz untan? Gurekin solasean, edo itzketan ari ta ari lagun bat: lagun au artaz eta untaz mintzo ta mintzo: lagun unek alako ta ulakoren utsak ager ta ager: eta uts oketatik, zein du geienik aipo? Zein berari nazkaragriena iduri? Bera maizenik eta osoenik erortzen dan utsa. Zergatik eta nolaz gertatzen da au? “Barrenekoari bildurrez” eta “beregandik igeska” dabillelako.

Gauzak aunitzetan bear bezala egin gabe utzi, zertaz? Alaxe-olaxekoa bere lanetan bat, nolaz? Gehiago oraindik: bera alaxe-olaxe ari dan lan beretan besteak txintxo, uts gabe ta asperkaitzak izatea billatzea, nundik? “Barrenekoari beldur” diolako eta “beregandik igeska” dabillelako.

Hainbeste ontasun ndatze, orrenbeste ordu ta egun arat unat ibiliz galtze, ain erraz eta ohargabean itz eginez lagun urkoaren izen ona xautze, eta beste kalte aunitz eta aunitz, geren barrenekoari bildurretik eta geren buruagandik igeska ibiltzetik datorz.

Batek bere barrenekoari ongi begiratzea, “txorakeri” aundia da txoroarentzat. Batek bere barrenekoari ongi begiratzea, “zentzu onekoan gauza” da zentzu onekoentzat.

Txoroak dio: “Gerokoak, gero: goazen bide erraz eta goxotik”.

Zentzu onekoak dio: “Gaur erein; bihar bil; munduan neke, zeruan poz: nerau garaituz, danen garaile”. Eta ortarako, bere barrenean sartzan da: beregandik igeska ez dabil: bera nor ta nolakoa den iakin nai du: bere nortasuna edo “personalidadea” edertu nai du: behar bezalakoa izaten saiatu nai du: eta ortarako, on ez dan guzia beregandik kendu nahi du. Eta on dana, egiz on dana, beti ta leku guzietan bereganatzera saiatzen da.

Zentzu onekoak egiz ona dana billatzen duela esan datzut. Untan ohar zaitetz. Itxuraz ona dana, kalte izatea egiz, baleiken gauza da. Nik bezein ongi dakizu au.

Itxuraz ona danakin txoratzen dena, “barrenekoari beldur” gabean itzultzen balitz, eta “beregandik igeska” ibili bearrean, bere nortasuna edo “personalidadea” edertzen eta azkartzen saiatzen balitz, ez litzake dan bezein txoro izanen gaurko mundu eri ta indar-gabe au. Ez zaitzu ala?

Milla arrabots eta kukurruku entzuten da iendeen artean: baño, berean tinko ta txorakerietatik bere barrena zizpotzeko eskindaiekin zaindurik daukena, egizko indartsu.

“Ez zazula itz ta solas dariola dabilen batean nolana siñets; egiteetan iori dan batean baizik”. Au ere liburuak dio. Nire burutik? Bai, to!

Ibarrondo

Principe de Viana, 1966, azaroa, 2. orr.

## ARTZAIN-TXAKURREN TXAPELKETA OÑATIN

Bizkaiko "Riki" berriz ere Txapeldun

Aurten Oñatiko Artzai-txakurren Norgeiagoketak amar urte betetzen zituen, eta Txapelketa guzietan egin izan duten eguraldietan aurtengoa goxoena, beroena gertatu da.

Yende aunitz, millaka, bildu zan Oñatiko "Santa Luzia" izeneko zelai ederrean eta zelai hau Artzai txakurren Zeingeiagoketarako ain egokia izanik, ikusle guziek toki guzietatik oso ongi ikusi ahal izan zuten dena.

Amazazpi txakur agertu ziren: Euskalerrikoak geienak, Naparratik, Arabatik, Bizkaitik, Gipuzkoatik eta Zuberotik etorriak; baño baziren ere Leon'dik Kataluña'tik eta Frantzia-tik etorri zirenak Txapelketa hau Internazionala zalakoz.

Lehenbiziko saioan zortzi txakur baztertuak izan ziren, eta oken artean Urdiaingo "Rubio" izeneko artzai txakurra Naparroko Txapelduna zena. Bigarren saioan eta beste ondokoetan egiñik ordena hontan bukatu zan Txapelketa:

Lehenengoa: "Riki", Artzaia: Serafin Etxanobe, Bizkaikoa. Bigarrena: "Turco", Araba'ko Pedro Zubizarreta artzaia; gero Gipuzkoako bat, beste bi bizkaitar, Zuberotar bat eta Ergoieneko Lizarragako "Txiki" txakurra, Zirilo Azkargorta artzaia zelarik.

Goresmenak Oñatiko antolatzailei, eta artzaiei. Datorren urte arte!

Ikusle

Principe de Viana, 1969, urria, 4. orr.



## ERMUKO EUSKAL IDAZLE-EN JARDUNALDIETAKO ERABAKIAK

1'go Letamendia, Garmendia ta Laspiur'ren ponentziak ontzat artu, Xalbador Garmendiarenak obeki azalduko dire beste agerpen batean.

2'gn. Euskal idazleen elkarte bat sortu, San Martin'ek bere ponentzian azaltzen duen bezala. Orretarako, batzorde bat autatzen da, sei lagunekoa: Joan San Martin, Jose Luis Lizundia, Iñaki Beobide, Joan Mari Torreal dai, Xabier Gereño eta Manex Pagola. Batzar onek bideak prestatzen ditunean, dei bat egin beharko zaiei euskal idazle guzietari **BATZAR AUNDI BATERA**.

3'gn. YAKIN aldizkaria (Errebista), oraintxe lotzen da Oñatin Iraillean Euskal Akademiak artuko dituen erabakietara. ANAITASUNA-k, Bizkaiko Aldizkaria denez, bizkaieraz idazten jarraituko du; baño orrialde bat aterako du euskera literario batuan, Bizkaiko errialdea oitutzen joateko. ANAITASUNAREN jokabidea ontzat artzen da, ta eskabide berdiña egiten zaio "PRINCIPE DE VIANA" Aldizkariari.

1'gn. Aditzaren (Berbo) batasuna beharrezkoa dela ikusten da. Orretarako batzorde bat sortzea eskatzen zaio Euskal Akademiari, bertarako auek proposatuaz: Mitxelena, Laffitte, Intxausti, Berriatua, Mendizabal eta Iraizoz.

5'gn. Euskal Erriko periodikueri, euskerazko sail bat sortu edo lengoa geiagotutzeko, aunditzeko eskatuko zaie Nola eta noiz egin, sortuko den elkartearen eskuetan uzten da.

6'ga. H'ari buruz, Baionako erabakiak ontzat artzen dira. Monzon jaunari H'ren aldeko arrazoiak adieraztea eskatzen zaio. Laffitte, Haritxelar, eta Larzabal jauneri, H letra nun eta noiz erabilli behar den azaltzea eskatzen zaie.

7'gn. Euskal Akademiari eskatzen zaio, Oñati'ko batzarrean artzen diren erabakiak, alik laisterren "Euskera" bere aldizkarian separata baten ateratzeko, erriaren eta idazleen jakinbiderako.

8'gn. "Hegosa" etxeari proposatu, Karmelo Etxenagusiaren antolojia biak, Bizkaikoa ta Gipuzkoakoa, argitaratzea.

9'gn. Ikastoletako andereño ta zuzendarierari laguntza eskeindu, euskera literario batuari buruz: itzaldiak, ikasketak, arrazoiak, eta, eta...

Ikusle

Principe de Viana, 1968, iraila, 2. orr.

## ESKUALERRIKO LEIOA

Nikolas Ormaetxea "Orixe" zenaren oroimenez

Yoa den Urrillaren 11 eta 12 egunetan "ORIXE" aundia sortu zen Orejako erriak homenaldi biotzkorra euskal letretan ain fama aundiko zen bere semeari egin zion.

Nikolas Ormaetxea 1882 urtean Guipuzkoako Orejako errian jaio zan "Iriarte" izeneko etxean. Denok dakigun bezala bere jaioterriak eman zion haren izengoiti edo izenordekoa: ORIXE. Baño ORIXE Gipuzkoan sortu bazen ere Naparroko Huitziko errira eraman zuten azi eta ezitzera. Gure ORIXE beste bi aurtxokin batera gure mundura etorri zan, eta irukiak geiegi ama batentzat izanik Nikolas aurtxoan eraman zuten naparroko Huitziko errira. Beraz ORIXE'k bi jaioterri ditu, bata Oreja, eta bestea Huitzi; lehenengoa bigarrenetik urbil, Gipuzkoan hura, Naparroan hau, biek Euskalerrian, biek anai. Tolosako Antonio Maria Labayen euskal idazle jaunak esaten duen bezalaxe. Erri bi hauek, Hitzi eta Oreja'k dute txilbor-lokarria.

Huitziko errian azi eta ezi zuten; mutilla egin zanean, argia baitzan estudiatzera joan zan handik urte batzuetara euskal idazleetan onen eta ezagunena izateko.

Horain amar urte baditu Naparroko Diputazioak eta Euskal Akademiak Leitzeko errian horaindik bizi zan Nikolas Ormaetxea jaunari homenaldi aundi bat egin ziotela.

Gero arestin Oreja'ko erriak ORIXE zenari berea egin dio.

Espero dugu horain Huitzi'ko erriak bere txanda artuko duela eta hemendik illabete batzuetara beste ainbesteko gorazarre eta oroimena eskeinduko dionik.

Goratu ditzagun, altzatu ditzagun, gure Euskalerriko gizon famatuak, izan ditzagun gure aurrean beren egintzak, lanak, irakatsiak. "ORIXE"-ri dagokionez, leitu (irakurri) ditzagun bere euskal liburuak, bere poesiak, honelako moduan yokatuz iakingo dugu zer kategorri aundiko poeta eta zer maillako idazlea izan zen.

Euskera ikasteko kurso bat radioaz Iruñan

Naparroko Diputazioaren "Euskeraren Aldeko Sailla" k Euskeraz ikasteko kurso bat Iruñeko "Radio Popular" Emisoratik ematen du.

Kurso hau egunero, (igandetan ez besterik) bi aldiz ematen da; Goizeko zortzi t'erdietan eta gabeko amaika laurden gutxienetan, goizeko leziua (ikasgaia) berriro gabea emanik erreztasun geiago entzulei emategatik.

Euskera obekiago ikasteko METODO DE EUSKERA RADIOFONICO izeneko liburua erosi behar da. Salgai dago Iruñeko eta Donostiko liburu dendetan guzietan, Euskal Ikasbide hau Juan Oñatibia jaunak egindakoa da.

Euskal kursu hau yoa berri den Urrillaren seigarren egunean asi zan, eta yende aunitz egunoro dela goizetan, dela gabetan, dela bi aldietan, gogoz entzuten du.

"Toribio Alzaga" izeneko teatro saria (Antzerki Saria) Agustin Zubikarai jaunak irabazia

Euskal Teatro Sari hau Bizkaiko "Caja de Ahorros" delakoak ematen duen diruz Euskal Akademiak (Euskaltzaindiak) antolatzen du bi urtean behin. Bere izen osoa "Toribio Alzaga" Antzerki Saria da Donostiko seme eta Teatro egille famatu zenaren homenez.

Aurtengo Saria Ondarruko Agustin Zubikarai jaunak irabazi du.  
Mai burukoak Larzabal, Arkotxa, Berrondo eta Beobide jaunak izan ziran.  
Gure goresmenak Agustin Zubikarai euskal izkribitzaile on eta maiteari.

Euskal Akademiak esaten digu aurten, Euskaltzaindiaren urre-ezteiak dirala-ta, Bigarren Sariketa berezi bat izanen dela. Sari hau gaztetxoek maillako teatruentzat (Antzerkientzat) izango da, amalau urtetik 16 urterakoentzat antolatua, eraturia, eta gizonak (nagusiak) errepresentatzeko moduan eginak. Lanak bialtzeko nahi dutenek, lehenbait lehen bialdu ditzatela (igorri), Euskaltzaindira (Ribera, 6 - Bilbo).

"Aita Gure" Ekumenikoa

"Zeruko Argia" izeneko euskal astekarian, Manuel Lekuona apez jaunak "Aita Gure", billera aunitz izanak eta elkar esanak, iritziak, aburuak eta iduripenak entzun ondoren honelako moduan gelditu dala esaten du:

"Gure Aita, zeruetan zerana: santu izan bedi zure izena; etor bedi zure erreinua; egin bedi zure naia, zeruan bezela lurrean ere. Emaiguzu gaur egun ontako ogia; barkatu gure zorrak, guk ere gure zordunai barkatzen diegun ezkerok; eta ez gu tentaldira eramana; baiñan atera gaitzazu Gaitzetik".

Ikusle

Principe de Viana, 1969, azaroa-abendua, 2. orr.

## ESKUALERRIKO LEIOA

"Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco"

"AUÑAMENDI" Argitaldariak "Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco" delakoaren lehenengo liburua edo tomua argitaratu berri du.

Enciclopedia honek iru zati izango ditu. Zati bakoitzak Euskalerriko gai batzuk erakutsiko dizkigu.

Hona hemen gai guziak:

Lehenengo zatiak: Euskal gaiak. Gai hauek Euskalerriri buruz dagozkienak izango ditu. Denak abecedarioz jarriak.

Bigarrenak: Lan bereziak. Monografia modukoak: Izkuntza, Literatura, Arteak...

Irugarrenak: Euskal Bibliografia. Gau hauek guziak Yon Bilbao Irakasle yaunak prestatuak.

Atera berri den liburu honek "Euskal Literatura" gaia dauka.

Tomu hoenk zazpihuen orrialde inguruan baditu eta ongi apainduak gañera.

Merezi du erostea.

Arantzazu'ko Ama Birgiñaren bostehungarren urtea

Aurten betetzen dira bostehun urte Zeruko Ama Birgiña Errodrigo Balzategiko artzaiari Aloña mendian agertu zitzaionetik.

Hau dela-ta urte hontan erromesa etengabe joaten dira mendi hortara Arantzazu'ko Andreari agurtzera.

Bijoaz hemendik ere gure agur eta otoitzak Gipuzkoa'ko Andre Mari Nagusiari.

Euskaltzandia'ren azken bilera

Yoan berri den Uztaillaren (Agorrilla) bigarren ostiralean, zortzigarrenean, Donostian eta Gipuzkoa'ko Diputazionean, Euskaltzaindiak bere illeoroko Billera izan zuen.

Argitaratzen ditugu segidan artu zituzten erabaki yakingarrienak:

- Rikardo Arregi'ren eriotza aitatu da ta gazte saiatuaren oroimena ta samin-agurra adierazi ziran. Euskaltzaindiak berea egiten du Rikardo zenaren eriotz-miña.

- Azkue'ren iztegia urte-bukaerako lehenengo tomua argitaratuko da. Lan guzi hau Mitxelena jauna'ren begipean egingo da.

- Gaur izkuntzaren gaurko egoerari buruz Azterketak egitekotan dira Euskalerrri osoan GAUR eta SIADEKO Elkarteak. Bi Elkarte hauen asmoak hortaz jaso dira eta Euskaltzaindiak hortarako izendaduta duen Batzordearen eskuetan uzten da, Elkarte hoién asmoak ikertzea.

- "Naparroa'ko Symposium" delakoa asmotan da oraindik. Hortarako "Principe de Viana"-koekin alkar artu beharko dala, esan da.

- Datorren illean Euskaltzaindiak izango du bere berrogeita margarren Urteburua. Lehenago, Iruñean, Bitorian, Baionan eta Bilbon egin dira billerak. Oraingo hau Billera guzien azkenburu bezela egingo da, eldu den illearen (Buruillan) 21 egunean. Ain zuzen ere,

egun horretan betetzen dira 50 urte, Euskal Akademiak edo. Euskaltzaindiak Gipuzkoa'ko Diputazioan izan zuen lehenengo billera egin zanetik.

Billera horren ondoren, zenbait itzaldi labur emango dira lehenengo euskaltzain gipuzkoarrei buruz.

Ala entzungo diegu LUIS MITXELENA'ri, Luis Elizalde zanaren bizi ta lanen berri emanaz.

ANIZETO ZUGASTI apaizak, Erramon Intzagarai'ren berri emango digu.

LUIS VILLASANTE praille argiak, Sebero Altube'ren lan eta bizitza argituko digu.

Eta JOSE ARTETXE'k bere aldetik, Karmelo Etxegarai'ri buruz aitatuko digu bukatzeko".

Ikusle

Principe de Viana, 1969, iraila, 2. orr.

## ESKUALERRIKO LEIOA

### Euskal Erriko Txistularien Billera Iruñan

Euskal Erriko Txistularien Elkartearen urteko Billera yoan berri den Otsaillaren azken igandean Naparroko Uriburuan izan zan.

Goizeko amaiketean Iruñeko "Monja Txurien elizatxoan" gure txistulariek Meza izan zuten. Ondorean Musica-Eskolategiko (Konserbatorio) sala aundian Urteroko Biltzarra ospatu zan. Saloia jendez betea zagon Naparroko Diputazionearen Diputado eta horaingo Euskal Erriko Txistularien Elkargoko Lehendakari den Migel Xabier Urmeneta jauna Maiburu nagusi zalarik. Billera hontan Donostiko Txistulari zaharra dan Isidro Ansorena Jaunari homenaldi berezia egin zioten. Bukatzeko anai arteko bazkaria, bitartean Iruñeko "Itxaso" izeneko kantari taldea, Elizalde anaiak eta Garay txistulari ospetsua ari izan ziralarik. Giro atsegingarri egin zuen igande hartan Iruñan, eguraldi ona, gure txistulari maiteek merezi zutenekoa.

### Bizkaiko "Euskerazaleak" Elkartearen urteko Batzar Nagusia

Bizkaian ongi ta aunitz euskararen aldeko lan ederrak egiten dituen "EUSKERAZALEAK" izeneko Elkarateak Bilboko "Santiago Apostol" Euskolategiaren Teatro aretoan bere urteroko Batzar Nagusia ospatu zuen pasatu berri den Otsaillan, Saloia Elkarate honen lagunez bete izan zan. Itzaldiak, elkarriketak, eta erabakiak geientsuenetan euskeraz egin ziran. Honelako moduan Zuzendaritza gertatu zan: Lehendakaria: Jesus de Oleaga. Bigarren Lehendakaria: Jose Antonio Montiano. Idazlaria (sekretarioa): Iñaki Egurrola. Diruzaina: Jose Maria Macua, eta gero bokaleak amazapi izendatu ziran. Gure agurrik anaikorrenak bizkaiko euskaltzale guzieri, bereziki Elkargo hontan sartuak diran guzieri.

### "Txalo Jo Jaunari" Elizarako Euskal Kantuen Liburu Berria

Arantzazuko Praileek "TXALO JO JAUNARI" izeneko Elizan kantatzeko euskerazko kantu-liburu berri bat argitaratu berri dute. Amasei euskal kantu dauzkan liburu honek berrogei pezetako saltzeko nehurria du. Euskalerriko elizetan kantatzen diren kantu geienak gaur egunekotasunik ez dute, eta behar ditugu gure elizetan gaurkotasunez jantzitako euskal kantuak sartu, munduko era berriari jarraitzen nahai baldin badiogu, zeren gure aintzineko elizako euskal kantuak zahartu egin zazikigulakoz. Egokia benetan Arantzazuko Praileek atera dutena.

Apezak, euskal kristauak, eska zazute liburu hau zuzenbide hauetara: LITURGI-TALDEA, Arantzazuko Prailetzia - OÑATE.

Principe de Viana, 1970, martxoa, 2. orr.

## ESKUALERRIKO LEIOA

### "UHING BERRI" liburua

Liburu berri hau euskal poeta gazteen poesia-multzo bat da. Eibarreko seme zintzo eta Euskaltzaindiaren idazkari (sekretario) dan Juan San Martin'ek liburu hontan azaltzen diran poesia guziak bildu ditu.

Berari eskerrak, 1930 urtetik aitzinera sortu diran euskal poetak asmatutako barretuak zeuden poesien bilduma bat argira atera da. Berak bereixtu, berak bakarrak bildu eta liburu hontan sartu egin ditu San Martin jaunak.

Beraz "UHING BERRI" izeneko liburuak, bere izenburuak argi, ongi ta garbi aditzera ematen duen bezala, eraberriko poeta gazteen lanak dauzka bere barruan ("UHING BERRI", NUEVA OLA erderaz). Ogeitabost euskal poeta gazteen poesiak bilduma hontan agertzen dira.

Poeta hauetako aunitzek ezdute horaingoz liburu bat argitaratzeko biderik izan. Beste batzuk berriz oso ezagunak dira gure euskal poesia-alorrean.

"Sociedad guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones" delako Elkartasunak Donostiko "Izarra" izeneko imprentan argitaratu du. Egun ta irurogei orri ditun liburuak ehun ta berrogei pesetako balioa du.

### Joshe Angel Irigarai'en Lehengo Euskal Diskoa

Pozaren pozez jasotako berria: Naparroko seme baten euskal disko baten etorrera.

Joshe Angel Irigarai jaunak bere lehenengo euskal diska atera berri du. Diska hontan agertzen diran lau kantak berak kompondu eta kantatukoak dira. Berak sortu eta ongi abestuak.

Abestien izenak: "URAK DAKARRENA", "BEGIAK", "HERRI BEHERA" ta "MIÑA TA GRIÑA".

Lau kantu hauen artean "HERRI BEHERA" izenekoaren itzak agertzen ditugu:

Herri behera  
Herri behera  
daukazu bihotz minbera  
(errepika)  
Galurrik ezak  
zabalerak  
ifar aldeko mendi zuhaitzuetan  
bezala  
begien tristurak  
du aurkitzen atsedena.

Zure orru ozena  
jota  
errotik sorturikako  
ahuena  
lehialki eta indartsuki ezazu  
bota  
eta nekazarien mezu sakona



konta.

(errepika)

"HERRI GOGOIA" delakoak izan da euskal diska hau atera duena.

Juan Miguel Irigaray'en beste Euskal Diska bat

Euskaltzaindiko eta Naparroko seme zintzo den Aingeru Irigarai'en beste seme batek bere lehenengo euskal diska argitaratu berri du. Juan Miguel Irigaray jaunak lau ZEAN DABILLA", "EMAZTE BAT" kantako diska bat prestatu du. "AL-NAHI ZUEN", "ZER NAIZ NI ZU GABE" eta "ARKITZEA" dira kantuen izenak.

Kantari honek lau amoriozko kanta agertu dizkigu.

Ezdut esateko beharrik bi diska hauek, bi nafartar gazte eginikakoak baidira, biotza pozez betetzen didatela. Besteak bezala hau ere "HERRI GOGOIA" Etxeak gure eskuetara ekarri du.

Ikusle

Principe de Viana, 1970, otsaila, 2. orr.

## ESKUALERRIKO LEIOA

Holandatar bat euskaldun berria

Rudolf P. G. Rijk jauna mundu guzian fama aundiko izkuntzalaria (linguista) da. Holanda'ko Amsterdam urian sortua da baño Amerikako "Estadu Batuak"-etan bizi da Massachussetts Unibersidadearen mintzairerako Erakasle izanik. Dakizkin izkera aunitzen artean gure euskera da. Horain Chicago'ko Unibersidadearen Euskal Katedra nahi du bere gain artu eta honetarako gure euskal Errira etorri da euskerari buruzko ezagutza, euskera bizi dan toki ber-beran obeki, zuzen eta egokiago ikustatu, aztertu eta ikasteko.

"Anaitasuna" izeneko Bizkaiko euskal errebista berriz ere ari da ateratzen

Pozgarria da euskaldunontzat, berriro gure artean Bizkaiko "ANAITASUNA" deitzen den aldizkaria. Diru eta laguntza eskas ta illabete batzuk argitaratu gabean egonez geroz lehen bezala amabost egunean behin ari da gure eskuetara irixten.

Egitan maitatua dugu amabosteroko hau eta hemendik anai arteko agur xamur bat igortzen diogu.

Etxean artzen nahi duenak zuzenbide hauetara izkribu dezake balio eta xehetasunak iakiteko: "ANAITASUNA"ren Zuzendaritza. -Apartado 17- GALDAKANO (BIZKAIAN).

Illabeteen izenak euskeraz

Denok dakigunez illabeteen izenak euskal lurralde batetik bestera, eta askotan gertatzen dan bezala erri batetik bestera, oso ezberdiñak, diferenteak dira. Euskaltzaindiak izen hauen bateratzen alde Aita Villasante Euskaltzain jaunari agindu zion batasunaren onean euskeraz esandako illabeteen izenik erabilienak aztertu eta bereixtu zitzala. Arantzazu'ko Aita Prantziskotar argi honek Euskaltzaindiari honako izenak presentatu zituen (Urteko ordenan jarriak):

URTARRILA, OTSAILLA, MARTXOA, APIRILLA, MAIATZA, EKAINA, UZTAILLA, ABUZTUA, IRAILLA, URRILLA, AZAROA ta ABENDUA.

Emen Nafarroan URTARRILLA eta ILBELTZA esaten da. EKAINA eta GARAGARRILLA, ABUZTUA edo AGORRILLA, IRAILLA edo BURUILLA, AZAROA eta baita ere AZILLA.

Honelako moduan gauzak gai honi buruz argiagoak geratu dira, eta guretako, euskaldun naparrontzako, entelegarri eta erraz zaigu. Komeni da denok ikastea.

Euskaltzaindiaren laguntzaile berriak

Euskal Akademiak izendatu berri dituen zazpi laguntzaileen artean bi Nafarroko semek ditugu: Jose Estornes Lasa eta Jorge Cortes Izal.

**José Estornes Lasa** Erronkari Balleko Isabako errian sortua da; euskaltzale sutsu eta zintzoa, euskeraren alde etengabea lan aunitz egin eta egiten dituena. Iruñeko "Euskalerriaren Adiskideak" Elkargoaren Lehendakaria (Burua) da.

**Jorge Cortes Izal** Saraitzu Ballearen Otsagi'ko errian jaioa. Iruñean bizi da beti nekatu eziñez euskeraren on eta zabalkunderako. Iruñeko "Ikastola" (Euskal Eskolategia)-ren sortzaile Euskal Herriko Ikastolarik aundi eta onenetan izana. nafarroako Diputazioarearen "Príncipe de Viana" Instituzioarearen "Euskera" Saillaren Zuzendaria da.

Gure bi adiskidei zorion eta goresmenak.

Ikusle

Principe de Viana, 1970, urtarrila, 2. orr.

## EUSKAL ERRIKO LEIOA

### Iparaldean Auteskunde

Paris'a Diputaduak bidaltzeko, Iparraldeko Euskalerrian izan diran auteskundeetan, onela gelditu dira: Lenengo biran, ICHAUSPE (gaullista), euneko 49; LABEGUERIE (erdizale), euneko 31; LOUGAROT (sozialista), euneko 15; BLASQUIZ (comunista), euneko 4. Bigarren biran, INCHAUSPE gelditu zen irabazle.

### "Nabarra" Itxasontzi Berria

Il onen lenengo astean, Baiona-ko kaiean uretara bota egin zuten atuna-arrantzako itxasontzi berri bat. Bere gisakoetan, andiena; aurrerapen denak ezarri dizkiote -aitze otza ta guzti-, ta beste urrutirako itxasoetara joateko egokiena.

Bere "bataioan" NABARRA izena eman diote; eder izan zaigu beste aldeko anaiek egin dutena.

### "Santxo Azkarra" Pastoral

Zuberoan, Altzai irian, "Santxo Azkarra" izeneko pastoral gertatzen ari dira, Aprilaren 29-an emateko. Dakigunez, Zubero'ko euskal antzerki berezia dira "pastoral" oriek.

### Nekatzarien alde

Azkeneko aldi ontan erremolatxa beeruntz dijoalako, Nafarroa-ko Diputazioak laguntza batzuek ematea erabaki du. Laguntza ori aziak, ongarriak eta gañerako bearrak ematea izango da.

Nafarroa-ko lurgintzarentzat berri on bat dela uste dugu.

### Ekintza Bereziak

Azkeneko Batzar Nagusietan, gai bereziak ibil-arazten ari dira gure Diputado Jaunak; besteen artean: Belagoa-ko negu-tokia, Nafarroa-ko lur-gaiien mapa; Telikuskiña, Noain-go egazkin-zelaia (Aeropuerto), eta abar.

### Erri Apainduei Sariak

Gure Nafarroa, geroago ta "ikusgarriago izan dedin, erriak apaintzen alegintzen diranen artean sari ugari banatzen ditu Diputazioak. 1972-ko urtean sarituak, auek izan dire: Auritzperri erria (Espinal) eta 125 gizon-andre. Bost apaiz ere sarituak izan dire beren lanengatik.

### "Santa Ageda" Taldeak

Bendidanik Bizkaian eta Araban, baita ere Gipuzko aldeko toki askotan "Santa Ageda" kantari taldeak oso ongi sartuak dira yendeen biotz eta zainetan. Beste Euskal Herriko zenbait lurraldeetan ere, hala Nafarroan, nola Laburdin, edo Zuberoan, bere gisako oiturak ere aintzinatik badituzte "Santa Ageda" delako honen oroimen eta ohorez. Gure Nafarroan "Santa Ageda" kantari Taldeak, Bizkaiko eraz apaindu eta bere kantu berberekine ere, orain amabost urte edo asi zirela agertzen. Gure Iruñean gero eta indar gehiago dute, eta orain Nafarroako Hiri Buruari begiratzen Lizarran, Tafallan eta, era berean "Koruak" atera dira bere euskal oiturei kaso eta aurpegia ongi eman beharrez. Badakigu beste Nafarroako herri askotan eta beren bereziko oiturei jaramon ekiten, hau da beste gisara, "Santa Ageda"-ren bezpera ospatzen badakitela: Leitza, Urdiain, Altsasu, Arroniz, Goizueta, eta, eta.

Iruñeko "GAZTEDI" Elkarteak nere ustez izan da aurten Iruñeko karrketan zehar yaun eta nagusi "Santa Ageda"-ren bezpera bere kantuekin gauzak xarmanki egiten.

Ikusle

Principe de Viana, 1973, martxoa, 6. orr.

## EUSKAL ERRIKO LEIOA

Michel Labagueria jauna gaixotua

Mugaz beste aldeko Euskal Errian dan Kanboko mediku ta lurralde hartatikako Pariseko Parlamentuan diputadu izana dan Michel Labegueurie lagun maitea gaixorik dago biotzeko mina, Miokardioko infartua, izanik ta luzaz ohean egon beharrez.

Lehen baino lehen berriz ere bere osasuna ar dezala ta osoan senda dedilla biotzez ta gogotik desiatzen dugu. Nere agurrik sentikorrenak berarengana joan ditezela.

"Argi bat iluntasunean" euskal liburu berria

Bilboko seme dan Xabier Gereño jaunak izenburu honekin nobela bat argitaratu du.

Gure euskal nobela berpiztutzen ari da iaioki. Ioan berri den urtean lau euskeraz izkribitutako nobela argira atera ziran, lauak irakurgarriak, denak gaurkotasunez jantziak, gogoz eta atseginez leitzeko diranak, errotik gaurko bizi modu eta gustoari pentsatuak. Hara hemen beren izenak: ELSA SCHEELEN, Txillardegirena. BESTE IZAKIA, Kintanarena. EGUNERO HASTEN DELAKO, Saizarbitoriarena, eta ARANTZA ARTEAN. Azken nobela hau Gereñoek ere idatzitakoa.

Aurten argitaratu berria dan "ARGI BAT ILUNTASUNEAN" izeneko Xabier Gereñoren nobela honek gure egunetako giroari buruzko gai dauka; hau da lantegi ta fabriketan gertatzen diran gizonen problemak azaltzen dira, persona bakoitzaren iritziak aditzera emanaz. Gaia bada interesgarria da.

Beste aldetik begira, nobela honen euskera oso erraza da, errikoia, euskaldun guzien entelegarri egiten zaiena.

Donostiko LUR Editorialak argira emandakoa da. Ehuntaogeitabi orrialde ditu. Berrogeitamar pezetako balioa du.

Eskaerak: LUR Editoriala. "Zutik" Villa. Arbola Paseoa. DONOSTIA.

Uneskoren etxe berria

Denok dakigun bezala UNESKO delakoa "Munduko Nazio Batuen (ONU)" Sail bat da. UNESKO aren eginbeharrak, itz gutxitan esanaz, munduko nazio guzietara iakintza, kultura eraman eta zabaltzea dira, partikularzki munduan diran nazio atzeratuenetara. Parisen dauka bere Etxea UNESKO delako honek, eta etxe berri baten beharrez egonik horain bere etxe berri ta egokia akautu berria du. Baño berri hau iakingarria izaten bada ere ni beste bidetik natorkizue ene irakurleak. Badakigu etxea oso ederra dala, ta hontan iakintzaren alde lan egiten duten gizonak biltzen diranez geroz kategori aundikoa izango dela ere bai. Etxeko aurrean munduko artista onenak beren lanak jarri dituzte, eta hauen artean Donostiko Txillidaren eskultura lan bat dago. Donostiar artista hau gaurko egunetako eskultorik oberenatakoa delako señalea da. Zorionak!

Xabier Kintanak garaile

Aspaldiko kontua da, baino denentzako iakingarria Maiatzeko lehengo egunean Konpostelako Santiago irian lau izkuntzetako POESIA SARIKETA izan zan, euskeraz, gazteleraz, gallegoz, eta katalaneraz idatzitako poesiak parte artu zezaketenak. Bilboko seme dan Xabier Kintana gazteak bere euskal poesiarengatik lehendabiziko Saria irabazi zuen.

Xabier Kintana euskaldun berria dugu, hau da sortzez ikasi etzuen euskera gero bere borondateaz berak menderatua.

Sari hau merezi zuen Kintanak ez bakarrik poesia lan honengatik, baita ere azken urte hauetako euskararen alde egin eta egiten dituen lan eta eginahal eder ta baliotsuenkatik.

Goresmenak Kintana!

"Agirre Saria" "Euskeraz egindako Elizaren Liturjia Berria" liburuarentzat

Urtero bezala aurten ere "JOSE A. AGIRRE" Saria eman berria da.

Baionako "Euskal Kulturaren Alde" delako Elkargoak Maiatzaren 19 garrenean egin duen Biltzarra berezian, "JOSE A. AGIRRE" Saria "EUSKERAZ EGINDAKO ELIZAREN LITURJIA BERRIA" izeneko liburuari eman dio. Sari hau mila dolarrekoa da (Irurogeita milla pezetakoa). Euskal Elizbarruti (Diozesis) guzetako ordezkarieek eratu dute. Euskal Eliz barrutiak bost dira: Iruña, Bitoria, Donostia, Bilbo ta Baiona.

Sari hontaz gainera bi aipamen bereziak eman ziran: Aita Viallasanteren "JESUKRISTO" liburuari, eta "MARGO EDERDUN ENZIKLOPEDIA" delakoari.

Rikardo Arregi zanaren urteurrena

Ioan berri den uztailaren amargarrenean urte bat bete zan Andoaingo seme euskaltzale eta euskerazko alfatetatzearen sortzaile eta zuzendari zen Rikardo Arregi ta Aranburu jauna il zala.

Bere senide eta Euskalerriko seme zintzo guzien doluminekin ados gaude, ta denok elkar oroi eta otoitz.

Beste Euskal Aldizkari bat Bizkaian

"AGUR" izenburu honekin Bilbon beste euskal errebista bat argitaratu berri da. Ilean behin aterako da, eta bere zuzendaria bertako lege gizon dan Jose Maria Retana. Urtekoz ehun pezeta kostatzen da. Edozeinek eskatu dezake Bilbora, bi numeroko apartadora (Apartado 2, Bilbao).

Ikusle

Principe de Viana, 1970, uztaila-abuztua, 2. orr.



## EUSKAL HERRIKO LEIOA

Migel Xabier Urmeneta jauna joan zaigu

Orain bi ilabete duela Urmeneta jaunak Diputazioa utzi zuen. Zazpi urtez egona dago gure Nafarroako Jauregian nafar-lurraldearen alde etengabe eta geratu eziñeko lanak eginez. Ixil ixilean joan zaigu bere lehenengo eginkizunetara aurpegia ematera.

Guretako, Urmeneta jaunarekin, hor edo hemen, lan batean edo bestean elkarrekin zerbait hartu-eman eta lana egin dugunetako, ziur ziur dakigun gauza da gizon prestu, argi, langille ta iakintsua joan egin zaigula.

Urmenetaren adimendua mail guzietara eltzen zan, eta problema batean edo bestean sartu ezgeroz denok ikusten gauz arrigarria zan berehala berak kontua hartu, eta menderatu egin zuela.

Euskeraren alde, eta hau da guri tokatzen zaiguna, bere burua (muñak ta kaxkaezurra barru), borondatea, adimena, arimaren indarra ta dena jarri zituen.

Diputazioan daude betikoz Urmenetari eskerrak berak onhartu zituen euskeraren aldeko azken erabakiak, Diputazioaren gain jarritz ikastolak eta beste ikastola berriak irikitzeko eskubide eta erraztasunak emanez.

Berari eskerrak ere errevisa hau, gure euskal "Príncipe de Viana" aldizkari hau, sortu zan eta Nafarroako euskaldun diren etxe guzietan sartzan da.

Urmeneta jaunak merezi ditu gure agurrik beroenak, eta txalorik indartsuen eta biozkorrenak Nafarroaren eta euskeraren alde egin dituen lan guziengatik. Agur Urmeneta biotzez!

"Marxen Marxismoa" liburu berria

Bilboko "Mensajero del Corazón de Jesús" delako Editorialaren ETOR izeneko euskeraz argitaratzeko Liburu-Sailak bere bigarren liburua argitara eman berri du "MARXEN MARXISMOA" izena duena.

Gotzon Garate jauna da bere egilea. Jaun hau Deustuko Unibersidadearen Irakaslea da.

Liburu hontan irakurleek marxismoari doakion iakiteko bide erraza aurkituko dute dena euskera garbi eta entelegarrian idatzia.

"Herri Hizkuntzeen Bilerak" Iruñean

Yoan berri diren Apirileko 4 eta 5 egunetan Iruñeko "Museo de Navarra" delakoan Nafarroako Diputazioaren "Príncipe de Viana" Elkargoko "Euskeraren Aldeko Saila"-ren laguntza, babesa eta ardurapean Españiako Herri Hizkuntzei buruz gaiak harturik bi "Lan egun" (Jornadas de trabajo erderaz) egin dira.

Badakigu Españian erderaz (gazteleraz) gainera iru hizkuntzaz mintzatzen direla: gure euskera, gallegoa eta katalana. Iru hizkuntz hauek beren eskubidea, beren bizitzeko zuzenbideak dituzte, edo izan beharko lituzkete behintzat. Honengatik bada, gure euskeraren eskubideak finkatzeko, eta euskerarekin batera, gallegoaren eta katalanarenak ere ongi ta

garbi jartzeko ta azaltzeko Iruñean Elkar hizketak izan dira pasatu berri diren Erramoko igandean eta ondoko astelenean.

Bi "Lan egun" hauetan parte hartzeko Galiziatik eta Kataluniatik, hizkuntza bakoitzaren Akademiko jaunak gure txokora etorri dira Euskal Akademiaren jaunekin eta gure Diputazioaren "Principe de Viana" Elkargoko Agintari Nagusiekin elkarri gure hizkuntzeen aldeko problemei buruz itzegin, aztertu eta azaltzeko.

Ipar Ameriketako idazle bat Lesakako herrian

Williams jauna Ipar Ameriketako idazlea dugu; hontaz gainera Los Angeles'eko Unibersidadearen "Mintzaira ta Historia"-ren irakaslea.

Ipar Ameriketean lan egiten ari diren euskaldun artzaien bizimoduari buruz liburu bat nahi du idatzi.

Gure oitura eta biziera o ngi ezagutzeko Lesakako herrira etorria da. Ongi etorri Euskal Herrira!

Euskal Meza Tafallan

Otsailaren amairugarrenean Tafallako Aita Eskolapioeen elizan euskeraz esandako Meza bat asi zan ematen. Meza hau larunbata guzietan emango da, baita ere urteko festa guziko bezperetan.

Ordua: Arratsaldeko zortzietan.

Zorionak!

Euskal Meza Berriak Iruñean

Berri pozgarria da.

Euskerari toki ta kasu gehiago eman ta egin euskera ain maite dugunetako pozgarria egiten zaigu.

Iruñean denok dakigun bezala bi euskal Mezak ematen ziran: Bata Ama Karmeldarrean Elizan, igande ta jai guzietako goizeko amabietan. bestea Aita Jesuiteen Elizan, larunbata ta besta guzietako arratsalde zazprietan.

Hontaz gainera Martxoko seigarrenean irugarren euskal Meza ematen asia zan. Euskeraz esandako Meza hau San Pedro Parrokian ematen da, larunbata ta besta guzietako arratsaldeko seiterdrietan.

Eta... beste bi aurki asiko omen direla ere iakin dugu: Bata Sakramentinoeen Parrokian eta bestea gure auzoko dan Burladako herrian.

Iruñeko "La Vasconia" banko etxea Irungo herrian

Martxoaren amabigarrean Gipuzkoako Irungo herrian Iruñeko "La Vasconia" Bako etxeak Bakoko Ofizina bat iriki eginz uen. Ofizina honen zuzendaria Jose Erramon Gonzalez jauna izendatu dute.

Bizkaiko Anaitasuna aldizkari eder ta irakurgarrian leitu dugunez Gonzalez hitz eder hauek esan zituen inaugurazio egunean: "Nuestra presencia en Irún se debe a una vocación y a un imperativo. Vocación porque Guipúzcoa y Navarra son complemento una de la otra; e imperativo, porque la presencia del Banco en la cuenca del Bidasoa, desde hace decenios, no podía ni debía terminar en Endarlaza. Esa era una limitación que hacían los hombres; pero Dios quería que a uno y otro lado del puente se hablase el mismo idioma"

Hitz politak benetan!

Ikusle

Principe de Viana, 1971, apirila, 2. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

Euskal Herriko Leioa

Belok-eko Abade Nagusia berria

Ioan berri den Martxoaren 21'ean Belok-eko Abatetxean Baiona'ko Apezpikuak Abade Nagusi berria bedeinkatu zuen: Aita Xabier Diharce.

Belk-eko Abatetxea Iparraldeko Euskal Herrian dago, Laburdi herrialdean, Baiona ta Hazparne artean kokatua. Abadia honek badu bere izen na bai Euskal Herrian bai Frantzi guzian baita mundu guziko misio katolikoetan ere. Gure Euskal Herriari begira Errelijio Katolikoaren gauzetaz gainera Abatetxe hontan euskerari eta euskal kulturari buruz egiten diran lanak garrantzi aundikoa dira.

Abatetxe honen Aita Jean Pierre Inda ogeitabi urtez Abade Nagusia, Burua ziana da eta orain zentzu onez iokatuz, ainbeste urtez bere eskutan izandako agintaritzta ta jabegoa beste esku gazteagoan uztea pentsatu du denen onerako.

Belok-eko Praileek Aita Xabier Diharce Abade Nagusia izendatu zuten, eta lehen esan dudanez, Benito Sainduaren egunean Aita Diharce Abade berria bedeinkatua izan zan.

Pozez beterik berri hau zabaltzen dut zergatik nere txit ezaguna den Aita Diharce balio aundiko gizona bait da, eta Errelijioari dagozkietenak alde batera hemen utzirik (nahiz ezin obeago berak iakin egin) euskeraren alorrean gure Aita Diharce Euskal Herriaren "ereite" onenetakoa da, euskal poetetan oberenatakoa, Euskal Akademiaren Euskaltzaina, eta euskal idazle on eta trebea. Euskal letretan "Iratzeder" izenordez ezagutzen zaio. Euskal Herri guzian Aita "Iratzeder" maitatua da.

Zorionak biotzez.

Iruñeko Euskal Mezak

Oraingoz lau euskeraz esandako mezak ematen ziran Iruñean. Bi jai bezperetan, eta beste bi goizeko festetan. Orain beste euskal meza bat emango da: Igande eta festa bezpera guzietako arratsaldeko zortzi eta erdietan. Eliza: Damas Apostolikas delakoen Elizan.

Berri txalogarri hau aipatzearekin batean hau esateko ere bururatzen zait: Errebista honen beste toki batean Iruñeko euskaldunei dohazkioten zenbait gauz interesgarriak, Iruñeko Apezpikutzak emanak, azaltzen dira. Merezi du leitzeak.

LUR Editorialaren liburu berria

LUR Euskal Editorialak esaten digunez laister Etxeberri Sarako zenaren LAN HAUTATUAK izeneko liburua argitaratuko du. Liburu hau euskal klasiko batena da. Urtean behin LUR Editorialak euskal klasiko baten liburu famatu bat gure eskuetara jartzen du.

Liburu hau luze xamar gertatu da eta balioa LUR Editorialaren beste liburuoenak baño garestiagoa da: 100 pezeta suskribidoreentzat, eta liburu-dendetan: 200 pezeta.

Mikel Arbea'ren euskal diskoa

Mikel Arbea Iruñeko semea dugu, Domingo sainduaren karrikan sortua alegia. Kantari gaztea da, eta oso ona gainera. Orain bi ilabete badu lau euskal kantuz osotutako disko bat atera duela.

Euskal disko hontan grabatuak dauden lau euskal kantuak hauek dira: EUSKAL MENDIETAN, BAKARDADEA, HERRI MAITEA eta EREITEN DUENA.

Mikel Arbea abots on baten kantaria da eta uste dugu bere disko honek salmenta haundia izanen duela.

Arbea'ren nahikeri eta asmoa da bere kantuen bitartez bere esan-nahiak agertzea. honela dio berak: "Nere kantuen musika, neri interesgarri iduritu zaizkidan ideien eta sentimenduen zerbitzuan egina da. nere kantuek eta konposizioek baliorik badute, musikari baino gehiago zor diote musikaren bidez ematen den esan nahiari eta ideiari..."

Donostiko EDIGSA etxeak izan da argitara eman duena. Iñaki Biobide jaunak grabazioak beregain izan ditu. Musika-denda guzietan salgai dago. 110 pezeta da bere balioa.

"Tintin Ameriketari" umeentzako liburu berriak

ETOR delako euskal liburuak argitaratzeko Editorialak "TINTIN AMERIKETARI" deritzan mundu guziko umeen artean ain famatua dena euskeraz argitaratzen asi da. TINTIN delako hau eta bere ibilaldi, gertaera, gorabera eta arrisku, bidaune eta gertakari arrigarriak nazio askotako umeentzat laketa, atsegin eta iostagarriak egiten zaizkie.

Orain ETOR delakoak euskeraz argitara asi berria da gure euskal umeek irakurri dezate.

Oraingoz lehenengo tomua agertu da "TINTIN'EN GERTAERA ARRIGARRIAK" izena duena. Apain eta txukuna moldatua da. Balioa: 150 pezeta.

Euskal Akademia Bilbo'ko Apezpikuarekin

Aita Villasante Euskaltziandiaren Lehendakaria, Jose Maria Satrustegi eta Jose Luis Lizundia Euskalzainak Euskaltzaindiaren izenean pasatu den Otsailaren amaikagarrenean Bizkai'ko Apezpiku den Antonio Añoveros Ataun jaunarekin elkarhizketa mamitsu, biozkoi beharrezko eta premia aundikoa izan zuten.

Añoveros jaunak esan zien gure euskaltzaineei bere aldetik prest dagoela Eliz Ama Santuak eman dituen hizkuntzen aldeko aginduak aurrera eramateko, eta bere esku dagon guzia egin eta laguntzeko. Euskeraren alde hitz onak jaso zituzten gure euskaltzaineei.

Principe de Viana, 1972, apirila, 2. orr. (martxoa, 8.orr.)

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

### "Euskal Herriaren Historia" liburu berria

Federiko Zabala jaunak egindako erdal "Historia del Pueblo Vasco" obra Euskal Editorialak diran *Etor* eta *Jakin* delakoak euskeratu dute. Lehenengo tomoa gure eskuetan dugu "Euskal Herriaren Historia" izenburutzat beste bi tomo aterako dira.

Lehenengo liburu hontan Euskal Herriaren Lur Ekonomia gaia ikututzen da, iru sailletan partitua: Nekazari-Ekonomia, Merkatuaren Ekonomia, eta Kapitaleko Ekonomia. Urrengo liburuetan Euskal Herriaren sortzetik gure eguneterainoko historia azalduko da.

Liburua Federiko Zabala jaunak erderaz idatzi badu ere *Etor* eta *Jakin* delakoei eskerrak euskeraz idatzitakoa ere agertzen da.

Beste gainerako bi parteen zai gelditzen gera lan guzia osotu ta bururatzeko.

### Garralda Herriko festak

Aurten Garraldako herriak nahi izan zuen bere urteroko festak euskal giroa izan zezaten. horretarako egun berezi bat antolatu zuten euskerari eta euskal oiturei toki eta arreta ederra emateko. "Etxeko Andre eta Jaunen eguna" delakoa izendatu zuten eta egunsentitik gauetaraino euskal festa galanta prestatu zuten. Baño gauza bat da prestatu eta beste gauza ezberdina egin zergatik Gobernadoreak euskal festaren parte batzuek debekatu zituelakoz.

Goizean Euskal Meza eman bazen ere, eta besteen bat ere ospatu euskal dantzak, euskal soinuak eta euskal kantaldia debekatuak izan ziren.

### Garraldako Gaztedia eta Euskera

Festak denok nahi genduen bezala gertatu ez bazuten ere uste dugu datorren urtean festak euskaldunagoak izateko ahalegin gehiago ere garraldatarrek egingo dituztela.

Orain bertako gaztedia euskeraren alde dago. Beren gurasoak euskaldunak dira eta seme-alabak erderaz besterik ez iakingi! Bere ergelkeriaz kontu artu dute eta asi dira euskeraz ikasten.

Herri hontako gaztediaren ejenplua ikusirik inguru hauetako gazteak eusekrari maitetasuna agertzen asi da, eta garraldatarrek bezala Mezkiritz, Eugi, Zubiri, Auritzperri, eta Auritz herrietako neska ta mutillak euskeraren ikastaldiak asiak dira ematen. Bertako apezak euskal klaseak bere kontu daramazkite. Zorionak, eta aurrera, gaztedia, zugan bait dago euskeraren etorkizuna.

### Katalandar baten deia

Katalunian sortu eta bizi den gazte batek euskaraz dakiten gazteekin (berdin neska ala mutil zaio) kartaz elkar hartu emanak nahi ditu izan euskera ongi menderatzeko.

Hona hemen gazte horren izen, deiturak eta zuzenbideak:  
Ricardo de Vargas Holarons. Lagostera, 18. BARCELONA-13.

### "Euskaldun Artzaintza" pelikula

Ipar Ameriketako Filmaetxe batek "Euskal Artzaintza" gaia harturik pelikula egingo du. Filma honen izenburua "Euskaldun Artzaintza" izanen da, eta euskaldunak izanen dira ere zuzenduko dutenak. Ezagun artean Imanol Elizondo Sunbillekoa, eta Jean Urrutia Ipar Euskal herrikoa dira, lehenengoa zuzendari gisa aritu dena, eta bigarrena itzultzailea. Pelikula honen irudi eta ikuskizunak Ipar Ameriketako Kolorado, Kalifornia, Idaho, Nebada, baita ere Euskal Herri ber-berean hartuak izanen dira.

### Urkijo zanari oroimena Donostian

Gipuzkoako Diputazioaren "Julio de Urkijo" delako Mintegiak Urkijo zanari oroimenean ioan berri den Irailaren 27, 28 eta 30 ean iru hitzaldi bereziak antolatu zituen.

Iru hitzaldi hauen mintzalariak Antonio Tovar, Aita Luis Villasante eta Julio Caroja izan ziran.

Lehenengo egunean Antonio Tovar jaunak "Euskera eta Linguistika" gaia harturik hitz egin zuen.

Bigarrenegun Aita Luis Villasante "Urkijo eta Euskera batua" gaiari buruz mintzatu zen.

Irugarrenean Julio Caro Baroja jauna "Julio Urkijo zena" izeneko gaiaren gainean aritu izan zan.

### Frantziako Telebisioaren euskal programak

Azken numeruan esan genduen bezala Frantziako Telebisioan euskeraz emandako programak asi dira agertzen. Hona hemen egunak ta orduak:

Hile bakoitzaren lehenengo eta irugarren astelehenean emango dira. Orduak: eguerdiko ordu batetik ordu bat eta laurdenetaraino. Beraz, programak ordu laurdeneko edadura izaten dute.

### "Larre Gorrian" delako euskal kantu liburu berria

Kanpoan dago berriz ere Aita Donosti musikalaria bikain zanaren lan guziaren beste zati bat liburu mardul eta ederrean argitaratua. Banaka banaka Aita Erriezukoak Aita Donostiren zanaren egintzak eta lanak argitaratzen dizkigu, liburuz liburu gure eskuetara iritxirik.

Oraingoa "Larre Gorrian" izenekoa da. Hontan euskal kantu multzo ederra iru sailetan partitua azaltzen da. Lehenengo sailean pianoz lagundutako kantuak datoz. Bigarrenegun soilik



kantatzekoak direnak daude eta irugarrenean beste pianoz lagundu kanta multzo bat agertzen da.

Aita Donosti zanaren lan haundiaren LIBURU BILDUMA (Liburu multzoa) aurrera doha. Liburu edo ale berri honekin zortzi dira gaurkoz argitaratu direnak, eta honekin "Musica Vocal Profana" delakoaren parte osotu da.

Aita Iraizozko euskalari jakintsua denak kantu hauen euskera "orraztu du" herriak errezegi adi dezan.

Lan arrigarriak egitan Aita Erriezukoak egiten ari dena.

Euskera Institutoetan?

Jose Luis Fernandez jauna Bizkaiko Korteetako prokuradorea izana da. Jaun honek Madrilgo Gobernuari Bilboko Institutotan euskera irakasteko eskatu dio.

Dakigunez orain bi urtebete inguru Donostiko Institutoan euskera irakasteko klaseak jarri ziran.

Donostian egin dutena Bilbon eta Iruñan egin ez ditekenik arritutzeko gauza da nere ustez.

Luis Mitxelena jaunaren hitzaldian Erreterian

Luis Mitxelena ospe haundiko hizkuntzalari eta irakasle famatuak hile hontako zazpi ta zortzigarrenean bere sorterri den Erreterian bi hitzaldi eman zituen, euskera literarioari dohazkioten auzi, eztabaita eta problemak azaldu eta aztertzen.

Hitzaldi hauen gaia "Euskera idatziaren Batasuna" zan, hau da nola izan diteken euskal idazlariek idatzi behar duten euskera: nolako modukoa gure euskera: nolako modukoa gure euskera literarioa izan behar da. Gauza iakina da euskeraz idaztean, mundu hontako edozein hizkuntzaz idaztean bezala, "euskera berdin batean", "euskera bateratu" batean" idatzi behar dugunik. Euskeraz mintzatzean euskaldun bakoitzak bere euskalkiz, edo sortzez ikasitako euskeraz mintzatzetik euskerari kalte haundirik ez datorkiola gauza iakina da, baño izkribitzean, idaztean, euskaldun guzieek "euskera batu batean" euskeraren etorkizunaren onerako erabili behar dugula iakinean gaude ere bai.

Hortik datoz Mitxelena jaunak esandako mintzaldien mamia eta gaurkotasuna. Azken urte hauetan "euskera literarioa", euskera idatzia, bide onean dabil. Euskal idazlariak gero eta gehiago dira "euskera batu batean" idazten asiak direnak, edo ahaleginak behintzat egiten ari dira "euskera literarioari" aurpegi on eta goxoa jartzeatik.

"Gaztelu ondo", edo "Junto al castillo"?

Ibargoitiko Balearen Elo'ko (Monreal erderaz) herriko alderdi batek *Gaztelu ondo* izena du. Izen honek ongi esaten du aintzinean alderdi hontako aldamenean zegoena *Gaztelu bat*, Elo'ko Gaztelua, edo Monreal herriko Gaztelua.

Gaztelu hau amaseigarren mendean, Nafarroko gaztelu guziak bezala (edo gehienak bezala behintzat) lurreratu eta ondatua izan zan. Ordudanik azken mendeko ondarreko

urtetaraino bertako jendeak gaztelu hori zegoen tokia *gaztelu ondoa* izenarekin ezagutzen zuten. Irakurle guziek ikingo duzuten bezala, izen hori erabiltzea ez da arrigarria zergatik bertako gizoneek betidanik euskaldunak izan ziralako, eta gaztelu horren oroimenean ez zuten izen egokiagorik aurkitu ahal izan.

Izen horrek iraun du gure egunetaraino baño orain urte batzuek hango jendea "gaztelu ondoa" esan beharrean "junto al castillo" esaten asi zan. Orain ehun urte edo baduela bertako azken euskaldunak il zirela, eta herria osotik erdaldundu bazan ere oraindik Gaztelu ondoa izenak irauten zuen. Orain tamalez "junto al Castillo" esaten zaio.

Xabier Larraiotz Zarnaz Apez jaunak "Diario de Navarra" idatzi bat argitaratu zuen "gaztelu ondoa" berriz esateko eskaturik.

Nik ere agerkari hontatik Monreal herritarrei "gaztelu ondoa" esateko eskatzen diotet, euskal izen polit eta jator hori "junto al castillo" baño gureago delakoz.

Ikusle

Principe de Viana, 1971, azaroa-abendua, 2. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

### Inazio Baleztina zenaren oroimenez

Inazio Baleztina Azkarate jaunaren eriotzaren berria aspaldikoa da. Gure aldizkari hau kanporatzen danerako iru hilabete beteko dira bera il zanetik. Min eta eritasun luze pake arrigarrian jasan ondoren il zitzaigun irutan ogei ta amabost urte zituelarik.

Leitzeko jatorri oneko fameli batekoa zan. Euskaltzalea zintzo eta Euskal Herriko oiturak errotik maitatzen zituen. Bere doaiak jatorrak izan ziren beti. Ona, betiko gaztetasunez eginikako gorputza eta arima. Beti alai, irritsu, far egiteko prest zegoena.

Goian bego Premin de Iruña biotz oneko gizon euskaltzale eta xelebrea.

### Euskaltzaindiaren berriak

Euskal Akademiak Elgoibarko seme zen Pedro Migel urruzuno zenari omenaldia egitea onartu zuen iragan den udazkenean. Datorren 1972 garreneko Urtarrilaren (Ilbeltza) 21 garrenean esan digute "Omenaldi-eguna" Elgoibarreko herrian izanen dela. Egun hontan berean Euskaltzaindiak bere hileoroko Batzarra herri berean egingen du.

### Mikel Zarate "Txomin Agirre" Nobela Sariaren irabaztailea

Euskaltzaindiak eratutako "Txomin Agirre" Nobela Saria txit famatua da euskal idazleen artean. Urtean behin antolatzen da. Aurtengo Saria Bizkaiko Lezama herriko seme den Mikel Zarate jaunak bereganatu du "*Haurgintza minetan*" izeneko liburua idatzirik.

Mikel Zarate jaunak ogei ta emeretzi urte ditu. Aparejadorea, sortzez euskalduna eta gaztetatik ekin zion euskeraz idazteari. Orain arte baditu liburu batzuk idatziak: "Alkartasun zarra" "Bizkaiko euskal idazleak", "Txiki zaharra", "Gure Meza Deuna" eta, Derio'ko Seminarioan euskera eta euskal literatura erakasten du.

Zorionak Mikel Zarate jaunari.

### Bidasoko Bera Herriko berriak

Noizean behin, eta txikiak izaten badira ere oraindik, Bidaso aldetik berri pozgarriak etortzen ari zaizkigu azken denboretan. Euskal klaseak adinekoentzat, Ikastola irikitzeke asmotan daudela, lesakarrek "Beti Gazte" Elkargoaren bitartez zenbait euskal kantu ikasteko hasiak direla eta esaera bat atera dutela bere asmoaren zabalkunderako: "Asteoro euskal abesti bat ikas dezagun"... eta.

Orain Bera herriak Idazlanen Sariketa bat antolatu du euskeraz edo erderaz idatzitakoen artean. Ariketa honek "Pio Baroja" -gure erdal nobela egilearen ohorez- izena eramango du. Agerkari honen beste toki batean beratarrek prestatutako DEIA argitaratzen dugu gure euskal idazleak iakinean egon diteren. DEIA hontantxe Sariketa honen xehetasunak eta baldintzak azaltzen dira. Gainera bi Sariketa izanen dira bata adinekoentzat eta bestea aurrentzat.

Tudelako berriak

Gure Erriberako Hiri Nagusitik euskeraren maitetasunaz betetako berria etorri zaigu. Tudelako Aiuntamenduaren "Dantzari Taldea"-ren neska-mutillak nahi dutela euskera ikasi. Euskal dantzak eta gure herri osoa ezagun ezgeroz, gauza bat garrantzi handikoa dena berentzat falta zaie: Euskera menderatzea, euskeraz mintzatzea. Eta hara nola hasi dira jo ta ke euskeraren hitz eta soñuak gogo onez ikasten. Euskal klaseak antolatu dute eta bertako Aiuntamenduak toki egokia eman die lasai ikasi dezaten. Irakaslea Errenderiko andereñoa bat da.

Aurrera Tudelako semeak euskeraren alde!

Durango'ko zazpigarren "Euskal Liburu eta Disku azoka"

Iragan dira Azaroaren 1, 4 eta 5 garren egunetan Durango'ko "Andra Mari Uribarriko" Arkupetan Zazpigarren "Euskal Liburu eta Disku Azoka" izan genuen. Azoka edo Merkatu hau bertako "Durango'ko Merindadearen "GEREDIAGA" Elkarrekin antolatu zuen Bizkaiko "Caja de Ahorros"-aren laguntzarekin.

Iru egunez beraz irikia egon zen Azoka, goizetan eta arratsaldetan. Azokaren egunetan ere dantzak, kantaldiak, auspojtzaleak, dultzaineruak eta beste euskal folkloreak erakustaldiak izan ziren.

Urteoro Merkatu hau antolatzen da baño aurten berebiziko antolaketak egin dute zergatik "*Nazioarteko Liburu Urtea*" aurten ospatua bait da.

Euskal Herri guziko ogeitsu "Liburu Etxeak" beren liburu eta diskuak erakustera eman zituzten.

Bi Sari, "Gerediaga" izena dutenak eman ziran: Bata Euskal liburuetan Mahiburukoen ustez aipagarrienari. Irabaztailea gelditu zuen MITXELENAREN LAN HAUTATUAK-ETOR Etxekoa. Eta bigarrenaz aipamenarekin EUSKALDUNA POEMA ETA OLERKI GUZTIAK, Orixe zenarena AUÑAMENDI Etxekoa. Beste aipamen bat CINSA Etxeari eman zioten *Mendiguren-Zabaletak* egindako FITXAK EUSKERAZ lanarengatik.

Beste Sari bat zuen erdal liburuetan emateko. EUSKO BIBLIOGRAFIA, Jon Bilbaorenak irabazi zuen. AUÑAMENDI etxekoa. Aipamena: OBRAS COMPLETAS DE BARANDIARAN Bilboko "La Gran Enciclopedia vasca" delakoarena.

Euskal liburuen artean hauek dira aurten argitaratu aipagarrienak: *Herriaren lekuko* eta *Euskal Literatura* (XVI-XVII), JAKIN etxeko direnak, *On egiñaren obaria*, Kulixka Sortak delakoan argitara emanak. *Esku-langintza*, Auñamendirena, *Sozialismoaren aurrerabidea* LUR etxeak argitaratua.

Aurrera izugarria izan zuen EUSKAL IZENDEGIA-k Jose Mari Satrustegi apez jaunak prestatua dena.

Principe de Viana, 1972, azaroa-abendua, 2. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

"Euskera" hitza Gaztelaniazko Akademiak on hartua

Erdeldunek "euskera" esateko "vascuence", edo "vasco" esaten dute. "Euskera" erderaz esateko ere gure Euskal Herrien maiz hitz berbera esaten oi da: Euskera. Hala ere erderaz mintzatzen "vascuence" esan beharrean "euskera" esan batzuek halako politika kutsu bat sumatzen diote, ez "euskera" esategatik politika baten señailea delakoz, *batzuek hoiek* gauz batzuentzako oso minberatuak direlako baizik.

Orain Gaztelaniaren Hizkuntzaren Akademiak "EUSKERA" hitza bere hiztegian sartzeko on hartu du.

Hemendik aitzinean erderaz ere "vascuence", edo "vasco" ez ezik "euskera" ere bai esan ahal izango da.

Nik erderaz hitz egiten gure euskal mintzaerari "EUSKERA" esaten nion beti eta orain bateren batek esaten baldin badit ia zer esan nahi duen "euskera" arrapostu galanta izango dut alajaña!... "Compra el Diccionario de la Lengua Castellana y lo verás...".

Neretzat beintzat "vasco" edo "vascuence" esatea baño "euskera" gustatzen zait gehiago.

Aunitzek esango dute hau ez tala ezer; halaxe da, baño "zerbait" bada.

Baionako "Kultura astea"

Eldu den Uztailaren irugarrenean (larunbatz), Baionako "Kultura Astea" asiko da. Biharamunean (igandez) Elizkizun Interkonfesionala izango da goizean; Arratsaldean erromeria euskal kantarikin.

Astelehenetik ostiraleraño eskolak, lanak, eta elkarhizketak izango dira.

Baionako "Kultura Aste" hontan Euskal Kultura izango da nagusi. Zer dan euskal kultura; zeintzuk dira kulturaren ideiak eta bidenabar zeintzuk dira euskal kulturaren ideiak berriak; gaurko kulturaren bideak; zer kultura dan Euskal Herrian; nola gaurkotu, berriztatu, zabaldu... eta, eta.

Gabriel, Aresti jaunaren liburu berria

Nere eskuetara eldu da Bilboko Gabriel Aresti euskal idazlari famatuaren liburu berria: "HARRIZKO HERRI HAU" izenekoa.

"LUR" Editorialak argitaratu du. Txalogarria benetan Arestiren ahalmenak baita ere "LUR" Editorialaren lan goragarria.

## Venecia-Saturraran" Euskal Kanta Sariketa

Datorren Uztailaren 28 garrean Motriko herriko auzo den Saturraran'en VENECIA delako FESTA TOKIAN "VENECIA-SATURRARAN" izeneko kanta jaialdi ta Sariketa bat egingo da.

Kantu guziak euskeraz kantatuak izan beharko dute eta Sariak berebizikoak, izugarriak nere ustez izango dira.

Hara nolakoak dira:

Lehenengoa: 75.000 (irutan ogei tamabost) pezetakoa.

Bigarrena: 50.000 (berrogei tamar) pezetakoa.

Irugarrena: 25.000 (ogei ta bost) pezetakoa.

Ez dira makalak benetan.

Berri gehiago nahi duenak zuzenbide honetara idatzi dezake: APARTADO 1.148 - BILABO.

## "HIBAI" euskal aldizkari berria

Deustuko Unibersidadeak "Euskal Kultura Mintegia" delakoa sortu zuen eta orain Sail honen ardurapean "HIBAI" izeneko euskeraz idatzitako aldizkari bat argitaratzen asia da. Lanak denak euskeraz izkribituak daude, eta gehienak gazteen lanak dira.

Ongi etorria izan dedilla biotzez.

## Jean Haritschelhar jauna Alkate

Jean Haritschelhar jauna txit ezaguna da Euskal Herri guzian, Frantzi aldeko Nafarroan sortu eta bizi bada ere egoaldeko Euskal Herrian badugu ere harren berririk.

Haritschelhar Baigorriko herrian jaio zan. Euskaldun zintzo, euskaltzale sutsu eta gañera Irakasle iakintsua da. Hitz gutxitan: kategori aundiko gizona.

Burdeosko Unibersidadearen "Euskera ta Euskal Literaturaren" Maixua da, baita ere Baionako "Euskal Museo"-aren Zuzendaria eta "Euskal Akademiaren" Bigarren Lehendakaria.

Orain bere sortherriko Alkatea bere herrikideek autatu dute. Zorionak!

## Disko berriak

"Herri Gogoak" delako euskal disko Etxe honek Benito Lertxundiren disko bat atera berri du. Lau kantu dauzka eta lauak Lertxundiren disko aundi batetik atereak dira.

Kantuen izenak: "Ezin uka", "Umeek ere jakin dute", "Triste jartzen nauzu", eta "Illunpetako gizona".

### Eibarreko "Euskera Lagunak" elkartearen berriak

Elkarte hau Eibarren sortu zan euskeraren laguntzeko. Orain elkarte honek gure mintzaeraren alde bere lan egiteko asmoak agertzeko agiri bat zabaldu du. Hona hemen agiri honek esaten dituenak:

"Herri agintariengandik euskerarenganako begirapena eta laguntasuna lortu, bai irakaskintzan, bai herri bizitzan.

Gure euskal hizkuntza irakasteko tokiak gehiagotu, eta orain horretan mintzatzen diranei lagundu.

Gure umeentzat, hizkuntza bitako eskolak sortu eta sortu erazi, eta daudenei lagundu.

Euskera ikasteko metodo berrituak eta egokiak argitaratzea lortu; eta beste ikasgai guziak ere bai.

Irakasle berriak behar dan bezala gertutzeko laguntasuna eskeini, irakasle egokien premia aundia dagoelakoz.

Euskal Kulturaren aldeko joera guziei indarra eman; hitzaldiak, teatro jaiak, zine erakusketak, literatura lehiaketak, liburuak, aldizkariak, eta abar...

Eta, gainera, gure hizkuntza maite hau indarberritzeko, legeen arabera egin leiteken guzia egin".

Eibartarreek hitz garbi eta argikin zer egin behar dan gaurko egunetan euskera bizitzeko esan dute.

Ikusle

Principe de Viana, 1971, ekaina, 2. eta 6. orr.



## EUSKAL HERRIKO LEIOA

### Lehenengo Zortzikote Berrien Txapelketa Zankotzan

Iruñeko "Gaztedi" Elkargoak antolaturik ioan den Maiatzaren 28'ean Zankotza (Sangüesa erderaz)-ko "Principe Enrique de Labrit" delako Teatroan goizeko amabietan "Nafarroa'ko Zortzikote Berrien Lehenengo Txapelketa" ospatu zan.

Teatroa telliaturaino beterik zegoelarik sei "Otxote edo Zortzikote" ari izan ziran -bi emakumezkoak eta lau gizonezkoak- azkenean honelako moduan geraturik:

Lehenbizikoa eta Txapelduna "SAKANAKOAK" Etxarri Aranaztik etorriak.

Bigarrena: NORA Zankotzako-emakumezkoa.

Irugarrena: ANDRE MARI Etxarri-Aranaztarra-emakumezkoa.

Laugarrena: LAGUN ARTEA, Lekunberrikoa eta

Seigarrena: ONGI ETORRI, Zaragozako "Nafar Etxe" delakoarena.

Otxote guziak ongi egon ziran; bere kantu guziak euskeraz abestu zituzten. Deneek Aita Olazararen'ek prestatutako (armonizatutako) "Mendekoste Festetan" kantua beharrezkoa izan zuten. Hontaz gainera "Zortzikote" bakoitzak bi kantu abestu zituen. SAKANAKOAK taldeak "Illunabarra" eta "Festara". NORA'k "Aitak eta Amak" eta "Atso thunthun". ANDRE MARI'k "Sorgin dantza" eta "Ume eder bat". ATERBEA'k "Ortzeko izarra" eta "Illunabarra". LAGUNARTEA'k "Beti eskama kentzen" eta "Ume eder bat", eta ONGI ETORRI'k "Txakolin" eta "Festara".

Otxoteen arinaldien bitartekoetan bertako Txistulariak eta dantzariak ari izan ziran.

Juan Pedro Aramendia jaunak festa zuzendu zuen -euskeraz eta erderaz- dena erakutsi eta zuzenduz.

Mahiburukoak hauek izan ziran: Aurelio Sagaseta apez jauna, Aita Juan Maria Eskala Kaputxinoa eta Jesus Urritza jauna.

Festa asi baino lehen Zankotzako Aita Kaputxinoen Elizaren Ama Birginari Otxote guziek "Agur Jesusen Ama" euskal kantu polit eta ezagutua kantatu zioten eta ondorean bertako Aiuntamentuan Alkate jaunak "agur eta ongi etorria" eman zizkien denei.

Egun zoragarri eta ezin ahaztutzekoa Maiatzaren azken igandea denontzako!

### Herri Meza Iruñan

Pasatu den Maiatzaren 20'ean Pentekoste bezperan Aita Jesuiteen Elizan arratsaldeko zazpietan Herri Meza bat eman zuen.

Honekin laugarren aldiz Iruñean holako Meza izan dugu irunsemeok.

Herri Meza hau "EUSKO GAZTEDIAREN ALDE" eskeindu zan.

Euskaldun aunitz eta euskaltzale jator asko bildu ziran egun hartan Aita Jesuiten Elizan Kristo eta Elizarekin batean elkarturik gure "euskal gaztedia" gero eta euskaldunago eta fededunago izan dedin.

Lesaka eta "Euskal Kultura"

Gutxika gutxika Lesaka'ko herrian euskaltzaletasun giroa haundiagotzen doha. Lehenbizikoz euskeraz erakasteko klaseak antolatu ziran; ondorean "Ikastola" bat irikitzeko pausoak ematen asiak dira eta orain "Euskeraz idatzitako ipuin eta idazpenak" Sariketa eratu da.

"Ikastola" izeneko Lehenbiziko Sariketa hau bertako "BETI GAZTE" Elkartearen "Iakintza Aldeko Sailla"k prestatu du eta bere gain ditu gorabera guziak. Nafarroko Diputazioaren "Euskeraren aldeko Sailla"k eman dizkio bere babes, laguntza eta kerizpea. Sariketa hontan Lesakako neskatto eta muttiko guziek parte ahal izan dute. Gure goresmenak antolatzaileei.

## Liburu Berriak

MITXELENAREN IDAZIAN HAUTATUAK deritzan liburu bat Errenteriako seme den Luis Mitxelena hizkuntzalari iakintzu eta famatuak idatzi eta prestatu dituen lanik berezienak dauzkana atera berri da.

Liburu honen egilea iakinik garrantzi haundikoa izanen dela esan beharrik ez da. Liburu hontan bertan ezagunerazteko esaten den bezala: "Liburu trinkoa eta mardula bezain gozoa eta ernagarria. Hitz bakarrez esan dezadan MITXELENARENA! Berak egin du. Berak jorratu eta BATU du. Bere eskuko behatsetik pasa da hitz bakoitza".

Agerkari hau artzen dutenei erosteko esaten diet zergatik oso interesgarria bait da. Aita Patxi Altunak izan da liburu hontan azaltzen diran lanak aukeratu eta bildu dituen. ETOR Editorialak argitara eman du.

LAN HAUTATUAK izentzat daukan liburu berri bat LUR Editorialak argitara eman digu. Euskal liburu denak herritik zuzen diskora eramanez inork landu eta konpondu gabeen.

Zuberoko herri txiki bateko ardotegei batean artzainak, nekazariak, basamutilak eta herriko beste gainerako jendeak afaltzen direlarik beuren kantu, bertsu eta ateraldiak disko honek ekartzen dizkigu. EDIGSA Etxe berberak argitaratu du. Amazazpi kantu denetara grabatuak daude.

Bi disko hauek Euskal Kulturari begira txit egokiak dira.

Bi disko eskatzekotan zuzenbide hauetara idatzi: Iñaki Beobide -Ferrerias, 1-Donostia.

## Ipar Ameriketaren Euskaldunak

Pete Zenarruza jaunak Euskaldun Ipar Ameriketako semea dugu; bere gurasoak euskaldunak ziran, Bizkaitarrak alegia. Orain hilabete batzu, iru edo, Euskal Herrian egona da bere gurasoen Lurra ezagutzeko. Bere garaian jaun ospetsu honen berri eman nuen, toki hontan berean.

Pete Zenarruza jauna Idaho'ko Estaduaren Sekretarioa da; ez da beraz gizon ezezaguna Estadu honen gizonik famatuenetatikoa baizik.

Gure Zenarruza Euskal Herriko periodiku guziei han prestatu duten "EUSKAL FESTA"-ren programa bidaldu die -euskeraz eta ingleseraz idatzita- hemengo euskaldunok iakin dezagun eta bide batez ahal dutenak hara joan ditezen.

Euskal Festa hau Ekainaren 2-3 eta 4 egunetan ospatu ziren. Aitzkolariak, arrigoratzaleak, bertsolariak, soiñeko-sariketak, argazki nor-gehiagoketak eta abar izan ziran; *Euskal Erregina* ere hautatu zuten.

Idaho'ko Estaduan Nebada, Kalifornia eta alde hartako Ipar Ameriketako bezala euskaldun aunitz bizi dira eta euskaldun gisan sentitzen dute. "EUSKOTARREN ABOTZA" izeneko agerkari bat argitaratzen dute euskeraz eta ingelesez izkribitutakoa dena.

Bi zuzenbide jarri ditut ondorean inork euskaldun maite hauekin nahi baldin baditu ar-emanik izan:

MIREN REMENTERIA -Basque Studies Center- Office of Higher Education-413  
West Idaho Street. Boise. IDAHO 83702-USA.

Eta STATE OF IDAHO. Pete H. Cernusca -Secretary of State- BOISE - IDAHO  
83707.

Goraintziak Ipar Ameriketako euskaldunak, agur biotzez!

Ikasle

Principe de Viana, 1972, ekaina, 2. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

Cisneros Musika Irakaslea il da

Ioan berri den Ekainaren lehengo egunean Cisneros Musika Konpontzaile ta Irakaslea il zan. Euskal Herrian, batez ere Bizkai aldean, oso ezaguna zan bere euskal musikaren aldeko lanenkatik.

"Columbia" Disko Etxean gogo onez lan egin zuen euskal folkloreaken diskoak grabatzen.

Beraren oroimenez Jaun Manuel Ares esandako hitzak ekartzen ditugu: Zuk egin duzun lana, Cisneros adiskidea, ez dugu euskaldunok ahaztuko".

Goian bego.

Baionako "Euskal Kulturaren Eguna"-ren berriak

Bere garaian hemen esan genuen bezela, ioan berri den Uztailaren irugarrenetik zortzigarrenean Baionan "Euskal Astea" delako bat ospatu zan. Aste horren lehenbiziko egunean, larunbatan, "Euskal Kulturaren Eguna" zan. Egin hartan euskeraz idatzitako liburu eta beste gainerako artikulo eta idazlanen Sariketak egin ziran. Jendea ugari eta egun horrek arrakasta aundia izan zuen.

Hona hemen "Euskal Literatura"-ren Sariketeen xehetasun eta argitasunak:

Liburuaren arteko Sariketa: Lehenengo Saria "Iostatuz mintzaira ikas" izeneko liburuak irabazi zuen. Bere Egilea: Aingeru Irigarai Nafarroko seme, sendagile famatu eta Euskaltzaindikoa dena. Liburu hau euskeraz erakusteko oso egokia da (Sari hau aur gazteendako irakurgaiaren Sailean eman zan).

Hontaz gainera Kultura gaia harturik beste Sariketa bat izan zan eta hemen lehengo Saria Xabier Garmendia jaunak bereganatu zuen "Lurraren Kondaira" deritzan liburuarengatik.

Euskal Artikuloeen Sariketan Lehengoak Erguin Donostikoa, eta Udo Mauletarra gertatu ziran, Bere Idazlanaren gaia: "Ipar euskal Herriko ekonomia zertan da, eta nola, Hego Aldekoak laguntzen ahal duen".

Zepai bertsolaria il zaigu

Etengabean berri alai edo tristeak, onak ala txarrak etortzen zaizkigu. Oraingoa Akilino Eizaguirre "Zepai" izen ordez ezagutuaren eriotzarena.

Zepai zana bertsolari on ta jatorra zan, abotsa sarkorra, ozena, zola zaukana.

Gaztetik asi zen bertsoak kantatzen. Bazuen Sona Euskal Herri guzian, batez ere bere Gipuzkoa maitean.

Zepai Errexilgo herrian 1907 urtean sortu zan bertako izen bereko baxerrian, hortik bere izen ordekoa zetorkion. Errexildik urte aunitz baduela Idiazabalgo herrira bere bizi tokia aldatu zuela eta Etxegarate ondoko herri eder hontantxe bizi izan da il arteraino.

Zepai etxea oso famatua da. Ostatu egokia bazkari, edo afari on bat egiteko baita txurruten bat hartzeko ere. Jantoki ona, izen aundikoa ongi jaten gustatzen zaionari.

Gure bertsolari zana umore onekoa zan; gatza ta piperra beti beregan zauzkan. Bertsolari jatorra berez eta sortzez. Benetan!

Far egiteko gizona, ateraldi ederrak beti ahoan ateratzeko prest.

Hara hemen orain buruan daukadan Zepairen agindakoetatik bat esan dutenaren señailea dena: Bere Jantokiaren komunaren atean berak asmatutako hitz hauek agertzen dira: EGIN ZAK LASAI. Lehenengo aldiz irakurri nituenean ez dut ain sabeleko minik nere bizian sentitu gela horrerik komeni zaiona alegia, eta oraindik etxe hortara joaten naizenetan ezdut farra geldierazi izaten ahal.

Goian Bego Akilino Eizaguirre "Zepai" bertsolari maitea.

"Hernani" Euskal Literatura Saria Joxe Antxon Arzak irabazia

Aurten Hernaniko herrian izen bereko euskal Literatura Sari bat antolatu zuten. Sari hau Usurbilgo Joxe Antxon Arza txalapartari, euskal kantari ta poeta ezagunak bereganatu zuen, bere "SABELA TA LURPEA" deritzaion poesiarekin. Amabost mila pezetakoa zan.

Gure irabaztailea "EZ DOK AMAIRU" euskal kantari talde famatuan ari izaten da. Zorionak.

Bilbotik Zumarragarako tren bidea

Oso interesgarria da Euskal Herri guzientzako "Zeruko Argia" euskal agerkarian Bilbotik Zumarragarako trenbideari buruz Bernardo Mesanza luz -injenieruak idatzi duen idazlana.

Iakingarria izanik nere ustez, bertan diona hemen laburki agertzen ausartuko naiz; Aurretik esango dut Mesanza jaunak trenbideari buruz diona:

Bilbotik Zumarragarako tren honek "Euskal Herriko geroko har-emanen giltza" daukala.

Eta orain tren honen argitasunak aipatuko ditut euskaldun guziek iakin ditzaten:

Lehenbiziz Bilbotik Donostirako "Tren estuak" ez du ezertarako balio. Etorkizuna Bilbotik Zumarragarako trenbidean dago. Tren honenau egitekoak lan hauek behar ditu: Bilbotik Durangorako eta Durangotik Elorriorainoko zatiak aldatu behar dira, eta gero Elorriotik Elgetan herriko azpitik Bergarako Angiozar auzora trenbide berria egin, eta handik Antzuola herritik zehar Zumarragainokoa egin ere RENFEkin elkartzeko.

Holako trenak Bilbo gure Iruñera irutan ogeitamar kilometrotan urbilduko du.

Denok dakiguna da autopistak behar beharrezkoak direla, baño ez dugu ahaztu behar trenbideak obeagotu, gaurkotu, berritu eta beharrezko direnak altxatu ere bai gauza zuzen eta bidezkoa dela.

Bilbotik Zumarragarako sugurdia egin ezkeroz Euskal Herriko Iri Nagusiak elkarri orain dauden baño urbilago egongo lirake.

Principe de Viana, 1971, iraila, 2. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

"Manex Etxamendi" liburu berria

AUSPOA delako Euskal Editorialak bere euskal liburuen argiratzeari gogor eta zintzo jarraitzen dio. Editorial honek gehienez bertsolarien liburuak ateratzen ditu eta berari esker Euskal Herrian il ziren edo bizi diran bertsolarien bertsorik ederrenak, gertaerak, bere bizien goraberak, berri eta xehetasunak dakizkigu. AUSPOA beraz "Bertsolarian liburu-bilduma" bat gertatu zaigu.

Urtean amabi liburu bat gure eskuetara jartzen digu hilean behin argitaratuz.

Orain gure Seigarren Merindadeko Esterenzubiko herrian sortu zen MAÑEX ETXAMENDI bertsolari famatuaren liburua atera berri du. Liburu hontan Etxamendi zenaren bizi, bertso eta gertakariak datoz Aita Pierre. Laffitte Bayonako kalongearak bildu eta idatzitakoak.

Gure Nafar bertsolariak abots argala zaukan eta jendearen aurrean kantatu beharrean, bertsolari gehienek egiten duten bezala, bere bertsoak izkribitzen zituen; beraz agitik ortzerako bertsoak, farrastan eta bat batean bertsoak botatzen baño berari atseginago egiten zitzaion lasai, emeki eta bere onetan paratzea.

Liburu honek merezi du erostea. Bertsozaleek badute nun aurkitu bertso eder eta mamitsuak.

### Euskera munduan

Euskal Herriko hizkuntzak, gure euskerak jakiña!, munduko hizkuntzalariei eta iakintsuei kezkek, jakin nahiak eta aintzineko gauzak aztertzeke asean ematen dizkio. Gure mintzaera mundo hontan diren hizkuntzarik zaharrenetakoak dela ez dut uste dela esan beharrik. Honengatik Euskal Herrira maisuak, irakasleak, maiz etortzen dira bertan euskera ongi ikas eta aztertzeke. Ain aintzineko hizkera izanik bera ikasten eta estudiatzen Linguistikaren bideak errazago jartzeke eta haren ateak idikitzeke zenbait giltzak eta maratillak aurkitzeke iakintsuen ustez egokia da euskera ezagutzea.

Gauza berarengatik ere *Munduko Unibersidadetan "Euskera ikasteko eta errotik ezagutzeke katedrak"* dira. Hona Hemen, Agur agerkarian irakurri dudanez, gaurko egunetan euskera estudiatzen eta irakasten den Unibersidadeen izenak:

*Upsala* ta *Lund* (Suezian), *Oxford* (Inglaterran), *Oslo* (Noruegan), *Berlin*, *Magdebourg*, *Munich* eta *Hamburgo* (Alemanian), *Tokio* (Japonen), *Leyde* (Holandan), *Tbilissi* (Errusian), *Bordele* eta *Toulouse* (Frantzian), *Columbia*, *Filadelfia*, *Idaho* eta *Nevada* (Ipar Amerikan).

Hau da Munduko Ikastetxe Nagusien izen zerrenda ederra benetan.

Españaiko zenbait Unibersidadeetan ere euskeraren irakaskintza da. Nik dakidanez Iruñeko eta Bilbokoan (Deustokoan) eta Salamankakoan "Larramendi" izeneko euskal katedra dan Luis Mitxelenaren gain dagoena.

Euskal Herriko Unibersidadeetan Deustokoa da gero eta lan gehiago egiten ari dena euskeraren irakaskintza eta ikasketarako.

Iruñekoan euskeraren ajola, ardura eta begirapena ez daude Unibersidade oni eta euskerari dagokio teak benetako maillan. Lan, bai egiten da lana, baño uste dut egiten dena baño askoz obeto eta gehiago egin behar dela. Basterretxea jauna da Iruñeko Unibersidadeak

euskeraren afer eta ikasketak bere bizkarrean eramateko izendatu duena. Esperoan nago gauzak bide zabal eta haundietan ibiliko direla zergatik Basterretxea nere ustez euskera oso ondo ezagutzen bait du baita ere gaurko egunetan behar diren hizkuntza baten erakasteko gaurkotasunez betetako irakaspide eta erak dakizkielako.

### Nafarroako Ikastolak

Ioan berri den kursoan Nafarroan izaten ziran Ikastolak amalau ziran: Iruñean bi, eta ondoren datotzen herrietan bana: Aoitiz, Olague, Lizarra, Etxarri-Aranatz, Burlada, Lakuntza, Lekunberri, Leitze, Elizondo, Altsasu, Tafalla eta Olazti.

Uste dut datorren kursorako Ikastola hauetaz gainera beste batzuk azaldu eta irikiko direla. Horretarako gurasoak, gure herrietako aita-amak, elkartu behar dira eta gero Diputazioaren "Servicio de Enseñanza" delakoari zuzen zuzen inguratu. Lehen bezala geroan ere Diputazioan euskeraren gauzak eta Ikastoleen oztopo eta goropiloak laguntzen, laxatzen eta biguntzen jarraitzen baldin badira euskeraren etorkizuna ziurtasunez eginikako bide zabal, sendo, tinko eta azkarrean egonen da.

Euskeraren Ikaskintza bere gain zeramaten "Euskeraren Aldeko Sailla" Diputazioaren "Servicio de Enseñanza"-ra aldatu da.

Inazio Irazoki diputadua eta Ziordia jaunen gain daude orain Euskeraren Irakaskintzaren gorabera eta afer guziak.

Lan bezate biek ongi euskeraren alde!

### Ipar Ameriketako Euskalduna

Ipar Ameriketako Estatu Batuetan, U.S.A.-n, Nazio guzietako semeak bizi dira. Nazio haundi honen Sartaldeko Estaduetan 50.000 milla inguru euskaldunak bizi direla "Zeruko Argia" euskal astekarian irakurri dut. Gehienak IDAHO, NEVADA eta KALIFORNIA bere bizitokiak dute. Beste milla batzuk ere badira OREGON, COLORADO, TEXAS eta MEXIKO BERRI-an bizi direnak.

IDAHO-ko Estaduan ehundik ia ia ehun bizkaitarrak dira; NEVADA eta KALIFORNIA-n berriz gure Nafarroatik joanak gehienak dira (Frantzi aldeko *nafartarrak eta Espaini aldekoak baturik*).

IDAHO-ko Estaduan bi euskal irradi (erradio) dira. Datorren kursorako bi ikastola irikitzekotan daude: bata San Francisco Hirian eta bestea Idahoko Hiri den Boise-n. Boise'ko Hiriak 80.000 milla bizilagun ditu eta hauengan bost milla euskalduna dira.

Udara hontan berean handik euskaldun multzo zintzo bat gure Euskal herrira etorri da euskera ongi ikastera. Gure "ongi etorri" biotzkor bat "Principe de Viana" agerkari hontatik bialtzen diogu.

### Nafarroako Euskal Kantariak

Gipuzkoa, Laburdi, Zuberoa eta Bizkaian bezala Nafarroan ere bakarka kantatzeko euskal kantariak baditugu zorionez.



Puskanaka puxkanaka gure Nafarroan kitarraz euskerazko kantuak kantatzen zenbait gazte azaltzen ari dira. Gure Baxanafarroan, seigarren Merindadean alegia, aspaldian bazeuden euskal gazte egoki eta plantakoak: Etxamendi, Larralde... Frantzi eta Espainia-ko mugaz honutzko Nafarroan aspaldian ere ba ziran Irigaray anaiak. Etxamendi eta Larralderen euskal diskoak badira argitaratuak, baita ere Irigarai anaien diskoak dira Disko Etxeetan saltzeko daudenak.

Oraingo hontan euskal gazte berriak euskeraz kantatzeko agertu zaizkigu: Iruñeko *Mikel Arbea*, Elo Gatzagako *Permin Balencia*, Lekunberriko *Mikel Etxarri*, Bidasoko *Yosu Goya*, *Gurutz Martinez* Altsasukoa, Aita *Yon Lasa* Ergoiengo Lizarragakoa, *Huarte*... eta.

Gazte hauek gure Teatroan, herriko plazetan, frontoietan, festetan ari dira azaltzen. Astea da neketsuena eta ori egin da. Aurrera!

### Euskal Disko Berria

"*Euskaros*" delako taldeak euskal disko bat konpondu berri ditu. Donostiako "*Herri Gogoa*" deritzan Etxe famatuak izan da argitara eman duena. Iñaki Beobide jaunarekin zuzenpean antolatu da.

Disko hontan lau euskal kantu dira grabatuak: DENA POLITA UDARAN, EDURNE, ZURE BEGIAK eta MAITE MIN. Eskatzekotan Iñaki Beobide-Ferrerias karrika - Donostia.

### Gexan Lantziri Urepeldarra

*Gexan Lantziri* euskal idazle gaztea dugu. Urepelgo herrian sortua da.

Iruñean bizi izana da garai batez. Aspaldi hontan Bayona'ko "*Basque Eclair*" izeneko eguneroko ezagunean euskeraz idatzitako lanak azaltzen ditu denak irakurtzekoak direnak.

Idazlan hauetan Euskal Herriari buruzko gai interesgarriak agertzen dira euskera herrikoi eta erraz idatziak.

Bere lan horietako batean gure "*Principe de Viana*" honentzako laudorio eta aipamen bereziak eskeindu zizkion.

Euskal "*Principe de Viana*"-ren orrialde hauetatik *Gexan Lantziri* adiskide eta euskaltzale zintzoari gure agurrak igortzen dizkiogu eta gure eskerrik eta goresmenik beroenak bialdu ere bai euskeraren aldeko ain lan baliotsuak "*Basque Eclair*" periodikuan egiten ari delakoz. Agur Lantziri biotzez!

### Lesakako "Euskal Idatz Sariketa"

Lesakako "*Beti Gazte*" Elkargoaren "Euskal Iakintza"ren Saillak antolaturik "IPUIN ETA IDAZLANEN SARIKETA" egin zan aurtengo udaberrian. Herriko Etxeak eta Principe de Vianaren laguntza eta babespearekin antolatu zan.

Gazte multzo eder batek bidali zuen bere euskal lanak eta JOSE MARI AINETO gertatu zan irabaztaile. Herriko Erretorea den Jose Mari Azpiroz. Elizondoko Mariano Izeta, eta Kati Oiarbide andereñoa izan ziran mahiburukoak. Sari Banaketa Uztailaren 16'an egin zan.

Sari ederrak eta ongi pentsatuak: euskal kontu eta liburuak, banatu ziran berrogei inguru neskato eta muttikoan artean.

Antton Erkizia euskal idazlari gaztea izan da Sariketa honen eragile eta gidaria. Aurrera Erkizia euskeraren alde!.

Ikusle

Principe de Viana, 1972, iraila, 2. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

### Euskal Meza bat Burladako Herrian

Lehengo numeruan esan genduen bezelaxe Burladako Herrian euskeraz esandako Meza bat asi da ematen.

Meza hau San Martingo Elizan igande ta besta egun guzietako goizeko bederatziretdietan esaten da.

Ioan berri den Maiatzaren bigarren egunean lehenbiziko Meza izan zen, jendea multzoka bildurik.

San Martingo Eliza Burladako herriko San Blas karrikan dago.

Burladako euskal Meza bertan bizi diren euskalduneeen eskariari kaso eginez ematen da.

### "Lur" Editorialaren liburu berriak

"LUR" Editorialak bi liburu argitara eman berri ditu: "Lau gartzelak" eta "Linguistika orain arte" deitzen direnak.

Lehenengo liburuan Nazim Hikmet poetaren bertsoak azaltzen dira Gabriel Aresti jaunak euskeraturik. Aresti jaunak Turkiako poeta famatuaren poemak euskeraz ezagunerazi dizkigu. Liburu honen itzaurrea Arantxa Urretabizkaiak idatzi du.

Bigarren liburuan, "Linguistica orain arte" izenekoa. Xabier Kintanak egindakoa da.

### Baionako Feriak eta Euskera

Aurten Baionako Ferietan egun bat osoa euskerarentzako emana izango da. Baionako Feriak Uztailaren lehengo egunetan egiten dira. Euskeraren egun hau bada datorren Uztailaren irugarrenean egingo da.

Irakurri dezagun orain Bizkaiko "ANAITASUNA" euskal aldizkarian Gexan Lantxiri jaunak berri iakingarri honi buruz izkribitu duena:

"Egun bat oso osoa euskerari emana izanen da, beraz, aurten Baionako Ferietan. Egun guztia egin izanen da euskal liburu eta diskoen feria. Egun guztian Feriaren ikusliar guztiek entzuten dituzte euskal soinu airosak; Arratsalde erditan berriz, euskera dakiten eta ez dakiten ainitzek. Kantaldi baten entzuteko parada izanen dute".

Eta hemen Iruñean Sanfermiñetan zer? Dena zeze, zarata, abarrots eta ardua? txistu soinuren bat entzuten badugu ere hori zer da? Hori ezda ezer. Gure Iruña zaharrean.

Beste ainbesteko "Euskeraren eguna" baten premian gaude.

### "Irakur Sail" Euskal Editorialaren Liburu Berria

"Irakur Sail" delakoa euskeraz idatzitako liburuak argitaratzeko etxe bat da, hau da Euskal Editorial bat.

Egun hauetan Editorial honek liburu berria prestatu eta argitaratu berri du. "Atsotitzak eta neurtitzak" izena duena.

Liburu hau ez da oraingoa Ohienarte Zuberoko seme zenarena baizik. Baño oso ona da, iakingarria, eta berriz ere argitaratzea lan ona izan da.

## Literatura Saria Eibarren

Aurten Eibar herriko San Juanetako festetan euskeraz eta erderaz "Literatura Sariak" izango dira. Bertako Aiuntamentuak ogeitalau mila pezeta "Literatura Sari" hauentzako eman onhartu ditu, Martxoko irugarreneko biltzarrean.

## Julio Urkixo zanaren Ehunurteburua

Aurten Julio Urkixo zana sortu zanetik ehun urte betetzen dira. Amar urte pasatuak dira il zanetik eta beti euskaltzaleen biotzetan dago bere oroimen eta gogorapena.

Julio Urkixo ta Ibarra Deustuko herrian jaio zan 1871ko Apirilaren irugarrenean bigarren karlista gudaketa asi zan urtean.

Jaun ospetsu eta fama aundiko hau lehenengo Euskal Akademiaren Euskaltzaina (Akademikoa) izan zen gure Arturo de Kanpion zanaren batean bai ta oraindik bizi den (eta urte aunitzetan bizitzeko Aita Inza!), Aota Da,asp Omtzalparelom ere-

"Revista Internacional de Estudios Vascos" delako izen aundiko Aldizkaria Urkixo jauna zen mundu guzira zabaldu zuena. Berak sortu, berak zuzendu eta berak ere bere arima ta bizia eman zizkion.

Irurogei ta bederatzi urte zituelarik il zan. Donostiko Artzai Ona Katedralean ehortzia (Iurperatua) dago.

Durango herriak Julio Urkixo zanaren ehunurteburua dela-ta "Euskal Festak" antolatu ditu 1866 ko urtean Durangoko herri berebanean egin ziran "Euskal Festak" ederreen oroitzapean.

Durango "Euskal Festak" delako hauetan era askotako lanak, erakusketak, itzaldiak, sariketak, ikastaldiak, folklore gaiak, liburu merkatuak, jolasak, dantzak, kanta ta Euskal Herriari dagokion guzia izango dira.

## "Diario de Navarra"ren Euskal Orria

Pasatu berri den Apirilaren 21an bost urte bete ziran "Diario de Navarra" egunerokoaren Euskal Orria argitaratzen asi zanetik.

Bost urte hauetan ehun ta ogeitamar euskal orri azaldu dira.

Irakurle guziak iakingo duten bezala Iruñeko "Diario de Navarra" egunerokoak amabostean behin eta beti ostegunean euskeraz idatzitako orrialde oso bat argitaratzen du. "Diario de Navarra" ren euskeraren aldeko lan honek esatea merezi du.

Ikusle

Principe de Viana, 1971, maiatza, 2. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

Eduardo Txillida

Eduardo Txillida euskal iduriegilea (eskultorea) Donostiko semea dugu. Munduko euskal irudi egilerik onenetakoa da. Orain "Barcelonako Kritikalarien Elkarteak" bere 1971 urteko Saria gure eskultutoteari eman dio. Sari hau 1971 urtean azalketa bat antolatu zuen Txillidak Barcelonan eta honengatik eman diote.

1968 urtetik 1970 urteraño Miro, Picasso eta Tapies izan ziren sarituak. Eduardo Txillida bere arte langintzan murgilduta dago beti zerbait lanak prestatu beharrez. Lan hauen artean bada Dusseldorf irirako lan haundi bat 70 toneladako altzairuzkoa da, beste bat Bilborako, Burdinari oroigarria da, eta irugarren hau Bilboko bezelako oroitarria dena Sueciarako egitekoa.

Txillidak, azaldu ditudan berri hoiekin izaten bada ere, bere nagusitasuna eta balioa txit ongi erakusten dizkigu.

Zorionak!

Euskal liburu berria

"Euskal Irakasleen Elkargoak" euskeraz irakasteko ari izaten direnei liburu berri bat argitaratu du.

Bere orrietan, euskera batuan idatziak, klase askotako hiztegiak azaltzen dira: Aritmetika, Geografia eta beste zientzia mota batzuetako hitzak, herrien izenak, oraingo munduan erabiltzen diran eskuarteko eta noiznahiko mintzoak, janari eta jantzien izenak, eta, eta.

Nere iritziz gure Ikastoletako ikasleentzat ere oso aukerakoa da.

Bere izena: "IKASTOLA HIZTEGIA" da. Balioa: 50 pezeta. Eskatzekotan: Euskaltzaindia, Ribera Karrika, 6 - Bilbao.

España'ko "Lehenengo Brujologiaren Batzar Nagusia"

Urrengo udazkenean, Iraila (Buruila)ren 21, 22, eta 23 egunetan Donostian "Lehenengo Brujologiaren Batzar Nagusia" ospatzekotan dago.

Iruditzen denez sorginkeriaren zaletasuna berriro gero eta indar gehiago artzen ari da gure mundu aurreratuan; baño zaletasun hau ez da aintzineko bezelakoxea, iakina!; gaurko kultura eta zientziari begiraten duten ardura eta axolak baizik. Izan ere, gaur eguneko munduan Afrika, Asia, Amerika eta Australiaren inguruetako herrialdeetan sorginkeriz eta aztikeriz betetako kulturak izaten badituzte ere, munduko gizonek aspaldiko eta noizbaiteko siniskeriak eta ustekeriak txokoratzen eta ahaztutzen dohazi zorionez.

Orain Zientzia gizoneek (Antropoloek, Historiaregieleek, Psikoanalisteek, Sendagileek, Folkloreelarieek, eta, eta) sorginei eta hauei dagokion guzia aztertzen, ikustatzen, bilatzen eta sumatzen nahi dute.

Hona hemen Donostian datorren udazkeneko lehenbiziko egunetan izan behar dan España'ko "Lehenengo Brujologiaren Batzar Nagusia" delako honen arrazoiak hitz gutxitan esanak.

Gure Bidaso aldeko seme den Julio Caro Baroja etnologo eta Maisu famatu eta jakintsua Biltzar hauen Zuzendaria izanen dela uste dut ezdela ere esateko beharrik.

Tokia ere egokia da, zergatik gure Euskal Herrian, Gipuzkoan eta batez ere Nafarroan, sorginen kontu, eta gertaerak aspaldiko denboretan ugari izan bait ziran. Gogoan artu, bat aipatzekotan, Zugarramurdi, bere arzuloa, akelarreak, eta.

### Euskal Teatroa Nafarroan

Nafarroako Diputazioaren "Euskeraren Aldeko Sailla" ren laguntzarekin euskaraz esandako "APAIZ LANGILLE ETA GIZON" izeneko teatroko obra Nafarroako zenbait euskal herritan ezagunerazi zuen Lazkanoko "Oargi" delako Teatro Taldeak.

Ioan diren apirilaren zortzigarren eta bederatzigarrenetan Lesaka eta Berako herrietan errepresentazio bana eman ziran. Beste ondoko egunetan ere Leitzeko herrian ari izan ziran lazkanotarrak obra berbera ematen.

Dakidanez teatro aretoak mukurraino betetu ziran jendea atseginez entzun eta ikusi egon zelarik.

Gogo onez ikusten dut gure Nafarrora ere "Euskal Teatroa" erakartze hau gure euskal kultura bideak gero eta zabalagoak izan ditzagun.

### Nafarroko Ikastolak eta Diputazioa

Gero eta "Ikastola" gehiago ari dira irikitzen Nafarroan; baita ere gure nafar jendea gero eta aurpegi gozo eta xamurrago Ikastolei ari zaie jartzen.

Gure Diputazioak urteoro dirulaguntza ematen die bere babespe, geriza eta estalperekin batean.

Orain berriki, pasatu berri den Apirilean, zuzenki esaten, Diputazioak, bere "Principe de Viana"ren "Euskeraren Aldeko Sailla"ren bitartez, Nafarroko Ikastola guzietan dirulaguntza eder bana partitu die urte honen partez. Aurtengo diruemanak beste urtekoak baño haundiagoak izan dira.

### Ion Enbeitaren disko bat

Ion Enbeita gaztea Bizkaiko semea da, euskalduna iakina, bertsolaria eta hontaz gainera euskal kantari on eta trebea.

Ion Enbeita bere aani guziak bezelaxe bertsolaritza bere muinetan sartuta dauka.

Sortzez bere bertsozaletasuna datorkio. Adar on bat enbor sendo batetik etorria da gure bizkaitarra.

Mujika'ko herrian orain ogeitabat urte baditu jaio zela. Euskal Herriko txoko hontan "Enbeita" enborrak aspaldin bota zituen bere sustrai eta erroak. Eta denok dakigunez "Enbeita" enborrak bertsolari ugari lurretik gorantz atera ditu, adarrak eder eta mardulak sortu eta sortzen ditu oraindika. Kepa Enbeita zanarengandik asita, honen seme izen berbereko

Kepa Enbeita eta bere anaia Imanol pasatuz, Valentin Enbeita, Abel Enbeita... eta Ion Enbeitarengainaino eldu arte baditugu zenbait Enbeitar bertsolariak...

Ionek badu bere euskal disko egina. ION ENBEITA-BERTSOLARI ETA ABESLARI izenekoa. Disko hontan lau kantu grabatuak daude: "Euskalduna naiz", "Emoidazu eskua", "Dirua", eta "Horrela doa mundua".

CINSA etxeak argitaratu du, Eskatzekotan zuzenbide hauetara eskatu dezake: CINSA. Avenida Ejército, 18-3º. Bilbao-14.

Ikusle

Principe de Viana, 1972, maiatza, 2. orr.



## EUSKAL HERRIKO LEIOA

### "JAINKOAREN BILLA" liburua

Bilboko "Ediciones Mensajero" etxe delakoaren "ETOR" izeneko Sail berriak Nikolas Ormaetxea "Orixe" zenaren "JAINKOAREN BILLA" liburua berriz ere argitara eman du.

Liburu honen ondoren "ETOR" delakoak beste euskal liburu batzuk argitaratuko ditu. Urrengoa "MARXEN MARXISMOA" deituko dena izango da. Bere egilea: Gotzon Garate jauna.

### Manuel Lsarte Bertsolarien omenaldia

Manuel Lasarte napar bertsolari on ona dugu. Aurten Donostiko "Astoria" Teatroan martxoaren emeretzigarrenean (San Jose egunean alegia) Lasarteren omenaldia izango da. Euskaldun asko egun hontan bilduko dira Lasarteri biotzeko gorasarrea eman beharrez.

Manuel Lasarte Arribillaga, Leitzeko herrian sortu zan, Franki baserrian, 1927 urteko abenduaren amaseigarrenean. Leitzetik Gipuzkoako Aiako herrira bere familiarekin bizitzera juan zan, eta han Gipuzkoan, Aian, gero Eibarren, eta azkenean Zarautzen bizi izan da.

Aotik aorakilako bertsolaria da Lasarte, bertso paperak iñoiz ez ditu izkribitu, eta Euskal Herriko euskaldun herri geienetan oso ezaguna da, batez ere, Gipuzkoako eta Naparroko herrietan.

Nik ere hemendik gure zorionik beroenak egun ona pasatzeko desiurekin batera Lasarte zintzo eta jatorrari nahi dizkiot bidaltzen.

### "Protestanteen Euskal Biblia"

Gure seigarren Merindadean sortu zan Joannes Leizarraga apezak, Nafarroako Erregina zen Albriteko Joanaren aginduz, "PROTESTANTEEN EUSKAL BIBLIA" 1571 urtean euskeraz idatzi zuen. Aurten bada lauhun urte betetzen dira gure nafar apezak Protestanteen biblia euskeratu zuela. Hau dela-ta, Bilboko semen den Xabier Kintana euskal idazle gaztea aspaldin ari da euskal liburu iakingarri hau prestatzen eta aurten lau Ebangelioak gutxienez argitaratzekotan dago. Oso interesgarri izanen da euskalduneeen eskuetan, batez ere, euskerazale artean izugarriko balioa izango duelakoz gure euskera zaharraren mami eta sustraiak ezagutzeko.

### Euskal Estudiantzako Ehun Milla Pezetako Saria

Bizkaiko Basauriko Aiuntamenduak, Bilboko Ateneoaren laguntzarekin, 100.000 pezetako Sari bat jarri du, "Euskal Estudioak" gaiei buruzko lanen artean onenari emateko.

Lanak euskeraz ala erderaz izan ditezke. Lanak bialtzeko epeak datorren ekainaraño (Garagarrillaraño) iraungo du, Zuzenbide hauetara bidaldu: Ateneo de Bilbao. Colon de Larreategi-4-BILBAO.

## Bertsolarien Txapelketak

Euskal Akademiaren Urtarrilaren Batzarrean Aita Zabalak esan zuen lau urte duela Bertsolarien Txapelketak egin ez direla eta aurten egin behar liraketelako eskaria presentatu du.

Begi onez ikusten dut Aita Zabalaren eskari hau eta ados nago berarekin.

Uste dut 1971 urteko Euskal Herri guziko Bertsolarien Txapelketa bat egitekotan Txapelketa honi ANDRES NARBARTE izena jartzea gauza egokia izango litzakela gure Goizuetako bertsolari jator zenaren oroitzapenetan.

## Euskera eta Irakasgoa

Españako "Enseñanza Primaria" delakoaren Burua Eujenio Lopez jauna da. Jaun hau Barakaldoko "Altos Hornos"-en eskolategiak ikustatzen ari izana da eta herri izkuntzeen alde poliki mintzatu da. Hemen bere mintzaldiaren aipamen txiki ta iakingarri bat: "*Herri izkuntza (euskera guretako) gero ta gehiago erabili behar litzakela eskoletan eta hortarako irakasleak ornitu behar direla (euskeraz eskolatu, trebetu behar direla), ezbadakite ikasiz, eta gero erabiliz*".

Itz ederrak Españako "Enseñanza Primaria" ren Direktoreak esan zituenak.

## Aita Villasanteren liburu berria: "Hacia la Lengua Literaria Común"

Euskaltzaindiaren Burua den Arantzazuko Aita Luis Villasantek erderaz idatzitako liburutxo berri bat idatzi berri du, "HACIA LA LENGUA LITERARIA COMUN" izenburutzat duena, "*Editorial Franciscana de Aranzazu*" delakoak argitara eman du. Aita Villasantek liburu hontan euskera literarioaren batasuna egiteko oinarriak azaltzen ditu. Oinarri hauek Euskal Akademiak onhartu zituenak dira.

Euskal ortografia hiztegiari dagozkionak, deklinabideak, euskal aditzaren batasuna, eta euskeraren joskera argi ta garbi aztertzen eta azaltzen ditu egileak.

Edozeinek eska dezake Arantzazuko Aita Frantziskotarrei - OÑATE.

Ikusle

Principe de Viana, 1971, martxoa, 2. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

Norberto Almandoz Musikalaria il da

Sevillan Abenduaren zazpigarrenean Astigarrako seme zan Norberto Almandoz apez eta musikalaria famatua il zan irutan ogei tamasei urte zituelarik.

Almandoz jaunak musikako ikasgoak egin zituen. Urte askotan Sevillako kalonje ta organista izan zan. ABC egunerokoan musikari buruzko gaiak eramaten zituen. Sevillako "Conservatorio de Musika" delakoaren zuzendaria izandatu zuten 1936 urtean eta kargu hau bere bizkarrean eraman zuen orain zazpi urteraño bere adinarengatik utzi behar izan zuelako. Sevilla bertan eortzia izan da. G.B.

Euskal Lehenbiziko Nobela eta Joannes Etcheberriren "Noelak" argitaratuak

Donostiko "Caja de Ahorros Municipal" delakoak euskal kulturaren bideak irikitzen lagundu nahiez euskaraz idatzitako bi liburu argitaratu berri ditu: Bata, Donibaneko lohizuneko Daskonagerre jaun zenak idatzi zuen "ATHEKA GAITZEKO OIHARTZUNA" izeneko lehenengo euskal nobela, eta bestea, 1630 urtean Joannes Etcheberri jaun zenak izkribitu zuen "NOELAK" deritzana. Azken liburu hau Axular aundiaren "GERO" izeneko liburua baño zaharragoa da eta orain alerik ere ezta inun arkitzen.

"EUSKAL KANTA BERRI"-ren Sariketa

Auren "EUSKAL KANTA BERRI"-ren Sariketa bat ospatu behar da: Euskal Herriko lau iruburuetan (Donostian, Iruñean, Bilbon eta Gazteizen) saio bana egingo dira eta Azken Nagusia Gipuzkoako Mondaragoi (Arrasate euskeraz)ko herrian izango da.

"Historia de la Musica Medieval de Navarra" liburua

Gure Diputazioak "HISTORIA DE LA MUSICA MEDIEVAL DE NAVARRA" deritzan liburu interesgarria argitaratu berri du. Higinio Angles il berri denak izan da liburu honen egilea. Preziski arestin Erroman il berri zaigu (G.B.)

462 orrialdeko liburua da.

Julio Caro Baroja'ren liburu berria

Julio Caro Baroja jaun yakintsuak Nafarroako "ETNOLOGIA ETA ETNOGRAFIA"-ri dagokion liburu bat bukatu berri du. Laister argitaratuko da; orain Inprentan prestatzen ari dira.

"Ez dok Amairu" kantari taldea berriz ere Tafallan

Urtarrilaren emeretzigarrenean, Sebastian Sainduaren bezperan, Tafallan "Ez dok amairu" izeneko kantari talde famatuak berriro eta exitu aundiakin bere euskal kantu ederrak kantatu zituen.

"Alaitz" izeneko Mendi-Elkarteak izan zen Euskal Kantaldi hau antolatu zuena. Pedro Sainduaren Elizaren areto ederrean gendez bete izan zelarik ospatu zan.

"Ez dok amairu" talde honen kantari ezagunak Tafallako gendeari txalo ugari atera erazi zizkioten zergaitik gure Erribera asten dan herri hontan euskal giroa Jaunkoikari eskerrak usan egiten da alde aunitzetik.

Lourdes Iriondo, Benito Lertxundi, Joxe Angel Irigaray eta Xabier Lete aritu ziran. Ordu terdiko kantaldia eman eta gendea atseginez egona.

Tafallatarrak, zorionak!

Euskal Aldizkariak

Gure Euskal Herria maitean euskeraz idatzitako aldizkariak (Errebistak) badira aunitz. Batzuek astekariak, hau da astean behin argitaratzen direnak; beste batzuek amabost egunean behin agertzen dira; besteak ilean behin, edo ilerokoak dira, eta badira ere iru ilean behin ateratzen direnak.

Saiatuko naiz oraintxe Aldizkari guzien, edo gehienen behintzat, izenak jartzera: "HERRIA", Baionakoa, Asterokoa.

ZERUKO ARGIA

"ZERUKO ARGIA", Donostikoa, Asterokoa.

"ANAITASUNA ", Bilbokoa, Amabosterokoa.

"PRINCIPE DE VIANA ", Iruñekoa, Ilerokoa.

"OTHOIZLARIA ", Beloc-ko Beneditarrarena, Ilerokoa.

"GOIZ ARGÍ ", Tolosakoa, Ilerokoa.

"GURE HERRIA " Baionakoa.

"KARMEL ", Amorebietakoa, Iru ilabetekoa.

"OLERTI ", Amorebietakoa, iru ilabetekoa.

"YAKIN " Arantzazukoa, iru ilabetekoa.

"EGAN ", Donostikoa, iru ilabetekoa.

Haueti, eta ustegabeen hemen jarri ezditutenei nere agurrik beroenak.

Ikusle

Principe de Viana, 1971, otsaila, 2. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

"JAKIN"en asmoak

"JAKIN" delakoa Arantzazu'ko fraileen ardurapean euskal aldizkari bat argitaratzeko sortu zan. Euskal aldizkari hontan ikutu eta azaltzen diran gaiak munduko eta euskal kulturarenak ziran: Politika, ekonomia, erreljioa, soziologia, istoria... eta abar alde batetik, eta beste batetik Euskal Herriari begira izaten diran artearen gai guziak: Musika, poesia..., eta, eta.

"JAKIN" honen lan eta asmoak berak kulparik ez izanik eta bere borondate onaren kontra ez zituzten gorputzik hartu. Orain oztopo guziak gaindituz aurrera berrito joaten asia dago etengabeko moduan lan eginez.

"JAKIN"-en Zuzendaritzak bere laguntzailei eta suskrito guziei agiri bat bidaldu die beren nahiak azalduz. Euskal kulturaren aldeko egintzak, eta lanak egitea da bere asmo nagusia. Horretarako "JAKIN" delakoa "euskal kultura lanerako talde iribi bat" egin da.

Bere kultura lanak bi sailletan partituak, zatituak, egingo ditu: Bat "JAKIN Sorta" deituko da, eta bestea "JAKIN Liburu-Sorta".

Lehenengoa aldizkari, edo agerkari modukoa izanen da, hau da errebista bateri dohazkioten gai guziak ikutu eta agerturik ("JAKIN Sorta").

Bigarrena liburuak izanen dira iru sailletan banakatuak: HISTORIAZ, GIZARTEAZ, eta GOGOETAZ ("JAKIN Liburu-Sorta").

Gogo onez "JAKIN"-en bizi berria ikusten dugu, biotzez poztutzen gera eta bere lanei zai gaude. Zorionak.

Bilbo'ko "Euskerazaleak"

Bilbo'ko "Euskerazaleak" delako Elkargo honek "KILI-KILI" izeneko 1972 garren urteko "SARIKETA HAUNDIA" antolatu du.

SARIKETA ala LEIAKETA hontan Euskal Herri guztiko euskaldun diran aurrek parte ahal izaten dute.

"KILI-KILI" delako SARIKETA AUNDI hau euskal hurrei izkribitzen eta irakasten ikasteko egokia da.

Haur bakoitzak, bere etxean, inoren laguntzarik gabe euskeraz idazteko tankerak errezki ikasiko ditu.

Parte hartu nahi duenak idatzi beza zuzenbide hauetara:

"Euskerazaleak"

Colon de Larreategui, 4

BILBAO

edo:

"Euskera Laguna"

Apartado 321

EIBAR

## Euskerazko liburuak

Yon San Martin jaunak Gipuzkoa'ko "Astelehenaren Orria" delakoan joan berri den 1971 urtean argitaratu diran euskal libururik onenetakoen berriak eman dizkigu.

San Martin'ek dio gero ta euskal liburu gehiago argitara ematen dirala, zorionez, eta 1963 urtean hilean bi liburu argitaratzen baziran 1971 urtean, gutxi gora bera, astean bat azaltzera eldu gerala.

Bere ustez, San Martin'en ustez, euskal liburu hauetan aipagarrienak hauek dira: Anjel Lertxundiren "Ajea du Urturik", Jose Azurmendi'ren "Hitz berdea, Xabier Azurmendiren "Izatearen malura" eta Lasa anai-arreben "Poema bilduma". Lau hauek kreaziozko literaturari dagozkiotenak.

Saiakera moduko liburuen artean: "Hizkuntza, etnia, eta Marxismoa" Jose Azurmendirena, "Langileria historian zehar" Mikel Ugaldereana, eta "Marxen marxismoa" Gotzon Garaterena aipatzekoak dira.

Ala ere beste liburu aunitzen artean irakurgarriak dira: Ibon Sarasolaren "Euskal Literaturaren Historia". Federiko Zabalaren "Euskal Herriaren Historia" (Lehenengo tomoa besterik oraindik ez da agertu, denetara iru tomoak izanen dira. Erderaz ere argitara ematen ari da).

Haurrentzako ere liburu ederrak argitaratu dira: Walt Disney'ren hiru liburu euskera batuan idatziak: "Animalien bizitza", "Itsasoko gauza arrigarriak", eta "Jendeak eta bizilekuak". Nere ustez aipatzeko da ere "Amazonetako Indioak" LUR Editorialak argitara emandakoa.

Ikusten dugunez Euskal liburuak maiz azaltzen dira: euskal liburu hauek irakurleak behar dituzte. Irakurleak ugarituta euskal liburuak gehiagotuko direla ez dut esan beharrik. Irakurle gehiago izanik gure euskal liburuen salmenta haundituko dela gauza nabarmena da.

Badakizute bada euskalduna, erosi euskal liburuak, Euskal Herriko liburu dendetan salgai duzute ta...

Ikusle

Principe de Viana, 1972, otsailak, 2. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

### "Kili-Kili" Euskal Sariketa

Beste urtetan bezala aurten ere "KILI-KILI" izeneko euskeraz idazten eta irakurtzen ikasteko Zeingehiagoketak Euskal Herrian asi dira. Bizkaia, Gipuzkoan eta Nafarroan euskaldun haurrak millaka beren izenak eman dituzte "KILI-KILI" delako Sariketa hauetara beren euskal lanak bidaltzeko.

"KILI-KILI" honi eskerrak, gure Nafarroan kontuan arturik bakarrik mila ta gehiago haur aurten badira Probaketa hontan parte artzen dutenak.

### Euskal Egutegiak

Euskal Herrian bi euskal Egutegi ditugu: Bata "*Arantzazuko Andre Mariaren Egutegia*" deritzana. Egutegi hau bi eratan argitaratzen da, bi euskalkeraz, bizkaieraz, ala gipuzkeraz, 24.000 ale ingurun saltzen dira.

Bestea Ipar Aldeko Euskal Herrian ateratzen da eta "*Baionako Gazteria*" de prestatu eta argitara ematen duena.

Bata ala bestea, edo biak, Euskal Herriko txoko guzietan agirian jartzeko oso egokiak dira. Salgai daude liburu dendetan.

### "Baxarri"-ri Omenaldia

Agerkari hontako beste toki batean Donostian egin zan BAXARRI-ri Omenaldiaren berriak agertzen dira. Hemen bakarrik nahi dut azaldu Ignazio Eizmendi Manterola, euskaldun gizon on, euskal idazle trebe, bertsolari paregabeko eta haundia, euskeraren alde ain gogor lan egiten duen euskaltzaleari biotzez nere zorionak bidaltzen dizkiotela.

### Bera Herriko Pio Baroja'ri Omenaldia

Abenduaren 28an eta Bidasoko Bera herrian bertako GURE TXOKO elkarteak antolaturik Pio Baroja zenari Omenaldi eguna egin zan.

Egun hartan berean Don Pio zena jaio zenetik ehun urte betetzen ziran, eta beraz egokien egokiena zan egun hartan berari gorasarre berezia eskeintzea.

Abenduaren 27 egunean, bezperan alegia, "PIO BAROJA LEHEN IPUIN SARIA" delakoaren erabakiak eman ziran. Honako moduan azalduak izan ziran: Lehen Saria "UHAINETAKO DESGIZONA" izena duen ipuiak irabazi zuen. Egilea: LUIS HARANBURU ALTUNA, Alegria Oriakoa. Gero bi aipamenak izendatu dituzten: UDAZKEN KANTA izena duenarentzako: Patxi Goenaga eta Patrizio Urkizu beren egileak dira.

Beste hurrek idatzitako Sariketa bat antolatua zan eta hemen ere Sari batzuk partitu ziran:



Lehenbizikoa TXORI TXIKI BATEN BIZITZA delakoak irabaztaile gertatu zan *Ondarrabiko Mkiel Garmendia* haurrak idatzia zena. Gero Aipamen berezi bat eman zioten *Igantzioko Pilar Retegi* neskattoari bere IJITUAK izeneko ipuiarengatik.

Euskal Ipui Sariketa hauen Mahiburukoek hauek izan dira: LUIS MITXELENA, AINGERU IRIGARAY eta MATTIN UGALDE.

Gero RIKARDO BAROJA izeneko HAUR PINTATZAILE SARIKETA bat ere prestatu zan baita OLENTZERO SARIKETA ere.

Euskal artista ezagunen artean ere AGERKETA BAT eratu zan. Irudigileak eta pintoreak Berako herrira beren lanak bidaldu zituzten. Han ziranak: *Barriuso, Basterretxea, Larramendi, Mendiburu* eta *Oteitza* eskultoreak; eta *Albizu, Gal, Baroja, Caro Baroja, Grazenea, Larramendi, Sagarzazu* (M:C. eta J.), *Sistiaga* eta *Urmeneta* pintatzaileak.

Baroja sortu zan egunean, hau da 28an, goizean Pio zenaren iloba dan Julio Caro Baroja jaunak hitzaldi bat bota zuen Don Piok Beran izan zuen bizimoduari buruz mintzatuz. Gero ITZEA Etxeko aurreko lore-baratzan Oteitzak egindako oroitharri eder baten agerketa izan zan, Don Juliok berak oroitharri onen esannahia eta adierazpena emanik.

Arratsaldean Bizkaiko "AKELARRE" taldeak Barojaren LEYENDA DE JUAN DE ALZATE irakurri zuten. Festa zoragarria asieratik azkeneiraño benetan!

#### 1972 urteko Euskal Liburuak

Donostiko "Hoja del Lunes" delakoan euskeraz idatzitako idazlan bat irakurri ahal izan dugu guztiz interesgarria dena. Bertan 1972 urtean argitaratu ziran euskarazko liburuen izenak, egileak, eta liburu bakoitzaren gaiari dagokion Sailletan partituak azaltzen dira.

Eibarreko seme eta Euskaltzandiaren idazkari trebe den Ion San Martin eta Ortiz de Zarate jauna izan da idazlan hau prestatu duena. Gero berako partean erderaz idatzitako laburpen moduko lantxo bat ere dator.

Hemen ikusten dugu astean, gutxi gora bera, euskal liburu bat argitara eman dela: 1972 urtean 56 liburuak mundura azaldu ziran zeatzki esanez.

Ikusle

Principe de Viana, 1973, otsaila, 3. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

### Segundo Olaeta il zan

Euskal Ballet lanari ainbeste urtez lotuta zagon Segundo Olaeta jauna il da. Sortzez Gernikatarra zan. Esan daiteke bere bizi guzia Euskal Dantzari, obe esateko Euskal Balletari eskeindu ziola.

Olaeta zanak Euskal Ballet eskola sortu zuen. Eskola honek berak ibilitako urratsei jarraituko dizkiolakoan nago.

### Emilio Joshe Espartza zanaren lehenbiziko urteburua

Ile hontako emeretzi garrenean (Urrilaren 19an) Jose Emilio Espartza jaunaren eriotzaren lehenengo urtemuga betetzen zan.

Il zaneko urte buru hontan bere arimaren aldeko otoitzak gure irakurleei eskatzen dizkiotegu. Goian bego.

### Nafarroako Ikastola berriak

Berriro irakurle, Nafarroako Ikastolei buruz berri pozgarriak azaltzeko natorkizu.

Aurtengo kursoan bost ikastola berri idekitzekotan daude gure Nafar-lurraldean. Bost Euskal Eskolategi gehiago gure Nafarroan idikitzeko prest daude. bost "Euskera mindegi" euskeraren azia ereintzeko. Uzta ederra bere garaian bilduko dutela zihur nago.

Hona hemen Ikastolak idekitzeko dauden herrien izenak: GOIZUETA, ALTSASU, LAKUNTZA, AOITZ ta OTSAGI (Otsagabia).

Bost ikastola berri hauek gure Diputazioaren geriza ta estalpea dute, baita herri bakoitzaren Aiuntamenduaren laguntza ere.

Ikastola hauetaz gainera igazko Ikastola guziak idiki dira. Ikastola duten herrien izenak hauek dira: Iruñea (bi), Burlada, Lizarra (Estella), Tafalla, Etxarri-Aranatz, Olazgoitia, Elizondo, Leitza, Lekunberri.

Hau zerrenda ederra gure euskeraren bizia indartzeko!

### Ipar Ameriketako Estatu Batuetako gizon famatua euskalduna

Peter Thomas Zenarruzabeitia Ipar Ameriketako Estatu Batuen IDAHO Estaduko sekretarioa da. Jaun honen gurasoak Bizkaiko Munitibar eta Gernikan sortuak dira.

Jaun honek 53 urte dauzka bere bizkarrean eta inglesaraz gainera euskera iaioki mintzatzen badaki.

Gizon euskaldun hau ez da IDAHO Estaduan arrunt eta ez ezaguna, aitzitik Estadu honen gizon famatuen eta ezagunenetatikoa. Peter Zenarruza (berak honelaz dio laburrago

esanez) Estaduko Sekretarioa da. SEKRETAY OF STATE ingleseraz. Bere toki nagusira ez zuen nolanhiko moduan eldu, herriak, botoz, aukeratu baizik.

Euskal Herrian egon berria da bere gurasoen sortherriak ezagun eta ikustatzeko.

Hona hemen Ipar Ameriketara sortu eta bertan bizi bada ere beti biotzean eta ahoan euskalduntasuna gordetzen duen gizona!

Agur Zenarruza jauna, biotzez!!

### Frantziako Telebisioa eta Euskera

Ile hontantxe (Urrilan) Frantziako Telebisioak euskeraz esandako programak ematen asiko da. Berri txalogarria benetan eta gaurkoz gutxi izaten bada ere zerbaitetik asten da. Espainiako Telebisioak beste ainbeste egingo baluke... Uste dut eskari hau, noizean behin gutxienez gure euskera Telebisioan azaltzen astea, "deusetza" dela baño euskeraren aldeko deus egingo ez dutela nago zoritxarrez, zergatik kaso gutxi gure euskerari Madrildik egiten zaiolako...

### Orioko Arraunlariak Txapelkunak beti

Orain amar urte gutxi gora behera "Espainiako Fubolaren Kopa-ri buruz nere lagunekin hizketan geudelarik batek esan zuen:

- Badakizute zer dan "Espainiako Fubolaren Kopa"?

- Bai, aixe -erantzun genion aho batez denok-, Espainiako Fubol-ekipoak- urte bakoitzan kopa bat irabazi nahiez, binaka elkar iokatuz, ta galtzaileak bazterturik, azkenean irabaztaile bakarra gelditzen denak kopa hori bereganatzeko txapelketa da.

- Bai, halaxe da; ondo esana dago, baño esana gauza bat da, eta izana beste bat, eta neretako egi egia da "Espainiako Fubol-Kopa" Bilboko Atletik eta beste edozein ekipo baten kontrako partidu finala dala.

Trañneruen arraunketaei buruz, estropadaei buruz alegiña, gauza berbera esan daiteke, baño Bilbao Atletik esaten dan tokian ORIOko ARRAUNLARIAK, edo ORIO TRAINERUA jarri dezakegu.

- Zer dan neretako "Espainiako Traineruen Txapelketa"?

- ORIO BETI, edo gehienetan behintzat, TXAPELDUN GERTATZEN DAN ARRAUN LASTERKETA.

Aurten ere oriotarrak garaitu. Zorionak!

### Donostiko "Jornadas Internacionales de Folklore"

Pasatu den Irailan Gipuzkoako Diputazioaren "Junta de Cooperación Cultural" delakoak antolatutak "Jornadas internacionales de Folklore"n hizketaldia Donostian egin dira. hizketaldi hauek "Euskal Herriko Dantzarien Biltzarra"-ren laguntzarekin emanak izan dira. Donostin bildu dira Euskal Herrikoez gainera Israel, Bulgaria, Ingalterra, Suiza eta abar.

Dantzei buruzko mintzaldiak hauek izan ziran:

"Sentido Reverencial de las danzas de Alava", Jimenez jaunak esandakoa.

"La tradition dans la danse populaire", Bulgariako Rayna Katzarovak emana.

"Danzas rituales de Vizcaya", Iñaki Irigoienek emandakoa.

"Tradition et creation dans les danses folkloriques d'Israel", Gurit Kadmane Israelekoak.

"Danzas de Navarra", Patxi Arrarasek.

"Tiroler Wolkstänze", Karl Hark Austriarrak.

"El Calendario festivo vasco", Julio Caro Barojak.

"Quelques observations sur le Psaltérion populaire suisse nommé Hackbrett", Helène Cherbuliez Suizakoak.

"Aspecto religioso de las danzas de Otsagabia", Antonio Urbeltzek eta "Mascaradas de Zuberoa", Iñaki Urtizberek.

Hitzaldi tartetan Donostiko "ARGIA" dantza taldeak Euskal Herriko dantzak dantzatu zituen.

Arrakesta aundia "egun hauek" izan dute.

Ikusle

Principe de Viana, 1971, urria, 2. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

### Literaturaren "Euskal Sariak" Donostian

Donostiko AGORA izeneko Elkarteak, azken urtetan bezala, aurtengo (1972) "*Gipuzkoako Literaturaren Euskal Sariak*" antolatu ditu. Bi dira. Bakoitzak berrogeitamar pezeta izanen ditu (40.000). Bata "Ensayo" delakoarena eta bestea, Teatroarena.

Lanak irutan eginak eta bidalduak izan beharko dira, eta bi tartekora makinaz idatziak. Lanak artzeko epea 1973 urteko Urtarrilaren azken egunean (31 ean) amaituko da. Oitura denez Idazlan bakoitzaren batera "plika" igorri behar da zuzenbide hauetara: AGORA - Victor Pradera, 10-1° -DONOSTIA.

Oiñarriak eta beste gainerako xehetasunak eskatzen dituztenei AGORA Elkarteak bidalduko dizkiote.

### Ustaritzeko eta Arantzazuko "Udako Euskal Ikastaldia"

Ioan berri den Udaran, lehenengo Ustaritzen eta ondorean Arantzazun, Ipar-Ameriketako Reno-ko eta Boise-ko Unibersidadeen erakasle eta ikasle moltzo bat egona izan da Euskal Herriko Antropologia, Kondaira, Linguistika, Literatura eta Euskal Mintzaeraren Ikastaldiak ematen. Ustaritzeko herrian (Ipar Euskal herrian dagona) iru aste egon ziran eta gero Arantzazuko Prailetegian hilabete batez.

Ikastaldi hauen erakasleak famatuak izan ziran: Rudolf de Rijk, Eloy Placer, Koldo Mitxelena, Joxe Basterretxea, Yon Oñatibia, Yon Bilbao, William Douglas, eta Robert Laxal. Ikasleak ogeitamartu zeuden. Batzuk Euskal Herrikoak jatorriz eta beste batzuk beste Naziotako ondorengoak. Euskaldunen ondorengoek zirenek euskal deitura ezagunak zituzten: Rementeria, Etxandi, Garatea, Etxarte, Iriberrri, Txakartegi eta abar.

Euskaltzaindiak denei egoki, zuzen eta zentzuzki iokatuz Agur bat egin zien, eta bidebatez Euskerari buruzko Elkarhizketa bat antolatu zuen.

### Martin Zubieta "Erbia" il zaigu

Lesakatik etorria da berri mingarri eta illuna: Mattin Zubieta jatorraren eriotza.

Nor dugu Mattin Zubieta? Lesakako azioneko gizon jator bat. "Erbia" izenordezko honekin txit ezagutua. Orain dela berrogeitamalau urte edo "TOBERAK" delakoaren iotzaillea izana. Igaz "TOBERAK" hauek berpiztu beharrez bere aspaldiko lagun zen Bautista Genen-bordakoa eta Dionisio "Asteasu"-rekin saiatzen asi ziren.

Lesakako herrian berriz ere "TOBERAK" delakoak aditzen asi ziren, eta Donostiko Trinidadeko Plazan ere iru lesakar hauek ari izan ziran "TOBERAK" io eta kantatzen.

Lesakako herriak elizkizun berezi eta kutunak eskeindu zizkion Mattin zenari. Irailaren 24 ean, eta arratsaldeko zortziterdietan Lesakako Eliza Mattin zenaren lagunak bete zuten. Il Mezaren erdian, Arozamena bertakoa, eta Orioko Echeberria ari izan ziran bertsoak botatzen. Komekatzen ondoren Genenbordako Bautista Legasa eta Dionisio "Asteaxu" "TOBERAK" io zuten bere lagunak zenari omenaldi bero eta biotzkor bat eskeinduz.

Goian Bego Mattin Zubieta zena, Euskal Herriko donu eta tresna zahar honen alde ainbeste ahaleginak zaindu eta begiratzeko egin zituena.

## Bache-Nafarrokoak Orreagan

Irailaren 13 ean Seigarren Merindadearen Nafartarrek bere urteroko Beila egin zuten Orreagako Ama Birgiñari agurtu beharrez.

Goizeko bederatzietarako Orreagako Eliza mukuraino betea zegoen euskal Meza konzelebratua entzuteko. Beste urtetan bezala Euskal Meza ondorean jendea Elizaren ingurukoen zelaietan barreatu zan eta ordu bietarako bazkal ondorako ere denak Orreagako Amaren aurrean bilduak ziran Errosario Santua, Bezperak eta Sakramentu Sainduaren Bedeinkazioa egiteko. Gure anaiak diren Bortuz harandiko nafartarrek bere elizkizun guziak euskera xarmangarri eta politean egiten dute. Historiak elkartzen gaitu, eta muga batek banatzen, baño bien artean euskerak, kate gogor eta autsi-ezinekoa bezala, BAT egiten gaitu beti.

## "Mikologia"ren Nazio Arteko Astea Tolosan

Iragan dan Irailaren 25 etik Urillaren Lehengo eguneraño Tolosan "1972go Mikologiaren Aste Internazionale" izan zan.

Tolosako Casinoan Donostiko Jose Luis Banus Agirre jaunak Astearen Edaldi-Hitzaldia esan zuen.

Aste hau Tolosako Casinoak eta bertako "Centro de Iniciativas y Turismo" delakoak antolatu zuten.

Aste hontan Onyuei dagozkioten gai, gauz eta afer guziak azaldu eta erakutsi ziran: Onyuen potretak bere Sariketa eta Erakusketakin, Elkarhizketa, Hitzaldi eta Leziuak. Ikastetxe arteko Txapelketak, Filmak eta "Diapositibak" ikusi eraztaldiak: Onyuen ongi iateko klaseak; onyu janariak... eta.

## Orioko Herria eta Zaragueta

Juan Zaragueta eta Bengoetxea Munduko filosoforik onenetakoa dugu. Madrident bizi da Filosofia Erakasle eta Akademikoa izanik. Bere jaioterri den Gipuzkoako Orio herriak omenaldi sentikorra eskeindu zion pasatu berri den Irailaren 23 ean. Ikastetxe Nazional berri bateri Filosofo famatu honen izen-deitura eramateko erabakia artu zuen: Juan Zaragueta. Egun hartan Ikastetxe berri honen loretegian Zaragueta-ren irudiaren agerketa egin zuen baita arri bat ere jarri zan hitz hauek hontan idatziak (erderaz dira baño nik euskeratu ditut) "Orioko Aiuntamenduak bere Ikastetxe Nazionala Herri hontako seme maite, famatu, Txit Argi Maisu, Irakaslari eta Akademiku denari eskeintzen dio".

## Belloc-eko Abat-Etxea eta Iruñeko Artxapezpiku-Barrutia

"*La Verdad*" izeneko Iruñeko Eliz-Barrutiaren Orrian irakurri dugunez iragan den Abuztuaren 22ean Belloc-eko Abat Etxean hango Praileek Iruñeko Apezekin Bilgur-egun bat izan zuten.

Egun hartan Belloc-eko Elizan Ama Birgiñaren Irudi berri bat bedeinkatu zan. Irudi hori Nafar Garaiko Uli herriaren egiatzko Ama Birgiñaren Irudi berberaren antzekoa da.

Belloc-eko Praile Buru den Aita Iratzeder maiteak nahi izan zuen bere Elizaren Atarian Ama Birgiña maitekor eta begionezko bat egon zedin hara etortzen direnek Bera ikusita "Ongi Etorri" goxo moduko bat berei esaten zela ikusi zezaten. Gure Aita Iratzeder orain bi urte edo, Iruñera etorri zan eta neregana eldu galdetuz ia nun zegon Uli basa herriko bidea haraño joateko. Orduan bere asmoak azaldu zidan eta nun orain "La Verdad" Orriak iakin erazten didan Aita Iratzeder argiak bere gogoia bururatu eta ezkeneraino ekarri duela.

Iruñeko bi irudiegile ospetsuek Dormitaleria izeneko karrika zaharrean Uli herrian zagon Ama Birgiñaren irudia berregin dute. Orain Uli'ko Andra Amariaren Irudia Iruñeko Katedralan "Museo Diocesano" ..... rrian ez bait da inor bizitzen. Orduan bertako elizaren Irudi, Bitxi eta beste gainerako balio haundikoak Iruñera eraman zituzten "Museo" hortan agirian izateko.

Dena dela aunitz atsegin egiten zait Belloc'eko Praileek eta Iruñeko apezek mugak alde batera botatzen gero eta hartu emanak sendoagoak izan ditzatela.

Belloc'eko Abatetxea Ipar Euskal Herrian dago. Bache Nafarroatik urbil, Laburdi izeneko Lurraldean, ordoki eder polit batean kokaturik. Labastide herriko inguruetan dagon Prailetegi hau txit famatua da mugaz beste aldeko Euskal Herrian. Bere ateak zabalduak ditu Euskal Herri guziko euskaldunei.

Iruñeko euskaldunei deia

Iruñeko euskalduna, kasu egin faborez agerkari honen beste toki batean argitaratu dugun Iruñeko Artxapezpikuak bidaldu digun mezuari. Mezu honek IRUÑEKO MEZA SANTUAK EUSKERAZ izena dauka. Gaztigu hontantxe Iruñean ematen diran EUSKAL MEZAK, bere egun ordu eta tokiak adierazten dira. Irakurri ezazu Iruñeko euskalduna. Gainera euskeraz esandako edozein Elizarenak artu nahi baldin badituzu, dela ezkontza, bataio edo aitortza, dena dela Artzapezpiku Jauregiaren telefonuaren numeruari, edo beste toki askotako numeroari deitu ditzakezu eta Iruñeko Euskerazko Eliza-Lana delako Batzordeak (Bilkurak) nahi duzun guziri ots eta so emanen dizu.

Ikusle

Principe de Viana, 1972, urria, 2. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

### Iruñeko Euskal Elizkizun Berezia

Ioan berri den Abenduko lehenengo egunean, Kristo Erregearen egunaren bezpera zela-ta, Iruñeko Aita Jesuiteen Elizan Euskal "*herri Meza*" eder-ederra eman zan.

Eliza jendez gainezka betea zan mila ta bostehunen bat inguru lagun bildurik.

Iru apez Meza emaleak izan ziren: Iruñeko Bikario den Aita Zabaltza kalonjea: Martin Azpiroz apez jauna, eta Jose Mari Bergara jesuita.

Herri-Meza honen irakurgaiak Dionisio Egiguren Anai Maristak leitu zituen, baita beste batzuek ere Eskarne Berasategi monjak.

Euskal Meza honen bitarteetan eta zenbait otoitzeen tartekoetan, Tomas Asio jaunak bertsolari gisan bertso batzuk bota zituen.

Hauetaz gainera txistulariak (sei ziran), dantzariak (neska ta mutilak), Meza laguntzaileak eta kantariak aritu izan ziran denak poliki euskal moduan jantziak.

Ikusgarri benetan Iruñeko Aita Jesuiten Elizan eman zan euskeraz esandako "Herri Meza"!

### Agustin Gonzalez Azilu, Altsasuarra, saritua

Altsasu'ko seme honek bere "Oratorio Panlinguistico" delakoaren bidez, España'ko Musika Sari Nagusia irabazi berri du.

"Oratorio Panlinguistico" deitutako hontan Agustin Gonzalez Azilu jaunak euskera eta gaztelania hizkuntzen desberdintasunetako (diferentetasunetako) hitzak eta otsak hartu eta azaltzen ditu.

Musika lan aipagarri honek España'ko Sari Nagusia merezitu du.

Ambrosio Zatarain euskal idazlaria izan da euskal hitzak moldatu dituen.

Nere goresmenak.

### Euskal Meza diskoan

"Columbia" etxeak "Euskal Meza" deitzen den disko bat argitaratu berri du. Disko honen zuzendaria Aita Barturen izan da. Bere luzera "long play" izeneko gisakoa da. Diskoarekin batera Mezaren hitzak, kantuarenak, beste gainerako xehetasunak eta Jesus Maria Arozamena jaunak idatzitako idaz-lan bat datoz denak liburutxo batean bilduak.

"Euskal Meza" hontan parte hartu dutenak: Bilbo'ko "San Anton" Kantari Taldea, Hiri berberako txistulariak, Begoña'ko Arpa jotzailea, Lizarra'ko Elizaga dultzaineruak, Zuaznabar anai txalapartariak, Baxarri eta Xalbador bertsolariak, Zumarraga'ko trikitrixalariak, Barren etxea albokaria eta Gasteizko (Bitoriako) haur kantariak.



## Bi Euskal Gabon Kanta Berri España'ko Festaldiaren irabaztaile

Denok dakigun bezala pasatu berri den Abenduko emezortzigarrenean Iruñe'ko Gayarre Teatroan *España'ko Bostgarren Billantziko Berrien Sariketa* egin zan.

Amabi Gabon Kanta berri zeuden gau hartan parte hartzeko. Amabi hauek beste aunitzen artean berezituak ziren. Amabi hauen artean bi euskeraz.

Teatro mukurerraino betea zegon. España'ko Telebistak han bertan egon zan dena hartuz, gerokoan abon egunaren arratsaldeko zortzietan, diferido moduan, Festaldi guzia emanaz.

Azkenean bi euskal kantak ez ziran bada irabaztaileak gertatu? Arrigarri, ikusgarri ta, adigarria hango eskuzartak, txaloak, irrintzi eta oiuk beren alde eman eta bota zirenak!

Lehenengoa "GAUR ERDIAN SOINUA" izeneko gelditu zan. Hitzak Jose Salaberriarenak dira, eta Soinua Peru Artetxerena. Kantariak: Azpeitiko "UNAI" Irukoa izan zan (Iruko hau iru neska lirain eta galantak osatzen dute).

Bigarrena: "BIDEA BA DA" deitutakoa gertatu zen, Lourdes Iriondo eta Luis de Val izan ziren letra jarri zutenak. Jobanek soinua ipini zion. Kantaria: Xabier Madina euskal kantari on eta trebea.

Denei gure zorionik beroenak biotzez.

"Satarka" il da

Ondarribi'ko seme zan Klaudio Sagartzazu jauna il berri da irutan ogei ta sei urte zituelarik. Euskal poeta erromantikoa zan. Bi poesia-liburu argitaratu zituen. Lehenengoa "Txinpartak" izendatua, eta bigarrena "Intza begietan" izeneko.

Bere poesietarako izenordea SATARKA zan. Goian bego.

Aita Villasante Zumarraga'n "Euskera idatziaren batua" ri buruz mintzatzen

Arantzazu'ko Praile den Aita Villasante Euskaltzaindia (Euskal Akademia)ren Burua dugu. Ioan den Azilaren ogeitamargarrenean Zumarraga'ko herrian "Euskera idatziaren batasuna" delako gaia azaldu eta aztertu egin zuen.

Bere mintzaldiak gaurkotasuna ba zuen eta Aita Villasantek beste hizkuntzek ibili dituzten pausoak eta hartu dituztenoinarri eta erabakiak agertu zituen entzulei. Adierazi zituen ere, azkenean, Euskaltzaindiaren nahiak eta asmoak.

Disko berriak

Donosti'ko "Hegosa" etxeak bi disko haundian "Baztango dantzak" deritzana atera du. Aspaldin ateratzekotan zeuden. Orain bi disko hauek musika dendetan salgai direla esan dezakegu.

Bi disko hauetan Baztango mutildantza famatuenak guziak bilduak dira. Maurizio Elizalde Arizkungo txistulari paregabekoa mutildantza hauen zuzendari eta txistu jotzailea da.

"Goiztiri" Etxeak ere beste euskal abesti kantu bat prestatu eta atera berri du. Maite Idirin'ek da Kantaria. Lau kantu ditu: *Nire berria*, *Zuok gazteok*, *Izenik gabekoa*, eta *Zigorra*.

#### Disko eta Liburuaren merkatua Arrasate'n (Mondragon'en)

Joan berri diren Abenduaren 18 eta 19'an Arrasate'n Disko eta Liburuaren Feria ospatu zan, bertako "Denok" Kultura Elkartearen laguntzapearekin eta hango Herriko Etxeak antolatuturik.

Merkatua Arrasate'ko Elizaren eta Herriko Etxeko arkupean zegoen.

Bi euskeraz idatzitako liburu berri ezagunerazi ziran: Bata Zarauz'ko Itxaropena Argitaldariaen "Kulixka Sorta" delakoaren liburu bat: "*Hegatsez*" deitua. Bestea Donostiako "Lur" Editorialarena: "Amazonetako Indioak". Lehenengoak gaurko eguneko euskal idazlen zerrenda bat da, Yon San Martin eta Serafin Basauri jaunek prestatua. Bigarrena: haurrentzako da. Ipuin hau bere aurreko bezala ("Bailearen arrantza" izeneko) gaurkoari dagokion haurren edukazioari begiratuz azaldu da.

Peri hontaz gainera mintzaldi batzuk eman ziran. Juan San Martin Eibarrekoa, Jose Mari Satrustegi, Urdiango Erretorea, Juan Mari Lekuona eta Iban Sarasola mintzatu ziren, mahai borobilaren moduan, gaur esaten duen bezala. Bakoitzak gai bana aztertu zuen, eta gero entzule eta hitzlariekin artean elkar hizketa eta galdera-arrapostu entzungarriak izan ziran.

Gaiak hauek izan ziran: Azkeneko urteetan argitaratu diren euskal liburuak (San Martinek), Bertsolaritzari buruzkoa, "Auspoa" liburutegiaren zenbait berri eta xehetasunak emanaz. (Juan Mari Lekuonak), Euskal Literaturaren egoera (Ibon Sarasolak), eta Euskera eta Euskeraren aldeko lan eta bideak (Jose Mari Satrustegik).

#### España'ko Telebisioa eta Euskera

Gure Euskaltzaindiak pasatu den Azaroko Batzarrean beste erabaki aunitzen artean honako hau onartu zuen:

"Frantziako Telebista euskerazko emisioak ematen hasia dela jakinerazi zuen euskaltzainburu ordeak (Bigarren Buruak). España'koari ere gauza bera esateko erabaki zuen Batzarreak".

Lehenengo zenbakian esan genuen bezala Frantzia'ko Telebisioa hilean bitan euskeraz esandako ordu laurden bateko programak asi da ematen. Orain gure Euskal Akademiak España'ko Televistari gauza berbera egiteko eskatu dio. Gutxi bada ere zerbaitetik hasi behar da eta euskera auzoko Frantziako Telebistan agertzen hasten baldin bada esperoan gaude España'koan ere laister agertuko dela. España'koari bere txanda tokatu zaio.

Uste dugu Euskal Akademiaren eskaria Madril'go Telebisioaren aferak beregain daramazkiten jaunek on artuko dutela. Euskerari kaso egitea behartuak daude behintzat.

Principe de Viana, 1972, urtarrilak, 2. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

### Euskaltzaindiaren berriak

Hileoro Euskal Akademiak bere Hileoroko Biltzarra bakoitzaren agiri bat bidaltzen digu argitara eman dezagun. Agerkari honen txoko batean edo bestean agertzen dira eta guk begi onez eta borondate osoan jartzen ditugu gure irakurleek leitu ditzaten.

Baño hemen Euskaltzaindiaren garrantzi haundiko berria nahi dut berriz ere azaldu: hau da Euskal Akademiaren Autapenen gertaerak. Iragan berri den Azaroaren 24-ean Donostiko Diputazioaren Jauregian Euskaltzaindiaren Hileoroko Biltzarran autapenak egin ziren bere agintariak izendatzeko.

Euskal Tzaindikoaren Zain bakoitzak bere asmoa bota egin ondorean lehengo agintariak bere toki ber-berean segituko dira. Aita Villasantek Euskal Akademiaren Buruari jarraituko dio amasei boto artean amabi boto bere alde gertaturik.

Halaxe Joan Haritschelhar Euskaltzaindikoaren Buru Ordezkoaren Agintaritzza bere gain eramango du, eta Joan San Martin eta Eusebio Erkiaga Idazkaria eta Diruzaina izaten jarraituko dira.

Lauei nere goresmenak.

### Pedro Miguel Urruzuno zenari omenaldia Elgoibarren

Euskaltzaindiak eratuta Elgoibarreko herrian datorren Urtarrillaren 28-ean hango seme ospetsu zen Pedro Migel Urruzuneri omenaldi-egun bat ospatuko da, zergatik aurren bera il zanetik berrogeitamar urte betetzen bait dira.

Pedro Migel Urruzuno Elgoibarrekoa, euskaltzaina izan zen. Elgoibarren sortu zan 1883'garren urtean, Arrabaleko kalean alegia. Apeza egin zan Elgoibarren eta, Mendaron erretorea izanik.

Euskeraz idazten oso iaio eta trebe zan bereziki ipuiak asmatzen. Bere ipuiak haren denboretako euskal Agerkarietara bidaltzen zituen argitaratzeko. Honengatik berak idatzitako ipui asko "*Euskal Talde*", "*Euskal Eснаlea*", "*Jesusen Biotzaren Deia*", "*Argia*", eta beste askotan agertzen ziren.

AUSPOA liburutegiak bere ipuiez betetako iru liburu argitara eman ditu. Hona hemen iru liburu hauen izenak: *Euskalerritik Zerura*, *Urzale baten ipuiak*, eta *Iru Ziri*.

Euskal ipuilaririk onenetan dago kokatua gure Urruzuna Apez zena, "*Euskalerritik Zerura*" deritzan liburuaren asteko bere biziaren berriak daude eta harren biografia bukatzean honako hitzak datoz: *Euskaldunen artean ez da oraindik sortu Urruzuno apaiz jaunak bañon ipui geiago asmatu ta argitaratu dunik*"

Merezi uen Elgoibartar jator honek omenaldia eta orain elgoibartarrek Euskaltzaindiaren bitartez egingo diote.

Omenaldi egun hontan Euskaltzaindiak bere hileoroko Batzarra izango du Elgoibarreko herrian. Batzarra hau irikia izanen da. billera hontan urruzuno zenari buruzko ihu hitzaldi botako dira: Antonio Arrue jaunak "*Bere garaiko giroa*" gai arturik lehenbizikoa emango du. Aita Antxon Zabalak "*Urruzuno, idazlea*" gaiari buruz bigarrena esango du, eta Urruzuno zenaren iloba dan Jose Mari Etxanik jaunak "*Urruzuno, gizona*" izeneko gaia artuta irugarren hitzaldia botako du.

## "Santo Tomas" Lizeoa

Urrilaren 29'ean Donostian "*Santo Tomas*" izeneko Lizeo berria iriki zan. Lizeo hau Ikastola haundi eta nagusi bat da. Egun hartan Donostiko Ibaeta auzoan Lizeo honen etxe berriaren inaugurazioa izan zan.

Lizeo honek mila ta bidehun ikaslentzako tokia izanen du.

Gauza iakingarria da Lizeo honek Madrilgo Agintarien baimena bereganatu duela bere ikasleek Lizeon bertan beren etsaminak egin ahal ditzaten Donostiako Institutora joateko beharrik ez izanik.

"*Santo Tomas*" Lizeo hau Madrilgo Gobernuen lege guziak betetzen bait ditu onartua izan da osoki.

Lehenbiziko pausoa Donostiarrek egin dute eta uste dugu emendik aurrean Bilbon, Gasteizen eta Iruñean bide berdinetik pauso sendo, tinko eta azkarrak emango direla gure Ikastolak Instituto legalizatuak bezela on artuak izan ditezten.

Iruñean Ikastola batek seirehun ikasle ditu bere barruan; beste batek irurehun. Beharretan gaude bada Donostiko "*Santo Tomas*" Lizeoari gure Ikastolen Gurasoen Elkarteak begira dezaten beste ainbesteko egiteko.

## Satrustegi jauna Deustuko Unibersidadean

Urdiaingo Erretore eta euskal langile porrokatu den Satrustegi jaunak Deustuko Unibersidadean *Euskal Etnologia* ri buruzko Ikastaro labur bat eman zun iragan den Azaroaren 27'etik Abenduko lehenengo eguneraino.

Ikastaro hau dena euskeraz egin zan.

Jendea gustora joan zen Satrustegiren esanaldiak entzutera irutan ogeitsu entzule gutxi gora bera egunero bildurik.

Esan didanez gaia interesgarria izan zan bereziki euskal jende gaztendako, eta Satrustegiren euskera obetutzeko ezinekoa.

"*Euskal Etnografia eta Etnologia Ikastaro*" hau Deustuko "*Euskal Mintegia*" delakoak antolatu zuen.

Euskal Herriko Unibersidadeak behar dute gure Euskal Herriko aferei gauzei, kaso geiago egin. Uste dugu Bizkaiko Deustuko Unibersidadeak Euskal Herriari begiratzen asi dela. Zergatik ez pentsa Nafarroako Unibersidadeak gure Herrian, gure Euskal Herriari, ez dela begiratzen asiko?

Ikusle

Principe de Viana, 1973, urtarrila, 2. orr.

## EUSKAL HERRIKO LEIOA

### "Topaketak" Iruñean

Ioan berri den Ekainaren 26 etik Uztailaren 4 eraiño Nafarroako Hiri Nagusian "Arte-Topaketak" edo "Arte-Bilgurak" ospatu ziren. hauei buruzko berri eta xehetasunak bertako eta kanpoko periodikuetan egunero azaldu ziran eta euskaldun guziek irakurri ahal zituzten bere garaian. Nik hemen "Topaketak" hauei buruzko aipamen batzuk ateratzen ditut "Zeruko Argia"n delako euskal agerkariatik artuak.

Luis de Pabro eta Jose Luis Alexanko izan dira "Arte-Bilburak" ahuen zuzendari eta antolaitzailerik nagusietarik bi. "Zeruko Argia"n "Igeldo" izen ordekoarekin idazten duen batek Bilboko seme den Luis de Pablo musikariarekin elkarhizketa iakingarria azaldu zuen. Elkarhizketa honen lerro batzuk gure "Principe de Viana" agertzeko atera ditut.

- Luis de Pablo bilbotarra dugu jaiotzez. Zer moduzko arrera izan duzu Bilbon?
  - Behin baino gehiagotan gainera... Baina Bilboko kritika nere musika lanen eta nere pertsonaren etsai amorratu agertu da beti.
  - Zergatik Topaketa hauek Iruñean?
  - Topaketa hauek egiteko aukera laguntza eskeini digun hiri bakarra Iruña izan delakoz.
  - Ez ote Iruñaren izena alferrik ahotan artzea?
  - Ba diteke... Lehenago arrazoi bat eman dizut Iruñera zergatik etorri geran esanaz...
- Orain Iruñean gaudelarik beste arrazoi bat emango dizut. hemen lanerako seriotasun handia ikusi dugu. Topaketa hauek gertutzeko lanetan eta jendearen erantzunean ageri den seriotasuna. Euskal Herritik kanpora ez dugu honelako seriotasunik arkitzen. Bestalde berriz hipersensibilidade artistiko bat nabarmentzen da hemen naiz eta azal latz eta gogorrez kanpotik estalia egon.
- Zer eskeintzen diozute Euskal Herriari?
  - Uste dut oso mesedegarri dela Euskal Herriarentzat alderdi guzietako artistak Iruñean biltzea.

*Topaketa* hauek Iruñean astebete batean ospatu ziran; denetaz ikusi eta mitnzatu zen; *Arte* klasetako lanak ikusi, entzun, ikutu eta egin ziran. Elkarhizketa, asarre hitzak, biltzarrak, eta, eta izan ziran ere bai, baño azkenean eta kontuan arturik lehenbiziko aldiz antolaturik zeudela Arteren onerako eta gure Euskal Herriaren aurrerapenerako nik uste izan direla.

### Euskaltzaindiaren Berriak

Gure Euskaltzaindiak Auritzeko (Burgete erderaz) seme zintzo, emdiku famatu eta euskal idazle trebe zenari omenaldi bat urrengo udazkeneko Irailaren 10 ean (bigarren igandean) eskeiniko dio.

Omenaldi honen programa honelako moduan izanen da: Don Fermin Irigarai "Larreko"-sortu zen etxeko aurrekaldian oroitharri bat jarriko da. Hiru hitzaldi emango dira. Don Fermin Irigarai zenaren bizitza mediku lanak eta euskal lanak aipatuz: *Erkiaga*, *Laffitte* eta *Labayen* euskaltzain jaunak hitzaldi hauek botatzeko izendatuak izan dira.

Besta bertako Aiuntamentuarekin batera egingo da zergatik Burgeteko Herriko Etxekoeek nahi izan bai dute lagundu bere "herriko seme" maitearen omenaldia.

## Liburu berria

Arantzazuko Editorialak "Luis de Elizalde" Saillaren bigarren alea argitara eman berri du. Izena: *La declinación del vasco literario común*".

Izen honek ongi adierazten duen bezala liburu honek errazki azalduak gainera euskerak dituen deklinazioaren tankera guziak dakarzkigu. Mota eta klase guzietako ejenpluak laguntzen dute iaioki deklinazioaren erakaskintza. Gure Euskaltzaindiaren Buru den Aita Villasante da bere egilea. Eskatzekotan: Editorial Franciscana -Arantzazu- baita ere liburu dendetan. Balioa: 60 pezeta.

## Euskal Disko berri

Iñaki Beobideren ardurapean Xabier Saldias bere lehen euskal diskoa atera berri du. Lau kantu dauzka: "*Euskara ialgi adi plazara*", "*Aran zugatza*", "*Gazte jatorra izan nahi dut*" eta "*Agurtua izan bedi zalantza*".

Edozeinek eskatu dezake: Iñaki Beobide jaunari - Ferreriaz, 1 - San Sebastian.

## "Euskera" 1971<sup>1</sup>

"Euskera" delako hau Euskaltzaindiaren agerkariaren izena da. Urtean behin ateratzen da. "Euskera" 1971 numerua bere izenburuan argi adierazten dan bezala igazkoa da; berandu bada ere azkenean gure eskuetara eldu zaigu zorionez.

Numeru honek 1969 urtean Euskaltzaindia zortu zanetikako urre-eztaien Biltzar berezien hitzaldi, berri, agiri eta erabakiak ekartzen dizkigu. Hontan berean euskera literario batuaren aldeko lan eta agiriak agertzen dira iaio eta argiki. Mami aundiko liburua da bereziki euskal idazleentzako. Oraingo Buru den Aita Villasante'ren esku, biotz, adimen eta arima sumatzen dira errezi baita Euskaltzaindiaren sekretarioa den Yon San Martin Eibarrekoak ere.

Dirudienez hemendik aurrean iru hilabetean behin argitaratuko da. Berri pozgarria izanen da denentzako.

Ikusle

Principe de Viana, 1972, uztaila-abuztua, 2. orr.

---

<sup>1</sup> "Euskera" -1971- Euskaltzaindiaren lan eta agiriak (Trabajos y actas de la Academia de la Lengua Vasca. Bilbao (Ribera, 6).

## EUSKALERRIKO LEIOA

### Oteiza eskultorea eta Arantzazu

Orioko seme den Jorje Oteiza eskultore famatuak Arantzazuko Elizaren aurrekalderako tailatu eta jarri egin behar zituen arri-irudiak bere lanak akautu eta ezarri berriak ditu.

Bere lana ederra gertatu da mundu guziko ospe aundiko ospe aundiko arriz tailu egille on bateri dagokion bezala. Meritu aundikoa eta zalla zan egin behar zuen lana. Arte aldetik ikusirik Oteizak bere iakite, gogo, doai eta burutasuna agertu dizkigu; beste aldetik, lan gogor eta astuneri buruz ere begira, ekin eta ekin aspertu eziñez, bukaerari eman dio.

Oteizaren arte-lan hau onela da: Goian Ama Birgiña bere semearekin kokatua Elizaren aurrekalde aundiaren goi-goian. Andre Ama eta Semearen azpi azpian amalau arrizko irudiak zutikan jarriak daude, bata bestearen artean alde aundi luze bat utzirik.

Irudi bakoitzek iru metro luzeraz dauzka, eta pisuz iru milla kilo. Amalau irudiak, ezkerretik eskubira ezarriak, amabi apostoluak (Judas saltzailearen ordez Matias Santua dago) eta beste biak, Pablo eta Bernabe santuak dria. Goi goian, esan dugun bezala, Ama Birgiña zerura begira, bere semea illa etzanda. Apostoluen arrizko gorputzak ezdute ez bularrrik ezta ere sabelik, denak goraldeari. Andre Birginari eta Semeari, begiraturaz.

Bi talde eskultoriko hauen artean, Oteizaren asmo eta pentsakizunak utsune aundia utzi dute, dena uts, dena pareta, geurok katolikuok bete behar dugun utsunea adieraziz.

Arte-lan hau oso ederra da, ikustekoa, pentsatzeko modukoa eta nere ustez Arantzazuko Eliza berriarentzako egokia.

Zorionak Jorge Oteiza jaunari; Ar beza nere goresmena ere lan hontan laguntzaile izana den Koldo Azpiazu arkiteto ikasle jauna.

### Euskeraren Batasunaren Alde

Xabier Gereño jauna euskaldun, euskaltzale eta euskal idazlaria da. Bilbotarra Euskera literarioaren alde zerbait egitegatik, Euskal Akademiaren bideari jarraituz eta euskera idatzi hau euskaldun guzientzako entelegarriagoa egiteko gure Bilboko semeak alegiñak egin izan ditu. Hara: Euskera literario batasunaren oinarriekin orriak argitaratu ditu, de baldez, batez ere ordaindu gabe bidaltzen ditu eskatzen dizkion edozein guzieri.

Nahi duenak, eskatu bezaio Jaun honi, zenbat orri nahi duen esanaz, zuzenbide hauetara: XABIER GERENO. Avenida Ejercito, 18-3°. BILBAO.

### Antonio Maria Labayen jaunaren Teatro-Lanak

Antonio Maria Labayen Tolosakoak berrogei ta zazpi urtetan ogei ta zazpi Teatro-lanak idatzi ditu.

1922 urtean bere Teatro-lanei asmenta eman zion lehenbizikoa idatzi zuelarik, eta ioan berri den 1969 urteko Azillaren azken egunean bere azken Teatrorako obra (lana) Errenderiko errian gendera ezagutzen eman za. Ezta lan makala Labayen jaunak egin duena!



Egia da ZERUKO ARGIA astekarian Zeleta jaunak ziona: "Nor, besterik, gure artean, beste orrenbeste eginik duenik EUSKAL ANTZERKIA (TEATROA)-ren zabalkunden alde? Ogei ta zazpi antzerki-lan irrisu eta dramatsu berrogeita-zazpi urteen buruan! Ezta txantxetako lana, arranapolan!".

Eguneroko Meza Sainduaren doñu berriak

Eguneroko Mezaren soiñu berriak argitaratu dira. Berdiñak dira Euskal Erri guzira. Bilbo, Donosti eta Iruñeko Eliz-barrutietan zabalduak izan dira.

Yon Etxaide Euskal-Idazlariaren Liburu Berria: "Etxahun'en Bertsoak" Gipuzkeraz

Donostiko Yon Etxaide Itarte jauna euskal izkribitzaile on ona dugu. Gaztetik asi zan euskeraz idazten. Euskal lan aunitzen artean honakoak dira famatuak: JOANAK JOAN eta GORROTOA LEGE. Bere horaingo liburu berria ETXAHUN'en BERTSOAK GIPUZKERAZ.

Zergatik ETXAHUN izen hau liburu honen izenburuntzat? ETXAHUN Euskalerriko bertsolaririk onenetatik bat zan eta Iparraldeko Euskalerriko Zuberoa izeneko lurralde politean sortua. Urte hontan bera il zanetik ehun urte betetzen dira eta Etxaide jaunak liburu eder hau haren oroimenez argitaratu nahi izan du. Liburuaren gaia da ETXAHUN bertsolari zenak paratu zituen bildutako bertsoak. Bertsoak bi euskal mintzairerara jarriak dira, lehenengoz Zuberoko euskeran ETXAHUN'k berberak eratu zituen bezalaxe eta ondoren Gipuzkoako izkeraz Etxaidek moldatuak euskaldun geienek obeki entenditu ditzaten, zergatik Zuberotar mintzaira aunitz desberdiña dalakoz (Erronkariko euskaldun zaharrek eta Saraitzuko euskaldunak dira zuberotarrekin elkar ongi entenditzen direnak).

Euskalduna, erosi ezazu liburu hau. Eskatu zuzenbide hauetara: YON ETXAIDE - Paseo de Colón, 33-4º - DONOSTIA.

Ikusle

Principe de Viana, 1970, apirila, 2. orr.

## EUSKALERRIKO LEIOA

Euskeraren Aldeko Elkartasun berria Eibarren

Eibarreko herri aundi eta lanzalean euskeraren alde lan egiteko Elkarte Berria sortu da "Euskera lagunak" deitzen dena.

Gure hizkuntzari aize ta indarra emateko, arnasa berria berari ekartzeko eta ahal den guzia euskeraren onerako egiteko jaioa da. Ongi etorria izan dedilla.

Joakin Aldabe jaunari omenaldia Orion

Ioan berri den Azaroko zortzigarrenean, Arrantzale eguna zela-ta, Orioko herrian hango agintariak gidari zeudelarik, arrantzaleek omenaldi bat eman zioten Bidasoko Beran sortu zen Joaquin Aldabe jaunari.

Joakin Aldabe jauna ogeitamar urtez Orioko San Nikolaseko Kofradiaren sekretarioa izana da.

Euskal peota da, eta Euskal Herriko errebista guzietan beren bertsoak azaldu dira. Gure "Principe de Viana"ren sortzetik ileoro berak antolatutako bertsoak argitaratzen ditugu. Bejondeizula Aldabe Jauna eta ar dezala urte askotan bere ongi artutako atsedena.

Itziar Bikendi, andereñoa il da

Azpeitiko alaba hau il zaigu ogei ta sei urte zituelarik. Lan aunitz egiña zaukan euskeraren alde, beti umiei ikastoletan euskeraz erakusten, eskolatzen, alfabetizatzen. Beti bere euskal lanetan ixilean ari izanik. Goian Bego.

Mitxelena Irakaslearen mintzaldiak Donostian

Pasatu berri den Irailaren azken egunetan Donostian Mitxelena jaunak "Euskera batua" gaitzat arturik mintzaldi batzuk eman ditu.

Mitxelena jauna gure euskal izkuntzalaririk onena dugu eta euskera literarioaren batasunaren alde asmo zintzo ta biziz da. Gauzarik zailen eta neketsuena euskal aditza (berbo)ren batasunean dagola esan zuen.

Euskal Herriko "Zortzikote" (Otxote) Txapelketa Iruñean

Aurten gure Iruñean "Euskal Zortzikote Txapelketa" izanen da. Nafarroatik, Frantzi aldeko eta España aldeko Nafarroetatik, amar Zortzikote etorriko dira denak Nafarroa bakar baten alde eta batean elkarturik, Euskal Herriko Txapela irabazteko. Euskal Herriko gainerako lurralde guzietatik parte artuko duten Zortzikote anaien elkar leialki iokaturik.

Aita Inazio Errandonea il zaigu

Urrilaren emezortzigarrenean, igandea, Donostian Bidaso Bera herriko seme jator zen Aita Inazio Errandonea Jesusen Lagundikoa il zan, laurogeita bost urte zauzkalarik.

Mingarri benetan Aita Errandonearen eriotzaren berria. Bizi luze izan du gure Aita Inaziok, biotzeko gaitza batek alde egin digu gure tartetik.

Nafarra sortzez bada, euskalduna, bidasotarra. Bera herritik Iruñeko Apezgaitegira joan zan apez ikasgoak egitera. Handik Loiolako Konbentura joan Jesusen Lagundikoaren aita izateko, Irakasle on eta famatua zan. Bilbon, Oñan, Madrillen eta batez ere Donostian egona zan, azken honen "Estudios Universitarios y Técnicos de Guipuzkoa" delakoaren sortzaile eta lehen zuzendaria izanik.

Jaunaren pakean bego betiko.

"Zeruko Argia" euskal asterokoaren laurehun numerua

Errezki esan eta nekez egiten dena "Zeruko Argia" aldizkariak egin berri du: Bere laurehungarren zenbakia argitaratu. Izan ere, laurehun numeru bana-banaka astean behin argitaratzea euskal errebista batentzat ezta auntsaren gau erdiko eztula, euskal esaera zaharrak dionez.

Zenbat lan, zenbat neke, buruko min ta nahigabeak! Baña joanak joan eta hor duzute astero "Zeruko Argia" astekari ederra gure eskuetara etortzen.

Goresmenak, biotzez, hemendik Aita Ezeitza Kaputxinoari ain ederki ta iaioki aldizkari hau zuzentzen eta argitaratzen duelakoz.

Edozeinek nahi baleza suskritorea izan izkribi beza zuzenbide hauetara: "Zeruko Argia" - Oquendo, 22 - Donostia.

Inazio, Zuloaga pintore famatuaren ehun urteburua

Aurten ehun urte betetzen dira jaio zanetik Eibarreko seme zen inazio Zuloaga pintore on eta ospe aundikoa

Inazio Zuloaga zena Gipuzkoako Eibarreko herrian zortu zitzaigun 1870 garren urtean eta Madrilen il 1945 garrenean.

Zuloagak bere baitan, azalean eta bere kuadroetan beti aurretik, egia izan zuen. Gure mendeko pintorerik onenetako bat dugu.

Guk euskaldunok oroitu dezagun, gogora dezagun sortu zanetik bere ehun urteburuan euskaldun artista famatu hau.

Principe de Viana, 1970, azaroa-abendua, 2. orr.

## ESKUALERRIKO LEIOA

### Euskararen ikasketak Baztan'en

Baztan'go Arizkun erriko "Lamiarrita" auzoko eskoletan euskera irakurrerazten eta izkribitzen asi dira. Baimena erdietsi da eta Bazko ondoko astean asi ziran ikasketak.

Arizkun, Erratzu eta Azpilkueta'ko eskoletan ere asi beharrak dira laster, eskol-lanak bukatu ondoan egunoro ordu erdiko ikastaldietan.

### Txistu-Ikasketak Baztan'en

Arizkun'ko Txistulari zintzo eta on den Maurizio Elizalde jaunak Elizondo'n eta Arizkun'go "Lamiarrita" auzoan bi Txistu ikasketa ematen ditu. Bata, lehengoan esan duguna, Elizondo'n, amar aurrekin, asteko bi egunez, eta bestea Lamiarrita'n asteko beste bi egunez, amabi mutikoekin.

Txistu ikasketari buruz Baztan'go "Elkartasuna" bi izkuntzetako errebista ederrean hau da esaten duena:

"Txistularitzak ez du bizitzekorik ematen. Yatekotan, irautekotan, umeak aztekotan, ortaz landara bertze lanetan ari bear. Sarittipie da txistulariari ematen zaiona. Eta, zenbaitzuk dakizuten bezala, sari ori aunditza eskatzen duen txistularia, bein baño geiagotan txistu yotzeko lana galduta gelditu izan da, erri bateko edo bertzeko buru zenak errien soñu orren beharrik ikusi etzuelakoz.

Ala ere, ameslari batzuk agertzen zaizkigu an-emenka gutartean. Ongi ezagutzen duten baten izena aipatzen dut bertze txistularien balioari deus kentzeko asmorik: Gure Maurizio. Txistularitzan langile ona, aspertzen ezdena, ta bere trebetasuna bertzetara edatu nai duena. Ortaz ari da Lamiarrita'n astearte-ortzegunoro amabi-amalau mutikoeri erakusten. Bai Elizondo'n ere, bertze au sailtxo batekin yota yo. Dantzan erakusteko asmotan ere ezda nolanaikoa. Berari esker irauten dute bere ingurukoen arteko dantza zaharrak...

Arizkundar ta inguruko gazte! Txistularitzak ezda bizitzekorik ematen duena Baño euskaldun on, ameslari, errikoia bazera, zoaz Maurizio'rengana erriko ontasun goragarri au zureganatzera, bere amets zoragarri ok zugaratuz. Eta Txistu soñue entzutean, dantza zaitez, gogotik dantza. Dantzan ari obe duzu, baxo ardo baten ondoan belaunek gogortzen egon baño".

Atseginez lerro hauek "Euskal Orrialde honetara" ekarri ditugu napar guziek txistularitza maite eta gure Txistularirik errikoiena den Maurizio Elizalde ezagun dezagun.

### Fernando Artola "Bordari"-ren liburu berria

Ondarrabi erriko seme den Fernando Artola Sagarzazu jaunak "Goraintzi" izeneko liburu berri bat argitaratu du. Fernando Artola, izen deituraz baño "Bordari" izengoitiz edo izenordez ezagunago da Euskalerrian.

Poeta, edo olerkari bikaiña izateak fama aundia eman dio gure artean "Bordari" maiteari.

"Goraintzi" liburu agertu berria da, Liburu sentikorra eta bere andre zenaren oroipenetan izkribitua. Bere liburuaren izenburuko azpian onela dio: "Giza-alargunaren

eskeintza". Honekin badakigu dena. Bere emaztearen eriotzak ekarritako sentimendu, oroitzarre eta esanahiak azaltzen ditu gure egilleak liburu hontan.

Salgai dago gure Euskalerriko liburu-dendetan.

### Euskal Kantuen berriak

"Zeruko Argia" euskal astekarian leitzen dugunez "Euskal Kantuaren laugarren Sariketa" berriz ere atzeratu behar izan dute antolatzaileek baimenak atzeman ezdutelako. Xabier Gereño jaunak dio udazkenean egingo dela.

Gure beste aldeko Naparro maitean kantari multzo berri bat agertu da: "Nafartarrak" dauka bere izena multzo honek. Enaut Etxamendi eta Eillande Larralde kantariak osatzen dute. Bere abesti edo kanta ezagunenak: "Otsagabia", "Sarastarra naizela", eta "Kalifornia'ko euskaldunarentzat". Agur bero eta maitekor bat "Nafartarrak" taldeari.

### Azpeiti'ko "Txapel" bertsolaria illa

Horain iru aste baditu Azpeiti'n "Txapel" izengoitiz ezaguna zena il zitzaigula irutan ogei ta bost urte zituelarik. Elizarenak eta ehorzketak Maiatzaren bigarren egunean izan ziren. Jendetza bildu zan Azpeitiko Eliz nagusian illetak ikus eta laguntzeko.

Meza emalea bere semea den Miguel Eizmendi izan zen, amabi apez inguruan zeuzkala, elkarrekiko Meza moduan. Mezaren ofertorioan "Baxarri", Gorrotxategi, Lizaso, Lazkano eta Agirre giputz bertsolariek bertso bana bota zuten "Txapel" bertsolari zahar eta onaren oroimenez. Goian Bego bertsolari zahar maitea.

Ikusle

Principe de Viana, 1969, ekaina, 2. orr.

## EUSKALERRIKO LEIOA

Euskalerriko mendigoizale urteko biltzarra aizkorri

Aurtengo Maiatzeko iru lehenengo egunak Gipuzkoako Aizkorri mendiko azpiko zelai zabal eder batean Euskalerriko Mendizaleen Elkartearen artu emanak izan dira. Zelai honek OLTZA du izena eta toki zoragarria da. Oñatiko Aloñamendi Elkartek dena antolatu zuen. Eguraldia oso txarra egon zana, otz ta elurra asieran baña azkeneko egunean eguraldi ederra egin zuen.

Euskalerriko lau lurraldeetatik etorri ziran Oltza'ra, Naparra, Gipuzkoa, Bizkai eta Arabatik Aitzkorriraino abiatu ziren jendetza aundia biltzen.

Azken eguna igandea zen Maiatzeko irugarrena alegia. Goizeko amabietan euskeraz emandako Meza izan zan, Ondoren medalla banaketa. Azkenean lau lizar meza emandako lekuan landatu berri zituzten lau euskal lurraldeen anaitasuna oroitu ta agertzeko.

Euskeraren Batasuna dela-ta

Euskaltzaindiak euskeraren batasuna nahi du egin, edo nahi beharko luke egin beintzat euskera bizi dedin. Batasuna honen borondate onak ikusten dira Euskalerriko guzian, ipar aldetik egoalderaño, eta sortaldetik sartalderaño, baño badira ere beste bohondateak ain onak ez direnak, eta gutxi bakarrak izaten badira ere, borondate biurriak agertzen dizkigute, bere etxeei bakarrik begiraturik eta ez norberaren etxe guziei, elkar ikusirik.

Zenbat idazlan, lerroak, itzak euskeraren batasunari buruz ez dira idatzi, eta esan.

Badakizu zer esan duen izkuntzalari jakintsu den Luis Mitxelena jaunak? Hara hemen esan duena: "Lege bat behar dugu geure buruen gaiñetik. Ez, ez da hori jauntxokeria edo maisukeria. Eta ala balitz ere, izkuntza hori il edo biziko dela iakitea aski behar litzake lege bakar hori nahi dezagun".

Nahikoa ditugu itz hauek euskeraren batasunaren gauzak behar diran moduan, eta ez neri edo zuri komeni zaizkizun eran, egiteko.

"Anaitasuna", Bizkaiko euskal errebistak suskritore geiago behar du

"Anaitasuna" izeneko euskal Errebistaren zuzendaritza arpidedunen billa dabil. Hemen aurrean bi zabaltzeko orriak dauzkat laguntasunan eske.

Orri batek diona: Zu, Euskalduna, Irakurtzen duzu euskeraz? Errebista bat dago, euskera errezean, edozeinek ulertutzeko modukoa. Urtean 100 peseta dira, ta amabostero urtetzen da. Suskribitu zaitetz ANAITASUNA'ra. Bete egizu horaintxe bertan zure suskritzioa ta bidaldu hona: anaitasuna. Apartado 17 - GALDAKANO.

Besteak: Beste arpidedun berri bat. Euskera ez da ilgo. Baina hori ez da gure auzia. Gure problema euskera zabaltzea, indartzea eta goi-mailla batera jasotzea da. Horretarako ezdugu inoren laguntzarik itxaron behar, sekula etzaigu geugandik izan ezik etorriko-ta. Euskera indartzeko, bide bat dago; ZURE LAGUNTASUNA!!

Errebista hau amabostean behin ateratzen da, urtean, beraz, ogeita sei aldiz argitaratzen da eta gure eskuetara eldu. Urtean ogeitasei numeru, eta dena ehun pesetan gauza

merkea da, alajaina. Euskal naparra zure eskua bota Bizkaiko aldizkari iakingarri honi eta suskribitu zaitez, 100 pesetako balio du urtekoz.

### Euskal Adademiaren illabeteko Biltzar Bereziak

Euskaltzaindiak azken biltzarrean bi billera bereziak egitea ontzat artu zituen. Bata Luzaideko errian, Satrustegi apez jaunaren eskabide bat entzunez, bertako agintari eta herritarrek bere errikide zen Juan Etxamendi Larralde "Bordel" bertsolari zenari emango dioten egunean berean egiteko.

Beste biltzarra Zuberoko hiri buruan, Maulengo errian, Salaberriri omen aldia egingo dioten egunean. Bi biltzar hauek Udako illabete edo Udazkenekoetan izango dira noski.

### Mikel Olano Apezpiku euskalduna il berri da

Gipuzkoako Alzoko errian jaio zan 1891 urteko Abuztuaren 29 egunean, Iruñean apezte eta 1918 urtean misioetara joan zan, Guam Lurraltera, hau da euskaldun kaputxinoek izaten zuten misioerara. 1935 urtean apezpiku izendatu zuten Guam'en misioiko buru izanik. Azken gerrate unibersalean japonarrek Guam ugartea menderatu zuten eta Mikel Olano Apezpikuak erbesteratu behar izan zuen, Filipinas'etara joanik. Azken amar urte hauetan Donostiko Aita Kaputxinoen Prailetegian bizi izan da. Horain badu illabete bat Guam ugartera berriz ere joan zela eta han eriotzak arrapatu du berrogei ta bi urte zituelarik.

Goian bego Apezpiku euskaldun jatorra.

### "Hacendistas Navarros en Indias" izeneko liburu berria

Alfontxo Otazu gazta horain Bilbon bizi bada ere Donostiko semea dugu. Otazu gazte honek berbiziko lana egin du eta bere doai aundiko lanaldia liburu batean bildu du. Hona hemen liburu honen izenburua: HACENDISTAS NAVARROS DE INDIAS".

Liburu hau oso interesgarria da. Erdiaroko paper zaharretatik artutako da bere gaia, espezialki Nafarroa ta Madrilgo artxiboetatik zehar ibili behar izan du bere liburua osatzeko, baña baita ikusmiratu, azterkatu eta miatu Heredia Espinolako Kondearen eta Baztango Dorre Etxeko liburutegiak ere.

Otazu jaunak Iruñeko Unibersidadearen Lege ikasgoak ikasten ditu, laugarren urtean dago. Bere ikasgairik atsegina historia du, Euskelerrikoa batez ere.

Liburu honen itzaurrea Caro Baroja iakintsuak idatzi du eta Alfontxo Otazu gaztearen lagun tamaisu izanda. Caro Baroja jaunak "La Hora Navarra del Siglo XVIII" izeneko liburua igaz argitaratu zuen gai berberak ikututzen.

Zorionak, emeretz urteko Alfontxo Otazu donostiar gazteari, segi dedilla bere bidean Euskalerraren historia aztertuz.

### "Euskal Idazle" elkartearen billera Eibarren

Maiatzaren lehen egunean iru geitsu euskal izkribitzaille bildu ziran Eibarren "Euskal Idazleen" Elkartasunaren urratsak elkar ezagutzeko. Urrats horietan inportanten, beharrezkoen



eta gaureguntasunik aundiena Euskeraren batasunari dagokiona da. Gai honi buruz Torrealdai sekretario jaunak billeraren elkarrizketa iriki zuen, eta ondoren Gabriel Aresti, Aita Altuna, eta Xabier Kintana ari ziran euskararen batasuna goraltzen, eta lan honi doazkion oztopo, problema, eta xehetasunak azterkatuz. Jende geiena gaztea zan, Euskeraren batasuna euskal gazteen eskuetan izan omen da. Uste dut, egia bada, toki onean dagonik.

### Beste Euskal Meza bat Iruñan

Nafarroko Uriburu ederrean euskaldun eta euskaltzale aunitz bizi dira, bestek uste duten baño oso asko geiago, zorionez. Millaka euskaldun hemen bertan, Iruñan, ibiltzen dira, batzuk emen sortuak, beste batzuk Nafarroko euskal errietatik etorriak, eta besteak Giputze eta Bizkaitik honeratuak Erdal meza badira, alafede, Iruñan, baño euskaldunentzat bat bakarra, Iruñeko Euskal Erriaren Adiskideak elkargoari eskerrak. Horain beste euskal Meza bat ematen asia da Iruñan.

Jesusen Lagundiko Elizan, larunbata eta festa bezpera guzietan, arratsaldeko zazpietan ematen da.

Bigarren euskal Meza hau Aita Jesuitek antolatu dute, eta haueri eskerrak euskalduneez ere jaibezperetan gure euskal Meza izango dugu.

Ikusle

Principe de Viana, 1970, ekaina, 2. orr.

## EUSKALERRIKO LEIOA

Aita Villasante, Frantziskotarra, Euskaltzaindiaren Lehendakari Berria

Ioan den Uztailaren 29-an, Donostiko Gipuzkoako Diputazioarean Jauregina, Euskal Akademiak bere Zuzendari, bere Buru berria izendatu zuen. Aita Luis Villasante, Lehendakaria gertatu zen, amaika boto bere alde izanik.

Aita Luis Villasante Kortabitarte Gernika jaio zan 1920-an. Arantzazuko Prailetegian bizi da Teologia-Irakaslea izanik. Euskal idazlari ona da. Bere liburutik ezagutuenak hauek dira: "Kataliñen gogoetak", "Arsko Erretorearen erkustaldiak", "Aitonaren uzta", "Jesukristo", "Jainkoa", euskeraz idatziak direnak, eta "Historia de la Literatura Vasca", erderazkoen artean.

Aita Villasante euskeraren batasunaren aldeko lanak eginak ditu eta momenturik egokienean Euskaltzaindiaren Zuzendaritzara eldu dalakoan nago.

Euskeraren onerako lan on bat egin dezala desiatzen dugu.

Antonio Valverde jauna il zaigu

Antonio Valverde jauna Kastillan sortua bazan ere eta bere odola eta jatorria Euskalerritik kanpo izan arren Gipuzkoara bizitzera etorri zan aspaldin, Oiartzungo herrira eta osoan euskaldundu zitzaigun. Gizon trebe, argi, apal, ikasia, paregabea. Ahaztu eziñeko euskaldun berri zanak ejenplu ederra euskaldun epelei, edo Euskal herrian jaio direnei eman zien. Berak menderatu zuen euskera, euskalduna bere letra guziekin esan ahal izateko. Goian Bego Antonio Valverde gizon-gizona eta euskaldun berri zintzo zana.

Nafarroako Diputazioeak Euskaltzaindiari bere diru-laguntza geitu dio

Denok dakigun bezala euskaltzaindiaren sortzetik Euskal Herriko lau Diputazioeek Euskaltzaindia bere babesean, bere ardurapean izan onhartu zuten. Aurten gure Diputazioeak bere urteroko diru-laguntza amabost mila pezetaz geiagotu du. Hemendik aurrean ogeitabost milla pezeta urteko emango dizkio. Begi onez ikusten dugu.

Maurucio Elizalde Baztandar Txistularia

Aspaldiko kontua da Baztango Balleko Aintzindarietxistulari on-ona den Mauricio Elizalde jaunari omenaldi bat egiteko eskatu niela. Denbora pasa-ta begira orain Baxarriren zenbait lerro ZERUKO ARGIA-n azalduak Maurizio Elizalderi eskeiniak:

"Ogeitamar urte bete dira aurten lehenengo aldiz Elizalde Elizondora azaldu zala erriko jai nagusiak alaitzera.

Geroztik, urterik utsegin gabe, an dute beti Santiotan. Nik ez dakit Elizalde musikaz jakintsu dan ala ezjakin da. Elizalderen txistu otsak badu alako euskal kutsu berezi bat, mendi igurtzi aparteko bat. Zein gozo sartzen den belarrietan barrena!

Bijoa au Elizondoko agintarientzat: Maurizio Elizaldek ez ote luke omenaldi erriko bat merezi?

Esperoan gaude Baztango Balleak omenaldi hau onhartuko duenik.

"Batasunaren Kutxa" izeneko liburu berria

Donostiko LUR editorialak "BATASUNAREN KUTXA" delako liburu berri bat argitaratu du. Oso interesgarria da liburu hontan euskera literarioaren batasuna egiteko bideak azaldu baitdira.

Liburu hontan berean bost milako euskal hitz-zerrenda bat ere dago.

Euskeraren Batasuna dela-ta

ZERUKO ARGIA-n argitaratu zan euskararen batasunari buruzko "ERABAKI NAGUSIA" bati erantzunez (arropostu eginez) eta gauzak bere lekuan ezarriz Bizkaiko "ANAITASUNA" delako aldizkari maiteak honako iskribua agertu du:

"ZERUKO ARGIA aldizkariaren 383-384 zenbakian (numeruan), lehenengo orrialdean "ERABAKI NAGUSIA" izenburuarekin, HERRIA, GOIZ, ARGÍ, ZERUKO ARGIA, AGUR, KARMEĹ, KILI-KILI, LOYOLA IRRATIAK, LA VOZ DE GIPUZKOA-n irrati saioak egiten dituztenak izenpeturik (sinaturik), esaten da: "Euskeraren batasuna egiten astera goaz...". Zer tan eta nolakoa "erriak erakutsiko digu". "Erria" esatean, hau esan nahi da: "ikasten jandun gabe euskera dakien erria".

Gure uste apalean, esan beharra dago, "erriak erakutsiko digu" hitzok zeharo konzeptu abstrakto bai direla, airean eta hutsean gelditzen direnak. Euskeraren batasuna, guk dakigunez, hizkuntzalariak egin behar dute, eta EGITEN ASIAK DIRA ASPALDIN, biologiazko zientzia biologoek egiten dute bezala, gorputzaren errea lidatea kontuan edukirik.

Erabagi Nagusi hori euskal kazeta (aldizkaria) batzuek hartzean, guri ez daukute eritzirik eskatu, ezta hartzekotan zirenik esan ere. Goian aipatutako aldizkariez gainera, badira beste aldizkari batzuk Euskal Herrian: EUSKERA (Euskaltzaindiaren lan eta agiriak). EGAN, JAKIN, PRINCIPE DE VIANA, JAUNAREN DEIA, OTOIZLARI, GURE HERRIA, DANTZARI, TXISTULARI, ARANZAZU, REDENCION.

Erabagi Nagusi horren aurrean, gure hizkuntzalariak zeharo harriturik gelditu dira nonbait. Antza denez, haiek ez dute ezer egin orain arte, eta aurrerantzean ere ez dadukate zer eginik, "erria" izeneko jaun baten eskuetan gelditu baita beren eginkizun berezia".

Idazlan hau ongi esana baitdago, guk ere hitzez hitz, sinatzen dugu dena.

Ikusle

Principe de Viana, 1970, iraila, 2. orr.

## EUSKALERRIKO LEIOA

Aita Villasante'ren liburu berria: "JESUKRISTO"

Arantzazuko frantziskotarra den Aita Luis Villasantek beste euskal liburu bat argitaratu du: "JESUKRISTO" izenez.

Aita Villasante oso ezaguna da euskal idazlari artean eta bere euskera errikoia da, errax entenditzen duena. Liburu honen izenak aditzera ematen duen bezelaxe, liburu honi dagokion gaia yakiñik: Jesukristo, badakigu garrantzi aundikoa izanen dela liburu hau, bi aldetatik ikusita, euskaldunentzako. Batetik Erreljio Katolikoaren Fedea obeago ezagunerazteko eta bestetik euskeraz euskaldunek obekiago irakurtzeko.

Liburu honen gaia da, Jesukristori dagokiona. Liburu hontan Ebangelioak, Ebangelioak ezagutzeko jakinbide eta erak, eta hauek ematen dizkiguten Kristoren personalidade, eta irudia azaltzen dira gaurko eguner doazkioten modutan agertu eta ikusiak. Honek nai du esan liburu hau gaurkotasunez, oraingotasunez beztitu eta betea dagola.

Lan ona egin du Aita Villasantek Erreljio Katolikoaren gai hauek guziak euskeraz prestatzean, euskal fededunentzat eta baita ere euskeraren onerako.

"JESUKRISTO" liburu berri hau salgai dago gure liburu-dendetan. Euskaldunak erosi.

Iru urtez "Diario de Navarra" egunkarian "Euskal orria" agertzen

Pasatu berri den Aprillaren 21 egunean Iruñeko "Diario de Navarra" egunerokoaren "Euskal Orria"-k iru urte bete zituen.

·Euskal Orria" honek "Napar Izkuntzaren Orria" izena dauka eta sortu zanetik honera irutan ogei ta emeretzi orrialde azaldu dira.

Gure napar euskal errietan eta Iruñe'ko etxe askotan atseginez irakurtzen da. Orri hortan lan egiten duten jaun guziei gure zorionak.

"Egan", euskal aldizkaria

Gure anaia den Gipuzkoa'ko Diputazionearen "Julio de Urkijo" deritzan Batasunak urtean behin edo bitan "EGAN" izena duen euskal aldizkari bat baditu amazazpi urte eta geiago argiratzen duela.

Azken egun hauetan 1968 urteko numerua jaso dugu.

Agerkari honek euskera erotik goratzen du. Dena euskeraz idatzia. Bertan euskal idazlari famatu guziek parte artzen dute. Azkeneko numeruak ehun ta berrogei ta amalau orrialde ditu.

Argergari honen gaiak goimaillakoak dira denak kulturari, yakiteari dagozkionak, zeren "EGAN" agerkari hau euskaldun jakiñentzako eskeindu eta zuzendua baita. Argi esateko hemen jartzen ditugu aldizkari hontan agertzen diran gai batzuk: Literatura, Arte, Historia, Teatroa... eta denetara beste gañerako Zientziari buruzko gaiak agertzen dira.

Irukote batek prestatzen du "EGAN": Errenteria'ko seme zintzo eta izkuntzalari yakintsu den Luis Mitxelena jaun famatua, Donostiko lege-gizon aipatu den Antonio Arrue eta Naparroko seme eta sendagille prestu den Aingeru Irigarai jaune osatzen dute irukote zuzendaria.

Euskaldun ikasiek badakite nun duten euskeraz iskribitutako goimaillako agerkari bat.

Eskatu ezazute zuzenbide, adreza hauetara: SEMINARIO "JULIO DE URQUIJO".  
Palacio de la Diputación de Guipuzcoa - SAN SEBASTIAN.

Ikusle

Principe de Viana, 1969, maiatza, 2. orr.

## EUSKALERRIKO LEIOA

"Ipar Euskal Erria" liburua

Arantzazuko Prailetégian bi izkuntzetako "Aranzazu" izeneko illeroko bat argitaratzen da aspaldin, baño hontaz gañera goi maillako euskal kultura-errebista bat ere argitaratzen zan. Aldizkari hau ezdakigu zergatik baño debekatu izan da horaingoz. Horain, argitaratzeko baimena berriro lortu artean, bere suskritorei edo arripidedunei "zerbait" bialtzegatik euskal liburu iakingarriak argitaratzen asiak dira.

Lehenbiziko liburuak "Ipar Euskal Erria" dauka izena. Euskera batuan idatzia dago eta honelako euskeran Euskalerriko euskaldun seme guziek entelegarri egiten zaiote.

Liburu gaia Frantzi aldeko Euskalerriko berria. Guk handik urbil bizi bagera ere, askotan, horren berriak gutxi dauzkagu, eta denok iakin behar dugunez, gure odol anaiak dira. Nafarratik begira gañera, guk nafarrok beste ainbesteko nafarrak ditugu mugaz beste aldean, bere nafartasun eta euskalduntasuna ongi ohartzen bagera, guk baño euskaldun geiago sentitzen dira, biotz-biotzean, istorian eta goguan eramaten dituztenak.

Erosi zazute liburu hau: Ehun pesetako balioa du. Eskatu zuzenbide hauetara: Santuario de Aranzazu - OÑATE (GIPUZKOA).

Bilboko Jose Luis Etxegaray jauna il zaigu

Bilboko seme zen Jose Luis Etxegaray Pagola jauna il zan berrogei tamar urte zituelarik. Gizon euskaltzale zan, errotik maitatzen zuen Euskal Erria. AMA LUR, PELOTARIA eta ALKEZAR pelikula ezaguneen sortzaillea izan zan. AMA LUR izenekoa, Euskalerriko pelikula da, eta Euskalerriko kapitale, eta uri aundienetan urte pare bat badu eman zutela. Hontaz gañera CINSA delako euskal diskoen Argitaldaria ren zuzendaria zan.

"Euskal mecenaz bat" zala Xabier Kintanak esan zuen, eta ongi esana dago. "Gizon iaio eta argia, iakituri aundikoa", Zeruko Argia-n irakurri dugu, zala ere. Ezdugu beraren oroimenez besterik esango. Goian dagola betiko biotzez.

Durangoko euskalduntasuna

Bizkaiko "ANAITASUNA" izeneko amabosterokoan leitua:

"Durangon euskaldunak ezdabe, edo ezdogu izan, Aste Santuko liturgi elizkizunik. Bost edo sei tokian gutxienez izan dira elizkizun horrek, baina danak erdaldunentzat. Durangon, kristau izateko, Aste Santuan eta urteko astegun guzietan, erdaldun izan behar da, antza".

Aipamen hau bizkaieraz izkribitua badago ere errezkiki entenditzen da. Aipamen honek badu bere mamia euskaldun guzientzat iakingarria dena. Denok dakigun bezala Durangon gertatzen dena ezta Durangon bakarrik gertatzen, ezta gutxiagorik ere, damurik, Euskalerriko

uri eta erri aunitzetan pasatzen dira gertaera berdiñak. Euskaldunak izan, eta euskal elizkizunik ezin entzun.

### Arraunlariak Oiartzunen

Oiartzungo semeek arraun egiteko zaletasuna badute eta hau erakusteko aurten trainera bat osatu dute Donostiko eta beste Kantabriko itxasoko errietan ospatzen diren estropadetan parte artzeko. Itxas bazterreko erria izango balitz gauza elitzake ain arrigarria izango, baño Oiartzungo erriak itxasotik oso aparte ez bada ere, ezdu itxas tokirik bere barruan. Ondarrabitarrek arraunak poleki erabiltzen erakutsiko diete. Pentasmenduetan mugildua nago horain ia egun baten Berako edo Lesakako erriak ezluketeka beste ainbeste egin ahal izango.

Ikusle

Principe de Viana, 1970, maiatza, 2. orr.

## EUSKALERRIKO LEIOA

Mariano Izeta yauna "Principe de Viana" Elkartearen "Euskeraren aldeko sailla"-ren Bocal Berria

Gure Diputazioeak "PRINCIPE DE VIANA" Elkartearen "Euskeraren Aldeko Salla"-ren bocala izendatu berri du Baztan'go Balle eta honen inguruko erri haien partez Elizondo'ko seme den Mariano Izeta yauna.

Izeta yaunak aginte hau onhartu du eta Diputazioeari bere baietza igorri dio bere ahalegiñak egingo dituela eta baita ere bere eginkizunetan beteko dituela euskeraren alde esanez.

Izeta yauna euskal "PRINCIPE DE VIANA" delako errebista hontan lan egiten dutenetan dago eta pozik denok ikusi dugu izendapen hori. Ziur gaude Naparroan euskeraren etorkizun eta gerokoarendako izendapen honek bere fruituak ekarriko dituela.

Naparroako Diputazioearen "Euskeraren Aldeko Sailla" k baditu oraingoz lau gizon denek euskeraren onerako nahikeri eta maitasuna gañezka dauzkatenak. Hauek dira: Jorje Kortés Izal, Burua dena, Jose M. Satrustegi, J. Manuel Lasarte eta Mariano Izeta batzarkide direnak.

Ongi etorria izan dedilla "PRINCIPE DE VIANA" Elkartera gure lagun den izeta yauna, eta lan aunitz, bere beste iru lagunekin batera, egin dezala euskeraren alde. Biotzez.

### Bertsolariak Elizondo'n

Aldizkari hau moldiztegitik ateratzean Elizondo'n "Bertsolari besta" izandu berri da Baztan'go lagun euskaltzale multzo batek antolatua. Antxitoneko Trinketean lau bertsolari ari izatekotan ziren: Uztapide, Xalbador, Lasarte eta Agirre. Eldu den numeruan xehetasunak emango ditugu bertsolari besta hontaz.

### "Iparagirre" saria Bilbo'ko Gabriel Aresti yaunak irabazia

Igaz eta lehenbizko aldiz, Madril'go Gobernuako "Información y Turismo" delakoa Ministerioak eraginda "Iparagirre" Sai deitutako "Euskerazko Literaturaren Sari edo Premio Nazionale" Bilbo'ko euskal idazlari iaio den Gabriel Aresti yaunak irabazi du.

"Iparagirre" Sari edo Premio honek badu bere inportantzia, badu bere garrantzia, eta gure idazlari gazte honek merezi ditu gure zorion eta txaloak ugari.

Maipurukoetan baziren Euskaltzaindiaren partez Madril'era joana, baita ere Ministerioaren ordezeko bat, Bizkaiko Diputazioeak izendatutako bat, beste bat Gipuzkoa'ren partetik, eta gure Diputazioearen aldetik Urdiain'go Erretore eta "PRINCIPE DE VIANA"-ren lankide den Jose Maria Satrustegi apez yauna. Aho batez Gabriel Aresti yaunak izkribitutako "HARRI ETA HERRI" izenezko den liburuari eman zioten Saria.

Aresti jaunak bi klasetako liburuak ditu idatziak: Poesiazkoak eta Teatrozkoak. Poesiazko liburuetan hauek dira ezagunenak: "MALDAN BEHERA", "EUSKAL HARRIA", eta orain "IPARAGIRRE" Saria irabazi berri duen "HARRI ETA HERRI" izenez dena.



Teatrozkoetan: ETXE ABERATSEKO SEME GALDUA ETA MARIA MADALENAREN SEME SANTUA", "MUGALDEKO HERRIAN EGINIKAKO TOBERAK", eta "BESTE MUNDUKOAK ETA ZORO BAT" izena dutenak.

Gure ziñezko eta benetako goresmenak bilbotar Aresti jaunari.

"Escritores Euskericos" izenezko liburu berria

Euskaltzaindiaren sekretario den Yon San Martin jaunak beste liburu bat argitaratu berri deu "ESCRITORES EUSKERICOS" deitzen dena.

Eibartar honek idatzitako liburu hau Bilboko "LA ENCICLOPEDIA VASCA" Editorialak atera du. Liburu honen gaia da: ogeigarren mende hontako euskal idazlarien Izendegia (Lerrokada, Katalogoa) eta euskal idazlari bakoitzaren izendeituren azpian bere bizi labur edo Biografia dakar.

Lan aunitz egin izandu du gure lagun den San Martin jaunak ainbeste izen, deitura, berri, xehetasun eta beste asko klasetako gauzak paregabeko liburu hontantxe biltzeko.

Liburu hau Euskalerriko Liburu dendarik oberenetan salgai dago. Merezi du erostea. Badakite gure irakurleek.

Euskalerriko Txistularien Zuzendaritza Naparroa'ra

Aurten oitura denez, Euskalerriko Txistularien Elkartasunaren Zuzendaritza Naparrora pasatu da bi urterako, Iruñean izango du bere bizitokia Elkartasun maite honek.

Gure irakurleek ikasi dezaten Elkartasun honen zenbait berri jarriko ditugu:

Txistularien Elkartek Euskalerriko Iri Nagusietan dauka bere bizitokia bata bestearen ondoan bi urtez bi urte pasaturik. Azken bi urte hoketan Bitorian (Gazteiz'en euskeraz) bere egoitza egon da eta bi urterako tokatu zaio Iruñera etortzea. Emendik bi urtera Donostira jua beharko du eta andik Bilbora pasatuko da berriro Bilbotik Gazteizera pasatzera jirabira osoa berriro emateko.

Izan ongi etorria Naparrora ain maite dugn "Euskalerriko Txistularien Elkartasunaren" Zuzendaritza.

Euskal Kantariak Unibersidadetan

Bilbo'ko eta Iruñe'ko Unibersidadeetan Benito Lertxundi'k, Mikel Laboak eta Julian Lekuonak euskal kantari direnak egonak dira kantatzen eunaka ikasle aurrean zeudelarik.

Zaragoza'ko Unibersidadean beste euskal kantari multzo bat egona da: Vittor Egurrola, Lourdes Iriondo eta Xabier Lete ziren Zaragoza'ra jua zirenak. Exitu aundikin eta giro beroekin Zaragoza'n ikasten dauden euskal ikasleek entzun dituzten hauek kantatu zituzten kantu guziak.

Bada euskal ikasle arteko zaletasuna gaurko eguneko euskal kantuendako!!

Ikusle

Principe de Viana, 1969, otsaila, 2. orr.

## EUSKALERRIKO LEIOA

"GAUR" arte taldea Amerikan

"Gaur"-izeneko arte taldeak Mejikon beren arte lanak erakutsiko ditu. Arte multzo honek baditu bera barruan euskal artistak txit ezagutuak: Txillida, Oteiza, Mendiburu, Zumeta, eskulturari ekin egiten diotenak, eta Ibarrola eta Ortiz Elgea pinturari atxikiak. Mejikoko Museo de Arte delakoan beren lanen agerketa, erakusketa izango da.

Mejikitik Iparreko Estatu Batuetara joango dira New Orleans-era beste ainbeste egiteko.

Euskal arte talde honen zine zuzendari trebe den Basterretxea jaunak euskal zineari buruzko asmo iakingarriak baditu. Lehen "Pelotari" ta "Ama Lur" filmak egin zituen eta hemen Euskalerriko hiriburu eta herri gehienetan emanak ziran. Orain Mejiko zine-tokietan baita zenbait Ameriketako Estatu Batuetako Lurraldekoetan ere erakutsiak izanen dira.

Basterretxea jaun hau diruak billatzen asia da "Amaia" nobela famatua zinera eramateko. Euskal artista honen uste eta asmoak egiazkoak egin behar dira, baina hortarako diruak falta. Ezta gertaera makala izango Teodosio Goñikoaren ele xaharra zinera ereman.

Zuberoko Salaberri zenaren omenaldia Mauleko herrian

Euskal Akademiak Salaberri zuberotarra zenaren bere "Chansons populaires du Pays Basque" izeneko liburuaren ehun urte betetzean Zuberoko hiriburuan, Maulean, ile honen 25-ean omenaldi bat egingo dio.

Hona hemen Euskaltzaindiak eginikako programa:

Goizeko amarretan; Mauleko elizan Meza konzelebratua.

Amaika ta laurdenetan: Mauleko Herriko Etxean, Euskaltzaindiaren ileoroko Batzarra. Amabi t'erdietan, Champo Mauleko alkatearen agurra herriaren izenean.

Ondoren, iru hitzaldi labur: DASSANCE euskaltzainak (Akademikoak) "Salaberri pertsona" gaiari buruz itzegingo du. HARITSCHELHAR Euskaltzainburu ordeak "Salaberri olerki (poesia) biltzalea" gaia artuaz mintzatuko da. EPPHERRE euskaltzainak "Salaberri musika biltzailea" gaiar arituko da.

Azkenean, Mauleko Hotel batean bazkaria.

Honi buruz eta gauzak zuzen eta aurretik prestatzeko Euskaltzaindiak ohar hau bidaldu digu:

"Euskaltzainburu ordeak jakin nahi du, guretatik nortzuk joango diren Maulera, eta otoi eskatzen du, berari aitzen emateko, ikus, azkenengo "Euskeran" bere zuzenbidea, edo honera, Euskaltzaindiaren etxera, idazkiz, Ribera-6-Bilbao (5), edo telefonoz 212745-ra, Urriaren 20 eguna baino lehenago".

Leitzaleak guziak ongi konprenituko duzuten bezala ohar hau Euskaltzain eta Euskaltzaindiaren Laguntzalei bakarrik zuzendua da eta hemen sartu dut Nafarroako euskaltzain eta Laguntzale guziek iakin dezaten. Honek ezdu esan nahi egun hartan edozein Mauleko herrira joan ez daitekenik, ezta gutxiagorik ere, baño kasu hontan bakoitzak bere eran joan beharko du.

Euskal pinturaren bostgarren sari aundia

Euskal Pinturaren V Sari Aundia Ramble jaunak irabazi du. Ramble mugaz beste aldeko euskal pintorea da.

Bigarrena lau euskal pintore hauek eraman zuten. Marta Cardenas, Karlos Sanz, Bizente Amezttoy eta Jose Luis Alvarez.

Sari Aundia irabazi zuen arte lanaren izena: "Galerie de visages" da. Beste lauen izenak "Llega la luz jugando", "Pintura", "Autorretrato", eta "Pintura".

Ikastola Lizarran (Estellan)

Aurten iriki berria da Lizarran (Estellan) euskal eskola bat (Ikatola). Ikastola honek baditu laguntzak eta Nafarroako Diputazioarenean babesean egongo da. Lizarrako agintarieek begi onez ikusten dute eta beren ahaleginak egin dituzte Lizarran Ikastola bat izateko. Asteko ogeitamairu aur joaten dira, andereño batekin: Berriozabalbeitia. Zorionak Lizarrako herriari.

Tafallako Ikastola

Tafallako Ikastolan euskeraz gainera (jakiña) hemendik aurrean, frantzez izkuntza irakasia izango da.

Ikastola hau ere bertako agintarien laguntzarekin eta gure Diputazioarenean ardurapean dago. Bere Andereño: Nekane Zelaieta da.

Ordizian Bertsolari Berrien Sariketa

Gipuzkoako Ordiziako Billafrankan Irailaren irugarrenean Bertsolari Berrien Txapelketa egin zan. Parte hartu zuten bertsolariak hauek ziran: Ormazabal, Zegamakoa, Auzmendi; Idiazabalgoa; Ibarzabal, Gabirikoa; Zeberio, Itxasondoko; Mugika, Legorretakoa; Agirre ta Azarola, Legazpikoak; Etxaluze, Zeraingoa; Iraola, Zaldibikoa; eta Eguren, Arriarangoa. Denetara: Amar bertsolari. Multzo ederra benetan. Maiburukoak Amundarain, Gabiria eta LAZKAO TXIKI bertsolari famatua izan ziran.

Gipuzkoako Bertsolari Berrien Txapelketa hau ikusirik eta ainbeste bertsolari berri han azaldurik pentsaketan nago noiz gure Nafarroan Bertsolari Ezagunen eta Berrien Txapelketa bat egin ezduenik. Uste dut ordua dela berriz ere Bertsolarien Txapelketari jarraitzeko.

Xabier Quintana jauna ezkondu da

Ioan berri den Irailaren bostgarrenean Bizkaiko Nabarnizko herrian euskal idazle on eta euskal irakaslea dan Xabier Kintana jauna Mari Karmen Goiriena andreñoarekin ezkondu zan. Ezkonberriak ar bitzate gure goresmen eta zorionik beroena biotzez.

"Euskal Dantzarien Elkarte" berria

Abuztuaren ogeitamargarrenean Zarautzen mila ta gehiago dantzari bildu ziren. Ikusgarri zan benetan hango euskal dantzari festa egin zuena. Lauretan ta ogei dantzari multzo elkarrekin batuak Zarautzko karrika ta bazterrak alaitzen.

Euskal dantzari besta hontaz gainera "DANTZARIEN ELKARTEA" delakoa berriro berpiztu zen. Eta Elkargo hau aurrera eramateko Zuzendaria eta honen laguntzaileak izendatu ziran.

Honelako moduan "Euskal Dantzarien Elkarte"-ren batzarburua gelditu zan:

Lehendakaria: Jose Maria Arozamena. Lehendakari bigarrena: Olaizola, Idazkaria (sekretarioa): Aranburu. Diruzaina: Urbeltz. Bokaleak: Elena Arizmendi, Escudero eta Aita Gaizka Barandiaran.

Ikusle

Principe de Viana, 1970, urria, 2. orr.

## EUSKALERRIKO LEIOA

"Euskal Antropologiaren Lehenengo Astea"-ren liburua

Yoan berri den urtean, hemen esan genuen bezala, Bilbon, Bilboko "Academia de Ciencias Médicas" delakoak (hau sortu zanetik 75 garren urtea betetzean), Deustoko eta Bilboko Unibersidadeen laguntzekin "Euskal Antropologiaren Lehenengo Astea" antolatu zuen.

Oso interesgarria izan zan Aste hau, mintzaldi iakingarriak, elkar-hizketa mamitsuak eta Euskal Herriari zoazkioten gai gehienak entzun, ikutu eta azterturik.

Orain "La Enciclopedia Vasca" delakoak mintzaldi eta lan guziak bildurik liburu bat argitaratzekotan dago.

Garitaonaindia apez jauna illa

Euskal idazlari famatu hau Bizkaiko Urdulizko herrian sortu zan 1936 urteko ekainaren ogeigarrenean. Derioko Apezgaitegian bere apez-ikaskintzak egin zituen.

Euskal izkribitzaile on-ona izan zan, "Zeruko Argia", "Olerti" eta "Karmel" aldizkarietan, batez ere, bere euskal-lanak agertzen ziran.

Seme zintzo bat galdu du gure Herriak. G.B.

Ipar Euskal Herrian ere Ikastolak

Gure Egoaldeko Euskal Herrian Ikastolak ugari irikitzen ari diraneko berri pozgarriak alaitzen gaitu osotik, izan ere, euskeraren etorkizun eta indarra ikastoletan bait da.

Orai gure Iparreko Euskal Herrian ere beste ainbestekoak sortzen ari direlako iakiteak errotik alegratzen, poztutzen nau.

Baionan, Donibane Lohitzunen eta Arrangoitzen Ikastolak iriki dira, zorionez.

Antxon Valverde-ren disko berria

Disko hau zabaltzeko horrian esaten duen bezala: "Errenteriako Juan Francisko Petrirena Rekondo, "Xenpelar" hil zeneko egun urtemuga ospatzeko duzu disko hau".

"Xenpelar" bertsolariaren oroimenezko disko honek bertsolari famatu honen lau bertso dauzka Antxon Valverdek eratu eta kantatuak. Diskoren izena: "Xenpelar'en lau bertso". Bertso hauen izenak: "Santa Barbararen martiriya", "Iya guriak egin du", "Zezen festa Pasaian", eta "Iparagirre abilla dela".

Kantu guziak kitarra doinuarekin lagunduak dira.

Aita Ariztia il zaigu

Pasatu den Abuztuaren amabigarrenean Donostiko San Inazio klinikan Aita Ariztia Jesusen Lagundikoa (jesuita) il zan petxu-estu batek jota, irurogei urte zituelarik.

Aita Ariztia baztandarra zan, Zigako herrian sortua 1910 urteko Abuztuaren ogei ta irugarrenean. Iruñera bere apaiz-ikasketak egitera etorri zan eta gero, Jesuita sarturik Belgikan eta Erroman ikasgoak egin zituen.

Aita Ariztia izkuntzetako erreztasun aundia zaukan, eta latin, grego eta hebreo mintzaeraz gainera, Europako lau izkuntza menderatuak zituen. Hauen artean, euskera, jakiña, zergatik errotik euskalduna zan eta ongi zakien zortzetik ikasitako gure euskera. Izkuntzalari ona izan zan, eta hortaz gaiñera musikalaria, musika-egillea eta abots oneko kantaria.

Euskeraz izkribitzen iaioa zan. "Margo Ederdun Enziklopedia" delakoari lau liburu euskeratu zizkion: "Abereen mundua", "Mundu berriko abereak", "Aprilako abereak", eta "Europako Abeldia". Lehenengoa, argitaratua dena, eta beste iruak oraindik agertzekotan direnak.

Goian Bego pakean Baztango seme zintzo eta euskaltzalea.

Donostiko "Irakur Sail" Editorialaren berriak

Donostiko Editoria honek liburu hauek argitaratzekotan dago esan duenez: "Lurraren kondaira (historia)", Xalbador Garmendiarena. "Batasuna", euskera literarioa batutzeko azken oinarriak. "Arrotza", Camusena. "Olerki Bilduma", Mikel Lasa ta Amaia Lasarena, eta Julio Vernereren nobela bat Setienek euskeratua..

Liburu bakoitzak suskritoentzat irurogeitamar pezetako balioa izango du. Dendetan, berriz, ehuntamabost pezetakoa.

Harpidedun (Suskritore) izan nahi duenak idatzi zuzenbide hontara: "Irakur Sail", Editoriala, Ferrerías, 1 - Donostia.

Toribio Etxeberria zanari omenaldia Eibarren

Toribio Etxeberria jaun zana Eibarreko semea zan, eta nere ustez, Eibarreko gizonik bizkorrenetatik bat. Europako lehenengo gerratean lanezak gose izugarria ekarri zuen gure Euskal Herrira, batez ere, Eibarrera. Orduan Toribio Etxeberria jaunak, beste eibartar on batzuekin bat egirik, hango langilleen arteko eklartasuna lortu zuen, eta ordudanik elkartasunaren nahia gorputza harturik, ALFA izeneko lantegi aundi eta ederra sortu zan. Toribio Etxeberria zana ALFA fabrikaren sortzeilatetik bat zan. Ondoren, urte multzo bat pasaturik, Españaiko anai arteko gudaketan, erbestera joan behar izan zuen, Ameriketara bizi izanik hil arteraino.

Gizon azkar, erne, argi, kategori aundikoa, langillea, bere denboretako ideietan aurreratua. Eibarreko herrian daude bere lan, asmo eta kezka: ALFA FABRIKA, famatua, iosteko tresnak egiten dituen eta han, barruan, bi milla ta gehiago gizon lan egiten dituztenak.

Arestin, eibartareek, omenaldi sentikor bat egin diote eta Fabrikan barruan Toribio Etxeberria zanaren "oroigarri-irudia" jarri dute. Merezi zuen Etxeberria zanak...

### Arantzazuko Ama Birginaren Egutegia (Kalendarioa)

Arantzazuko Praileek, beste urtetan bezala, 1971 urteko Ama Birginaren Egutegia argitaratu dute.

Aurtengo Egutegiak badu beste zerbait guk pozik onhartzen duguna: Euskera literarioaren batasuna delako marka. Orain denok euskeraz idazteko batasuna iritxi behar dugu-ta hango praileek ere ahaleginak egin dute euskera batuan idazten.

Euskalduna! Eska ezazu, Egutegi hau zuzenbide hontara: P.P. Franciscanos - Aranzazu (Oñate).

### Eguberriko Euskal Disko berria

Aurten Eguberritako euskal disko bat agertu berria da, "Euskal Herriaren Eguberri" izena duena.

Amar kantu dauzka disko honek eta denak Eguberriari doazkiotenak.

Kantuen izenak: "Olentzero Bidasotarra", "Atzar gaiten", "Ainerik ederrenetan", "Oi Betleen", "Aintza zeruan", "Ori Eguberri gaua", "Ator mutill", "Kristo guziek dezagun", "Mari Domingi", eta "Kristo Erregeri".

Kantu bakoitzaren aurretik Euskal Herriko zazpi herrialdeak agertzen dira, Euskal Akademiaren Buru ordezkia den Haristchelhar jauna irakurlea izanik.

Kantariak "Gaztelu Zahar" taldekoak dira. Zuzendariak: Legarralde eta Etxenagusia jaunak, Asmatzailea Minaberry. Disko hau Eguberriko kantu ederrenen bilduma bat da, diskoaren azalean esaten duenez.

### Euskal Olerti (Poesia) Eguna Larrean

Bizkaiko Larreako herrian (Amorebieta herritik urbil), urteoro bezala, joan berri den azaroan, Euskal Olerti (Poesia) Eguna ospatu zan, frantziskotar dan Aita Onaindiak antolatua.

Amaiketan Meza Nagusia eman zan eta gero Aita Frantziskotarren konbentuko areto batean Poesia-Sarien Banaketa egin zan. Honako moduan Sariak gertatu ziran:

Lehenengoa (Lirika-Sailla): Paulo Iztueta jauna irabazi zuen. (Berastegikoa).

Gero bi aipamenak eman zituzten: Sabiñ Muniategi eta Balendin Apraiz jaunak ziran hartu zutenak.

Lehenengoa (Poema Sailla): Martin Ugarte irabaztaille geratu zan (Brinkolakoa) bere "Itxaso Poema" izeneko lanarengatik.

Bertso Saillean Paulino Solozabal eta Maria Jesus Baraiazarra jaun andereak izan ziran garaile atera zirenak.



Ikusle

Principe de Viana, 1971, urtarrila, 2. orr.

## EUSKALERRIKO UNIBERSIDADEAK

Aspaldidanik datorkigu Euskalerriko semeori Unibersidadearen kezka, eta onek zenbat buruauste aintzin eta oraingo urtetan ezdigu eman. Izan ere gure aitonen aitonek baziztuzten ordukoz Unibersidade bat izateko nai eta gogoa.

Naparroko Erreinuaren aldi zoriontsu auetan gure Erregeek, noizean bein izaten bazan ere, agertu zuten beren borondatea Unibersidadea jasotzeko, bañan egia esan, arreta, axola, etzan ainbestekoa, eta auen asmoak etziran bururatu ahal izan.

Pasatu den XIX mendean Euskalerrriak, Gipuzkoako Oñateko errian, bazuen bere Unibersidadea bañan karlistek gerla galdu zutenean berarekin batean eta beste ain gure eta maitatuak genituen gauzen askoen artean Oñateko Unibersidadea galdu gendun. Ordudanik orain arteraiño Bilboko Ingenieru Industrialeen Eskola eta Ekonomian Zientzien Fakultatea kenduta ezta egundaiño Euskalerrrian Madrilgo Gobernuaren ardurapen dagon Unibersidaderik izan.

Zorionez azken amar urte oketan Unibersidadearen aizeak aldatuak, Euskalerrri alderunz egiten asiak dira.

Lenbizikoz Aita Jesuitek Bilbon Deustoko Unibersidadea eraiki zuten. Bigarrenez Eliza Katolikoaren "Opus Dei" deitzen den Institutoak Naparroko Diputazioaren laguntza aundiarekin Iruñean "Naparroko Unibersidadea" delakoa ezarri zun. Unibersidade onek badu Filial izeneko bat Donostian. Gero Aita Jesuitek ere Donostian "ESTE" deritzan Ikastetxe Nagusi bat sortuerazi zuten ("ESTE"-k "Gipuzkoako Unibersidadeko Ikasgo Nagusiak" nai du esan; erderaz "Estudios Universitarios de Guipúzcoa").

Azkenean orain illabete bat ezdala Estaduak Bilbon bere ardura eta agindupean Unibersidadea jartzea erabaki du. Unibersidade onek ere Donostian filial bat izanen du.

Beraz Euskalerrriak baditu bere Unibersidadeak eta denok, pozez gañezka egon behar dugu ainbeste ikasteko bideak gure etxetan ikusirik. Emendik aurrean gure semeek ezdute beren ikasgoak egiteko Euskalerritik kanpo atera izango beharrik.

Euskalerrriak orain Estaduaren Unibersidadea badu, eta ontaz gañera beste iru Estaduaren ardurapean ezdaudenak: Naparro eta Deustoko Unibersidadeak eta Donostiko "ESTE" deitzen dena.

Lehen ain atzeratuak giñela eta orain aurreratuak...

Zorionak denoiri.

Ikusle

Principe de Viana, 1968, ekaina, 1. orr.

## NAPAR BERTSOLARIEN ZEINGEIAGOA

Mikel Arozamena Lesakako. Txapeldun

Iruñe'an, Gayarre Teatro ederrean, Azaroaren 13 garrean, naparro'ko Bertsolarien Seigarren Azken Txapelketa Nagusia, Napar Diputazioak antolatua, ospatu zan. Bi napar bertsolaririk onenak berezi bear izaten ziran Euskalerrri osoko Azken Saioketa Nagusira, Nafarroa'ren izenean, joan zitezen.

Norgeiagoo asi baño ordu erdi lehenago gayarre Teatroat euskaldun gendez erdi beterik zegon, denok bertsolariak entzuteko prest.

Zazpi bertsolari agertu ziren. Goicoetxea, Gorritiko gaztea, Ameriketara joan bear izan zuelakoz bere ezin etorria bialdu zuen garaiez, eta Uhizi Aranoko, gorritiarraren partez, etorri zen (Eskerrik aunitzetan Mañuel), Azken orduan, saioaldia asi zanean, Lesakako Muxikak jakiñean jarri zittuen antolatzaillai esanez bera goatzean (ogean) gaixo zegola eta etzuela txapelketara etorri ahal izaten. Muxikaren mezua beranduegi allegatu zan eta bertsolari onen partez etzuen beste bertsolari bagek Iruñe'ra etorri ahal izan, damurik.

Auek dire Teatron agertu ziren bertsolarien izen, deiturak eta erriak: Mikel eta Manuel Arozamena, Lesakakoak; Bautista Madariaga, Arantzakoa; Martin Oreja, Errazkingoa; Angel Aldatz, Udabekoa; Manuel Uhizi, Aranokoa, eta Andres Narbarte, Goizuetakoa. Maiburuen izenak (Juradukoak): Satrustegi, Diez de Ulzurrun eta Zabala, Apezak; Izeta, Irigaray eta Diez de Ulzurrun jaunak; Zuzendaria: Bilbo'ko Alfontxo Irigoyen. Denak Euskaltzaindikoak (Euskal Akademikoak).

Lenengo saioan lau bertsolari izendatu ziren (Arozamena zarra, Narbarte, Oreja, eta Madariaga) aurrera pasatzeko. Saioaldi ontan aixa maiburuek bertsolari onenak berezi zituzten.

Bigarren proban Oreja kanpoan gelditu zan, eta beste gañerako iru bertsolari artean, au da, Arozamena, Narbarte eta Madariaga, bat atzean uzteko maiburuek eztabaitak izan zituzten eta iru bertsolariak beste saio bat egiteko erabaki zuten.

Irugarren jardunaldian, beraz, Arozamena, Narbarte eta Madariaga aritu ziran, eta probaketa ontan gauzak argi eta garbi jarri ziren, eta Juradukoek ao batez erabaki au agererazi zuten: Arozamena Naparro'ko Bertsolarien Irabazle eta Txapelduna, eta Narbarte, Bigarrena.

Txapelketa au beste lengo txapelketan ederrena, gogorrena izan zan. Burruka atsegingarria izan zan denentzako, baño bakezko burrukaldia jakiña! Gogorra izan zan, alajaiña, bigarren saioketan bi bertsolari berextea!

Badugu beraz, Naparro'ko ordekarriak Euskalerrri'ko Zeingeiagooa joateko, Bizkaiak ere baditu bere ordekarriak: Lopetegi Muxikako, eta Mugartegi Berriatuko. Mugaz beste aldeko anaiek uste dugu Xalbador Urepelgo (Nafartarra) eta Mattin Ahetzeko (Laburdikoa) izango dituztela bereziak. Eta Gipuzkoa'n zer? Oraindikan ezdituzte Alderdiko txapelketak bukatu. Espero dugu, aurki, al den ariñen, akituko dutenik bere Txapelketa.

Zorionak Diputazioari, Euskaltzaindiari (Euskal Akademiari), Txapeldunari, bigarrenari eta baita ere napar bertsolari guziei.

Ikusle

Principe de Viana, 1966, azaroa, 4. orr.

## OBANOZ'KO GILEN ETA FELISSI SAINDUEN GERTAERA IZKUTUA

Igaz bezela aurten ere Obanoz'en Gilen eta Felissi Sainduen Izkutua gogorazteko Teatro agerketa batzuek egin dira, Aguztuaren 19, 20, 22, 23, 26 27 eta 28 egunetan. Zortzi agerketa danetara, eta denak Obanoz'ko plazan erdian. Teatro agerraldi bakoitzak gende pillaka bildu zuen Naparrotik ez ezik, baita Gipuzkoatik eta Alabatik multzoka allegatuak ere, eguratseko tokiak mukuraino betetzen zirelarik.

Arrakesta aundia "Pasturala" antzeko "kale erdiko" teatro onen agerketak artzen ari direla igaztik aurtenera.

Ona emen, laburki esanez, Izkutu onen gaia: Esaten omen da Frantzia'ko Akitania aldetik Konpostelaraño Felissi izena zuen Errege-alaba bat erromes, edo beilaz gisan, joan zela Erdiaroko denboretan. Erromesek (Beilariek) arriturikan eta Konpostelan egiten zen giroak irabazia, bere errialdera itzultzean gure Naparroako Amokain'en Jauregian izkutua geratu omen zen (Egus Ballean), munduko erreztasun, lasaikeri, ondasun eta abereskerietatik iges nairik.

Bere anai zen Gilen beraren billa etorri omen zen, Santiao bidean zear, Akitania berriz eramateko. Amokain'en billatu zuen eta eztabaitan ari ziren, Gilenek bere arreba munduko ameskerietara eta festetara eraman nai zuen, baño Felissik etzuen bere etxera itzuli nai izan; eta Gilenek bere alegiñak utsak eta alperrekoak zirela ikusirik, sumindu eta amorratu zen eta bere arreba illazi zuen sastakadaz. Gaiztakeri onek damutua eta bekatu onen garbitu bearrak bultzatua, Gilen ere Konpostelarako bidea artu zuen erromes, eta biurtzean Obanoz'ko Arnotegiko Ama Birgiñaren ondoan bere bekatua ordaindu eta garbitu naiez gelditu zen.

Felissiren gorputza Iruñe aldeko Aranguren Balleko Labianoko Elizatxoan dago. Gorputza au ustelgabea dago. Gilen ezurrak, kiskaildu eta kizutuak daude, eta Obanoz'ko barrutiaren barneko menditxo baten dagoen Arnotegiko Ama Birgiñaren Elixatxoan dira.

Santos Begiristain apez Jaun Agurgarriak ele zaharra au gaitzat arturik teatro lan bat ikusgarria antolatu du. Manuel Iribarren Iruñeko seme idazlari famatuak, poema gisan, itz neurtuz eratu du. Erdiaroko melodiaz baliaturik soñu berezi bat osatu du Luis Morondok, Claudio de Latorre Teatro onen zuzendaria da, eta badakigu nola trebe eta ezagutua den artezko lan oketan. Arilariak edo Teatrolariak beren paperak ongi ikasirik ederki azaldu dira. Nabari izan dira Alberto Klosas eta Hedda de los Rios. Obanoz'ko laureun erriko seme ari izan dira eta bi beren betebearrak xarmanki eta egoki bete izan dituzte.

Urteoro, Jaungoikoak lagun. Izkutu au Obanoz'en ageraraziko du eta Obanoz'ko erritar guziei esker, Santos Begiristain apez argiak antolatutako Antzerki edo Teatro au gero eta indar geiago urtetik urtera artuko du.

Zorionak Obanoz'ko erriari, eta bereziki Izkutu onen eratzale eta biziemaille den Begiristain apez trebeari.

Ikusle

Principe de Viana, 1966, iraila, 2. orr.

## "TURISMO, LIBURUTEGI ETA ERRI-YAKINTZAKO"

### Zuzendaritzaren lan aipagarriak

Orain bi urte t'erdi baditu gure Diputazioak "Turismo, Liburutegi eta Erri-Yakintzaren" aldeko lan egiteko Zuzendaritza bat sortuerazi zuela, Jaime del Burgo jauna Burua izateko izendaturik.

Ordudanik gure erritako yakiteri buruzko lanetan Turismo aldeko arazoetan eta erri askotan Liburutegiak jartzeko eginkizunetan murgildua dago del Burgo zuzendari erne, lanzale eta aspergabeko langillea.

Beste lan aunitzen artean, gure ustez, nabarmenetako bat Turismo-ri doazkion egiten ari diren lanak dira, eta gaur zerbait goiko fotoan ikusten diren sei liburuxka berriei buruz esango dugu, Zuzendaritzaren onen ardurapean argitara eman berriak direlako.

Zuzendaritzaren asmoak muñdu guzian Naparro'ko Alderdi, Ibar, eta Errialde guzien berri, argibide, xeetasun eta ikusgarriak zabaldu eta ezagun eraztea dira. Onengatik, irakurleak ikusiko duten bezala, Zuzendaritza au Napar Alderdi bakoitzi dagokion liburutxo bat argitaratzeko lanetan dago, eta ona emen lenengo sei liburuxkak, gaiez Eriberri (Olite), Lizarra (Estella), Erronkari'ko Ibarra, Saraitzu'ko Ibarra, Zangotze-Leyre-Xabier, eta Tudela dutenak.

Liburutxu bakoitzak errialde baten xeede eta berri guziak ekartzen ditu eta modu ontan Naparro guzia, bere mendi, iri, erri, ibar, ibai, txoko, baztar, gaztelu, eliza, jauregi, eliz nagusi, dorre, etxe eta guzi munduari ezagun eta yakin eraziko dizkiotegu liburutxu auetaz.

Esate baterako eta ejemplo bezala Lizarra'ri buruzko folletoak agertzen eta ekartzen dituenak ona emen laburrez esanak:

Lenbizikoz, Lizarra'tik Euskal Erri'ko Uriburu guzietarañoko kilometroak, baita Logroñi, Zaragoza eta Madril'erañokoak ere.

Segidan Lizarra'ko istori txiki bat eta ondorean bere Etxe Bikaiñ, Jauregi, Eliza, Komentu eta Toki Zaarrak.

Etxe Bikaiñ eta Jauregien artean emen aipatuko ditugu: Naparro'ko Erregeen Jauregia, Aiuntamenduko Etxe Zaarra, Agintarien Etxea, Lizarra'ko Aita Diego Prailearen Etxea, Sainduen Etxea eta Karlos Zazpigarrenekoa.

Elizen artean: Erruako Pedro Sainduarena, Errokamadorko Ama Birgiñarena. Arrillobi Sainduarena, Gazteluko Yus Maria Sainduarena, Lizarra'ko Pedro Sainduarena. Yondone Batistarena, Mikel Aingeru Sainduarena eta Gure Puyko Andre Donearen Basilika edo Eliz Nagusiarena.

Komentuen artean: Domingo Sainduaren Prailtxea, eta Errekoleten Mojategia.

Ondorean Periak eta Bestak izaten diren egunak. Beste ataltxo bat deportei dagozkienak, eta Lizarra'n gien aritzen direnak: Pillota, Eizia, Arrantza, amorraiak eta karramarroak bereziki, fubola. Mendietara Zaletasuna... eta, eta.

Folkloreak ere badu bere lekua: Dulzainak, gaitak, oitura, kontu, "Larraiñeko Dantza" famatua, eta abar.

Bukatzeko Lizarra'tik ateratzen diren bide zabalak, jateko eta edateko bereziak, ostatu eta hotelen izenak eta Lizarra ta bere errialdeko mapa bat.

Sei liburuxka auen esanak Del Burgo Jaunak idatziak daude. Maketak CYDE delakoak egin ditu. Fotoak: Ardanaz, Galle eta Rafaelak egindakoak, eta "Iparreko Litografia" Iruñe'ko Moldiztegi ezagunean argitaratuak dira. Ordain gabez, utsean truk, jaso ditezke. Nai duenak eskatu beza Naparro'ko Diputazioaren "Dirección de Turismo, Biblioteca y Cultura Popular" erderaz deituari.

Ondarrean ar bitza gure txalorik beroenak Jaime del Burgo Buruak, bere lan guzionkatik, eta esperoan gaude argitaratzekotan dauden beste liburutxoei.

Ikusle

Principe de Viana, 1967, martxoa, 6. orr.

## PUERTO RICO (ITXASOZ ARUNZTIK)

Migel Intxaurren Apez Yaun Agurgarriak itxasoko beste aldean bizi da, bañan arañ gure errebista eltzendabaidela eta berak ere gogoz irakurtzen oi du Karta bat idatzi digu eskerrak agertzen eta baita ere bere poza azaltzen, eta onekin batean idazlan bat ergitaratzeko. Beian dagona berarena da. Migel Intxaurren Apeza nafarra da Betelu aldean sortua eta aspaldin, Españiako azken anaiarteko gerra baño lehen, Iruñeko Seminarioan Erakasle izana, Euskaltzale sutsu, gizon argi eta yakintsua da. Euskeraz ikasteko Gramatika edo Ikasbide bat idatzi zuen, eta gure Apezgaitegian apezgaiak euskeraz ikasteko egokia dena. Agur xamur bat Iruñetik, on Migel, eta egunen batez etorriko al da bere sorterritik kanpora geiago ez joateko!

*Alderdi ontan, euskaldun gutti. Eta bakan. Naparrak ere ez geiegi.*

*Zortzi urtetara dijoa onera etorri nintzela, mixiolari bezela. Len mariñela nintzan. Ontzitan ibiltzen nintzan, ara ta onera. guda ontzitan, kapellau bezela. Eta xahartuxe egin nintzanean, lurrera jo nun. Baño Madrillen ere, alperkeriaz aspertuta, berriz lantoki berrira etorri nintzan.*

*Zer dagiten emen?*

*HUMACAO-n bizi naiz, HUMACAO, nere ttikitan Iruñe bezelatsukoa da. Erri aundi bat. Errian ere lan egiten dut. Baiño, nere taldea bi baserri dira: Caserio Padre Ribera eta Patagonia. Baserri aundik. Bakoitzak 1.750 gizaki izanen ditu.*

*Zer moduzko kristau diran?*

*Fede gutti, moskor zenbait eta lapurrek ere badirela, diote. Eta "drogistik" ere bai.*

*Nola diteken ori?*

*Zuk ezpadakizu, nik ere ainbeste dakit. Ni egunez banabil beren tartean. Baiño, illuntzerakoan, laxter aldegiten dut andik!*

*Elizera joaten diran?*

*Ez, joan bear luken guzik. Baiño badijoaz batzuk, egunetik egueran, geiago. Ezkondu ere egiten dira batzuk. Bataiatu, geienak.*

*Lehendik ere, gende otza baitzen emen. Apez bear aundia. Erri asko, apez gabe egon omen dira, españarrak emendik aldegiten, berrogei urtetaraño, batzuk!*

*Garai ortan, iñun diren protestante oietatik sartu dira ugari, eta toki askotan nagusi dira.*

*Mesederik bai ote dagiten?*

*Eta egungoan, nik uste, asko dela. Urren arte bada!*

Migel Intxaurren, apezak. HUMACAO, Puerto Rico

Principe de Viana, 1967, uztaila, 2. orr.

Urrobi eta Errobi  
ameka ipuin eta ur garbi,  
Erro eta Iratin  
jendeen negarrak doazi.

Eskualdeko oihanetan  
kukua kantari  
Petiriberro landan  
mila sorgin eta lamin,  
gure lurraldeetan  
elurra du ari.

Gure denboretan  
iriak usten  
nekazariak joaten, lanari uzten  
gure denboretan euskera galtzen  
bizitza hiltzen.

Aiezkoa, Oroz eta Artzibar,  
Erroibar, Luzaide eta Auritz,  
gure lurraldeak oro  
behar zaituztet aunitz.

Urrobi eta Errobi  
ameka ipuin eta ur garbi,  
Erro eta Iratin  
jendeen negarrak doazi.

Orreagako leihoetan  
bela beltzak jostaketan,  
urzurika Ortzainzurietan  
ixiltasuna ibarretan.

Orreagaren magalean  
zenbait herri bizi,  
beti Orreagari so azi,  
behar lukete ezi.

Orreagan lañoak sartzen ari  
ez dezagun eman ihesari,  
Ibañeta lepotik emeki  
jaun iduzkia du ageri.

Jose A. Irigarai



## TXEKOSLOBAKIA

Egundanik, zoko hontan gai jeneralari buruz artikulo batzu argitaratzeko ahala eginen dugu. Ahal denez gero beraz, irakurle maitea, zurekin izanen nauzu hilabetero.

Garrantziko gauza bezala, eta guztiendako hainbeste irakaspen dakarkigulakotz, azaltzen dugu egun Txekoslobakiako gertaera.

Aunitz mintzo dire huni buruz; eta mota askotako ikus moldeen bitartez aztertzen da problema.

Lehenbiziko gauza bezala, derrakegu Rusia-n itzal-ona ondatzen ari dela, gertakizun hau dela kausa. Orai artio, Rusiako politiko-joerak halako ekar-arazteko indar berezi bat izan du, batzueendako naski; eta batez ere, sartaldeko Europako partido comunista deituendako, hauk itsuturik zebiltzaten eta dabiltza haren gibeletik. Eta, norberaren lurraldean egiten duten hainbeste inperialismokeri, hortan dago. Errealidadearen aldetik astundutako ikusmoldeak alegia.

Egungo egunean, *internazionalismo proletario* deitua, leku bakotxeko langillen mugimenduaren aurrerapena geldi-arazteko besterik ez da; benetako urrats demokratikoak eman ez ditzaten. Ametskeri bat, internazionalismo proletario delako hori, bainan xede garbikoa. Eskuz esku kapital nagusiarekin dabillen ametskeria...

Ara non, aspaldidanik bakarren batzueendako ezaun zena, nola den azaltzen argi eta garbi guztien aintzinean: Rusiaren inperialismoa.

Nahiz eta oldar ikaragarria izan ba da ere, txekoslobakoak, oro bat egon dire; eta bere buruari kaltegarria baino kaltegarriagoa dakioken estropiziorik ez dute sort-arazi. Noiz eta nola jo, ba dakite txekoslobakoek alegia...

Beste batzu berriz, gertakizun hau dela medio, komunismoakin, bai eta sozialismoakin ere, gauzak inharrosiz, deplauki dire sartzen. Hortaz dire baliatzen, zer-nahi gauza errateko; zentzurik gabekoak naski. Oroit-arazi beharko ote zaie, hola mintzo direneri, Txekoslobakian rusoen oldar eta zapaltzearen kontra altxatu abotsa, ez dela kanpoan dabillen talde bat edo besterena, bertako eta poderrean dagoen partido comunistarena baizik? Erran nahi bai da, mota aunitzeko komunistak (edo hobeki errateko sozialistak) ba direla. Batzu ondatzen ari direnak, eta demokraziaren landan, daudezin bezala beintzat, deusik egiten ahal ez dutenak: Rusiako ortodoxia deituaren jarraikileak, stalinismo egoeran sorturikakoak.

Ikusten dugunez, ez dute amerikanoek bakarrik inperialismokeririk egiten, leku guztietan ere leihoak atarira beira... eta besteen bizkarra zapaltzeko delarik are gehiago. Aski adi-biderik eta maltzur-jokareraik ditugu urrutira jo gabe...

Jose Angel Irigarai

Principe de Viana, 1968, azaroa-abendua, 2. orr.

## IRIGARAY JAUNAK IDAZTEN DIGU

PRINCIPE DE VIANA delako aldizkariaren Zuzendari IRUÑEAN

Zure 120 numeroan, nere "Unidad" delako itzen aipamena ikusi dut, "Lenengo uneko iritzia" izenburu pean. Oharpenezko lerro hauek urrengo PRINCIPE DE VIANA euskal aldizkarian agertzea, *legez* eskatzen dautzut, nere iritzea bestela izan zelako, eta erdaraz gaiñera. Nere baimenik gabe itzulikatu duzue euskaraz; hori ezta nere euskara. Bestalde, ingelesez, frantzesez, etc., arrotz textoak (eta are geyago gaztelaniaz) beti bere hartako erdaran ematen dituzte. Zergatik euskaraz bakarrik antusteria?

Otoi, beraz, erdaraz, ziran bezala ematea nere lerroak eskatzen dautsut; horietan, nik erraten **ere** nuen:

"... errege-izendapen hori baino urte aunitz lehenagotik, Euskaltzaindiak bere lanak (guti edo aski) bete izan dituela, Madrileko laguntzarik batere gabe...".

Espero dut, eta eskerrak aitzinetik, bestela erran gabe lerro horiek agertuko dituzula PRINCIPE DE VIANA'n, ni neure tokian gelditzeko, eskubide dudan bezala.

Zure adiskide, A. Irigaray

## RESPUESTAS DE URGENCIA DE ACADEMICOS Y PERSONALIDADES VASCAS

El doctor Angel Irigaray, académico de número, expresa así su opinión:

*-Este reconocimiento oficial de la Academia de la Lengua Vasca supone, sin duda, un logro importante que puede marcar una nueva etapa en la vida de nuestra Academia, etapa que será más benfíciosa supuesto que logre aunar criterios dispares sobre materias que estimo fundamentales. Aún no podemos dar una opinión sobre el alcance y ventajas, incluso económicas, que tendrá dicho acuerdo hasta conocer los términos exactos del mismo. En su redacción vemos que no se extiende a todo el territorio que abarca Euskaltzaindia. Por lo demás a ésta no le ha faltado el reconocido prestigio al margen de todo reconocimiento oficial, habiendo contado con el constante apoyo económico y moral de las cuatro Diputaciones. Ese prestigio se debe también a la labor personal y desinteresada de sus miembros que desde el tiempo de los Azkue, Urquijo, Campión, Echaide y demás se han entregado siempre al servicio y defensa de nuestro euskera asistidos por la adhesión unánime del país.*

## LENENGO UNEKO IRITZIA

Ona emen *Irigaray A.* jaun Euskaltzain naparraren iritzia, Donostia'ko, "Unidad" egunkarian biaramunean agertu zanez:

*"Euskaltzaindia legepean onartze onek, garrantzizko aurrerapena adierazten du, gure Elkarte onen bizian aldi berri bat zabaldu lezakena; are mesedegarriago izanen den aldia, baldin, nik oiñarrizkotzat dauzkadan alorretan ibiltzen diren uste diferentiak, elkartzea iritsiko ba'lu.*

*Gertaera orren ondorenak eta onurak dirala-ta, ez dezakegu iritzirik eman dagoneko, Dekretu orren itzak zeazki, jakin arte, beintzat; ez, eta etor daitekean diru-laguntzari buruz ere. Lege-erabakiaren itzetan ikusten dugunez, "ofizialki" onartze ori ez da iristen Euskaltzaindiak artzen dituen lurralde guzietara".*

Principe de Viana, 1976, abuztua, 3. orr.

## LESAKA-ko AYUNTAMENTUKO AGINDU BAT EUSKARAZ

Joan den mendeko COLERA gaitzaren izurritea, lau aldiz agertu zen Erresuma huntan; lehena 1833 urtetik 1835 urterainokoa; gero berriz, 1853-1865 eta 1885 urteetan piztu zen. Gure izkribu hunek ez zu egunaren ez eta urtearen ere markarik aipatzen, baina letraren tankeratik, azken urte hortakoa izanen dela uste dugu.

1833 urteko lehen elderia hura Madrilan agertu zelarik, pralleek urak pozoinatu zituztelako gezur sineskaitza edatu zen hiriburuan, eta aitzaki bihurri horren kariatara, hiltze eta eliza-erretzeak gertatu ziren, Historioak kondatzen duen bezala.

Gure izkribu hau, egunik dagoan bezala, itzez-itzez argitaratzen dugu, egungo ortografiara aldatua txoilik.

### "BANDUA"

Probinziya onetan izandu dire erriyak zeñetan COLERA agertu den; honen bistan Gobernadore jaunak guziyeri ordenatu du, altzakerik gabe, empeño aundiyakin, kunplirazteko ark lenago eman dittuen ordenak; eta erriya honetako sanidadeko juntak, alkate jaunarekin, guziyen onerako, kastiguen azpiyan agintzen du:

1<sup>a</sup> Ongi garbitzeko itxiak, eyak, komunak, fregaderak, estratak eta itxeko atariyak, azkenako bandua eman zen multaren azpiyan.

2<sup>a</sup> Idortzeko itxien barrenian diren zikinkariyak, naiz komunan, naiz eyetan, naiz erreketan; erriko-itxian izanen da botika bat, *desinfectante* deitzen zayona, eta emanen zayo debalde, biar duen guziyari.

3<sup>a</sup> Debekatzen du saltzia fruta jenero guziya, baita ere aurtengo tomatea eta piperrak, eta akontsejatzen da ez jateko berdura gordiña edo egosi gaberik.

4<sup>a</sup> Naiz edateko naiz garbitzeko, eta naiz janariyak egosteko, agintzen da itturriko ura, eta ez irriyukoa, zergatik hau den agitz peligosua.

5<sup>a</sup> Debekatzen da saltzia urdai freskua, ogiya ongi erre gabia, eta edari on ez tiren guziyek, eta enkargatzen da erriya honetako bezino guziyari, kejarik badin (balidin...) badute aragiyaz, beila emateko parte alkate jaunari.

6<sup>a</sup> Agintzen da kastiguan azpiyan, familia partikular guziyeri, eta partikularki ostalariyari, kanpotarrarik etortzen bada, bi orduen barrenian alkate jaunari parte emateko.

7<sup>a</sup> Debekatzen da arropak edo bertze edozer gauza garbitzia erriyan pasatzen diren uretan; bakarrik garbittu ditteke labaderuetan eta itturnuzugitik (sic) beti (beiti); hau kunplitzen ez tuena kastigatua izanenda (sic) bost pezetakin.

Azkeneko, jakin dezate (sic) Lesakarra guziyek, ordena okin (oken...) kunplimentutik akaso dependitzen duela, erriya honetan ez COLERA sartzia, edo naiz etorri ez ainbertze jende (yende) iltzia, ayuntamentuak, alkatiak eta sanidadeko juntak disponitturik daudez (sic) edozein sakrifiziyo egittera erriyen onen gatik, esperatzen dute erriyak ere korrespondittuko duela autoridadien deseyu okeri; eztela gauza gaitzarik, denak unittu eta laguntzen diren; biño balidin bada iñor ordena ok kunplitzen ez tuenarik (sic), jakin (yakin) dezala, eztela ez empeñorik ez konpasiyorik izanen; kastigatuko da legiaren indar guziyakin.

Bandua hau paratuko da Erriko-itxeko eta eskolako gorapietan.

Naiz euskera-joskera ezden garbientakoa, izkribu hunek euskalariendako badu intresik; bereziki **-a orgánica** deituarekin agertzen diran hitz horietan: = **Probinziya onetan = ogiya ongi erre gabia = Lesakarra guziyek**. Ongi artua denez -itturnuzugitik- itz hori, galdetzen dugu.

Zenbait itz gaizki emanak daudela iduri zaigu: **-okin (oken) - daudez - (dauden...)**. Kunplitzen **eztuenarik-eztuenik** - bear litzakela uste dut.

A. Irigaray

Principe de Viana, 1970, apirila, 3. orr.

## MITXELENAREN ITZALDIEN ONDOKO GOGOETAK

Joan den ilabeteko 25-30'en arteko egunetan, Donostiako Apezgaitegiko areto batean, euskera idatziaren batasunari buruz, Koldo Mitxelena izkuntzalariak bost mintzaldi googangarri eman zituen. Besteek zeetasun geiago emango dute, eta osorik ere argitaratuko dituztelakoan gaude. Baiki, azken aldi hontan gai horrerri buruz sortu diran asarrebide eta zitalkerien ematzeko, ongi etorriko dira.

Arrakesta handia izan zuten, naiz antolazaileek sar-saria goraxko ipini; traba horrengatik, batzuk gelditu ziran entzun gabe. Baiño areto handia bete zen; geienak andereño eta mutil gazteak izanik.

Batasunarekin zer ikusirik izan duten autoreak aipatu zituen lehenik, LEIZARRAGAtik has eta ARANA eta AZKUE-raiño; azken bi hauen lanak goratu zituen, beren alde oneeri geiago onhartuz, izan zituzten akatseri baiño. Ez oraiko idazle antuste batzuk bezala, dena gutiespen eta erdeinu bi jaun horiendako; eragille, lehena, eta lan handien osazale, bestea.

Soziologia eta Plitikaren aldetik, esa zuen, bururatu ditut nik nere esanak hemen eta ez bezala, bi bazterretako euskal kritikalarien okerrak zuzendu zituen, batasun-iritze zorrotzegiak, erdi aldera ekarri naiez.

Beharrezkoa dugu, segitu zuen Mitxelenak, euskera idatziaren batasuna, eskualde batekoek edo bestekoek euskeraz elkar aise adi dezaten, erderara jo gabe. Batasun hori bereziki ikastoletako eta Irakasteetako, baitaezpadakoa dugu, Literaturako baiño premiatsuago (Eta hontan euskalkiek oraiño ere, bere eginbearra badute).

Etzuen, lehenbizian aurrari zer izkera moetan irakatsi behar zaion aipatu, ez eta noiz batasunakoarekin hasi euskera bizirik ez dauden tokietan, hastetik batasunakoarekin aurrer hasiko den auzia ere, xuritu beharra dugu. Baina batasun hau, zion mintzalariak, ezta presaka egin behar, gelditu gabe bai, arian arian, baina denbora artuz, erregelak zuzen osatuta.

*Martin Ugaldek "Zeruko Argian" egin zion elkarizketan, Mitxelenak dio; "Iztegi (Arantzazukoa) hori ez da nerea bakarrik... bainan iztegi horren asieran esaten da, gure lan hau ezdala saio bat baizik eta zuzenketak egiteko gertu gaudela...". Batasunaren Kutxa delakoa aipatzean, zion, "Iztegia eztela bi lagunen artean egitekoa, baino, Euskaltzaindiko batzordearen babesean; funtsean onera ematen zuela egilleen lana, naiz zenbait gauzetan, ez gutxiagorik ere, ez ados egon".*

Iztegi hortarako, zion Mitxelenak, 25 ... edo itz bildu behar lirakela (Guk uste dugu, bi erdereen itzulpenak ere beharko dira, izkuntza guti finkatua dagoelako, eta erdi ikasirik euskerazale geienak; nai eta, itz zenbaiten ondotik, esaldia ere beharra dago, aditzaren edo itzaren jokabidea ere regimena jakiteko); baina osorik sartu baiño sailka obe litzakela (gure uste apala da); *d'après le sens*, esaten denez.

Ikastola eta ikaskintzarako iztegiñoa lehenbizi; gero Etxekoa, Dendetan ibiltzekoa, Bulegoan eta Lantegian erabiltzekoa ondotik; Baretan, Zineman eta foot-ballean erabiltzekoa gero, eta abar. Hala, zatika, emanez, errazago eskuratuko luzkete euskaltzaleek, eta aisago ikasiko; iztegi lodixka batek berriz, irakurle guttiago beti.

Ikastolarako iztegiñoan uste dugu oraingoz, itzik premiatsuenak txoilik, sartu edo itzulikatu behar lirakela, Botanika, Zoologia, Geografia edo Historio gaietakoak, adibidez; Matematika berriak eta Zientziako Espezialitateak baiño lehenago. GALES-herrian ere, zenbait gai galesez irakasten dtue eta besteak, iztegi kontuan eskas xamar daudenen gaiak, ingleseaz.

-H- auzi hortaz, zion Mitxelenak; interview hartan ere berdin: "*Batasuna ordea eztago horretan, ezta urrik eman ere. Askozaz ere geiago da batasuna; eta batasunenra bidean baditugu, pilaka, -H- kontu hori baiño larriagoak... Nai duenak errextu lezake bere idazbidea*

(-H- guttiago sartuz alegia) ...nik ezdut esaten guk egin duguna lege denik... Baina aurka daudenak ezdute beste ordeko bat erakusten".

Aipatu Martin UGALDEren elkarizketan Mitxelena dio; ...-H- letra erabili dutenen artean, gidari bat bezela eskeinia izan da (iztegia); ordurarte amaika baziran, behar baiño -h- geiago erabiltzen zituztenak eta laguntza bat bezela eskeinia izan zan... [Beraz, epe baten barrenean bederik, oraindik ortografia berria ikasi gabe, jator idazten dutenen izkribuak, funtsezko badira, onartu beharrak dirala aldizkarietan, iduri luke].

Epe hortan berean, eta geiagoan behar bada, ortografia berriaren sail bat ematea asieran, obe deritzagu, idazten errez ikasteko; fonetismoak, -a organikoa, deklinazionea eta bi bokalen arteko -h- hori, diptongoa austen denean txoilki, bai eta demostratiboen asieran; -hau-hori-hura, hor-hemen, etc. adibidez.

Gaiñerako -h- ak, lapurtar autore zahar zenbaiten izkribuetan [denak ezpaitaude ados] agertzen direnak berriz, geroagoko utzirik, idazleen ikas-nekeak arinduz.

-IZAN- verboaren edo aditzaren formeei buruz, berriz, Mitxelena jauna giputz aditzaren aldera ixuri zen. Bizkai-euskalkiko gazteak, lapurtarraren aldera direla, ematen du. Eztabaia gogor hau nolapait arintzeko, bi auxiliar delakoen formak onartzea edo zillegi uztea, ez ote litzake errezena? Denbora epe baten buruan, fite ikusiko litzake zein den gailen.

Berdin esan ginezake, idazteko tankera edo estiloari buruz; aipatu euskalki horiek urbil asko zeuden joan den mendeko idazleen izkribuetan; oraikoenetan baiño aunitzez geiago; hau bera aipatu zuen Mitxelena bere itzaldi batean Aguirre Asteasuko, Mendiburu, Lardizabal, Ubillos giputzak eta Haraneder-Harriet, Duhalde, Duvoisin, Arbelbide lapurtarrak, batasun alderago zeuden.

Aipatu *Kutxa* delako liburuan agertzen diran aditz-formak berriz, uste dugu asko gutxitu ditazkela, ikasleentzat bai eta idazleen erreztasunaren kariatara; txoilik forma usatuenak sartuz, edo autore zaharrek asko usatuak; besteak eskualdun hutsentzat utziz. Berdin hauentzat utzi behar lirakela nago, *iketako* eta *nokako* formak. Naiko lan dute euskaldun berriek, *zuketako* formeen konyugazione bakarrarekin.

Eta hau ezta gure ustea txoilik. Añibarrok hori bera gomendatzen du bere Gramatikan, orain 150 urte; eta orduan euskera sendo eta bizi zegoen, eta ez ahuldua, egun bezela. Añibarrok dio: ...*La con(ju)gación de verbos irregulares (sin)téticos o no compuestos, es más enérgica, elocuente, ayrosa.. que la de los regulares (perifrásicos). Con todo exorto, que el que se ha criado entre bascongados, no ha aprendido el idioma por uso, no se meta (a los menos en los principios) sino al estudio de verbos regulares (perifrásicos) (...) al tratamiento ZU...*

Tampoco es necesario el estudio de conjugaciones del trato (...)xo, familiar y menos cortés ... I-IC EU-EUC. (Anuario del Seminario, JULIO de URQUIJO- III-19 (..) Prólogo de Villasante).

-IZAN- aditzaren formetan ere etsenpluak edo itzulpenak, bi er..atan, beharrezkoak direla, ... osoa dugu, irakurleen artean, ezi..si franko gaudelako, eta gure ...kuntza ere, kasu askotan, gutxi ..katua dago oraindik.

Agian laister itzaldi horiek a...tara emanen dituzten, gure a...koen okerrak zuzentzeko, eta g... euskera maitearen onerako.

A. Irigaray

Principe de Viana, 1970, urria, 6. orr.

## "ARALAR'KO MIKEL SAINDUA, BIAR LANIK GABE GELDITUKO OTE?"

Mikel Goi-aingeruaren arat-onatak, deus esan ote dezaioke gaurko kristau sinismen argiko bati?

Esan nai da:

Mikel'en irudia jainkotzat jauretsi (adoratu) nahi ez duenarentzat, haren irudia jainko-alzunen berdineko jo nahi ez duenarentzat, ez ote dago beste biderik, beste kristau-irteerarik?

Azienden ernaritzeaz, eta ugaritzeaz LANDAKORIK ERE nahi lukeanendako; uzta mugonez eta osoki jasotzeaz KANPOKORIK ERE nahi lukeanendako, Mikel'ek, esatekorik bai al du?

Gizakiak, biar, Izadia (Naturaleza) menderatu baleza, gure Mikel saindua, lanik gabe gelditu beharra ote dugu?

Gezurrezko egitekoren batzu sortu beharko ote dizkio Turismoak, bere egungo joan-etorrien euskarri?

Gizaaurrerapenek, Mikel saindua baztertuko ote digute biar, aurrera eskatuko ez dizkioten MESEDEEKIN batera?

Baroja'ren novela bateko industri-gizonak, diona, gerta baledi?

Zerura so egitetik atertuko dela, baidasaio nekazariari, ola-gizonen gisasara, ur-giltzak eskumendean ezarriko dituen ordutik.

Baroja'ren industrialak, nekazariari: "Miracielos" dasaio, arrandiz beterik. Oin egoera estuan ikustekoa ote du bere burua, gure Mikel maiteak?

Beste alde, zenbeit teologoaren eraso, ez zaio batere mesedegarriago, Aralarkoari.

Aingerurik ez dela, bota ez digute ba, oraindik-orain!

Aizaro beltzek inguratu dute Aralar mendia.

Bai nai badu. Errealitate, ta sinbolu edo adierazpideak, lehenengo INDAR berean BAIDIRAUTE.

Eta, aundiagoan ere.

Ikustekoa da, esate baterako, argi-uren sinbolismuak irabazi duena gure kirstaudian.

Mikel Goi-aingeruak, besteak beste, sinbolu bezela ere irabaziko duena, denboraren buruan, ikusgarria izanen da.

Goi-aingeru den aldetik, bete behar dituenaz landa, Mikel'ek, sinbolu edo adierazpide bezela ere, aunitz du esatekorik. Jainkoaren ARDURA edo Providencia adierazten du, batik-bat. Jainko-Aitaren "esku-begidun" etan gaudela.

Zenbeit aingeru izenek berek, hori adierazten dute.

"Gabirel" izenak, Jainko-indarra du berekin "Rafael"ek, Jainkoak sendatzen du; "Mikel"ek: Nor Jainkoa aiña?

Ispiritu bizkorrok, gizonen alde ari duten jardun-bide edo ministerioaren adierazpide da, Mikel Goi-aingeruaren irudia bera.

Ispiritu Sainduak Mikel autatu du Euskal-Herrian ixuri nahi dituen doai eta grazi batzuen urbide.

"VENI CREATOR SPIRITUS" goratzarreaz, Aralar'koari ongi etorria ematea, bidezkoa da.

Ispiritu Sainduak, Lourdes'en, Lordako Andra Mari'ren bidez, banatzen dituen graziak, emen, Euskal-Herrian, Mikel Goi-aingeruaren urbidez, ixurtzen dituela esatea ausardi bada ere; inguruko zerbait esatea, oin zuzen-bidetik at ote legoke? "Mikel Aingerua baita, Euskal-Herriko Ispiritu Sainduak nahi duen besoa".

Eta Irudia, Ispirituak izkutuan ari dituen barne-eraginen sinbolu konkretua.

Torizkizue, Mikel'ek, bere visitakoan eragin dizkidan biotzondo batzu.



Premin Ixurko

Principe de Viana, 1972, uztaila-abuztua, 2. orr.

## ARTU-EMAN, ETA, DONNER ET RECEVOIR

Erre Doce, Erre Ocho, ta, holako gaurko zenbait oitura nabartxoei buruz idatzitako alegitxo batean, euskal-esaera bat, merezi ez bezela agertu nuen.

"EGUNGO ARTU-EMANAK, zen idaztitxo hartako esaera.

Euskal-esaera aberats hori, oso ezezkoan edo negatibu-eran emana zegon.

Esaera polit bezain aberatsari egin nion bidegabekeria, zuzendu naiean natorkizue.

Bijoa aurretik ohar bat.

Haurreko hartan eman nuen: "EGUNGO ARTU-EMANAK" esaeran, gauza anitz sartzan bide ziren. Akordion-formula bat zenuten hor.

Esaera hortan, sexual artu-eman ESTUAK ikusteko, SEXUAL itza erantsirik etortzea, nai ta naiezkoa zen. Eta, etorri ere, sentidurik ESTUENEAN.

Ez zetorren ordea.

Ez. Nere izkribuak, ez zuen estueneko sentidu hori, behar eta behar eskatzen.

Nere ustean eta gogoan ez benik-bein.

Neretzat, kontestoak esaeraren zabaldua mehartu ez baino, kontestoarena areagotzen (zabalagotzen) zuen esaerak.

Eta, "Erre Doce"ek Folklorea erakarri ez baino, Folkloreak erakarri zituen "Erre Doce"ak, gereziek, gereziak erakartzen dituzten bezela.

Ta, ZER ARRAIO!, euskal-esaera batek estueneko sentidua ote duen ala ez jakiteko, CIVILAK baino euskal-maisu oberik ez al dago Zubieta'n?

Aitzin-solas bezelakoaren hondotik, igaro nadin "ARTU-EMAN", euskal-esaerak berekin dituen aberastasunen erakusterat. Arin bederen.

Holandarren "LE NOUVEAU CATECHISME POUR ADULTES" delakoan (frantses itzulpena derabilt nik). "LA SEXUALITE " idazpurupean, 491 orrian, hau dator: "*Etre homme c'est toujours DONNER et RECEVOIR*". Gizon izatea, ater-gabeko "ARTU-EMANAK ekartzea da".

"*Artu-eman*", euskal-esaera hontan, zenbaterainoko aberastasunak gordetzen diren jakiteko, aipatutako holandar kateximako orri beratik aldatu, torizkizue muestra hauek: "*Giza-errealidade denak, adiskideekin solas egin, edo besteren bizia salbatzeko etatik asi, eta lana bakarrik egiterainoko errealidade denak, beti "ARTU-EMAN"-en bat dire*" (...est toujours, DONNER et RECEVOIR".

"Eta, giza-errealidade denak, beti, ARTU-EMANen bat direlako (DONNER et RECEVOIR) , ugaritasun eta biziaren iturri ere dire".

Orri berean, beerago, esaten da: "Horra: (Ezkontzan), gorputzek dituzten ARTU-EMANAK berak (DONNER et RECEVOIR PHYSIQUE), poz eta atsegin dire, bete-betekoak izan ere, nor-izan edo persona osoa dagoelako haietan sartua, barnenetik azalerainokoa sarturik gero!"

"Elkarren arteko ARTU-EMAN hau (ce DONNER et RECEVOIR), lur-aitorra da (lecond), lurrik-aitorrena gero!, giza-bizi berri bat sortzen baita" (Ezkontzako ARTU-EMANETAN).

Aski bedi esana, erakutsi edo especimen bezela.

Ohartu zakiote euskal-esaeraren aberastasunari.

Arlote itxurako esaera hori, gure mintzaera motza ustekoak bakarrik erabiltzen ote zueneko ustean bazeundeten, frantsesak ere, giza-biziaren aberastasunik zabalena adierazteko, itz-joku berbera derabillela. ikusi duzute.

Ta, Erre Doce, Erre Ocho, ta horrelakoak aipatu ziren lantxoan, "ARTU-EMAN" esaera, gorrotogarri bazetorren, gaurkoan, joritasun betean dator.

Ez baita gure EUSKERA, uste bezain sasi.

Premin Ixurko

Principe de Viana, 1972, maiatza, 8. orr.

## AXULAR: GURE CERVANTES

Apirilaren 23'ean, ospatu ohi da LIBURUAREN EGUNA.

Hain zuzen, 1616'eko Apirilaren 23'ean, Cervantes hil zelako.

Handi, oso handi da Cervantes. Halaz eta guztiz ere, gurean, Euskal-Herrian, beste Cervantes'ik ere bada: AXULAR, alegia. Horrengatik, guretzat, Apirilako "Liburuaren Eguna", printzipalki GERO liburuaren eguna da.

Gure Cervantes ere -Axular, esan nai dut- Apirilako ilebetean hil bait zen, 1644 urteko Apirilaren 8'ean, Saran. Hiri ontako Parrokiaren erretorgoa urte luzeetan eramanda gero.

Zer nolako erretore izan zen Axular, Bonaparteren testu hontatik igerriko diozu:

**"Pedro Axular, euskaldun iskribatzalletatik iztun ederrenari, ni, Luis Luziano Bonaparte euskerazaleak, au ipiñi nion:**

**Ez dago atsedunik,  
ez odei gabe egunik,  
zeruetan baizik. 1865".**

(Bonaparte Printzeak Sara'ko elizan Axularren omenetan harritik).

Hiztunik ederrena nor izandu den, badakizu orain: Axular. Bai eta ere, idazlerik garaiena, nor izan den: Axular.

Urdazubin jaio zen, 1556 urtean, Nafarroa Garaiean. Agerre eta Azpilkueta ziren haren deiturak.

Salamanca barrera ibilia zen, apez-istudiak egiten. (Duela berri, Mitxelena jaunaren alabak aurkitu bide du, Salamanca-ko Unibertsidade zaharreko paperetan, aipamen hau:

**"Pedro de Ajular, natural de Urdax, dioe. de Pamplona").**

Axularren biografia eta abar, jakin gogo baduzu, jo iturri erraz bezain aberatsera: ots, Aita Villasanteren "AXULAR" izeneko liburu mamitsura. Lehendik ez nekien deus guti ikatsi badit ere; guztiarekin, hizkuntza finkatzeko -fijatzeko, alegia- hain prosa ederreko liburuak, mesede besterik ez dit egin.

Goazen, orai, gure literaturako obrarik klasikoenera: gure "Don Quijote"-ra, "GERO" liburura.

"GERO" ez da nobela bat; aszetika liburu bat da; izpiritualidade liburu da. Haatik, zenbaki hontako beste leku batean ikus dezakezunez, umore mehe xoragarriz gatzatutako liburua duzu GERO. Aszetika liburuetan, gutitan aurkituko duzun gauza.

GEROk zer du xede? Zer gaitzat? Axularren beraren hitzekin erantzungo dizut, haren errespuesta emanen: "Egun batez, konpafiña on batean, euskaldunik baizen etzen lekhuana mengoela, ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa, etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko uzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak. Eta on zatekeiela, gauza hunetzaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat, egitea: eta hartan, gero dioenak bego dioela erakustea". ("Irakurtzailleari" ataletik).

Hona, beraz, GERO tituluaren isplikazioa.

GERO liburuak sor lezazkeen problema eta koropiloak argitu eta askatzeko -gaur egunean litekeen neurrian, jakina-, jo lehen aipatutako jakin iturrira: Villasanteren "Axular" liburua. Bertan, GERO'ren loretegi laburra ere badator.

Aita beronek prestatu zuen GERO'ren 5-garren edizioa; gaztelaniazko itzulpenez horniturikako edizio bakarra.

Villasante'ren edizio hau, "Espirituales Españoles" sortan dator, eta Barcelona-ko Juan Flors'en etxean atera zen. (Guzti hau dakartzut, erdal itzulpen duen edizio honen berri izan dezazun).

Beharriak gorriturazi behar lizkieken zertxobait esan gogo diet Iruina-ko ene eskola nabusiei. (Salamanca-ko Unibertsidadeko irakasle ZUMEL teologoari, ematen dio Axularrek "ene eskola nabusi" izena).

Ene eskola nabusiek, bada, Axularrik, aipatu ere ez zuten egin; ez da bazenik ere! "GERO" izenik, ez zitzaien behin ere jalki.

Denborarik ez galtzekotan, "Guía de Pecadores" eta irakurri behar ziren. "GERO"-rik, ez. Bestelako "ratio studiorum" gurea!

Aurre hortan, berriz, "La Verdad" asterokoak, Nafarroa-ko apez arteko elkarbakantzea dela eta, "Oro viejo" izenez, Aita Granada'ren "Guía de Pecadores" liburutik harturikako pasarte bazuk zekarzkin.

Buru, bihotzak -euskaldunak, alegia- elkarganatzeko, Granada-ko urre zaharra, Sara-koa baino indartsuagoa ote da? Euskaldun atekak, Granada-ko urreakin, Sara-koarekin baino errazago idekiko ahal?

"La Verdad"-ekoek ere, euskaldunei euskal urrea emateko, gaur-gero, garai balukete! Gaur batez ere. Hartaraz gero, erdal itzulpena ere eginik bait dago. "Tolle, lege!".

*Irukadakgatik, ez garela galtzekotan aterako, ikus dezaten; Mitxelena hizkuntzalariari, entzun bezaiote: "Del estilo no hay necesidad de parafrasear, una vez más, los innumerables elogios que se han hecho. Abundante y con una ligera propensión a la elocuencia, la expresión es siempre precisa y ceñida a destacar la fuerza del razonamiento. No hay en Axular huellas de barroquismo y sí, más bien, aunque con mayor sobriedad, una cierta semejanza con la manera de Fray Luis de Granada. Siempre se han celebrado, con razón sus admirables versines de textos latinos, tan vascas como exactas".*

(MITXELENA, L. Hist. de la Liter. Vasca).

Premin Ixurko

Principe de Viana, 1973, apirila, 3. orr.

## AXULAR: HUMORE-ZALE?

Gaurko klasiko batek, euskeraren klasikorik handiena aurkez dezan, Aita Villasantek Axular, alegia, Villasanteren "Axular" izeneko liburu ederreti, "Gero'ri darion umore puntta" ataletik, hau eskaintzen dizugu, "gure" Cervantes'en gorapenetan. (Ia atal oso).

"Osasun onaren seinalea omen da umorea. Izpiritu arrai eta ongi gatzatuaren mandatari eta albistaria.

Osasun onetako izpiritu baten jabe zen, dudarik gabe gure erretorea. Eta hala, umore fin, leun eta berezko baten isuri gozoa ezagun da aren liburuan.

Miresgarri ere bada hori, Gero'ren gaia jakinik. Gizonaren betiereko salbamendua. Aszetika eta Izpiritualidadea gaitza duten liburuek ez bait dute maiz umorearentzat toki handirik uzten".

Gero'n behintzat umore mehe baten ateraldiak ez dira falta.

Umore kolpe hoiek denak bana-banaka hemen aipatzerik ez dago. Azterketa luzeegia beharko litzake. Haatik, pasarte batzuk aipatuko ditut.

Gimnosofistek alferkeria hainbesteraino gorroto zuten, non afal aitzinean presuna gazteak deitzen bait zituzten, eguna zertan iragan zuten jakiteko, eta baldin frogatzen bazitzaien alferkeriarik "etzerauen afariak gaitzik egiten" (Ax.).

Axularren ustez, alferrek badute dohain aparteko bat: hiztun ederrak izatea. Eta hoiekin gertatzen dena umore finez utzi digu pintaturik. Segurki baino segurkiago egunoroko bizitze arruntetik hartutako puskak dira pintura hoiek. Alfer hoietako bat mintzo denean denak daude ahoa zabaldurik eta beharriak ernaturik beha. "Ordea gero azkenean hek eskale, eta zu emaille" (Ax. 27).

Inork jende alferrei prestatzen zienean, sententzia prestatzailearen kontra ematen omen zuten Lukanoek. "Baina, nik uste dut -dio Axularrek- ezen etzela halako sentenziaren emateko premiarik, bera baitago emana. Zeren ezpaitu halakoei prestatzaileak koberatzeko perilik" (Ax. 19).

Sagar bat jateagatik, gizon bat, are bere ondoko guztiekin, heriotzera kondenatzera, "badirudi iustizia berriarena" (Ax. 37).

Penitentzia zahartzeraino uzten duena, zeruratuko da beharbada baina purgatorioan luzaro egon beharko du. Peril du (dio Axularrek) "lehenbiziko urthean zamarririk edo arropaforraturik beharko ez tuen" (Ax. 124).

Hil baino lehen ondasunik utzi nahi ez dutenek, honako hau esaten omen dute: "eztut ohera gabe biluzi nahi" (Ax. 157).

Haserretasunak eta kolerak egunak laburtzen omen ditu. Presuna hirosak "ez ohi du begi orde anhitz hingatzen" (Ax. 187).

Eman dezagun haragizko bekatuan sartua ibili den bat. Bekatua utzi eta bertutea hartzera deliberatu du. Nola utziko du, ordea, bere amorantea: etsaitu gabe ala etsaituz? "Bada egiteko, bada zertan pentsa". "Zutzaz gaizki erraiten badu ere, paira ezazu, zeren zeure merezia duzu. Halako ezteietan, halako zopak" (Ax. 245).

Ejiptoko monasterio batean ba omen zen fraide gazte bat haragiak bortizki tentazen zuena. "Bero hutsez bethi zirakiena", dio Axularrek (Ax. 249).

Pertsona ederrak, gorputza bere eskuko eta ongi egina duena, ez du kampoko edergarrien beharrik. Itsusia, berriz, bere apaindura guztiekin ere, "etxean legoke ederkienik" (Ax. 331).

Tomas Mororen ateraldi jostagarri bat ere badakar. Neskato bat bere kopeta edertzeagatik nola penatzen zen ikusiz, hau esan omen zuen sandu hark: "Bidegabe eginen dio

Iainkoak neskato huni, baldin hunenbat pena eta traillaugatik ematen ezpadio ifernua" (Ax. 332).

Eta azkenik, ifernura ioaten direnagatik hara zer uste duen Axularrek, "gero baten benturan iarririk" (suelen ir allá sentados en la incertidumbre de un "después") joaiten direla (Ax. 50).

(Oharra: Villasante-ren kapitulu honatik jatsitako Axularri buruzko zenbakiek, Aita beronek prestatutako Gero-ren edizioarekin dute ikustekorik).

P.I.

Principe de Viana, 1973, apirila, 3. orr.

## EMAKUMEAK TA CAMUS'EN ESAERA BAT

Philippe Serre jaunak, Francia'ko ministru izanak, Amarren Europa'ri buruz, adierazi berri du, izkuntzen joan-etorri aundia.

Il nai ez duten herrientzat, izkuntzek duten garrantzi apartekoa, Albert Camus'en esaera batekin, adierazi du: "LA LANGUE FRANÇAISE, C'EST MA PATRIE...".

Guziek dakigu, Camus, Nobel saria jasotako gizonaren nortasuna.

Haren mugen eta eskastasunen berri ere, badugu.

Zer esan nai ote zuen, frantsesa, bere aberria zuela, zionean?

Osoro, ez dakit. Ez, eta, esaera hori, dagoen-dagoenean, onhartzekoa ote denz ere.

Bainan, ez naiz ez, esaerari zor zaion egariak ukatzeko asmotan.

Aitzitik, harekin goraki aitortuko dut, egiaren ehinean, "EUSKERA, NERE ABERRIA DA".

Ez al dago zuzen esana, izkeraz aldatzen den herriaz, ARIMAS ERE ALDATZEN DELA?

Aipamen aunitz nekarzke.

Nekagarri ez nakizuen, ordea, konkretoagoko zerbaiti eldu gogo diot.

Baten bati, iguingarri balitzaio ere.

Neskekin euskeraz egitea, egunetik egunera, zailago zaigu.

Zuk esaten duzuna, ulertu, oraindik bai; bainan, erantzun, nekez.

Biar, ez ta entenditu ere.

Pozak daude. Ez dire nai orduko, gaztela dutenen mailaratu.

Amek ere, ez dituzte negarrez. Ez, fede.

Amek, bete-betean "SEÑORA" izatera irixteko, erdera utsa erabiltzea falta zuten.

Gaixoak!

Alabek, bete dute utsune ikaragarri hori.

Ezerk ez zizkien alabak geiago apainduko, erdera BAKARRIK erabiltzeak baino!

Amen jokaera hontan, "frustracioneko conplejo" delakoak, aunitz du ikustekorik.

Zoazkie ama-alaberi. Esaiezue erdera erdi-ikasteakin, alde batetik irabazi dutena, bestetik, euskera zokoratzeakin bestetik, euskera 20 zokoratzeakin galdu egin dutela.

Irri zoro eginen dizuete.

Ezertako ez den zerbait egozteak, kalterik lekarkeala? Utikan zozokeriak!

Ez dute asko uste ez, irabazi baino galdu geiago egin dutela, euskera zokoratzearekin!

Itsas-ontzikoek, itotzeko zorian daudelarik, beren bizia gordetzeko, dituztenak itsasora jaurtitzea, nai ta naiezko dirudigu; bainan, arrixku hortarik kanpo direnak, bizitza osoko izerdiak itsasora botatzeari, erokeri galanta erizten diogu.

Itsasoa bare delarik, eme delarik, bizi osoan pilatutakoen galtzea, eroena dirudigu.

Ezaguerarik gabekoak ez bestek, erdera arteagatik, euskerarik ez luke galduko.

Oi, modaren indarra!

Gure gazteek, "LIBRO" bizi nai omen dute. Protestako kanta asko. Baina, modari makurtu ergel.

Modaren nagusitasuna, Jaunak!

Pio Xi gnak. negar egin zuela ezpageneki! Elizaren alde bizia emateko gertu zeuden erromatar andere aundiek, Elizako Arauen aurkako moderi, makurtu zitzaizkielako, negar egin ere!



Eva berriak: Jainkoen maila erdiesteko -betiko ametsa-, Euskera zokoratzea al da, gaur eskeintzen zaizuen, debekatutako sagar berria?

Gaurko sagar-jateak -Euskera bazterrerat jaurtitzeak, alegia-, lehenengoak ekarri ez zuen "JAINKO-BIURTZERIK", ekarriko ote?

Egia da, neska ergelen ondoan, gurbilak ere badirela. Noski! Krisailuekin batean, olioaren artean.

Ari dugun auziari, ebanjeliokoa egokituz, desagun, neska zugar aunitz bear dituela gure herriak.

Krisailuekin batean, ots, euskal-enda, euskal-deitura, euskal-eite, ta, abarrekin, olioaren artean, ots, Euskera, artean.

Horrelako asko izanen direlako uste betean, dugu Euskal-Herria.

Uste horrek xuri egingo ote?

Baiezkoan, San Paulo'ren itz gordin hura, ekarri bearrean da gure Herria, bere alaba ergelen buruak nolarebait xuritzeko: "Ta agindua autsi zutenean, atzipetua, Adam ez zan, emaztea baño.

Emakumea ala ere yareingo (salbatuko) da (AMATASUNAGATIK salbatuko ere), maitakuntzan ta gurentasunean erabidez ba'dirau" I TM 2, 14, 15. (Olabide'ren itzulpenetik).

Demadan, erderaz, testu bera: "Y no fue engañado Adán, sino la mujer, que, seducida cayó en falta. Pero se salvará por la maternidad, si permanece con modestia en la fe, el amor y la santidad". I Timoteo 2, 14-15. (Nuevo Testamento. Traducción de José María Valverde).

Hona, liburu berean datorren oharra, aldatutako txataleri buruz: "Eva, que significa "la que da vida", "la que es madre", recobró su inocencia gracias a que entre sus hijos se contaba Cristo Salvador. La mujer, en general, al ser madre, se libra, se puede librar, de MIRARSE A SI MISMA PENSANDO SOLO EN AGRADAR. No se trata, pues, aquí de la virginidad consagrada al agrado sólo de Dios".

Olabide'k, San Paulo'ren textoko "amatasunik", batere ez dekar. Horregatik parentesis artean, neronek itzuli dut. (Oharraren letra larria nerea da).

Gure Herriak, euskerarekiko, alaben ERGELKERIARENTZAT, amateak ekarriko dien, ekarri bear lieken *zugurtasunez* kanpoko, ohorezko zer beste irteerarik arkitu ote zezaken?

Bainan, euskerarekiko, euskal-amen pekatu berarendako, gure Herriak, ohorezko zer irteera arkitu ote lezake?

Alaben: "MIRARSE A SI MISMA", barkakizun da, adinaren ERGELKERIAGATIK: bainan, amentzat, alde hortako barkakizunik, bai al da?

Bistan da, euskera erabat zokoratu dutenengatik, diogula hau.

Euskera jaurtita, erderakin bakarrakin gelditu direnengatik.

Gurea, BIOTZEKOENA dugularik, beste izkuntzak ere jakitea, mesedegarri ez ezik, beharrezko ere zaigu.

Bainan, izkerak metaka ikasteko, gurea bartertzea, sasikumeena da.

Horrelako joka-bideak, EUSKERA-AMAREN aldetik, barkakizunik ezin ukan dezake. EZIN. EZIN.

Premin Ixurko

Principe de Viana, 1972, martxoa, 4. orr.

## ENE GURASOEI, MAITEZ

Agustin eta Josehepa, senar-emazteak ezkontzako urreetaiak ospatu dituzte aurtengo sanantonetan.

Duela berrogei eta hamar urte elkarganatu ziren Uitziko Elizan.

Urre-eztaiek, apez-eta bakar direnentzat berentzat ere, gauza bakan eta bitxi direlarik; bikote do binakakoentzat, are bakanago eta zailago izan behar. Gertakizuna ospatzekoa den ala ez, hemendik igerri!

Batez ere, senar-emazteok gordin direnean.

Ez diot Libango izaiak edo zedroak antzo, zaharzaroen garatzeko (loratzeko) eze daudenik, ez; aski gordinik direla, ordea, hori bai, badiot. "Ainbestean ere", amak liokeenez.

Beraz, zahar auen urre-eztaiek behar dute ukan, Uitziko erretore zenarenak ukan zuten arrakasta bera! Baita, Sor Katalina, Uitziko moja-etxeko buru zenarenak ukan zutena hainakoa ere!

Haatik, OROIPENetzat, erretor zenak aukeratu zuen salmu-bertso negarti honen ordez, "Dohakabea ni! neure erbestek (desdierruak) luzatzen baitu"; beste salmu-puska hau hautatu dut: "Poztu gaitezen goibeldu (nahigabetu) gaituzun egunen ordez ikusi ditugun gaitz-urteen ordez". (Orixe-ren "Salmutegia" liburutik; 89-gn. salmukoa).

Bertso honekin, urte pila ederra eskatzen dut; nahigabeek daramazkitenak zerbait direlarik!

(Goldaraz, erretore zenaren latinezko bertsoak, honela zion: "Heu mihi, quia incolatus meus prolongatus est, Ps. CXIX, 5". VULGATIA-tik jaso, alegia. Egungo vulgatak baino indar geiago baizuen izan garahi hartakoak. Eliza baitan ez ezen, herria baitan ere).

Nik arestian ekarritako bertsoak, zabaltze beharrik ez du; testuaren ekartze hutsak ene kolkoaren berri aski ematen duenez gero.

Iraganaldi gogorren lekuko bezala, ordea, amaren ezpainetatik maizegi jalkitako esaera au, altxatuko dut: "Aurrak: ezin sortua hobe, ezin jana baino".

Gaur, zoritxarrez, amaren esaeraren egia, ene gibelaren kaltetan dastaturik dut. Gu ase ezinik zenbiltzatenean, eskas ematen zitzaigun ogiaren ordez, esaera ematen zigunak; honen EGIA ezagutzen zuen!

Aldiaren buruan, zein eskuk atera ote du esaera hori, ene osineko ondarretik? Oi gauza arrigarri!

(Aitak, "akordamena" eta "akorda-belarrak" aipatuko zitukeen izkutuaren isplikaziotzat. Harentzat, beti ez bada, gehienetan, oroitzea zera baita: laharrak eta uzten duten ozken gogoratzea).

Iraganaldi beltzaren gainean, aldiaren beteko estalkia heda dezadan eta, berein ordu eder eska!

Orixe-ren aipamen bat. Baitakik jakin, Orixeren bizitzako zernahi gertakarik, gure ama pozez beteko duela. Nahi luke, eskolan batean ibiliak izanez gero!

"Nere zartzarora errukitan ugari", Bibliako bertso ondoren, hau dekar: "OTOITZA, OTOITZA, PAKEAREN AMA, NERE SENDA BIDE, INDARREN ITURRI!".

(Uitziko eskoletan ibilitako beste nork, idatz ote zezakeen bertso hoberik?).

**Nunc dimittis.** Orixek beretzat esan zuenaren bidez, emango dizuet "nunc dimittis" kantuaeren berri.

Honera aldatzera nohana, idatzirik zuen behin lako samigeletan gure sukaldean izan zenerako.

Lehendik ere ezaguna zaizuen Nikolas-en: "Jainkoaren Billa" liburutik, hartzen dut.

"Nunc dimittis", oraintxe, bai, pakean uzten nauzu, Jauna, esaten dute kristau askok bizitzaren azkenean, geienik opa zuten zerbait gertatzen zaienean. Oraintxe, bai, esaten dekan ere, nere amets aundietako liburu au ia-ia bukatu ikustean. Ara azkeneko mugarrria, ia-ia ikutzen dut.

Oñaze, zorabio ta nekeen artean egiña det, zuti bañon oiean geiago egonik. Une batean, bizitzez oso etsia egon nintzan. Gizonaren adiña bete det: irurogei ta amar urte **dies hominis septuaginta anni**. Bitartean, zenbat adiskidek eta lagunak eutsiazi diote nere biziari, bai otoitzekin, bai lurreko laguntzarekin. Eskerrik asko guziei, eta egin dezatela berriro otoitz, lenbailen zerura nadin".

Orixeren pasarteak, eder baiño ederragok, aski eskolatuizanen zaitue, **nunc dimittis** kantuz.

Zuen **nunc dimittis** kanturik ba ote den, eta izanik, nolakoa ote den-eta aztertzen. Ez naiz asiko. Ala ere, badut susmo, maitasunaren erpin eta punta bezala den ezke bat, elkarrentzat eginik ez ote duzuten. Zera esan gogo nuke: bizi-laguna bere aurrekoen bizi-lekua bakean joana dadinean; **nunc dimittis** kantua ematea pentsatua ez ote duzuten. Maitasunen maitasuna!

Guk, zuen aurrok, Salmutegiatic hautatutakoa opa dizuegu bihotzez; "Portu gaitezen goizeldu gaituzun egunen orde, ikusi ditugun gaitz-urteen orde".

Azkenik, eskerrik asko, ama, esne-bularrik jorienaz hazi eta, euskal-titirik oparoenaz ase-bete ginduzulako; baina, eskerrik asko batez ere, Bataioak irazeki zigun kristau-fedegarratxoari (galdatxoari), zereaz, babes ematetik atertu ez zeralako.

Gu, hamar garratxoon erdian (aitarekin hamar), garra madul zu; gu, su egur-xehe hauen ondoan, bago-enbor, bonbon su-garretan dirudizula!.

Premin Ixurko

Principe de Viana, 1973, martxoa, 3. orr.

## "EZ ETA EZ, SASI-ITZULTZALEEI"

(erdi-ikasiendako)

Editorial Auñamendi-k argitaratutako "EUSKALDUNAK POEMA ETA OLERKI GUZIAK" liburua, liburutegietan ikusten nuen bakoitzean, ahoa istu biurtzen zitzaidan.

Jakia, garestia izaki ezik! Alaz guztiz, "Obras Selectas", "Año Internacional del Libro" -zigilu edo label eta guzti- irakurtzearekin, guztietariko joritasunak eneganatzen nituela-eta, erosi nuen.

ORIXE-ren beraren itzulpena aldamenean nuen bitartean, "Euskaldunak" poema barrena, irrintzika nindoan. Eztai-etzaietan!

Oztopo txikiren bat gora-behera, pausoa moteleraztekorik ez zen an.

Ni bezalako erdi-ikasiarendako ere, testoko: "Iriondo'k naiago omen du etzauntza artako (kamainako) aiñarra", honela itzulirik zetorrelarik ere: "Sin embargo Iriondo dice que prefiere los brazos (sic) de aquella cabaña" -los BREZOS-en lekuan-, ez zen oztopo.

An nindoan, berriz esan, gailurrez-gailur, konta ahala baino edertasun geiago zentzu denez urrupatuz.

(Goratzarre bitarako, aritik saiestea zilegi bekit. Hori esku-ikusit berdin gabea, egin zeniguna, ORIXE, "EUSKALDUNAK" poemarekin!

Jainkoak berdin dezala. Betierean, bere Edertasun azken-gabeaz, zure emengo eder-artegatasun ase-ezina).

Poema arrigarria -inofenso pe-

"ESIA = LA CERCA", izenpurutako duen Orixe-ren olerki xumea.

"Eta ardi sarkoia indarka sorora mutur gaiztokoa, argune artetik sartzen da. Marraka artalde atzetik. Eskaiak bilduta nagusi morroiak mutxikari sorozten (sic) ta egiten arro! Ara atso sorgiña, alper berrilari! "Esi iten, esi iten"? Bai, bai, baten batek utsartietako mutxikari banakak garbitu ta etxean bonbon irazeki".

"Y la res entremetida, de perverso morro, penetra violentamente en el campo por la brecha de la cantera.

Por detrás empieza a balar el rebaño. Recogiendo las astillas, amo y criado atienden a los melocotones y sacuden a la intrusa (?). ¡Allí llega la vieja bruja, vana chismorrera!

"Haciendo seto, eh? "Si, si, alguien limpia los pocos melocotoneros de los huecos y hace fuego en casa con despilfarro".

(Ez dut ezer alda, ezer uki).

Lexicografo zaren aldetik, "eskaiak" orde, nola eman duzu: "astilla"? Azkuerenean, eskai itzak dituen sei adiera edo acepcionetatik, seigarrena autatu duzu. Lehenengoa: "seto vivo, material pade- iraulirik, sar naiz "Olerki Guziak" sailean.

1915-1922, eta 1930-1935 urtetan Orixe-k eioak, ditut orain begipean, baitipat.

Oi, itzultzailearen esku baldarra! Non dago gaurgero olerkariaren beraren itzulpena!

Ni bazalako erdi-ikasiarentzat, autoreagan ilun dauden pasarte denak edo geienak, ilunago daude itzultzaileagan.

Zertako da, originaleko ilunbeak, itzulpenenean, ilunago besterik ez, ematen dituen traduktorea!

"Año Internacional del Libro" delakoak, trebeagoko eskua eskatzen zuen, inondik ere.

Euskal-itztegi batean eskua sarturik diardun J.I. Goikoechea jauna bezalako Retaktoreak, handiagoko jakintza agertu behar luke.

Adibidetzat, 439 orrialdea artuko dut.

ra seto" zenuelarik, eta bostgarrena: "material en general", zuk seigarrena aukera. Eta, "Gaztelu" jauna: "mutxiai", noiz erabili ote da Uitzin-Uitzitik landa, Orixe-k aipa ote zezaken mutxikairik?-, "melocotones" eta "melocotoneros" bezala?

Mutxikai ez datorrela Azkuerean, egia da; haatik, Mugicaren saia ezkeroz, "mutxikaiAN" aurki zenezake, "Estaca" itzaren lehen adieran.

Urrena, "sacuden a la intrusa", interroganteaz emanik ere, nondik atera duzu?

Testoak, errata garbiz, "sorozten" dioen lekuan, zorrozten ezarri bai, eta, honela emanen nuke nik, negatibu-lanean nabilala egotz ez zaidazun: "Preparado el material de seto, dueño y criado ufanos hacen y afilan las estacas".

Bi itzulpenetan, ni bezalako kakalardoarena balitz onhartzekoa, ta zu bezalako Redactorearena arbuiaztekoa, nik zu bezala, lotsaren larratzari ozkan helduko nioke, aski trebetasunik gabe, istilu handiegitan sarturik neure burua ikusita.

Gero, poesi bereko "sorozten" hori, zertako artu "sorotzi" aditzat? Zertako da hor, zure "atienden a los melocotones" hori?

Azkenik, leku bereko, 19gn versoko "itazto" zer dan, ez dakit. Ez zuk ere, itzalean utzi duzunez gero.

Berriro, gai berara itzul gogo dut, adibide geiagoki. Haatik, ez dut atertuko gaurko berriketa hau, Orixe'ren "Lenengo Ortza" izeneko olerkiaz eman duzun itzulpenaz, bi galde-modu egin gabe: 1º "Perutxo" noiztik onera da "Pepito"ren berdineko; 2º "Amonatxo", "la madre"rena?

Titulo bereko lantxoan, eskaintzen nuen, adibide berriz azalduko nuela, Orixeren olerkiez, J.I. Goicoechea jaunak eman duen sasi-itzulpena.

Esaten nuen, 1935nerainokoak nituela aztergai, baitipat.

Orixeren lehen-aro edo zilar-aro dei genezakegunetik jasotakoak izan bitez lehenbiziko adibideak.

Goicoecheak ("Gaztelu"), "Ikaskiña" izenpurupean datorren "Ikazkin beltzak sakela zuri" esaera nafarra, honela ematen du erdaraz: "El carbonero negro, bolsillo vacio" (442 orrialdean).

Ez bide du irakurri, Orixe-k berak, esaera nafarraz, ematen duen azalpena. "Euskaldunak" poeman, ain zuzen, 194 orr., honela baidio:

"Urrena Beltza, Euskalerriko  
jakingai danen gordairu;  
buruan ipui ainbat ez, baiña  
sakelan ere bai diru.  
"Ikazkin beltzak sakela zuri"  
esana betetzen digu:  
aren andreak azi detzake  
izan dituen amairu".

Euskerazkoaren aldamenean, erderazko Orixeren itzulpenak, dakar: "negro es el carbonero, pero su bolsa es blanca". Ikazkinaren sakeleko dirua, zuria zelako segurki. "Estar sin blanca", litzake zure: bolsillo vacio hori: "Bestalde, sarrerako bi lehen bersoek, kontraposizioz, aski argi erakusten dute, ikazkinak, daramazkiten baino lepo gurixegoak eraman lezazketela, ain sakel urrikoak ez direnez gero. Hona bertsoak: "Ikazkin beltzak sakela zuri, / baiña lepoa ez legun lodi".

Itzultzailearen itzulkizun hau, kontradikzio bat da: "El negro carbonero tiene vació el bolsillo, pero su pescuezo no es liso ni grueso". Paremiologoek bezate azken itz.

Jarraitzen dut adibideetan. Laisterka gabiltza. Erdi-ikasiendako ari garenez gero. Ain zuzen, "Lasterkari zintzo bati" izen-burukora, igaro gaitezen, 467 orrialdera. "Garaituko

UALA usmatuta azpitik galdu induan...", honela biurtzen duzu: "arruntó que TE vencería y te perdió con alevosía". Que LE vencerías behar lukeela izan, dirudit.

468 orr., bigarren ahapaldiko testoa: "Bakartasunean MUN ori, ez al da garbigo garatzen izkanbillan baiño", erdaraz honela emana dago: "¿Y ese CERRO no descuella más limpio en la soledad que en el tumulto?".

Ene ustez, ordea, mun, cerro ez baino, "planta" behar luke izan. Testoinguru edo kontestoak, planta du eskatzen, cerro baino obeki. "Garatzen" aditza, obeki uztartzen baita plantarekin, cerro eta descuellarekin baino.

Orixe'ren urraroko olerkigintzara gatozen. Iraizean bezala ari naiz.

"GURE ZIZAK" izen-burukoan, lehen estrofan, marka guziak autsi direlako ustean nauzu. Okerrean ezpanabila. Alda dezadan originalekoa, lehen, itzulketa, urren.

Bihoa atzetik nere itzulpena.

482 orr. "Udalenaren parrak sortua  
Martxo'k eraman induna,  
gogora zadan bizi, izeneko  
Santu uan aren eguna.  
Esku-ekusiz ez nian eman  
-ez baitzegon usaiduna-  
Martxo-lorea: ba duk besterik  
par goxo bialtzen duna".

"Traiga yo a la memoria el día que lleva el nombre de aquel Santo, que trajo la sonrisa de la Primavera y se la llevó marzo. No me diste por regalo la primavera (lit. flor de marzo), pues no tenía aún perfume; tienes tú otra que envía dulce sonrisa".

La risa de la Primavera TE trajo; Marzo TE llevó. Quiero recordar vívidamente, el día de aquel Santo (San José) cuyo nombre llevabas. No te regalaré flores de Marzo, pues que no las había perfumadas; hay sin embargo otra cosa que envía dulce sonrisa. (Euskara apur bat dakienak, erabaki beza auzia).

Ene ustez, zure itzulketa hori, galimatías gaitza duzu.

Aski zizaz.

"Eguzkia jekitzen, etziten" izenekora pasa gaitezen aurretik, zear-bidez -in oblicuo, esaten zen gure eskoletan-, 528 orrialdeko zure biurketa bitxia, ezin ahaztuzkoa dut. Ain duzu anfibologiaz emana. Honela itzultzen duzu, Orixeren testo hau. "Atorkigu, Matxin il eta gu bion Aingeru Zaindari!": "Ven, Angel Custodio de los dos, luego que murió Martin!".

Gizona: Koma, Matxin-en ondoren ezar, eta ez ote legoke obeki hola: Vennos, Martín, tú, nuestro (de los dos) Angel Custodio desde que MORISTE?

Baitakizu nik baino obeki, gure Mikolas, Dunixi, eta Martin, sabelaldi bereko sabelkideak zirela; eta Martin, iru urte baino lehen, il zela.

Gatozen, azken, agindutako: "Eguzkia, jekitzen, etziten", olerki arrigarrira, 533 orrialdean, 5gn. estrofa, ez dirudi zuzen emana. Zure. "el horizonte del mar y de los montes ESTA cárdeno y rojo"; ezezkoarekin ez ote legoke zuzenago: Nada hay de cárdeno, ni de rojo, en el horizonte del mar y de los montes?

7gn. estrofan, Orixeren: "Begiak mindu gabe luzaro begira ustaiaren ertzetik eker eskuin bira, argi leun arekin sendatuko dira"; itultzen duzu: "Estando los ojos MIRANDO LARGAMENTE, girando a derecha e izquierda del disco (solar), curarán con aquella suave luz". Ez ote legoke zuzenago beste honela: Para no fatigar los ojos con excesiva mirada, girarlos, etc.?

11gn., Orixe-k, inola ere ezin eman lezake ontzat, zure: "la Reina Sol" delakoa: Rey Sol, behar da erdaraz. Gaztelaniaz, gure "Amandre Eguzkia", emea, femeninoa; Rey Sol baita; arra, masculinoa.

Gero, ahapaldi bereko: "Egunero jantzi bat eun berriz egiña, gaur askotan bezala ginga-margo ziña"; gaztelaniaz, oker emana daukazulako ustean naukazu. Diozun: "Todos los días el mismo atavío CIEN VECES renovado; hoy como muchas veces es grave el color CENITAL", ongi egoteko, cien veces-en lekuan, lienzo, tejido nuevo, behar lukeela esan, uste nezake, eta, grave el color cenital-en lekuan, exacto, fiel color-guinda.

Hamabigarrenaren ajea azaldu aitzinean, zilegi bekit, bi ondarreko estrofak, osorik emen aldatzea. Ain baitire xoragarri.

"Agur! (Eguzkiari) Zuk deramazu zerekin eguna.

Lurra gorputz antzera gelditzen illuna.

Argi bedi gogoa, zurekin laguna,

Ez gau, egun dedilla ni jasoko nauna"

"Geldi bedi nolana gorputza; gogoa

maitasun gorri miñez jantzirik bijoa.

Odei beltzen makarra obenen laiñoa,

len suntsi bedi! Zuzen Zuregana noa!

"La tierra, como el CUERPO, se queda oscura (triste). Claro (alegre) siempre el ESPIRITU, en tu compañía..." zure itzulpenak, ez bide du nabarmentzen, eguzkirik gabe, lurra GORPUTZ antzera gelditzen dela; ots, CADAVER bezala. Gorputz gelditu, hori dela esanen nuke nik. Horrela balitz, zure: "triste", "alegre", "cuerpo", "espíritu", oker leudeke. Edo gutienik, eskas. Azken estrofa, nere ikuskeran aldetik dagoela, dirudi. Hor ere, gorputza, cadaver da; eta gogoa, alma.

Esandako denak, nere irudipenak ote? Ez nuke uste, irudipen uts lirakeenik.

Francotirador baten lana geiago dirudiela nere lantxoak, besterik baino? Ez nik horrelakorik uste.

Sasi-itzultzaile zarela erakutsi izan banu, nere egitekoa beterik legoke.

Orixe itzultzen duena, beti behar badu ere "traditore" izan; "traduttore" den aldetik - traduttore zintzo, alegia-, izan dedila traditore; eta ez, trebetasun eta ofizio gabekoa den aldetik.

Bestalde, eskerrik asko, pasarte bat eta bi ere bai, errazago jasotzen, lagundu didazulako.

Premin Ixurko

Principe de Viana, 1972, azaroa-abendua, 6. orr.

## IPURDIZ EDO ZETORRENA

Inprentako sorginkeria batez, EZ ETA EZ SASI-ITZULTZAILEEI izenburu zuen lantxoan, deseginda atera zen, ondar zenbakian.

Okerren erremediatzeko, ez noakizue berri-berritik hura ematera. Ordainez, han-hemengo uts batzu nabarmendu ondoren, "Esia" izeneko olerkera bitartekoren bat, jorratu gogo nuke.

Goazen, lehenik, 568 orrialdera. (Jakina de ORIXEren: "EUSKALDUNAK POEMA eta OLERKI GUZIAK" bildumaz -Editorial Auñamendi-k argitaratuaz-, dela solas).

"UDA" titulukoan, 5gn., estrofan, hau dator originalekoaren bihurketa bezala: "*La yegua se resiste a venir a la era (...); nadie puede traerla bajo la SARTEN (a obediencia)*". Euskarazkoak, "*Iñork ezin dakar (beorra) ZARTAILLU azpira*", dio.

Azkuerean zartailu ez etortzea aski, gure itzultzaileak porrot egiteko.

Ze arraiotako da hor "SARTEN"?

GOIKOETXEA, egia biribila diozu, SARTEN -pera beorrik ekar- eraziko duenik ez dela, diozunean. Zartailu, sartén ez baino, látigo duzu. Oker ez banabila.

Ezin uste nuke, itzulpen hori, zeurea izan zenezakeenik! Bestek egina dela, errazago irents nezake.

"Gaztelu" jauna: zeure itzul-practicantearekin gertatu bide zaizu, behinola harako mediku hari practicantearekin gertatu omen zitzaiona.

Herri bateko midikua eri zen. Honetan, X-eneko emakumeari, erdi ordua datorkio.

Practicantearen uste betez, atetan jaiotzeko prest den aurra, IPURDIZ dator. De nalgas, alegia. Midikuak sinetsiz, ohatzetik, bolantearekin, igortzen dizu emakumea uriburura. Hemengo midikuek, IA EMAKUMEA ARA NORK BIDALIA DEN.

- Herrikoak bidali duela.

- Haiek ezetz.

- Besteak baietz.

Herrikoak guzti hauk jakin dituenean, practicantea behar duela hil!

Patxararik handiengan, uriburuan, sortu ez da ba, ipurdiz omen zetorrena!

Zere practicanteagaz -Moguelek esango lukeenez-, beste horrenbeste gertatu zaizu.

Itzulkizun zenbaitek, zeure eskuz baino besterenez eginago dirudi, behinik-behin.

570 orr., 7gn., estrofan, euskarazko hau. "*Etxaunak (sic) gurdika biltzen du egurra, oola (sic) bialtzeko neguen bildurra, etorko baitzaio atera elurra*"; honela itzulirik dator: "*El amo de la casa recoge leña a carretadas, para despachar TABLAS de miedo del invierno*".

OOLA hori, tablas ez baino, "Así" duzu. Euskarazko: Horrela. Ze demontre ari da hor zure "*despachar tablas*" delakoa? "*De nalgas*" zetorkion hori ere, zure practicanteari.

581 orr., euskarazko: "Goiz-Argi" izenpurua, "*Luz Manantial*" daukazu emana. "*Luz Matinal*" ez legoke "argiago"?

Nator finean, "Lenengo Ortza", "Laiariak", "Esia" izenekoetara 436, 437, 439 orrialdetara.

Joandeneke lantxoan egiten zen galderaz leku -Ia nohiz PEPITO, PERUTXOren berdineko izan den, alegia-, "Lenengo Ortza" titulukoan, pasarte bat baduzu oker emana. Ene ustez.

Euskarazkoa: "*Lên estalki ertzetik / Eskua atera nai, / Zure alde estaltzeko. / Egon bear nun zai. / Ezpaitzen erditikan / mingaiña bezala / ateratzen ziñuan / min gabe ziñala. / Gaixoak oi artean / maindira artzera du: / Ixo gixagaixoa / joango da pupu*"; honela biurtu



duzu: "Antes, al querer saca la mano por el borde de la colcha, debía estar yo atenta cerca de ti. Cuando no tenías aún dolores, sacabas la LENGUA por entre los labios. El pobre coge la sábana entre las encías &.

Ene ustez, euskarazko testua ongi badator, "la mano" behar du izan, Perutxo-k ateratzen zuena, minik gabe zenean. Inola ere ez, "la lengua".

Eskuen arteko jokabidean -lehengo eta oraingoan, alegia-, datza pasarteko politasuna.

"Laiariak" izenekoan, sarrerakoa: "I nabarretik, ni sotonditik, Jeiki, makur, arro, bota gora, bera, laia atera. Bat, bi, iru, lau gurea dek au", ez dirudi zuzen emana gaztelaniaz. (...) "alzar, inclinar, lanzar UFANO arriba y abajo, sacar la laya. Uno, dos, tres, cuatro, ESTO ES LO NUESTRO". Itzulkizunak, ez du "arro" verbo bezala. Arro, ordea, aditz bezala artu behar da hor: arrotu bezala. Remove bezala. Fineko: "esto es lo nuestro"-ren orde z "nuestro es, pudimos" edo, itzul nezake.

Esto es lo nuestro. ¿Qué es lo nuestro? Laiean ari, ala?

Olerki berean, bigarren estrofan, euskarazkoa honela datorrelarik: "Ondoan txakurra utzi-ta zoia austen, asten da garia eraiteko"; erdaraz, honela emana daukazu: "Dejando al lado al perro rompiendo el tepe, comienza la hora de la siembra".

Inoiz edo behin, zakur-bizkar gainean zoiak auste, ikusirik daukat eta eginik ere; haatik, zakurrik zoi austen, ez, egundaino ez du ikusi.

Zure itzulkizuneko: "comienza la hora de la siembra", ipurdiz etorritako besteren bat du zure practicanteak.

"Garia" dio testuak, garaia ez baino. Beraz, "Kupelatxo ardoduna"ren ondoan txakurra utzirik, GIZONA bide da asten zoia austen, garia eraiteko.

"Esia = La Cerca" izenekoan, lehen esanetaz leku -joandeko zenbakian-, "melocotones secos" eta, bil nitzake. Ez haatik mutxikaietan, zeure itzulkizunean baino. "Eurketa berria" -atso sorginarena, alegia-, "nuevo desaguisado" bihurtzen duzu.

Ene ustez, hor, desaguisado delakoa, zeurea da.

Neretzat, "Eurketa berria!", inédita manera de hacer leña edo behar luke izan. Ots, oianeko bago eta horrelakoetatik egin beharrean egurra, esietako mutxikaiekin egin, alazankoa.

Gogo baduzu, bakoizka, azter nitzake itzulkizun zenbait.

Premin Ixurko

Principe de Viana, 1973, urtarrila, 6. orr.

## ITUREN'GO AROTZAREN AHAPALDI (ESTROFA) BERRIA

**"Arotzak erran dio bere andreari:  
Begira zan ongi yoare multzo ori,  
Soñuan billatu-ta, denak zeuden ongi,  
Salatu ezpagindu koñatak, Joana-Mari".**

Ittun'go Barbenea etxeko seme Joshe Urroz Altxu jaunak, bere izeba Joshepa Urroz Oharriz'engandik jasotako ahapaldi hau eman izan ez balit, sekula ere, ez nuen bereiziko, Erramun-Joakin arotzak, bere zein emazteari zuzendu zion kantako: "*Ekarran santu ori*". Izan ere, ildako Joana-Mari Ezponda, lehenengo emazteari, 38 eguneko negarrez gero, Ilbeltzaren 19 gn., M<sup>a</sup> Joshepa Ayoroa, ezkongaiarekin, ezkondu bai zen bigarrenez, 1807 gn. Ahapaldiko Joana-Marik jarri nau bidean. Hau, donamariarra genuen. Ikutu leguneko emakumea ageri da kantan, eta, jainko-beldur, ohoragarriko.

1780 gn. jaio zen Joan-Tomas Sunbil eta Ezponda, Erramun-Joakiñ eta Joana-Mariren lehen semea, Ittun'en. Esan al dut, gure yoaregilearen deiturak, Sumbil Telletxea zirela? Eta, berdabio, Ittun'go etxean sortu zela 1755 gn. urtean?

Beste seme-alabak: Joan-Joshe, M<sup>a</sup> Mikela, M<sup>a</sup> Joakina-Joshepa, eta Joakina-Antonia. (Garaia artako izenik geienak, Joakin-Joakinak dituzue Ittun'en, eta, dobleak).

1791 gnetetik, Joana-Mari gaixoaren eriotz orduraino –1806-XI-10– Ittunen ez zen ezkontza hortako aurrik ikusi. Herritik kanpo zirelako?, ala bestela? Parrokiako *Matricula liburuak*, 1797 gneko bazkoz eginikoen artean ez dakar Sunbil-Ezponda sendia. Herrian egon izan balira, liburuan etorriko ziren nahi ta nahiez. Kristobal saindua yoare biurtzeak ekarritako nekeek uxaraziak ote ziren? Uts larri baino larriagotzat jotzen zen bazkorik egin gabe gelditzea.

Apezaren *Certifico* delakoak zion: "...*Y los de confesión con idéntica forma hicieron su DEVIDA OPERACION*".

Ezerk beartzen ez gaituen aldetik, "digresio" bat gora-beera, "*devida operación*" hori egiteko, gertu nairik, garizumako larunbat arratsean bere gelan otoitzean bildurik zegoen okulista istudianteari, adiskide andaluz aberatsak, bai eta bai irteteko eskatzen. *Ea, eri ote den?* Donostiar, Albisu jatorrak, ezetz. Bazkozkoa, eukaristia artzea dela adierazten zaiolarik, ortaz, *lehenengo jauna-artzea egin gabea augu!*, andaluzak. Ortzak erakusten zituen irri gaiztoz Albisu okulistik, orrelakorik, erantsiaz.

1797'ko Ittun'en, *lehenengo jaun-artzearekin naiko zutenik*, ez gero pentsa ere!

Gatozen arira, 1806gn., Joana-Mariren eriotz urtean, ain zuzen, Aurtitzko Berutena maisterretxean, bizi delarik Erramun-Joakinen sendia, *Matricula* liburuan, zintzo dator. Lehen geniona diogu berriro: *Ittun'en bizi izan balira, liburuan etorri bear zuten*.

Nun ote zebiltzan? Gero, kantako: "*Konfesa zaitte ongi erretorarekin*", bazko batean ez bazen, bestean egin beharrezko gauza zen (...*su devida operación*, delakoa). 1807 gn. lehen esan denez, M<sup>a</sup> Joshepa Ayoroa, neskatzarekin, ezkondu zen gure Erramun-Joakon. 51 urte edo zituelarik. Emazte berriak, 36 bat. Ez zuten semerik izan. 1833 gn., il zen M! Joshepa, ta, Erramun-Joakiñen ALARGUN bezela il ere, il-agiriak diagonez. Il aurrean, "Y DISPUSO

MANDA PIADOSA" egin ere. Ildakoaren borondateak zintzo bete zirala, garbi dio ertzak. Baizik ere, zer-nolako ziren, ez zaigu esaten.

Erramun-Joakiñen lehenengo emaztea, ezer agindu gabe joan zen. Amaren aldeko deitura xumeari zegokala: "Maria de Goñi del Sto. Hospital de Pamplona".

Erramun-Joakin nun eta nola il ote zen, ezin argitu ahal izan dut. Ez eta aginduren bat utzi ote zuen ere. Ituren'go herri-etxeke idazkari, Mikel Telletxea jaun jatorrari, eske hau egiten diogu: Iker ditzala udal-etxeke paperak, Erramun-Joakiñ'i buruz, ezer ba'dioten jakiteko. Barbeneko nagusi zahar Joshe-Mari jaunak, aditu omen, Erramun-Joakiñ'ek herri-etxeke, bost milla peztako bat utzi ziola beartsuen erremediatzeko.

Nor dugu, azkenik, Erramun-Joakin sekulako bezturik utzi zigun bertsolari bortitza?  
Oin ezten zorrotzaren jabea, bertakoa ote genuen, ala kanpokoa?

Eta, nolakoa ote, barnetik, gure zinzarrigile ausarta?

Fermin Ixurko, erretora

Principe de Viana, 1972, urtarrila, 6. orr.

## ITUREN'GO AROTZAREN JOAN-ETORRIAZ

Aintzina urrats, ala gibel urrats? Zuek ikusiko.

"Cuentas de fábrica" parrokiako liburuan, arkitzen den zerbait, dut jardun-bide.

Hona zer: *"Iten, ciento setenta y cinco r. pagados a Manuel Ferri? de Erreguerena maestro Cerrajero vecino de Santisteban por aseurado inmediatamente del rovo relacionado al numero quatro: [Iten dozientos once r. y catorce mrs. importe de las crismeras nuevas de plata que se hicieron a motivo de haber rovado las anteriores rompiendo la puerta principal de la Iglesia y la de la Sacristía consta de la licencia del tribunal de nueve de Agosto de ocheta y ocho (1788), &, &] dhas puertas principales y la de la Sacristia con varras de yerro de mucha resistencia introduciendolas en la pared, y otras maniobras que se consideraron precisas para evitar semejantes insultos, qe no permitió el abandono con que se allaron, tiempo para la obtención del permiso consta de recibo de veinte y uno de Sep. de mil stez. ocheta y ocho"*.

Erretorak erdera geiago ez bazekin, zer ote zekiten gainerakoek? Eta, guziarekin, erdaraz egin bear gargitasunak, gizona! Bearko zuten, bestalde; Eliz-Barrutiko apezpiku jauna, ILMO. Señor Don Esteban-Antonio Aguado y Roras zuten aldetik. Gisa hortara, erdaldun Aguado'k, ur-ardotuko zuen euskera, ta, Azkue, erretora euskaldunak, ur-ardotuko zuen erdera. Kito! Idazkera nahasiagorik!

Itz etena edo coma "con se allaron"en gibeletik ezarririk, ateen egoeragatik, konponketen baimena irixteko ere betarik gabe arkitu zirela, esan bide nai du. Zuentzat, ere? Ez duzute calembour makala hor.

Zazpigarren DEBE delakoan, erderarik ilunean, argin maisuari zer erreal eman zitzaizkion adierazten edo zaigu: "abriendo augeros... para la introducción de las barras de fierro y despues en su composiz".

Zori txarrez, 4gn, debe'an, lapurturiko "crismeras" ezik, ez zaigu aipatzen. Besterik ere eraman ez zutelako, ala sakramentu sailduen banatzeko, berriak erostea nai ta naiezko zitzaielako? Hau nik uste. Oliadurakin batio, eramanen zituzten zillarrezko ontzitzoak. Jendeen esa-mesak! Apez-jendearen espantuak!

Ez al dio "debe" delakoak, "para evitar semejantes INSULTOS?". Lapurretaren gogoramenak ondatu bide zion erretora jaunari, idaztankera guztia.

Ortaz, oliadura-ontziskak, Kulturako bereala bear zirelako aipatzen badizkigute, aitatzen ez den besterik ere eramanen zuten. (Oliadura-ontziskak eramaten dituenak - zillarrezkoak ziralarik ere-, eskumendean zen beste gauzarik ere, erranen zuen, segurki). Eramandakoen artean ote zegoen joalean biurturiko San Cristobal ere? Erramun-Joakin, ebasleen arteko zela, eta. San Cristobal ostutakoen artean zela, frogatu egin bear. Eta nik, holako frogantzarik nonbait. Susmoak, bai. Arrastoak, zai. Ustez, beinik-bein. Bainan, susmo utsakin ez dezadan inoren izen ona beztu. Egia da San Cristobal ostu zuela; egia ere da, 1897gn. urtean, aren sendiaren aztarnik ez dela ager. Bainan, hoiek denak ez ditut aski, auzia gizonki garbitzeko. Ezta urrik eman ere!



## DON JOSE TIRAPU APEZA, EUSKAL-ZALE BETE-BETEKOA

Joandeneko *Corpus-Christi* bezperan edo, ezagutu nuen Don *Jose Tirapu*. Gu eskolatzeko eman zuen gogo-jardunean.

"*Caritas Diocesana*" delakoaren artxapezpiku-ordezkarria zen.

Giza- seme atsegina barren-kanpo. Eta euskara biziki maite zuena. Min zuen *Don Jose*-k gurekin euskaraz ez egitea.

Haatik, honetan, bizitzako gora-beherei erru geiago egozten zien, bere buruaren zabarkeriari baino.

Euskara ikasterakoan aurkitutako oztopoei, zor zitzaizen izen gordinaren lekuan, "*bizitzako gora-beherak*" izena ematen zien. Pozik asko berrituko zuen berekiko. *Juan Antonio Irazusta*-k bere novelari ezarritako titulua: "*Bizia garratza da*". Caparroso-n eman zion asiera euskara ikasteari. "*Garoa*" novela eta iztegia beste maisugorik ez zuela.

Euskal-baratzan *Don Josek* egindakoen berri jakin nahi nuela-ta, haren arreba Angelita andrearengandik jaso nituen: "*Garoa*", esku-izkribu batzu eta Azkueren: "*Prontuario de la Lengua Vasca*".

Nik gehien irrika nuena, ordea, *Don Jose*ren liburutegitik itzuria zen: "*Santa Cruz Apaiza*", "*Orixe*"-rena (Eskerrik asko, *Angelita Tirapu*, senar eta alabei).

Ia noraino heldua zen euskara ikasten, jakin gogo nuen; orain badakit. "*Garoa*" novelari buruz utzitako esku-izkributik.

*Don Jose*renari, TITAN-lana, tantaiarena deritzat. Asi lehenengo orrialdekoetatik eta azken orrialdearainoko adiera edo significadu gehienak emanak daude. iraupen gaitza eskatzen duen lana, esku-izkribukoa! 3gn. orr., 308gn. orrialderainoko lana alazankoa!

Egia da, ez dituela adiera denak eman; egia ere da, emandako franko, oker edo emanik daudela. Alaz eta guztiz, izkribu horiek, titan bat dute eskatzen, zurea bezalako egoeran. Adibidez, "OIN"-en ordezt eman duzun: "PASO" -eta hori duzu itzultitako lehen itza-, ez da onartzekoa. *Garoa*-koa honela dator: "*Ura zan gizona, ura! Zazpi OIN ta erdi bai luze*" (3gn. orr.). Esaldi hori, Joanes artzai ezagunari buruz emana da, alegia.

*Paso* = "*longitud comprendida entre el talón del pie así adelantado y el talón del que queda atrás*" bada; gure Joanesek balituzke zazpi urrats t'erdi. Ipuinetako luzera gehiago dirudi horrek, besterik baino.

Eta guztiarekin, ez duzu ahalke izateko, ez; lehen adieran zaude, eta hutsetik abiatu zara euskara ikasten.

Profesionalek berek, inoiz artu izan dute *OIN* = *paso* bezala. Goikoetxeak, adibidez, "*Euskaldunak Poema eta Olerki Guziak*" itzulpenean, Orixeren hau: "*Ogeitamar eskas, beltzeran, lurkera / iru OIN laburrez nindabillan zuti*", honela dakar: "*Teniendo apenas treinta años, moreno, de color terroso, andaba de pie TRES CORTOS PASOS*". Eta urrengo estrofako asiera, honela dator, berriz: "*Tengo como dos y cinco pies larguitos*".

Badakuszu: lehenik, "*tres cortos pasos*"; urrenik, berriz, "*como dos y cinco pies larguitos*".

Baina, hor, besterik esan bide du Orixek. Zera, 30 urteko zelarik, osasun makalagatik, lurretik iru oin laburrez zutitzen zela: orain, zahartzaroan, osasun beteagatik, "*bi alako ta bost ditut luzetxoak*", LURRETIK.

Beraz, *Don Jose*, ez zarela ahalke, egin zenuenaz; "*Gaztelu*" bezalako profesional batek, lehen accesit eramandako liburu panparronean egin duena ikusirik.

Egia ere da, 1gn. kapitulutik jasota, honera aldatzera noan parrafoko "SUBURDI" itza = "MORILLO" adierarekin dakartzula. Su-burdin bezala.

Demadan, lehenik, *Garoako* pasartea; bihoa ondoren, ohartxo bat.

"*Ta azkenez, gizonaren jakituri ta al-izatearen erakutsirik aundienetakoa, SUBURDI beltza bere burni lerroan laisterka, txistuka, ta zarraparrean, arrotasunaren agerpena bezela ke-mataza lodi zikin bat kopeta-gañean arro-arro daramala*".

Haatik, *Don Jose*, ez zukeen vista makala behar, *Aizkorriko* bizkarretik, han behean, zelaian, "*morillo*" edo "*su-burdin*" bat ikusteko.

Erabateko logicarik falta zaionik zure itzulpenari esaten, ez, ez naiz ausartzen. izan ere, zure zazpi t'erdi "*paso*" luzeko gizonak, zerbait ikus zezaken-eta. *Agirre*-ren novelatik aldatuta, itzuli gabe, eman dudana; bekizue test baten pareko, adiskideak. "*Ke-mataza lodi zikin bat kopeta-gañean*" eta, SUBURDI-rekin uztar ditzazuen. Plipitaki edo adivinanza bezala.

Ni neroni bezalako amateurentzat ari naiz gero! Profesionalek susmo gaiztoetan sar ez daitezen!

"*Santa Cruz Apaiza*" liburutxoa, eskura ahal baneza, horrezaz eman duzun itzulpenaz, gogoz ari nindeke.

Berriz esan, *Don Jose*: bazterretan hamaika bada, hamabi ere baita, motzagorik. *Garoa* novela, ba-denik ere ez dakienik franko.

Esaidazue, adiskideek: *Caparroso*-n, euskara istudiatzen abiatzen den gizonak, EUSKAL-ZALE izena merezi ote duenez.

*Goian Bego*, giza-irudi bete-betekoa genduen *Don Jose Tirapu Ilundain*, apeza.

Premin Ixurko

Principe de Viana, 1973, otsaila, 8. orr.

## LARRAUNDAR PRESTU BATI, AGUR

Herritarrak inor handitzat jotzen duenetik, halakoaren jaiot-etxea, noraezean emanen dizu.

**Joan Goikoetxea**, apeza, Hualde etxeko semea zela esaten ene aita entzun nueneko, besterik gabe, Goikoetxea hori nolatsuko litekeen, banekien, jakin.

Lezetako Hualdeko semea.

Joan haurraren ezpainetan erlerik kokatu ote zenik, ez dakit. Aitari esaten ez diot entzun. Eta gure aita erletan ikasia da.

Bada, antzina, handitzat jaiotakorik, erle-aparik gabe ez bide gelditzen zen.

Goikoetxea jauna, Arbizuko Erretorgoa aspaldidanik zuena, Herioak eraman du joan ilebetea, 68 urtetan.

G.B.

Lezetako sema genuela esan da. Lezeta herrixkaz Nazaretez harako Natanaelek behinola zioena berbera, genesake; Lezetarik ezer onik irten ote diteke?

Zaude. Lezetatik hain hurbil den Orexa ere, -Orixe-ren Orexa, alegia-, zer da handitan?

Eta guztiarekin, Homero ilezkoarren QUIOS jaiot-herriari, batere ez dio zor. (Uitzi zokora utz gabe, jakina. Hau bait da Orixeren bigarren sort-lekua! Denboraren buruan, zernolako eztabaidak sortuko ez ote Uitzi-Orexa artean? Bi herrixkak, CUMAS eta bezalako eskualdeen pareko izatera helduko bait dire!).

Ohore, beraz, Lezetari! Ohore Joan Goikoetxea, apezaren Hualde jaiot-etxeari!

Euskaltzaletasunaz -Goikoetxearenaz, alegia- galde badezu, hau aski bedi: Nafarroako Diputazioak, apezak euskaraz mintz-erazteko ea zein bideri zerizkion onena galdetu BIDE zion; DIRUARENARI, erantzun BIDE zuen.

Giza-bihotza bazaguen horrela erantzun zuen nekazari-artzainen semeak!

Lezetarren begi-handi-beltzen diztirak, adimendu bizkorra salatzen zuen.

Orixez eta honen itzultzaileez izan genuen azken erausia. Lekunberrin.

Iruineko egunoriko hil-txartelak, Goikoetxearen euskaltzaletasunaz arrastorik ere ez zekarrenez gero, larraundarrak lezetarrari euskaraz azken agurra egitea, egoki zen eta bidezko.

Zure heriotzaren berriak eragin zidan zirrarakoa, berehalakoan itzaltzekoa ez dut.

Zuri buruz gertatzea nahi ez nukeen zerbait adierazteko, aspaldidanik ahaztuxe dirudien "De Imitatione Christi" liburutik hartuta, hau dakart: "Gizona egun ba, eta bihar ez. Begietarik itzali orduko, gogotik ere laster itzalia". (L. Leonen itzulpenetik).

Hainbeste maite zenuen Orixeren harako bertsu hura -"Ez gau, egun dedilla ni jasoko nauna"-, zuretzat bete dentz, ez dakit.

Haatik, Lizardi-Orixek gogokoen zutena, hots, Udazkenean Jainkoagan iratzartzea, zuretzat ezin bete ahal izan da.



Hona Lizardiren bertsu ilezkorra: "Ta udazken-atsarreko goiz batean esnatu nadi Yainkozko Betean".

Orixek honela itzuli zuen: "(Otoño) Y en una mañana de principios de Otoño, despierte yo en la plenitud divina".

Haatik, Orixeren: "de principios de otoño" hori, Lizardik berak honela zuzendu zuen: "comienzo de sementera".

Ekaina ere (Junio), uztaro da, azterketaro da. Behinolako azterketetan, bai apezgaietakoetan, eta bai apezetakoetan ere, mutila zinan. Lehen numeruak atera ohi zenituen.

Heriotze orduko azterketetan ere, numeru handia irabaz zenezan, Jainkoak nahi duela!

Premin Ixurko

Principe de Viana, 1973, uztaila-abuztua, 2. orr.

## LIZARDI'REN MUGARRIAK ETA ZENBEITZUENAK

Mutikoka!, "errax" idaztearena, bai auzi alfer-gogaitgarria!  
Zertxobait nik idaztea aski, Doneztebeko apeztegian "errax-zaillaz", eleta sortzeko.  
Herriarekin ogeita geiago urte eman ditutelako, besterik gabe, gure abade jaunok,  
euskerarik errezenaren jabe direlako uste zozooan dituzute.

"Errax", "Erraz", "Errex", "Errez", oi! zein lelo aspergarria!

Txirrita, Muxika (Gregorio), Jauregi, iru idazle oetan, e nor aukeratu behar zen mugarri bakartzat, Lizardi'ren denboretako (1933), beroenetako auzi bat zenuten.

Txirritaren mugarria, auta zuen Lizardi'k ipurdiperako. Edo, berdin dena,  
ERREZTASUNARENA.

Ez ordea, Txirritaren mugarriz kanpoko mugarri denak ukatuaz. Behar ainbat eserleku eskatuaz baizik.

Entzun haren itzak: "*Ni Txirrita zalea nazue, ta argatik lengoan nago. Ez det uste euskal-literaturaren auzia ain errez erabaki ditekenik (...). Nere iritzia izan da beti, ezin agindu ditekela mugarri oietako bakar bat ibiltari guzien deskantsu-arriztat*".

"*Ni, guziok ezagutzen nazue, errez purrukataua naiz, ta argatik Txirrita-arria daukat aukeratua. Igurtzian besteak baño leunduagoa da-ta, atsegiñago zait*".

"(...)*Ta nere galdera au da: bidearen erosoarentzat zer da oberena: mugarri bakarra egotea, edo yendeak eskatu-ala izatea?*"

"*Txirrika'renean yende geiagok eseri nai dula, ta arriak ez ditula artzen...*

*Beyondeiela. Mugari ura zabaldu, alki luze biurtu, era artara besteetara baño idazle geiagok idatzi, ta kito. Baña beste mugarri guziak ateratzea bidegabea litzake*".

"(...)*Ai! Ez nik bezela egingo ba lute: bertsotan naiz itz zelaiez, nik barrena yalkitzea, ta Bedaiorañoako guziak mara-mara yabetzea, guzia bat izaten baita!*"

"*Denak ez dira, orde, artarakoak. Berez bear du Billabonakoa. Ta gauzaez oeri, zer egin bear zaie? Ukatu egingo al diegu, beren erako mugarri lakartxo bat bederik bidertzean sartzea?*"

Honeraino, Lizardi'k. Bere denboko idazleei Lizardi'k ukatzen ez zienik, Ez beharko diguzute ukatu zuek egungoei; ots: mugarri lakartxoren bat bederik, bidertzean ezartzea.

Mugarri lakartxoren bat bederik, diot. "Errax" idaztea, ez baita guziena. Hortarako, berez behar Billabonakoa, Lizardi'k zionez.

Orratik (bizkitartean), ez dut uste Lizardi'k bere buruaz egia osorik dionik.

Barrena yalkitzea aski zuela bedaiorainoko guziak bere bertsoez eta itz lauz mara-mara jabetzeko? Ez horrelakorik nik uste, zenbat eta Lizardi zen.

"*Biotz-Begietan*", Lizardi'ren poema aundiaren ERREZTASUNAZ, bedaiotarrei ez baino, Doneztebeko apeztegiakoei galdetzea otu (okurritu) zait.

"*Biotz-Begietan*", "erraxa" egin al zaizue? Bai? Zorionak!

Poema hori irakurtzean, "ORIXE"-ren erdal-itzulpenik ez dudala galdu aldamenetik ez dizuet izkutatuko nik.

"*Biotz-Begietan*", euskal-poemarik gorengoenez, egin nezaizkizueke galde multzo batzuek, Lizardi'ren "*Erraxtasunari*" buruz; Ixilik nagon, ordea. Eta, naiten zuhur.

Uste ez bezelako erantzunen bat jaso beharra ere, inoiz ikusi den gauza da-ta.

Gauza bi, gogo emanarazi nahi nituen bakarrik: Bata, erreztasun kontua, ez dela dirudien bezain "erraxa"; bigarrena, berriz, Billabonakoa ez denari, bere erako mugarri lakarra bidertzean ezartzen, utzi behar zaiola.

Nik nere aldetik, gogorik oberenez eseriko nituzke nere ipur-mami eskasak, zuek, zeren erraxtasunarekin, ipiniko zenizkiguten mugarri legunetan.

Nirea bezelako ipur-mami beratx, doi-doiari, beselako atseginezkoa litzakioke zuen mugariaren igurtzi leguna!

Galtzak berek ere, mesede ederrik ba'luteke! Gaur eguneon, apez-jendeak, galtzetan eralgi behar duena, ez uste izan gero, txantxetan artzeko kontua denik!: "*Ez litzake ez, nere gaurko jardunaren fruiturik eskasena, Lizardi'ren "ERREZTASUNA" ikastea.*

Lizardi'renak (erreztasuna, alegia), gure "ERRAXTASUNATIK" begiratuko ginduzke. (P.D.) DORRAUKO apez jauna: barka zaidazu, zure "*arrazoiaren*" aurka, erabili nuen nere "*erraxkeria*", lojikaren aldekoa zeran aldetik.

Batez ere, Baroja'ren gordinkeria, "*erraxagi*" ekarri nuen.

"*Suaviter in modo*", ahaztu nuen.

Premin Ixurko

Principe de Viana, 1972, ekaina, 8. orr.

## "MENDAUR-PETIK, DORRAUKO APEZARI, ITZÑO BI"

"...Eta zer, sari geyago al du zerurako eta Jaunaren aurrean euskeraz erantzutea elizan, eta nun nai ere. "Aintza Zuri, Jauna" ala erantzuteak erderaz "Gloria a Ti, Señor"?, edo erantzuteak "Bedeinkatua, Zu Jauna, orain eta beti" ala "Bendito seas por siempre, Señor"?".

Adiskidea, berariz ere, ezin ekarriko zenuen zure "arrazoya" frogatzeko, frogantza makurragorik. Iguingarriagorik!

"Erantzun idekia"tik, goian, aldatutakoak, artzai baten ahoan, birao geiago dirudi, "arrazoya"ren azalpen baino.

Otoitzak jaso bear dituenaren aldetik, arrazoirik ez dela, bat da. Jainkoak izkuntza guziak baitakizki! Bai-ta monjen (seroren) latiña ere. Baina, otoitz egin bear dutenen aldetik, "Gloria a TI, Señor" eta "Aintza Zuri, Jauna", bat eta berdin direla, ez, eta, ez. Inola ere! Titiarekin batera amarengandik arturiko izkera, ta, nekearen nekez, eskolan ikasitakoa, jainkoarekiko artu-emanetan, berdin direla esatea, psicologiaren lege denak ukatzea da.

Zure "boutade" horri, Valladolid'ko speaker'i, Barojak emaniko erantzuna, eman bear leikio: "...Es una necedad para un arriero de la Mancha o para un vendedor de botijos de la sierra de Cazorla".

Gure herriak, Euskera, bere biotz-ondo, bere barne-muinaren urbide bakarra du. Izkera arrotzak, lan-tresna bat geienez. Ez bide irakurri duzu, Irigaray, miriku jaunak, bere liburuxkan dion hura: "...Además, aquí en el país vasco, casi todo el mundo habla castellano, pero hay personas que no saben castellano y hay también quienes hablan las dos lenguas, la castellana y el vascuence.

Pero en esta últimas, es muy corriente que su lengua, es decir, la en que se han educado desde niños, sea el vascuence y con él piensan.

Sucede, como a mí recientemente, que hablando al enfermo en castellano apenas se conseguía signo alguno de reacción: hablándole en vascuence conseguí que intentara decir algún monosílabo de afirmación, de inteligencia, acompañado de alguna sonrisa y dirigiendo una mirada en señal de satisfacción..."

Halako indarraren sortarazle bakarra, euskera duzu. Egia horren lekukoek, ugaritu litezke.

Bestalde, ez dizkizut aipatuko nik baino obeki ezagutzen dituzun Lingua Vernacula delakoaren gainean eraturako Eliz-legeak. Baina, gu lotsarazteko, bai aldatuaren Maisu-ikastaroan, irakasle bearrak, istudiatzen duten zerbait: "...*Seguramente, el carácter inefable del sentimiento religioso, demanda para ser comprendido y expresado, LA LENGUA MAS INTIMA*". Hori, beste izkerarik ere badutelarik! Ezean, "la más íntima" ez ezik, "única" ere lukete.

Berdanette Suoubirou nextari, frantsesez ez zekienari, lordako patoisez beste, mintzatu ahal zitzaiokeen Andra Mari? Ta prantsesa jakinik ere, artan egitea, naita-naiezko, al zen?

Aipamen ezin utzizko ere, ba dizut. Liburu ezagun batean, Danielou, kardinal jaunak, Jainkoaren aintza ta aberastasuna adierazteko, izkuntza guzien bearra dagoela, dio. Izkuntza bakoitza, besteek ornituenek ere, ez duten margoren baten jabe delako.

Ala, mundu osoan, deus bereiziarik ez duen bakarra, Euskera ote dugu?

Zurean zenizkionakin, Euskera-amaren azkazi dena galdu ez bada, lantxo honen nai ta naiezkoa -forzosidad!-, ikusiko duzulako ustean, daukazu esanera.

Premin Ixurko

Principe de Viana, 1972, otsaila, 6. orr.

## "PEDEGREE EDO EJECUTORIA"

Inor ez nuke liluerazi nahi, ez dakidan ingeles hizkerarekin.

Utikan horrelakorik! Neronek garbi aitortuko dut -Joan Bataiaria eredu dudala-, inoiz english dictionary eskuartean izan badut ere, ingeles tutik ere ez dakidala.

D.I. Price-k, "*Diario de Navarra*" egunerokoan, argitaratutako artikulu bat izan ezik, A. Collins Dictionary delakoa, ez nuen erosi izango ere.

Jo Collins-era eta "Pedigre"rik ez han. Geroxeago haatik, aurki dut "PEDIGREE". Collins-eneko erantzuna zuri eman baino lehen, ordea, Price-k "Diario"-an zekarrena beharko dut ezarri hemen. Hau zekarren: (Londres). "*Las lenguas son el "pdigre" de las naciones*". dijo el inglés, Dr. Samuel Johnson. Los galeses que hablan galés le darían la razón y añadirían además que la lengua "es la única cuestión política que merece la atención de un galés en el momento actual". Orain zaude Collins-enekoa jakiteko sasoian.

"*Pedigree (pedigri) = genealogia linaje, ejecutoria*". Beraz, Dr. Samuel Johnson-ena, euskara, honela edo behar luke izan: *Herri baten ejecutoria edo etorki-agiriak, bere hizkuntzan daude*.

Gales-hizkuntzarekiko, galestar zenbaitek duen jokabidea, euskararekiko, euskaldun anitzek duenaren antzik beteenekoa delarik, Mitxelena-renetik aldaturik -"*Hizkuntzak Gales-en*", tituludunetik-, torizkizu esaldi zenbait. Ispilutzat. Iratzargaritzat. Ziztagarritzat.

**"Gizarteko harremani begiraten badiegu, hauxe ikusiko dugu berehala: goragoko mailan dagoela ingelesa, ezin esan ahala goragokoan ordea. Galestarrak, batez beste, harro mintzaten dira ingelesez, beren hizkuntzaz maiz lotsatzen direlako edo. Ingelesez mintzatuiko zaizkio ez ezagun bati. Nahiz trenean nahiz estazioetan nahiz beste edozein jendarteko lekutan, horrelako baten aurrean galesez mintzatzeko, nork bere burua zuritu behar izaten du aurrenik, barka-eske. Galesez ari badira bi lagun, nahikoa izaten da hirugarren batek "hizkuntza aspergarri hori" uzteko eskatzea lehenbiziko biek amor emateko. Ingelesera jotzen dute berehala hauzo-batzarretan batzarkide bat bakarria erdalduna bada. Ez litzake ezinezko gauza izango, nere ustez, arrotz bat Gales-en luzaroan bizitzea ingelesaz beste hizkuntzarik badela sumaitu baino lehen".**

Irakurle: *Ispilu galestarren, ez ahal dakuzu zeure burua? Ezetz? Lauso ote nabil ni? Zurea bezalako-bezalako aurpegiren bat ez ahal dut bada erranutua ikusi, ispilu galestarrean? Egia da bai, aurpegi bakarrekorik nekez aurki diatekeenik mundu honetan.*

Eginen nuke, Mitxelenak dakarrenean, galestar zenbaitek gales hizkuntzarekiko erakusten duen jokaera; eta, euskararekiko, zuk erakusten duzuna, jokaera bixkiak direla. Baita bixki-vitelinoak ere.

Gure "dobleak" dirudite. Giro ber-berak sortutakoak.

Esan bestela. Niri, eliz-gizon honi, zor zaidan mailan egitez gero, gaztelaniara jo beharra dagoela iruditzen zaizu. Telefonoari berari -oi telefono erdalduna-, erdara zor zaiola deritzazu. Bai eta ez ezagun edozeini. "*Plancha*"-ren bat ere eramatea inoiz gertatzen den gauza izaki, eta geure burua barregarri ikusi baino, geure hizkuntza ukatzea nahiago.

Jokaera hori, herri xumearena ez ezik, goragoko mailakoena ere bada.

Joan naiz haurtengo udan Saraitzu-Erronkarin barrena. Otsagiko dena-aurre batean, turismo artikuluak ikuski, eta sar gara galdetzen. Bide-lagunari, agertu diot euskaraz galdegiteko azkura. Aurrerabide handirik jaso ez dudana arren, euskaraz zuzentzen natzaio dendakoari.

Euskaraz du erantzuna gizaki prestuak. Euskaltzalea izaki gainera. Euskara ilurren Otsagin ikusteak, biziro sumintzen duen giza-eredua izaki gure dendaria.

Geroxeago, ikasten dugu besterengandik, topo egin dugun otsagiarra, euskararen "forofo" bat dela. Pensez donc! Txirla-arri bat!

"*Planhca*"-en beldur, zenbat bider ukatzen ote diogu elkarri, elkarri zor diogun euskal-hitza!

Aditu: "Plancha"-en beldur direnentzat, ez ote liteke asma sinboluren bat edo, solapan eramateko? Kristauek, elkar ezagutzeko arean dibujatzen zuten arrainaraino heldu gabe, bederen, zantzuren bat, seinalaren batez ote liteke asma?

"*Año Internacional del Libro*"-k bere ezaugarria ba duen bezala; "Año Internacional de la Lengua Vernácula"-k, ez ote lezake berdineko zerbait sortu?

"Diario de Navarra"ko Pdegre-k, urruti xamar eraman gaitu. Burutzeko, nexkek irakurtzen dituzten aldizkari edo revistei, gogoeta bat bidal nahi diet, beuren orrialderen batean argitara dezatentzat, marrazki eta guzti.

TUTULU-barka-tituluzaleen gogara tajututako gogoeta hauxe. Duque de tal tituluak-eta, hainbeste kilikatzen zaituenez gero, geure PEDIGREE edo ejecutoria den euskarak behar luke izan gailenbiderik garaiena, titulurik istimagarriena.

Gure Jaiotza, arrotzen Noel-zuhaitzarekin ain anaiki uztartzen ikasi dugunok, ez genduke ikasi behar etxeko euskara kanpoko erdarekin konpontzen, baina etxekoa beti etxekoa dugula eta arrotzak arrotz?

1973-eko Urtarrila, *Champan* goporra jasotzen dut -iruditan-, ala izan dedintzat!

Premin Ixurko

Principe de Viana, 1973, urtarrila, 8. orr.

## PRESTUTASUNA ETA MILLON DE VASCOS

Ehun t'erdi bat urteren buruan, J.P. Darrigol, Bayonako Apezgaitegiko Erretoraren barne-kezkak, azpikoz gora artuko nituke nik.

Aita Villasante-k, "*La Declinación del vasco literario común*", liburutxoan, hau dakar, iraztean bezala: "*Por cierto, que el autor termina pidiendo excusas de que este objeto extraño (análisis penetrante y certero de la lengua vasca) haya ocupado su mente con algún detrimento de su verdadero deber y pide que Dios no le tome en cuenta el tiempo invertido en ello y que debía haber empleado en llorar sus faltas, extender el reino de Dios, etc.*".

Aita Darrigol-i, zerk esanarazten dizkio itz itun horiek? Zerk? "*Disertation critique et apologetique sur la langue basque*" liburua idazten emandako orduak, egiazko eginkizunei lapurtutakoak baizirudizkion!

Zazpiren bat urte latíña ikasten ematea, ez; ez zituen berdin asaldatzen.

Euskara ikasteko denbora bakarrik jotzen zen gauza kezkagarri.

Haatik, Darrigol jaunak, entzun izan balu, Euskal herriko apezpiku batek, duela berri, euskaraz egin duen predikua, euskara lantzen emandao denbora, aberaskiro enplegatutzat joko zuen. Ziur baino ziurrago.

Ederki egin du Aita Villasante-k. Darrigol-en liburuaren berriakin batio, autorearen kezken berri ere ematea. Jakingarritzat. Adibidetzat.

Ehun t'erdi urteren buruan, beraz, kontzientzia, inorekin baldin badago, euskara ongi ikasteko behar ainbat denbora eta neke artzen duenarekin dagoela, esan behar, eta ez besterekin.

Kontesto honetan, zer iritzi genezaiekegu, "EUSKALDUNAK", ORIXE-ren poema nagusiaren argitaratzaileen honako itzei: "*Esta maravillosa traducción castellana (Orixerena berarena) servirá para que el millón de vascos que no conocen el euskera puedan penetrar en la interioridad de un mundo euskaldun que es el propiamente nuestro*".

Benetan uste ote dute hori? "*Penetrar en la INTERIORIDAD de un mundo EUSKALDUN*", euskararen laguntzarik gabe? Ditekeena ahal da?

Izkuntz-giltzik gabe, osoki, inongo herriko barne-muinik atzematerik, ez zegoela, zirudidan.

Uste nuen ere, herri-arimaren giarrrik ukitzerik, ez zegoela, mintzaira-giltza jokatu ezik.

"*Millón de vascos*" delakoari, ez ote zaio gezur-sarrera bat eskaintzen "*maravillosa traducción castellana*" horrekin: benetazko euskal-arima ezagutzeko, euskara, bide bakarra delarik?

Ate aunditik sar ditezela, odolak eta eginbideak, era berean, ala eskatzen dutenez gero. Euskararenetik, alegia.

Hori dela bidezkoena, ederki aditzera ematen dio Aita Mokoroari Luis Mitxelena-k, "*Idazlan Hautatuak*"etan, 396 orrialdeko oharrean.

Aita Mokoroa-k, "*Lengua vasca de hoy y de mañana*" liburua, erdaraz idazteko, (sarrera-bukaerak ezik). "*el afán de ser entendido de todos vascos de apellido, vascos de lengua, VASCOS DE DESEO*, (letra larria nerea da), *amigos de los vascos....*" -bai zuen arrazoi bat: "*Gogoa, nik baino hobeki daki Aita Mokoroa-k, obretan erakutsi behar da*", ohartzen du Mitxelenak.

Beren herriko GUNA atzitzeko, arrotz minzairara jo behar, etxeakoaren berririk ez da!  
Besteren arimaz aztertu behar beurena!



Nahi ainbat "vascos de DESEO", daitezkeelarik ere, "millón de vascos" ei ere, egokitzea.

"Fariseo" fonema esateko eskatu baitzion, sibilantea entzun nahi ziola-eta! Izkuntzalari aundiaren adibidea, etzitzaion batere onhartzekoa iruditu midikuari. Naski!

*Darrigol'*ekin asi naizenez gero, adiskide mina dutan *José-Maria Setién*, apezpiku berriari, eskari bat egin gabe, ez dut amaituko: *Moral esparruan mutila zeran aldetik, irakas, barne-kezkek noren aldetik beharko luketen egon: Darrigol'enetik, ala, millón de vascos-en aldetik.*

Ahazten zitzaidan: Duela ogei ta bosteren bat urte, oroitzen zara? *López-Mendizábal-Bera*, euskal-iztegia, utzi zenidan. niri itzuri, ordea. Arki baneza, eztitan itzuliren dizut.

Zorionez, ez baitzaude "millón de vascos" delakoaren lagundian.

Premin Ixurko

Principe de Viana, 1972, urria, 6. orr.

## "SANCHEZ CARRION ETA IPAR-AMERIKAKO NEXKA"

Nafarroako euskeraren berri zehatz bezain negargarriak, aurki ukanen ditugu. Granadar gazte Sanchez Carrión-ek emanik.

Nor dugu Sánchez Carrión hau? Euskararekiko jakitatez beterikako unibertsitario suhar bat.

Kaizuz (tamainez), ttipia. Granadar jator bezala, berriz, beltxaran, bizi, erne. Ez, ordea, itzontzi.

Euskara bikain ikasi duela, sakonki ikasi gero!, bedi haren adimen-naimen bizkorren froga (proba) bakarra.

Nafarroako apezik geienek, badute haren berri. Herriz-herri ibilia baitugu euskararen osasunaren berriak jasotzen.

Oro har, osasun hori, makala zirudion.

Eta, sendagile guti da, oso guti, erien hala-holataz gehiago kupitzen denik, euskararen egoeraz, hura kupitzen den baino.

Euskararekiko gure axolagabekeriak, biziro sumintzen du. Bihotzak zirakion gure zabarkeria ikusirik.

Aurki argitaratzekoak ditu nafar-euskararen radiografi eta analisak.

Honela baitio Luis Mitxelenak: "*Ohartu ez bazarate ere, Nafarroa galdu dugu: Nafarroa beherea aipatzen da noiz edo behin zenbait lekutan, behar bezain maiz ez bada ere; Nafarroa garaia sekula ere ez. Eta Nafarroa, garaia batipat, zerbait izen da eta zerbait baino gehiago da egungo egunean ere. Euskal herrian hor gabiltza elkarren lehian Ipar aldeko haurrideei lagundu beharrean. Ederki deritzat, hedatu zaien eskua hartzeko oraindaino gehiegi mugitu ez badira ere. Eta Nafarroako euskaldunek, ez ote dute laguntza beharrik? AURKI AGERTUKO DA GRANADAKO GAZTE BATEK, SANCHEZ CARRION-EK, HANGO IZKUNTZAREN EGOERAZ EGIN DUEN LIBURUA. Orduan behar bada, Granadar barrena, oroituko gara nafar euskaldunetz". Mitxelenaren idazlan hautatuak, 384 orr.*

Beajondeizula, Sánchez Carrión adiskidea.

Zure begi-beltz-zolien ziztarik ez dager emen.

Emengoek, eskuarki (komunzki), zure soina baino soin andiagoko ta sendoagokoak gaituzu -ni izan ezik-, baina, IKUSTEZ, sator diru-digu, begi gabeko mukulu.

Ea zure liburua, derrigorrean behar ditugun betaurrekoen ordezeko, bilakatzen zaigun.

Euskararekiko ahaidegoan, nahi ta nahiez, zure arreba bixkia behar zuen izan, Donostian ezagutu dutan Ipar-Amerikako nexka bat.

Nexka gorritzta zoragarri bat.

Liburutegi batean aurkitu nuen. Behar zituenak, euskaraz eskatzen zituen. Azentorik maitagarrienean.

Haatik, euskaldunak euskaldunakin erdaraz mintzatzen ikusteak, euskaraz zekitelarik ere, tristura eragiten zion bihotz-begietan.

Ezpainetarik, itz itunak zerizkion. Ni naiz lekuko.

Zure adina zuen, Sánchez Carrión. Eta gure izkuntzarako, zure gose-egarri berbera, erakusten zuen.

Zu, gazte granadar, eta Ipar-Amerikako nexka gorritzta ezagutu ondoren, zera otutzen zait, baino azpikoz gora ezarririk, kananear emakumearena: Ez da bidegabe semeen ogia semeeri kenduta, arrotzei ematea.

Etxekoek -Risum Teneatis- erdaldunago bere buruak ikustearren, gallo'ren lekuan gaYO, pillo'renean piYo, ta holakoetan ematen omen ditue beren ahalegin eta buruaustek.

Onak daude hauek -etxekoek, alegia-, midiku aundi MARAÑON-ek bere serorari (mojari) ematen zion agindua jasotzeko: Jainkoarren, ez zezala katalandar azentorik gal.

Oraindik-orain, barrenak zirakigun ATALLO-n gertatzen dena ikusirik.

Euskal azentoaren beldur, txikitatik, erdara utsaz egin, alazankoa!

Sánchez Carrión, eta ipar-amerikar nexka: hainbesteko sasikumetasun hau, nondik eta nola sartu ote zaigu?

Premin Ixurko

Principe de Viana, 1972, iraila, 3. orr.

## UITZI

UNAI, ta ENEKO, lengusutxoak

Igarotako urte luzeetan -irurehun?, larehun?, gehiago?-, Uitziko inork eraman ez duen zien bi, Uitziko bi umetxoeri ezarri dizkiete; urte berean jaiotakoeri, ta, lengusu-lengusu diraneri.

ENEKO, batari, UNAI besteari. Izen bi horiek, artzai kutsu berarekin agertzen, utz zaidazue. oihenarte'ren atsotitz biren bitartez.

ATSOTITZEn 451 gn. esaera zaharra, aldatu dezadan: "Unhaia siher unhaiari" (Artzaiak artzaia gorroto) (Larresoro-ren ekoizpenetik).

Unhaien atsotitzak, artzainek alher zaizkiela artzaineri ez ezik, ogi-bide berekoek ala zaizkiela ogi-bide berekoeri, adierazi nai ez ote? Bai. Zalantzari ere gabe. Nor dut nik etsia eta, nere ogi-bide berekoa. Ahal nezakean neurrian unhaiarekiko esaeraren laztasuna ale bat legundurik -guztien gaitza, tutuluen bakarren poz-bide omen delarik ere-, goazkio *Enekeri* buruzko, atsotitzari. Aldatu dezadan, lehenengo: Eneko, atxeka hi hartzari, nik demadan ihesari. (Atxeka = atxiki berbo sin. 2-gn. p.: demadan = eman dezadan sint). (Textoa, ta, oharrak Larresoro'renak). Atsotizaren zenbakia, Oihenarte'renean, 139.

Gaurko gure Euskal Herriko, aundienetako ajea dugun elkartasunik eza, INSOLIDARIDAD delakoa, agertzen ere da, Eneko'ren denboretako larriena. Etsaien aurkako unerik larrienean, bakartasuna. Bakar, arrixkuen buruzi. "Solo ante el peligro", bezela. Lehengo denboretako ajea agortu denik, ezin esan. Ordungo obenik larriena, egungo errurik larriena ere. Besteetara eza larri aldian.

Eneko izenari berari, zer gertatu zaion ikertzea, aski.

Euskaldunek, bateraturik, beren: izkuntza -meza nagusian ere bai!- izen, ohitura on, errikotasun, askatasun -zor zaien ehinean-, eta abarri, ta abarri, eutsi beharrean, Eneko apur batzueri utzirik hartzaren atzaparretarik begiratzea Euskal Herriko gauzak, ihesarik lotsagarrienari eman diote. Herriak, tutuluki, Eneko izena bera, abertzale ergelen asmamen bat besterik ez dela esanda utziko zaitue. *Eneko, gaurko xinpleen asmamen utsa dela?* Ez bide daki deus aundirik horrela dionak. Eneko aunitzen aldean, gaztea bada ere, Uitziko Eneko'ren ondoan, 315 urteetako duzute. 1657 gn. argitaratuak bai dire Oihenarte'ren ATSOTITZak.

Ihesari emanik, bakar utzi zuten Enekok, hartzaren atzaparretatik ardien begiratzea, ez al zuen lanik aski, bere izenaren begiratzeko lanik gabe ere?

*Besteen izenak gureak bezela eukitzea, ta, gureak, gure ez bailiran eukitzea baino zozokeri aundiagorik, bai ote diteke asma?*

Eneko izenari lotu nakizkionez gero, erakustearren, hartzaren beldur, onen arrapakeriak onartzen, inori ez diogula ezer zor, euskaldunek, bakoitzari eliz-biran dagokigun argizagirik ukatu gabe, hartzaren Enekeri itzul gakizkion.

Gure bearrik larrienean da. Baizik ere, ainbeste urteen buru, Eneko izena Uitziko umetxo batek berriro eramatea, aspaldi aundian atsotitzaren Eneko'rekin geneukan zorra, aintzat artzera goazela uste nezake.

Eta aurrera, hartzarekin ari duen burrukan, ez dagokela bakar.

*Euskal egunaren argi xinta ote? Jainkoak dezala. Asten dugun urteak, ekarri lezaiguke, esku-ikusi obeagorik?*

1972, Urtarrila.

Ixurko tar Premin

Principe de Viana, 1972, urtarrila, 7. orr.

## "VENID Y VAMOS TODAS"

Apezkide batek galdegin dit: Ea nere eliztarrek, erderaz baino EUSKERAZ KARTSUAGO otoitz egiten ote duten?

Horrelakorik galdetzeak berak ere, lanak dituela gero!!

Portugaldarrari, frantses izkerarekin Francia'n gertatutakoa, berritzea gogoratu ba zait ere, grinari ataka itxitzea erabaki dut.

Gertakizunena baitugu, erantzunik ozenena.

Egiterik xumeena, ASERTORik bortitzena.

LENIN buruzagi bolchevik'ak, bizkorki adieraztera eman zuen errealidadeen indarra.

"ERREALIDADEAK BURUGOGORRAK ZIRELA" (obstinadas), esan zuenean.

Errealidade burugogor horietako bat ote denz kontatzera noakizuen, zuek ikusiko.

Aspalditxoan ere, Maiatzako otoitz-lore zenbeit. ERDERAZ eman oi ziren emen.

Giza-semeak mutu zirautelarik, neskatxek: "Venid y vamos todos" kanta, eman oi zuten.

"Venid y vamos TODOS", laister, "venid y vamos TODAS", biurtu zen, letraz ezpazen, bai kantarien sexoaz.

Lore-eskeintza horri, emazteki-gauza eritzi zioten gizonetzkoek.

Lore-eskeintza, ta, erderaz? Emaztekientzat egiten diren bezelako belaxkeriak, haiantzat moduko legunkeriak, zenituzten hor!!

Gu gizonok, gaztelera lore-eskeintzen? Ederki eman ere!

Ezkongaietan, elkarri, bestelako lore bat botatzeko ere, EUSKERAZ diogu, nolarebait ibilitakoak, elizan: "Venid y vamos TODAS"? Alderdi ederra!

Ez jauna, ez. UMEKERI gutxi eginarazi dizkiguzutelako ustean egongo zerate apezjendeok, jantziarazi dizkiguzuten habitu ta gerrikoak jantziarazi ondorean, orain: "venid y vamos TODAS" ekin etortzeko!

Gu bezelako jende latz, eta esku-larru xuriak jaztea; bego, noizean beingo "frac" jaztea bera; baina, gaztelera: "venid y vamos TODAS", kantaz eman guk? Ezta biziaren penagatik ere!

Auñamendi'ko gaillurren goitasuneko arrazoibideari arrazoi ezagutuaz, igaro genituen euskerazko: "Goazen, goazen GUZTIOK", lore-eskeintzara.

Luzaroan, nekez eutsitako urak, amiltzean, ez dute arrabots ozenago ateratzen, "Goazen, goazen guztiok" kantatzean, giza-semezkoen zintzurrek atera zutena baino!

Bidenabar, gure lur santuetan gertatzen dena esan gabe, ez naiz atertuko.

Senar-emaztetatik bizirik gelditu, denak, ildako maiteari, azken agurra nola emango-ta, elkarren artean sekula erabili ez duten izkuntz arrotzan idatzitako OROIT-ARRIA eraiki!!

"Aqui yace" erderazko testoak, eta "Emen datza" euskerazkoak, "zerurako eta Jaunaren aurrean", SARI berdiña dutelako nonbait!

Ildako maiteari, arria ta eriotza ez al zaizkio aski otzak, sekulan, BIOTZ-EZPAINETAN BEROTU izan gabeko itz arrotzekin, azken agurra eman gabe ere?

TA, atarian jasotako galdeari erantzun naiean, euskal-biotzak BEROTU ez duen mintzaera arrotzak, etxeokak sortzen duen otoitz girorik sortzeko, ahalik ukan ahal dezake?

Itz ulert-zail batzuek gora-beera, biotzekoena, eta, burukoena ere dugun EUSKERA, ain buruko ta biotzeko ezin izan ditugun alboetakoekin berdintzekoa ote da, erlijioarekiko artu-emanetan?

Barne-lege denak. EZEZKORIK biribilena diote, PASCAL'ek ez ote zion: "*Biotzak ba dituela buruak ulertu ezin ditzazken arrazoiak?*".

Premin Ixurko

Principe de Viana, 1972, maiatza, 6. orr.

## "EL MÉDICO A PALOS"

Hona: "LE MEDECIN MALGRE LUI". Itzulirik: AHIERRIK EZ, ETA, moralista!"

Eliz-Barruti (Diócesis) osoan, asko esatea da baino, bai ote da, Jainkoaren Legeko seigarren aginduaren esparruan, ni baino aulagoko gogoarekin, sartzen den apezik? (Sartu behar orduan, batek aiña ba-dagidan arren).

Alare, nor eroriko moral-predikuetan, "Principe de Viana"n eta, ni erori!

Oi zer egia, esaera zaharrarena: "Bakotxa bere ZOROAK bizi" (Cada loco con su tema).

FOLKLOREarenak ni, ta, gogoaren aurkako gaietara labaindu! Bejondaidala!

ERRE DOCE, ERRE OCHO, ta olakoetan ematen direnen berri, berri zeatzik, nik ez dut. Ukan nai ere ez.

Aietan eman litezkenak jakiteko eskubiderik ere, ez dut. Eta ukan nai ere.

Hor konpon!

Argi geldi bedi, ordea, puntu bat: *Nere lantxoan, inoren izen hona beztu zezaken zerbait ba'zela, uste dunik bailitza, jakin beza: Zubietako neskatxentzat esaten zena, beste edozeinentzat, esaten ere zela. Ta, aientzat okerrik esan ba zan, berdin ere esan zela besterentzat.*

ORORENDAKO uts berdina izan zitekenarentzat, XURIKETA ere, berdina eskatzen dutala.

TA, askorekin ere, nahiago nukeala alkietan eseri, kulpituetara igo baino.

F.I.

Principe de Viana, 1972, martxoa, 6. orr.



## ZUBIETAKO NESKATXAK, TA GU

Folkloreak ba dituela gero lanak!

Asto beltzarenak eta bost ikusiak gaituzue, Folklorearen erruz.

Orain ikusiko, AZKUE jaunak jasotakotik, ots, "ZUBIETAKO NESKATZENTZAT" kantatik arturiko AMONTEGI itza, menditzat jotzen guk -mayuscularekin, ere dator-, eta, mendi horren non dagoelazkoa jakin nai. Lizun batzuk baino okerrago ibiliak gaituzue, egiteko ñabatxo hortan.

Asteko, dekarradan Azkue jaunaren ahapaldia: "Zubietako neskatxak amabost urteko, AMONTEGIN dabilta gallegoekin bapo".

Zirudigunez, mayuscula duen Amontegi hori, iñola ere, mendi baten izena bear genuen. Bai zera! Lehen, neskatil birengana jo genuen. Galde guk. Aiek, ez dakitelazko erantzuna. Etzioten, orregatik, lizun kiratsik igarri galderari. Zori onez.

Neskatilak utzirik, jo berrogei-ta-amabost urte inguruko emakumearengana. Alabearrak aurkeztu zigun lehenbizikoarengana. Astotxo bati eragiten zion. Itzetik ortzera, galdegin diogu Amontegiz. Arridurazko begiratzea emaztekiak. Ez jakinarena, guk irizten. Zuzen ala oker, ez dugu jakin. Ua utzirik, bere astoarekin. Folklorearen baino zeregin larriagotan, ez bide malkartsuagotan, topo egin dugu, zori onean topo egin ere, errota-zainarekin. Mutil zaharra, egoera civilez, eta, bersolarien azpaleko, abildadez. Inor beztu ez dezaken ajea berekin: maingutasuna. Honek, inor beztu ezin badezake, bersolari ezpalekoak, pentsalari bortitzak biurtzen ditu, ordañez.

Galde guk errotazainari Amontegiz. Ua, ixil. Galde guk. Ark erantzunik eman nai ez gure galdeginari. Ondarrean, orregatik, eta gizonki ere, ark guri galde ia zinez jakin gura genuen Amontegi'ren berririk. Guk, baietz. Ez genbiltzala txantxetan, ez. Azkue jaunaren, mayuscula duen izen baten argitasun bila genbiltzala. Bapo. Nik izen horren garbitasunak, beorreri emanen. Adiera itsusiko itza duzute hori. Ardandegi eta olakoetan bakarrik aipatzen dena. Sexu artu-emanak adierazten ditu, ain zuzen. Ez duzute hori iñongo mendi izenik, Azkuerenean mayuscularekin badator ere. Berriz ere diozuet: mutilen eta arteko itzik lizunena duzute hori.

Eskerrak eman genizkion gure gizon erne bezain argiari, ta, Azkue, ta Riezu'ko Jorge Aitak, ez jakinez, sartu ziguten ziriaz, parra egin ere. Egoerarik lotsagarrienean ezarri gintzaketen galleguen neskatxak, ahazturik zeuden, zori onez ahazturik ere, Zubieta'n.

Jorge Aitari, gertatukoen berri zeatza eman genion. Bai genekien, jakin ere, "FLOR DE CANCIONES POPULARES VASCAS", bigarrenez argitaratzekoa zuela. Inongo mendi izena ez baino, lizunkeririk lizunenaren izen itsusia genuela hor. Minuscularik lotsagarriena merezi zuena besterik ez zela.

Baizik ere, Folklorearen eror bide beretan arkitzen ez ote den, gaude.

Egungo artu-emanak ere, mayuscularen batekin jasoko ez ote lituzken. Mendi izen itxureko, itz itsuriarekin ez baino, zenbaki, edo numero dotorekin. Ala nola: ERRE OCHO, ERRE DOCE, edo olatsuekin. Eta, ez gera ari zubietar neskatxekin bakarrekin, ez; galleguek, aunitz edatu bide bai dire (Barka nazazue, galiziarrek; ez bai naiz ari zuekin).

Principe de Viana, 1972, otsaila, 6. orr.

## AXULAR, ALA YAUN BENAT?

No se alarme el lector por el epígrafe. Nombre y gloria del más ilustre de los escritores de lengua vasca, nuestro paisano AXULAR, descansan en base de inquebrantable solidez. Pero sabido es que al socaire del personaje histórico ha vegetado un Axular legendario, de quien tenemos noticias por:

- J. VINSON, *LE FOLK-LORE DU PAYS BASQUE*, París, 1883, p. 6: *Le Prêtre sans ombre*;
- J.M<sup>a</sup> AZCONA, *Pierres de Axular y las cuevas de Salamanca*, en RIEV, X (1919) 53;
- MAYI ARIZTIA, *AMATTOREN UZTA*, Bayona, 1934, págs. 12 y 15 (anteriormente en la rev. GURE HERRIA, XII, (1932) 316);
- J.M. BARANDIARÁN, *Axular chaharraz kondaira pollit zonbeit*, en la rev. GURE HERRIA, XXVI (1956) 355;
- M. DE LECUONA, *Aitzin-solas de la 4<sup>a</sup> ed. del GERO*, Zarauz, 1954, p. XIV, nota 10.

Pues es el caso que a este Axular legendario le sale un competidor en la persona (?) de Yaun Benat. Entre los papeles del ARCHIVO P. DONOSTIA se halla un pequeño manuscrito de José Maritorea (1882-1953), natural de Maya (Baztán), en el que las anécdotas axularianas se atribuyen a Yaun Benat, rector que fue (?) de Vera de Bidasoa. Mas no por ello queda Axular en esta nueva versión del todo ajeno a la leyenda, ya que se le ve en compañía y amistad de Yaun Benat.

Me propongo dar a los lectores del Suplemento Mensual de PRINCIPE DE VIANA una transcripción del manuscrito de José Maritorea, que espero se lea con gusto, tanto por la leyenda en sí como por la gracia con que está escrita en bello dialecto baztanés.

El manuscrito sería un documento perfecto del habla popular, si no adoleciera de falta total de signos de puntuación, que pone a prueba la sagacidad y la paciencia del lector. En siete y media páginas de cuaderno corriente, las palabras se suceden unas a otras de principio a fin sin un respiro, sin puntos ni comas, sin un leve indicio de pregunta y respuesta en el diálogo. Fuerza ha sido arriesgar la primera virtud requerida en achaques de transcripción, que es la fidelidad, asumiendo el peligroso papel de intérprete. Confío no haber traicionado el pensamiento del autor con esta necesaria ingerencia mía.

Respetando grafías dudosas, he juzgado oportuno enmendar unas cuantos que en nada alteran la fonética. Los epígrafes, paréntesis y subrayados, así como las notas aclaratorias sobre palabras, contracciones y locuciones peculiares de la variedad dialectal baztanesa han de merecer sin duda la aprobación del lector.

## LEYENDA DE YAUN BENAT

(Versión de José Maritorea, para el P. Donostia, Marzo de 1936)

### (I.- DEABRUEIN ESKOLAN)

Yaun Benat, Arruit eta Axular ziren iru apezgai edo estudiante, buru azkar, izpirituz abilak. Ikasi zituzten mundu untako eskola guziek eta gelditu ziren ikasteko gutizia aundiarekin. Iruetan yakintsun eta abilena zuten Yaun Benat, eta unek erran zaben:

- Eemen ez duk geyago ikastekoik. Nai duze gan gaitzin deabruen eskolak ikastera?

Eta erran zioten bayetz. Abiatu ziren, au aitzinean eta bertze biak ondotik, Sarako lezera. Andik sartu ta allahatu ziren infernura. Debru feltz itsusi bat zagon ate-zain eta galdin zaben zer nai zuten. Erran zioten ango eskolak ikasi nai zituztela. Deitu zuen debru nausie, eta unekin intzuten tratue iruetaik baten aldera erakutsiko zioztela. Asi ziren ikasi ta ikasi; eta ttipituxe zituztelaik, Arruit eta Axular tristatu ziren. Galdin zaben yaun Benatek zer zuten ala egoteko, eta erran zioten nola zuten tratua ine iruetaik bat gelditzeko erakuste aldera:

- I eskapatiko aiz andik edo emendik, eta gutaik batek bear koyegu gelditu. Oi duk gure tristure.

Eta erran zaban (Yaun Benatek):

- Ez beldurtu; nik manien itze, eta nik betekoyet. Ni geldituko nauk.

Pixka bat arindu ziren, naiz etzuten arras sinetsi. Ikasi zituzten debruein eskolak, eta unek erran zaben:

- Ikasi tuze denak guk dazkigunek; eta orai zein gelditu beaize?

Eta Yaun Benatek erran zion, bere itzela erakusiz:

- Kontu iyok orri.

Abiatu ziren Arruit eta Axular aitzinean eta Yaun Benat ondotik. Unek erraten zaben "agudo, agudo", zeren ikusten zuen debrue bere itzela atzapparretan itzulika zabilela. Eta idurituik arinxkoa zela, tiratu zaben (debruek) ezpata-ukaldie. Yaun Benat baitzoan gibeletik, lezetik atratzean, kendu zion (debruek) zapata-zurrume edo takoña; eta andik aitzine ibili zen (Yaun Benat) itzelik gabe eta zapata-takoñik gabe. Munduan arpatzen zituen zapata-ileik oberenei manazten zition takoñak; bañan lembiziko gauean gaten zion debruek, eta beti ibili bear izentzuen itzelik eta zapata-zurrumik gabe. Arruit eta Axularri baño errabie geyago zion debruek uni, zeren tzen abilena; bañan ezin deus in unen kontra, debruein eskolak eta mundukoak zazkielakotz.

Egun batez igorri zioten ifernutik paxa edo gerrauntzeko bat gorri-sedazkoa. Iyan tzen mandoain gañera, artu zuen mutila eta gantzen Sarako leze ondora, -an bazen gartzain-ondo aundi bat. Erran zion mutilei:

- Ingura zak gartzain hoi paxa unekin eta leku adi fite ortik.

Inguratu zuen bezain laster, han doaye gartaña adarrez aitzina lezetik barnera. Eta Yan Benat soseguz etxera.

### (II.- ARRI-ERAUNTSI)

Apez in ondoan, izan ziren Yaun Benat Berako erroter, Axular Sarako, eta Arruit Oyartzungo. Beti ibiltzen ziren ok biek ari zerbait xaxko manaizik, bañan au beti bereaikin atratzen zen.

Egun batez gogoratu zituzten bear zutela arri-erantsi bat yautsazi unen bizkarrera. Gombidatu zuten Oyartzuna bazkaitera. Unek ere usmatu bazuela zerbait ondorio bazkari unek, iyan zen mando gañera. Erran zion mutilai:

- Ar zak idi larru hoi eta segi zak nerekin.

Gan ziren Oyartzuna: utzi zuen mutile ostatuen idi larrueikin, eta bera gantzen Arruiten etxera. Umore ederrean bazkaldu zuten elkarrekin. Apur bat egonik, abiatu zen Yaun Benat etxera. Buruz ikusten du edoi beltz bat eldu dela, intzian bere buruei: "Um...! Nik beldurre nuena!". Artzen du idi larrue ostatatutik, mutilai erranez han egoteko, eta badoa Arruiten sahardire. Hai ziren Arruit eta Axular konjuruen Yaun Benaten (...) eta, ahu...! Arruiten sahardien in zuen ikaragarritzko arri-erauntsi bat. Idi larrua burutik artue baitzuen Yaun Benatek, saltatzen ziren unen gañean arri-kozkorak, uni makurrik in gabe; eta Arruiten sahardi gazte ederra ondatu eta xeatu zuen.

Au ikustean, etsitu zuten etzutela yeus inen unen kontra.

### (III.- ERROMARA, AITA SAINDUAGANA)

Egun batez zagon Yaun Benat bere etxeko leytotik beire; ikusten du bele bat badoala airean **fla fla fla**. Debrue zen, beleain itxuren. Deitzen du ta galdetzen dio:

- Norat goa?
- Erromara.
- Zertara?
- Aite Saindue ezkontzeuk gutarteko batekin eta aren eztaietara.
- Zembat demboraz inen nauk gan ta karri?
- Ordu batez.
- Yeus ezaiz I: segi zak aitzine.

Badoaye bertzea. Deitzen du (Yaun Benatek) ta galdetzen dio:

- Norat goa?
- Erromara.
- Zembat demboraz inenauk gan ta karri?
- Ordu erdi batez.
- Segi zak aitzine.

Berriz eldu de bele zahar maingu bat. Deitzen du ta galdetzen dio:

- Norat goa?
- Erromara.
- Zembat demboraz inenauk gan ta karri?
- Han ta emen.
- Zeren aldera?
- Atseko afariein aldera.
- Ine diegok.

Gan ziren eta allahatu ziren Aita Sainduaren etxe aitzinera. Baña betea zagon koka ala koka. Yaun Benatek maten dabe bere makila erranez, Aita Saindua yarrrik zagon maya negur zezatela arekin, zembat luze eta zabal zuen, yakin bear zela. Luzera negurtu eta zabalera asi zirelaik, in baitzuten gurutzearen idurie, debru eta eken kideko guziek gan ziren alde guzietara; eta gelditu zen Aite Saindue bakarrik. Arritua, gurutzeain señailea izen zela ikustean debruek ain fite aizketu zituena, bere baiten sartu, gombertitu eta itzuli zen bide zuzenera.

### (IV.- ETXERAKOAN)

Yaun Benat itzuli zen bele manguein gañean kontent etxera. Bidean eldu zirelaik, debruek erran zion:

- Zuek erratezie maiz itz arin arin pollit bat, batez ere Elizen. Nolauk ure?
- Arine bada, arine.
- Ez ohi; itz arin pollit bat.

- Arine bada, lume.
- Ez, ez; Elizen ta maiz errateizen ure.
- Arre, diable.

Eta segitu zuten aitzine. Yaun Benatek bazakien zer nai zuen aitu, eta ure erranez geroztik, botako zuela ibzkarretik eta gain zitzayola. Debruek nai zion erranazi Yesusen izena. Baño unek (Yaun Benatek) nola baitzazkien munduko eta debruein eskola guziek, ezin tzuen enganatu.

Allegatu zen etxera; gantzen sukaldera eta erran zion bere amai:

- Yakako portuetan elurre aldu.
- Ik ambat dakik!

Inerrosi zion soñeko kapa eta purrusten elurre bota zuen. Arritu zen ama eta galdetu zion:

- Nola ibili aiz? Orantxe emen itzen.

#### (V.- DEBRUEN AFARIA)

Kontatu zion (amai) dena eta erran zion atsean torri bearra zela afaitera debrue, eta atratzeko giltxeurre bakarrik, bertzeik yeusere gabe, ez yatekoik eta ez edatekoik, zeren debruek denak pozondatuik utziko baitzituen.

Torri zen afaiteko tenorea, baite debrue ere xuxen.

Yaun Benatek erran zion:

- Yar adi or mai azpien.

Erakusiz giltxaurre autsi ta mamie berak yan, ta botatzen zition axalak. Eta debrue ahi zen **kraska kraska**, azal yaten; eta erran zion:

- Afari idorrauk au!

Eta Yaun Benatek:

- Nik ortaik yateyet.

#### (VI.- YAUN BENAT ZERURA)

Egun batez man tzion Sakristauai pistola bat eta erran tzion:

- Ni il nazak Konsagrazioneko tiro batez.

Bañan Sakristaua beldur zen gerokoari eta etzion tiratu. Galdetu zion (Yaun Benatek) zertako etzion tiratu, eta agertu zion (Sakristauak) bere zaukan beldurra preso gaintzutela; eta ortakotz etzuela il nai izan. Man zion (Yaun Benatek) paper bat, zeñetan zagon eskribituik berak il arazten zuela. Eta il ondoan nai bazuten yakin salbatu zen edo ez, aren biotza para zezatela ezkila-dorreain kaskoan ziri baten puntan. Torriko zela *belea*; eta arek gaten bazuen, *Ifernuan* egoin zela. Ezpazuen gaten, torriko zela *pike*; unek gaten bazuen, egoin zela *Purgatorioan*. Ezpazuen gaten unek ere, torriko zela *usoa*; eta unek gaten bazuen, egoin zela *Zeruen*.

Ala in zuten.

Torri zen *belea*; *koa koa* in zion, piko mugitzen zuen pixka bat; eta denek: "Baziamak, baziamak". Buelta bat ala aizan ondoan, etsitu zuen eta gantzen. Gero torri zen *pike*; *karra ka ka ka ka* intzion, piko eta unek mugitzen zuen geyago; eta denek zioten: "Baziamak, baziamak; *Purgatorioan* duk". Piko ta piko ibili ondoan, etsitu zuen eta gantzen. Gabe orduen, torri *usoa*; eta ondoan pasatzean, *pit pit* in te gan tzuen berekin... Eta yakin zuten Yaun Benat *Zeruen* zagola.

Beratarrak kontent gelditu ziren au yakitean, eta Sakristauak etzuen kastiguik izen.

## NOTAS ACLARATORIAS

- zaben = zioten (*él-lo-les*): erran zaben = esan zioten, *él les dijo*.
- ikastekoik = ikastegorik. *Análogamente*: iruetaik, gutaik, yatekoik, ortaik...
- duze = duzue = dezue. *Más abajo dice* tuze = dituzue gan, *con auxiliar intransitivo* = joan, *ir*; gaten = joaten; gain = ganen = joanen = joango.
- gan, *con auxiliar transitivo*, = eramán, llevar.
- debrue (*o* beabrue) = debrua. *Téngase presente el fonetismo muy corriente en varias zonas del país: toda a precedida de i o u en la sílaba precedente se convierte en e. En el escrito de Maritorea abundan los ejemplos: zurrume (zurruma) beldurre, tratue, itze, ine (ina = egin), itzela (itzala), argie, izen (izan), baite, baiten (baitan), te (ta), purrusten, etc., etc. -De este fonetismo y la variante baztanesa aún por aren, de genitivo posesivo, resulta debruein por debruaren, y análogamente afariein, manguein, etc. -No siempre es consecuente el escrito de Maritorea con estas normas. -Obsérvese también mutilei por mutilai (mutilari).*
- allahatu, *llegar. Más adelante escribe* allegatu.
- galdin = galde egin, *preguntar*: galdin zaben, *les preguntó*. In, *forma contracta de egin; de ahí* ine (ina = egin), inen (eginen = egingo).
- intzuten = in zuten = egin zuten.
- aldera, *a cambio, por en pago*: iruetaik baten aldera, *a cambio de uno de los tres*.
- zioztela (*ellos-los-le*). *Pero en la frase* eskolak erakutsiko zioztela, *que él se las enseñaría, la forma correcta del auxiliar sería* zizkiela *o* zizkiotela (*o equivalentes, de pluralizadores de régimen directo e indirecto*), *y en buen baztanés, zabeztela: eskolak erakutsiko zabeztela*.
- bearkoyegu = bearko diagu (*fam.*) = bearko degu.
- oi, hoi, ohi: *diversas formas del demostrativo* hori *u* ori, *ese*.
- manien = man nian (*fam.*) = eman nuen.
- betekoyet = beteko diat (*fam.*) = beteko dut.
- naiz, *aunque*.
- dazkigunek = dakizkigunak, *las que (nosotros) sabemos*.
- beaize = bear duze = bear duzue.
- kontu iyak orri, *agárrale a ese*. Iyak = egiok (*fam.*), *de egin*.
- atratzean = ateratzean, *al salir*.
- zapata-ileik = zapata-egilerik, *zapateros*.
- zition (*él-los-le*). *Pero en la frase* munduan arpatzen zituen zapata-ileik oberenei manazten zition takoñak, *se trata de la forma doble él-los-les, como arriba en el caso de zioztela; y la forma correcta baztanesa debería ser* zabezten.
- manazten = eman erazten, *les hacía poner*.
- izentzuen = izan zuen. *A veces lo escribe separado*.
- tzen = zen.
- zazkielakotz = zakizkielakotz, *porque se las sabía todas...*
- iyan = igan.
- gantzen = gan zen = joan zen.
- leku adi fite ortik, *lárgate pronto de ahí*.
- doaye = doa.

- soseguz, *tranquilamente*.
- erroter, *sin duda por error, rector, párroco*
- xaxko, *chasco, jugarreta*.
- manaizik = eman naiez, *queriendo hacerle, deseando darle*.
- bereaikin atratzen zen = berearekin ateratzen zen, *solía salirse con la suya*.
- yautsazi = yautsi arazi, *hacer bajar* (arri-erauntsi bat, *una pedrada*).
- intzion = egin zion: intzion bere buruei, *se dijo para sí*.
- hai, ai, ahi, *diversas formas de hari o ari* (ari izan, *ocuparse, obrar, hacer*). *No confundir con ari, a él*.
- (...) *parece faltar algo en el relato: la alusión al objeto del conjuro*.
- yeus = deus, *nada*.
- beire = begira, beha, bea: beire egon, *estar a la mira*.
- goa = hoa (*fam.*) = zoazi, zoaz.
- ezkontzeuk = ezkontzen duk (*fam.*), *se casa*.
- inen nauk (inenauk) gan ta karri, *me llevarás y traerás*.
- yeus ezaiz i, *no vales nada, no sirves*.
- han ta emen, *aquí y allí, es decir, en un instante, en un santiamén*.
- zeren aldera?, *¿a cambio de qué?, ¿por cuánto?*.
- atseko afariein aldera, *por la cena de la noche*.
- *ine diegok* (*fam.*) = egina dago, *queda hecho, trato hecho, de acuerdo*.
- koka ala koka, *atestado, lleno (de gente), que no cabía más*.
- dabe = diote (*el-lo-a ellos*): maten dabe, *él les da*.
- aizketu = aizatu, *espantar, ahuyentar*.
- errateize = erraten duzue = esaten dezue.
- nolauk ure? = nola duk ure?, *¿cómo es ella (esa palabra)?*.
- arine bada, arine, *si es cosa ligera, ligera pues*.
- aitu, *oir, percibir*.
- gain zitzayola, *se le iría*.
- erranazi = erran arazi, *hacer decir*.
- baitzazkien = baitzakizkien, *puesto que se las sabía (todas las cosas...)*.
- tzuen = zuen.
- amai = amari.
- aidu = ari du: elurre aidu Yakako portuetan, *está nevando en los montes de Jaca*.
- ik ambat dakik! (*fam.*), *¡bastante sabes tú!*
- itzen = intzen (*fam.*) = zinen = ziñan, *estabas*.
- torri = etorri.
- giltxeurre = giltxaurre, giltzaur, intzaur..., *nuez*.
- tenorea, *el momento, la hora*.
- axala = azala, *corteza, casca*.
- idorrauk = idorra duk (*fam.*): afari idorrauk au!, *¡vaya cena seca (dura) esta!*.
- yateyet = yaten diat (*fam.*) = jaten det.
- man tzion = eman zion.
- erran tzion = esan zion.
- gerokoari, *al porvenir, a las consecuencias*.
- gaintzutela = ganen zutela, eramenen o eramango zutela.
- para (tu) = *poner, disponer*.
- egoin = egonen, egongo.



- baziamak = bazeramak (*fam.*), *ya se lo lleva*.
- aizan = ari izan, *ocuparse en*.
- gabe orduen = gabeko orduan (?)

Lecaroz (Baztán)  
4 octubre 1967  
P. Jorge de Riezu

Principe de Viana, 1967, azaroa-abendua, 6. orr.

Nere errespetu guziko Yauna ta adiskide maitea:

Atseginekin irakurri ditut HERRIA astekarian (Nº 901, 1967-ko Hazilaren 9-a) "Xantxo" bertsolariari buruz zuk argitaratu berriak.

"Xantxo" baten izena aspaldian Aita-Donostia zenaren paperetatik ezagutua nuen; eta orai, astekariaren irakurtzean, gogoratu zitzaitan ea bi "Xantxo", zuk Bankan eta Aita-Donostiak Arraiotzen bildu hetarik, "Xantxo" bat bakarra egitera beartuak garenetz. Biok nafartarrak, biok mandozainak eta omen andiko bertsolariak... ezta harritzkeo izen bereko bi gizon? Zure "Xantxo" gordintxe iduritzen zait, egiazki; Aita-Donostiarena, aldiz, zuhurrago ta debot. Bainan hauxe erran daike mundu zabalean bere mandoen sokatik tiratuz ibiltzen ziren aunitzez.

Ikusazu, bada, Aita-Donostiaren "Xantxo" nolakoa zen:

Bein batez, "Xantxo" bere mandoarekin bazoaielarik, erreka batean sartu zen zamaria. Egin-ahala ari zen gure gizona bere mandoa zulotik atra bearrez; bainan dena alferrik. Azkenean erabaki zuen ondoko irira gatea laguntzaren eske. Irirakoan, ustegabeen andre xahar plit bat agertzen zaio buruz-buru eta galdegiten dio:

- Nora hoa?

- Iri hartara, laguntzaren eske. Mandoa errkan sartu zaitan, eta ezin atrazi.

- Eztuk hortako irira bearrik; nik lagunduko aut.

Etzuen mandozainak andrearen eskeintzan fidantza andirik; bainan "Xantxo" sinetsgaitzago, eta bertzea ekinago:

- Enauk utziko bederen hirekin batean saiatzera, ea sokatik elkarrekin tiratuz erdiesten dugun?

"Xantxo"-k azkenean baietz; ta biok elkarrekin errexki zulotik atratzen dute mandoa.

Gure "Xantxo" han dago, begira hunat, begira harat; bainan eztu geiago andrearen arrastorik inguruan atzemaiten. Harritua, ta andrearen irudian Ama Barjina laguntzale izan zelakoan, hasten da kantatzen:

Huna "Xantxo"ren bertsua, bere soinuarekin, Aita-Donostiak 1911-ko Abenduaren 14-an Arraiotzen bildua.

Ama Birjiña fidela (I)  
alabatua zerala!  
Nere mandua atera zela  
miñikan gabe bidera.  
Xangrin bat artu ederra!  
Ala konbeni bide da.

Zer zaitzu iduritzen Aita-Donostiaren "Xantxo" huntaz? Badire oraino Aita-Donostiaren paperetan bertze bertsu batzu "Xantxo"ren gain emanak; deus gutikoak, egiazki. Bainan, nork daki? Zure berriak eta Aita-Donostiaren kantuak izan daizke, bearbada, Nafarroako bazterretik "Bordel" bigarren baten sortarazteko lehen urratsa.

Onharzkitzu. Yaun ta adiskide maite, nere goraintzi amultsuenak.

Aita Yurgi Erriezu-koa

Principe de Viana, 1968, otsaila, 3. orr.

## EUSKALZAINDIAZ

Dr. Hernandorena'ri

Euskalzaindiaz aldizkari ortan idatzi zenuena ikusita arriturik gelditu nintzen. San Martin jaunak erantzun zizuna ere ikusi dut.

Baño gai ori argixago jakin-erazi bearra iruditurik, eldu naiz.

Gure Aita Santu Paulo VI-garrenak Zirilo donearen eriotzeko milla-urte burua, aurten dalako, Eslabarra (Slavos) idatzi dienaz asi nai dut.

Zirilo ta Metodio Santuak eslabarren onerako egin zituen zenbait lan aipatzen ditu.

"Beste gauza askoren tartean, eslabarren izkuntzazko idazkera sortu ta beren izkuntzan Liburu Santuak (itun zar-berria), ta Eliz-liburuak latera ta gerkeratik, ausardi gaitzaz -dio- itzuli zizkiela. Konstantinoplatik Morabi Aundira joan ziraneko; ta aurrei irakurri ta idazten (eskribitzen) erakutsi ziotela, Jainkoaren itza zabaldu bidenabarrean. (Legenda Italica VII; Fontes, pg. 62)".

"Eta, naiz Jainkoaren laguntzaz, urre antzeko emaitz (frutuak) eman uste onezko lan beteak, ala ere okergilleen eragozpenaz "landare naroen tartean zeape zoritxarrekoa ta garagar utsak ere jabetzen dira" (Virgilius, Georg. I, 153-154).

Eslabar Erridiaren onerako Ziriko doneak egiñak, erlijioari ezezik beren izkuntza ta aurrerapenari ere asko lagundu ziela adierazten du.

Euskaltzaindiak ere, bere bizitzako 50 urte oietan Euskal-erriaren alde lan azkarrak egin dituela nago; eta ez ain alperrik.

Euskalzaindiak bi sail izan ditu asieratik, euskera bera landu ta aberastutzeko bata, eta euskera pizkortu ta zabaltzeko saila. Bigarren sail oni dagokio zuk diozun Frakasua.

Naparroko lana

Naparroan gertatzen zaigunaz ari zeran ezkeru, esanen dizut Euskaltzaindiak lan asko egin zuela.

Naparroan, euskeraren maitetasuna sortzeagatik. Ez berak bakarrik, baizik gure Aldundiaren eta Ahorroko Kutxaren bidez.

Iruña berean "Euskeraren Adiskideak" deitzen zen elkartasuna sortu zun.

Orren laguntzarekin ainbeste erritan umeai euskeraz irakurtzen eta idazten erakutsi zitzairen.

Ikasle onenai diru-sariak eman zitzaizkien. Alsasu aldera Arbazutik asi ta Urdiañeño, baita Ergoyen'goari ere. Etxarri-aranatzen euskal-jai eder bat egin zen: bereartan, erri askotakoak beren euskal kanta bereziak berrituz.

Larraungo erri askotan, Areso, Leitza, Ezkurra, Erasun eta Saldisen, Legasa, Narbarte, Doneztebe, Donamari, Yantzi, Lesaka ta Etxalaren, Mezkiritz, Abaurregain eta Abaurrepean, aurren banatu sariketa.

Gogoan dauzket baita ere Doneztebe'n, Euskaltzaindi osoa bilduz, euskal-jai bikaña, egin zela, baita Auzan, Lekunberrin, Otsagi (Ochagabia)n eta Eskarotz'en ere Euskeraren Adiskideak.

Arte ontako eragozpideak

Geroxago euskerak eta Euskalzaindiak izan zitun eragozpenak eta eraman zitun egun beltzak atzendu zaizkio naski Ernandorena Dr. Jaunari.

Gudaldian sortu ta azi, ta ondoreko urte sail batean euskera ta euskaldunentzat izan zen gorrotoa ta gure Naparroko euskal-errietan erain zen erdara-azia eztu kontuan artu. Zenbat denboraz egon ziran iñondiko erdaldunez josirik Baztan, Bidaso alde guzia, Ulzama, Esteribar, Erroibar eta Aezko guzia, etxetan itz bai euskeraz egiteko bildurrez? Nork igarri Naparroko euskerari egin dion kaltea ta orrek Euskaltzaindiari emango dion lana? Ta Naparroko gauza bera ¿ez al da izan Gipuzko, Bizkai ta Araban ere?

Gudua akitu zen ezkeroz, Euskaltzaindia lo egon al da?

Lenagotik euskaltzain batek, Jesusen Lagundiko, Olabide Aitak Liburu Santuak (Itun Zar eta Berria) euskeraz eman zitun. Beste batek, Orixe edo Ormaetxea tar Nikolas jaunak.

Agustin santuaren "Aitorkuntz-liburuak" (Confesiones) eta Dabid'en Salmoak euskeraratu zizkigun, Azkue jaunak, Altube'tar Xebero jaunak, Lhande, Jesusen Lagundikoak eta, ainbeste liburu, iztegi edo iztegi-gai egin dituzte. Ez luzatzeko, azken aldi ontan Paulo V-garrenaren "Kristauen Kredo" ta "Giza-Bizitzaz", bi entziklikak euskeraz eman dituzte.

Gañera Euskaltzaindiak urtero "Euskera", bere aldizkaria eman digu; aurreko urtean egin ziran lanaz, zerbait berri emanez.

Urtean zenbat eta zenbat tokitan, Bizkai, Gipuzko ta Naparroan, Idazlari, Olerkari ta bertsolariei sariak eman dizkio Euskalzaindiak, euskeraren alde euskal-jaiak egiñez!

Eskura daukaten "Euskera"ren 1964'ko zenbakitik artzen ditut berriok: Ilbeltzaren 26'an. Bilbon, Arriaga teatroan, Euskaltzaindiaren jaia; berortan aurreko urtean euskera ikasi zuten aurren sariketa. Urte ortan erriz-erri, iru probintzietan egin zitun bersolarien txapelketak, urrengo urtearen lenengoan Euskal-erri osoko bersolarien txapelketa nagusiarekin. Bilbon bukatzeko, 1964'an, Naparroan, Berueten, Lesakan eta Iruñan izan ziran bertsolarien txapelketak.

Udaberrian gaude

Negu gogorak izan ditu euskerak eta arekin Euskaltzaindiak. Baño oraintxe udaberriko lore ederrak azaltzen asiak ditugu. Hernandorena jaunak aipatzen digun neskatx ez-jakin eta zaputzzalle orren tokian lau edo bost neskatx burudun, euskera pozez ikasten ari zaizkigunak ba-ditugu; euskera ederrean itzegiñez agertzen zaizkigu, bai kalean, bai elizan, baita gure aldizkarietan euskeraz idatziz ere; oraindik euskaldun berri dirala nabari bazaiote ere (bati baño geiagori). Baño ez dira lotsatzen, baizik poztutzen, euskeraz zerbait egiñez.

Azkena

Orra ordun, Zirilo doneak Eslabarren izkuntzari ta fedeari lagundu zion antzera. Euskaltzaindiak ere, Euskal-erri osoaren alde al dezakena egiñez eldu zaigu; orain aldiak Euskera ikastol txiki ta aundietan, ikastaro guzietarako bearko dituzten liburuak sortzeko lanetan, bere batzorde bereziz, lanean ari zaigula, ¿ez duzute jakin?

Lan zalla derabil esku tartean; baño alde guzietako berpiztueraren gogo sutsuak eragiñik. Izotz berririk iñork eztezaigula bota, eta euskalzaindiak laxter adieraziko du, 50 urteak ez ditula lo-zorroan egin.

Kalparregi

Principe de Viana, 1970, azaroa-abendua, 8. orr.

## JASOKUNDE EGUNA NAPARROA'N

Maria Birjiña guztiz santuaren Jasokundea. Naparroa'n asieratik siñetsi ta goretsi du.

Arijita Mariano'k garbitasun ugariz egiztatzen digu. Kondaira ederra berak utzi ziguna. Beroien mamia emango dizugu. Aren liburua irakurrita Iruña'ko Apezpiku Jose Lopez Mendoza'k egin zion itz-aurrean auxe dakar. "Lilluratzen gera gure Naparroa'ko eliz-barrutiaz. Kondairaren aurrean Maria gure Ama kutunaren Jasokunde misterio goratsuenaz, aren siñispenean eta jairik aundiena egitean iraunkorrena azaldu diteketa"

Arijita bera berriz. "Andre Mariaren Jasokunde eguna, napar siñistun guzientzat Birjiña deunaren egunik bikañena izan da".

Iruña'ko Eliz-nagusia (katedrala) Jasokundearen omenez jaso da. Saturnino deunaren bidez erain, ziren Jesus'en berriak Napar-errian. Egi oiekin batean Jainko gizon egiñaren Ama Maria ere ezagutu zuten. Bienganako maitetasunak biotzak sututzean, Ama Birjiñak laxter izan zuen Iruña'n aren izeneko eliza. Antzin-antziñekoa da Eliz nagusiko aldre-erdian egundaiño iraun duen Ama Birjiñaren irudia. Au Leire'ra eramana, mairuen bildurrez apaizpikugoa ere ara aldatzean, berorrekin batera 200 urteren buruan itzulia zen. Eliz-nagusia Jasokundearen omenez goratua zen eta Iruña'ko apezpiku Santxo'k Naparroa'ko errege Santxo Aundiari eskatu zion, berori berritzeko bear zen laguntza.

1022 garren urtean, Santxo Aundiak bere erreñuko Apezpiku ta Aundizki guziak, Leire berean bildu erazi zituen. Auekin egindako Batzarrean erabakirik, urrengo urtean Iruña berean beste Batzarre aundiago bat egitea. Santxo Aundia, bere seme Ramiro'kin eta aitonen-seme ta Apezpikuekin bildurik, Iruña'ko Eliz-nagusia jaso, ta kendu zitzaizkion ondasunak itzultzea erabaki zuten. Iruña'ko eliz-nagusia lenengoaren oñarri beren gaiñean goratzen asi ziren. Erregearen, Leire'ko Elizaren eta beste eliz txikigo askoren laguntzari esku-erakutsien batzuk erantsi zitzaizkion eta eliz berritzeari ekin zitzaion.

1086-garrenean Roda'ko Pedro Apezpikuak Agustin deunaren legezko Kalonjeak amabi goiengoekin Eliz-nagusirako ezarri zituen. Urrengo urtean Aragoi ta Naparroa'ko Errege Santxo Ramirez VI-garrenak Jerusalem'go Eliz santuaren opaz an egiten zaizkionak Iruñekoari ere egiteko eskubidea iritxi zuen. Abuztu'aren 15'ean, Jasokunde egunean jairik aundien aundiena egin zitzaion Ama Birjiñari.

Iruña'ko Apezpiku Pedro berak 1091-an Jasokundearen Anaidia (kofradia) sortu zuen eta Urbano II-gn. Aita Santuak beraren araudia ontzat emanik, Santxo Ramirez Erregearen laguntzarekin Naparro guzian zabaldu ere bai.

Iruña'ko Apezpiku Santxo de la Rosa jaunak sagaratu zuen, 1127-an Eliz-nagusia. Aragoi ta Naparroa'ko Errege Alfonso Santxez'ek esku zabalez lagundu-ta. Artaxona'ko Lope Apezpikuak 1149-an Zelestino II-gn. Aita Santuagandik iritxi zuen, Lengo Aita Santuak eliz-nagusi oni ta Jasokundeari emandako eskubideak berriztatzea.

Ama Birjiñaren Jasokunde-jaiera, Iruña'koaren antzean Naparroa'ko alde guzietan bizi zen. Muskaria (Tudela'n) 1121-ean Santa Mari Zuria'ren jaiera aundia zuten. Orrega'ko Ama Birjiña'ren Abat-etxea Santxo Azkarrak jaso zuen. Irantzu'koa, berriz, Nikolas Frantzi'ko Benedita'rren Abade, Iruña'ko apezpiku Paris'ko Pedro'ren anaiak.

Oliva'ko Andre Maria Birjiña deunaren Abat-etxea, Gartzia Ramirez zeritzaion Naparroa'ko Erregeari zor zaio. 1134-an goratu zuen Jainkoaren eta Ama Erregiña'ren omenez. Iruña'ko Eliz-nagusiak bezalaxe eliz auek guziak Ama Erregiña'ren omenez. Iruña'ko Eliz-nagusiak bezalaxe eliz auek guziak Ama Birjiñaren jasokundea, aren aurreko egunetik asi-ta goersten zuten bere zortziurrenarekin. Jasokunde bezperatik asi-ta zortziurren osorako laterazko bere otoitz bereziak ba-zitun Iruña'ko eliz-nagusiak. Barbazan Apezpiki jaunaren aginduz esaten ziranak. Beronek eliz-barruti guzirako agindu zuen argitzean, eguerdian eta

illuntzean ezkillat jotzeko Jainkoa-gizon egitez oroitzeko, Angelus otoitza iru Agur Maria'rekin esanez Gure Aita Santu Paulo VI-garrenak ere otoitz ori egitera eragin digu.

Naparroak bere Apezpiku, kalonje ta Erregeak aurretik zitula, Ama Birjiña bere Jasokundearekin gozatu izan du. Ori ageri da aipamen aundieneko elizetaz gañera. LAROGEI TA AMASEI erritako elizak berari eskeñiak direlako, Jasokunde anaidi (kofradi) erri guzietan zegoanaz eta Jasokunde egunerako egiten zirelako artu-eman geienak, kondairak dakarrenaz. Eliz-nagusian iru oroigarri dauzkagu oraindik: Jasokundearen irudia, apostoluekin arkupetan (claustrak) Santxo Azkarrak ekarritako mairuen garaipenezko kateak, eta Jopuen Errosarioa larunbatetan egiten dana.

Zeruetako Ama, zure Jasokundeaz, erruki zaitez Naparroaz!

Kalparregi

Principe de Viana, 1975, uztaila-abuztua, 3. orr.

## LESAKA

"Gurutze bat Lesaka gañean"

Orzeguna da, ta Lesakan ezdago yousere denpora pasatzeko. Egualdia ezda oso ederra, baño alikan ere danok nai gunuke mendira arratsale pasa yuan.

Nora?, galdetzen gera elkarrari. Batzuek toki batera erraten dute; bertziak bertzera, ta ezdakigu nora abitu. Ordun gure lagun batek erraten digu. Zer iduitzen zaizue Fraiñere yuaitia? Frain da mendi bat Lesaka gañean dagona, aundi borz eun metrokua gutxi gora bera. Bi aldiz pensatu gabe, abitzen gera.

Lenbiziko bidia ona dago, bañan abudo yarritzen da gaixtua. Au ezda yousere guretzako, gaztiak bat gera, ta maukak egiñ ondoren, segitzen dugu atzinera.

Bi bide orain agertzen zaigu. Motxena artu ondoren, alletzen gera itxurre txiki batera. Zintzurra busti ondoren, begitzen dugu mendi tunturrara. Urbill iduitzen zaigu, ta denpora auniz espetu gabe, atziñera berriz. Amar minuto ibill ondoren alletzen gera gu nai genun tokira.

Aize otza zabillan, ta txoko bat arrautu ta, berentzen asi giñan. Au abudo akautu genun, ta gurutze ondora yuan giñan solas ta solas. Andikan ikusi genen an, urrutxi, mendi tartean sartuak, lau erriska. Konturatu geran zirala, Lesakakin batean, Naparroko "Bots Erriak" egiten zutenak. Gero begitu ginion Gurutzeari. Batzuek an etziran beñere izandu ta milla galdemodo egiten asi ziran arengatik.

"Au paratu zuten emen -erran zun batek- 1943 aldera. orduan lesakarrak konturatu bai ziran onen biarra bazutela. Amar urte gerogo norbayerek moztu zun beko iskintik ta mendi betxi bota. Iru lesakarren artean berriz subitxo (igan) zuten ta lurrean sartu-lenogo arrizko mai baten gañin zagon- ta utzi, erran bai zioten burdeñezko bat eramien bear zutela abudo. Baño urte aunitz pasatu da ta au emen dago txutik bertzerik torri gabe".

Au erran ondoren, danok isillik gelditu giñan. Norbatxerek erran zun arrosarioa errezatu bear zela. Ta au egiñ ondoren, ya illundua baizen ta, azken agurra egiñ ondoren Gurutzeari, abitu geran berriz etxera, pentsatzen, Gurutze bat mendi tuntur batean, denak ikusi dezaten, dela gure Religioaren gauzik ederrenatik bat.

Koskonta

Principe de Viana, 1967, maiatza, 5. orr.



## LESAKA BESTA ONDOAN

Bi lesakar, besta ondoko igande egun batean, badoazi Meza Nagusira, ta, elkar ikusirik, asitzen dire sola ta sola:

Batek: Kaixo Iñaki, zer moduz?

Bertzeak: Ba, motell! Etzakit zergatikan ote den mundu au orrenen desberdiña.

- Zergatik erraten duk ori, motel?

- Zegatikan? Ez duk ionik ikusi noski? Batzuetan bazkaldu, ta siestatxo bat egin orduko illuna izaten duk, ta beste batzuetan, lan pill bat egin ta oraindik eguzkia gorde gabia.

- Bai? Noiz gertatu zaik ori ba?

- Noiz? Bestetan ez altzaik eguna oso laburrak iduritsu? Neri benpik bai. Ta orain, fabrikan ari naizelikan, luziak berriz.

- Ba, zergatik uste duk au gertatzen dela?

- Etzakit ba. Erranen nitek eguzkiak ere bestak izaten tzaikela ta gero... egunak baizki neurtu.

- A! Ta, aizak i, iak eta bestak aipatu dittuken, nola pasatu dittuk Lesakako besta ok?

- Etzakit ba...

- Zer egin duk lau egun orietan?

- Zer? Denetikan: Partiduak ikusi, zezenan aintzinean ibilli ta... moskor batzuek ederrak eraman itxera.

- Ta andriak ez altzaik yeusere erraten?

- Andriak? Ja! Ni goizeko bi ordutan itxera alletzen neukenean, bera an egoten duken sukaldean kafiari urrup agitten.

- Ordu aetan nola ba?

- Nere aintzinean sartzen duken ta itxera.

- Ta azkeneko eguna, astelena, ongi pasatu izanen duken, ez?

- Zein? Astelena? Ba zera! Beti goguan biamunian lanera yuan bear naukela ta, goiz itxera, motell!

- Ta aste artian?

- Asti artian kontuk yeikitzeke. Goizeko seietan relojuak io izanen zaiken baño... bai zera! Gero semea etorri zaiken eiuka mugitzeko, fabrikako tutua aspaldian yoa zela ta.

- Ta orduan, semea, i baño leen yeiki duken.

- Keba! Orra batere guatzian sartu gabia oraindik!

- I abudo yeiki zaitezen, arek erranta?

- Etzakit. Benpik mutur beltzakin sukaldean agertu nauken, baño andriak ere etzaiken aitz ona ekarri?

- Andria irekin batean guatzetik altxatu al duken?

- Andria? Ze erremedio! Nik orduan ateri nauken oiukin, kentur zioten guatzian egoteko goguak!

- Orrenen gaistua alde, Iñaki?

- Ba, arrazoi pisko bat ere bai. Zerbaitengatik itxeko buru gaittuk!

- Ta fabrikara alletzen?

- Eznin golperik ere yo!

- Zer bada?

- Ikusi balin baduken nere bizkar ezurra!

- Zer gertatu zaiken ba?

- Bezperan zezenan antzinkaldean yarri nauken ta, berak yo ta ankaz goitti bota.

- Ta nola etzaiken nagusik ikusi egon?

- Bai, ek ere bere tokitik altxatzeko gogorik etziteken izanen ta! Gañera, ni rollo tartean, zilo batin egon bai nauken.

- I, Iñaki. Ik emendik ideia puska bertsuak botatzeko. Ia irakusitziak emen bertan bota batzuek ta...

- Ez, ez. Ia bederatzi t'erdia badittuk, ta mezetara yuan bear diguk. Urrenguan botako dittit.

- Ba, orduan, urrenguan arte nere leitzalle maiteok, ta ongi ibili.

Koskonta

Principe de Viana, 1967, abuztua, 4. orr.

## ZER GERTATZEN DA LESAKAN?

Zergatikan. Lesakako gaztiak, igande arratsaldetan, yuaten dira Berara. Irunara edo bertze errietara?

Galde modu au entzuten da auniztan gure erriko zokuetan. Batzuek gauz bat erraten dute; bertzeak, bertzia. Nik, arrazoi bat eman bear dizutet, nere ustez egiazkoa: Danak badakizute, astiak igande bat bakarra daukala. Orrentxen(-)gantikan, gazteak, gure gurasoak nai izaten zuten bezelatxe, nai du ongi pasatu egun bakar ori.

Ek, errian bertan erreintzen ziran, meriendatxo bat lagun artean edo ordu pare bat kartetan aski izaten baizuten.

Bañan, urteak atz'nera baduzi, ta gu ekin batean. Orrengatikan, orain, gazteak toki geiago bear du erreintzeko; ta ezin ukatu Lesakan ezdagola deusere ekintzako. Ez daukagu: zinerik. Garizuman musikarik ere ez, eta bertze milla gauz geiago. Orrela ba, konprenintzen da, nola igandetan gure kaleak eta ostatuak, gazterik gabe gelditzen diran.

Ek, alde batetik, arrazoia daukate. Nola, bertzela, pasatu denpora emen gelditzen balimadine?

Baño, egia da, bertze aldetik begitu ta, ezdugula beñere begitzen gure gurasoak eri. Ezdigute nai ukatu ta beti beldurka dagozi, noiz edo noiz etorriko oteden norbait notize txarren batekin.

Zer egin ba orduan, gaztiak ongi pasatu dezaten igandea, ta gurasoak trankill? Onek, soluzione bat badauka: egin dezagun emen, Lesakan bertan, toki bero bat danantzako, pozgarria izan dedill ta onela eskuratuko dugu gaztiak kanpora yuan gabe bertan gelditu diten.

Koskonta

Principe de Viana, 1967, martxoa, 5. orr.

## BERA

Joaquin Aldabe'tar beratar jatorrak, emendik urrun, Orio'tik illeko "Principe Viana" onetan, berso eder-politik azaltzen badabil, ta negargarria da, emendik, Beratik, iñork ez edatzea esku bat berari, emengo berriak adieraziz, eta orrengatik, iñor ezta bertzerik, ni gaur asitzen zerbait erran naiean, "Larun" izena artuaz; Larun mendia baida Bera'ko erriari, bere izakera ematen diona.

Nor ez da mendi orren tunturrura igan eta an, goitik, ikusten diran oro arrigarriak diralata, pozez atsegindu? Mendi au da, erran genezake, euskal errian diran menditik, ederrenatik bat. Mendi onek elkartzen ditu alde ontako eta bertze aldekoak. Nafarran dago, bañan ageri da Gipuzkoati, Benabar, Zuberoa, ta Laburditik. Bertze mendirik ez da inguru ontan, ainbat ozte, edo yendia bere lepo gañean izaten duanik. Udan, pillaka bere bizkarrean artzen ditu. Askaiñ erritik aterata, goitiraño jatsotzen dan burnibidea badu; eta arat ta onat, 5 eta 6 aldiz egunean, bide orretatik fonicullarra oztez (yendeaz) beterik ibiltzen da. Bañan ez bertze aldetik (Franzitik) bakarrik igotzen dira ozteak mendi orretara, baizik Iruñetik ere, Donostitik eta Bizkaiko erritik biribil aundietan, edo autobusetan ez dira gutxi Bera'ra etortzen direnak, gero bi orduz oñaz emendik Larun-untz yuateko. Ta bidean eramaten dituzten neke eta izerdiak bai pozez txukatuak gelditzen omen dira, an, goitian, azaltzen diran ikuste arrigarriakin: ikusten baidira Belate, Ariko mendiak, Ondarrabi, Irun, Donosti, Doniane, Askain, Biriatu, Bayona ta gañekoak.

Ez da arritzekoa, Iparragirrek alako mendiak eta zelayak ikusirik, bere bertsuetan kantatzea: "ara non diran mendi maiteak, ara non diran zelayak...".

Eta ez da arritzekoa, an goyan, mendi gañean, lenengo denboratan, Irutasun Deunari, Trinidad Sainduari, orduko kristau zarrak eraiki, edo altxatu ziotela elizatxo bat, an, goyan, agurtzeko Jaun-Goikoa ain gauza eder, inguruan, gizonen alde ipiñi edo paratu bai-zituen...

Irutasun Deuna egunean meza eder bat ematen zan, Larun mendi mugako erriko apezak txandatur. Ala urte batean Berako apezak, bestian Sara'koak Askain'go ta Biriatu'koak azkenian. Miña artzen da gogoratzean mendi otan izan ziran gerrak, ainbertze alditan, autsi zutela erri oyetako Kristau elkartasuna, ta elizatxo ura utzia aiñ luzaro, denborakin erori zala oso ta betiko.

Larun

Principe de Viana, 1966, azaroa, 5. orr.

## EUGI (Esteribar)

Azken amabi urte oketan, putzu aundi au dala ta, zenbat aldiz atera ote da gure erriaren izena iruñeko erdal paperetan?

Ager bedi Eugui euskal paper ontan ere; ez putzuaren berri emateko, bi gertakizunen oroimena gelditu dadin baizik.

### Apez berria

JOAN dan larrazkenetik asi ta apezik gabe zagon erria. D. Martin Azpiroz autatu du Gotzaiak D. Teodoro zenak utzi zuen usgunea betetzeko. D. Martin garillaren amazapi garrenean Euguiko eliz lanak egiten asi zan. Bere balio ta esperientzia aundiak baidira, apez lan berria ongi eta aise eginen duelakoan nago.

Etxalekukoa sortzez eta Larraungo Aldaztik etorria danez, euskaldun garbia dugu apez berria, 1942 garrenetik asi ta gaur artio apez erdaldunak izan ditugu Euguin.

Aunitz urtez, D. Martin!

### Monja misiolaria

Monja xar bat xuriz iauntzirik ikusi dugu Euguin agoztuko illebetean. Indiagon-Bordako monja zan. Indiagon-Borda Latxetako zubiaren gaiñeko aldean dagon etxe xuri pollit ura da; pentze, gaztandi, iturritxo ta guzi badauzka ondoan. Monjaren izen-abizenak: Sotera Belzarena Errea; monjeen artean ordea Sor Teodora du izena. 1885-ko azaroaren 9 garrenean sortu zan. "Franciscanas Misioneras de María" deitzen da bere ordena. Berarekin iardukitzeko era izan dugu. Erran dizkidan lenbiziko itzak ok izan dira:

-Ez naike uskeraz mintzetu, arront atzenduik dauketelakoz. Erderaz mintzetzeko ere franko motel nago.

-Euguiko zein etxetan sortu zīñan?

-Indiagon-Bordan. Nere aite erriko Aramenekoa zen Indiagon-Bordara ezkontzaz joana.

-Erritik noiz atera zīñan?

-Emezortzi urte nituelaik, orain dela iruetanogei ta zazpi urte. Euguin D. Ruperto zagon apez; izterra moztu gabe zauken orañik; bordetako eriei komekadure ematen zielaik, arront biguin ta zalui ibiltzen zen. Orduetik asi ta orain artio ez nuen kusi nere errie; lengotik bai aldatuik dagola! Orain dela sei urte Iruñaraño torri nintzen, ta Iruñera joan zitzaizkiden aurridera ta gañerako aideak. Gaurko egunean errextasun aundiagokoak maten tigute gure familiekoak kusteko.

-Euguitik aterezkero, non bizitu zera ainbeste urtez?

-Erroman, Frantziko Marsellan, Argelian eta azken berrogei ta zortzi urte oketan Tunezen; gaurko nere bizi lekue Tunezko Kasserine deitzen den erri berri aundi bet da, beitiko aldean, deserture urbil. Tuneztarrek papera iteko fabrike aundi bet bereartan daukete.

-Leku oietako mintzaerak ere ikasi dituzu?

-Bai, italianoa, frantsesa eta arabea ongieski dakizkit.

-Ia urbillen aldian etortzen zeranean ikusten dugun elkar.

Monjatxoak eskua zeru aldera goratu ta erran du:

-Urbilen aldien an.

-Itzuli ongi Afrikera, Sor Teodora, eta an edo emen ikusi arte, agur!

## MUZKIZ (Imoz)

Bein batean muzkiztar iru gaztetxo -*Alkateneko Jesus, Martieneko Martin* eta *Migeleneko Benardo*- Klaretarren ikastetxera eramán zituzten. Nafarroko erri geienetan noizean-bein auxe gertatu da.

Iruék asi eta iruék amaitu zituzten ikasketak; bai eta apez ordena artu ere.

Apez lana Euskalerrri'tik kanpo egiten ari dira. Panamako Kuna arraza berexi aren alde, ogei ta ameka urte oketan, bere osasun, indar eta jakinduri *Erize'tar Jesus*'ek ixuri ditu; jende aien izkuntzara liturji idatziak itzultzeko, euskerak mesede aundia egiten omen dio.

Garbisu'tar Martin Españako ego aldean lan ta lan bere bizia pasatzen ari da; Barcelonan eta Argentinako Buenos Aires'etan Misio Sandua ematen izandu zen; Venezuelan ere iru urteko aldi bat misiolari egin zuen. Orayen'dar Bernardok berriz, Canarias, Malaga eta Cuban urte zenbait egin ta, Mexico geiena, an ta emen Misio Sandua emanéz, ibilia du.

Joan dan udan iru misiolari oek beren sorterrian egun batzuek egin zituzten. Berregei ta bederatzi urtez eredaldunen artean bizi, eta ala ere beren gogoa ta poza Muzkitzen egunero meza euskeraz ematea izan da. *Aita Jesusek* irakurgaiak aurretik ongi prestatzen zituen. *Aita Martin*, mezaren egunerokoa eta kanona errateko errextasuna bereganatu artio, irakurri eta irakurri aritu zen. Onelako saioaren bearrik ez zuen *Aita Bernardok*; euskera guk baño obeki irakurtzen du; txikitan ikasitako gure izkuntza, ongi landua dauka; bi jaietako mezetan erri guziari egin zizkion itzaldia, bai bikañak! Bere abots atsegiñaz lagundurik, Muzkizko euskeraz erran zizkigun adierazi nai zituenak.

Euskeraz mintzatzen obeki ez dakitelakoz, muzkiztar misiolari zintzo, jakintsu eta euskalzale okek lotsa pitin bat sentitzen dute. Erakuspen ederra euskeraz mintzatzea "atrasoa" dala dioten euskaldun frankoentzat.

Emilio Linzoain

Principe de Viana, 1972, otsaila, 7. orr.

### Artzaiak mendira

Negua bota degu. Ezta otz-otza izan baño naiko euri artuak dira, Gipuzkoa aldi ortan, ballara ontako artzaiek. Emen ikusi ditugu, jun dan egon oitan beren artalde aundi ederrei kontu aundi artuz. Aralar-mendira ta Aundi-mendira, alimoz beterik, udara pasatzera igo dirala.

Motellek! Bazeok Araitzen ardi-kopuru bikaiña!!

¿Nork esan du artzaintza moteltzen dijoala? Araitz-en beintzat ezta olakoik!

Udara luze ederra pasa dezatela mendin, ardientzat naiko belar izanik, napar-miñik eta onelako beste kalteen arrastoik gabe!

### Gure umeak eta euskera

"Coca-Cola" edari-etxeak eratuta txapelketa polita izan da orain gutxi gure Iruña zarrean. Naparroko nexka-mutil euskaldunentzat, euskerazko norgeiago edo txapelketa polita egin berriak dira. Araiz-tik junak zenbait nexka-mutiko, ta Intzekoa bat eta Askaratekoa bestea, bi nexkato, sari ederrak irabazita etorriak diran lengoan, pozez beterik.

Entzun detenez izugarri ederki egin emen dute beren idazki edo ixkribu-lana. Oso txukun; euskera garbi-garbian; eta txuxen, letra guzik, okerrik gabe emanda.

Araiz-ko erreka zokotan, txoriak kabi-miñez kantari ari diran bezelaxe, nik ere udaberri eder ontan, Intze-ko "Ansone"ko ta Askarateko "Gorostiaga"ko nexkatx euskaldun txukun biei, nere zorion-kantarik ederrena eskeintzen diet.

Eutsi, eutsi, Araitz-ko nexka-mutikoak gure euskera zarrari. Gure-gurea da ta. Gure etxean beintzat, Mallo ondoko gure etxe zar ontan beintzat, nere illoben illobak ere euskeraz ariko dirala jokutzen det, urteak eta usteak pasata ere. Goibideari dagokionez, aberastasun aundiena euskera degula oarturik bai gaude aspalditik etxe ontan.

### Alkarrizketa

- ¿Aizak Joxe. Jakin al dek gure umeak, Irurtzunera bialduko bear ko dizkiagula eskola ikastera?

- Bai. Zerbaiten zurrumurrua ba zetiak!

- Obe uke, eskola ori bear-bearrezkoa baldin bauk, gertuxeago, Lekunberri-n edo ipiñiko balute.

- Bai. Lekunberri-n, edo Betelu-n.

- Baditek or gure erri-gizonak zertan jator saiatu!

- Bai. Ala-uk.

Mallopeko Kukua

Principe de Viana, 1968, ekaina, 5. orr.

## ARAITZ

Uztegi ta Intze-ko erreka zulotan kukua asi berria degu, "kuku" ta "kuku" kantari... ta aspaldi ontan muturik egondako beste oni zeozer Araitz-ko berri (etena zabaldu) emateko gogoia piztu zaio...

Badirudi negua, noizpait, amaitua dala aurtengoz. Luze joan da, ta zital xamarra. Udazken luze-gozaoren ordañak izan ditugu. Ta udaberriko zati ederra, egoaldi otz eta euritsuz ongi ornitua pasa bearren izan gera arazitarrak. Ta, jakiña, mallo-malkorretan eta Aralar-mendian elurte dexenteak eta iraute luzekoak. Motellek; eztuk negu ontan giro izan noski San Migel, Guardetxe ta, Igaratzako kaxko goitu aietan!!

Orain, berriz, kuku-kantekin batera, artzaiek, ere trasteak bilduta, asiak dira poliki-poliki beren artaldeekin Aundi-mendi aldera ta aurki Aralar mendi aldera larre gozo aietan udara ongi pasatzeko uste osoz eta itxaropenez.

Bejoandaiela gure Araitz ontako artzai jatorrei.

Larri ta estu naiko ibilliak izan gera Intze-ko errian jun dan otsail-martxoko sasoi ortan. Lau borda eder, iñoiz pamili-etxeak izanak, erre ta kixkaliak izan baitira, gau-lanezko jokabide makurrean.

Eskerrak, gaizkillea arkitua izan dala ta orain auziaren etena erabaki arte, giltzapean nolabait bere errua zuritzen ari dala.

Alkate berria ere badegu Araitz-en. Zenbait urtetako bere txanda osaturik, Askarate-ko "Mokoroa"ko nausi Erramun-ek, agintea pasa berria dio Gaintze-ko Juan, "Otselizarraga"ko nausiari. Izango du onek, naski, zertan saiatu ta alegindu, arazitarrak nai bezela, Araitz-era electrica-indarra bear dan neurritz eta segurantziz eldu araziz, olako zorionik ezagutzekoak baldin bagera.

Izan ere, exkax gabiltz electricaz Araitz-en aspaldi ontan. Oso exkax! Udarán, agortea dalako... ta beste askotan, zergatik garbi jakin ezta... Goierriko lau errieri ukoaldi ta mozketa latzak egiten dieztelako, oso exkax gera Araitz-en argi-electricaz. Ta gaurko egunean, jaunak, ezin gure etxeetan nunnaikoetan diran aurrera-bideak prestatu, bear-bearrerko elektrika-indarra izan ezik.

Ekin bada ballarako agintariak... ia eldu den udarako, Araitz-en argi-kontuak aurrera bide egokitik egiten asiak diran... Nik baietz esango nuke... Gogoia ta bearra eztira palta beintzat!!

Bero-bero emen dabiliz Askaratearrak ango eliz ederra barrendik edertzen eta txukuntzen... Diotenez, izugarri dotore geldituko omen da, ta aurtengo Sanpermiñetarako-edo, lan guziak egiñak izango ote dituen etnzun degu... Gora Askarate... ta gora askaratear pizkorrak...

Mallo-peko Kukua

Principe de Viana, 1970, maiatza, 5. orr.



## ARAITZ

Araiztarrak kalean

Badegu, bein eo beste, araztarrok Tolosa-ra, Iruña-ra ta beste olako kaleerritara juan bearra. Jakiña, ez al gera beti-beti, alde batetik Malloa ta bestetik Elostta ta Santa Barbara, erbesteak batere ikusi gabe biziko...!! Beisoka erosi bear dala..., sega-kirtena bear degula..., aizkora berria ondo etorriko zaigula... aitzekia etzaigu palta izaten...!

Ala, lengoan, jetxi naiz, segadora bat ikusi bear detala-ta. Tolosa-tik beira ta... bat-badean non topatzen detan Joxe, nere aspaldiko lagun-zar Joxe!! Araiztarra bera, ni bezela. Baño ogeita bost urte oitan, Araitz-en andra artuta, baserriko alaba; bera basarritar jatorra zan bezela, kalea-zuloan bizi dana:

- Pijo, Joxe!!
- Bai motel... ementxe gaituk; zartzen eta txartzen...!!
- Bejoandaikela... ta emaztea ondo?
- Bai, oso ondo!!
- Semealabarik bai al dek?
- Bai. Sei. Ara or bi, etxera dieztela!

Bi gaztetxo, nexka-mutillak. Amar-amabi urtekoak.

- Egun on, gaztetxoak! Ongi bizi altzerate kalean? Ez al dezue neekin Araitz-era etorri?

- No sabemos vasco!

Txundituta gelditu nitzan... "no sabemos vasco", araztar senar-emazte euskaldun jatorren seme-alabak!!!!

Egun ortan bertan, aurreraxeago, nexkatx apain bat ikusten det. Apaña, polita, oso ongi jantzia, "señorita" paregabea... Ongi begiratu diot, eta..

- Zu ez al tzera baño Joxepita? Araizko, arako etxe artakoa...? Koxme nere lagun zarraren alaba?

- Bai, alaxen naiz.
- Ta emen bizi al tzera?
- Bai. Ementxen, iru urte auetan!
- Ta zertan ari zera?

- Badakizu. Maixtra ikasi nun. Ta orain emen, maixtra nago. Euskal ikastola batean, euskera erakusten, eta euskeraz nexka-mutillak ezitzen. Etxeko sukaldean ikasi nuen euskera ederrari zor diot nik gaur ongi irabaztea ta ongi bizitzea. Kale-erri auetan gero ta geyo dira euskera ikasi ta euskeraz itz egin nai dutenak. Ta ni bezelako maixtrak, gerez euskaldun jaio ta euskera mamiz umetandik ikasitakoak, eskabide aundia degu ta gero aundiayagua izango degu...

- Ongi da, Josepatxo. Oso ongi... Asko poztutzen naiz!!!

Arraitz-ko gurasoak! Ez izan zabarrak! Seme-alabak erderaz ikastea ongi dago!  
Frantzes, alemana, inglesa ikasten ba dute... oso ongi dago!!

Ez dezatela, baño, orregatik, euskera aztu!!!!

Eutsi dezagun Araiz-en euskera!!

Gure "fantasia" ontan, "baxaka" xamar izatea bear du. Utzi alde batera "sesioak". Izan gaitezen "marrajo"ak. Araitz en euskera indarturik "ezkillak eta adarrak jo" ditzagun. Inguru errietako guziak, euskaldun zintzo jarraitzen degula ta jator jokatzen degula ikusi dezaten!!!

Mallopeko Kukua

Principe de Viana, 1968, martxoa, 5. orr.

## ARAITZ

Aurreta ta atzera Araitz-en

Araitz-ko berri ez ba-dakizue, ara emen gu nor geran, esaera zar batek adirazita... Ta "esaera zarrak egik die" egi bada, kontuan artu bearko da onoko "Araitz-ko Epistola" au:

Atallo-koak, baxakak  
Arribe-koak, fantasioak  
Azkarate-koak, adar-jotzalleak  
Uztegi-koak, sesiozaleak  
Gaintze-koak, ezkil-jotzalleak, eta  
Intze-koak, marrajoak.

Aspalditik dakigu Araiztarrok "seiko" onen berri.

Garai batean zazpi erri emen giñan Araitz-en. Betelu (sorgin guzin ikullu) Araitz emen zen ordun. Baño, aurki irureun urte dirala edo, ballara utzi ta geroztik erri-bakar, erri-berezi, egiten du Betelu-k. Baño, gaur eta aurrerantzean, Araitz bezela joko det Elostapeko gure erri anaia.

Jainkoa-k daki noiztik bizi geran emen Araitz ontan. Emen ari gera beintzat. Jo ta ke. Udara ta negu. Goiko Jaunak, otz aña estalki ematen baitu.

Emen ari gera: Beiak dirala, ardiak dirala, belarrak dirala, basoa dala, Tolosako perian gauzak gora egin dula..., zekorra ikullun merke saldu ta aragia arategin oso galezti dagola..., baserrin ongi kostatako esnia, merke xamar utzi bear degula erosleeri..., morroi konturik ezin aipatu ditekela...

Alakoak dira, emen, Araitz-en gure solasak.

Baña... alaz guztiz, aurrera goazela esango nuke; geldi-geldi, baño aurrera: al deguntxoan etxeak txukundu ditugu..., ikulluk, curioso lejira", au da, gora ta beeraka, iruznoa bada..., belarra ta garoa ebakitzeko "segadora" ederrak ikusten dira..., aurki, traktoreak ugarituko diralakoan nago..., egutera ta ospeletan, piñua latz landatu da..., zatak utzi ta zapatabotak jazten ditugu... bruxa baztatu ta "gabardina" ugaritzen asia da...

Aurrera goazela ezin ukatu.

Guzian aurrera joateko, baño, gauz bat da Araitz-en, nere ustez, kontu aundiz ibilli bear deguna.

Gure euskera zar maitea! Etxeko sutondoan gurasoak eta aiton-amandreak erakutsi zigutena!! Araitz-en eta Naparro-an, Jaungoikoa-k daki noiztik egiten dan mintzo bikaña!!!

Araitz-ko bi erritan beintzat, neska ta mutiko gaztetxoen ezpañetan, askotxoetan beintzat, oso gutxi entzuten dan euskera!!

Ontan, atzera dijoaz, oso atzera gañera, araitzar batzu-batzuk.

Noiz ta orain, Donosti, Tolosa, Iruña, Altsasu, ta beste asko ta asko erritan euskeraren alde berealdiko leia ta amoreta sortua dan egunotan...

Mallopeko Kukua

Principe de Viana, 1968, otsaila, 4-5. orr.

## AURITZEKO FERIETATIK

*Argitaratzen dugu "Manezaundi"ren iskribulan bat gure leitzaleek (Irakurleek), Xabier Zubiri Gortari zenaren euskara goxo, pollit eta argia leitu eta txastatu dezaten.*

Gure gizonak, tratu eder bat egin ondoan, sartzen dira ostatuan.

-Hea, Gaxuxa, ekarzkín berehala bi pinta, oberenetarik. -To, Pello, lehen in behar nitek burutik pasatu balin badut ere holako prezio pollita in behar nikeela. Ba dakika zonbatian saldu ditudan Baztandar trabulant galantari?

-Bó, nik dakita, Manez!

-Mila eta berrehun ta berroitamar leberetan biak.

-Gizona; hori huk, hori, xantza. Debria! hiri dirua ahurtaka. Tó, ene lau zikiro horien eroslerik nihundik eztuk ageri.

-Yinen zauzkik, Pello; ehizala arrangura. Guazen, guazen, hea Agoitzeko hura ikusten dugun.

Azkenian agoiztarrak erosten dazko lau zikiroak Pellori, eta berriz ostatuan sarturik, eta bizpahiru pinta hustu ondoan, abiatzen dira etxealderat egundainoko mozkorrarekin, hordi arraildiak, doi-doia xutirik egonez, besarkatuak, bideari zehiarka, harat-hunataka, irrintzina eta kalapita gorrian.

Ilun beltzian, Gorosgaraiko lasterbide patar artan, bide ixtil eta lohitsuan lerraturik, firristan bi gizonak badoazi maldari behera itzulipurdika, eta sasi baterat sartzen dira oldar gaitzian. Azkenian loale pizu batek garaitzen ditu, eta gaua an iragaiten dute.

Biharamunian, goizeko izotzño batek iratzarrarazten, eta buriak arindurik, emeki xutitzen dira.

-Atx! Pello, ez dikiat zer debru dutan lepo huntan, arras nekez higitzen ahal diat burua.

-To, nik ere, Manez, sahets huntan, gerruntzian, min aundia diat. Ba, eta sudurrian ere badiat zerbait...

...abiatzen dira berriz bideari, oraikoan xuxenkiago, eta azkenian, eguerdi airian sartzen dira bere etxetan, etxekanderiak berantetsiak zaudelarik beren etxe aitzinean, zerbait gertakari itsusi igurikan eta herabeen.

-Bana errak, hi, Manez: hori dea etxeat jiteko tenoria? Alaintso! ze tresna dugun etxean! (Eta ahotik ateratzen zaizko emazteari elausturia bizian itz larrienak).

-Alo, alo; nai duna ixilik egon. Badinat aski egungo.

Eta hitz horien ondotik, Manezek sakelatik ateratzen ditu diru-paper yoriak, eta emaztearen eskuetan ezarririk, erraiten dako erdeinuz:

-No, altxazkin; ni banian oherat akitia eta trenpe txarrian nun.

Diruaren boterea! Holako diruketa ederrak emaztearen kopeta iluna argiarazi zuen; eta begiak pindarre, ahurrian tinki tinkia atxikiz, badoa beiaeren eta aretxaren sari ederraren gordetzerat armairuko xoko kukutuenean.

.. bere senarra ikustean ohean zabal-zabala lo zurrunga ederrenian bere baitan dio:

-"Yinko huna! Izan diteken senarrik gisakuena eman daazu, Yauna".

Manezaundi

Principe de Viana, 1967, iraila, 2. orr.

## ENRIKE ZUBIRI "MANEZAUNDI"-REN BI KARTA AITA DONOSTIARI IGORRIAK

AITA DONOSTIA-ren ARTXIBO edo AGIRITEGI-ko gordezaille dan Aita Jorge Erriezukoak Luzaideko seme zintzo eta euskal izkiribitzaille jator zenaren bi karta igorri dizkigu "Principe de Viana"n argitaratzeko; uste dugu, Aita Erriezukoak uste duen bezelaxe, "Principe de Viana"-ren irakurleek atseginez irakurri egingo dituztela. Bi karta hauk Aita Jose Antonio Donostiko seme, kaputxino agurgarri eta musikarari famatu zenari zuzenduak izan ziran 1934 urtean. Paper edo agiri jakingarri hauek merezia dute argitaratzea denok ezagutu ditzagun.

Esker aunitz Lekarotzko Eskolategian beti lanean dagon Erriezuko Jorge Aita Kaputxino Agurgarrieri.

IRUÑEN, Otsaillaren 4-an, 1934-an

Aita Donosti begirunekoari

Atsegin gochoenarekin irakurtu ditut zure hitz amultsuak. Ene eskual sailek ez dute garrantzi haundirik. Gerthatzen da idazle gehienak ez baitira sortzez eskualdunak, ez baitute eskuara ikhasi ohakoan (cuna), bere ameen bulharreta, erraiten den bezala, hortakotz ez dute gure trebetasuna. Nik ibiltzen dutan eskuara ez da liburuetan ikhasten ahal. Horren mamia, itzulikak eta erroak ene herritarren arthean ikhasiak ditut.

Galdegiten dazu hea zoin diren Luzaideko dantzak. Hangoak dira Yantza-yauzia, Yantza luzia eta Bolant-yantza.

Bolant-yantza hau ihauterietan (carnavales) edo karrosa bat egiten dutelarik dantzatzen da. Karrosa hori da mascarada mat (karakotchak) egien dutelarik trufa (burla) gerthakari irringarri batez nahi dutenean egin. Nechkato bathen haur egitea, bi alargunen eskontzea: zahar bat nechkato gazte batekin ezkontzen delarik, eta holako bertze. Bolantak dira muthil andana bat soineko churiez yauntziak, eta chingolaz (cintas) eta edergailuz aphainduak. Badituzte bizpahiru aire.

Yantza luzia iduri zaut ez denetz Grecia-ko ohiduretatik hartua. Lerro luze bat, nechkato eta muthikoak aldizkatuak, eta mokanesez (pañuelos) eskuz esku elgartuak. Aitzinekoak eta gibelegoak eremaiten dute eskian, besoa altchatua, makhil bat udarez eta chingolaz betheak. ¿Ez othe da hori Grecia-tarren kirso-a, eta besta hori Céres yainkosaren ohoretan egien zituztenetarik?

Aita Policarpo-ri ene esker khartsuak, nahiz ez dutan haren ezagutzaren ohorea.

Eta zuk onhartzkitzu ene esker eta goraintzi amultsuenak.

En. Zubiri

IRUÑEN, Neguilaren 29-an, 1934-an.

Aita Donosti-ri,  
Lekarotzen

Ene begirune edo errespetu guziko yauna.

Angel Irigaray, "Irular", gure adichkideak eman dauzkit zure partez goresmen bizienak ene idazti eskuarazkoak hain gochoak kausitu dituzulakotz. Zure amultsutasunari itzultzen ditut bihotz zolatik ene esker beroenak. Zu bezalako gizon argitu eta biphil baten goresmenek ohore haundia egiten daate. Milesker, yauna.

Aspaldidanik gogoratzen zait ene idazti hoberenekin liburuchka baten egitea, sari merke bathean saltzeko gisan. "Irularr'ek" ere hori bera erraiten daat: behar nukela liburuño batian bildu, sail pollitenak hautatuz. Bainan ez baitakit izain duen arrakastarik, ez niz ausartatzen chahubide hortan sartzerat.

Orai barka nezazu, yauna, zure musikatzalezko eremuetan ene sudurraren sartzea, bainan eskual-herriko zer guziak suharki maite baitituz, horra zergatik ausartatzen niz ene chede bat zuri ikhusaraztea.

Badakizu Chubero, Benabarre eta Laphurdiko dantza hutsa dela Yantza-yauzia (*le saut basque*). Enetzat, (barka nezatela Baztandarrek) Mutil-dantza handik hartua da. Heien soinuak edo aireak eskualdun errokoak dira. Yantza-yauziaren aireak deitzen dira Laphurtarrak, Chuberotarrak, Bachenabartarrak, Luzaiderrak, Chibandriak eta Muchikoak.

Huntakoak igortzen (baltzen) dauzkitzuz paperrian finkatuak ikhus ditzazun nolakoak diren. Eta beiratu (gordetu) nahi baituz, othoitzten zituz ikhusi ondoan itzul nezazun, aitzinetik nekheaz eskerrak emanik.

Ze lan ederra egin ahal zinezake zuk idazti batian dantza horietaz mintzatuz!

Barkha berriz, Aita Donosti, eta badakizu zonbatetaraino ohoratzen nuten zure laudoriak ene idazti chumeentzat: "Manezaundienak".

Amultsuki emaiten dauzkitzuz bihotzeko eskerrak.

Enrique Zubiri

Principe de Viana, 1968, azaroa-abendua, 3. orr.

P.S.- Behin mintzatu nintzan zurekin, orai duela hamabost bat urthe, hemen, Iruñen, Antonio Irurzun ene ahaide zenarekin zinelarik. Avenida Carlos III, 16.

## AIZKOLARIAK

Yoan den Uztailaren 9'an Iruñe'ko zezen plazan Espainia'ko aizkolarien Txapelketa yokatu da. Milaka yende bildu ziren aizkolari eskualdunen borrokaldia ikustera eta Telebistaren bidez zenbat mila edo millon ote ziren gudukaldi au ikusi zituztenak. Aizkolarien txapelketak izan du arrakasta.

Lau aizkolari izan dira beren indarrak negurtu dituztenak. Nafarroatik, Latasa sunbildarra eta Astibia leitzarra eta Gipuzkotik Arriya azpeitiarra ta Zeberio ataundarra.

Berekoetxea gorritiarra erixko zagola ta ezin-etorria adierazi zuen, haren ordeze Zeberio aritu zen.

Aizkolari bakotxak 12 onbor moztu beharrak zituen, denak batean asi ta lan guzia zenek lasterrago egin: lau kana-erdiko (1,25 m. itzulia), lau 60 ontzako (1,40 m), bi 72 ontzako (1,67 m), eta bi 80 ontzako (1,86 m). Udara ezta aizkorarako aproposa, lan bortitza da eta beroarekin gizonek ler egiten dute, neguan aizkolariek sasoin gehiago izaten dute bai.

Trabesak len lenbizitik Latasa'ren alde zauden 100-60 ri uiu egiten zutela.

Lendabiziko enborra Zeberio ataundarrak moztu zuen lasterrena, bigarrenari bortz segundoen alde atera ziolarik. Bigarrenean Latasa lenbizi 18 segundoen abataillarekin, gero irugarren, laugarren, bortzgarren eta seigarrenean Astibia aintzinean baino Latasa urbil urbilik yarraikitzen ziolarik, sunbildarra lanean aisa ari zen eta zazpigarrenean aintzinaldia harturik gisa hortan lan guzia bururatu artio 12 enborrak porrokatu. Latasa Txapeldun.

Hemen Txapelketaren xeetasunak:

Txapeldun Latasa: 1-3-30tan - 2360 aizkora kaska.

Bigarren Astibia: 1-6-27tan - 2237 aizkora kaska.

Irugarren Arriya: 1-11-23tan - 2793 aizkora kaska.

Laugarren Zeberio: 1-15-45tan - 2565 aizkora kaska.

Zorionak Latasa txapeldunari, sasoin izigarrian dago eta zalla izanen da horrerik Txapela kentzea.

Astibia ere agitz ongi, berak dio etzagola ongi prestatua eta erran du sei ilabeten buruan Latasa'ri yokatuko diola. Apostu hori ederra izanen litzake eta kasu Astibia gaztearekin, denbora frexkoakin beldurgarria izanen baita. Baita ere diote Berekoetxea prest dagola txapeldunarekin buruz buru yokatzeko. Ikusiko dugu espantu horiek guziek zertan gelditzen diren, denbora lekuko.

Arriya gaztea aizkolari ona da 21 urte bertzerik eztitu ta hoberenen artean dugu, Iruñen suerte txarra izan zuen, onbor gaixtuenak eta zallenak hareri tokatu baizitzaizkion. Zeberio ere ongi, lehenbiziko enborrean aintzinean zoaien bainan gero gibelasko gelditu zen, ala ere bere lana gustagarria izandu zen.

Espainiako aizkolarien Xapelgoa yokatu da eta eskualdunen indarrak eta ahalmenak erresuma guzian ezagutu dituzte.

Mariano Izeta

Principe de Viana, 1967, abuztua, 6. orr.



## AIZKOLARIAK

Martxoaren lenbiziko egunean bertze apostu bat izan dugu eta oraingoa Tolosa'ko plazan. Mindegia ezkurratarra eta Ayerbe ataundarra buruz-buru zein-gehiagoka ari izanak dira aizkorian eta lasterka. Beren eginkizuna hauxe zen:

Biek batean asi ta zeñek lasterrago egin, lehenik zortzina onbor metroko bueltakoak ebaki eta ondotik zazpi kilometro lasterka.

Zortzi egurren lana naparrak 10 minuto ta bortz segundoz egin zuen eta gipuzkoarrak amairu minuto ta zazpi segundo behar izan zituen lan hori bera egiteko. Egurren lana bukatu ta berehala Mindegia lasterka asi zen eta Ayerbe'k aizkora lana akitu orduko, Mindegia'k bazituen zortzi buelta emanak plazari ea 800 metro kurritu zituelarik. Hala ere "ehun ogeiri" Ayerbe'ren alde uyu egiten zuten. Ataundarra korrikalari ona da eta aunitzek uste zuten zazpi kilometroak osotu baño len arrapatuko zuela, baño etzen hori gertatu, zortzi buelta kentzea ez baita yosteta. Mindegia'k nonbaitetik indarrak aterata zazpi kilometroak osotu zituen Ayerbe'ri ogei metroen bentaja atera ziolarik. Doi-doian ezkurratarrak irabazi.

Mindegia irabaztaleak, metroko zortzi egurrak eta zazpi kilometro 37 m. ta 37 s/tan.

Ayerbe galtzaleak, lan bera 37 m. ta 43 s/tan.

Apostu ederra banan yende gutxi plazan.

Migel Mindegia Ezkurra'koa Apirillan 21 urte bete beharrak eta 81 kilo.

Jose Ayerbe Ataun-goa. 27 urte bete berriak eta 71 kilo.

Gure goresmen bizienak bi butilleri, eta batez ere eskurratarrari.

M. Izeta

Principe de Viana, 1970, martxoa, 5. orr.

## AIZKOLARIAK

Errege egunean Donostia'ko Trinitateko plazan aizkora apostu eder bat yokatu zuten. Erramun Latasa sunbildarra eta Arria azpeitiarra buruzburu ari izanak dira, bakoitxak seina kana-erdiko onbor ta bertze seina 45 ontzako ebaki beharrak zituztela, biek batean asita lan guzia zeñek lasterrago egin. Latasa'k izan zuen egurra aukeratzeko eskubidea eta onbor bigunak ekarri omen zituen plazara, hortaz bada bi aizkolariek eginikako marka guzien ganekoa izandu da. Gudukaldi ederra eta aski atakatua, bi mutillak beren kuraia ta ahalmen guzia han erakutsi zutela.

Latasa'k irabazi zuen apostua. Arria'ri 28 segundoen aldea atera ziolarik. Sunbildarrak berrogei urteak beteak ditu bañan halare oraindika hoberenetakoa dugu. Errege eguneko lan klase baterako zenbat dira bera ainbatekoak? Bai ote da norbait? Marka izigarri ona egin omen zuten, garai batean siñetsiko ez lutekena. Bainan hor daude erlojuak aizkolarien eginkizunaren lekuko.

Hemen egurretik egurrera aizkolarien markak:

<b>LATASA</b>				<b>ARRIA</b>			
1	45 ontzako	1 minutuz		1	45 ontzako	1 minutuz	
2	45 "	2,04 "		2	45 "	2,04 "	
3	45 "	3,13 "		3	45 "	3,34 "	
4	54 "	5,25 "		4	54 "	5,32 "	
5	54 "	7,37 "		5	54 "	7,35 "	
6	54 "	9,43 "		6	54 "	9,50 "	
7	54 "	12,03 "		7	54 "	12,15 "	
8	54 "	14,22 "		8	54 "	14,35 "	
9	54 "	16,27 "		9	54 "	16,50 "	
10	45 "	17,49 "		10	45 "	18,22 "	
11	45 "	19,25 "		11	45 "	19,43 "	
12	45 "	20,50 "		12	45 "	21,18 "	

## PILOTARIAK

Urtarrilaren lendabiziko igandean eman zioten asmenta "Yoko-Garbi"ko pilota Xapelgoari. Partidak Oronoz'ko Maristen pilota plazan yokatzen dituzten eta Xapelgo hontan 24 pilotari-bikote ari dire iru malletan berexiak, lenbiziko, bigarren ta irugarren kategoria, malla bakoitxean zortzi bikote direlarik. Gure eskualdeko eta mugaz-bertzaldekoen arteko zein-gehiagoketa dugu hau eta hemen bilduak ditugu bi eskualdetako "amateur" deitutako pilotari hoberenak eta xixterazko yokoan ongi ari direnak.

Hemen pilotariak nongoak diren: Ezpeleta, Bayona, Hendaya, Baigorri, Hasparren, Ainhoa, Donibane-Lohitzun, Urruña, Irurita, Oronoz, Nabarte eta Arizkungoak. Anaien arteko Xapelgoa, Euskalerriko amabi herreitako pilotariak elkarren artean yostetan hemengoak eta hangoak bat eginik. Azken partidak Martxoaren 22'an yokatuko dira eta

bizkitartean Oronoz'ko plazan igandero izanen ditugu partidak. Gauzak ongi gerta daitezela eta Txapela hoberenarentzat.

M. Izeta

Principe de Viana, 1070, otsaila, 5. orr.

## AIZKOLARIAK ETA PELOTARIAK

Behin eta berriz Tolosa-ko plaza izan da aizkora apostu haundi baten lekuko. Joan den Otsailaren 18-an ari izanak dira buruz-buru eta zein-gehiagoka Arria azpeitirra eta Latasa sunbildarra bi euskaldun aizkolari famatuak. Aizkolarien eginkizuna: Arria 21 egur kana-erdiko eta Latasak 20 negurri berekoak. Biek batean hasi eta onbor guziak zeñek lasterrago erbiditu. Gure euskaldeko gizonek Latasa-ren baitan uste osoa zuten eta jokoa hasi aurretik trabesak ere haren alde "Ehun irurogeiri" ohiu egiten zutela. Lanean asi orduko Arria gazteak agertu zituen bere indar ikaragarriak eta trabesak berehala itzulikatu ere, orduan "Ehun borregeiri" azpeitiarraren alde jarri zirelarik. Arriak lenbiziko onborretik aintzinaldia hartu zuen eta gisa hortan 21 egurrak moztu arte, apostua airez-aire irabazirik eta Latasa oraindik 15 garrenean ari zelarik. Azpeitiarra ohore guziekin irabaztale.

Urteak ez dute barkatzen eta zaharrek gazte sasoikoaren aurrean burua makurtu behar. Beti badira Jauanren Jaunak!

Arria irabaztaleak 21 egurrak 76 , minutu eta 30 segundutan erdibitu zituen. Marka hortan ageri da egurren zailtasuna, zeren samurrak eta beratzak gertatu balirezke, azpeitiarrak 55 minutu askiko omen zituen lan guzia bukatzeko. Latasak zauken egurra aukeratzeko-eskubidea eta hortan uts egin zuen, egun samurrak aukeratu beharrean zailak aukeratu zituen eta hoietan leher egin.

Basarri jaunak "Zeruko Argia"n egur hoietaz hau esaten du:

"Bi gizon ikusi genituen lanean gogor eta bulartsu. Etziruditen ordea egur gaiñean aizkoran ari ziranik, txingurearen gaiñean mailluketan baizik. Egur itxura baiño burni itxura geiago zuten Tolosa-n ebaki ziran puskak".

Basarrik garbi aski adierazten du aizkolariak nola jokatu ziren. Horrek badu merezimendu.

Arria-ren adina 27 urte. Pixua 98 kilo.

Latasa-ren adina 43 urte. Pixua 82 kilo.

Arria-ren lana:

Bost kana-erdiko: 14 minutu eta 4 segundu.

Amar kana-erdiko: 31 minutu eta 48 segundu.

Amabost kana-erdiko: 51 minutu eta 23 segundu.

Ogeitabi kana-erdi: 76 minutu eta 30 segundu.

Latasa-ren lana:

Bost kana-erdiko: 22 minutu-tan.

Amar kana-erdiko. 46 minutu ta 42 segundu.

Amalau kana-erdiko: 69 minutu ta 53 segundu.

Hasi zen amabostgarrenean baina orduantxen Arriak lanak bukatu zituela ikusirik, Latasak utzi egin zion lanari.

Zorionak bi aizkolariei, bai irabaztaleari nola galtzaleari.

Igaz bezala aurten ere badugu Pilota Txapelketa eta erran beharrik eztago aurtengo honek ere arrakasta haundia izango duela. España-ko esku-huskako pilota Xapelgo hontan ari beharrak diren pilotarien izenak hauetxek dira:

Lenbiziko maillakoak, RETEGI TXAPELDUNA, Bergara, Erostarbe, Oresa II, Tapia I, Nalda II, Arruabarrena eta Arroyo.

Hiru nafartar, hiru gipuzkoar, errioxatar bat eta arabar bat.  
Bigarren maillakoak: Arozena, Urkiza, Gereñu, Etxarte, Gorostiza, Maiz eta Aizpuru.  
Irakurleek lerro hauek irakurri orduko Txapelketa badoa bere bidean eta urrengoan  
agertuko ditugu partiden gora-beherak.

M. Izeta

Principe de Viana, 1973, martxoa, 7. orr.

## ARDI ZAKURREN TXAPELKETA

Oñate'n egin diren ardi zakurren txapelketak fama aundia artu dute, aurtengoarekin zortzi garrena izan da eta erraten dutenez azkenengo au izan omen da denen gañetik oberena.

Buruilaren 24'ean Oñate'ko errian millaka yende bildu ziren artzain zakur oien Xapelgoa ikustera. Ikusgarri ederra bai eta an bildu zirenak ere gorki kontent. Bederatzi zakur ari izanak dira et aoien artean, bi gipuzkoar, bi nafartar, bizkaitar bat, arabar bat eta iru mugaz bertzaldekoak.

Lendabiziko saioak egin ta ondoan, bigarrenerako bortz zakur berexi zituzten eta azkenik bortz oien artean, bi aukeratu zituzten oken artean oberena izendatzeko. Azken saioan aritu ziren, "Riki" Serafin Etxanobe-rena eta "Txabala" Xabier Okerantza'rena eta bieri eman zabezten lan bera aski polita izan zen. Emen beren eginkizunak:

Ardiek belaiaren bazter batean zauden eta artzaña bere zakurrarekin oienganik urrun belaiaren bertze bazterrean. Artzañaren aginduz zakurrak bear zuen artaldea zagon lekura goan eta ardi guziak artzaña zagon lekuraño ekarri. Gero berriz itzularazi eta belaiaren erdian kokatua zagon kertzolaren barnera sarrazi eta gero kertzolatik berriz kanpora atera.

Bi zakur oiek beren artzañen erranak zuzen zuzen egin zuten ikusliar guziak arritu zituztelarik. Arrigarria zen bi zakur oiek egin zuten lana eta zein garbi eta zuzen bete zituzten agindutako guziak! Juradokoak lanik aski bazuten oberena berexten eta azkenean Auzia gisa untan erabaki zuten.

Irabaztale ta Txapeldun: "TXABALA", Araba'ko Tertanga'ko Xabier Okerantza'rena.

Bigarren: "RIKI", Bizkaiko Mañaria'ko Serafin Etxanobe'rena.

Irugarren: "LAU", Gipuzkoa'ko Oñati'ko Bizente Urtzelai'ena.

Bortzgarren: "FINA", Nafarroa'ko Intza'ko Isaak Ezkurdi'ena.

Seigarren: "SOUMISE", Bases Pyrenees'koa.

Zazpigarren: "FAROU", Alccay'ko Pierre Garikoitz'ena.

Zortzigarren "FIDELE", Urepel'ko Emile Glaise'na.

Bederatzigarren: "CONCHI", Nafarroa'ko Azkarate'ko Mikel Goikoetxea'rena.

Arraza obereneko zakurrari eskeñitako Saria "FIDELE" k irabazi zuen, Urepeldar E. Glaise'na. Bizente Urtzelai'entzat izan zen obekiena apaindutako artzañari eskeñitako Saria.

Gure zorionik maitekorrenak artzain guziori eta besta orren antolatzaileeri. Zorionak berriz ere.

M. Izeta

Principe de Viana, 1967, urria, 6. orr.

## ARTZAIN ZAKURRAK

Azkenengo urteotan Artzain zakurren Lehiaketak edo Konkursoak fama aundia hartu dute Euskal-Herri osoan. Udaran holako ikustetak egiten dituzte probintzi bakotzak bere lurraldeko Txapelketa egiten duela. Bertze urtetan bezala aurten ere Nafarroako Txapelketa Huarte Arakil-ko herrian eginga dute eta erraten dutenez aurtengoa izan omen da aintzineko urtekoak baino hobea, amairu zakur beren artzainekin eta yendea ere bertze urtetan baino aunitzez gehiago. Bai omen ziren bost milla pasa ikusliar.

Arratsaldeko bortz terdietan eman zitzaion hasiera Txapelketari.

Lenbiziko saioan zakurrak behar zuen belai inguru guziari itzulia egin artzainaren aginduari kasu eginez.

Lenbiziko saio hau egin ondoren sei zakur berezi zituzten bertze zazpiak kanpo utzirik. Aurrera pasa ziren: "BETI", "NERE", "NAVARRO", "LISTA", "TXIKI", eta "PITXI".

Bigarren saioa: Belaian bada esi bat arteka batekin eta zakurrak behar ditu ardiak arteka hortatik sartu.

Lan hau egin ta ondoan bi zakur hautatu zituzten azkenengo saiorako bertze lauak kenduz.

Azkenengoa yokatu zutenak: "LISTA" Jose Lakuntza-rena eta "PITXI" S. Fernandez-ena.

Azkenengo saioa: Artaldea belai bazter batean bildu eta belaiaren erdian dagon kertzolaren barnera sartu behar ditu eta gero atera.

Bi zakurrek lan ona egin zuten baina "PITXI" k hobekiago borobildu zuen agindutako lana kertzolaren barnera ardi guziak sartuz eta gero ixtanpatez ateraz.

Mai-burukoen erabakia

Txapeldun. "PITXI", Santos Fernandez, Alsasua.

2gn. "Lista", José Lakuntza, Arbizu.

3gn. "Txiki", Zirilo Askagorta, Lizarraga.

4gn. "Nere", Pedro Ansa, Arano.

5gn. "Beti", Pedro Bengoetxea, Olazti.

6gn. "Navarro", Juan Bengoetxea, Alsasua.

7gn. "Turko", Juan Jaimerena, Erratzu.

8gn. "Txato", Manuel Fernández, Alsasua.

Gero gainerako bost zakurrak:

"LAGUN", Ricardo Goikoetxea, Huarte-Arakil.

"LAGUN II", Ignacio Salaberria, Urbasa.

"LINDA", M<sup>a</sup> Pilar Elizalde, Amayur.

"LISTA", Pedro Ansa, Arano.

"TXIKI", Martin Galarza, Urdiain.

Sari bereziak

Zakur *arraza* hoberenari:

1-go., "TXATO", M. Fernández.  
2-gn., "LINDA", M<sup>a</sup> P. Elizalde.

Artzain *beztimenta* jatorrenari:

1-go., Zirilo Askargorta, Lizarraga.  
2-gn., M<sup>a</sup> Pilar Elizalde, Amayur.

Yendea loriaturik egona da. Zorionak Txapelketaren antolatzaleei. Zorionak ere artzain guziri eta baztandarra naizen aldetik nere goresmen bizienak Juan Jaimerena eta Maria Pilar Elizalde-ri. Segi aintzinat eta datorren urtean berriz.

M. Izeta

Principe de Viana, 1974, iraila, 6. orr.



AURITZ-en

Irailako ilabetearen hamargarren eguna bai gogoangarria Auritz-ko herriarendako. Euskaltzaindia antolaturik eta Auritz-ko Herriko Etxearen laguntzarekin Fermin Irigarai "Larreko" herriko seme, sendakin eta idazle zenaren gorasarrea ospatu da, "Larreko" zena euskal idazle ospetsua kristau on eta egiazko euskaltzaleari merezi zuen omenaldia egin zaio.

Goizean Meza konzelebratua Auritz-ko Elizan amairu apez aldarearen inguruan eta Meza emale Jeronimo Irigarai jauna "Larreko" zenaren semea bi saietsetan bere bi lengusuak zituela. Kantak, itzaldia, otoitzak eta elizkizun osoa ere hunkigarria izandu zen.

Meza ondoan "Larreko" zenaren sort-etxean bere omenez eginikako Oroit-harria agertu zuten. Azkenean "Agur Jaunak" kantatuz amaitu zen oroit-harriaren agertzea.

Gero Auritz-ko Herriko Etxeko Salan Euskaltzaindiaren Bilkura idekia, han agertu zituztela:

Euskaltzainburuaren Agurra.

Intza-ko Aita Damaso-ren itzaldia: *"Larreko"ren garaiko giroa.*

Pierre Laffitte-ren itzaldia: *"Larreko" euskal idazle.*

Eusebio Erkiaga-ren itzaldia: *"Larreko" gizon.*

Eta azkenik Diputazioko Aintzindari den Marco jaunaren itzaldia.

Sala bete betea iendez eta txalo aunitz izlarien ohoretan.

Eguerdian Loizu ostatuan bazkaria bidehun bazkaltiar maiean bildurik. Bazkalondoan itzaldia, Euskal-Herriko zazpi lurraldetako izlariak solasaldi hunkigarrietan denek "Larreko" zena goraiatzuten zutelarik.

Arratsaldean herriko plazan Donostia-ko "Argia" taldekoek Nafarroa-ko dantzak erakutsi zizkiguten. Donostiarrek dantzaldi ederra eginik esku-zarta beroak ukan zituzten.

Holaxe joan zen "Larreko" zenaren gorasarrearen eguna. Denen gañetik gure zorionik beroenak Irigaraitarri, aurride ta ahaide guziera Baztan aldetik millaka goraintzi. Eztugu utzi behar aipatu gabe Irigaraitarren artean ditugun euskal idazle jatorrak. Aingeru, "Larreko" zenaren seme zaharrena euskal idazle ospetsua bere aita zenaren iarraikitzaile kartsua eta honen seme Jose Anjel, idazle gaztea bre aitetxi zenaren urratsak ongi ikasirik beti aintzinat gure Herriaren kulturaren alde. Iarraiki hortan gure euskal alorrean beti bururik goratu gabe lanean, gure lili baratze hori garbi egon dadin, lapatinek eta barrabas belarrak landarea ito ez dezan eta xartexak zitua ondatu gabe.

Auritz-en egun zoragarri bat iraganik eta geren bihotzetan bozkarioa ginaukegula etxeratu ginen.

"Larreko" zenaren omenaldia zorientasun osoan ospatu da.

M. Izeta

Principe de Viana, 1972, urria, 8. orr.

## NEKAZARITZA ETA ABEREA

### Azienda-sariketa

Nafarroako Diputazioak antolaturik, goan den Maiatzaren 25'ean azienda sariketa aundi bat ospatu da Elizondon. Goizean eta bezperean ere eurie ler egin zuen eta eguraldia itxura txar ortan agerturik beldurtzekoa zen azienden ikuskizun guziak ondatuko zirela; bainan zorionez eguerdi aintzinean aterturik, arratsaldean eguraldi aski polita izan ginuen. Azienden Sariketak beti izaten dute errekte eta olakoetan yende aunitz biltzen da, batez ere Baztango azienda ederra erakusten denean. Merkatuko plaza ederra ongi apaindurik agertu zitzaikun eta azienda ere gisa berean lerro bere salletan kokaturik ikusgarri guziz ederra izan zelarik.

Sariketa kuntan 224 buru erakutsi zituzten eta oietatik: 4 gereñu, 34 beor. Bei gorri edo "Pirenaica", Zezen bat eta 20 bei. "Parda Alpina" deitutakoak, 7 zezen, eta 33 bei. Ardiak 112 buru. Aketzak "Large White" klasekoak, 13 buru.

Geien geienak Baztangoak ziren bañan Nafarroako bertze lekuetatik ere baziren. Aurten aintzineko urtean baño bei gutiago ziren, bear bada mainguerien beldurrarekin aunitzek etzituzten beren aziendik ekarri izanen.

Arratsaldeko bortzetan egin zuten Sarien banaketa. Aintzinderien artean, or ziren Diputazioko yaunak eta Baztango alkate yauna bere lagunekin.

Irabaztaleak emen aipatuko ditugu.

Gereñuak. "Burguete" klasekoak, iru

urtetik gorakoak

Irurite'ko Pedro Obregozo'rena.

Beorak. 1-3 urtekoak

Lekarotz'ko Pedro Maria Goñi'rena.

Beorak. 3-7 urtekoak

Amayur'ko Migel Maisterrena'rena.

Beorak. 5 urtetik gorakoak

Arizkun'go Pedro Iriarte'na.

Gorir edo "Pirenaica". Zezenak

Irurite'ko Pedro Obregozo'rena.

Beiak. 1-2 urtekoak

Elizondo'ko Jose Larratxea'rena.

Beiak. 2-5 urtekoak

Arizkun'go Fermin Irungarai'ena.

Beiak. 5 urtetik gorakoak

Azpilkueta'ko Meliton Mendiburu'rena.

"Parda Alpina". Zezenak, 1-2 urtekoak

Berroeta'ko N. Arretxea'renak eta

Irurite'ko P. Obregozo'renak.

Zezenak. 2 urtetik gorakoak

Arizkun'ko Justo Zaldain'ena.

Beiak. 1-2 urtekoak

Arrayotz'ko Manuel Oharriz'ena.

Beiak. 2-5 urtekoak

Lekarotz'ko Nikasio Irigoien'ena.

Beiak. 5 urtetik gorakoak

Araiotz'ko Manuel Oharriz'ena.

Ardiak iru adinetakoak baziren. 1-2 urtekoak. 2-4 urtekoak eta 4 urtetik gorakoak.

Iru malletako lendabiziko Sariak, Lantz'ko Tomas Ariztegi'renak irabazi zituzten.

Azienda Sariketa huntan Nafarroako Diputazioak 200.000 pezta banatu ditu.

Baztan'go Balleko Etxeko katastroan sartutako azinden gora-berak emen ditugu:

5954 bei. 2396 zaldi. 35.166 ardi. 8885 zerri. 23.000 egazti.

M.I.

Principe de Viana, 1968, ekaina, 5. orr.

## B. ENBEITA BERTSOLARIARI OMENALDIA

Otsailaren 3-an bertsolariak maite ditugunok gogoangarria igarota dugu Donostia-ko hiri ederrean.

Donostia-ko Turismo Etxeak antolaturik Balendin Enbeita bertsolari bizkaitarrari ongi merexia duen omenaldia egin zaio. Lehenago ere Turismo Etxeak badauzka holako franko eginak, orain arte borts bertsolari omendu dituztelarik. Hoiere izenak: Uztapide, Xalbador, Mattin Lasarte eta Basarri. Oraiko aldiari Enbeita bizkaitar bertsolariarena zen eta aintzineko gorasarre hoiere bezala oraiko honek ere sekulako arrakasta izan du.

"Astoria" antzokia bete bete yar-leku bat ere utsik agertzen ez zela eta ainbertze bertsozale kanpua gelditurik barnean lekuri etzelakotz. Amasei bertsolari ari izanak dira beste eder hontan: Abel eta Kepa Enbeita (Balendinen semeak), Lazkao-Txiki, Agirre, Gorrotxategi, Igarzabal, Lasarte, Lizaso, Etxeberria, Mugartegi, Arregi, Mitxelena, Garmendia, Egileor, Arotzarena eta Lazkano. Amasei bertsolari hauek ager-tokian eseririk eta denen erdian Balendin Enbeita. Gai-emaile Jose Mari Iriondo eta omenaldiaren zuzendaria Salaberria jauna.

Iriondo jaunak bertsolariak ongi eskolatu zituen. lehenik Enbeita-ren omenez bertso bana eta gero elkarrekin, zortzi bertsolari lenbiziko txandan eta bertze zortziak bigarrean denek lan ederra eginik. Gero Enbeita jaunak iru bertso hunkigarriekin denei eskerrak emanik euskaldunen elkartasuna goraiatu zuen. Donostia-ko Udaletxeko konzejal Iriondo jaunak Enbeita jaunari Edergailu bat eman zion, gure bertsolariak bere omenaldi egunaren oroitzapena izan dezan. Azkenik jai-aldi eder honeri bukaera emateko, entzule guziak zutik eta debozio aundiarekin "Gernikako Arbola" kantatu ginuen. Txalo beroak Enbeita-ren ohoretan. Zorionak.

Mattin eta Xalbador ez ziren etorri, eztakigu marra horrek dakartzkien eragozpenengatik edo, beti ere gure bi bertsolariak etzizaizkigun agertu. Jendeak pena aundia hartu zuen eta egia erran bi bertsolari hoiere utsunea nabari zen.

Bertze urtetan bezala entzuleen artean auteskundeak egin ziren, datorren urtean omendu beharra den bertsolaria hautatzeko. Iturri bertsolari bizkaitarra izandu zen hautatua. Bertsolari hau erbaldurik arkitzen da, orai urte batzuk ixtripu bat izan zuen eta arras elbarri gelditu zen. Karrotxo batean ibiltzen dute eta holaxe agertu zen "Astoria"n ere. Iru aurren aita da.

Bazkaria Udaletxeko azpiko Sala aundian 600 bazkaltiarrekin. Bazkalondoa bazen umore sanoa, aurrekulariak dantzan, Kantariak eta bertsolariak.

Egun zoragarria Donostian iraganik eta gure azken-agurra Enbeita eta bizkaitar ta gipuzkoar anaieri egin ondorean bozkarioz beterik etxeratu ginere.

Donostia-ko Turismo Etxeak beste erabaki bat hartu zuen igande hortan. Datorren udazkenean Donostian 70 urtetik gorako bertsolari zahar guziak denak batera omentzeko erabakia hartu zen. Ez dira aunitzik izanen baina badakigu Gipuzkoan lau baino gehiago badirela, Bizkaian bat edo beste, Nafarroan ere bizpairu eta mugaz-bertzadean ere bai.

Hitz lerro hauen bitartez nai genduke Nafarroak 70 urteko bertsolari guziek berri hau jakin dezaten eta nai baldin badute festa hortara joan esan dezatela.

M. Izeta

Principe de Viana, 1974, otsaila, 7. orr.

## BAZTAN

Urtero bezala Donostiako Turismo Etxeak antolaturik, Iraillako ilabetean Euskal-Festak ospatu dituzte Donostiako hiri ederrean. Bestak aste bat iraun dute eta hor izan dituzte mota guzietako euskal yostetak, dantzariak, kantariak, soñulariak, kirol eta kulturako gauzak ere. Besta hauetan bi baztandar ari izanak dire, Maurizio txistularia bere atabalarari Pelixekin eta Silbestre Almandoz auspo-soñu joilea. Berriz ere gure soñulariek beren sor-lekuaren izena gorasko ezarri daukute dakiten guzia erakutsi dutelarik. Trinitateko plazan eta yendez bete bete eginda, gure Mauriziok bere ahalmen miresgarria erakutsi du Baztango soñuak ederki agertu dituela. Lehenik ioiak ezta-soñu zoragarria bere bertsoak ere ederki kantatu zituelarik. Gero fandango ta arin-arin bat eta ondolik bi mutil-dantza, "muxikoak" eta "tellarin", gero kale-jira batekin akitzeko. Yendea loriaturik txalo luze ta beroekin aritu zuen gura baztandar txistulariaren joaldia.

Lenago Madrilen bezala oraikoan Donostian ere, Silbestre Almandoz auspo-soñu joile gazteak erakutsi du bere jakitatea; Euskal-Festa hauetan eginikako Auspo-soñu joileen arteko Sariketa aundia bereganatuz. Silbestre lenbiziko mallakoen artean ari izana da eta oraikoan ere ohore guziekin lenbiziko Saria irabazi du. Ohorezko Txapela, "Kopa" eta hortaz gañera 5000 pezta bereganaturik. Zorionak Silbestre gazteari berriz ere denen gainetik irabaztale atera bait-da Baztango izena leku onean ezarririk.

Euskal-Festa hauetan "Ez dok Amairu", "Baga, Biga, Higa" deitzen diren euskal kantari ospetsuak ari izanak dira eta erran dezakegu beren kantaldiak behinere ez bezalako arrakasta izan dutela. Bi egunez ari izanak dira eta bietan ikaragarritzko jendeketa bildu dute beren inguruan. Hor ageri da euskaldun gazteria, kultura-dun gazteria berekin daukatela. Zorionak eta bekaizkeri guzien gainetik segi aurrera!

Iraillako ilabetean Elbetearrek Santakruztek ospatu dituzte. Urtero bezala besta hauek errekkiste aundia izan dute.

Urriko ilabetea gainean dugu eta eiztariak hortxe dabilta espantuke uso guzien abarriektu beharrez. Bizkitartean nekazariak iretzetan, lan bortitz neketsu hortan, eta landako zitue, banabarrak, artoak eta gaztañak ere, denak etxera bil

"Gero negua, eztugu ba horren gogua".

M. Izeta

Principe de Viana, 1971, urria, 5. orr.

## BAZTAN

### Baztan'go mugak (I)

Oraingoan, Baztan'go mugak behar nituzke aipatu, gure lurraldearen ingurua eta zer Herrialdekin mugatzen duen.

Herrien izen zerrenda ager dezadan: Sara, Senpere, Ainhoa, Ezpeleta, Itxaso, Bidarra, Baigorri, Banka, Aldude, Urepel. Hamar herri hauek Lapurdi eta Baxenabarra'koak. Gero, Urepel'eko marra hortatik inguruz inguru ditugu: Erro, Esteribar, Anue, Lantz, Ultzama, Donamaria, Bertiz-Arana, Bertiz'ko Oihana, Etxalar, Urdazubi eta Zugarramurdi.

Haundiak dira Baztan'go dermioak, 374 m. luze-zabal eta mugaz-muga 115 kilometroko ingurunea. Euskalerrri'ko munizipio edo Udalerri haundiena hain segur.

Lapurdi eta Baxenabarra'kin ditugun mugarrin, 56'tik 140'raño:

Atxuria edo Peña Plaza (740 m.) hasita, Sara ukitzen dugu. Marra yarraikiz, Senpere'kin mugak; gero, Ainhoa'kin Urdazubi'k mugak; gero, Ainhoa'kin Urdazubi'k dituen bi mugarri: 71-72'gna., eta urrengoak -73-74-75- Ainhoa'k Baztan'ekin. Ezpeleta herriarekin dugu mugarri bakarra: 76; Gorospil'go lepoan aurkitzen da mugarri hori eta hor berean bada harri luze eta haundi bat etzanta. Harri luze hori "menhir" edo zutarria izan behar du, denbora batez zutik zagona.

Aintzinat segituz, Itxaso'ko lurrekin mugatzen dugu; alderdi huntan, mendiak haundiago. Aintzinean, Bidarra dugu "barride"; zati hau dena erroitzen da mendi zakarra. "Urbakura" zokoan batutzen dira Aritzakun eta Urritzate errekek, eta hortik datorkio izan hori. Bi errekek bildurik, ur guzia Bidarra'ko lurretan sartzen da. Bi erreken erdian kokaturik, "Gorramendi" mendi luze eta haundia (1.090 m.).

Orain, 80'gn. mugarritik hurbil eta Bidarra'ko dermioan dugu Arpe'ko Saindue deitzen den zoko bat. Hemen bada koba edo arpe bat, eta barna hortan, zoko ilun batean agertzen da harri hartan Saindu baten itxura bezalakoa, dena harria eta dena bustia, ur txirrixta beti dariola mendiaren barnetik heldu dena eta arpea den guzia bustitzen duena.

Erraten dutenez, ur horrek sendatzen omen du zingirio, inguruko mine, ekzema delako gaitza hartu duen zatia. Zenbaitzuk sineste haundia dute Arpe'ko Sainduaren mirekulluetan eta haunitz joaten dira mendi zoko hortara. Arritzekoa da arpe hortan zer gauzak uzten dituzten. Badira kandelak, arrosarioak eta bertze bitxikeri gehiago ere. Baita ere eltxitxu bat, nahi duenak sosa eman. Interesgarria Arpe'ko Saindua...

M. Izeta

Principe de Viana, 1983, abendua, 13. orr.

## BAZTAN

Baztan'go Irurite'ko errian erreboteko Txapelketa izan dugu eta bereartan sei pilotari Talde ari izanak dire. Txapelketa au bigarren mallakoa zen baño alaere partida ederrak ikusi ditugu eta elkarren arteko gudukaldiak izan dute errebeste. Pilotari taldeak bi zatitan berexiek zaude bakotzak iru ekipa zituela gero bi aldetako irabaztunek elkarren kontra Azken partida yokatu zezaten. Hendaya'koak eta Irurite'koak izan diren Azken-partida ori yokatu dutenak eta yoan den Abuztuaren 13'an izan ginuen yendez beterik gure oroitzean plaza ortan egundeño ezpaitugu ainbertze yendeik ikusi.

Partida atakatua izan zen pilotari guziek beren kuraia ederki agertu zutelarik eta bakotzak beren ekiparen alde eginahal guziak agertzen zituztelarik. Iruritarrak ongi ari izanak dire eta borrokaldi ederra egin ondorean Auzia bereganatu zuten. Irurite'k 11 yoko, Hendaya'k 7.

Irurite Txapeldun. Zorionak. Orai pilotarien izenak aipatu behar ditugu.

Irurite... Jose Mari ta Joakin Garate, Urrutia, Huarte, Apezetxea.  
Hendaya... Sagarzazu, Marty, Irazu, Justede, Borja.

Guantez eta errebotean Iruritarrak dire oberenak eta Baztan-Bertizarana alde untan gure yoko zahar oiek piztu dituztenak. Yarraiki ortan gazteak eta ar itzazute gure zorionik maitekorrenak eta denen ganetik artu ditzala zuen gidari ta erakustaleak.

### Bestak

Gure eskualdean Agorriko ilabetean badirela bestak, bai berriz erran gabe bestak eta bestiliak ere. Emen aipatuko ditut beren bestak ospatu dituzten erriak:

Bera, Ziga, Sunbilla, Donamaria, Zubieta, Etxalar, Aranaz, Oronoz, Aniz, Arrayotz, Amayur, Zugarramurdi, Narbarte, Lekarotz, ta Legasa.

Erri guzietan ikusgarri ederrak izan dituzte, batzuetan pilota partidak bertzetan aizkora apostuak eta bertsolariak eta denetan soñu ausarki eta otordu ederrak ere. Denborak ere lagundu du eta yendea ere ibili da eta erran beharrik eztago dantzan ari zirenak gazteak zirela.

Izeta

Principe de Viana, 1967, iraila, 4. orr.

## BAZTAN

### Elizondoko bestak

Santioak iraganak dire et airaun duten bortz egun oietan naiko ikusgarri, sonu ta yosteta izan ditugu. Yendea ibili da eta karrketan bozkarioa nabari zen.

Urtero bezala Santio egunean Meza Nagusi guziz ederra izan ginuen, bereartan Elizondoko kantariak aritu zirelarik. Meza ondoan oiturari yarraikiz erriko gazteek mutil-dantza xarmanta erakutsi zaukuten, gure Maurizio txistularia beti bezela soñu yotzale zelarik.

Ikusgarrien artean ginuen: Santio egunean aizkora apostua Astibia ta Arria buruz buru borrokatu zirelarik. Yoko untan leitzarra aisa nausitu zen. Aizkoraren ondotik, Leitza ta Erasun'go bi ahari bizkorrenak zanpaka aritu ziren eta azkenean besta hori bururatzeko Andoain'go txistulari famatuak soñualdi eder bat egin ziguten.

Santio biaramunean, goizean erreboteko partida eta arratsaldean eskuzkoa, Bergara ta Lajos nafartarrak Arriaran bi anaien kontra, Gipuzkoarrek irabazi 22-14.

Ikusgarri guzietarik eta dudarik gabe arrakasta gehiena izan duena, Elizondo, Irurite ta Ezpeletarren arteko yostetak izan dire. Azkenengo egunean (28.an) erreboteko plazan arizinak dire baztandarrak ezpeletarren kontra yosteta politik eginik, soka-tira dela, lasterketak direla ta bertze ikusgarri zenbaitzutan zeingehiagoka aritu direla. Merexi du aipatzea Ezpeletako klikak eginikako soñualdia, lehenik erriko karrketan barna eta gero erreboteko plazan arrabots ederra eginik bazter guziak iñarosten zituztela. Atsalde goxo bat iragan ginuen eta bein eta berriz erranen dugu zenbat eta zenbat balio duen euskaldunen arteko elkartasunak. Gora Lapurdi eta Nafarroa!

Bestak elkartasun eta umore onean igaro dira eta gure goresmen bizienak bestaren antolatzaleeri.

Agorrilaren (Dagonilla) illabetean beren bestak ospatu dituzte: Bera, Ziga, Sunbilla, Aranaz, Etxalar, Zubieta, Donamaria, Oronoz, Aniz, Arraioz, Amaiur, Zugarramurdi, Lekarotz, Narbarte, ta Legasako erriek. Urtero bezala elizkizun ederrak, dantzaldiak ta yostetak izan dituzte. Oronozen pilota partida ederrak izan ditugu eta Sunbillan eta Anizen aizkora yokoak. Aipatu ditugun bi erri oketan Latasa arizana da bera bakarrrik bertzen bien kontra eta sunbildar aizkolariak bi yoko oietan irabazi. Badirudi Latasa sasoin izigarrian dagola, indartzen ari dela bere ahalmenak gero ta goitiago doatzila.

Erri geienetan gazteek zikiro yateak eginak dituzte eta erran beharrik eztago umorea bazela eta gazte ta zahar guziak sasoin ederrean zabiltzela.

Izeta

Principe de Viana, 1966, abuztua, 3. orr.



## BAZTAN

### Erregebidea

Baztanek dermio aundiak ditu, amalau erri eta auzo aunitz. Auzo oiek errietatik urrun, bizpairu orduko bidean oñez eta bide zabalik gabe. Gaurko egunean gisa ortan bizitzea gibelapen aundia da, baserrietara bide zabalak arras beharrezkoak dira, oraiko bizi moduak orrela agintzen du eta kostatzen dena kosta denborarekin egingen dira. Balleko Etxeak asmo onak ditu eta Diputazioaren laguntzarekin pixkaka pixkaka Baztan'go auzo guziak erregebidea izenen dute, denen onerako eta batez ere Ballararen aurrerapenerako.

Aurtengo udaberri untan Beartzun ta Orabide'ko auzoetako erregebide berrian lanak asi beharrak dira. Orai berriki Balleko Etxean bilgura izan dute eta bai gauzak erabaki ere, batzarre ortan bide-egile aunitz bai omen ziren lan oiek artu nai zituztenak eta elkarren artean norgeiagoka ari izanak dira presupuestoa ondu beharrez eta azkenean, Orabide'koa Gazteiz'ko batek eta Beartzun'goa Iruñe aldeko batek, lan guziek beren gain artuak dituzte. Beartzun'go ori 3.080.000 pezta kostako omen da eta len marratutako leku beretik egin beharra da, au da, Elizondo, Berro, Agozpe ta Beartzun'go Anzanbordaundiraño bospasei kilometroko luzetasunean. Berdaritz eta Belaun'go mugak urrunxko gelditzen dira oraindik baina lenago baino urbilxago. Beartzundarrek badute aurrerapen, oñez ordu t'erdiko ibilaldi ori orai utsean geldituko da naski.

Orabidetarrek ere erregebide ortaz kontent dira, alderdi ortan baserri aunitz ustutzen ari dira, baina erraten dutenez bide oiek egiten badira yendea ezta bere lekutik mugituko eta egonen da, or ageri da baserriek iraunazteko bide zabal oiek zein beharrezkoak diren.

Oraindikan Baztan'go auzo aunitz erregebiderik gabe daude oien artean, Aritzakun, Urritzate, Irurite'ko Erreka eta bertze zenbait, baina diotenez denak egin beharrak omen dituzte.

Izeta

Principe de Viana, 1967, apirila, 5. orr.

## BAZTAN

### Artzainak

Yoan den Otsaillaren 3'ean San Blas egunez, Elizondoko Baztango Baleko Etxean, Baztan ta Malda Errekako Artzainek bilgura aundi bat izan dute. An bildu ziren Baztango Aintzindariak Alkate Yauna buru zutela, Xabier Urmeneta Diputadu Yauna, Diputazioko Zenbait albaitero ta bei-gazna egile zeinbatzuk ere.

Lenbizi Agintari jaunak mintzatu ziren eta danekin solasaldi bat egin ta ondoan erabakiak artu zituzten. Gazna fabrika edo gaznategi bat berealaxe egin beharra dutela Elizondon eta ardi esnea amasei pezeta litroa ordainduko dutela.

Iduri du artzainak konforme direla eta agintariak ere pozik artu dituztela artzainen eskariak.

Baztango Alkateak eta Urmeneta Diputaduak garbi erran zuten eken aldetik zauden laguntza guziak izanen zituztela ezinbehar ori aintzinat eramateko alik laisterren bere fruituak sortu eta ikusi artio.

Asmo on horiek gerta daitzila eta laster ikusi dezagula Elizondoko Gaznategi berria, eta pixkanaka pixkanaka "Baztango Gasna" bertze "Erronakal", "Urbasa", edo "Manchego" pareko eginen delako ustean gelditzen gara, eta gure artzainek litro esne aunitz ateratzeko bidea izan dezatela, bio-biotzez desiratzen dabegu.

Goan den Martxoaren 30'ean larunbatez, Elizondo'ko "Salon Parroquial" deitutako lekuan, Baztan-Bidaso'ko nekazarien biltzar aundi bat egina dute, gure eskualdeko nekazalgoari buruz itzaldi yakingarriak egin dituztela.

Balleko Etxeko Alkate jaunak denei ongi etorria emanaz, bilgurari asiera eman zitzaion. Izlarien artean or gintuen, Troncoso eta Poyo jaunak biek Naparroa'ko nekazari kontuko Aintzindari eta gai oietan aunitz dakitenak. Denak dabilta nekazaritza aurrerapen bidean yarri naiez, azienda obeagotu ta errokatu dadien eta nekazariak ain bearrezkoa duen irabazbidea erdietsi dezan. Bilgura untan erakutsi dituzte Espāniko aragien gora-berak, zenbat bei eta zenbat aratxe azten diren eta erresumak zenbat aragi bear luken gauzak ongi moldatzekotan. Prezio eta diru kontuetan ere mintzatu ziren, zer gertatzen den erranez eta zer egin bearke litzaken nekazariak beren probetsua ateratzekotan. Arto "hibrido" aren gain ere aunitz mintzatu ziren eta zioten arto orrek aunitz emanen lukela Baztan-en eta bear litzakela aunitzez geiago erein, arto ona eta probetxu aundikoa delakotz. Ortarako nekazariak izanen omen dute laguntza eta bear duten adine azi ere bai "Mutualidad Agraria" delako batasun ortaz ere aunitz mintzatu ziren, seguroak, zar-partreak eta gauz ok dakarzkiten diru-kontuak, pagamentak eta bertze gañerakoak aipatu zituztelarik.

Mintzatu ziren jaunek, beren arrazoñak eman zituzten gaurko aferak nola diren agertuaz. Parrokiko Sala bete betea yendez, or baziren baztandar nekazariak eta bai Malda-Errekakoak ere. Itzaldi yakingarriak izan dire bai baño egia erran nekazari yendea ez omen dago batre kontent zeren kontribuzioea aunitzez geiago ordaindu barra baitute, oraingoan 94 % geiago eta ortaz landara artzen duten laguntza utsa baita. Orrela gauzak gaizki doazi eta nekazariak badute arrankure, pagatu bearrak eta gastuak gero ta aundiagoak eta irabazbideak berriz aski murriz; gisa untan nekazariak ezta bururik goratzen ahal. Ikusiko dugu bilgura ortan erran direnak zer ondorio dakarraten eta azkenean zer gertatzen den; beti ere nekazariak suerte on bat izan dezatela eta beren aferak bide onetik gan daitzile.

Izeta

Principe de Viana, 1968, apirila, 5. orr.

## BAZTAN

### Pilotariak

Pilotari baztandarrak Nafarroa'ko txapelketetan beren ahalmenak erakutsi dituzte eta txapeldun atera ez badira ere, Baztan'go eskualdea leku onean ezarri dute.

Goan den San Jose egunean Iruñe'ko "Labrit" pilota lekuan Nafarroa'ko txapelketako azken partidak edo "finalak" yokatu zituzten (Primera B deitutako kategoria) "pala corta"ko partidak Iturralde ta Sanzberro elizondarrak galdu zuten Juanmartiñena ta Saralegi'ren kontra 40-17. esku-huskako partidak erratzuar Etxandi ta Agerre'k ere galdu Azkarate ta Mugurutzarekin 22-17. Baztandar pilotariak Txapelketako bigarren Saria etxeratu zuten eta eztago gaizki. Zorionak.

Irurite'ko "San Miguel" Batasunak antolaturik, Oronoz'ko Maristen frontoi aundian "Yoko-garbi"ko txapelketa bat yokatu dute, Bereartan ari izanak dira mugaz bertzaldeko pilotariak iruritarrekin batean. Txapelketak errete aundia izan du eta partidak ere aski gustagarriak. Martxoaren 9'an yokatu zituzten azkenengo partidak edo "finalak" eta hemen partidak goraberak.

Lenbiziko mallakoak, Couartou eta Ugartemendia Hendayarrak 40.

Berterretxe eta Ospital Baigorriarrak 37.

Bigarren mallakoak, Alzate eta Borja Hendayarrak 40.

Ripa eta Iturralde Iruritarak 32.

Zorionak pilotari guzietan batez ere iruritar pilotari gazteei eta Txapelketaren antolatzaileak ar ditzala gure goresmen bizenak.

### "INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA"

Nafarroa'ko Diputazioko "INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA" Batasunaren eskuararen aldeko sarak, asmo onak ditu eta bere Aintzindariak zenbait lan egin gogo dute. Lehenik Baztan-Bidasoa'ko zenbait eskoletan eskuarazko ikasaldiak indartu. Hortarako erakasle jaun zenbait izendatuko dituzte eskola hoietan egunero ordu erdi bateko erakustaldia emateko. Eta ez litzake gaizki ere aurren artean idatz-leiaketa edo iskribitzale konkurso bat egiten baginuke, hori izanen litzake gauzarik baliosoenetako bat. Iskribitzaleek sari onak izanen luteke eta ez litzake inor geldituko bere saritxo hartu gabe. Nik uste dut "INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA"ko aintzindariak zer edo zer prestatuko dutela eta holako zerbait egiten balitzake eskuarak aunitz irabaziko luke. Ikusiko dugu aurtengo udara aldian zerbait egin daiken.

M. Izeta

Principe de Viana, 1969, apirila, 5. orr.

## BAZTAN

Joan den urtean bezala aurten ere bertsolari besta eder bat egin beharra dugu Elizondon. Besta hau Mayatzaren 21-ean izanen da, Antxitoneko trinketea eta arratsaldeko lau terdietan. Bertsolariak: Mattin, Lasarte, Agirre eta bertze bertsolari gazte bat orai berriki "Radio Loyola"k antolatutako Txapelketan ari izana.

Besta hontan biltzen den guzia Ikastolarako izanen da eta badugu uste aurten ere bertze urtetan bezala yende aunitz bilduko dela ongi baitakigu Baztanen badela bertsoetako zaletasuna.

Bertsolari festa hau "Institución Príncipe de Viana"ren laguntzarekin egiten dugu. Badakizute bertsozaleak, Datorren Mayatzaren 21-ean BERTSOLARIAK Elizondon.

### Sokatirak

San Jose egunean Baztango Sokatirako II Txapelketa ospatu da Elizondon. Igaz zortzi sokatirari talde aritu ziren eta aurten borts bertzerik ez dira agertu. Halare nor-gehiagoka honek izan du arrakasta eta yendea kontent zagon. Mundu bat ikusliar bildu ziren "Iriarte" pilota lekuan. Borts taldeak hauek ziren: Elizondo A, Elizondo B, Lekarotz, Oronoz eta Gorramendi.

Denen indarrak probatzeko borts taldeak elkarren artean aritu ziren, denak denen kontra talde bakotzak lau joko eginik, borrokaldiek beti bezala bi tiraldiekin.

Elkarren arteko gudua egin ondoren Elizondo A irabaztala denak garaiturik, bigarren Lekarotz, irugarren Elizondo B, laugarren Oronoz eta azkena Gorramendi. Gero lenbizikoa eta bigarren artean Finala jokatu zuten eta Elizondo A irabaztun Baztango Txapelketa eta Lekauztarren arteko borrokaldia izigarri ederra izandu zen, azkenengo tiraldiak minutu bat eta ogeita iru segundu iraun zuelarik. Elizondo A Txapeldun eta Lekarotz bigarren merezimendu guziekin.

Hemen zenbait xehetasun:

Talde zaharrena.

Elizondo A, 274 urte.

Talde gaztena.

Gorramendi, 153 urte.

Talde pisuena.

Elizondo A, 830 kilo.

Sokatirari pisuena.

Anjel Mari Larruy, 125 kilo.

Sokatirari zaharrena.

Anjel Mari Larruy, 40 urte.

Makil-tirako Txapelketa ere egin zuten eta hontan amar mutil aritu ziren. Denen gañetik eta aisetasun aundiarekin, Migel Lasa Elizondarrak irabazi zuen. Bigarren, Arrieta Oronoztarra eta Iparragirre Elizondarra biek berdin. Zorionak Migel Lasa Txapeldunari eta bai beste gañerakoeri ere denek erakutsi bait-dute beren ahalmena eta gizontasuna ere. Ederki motellak!

Yostetak egin ondoren, baztandar dantzariak Mutil-Dantza eder bat erakutsi ziguten. Azkenik sokatirari eta makil-tirari irabaztaleen artean Sari Banaketa eta holaxe bukatu zen festa eder hau. Zorionak C.D. Baztan Batasunari, festaren antolatzalea.

M. Izeta

Principe de Viana, 1972, apirila, 7. orr.

## BAZTAN: INDAR KONTU

Apirilaren 22-an Bazko egunez, III garren Soka-Tira Txapelketa eta Igarren Makil-Tirarena egin dira Elizondon. "Iriarte" pilota lekua bete betea iendez, mila ikusliar inguru barnean kokaturik.

Zortzi Sokatirari talde ari izanak dira: Elizondo A, Elizondo B, Lekaroz, Elbete, Amaiur, Oronoz, Aviacion eta USAF (Gorramendiko amerikanoak).

Lenbiziko tiraldiak egin ondorean, Oronoz, Amaiur, Aviacion eta USAF galtzale gertatu, beste lau irabaztaleak aurrera pasa zirelarik.

Lauen artean Final-erdiak eta suertea bota ta ondoan, Elizondo A Lekauztarren kontra eta Elizondo B Elbearrekin suertatu zitzaien.

Elizondo B eta Elbetearrek ikaragarritzko tiraldiak egin ondoren elizondarrak bietan irabaztun. Lenbiziko tiraldiak minutu bat eta 33 segundo iraun zuen eta minutu bat bigarrenak. Bi taldeak leher egin zuten indargabetuta gelditurik. Gero Elizondo A-k neke haundirik gabe Lekauztarrei irabazi. Azkenik Finala Elizondo-ko bi Taldeen artean eta berriz ere Elizondo A irabaztale eta Txapeldun. Zorionak.

Irugarren eta laugarrenerako Lekaroz eta Elbete zein-gehiagoka eta lekauztarrak irabazi.

Txapeldunak:

Elizondo A (irugarren urtea) Diputazioko Saria

Bigarrenak:

Elizondo B Baztango Balleko Saria

Irugarrenak:

Lekaroz Makinari Alfa-ko Saria

Laugarrenak:

Elbete "Banco Vizcaya"ko Saria

Makil-Tirako Txapelketan zazpi gizonak negurtu zituzten beren indarrak eta denen gañetik eta igaz bezala aurten ere Migel Lasa elizondarra Txapeldun. Zorionak.

Bigarren Fermin Iparragirre elizondarra. Irugarren Bixente Goienetxe Elbetearra eta laugarren Jose Antonio Antoñana. Zorionak.

Jokoen tartetan, Arizkun-go Mutil-dantzariak aritu ziren, dantzaldi ederrak eginik.

Gure zorionik beroenak soka-tirari talde guziei eta goresmenak bestaren antolatzaileei.

## BERTSOLARIAK

Nafarroako Diputazioko "INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA"ren laguntzarekin aurten ere bertsolari besta eder bat egin gogo dugu. Jai hau Elizondo-ko Antxitoneko trinketean izanen da, Ekainaren 17-an eta arratsaldeko bortzetan. Lau bertsolari ariko zaizkigu: XALBADOR, LASARTE, AZPILLAGA eta MUGARTEGI.

Besta hontan biltzen dena Elizondo-ko Ikastolarako emango dugu. Gure eskualdean Euskalerriko beste leku guzietan bezala bada bertsoetako zaletasuna, hemengo iendeak maite ditu bertsolariak eta badugu uste egun hortan Antxitoneko trinketea leporaño beteko dela, denak etorriko baitira gure bertsolarien artera arratsalde goxo bat igarotzeko nahikeriarekin.

M. Izeta

Principe de Viana, 1973, apirila, 7. orr.



## BAZTAN

### Elizondo'ko feriak

"*Kandelero bero negue eldu da gero*", esaera xahar horrek hala dio eta ez du gezurrik erraten. Otsailako egun haietan eguraldi aski ederrak egin zituen eta bai ondoko egunetan ere, eguzkiak goxoki berotzen zuela eta arbolak loretan udaberriaren sasoina iduri. Gero erran xahar horren arrazoinak agertu dira eta bai erdi erditik asmatu ere. Martxoa gehiena negu bizian pasa dugu, Apirileko hilabetea elurraikin sartu garelarik. Elurra, kazkabarra, euria eta otza ere garai bertze ele xahar harek adierazten duen arabera, baztandar eskuan erranik:

"*Apirile biribile zerrie urdandain goseak hilai*"; naiz ta norbaitek, berehala, erantzuna eman dion: "*Ez, eztago hile; puztena badabile*".

Beti ere erran xahar hoiek badute beren funtsa eta alderdia, noizbaiteko gertakizunak garbiki adierazten dutela. Apirilean sartu orduko, aurtengo udaberriko feriak ospatu dira Elizondo'n. Feri hauek Bazko ondoko lenbiziko ortziralean izaten dira eta hala aurtengoak Apirilaren 4-ean egin dira. Denbora batez, Apirileko feriak arrakasta haundia izaten zuten; baina, oraiko hauek lehenagokoen aldian oroitzen bat bertzerik ez dira. halere izenak irauten baitu beti izaten da feriaren seinalea. Aurten aintzineko urte hoietan baino yende gehiago etorri da ferietara. Eguraldi txarrak hortan lagundu du, lanerako girorik ez delarik, feri eta merkatuetara yende gehiago biltzen baita. Holakoetan, baztandar nekazaria ez da geldituko Elizondo'ko ferietara etorri gabe, eta plazako azienda ikusi bidenabar lagun artean, otordu goxo bat ere eginen duela. Aurten merkatuko plazan azienda ona erakutsi dute, eta tratulariek bazuten zer eskeini. Sal-erosketa batzuk ere egin omen dira, baina guti; baztandar nekazariak beren kontuek atera behar baititu, sabaiak ustuak, bazkik ez, eta gastu haundietan sartuak pentsu eta bertze gainerako bazkak erositaz beren aziendak mantentzeko.

Hemen merkatuko aziendeen prezioak:

Aintzinerako behiak beren aratxeakin	47.000-62.000 peza
Aintzinerako behi ernariak	45.000-58.000 peza
Mige ernariak	40.000-50.000 peza
Esne-behiak 20-30 litro esne ematen dutenak	46.000-57.000 peza
Esne-behiak 20 litroz azpiz ematen dutenak	35.000-45.000 peza
Behorak beren pottoko sortu berriarekin	36.000-46.000 peza
Behor ernariak	30.000-44.000 peza
Aragitako zaldiak	18.000-28.000 peza
Astoak	5.000- 9.500 peza

Merkatuko plaza ondoan, azkenengo urte hauetan bezala, makinari berrien erakusketa. Han bazen non hauta, belar ebakitzekoak, lur iraultzekoak, behi deiztekoak eta gehiago ere. Makinen inguruan behatzale franko, baina eztagu erostun aunitzik bai ote zen.

Arratsaldean, Antxitone'ko trinketan, bi pilota partida baztandarren artean:

Esku-huska.- Maisterrena-Etxandi, 50; Danboriena-Etxebeste, 35.

Paletaz.- Ameztoy-M. Lazaro, 50; Txatxin-Burgete, 41.

Partida gustagarriak, eta yendea ere franko poliki.

Apirileko feriak yoan dira eta orai denak eguraldi onaren zain.

M. Izeta

Principe de Viana, 1975, apirila, 7. orr.

## BAZTAN

Aurtengo Elizondo'ko Urriko ferietan izigarriko eguraldi txarra izan dugu, egun guzian euria atertu gabe aski denbora latza eta elurra mendietan, egun ortan guardasolak bazuten errete. Bainan ikusia dago euri erauntsiak euskaldun yendea ezteula izitzen, aurten ere eguraldi ederra balitz bezala yendeketa izigarria bildu da Elizondo'n. Emen ikusi ditugu Baztan-Bidaso'ko yendeak eta bai Lapurdi eta Baxenabarre'koak ere; deneri gure zinezko Ongi Etorria.

Merkatu plazan azienda aunitz eta klase onekoak, Iruñe, Luzaide, Araitz eta leku aunitzetako tratulariek beren azientarik zituzten emen saltzeko naikeriarekin, bai omen ziren plazan guttinetik 140 bei eta oietarik ogeitamarren bat pixkat goiti beiti saldu omen zituzten. Beiek arrakesta aundia zuten. Zaldi eta asto multzu bat ere bazen.

Emen aziendeen sal-neurriak:

Aintzinerako bei ernaria, 28.000 - 36.000 pezta bakarrak.  
"Pyrenaica" bei gorri antzuek, 20.000 - 28.000 pezta bakarrak.  
Beiak beren aratxearekin, 36.000 - 40.000 pezta bakarrak.  
Esne beiak, 21.000 - 29.000 pezta bakarrak.  
Mige ernariak, 17.000 - 23.000 pezta bakarrak.  
Aragitako zaldiak, 8.500 - 12.000 pezta bakarrak.  
Pottokoak, 8.000 - 12.000 pezta bakarrak.  
Astoak, 2.000 - 5.500 pezta bakarrak.

Ikusgarrien artean baginuen Antxitoneko trinketea bi pilota partida eskuz. Lendabizikoan, Andueza eta Egiguren gipuzkoarrak, Laduche eta Sein garaitu 40-36. Gipuzkoar oiek badoazi aintzinat, pilotari politikak dira eta trinketeko xikanak ongi dazkite.

Bigarren partida arras atakatua izan zen. Behengaray eta Etxart ari-zanak dire Etxegoin eta Etxemendi'ren kontra. Guduketa ortan adoste aunitz eginik azkenean 49'ra berdindurik 55 tantotara luzatu zuten, gero Behengaray eta Etxart'ek gaina artu 55-51.

Partida gustagarriak eta yende asko trinketea. Urriko feriak iraganak dire eta oraintxe bagoaz gainbera negu aldera.

Izeta

Principe de Viana, 1966, azaroa, 5. orr.

## BAZTAN

Behin eta berriz erranen dugu Elizondo'ko Koralak izen ohoregarria ematen diola gure herriari, Baztan lurraldeari. Orai ere egina du kantaldi aipagarria, Azaroaren 24 eta 25'ean, Elizondo'ko elizan bat eta Iruñe'ko "Gayarre" Aretoan bertzea. Bi kontzertuetan "Requiem de Faure" erakutsiz, eta Iruñe'ko "Orquesta Santa Cecilia" soñulariekin batean, M. Roa jaunaren gidaripean, Ortzegun hortan Elizondo'ko eliza aditzalez bete zen. Kontzertua "Orquesta"ren soñualdiarekin hasi zen, lau musikaldi eginik. Gero Koralak G. Faure'n Requiem kantatu zuen "Orquestarekin" batean. Kontzertua arras ongi, aditzaleak lorietan esku-zartaka.

Biharamunean Kontzertu hori bera Iruñe'ko "Gayarre"n. Hemen ere Elizondo'n bezala Kontzertuak sekulako arrakasta ukan du. "Gayarre" bete omen zen eta aditzaleek ere beren bozkarioa ongi aski erakutsirik. Egunkariek edo kazetek aipatu dute Elizondo'ko Koralaren kantaldia eta bai goretsi ere heien eginkari xarmanta. Aipamen ohoregarria ere ukan dute Josune Makibar'ek eta Basilio Sarobe'k, bakarka kantatu baitzuten "Pie Jesu" eta "Liberame", ederki eta sendimendu haundiarekin M. Roa "Orquestaren" gidariak eta Eraso jaunak Koralaren Buruzagiak ere laudorio eta goresmen haundiak ukan dituzte. Zorionak.

M. Izeta

Principe de Viana,

## BAZTAN

### Feriak

Baztandar nekazariak dioten bezala erraten ahal dugu, "biarrieko Urrie" eta bai arrazoñarekin, yaz bezala aurten ere urriko ilabeteak gauzak xuxendu baititu. Ilabete guzian eguraldi guziz ederrak egin dazku eguzkiak ere indarrarekin berotu duela. Eiztariak egun ederrak goxatu dituzte mendietan, naiz ta gehienetan bazala uso guti eskuratu dituzten.

Elizondo'ko feriak ospatu dire eta egun hortan ere eguraldiakin suertea izan dugu, egun hori aski ilun argitu baizitzaikun euri-langar pixka bat ere ari zuela, beharrik gero iguzkiak goibelak urraturik indar aundiarekin agertu zitzaikula eguna ederturik.

Lenagoko feriak eta oraikoak ez dira berdinak. Lenago eta gure aur denboran ere iru egun irauten zituzten eta iruetan yende aunitz biltzen zen. Orai egun bakarra izaten da eta hau ortziraleakin eta egia erran urtetik urtera badirudi gutituz ari dela. Aurten ere yaz baño yende gutiago ibili omen da, bainan halare Elizondo'ko Urriko feriek izen aundia baitute eta bere fama ongi barreatua baitago, feri egun huntan yende aunitz biltzen da Elizondo'n denak egun goxo bat iragaiteko naikeriarekin.

Merkatuko plazan azienda aunitz eta klase onekoa, bazen non auta. Baztandar tratulariek bei gorri aunitz erakutsi zituzten eta Iruñekoek esnebei ederrak eta onak. Bazen yende puska bat merkatuan, urtean den merkaturik hoberena haxe izaten baita eta gañera aspaldi hontan ezpaita funtsezko merkaturik egiten. Ez omen ziren esne-bei aunitzik saldu eta erreliste gehiago izan omen zuten bertze gañerako beiek. Azkenengo urte hoketan yendeak esne saltzeari eman dio bainan erraten dutenez orai aunitzek berriz lenago bezala aratxe aztari lotu beharrak omen dire. Merkatuko prezioak erakutsi behar ditut:

Esne beiak	33.000 - 39.000	pezta bakarrak	86 buru salgai
Bere-hunteko bei antzuak	24.000 - 26.000	" "	46 "
Bere-hunteko bei ernari			
edo bere aratxearekin	29.000 - 37.000	" "	18 "
Migek	22.000 - 27.000	" "	15 "
Aragitako beiak	24 - 34	pezta kiloa bizik	11 "
Aratxeak	62 - 34	" "	17 "
Zaldi andana bat ere bazen			

M. Izeta

Principe de Viana, 1969, azaroa-abendua, 5. orr.

## BAZTAN

### Elizondoko feriak

Aurten, Urriko 29-an ospatu dire Elizondoko feriak. Feri aintzineko egunak ilabete egun gehientsuenak bezala ederrak eta atsegingarriak izan ditugu eta ain zuzen ortziralara hori euritsu agertu zitzaikun; ezpaita lenbiziko aldia. Eura egin zuen bai bainan eguna etzagon txarra, yendea etorri zen eta bazen feriaren seinalea. Igaz erran ginuen eta aurten ere erranen dugu feriak ttipituz doazila, urtetik urtera nabari izaten da hori, orai ela berrogei urte egiten zirenak eta oraikoak ezpaitire berdinak. Halare Elizondoko feriak badute arrakasta eta beti biltzen da yendea. Aurten ere hemen ikusi ditugu baztandar, ultzamar eta mugaz-bertzaldeko eskualdunak ere denak Baztango hiri nagusira etorriak. Gure "Ongi-Etorria" denei. Merkatu plazan azienda aunitz eta klase onekoa. Baztandar tratulariek bei ederrak erakutsi zituzten eta bai salmentak egin ere. Nekazari aunitz plazan. Feri hau izaten da urtean egiten den aundiena, garai hontan eta neguari buruz aintzinerako bei aunitz saltzen bait-dira, batez ere aurten bezala sabaiak ongi ornituak arkitzen direlarik.

### Hemen aziendeen prezioak.

Beiak beren aratxearekin, 23 buru. 36.000-42.000 pezta bakarrak

Bei ernariak, 29 buru. 34.000-39.000 pezta bakarrak.

Bei antzuak, 44 buru. 26.000-35.000 pezta bakarrak.

Mige ernariak, 19 buru. 25.500-28.000 pezta bakarrak.

Behor ernariak, 18.000-30.000 pezta bakarrak

Pottokoak, 12.000-18.000 pezta bakarrak.

Aragitako zaldi zaharrak, 11.500-23.000 pezta bakarrak.

Ardiak, Antxuek, 1.200 pezta bakarrak.

Ardi zaharrak, 775-850 pezta bakarrak.

M. Izeta

Principe de Viana, 1971, azaroa-abendua, 7. orr.

## BAZTAN

### Dolu

Gure adiskide ziontzo Ignazio Iturria Zabala, Elizondo-ko Mitxeltoneko nagusia, Jaunak bereganatu du. Aspaldixko hontan erixko zagon, gaitzak zaukan menperaturik eta azkenean bere ordua iritxi da eta Jainkoak eraman.

Euskaltzale jatorra gutti diren bezalakoak ginuen Ignazio jauna, denen laguntzale eta ongile, denok maite ginuena. Goian Bego.

Bere familikoek har ditzatela gure doluminik sentikorrenak.

### Mutil dantzariak

Berriz ere arizkundar mutil-dantzariak ari izanak dira eta oraikoan Bizkaiko lurretan, Basauri-ko hirian. Joan de Urriaren 15-ean euskal-dantzarien bilgura haundi bat ospatu zuten herri hortan, Euskal-Herriko lau lurraldetako dantzariak aritu direlarik. Gipuzkoatik bi dantzari-talde, Zumarraga-koak eta Donostia-ko dantzariak eta Nafarroatik, Ituren-go "Zanpantzar" deitutako joileak eta Arizkun-go mutil-dantzariak.

Goizean dantzari-talde guziak Basauri-ko karriketan barna itzuli bat eginik gero herriko plazan dantzarien agerpen nagusia ospatu zuten denek beren dantzak erakutsiaz. Besta guzietan bezala bazkaria izandu zen dantzari guzien elkarte zoragarria. 190 bazkaliar Euskal-Herriko lurraldetaik denak han bildurik, kantuz, dantzan, bertsotan eta solasean, bai gauza ederra eta atsegingarria.

Bazkalondoan berriz ere herriko plazan talde guziak beren dantza saioa eginik holaxe amaitu zen Basauri-ko dantzarien eguna.

Baztandarrak izigarri kontent etorriak gara Bizkaia aldeko lurraldetik, jendeari gustatu zitzaizkieten gure dantzak eta holaxe erakutsi ere beren bozkarioa esku-zarta beroak dantzarien ohoretan eginik.

Baztan aldetik milaka goraintzi gure adiskide bizkaitar hoieri.

### Aizkolariak

Urriaren 15-ean Doneztebarrek bazuten besta beren herrian eta arratsaldean aizkolari apostu eder bat izan zuten. Hor ari izanak dira nor-gehiagoka bi bikote, Astibia eta Arria, Latasa eta Mindegia-ren kontra eta beren eginkizuna hauxe:

Amaseina kana-erdiko nork lasterrago moztu txanda librean. Lehenago ere ari izanak dira bi bikote hoiek elkarren kontra, bi aldiz jokatu eta bietan Latasa eta Mindegia irabaztale. Baina oraikoan gauzak ez dira berdin gertatu, Astibia eta Arriak auzia merezimendu guziekin bereganatu bait-dute beren kontrarioak menperaturik. Irabaztaleek beren lana 30 minutu eta 27 segundoz egin zuten eta galtzaleek 31 m ta 2 s/tan.

Lau aizkolariak lan ona egin omen zuten batez ere Arriak eta Latasak, hauek izan bait-ziran lanik gehien egin zutenak sasoi ederra erakutsirik.

Ikusliar asko apostu hontan, aspaldion ez baizen izan holako jokorik, hortaz jendea zerbait ikusteko gogoarekin zagon. Han izandu diren guziek aho batez diote Latasa oraindikan sasoean dagola, bizkor eta lanerako gogoarekin. urteak aisa iasaten ditu sunbildar aizkolariak, ohian gizon zail eta osasunez betea agertzen zaigu.

Aizkolari, pilotari edo edozein motako kiroltzalea bere burua ongi zainduz luze iraute du. Hortxe duzue pilotarien artean Mikel Soroa eta aizkolarietan Erramun Latasa. Segi aurrera eta sasoiak iraun dezala.

M. Izeta

Principe de Viana, 1972, azaroa-abendua, 7. orr.



## BAZTAN

### IV-gn. DANTZARI EGUNA

San Frantzisko egunean Abenduaren 3-an ospatu zen Iruñan "IV-gn. Dantzari Eguna". Aurtengoarekin, laugarren urtea dantzari nafartarren festa egiten dela.

Arizkun-go dantzariak ere Biltzar hontara deituak izan ziren eta bertze nafartar dantzari-taldeekin hor ari izanak dira gure sorlekuko dantzak gorasko ezarri dutela.

Nafar Dantzari Egun hori gisa hontan joan zen: goizean, lehenik, Meza; ondotik, Dantzari-Talde guziak, lerrokada haundian, Iruñeko zenbait karraketan ibilaldia egin ondorean, "Gazteluko Enparantzan" dantza saioa, talde bakoitxak berea agertuaz; arratsaldeko zazpietan, "Labrit" pilota lekuan, ospatu zen dantzarien haundia, bederatzi dantzari-talde ari izanak direlarik. Hor genituen: ARIZKUN, TAFALLA, OTXAGI, LIZARRA eta Iruñeko bortz talde: ANAITASUNA, OBERENA, MUTTIKO, IRUÑA-TALDEA eta UDALETXEKOAK.

OBERENAKO txistulariak eta IRUÑEKO gaiteroak ere aritu ziren. Baita ere Oberenako dantzari zaharrak saio eder bat egin zuten Lizarrako "Larrain-Dantza" ederki dantzatuaz.

Gure baztandar dantzariak Baztango "Soka-Dantza" erakutsi zuten bertze, gainerako taldeek bezala saio bat bakarra eginik. "Soka-Dantza" hori orai hirurogei urte dantzatzen gisara agertu dute, herriko festetan eta Iñautetan dantzatzen zen bezala, "Danbolin-Nausi" eta "Danbolin-Etxekoandre"-ekin eta "Botilleroakin" ere. Gure dantzak arrakasta haundia ukan dute eta hala ikusliarrek ere beren bozkarioa agertu zuten baztandarren ohoretan esku-zarta eta txalo ugariak joaz. Bertze gainerako dantzari-taldeen ekinaldia ere gustagarria izandu zen.

"Labrit" pilota lekua teilaturaino betea, hor ageri baita gure Euskal-Herriko dantzak badutela jarraikitzaileak.

M. Izeta

Principe de Viana, 1974, azaroa-abendua, 7. orr.

## BAZTAN

Elizondo'ko feriak San Lukas ondoko astean

Urri'ko feriak ospatu ditugu ohitura den bezala San Lukas ondoko ortziralean; aurtan, 29'-an.

Urri'ko ilabete hau usteketan yoan zaiku. Egun gehienetan eguraldi txarrakin. Halere, ilabetearen hastapenean eta egun bakar batzuetan ere giro onak ukan ditugu.

Eguraldiak orrela lagundurik, ferietan egun ederra ginuen, yendea ere azkarki bildu zelarik Baztan'go hiri nagusian.

Eguraldiaren arabera, Merkatuko Plazan azienda ederra, klasean klasekoa. Behietan eta behorretan bazagon aukera; erosi nahi zuenak bazuen non hauta eta non gasta, boltsa ongi ornitua izan ezker.

Erran dugu azienda ederra erakutsi zutela, Santander'ko behi hoberenakoak Iruñe'ko eta Gipuzkoa'ko "Goierrri"ko tratulariek ekarritakoak. Esne behiak guzien gainekoak baziren, eta bai aintzinerako behi "Gorri" eta "Frisona" delako kastakoak ere. Egundaino ez dute azienda hoiek hainbertzetarañoko sosik egin; prezioak gorazko yoanak dira.

Salmentak egin omen ziren. Eta norbaitek azienda ederra etxeratu izanen zuen. Sosa duenak erosi dezake; eztuenak, ordean, gabe egon beharko.

### Aziendaren sal-neurriak

Behiak	pezta bakarrak
Aintzinerako behiak aratxearekin	76.000-88.000
Behi ernariak	65.000-80.000
Mige ernariak	52.000-62.000
Esne behiak 30-40 litro esnekin	75.000-85.000
Esne behiak 20-30 litro esnekin	65.000-72.000
Esne behiak, lehen umedun	45.000-65.000
Zaldiak	
Gereñuak (mendiko)	75.000-90.000
Behor ernariak	45.000-80.000
Pottoka gazteak	16.000-28.000

Lur iraultzeko eta mota anitzeko maxinak ere baziren salgai. Behatzale franko inguruan, baina eztakigu erostalerik bai ote zen.

Karriketan bazen mugimendu; eta arropa saltzale, behinere ez bezala, plaza guzia betetzen zutela. Herriko komertziantak kexu ziren eta badute arrazoin: kanpotik etorritako yendeak saldu eta saldu, eta hemengoendako deus ez. Arrankura franko bazterretan.

Arratsaldeko alu t'erdietan, "Antxitonea"ko trinketean, bertsolariak. Bertze alditan erran dugu, eta berriz ere erranen dugu, feri egun hau izaten dela egunik egokiena bertsolari besta egiteko, eta hala ikusi dugu "Antxitonea" leporaino betea.

Lau bertsolari; eta lauak, onak: *Mattin*, *Azpillaga*, *Lazkao-Txiki* eta *Egileor*. Lauek zakiten guzia agertu dute, eta yendea ere loriaturik bertsolarien kantaldi miresgarria entzuten.

Elizondo'ko Urri'ko feriaren eguna holaxe joan zaiku, espantu haundirik gabe. Orain bagoazi lasterka gain-bera negu aldera.

*Laster, mendietan elurra;  
yendeak badu beldurra  
oztuko zaiola bizkarrezurra;  
eta hori ez baita izanen gezurra.*

M. Izeta

Principe de Viana, 1976, azaroa-abendua, 14. orr.

## BAZTAN

Urepel'en, "Xalbador" zenaren omenetan

Azaroa'ren 8'an, egun dirdiranta agerturik, ospakizun guziak arrakasta haundia ukan dute. "Xalbador" zenaren bosgarren urte-muga zela eta denbora berean bere ohoretan eraiki den oroitariaren agerpena ospatzen zela, yende aunitz bildu da Urepel'eko herrian. Egunari ospe haundia emanik, han ginuen Iruñe'ko Artxapezpiku Yaun Agurgarria.

Goizeko 10 t'erdietan Herri Meza ospatu zen gure Artxapezpikuak emana, bere ondoan 12 apez zituela. Elizkizun hunkigarriaren hasieran, Mixel, "Xalbador" zenaren semeak eta Baigorri'ko Laka'k bertso bana kantatu zuten. Artxapezpikuaren hitzaldia, herriaren kantak eta otoitzak, eta Meza guzia ere, guziz zoragarria.

Meza ondoren, "Xalbador" zenaren omenaldia, Artxapezpikuaren bedekazioarekin eta bertsolarien kantaldiekin.

Arratsaldean bertsolari besta, herriko plazan eta aterbe ederraren gerizean. Zortzi bertsolari taularen gainean. Mixel Itzaina gidari eta gai-emaile zutelarik. Bestari hastapena eman zitzaion Urepel'eko Auzapezaren agurrakin. Ondotik ari izanak dira bertsolariak; Iparralde'tik, lau: Xanpun, Ezponda, Alkat eta Mendiburu; Egoalde'tik, beste lau: Lazkao-Txiki, Lasarte, Peñagarikano eta Olalde. Bi orduz aritu dira. Bakarka, binazka eta launazka ere, mota guzietako gaiak erabili dituztela; ez dugu iñor berexiko hoberena bezala, denek erakutsi bait zuten goi-mallako bertsolaritzaren dohaina. Entzule aunitz bildu zen eta aterbea haundia izanagatik dena bete zen. Bestaren ondarrera kantatu zuten Mihura azkaindarrak, Kelemente elizondarrak, Amorena zuaramurdiarrak eta Laka baigorriarrak. Gero, Azken-agurra zortzi bertsolariak; eta, azkenik, Mixel "Xalbador"ek bertso hunkigarri batekin jaialdiari akaballa eman zitzaion.

"Xalbador"en omenez egin diren ospakizunak ongi joan dira eta urepeldar gazteek lan haundia egin dute eta antolakizunak arras ongi ere. Zorionak!

San Martin eguna

Sasoin hunek Baztan alde huntan badauka arrakasta. San Martin egunean maisterrak ordaintzen dio etxeko errenta bere nagusiari, eta sasoin huntan ere izante dira, "aldairek", etxez etxe aldatzea. Denbora batez baserritarren artean, eta batez ere maister bizi zirenen artean, mugimendu haundia izaten zen, etxe batetik bertzera aldatzeak; aunitz aldiz ez zen gogoko lana eta, egia erran, ez ziren izanen denetzat egun pozgarriak, zeinbaitzuk ziren nigarran eta pairamenak yasan beharrak. Batzuentzat "aldaire" atsegingarria bizitze hobeia erdietsi zutelakotz; bainan, bertzentzat, penagarri. Mundu huntako lege larria, batzuentzat pozgarria eta bertzeentzat penagarria.

San Martinetako bestak

San Martinetan baditugu bestak gure Baztan aldean. Gartzain deitzen den herri euskaldunak ospatzen du, San Martin egunean, bere besta nagusia.

Ez hain aspaldion, Berroeta'k ere egun hortan zituen bestak, bainan herritarrek hala nahi eta aldatu zituzten.

Bestak ongi gan dire. San Martinak joanik, bagoazi gain-bera negu aldera.

M. Izeta

Principe de Viana, 1981, azaroa-abendua, 12. orr.

## BAZTAN

### Feriak

Urtero bezala Urriko feriak ospatu dira Elizondo'n. Nik eztakit bertze urtetan adine yende bai ote zen bainan beti ere feriaren izena aski da yendea mugiarazteko eta aintzineko urte oietan bezala emen ikusi ditugu mugaz bertzaldeko anai euskaldun aunitz baztandarren artera etorriak egun goxo bat igarotzeko naikeriarekin.

Merkatu plazan bazen azienda eta zenbait sal-erosketak ere izan omen ziren. Yende aunitz merkatuan, baziren tratulariak Iruñe ta bertze lekuetatik etorriak, zenbaitzuk esne-bei ederrak salgai zituztenak. Esnedun beiak izan dire erreliste geiena zutenak eta bai omen ziren gutienetik 60 buru. Oietatik 20 saldu omen ziren, bei onak eta probetxu aundikoak banaz bertze 20-25 litro esne ematen dituztenak. Gaurko egunean esnedun beiak gero ta erreliste geiago dute nekazarien artean eta Baztan alde huntan ere hori gertatzen da, esneak ematen du eta yendea ortara dago.

Bei gorrietan 35 buru omen ziren eta oietatik bida bakarrik saldu omen ziren, bi ernari bertzerik ez. Migeak 25'ean bat eta 3 buru bakarrik salduak. Ardi zaharrak 40 buru eta oietatik geienak saldu omen.

Emen erakutsiko ditut sal-neurrien edo prezioen gora-berak.

Esnedun beiak, 29000-36000 pezta bakarrak.

Bei gorri, 28000-29500 pezta bakarrak.

Migeak, 24000-25500 pezta bakarrak.

Ardi zaharrak, 575-650 pezta bakarrak.

Ikusgarrien artean aipatu dezagun erreboteko plazan goizean eginikako erreboteko partida. Alde batetik Iruritarrek eta Donibanetarrek ekipa bat eginik eta bertzetik Ainhoa eta Hendayak bertze ekipa osotzen zutela. Partida izigarri ederra izan da bi eskualdeak yokada xarmantak eginik eta ahalmen guzia erakutsi zutelarik. Irurite-Donibane ekipak auzia bereganatu zuen 13-11 irabazirik.

Artsaldean "Iriarte" pilota plazan esku-uska, Nagore ta Txitxan, Bengoetxea ta Espartza'ren kontra. Lenbizien berdintsu ibili ziren adoste zenbait eginik bainan gero Nagore eta Txitxan'ek neke aundirik gabe irabazi 25-19. Partida hunen ondotik yoko-garbin aritu ziren Pierrot eta Barxa ainhoatarrek. Iturralde ta Ripa iruritarren kontra eta lapurditarrek irabazi 25-22.

Elizondo'ko Urriko feriak espantu aundirik gabe goan dire eta orai bagoazi gainbera negu aldera.

M. Izeta

Principe de Viana, 1968, azaroa-abendua, 7. orr.

## BAZTAN

### Paristik euskal giroa

Yoan den Apriaren 30'ean "Radio Paris'tik" euskal irrati saioa entzun ginuen eta bereartan Aita Frantzisko Elizondarren "Eztu iñork ere jakingo" deritzaion ipui polita agertu zuten, lesakar Paskual Aldabe'k irratirako antolatua eta berak moldatutako euskal soñu ederrarekin apaindurik. Antzerki edo teatroaren gisera erakutsi zuten eta ortan lana egin zutenek zein xarmanki eta zer eskuara ederrean aritu ziren, eztakit baxenabartarrak edo lapurditarrak ote ziren baño beti ere izigarri ongi. Ar ditzatela gure goresmen bizienak. Gero Mayatzaren 28'an ere, berriz Aita Frantzisko Elizondarraren bertze ixtorio bat "Besteena ezagutu: gurea ez" deitutakoa agertu zaukuten, au ere guziz atsegingarria eta lenagokoa bezala lesakar Paskual Aldabe'k irratirako antolatua.

Bi komedi oiek atsegin aundiarekin entzun ditugu eta berriz ere "Radio Paris'tik" orrelakoen bat ilabete guziz azkenengo igandetean emanen daukute, "Paris'tik euskal giroa" deitzen duten irrati saioan eta arratseko ameka terdietako inguruan.

Gure adiskide euskaltzale zintzo den Paskual Aldabe'ri gure zorionik maitekorrenak eta aintzinat ere segi dezala gisa ortako komedi politik apaintzen, euskaldun yendeak pozik entzunen ditu eta gure eskuarari emanen dion ohorea onuragarria izanen da. Zai egon gaitezen.

### Baztandarren Biltzarra

Udara gañean dugu eta Elizondo'ko bestak urbilduxek. Aurten Santio ondoan omen dugu "Baztandarren Biltzarra" eta berri orrek aunitz poztutzen gaitu, egun ori baita baztandar guzien bilgura, denok baturik elkartasun goxoan igarotzen duguna. 1963, 1964, eta 1965garrengo urtetan biltzar ori bera egin zen eta egun oiek utzi zaukuten oroitzapen ederra ez dugu atzendurik. Yaz etzen biltzarrik izan baño aurten Yainkoa lagun Abuztuaren seia berexi dute baztandar besta ori ospatzeko eta aintzineko iru urte oietan bezala izanen ditugu: Goizean eskuarazko Meza, gero karriketan barna "Karrozen ibillaldia". Bazkal aintzinean Mutil-dantza. Eguerdien Bazkaria eta bazkalondoan, dantzariak, kantariak, txistulariak, bertsolariak eta zenbait ikusgarri. Arratsaldean plazan txistu soñuarekin naiko dantza Eztakigu oraindik baino behar bada euskal teatroa ere izanen dugu naski. Beti ere gauzak gerta daitzila guk nai bezala eta baztandar gazteria eta oriekin batean zaharrak ere, egun eder bat igaro dezatela denak bat eginik euskaldun onak bezala.

### Elizondo'ko amabost aldiko merkatua

1967 Maiatzaren 13'gn

Beiak:

Aitzinerako beiak 24.000'tik 38.000 pezetara.

Esneko beiak, 27.000'tik 36.000 pezetara.

Migak ernariak, 22.000'tik 26.000 pezetara.  
Aragiko beiak, 30'50'tik 36 pezetara kiloa bizik.  
Aratxeak, 55'tik 60 pezetara kiloa bizik.

Txerriak:

Bi ilabeteko kumeak, 900'tik 1.000 pezetara baktotxa.  
Bargoak, 2.100'tik 2.800 pezetara.  
Zerriak gizenak bertakoak, 29'tik 32 pezetara kiloa bizik.  
Zerriak gizenak "York" delakoak 32'tik 35 pezetara kiloa bizik.

Izeta

Principe de Viana, 1967, ekaina, 5. orr.



## BAZTAN

### Irurita

Irurite'ko bestak igaro dira. Bertze urtetan bezala aurten ere yende aunitz ibili da bestak izan dute errekte, Salbatore egunean urtero bezala Meza Nagusi ederra eta Meza ondorean euskal-dantzariak. Pilota partidak, bizikleta lasterketa eta bertze yosteta aunitz ere egin dituzte eta aurten beñere ez bazala Baztan'go Fandango Txapelketa izan dugu, dantza laxoan zeñek obeki dantzatu. Zeingeiagoketa huntan bortz bikote ari izanak dire eta bortz pare oietatik, lau iruritar eta elizondar bat. Dantzarien aitaldia guziz gustagarria izandu zen.

Plazan eta karraketan "Orkesta Alegria" famatuak bazter guziak iñarrosi zituen eta gazteriak naiko dantza eginik ederki yostatu zen. Urtero bezela eta oitura ez galduz, aurtengo Salbatoretan ere eurie egin du bainan alare besta ederrak izan dire.

Irurite'ko bestak iraganik, orai bertze errietakoak badatorzkigu. San Juanetan Arizkun'goak eta Erratzu ta Almandoz'en San Pedro-tan. Badakigu iru erri oietan bestak prestatzen ari direla eta ainbertze ikusgarrien artean bertsolariak ez dira faltako. Arizkun'en bi bertsolari on ari bearrak omen dire eta segur naiz besta hunek errekte aundia izanen duela. Gero Sanferminetan Azpilkueta'koak. Santio aintzineko igandean Uztailaren 21 ean. bertsolari besta eder bat egin gogo omen dute eta ortan ari bearrak, Basarri, Uztapide, Xalbador eta Mattin. Baztandar bertsozaleak kontent egoten al gara.

M. Izeta

Principe de Viana, 1968, ekaina, 5. orr.

## BAZTAN

### Bertsolariak

Mayatzaren 21-ean bertsolari besta eder bat ospatu dugu Elizondon. Besta hontan bost bertsolari ari izanak dira: MATTIN, LASARTE, LAZKANO, AGIRRE eta hoiien artean gure herriko bertsolaria KLEMENTE. Antxitoneko trinketea bete betea ikusi dugu, hor ageri da baztandarrak bertsozaleak direla eta gure koblariak maite dituztela. Kantaldia atsegingarria izandu zen, gai politak eta jendearen gogokoak, denak bazituztela nondik lotu.

Besta hau Nafarroako Diputazioko "Institución Príncipe de Viana" ren laguntzarekin egingina da eta bildu dena Elizondo-ko Ikastolarako izan da. Zorionak bertsolarieri eta gure eskerrik beroenak entzule guzieri.

### Trinketean

Elizondo-ko Antxitoneko trinketean pilota txapelketa bat egin dute, paletaz eta gomazko pilotarekin. Xapelgo hontan hamabi bikote ari izanak dira eta denak baztandarrak. Joan den igande Mayatzaren 28-ean Azken-Partida edo Finala jokatu zuten, hortarako pilota besta eder bat antolatu zutelarik. Lehenik esku-huska. Mugiro eta Ospital Alzuguren anaien kontra. Partida polit bat egin ondoren, Alzuguren anaiak garai 22-10. Bigarren partida ere eskuz. Trantxe eta Maisterrena. Danboriena eta Etxebeste-ren kontra. Trantxe eta Maisterrena irabaztale 35-27. Azkenik Finala Urrutia eta Txatxin alde batetik eta Ameztoy eta Alejandro Galarregi bertzetik. Azkenengo hauek gazteak emeretzi urtekoak eta bertzeak berrogeitik gorakoak. Partida atakatua eta zaharrek irabazi 40-33.

Zorionak aurtengo Txapelduneri eta beste gainerako pilotarieri ere.

M. Izeta

Principe de Viana, 1972, ekaina, 7. orr.

## BAZTAN

### Bestak

Ekainako hilabetean gure eskualdean ospatutako bestetaz zerbeit erran behar ginuke. Besta Berri egunez almandoztarrek beren herriko jaiari hasiera eman zioten baina egun hortan ez zuten eguraldiarekin suerterik izan, egun guzian euria iausti ahala eta pilota partidik gabe gelditu ziren. Legorrik pilota plazak arrisku hori dute, lau ttantta aski dira partida ondatzeko eta holakoetan pilotazaleek hartzen duten naigabea haundia izaten da, urtean behin partidak eta eurie egiten badu akabo. Lehenbiziko egunean pilotik gabe gelditu ziren baina laugarrenean San Juan egunez, aizkora apostu eder bat izan zuten. Iendea ibili da eta erran beharrik ez dago gazteria ederki iostatu zela.

Arizkun-en San Juan egunean Zuberotar eta Luzaidetar dantzariak ari izanak dira tarte batean Arizkunder mutil-dantzariak ere beren saioa egin zutelarik. Zuberotarrak Etxaun txirulariarekin etorrian ziren. Zuberotar eta Luzaidetar dantzariak ederki aski erakutsi zaukuten beren dantzen nortasun haundia, txalo ederrak ere entzun zituztela ikusliarren aldetik. Arizkunderrek pilota partidak eta bizikleta lasterketa ere egin zituzten. San Juan egunean iende aunitz ikusi ginuen Arizkun-go herrian.

Erratzu-ko herriak ere Sanpedroak ospatu ditu. Lenbiziko eta bigarren egunean pilota partidak eta hirugarrenean igandearekin bertsolariak. Besta hontan Xalbador eta Mattin euskaldun koblari famatuak ari izanak dira kantaldi xarmanta eginik. Yendea kontent.

Doneztebarrek ere San Pedrotan ikusgarri eder bat izan zuten. Dantzarien nor-gehiagoka, dantza laxoan zeñek hobeki dantza. Bederatzi bikote haundietakoak eta zazpi txikietakoetak aritu ziren, denek, haundiak eta txikiak trebetasun arrigarria erakutsi zigutela. Larrea-Albizu lezotar dantzari fiñak irabazi zuten lenbiziko Saria eta txikietan lezotarrak ere irabaztun, Izeta-Lopetegi bikote gaztea dantzari trebeak eta bizitasun haundikoak. Zorionak lezotar dantzariari. Hirugarren egunean igandearekin iksukizun ederrak Donezteben. Ahari ioka, Amezketeta eta Ezkurra-ko ahari hoberenak zanpaka ari izanak direlarik.

Soka-Tira, Malderrekako taldea Baztan-go taldearen kontra. Bi talde hauek beren ndarrak ederki probat zituzten. Lenbiziko tiraldiak bi minutu pasa iraun zuen eta azkenean Malderrekarek irabazi. Gero bigarrenegun baztandarrak neke haundirik gabe garaile eta hirugarrenean berriz ere tiraldi bortitza eta Baztandarrak irabaztale. Baztandarrek bi tiraldi irabazi eta bertzeek bat.

Aizkora apostua Arria eta Mindegia buruz-buru, bakotzak zortzire onbor kana-erdiko moztu beharrak zituztela. Arria azpeitiarra irabaztun.

Donostia-ko "Los Ponposhos" deitutako soñulari famatuak ere joaldi ederra eginik iendea alaitu zuten eta azkenik Agirre eta Lazkano bertsolariak ere beren kantaldiarekin euskal-festa eder honeri indarra eta euskal usai gehiago eman zioten.

Urrengoan Baztandarren Biltzarraren berriak agertuko ditugu eta bai Santiotakoak ere.

M. Izeta

## BAZTAN

### Bestak

Iruriteko herrian Salbatoreak ospatu dituzte. Bertze urtetan bezala yende aunitz bildu da eta urtero bezala aurten ere euria egin du. Erraten dutenez aurtengoarekin amairugarrena du urtero urtero eta utsik egin gabe Salbatoretan euria egiten duela. Halare lau egunetatik beti izaten dute egun bat edo bi eguraldi ederrakin. Azkenengo egunean ateri egon zen eta bestak izan zuen arrakasta.

Berroetarrek Pentekoste igandean ospatzen dituzte beren herriko bestak. Lenago besta hok San Martinetan egiten zituzten baina Pentekostesetara aldatu dituzte. Orai ditugun aurrerapenekin yendea aisa mugitzen da eta hala ikusi ditugu Berroetan autoak txiñurrie bezzala kokatzeko tokirik ezin arkituz.

Almandoztarrek ere Besta-Berri egunean eman zioten hasiera herriko festeri igandearekin akaballa emanik. Bertze herri hoietan bezala hemen ere yendea pillaka eta autoak ere iñon ezin kokatuz. Bazen umore ona eta bestak ederki joan dira.

### Baztandarren Biltzarra

Aurten "Baztandarren Biltzarra"ren eguna Uztailaren 21-ean ospatuko da Elizondon. Aurtengo Biltzarra amargarrena da. Lenbizikoa 1963 garrengo urtean egin zen eta geroztik ospatu dira: 1964, 1965, 1967, 1968, 1969, 1970, 1971, eta 1973-an. Bertze Biltzarren gisa aurten ere izango ditugu: Meza, Karriketan ibilaldia, Bazkaria, dantzak soñua eta abar. Urte guzietan ikaragarrizko yendea biltzen da, ez bakarrik Baztandik, baita ere Nafarroako bazter guzietatik eta baita ere Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Lapurdi, Baxenabarra eta Zuberoatik. Egun hortan denak etortzen dira baztandarren artera egun goxo bat igarotzeko naikeriarekin, gisa hortan euskaldunen arteko lokarriak sendo iraun dezaten. Orai besta der hori gerta dadiela guk nai bezala.

M. Izeta

Principe de Viana, 1974, ekaina, 7. orr.

## BAZTAN

"Martxo lore, deusez lore.  
Apiril lore, batre baño hobe.  
Maiatz lore, urre lore".

"*Kukuak kantatzen du Maiatzian kuku kuku*". Euskal kanta batek hola dio eta holaxe gure alderdiko kantari xaharrek Maiatzean sartu orduko eta kukuaren kanta ozena entzunik, laster hasiko zaizkigu abesti hori errepikatzen. Erranairu batek ere kukua aipatzen du eta hola dio: "*Kukuak Erramu egunean kuku, San Pedro egunean muku*". Sasoin huntan gure Baztan aldean atsegin haundiarekin entzuten dugu kukuaren deia eta erran dezadan huntaz ere badagola zerbait erran beharra. Udaberrian lehenbiziko aldia entzuten delarik kukuaren kanta, sakelean sosa balin ba'duzu, orduan urte guzian etzaizu sosik faltako, bainan sakelean sosik ez ba'da, orduan urte guziak sosik gabe. Zorionezko kukua etzaitela ixildu gure Euskal Herri'ko oihanetan.

Xalbador zenak xori parearentzat erran zuena gogoan daukat eta aipa dezadan:

"Jainkoak berak erakatsirik  
dakiten soinu gozoan,  
ohantze berri baten egiten  
elgarren amodioan".

Maiatza'ri buruz baditugu esaera zahar gehiago ere eta urtero entzuten ditugunak:

"*Maiatza fardo, erearoa klaro, orduen bilduko da ogie ta artoa franko*"

Eguraldi ederrakin zein zoragarria den Maiatza, naturalezaren berpiztea, gaztetasunaren adierazgarri. "*Maiatz lore urre lore*".

Irurite eta Urdazubi'ko herriek ospatzen dute Salbatoreak, gure eskualdean izaten diren lehenbizikoak, hortaz badute arrakasta, yende aunitz biltzen baita bi herri hoietan denak dibersioaren bila.

Gure bizi moldeak eta ohiturak ere aldakuntza haundia egin dute bainan nekazariak beti naturalezaren menpe, Maiatza dute erizioak egiteko ilabeterik hoberena. Maiatza urtearen giltza.

Lehenagoko denboretan Maiatza'ko lehenbiziko egunetan egiten ziren kisulabeak.

Neguan biltzen zen egurra, ote, abarrak eta sugerri guziak ikusilabearen ondora eta dena ongi pilatuz. Gero kisu harriz kisulabea bete eta behar ziren antolaketa guziak, den dena prest egon zedin. Maiatzaren hasmentan etxeko nagusiak su ematen zion kisulabeari. Zeremonia interesgarria. Bertze egun batez kisulabeari buruz xehetasun gehiago emanen ditut.

Mariano Izeta

Principe de Viana, 1983, ekaina, 13. orr.

## BAZTAN

### Omenaldia

San Bartolome'tako bestetan Lekarotz'ko erriak Maurizio txistulariari omenaldia egin dio. Gure txistulari baztandarra aurtengo Sanbartolometan 25 garren urtea egin du Lekarotz'ko errira soñue yotzera etortzen dela, ortaz bada lekauztarrek merexi duen omenaldia egin diote zillarrezko eztaien gisera besta eder bat eginez. Pilota lekuan bazkaria egin zuten erriko gizon ta gazte geienak Maurizio'kin batean maiean yarririk. An bazen umorea soñu kantu ta dantza denak elkartasun zoragarrian bozkarioa erakusten zutelarik. Lekarotz'ko erriak "Trofeo" delako edergailua eman zion bere omenaldiaren oroitzapena betiko izan dezan. Zorionak gure Maurizio txistulariari eta segi dezala bertze 25 urtez soñue yotzen eta gu arekin batean bertze orrenbertze urtez mutildantza dantzatzen.

Izeta

Principe de Viana, 1966, iraila, 3. orr.

## BAZTAN

### Mutil-dantza

Aurten baztandar dantzariak gure eskualdeko mugetik kanpo aterata Baztan-go mutil-dantza leku aunitzetan erakutsi daukute. Arizkun-go mutillak Maurizio txistularia buru dutela ari izanak dira, lehenik Iruñen San Fermin biaramunean "Pabellón Anaitasuna" deitutako etxean eta Nafarroa-ko bertze dantzari-taldeen artean. Baztandar dantzariak bi mutil-dantza erakutsi zituzten, Muxikoak eta Sagar-dantza. Gure dantzak eta bertzenak ere gustagarriak izandu ziren.

Gero Uztailaren 14-ean España-ko Telebisiokoak izan zitzaizkigun Arizkun-en eta beren "aparaxuekin" bi mutil-dantza hartu zizkiguten, Muxikoak eta Tellerinek. Orai Telebistaren bidez denek ikusiko dituzte gure dantzak.

Ez dira hortan akitzen gure baztandarren ekiñaldiak. Abuztuaren 13-an berriz ere arizanak dira Donibane Lohitzun-en, Jai-Alai deitutako frontoi ederrean. Leku hortan sekulako dantzaldiak eginak dituzte, hor erakutsi dituztelarik; Muxikoak, Tellerinek, Xerri-Begi, Biligarroarena, Sagar-Dantza eta Zortzikoa. Arizkundarrek sasoi ederrean xarmanki dantzatu zuten. Besta hortan ere arizanak dira, Donostia-ko "Goizaldi"koak, Altzai-ko Zuberotar dantzariak eta Donibaneko kantariak. Denak ongi bakotxa bere mallan eta jendea ere loriaturik euskal-besta hortaz.

Lerro hoken bitartez Zuberoko Altzai-ko dantzari eta sonulariei milaka goraintzi Baztan alde huntatik.

### Bestak

Aurten besta luzeak izan ditugu Elizondon, aurtengo Santioak bazuten erreliste. Lenbiziko egunean Meza Nausi ondoan eta eguerdi aldera urteroko *Mutil-Dantzak*. Arratsaldean "Iriarte" frontoian *Dantzarien Txapelketa*, *Fandango* eta *Arin-Arin* zeñek hobeki dantza. Sariketa hortan Euskal-Herriko dantzari hoberenak ari izanak dira eta denen gañetik Etxaburu eta Bilbao senar-emazteak irabaztate ta Txapeldun. Elizondo-ko Txapelketa hortan Etxaburu-Bilbao ondarrutar bikotea aurtengoarekin bostgarren aldian Txapeldun. Zorionak.

Bigarren egunean. Goizean erreboteko partida mugaz-bertzaldeko pilotarien artean. Gero arratsaldean "Iriarte" pilota plazan, bi partida esku-huska. Lenbizikoan Ezkurra-Berasaluze 22, Galarza-Juaristi 13, Bigarrenean Pierola-Oreja II 22, Bergara-Azkarate 14. Bi partidak aski ederrak eta atakatuak lau pilotariak zuten guzia eman zutelarik.

Laugarren egunean 28-an urtero bezala bizikleta lasterketa Baztango itzulia. Eugi ta Maritorea txirindulari baztandarrak lasterketa hortan ari izanak dira eta arras ongi halare. Zorionak.

Ikusgarri gehiago eginak dituzte hala nola, Madrileko Baletistak, Lucha libre deitutako borrokaldiak, Donostia-ko "Ponpoxos" soñulariak eta gauz gehiago ere.

Aurten yende aunitz bildu da Elizondon. Mutil-Dantzak ere izigarri ederrak, zahar eta gazte sasoin ederrean. Maurizio eta Pelix-ek lan ederra egin dute. "Orquesta los Diamantes" Altsasua-ko soñulariek ere goresmen aundiak merexi dituzte, langileak eta onak. Iende guzia loriaturik heken kanta zoragarriekin. Bestak joan ziran. Orai "Bakea ta bi sos".

Aurten eztugu "Baztandarren Biltzarra" deitzen dugun besta ederra ospatu. Eztakigu zertaz baina aurten bestarik gabe gelditu gara. Biltzar haundi honek azkenengo urte hoketan fama izigarria hartu zuen millaka iende Elizondon biltzen zirelarik. Zortzi biltzar eginak dira orai arte, 1963, 1964, 1965, 1967, 1968, 1969, 1970 eta 1971. Igazkoa izandu zen denetan

haundiena, Euskal-Herriko xoko guzietatik Elizondon ikusi gintuelarik. Aurten hola beharko, ikusiko dugu ea datorren urtean gauzak aurten baino hobekiago moldatzen ahal diren.

Abuztuko ilabetean herri aunitzek beren bestak ospatu dituzte. Bera, Ziga, Sunbilla, Arrayoz, Oronoz, Donamaria, Zubieta, Amayur, Zugarramurdi, Aranaz, Narbarte, Legasa eta Lekaroz. Denetan soñu ta dantza eta gazteria beti bezala arro ta jostakin. Lekaroz-ko herrian ari izanak dira Arotzarena eta Etxeberria bertsolariak eta arras ongi, jendeari gustua eginik.

Abuztuko ilabetea joan da naiko euri, ortots, iñezture ta kazkabar erauntsiekin. Euriz ongi aseak gara, ikusiko dugu iraila-ko ilabeteak zer dakarran.

M. Izeta

Principe de Viana, 1972, iraila, 7. orr.



## BAZTAN

### Bestak

Besta hemen besta han, Abuztuko ilabetea bai bestaz ongi ornitua. Ospatu dituzte: Bera, Ziga, Sunbilla, Oronoz, Aranaz, Amayur, Zugarramurdi, Etxalar, Arrayoz, Zubieta, Donamaria, Narbarte, Lekarotz eta Legasa'ko herriek. Bestak deus makurrik gabe igaro dira, dantza ta yosteta. Orain diren aisetasunekin, yendea aunitz mugitzen da; autoak ikusi ditugu txinurriak bezala bazter guziak betetzen zituztela eta iñon ezin kokatuz.

### Mutil-dantza

Ikusia dago Arizkun'go mutil-dantzariak badutela erreliste. Igaz zortzi aldiz ari izanak dira, Euskal-Herriko plazetan barna, gure sorlekuko dantzak erakutsiaz; aurten, Buruilako ilabetean sartu orduko badaramazkite amabi aitaldi eginak.

Donostia'ko Turismo Etxeak antolatutako "Fiestas Euskaras" deitzen diotenetan, Arizkun'go mutil-dantzariak, Baztan'go dantzak agertuaz, gure sor-lekuari ohore aundia eman diote. Txalo ederrak ere dantzarien ohoretan. Mutil-dantzak gogokoak izan dira; hortaz Donostia'ko izparringiak mintzatu dira laudorioak emanez.

Irailako (Buruila) ilabete hontan ere bertze ekiñaldi bat. Sara'ko herri zoragarrian, bestak zirela ta hor ari izanak dira mutil-dantzariak gure aurrideen aintzinean. Arratsalde goxo bat iraganik eta azken agurra emanik etxeratu ginen eta saratar baten itzak gogoan harturik:

"Marra horrek berexten gaitu,  
baina gure mintzaira elkartzen gaitu,  
hortaz behar dugu elkar maitatu".

### Euskaltzaleen biltzarra

Irailaren 30 eguna, gogoangarri euskaltzaleontzat. "Eskualzaleen Biltzarra", Batasunak urtero egiten du euskal biltzar bat mugaz-bestaldeko herri batean, beti txandatur egiten dute eta aurten Sara'ko herriaren aldia zen.

Abiatu ginen geren etxetik eguraldi ilunakin, tarteka euri pizer bat. Otsondo'ko lepoa erdietsi orduko eguzkia goibelen artetik kiriketa eta gure aintzinean Laburdi'ko zelai zoragarria garbi garbia ageri zela.

Sara'ko herrian sartu ginelarik txistu soñuak nabari ziren karriketean euskal festaren ezaugarri eta non-nai euskaldun ikurriñak ziren ageri: Amar t'erdietan Euskal-Meza. Elizkizun zoragarria, kantu, otoiz eta bertsolariak denak hunkigarriak. Hiriart-Urruty yauna predikalari, euskara garbian egi aundiak agertu zituen. Axular zenaren Eliza ederra bete betea.

Meza ondoan herriko plazan, Labegeri eta Haritschelhar jaunek bestari buruz mintzatu zitzaizkigun eta "Ikas" Batasunak aurtxoan artean antolatutako "Idatz-Lehiaketa"ren sariak aur irabaztaleen artean banatu zituzten. Gero bertsolariak: Lopategi, Azpillaga, Ezponda, Mattin eta Xanpun aritu ziren Itzaina jauna gai-emaile zutelarik. Arratsaldetako lanetako berriz plaza nausian eta oraingoan euskal-kantari berriak bertsolariarekin txandatur.

Arratseko 8'tan Zikero-Iatea, Bertsolari, Txistulari eta triki-trixalerekin. Gero Erromeria eta Dantzaldia. Eguraldiakin ez zuten suerte onik izan, tarteka erauntsi bizkorak egin baizituen naiz ta gero atertzen zuen, halare festa ederki joan zen.

Egun zoragarri bat gure aurrideen artean iraganik etxeratu ginen, lehenik Axular zenaren hilobian aintzinean "Gure Aita" bat errezaturik.

M. Izeta

Principe de Viana, 1973, iraila, 7. orr.

## BAZTAN

Lehenagoko ele-xaharrek beti badute ikasbide; Martxo'ko ilabeteaz erraten direnak ere badaukate egiazko arrazoinak. "*Martxo martxanta, larru txatanta*". Ilabete hunen txarkeriak ele-xaharretan aurkitzen dira. Ilabete kaxkarra delakotz datorkio izen-goiti hori, eta ez da arritzekoa artzainek ere Martxo'ari beldurra izatea eta "txarrean" dagolarik gorrotoa ere.

Erran-merran hoietan ere aurkitzen ditugu gertakizun eta izkirimiri franko, Martxo'aren maltzurkeria adierazteko. Ager dezadan hoietako historio bat baztandar xahar bati entzuna.

"Behin gan omen zen neskatxa bat bere etxeko astoakin ferratzalearengana, eta hunek galdegin omen zin:

- Baituzue ardiek?

Eta neskatxak:

- Ez! Martxo martxantak denak gan zazkun".

Gertatua edo irri-solasa beti ere hor ageri da Martxo'aren fama txarra.

Aurten ere ez dugu aunitzik laudatuko Martxo hau, orain ere bortizki zanpatu bait gaitu. Euria, ortotsak, zizerkora eta elurra auserki eguraldi beltzazkin. Gainera naiko luze, eta biziaren martxarako aski kaltegarri. Elurra xuria delarik aski beltza bait da. Alde batetik langabezia, diru eskaxia bertzetik eta eguraldi txarra gainetik, alderdi ederra etxea goratzeko. Yende aunitz neketan lantegi hien ateak etsi diralakotz, eta hunek luze irauten ba'du mixerie bazterretan. Holakoetan ere ele-xaharrek beti erne, badute zerbait erakutsi beharra eta zorra baldin ba'da zirto ederra sartu ere; "*Azken hilek pagatu-koitik denak*". Yendea larri aurkitzen ba'da ere beti ziri eta zirto. Bainan, hoiek guziak hola eta ez izitu, ekaitzaren ondotik udaberria etorriko bait da, eta Yainkoaren laguntzarekin gauzak zuzendu ere. Agian bai.

M. Izeta

Principe de Viana, 1980, martxoa, 13. orr.

## BAZTAN

Zenbait Iruñe'ko eta Araba'ko euskaldunberri talde, Baztan'en

Joan den udan, Baztan alde huntan izan ditugu Iruñe'ko "P. Axular" eta "J. Amendux" euskaldun berri Taldeak eta Araba'ko bertze Talde bat; guzira, ehun lagun. Ikastaro hauetan ibiliak izan direnak gogor lotu dira euskara lantzen; denbora guzian, elkarrekin beti euskaraz mintzatzen ziren. Guk ere izan ditugu hartu-emanak Talde hoiekin, solasaldiak eginik Baztan'go arazoak erakutsiz.

Euskaldun berri hoiien kemena ta euskal-zaletasuna, aipagarriak dira; nola ikasi duten euskara!

Bestak eta biltzarrak alderdi eguna

Oroitzapen hunkigarria utzi digu Ayegi'n ospatutako Alderdi Egunak. Hainbertze yende mugi-arazten duen Alderdiak badauka indarra; hori garbiki agertu zen Iraila'ko azken igandean. Han ikusi genituen Euskal Herri guzietatik etorritako yendeak; dena, haurride onak bezala, Nafarroa'ren bihotzean bilduak, Amaren altzoan elkaturik. Han zaharrak, gazteak, haurrak, famili osoak: Herria, hitz batean erranik. Han errespetoa, alaitasuna, elkartasuna; hor agertzen zen euskal yendearen nortasuna.

Aniz'en

"Aniz: hameka etxe, hameka labe, ta hogeitabe zetabe, bat bertzez behartu gabe". Erranairu baztandar hunek ederki adierazten du Aniz'ko herriaren nortasuna, gure eskualdeko herri euskaldunena hain segur.

Bestak, Urri'ko 3'an asi ziren: Meza Nagusia, Euskal Jaialdia, Pelota eskuz, Aizkora eta Bertsolariak. Eta ederki egin zuten gure nafatar bertsolariek: Amorena zugarramurdiarrak, Argiñarena errazkindarrak eta Elizagoyen arraioztarrak. Asteartean, aniztar guziak bildurik, zikiro yatea.

Bestak gan dire, orai usoak Olarri'n.

Elizondo'ko feriak

Urtero bezala, San Lukas ondoko astearen ostiralean, ospatu dira Urri'ko Feriak Elizondo'n. Ofizialki iru egun izaten dira; osteguna, ostirala eta larunbata; bainan, ostirala da egunik aundiena. Aurten denborak lagundu gaitu eta yende aunitz bildu da Baztan'go hiri nagusian.

Merkatu zelaian ere hazienda ederra, klasean klasekoak eta prezioak ere arabera hortan. Karriketan eta plazetan zernai gauza salgai, saltzaleak pillaka karriketan ezin kokatuz. Beti bezala, bazen mugimendu eta hemen bildu dira baztandarrekin batean, Bidasotar, Ultzamar, Baxenafatar eta Lapurdi'ko yendeak. Elizondo'ko Feriak euskaldunen biltzarra da, egun hortan euskara nagusi Elizondo'n.

Arratsaldean bi pilota partida. Lenbizikoa: Retegi III-Txoperena 22, Kenedi-Garaita 17. Bigarrena: Bergara II-Maiz 22, Bengoetxea III-Lajos 20. Feriak joan dira eta aurtengoak aspaldi huntan izan diren hoberenak.

## Elizondo'ko Korala Lehen Saria Ego-Afrika'n

Elizondo'ko Koral'ak aipamen berezia behar luke, berri ere Ego-Afrika'n erdietsi duen garaipen haundiarengatik.

Urria'ren 16'ean ospatu zen Johannesburg aldean, Roodpoort hirian, Ego-Afrika'ko Sariketa Nagusia, 12 Kantari Taldek parte hartu zutela: lau, Europa aldetik: Gales, Italia, Alemania eta Euskal Herri'ko Elizondo'koa, ta bertze zortzi Koral Ego-Afrika'koak. Merezimendu guziekin Elizondo'ko Korala, IRABAZTALE Sariketa Nagusi hortan. Hiru egunen buruan, bertze Sariketa Folklore Sallan, Hirugarren Saria bereganatu zuen.

Ez da lehenbiziko aldia dastatu duela garaipenaren loria. Eraso yaunaren gidaripean asi zen gure Korala, 1942'gn. urtean, eta gidari berarekin joan diren 39 urte luzeetan. Gure Kora'aren kanta-saioak Euskal-Herria'n, España'n, Frantzia'n, Ingalaterra'n, Austria'n, Italia'n, Beljika'n, eta orain Ego-Afrika'n, arrakasta izigarria ukan dute. Baita garaipen ederrak ere:

Gales'ko Langollen'en, 1951'ko Laugarren Saria; 1952'an, ordea, LEHENBIZIKO Saria; eta Langollen'en izanak dira 1952, 1977 eta 1979'gn. urteetan. Erroma'n, 1953'gn. urtean. Eta Tolosa'n ospatzen duten Lehiaketan bi aldiz ari izanak dira eta bietan, Hirugarren Saria erdietsi. Behin, Frantzia'ko Lille hirian, Bigarren Saria irabazi zuten.

Oraingo garaipenak bozkarioz bete gaitu; gure kantariak Elizondo ta Baztan'go izena gorasko ezarri dute, gure Nafarroa ta Euskal-Herria'ri fama ona mundu guzian ematen.

Urria'ren 21'an etorri ziren kantariak Elizondo'ra. Nolakoa Herriak egin zien arrera! Herriko ta Baztan'go Kontseilukoak; txistulariak; "Kalxka" soñulariak; eta Baztan'go yende guzia bildu ginen Koral'ari merezi zuen Omenaldia eskeintzeko. Egun gogoangarria. Gure zorionik maitekorrenak Elizondo'ko Koral'ari, batez ere bere Gidariari; bide hortaz yarraiki! Eta Yaunak, urte aunitzez, zaindu zaitzatela. Berriz ere, zorionak!

Mariano Izeta

Principe de Viana, 1981, iraila, 13. orr.

## BAZTAN

### Bestak

Uztaila eta Agorrilako ilabetetan baditugu naiko besta, gazteria hor dabilte herriz herri dibersioaren billa, orai hemen gero hor eta sarrixago han, harat-hunetak aisa eginik bazter guziak kurritzen dituztela.

Sanferminek, Santioak, igaro ziren eta orai berriki Sanlorentzoak, Amabijinek eta Sanbartolomeak ere ospatu ditugu. Amabirjine egunean Zubieta'ko herrian bertsolari besta eder bat egin zutene ta hortan aritu ziren; Uztapide, Lasarte, Lazkao-Txiki, Mattin, Azpillaga eta Lizaso, sei bertsolari eta denak onak. Yende aunitz Zubieta'n eta denak kontent gure koblariekin kantaldiarekin Amayur'en ere bazituzten bertsolariak, hor ari izanak dire, Azpillaga eta Mattin. Irugarren egunean igandearekin egin zuten besta hori eta erran beharrik eztao bertsolarien aitaldia, gustagarria izandu zela. Amayur'en ere yende aunitz bildu zen. Oronoz'en "Ez dok amairu"koak ari izanak dira. Larunbatean eta arratseko amarretan Maristen Ikastetxeko frontoian kantatu zuten Maria Lurdes Iriondo'k, Xabier Lete'k, Mikel Laboak eta bertze gazte kantari gazte batzuk ere. Euskal-kanta berriak izan zuten errekinste eta entzuleek esku-zarta beroekin beren bozkarioa erakutsi zuten. Urtero bezala Amayur eta Zugarramurdi'ko herrietan zikiro yateak egin zituzten eta beti bezala aurten ere besta hoiak arrakesta aundia izan dute eta umorea ere etzen falta.

Lekauztarrek ere Sanbartolomeak ospatu zituzten eta bertze herri hoiak guzietan bezala, dantza eta soñu auserki gazteria yostakin eta anak arin ibili delarik. Aipatu dezagun Lekarotz'ko herrian eginikako meza. Elizkizun zoragarria izan zen. Zorionak.

Buruilako ilabetean Elbetearrek Santakruzek ospatu dituzte eta urtero bezala yende aunitz bildu da eta izan da naiko dantza ta yosteta. Meza ederra, mutil-dantzak eta baita bizikleta lasterketa ere eginak dituzte.

M. Izeta

Principe de Viana, 1969, iraila, 5. orr.

## IDATZ LEYAKETA BAZTAN'EN

"Institución PRINCIPE DE VIANA" k antolaturik eta Baztan'go Balleko Etxearen laguntza osoarekin, eskuarazko idatz-leyaketa edo iskribitzale konkurso bat egin dugu Baztan'en. Leyaketa hortan sar zaizken zazpi urtetatik amalau urte bizkitarteko mutiko ta neskatico guziak. Idatz-lanak, Sorgin-kontu, ele xahar edo ele berri edo edozein ixtoriori buruz egin beharra zuten. Sariketa hunek erreliste aundia izan du, guk uste baño gehiago eta horrek aunitz poztu gaitu. 80 idatz-lan hartu ditugu eta aski politikak gehienak, baztandar eskuaran eginak eta aski polliki idatziak. Goan den igande Agorrilaren 31'ean, Elizondo'ko Salon Parrokial deitzen den etxean ospatu ginuen, idatz-leyaketaren Sarien banaketa. Mai-buruan gintuen, Urmeneta yauna Diputazioko Aintzindaria, Balleko Alkate Hualde yauna, Jose Manuel Lasarte "Institución PRINCIPE DE VIANA" ko Aintzindaria eta bertze zenbait jaun euskalzale, Epaitzaleek idatz-leyaketaren auzia gisa huntan moldatu zuen.

Lenbiziko Saria	Norberto Agerre. Almandoztarra	800	Pezeta
Bigarrena	Jose Luis Antxorena. Zigarra	600	"
Irugarrena	Juan Etxart. Erratzuarra	500	"
Laugarrena	Ana Maria Etxart. Erratzuarra	400	"
Bortzgarrena	Begoña Etxandi. Arrayoztarra	300	"
Seigarrena	Fermin Inda. Amayurtarra	200	"
Zazpigarrena	Jabiera Goñi. Elbetearra	200	"
Zortzigarrena	Frantzisko Menta. Arizkundarra	200	"
Bederatzigarrena	Felix Inda. Amayurtarra	200	"
Amargarrena	Felisa Maria Karrika. Erratzuarra	200	"

Gero hoi en ondolik, amar sari 150 pezetakoak. Ogeitabortz sari 100 pezetakoak.

Ogei sari 75 pezetakoak eta azkenik, amabortz sari 50 pezetakoak.

Sariak banatu ondoren, Balleko Alkate yauna, Lasarte yauna eta Urmeneta yauna ere mintzatu ziren baztandar aurrak gorai patuz eta eskuara laudatuz. Salon Parrokial'eko yarralkiak denak bete beteak eta txalo ta esku-zarta aundiak idazle ttipi guzieri. Zorionak irabaztaleari eta bertze gañerako idazle guzieri ere, zuek baizerate gure eskuararen geroa indartuko duzutenak. Eskerrak Baztan'go Balleko Etxearen Aintzinderieri, idatz-leyaketari eman dioten laguntza, aundia izan delakotz.

Hemen agertuko dugu lenbiziko Saria irabazi duen kontua eta urrengoan argitaratu dugu bigarren saria irabazi duenena. Kontu politikak ta euskal giroa daukatenak.

Datorren urtean Yinkoak nai badu, idatz-sariketa hau aundiagokoa eta obekiago egin gogo dugu. Hori geroak erranen eta bizkitartean lotu gaitezen lanera.

M. Izeta

Principe de Viana, 1969, iraila, 6. orr.

## BAZTAN

### Kantariak

Elizondo'ko kantari-taldeak edo "Coralak" aurten 25 urteak betetzen ditu eta bere sorkundearen ogeitebortzgarren urte burua zilarrezko eztaien gisera ospatu beharra da, ortaz bada "coraleko" zuzendariak nai luteke ohorezko omenaldia antolatu Bienal deritzaion kantari besta aundia eginez. Besta ori antolatzeak buru-austeak izanen ditu naski bainan elizondar kantariak lanpide ori zaletasun aundiarekin artu dute eta gañera Balleko Etxeak eta Diputazioak beren laguntza eskeñi dabezte. Badugu uste Bienal delako besta guzien gañekoa zianen dela eta Yainkoa lagun Buruilaren lendabiziko astean egin gogo omen dute iru egun iraunen duelarik. Euskalerriko kantari-talde oberenak ariko dira eta espero ditugu, Donosti, Iruñe, Gazteiz, Bilbo, Biarritz eta euskal zazpi probintzietako kantariak, behar bada amabi edo amabortzetaraño. Ortziralez asiko da eta egun ortan latinezko abestien eguna izanen da, larunbatean euskal abestia eta igandean denetatik. Obekienak kantatzen dutenek sari ederrak bereganatuko dituzte, ortarako izango dira epaikariak edo juezak, yaun yakintsuak eta uste osoko gizonak. Berri onek aunitz poztu gaitu, zeren orrelako bestak gure eskualdeari ohore aundia emanen baitiote, Elizondo eta Baztan'go izena aipatua eta goretsia izanen baita eta azkenik Euskalerriko abeslarien elkartasun ori zazpi aurriden besarkada izenen delakotz.

Eta orai asmo on oiek gerta ditezela eta ez daitzila ametsak bakarrik izan.

### Bestak

Baztan alde untan lendabiziko bestak Irurite'koak izaten dira, ortaz bada besta oiek erreliste aundia dute eta urtero urte mundu bat yende biltzen da. Aurten ere bertze urtetan bezela izan dituzte, elizkizun ederrak, euskal-dantzariak (aurten dantza berriekin), erreboteko partidak, bizikleta lasterketak eta "Orkesta Alegia"rekin naiko soñu ta dantza gazte yendea ederki yostatu delarik. Aurten bertsolariak ere izan ditugu eta an ari izanak dira, Lasarte eta Lizaso, Klemente laguntzale zutelarik. Iru koblari ok yendea xoratu duten kantaldi ederrak eginik eta entzuleak atsalde goxo bat iraganik zer txalo ta esku-zartak egin ote zituzten gure bertsolarien ohoretan...

Yosteta maitagarria bai zinez eskualdun yendearentzat. Besta ederrak izan dira eta yendea ere pileka, emen ikusi ditugu Baztan, Bidaso, Ultzama, Iruñe eta Gipuzko aldekoak ere.

Urdazubitarrek ere beren erriko bestak ospatu dituzte, an ere elizkizun ederrak, pilota partidak eta soñu auserki izan dituztela. Yende aunitz, batez ere Lapurdi aldetik etorriak.

Irurite eta Urdazubi'ko bestak igaro dira eta gero datortzkigu, Arizkun'goak San Juanetan, eta Almandoz eta Erratzu'koak Sanpedrotan.

Izeta



## BAZTAN

### Feriak

Aurtengo Apirileko feriak goan ziren bainan egia erran aurtengo hauek erras funtsik gabekoak izan dire. Batzuetan xirtoa dela, bertzetan mainguerie eta bertzetan holako edo halako gaitz kutsakorren bat delakotz, beti ere aspaldi huntan Elizondo'ko plazan ezta merkaturik izaten debekatua baitago. Aurtengo ferietan hori bera gertatu da eta bei, zerri eta ardirik ez dituzte merkaturiko plazara agertu eta aurtan beor ta zaldi bakar batzuk bertzerik ez omen ziren. Halare feriaren izen horrek yendea mugiarazten du eta atxiki horrekin yende multxo bat bildu zen Elizondon eta bazen feriaren señailea. Nekazaria kexu dago eta badu arrankure, beti bada zerbait beti trabak eta azienden eritasun txar hoiek beñere ez suntsitzen. Non daude oraiko aurrerapenak mainguerie eta gañerako gaitzak betikotz garbitzeko? Beti ere holako gauzak kalte ta gibelapen aundiak dakarzkite eta gisa hortan eztago aurreratzerik.

Lur-sagarra, erremolatxa eta bertze erizioak ere arras gibelatuak daude, Martxoko ilabetea txarra gan zen eta Apirilekoa berriz txarragokoa izan da, beti eurie, otza eta giro txarra, yendea beti kezketan lanak ezin eginez eta gisa hortan denbora aintzinat doae dusere egin gabe. Gauzak moldatuko al dira datorren illabetean? Agian bai.

Aurtengo bildotsak prezio polita egin dute eta beti bezala gora-bera aundiekin, batzuetan kario eta bertzetan merkeago betiko arrankurekin. Mayatzeko ilabetearen baitan yendeak badu esperantza, ikusiko dugu zer kanpo-giro izaten dugun.

### Eliz-besta

Apirileko 13'an Elizondoko herrian eliz besta eder bat izan dugu. Orai berriki elizeko aldarea eta bertze gauz aunitz ere berritu dituzte eta barna guzia dena ongi apaindurik behar diren aurrerapenekin ederki antolatua utzi dute. Eliza garbi eta argi dago Yaungoikoaren Etxeak merezi duen bezala.

Iruñe'ko kardinal Arturo Tabera Araoz Yaun Agurgarria izan zitzaikun aldareko Maia eta gañerakoak bedeinkatzera. Kardinalari arrera on bat egin zitzaion Elizaren Agintariari dagokion bezala eta elizan sartzean eta bere ohoretan Elizondo'ko kantari-taldeak "Tu es Petrus" kantatu zuten. Gero bedeikazioak eta Meza Elkartua aldarean amabortz apezekin Elizondo'ko semeak gehienak eta Yaun kardinala buru zutelarik. Mezaren erdian Yaun Kardinal Agurgarriak itzaldi hunkigarri bat egin zuen eta denen pozgarrirako eskuarazko itzalditxo labur bat ere egin zigun. Bera Kastillakoa izanagatik bere maren aldetik badu euskaldun odola bere arbasoak Euskalerrikoak baiziren, hortaz bada eskuarazko itzak biotzetik atera zitzaizkion eta hori guretzat ohore aundia izan da. Elizkizun huntan bortz aur batayatu zituen, bortz kristau berri Kardinal jaunaren eskuetatik Batayoko Sakramentu Saindua hartu dutenak.

Meza ondoren eta Kardinal Agurgarriaren ohoretan Elizondoko gizon gazteek Mutil-dantza dantzatu zuten eta bai Iruriteko neskatx gazteak ere beren eskual-dantza politik erakutsi zituzten. Egun gogoangarria izan da elizondarrentzat, eliza bete bete beñere ez bezala eta elizkizuna ere guziz ederra. Har ditzatela gure goresmen bizienak, erretore jaunak, elizkizunaren gidariak eta bertze gañerako apez agurgarriek ere. Zorionak deneri.

M. Izeta

## BAZTAN

### Feriak

Apirileko feriak denbora batez ain famatuak orai deus ez dire. Feri hauek Apirilaren 16 ean ospatu ziren eta egia erran guk geren denbora guzien ikusi ditugun feri murriztenak izan ditugu. Yende guti eta aziendik baterez. Merkatua aspaldi huntan etxia dago "maingerie" dela medio eta beien gaitz kutsakor hori arras suntsitu artio merkatuak debekatu dituzte. Nekazarien artean bada arrankure eta arrazoñarekin ilabeteak gaten baitira deus probetxurik gabe eta bizkitartean maingerie beti nausi. Nola ez dute ba beingoan garbitzen? Noiz arte hola?

Ferien urrine bederen nabari izaten da eta bertze egun arrontetan baino yende geiago bazabilen Elizondoko karriketan, bainan erran dezakegu oraiko Apirileko feriek lenagoko oroitzapen bat bertzerik ez direla. Bertzalde oraiko bizi moldeak eta aietasunak lenagoko oiturak aldatu dituzte eta gauz guzietan aldakuntzak nabarmen agertzen zaizkigu.

M. Izeta

Principe de Viana, 1971, maiatza, 5. orr.

## BAZTAN

### Trinkete Txapelketa

Irungo Kurpil Kirolak Batasunak antolatutako Trinkete txapelketari akaballa eman diote. Joan den Apirilaren 22-an Azkaingo trinketean Azken-Partidak edo Finalak jokatu zituzten. Paletaz aizezko pilotarekin, Leiza eta Sanzberro Elizondarrak ari izanak dira Elduayen eta Haretxe-ren kontra, bi hauek Donibanetarrak. Elizondoko pilotariak partida polita egin zuten baina mugaz-bestaldekoak irabazi 30-20. Xarez Donapaletarrak galdu Biarritz-tarren kontra 35-22. Esku-huska (bakarka) Minondo Donibanetarrak Berrogain Donapaletarrari irabazi 35-6. Eta eskuz ere baina binazka, Trantxe eta Etxebeste behobiako trinketekoak Txapeldun, Etxeberri eta Fordain Donapaletarrak garaiturik 40-28. Paletaz larruzko pilotarekin Donostiarrak Txapeldun Bega eta Gezala irabaztale Bayonatarren kontra 40-36. Trinkete Xapelgo hontan hamabi trinkete-talde ari izanak dira: Donostia (bi trinkete), Irun, Behobia, Iruña, Elizondo, Bayona, Biarritz, Donibane Lohitzun, Azkain eta Donapaleu. Gure alderdiko pilotariak ongi aritu dira hiru Final jokatu dituztelarik.

Zorionak txapelduneri eta bai beste gañerakoei ere, denek erakutsi bait-dute zaletasun bizi bat gure joko maitagarriarentzat. Gure goresmenak Kurpil-Kirolak Batasunari.

### Bestak

Iruritarrek beren herriko bestak ospatu dituzte, Salbatoreak, Besta hauek urtearen lenbizkoak izaten dira eta hortaz beti izaten dute errekiste aundia. Aurten ere bertze urtetan bezala yende aunitz bildu da Iruriteko bestetan, hor ikusi ditugularik Baztango herri guzietakoak eta Bidasoko eta Malderrekako gazteria ere. Urtero bezala Salbatore egunean Elizkizun ederra. Plazan naiko soñu eta dantza gazteria ederki yostatu delarik.

M. Izeta

Principe de Viana, 1972, maiatza, 7. orr.

## BAZTAN

Azkenengo urte hauetan eta batez ere igaz eta aurten, Euskal-Kultura asteak eta hamabostaldia arrakasta handia dute. Euskal-Herriko hiri eta herri aunitzetan gisa hortako antolaketak ospatu dituzte hoietan erakutsi dituztela, Antzerkia, hitzaldia, Euskal-Kantariak, Bertsolariak, Erti-lanak, Idatz-Sariketak, Dantzariak eta abar. Leku guzietan jendeak agertu du euskal-zaletasuna, ikasi-nahia eta batez ere gazteriak gure Herriari daukan maitasuna. Orain berriki Tolosan ospatu dute "II Euskal Kultur Hamabostaldia" Lizardi Elkarrekin antolatua eta Maiatzaren 20-ean zuten azkenengo eguna dantzarien eguna ospatuaz.

Baztandar mutil-dantzariak ere besta eder horri indar indar pixka bat eman beharrez azkenengo egun hortan Tolosan izandu ziren, beste Euskal-Herriko leku aunitzetako dantzariekin batean bakotzak beren sor-lekuko dantzak erakusten zituztelarik.

Goizean gure Arizkandar mutil-dantzariak Tolosako karraketan barna ibiliak ditugu baztandar dantzak agertuaz. Eguerdian Zikiro-Iatea Zugarramurdi-ko adiskideek prestatu zutelarik eta lauhun bazkaltiar han bildurik denak elkartasun zoragarrian. Bazkaria hobereanean zagozalaik erasan zuen baina ekaitzari gogor eginez jendea handik mugitu gabe zikiroa ian arte. Gero ez baizuen atertzen Merkatuko plazan bazkariari bukaera eman zitzaien kafiak hartuaz eta dantza ta kantu gazte jendeak umore ederra agertzen zuela.

Arratsaldean Beotibar pilota plazan dantzarien ekiñaldia, zortzi dantzari-talde ari izanak direlarik eta hoien artean ere Arizkun-go dantzariak.

Tolosan egun zoragarri bat iraganik etxeratu ginen, bihotzak alegera eta atsegiñez beterik, oroitzapen eder batekin eta berriz ere holako egun goxo bat igarotzeko nahikeriarekin. Zorionak "Lizardi Elkarrekin" "II Euskal-Kultur Hamabostaldia" ren antolatzale eta goraintziak tolosar eta beste tokietako euskaldun guzietari eta atzendu gabe Tolosa-ko mutil eta neskatx gazteeri.

M. Izeta

Principe de Viana, 1973, maiatza, 7. orr.

## BAZTAN

### Bertsolariak

Erran bezala joan den Erramu igandean bertsolari besta eder bat ospatu dugu Elizondon. Bertzetan bezala festa hau Nafar Diputazioko "EUSKAL YAKINTZA"ren babespean egina da, laguntza osoarekin eta biltzen zena Elizondo-ko Ikastolarako.

Bost bertsolari kantari: LASARTE, AGIRRE, GORROTXATEGI, IGARZABAL eta hoiien artean gure herriko bertsolaria KLEMENTE.

Bildu zen yendea bai baina ez guk nai adine baina erran dezagun hortarako Urriko feriek bezalako egunik ez dela izaten orduan aunitzez yende gehiago biltzen baita. Halare bazen entzule eta egia erran hoiek bertsozale finenak. Gure koplariak sekuleko sasoinean agertu zitzaizkigun erabili zituzten gaiari mami aunitz atera ziotelarik. Yendea loriaturik. Zorionak bertsolarieri eta gure esker beroenak entzule zintzo hoieri.

Nafarroako Diputazioko "EUSKAL YAKINTZA" ri millaka esker bere laguntzengatik.

### Feriak

Apirileko feriak ospatu dira ilabetearen 19-an. Feri hok ez dute izena bertzerik, gaurko egunean egun hori merkatu ttipi batean gelditu baita naiz ta aurten aspaldion izan den merkaturik politenekoa gertatu den. Urriko feriekin ez dute gonparazioik baina aurtengo Apirilekoetan ibili da yendea eta gehienei gustatzen baizaiote ongi yatea eta lagunarteko bilgurak, Elizondo-ko ostatuak beterik zauden. Merkatuko plazan azienda aunitz eta ona. Salerosketak ere bai omen ziren.

### Baztango sonulariak

Silbestre Almandoz gure adiskide eta kordion jotzale ona, gogo aundiarekin ari zaigu lanean. Orain ateraia du dizka berri bat berak asmatutako soñuekin. Dizka hortan agertzen dituen soñuen izen-buruan hauek dira:

"La jota de Euskal-Herria", "Jota al dantzari", "Xauli Xaulia", "Baztango Soñuaren bihotza". Azkena aipatu dudan horri izen-buru hori eman dio Silbestre Almandoz-ek, soñu bilduma hortan egileak Baztango mota aunitzetako dantza soñuak agertzen dituelakotz, hoiien artean: "Aunitz Urtez", "Billantziko", "Baztango Zortzikoa", "Soka-dantza", "Eztai Soñua", "Iru Puntokoa", "Sagar Dantza", "Purrusalda" eta "Biribilketa".

Silbestre Almandoz Arraiotz-en sortua da 1951-ko urtean. Zortzi urtetako kordion baten yabe zen eta bere baitatik eta iñork erakutsi gabe hasi zitzaigun soñua jotzen. Ameka urtetatik amalauak arte Donostia-ko Pepe Andoain izan zuen maistru ta irakasle. Soñulari jakintsu honen laguntzarekin ari izana da irratian eta Sala aundietan ere. Berehala agertu zuen bere yakitatea eta bai soñulari onaren doaiak. Gero 1971-ko urtean Madrid-en ospatutako kordion jotzaleen Sariketa aundi batean, España-ko Txapeldun izendatu zuten lenbiziko Saria bereganatuz. Ogei urte zituelarik irabazi zuen Sari aundi hori eta baita sei "Trofeo" edo "Garai-Ikur"; hoiien artean "Educación y Ciencia"ko Ministro jaunarena. Donostia-ko "Amaiak Bat" Elkarteak omenaldi bat egin zion. Silbestre Almandoz artista ona da eta naiz oraingo soñuetan nola lenagokoetan ere erakusten du bere balioa.

Gure goresmen bizienak gure adiskide gazteari. yarraiki hortan beti aintzinat eta zure doai horrek aunitz urtez iraun dezala.

M. Izeta

Principe de Viana, 1974, maiatza, 7. orr.

## BAZTAN

Joan den Apirila'ren 30'ean ospatu zen Elizondo'n zaharren Egon-Lekua edo Erresidentzi berriaren edekitzea edo hastapena. Egon-Leku berri hau lehenagoko Miserikordi zaharrea gina da, haundituz eta berrituz, aurrerapen guziekin hornitua eta arras ongi apaindurik, Zaharren Egon-Leku berri ahu izaten ahal den Etxe zoragarriena bilakatuz. Lehenagoko Miserikordi zaharra 1858 garren urtean eraiki zuten, Franzisko Joakin Iriarte Jaun baztandar ospetsuaren laguntzarekin, hortaz datorkio ezarria daukan izenburua eta izen horrekin deitzen dugu Miserikordi berri hori ere. Ehun eta hogeita bortz urteren buruan eta Nafarroa'ko Diputazioaren laguntza osoarekin zaharren Etxea berritu eta haunditu dute. Egon-Leku berri hunek badauzka 88 gela, dobleak eta bakarkakoak ere. Eritegi, Garbitoki, Janleku, Kafetegi, Sala andana bat, egonleku, josteleku, bisitakoak eta bertze. Liburutegi, Ilemoztegi eta Kapera. Hoiek guziak eta gehiago ere. Miserikordi berrian badago 140'entzat lekua. Orai bai omen dira 60'en bat lagun, baina erraiten dutenez laster beteko omen da.

Ez dira arras pobreak bakarrik hor direnak, baita ere joaten ahal dira erretreta hartu dutenak eta bakarrik bizi direnak, senar-emazte xaharrak, mutil-zahar eta neska-zahar, alargun eta holako. Baztandarrak dira gehien gehienak bainan Nafarroa'ko bertze lekuetatik ere etorri dira bereziki jende euskalduna.

Apirila'ren 30'ean egin zen Egon-Lekuaren bedeinkazioa. Nafarroa'ko Diputazioko Jaun Aintzindariak hor ziren, baita ere Baztango'ak eta jende aunitz bedeinkazioaren zeremoniara etorriak. Elizondo'ko Korala hor ginuen eta bai Arizkun'go dantzariak ere Baztan'go dantzak ederkixko erakutsi zituztela.

Zeremoniaren otoitzak eta hitzaldiak euskaraz eta erdaraz egin ziren, bainan gure mintzairari ohore gehiago emanik. Ondotik Etxearen ikustaldia nahi zuten guzientzat. Azkenik Janleku sala nagusian "lunch" edo "aperitif" bat denentzat. Egon-Lekuaren zeremoniak eta hastapenaren ospakizunak holaxe egin ziren. baztan'go xaharren Etxe haundi hori zorionezko Egon-Lekua izan dadiela. Gure goresmen eta laudorio kartsuenak "Franzisko Joakin Iriarte" deitzen den Egon-Leku miresgarri horren egileei.

M. Izeta

Principe de Viana, 1983, maiatza, 13. orr.

## BAZTAN

### Udaberriko feriak

Martxoaren 31'ean ospatu ziren Elizondo'n Udaberriko Feriak. Giro onak lagundurik Baztan'go hiri nagusian jende haunitz bildu zen.

Merkatuko Plazanazienda ederra eta ona prezioa kalitatearen arabera. Erraten dutenez bai omen ziren laurhun behi eta ehunen bat asto. Plazaren inguruan makinari eta nekazariak behar dituzten lanabesak salgai. Makinari hauetarik ezta kigu zer saldu ote zen, baina erran dutenez behietan izan omen da salmenta polita nahiz eta prezioak zeruraino iganak diren. Baztandar nekazariakazienda ona maite dute, eta gure eskualdeko baserrietako behitegiak behi onez horniturik ikusten dira.

Hemen azienden salneurriak:

#### BEHIAK

Esne behiak 30 litrotik goiti ematen dutenak	110-120.000 Pzta.
Esne behiak 25-30 litro ematen dutenak	90-10.000 "
Esne behiak 20-25 litro ematen dutenak	80-90.000 "
Miga ernariak	75-90.000 "
Behi "suiza" eta "gorri", eratrearekin	85-110.000 "
Behi "suiza" eta "gorri" ernari	70-95.000 "
Aragitako behiak, kiloa bizik,	75-95 "

#### ZALDIAK

Behor ernariak	45-75.000 "
Urte bateko pottokak	19-26.000 "
Zaldi zaharrak	18-28.000 "

#### ASTOAK

Asto zaharrak	6-9.500 "
Asto gazteak	6-18.000 "

### Elizondo'ko "Kultura Astea"

Baztango Ikastetxeek eta "Baztandarren Biltzarra" Elkarteak antolaturik, Maiatze'ko 3'gn. astean ospatu da Elizondo'n "Kultura Astea". Aste hortan ukan ditugu hitzaldiak, euskarazko idatz-sariketa, margotze pintura-sariketa eta esku-lanetako erakusleta ere. Baztango Ikastetxetako ikasleen artean eginga dute lehiaketa hori, bere-hartan 6 urtetatik 18'tarañoko gaztetxoak parte hartu dutelarik.

Hitzaldi interesgarriak emanak dira, entzuleak ere baziren, baina ez sobera; Baztan alde hortan, bertze lekutan bezala, kultura gaietan aski motz bait-gabiltza.

Asteartean, J.C. Segura jauna, Nafarroa'ko Diputazio'ko Nekazaritza Sailako Arduraduna, Baztan'go abelgorri eta nekazalgoaz mintzatu zen. Solasaldi interesgarria.

Ostegunean, J.A. Meoki jauna, Gipuzkoa'ko Graduko Lizentzidunen eta Irakasleen Ikastetxekoa, eskoletako problemetaz mintzatu zitzaikun. Meoki elizondarrak xehetasun guzietan agertu zituen irakaskintzako arazoak.



Ostiralean, J.M. Sánchez Carrión jauna, Saldis'ko maixtrua, jatorriz Granada'koa. Baztan'go euskararen egoeraz, elebitasunaren arazoetaz eta euskaldunen jokabidetaz mintzatu zitzaikun. Beti euskarari buruz mintzatuz, hitzaldi guziz jakingarria egin zigun. "*Txepetx*" adiskideak erakaspen sakonak eman dizkigu, jakitate haundia erakutsirik eta euskararen egoeraz azterketa on bat eginik. Egiak eta egia garratzak gainera, nahiz eta guretzat mingarri diren. Atsegin haundiarekin entzun ginuen Saldis'ko maixtruaren solasaldia.

Zorionak, adiskide, baduzu merezimendu.

Baztan'go Ikastetxeko ikasleek ere erakutsi dizkigute beren jakitateak, margolari eta idazle bezala. Idazkietan ipuin politak eta interesgarriak agertu dituzten; denetara, 112 lan.

Halere, eta hola jarraikiz, badugu uste hortan ereiten den aziak zer edo zer emango duela.

Huna hemen Idatz-Sariketa-ren erabakiak:

Lehenbiziko maila

"*MAITASUNA*", Patxi Petrarena, Sunbildarra, 14 urte, (BUP, Oronoz)

"*HAIZKOLARIA*", J. Xabier Kordoba, Elizondarra, 13 urte, (Eskola).

Bigarren maila

"*HAIZKOLARIA*", J. Xabier Kordoba, Elizondarra, 13 urte, (Eskola).

Hirugarren maila

"*TXURI*", J. Xabier Iturtzaeta, Elizondarra, 10 urte, (Ikastola).

6, 7, 8 urtekoak

"*ITSASO ETA BERE BEHIA*", Iziar Mena, Elizondarra, 8 urte, (Ikastola).

"Kultura Astea"ri akabaila eman zitzaion igandean, ikasleen artean dantzak eta josketak eginik. Gero Azken Agurra Meza batekin.

Zorionak "Kultura Astea"n parte hartu duten guzieri; eta goresmenak antolatzaileeri.

Bestetaz zerbait

Bestetaz ere zerbait erran behar ginuke. Irurita, Berroeta, Urdazubi eta Alamandoz'ko herriek beren herriko bestak ospatu dituzte.

Urdazubiarrek eta iruritarrek, gehienetan bezala, eguraldi txarra lagun zutela; lau egunak uria jautsi ahala eta giroa ere aski latz. Urdazubi'n, zikiro-jate egunean, bi bertsolari ari izanak dira: Etxeberria eta Garmendia.

Irurita'n ere euskal kantariak Pantxoa eta Pello.

Alamandoz'en, haizkolarien apostua gure eskualdeko mutilen artean. Alde batetik, Agerre almandoztarra eta Iraola Berroetarra, eta bertzetik Sarratea anaiak legasarrak; alderdi bakotxaren lana: 8 onbor kana-erdiko, txanda librean. Joko polita eta atakatua; baztandarrak garai, lan guzia 19 minutoz eginik. Bilbu zen jende puska bat.

M. Izeta

Principe de Viana, 1978, maiatza-ekaina, 13. orr.

## BAZTAN

Idatz-Sariketa, 1983

Baztan'go Balleko Etxeko Kultur Sailak antolaturik ospatu dugu euskarazko Idatz Sariketa bat Baztan'go Ikastetxeko ikaskeen artean. Hiru mailetan berezi dugu euskal idazle gazteen lehiaketa hau: 1'goa, BOU, COU eta Lanbide Eskola'ko Taldea; eman zitzaien gaia, "Lurra eta gizona"; 2'gna., EGB'ko 6,7 ta 8'gn. kursokoak; gaia, "Zuhaitzak"; ta 3'gna., EGB'ko 3, 4 ta 5'gn. kursokoak; txikienek "Ipuin kontakizunak" egin zizkiguten.

Haundiek 139 idazlan agertu zituzten:

Lehenbiziko Saria: KORO IRATZOKI, Zugarramurdi. Lanbide Eskola.

Bigarren Saria: Klari Leitza, Arantz. Lanbide Eskola.

Hirugarren Saria: M. Jesus Irigoien. Doneztebe. Oronoz'ko BUP.

Erdikoen 93 idazlan agertu zituzten:

Lehenbiziko Saria: MARIA INES ELIZALDE, Ziga. "Concentración".

Bigarren Saria: Maria Isabel Aleman, Amaiur. "Concentración".

Hirugarren Saria: Ana Garaikoetxea, Lekarotz. "Concentración".

Txikiak 51 idazlan agertu zituzten:

Lehenbiziko Saria: FRANTZISKO ELIZALDE, Ziga. Ziga'ko Eskola.

Bigarren Saria: Josune Ballarena, Elizondo. Elizondo-Ikastola.

Hirugarren Saria: Iranzu Izeta, Elizondo. Elizondo-Ikastola.

Aurtengo Idatz Sariketa hunek arrakasta handia izan du, 283 idazlan ez da guti, hor ageri baita norbaitek mugiarazi duela ikasle gazteen zaletasuna eta sarrazi ere laneko gogoia zabarkeri guztiak alde batera utzirik. Ezta lehenbiziko aldia idatz Sariketa egiten dugula, 1981 garrenean ere ospatu baiginuen eta hura ere Baztan'go Kultur Sailak antolaturik. Lehenago ere ospatu izan dugu idatz lehiaketa; 1969 eta 1970'garrenean "Príncipe de Viana"ren babesean egin ginuen eta ondoko urtetan sei edo zazpi urtez Nafarroa'ko Aurrezki Kutxa'ren laguntzarekin. Lehenago egin dira bainan aurtengo hau dugu hain segur denetan Sariketarik hoberena, idazlan aunitz, eta sariak ere denentzat (luburuak eta irakurgaiak). Baztan'go Balleko laguntza, handia izan da eta gure goresmen bizienak merezi ditu. Idazleak ere aski ongi ari izanak dira, lan onak agertu dituzte batez ere haundixko hoiek. Gure gazte hauek erakutsi digute Nafarroa'n ere badela gai ona euskal idazleak sortzeko. Nik uste hortan badugula aurrerapena eta hola jarraiki ez geroz gure sorlekuan agertuko direla idazle onak edo beti ere euskaraz poliki eginen dutenak. Zorionak Baztan-Bidaso'ko idazle gazteeri.

Mariano Izeta

Principe de Viana, 1983, martxoa, 13. orr.

## BAZTAN

### Omenaldia

Goan den Urtarrillaren 30'ean (Ibeltza), Baztan'go Berroeta'ko errian Omenaldi unkiagarri bat egingo dute. Berroeta erri ttipia da, Elizondo'tik 15 Kilometroko bidean dagona, mendi zelai batean kokatua eta leku atsegin ta osasungarria. Berroeta'ko erria itxasoko zolatik 366 metro goiti dago eta denetara 215 bizilagun ditu, den denak euskaldun garbiak or ezpaita iñor euskaraz ezdakienik. Aixtion aipatu dutan omenaldiari buruz zerbait erran nai nuke.

Juan Bautista Jauregi Perotxena, Olaitxeko nagusi xaharrari omenaldi hunkigarria egingo diote. Egun ortan Olaintxeko nagusi xaharrak EUN urtebetetze zituen, eta Berroeta'ko erriak nai izan zun bere erriko seme agurgarri orreri maitasunezko omenaldi batekin erritarren zorionezko Agurra agertu.

Eun urte betetzea ohore aundia dela eztago dudarik. Zenbatek erdiesten dute adin hori? Baztan'en bai al da norbait?, eta Euskalerrian zenbat ote dire? Gutti ain segur. Yaungoikoaren doai bat izan da bai, gizona adin ortan oraindik osasun onarekin arkitzea. Eun urte oketan zenbat euri, zenbat erauntsi on eta txar egingo dituzte Baztan'en... eta zenbat sortze ta eriotz. Juan Bautista sortu zenetik Berroeta'ko errian laueun erritar il omen dire eta sortu aunitz geiago, ala behar ere. Zorionak Juan Bautista eta jaunak urte aunitzez kontserba zaitzala.

Besta ttipia baño hunkigarria izandu zan. Goizean Meza Olaintxeko etxe barnean. Gero erritar guziek bat banaka Juan Bautista'ri zorionezko Agurra eman zioten, Berroeta'ko erriaren izenean boneta edo txapela apain bat edergailutzat eman ziotelarik bere eun urte buruaren oroitapenerako. Bonetaren gañean eta urrezko letrekin moldaturik, eun urte buruaren oroigarria zaraman. Nafarroa'ko Diputazioko "Caja de Ahorros" delako batasunak eta bai Baztan'go Balleko Etxeak beren edergaillu ta zorion Agurrak egingo zituzten. Baztan'go txistulariak ere an zauden omenaldi ori edertu eta alaitzeko.

Baztandar guzien izenean gure zorion aundienak Juan Bautista Jauregi jaunari.

### Bide berriak

Goan den udaberrian asitako bide berri oiek akitu urren daude. Elizondo'tik Beartzun'erañoko erregi-bidea dago, baño orai orko lanak utziak dituzte eta negu guzian ere gisa berean egonen omen dire neguko iru edo lau ilabete oketan bidearen zola pausa eta gogortu dadien. Gero yarraikiko omen dituzte lanak eta orduan erregebide au behar den bezela eta ongi apaindurik utziko omen dute. Orabide'koa ere aintzinat doaie eta orko lanak ere eldu den udaberrirako akitzen baluteke kontent egoten al gara.

Beartzundarrak kontent dire eta bai bertze gañerakoak ere, oraiko bizi moldeak aietasun oiek eta geiago ere eskatzen baititu, ortaz bada gaurko egunean bide zabalik gabe gibelapen aundia da eta baserritarren bizi modua obeagotzeko eta bai nekazalgora ere azkartzeko, bide berri oiek arras beharrezkoak dire.

Bide hori noiz luzatuko ote dute mugaraño?

Noiz ikusiko ote dugu hori? Denborarekin behar bada gure Balleko Etxea diruz ongi ornituta dagolarik... Bizkitartean zain egon gaitzen.

Bide luzatze orrek abantail handiak ekarri dezazke eta mugaz bertaldeko erri zenbaitzuk Elizondo'ra sarbide polita izanen luteke, batez ere Urepel, Esnaso ta Aldude'ko erriek. Aurrerapen handia izanen litzakela bistan dago, eta ez bakarrik komertzio ta sos artu-emanetan, baita ere elkar geiago ezagutzeko eta euskaldunen arteko lokarriek sendotzeko ere. Mugarañoko bide luzatze hori eztakigu noiz eginen den baño bizi denak ikusiko du. Denbora lekuko.

M. Izeta

Principe de Viana, 1968, martxoa, 5. orr.

## BAZTAN

### Ikastetxea

Azkenengo urte hauetan Baztan'go Balleko Etxeak egin dituen gauzik baliosuenetako bat "Escuela Laboral" deitutako etxearen egitea izandu da. Eskola huntan "ajuste y torno" deitzen diren lanak erakusten dituzte, hortarako erakustale onak badira aurrerapen hoietan trebe direnak eta aunitz dakitenak. Eskola hunek irugarren urtea du eta aurtengo irugarren kurso huntan 78 ikasle ari dira, gehien gehienak baztandarrak amalau urtetatik ogei urtetaraño mutiko gazteak. Ikasketa hauek iru urte irauten dituzte eta dena bukatzen dituztenek "Título de oficiales" izeneko gradoa hartzen dute. Eskola hau Diputazioko babesean dago, laguntza osoa daukala. Mutikoak kontent dira eta badirudi ofizioa ongi ikasten ari direla.

Hemen bertze leku aunitzetan bezala yendeak bazuen arrankure eta beti marmaraka. Baztan'en deusere egiten etzela, hemen eztela bizia ateratzeko modurik eta holako, baina ezta orrenbertzetaraño, Baztan alde hau pixkaka pixkaka badoa aintzinat eta ezta arras gabea.

Beti ere Balleko agintariek baztandar herria zaindu dezatela, konbeni diren gauzak eginez beti neguritik atera gabe eta zuzentasun osoan eskualdun yendeari dagokion bezala.

### Bide berriak

Baztan'en gauzak mantso baina seguro. Beartzun eta Olabideko bide berrieri aurtengo udaran emanen diote akaballa eta hoietan ari zaizkigu lan eta lan, zola ongi apaintzen, bide bazterrak antolatzen eta dena behar den bezela paratzen. Urte oso bat egonak dira alfer baina orai zola ongi pausatu eta gogortu denean, azken kolpea ematen ari zaizkigu.

Olabidetar ta Beartzundarrentzat aurrerapen izigarria izanen da eta orai arat-unetak aisa eginik gauz aundiak egin dezazkete, bai berendako eta bai denen probetxuendako ere. Urrats bat gehiago aintzinat Baztan'go aurrerapenaren onerako.

Orai baserritarren artean autoak eta motoak izanen dute errekte eta norbaitek bizikleta ere erosi behar omen du.

### Bertsolariak Elizondon

Erran bezala, yoan den iñaute egunen bertsolari besta eder bat izan ginuen Elizondon. Gehienetan Otsailla ilabete ergela izaten da eta aurten ain xuxen egun hoietan behar zuen bere txarkeria agertu, orma eta elur aundiarekin bortizki zanpatu gaituela. Aro txarrak menditar yendea beldurtu zuen eta egia erran ez ginuen etnzule aunitzik ikusi Antxitoneko trinketea. Alare euskaldun bertsozale multzu polita bildu zen hor ikusi gintuelarik, Baztango herrietako euskaldun zintzoak, Bertizarana eta Bidasokoak eta Gipuzko aldetik etorritako bertsozale jatorrak ere. Deneri gure eskerik beroenak eta yarraiki zazue zeren zaletasun eder hortan, eskuara maite duenak olaxe behar baitu bere burua agertu.

Festa hau Nafarroa'ko Diputazioko "Institución Príncipe de Viana" Batasunaren laguntzarekin egin da eta horari izanak dira, Xalbador, Mattin, Lasarte, Agirre eta hoi en artean gure herritar Klemente ere. Ordu bat eta iru laurden iraun zuen kantaldiak eta yendea gehiago ere egonen litzake, ongi dagon lekuan ezpaita aisa aspertzen. Bertsolariak erabili zituzten gaiak egokiak eta denen gogokoak ziren.

..iztaria eta Nekazaria... Anaien arteko bizi moduak... Aita-semearen auziak... Senargai ta Andregaien ixtorioak... Nagusi-Maisterrarenak eta gehiago ere. gero elkarri puntua emanez

ere aritu ziren eta erran beharrik eztago bertsolarien ateraldiekin yendea loriaturik egon zela. Gure koblari maitagarriak sasoi ederrean zauden eta bozak ere ozen ozenak.

Mattin'en bertso alegerak beti badute gatz eta piper eta entzuleek zer irri-karkailak egin ote zituzten aheztarraren bertso pikokariekin. Merexi du aipatzea Xalbador'en azken bertsoa. Hura bai bertso eder eta mamitsua! Lasarte ta Agirre ere bertsolari maitagarriak ditugu eta yendearen gogokoak, hoiien aitaldie ere goresgarri izan da.

Goan den iñaute igandeko bertsoak Baztan guzian entzunak izanen dira, han ikusi gintuen guttietik amar "magnetofon" eta orai "maxina" hoiek hartutakoak bazter guzietara barreiatuko dira.

M. Izeta

Principe de Viana, 1969, martxoa, 5. orr.

## BAZTAN

### Bertsolariak

Erran bezala yon de Ilbeltzaren 15'ean Elizondo'ko Antxitoneko trinketean bertsolari besta eder bat ospatu da. Bereartan ari izanak dira: Uztapide, Lasarte, Arotzamina eta Lazkao-Txiki, ospe aundiko koblariak eta denok maite ditugunak. Trinketea leporaño bete zen eta berriz ere erranen dugu euskaldun yendeak gure bertsolariak aunitz maite dituela, an baziren Baztan'go yendeak, Malderreka eta Bidasokoak, Gipuzko aldekoak eta bai mugaz bestaldeko eskualdunak ere denak zaletasun aundia erakusten zutelarik. Gure koblarien aitaldia denen gogokoa izan da, ordu t'erdiko kantaldian aritu ziren eta egia erran yendea bertze ordu bat geiago ere egonen zen izan ere iñor ezpaitzen aspertzen. Zer txalo ta esku-zartak bertsolarien ohoretan! Eztugu iñor berexiko, lauak onak eta elkarren idurikoak baitira. Erabili zituzten gaiak ere egokiak ziren, errexak eta yendearen gogokoak. Baztandar guziok oroitzapen eder ori gure biotzetan gordetuko dugu. Zorionak lau bertsolarieri. Gure esker onak entzule guzieri zuek erakutsi baitduzue bertsolariak maite dituzuela eta gure bertsolariak maite dituenak eskuara ere maite du. Yarraiki ortan, badakigu gure erri baztandarrak erdalduntzen ari direla eta norena da errua? Ori ongi aski dakigu bainan utzi ditzagun negar oiek alde batera eta saiatu gaitezen eskual kultura gure errietan edatuz gazteriaren biotzetan eskuararenganako maitasuna sar dadien.

### San Anton

Aurten ere bertze urtetan bezala San Anton eguna ospatu da Elizondo'n. Goizean Meza kantatua eskuarazko mintzaldiarekin eta Meza ondoan Miserikordiaren alde urtero egiten den errifa.

Arratsaldean Antxitoneko trinketean aizkora apostua izan ginuen, Latasa bakarrik, Agerre ta Altzuarde baztandarren kontra, ok txanda diko ta zortzi 45 ontzako moztu beharrak. Latasa bizkor dago eta gure baztandarrak arendako kontrario ttipiak izandu ziren, sunbildarrak aisa irabazi baizuen. Yoko gustagarria eta yende aunitz trinketean.

Izeta

Principe de Viana, 1967, otsaila, 5. orr.



## BAZTAN

### Antxitoneko Trinketea

Ilbeltzaren 28'an bertsolari besta eder bat ospatu dugu Elizondo'n. Aintzineko iru urte oketan bezala aurten ere besta hori Antxitoneko trinketea izan dugu eta or aritu dire: Uztapide, Lasarte, Lopategi ta Lazkao-Txiki. Yaz adine yende etzen, baño alare franko poliki bildu zen eta erran dezakegu Baztan'en eskuara zinez maite duten geienak an ikusi gintuela. Euskal yosteta aunitz eta aski ederrak baditugu, pilota, aizkora, arri-jasotzale ta bertze geiago ere, baño oietan guzietan eskuaraz eztakitenak ere ari ditezke eta ikusliarrak ere mundu guzietakoak izan ditezke, baño bertsolarietan ezta hori gertatzen, emen naiz bertsolariak nola entzuleak denak euskaldun garbiak behar dute izan, ortaz bada bertsolaritza da egiazko euskaltzale batentzat yostetarik maitagarrienetako bat.

Erran dudan bezala Ilbeltzaren 28'an, emen aipatu ditudan bertsolariak aritu ziren eta oiekin batean, Klemente gure erriko bertsolaria. Besta ortan erabilitako gaiak aski politak ziren, hunkigarriak zerbaitzuk eta irringarriak bertzeak, munduan eta familien arteko gertakizunak ederki agertu zituztelarik. Uztapide ama alarguna eta Lasarte bere alaba bakarra monja gan nai duena, gai hunkigarrietan. Klemente errotazaña ta Lazkao zakuakin artoa egotzera gan dena eta Lopategi ta Lazkao'n arteko senar-emazten goraberak, izan ziren gai yostakinak eta irri eginaraztekoak. Bertsolarien saio guziak entzuleen gogokoak ziren eta bestak iraun zuen ordu ta iru laurdenaren denbora labur iduritu zitzaikun, or ageri baita besta hori gustagarria izandu zela eta gure koblariek badutela erreliste.

Urrengoan eta Yainkoa lagun Santiotan berriz izanen dugu abertze bertsolari besta bat eta bertze makurrik ezpada an ikusiko ditugu: Mattin, Xalbador eta bi beiago ere. Berri hori denborarekin agertzera emanen dugu eta bizkitartean zain egon gaitezen.

Izeta

Principe de Viana, 1968, otsaila, 5. orr.

## BAZTAN

Urtea hasi orduko berriz ere dei bat Arizkun-go mutil-dantzariei eta oraingoan Leitza-ko herrira. Herri hontan Urtarrilaren 21ean iñauteriak ospatzen zituzten eta hortarako zenbait ikusgarri ere antolatu. Goizean pilota partida eta aizkolariak eta euskal kantariak: Iñaki, Goya eta Balentzia kitarra soñuarekin euskal-kanta berrietan. Frontoia euskaldun jendez betea, gehienak gazteak eta umore ederrakin. Arizkunderrek beti bezala Maurizio eta Felix soñulariekin, dantza mota aunitz agertu zituzten. Hoiien artean: Muxikoak, Tellerin, Biligarroarena, Añarxume, Xerri-begi, Sagar-dantza eta Zortzikoa. Jendea kontent zagon eta txalo beroekin saritu ere gure dantzariei. Gure Mutil-dantzak daukan seriotasuna eta nortasuna behin eta berriz ere Euskal-Herriko plazetan agertu dugu.

Orain badugu beste ekiñaldi bat eta ez nola nahikoa. Datorren Martxoaren 22-an Donostia-ko Udal-Etxeko Sala haundian Patxi Arraras Jauna Nafarroako dantzarien Buruzagiak, izketaldi bat egin beharra du. Solasaldi hau garrantzi haundikoa da eta den dena Baztango folkloeari buruz izango da. Hortarako Arizkun-go dantzariak deituak izan dira eta hor ariko zaizkigu Baztango dantzei merezi duten ohorea eman nahirik. Jendea bilduko da eta badakigu euskal-dantzarien alorrean ari direnak eta gai hauetan aunitz dakitenak ere hor izango direla.

Eguberri ondotik hasita eta Urtarrileko laugarren eguna arte, Elizondon ospatu dute Kultura astea. Izan ditugu garrantzi haundiko solasaldiak eta izlarien artean hor gintuen Odriozola eta Karo Baroja jaunak, Izketaldiak gustarriak izan dira.

Abenduaren 31-an eta kultura aste horren barnean ere arizanak dira Txantrea-ko Korala bere Buruzagi Elbira jaunarekin eta baita ere Elizondo-ko Ikastolako hurrek "Txano Gorritxo" antzerki polita egin zutelarik. Ikastolako haurtxoek izigarri ongi ari izanak dira, garbi, apain eta zoragarri. Zorionak Ikastolako hurrei eta beren Andereñoiei.

M. Izeta

Principe de Viana, 1973, otsaila, 7. orr.

## BAZTAN

### Euskal kirolak

Indartsuak berriz ere nor-gehiagoka Tolosako plazan. Joan den Otsailaren 2-an Mendizabal gipuzkoarrak eta Perurena leitzar gazteak beren indarrak negurtu dituzte. Bi indartsuek arri lauki-zuzenak edo errektagularrak erabili dituzte biana diferentzi batekin; Mendizabal 206 kilo terdikoakin ari izana da eta Perurena 187 kilo terdikoarekin. Apostua zen 15 minuzoz zeñek jasoaldi gehiago egin epe hori 5 minutoko iru txandetan zatiturik. Gudukaldia hasi aurretik trabesak dolean Mendizabal-en alde 100-50 ri ematen zutela. Mendizabal-en aldekoek segurutzat zaukaten beren garaipena dudik gabe, gipuzkoarraren baitan uste osoa zaukaten eta azkenean hala gertatu. Mendizabal-ek irabazi zuen, bai, baina ez aisa, juxtu juxtuan jasoaldi baten bentajarekin bakarrik. Mendizabal-ek 15 minuzoz 23 aldiz aupatu zuen bizkarreraño 206 kilo terdiko arri ikaragarria eta Perurenak egin zituelarik eta ez ontako emanak, bestela 24 jasoaldi egin zezaken. Mendizabal-ek ere bat gehiago egiteko ahalmena bazaukan. Hor ageri da indarrak berdintsu ibili direla eta irabaztatea larri-larri ibilia dela. Kontuan hartzekoa da Mendizabal-ek eman zion bentaja, 19 kiloan alde ez bait-da gauza ttipia. Baina, bertzalde kontuan, idukitzekoa da ere Perurena leitzarrak 18 urte bertzerik ez dauzkala, eta adin hortako mutil batentzat, balentria ikaragarria dela. egun hortan bi indartsuek 24 ra jasoaldi egin zezaketen eta berdin gelditu.

### Bi indartsuen lana

<b>Mendizabal</b>		<b>Perurena</b>	
Lenbiziko txandan	8 aldiz	Lenbiziko txandan	7 aldiz
Bigarreanean	8 adliz	Bigarreanean	8 aldiz
Irugarreanean	7 adliz	Irugarreanean	7 aldiz
15 minuzoz	23 aldiz	15 minuzoz	22 aldiz
eta 4.749 kilo terdi bizkarrera		eta 4.125 kilo bizkarrera	

Mendizabal-en pisua 102 kilo.  
Perurena-ren pisua 105 kilo.

### Aizkolariak

Otsailaren 2-an ere Doneztebeko herrian aizkora apostu bat jokatu zuten. Aszension Mindegia Ezkurrako Aizkolaria iru anaietan gaztena, ari izana da bera bakarrik Zubietako bi aizkolarien kontra. Mariezkurrena eta Jaunarena zubietarren izenak. Aizkolarien eginkizuna: Amar egur kana-erdiko alderdi bakoxtarentzat. Bikotea txandatuz, lagun bakoxtak egur osoa moztuz. Zubietarrek irabazi zuten apostua lan guzia 36 minuto eta 30 segundoz eginik. Bikoteak bere lana bukatu zuenean Mindegia erretiratu zen, onbor bat osorik eta beste baten erdia moztu gabe utzirik. Bikoteak aisa irabazi zuen baina ezkurratar aizkolaria ez omen dago konforme eta berriro egin behar omen dute beste joko bat.

Arria eta Mindegia zaharrena ere hor omen dabilta joko aundi bat antolatu nairik baina oraindika ez dira elkarrekin konpondu. Arriak nai omen du joko gisa hontan: Lau onbor 72 ontzako eta beste lau 80 ontzako. Mindegiak berriz lan gehiago nai omen du, Amari 80 ontzako. Hau lan ikaragarria litzake. Trabesa ere 250.000 pezta alde bakotxatik. Apostu honek burrunba aundia aterako du eta dirua ere purrustela ibiliko da. Zenbaitzuentzat Aurrezki Kutxa ederra.

M. Izeta

Principe de Viana, 1975, otsaila, 7. orr.

## BAZTAN

### Iñauteak

Aurtengo Iñauteak ospatu dira alaitasun ederrean. Ohitura den bezala, Iñaute aintziñeko ortzegunean, Orakunde deitzen den egun hortan, eman zitzaion hasmenta Iñauteriari, haurren besta ospatuz.

Aurten ere, baztandar haurrek ospatu dute "Ortzegun Gizen" hori, herri bakotxak beren besta berezia eginik.

### Elizondo

Ondoko igandean, Iñaute, eta gazteria arto besta ederra egiteko nahikeriarekin. Igande hortan, Elizondo'ko "Kalaxka" soñulariek alaitu zuten eguna, plazan soñua-aldi ederra eginik. Arizkun'en, Erratzu'n eta Baztan'go bertze herri batzuetan ere hasmenta ona eman zioten Iñauteriari.

Astearte hortan goiz-goizetik aro txarra, uria atertu gabe, hotza bazterretan, eta elurra ere beitixko etorria. Negu denbora bai, bainan besta egiteko hauta. Elizondo'n ostatu guziak beteak. Gazte taldeek, eta hain gazte ere ez direnek, otordu ederra eginik, beren bozkarioa agertu zuten Iñaute seinalea nabari zela. Arratsaldean, Elizondo'ko karraketan, mozorro eta Iñaute pertsonaiak, beztimenta nabarmenak, talde irringarriak eta mugimendu haundia bazterrez-bazter, alaitasuna, irria eta bozkarioa. Ilunabarrean haste, plazan soñua, yendea sasoñean. Elizondo'ko Iñauteak ongi gan dira.

### Arizkun

Arizkun'en ere eta ohiturari yarraikiz, Iñaute ederrak ospatu dituzte. "Hartza" bildurgarria ibili dute karraketan barna, katez loturik "hartza-zaina"ren eskuetan. Mozorroak eta Iñauteriko pertsonaiak harat-hunat ibiliz eta bestari "iñaute-giro" ona emanik. Ohitura xaharrari yarraikiz, "Sagar-Dantzak, Soka-Dantza, Zortzikoak eta "Gaita" ere dantzatzuz, gazteria ederki yostatu da Arizkun'go Iñauteriari ohore emanik. Aurtengo Iñauteak ederki ospatu dira.

### Erratzu

Erratzuarrek ere erakutsi dute beren Iñauteak oinarri sendoa daukala. Umore ona gauza guzien gainetik, soñua ta burrunba bazterrak ederki iñarrosten dituztela. Plazan, soñua eta gazteria alegera. Denbora txarrak ez du iñor izitu, eta Iñauteak ederki gan dira. Auza'ko kaskoan hotz, bainan gazteriaren sasoia bero.

Lehenagoko denboretaz oroituz, Iñauteak eta besta guziak ere nabari dute aldakuntza eta anbatekoa halere. Gure haur denboran eta geroago ere, illunabarrean edo zazpietako beranduena, plazako soñua ixiltzen zen, eta holaxe ikusten dugu orai nola lehenago akitzen zen tenorean, orai hasmenta ematen diotela. Soñua berant hasi eta berant akitu: gau t'erdi.

Eta orai, ager dezadan gure haur denboran kantatzen ginuena, eta oraiko gazteek ez dakitena:

Mozorro zinko mukitzu,  
sobera, sobera badakizu.

M. Izeta

Principe de Viana, 1982, otsaila, 13. orr.

## BAZTAN

Otsaila

"Kandelerero bero negue heldu da gero" "Kandelerero hotz negue gan da motz".

Erranairu horrek bizirik irauten du Baztan alde huntan eta, urtea joane ta urtea etorri, aldiero entzuten dugun ele xaharra. Hori gertatzen den edo ez ziur ezta kigu bainan noizpeinka gertatu izan dela, hori ikusia dugu. Erranairu xahar hoiek badute ikasbide.

Otsaila'k txarkeriak egiten baldin ba'ditu ere gazteriak maite du zeren Iñauteri aipagarriak hilabete kaxkar hunen barnean izaten baitira. Iñauteak aipatu ditudanez gero, horri buruz zenbait xehetasun ager ditzadan.

Iñautearen aintzineko hiru ortzegunek badituzte beren izenak eta denbora batez garrantzi haundia zaukatenak. "Gizekunde", "Emakunde" eta "Orakunde". Lehenbiziko ortzegun hortan gizonek egiten omen zuten besta. Bigarren ortzeguna emaztekiez eta "Orakunde" eguna ororentzat, denentzat. Ohitura hoiek aspaldion joan ziren eta gaurko egunean "Orakunde" eguna barrik bizirik irauten du eta besta hau haurrentzat bakarrik berezia. Baztan'go eskoletako haurrak beren maixu, herriko apez eta alkatearekin "Orakunde" eguna holaxe ospatzen dute. Goizean meza. Ondotik karrketan barna haur guziak bildurik eta txistulariekin itzuli bat egiten dute eta etxez etxe puskak bildu. Txistor, zinger, arroltze, sosa eta ematen duten guzia. Biltzen dutenakin otordua egiten dute, bazkari hortan apez, maixu eta alkateak parte hartzen dutela. Lehenagoko denboretan mutikoak bakarrik bazkaltzen zuten, bainan orain neskatikoak ere hor izaten dira. Arratsaldean haurren besta. Ospakizun aipagarriena oilarraren jokoa izaten da. Oilar bat ezartzen dute plaza buruan; lauze bat kendu eta zilo bat eginik oila hau han sartu eta lurrez estali eta bubura bakarrik agertzen zaiola. Mutiko pila bat plazaren bertze muturrean, oihal batekin begiak estaltzen zituztela deusere ikusi ez dezaten, eta bakotxak zurezko ezpata eskuan. Laster egiten dute eta oilarreran burua ezpatakin ukitzen duena izango da irabaztale eta oilarra beretako. Gure haur denboran bi oilar izaten ziren mutiko talde bakotxarentzat, bainan gaurko egunean behar izaten dituzte bospasei, herria aunitz haunditu baita. Oilar jokoaren ondotik jostetak eta dantza, txistu soñuarekin baztandar dantzak erakutsiz. Eguna holaxe ospatzen da Elizondo'n eta berdin Baztan'go bertze hamalau herrietan ere.

Gero ondoko igandean Iñaute hiru egunez. Gure eskualdean, Zubieta eta Ituren'go Iñauteak ditugu famatuenak eta erran gabe doa Lantz'ko Iñauteriak ditugula Nafarroa'ko eta Euskal Herri'ko ospetsuenak. Beti ere gure Baztan alde hontan ere ospatzen dira Iñauteak, ez behar ba'da duela hirurogei urte bezalakoak bai ba'da bestaren seiñalea. Arizkun'go herrian berpiztu dute lehenagoko ohitura zaharra. Hartzaz jantzitako mutil bat bere hartza-zainarekin eta kate lodi batekin loturik, hor ibiltzen dute karrketan dena oihi eta orro jendea iziarazten Baztan'go dantzak ere erakusten dituzte, mutil-dantza, sagar-dantza, soka-dantza eta gehiago ere. Aipatu dudan sagar-dantza hori mutilek dantzatzen dute eta hor aritzen dira karrketan dantzatuz, puskak biltzen dituzten bizkitartean. Gero mozorroak dena espantu eta jauzi. Holaxe hiru egunez eta berdin Elizondo'n eta Erratzu'n. Duela hirurogei urte eta gehiago ere mutiko guziak mozorroen gibeletik eta kanta hau errepikatzen zutela:

Mozorro zinko mukitzu;  
sobera, sobera dakizu.

M. Izeta

Principe de Viana, 1983, otsaila, 13. orr.



## BAZTAN

Elbete'ko Santakruzetako bestak igaro dira eta oiekin batean udara ere goan zaiku. Aurten eskuarazko Meza Nagusia guziz ederra izan da, "concelebrada" deitutakoa eta inguruko errietako apez baztandarrak aldarean bildurik. Otoitzak eta Kantak apezek erriarekin batean, hunkigarriak izan ziren.

Igusgarrien artean artean merexi du aipatzea azkenengo egunean igandearekin erakutsiak. Iruñe'ko Ayuntamentuko dantzariak aritu zitzaizkigun Euskalerriko dantza zoragarriak dantzatzuz eta beti bezala trebetasun aundiarekin agetuaz. Iruñarren aitaldia guziz gustagarria izandu zen eta beldurrik gabe erran dezakegu, Iruñe'ko dantzari ok Euskalerriko oberenetakoak direla eta gure euskal dantzak zaletasun aundiarekin zaintzen dituztela.

Yende aunitz bildu zen eta denek txalo ta esku-zarta beroekin beren bozkarioa agertu zuten. Gure zorionik maitekorrenak Iruñar neska ta mutil jator oieri eta gure goresmen bizienak txistularieri eta Dantzari-Taldearen Aintzindari den Azkona Yaunari. Eta atzendu gabe, ar ditzatela gure zorionik aundienak Baztan'go ta Elbete'ko Aintzindari Yaunak orrelako besta ederra antolatu dutelakotz. Elbete'ko bestak bake ta elkartasun ederrean igaro dire eta orai Urriko ilabetea, usoak aidean, ihiztariek ametsetan eta nekazariiek iretzetan.

M. Izeta

Principe de Viana, 1967, urria, 5. orr.

## BAZTAN

### Urri'ko feriak

Ohiturari jarraikiz, Urri'ko feriak ospatuak dira Elizondo'n; aurten, 28'an. Eguraldi aski polita ukan ginuen; jendea harat eta hunat ibiltzeko izaten ahal den hoberena.

Jendea bildu zen Baztan'go hiri nagusian. Urtero bezala hemen ikusi ditugu Bidasotar, Ultzamar, Lapurditar eta Baxenafartar adiskideak, baztandarren artea etorriak egun goxo bat iragaiteko.

Merkatu Plazan, kabala aunitz eta klase onekoa; kario, bai: esne behiak eun mila pezta eta gehiago ere egin baitzuten. Erraiten dutenez, ez omen ziren salmenta haundirik egin. plaza inguruan, makinari ausarki salgai, belar mozteko makinak ta bertze lanak egitekoak. Baita arropa, zapata eta mota guzietako gauzak ere salgai. Han bazen zer eros.

Arratsaldean, ikuskizunak aukeran.

Haizkora jokoan ari izanak dira Arria anaiak, Astibia eta Mindegia'ren kontra. ALde bakoaren lana, 16 onbor kana-erdiko (1,25 m.) eta "*txanda librean*". Lehenbizian, nafartarrek gogor hasirik, abantail piska hartu zuten eta gisa hortan laugarren onborra moztu artio; baina gero, bortzgarrenean, berdin bi eskualdeak; eta, hortik aintzinat Arria'tarrak aintzinaldia harturik, neke haundirik gabe irabazi zuten, 16 onborrak 21'31-tan erdibiturik. Gure Mindegia'k ta Astibia'k beren lana 22'27-tan egin zuten. Arria anaiak indar ikaragarrian eta aise ari dira.

Gero, Mattin, Azpillaga eta Jesus Goñi baztandarrak bertsoaldi ederra egin zaukuten. Jendea bozkarioz beterik esku-zarta ederrak eginik. Jende aunitz bildu zen.

"*Antxitone*"ko trinketean, pilota-partida esku-huska. Ipar Euskal Herri'ko pilotariak ari izanak dira: Etxegoin eta Dager, Matia eta Sein'en kontra. Partida polita egin zaukuten eta Etxegoin-Dager nausitu 50-40. Bazen jende puska bat *Antxitonean*; feri egun huntan, denetako bada jendea.

Espantu haundirik gabe, Urri'ko feriak joan zaizkigu.

### "Xalbador"en urtebete

Azaroa'ren 6'ean, baginen baztandar andana bat "Xalbador" zenaren heriotzaren urtebetetzeko elizkizunetara joanak.

Urepel'en elizkizun hungigarria, Ipar Euskal Herrian egiten diren bezelakoak; guk, baztandarrok, badugu hortan zer ikas. Urepel'eko elizan herri guzia bildurik, dena otoitz eta kanta, zahar eta gazte kantari, neskak aingeruak iduri. Jaunartzean kantatutakoak eta "*Anjelus*" hura...

Agurtu gintuen baxenafartar adiskideak eta baita ere lapurditar, gipuzkoar, bizkaitar eta nafartarrak ere. Elkarrein solasean, aldudar batek erraiten zautan:

- Noiz luzatuko ote dute Beartzun'go errege-bide hori mugaraino?

Gero, Iruñe'ko gizon gazte batek nafartarren arteko lokarriak hobeki tinkatu beharrez hola zion:

- Eskatu behar ginuke Baxenafarra'k Ordezkari bat izan dezan Nafarroa'ko Diputazioanean. Bi eskari hok noiz erdietsiko? Abantail haundia litzake. Anaien arteko elkartasunak aunitz balio du. Denak haurrideak gara; eta horri buruz, huna hemen "*Xalbador*" zenaren zenbait lerro:

...ni naiz baxenabartarra.  
Titutulu horrek, lehen itzean,  
galtzen du bere indarra.  
Goi ta beherk ez da enetzat:  
Nafarro bat da bakarra.

"Baztandarren Biltzarra"

Orai berriki egin dute "*Baztandarren Biltzarra*" Elkartearen batzarrea eta hortan hautatu dituzte Buruzagiak.

Gure goresmenak Buruzagi berriei eta suerte on bat desiratzen dabegu.

M. Izeta

Principe de Viana, 1977, urria-azaroa-abendua, 14. orr.

## BAZTAN

Iruñe'n yokatutako Euskal Jolasen Txapelketan Nafarroa Nagusi gelditu zen eta garaipen orretaz baztandarrek ere badugu non poztu, Nafarroa aldeztu ta defenditu duten bi sokatirari taldeak baztandarrak baitira, gazteen taldea denak elizondarrak eta adinetakoak elizondar ta elbetarrak naste. Bi talde oiek Txapeldun atera ziren urrezko medallak bereganatuz. Trinketeko eskuzko partidetan aritu ziren naparrak ere baztandarrak ditugu eta lauak erratzuarrak. Gure pilotariak gipuzkoarrekin galdu zuten bainan alaere Nafarroa'ren izena ongi goraldtu zuten zilarrezko medallak erdietsi zituztela. Zorionak baztandarrei. Noiz ikusiko ote ditugu Euskal Jolas oietan zazpi aurrideak bateraturik? Orduan bai izanen litzakela egiazko Euskal Olinpiada.

### Erregebideak

Baztan ere emeki emeki aintzinatuz doaie, gaurko egunean ain beharrezkoak diren bide zabalak bizi molde berriak agintzen du. Orai arteko nekeak ta ibilaldiak, etxetik erriraño bi edo iru orduko bidean oñez, etxean eri bat dutela eta mediku ta sendagaien beharretan, norbait il urren dagola ta Apeza urrun... zer naigabeak dakartzkiten gisa ortan bizitzeak.

Orai berri on bat badugu, Beartzun ta Orabidera erregebidea edo karretera egin beharra dutela. Baztan'go Balleak eta Diputazioak lan ortan astekoak dire eta bi bide zabal oiek egitea 14 milloi pezeta kostako omen dire, Orabidetar ta Beartzundarrentzat aurrerapen izigarria da, orai arteko ordu terdiko bide ori gauza utsean geldituko da naski, erran beharrik eztago Beartzun'go 40 baserriek atsegin aundia artuko dutela eta bai bertze aunitzek ere.

Oraindikan auzo aunitz badira Baztan'en erregebiderik gabe oien artean, Aritzakun, Iñarbegi eta Irurite'ko errekekakoak, bainan oiek guziek ere noizgaitere eginen dire, denbora lekuko.

Izeta

Principe de Viana, 1966, urria, 5. orr.

## BAZTAN

### Feriak

Urriaren 26ean ospatu dugu Elizondo-ko herrian urteroko Urriko feriak. Oraiko feriak ez dira lehenagokoak bezala, anbateko ezberdintasuna daukate eta gauz guziak bezala feriak ere aldakuntza handia egin dute. Gure aurtzaroan eta gero ere hiru egun irauten zuten eta hiruetan jendea ere pillaka eta bazter guziak beteak, baina orai ez da horrelakorik. Joandaneke ogei edo ogeitabost urte hauetan feriak egun bakarra dute eta hau ostiralarekin eta oraindik feriarene izen horrek irauten bait-du, jende aunitz biltzen zaigu Baztango hiri nausian. Atsegin handia izaten dugu hemen ainbertze jende euskaldun ikustea, Elizondok duen egunik euskaldunena hauxe izaten da, urriko feri eguna.

Urriko ilabete honek egun onak eta txarrak ere izaten ditu baina bai hoiene artean atsegingarriak ere. Egunderrak ego aizearekin, usoak aidean eta ihizilariet haken zain, mendi lepo guziak guda lekuak iduri. Nekatzariet landako zituak etxeratzen sabaiak ongi hornituak egon daitezene, giro ona eta denentzat atsegingarria. Feri egunean holaxeko giro ederra izan ginuen, zerua urdin eguzki goxo batekin eta urtero bezala jende aunitz Elizondon.

Merkatuko plazan azienda ederra eta klase onekoa, tratulari aunitz eta bai jendea ere sal-erosketan. Aziendene prezioa ikaragarri goiti, batez ere aintzinerako beietan. Bei ernari eta aratxea zutenek ere arrakasta handia zuten eta franko poliki saldu ere. Baita ere esnedun beietan salmenta polita egin men zen. Zaldietan erostun guti. Lur lanetako eta belar ebakitzeko makinariet ere bazuten arrakasta.

Arratsaldean Antxitoneko trinketean bertsolariak. Bertsolari besta egiteko hauxe dugu egunik egokiena, feri egunean Elizondo-ra etortzen direnak denak euskaldunak bait-dira eta hortaz gure bertsolari besta horrek sekulako arrakasta izaten du Antxitoneko trinketea tellaturaino betetzen dela. Bost bertsolari kantari: Xalbador, Mattin, Azpillaga, Mitxelena eta Lazkao-Txiki. Arratsalde goxo bat iragana dugu trinketean gure koplariet bi ordu urbil ari izanak direlariet. Erran beharrik ez dago entzule guziak zoraturik egonak direla.

Aurtengo feriak joanak dira eta negua gainean dugu, arbolak bilusten eta laster elurra mendietan. Negu bat gehiago geren bizkarrena eta bizia badoa...

## HONA HEMEN MERKATUKO SAL-NEURRIAK EDO PREZIOAK

### Beiak:

Aintzinerako beiak aratxearekin	55.000-68.000 peza bakarrak
Bei gorri ernariak	48.000-56.000 peza bakarrak
Esne-beiak (25-35 litro esne)	50.000-55.000 peza bakarrak
Esne-beiak (15-20 litro esne)	38.000-45.000 peza bakarrak
Mige ernariak	36.000-42.000 peza bakarrak

### Zaldiak:

Behor ernariak	40.000-52.000 peza bakarrak
Pottokoak	14.000-22.000 peza bakarrak
Aragitako zaldiak	20.000-29.000 peza bakarrak

M. Izeta

Principe de Viana, 1973, urria, 7. orr.

## BAZTAN

Baztan alde untan bertze lekuetan bezela konzejal autatzeak izan gintuen. Sei ziren autatu beharrak eta emen agertuko ditugu Balleko Etxean sartu beharrak diren oien izenak: Ana Mary Marin, Joakin Azkarate, Jabier Karrikaburu, Nikasio Irigoien, Manuel Olabe ta Jose Ugalde. Ar ditzatela gure zorionik beroenak eta Baztan'en alde lan on bat egin dezatela euskal kulturaz atzendu gabe.

### Bertsolariak

Ilabete unen 15'eanean Yainkoa lagun Elizondo'ko Antxitoneko trinketea bertsolari besta eder bat izenen dugu Euskalerriko lau kobleri oberenetakoak bereartan ariko direla. Or izanen ditugu, Uztapide, Lasarte, Lazkao-Txiki eta Arotzarena, bi gipuzkoar eta bi nafartar lauak on onak eta yendearen gogokoak. Badugu uste egun ortan Antxitoneko trinketea leporaño beteko dela denok baitakigu baztandar yendeak bertsolariak aunitz maite dituztela eta antxe bilduko dira eskuara zinez maite duten guziak. Urrengoan erranen dugu beste ori nola gertatu den.

Izeta

Principe de Viana, 1967, urtarrila, 5. orr.

## BAZTAN

Igaz bezala aurten ere "Caja de Ahorros" deitzen den Diru-Etxeak antolaturik Baztandar aurren arteko Kultura Sariketa bat ospatu dugu hemen Elizondo-n. Eguberri aintzineko igandean "Cine Maitena" deitutako etxean izan ginuen besta eder bat han bildu zirelarik Baztango eskoletako aur gehientsuenak. Euskarazko eta erdarazko ipui sariketa, marrazkienak eta bai Eguberri abestiena ere egin zituzten, irabaztaleek sari onak eskuratu zituztelarik. Besta ederra eta yende aunitz, ikusia dago yendeak baduela zaletasuna eta maite dituela horrelako Sariketak.

Zortzi kantari-talde ari izanak dira Billantzikoetan eta merezimendu guzietan Arizkungo eskolako aurrek irabazi zuten lenbiziko saria bereganatuz. Bigarrenak. Irurite-koak eta Konzezionisten eskolakoak, biek berdin. Elizondo-ko Ikastolako aurrek ere xarmanki aritu ziren eta yendeak txalo ederrekin saritu zuen gure aurtxo ttipien kantaldia.

Marrazkietan lan politikak agertu zituzten, gure aurrek badute hortan adrendue. Erdarazko ipuietan ehun lan eta euskarazkoetan berrogei. Bietan ere aski idazki politikak erakutsi zizkiguten.

Euskarazko ipuietan irabaztale. Juliana Iriarte. Amayur-koa. Konzezionistako eskolakoa.

Bigarren. Dominika Etxart. Erratzu-koa. Erratzu-ko eskolakoa.

Irugarren. M. Luisa Arizaleta. Orabidekoa. Konzezionisteko eskolakoa.

Laugarren. Felisa Ugarte. Arrayoz-koa. Arrayoz-ko eskolakoa.

"Caja de Ahorros"ek lan ederra egin du eta badakigu datorren urtean beste ainbeste egin beharra dutela eta sariak ere gehiagotuaz. Zorionak Baztan-go aur guzietan eta gauzak hobeagotuz joan daitezela.

### Euskal Kultura

Euskal-Alorrean langileak gogor ari dira, sasiz eta arri kozkorrez betea zegona ongi apaindua eta landu gero erizioak lur onean egiteko.

Lasaka-n, Bera-n eta Nafarroa-ko leku askotan bezala, Elizondo-n ere alfabetatze ikastaroak hasiak ditugu. Ikaskaiak Ikastolan ematen ditugu eta astean hiru aldiz ikasleak hiru taldetan berexi ditugularik; deus eztautenak, erdi-euskaldunak eta euskaldun garbiak, talde bakoitza bere irakaslearekin. Orai arte ikasaldiak arras ongi doazi eta badirudi jendea ere zaletasunez beterik dagola eta ikasteko gogoarekin. Segi dezatela gazte hoiek gogo bizi horrekin batere aspertu gabe, gure euskal-kulturari indar berria emanez, euskal-alorra arri erauntsi txar batek jo ez dezan eta irakasleek ereindako azia ongi ernaturik eta jorraldi on baten bitartez udara aldian zitu ona eman dezan. Ez ginuke "espantu" sobera egin behar bainan jarraiki gaitezen gure bideari eta lanabesak eskuetan harturik bururik goratu gabe lan egin dezagun.

Ikastolako aurrek ere ongi doazi eta aurrerapen aundiak nabari dituzte, gurasoak kontent dira eta bi andereñoen lana onuragarria da. Zorionak.

M. Izeta

Principe de Viana, 1972, urtarrila, 7. orr.



## BAZTAN

### Bestak

Oraingoan aipatu behar ditugu Ituren-go Aurtiz-ko auzokoek ospatutako bestak. Aurtiz, Ituren-go auzo bat dugu, Mendaurko altzoan kokaturik dagona eta hango jende guzia euskaldun garbiak direlarik. Joan den Sanmartinetan behin ere ez bezalako bestak eginak dituzte aurtiztarrek. San Martin bezperein txistulariek eta Zarpantzarrak auzo guzia ederki arrotu zutelarik, gisa hortan bestari hasiera emanik. San Martin egunean Meza ondorean ahari jokoa eta pilota partidak. Bigarren egunean igandearekin eta goizean, Oñate-ko ardi zakurren konkursoan bigarren Saria atera zuen zakurrak bere abildade miresgarriak ongi aski erakutsi zituen. Arano-ko "Nere" zakurrak lan ederra eginik jendea bozkariotan ezarri zuen. Eguedian Lizaso eta Lazkano bertsolariak kantaldi ederra egin zuten eta Bizkaiako Galdakano-ko "Andra Mari" dantzari taldeak euskal-dantza ederrak eginik jendea loriaturik egondu zen. Bestak iraun duten lau egunetan arratsalde eta eguerditan naiko sonu eta dantza gazteria ongi jostatu delarik. Azkenengo egunean, Soka-Tira ezkonduak ezkongaien kontra eta Zikiro-jatea. Gero erran beharrik ez dago umore ona etzela alta, kantu bertso eta dantza. Aurtiztarrek bestak ederki igaroak dituzte, elkartasuna eta umore sana izandu da besta hauetan agertu dutena. Jarraiki hortan beti zuen ohitura onak ongi zainduaz.

### Mutil-dantza

Arras uste ginuen aurtengoz gure mutil-dantzarien eginkizunak akitu zirela, baina horra hor berriz ere arizkundarrak beren lanari lotuak. Joan den San Frantzisko egunean Irune-ko "Labrit" deitutako frontoian eta "Oberena" Elkarateak antoklaturik dantzarien eguna ospatu dute, bilgura hontan nafartar dantzariak bakarrik ari izanak direlarik. Arratsaldeko zazpi terdietan eta frontoia gaineraino betea zagolarik eman zitzaion dantzarien saioeri hasiera. Hor aritu dira:

"Obwerena", "Anaitasuna", "Iruña Taldea", Aiuntamentuko dantzariak, Urdiain-goak, Lizarra-koak, Tafalla-koak eta Arizkun-go mutil-dantzariak. Talde bakotxak bi dantzaldi saio egin zituen eta "Oberena"ko txistulari taldeak ere sonualdi xarmanta egin ere. Txistulari talde hau aunitz gustatu denak gazteak bai neskak nola mutillak. Txistulari talde horrek "Gernikako Arbola"rekin bukatu zuen, entzule guziek zutik kantatu zutelarik. Besta guziz ederra, dantzari-talde guziak ongi. "Oberena" Elkarateak datorren urterako pentsatua dauka Euskalerrri osoko dantzarien bilkura bat egitea. Hala egiten balute gauza ederra izanen litzake. Zorionak "Oberena" Elkarteari.

Urtea akitu baino lehen berriro ere gure dantzariak eta oraiko aldian Azpeitia-ko herrian. herri hontan eginak dituzte hamar egunez euskal-kulturako erakusketak nola dantzariak, antzerkia, hitzaldiak, bertsolariak, euskal-soñulariak eta beste zenbait agerpen ere. Abenduaren 17-an zuten dantzari eguna eta han bildu ziren: Yurreta-ko ezpata-dantzariak, Oñateko dantzariak, Zuberoko Aterratze-koak, Ituren-go mutil-dantzariak. Goizean Azpeitia-ko enparantza eta karrketan dantzarien saioak eta gero Loiolan bazkaria. Lehenago er erran izan dugu bazkaria izaten dela lagunarteko elkarerik hoberena eta berriz ere erranen dugu, oraingoan ere ehun eta hogeit dantzari eta soñulari maiean bildurik denak, elkartasun ederrean egonak garela. Arratsaldeko lau terdietan "Izarraitz" frontoi ederrean dantzarien Saio Nagusia gisa hontan ari izanak direla: Oñatekoak, Arizkongoak, Yurretakoak, Aterratzekoak, Trikitilariak, Agirre eta Lazkano bertsolariak eta azkenik Iturendarrak. Gure baztandar dantzariak bertzeek bezala saio ederra eginik beren sor-lekuko dantzak erakutsirik Baztango

izena gorasko ezarri dute. Jende asko "Izarraitz" frontoian. Azpeitia-ko herrian egun gogoangarri bat iraganik alaitasunez beterik etxeratu ginen. Baztan alde hontatik goraintziak azpeitiar adiskideei batez ere aspaldion han bizi den Bixente Franzesena baztandarrari.

M. Izeta

Principe de Viana, 1973, urtarrila, 7. orr.

## BAZTAN

### IDATZLARIEN TXAPELKETA

Igaz bezala eta aintzineko urte hoietan bezala, aurten ere Baztango eskoletako aurren arteko Kultura Sariketa ospatu da Elizondon. Bertzetan bezala Sariketa hau "C.D. Baztán" kirol Batasunak eskoletako zenbait irakasleekin batean antolatua izan da eta Nafarroako "Caja de Ahorros" Diru-Etxearen diru-laguntza osoarekin.

Aurren arteko kultura sariketa hauek denentzat onuragarriak dira eta ez ginuke inon ere alde batera utzi behar. Lan hontan eskoletako irakasle guztiak behar luteke zaletasun aundiarekin lagundu eta batez ere euskal-kulturari, baztandar aurrek beren mintzaira, abestiak eta ohiturak maitatu ditzaten. Sariketa hontan lan ona egin duten guztieri gure goresmen bizienak. Ipuietan, Marrazkietan eta Billantzikoetan ere, Mai-Burukoek beren epaia ahal duten zuzentasun osoarekin emana dute. Marrazkietan eta ipuietan pertsona aundien laguntzaren kutsua dauzkaten lanak baztertuaz. Aurren lanak nabari izaten dira eta hoiek dute merezimendu.

Gabon abestietan edo billantzikoetan baziren 13 kantari-talde denek bina billantziko kantatu zituztela.

Eguberriko txarteletan ere igaz bezala aunitz eta zenbaitzuk ongi eginak, gure aurtxoak erakutsi dute marrazkietan aunitz dakitela.

Ipuietan, erdarazkoak iruehun baino gehiago. Irabaztale: Jose Luis Urrutia Irurite-koa. Bigarren, Maria Eujenia Ziaurriz Elizondo-koa. Irugarren, Pedro Muruamendiaraz Elizondo-koa.

Euskarazko ipuietan ehun eta irurogei bi mailetan berexiak (6 urtetik 9 urteak arte eta 10 etatik goiti).

#### Lendabiziko maila:

Irabaztale: BELEN APEZETXEA. ERRAZU. 10 urte.

Bigarren. Rafael Etxart. Lamierrita. 11 urte.

Irugarren: Fco. Jose Olabe. Elizondo. 13 urte.

Laugarren: Maria Teresa Iriarte. Amayur. 12 urte.

Bostgarren: P. Migel Barrenetxe. Azpilkueta. 11 urte.

#### Bigarren maila:

Irabaztale: PATXIKO ELIZETEXE. ERRAZU. 7 urte.

Bigarren: Maria Elena Ezkurdia. Ikastola. 8 urte.

Irugarren: Enkarna Zaldain. Ikastola. 7 urte.

Laugarren. Sara Luisa Mendiburu. Errazu. 9 urte.

Bostgarren: Maria Ines Izeta. Ikastola. 8 urte.

M. Izeta

Principe de Viana, 1974, urtarrila, 7. orr.

## BAZTAN

### Aurren arteko Sariketak

Aurrezki Kutxa edo "Caja de Ahorros" deitzen de diru etxearen laguntzarekin, urteroko Sariketak eginak dira Baztango eskoletako aurren artean. Eguberrietako Kantak, Eguberrietako Txartelen marrazkiak eta idatz-lehiaketak izan dira eskoletako aurren eginkizunak, hauek iru malletan berexiak adin eta kursoen arabera. Gabon abestietan Elizondoko Ikastolako aur ttipiek kantari onaren doaiak erakutsi dituzte beren mallakoen arteko ekinaldian lenbiziko Saria bereganatuz. Zorionak aurrei eta beren andereñoi. Eguberrietako Txarteletan ere baztandar aurrek agertu dute jakitatea eta zenbaitzuk adrendu aundia ere marrazki politak agertuaz.

Euskal idazle naizenez gero aipa ditzadan baztandar euskal idazle ttipiek eginikakoak. Gure aurrek 160 ipuin agertu dituzte eta badute merezimendu, beren lan guzia beren baitatik eta mintzatzen diren bezala egin bait-dute. Hori kontuan hartzekoa da zeren gure hizkuntzan idatzi duten hoiek erdaraz ere egin zezaketen eta hala ere euskaraz idatzi bait-dute, hor ageri bait-da aur hoiien zaletasuna. Behar den bezalako lana eginenez gero eta eskoletako irakasle guziek nai izan ezkeron nik uste berreun euskal ipuin eta gehiago ere agertuko lirezkela, hortako dine Baztanen gaia bada eta hau ez ginuke galtzera utzi behar. Azkenengo lau urte hoketan euskal idazle ttipi hoiek zenbait aurerapen eginak dituzte eta aunitzez gehiago egin zezaketen alfabetatze ikas gaietan saiakerak balituzkete. Euskal alorrean badaukagu lana, gure baratze hau dena lapatinez eta belar gaistoz betea bait-dago. Jorraldi on baten bitartez euskal baratzak zitu on bat eman dezake eta sortu diren landare gazte hoiek bizkortuko ere.

Beti ere gure zorionik maitekorrenak euskal idazle ttipi hoieri eta goresmenak lan hortan saiatu diren irakasleeri.

Agertzen dugu Lenbiziko Saria irabazi duen Ipuina.

M. Izeta

Principe de Viana, 1975, urtarrila, 7. orr.

## BAZTAN

### Eguberri

"*Baztandarren Biltzarra*" Elkartek antolaturik, yoan den Eguberri garaian ere egina da Kultur Hamabostaldia, Eguberri bezperean hasmenta emanik. Gabon egunean Olentzero ibilia da, Elizondo, Irurita eta Oronoz'ko karriketan euskal kantikak eta txistu sonuakin herri hoieri Eguberri giro goxo bat emanik. Elizondo'n Ikastolako haurrak beren irakasleekin eta Korala ere ibiliak dira ospakizun hortan gabon-abestiak kantatuz, Olentzero'ri ohore haundia eman diotela. Aipatu ditudan hiru herrietan Olentzerok arrakasta haundia izan du. Gure goresmenak ohitura jator horren antolatzaile eta yarraikitzaileei ere. Kultur hamabostaldi hortan eginak dira, lasterketak, hitzaldiak, filmak eta antzerkia ere.

Egin diren hitzaldietatik merezi du aipatzea Riezu'ko Aita Jorge Kaputxino ospetsuak emana, Aita Donostia zenaren nortasuna eta bere eginkizun goresgarriak agertu zituela.

Bi antzerki erakutsi dituzte. Erdarazkoa Iruñe'ko "Lebrel Blanco" Taldeak emana. Oiartzun'go "Intsisu" Taldeak aurkeztu du "Iparragirre Amazorro" antzerki aipagarria. Bi antzerkietan yende guti, batez ere euskarazkoan. Oiartzun'go antzerkilariek erakutsi dutena aski antzerki ederra eta ongi egina, oiartzuarrek agertu baituzte beren doaiak, lanean ongi eta solasean ere garbi eta zuzen euskara jator batean. Penagarri da euskal antzerki hortara hain yende guti biltzea. Erran dezagun ere asteleguna zela eta gaueko hamarretan, eguna eta ordua ere txarrak yendea biltzeko. Igandearekin eman ba'lute eta behar den tenorean, nik uste arrakasta haundiagokoa ukanen zuela. Ordu txarra erran dut bai, bainan hala izanta ere euskal zaletasun gehiago ba'lego, aunitzez yende gehiago behar luke izan "Intsisu"ren Agerraldian. Ez du balio espantuka aritzea gero eginkizunetan motz gelditzen ba'gara.

Filmak Eguberri egunean hasi eta igandero eta bestero Errege ondoko igande arte. Erakutsi dituzten filma guziak erreliste haundia izan dute, bereziki "La fuga de Segovia". Filma hau bartz aldiz erakutsi zuten eta bartz funtzionetan sala bete bete.

"Baztandarren Biltzarra" Elkartek antolatutako ospakizunak ongi bururatu dira.

### Korala

Berriz ere Elizondo'ko Korala aipatzen dugu hitz lerro hoketan. Urtarrila'ren 22, 23 eta 24'eanean gure koralak grabatu du Aita Donostia zenaren "Misa pro Defunctis" izenburua daukan defuntoen meza aipagarria. Hortarako Madril'eko "Casa Zafiro" delako dizka etxea etorri da eta baita ere lana ongi bururatu Koralaren kantaldia zuzen hartuz. Lan nekosa izan da, kanta eta kanta ahalik eta meza zuzen eta garbi atera arte. Lan nekagarria bai, bainan onuragarria, Aita Donostia'ren defuntoen mezak merezi duen bezalako zaletasunarekin egina baita. Aita Donostia'k bere eginkizun ospetsu hau hil aintzinean eta duela hogeita bartz urte eta gehiago hain segur antolatu zuen. Gure donostiar kaputxinoa oraindik bizi zelarik, Elizondo'ko Korala hasia zen meza ikasten; eta hil ondoren, Donostia, Zaragoza eta Lekarotz'ko kaputxinoen elizetan, Aita Donostia'ren ohoretan kantatu zuten. Hogeita bartz urte luze yoan dira eta orai berriz ere "Misa pro Defunctis" delako obra mirezgarria agertzen dute munduaren aurrean eta dizkaren bitartez lurralde guzietara barreiatu dadin, Aita Donostia'ri gorasarre hunkigarria emanik, zeruan ere donostiar kaputxino ospetsuaren edesti eternala aditu dezaten.

M. Izeta

Principe de Viana, 1982, urtarrila, 13. orr.

BAZTAN

## ZENBAIT IKUSGARRI BAZTAN'GO GAZTEEN ELKARTEAK ANTOLATURIK

Baztan'go gazteen elkarteak antolaturik, Eguberri eta ondoko egunetan aunitz ikusgarri ukanak ditugu; hoiien artean, urteroko Olentzero, hitzaldiak, filmak eta euskal kantariak.

Ikusi dugu nafartar mendizale talde horrek Hindu Kush mendietan egin duten ibilaldia. Erakutsi diguten filma hortan agertu dute nolako nekeak behar izan zuten yasan mendi ikaragarri hoiek garaitzeko. Hor ikusi dugu Arbeloa'ren zorigaiztoko heriotza eta Gerardo Plaza'ren ererikoa, Arbeloa'kin batean erroiztu zelarik. Arbeloa mendizale zintzoa han berean ehortzi zuten. Gure baztandar Gerardo Plaza, anka hautsirik larri-larri ibili ondoren erroitz haundi hartatik, nolapaitere atera zuten potentzi guziak eginik eta eskerrak Polonia'ko mendizale talde baten laguntzari. Filma jakingarria eta arras interesgarria. Zorionak nafartar mendizaleei.

Jimeno Jurio jaunak garrantzi haundiko hitzaldia egina digu Nafarroa eta Estatutoari buruz, xehetasun guziekin Nafarroa'ren arazoa garbiki erakutsi duela. Jimeno jaunak Nafarroa'ren euskal nortasuna goraiatu du, arrazoin jakingarriak erakutsiz, bai Kondairaren aldetik nola gaurko politikako egoeraz ere, gauzak ongi aztertuz eta denbora berean egiak agertuz. Zorionak, Jimeno Jurio jaunari.

Urtarrila'ren 8'an, Urte Berriko Kantaldia ospatu dugu Elizondo'n.

Bost kantari, taularen gainean: Manex Pagola baxenafartarra, Yosu Goya beratarra, Yon Bergaretxe eta Mikel Laboa gipuzkoarrak eta Gorka Knörr arabarra bere anaiarekin.

Kantariak piztu zuten sua eta gazteria bero; euskal ikurriñak agertu ziren eta giro aberkoi suhar bat ere gazteen artean. Besta bururatzeko "*Eusko gudariak*" eta "*Batasuna*" kantatu zuten. Urteberriko kantaldi hunek arrakasta izigarria ukan du.

M. Izeta

Principe de Viana, 1977, urtarrila-otsaila-martxoa, 14. orr.



## BAZTAN

### Eguberri, Urteberri

Eguberri zoriontsuak ospatu gintuen, urte zaharrari azken-agurra eman diogu eta bai urte berriari arrera ona egin ere.

Azkenengo urte hoketan bezala, Baztan'go eskoletako haurren artean kultura-sariketak eginak dira: ipuinak euskaraz eta erdaraz eta bai Gabon-abesti edo billatziko sariketak egin. Ikuskizunen artean hor gintuen Arizkun, Irurite eta Elizondo'ko dantzari txikiak beren txistulariekin. Lekarotz'ko Kaputxinoetako eta "*El Pilar*" Ikastetxetako kantari-taldeak ere beren kantaldia egin zuten hiruna Gabon abesti kantatuz. "*Pilar*"eko taldeak erdaraz egitea ez da batere ez kantatzea, horrek xangrindu gaitu. Gainera. Ikastetxeko Orkesta ere aritu zen bertze hiru kantaldi eginik, eta euskarazkorik batere ez. Non daude Aita Donostia zenaren Gabon-abesti zoragarriak? Aita kaputxino agurgarriak zeruko xilo batetik ikusi ba'lu... Lekarotz'ko Ikastetxean ez ahal da euskararentzat lekurik?

Elizondo'ko Lantegi Eskolan ere egin dute beren besta ttipia Eguberri karietarat jaialdia eginik eta euskarazko Gabon-abestiz eta bertze euskal kantaz ongi hornaturik. Ala behar ere! Gu nafartarrok ez ba'dugu gure euskal zaletasuna erakusten, zer ari gara?

Urtero bezala, "*Olentzero*" ibilia da Elizondo'ko karriketan barna herriko gazteria inguruan zaukala, txistu soñuarekin eta Gabon-kantak xaramelatuz.

Eta azkenengo urte hoketan bezala, Eguberri eta Urteberri hamabostaldi huntan ukanak ditugu kulturazko hitzaldiak Baztan'go problemetaz.

Baztan alde huntatik urte berri on bat irakurle guzieri.

### Eguraldi latza

Aspaldion ez ginuen holako negurik ikusi. Urtarrila'ren erditsutik hasita Otsaila'n sartu arte, elurra, kazkabarra, euria eta eguraldi latzak yasanak ditugu.

Orai, Otsaila'ko hilabetearen sarturik, erranairu batek adierazten dauku:

"*Kandelerotz hotz, negue gan da motz*".

Egun hortan ez zuen berorik egin, baina ez hotzik ere. Gero ikusi behar Otsaila hunek zer dakarran. "*Otsaila, bixilli baxalla*".

### Iñauteak

Aurten ñauteak goiz eta negu gorrian, baina halare gazteariari axolik ez eta beti besta egiteko prest. Iñauteak ez daude atzenduak; ez dute izanen lehenagoko garrantzi hura, baina orai ere zerbait egiten da. Aurten ere bazen ñautearen seinalea, eta Baztan'go gazteria ederki yostatu da.

Baztan alde huntan, ñauteak ez dira oroitzapen bat bertzerik; nahiz oraindik ere zerbait egiten den, itxura gabekoak baldin ba'dira ere.

M. Izeta

## BAZTAN

Jai eder baten oroipena

Harrigarria Donostia'ko eta Loiola'ko Herri Irratiek antolatutako besta. "24 ORDUAK EUSKARAZ" delako programak arrakasta haundia ukan zuen. Irrati emisora horiek indar gehiago ba'lute, zenbat eta zenbat lan on egin bezaken: baina, euskaldunak beti gauza ttipien yabe.

Dena dela, hamabost mila ikustiar bai omen giñen Anoeta'ko "Belodromo" hartan; eta beste mila zenbait kanpuan, barnean lekurik etzelakotz.

Nafartarrak asi eta nafartarrak bukatu genuen besta. Baztandar mutil-dantzariak gomitatuak izan ginen gure eskualdeko dantzak erakustera, eta hala baztandarrak ere beste zazpi lurraldetako euskaldun anaiekin batean jaialdiari indarra eta ohorea eman bearrez. Ituren'go gure adiskideak er han ziren gurekin batean beren "yoare" haundiekin urratsak konpasean harat eta hunat eginez misteriozko soñu harekin bazter guziak iñarrosten zituztela.

Arratseko 9'etan jaialdia. Belodromoa dena ilunpetan; plazaren erdian, taulada zabala haren gainean, kantariak eta dantzariak saio lekua zutelarik. Argi biziak argiten zuten taula, yendearen lekua dena ilunpetan utzirik. Hunkigarria!

Ituren'darren ekiñaldearekin hasi zen jaialdia. Gero euskal kantariak, trikitalariak, txalapartariak, Zuberotarrak txirulari ta kantari eta, azkenik, Baztan'go Mutil-Dantza.

Mota aunitzetako kantak erabili zituzten. Entzuleen artean bazen su eta gar; eta, batez ere, kanta aberkoiak aditzean, gazteria nabarmendurik barnean zaukan berotasuna agertzen zuela "Gora!" indartsuekin eta, denbora berean, euskal ikurriñak ere agertzen zirela; gazteria beti kartsu. Ikusgarria zen ilunpe hartan milaka argi ttipi, briketa, mixto ta kandelak pizturik, gisa hortan yendeak bere sendimendua horrela erakusten zuela, kantaren esan nahiak hala eskatzen ba'zuen.

Gure zorionik kartsuenak Herri Irratiari; eta, datorren urtean, berriz ere, izan dezagula holako jaialdia ikusteko zoria.

M. Izeta

Principe de Viana, 1976, uztaila, 14. orr.

## BAZTAN

### Santioak

Santioak joan dira eta ongi joanak. Lau egun lehenik eta atsedeen baten pixka ondotik, "errebesta" Txokoto'n. Aurten bagintuen zernai soñu, yosteta eta ikuskizun.

Santio bezperein jaialdi plit bat ospatu zuen Bera'ko Dantzari-Taldeak. Santio egunean, ohiturari yarraikiz, Meza ederra, ondotik, urteroko Mutil-Dantzak. Arratsaldean, Herrien Txapelketa, Aranaz eta Baztan'go pilotarien artean; lau partida egin ziren eta baztandarrak garai.

Haizkorak izanak dira Mindegia bakarrik Aierbe eta Arregi'ren kontra. Indarrak berdintsu; baina, azkenean, Mindegia irabaztale. Oilar borroka, ahari yokoa eta bi bertsolari ere: Argiñarena errazkindarra eta Mixel "Salbador" urepeldarra, kantaldi xarmanta eginik. Laugarren egunean bi pilota partida "profesionalen" artean: Satrustegi-Aldazabal 22, Kenedi-Txoperena 16; eta Oreja III-Salbidea 22, Berasaluze-Tolosa 16.

Hiru egunen atsedena eta "erre-besta" Txokoto'n. Soñu eta dantza; haurren arteko lasterketak, yostetak eta igerilekuan ere nor-behiagoketak. Antxitone'koan, bi ikuskizun: larunbatean "Los Amigos del Arte" soñularien emankizuna; igandean, Iruñe'ko "Ortzadar" dantzari-taldearen erakusketa. Yendea bildu zen eta iruñar dantzariak poliki erakutsi zituzten Euskal Herri'ko dantza zoragarriak.

Gazteak ez dira bestaz aspertzen, bainan bestak joan direlarik norbaitek hartu du atsedeen.

### Legate'ko gurutzea

Abuztua'ren 2'an ospatu zen Legate mendian Gurutze berriaren 2-gn. urtebetetzea. Eguralde zirtzila gertatu zitzaikun, uria eta laño sendo baten menpean. Giro zirtzil horrengatik yende aunitz gibelatu zen eta guti izan ginen Legate'ko Gurutzeraño igen ginenak; halere, baginen berrogei bat lagun. Meza beti bezala herriak kantaturik eta bai bertsolari baztandar baten eskeintza hunkigarriarekin.

Datorren urtean ere, Yainkoa lagun, Abuztu'ko lehenbiziko igandean, ospatuko dugu Elizkizun bera, eta aurten baino suerte hobea izaten ba'dugu, nik uste yende gehiago bilduko dela eta hala behar ere, zeren hola ezpa'da non dago baztandar kristauen zaletasuna?

M. Izeta

Principe de Viana, 1981, uztaila, 14. orr.

## BAZTAN

### Bestak

Aurten arizkundarrek beren herriko bestak bi egunez aintzinatu dituzte eta hola eginez Sanjuanak igandearekin asi ziren. San Juan mezperagokoan lehenbiziko eguna, arratsaldeko seietan aizkolariak eta bertsolariak. Aizkorian ari izanak dira Latasa eta Arizkun'go Alzubiet buruz buru. Bi aizkolarien eginkizuna: Alzubiet'ek zortzi egur kana-erdiko eta Latasa'k bertze zortzi neurri berekoak bainan zortzietatik bida etzanta eta bertze seiak zutik, bi aizkolariek batean asita lan guzia zeñek lasterrago egin. Lehenbizien berdintsu ibilli ziren bainan lan erditsuan Latasa'k abantail puska hartu zuen ta zortzi onborrak erdibitu zituen. Alzubiet'ek bere zazpigarrena oraindik akitzekoa zaukelarik. Latasa sunbildarra azkar dago, zutitako onborretan eginikako lana guzien gañekoa izan zen, horrek ofizioa ongi daki badu adrendue, eta indarra ta kuraia etzaio falta. Arizkundarrak ere naikoa egin zuen bere lan guzia akitzea. Mutillak badaki lanean eta obekiago prestatzen balitzake, bigarren mallako edozein aizkolari lanak emango litiozke.

Bertsolariak Lasarte ta Lazkao-Txiki ziren. Beti bezala bertsolarien kantaldia gustagarria izan zen.

Bigarren egunean lasterka bat egin zuten, oñez nor-lehenka eta sei kilometroko bidean. Lasterketa hontan sei mutiko baztandar aritu ziren eta Soule arizkundarrak irabazi, bigarren inbuluzketa elizondarra sartu zelarik.

Aurten San Juan eguna besta irugarrena zen. Goizean Meza Nausi ederra eta meza erranta ondoan eta oiturari yarraikiz, Mutil-dantza. Aurten bizikleta lasterketa ere izan dute eta hortan ari izanak dire bizikletari gazteak bakarrik (Juvenil deitutakoak). Hoiien artean Arizkundar Eujenio Maritorea zagon eta amabortz txirrindularien artean irugarren sartu zen. Lasterketa Lizarra'ko batek irabazi zuen. Arratsaldean "Elkartasuna" deitutako pilota lekuan, bi partida yokatu zituzten. Lenbizikoa paletazkoa. Txatxin ta Habans elizondarrak, Arizkundar Arriada anaien kontra Partida polita eta atakatua adoste aunitz egin zituztelarik. Azkenean elizondarrak garai 40-37.

Bigarren partida esku-huska, Etxandi ta Agerre erratzuarrak alde batetik eta Txoperena ta Elizalde bertzetik. Etzen partida arrigarria gertatu eta gudukaldi huntan erratzuarrak galtzale.

Eguraldi txarra aurtengo Sanjuanetan, lenbiziko ta bigarrenan eurie yautsi ahala, beharrik dantza ta yostetako legor ederra badaukatela. "Orquesta Alegria" koek eta Maurizio txistulariak alaitu dituzte bestak eta gazte yendea ederki yostatu da.

Gero Sanpedrotan, Erratzu, Almandoz ta Doneztebe'ko herriek ere beren bestak ospatu dituzte eta urtero bezala bazituzten pilota partidak naiko soñu ta bertze yosteta zenbait ere.

Merexi du aipatzea Sanpedro bigarrenan Errazu'n eginikako bertsolari besta, hortan Mattin ta Xalbador ari izan diralarik. Bi bertsolari maitagarri hoken kantaldia izigarri polita izandu zen, eta yendeak zer irri-ajatak egin ote zituen koblarien ateraldiekin. Besta guziz ederra.

Alamandoztarrek ere besta ederrak eginak dituzte, eta aipatu dezagun irugarren egunean San Blas'en eginikako bazkari ederra herriko gazte ta ezkonduak han bildurik anaien arteko otordua egin zutelarik.

Sanjuanak eta Sanpedroak igaro dira eta orai Santioak.

M. Izeta

## BAZTAN

### Bestak

*Arizkundarrek* beren herriko bestak ospatu dituzte. San Juan egunean Meza Nausia eta elizkizunaren ondoren mutil-dantza ederrak. Zenbait ikusgarri ere ukan dituzte, pilota partidak, lasterketak eta bai "Tiro al Plato" delako yosteta ere. Plazan naiko soñua eta iende aunitz batez ere igandean (25 ean).

*Erratxuarrek eta Doneztebarrek* ere egin dituzte beren bestak Sanpedroak Ongi ospatuaz. Bi herrietan pilota partidak eta beste ikusgarri zenbait erakutsi dituzte eta beti bezala soñu auserki plazan.

San Pedro egunean *Donezteben* dantzarien Sariketa bat egin ztuen. Fandango eta Arin-Arin zeñek hobeki dantza. Nor-gehiagoka hontan bederatzi bikote ari izanak dira, lau aundienetakoak eta bortz txikienetakoak. Juradoko jaunen erabakia holaxe:

Aundietan: Irabaztaleak, Etxarri-Fernandez. Txikienetan: Irabaztaleak, Ugalde-Esnaola.

Dantzak aipatu ditugularik erran behar dugu ere, Arizkun-go Mutil-dantzariak ari beharrak direla, Iruñen uztailaren 8-an, Donibane-Lohitzun-en Abuztuaren 13-an eta Donostian Iraillaren 4-ean. Badirudi Baztan-go dantza fama aundia hartzen ari dela eta euskal dantzak maite dutenen artean baduela arrakasta. Denek nahi dute gure mutil-dantza ongi ezagutu iturburutik ateratako ur garbia atsegin aundiarekin dastatzeko. Arizkundarrek erakutsiko dituzte: Muxikoak, Tellarin, Sagar-dantza eta Baztan-go Zortzikoa. Eta erran dezagun egi bat, Mutil-Dantza, izenak berak garbi aski adierazten duena, mutilen dantza da eta ez neskatxena.

Gure ohiturak eta dantza jatorrak ongi zaintzekotan berek daukaten nortasunari begiratu.

M. Izeta

Principe de Viana, 1972, uztaila-abuztua, 7. orr.

## BAZTAN: BESTAK ETA BERTZEA

### Bestak

Arizkun'en Sanjuanak ospatu zituzten. Ikuskizunen artean aipa ditzagun San Juan bezperean eginikako dantzari besta. Bilboko "Bizkai-Taldea" deitzen den dantzari-taldea ari izana da jai hortan bi orduko aitaldia eginik, hor erakutsi dituztela Lantz-ko "Iñauteriak" eta "Euskal-Herriko dantzak". Arizkandar mutil-dantzariak ere saio eder bat egin zuten Baztango dantzak erakutsiaz. San Juan egunean Bertsolariak eta Arri-Jasotzaleak. MATTIN eta ETXEBERRIA bertsolari famatuak kantaldi xarmanta egin zuten eta ENDAÑETA indartsua ere ari izana da 225 kiloko arri ikaragarriarekin, gero 125 kiloko arri kuadroakin eta 125 kiloko arri borobillakin. Bestak ongi joan dire.

Erretzuarrek ere Sanpedroak eginak dituzte. Pilota partidak, euskal-dantzariak eta bertze herri-jai eta erakusketa interesgarriak agertu dituztela. Bizikleta lasterketa ere egin zuten eta denen gainetik irabaztale ATXA almandoztarra. Zorionak baztandar bizkor honeri.

Donezteben ere Sanpedroak. Urtero bezala aurten ere ospatu dute Dantzarien Sariketa, Jota ta Purrusalda zeñek hobeki dantza. Haundietan lenbiziko Saria LARREA-ALBIZU lezotar bikotearentzat eta txikietan UGALDE-ESNAOLA bikotearentzat, hok ere lezotarrak. Pilota partida ederrak ere izan dituzte "ESKULARI" Batasuneko pilotariak ari izanak direla.

### Santioak

Herriko bestak ospatu ditu Elizondok. Santio egunean zerue goibel eta aski ilun agertu zitzain; eurik egin gabe iraun zuen.

Santio egunean beti bezala goizean Meza eta ondotik Mutil-Dantza. Arratsaldean "Iriarte" pilota lekuan Dantzarien Sariketa. Zortzi bikote ari izanak dira. Lenbiziko Saria Sarriegi-Lopetegi Hernaniar bikotearentzat eta bigarrena Larrea-Albizu lezotar dantzariarentzat. Dantzari txikiak ere bazuten Sariketa. Etxebarria-Urbe Ondarrutarrak garaile. Bigarren egunean bizikleta lasterketa Baztango itzulia. Hirugarrenean pilota partidak. Goizean guantez eta arratsaldean "Iriarte" pilota plazan esku-huska pilotari profesionalen artean. Bi partida jokatu zituzten. Lenbizikoa; Pierola-Aldazabal 22, Orexa III-Barandiaran 14. Bigarren partida; Arantzeta-Bengoetxea, 22; Retegi II-Oteiza, 21. Laugarren egunean igandearekin Donostiako "Argia" deitutako dantzari taldea ari izana da, Nafarroako eta Lapurdiko dantzak erakutsi dituztela. Dantzari jatorrak donostiarrak.

Lau egunetan naiko soñua plazan eta jendea ere bai. Aurten mutil-dantza ederrak eginak ditugu gazte ta zahar aunitz lerroan eta jende aunitz ere begira. Maurizio Elizaldek lan ederra egin du. Zorionak dantzarietara eta soñularietara.

Eta orai bertze urtetan erran dudana erran dezadan.

*"Bestak gan dire, bakea ta bi sos".*

### Mutil-dantza

Igaz bezala eta aintzineko urtean bezala ere, gure baztandar mutil-dantzariak ari izanak dire Iruñen San Fermin bezperean. "Pabellon Anaitasuna" deitzen den Etxe ederrean nafartarren arteko Dantzari festa ederra ospatu da, jai hortan Iruñekoak, Tafallakoak,

Tudelakoak, Lizarrakoak, Otxagikoak eta Baztandarrak ere ari izanak direla bakotzak beren lekuko dantzak erakutsiaz. Sala bete betea jendez eta txalo ederrean. Sala betea eta txalo ederrak dantzarien ohoretan. Gure mutil-dantzariak ere sekuleko arrakasta izan zuten. Zorionak.

M. Izeta

Principe de Viana, 1974, uztaila-abuztua, 6. orr.

## BAZTAN

### Arizkun eta Erratzu'ko bestak

Bestak beti bestak, nahiz bizia garesti egon eta prezioak gero ta gorago yoan; urte txarra, arrangura bazterretan, yendea kesu, baina bestak beti arrakasta ona.

Arizkun eta Erratzu'ko herriek ospatu dituzten beren bestak. Urtero bezala naiko soñu eta dantza eta gazteria jostakin.

Arizkun'en, bertsolari besta, berehartan kantari ari izanak direla. Baita ere Xuberotar dantzariak ere ari izanak dira.

Erratzu'n ere ukan ditugu bertsolariak: Uztaila'ren 2'an, goizean eta arratsean, Mixel eta Alkat baxenabartarrak eta Jesus Goñi oronoztarra ari izanak direla; baita ere ari izanak dira Etxemendi eta Larralde baxenabartar kantari xarmantak eta M. Idirin eta "*Oskorri*" Taldea.

Jendea kontent zagon eta bixtan da Nafarroa'n baditugula bertsolariak; kartzeko behar ginuke bertsolari nafartarren artean zenbait bilkura eta besta. Baxenabarra'n badugu bertsolari andana bat, eta gure alderdiko Nafarroa'n ere bilduko ginuzke bertze hainbertze; anaien arteko elkartasuna, gauza ederra.

### Elizondo'ko bestak

"*Santioak*" ospatu dira Elizondo'n; aurten, 23'an hasi ziren, larunbatarekin eta *Santioa* bezperagokoa.

Larunbatean, arratseko 10,30-etan, "*Baztan*" pilota-lekuan, Euskal-Herri'ko Dantza-Agerketa; jaialdi huntan ari izanak dira:

IPAR-EUZKADI: *Lapurdi*, Donibane'ko "*Begiraleak*"; *Benafarroa*, Baigorri'ko Dantzariak; *Ziberoa*, Urdiañarbe'koak.

EGO-EUZKADI: *Bizkaia*, Erandio'ko Ezpata-Dantzariak; *Gipuzkoa*, Oñati'ko Dantzariak; *Araba*, Gazteiz'koak; *Nafarroa*, Muskaria'ko Dantzariak. Zazpi lurraldetatik, zazpi dantzari-talde, baita etxeok ere: Baztan'go Mutil-Dantzariak. Jaialdia ongi yoan zen Euskal-Herri'ko Ikurriñaren itzalean; denek, hasieran, "*Gernika'ko Arbola*" eta, akaballan, "*Agur Yaunak*" kantatuz.

*Santio* eguna, denbora ilun eta urizke, eta ez guk nahi bezala. Meza Nagusi ondoan, plaza zaharrean, Maurishio txistulariari Omenaldi maitekor bat egin zitzaion txistulari bezala berrogei-t'amar urteak bete dituelakotz; bere urrezko eztaiak ospatzeko, Elizondo'ko herriak opari bat eskeini zion. Ondotik, Dantzari-txikiak Baztan'go Soka-Dantza erakutsi zaukuten; azkenik, ohorezko Mutil-Dantza bat denentzat.

Arratsaldean, aizkolariak eta bertsolariak. Bazen yendea eta jaialdia ere interesgarria. Mixel urepeldarra eta Goñi oronoztarra aritu ziren kantaldi xarmanta eginik. Astibia-Mindegia, buruz-buru, gisa huntako lanean: Asitibia'k 6 kana-erdiko eta 5 ttipi; Mindegia'k 6 enbor kana-erdiko eta 66 ttipi; biek batean hasi eta zeñek lasterrago moztu. Mindegia irabaztale, baina ez aisa: aldea, 8 segundu bakarrik.

"*Baztan*" pilota-lekua, "kaskezurreraino" betea (1.300 lagun), 26'ean. Lehen partida arras polita; baina ez, ordea, bigarrena: Pierola eta Maiz'ek aietasun haundik garaitu baitzituzten Arroyo eta Aldazabal.

"*Los Diamantes*" soñulariek arrotu dituzte bazterrak beren euskal kantekin. Urtero bezala mutil-dantza ederrak egin ditugu; Maurishio eta Felix ez dira lo egon.



Zikiro-yatea eta besta ederra Beartzun'en, 30'gn. egunean. Eguraldi txarra, neguan bezala. Arratseko "*Baztan*" pilota-lekuan, Oiartzun'ko "*Intxisu*" Taldearen antzerki saioa. E. Arotzena X. Lete'ren "*Deus ere ez izatetik izatera*" aurkeztu zuten. Yende guti bildu zen: alde batetik, eguraldi txarra; bestetik, soñua plazan; haundiena, gure herritarren euskaltzaletasuna eta auntzaren gauerdiko eztula, biak berdintsu direla.

Eguraldiak ez gaitu batere lagundu; egundaiño ez dugu ikusi "*Santiotan*" hola giro txarrik.

*"Bestak gan dire; orai bakea ta bi sos".*

M. Izeta

Principe de Viana, 1977, uztaila-abuztua-iraila, 14. orr.

## BAZTAN - AMAYUR

### Baztandar gaztediaren biltzarra

Irailaren 19'a egun gogangarria Amayur'ko herriarentzat. Egun hortan ospatu dute Baztandar Gaztediaren Biltzarra. Baztandar gazteriak erakutsi du bere zaletasuna, baditu kezka eta gure herriko arazoetatik arduratzen da. Gazteen artean badute Elkarte bat egina eta lanerako gogo haundiarekin saiatzen dira ahal dutena eginez.

Goizeko hamar t'erdietan bildu zen gazte taldea Amayur'ko plazan eta denak bat eginik Gaztelu'ko mendi gaineraino. Gaztelua eta Oroit-Harria egon ziren leku ber-berean, eta haren gainean Meza eman zuten, Nafarroa'ko Erresumaren alde bere bizia eman zutenen ohoretan. Ondotik, Biltzarra, 200 gazteek parte hartu zutelarik.

Biltzar huntan gauza aunitzetaz mintzatu ziren: Nekazalgoaz, Haziendaz, Industriad, Irakaskintzaz, Kulturaz, Baztan'go Balleko Etxeko aferetatik eta bai Nafarroa'ko eta Euskal Herri guziko politikaren egoeraz ere. Ondoren, Ikurriñaren itzalean, gazteek zutik, kartsuki, "*Batasuna*" ta "*Eusko Gudariak*" kantatu zituzten.

Herriko plazan bazkaria, zikiro yatea. Bazen umorea eta bai gauzarik ederrena, ere, anaitasuna gazteen artean. Bazkalondoan, ikurriña ibili zuten plazaren inguruan, gazteria kantuz eta zortzikoa dantzatuz. Bestari zortzietako eman zitzaion akaballa, eta deus makurrik gabe.

Gazteak indar haundiarekin eldu zaizkigu, Herriaren alde lana egiteko prest ikusten ditugu, Euskal BATASUNA bere gogoan daukatela eta asmo onak bihotzetan.

Zorionak baztandar gazte maiteak eta yarraiki zuen euskal zaletasunean. GEROA zuena baita eta ez etsi garaipena erdietsi arte.

M. Izeta

Principe de Viana, 1976, iraila-urria, 14. orr.

## BAZTAN

### Aintzina'ko denboretan iñauteak

Iñauteriari buruz aunitz mintzatu da eta bolai hontan aunitz idatzi ere. Lenagoko iñauterietaz badago asko idatzirik; dudik gabe, aintzinako denboretan iñauteak garanti aundia zaukaten. jendeak josteta maite lehen eta orai. Gaurko egunean iñauteak ez dute indar aundirik, aunitz ttipitu dira eta gure eskualdean Lanz-koak, Ituren-goak eta Zubieta-koak bakarrik dira irauten dutenak, eta badirudi iru herri hoietako iñauterien fama Euskal-Herri guzian barreiatua dagola. *Miel Otxin* alde batetik eta *Zanpantzarrak* bertzetik iñaute hoiek badute arrakasta.

Baztan alde hontan iñauteak ez dira oroitzapen bat bertzerik, naiz ta oraindik ere zerbait egiten den itxura gabekoak baldin badira ere. Nere adiskide zahar zenbaitzuk erraten dautatenez, orai dela 60 urteko iñauteak ederrak izaten omen ziren eta ongi eginak gainera. San Anton egunetik goiti hasten omen ziren mozorroak eta igandero ateratzen omen ziren karrikera gisa hortan iñauteak artio. Iñaute aintzineko iru ortzegunek bai omen zituzten beren izenek: GIZEKUNDE: egun hontan gizonek besta egiten zutelakotz. EMAKUNDE: andreen eguna eta ORAKUNDE: aurren bestaren eguna. Bi lenbiziko ortzegun hoiien ohitura aspaldion galdu da, behar bada mende hontan sortu garen guziok ez dugu bi ortzegun hoiien ohiturak ezagutu izanen. Orakunde egunak oraindik irauten du, ez behar bada lenago bezala baina oraindik besta honek badu indarra eta Baztango herri guzietako aurrek egun hontan besta ederra egiten dute. Goizean Meza; gero karriketan barna txistulariekin puskek biltzen. Gero bazkaria eta arratsaldean, ollar-besta, jostetak eta dantza. Arizkun-go herrian Orakunde egunari "*Egun ttun ttun*" deitzen diote eta aurrek beren soñulariekin etxez etxe ibiltzen direlarik koplak zaharrak kantatzen dituzte. Hona hemen:

Egun ttun ttun,  
bihar ttun ttun,  
etzi geren ttunttuna;  
etxe huntan arnoa bada,  
guk ez yakin zenbana.

Zenbana yakiteko  
degun ttantatto bana;  
bizarraren egiteko  
zingar puska bat;  
harekin yateko ogi bazterko bat.

Gero bertze bi kanta ere agertzen dituzte egun hontan, naiz ta hoietako bat beñipin Baztango zenbait herrietan Urteberri egunean kantatzen den.

Aingeruak gara,  
zerutik eldu gara;  
boltsa badugu,  
dirurikan ez.  
Urtetex! Urtetex!

Egun, egun ona; bihar, bazkoa;  
etzi ezkontzen da gure atsoa,  
zaigorri batekin dantzari ona.  
Urtetex! Urtetex!

Gero iñauteak eta iru egun; Igandea, astelena eta astearte. Oraiko iñaute hauek alde batera utzirik aipa ditzagun orai 60 urtekoak nere lagun zahar batek hoi en xehetasunak emanik.

Aspaldiko denbora haietan Baztango herri guzietan baziren txistulariak, gure dantzak bazuten indarra eta aintziñako denboretako ohiturari yarraikiz Iñauteak ongi ospatzen ziren, herriko festetan bezala *Danbolin-Nausiek* eta *Danbolin-Etxekoandreak* beren lagunekin aritzen zirela iñauteriari nortasun eta ohore bat ematen ziotelarik.

Iñaute igande goizean herriko gazte guziak beren soñulariekin karriketean eta auzoetan etxez etxe ibiliaz puskek biltzen; txistorra, arroltze, zinger, ogi eta ematen zutenekin gero ostatuan otordu ederra egiteko. Arratsaldean herriko plazan eta festetan bezala *Danbolin-Nausiek* eta *Danbolin-Etxekoandreak* dantzari hasmenta ematen zioten, lehenik zortzikoa dantzatzu eta ondolik Soka-dantza eder bat herriko neska ta mutil guziek hor sartzen zirela. Gero dantza laxoan egin-ahal guzian tartean mutil-dantzak eta "Gaite" ere dantzatzu zutela. "Gaite" delako hori garai hartan aunitz dantzatzu zen batez ere festetan eta dantza honek badu Leitza-ko Ingurutxo en itxura aundia. Baita ere iñautetan bazen bertze dantza bat "Mozorro-Dantza" deitzen zena, dantza hontan mozorro guziek pirriaufaka aritzen zirelarik. (Dantza hau zortziko soñuan dantzatzu da eta oraikoez ez dakigu, halare dantza hau aisa pizten ahal da eta ikasi daiteke, Arizkun-en badira adineko yendeak dantza hortaz oroitzen direnak eta dantzatzu dakitenak). Plazako soñua Ilun-ezkilekin akitzen zen eta orduan neska guziak lasterka etxera.

Gero ostatuan mutilek eta gizon gazteek bestari yarraikitzen zioten. Astelenean berriz puskek biltzen eta bazkaria ostatuan eta arratsaldean berriz dantzaldia, mozorroak yauzika ta irrintzika aritzen zirelarik. Irugarren egunean besta aundiena, orduan zaharrak eta gazteak eta herri guziak besta egiten zuela. Egun hontan bazkalondoan gazteek txistulariekin karriketean barna eta *Danbolin-Nausiek* han-hemenka *Sagar-Dantza* dantzatuaz. Gero plazan gizon ezkonduak izaten ziren dantzari hasiera ematen ziotenak eta hek ziren andre ezkonduekin *Danbolin-Nausi* ta *Danbolin-Etxekoandre*. Denak umore ederrean eta bertze egunetan bezala soñu ta dantza berak. Egun hontan bazen bertze ohitura bat, arratsalde apalean Soka-Dantza bat egiten zen herri guziaren barna, hemen zahar eta gazte guziak sartzen zirelarik. Denak umore ederrean eta bertze egunetan bezala Ilun-Ezkilean plazako bestari akabailla ematen zitzaion. Ostatuan bada burrunba ederra, gizon zahar eta gazte, mutil-gazte ta mutil-zar denak naste eta mutil-dantzetan, hor erakutsiko dituzte: *Muxikoak*, *Tellerinek*, *Zozoarena*, *Añar-Xume*, *Mandozarrarena*, *Ardoarena*, *Txoriarena*, *Zazpi-Yauzi* eta gehiago ere eta irri-dantzetan, *Ipurdi-dantza*, *Zurrume-dantza*, *Katadera-dantza*, *Zartain-dantza*. Sasoin ederrean denak eta aski pinpirrinduek gehienak, zaharrak zauli eta denak bertsolari ta kantari.

Iru egunetan mozorroak eta aurren gibeletik lasterka eta hauek kantari:

Mozorro zinko  
mukitzu  
sobera sobera  
badakizu.

M. Izeta

Principe de Viana, 1974, apirila, 6. orr.

## BAZTAN-BIDASOA

Lenago besta eta orai ere berriz besta; dudik gabe bertze berririk ezta.

Abuztu'ko hilabetea holaxe joan zaigu, besta bestaren gainean. Aipatu behar ditut gure eskualdean ospatutakoak eta herrien izenak: Bera, Ziga, Sunbilla, Aranaz, Etxalar, Donamaria, Zubieta, Oronoz, Arraiotz, Amaiur, Zugarramurdi, Narbarte, Lekarotz eta Legasa.

Leku guzietan naiko ikusgarri eta yosteta, soñua ere auserki eta yendea pileka, autoak txinurria bezala iñon ere zin kokatuz.

Aurten bertsolariak izan dute ohore eta hala zenbait herrietan beren kantu miresgarriak entzunak izan dira. Sunbilla'n Latasa'ren omenaldiaren egunean aritu ziren Mitxelena eta Etxeberria. Zubieta'n Lizaso eta Lexoti. Oronoz'en, Arotzamina eta Gorrotxategi. Amaiur'en, Lazkao-Txiki eta Mattin. Lekarotz'en hoiak berak Mattin eta Lazkao-Txiki. Legasa'n Arotzamina eta Lazkao-Txiki.

Aipatzekoak dira ere Bera'n egin diran pilota partidak; Sunbilla'n eginikako besta Latasa'ren omenez; aizkora apostuak zenbait herrietan; Legasa'n ospatutako dantzarien Sariketa; Oronoz'en eta Arraiotz'en eginikako mutil-dantzak, eta Zugarramurdi'ko zikiroyatea.

Bestak deus makurrikan gabe joanak dira eta gisa hortan joanik yendea ere kontent.

M. Izeta

Principe de Viana, 1975, iraila, 7. orr.

## BAZTANDAR GAZTE BAT TXAPELDUNA

Aurtengo artzain zakurren sariketak baztandarreko ohore haundikoak izan dira. Patxi Etxeberria eta bere zakur "Labri"ren garaipenak bozkarioz bete gaitu baztandar guziei. "Xanparte'ko Borda"ko emezortzi urteko mutil gazte hunek, gorasko ezarria du Baztan'go lurraldea. (Baserri hau, elizez, Amayur'koa egiten da; eta, kontribuzioez, Azpilkueta'koa).

Aurten, Patxi'k eta "Labri"k borts aldiz irabazi dute, eta horrek badu merezimendu. Hona hemen beren garaipenak:

Biarritz'ko Sariketa. Amayur'ko Sariketa. (Baztan'en egin den lenbizikoa). Huarte-Arakil'ko Nafarroa'ko Txapelketa. Oñate'ko Nazio arteko Sariketa Nagusia; eta, azkenik, Bizkai'ko Zalla'ko Sariketa ere.

Sari eta edergailu aunitz eta onak eskuratu ditu; joan den urtean irabazitakoak eta aurten irabazi dituenakin, etxean baditu amasei "Kopa". Sari guziak baliosak dira; baina, aurten Oñate'ko Txapelketan irabazi duena, merezi du aipatzea. Sosa eta Trofeoaz landara, eman zioten zakur-kume ttipi bat "Collie" deitutako eskozes arrazakoa. Orain zakur huni ere artzain ofizioa ederki erakutsiko dio eta, "Labri"k eta biek, bikote ederra egin dezakete; izanen dute non yosta.

Zorionak baztandar Txapeldunari, "Xanparte'ko Borda"ko mutil gazteari, eta ohore bere zakur "Labri" famatuari.

M. Izeta

Principe de Viana, 1976, iraila-urria, 13. orr.

## BAZTANDARREN BILTZARRA

Agorrillaren 6'ean Baztandarren Biltzarraren eguna ospatu da Elizondon. Egun ortan, goiz goizetik zerue garbi eta iguzki dirdiranta agertu zitzaizkigun, eguraldi ederraren zoriona adierazten zaukutela eta ala gertatu ere. Baztango iri nagusian egun zoragarri bat izan dugu amalau errietako yendeak emen bildurik, aurtengo besta au guzien gañekoa izan da.

Goizeko bederatzi t'erdietan eskuarazko Meza izan ginuen, eliza beñere ez bezala betea ixkilin bat kokatzeko lekurik ere etzela. Aldarean amar apez baztandar Meza ematen eta erria kantari. Egia erran egundeño eztugu orrelako mezarik entzun Elizondon. Hunkigarria bai zinez batek baño geiago biotz zarratzadaren bortxaz pozezko negarrezko egin zituzten.

"Zure argiak argi ditzala erri guziak mundu zabalán".

Herriak kantatzen zuen, Baztandar erri ttipietako gazte euskaldunak erri aundietako erdaldunduei erakaspén ederra ematen zabeztelarik. Ortxe zauden Lekauzko ta Gartzaingo neskatx gazte oiek beren boz oxenekin eliza betetzen zutela. Arizkungo erretore Yaunak baztandar bilgurari buruz itzaldi hunkigarria egin zaukun. Meza unek oroitzapén eder bat utzi dauku.

Meza ondoren karrozen edo orgen ibillaldia Elizondoko karriketan barna itzulia eginez. Lenbizikoak zoazin, erriko txistulariak Baztango bandera edo ikurriña aintzinean zutela, gero denak lerro lerro errietako karrozak oien inguruan gazteria kantuz eta dantzan zoazilarik, eta karrozen artean ere Lesakako dantzariak, "Irungo Atsegiña" batasuneko txistulariak, Iruñeko txistulariak, Bilboko albokariak eta "Triki trixak" eta azkenik Iturengo gare-yole edo "zanpanzar" deitutakoak. Ikaragarritzko yendeketa bildu zen, karrike guziek bete beterik eginik beñere ikusi eztugun bezala. Ibillaldiaren ondoren plaza zaharrean Baztango gizon ta gazteak Mutil-Dantza eder bat dantzatu ginuen eta orren ondotik Lesakar dantzariak ere aritu ziren. Denentzat txalo ta esku-zarta aundiak yo zituzten. Gero bazkaria, zazpi eun bazkaltiar maiean yarririk eta gure artean Nafarroako Yaun Aintzindari aundienak zaudelarik. Bazkalondoan, kantariak, Txistulariak, albokariak, triki-trixa, dantzariak, kordionistak eta bertsolariak, Arotzamina ta Klemente ari izanak direlarik. Bestari buruz eta eskuararen alde bertso ederrak bota zituzten. Gero bazen umerea, mutil-dantza, soka-dantza, fandango ta purrusalda gazte ta zahar guziak egiñaletan dantzan ari zirela.

Gero plaza zaharrean eta arratseko amarrak arte txistu soñuarekin naiko dantza gazteria ederki yostatu zelarik.

Arratsaldeko zazpi t'erdietan "Maitena" deitutako salan, Donostiko Antzerki Taldea Dolores Agirre buru dutela, Antzerki guziz ederra erakutsi ziguten. "Ori'ko txoria Ori'n" izeneko komedia emanik. "Maitena" bete zen eta donostiaren lana yendearen gogokoa zian zen. Antzesiari bikañak donostiar auek, aunitz dakite eta zein apainki eta atsegin aundiarekin moldatu zituzten beren egin-beharrak. Zorionak donostiarrei eta batez ere beren Aintzindari Dolores Agirreri.

Baztandarren Biltzarraren eguna igaro da eta baztandar guziak oroitzapén ori beren biotzetan atxikiko dute.

Izeta



## BAZTANDARREN BILTZARRA

Aintzineko urte oietan bezala aurten ere "Baztandarren Biltzarra"ren eguna ospatu da Elizondo'ko errian. "Baztandarren Biltzarra", izenak dion bezala Baztan'go errietako elkartasun bat da eta besta hori ortarako da, baztandar guziak bat eginik elkarren artean egun goxo bat igarotzeko eguna. Ortaz bada gure baztandar biltzar au bear dugu ongi zaindu, bazterrak nahasi gabe gauzak bere negurritik atera gabe baztandar guziak beti anaiak bezala elkartu daitzin. Soberakinak ondatzen du elkarte eta goxotasuna ere galtzen du. Baztandarren Biltzarra izan dadiela egiazko euskal besta, eskuara beti denen gañetik egon dadien.

Abuztuaren amekagarren eguna zerue goibel agertu zitzaikun, zerue goibel bai bainan biotzak alegera, gure baztandarren bilgura orrek beti izaten baitu alako kutsu zoragarria, anaien maitasuna agertzen duen eguna baita.

Goizeko bederatzi terdietan eta aintzineko urte oietan bezala, Meza Elkartua izan ginuen. Meza guziz ederra amar apez baztandar Mai Sainduaren inguruan. Eliza mukurruraño betea orratz bat kokatzeko lekurik ere etzela, Elizkizun hunkigarria den dena eskuaraz egina, kantuak, otoitzak eta itzaldiak. Meza izan da dudik gabe "Baztandar Biltzar" egunak izan duen gauzarik ederrena. Zorionak apez baztandarrei eta gure goresmen bizienak Mezaren gidariari eta bai otoitzlari ta kantariari ere.

Meza ondorean karrozen ibillaldia Elizondo'ko karriketan barna. Maurizio eta Felix Baztango txistulariak denen aintzinean zoazin Balleko ikurriñarekin batean. Gero Lesaka'ko dantzariak beren txistulariekin, zazpi karroza lerro lerro eta tarteka, txistulariak, albokariak, kordionistak, triki-trixa, "Oberena"ko eta Zarauz'ko dantzariak beren txistulariekin eta oien artean gazteria dantzan zabilhela. Ezpeletako klika ere or ginuen bere soñu alegerakin bazter guziak iñarosten zituela. Eta azkenik Ituren'go gare yoile famatuak beren bulunba aundiekin soñulari. Karrozen artean baziren borts Elizondo'ko, bat Oronoz'koa eta bertzea Berroeta'koa. Danak ongi zauden, bazuten mamia eta beren erran naia. Berroeta'koa guziz ederra zen. Artzain bat bere etxolan gasna egiten eta aren ondoan eta kertxola baten barnean sei ardi. Dena egiazkoa eta artzaña ere bere lanean mendian balego bezala. Txistulari aunitz aurten, bainan zoritxarrez oien artean baztandarrik ez. Au ere lotsa da eta zer ari gara gaitz hori sendabidean jartzeko?

Euskalerriko erri aunitzetan badira txistulari taldeak. Lesaka'n, Alsasua'n, Zarauz'en, Irun'en eta bertze leku aunitzetan ere, eta Baztan'en olaxe gabiltza bizpauru txistulariekin bakarrik. Auzi hori Baztan'go Balleko aintzindarien eskuetan dago eta nai izan ezkerro gauzak aisa antola daizteke. Erakustalea badugu eta ona gañera, txistua eta Baztan'go dantzak ederki erakutsi dezazkena.

Karrozen ibillaldiaren ondoren, baztandar gazteek mutil-dantza saioa egin zuten eta oien dantzaldien ondoan, Iruñe'ko "Oberena"ko dantzariak beren aitaldia egin zuten. Gero bazkaria, eta bazkalondoan, baztandar bertsolariak, kantariak eta naiko dantza. Arratsaldean karriketan yendea pillaka bozkarioa ederki nabari zutela. Bainan utz ditzagun oiek guziak alde batera eta aipatu dezagun "Maitena" zineman eginikako euskal-teatroa. Errenderi'ko "Ereintza" taldeak euskal antzerki zoragarria erakutsi ziguten, "Ezkontzeko Deia" deitutako antzerkia agertu zutelarik. Antzeslari errenderriarrak ederki ari izanak dira trebetasun aundiarekin beren lanean eta eskuara ere aisa eta garbi erabiltzen zutelarik. Antzerki gustagarria izan zen eta "Maitena"n bildu ginenak errenderiarren ohoretan txalo ederrak yo gintuen. Euskal antzerki hori Mezarekin batean izan dira euskaltzale guzientzat Baztandarren Biltzarrak izan dituen gauzik ederrenak, gure mintzairak or baizuen ohore eta indarra eta oietan ageri baita gure egiazko nortasuna.

Aurtengo Biltzarra ospatu da eta Yainkoa lagun urrengoaren zai gaude, beti baztandarren elkartasunari begira.

M. Izeta

Principe de Viana, 1968, iraila, 1. orr.

## BAZTANDARREN BILTZARRA

Aurten Santio ondoko igandean ospatu dugu zortzigarren Baztandarren Biltzarra eta eguraldiak ere ederki lagundu gaituela. Goiz goizetik zerue garbi garbie agertu zitzaikun iguzkiak bortizki berotzen zuela. Gero egurdi aldera goibeldu zuen iper-aizea nausiturik bainan batere euriaren beldurrik gabe, ongi bait-dakigu iper-lanoak zerue "mukutzen" duelarik ez duela aisa erasaten. Hortaz bada arratsalde goxo bat izan ginuen eta besta egiteko izaten al den hoberena.

Aurten beñere ez bezalako arrakasta izan du Baztandar Bilgura honek, Elizondon bildu bait-dire Euskal-Herriko zazpi eskualdetako yendeak; hemen ikusi ditugularik, Gazteizkoak, Bizkaitarrak, Gipuzkoar aunitz eta Nafarroatik ere ikaragarritzko yendeketa, hoiien artean Iruñarrak, Lesakarrak, Beratarrak, Bidaso-Bertizaranakoak, Malderrekarrak. Bai eta mugaz-bertzaldeko anaiak ikusi gintuen, denak gure artera etorriak egun goxo bat iragaiteko nahikeriarekin eta denbora berean zazpi aurrideen arteko lokarriak sendotzera, hoiek beñere urratu ez daitezin.

Goizean Meza ederra, eskuarazko kantu, otoitz eta soñuekin, baztandar apez yaun batek bestari buruz prediku hunkigarria eginik. Meza guziz ederra.

Urtero bezala meza ondoan karrozen ibillaldia Elizondoko karriketan barna. Bertzetan bezala Balleko ikurriña Mauriz ta Pelix txistulariekin denen aintzinean eta hoiien ondotik, karrozak, txistulariak, dantzari-taldeak, triki-trixak, neska-mutil gazteak yauzi ta dantza, eta denen gibeletik Iturengo gare-joile famatuak beren bulunba aundiekin bazter guziak iñarosten zituztela.

Eguerdi aldean plaza zaharrean, Hazparrengo dantzariak aritu ziren eta hoiien ondotik eta goizeko besta bururatzeko, baztandar gazte ta zaharrek mutil-dantza eder bat dantzatu zuten.

Gero merkatuko plazan bazkaria 1500 bazkaltiarrekin. Bazkalondoan naiko soñu dantza ta kanta. Hor ari izanak dire txistulari-taldeak: Maurizio ta Pelix, Lesakarrak, Etxarritarrak, Zangotzatarrak, Silbestre Almandoz auspo-soñu joilea. Hazparrengo kantari xarmantak, Klemente bertsolaria, Irungo triki-trixa, Elizondoko Ikastolako aurrak kantari eta bertze zenbait gehiago ere. Bestaren zuzendari ta erakustale Iñaki Beobide izan ginuen. Zer mutil-dantzak, fandango ta ariñ-ariñ, ehunka gazte yauzi ta irrintzi.

Arratsaldean Elizondoko karrike ta ostatueta izigarrizko umoreakin gazte euskaldunak kantari Euskal-Herriaren aldeko kantak ederki gorai patzen zituztela.

Ilunabarrean, "Oskarbi" deitutako kantariak eta Tolosako "Udaberri" deritzaion dantzari-taldea aritu ziren, hemen ere Iñaki Beobide "Microan" zuzendari. Yende aunitz bildu zen eta denak loriaturik. "Oskarbi" taldearen kantak izigarri politak eta arras ongi moldatuak eta dantzarien ekiñaldia ere aski ederra. Zorionak "Oskarbi" ta "Udaberri" taldeeri eta bai bestaren zuzendariari ere.

Aurtengo Baztandarren Biltzarra ongi joan da eta Baztango izena Euskal-Herri guzian entzuna izan da. Ehun txistulari, dantzari-talde aunitz eta euskaldun gazteria bozkario sana agertzen zuelarik egun guzia kantari ta yauzi "Guria da Euskal-Herria".

Eguna gan da, arrabotsaren ondotik bakea, Baztango mendietan beiti iper-lanoak, lano idorrek, eztu erasanen. Bestak gand ire, "Bakia ta bi sos".

M. Izeta

## BAZTANDARREN BILTZARRA ELIZONDON

Buruillako lendabiziko asteko aro txarra ikusita yendea kezketan zagon igandeko baztandarren besta ondatuko ote zen beldurrarekin; izan ere egun hoietako ortotsak, iñezturek eta euri erauntsiek etzakarraten eguraldi onaren esperantzik. Buruilaren zazpia argitu zuen eta aintzineko egunetan bezala zerue goibel ta ilun agertu zitzaikun iduri baizuen erasan behar zuela, bainan gero goibelen artetik eguzkia kirikeka ibili ta ondoan eguraldi aski polita yarri zitzaikun naiz ta zeruen goibelak barrandan zabilzen.

Baztandarren Biltzarra ospatu da eta aurtengoarekin seigarrena. Aurtengo biltzarrean herri bat gehiago ginuen gure artean, orai berriki Amayur'ko herria Baztan'go egin baita. Orai amabortz herriekin osotzen dugu Baztan, orai artio amalau aurrider ginen eta orai amabortz gara, hortaz bada Amayur'ko herriari ohorezko arrera bat egin zitzaion. Amayur, Nafarroa'ko kondairan aipatua da, badu ospea eta izen ona eta nafartar zintzo guziek beren biotzetan daukate.

Besarkada maitekor bat Amayur'ko herriari.  
Ohore ta oroitzapen, azken nafartarren Gazteluari.

Bertze urtetan bezala mundu bat yende bildu da Elizondon. Baztan'go herri guzietatik, Bidasoa aldetik eta Iruñe, Lizarra eta Nafarroako leku aunitzetatik eta bai Gipuzkoa aldetik ere gure artera etorriak, Baztan'go biltzarrari ohore egiten ziotelarik.

Bederatzi terdietan Eskuarazko Meza, amar apez baztandar aldareko mai inguruan. Meza guziz ederra izan da, kantu, otoitz eta itzaldi hunkigarriak egin direlarik. Eliza bete bete uts bat ere iñon etzela eta berriz ere erranen dut elizkizun zoragarria izan ginuela, gure mintzairan eginikako Meza hauek bihotza ukitzen baitute.

Meza ondoan karrozen ibillaldia Elizondo'ko karriketan barna. Aintzineko urte hoietan bezala, denen aurrean Balleko ikurriña Baztan'go txistulariekin batean. Gero eldu ziren Amayur'ko karroza eta Luzaide'ko dantzariak, gero Almandoz, Aniz, Arrayotz, Azpilkueta eta Elizondo'ko karrozak, gero Tolosa'ko dantzariak eta Elbete, Erratzu, Gartzain, Irurite ta Lekarotz'ko karrozak, eta azkenik Ituren'go gare-yoleak edo "zanpantzar" deitutako mutillak. Bertzetan bezala karroza bakotxaren aintzinean, Txistulariak, Trikitrixak eta kordionistak eta denen inguruan neska ta mutil gazteak dantza ta yauzi. Denen artean 20 karroza erakutsi zituzten, denak politak eta euskal-giroa adierazten zutenak.

Eguerdi aldean euskal-dantzak. Lehenik Tolosa eta Luzaide'ko dantzariak eta azkenik goizeko bestari akaballa emateko, baztandar gizon ta mutiko gazteak mutildantza eder bat dantzatu zuten.

Gero merkatuko plazan bazkaria 1.200 lagun maiean yarririk. Ez pentsa bazkaltiar guziak baztandarrak zirenik, han baziren Iruñe'koak, Lizarrakoak eta leku aunitzetakoak ere. Bazkaltzen asi orduko goibeldu zuen bainan halare eurik egin gabe pixka bat iraun zuen. Gero bazkari erditsuan erasan zuen eta denak busti ginen, beharrik erauntsiek etzuela aunitzik iraun. Bazkalondoan, kantu, soñu ta dantza eta denak umore onean.

Gero yendea barreiatu zen eta Elizondo'ko karrike ta ostatuetan poza ta alaitasuna nabari zen.

Arratsaldeko zortzi terdietan plaza zaharrean ikusgarri ederra izan ginuen. Miarriz'ko "OLDARRA" k oroitzapen eder bat utzi digu, dantzari ta kantari onak eta ongi apainduak gañera, ikustekoa zen hoi beztimentak eta beren koloreak nola dirdiraten zituzten. Bi ordu pasa iraun zuen "OLDARRA" ren aitaldiak eta heken ohoretan eginikako eskuzartak, Miarrizeraño aditu ziren. Baztandarren Biltzarra ospatu da eta yendea kontent dago.

M. Izeta

Principe de Viana, 1969, urria, 6. orr.

## BAZTANDARREN BILTZARRA

Uztaileko ilabete hau traketsa baino traketsago gertatu zaigu. Hasmenta hasmentatik muku ta eguzkiri gabe, tarteka euria eta aldieka sapa ta zakar. Txarra kanpuendako eta bai jendearendako ere, nekazariak belarrak ezin eginez eta arrankure franko bazterretan. Ilabete guzia gisa hortan zoaiela ikusirik jendea kezketan zagon Baztandarren Biltzarraren eguna ekaizti txar batek ondatuko ote zuen edo, eta kezkek oraindikan gehiago indartu ziren egun hortako argi-hastean euria ari zuela ikusi ginuelarik. Gero atertu eta arindu zuen eguzkia ere agerturik, azkenean eguna aski ederra izan ginuela. Erran dezakegu denborarekin suerte ona izan dugula.

Aurtengoarekin bederatzigarren Baztandarren Biltzarra ospatzen dugula Elizondon eta aintzineko urte hoietan jende aunitz bildu baldin bazen oraingo hortan aunitzez gehiago bildu da, zenbat jende ote zen ¿15.000? Halatsu. Hemen zazpi lurraldetako jende euskaldunak, Nafarroatik Iruñe, Tafalla, Lizarra, Tudela, Ultzama, Bidasoa eta Erribera aldekoak, Gipuzkoarrak, Arabarrak, Bizkaitarrak eta mugaz-bestaldeko anaiak ere denak etorriak baitziren Baztandarren artera egun goxo bat igarotzera.

Bertzetan bezala lehenik Euskal-meza. Elizkizun zoragarria, otoitz kantu ta hitzaldi hunkigarriekin. Egia erran holako mezak bihotza ukitzen du. Zorionak apez jaun hoieri.

Meza ondoren urteroko Orgen-Ibilaldia Elizondo-ri itzulia emanik. Beti bezala lerroaldia gisa hortan moldaturik: Balleko Ikurriña aintzinean eta ondotik Baztango txistulariak Maurizio gidari zaukatelarik. Gero orga-apainduak, hoiere artean agertu zituztela Elizondarrek sei, eta Elbete, Arizkun, Arraiotz, Irurita, Gartzain, Azpilkueta bana. Erratzuk agertu zuen egiazko artzain bat ardi multzu batekin, xakurrarekin eta astoarekin honek soñean zaramazkiela gasnak egiteko lanabesak eta artzañak behar zituenak. "Artzaña badoa mendira" erakutsi zuten "cartel" edo iragarkian eta harek bazuen bizitasuna egiazkoa zelakotz. Mota aunitzetako gaiak agertu zituzten gainerakoek: "Sagardotegia", "Ilia arrotzen", "Belai Txikia", "Zurgindegia" "Elbeteko Kupela", "Baztan Zopak jaten eta ordago jotzen", "Errota", "Ile mozte" eta gegiako ere. Beti bezala karrozen artetan dantzari ta soñulari taldeak, hor ikusi ditugula talde andana bat: "Oberena", "Lekunberri", "Ibarakaldu", "Zizurkil", "Begiraleak", "Guridi", "Udaberri", "Triki-Trixak", Albokariak eta Txistulari aunitz. Gazteria beti bezala karrozen inguruetan dantza ta irrintzi.

Eguerdian herriko plazan mutil-dantza eder bat, Baztango dantza paregabeak ederki agertu gintuelarik.

Merkatuko plazan bazkaria mila bazkaltiarrekin. Bazkalondoan soñulariak, kantariak, bertsolariak. Lekunberri-ko kantariak arras ongi aritu ziren kantaldi zoragarria eginik. Batek baino gehiago erran dauku eta arrazoñarekin utsune bat nabari zela, kanturik ez izatea bazkaltiarren artean eta hala da, zenbait urtetan bazkaltiarrek umore ederrarekin kantu zaharretan aritzen ziren eta aintzinat ere hola behar ginuke, bazkalondoan ordu erdi bat bederen kantu zaharrak eta berriak ere xaramelatuz. Gero ere egin daitezke bertze gainerakoak. Urtero bezala jendeak gogotik dantzatu zuen mutil-dantza eta baita fandango ta purrusalda egin ahal guzian.

Ikaragarritzko jende pilla karriketan, plazan eta ostatuetan, ehun txistulari, kordioniste ta albokari Elizondo guzia ederki arrotu zutelarik.

Zortzi terdietan Tolosa-ko Udaberrikoek Gazteiz-ko Guridi taldearekin dantza-agerpen ederra erakutsi zaukuten.

Holaxe joan zaigu Baztandarren Biltzarraren eguna, ikaragarritzko jendeketa, bazter guziak beteak eta umore sanoa gazteen artean. Beti bezala besta honeri buruz iduripen ezberdinak izanen dira, bakotzak bere iritzia emango du beti izaten bait-dira eztabaidak. Beti ere gure euskal-alorrean badugu naiko lana eta etsitu gabe jo dezagun beti aintzinat.

M. Izeta

Principe de Viana, 1973, uztaila-abuztua, 7. orr.

## BAZTANDARREN BILTZARRA

Santio aintzineko igandea izan da aurtengo "Baztandarren Biltzarra" opatzeko eguna. Aurtengoarekin zazpigarrena da eta orai arte izan den aundiena. Baztandarren besta honek errekiste aundia du eta bere fama Euskal-Herri guzian barreiatua dago. Egun hontan millaka yende biltzen da Baztango hiri nagusian, denak egun goxo bat igarotzeko naikeriarekin etortzen baitira, Baztango ballearen edertasuna ikusi bidenabar.

Egun guzia zerua goibel eta ilun baina euriaren bildurrik gabe, ipar-lañoekin zerue mukutzen denean ezpaitu aise erasaten. Egun goxoa batere berorik gabe eta besta egiteko aute.

Urtero bezala goiz goizetik, txistulariek Elizondoko karriketari barna itzulia eginik beren soñu alaiekin yende guzia airetu zuten. Bederatzietako bertze herrietakoak ere ongi ernaturik Elizondoko karriketari zabilten, bizkitartean karrozak biltzen ari zirela.

Bederatzi terdietan eskuarazko Herri-Meza. Eliza bete bete leku uts bat ere agertzen etzela, aldareko bazter batean Nafarroako eta Baztango Aintzindari Nagusiak han zaudelarik. Amar apez baztandar Aldareko Mai Sainduaren inguruan eta Mezari asiera eman zitzaion. Irakurgaiak, kantak, otoitzak, itzaldiak eta bertsoak denak hunkigarriak izan dira. Baita ere Errenderiko dantzari txikiak sagara ondoan eginikako dantzaldia zoragarria izandu zen.

Klemente bertsolariaren azkenengo bertsoa agertu behar dut.

Zure sortzeaz libratu ginen  
gendun orijinaletik.  
Bai eta ere loturik geunden  
diabruaren katetik.  
Barkamena eskatuz eskerrak Jesus  
baztandar danen partetik.  
Zure bitartez sartu gaitezen  
zeruetako atetik.

Urtero bezala Meza ondoan izan ginuen karrozen ibilaldia, gisa hontan moldatua:

Lenbizikoak Baztango txistulari Maurizio ta Pelix, Balleko ikuirriñarekin batean eta hauen ondotik Oberenako dantzariak. Gero Almandozko karroza, "Arkaitza" erakusten zutela; Arizkungo iru karroza. "Zikiro-Yatea", "Aizkolariak", "Zare-egile"; Azpilkuetakoa, "Espartingilea"; Berroetakoa "Kitoak"; Elizondo zazpi karroza, "Ostatua", "Mikel Deuna", "Auspoa", "Aizkolariak", "Ikastola", "Kordiona", "Gareak eta Uzterria", "Gaztañak erre artian". Gero Lizarrako dantzariak; Erratzuko karroza, "Kaiku-egile"; Gartzaingoa "Beien-eia"; Errenderiko dantzariak; Iruriteko "Baztango Gazteria"; Amayurioa "Arto Errota", eta azkenik Iturengo "Zanpantzar" deitutako gare-yoleak.

Beti bezala Karroza guzien aintzinean, txistulariak, albokariak, "triki trixa", Kordionistak eta gazteria bertzetan bezala karrozen inguruan dantza ya yauzi, irrintzina ta bozkariora. Aurten karroza politak agertu dituzte eta zenbaitzuk mami aundikoak Iruritarrek agertutakoa bezala, horrelako idazkiak agertzen zituztela: "Baztanen lanik ez Gazteria iges" "Amets gozoa, kanporatu beharra egi zorrotza". "Baztanek nola iraun gazterik gabe?"

Karroza hoberenentzat agindutako Saria Amayurkoak irabazi zuen. Amayurtarrek erakusitako "Arto Errota" guziz ederra zen, egiazko errota bat bere errotariekin, arto irinekin, eta errota zaña, zakue irinez betetzen bere zorro-makilekin. Zorionak amayurtarrei.



Ibilaldiaren ondoan plaza zaharrea euskal-dantzariak aritu ziren eta goizeko besta bururatzeko, Baztandar gazte ta zaharrek mutil-dantza ederra dantzatu zuten.

Gero bazkaria, mila ta gehiago bazkaltiar mai inguruetan bildurik. Bazkalondoan beti bezala, kantu, dantza, soñu, itzaldi ta umore ona. Gero Elizondoko karrketan gazteria aski panparrotua bere bozkarioa erakusten zuen. Kanpotar aunitz arratsaldean, egia erran baztandarrak ez ginen ageri ere ainbertze kanpotarren artean. Erraten dutenez egun hortan bildu omen ziren Elizondon 20.000 yende ta 70 txistulari.

Arratsaldeko zortzi terdietan Biarritzko "Oldarra" deitutako dantzari ta kantari famatuak. Euskal-Herriko sei eskualdetako dantzak agertu zizkiguten. Mundu bat yende bildu zen "Oldarra" ikustera eta denak xoraturik Miarritzarrek erakutsi zizkiguten dantza ta abestiekin. "Oldarra"-ren ohoretan eginikako esku-zartak nik uste Lapurdin aditu zituztela.

Zazpigarren "Baztandarren Biltzarra" ospatu da eta aurtengoa izandu da denetan aundiena. Ikaragarrizko yendeketa bildu da eta hemen ikusi ditugu. Iruñe, Lizarra, Nafarroako leku guzietakoak, Donostia ta Gipuzkoakoak ere.

Besta ederra izan da bainan guzien gañetik aipatu dezagun MEZA, elizkizuna izan baita ederrena eta hunkigarriena, eskuara yaun ta yabe zelarik. Bertze gañerako besta eta gauz guziak, FOLKLOREA eta bertzerik ez. Beti ere egun ederra ospatu ginuen eta yendea kontent dago. Zorionak bestaren antolatzaleeri.

M. Izeta

Principe de Viana, 1970, uztaila-abuztua, 4. orr.

## BAZTANGO BERRIAK

Eztakigu nondik eta noiztik datorren "akordeon" edo auspo-soñua, baina bai erran dezakegu gure Euskal-Herrian aspaldiko urtetan aunitz erabiltzen den soñua dela eta arrakasta aundikoa euskaldun yendeen artean. Euskal-Herritik kordion yotzale onak atera dira, orai eta bai lenago ere eta hemengo soñulariak Espaniako hoberenak edo hoberenetakoak ditugu.

Orai berriki egin dute Madrilen "Teatro de la Comedia" deitzen den Etxean, auspo-soñu yoileen Sariketa aundi bat, "Premio Nacional e Internacinal de Acordeon" "TROFEO GARRIDO" deritzaion Sariketa. Leyaketa hortan Espaniako hoberenetakoak ari izanak dira, zortzi soñulari nor-gehiagoka beren yakitateak ongi negurtu dituztela.

Bilbotik iru, Nafarroatik bi, Arabatik bat, Barzelonatik bat eta Kordobatik bat denetara zortzi auspo-zoñu yotzale. Silbestre Almandoz baztandarre ere hoiien artean ari izana da eta denen gainetik eta merezimendu guziekin Sariketa aundi hori irabazi du, "TROFEO GARRIDO" eta "TROFEO DE GENERALISIMO" ohore guziekin bereganatuz.

Silbestre Almandozen garaipenak aunitz poztu gaitu, Baztanek badu Txapeldun bat eta hori goragarri zaigu. Silbestre mutil gaztea da, 20 urte ditu, Arrayotzen sortua eta aspaldi hontan Elizondon bizi dena. Orain "AMAIKAK BAT" batasunak omenaldi bat egin beharra dio Donostian eta Donostiako "RADIO SAN SEBASTIAN" etik ere soñualdi bat eman beharra du.

Zorionak Silbestre eta yarraiki urte aunitzez beti malla berean Baztango izena aipatua izan dedin.

Bertze Elizondar batek ere merexi izan du omena. Jose Antonio Zaldua fubolari famatua Barzelonako ekipan amar urtez ari izan danari orai berriki omenaldi aundi bat egin diote Barzelonan. Egun hortan eta bere ohoretan fuboleko partida bat yokatu zuten "Barzelona" taldea eta Standard" Liejakoa ari izanak direla.

Zalduak merexi duen mena ukan du, Sari ta ohorezko edergailuak hartu zituela. Orain Sabadellko ekipan ari beharra da eta suerte on bat desiratzen diogu.

Bertze bi baztandar gazte behar ditugu aipatu, hauek ere gorasko ezarri baitute Baztango izena. Eujenio Maritoren arizkundarra eta Jesus Mari Eugi elizondarra bizikletari gazteak joan den Ekainako ilabetan aritu ziren Iruñen "Trofeo Masferrer" deitutako bizikleta lasterketan eta denen gainetik eta bentaja aundiarekin gañera Eujenio Maritorenak irabazi zuen bigarrena Jesus Mari Eugi sartu zelarik. Garaipen aundia bi mutil gazte hokena. Bi gazte hauek "aficionados" deitutako mallan ari dira eta igandero Frantzi aldera joaten dira hango karreretan kurritzera eta dudik gabe han ikasiak hemen ederki agertu dituzte Iruñeko lasteketa hortan denak garaiturik. Zorionak, txirrindulari baztandarrei eta segi aurrera.

Eztugu utzi behar aipatu gabe bertze bi baztandar gazte. Juan Mari Burgete eta Migel Mari Lazaro Espaniako "Campeonato de Empresas" deitutako pilota Txapelketan Nafarroaren aldetik Xapeldun atera zaizkigu. Pilotari hok palaz aritzen dire eta Nafartarren arteko partida guziak irabazirik gure lurraldeko palazko pilotarien gaina erdietsi dute.

Orai ari beharrak dire Bigon bertzen probintzietako pilotarien kontra eta badugu uste Nafarroa eta Baztango izena leku onean ezarriko dutela.

M. Izeta

Principe de Viana, 1971, uztaila-abuztua, 4. orr.

## 1970 - BAZTANGO IDATZ-SARIKETA

"Institución Príncipe de Viana"ko Euskeraren aldeko Sallak antolaturik eta Baztango Balleko laguntzarekin, aurten ere "Idatz-Sariketa" izan dugu. Idatz-Sariketa hontan sar zaitzkeen zazpi urtetatik amabortz urte bizkitarteko aur baztandar guziak eta idatzianak, gertakari, sorgin-kontu, ele xahar edo bertze zerbait holako gaiari buruzko eginak dituzte. Igaz bezala aurten ere "Idatz-Sariketa" honek izan du erreskita eta egia aurtengo lanak igazkoak baino aunitzez hobeagoak izan dira. Sariak joan den urtekoak bezalaxeak. Lehendabizikoak 400. Bortzgarrena 300. Gero bortz sari 200 pezetakoak, sei sari 150 pezetakoak eta gainerako idaz guziei 100 pezeta bakoitzari.

Erratzutik 32 lan hartu ditugu, Arizkundik 18, Aniztik 6, Elizondotik 4, Lekarotztik 4, Arraiotztik 2, Almandoztik 2, Zigatik 2 eta Amaiurtik 1. Denetara 71 idazle. Azpilkueta, Eluete, Gartzain, Irurite, Oronoz eta Berroetatik ez dute deus igorri.

Lehendabizikoa: NORBERTO AGERRE. Almandoztarra. "KITO TRATULARIE".  
Bigarrena: María Teresa Iriarte. Arizkundarra. "Astoa ez kile yotzen".  
Irugarrena: Félix Inda. Amaiurtarra. "Bortz urte nituelarik neri pasatuteko kontua".  
Laugarrena: Dominika Etxart. Erratzuarra. "Gertatue".  
Bortzgarrena: Juan Etxart. Erratzuarra. "Neri aitei aitue".  
Seigarrena: María Lourdes Iribarren. Erratzuarra. "Gure etxean pasatua".  
Zazpigarrena: Ana María Etxart. Erratzuarra. "Nere amari aitue".  
Zortzigarrena: Maite Mortalena. Erratzuarra. "Salomon eta zakurrak".  
Bederatzigarrena: María Pilar Gortari. Erratzuarra. "Azari kontua".  
Amargarrena: Felisa Ugarte. Arraiotztarra. "Arrayotzko herritik".

Abuztuaren 31'ean Elizondoko Salon Parroquial delako etxean ospatu zen Sarien Banaketa, Diputazioneko eta Balleko Etxeko Aintzindari jaunak Maiburuan zaudelarik.

Sarien Banaketa egin ta ondoan, Urmeneta eta Hualde jaunak itzalditxo bana egin zaukuten, baztandar aurrak eta euskara gorai patuz.

Idatz-Sariketa hauek ez ginuke utzi behar eta urtero egin behar ginuke, gisa hontan auskal-kultura indartuko baita eta aurrei eta gainerakoei ere zaletasuna piztuko baitzaiote.

Gauzak ongi goatekotan idazle ta irakurle aunitz behar ditugu eta hortarako indartu eta zaindu dezagun gure mindegitze, landareak ongi errokatu daitezen.

Zorionak aur baztandar guzieri eta gure eskerrik beroenak Nafarroako Diputazioneari eta Baztango Balleko Etxeari.

(Urrengo numeruan IDATZ-SARIKETA hontan gertatu zan kontu-irabaztailea argitaratuko dugu).

M. Izeta

## BAZTAN'GO MENDIAK

Gaurko egunean Baztan'go baileia ezagutua da Euskal-Herri osoan. Orai ditugun aurrerapenekin yendea aisa mugitzen da eta, bai neke haundirik gabe, harat-hunetak egin ere. Hori dela bide, bertze lurraldetako euskaldun yendeak maiz ikusten ditugu gure Baztan alde huntan, hor ageri baita bere fama Euskal-Herria'n eta bertze lurraldetan gaindi ere edatua dagoela. Gaurko egunean mendi zaletasunak garrantzi haundia dauka eta hala ikusten ditugu Iruñe eta Donosti aldeko gazte aunitz Baztan'go mendietan kurri gañez gain ibiltzen direla, aize osasungarriaz beren bularrak garbituaz, gisa hortan hirian iretsi duten pozoña kanpora aurtikiatz. Igande eta jai egunetan gure mendiek badute arrakasta, yendea ohartu baita mendietan ibiltzeak on egiten duela, osasuna bizkortu eta izpiritua piztu Yainkoak eginikako edertasunaz liluraturik.

Baztan'go mendi famatuena aipatuko ditugu: **ADI** 1.460 m., **SAYOA** 1.422 m., **ZURIAIN** 1.408 m., **OKOLIN** 1.357 m., **AUZA** 1.312 m. **GARTZAGA** 1.290 m., **OKORO** 1.265 m. **ARGINTZU** 1.213 m., **LARRAKARTE** 1.171 m., **MENDAUR** 1.125 m., **ABARTAN** 1.102 m., **LARRAZMENDI** 1.085 m., **GORRAMENDI** 1.084 m., **GARMENDI** 1.072 m., **IPARLA** 1.056 m., **UBEDO** 1.034 m., **EKAITZA** 1.034., **ARGAÑETA** 1.012 m., **ALKURRUNTZ** 945 m., **LARUN** 904 m.

Nere lan huntan nai nuke Auza'ko mendiaz zerbait erran aipamen berexi bat eginik.

Auza'ko mendia Baxenabarra eta Baztan'go erdian kokaturik dago, alde batetik Erratzu eta bertzetik Banka duelarik. Mendi haundia (1.312 m.), dermio zabalak eta Frantzia'kin mugatzen duela, mugarri andana bat ere ikusten ahal ditugu bere inguruan, denak beren izenekin, eskualde huntako artzainek ongi ezagutzen dituztenak, eta aunitzen harat-hunetan lekuko direlarik. Interesgarriak lirake hoi enizenak aipatzea. **Izpegi**'ko lepotik ezker, **Auza** aldera, ditugu: **Makola**'ko lepoa, **Tuturru** eta **Nekaitz**'ko lepoa. Gero mugarriak, **Xori**-lepo (101), eta hunen segidan, **Elorta**'ko lepoa, **Alkondo** (hemen bada iturria), **Arrigorri** (erroitz haundiak Banka aldera), **Lezeta** (leze aunitz badirela izenak du adierazten), **Sakana**, **Mugarrixabala**, **Ixtauz**, **Yarleku**, **Urdendeieta**, **Dorrain**, **Argañeta** (mugarria kasko kaskoan dago) eta **Pagazaldei** (muga 114). Hor hor **Auza**'ko mendiaren marra, Benafarroa alde batetik eta Nafarroa bertzetik, gure lurralde maitea bi zati eginik.

**Auza**'ko mendiari buruz badira zenbait ele xahar, hango lezetan sorginek eta lamiek beren egoitza dutelarik. Badira ere oraindik zenbait erran xahar ahoetan dabilzenak:

"AUZA'ko KASKOAN LANO, BIER DENBORA SANO". Eta baita ere: "YANA-KO ZOKOAN LANO, BIER DENBORA SANO"; (Yana'ko zokoa **Auza**'ko mendi berean dago). Bada bertze bat ere: "AUZA-KO KASKOAN BERTZA, BIER DENBORA BELTZA". Hor ageri da **Auza**'k baduela itzal berexi bat mendez mende irauten duena eta hortan yendeak sinestea daukalarik. Gain hartan egonak garenak ikusi dugu, kasko kaskoan, zilo haundixko bat badela, eta denbora batez norbaitek haitzurrez egina. Horrek badu bere funtsezko arrazoina. Duela urte batzuk, gizon bateri buruan sartu zitzaion **Auza**'ko kaskoan urrea bazela; eta, egunero yoaten omen zen gain hartara eta, haitzur haundi batekin, hantxe zanpak, mendia zilatzan urrea erdietsi nahirik, eta hau beinere ez agertu. Noizbaitere gizona etsituta lanari utzi zion alferrikako nekeak yasan ta ondoan. **Auzak**'k lehenago ere solas-bide franko eman ditu; 1913-ko Ekaina'ren 2'gna., zorigaitzoko eguna baztandarrentzat. Oroitzapen txarreko egun hartan, urez aunpatutako goibel ikaragarri bat **Auza**'ko mendian lehertu zen eta ugaldea, erdizka ixuri, Banka eta Erratzu aldera. Herri hau bete betean arrapatu eta ondamen izigarriak egin ere, etxeak bota eta sekulako "maltertzioak". Gero uberroak Elizondo eta Elbete ere erdi erditik arrapatu, eta bi herri hauek ere desegin, bi persona hito zirelarik. Gertakizun beltz hunek, doluz eta naigabez bete zituen zenbait famili. Hirurhogei urte yoa

dira, baina oraindik zaharrek egun hori beren gogoan daukate. Huntan ere **Auza**'ko mendiak badu zer ikusirik.

Baita ere erraten dute, aspaldiko denboretan, gure eskualde huntan, urte batez sekulako idortea gertatu omen zela, eta idortte ta beroaren bortxaz **Auza**'ko kaskoan sua lotu. Su bortitz hunek hola irauan omen zuen egun andana bat, gau ta egun eketan; "volcan" bat iduri. Gertakizun hunek ere ele franko sortuarazi zuen.

**Auza**'ra igateko biderik errexena, **Erratzu**'ko **Iñarbil**'dik dugu. Hemendik, baserri batzuen ondotik, beti gora, eta mendiaren bizkarra erdietsirik, galtzerik gabe, gaineraino, **Izpegi** aldetik ere, eskuin harturik, **Elorta**'ko lepoan barna beti goiti, kaskoraino. **Elizondo**'tik, **Auza**'ra ere ederki yoan daiteke, ibilaldi ederra eginik. **Anzan-borda** auzotik goiti, **Irlintzi**'ko harrien barna beti aintzinat, **Burge**'ko mendia ezker utzita, **Beartzun**'go auzoa eskuin eta **Igarbegi**'koa ezker, **Basabar**'ko lepotik aurrera. Leku huntan bada borda bat belai batekin eta lizar arbolez inguratutik. Hortaz yende arrotzek "La borda de los fresnos" izenarekin bataiatu zuten, baina leku hunen egiazko izena "**BASABAR**" da. Inguru huntan eta pixka bat aintzinago bidea utzi ta eskuin aldera bada "**jentil-harri**" edo "**dolmen**" polit bat hemengo yendeek "**Errolan**'go harrie" deitzen diotena. Oso interesgarria. Berriz bidea harturik eta aurrera segituz muga aldera, **Urruxka** eskuin utziaz, **Pagazaldel**'ko leporaino (muga 114). Hemendik ezker, mugaz muga. **Argañeta** (muga 113), **Dorrain**-go lepoa (112), eta beti goiti hantxe dago **Auza**. Eguraldi ederrakin ikuspegi zoragarriak ditu, **Pirineo**'ko mendiak, itsasoa, Baztan'go ibarra bere oinetan, **Aralar** eta gainerako mendi ta zelai, ehunka baserri eta ohian aberatsak bazterretan. Leku atsegina da, zelai ederra gain gainean, bazka ausarki eta ardi ta behor nonnai. Gero yautsi daiteke Erratzu'ra, **Gorostapolo** auzotik barna, herriraño. Toki atsegingarriak denak, Baztan'go toki guziak bezala.

Mendi, lepo, erreka eta zoko guzien izenekin, beti bada zerbait erran beharra. Muga 130 aldera bada leku bat **Azaldegi** deitzen dena, eta alderdi hartan eta mugaren urbil eta zoko mospelean, bada zelai zingiretsu bat, fama haundikoa eta aunitz entzuna. hemen ere erdaldun kutsua ageri da, eta hala kaletar erdaldunek "La balsa de las ranas" deitzen diote. Zingira huntan negal (igel) aunitz biltzen bait-dira, hortaz datorkio izen berri hori. Baina, orai erran dezadan zingira horrek ere baduela bere izen jatorra eta egiazko izena: "**ITOSOINGO LOGIE**", hemengo euskaldun garbiek deitzen dioten bezala. Zaindu ditzagun gure lekuko izenak bidegabekeriak egin gabe, eta eztakienak ikasi dezala: "**ITOSOINGO LOGIE**".

**Auza**'ko mendiari buruz zerbait agertu dut, xehetasun apur batzuk bederen eta nere ahalmenaren neurrian.

Ilunabartu du eta, etxera nindoalarik, **Auza**'ra begirada bat eginik, eta gain hartan ageri dena ikusirik, "**Atx!** -diot nere baitan- **Auza**'ko kaskoan bertza, bier denbora beltza".

M. Izeta

Principe de Viana, 1975, maiatza, 8. orr.

## BERA

### "Ciclo-cross"

Otsailako 10-gn. eta 24-gn. eguna, gogoangarriak Bera-ko herriarentzat. Bidasoko herri ontan, Espainia eta Munduko "Ciclo-cross" Txapelketak eginak dituzte.

Beratarrak ez dira ttipikerietan ibiltzen. Gure Txokoakoek gorasko jo dute eta hau ez da txantxetako gauza. Eguraldiakin ere suerte ona izan dute, giro ederra eta lasterketako aproposa. Ikaragarritzko jendeketa, leku guzietatik etorria.

Otsailako 10-an, Espainako Txapelketan Gorostidi gipuzkoarra atera zitzaigun Txapeldun. Zorionak!

Amabost egunen buruan, berriz ere Beran eta, oraingoan, Munduko Txapelketa. Egun hontan, bi lasterketak egin zuten. Goizean, "profesional" delako mallakoen artean; eta arratsaldean, "Amateur" deitzen direnen artean. Ienbiziko mallakoen arteko Txapelketa, VAN DAMME belgatarrak erakutsi zuen bere gaintasuna eta merezimendu guziekin irabazi zuen.

Txapeldun	Van Damme	1-19-14
2-garren	R. Vlaemick	1-21-00
3-garren	P. Drischmecht	1-21-03
8-garren	González	1-24-21
9-garren	Gorostidi	1-24-22

Lasterketa hontan 17 txirrindulari ari izanak dira eta hoietatik 15 bururatu zuten.

Arratsaldeko lasterketan: Irabaztale, VERMEIRE.

Txapelketa hauen antolatzaileak erran dezakete: "Hau egin eta, egin-beharra bete izan dugu, bertzerik ez"; "guziek txaloka", gaineratuko nuke nik.

"Ciclo-Cross" Txapelketak deus makurrikan gabe ospatu dira; jende guzia kontent dago, eta Berako herriaren izena mundu guzian entzuna izan da. Zorionak beratarrei!.

## DONEZTEBE

### Aizkolariak

Otsailaren 17-an, Aizkolaren gazteen arteko Txapelketa jokatu da Doneztebe-ko herrian.

Txapelketa hontan 6 aizkolari ari izanak dira. Jende aunitz bildu zen aizkolarien Sariketa hontara. Aizkolari bakotxaren eginkizuna: 2 onbor kana-erdiko eta beste 2 berrogeitamabost ontzako.

Mutil gazte hauek beren indarrak erakutsi zituzten borrokaldi bortitza eginik. Txapelketaren erabakia, hemen:

1. Mindegia 16 m. 16 s.
2. Andiarena 16 m. 21 s.
3. Apezetxea 19 m. 54 s.
4. Saralegi 21 m. 20 s.
5. Urkiola 24 m. 15 s.
6. Billabona 25 m. 25 s.

Mindegiak eta Andiaarenak beren balio aundia erakutsi dute. Zorionak!

## ELIZONDO

### Bertsolariak

Datorren Apirilaren 7-an (Erramu Igandea), arratsaldeko 4,30-etan eta Elizondoko Antxitoneko trinketean, bertsolari besta eder bat egin beharra da berehartan lau bertsolari ariko direla. LASARTE, AGIRRE, GORROTXATEGI, IGARZABAL bertsolari famatuak izango dira jai hontan kantatuko dutenak.

Bertsolari besta hau, Nafarroako Diputazioeko "Institución Príncipe de Viana"ren laguntzarekin egin beharra dugu, eta biltzen dena Elizondo-ko Ikastolarako izanen da.

Bertsolariak maite dutenak, Erramu Igandean badakite nora joan.

M. Izeta

Principe de Viana, 1974, martxoa, 7. orr.



## BERTSOLARIAK

Aurten Elizondoko bestetan bertsolariak ere izan ditugu. Santio aintzineko igandean, Iriarte deitutako pilota plazan aritu ziren Euskalerriko bi bertsolari oberenak eta bertze bi oberenetakoak; Uztapide, Xalbador, Mattin ta Lasarte, lauak maitagarriak euskaldun zintzoak eta gure adiskide jatorrak. Besta untan erabili zituzten gaiak gustagarriak izan ziren, batzuetan irringarriak eta hunkigarriak bertzetan, dena arras ongi gertatu zelarik. Yendeak zer irri-ajatak egin ote zituen Mattin'en ateraldiekin, zer txalo ta esku-zartak yo ote zituzten... Gure lapurditar koblaria maite du yendek aren bertsoak beti badute gatz ta piper eta ori gustazen yendeari. Uztapide, Lasarte ta Xalbador, gai hunkigarrietan agitz ongi eta bakotxak bere lanean arrazoin ederrak emanik, iruek beren burua zein xarmanki aldeztu edo defenditu zuten. Lasarte ta Xalbador'ek "Aita ta Semearen ixtorioan" lan miresgarria egin zuten, an etzen bertso ariñik, gai orreri zagokion bertso sakon ta mamitsuek baizik. Lan ortan bi koblariak aita-semearen auzia ederki aski agertu zuten.

Uztapide ta Xalbador lan hunkigarri batean ari izanak dira "Ama alarguna ta seme bakarraren Ameriketara yoateko naikeria". Gai unek badu emen zer ikusirik ori gure eskualdean gertatu izan dena baita. Uztapide ta Xalbador ongi beren arrazoñetan, bertso ederrak erakutsi zizkiguten.

Mattin'ek ta Xalbador'ek bazuten bai zer erran beharra, Mattin amabi neskatikoen aita ta Xalbador mutil-zar aberatsen ixtoria egin zutelarik. Bi koblari oken aitaldia ere guzien gañekoa izan zen. Bein eta berriz erranen dut bertsolarien bestak direla euskaldun yendearentzat yostetarik maitagarriena, batez ere koblari onak balin badira eta erabili behar dituzten gaiak egokiak badira; ortan behar genduke arreta aundiarekin yokatu gai politetan baitago bertsolari festaren ondore-ona.

Yende aunitz bildu zen Elizondo'n, an ikusi gintuen mugaz bertzaldeko adiskide aunitz, eta bi Bidaso, Gipuzko ta Baztan aldekoak ere. Yendea kontent zagon.

Bertsolaritzaren bitartez euskaldun guziak bat eginik ikusi nai genduke, Lapurditarrak, Baxenafartar ta Nafartar eta bertze gañerakoak, denak batean Euskara amaren altzoan bildurik.

Izeta

Principe de Viana, 1967, abuztua, 4. orr.

## BERTSOLARIAK

### Elizondo'n

Erran bezala joan den Maiatza'ren 25-ean ospatu ginuen bertsolari besta bat Elizondo'n. Bertze urtetan bezala oraingoan ere besta hau Nafarroa'ko Diputazio'ko "Institución Príncipe de Viana"ren laguntzarekin egina dugu. Izendatutako lau bertsolariak ari izanak dira: MATTIN, LAZKAO-TXIKI, KOXME LIZASO, LARRAÑAGA eta hoiien artean gure herriko bertsolaria KLEMENTE. Beti bezala gure koblari hoiek erakutsi daukute beren yakitatea ordu t'erdiko kantaldi ederra eginik.

Bertzetan baino yende gutiago bildu da oraikoan, dudik gabe ez ginuene gunik egokiena hautatu. Bezperean azienden Sariketa zela eta yende aunitz etorri zen Elizondo'ra hemen egun guzia iraganik eta hortaz aunitzendako etzen errex izan biharamunean berriz etortzea. Halare bazen entzule eta egia erran bertsozale zintzoenak. Ez dugu bertze hainbertze erranen zenbait herritarrentzat hoiien euskal zaletasuna ez baita iñondik ageri.

Gure goresmen bizienak bertsolariari eta entzule guzieri.

### Donibane Lohizun'en

Baiona'ko "Mendigoizaleak" antolaturik eta Donibane Lohitzun'go "Begiraleak" dantzari taldearen laguntzarekin UZTAPIDE bertsolariari ongi irabazia duen Omenaldia egin zaio Donibane Lohitzun'en Ekaina'ren lehenbiziko egunean.

"Jai Alai" frontoi ederrean ospatu da Omenaldi hau bertsozale aunitz bildu direlarik. Besta zoragarria Uztapide'ri eskini zaiona, Euskal Herri guzian bezala Lapurdi'n ere maite dute gure bertsolari haundia. Omenaldiaren festa holaxe ospatu zen:

Eguerdi aldean Meza. Pilota lekuaren erdian ager-toki bat eraiki zuten eta taularen gainean meza-maia. Dena zegon ongi apaindua eta loreztatua. Meza emaile ta predikari Onaindia Yaun Agurgarria. Bertsolariak ere kantatu zuten eta txistulariek, txalapartariak eta dantzariak ere egin zuten beren jardun-aldia. Gero han berean bazkaria lauhun bazkaltiar maiean exeririk. Bazkalondoan bertsolarien ekinaldia Itzaina yauna gai-jartzale ta zuzendari zutelarik. Hamar bertsolarien izenak: XALBADOR, MATTIN, XANPUN, EZPONDA, AZKARATE, LAZKAO-TXIKI, AROTZAMENA, ARREGI, KOXME LIZASO eta LARRAÑAGA. UZTAPIDE ere han zegon baina hunek etzuen kantatu, ixilik egon zen bere lagun bertsolariak kantatzen zuten bizkitartean. Bertso hunkigarriak Uztapide'ren ohoretan. Gero ari izanak dira ere bertso yostakinetan eta bai garrantzia daukatenetan ere.

Ohorezko edergailuak hartu zituen Uztapide'k bere omenaldi egunaren oroigarritzat. Bertze gainerako bertsolari guziak ere egun hortako oroitzapen bat izan dezaten, ohorezko "makila" bana hartu zuten edergailutzat. Uztapide'k hitz batzuk egin zituen denei eskertuaz. Azkenik bertsolari guziek ban-banaka "Azken Agurra" eginik holaxe bururatu zen Omenaldia.

Azken agurrezko bertsoetan Klemente bertsolari nafartarra ere bertzeekin batean aritu zen Uztapide'n ohoretan bi bertso eginik. Hona hemen:

Manuel maite nere bertsua  
zuregana zuzen zuzen,  
Uztapide Euskalerrian  
bertsolari ona sortu zen.  
Kantatu izan du Euskalerrian  
kantatuu izan du Parisen,

an ere ederki kantatzen zuan  
emen egiten dun gisen.

Ur garbi orren bi aldetan  
bertso ederrik kantatu dezu,  
alde bietako jenden tartean  
maitasuna badezu,  
eritasunez zure gorputza  
pixkat nekatua dezu,  
gorputza eztu iñork betiko  
anima bego indartsu.

M. Izeta

Principe de Viana, 1975, ekaina, 4. orr.

## BERTSOLARI ZAHARREN OMENEZ

Egun gogoangarria Azaroako 17a bertsolari eta bertsozaleentzat. Egun hontan Donostiako "Anoeta" pilota lekuan ospatu zuten bertsolari zaharren Omenaldi aundia. Amasei bertsolari zahar izendatuak ziren festa eder honarako, denak 70 urteak beteak zituztenak, eta ongi merezia zukaten gorasarreara deituak. Amasei hoietatik, amairu bakarrik agertu ziren; Saikola, Zubeltzu eta Nekazabal'ek beren ezin-etorria aurretik adierazia zukaten, irurak gaixo eta ezinduak aurkitzen direlako.

"Anoeta"n omenduak izan diren bertsolari zaharren izenak:

JOXE ETXEBERRIA, KLEMENTE EZKURDIA, SIMON IBARRA "ZUBIKOA", JUAN ORMAETXE, JOXE MARI MUTUBERRIA, LORENZO ZULAIKA, JOXE MARI ARIZTONDO, FRANTZISKO LASA, BAUTISTA KORTAJARENA "ONDARTZA", KOSME ARIZTIMUÑO, JOXE TEJERIA "ZULA", TOMAS ARRIZABALAGA, JERMAN URIGÜEN "TXEGINA", eta falta zirenak: JOXE KRUZ LARRAÑAGA "NEKAZABAL", JOXE SORAZU "ZUBELTZU", eta PEDRO ARANBURU "SAIKOLA".

Hoietaz gainera han genituen gaur egungo bertsolari hoberenak ere; hoiien artean: Xalbador, Lasarte, Arregi, Garmendia, Lazkano, "Lazkao-Txiki", Arotzarena, Gorrotxategi, Lizaso, Igarzabal, Koxme Lizaso, Larrañaga, Mitxelena, Egileor, Agirre ta Etxeberria, 16 bertsolari; eztakigu zergatik, baina Mattin etzitzaigun agertu.

Festari hasiera eman zitzaion lehenik Salaberria jaunak denei "ongi-etorria" emanaz eta Joxe Mari Iriondo jauna gai-emaile ta zuzendari genduela. Oraindik sasoiean dauden lau bertsolarik egin zuten lehenbiziko "agurra" zaharren omenez. Lasartek, Nafarroaren izenean; Arregik, Bizkaiaren izenean; Xalbadorrek, Ipar Euskal Herriaren izenean eta Garmendiak, Gipuzkoaren izenean.

Ondotik bertsolariak ari izanak dira, bakarka, binazka, eta irunazka ere. Amaseiak sasoiean aurkitzen ziren, ez dugu erranen nor hobekiena, denek lan ederra egin zutelakotz, beti Iriondo jaunaren aginpean eta gaiak eskatzen zuten arrazoinak garbi agertzen zutela.

Bertsolari zaharren ohoretan ere bertso hunkigarriak kantatu zituzten; gogoan daukat Lasartek eginikako bertso baten bukaera:

Aurretik iñor sortu ez balitz  
gu ere ez giñan izango.

Sasoiko bertsolarien ondotik zaharrak ere ari izanak dira. *Klemente Ezkurdiak*, Nafarroaren izenean, amar bertso mamitsu kantatu zituen; hona hemen hoietako bat:

Guri danori lagun digula  
Jaungoikoaren graziak;  
egun hontako omenaldiak  
nik ez nitun mereziak.  
Itxaso, bazter, herri ta mendi  
edertasunez jantziak,  
danakin atera agurtzen ditut  
Euskal Zazpi Probintziak.

Gero "*Ondartza*" Gipuzkoaren izenean honek ere zazpi bertso bota zituen. Simon Ibarra "*Zubikoa*", hemengo nafarra, baina Banka'n bizi danak, bertze lau bertso Ipar Euskal Herriaren alde eta Ormaetxe bizkaitarrak ere bere sor-lekua "*Etxegina*"k eta Joxe Mari Ariztondok (*Muño*) bertso bana bota zuten.

Bertsolari zahar hoiek ere erakutsi daukute yendearen aurrean bertsotan aritzeko oraindik ere kapable direla eta sasoia ere etzaiotela falta. Zorionak amasei bertsolari zaharrei; ohore zueri!

Eta nafartarra naizen aldetik nere zorionik maitekorrenak, gure *Ezkurdia*, *Mutuberria* eta *Ibarra* nafartarrei. Jaunak urte aunitzez zaindu zaitzatela.

"*Anoeta*"ko bertsoaldia bukatu ondoren entzule guziak zutik eta debozio aundiarekin "*Gernika'ko Arbola*" kantatu genduen.

Hunkigarria izandu da bertsolari zaharren gorasarrea.

Gero "*Urbia*" ostatuan bazkaria bertsolari oemnduak eta gainerakoak hainbertze bertsozaleen artean denak elkartasun zoragarrian. bazkalondoan bazen sasoia eta bertso giroa, zahar eta gazteak kantari denek beren bozkarioa agertzen zutela.

Egun gogoangarria bertsolari zaharren omenaldiarena.

M. Izeta

Principe de Viana, 1974, azaroa-abendua, 8. orr.

## BERTSOLARIAK

Ekainaren 17-an ospatu dugu Elizondon urteroko bertsolari besta ederra. Jai hau Nafarroako Diputazioko "Institución Príncipe de Viana" ren babesean egingo da eta biltzen zena edo hobekiago erran, soberatzen zena Elizondo-ko Ikastolarako.

Gure bertsolari besta honen berria bazter guzietara edatu ginuen eta guk nai adine jende bildu ez bada ez da jendeak etzakielakotz. Behar bada denbora muku egon balitz orduan seguru aski entzule gehiago bildu izanen litzakela, baina eguerdiko berotu zuen eta nekazari bertsozale aunitzek beren belaietan non iosta eta belarrakin lau puntuko bertsoa. Helare jende puska bat bildu zen eta sasoin hontako ez dago arras gaizki. Datorren urtean lenago egingen dugu hortxe Martxoan edo Apirilean eta badut uste orduan jende gehiagobilduko dela.

Entzuleen artean baziren gipuzkoar gazte zenbait eta bai mugaz-bestaldeko euskaldunak ere. Deneri gure esker-onak.

Erran bezala hemen gintuen: XALBADOR, LASARTE, AZPILLAGA, MUGARTEGI, eta hoiekin batean gure herriko bertsolaria KLEMENTE. Mugartegi bizkaitarra lenbiziko aldia Elizondo-ra etortzen dela. Azpillaga hiru aldiz izana da. Xalbador zazpi aldiz ari izana da Elizondon eta Lasarte amabi aldiz joan den igandeko kantaldi horrekin. Lasarte eta Xalbador aspaldiko lagun zaharrak ditugu.

Gure bertsolari besta hortan erabilitako gaiak egokiak eta entzuleen gogokoak izandu ziren eta bertsolariek ere beren ahalmen guziak erakutsi zizkiguten ordu bat eta hiru laurden lanean aritu zirelarik. Gure goresmenak.

## OMENALDIA

Ekainaren 10-ean eta Oiartzun-go Intxitu Taldeak antolaturik, Uztapide bertsolariari omenaldia eder bat egin zaio. Jai hortara jende aunitz bildu zen eta guretzat ere ohore handia izandu da jende hoiek guzien artean egotea. Intxitu taldekoek badakite gauzak ongi moldatzen eta gisa gisa hortan eginik omenaldiak arrakasta handia izan du.

Zortzi bertsolari ari izanak dira: Xalbador, Lasarte, Mattin, Agirre, Mitxelena, Lizaso, Arotzarena, eta Etxeberria. Kantaldia hasi aurrean Gipuzkoako Trikitilarien Txapeldunek saio eder bat eginik jende guzia bozkariotan ezarri zuten. Kosme Lizaso eta Lexoti herriko bertsolariek entzule guzietan ongi-etorria emanez hiruna bertso kantatu zituzten, denbora berean Uztapiden izena goraiatu zutelarik. Gero beste zortzi koblariak beren lanera lotu ziren Juan Mari Lekuona jauna zuzendari eta gai-jartzale zutelarik. Erran beharrik ez dago gure bertsolarien kantaldia guziz atsegingarria izandu zela.

Gure zorionik beroenak Uztapide adiskideari eta Jaunak urte aunitzez zaindu dezala, eta nafartar bertsozaleen partetik millaka goraintzi. Gure goresmen bizienak Intxitu Taldeari. Jarraiki hortan.

M. Izeta

Principe de Viana, 1973, ekaina, 7. orr.

## MERKATUAK

### Elizondo

Denbora batez Elizondoko Apirileko ferietan yende aunitz biltzen zen eta garai artan udaberriko feri aukerak bazuten eta yendeen artean errete aundia ere. Baztango iri nagusian biltzen omen ziren, Baztan, Bidaso, Lapurdi ta Baxenabarreko euskaldun yendeak, merkaturako azienda ikusi bidenabar laguneren artean egun goxo bat igarotzera etortzen zirenak. Leku guzietan bezala emen ere biziak aldakuntza aundia egin du eta feri ta amabostaldiko merkatuak ere beiti doazi emeki emeki akitzen ari direla, bainan ala ere ferietako izen orrek irauten du eta yendeak ere lagunarteko billerak maite baititu olako egunetan beti nabari izaten da merkatu ta ferieren usaña. Aurtengo feri oiek Apirileko 15'ean izan ditugu eta yendea ibili da bai bainan ez sobera. Merkaturako plazan bazen mota guzietako azienda, Iruñeko tratulariek ere esne-bei ederrak erakutsi zituzten, zenbaitzuk beren umeakin eta oietarik ere bakar batzuk saldu zituzten. Prezioak goan den merkatuan bezalatsu.

Baztango aratxeak onak direla eztago erran bearrik eta fama ori leku guzietara barreiatua da. Urtero urte gure alderdi untatik 2.000 buru ateratzen omen dire eta geientsuenak Iruñe, Irun ta Donosti aldera omen doazi. Baztandar nekazariak badakite aratxe azten eta lanpide ortan ez tute berdinek, ori egia dela eztago ukatzerik. Jarraiki ortan, nekazari maiteak, zuen izen onak irauñ dezan.

Maiatzeko ondar egun oietan eta Diputazioak antolaturik, Baztan alde untan azienda sariketa edo nor-geiagoa egin gogo omend ute. Baztandar nekazariak beren azienda oberenak prestatzen ari dire eta segur naiz ederrak eta klase onekoak erakutsiko dituztela. Suerte on bat izan dezatela eta saria ere merexi duenak erdietsi dezala.

Izeta

### Doneztebe'ko amabostaldiko azoka

Sal neurriak. -Bizitzako abereak: beiak esneta edo ernari, 25'tik 35.000 pezetara; bei gazte edo miga, ernariak, 22'tik 28.000'tara; zerri bargoak 1.800'tik 2.600'tara eta zerrikumeak, 800'tik 1.000'tara.

Aragitakoak: beia, 28'tik 31 pezetara kiloa bizirik; txekorrak esnetakoak, 52'tik 55'tara eta aundiagoak, 42'tik 46'tara; zerri gizenak, betakoak, 29'tik 31'tara eta "York", 32'tik 34'tara; ardi zarrak, 24'tik 26'tara eta bildotxa, 50 pezeta. Pazko inguruko egunetan, bildotxa ordaindu zan 54 pezetan kiloa.

Nekazaletan, alde batetik poza nabari da aukerako denbora dijoalako beren belaietako, eta belar asko sortu dalako. Beste aldetik, marmari batzuek ere asi dira: ia eraintzako denbora etorri dala ta euriak atertu bear lukela. ¡Auxe bai ez dala gaurko errenkura! ¿Noiz ikusi da danen naierara euri egiten?

Principe de Viana, 1966, apirila, 2. orr.



## ELIZONDO

Baztandar eta ondoko errietako nekazari maiteak, aize txarrak zauritzen ditu zuen nekeak. Lur-langileak ezin arpatu eta zuen diru artze bideak, salmentarako aratxeak eta txerriak beren sarietan errekaratuak. Denbora ilunak ok, baña iluntasun unen artean argi txiki bat agertzen zaigu. Auxen da: denbora gutin barnean gure artera etorriko da CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE PAMPLONA. Baztango baserriak nai ditu bere laguntzakin sendotu eta azkartu. Asmo aundiak dituzte nekazarien alde eta al duten guztia eginen dute bizitasun ohea gure bazter-etxetara ekarri naiez. Biotzez ematen diegu, gure eskerrak.

### BAZTAN ALDETIK

#### Lekarotzko ikastetxea

Baztango txoko politenetako batean, leku zelaiean eta ballararen erdian kokaturik dago Lekaritzko Aita Kaputxinoen Konbentu ta Ikastetxea, duela 75 urte Aita Llevaneras Yaun agurgarri zena orko erretore zelarik eraikia. Igaro diren urte oietan 8.000 ikasle ibiliak dire, orai mundu zabalean edaturik Lekarotzko izena aipatzen dutela. Oroitzapen hunkigarriak denentzat, bai ikasle izandakoentzat nola irakasleentzat eta ohore aundia ere Naparro ta Euskalerrarentzat.

Gizartea aurrera doa eta gizadiarekin batean gauz guziak ere, ortaz bada Aita kaputxinoek Ikasle batasunarekin batean Ikastetxe berria eraiki bearra dute, lenagoko zaharraren inguruan eta aurrerapen guzietaz ornitua. Ikastetxe berri au Europako oberenatakoa izanen omen da eta bai jakintza gaietan nola kirol yostetak eta ikasleek bear dituzten lasaitasunetaz, guzien gañekoa. Baztandarrak ere aunitz poztutzen gara, Ikastetxe berri orrek gure eskualdeari ohore aundia emanen dio eta berriz ere Lekarotzko izena Baztangoarekin batean mundu zabalean edatuko da, Zorionak.

Yoan den Apirillaren 26'ean ospatu konbentu ta Ikastetxe zaharraren diamantezko eztaiak eta denbora berean Berriaren lenbiziko arriaren jartzea, besta ederrak eta hunkigarriak eginak dituztela. Iruñeko Artxapezpiku Yaun Agurgarriak bedeikazioa emanik eta ospe aundiko Yaunek egun aipagarri orreri buruz itzaldi oroigarriak egin zituztelarik. Yende aunitz bildu zen bestari ohore aundia eman ziotela, an baziran Eliz-Gizon agurgarriak, Erri-aiñtzindari, ikasle ohi eta Baztango yende asko.

Zorionak Aita kaputxinoei eta Jaungoikoaren laguntzarekin suerte on bat izan dezatela.

Orain espero dugu Euskera xahar maitagarriari azken urte oketan baño arreta aundiago emango zaio; ala bada Baztango Balbari dagokion euskalduntasuna Lekarotzko Ikastegi eraberritzearekin batean berpiztuko da, eta Lekarotzar Kaputxinoek euskerari maitasunaren aldeko zaletasuna, aspaldin zeukaten bezelakoa beintza, agertuko dute.

Izeta

## BERTSOLARI-BESTA

Euskal jolas aunitz baditugu baiñan guzien artetik bertsolaritza da euskaldun garbiarentzat yostetarik ederrena ta maitena, ortan dastatzen baitugu gure izkuntzaren lorea eta eskuaraz eztakitenak dastatu ez dezaketena. Olaxe da gure yosteta ori eta gure indar guziarekin goretsi dezagun.

Yoanden San Jose egunean Elizondoko Antxitoneko trinketean bertsolari besta eder bat izan ginuen, bereartan aritu ziren Xalbador, Uztapide, Lasarte ta Lazkao-Txiki. Euskalerriko lau bertsolari oberenetakoak.

Antxitoneko trinketea yendez bete zen eta utsik egin gabe erran dezakegu den denak atsegiñez beterik ikusi gintuela, gure bertsolarien kantaldiak denen gogokoak izan baiziren, lauak erakutsi baizituzten Yainkoak berei emanikako doaiak. Zorionak lau bertsolariei, zuek zerate gure izkuntzari indarra eta ohorea ematen diozutenak.

Bertsolari besta onek, oroitzapen eder bat utzi du baztandar bertsozale guzien biotzetan.

Gure esker beroenak entzule guzieri oiek ere erakutsi baitute eskuarenganako maitasuna.

Izeta

Principe de Viana, 1966, martxoa, 3. orr.

## ELIZONDO

Yaun Erretora hil zaiku

Otsaillaren seigarren eguneko goizeko bederatzietan, Elizondoko elizako ezkil-dorreko hil-ezkilek adierazi zaukuten gure erretore Don Frantzisko maitearen heriotza.

Aspaldi hontan eritasun tzar batek menderaturik zauken eta senda-biderik etzauken gaitz horren neke ta oñazeak yasanez, gure erretorearen bizia itzali da apez saindu baten antzera Yaunaren besoetan azken arnasa emanik. Goyan Bego.

Gazta oraindik 54 urte zituela joan zaiku gure erretorea. Gu bezala Elizondon sortua, berehunten azia eta bai elkarrekin eskolara ibiliak ere.

Iruñeko Seminarioan egin zituen apez ikastaroak eta 1943 garrenge urtean apeztu zen Elizondoko elizan bere lendabiziko meza emanik. Bizpairu urteen buruan Elizondoko parrokiako organista izendatu zuten eta orai bortz urte, hemengo erretore. Erran daiteke bere bizi guzia Elizondoko parrokian igaro zuela.

Herriko seme on batek bezala maite zituen hemengo oitura onak eta hauek iraunazteko egin-ahal guziak agertzen zituen. Denek maite ginuen, gure erretorea denendako ona baizen, etzuen beñere berexkuntzik egiten, beretako denak berdinak eta denak Yainkoaren umiak ginen. Yaunak eman dezaiola betiko atsedena.

Ehortzketak joan den igande Otsaillaren 7 an ospatu ziren, elizkizunetara ikaragarritzko yendeketa bildu zelarik. Herri osoa han zen eta bai Baztango herrietakoak, Ultzama eta aunitz lekuetakoak ere. Eliza beñere ez bezala bete betea eginda eta yendea kanporaño ateraia barnean tokirik atzelakotz.

Meza hunkigarria, aldarean berrogei apez denen buru Iruñeko Artxapezpiku Tabera Yaun Agurgarria, bere ondoan Donostiako Apezpiku Argaya Yaun Agurgarria eta erretore zenaren anaia Mikel Yaun apezza zaudela.

Elizkizun ederra, kantu eta otoitz kartsuak yendearen aldetik eta prediku hunkigarria Yaun Artxapezpikuak emanik. Elizondoko Koralak Aita Donostiren Meza kantatu zuen.

Gure doluzko agurrak familiari eta bereziki Don Franzisko zenaren anaieri.

M. Izeta

Principe de Viana, 1971, martxoa, 5. orr.

## ELIZONDO

### Euskera

Elizondo'n "Escuela Laboral" delako eskoletxean asi dire eskuarazko ikasketak. Azaroaren zazpigarren egunean, arratseko zazpi t'erdietan eman zioten asiera ikaskaieri eta emendik aitzina astean bein, ortzegunetan, izanen ditugu, Oñatibia yauna irakasle dela.

Pozten gaitu biziki ikusteak ainbeste ikasle, yende gaztea geiena, askual ikaslanari lotua. Itxuraren kontrakoa izanagatik ere, ustez baten zaletasuna eskuarari gure errian.

Ongi idazten zuen Mariano Izetak "Zeruko Argia'n", gai huni buruz:

"Gauz guzietan bezala lanpide hortan "euskuararen ikaslanean", ere, zerbait ikastekotan lehenik zaletasuna behar, hau gabe ezpaita deusere egiten ahal, bañan hori dutenek oiñarri sendo batean finkaturik aunitz dezakete".

### Parroquia

Yainkoa lagun, laster ikusiko dugu gure Eliz nagusia ongi apaindua eta aldarea eta gañerako guziak behar bezala muntatuak, emendik aitzina eliz funzioak zeblebra daitzin Elizak manatzen duen arabera.

Elizan ari diren obrak hoiiek aunitz kostatzen direla nork ezkerti? Baño badakigu biotz oneko kristau aunitz badirela gure errian sosdunak gañera; hoiiek eta beste guziak ere okasio ona daukete beren sakelak pizken bat arintzeko. Aintzinetik Yainkoaren izenean eskerrak deneri.

(Baztan'go "Elkartasuna" delako errebestitatik artua).

### Nekazariak

Baztan'go nekazariak emeki emeki badoazi aurrerapenaren billa, laneko molde berriak artuaz, zaharrak alde batera utziaz eta aurrerapen hoietaz balietua Nekazalgoari indar aundiagokoa emanaz.

Goan den Ibeltzaren amargarren egunetik emezortzigarren eguneraño eta Baztan'ko Balleko Etxeak antolaturik baztandar nekazariak itzaldi yakingarriak izan dituzte. Nekazalgoari buruz egiñak dituzten solasaldiak Balleko Etxeko sala aundian egin dira eta emengo nekazarien artean errekkiste aundia izan dute. izlarien artean baginituen, albaiteoak, injernieroak eta ospe aundiko gizonak.

Karmelo Sainz de Murieta albaiteo, zerrietaz mintzatu zen.

Antonio Azarta, hau ere albaiteo, beietaz mintzatu zen eta irugarren albaiteo Augusto Etxeberria yaunak ardietaz itzegin zuen.

Iru albaiteo yaunen itzaldiak inportantzi aundia zuten eta azienden azkuntzari buruz egin zituzten solasaldiak yakingarriak izan ziren.

Azienden azkuntza dugu Baztan'en industriarik aundiena eta merezi du ongi zaintzea.

Julian Lorenzo injeniero yaunak itzaldi interesgarri batean, bazkak eta siloak aipatu zituen, azienden mantenua nolako behar den adieraziaz.

Jose María Labayen jaunak bazkak aipatu zituen erranez emengo belai eta landetan zer azi-klasea komeniko litzaken ereitea, lurrak nola ongarritu beharko lirezken, bazka onak eta indar aundikoak izan ditezen.

Luis Santos jaunak bere itzaldian erakutsi zuen, beitegi, zerritegi, arditegi, ongarritegi, belartegi ta gañerakoak nola moldatu beharrak diren.

Justo Donezar yauna izan du itzaldi edo kursillo hauen zuzendari eta jaun hunen lana aundia izan da.

Zortzi egun iraun dute kursilloak eta egun guzietan yende aunitz ibili da. Baztan'go nekazariak erakaspn hoiak gogo onarekin artu dituzte eta eztago dudarik emengo Nekazalgora berritu eta indartuko dela.

Balleko Etxeko Aintzindari jaunak ere Kursillo hoietan egonak dira, eta Balleko Alkate ordezkooak azkenengo egunean Kursilloen bukaera eman zion denei eskerrak emanaz.

M. Izeta

Principe de Viana, 1969, otsaila, 5. orr.

## ELIZONDO'KO FERIAK

Urriko 24'ean ospatu dira Elizondo'ko feri famatuak. Denbora batez feri hauek hiru egun irauten zuten baina orai egun bat bakarra izaten dugu eta hau ostiralarekin. Gure haurtzaroan ere feriek indar handia zaukaten eta hiru egunetan yendea ere purrustaka ibiltzen zen, hemen biltzen zirelarik Baztan, Bidasoa, Ultzama, Auritz, Iruñe aldekoak eta mugaz bestaldeko anai euskaldunak ere. Denbora hartan Elizondo'ko feriak arrakasta izugarria izaten zuene ta orai bezala ostirala izaten zen egunik haundiena. Azienda ugari klasean klasekoak eta nekazariak behar dituzten lanabesak, mandoen kaprestuak, aizkora, aitzur eta gainerakoak. Hortaz landara karrika guzia saltzaleez beterik mota guzietako salmentak egiten zituztela. Larunbata izaten zen etxeoandreen eguna eta orduan egiten zituzten beren erosketak, arropak, zapatak eta behar ziren guziak, holaxe etxea gauzez ongi horniturik egon zedin eta familiak ere negu gogor eta bortitzaren beldurrik gabe etxean lasai-lasai eta deuseren eskasirik gabe pasa zezan.

Baina feriaren izena oraindik ez baita suntsitu, orai ere yende aunitz biltzen da Baztan'go hiri nagusian. Urtero bezala hemen ikusi ditugu Bidasoa, Ultzama, Lapurdi eta Baxenabarra'ko anai euskaldunak, denak Elizondo'ra etorriak feria ikusi bidenabar baztandarren artean egun goxo bat iragaitera, hemengoekin bat eginik gisa hortan anaien arteko lokarriak urratu ez daitezten.

Aurten egin den merkaturik haundiena izan da feri eguneko hau. Iruñe'ko eta Baztan'go tretulariek azienda ederra erakutsi dute eta izan omen dira sal-erosketak ere. Baita ere azkenengo urte hauetan bezala makinari berri aunitz agertu dute; belar ebakitzekoak, lur iraultzekoak eta abar. Moda xaharreko lanabesak ere baziren salgai, eskuz egiten diren gauzak egileek berak ekarriak saltzera, hala nola aizkora, nabal, mandoen kaprestuak eta abar. Azienden sal-neurria edo prezioa holaxe ibili omen zen:

Aintzinerako behiak, aratxearekin	50.000-65.000 pezta bakarrak
Aintzinerako behi "gorri" edo "suizoak"	42.000-58.000 pezta bakarrak
Mige ernariak	36.000-40.000 pezta bakarrak
Esne behiak 20-30 litro ematen dutenak	48.000-63.000 pezta bakarrak
Esne behiak 20 litrotaraño	39.000-46.000 pezta bakarrak
Mige "holandesak" ernariak	35.000-44.000 pezta bakarrak
Gereñuak	75.000-95.000 pezta bakarrak
Behor ernariak	45.000-70.000 pezta bakarrak
Urteko pottokoak	15.000-18.000 pezta bakarrak
Mandoak (lanerako)	22.000-32.000 pezta bakarrak
Astoak	7.000- 9.500 pezta bakarrak

Igaz bezala eta aintzineko urte hoietan bezala aurtengo ferietan ere bertsolari festa ederra egin dugu. Dudarik gabe egun hau izaten da urtean den egunik egokiena eta aproposena bertsolarietako eta hala ikusi dugu Antxiton'eko trinketea tellaturaño betea. Lau kobleri gintuen eta lauak lenbiziko mallakoak: XALBADOR, MATTIN, LAZKAO-TXIKI eta AZPILLAGA. Ordu t'erdiko kantaldia eginik gure bertsolariak erakutsi daukute beren yakitatea zenbaterañoakoa den. Yendea loriaturik egona da eta esku-zarta beroekin agertu ere bihotzaren bozkarioa.

Aurtengo feri eguna eguraldi ederrarekin ospatu dugu, aizegoa garai eta eguzkiak ere derki berotzen zuela, giro ona denentzako, yendearentzat, zitua ontzeko eta baita ere ihizilarentzat, urriko azkenengo egunetan uso pasa ona izan delakoz eta probetxuzko lana egin dutelakoz. Urriko hilabete honek denetarik izan du, elurra eta otza hilabetearen hasmentan eta ego-aize bero eta idor akaballan.

Urriko feriak joan dira eta orai gain-behera negu aldera.

M. Izeta

Principe de Viana, 1975, azaroa-abendua, 8. orr.

## ELIZONDOKO FERIAK

Goan den Apirillaren 19'an udaberriko feriak ospatu dire Elizondo'n. Aurtengo ferioiek ez tute aunitz kontatze korik: yende guti etorri zen eta denbora batez ain famatuak eta ainbertze errekiste izan zuten feriak, erran dezakegu orai utsean gelditu direla, baño alare ferien izena dea, ta yendeak lagunarteko bilgurak maite baititu, beti izaten da ferien señaleara. Feri txarrak izan direla egia da bai bainan erran bear dugu aurten traba aundiak ere bazirela, zorigaiztoko beien maingurie dela medio etzuten utzi azienda beren lekutik mugitu zadien, eta beiek kutsatu etzitezen kanpoko tratulariek eta gañerakoek etzuten aziendik ekarri, debekatua zagolagotz. Aunitz baziren beren beiekin merkatura eldu zirenak eta Elizondo'n sartu gabe beren etxetara itzultzeko lana izan zutenak. Beti ere gure nekazariak alde guzietatik traba. Maingueriengatik merkaturak debekatua zagon baño alare bei ta aratxe bakar batzuk baziren eta zaldi beor ta pottoko ere bai.

Merkatuko prezio edo sal-neurriak agertuko ditugu:

Aragitako beiak (berealak iltzeko)	27-30 pezta kiloak bizik
Aratxeak	52-58 " " "
Beor ernariak	12000-18000 pezta bakarrak
Aragitako zaldiak	7000-12000 " "
Pottokoak	6000-11000 " "

Arratsaldean Antxitoneko treinketean esku-uskako pilota partida eder bat izan ginuen. Bereartan aritu ziren mugaz bertzaldeko lau pilotari on, elkarren arteko gudukaldia gisa untan moldaturik: Behengaray eta Etxeberria: Darrigol eta Dagerre'ren kontra. Partida aski gustagarria izan zen, lau pilotariak yokada politikak egin zituztela. Partida Darrigol eta Dagerre'k irabazi zuten.

Ikusliar gutti Antxitonea'n, penagarria izan da gertatu dena, olako partida xarmanta eta ain yende gutti trinketean. Badakigu egun ortan yendearen eskasia bazela, bainan non daude Baztan'go pilotazaleak? Bear bada bertze egunen batez eta "propaganda" geiago eginez yende geiago bilduko litzake.

Aurtengo Apirileko feriak arrabots aundirik gabe yoan dira.

M. Izeta

Principe de Viana, 1968, maiatza, 6. orr.



## EUSKAL BESTA BIDASOKO BERA ERRIAN

Yoan den Agorrilaren 27'an Berako errian euskal besta zoragarri bat izan dugu.

Nafarroako Diputazioko "Institución Príncipe de Viana"ren Euskeraren aldeko Sallak antolatutako besta zen eta bereartan Beratar irueun mutiko ta neskatico eskualdunei eskuarazko esaminetan irabazitako Sariak eman zabezten. Sari oien banaketa zela ta gaztetxoen omenez euskal besta ederra izan ginuen. "*Bezperak ondoan*" Altzateko plazan mundu bat yende bildu zen denak atsalde goxo bat igarotzeko naikeriarekin etorriak. Gaztetxoen Sarien banaketa egin ondorean Iruñeko Ayuntamientoko Dantzari talde famatuak Euskalerriko dantza paregabeak erakutsi zizkiguten oien artean Zuberokoak, Bizkaikoak, Gipuzkokoak eta Nafarroakoak, eta dantza guziak ederki dantzatuak trebetasun aundia agertu zutelarik. Gero Leitzako kantari-taldeak Euskalerriko abestiak kantatu zituene ta agitz ongi, korala polita da neska ta mutillak ongi apainduak eta oien kantaldia gustagarria. Bertsolariak ere izan gintuen, iru nafartar eta Euskalerriko oberenetakoak, Xalbador Urepeldarra, Lasarte Leizarra eta Arotzamina Lesakarra. Ordu erdi bateko kantaldia egin zuten eta erabili zituzten gaiak ere arras egokiak, entzuleek beren bozkarioa agerturik gure koblarrien ohoretan esku-zarta ederrak yo zituzten. Azkenik "*Ez dok amairu*" izeneko Taldea bere kitarra-yole famatuekin aritu zitzaizkigun euskal-kanta berriak agertu zizkigutelarik, ortxe zauden Xabier Lete, Mikel Laboa, eta Mari Lurdes Iriondo iru euskaldun jator eta kantari xarmantak beren abesti zoragarriekin yende guzia bereganatu zutela. Kanta berri oiek badute bai sakontasuna badute bai mamia eta aunitz erran naia, eta ortaz landara ongi kantatuak ere. Gazte oiek beren ahalmenak erakutsi zizkiguten eta yendeak txalo ta esku-zarta aundiekin beren bozkarioa agertu zuten. Iruñeko Peru-Txiki parregileak eskuarazko irri-solas politak erran zituen eta ikustekoa zen gaztetxoak eta bai adinekoak ere zein gustora egiten zuten irri. Besta bururatzeko euskal erromeria izan ginuen, fandango ta purrusalda gazte ta zaharrek alaiki dantzatzen zutelarik. Besta zoragarria izan da, ar ditzatela gure zorionik maitekorrenak Bestaren antolatzaleak, Berako Erretoreak eta Alkate Yaun agurgarriak eta atzendu gabe Leitzako Lasarte Apez Yaunak ere, mikrofonoz eta euskera garbian besta guzia zuzendu baizuen.

Eta orai gure zorionik eta goresmen bizienak Beratar mutiko ta neskatico euskaldunei eta batez ere beren gurasoeri, auek baitira gure mintzairaren oiñarriak. Guraso euskaltzaleak behar ditugu eta familien artean beti eskuaraz mintzatzen direnak, auek dira bai egiazko euskaldunak eta ez bertze gañerakoak.

Izeta

Principe de Viana, 1967, iraila, 6. orr.

## EUSKALERRIKO BERTSOLARIEN TXAPELKETA

Yoan den Garagarrillaren 11'ean Donostiko Anoetako pilota lekuan Euskalerriko bertsolarien Txapelketa ospatu zen. Txapelketa unek izan du arrakasta, Anoeta leporaño yendez betea zagon eta erraten dutenez bai omen ziren 3500 etik pasa.

Iruharren aldiz Uztapide Txapeldun atera zaigu eta oraingoan Xalbador bigarren.

Amekak eta laurdenetan Txapelketari asiera eman zitzaion eta goizeko saioa unan zortzi bertsolari aritu ziren: Garmendia ta Gorrotxategi gipuzkoarrak Madariaga ta Arotzamina nafartarrak. Lopategi ta Mugartegi bizkaitarrak. Mattin lapurditarra eta Xalbador baxenabartarra. Uztapide eta Lazkao-Txiki yoan den urteko Txapeldun ta bigarren baiziren, auek atsaldeko utzi zituzten Epai-maikoak edo Juradukoak Euskaltzaindiko Yaunak eta probintzi bakoxtetako bi lagun izan ziren, Juradoa 13 lagunek osotzen zutela. Alpontxo Irigoien beti bezala zuzendari edo suyet-emaile.

Txapelketa guzietan bezala lehenik bertsolari bakoxtak bertso bana bota zuten eta gero bidenazka aritu ziren. Bikoteak gisa unan: Mattin ta Lopategi. Gorrotxategi ta Xalbador. Garmendia ta Arotzamina. Mugartegi ta Madariaga. Mota guzietako gaiak erabilirik eta denak onak eta yendearen gogokoak. Merexi du aipatzea Arotzamenak bota zuen bertsoa zuzendariak lau puntu eman zizkionean. IBAIA, ARRAIA, GARAIA, USAIA, eta ona emen gure lesakar bertsolariak atera zuen bertsoa:

Etxe onduan daukagu  
eundoko ibaia,  
bañan urri xamar dago  
barruan arraia,  
Urumea errekek  
or dauka usaia,  
garbitzeko re mutillak  
ba-diyeu garaia.

Bertso au 500 pezetarekin saristatua izan zen. Zorionak Mikel.

Zortzi bertsolariek beren lana akitu ondoren Juradoak behar zituen iru oberenak autatu eta erabakia olaxe izan zen: Lopategi, Gorrotxategi eta Xalbador izan ziren aukeratuak eta iru auek Lazkao-Txikiren batean arratsaldeko saioan ariko ziren.

Bazkalondoa sabelak ongi ornitu ta ondoan berriz ere denok "Anoeta"-ra, goizean baiño yende geiago baginen, an bazen su ta kar. Bortzak laurden gutitan eman zitzaion asmenta arratsaldeko lanari.

Lehenik bakoxtak bertso bana bota zuten. Lazkao-Txikik erran beharra zuen bazkaltzeko zer yan zuten. Lopategik bazkarian zer edan zuten. Gorrotxategik bazkaria zenbat kosta zitzaion eta Xalbadorrek berriz, maia serbitu zuen neskatxari egin zion bertsoa. Gero bidenazka Lazkao ta Lopategi, eta Xalbador ta Gorrotxategi. Lan ori egin ta ondoan bakarka aritu ziren denak gai bera erabili behar zutela, ortarako bat ez bertze guziek kanpora atera zituzten bere lagunaren bertsoak aditu etzezaten eta gisa ortan bakarka egin zuten agindutako lana. Gaia auxe zen:

Bertso bat beren buruari, Iru bertso kontzientziari. Iru bertso irriari (parrari).

Lau kobleriak xarmanki aritu ziren xarmanki aritu ziren eta beren bertsoen erran-naia eta mamia guzien gañekoa izan zen. Berriz ere Juraduoak erabakia artu beharra eta oraingoan bat bakarrik berexi behar, gero azken saioan Uztapidekin buruz buru yokatu zezan. Epai-maikoek gauzak ongi aztertu edo esaminetu ta ondoan, Xalbador urepeldarra aukeratu zuten,

ortaz bada gure baxenabartar koblaría Uztapidekin zein-geiagoka ari beharra zen, biek beren ahalmen guziak erakutsirik Txapela ardietsi beharrez.

Dudik gabe Juradoen erabakia zenbaitzuei etzitzaien gustatu eta yende basatiaren antzera txistuke ta uyuke asi ziren arrabots nardagarria egiñik, ori lotsagarria izan zen. Bertze gañerakoek eta geienak Malkoen erabakia onarturik Xalbador kantu lanean asi ziren eta orduan Xalbadorrek botako zuen egun guziko bertsorik oberena ta hunkigarriena. Emen aren bertsoa:

Anai-arrebak ez otoi pentsa  
neure gustura nagonik;  
poz geiago izango nuen  
albotik beha egonik;  
zuek ezpazerate kontentu  
errua ez daukat ez nik;  
txistuak yo dituzute bainan  
maite zaituzten oraindik.

Bertso unek merexi izan zuen Sari berexe bat. Gero zuzendariaren aginduz bertsoak gisa untan moldatu beharrak zituzten:

Uztapidek doluz yauntzitako aur bateri: eta Xalbadorren behar zuen erran, aurrak sortzen direnean zergatik egiten duten negar. Bi koblariek errandakoak biotza ukitu ziguten, hunkigarria bai.

Gero bertze lan bat: Uztapide ta Xalbador biek anaiak, Uztapide argiastean lanera doa eta etxetik ateratzean bere anaiarekin topo egiten du, au gau guzian parrandan ibilia eta orduan erretiran.

Lan untan ere biek arras ongi bertso egokiak eginik. Azkenean bakarka biek gai berarekin eta ortarako bat kanpora atera zuten bertzearen erranak aditu etzezan. Erabili zutena emen:

Lehenik lau puntu emanda bertsoa osotu: ANTZA, DANTZA, ARRANTZA, ESPERANTZA, IÑOR, GOGOR, JATOR, PIZKOR.

Gero bertze bi bertso gai au arturik:

Jito baten semea Banko edo Diru-Etxe bateko diru-zain egin dute eta bi bertsolariak Banko ortan baitituzte diruak...

Eta azkenengoz iruna bertso goatzeari (oyari). Orai agertu ditzagun bi koblari oken zenbait bertso.

## UZTAPIDE

Izan nai baldin badegu  
euskaldunen antza;  
beti librian egin biar  
degu beti dantza;  
Aspaldin eniz ni  
juaten arrantza  
baina gaur arratseko  
badet esperantza.

## XALBADOR

Emen yendeak dauka

Itsas'ari antza;  
iduri du barruan  
daukala arrantza;  
Gaztek, aunitz maite dute  
jolas eta dantza;  
ortarikan badute  
zerbait esperantza.

Gero oyari emandako irugarren bertsoak emen:

#### UZTAPIDE

Nere oraingo iru bertsoan  
oyaren kontua dabill;  
ba-dakizute ni erdi gaixo eta naguala debill;  
Bere aurrian aurkeztutzen naiz  
eta jarriko naiz umill;  
oe zuri batean jayo nintzan da  
oe zuran nai nuke ill.

#### XALBADOR

Oe gaixoa zu maitagarri  
zutaz ez nitaike ixil;  
zutaz behartu gabe egun bat  
munduan ez daike ibil;  
denak orrara datoz azkenean  
izanikan ere abil;  
zutan sortu eta zutan aziak  
zutan behar dugu guk il.

Biek beren lana akitu dute eta yende guzi guzia eta orai berexkuntzik egin gabe, esku-  
zarta beroekin bi bertsolariak ohoratu zituzten.

Azkenekoz, Juradoak auzia olaxe erabaki zuen:

Txapeldun	UZTAPIDE
Bigarren	XALBADOR
Irugarren	LOPATEGI
Laugarren	LAZKAO-TXIKI
Bortzgarren	GORROTXATEGI
Seigarren	AROTZAMENDA
Zazpigarren	GARMENDIA

eta gero: Mugartegi, Mattin ta Madariaga.

Uztapide Txapeldun eta Xalbador bigarren. Zorionak bieri, biek zerate onak eta  
elkarren iduri, biek berdintsu, ohore zueri. Ar ditzatela bertze gañerakoek ere gure zorionik

maitekorrenak, batez ere Arotzamenak eta Madariagak gure nafartar koblariak ain ongi goratu baitute gure Naparroaren euskal izena. Zorionak ere Epai-Maiko yaunei. Azkenik sariak banatzea eta bertsolarien Azken Agurra.

Bertsolari guziak ongi ari izanak dira eta gazte oiek oso onak agertu zaizkigu batez ere Lopategi bizkaitarra eta Gorrotxategi gipuzkoarra.

Egun gogoangarria Donostian igaro ginuena, etzaigu aisa atzenduko eta oroitzapen maitagarri ori gure biotzetan gordeko dugu.

¡GORA gure BERTSOLARIAK!

M. Izeta

Principe de Viana, 1967, uztaila, 6. orr.

## EUSKALERRIKO ESKU-LANAK

Buruilako illabetean, aurten ere igaz bezala Donosti'ko Turismo Etxeak euskal-bestak antolatu ditu Donostian eta ainbertze ikusgarrien artean oraingoan ere Trinitateko plazan, Euskalerriko esku-lanak erakutsi dituzte, lan oien egileek yendearen aintzinean ari izan direlarik.

Esku-lan auetan 25 langile ari izanak dira, 16 gipuzkoar eta 9 nafartar. Napar oien artean, bortz baztandar, lau leitzar eta Aragoiko muga aldeko bat. Emen naparren izenak:

*Juan Bikondo*, Arizkundarra, baztandarra. 83 urteko artzaña; taloak eta marrakukuak egiten zituela eta bai burdin-arri guriekin esnea egosten zuela. Gizon hunen lanak erreliste aundia izan dute eta bere inguruan yende aunitz biltzen omen zen berak egiten zituen "marrakuku" goxoak yatera. Esku-langile guzietna au zen zaharrena eta bere lana ederra izan da.

*Domingo Etxandi*, erratzuarra, baztandarra. Kaiku, opor, arraztelu eta bertze gau aunitz egiten zituena, hunen lanak gustagarriak izan dira. Etxandi yaunak "Museo de San Telmo" deitutako Etxeari, kaiku, opor ta berak egindako zenbait lan erregalutzat eman dizkio, Museo Etxeak bere oroitzapen bat izan dezan.

*Nieves Salaburu*, elizondarra, baztandarra, buztin zuriekin ardi ta bildotsen iduriek edo figurek egiten zituela.

*Gillermo Amezttoy*, iruritarra, baztandarra, eskalapuin egile.

*Pedro Zapata*, arizkundarra, baztandarra, ferrak eta burdin-lan politik egiten zituela.

*Maria Zabaleta*, leitzarra, ogia eta taloak eginik hunek ere yende aunitz biltzen omen zuen bere inguruan.

*Karmen Saralegi*, leitzarra, ardi ilearekin galtzerdi-motzak egiten zituela.

*Karmen Zabaleta*, au ere leitzarra, "alfonbra" ederrak egien zituela.

*Lorentzo Perez*, Kastillonuevo'koa. Langile hunek ezpelezko kutxetak egiten zituen.

Gipuzkoarren artean baziren, uztargile, espartingile eta lan mota aunitzetakoak.

Donosti'ko Trinitateko plaza esku-lan oiek iraun duten zazpi egunetan yendez betea egon omen da eta euskaldun esku-langileek egindako lanak denen gogokoak izan omen dira.

Zorionak Turismo Etxeari, Elkarte au izan baita ikusgarri eder oien antolatzalea eta gure goresmenik maitekorrenak lan oietan aritu diren guzieri batez ere napartarreri. Yarraiki zuen lan eder oietan eta gure Yaunak aunitz urtez kontserba zaitzabela.

M. Izeta

Principe de Viana, 1968, urria, 5. orr.

## FERIAK

Elizondoko Urriko feri famatuak, San Lukas ondoko asteko ostiralean izaten dira; ospe aundiko feriak denbora batez eta iru egun irauten zutelarik. Lehenago, ortzegunean, ortzilarean eta larunbatean ospatzen ziren feriak eta iru egunetan mundu bat yende biltzen zan. Gaurko egunean ez da holakorik; orai egun bat bakarra izaten da eta hau ortziraleakin eta egia erran badirudi urtetik urtera tipituz doazila, baina halare bere formak irauten bait du eta yendeari ere besta gustatzen baitzaio, egun hontan Baztango hiri nagusian yende aunitz biltzen da.

Aurtengo feriak Domine Saindu bezperagokoan ospatu dira eta eguraldiak ere ederki lagundu duelarik.

Goiz goizetik eguna garbi garbia agertu zitzaikun naiz ta izotz pixka bat bazen. Beharrik gero eguzkiak bazterrak ederki goxatu zituela. urtero bezala hemen ikusi ditugu Baztan, Bidasoa, eta mugaz bertzaldeko anai euskaldunak denak Elizondora etorriak egun goxo bat igarotzeko nahikeriarekin. Ongi etorri eta Jaunak urte aunitzez kontserba zaitzatela!

Merkatu plazanazienda aunitz, aintzineko urte hauetan izandu den aundienetako bat ain segur. Euskal Herriko eskualde aunitzetako tratulariekazienda ederra erakutsi zuten eta bai salmentak egin ere. Merkatu plazan makinari-saltzaleak ere baziren eta agertu zituzten nekazalgoak eskatzen dituen makinari mota guzietarik. Erran beharrik eztago nekazarien lanabesa berri hoiek izan zutela arrakasta.

Erreboteko plazan mugaz bertzaldeko bi pilotari talde, erreboteko partida polit bat yokatu zuten eta yende puska bat ere bildu zen pilotarien gudukaldia ikustera.

Urtero bezala ostatuetan otordu ederrak eta gaztearentzat ere dantza ta dibersio Antxitoneko trinketian.

Feriak igaro dira eta orainokuan neguaren señalerik ez da iñondik ageri, eztugu arrankurik denborendako. urriko ilabetearen azkenengo egunak eta Azaroaren lehenbizikoak guziz atsegingarriak izan bait dira.

Merkatuko azienden goraberak agertu behar ditut:

Aintzinerako beiak beren aratxearekin. 29 buru. 30.000-38.000 pezeta bakarrak. Salduak 6 buru.

Bei ernariak. 30 buru. 28.000-36.000 pezeta bakarrak. Salduak. 12 buru.

Esne-beiak. 48 buru. 28.000-35.000 pezeta bakarrak. Salduak 6 buru.

Mige ernariak. 12 buru. 24.000-26.000 pezeta bakarrak. Salduak 4 buru.

Aragitako beiak. 16 buru. 29.32 pezeta kiloa bizik. Denak salduak.

Behor ernariak. 28 buru. 13.000-22.000 pezeta bakarra. Salduak 6 buru.

Mandoak. 16 buru. 13.000-22.000 pezeta bakarrak. Salduak 8 buru.

Pottokoak. 14 buru. 6.000-9.000 pezeta bakarrak.

Astoak. 7 buru. 2.800-4.000 pezeta bakarrak. Salduak. 6 buru.

Ardi zaharrak ere baziren eta hauek multzuka saldu ziren seinaka eta zortzinaka, 500 eta 600 pezetana buru bakarra.

M. Izeta

Principe de Viana, 1970, azaroa-abendua, 7. orr.

## KIROLAK

Kantauriko itsasoan Donosti'ko estropadak dira famatuena, arraunlari borrokaldirik iñon balinbada Donostikoak ederrenak guretako beñipin. Aurtengo estropadak guzien gañekoak izan dira, sei treiñeru zein-geiagoka ikusi ditugu, seiak gipuzkoarrak eta denak garaipena ardiesteko naikeriarekin. Arraunlarien borrokaldi ori Buruilaren 3'an eta 10'3an ospatu zen eta bi igande oietako gudukaldia egin ondorean, emen Donosti'ko estropadak nola gertatu diran.

Lendabizikoa	ONDARRIBI
Bigarren	ORIO
Irugarren	LASARTE
Laugarren	PASAI-DONIBANE
Bortzgarren	JAIZKIBEL
Seigarren	ERRENDERI

Azkenengo igande ortan Ondarrabi eta Orioren arteko burruka izigarria izan zen eta Ondarrabi'k iru segundoen aldea bertzerik etzion atera. Or ageri da borrokaldi bortitza zela.

Donostia'n mundu bat yende bildu zen eta denak kontent estropada ederrak ikusi zituztelakotz.

Donosti'ko estropaden ondotik izan ditugu desafiozko estropadak ere. Ondarrabi, Pedreña'ren kontra eta Orioren, Astilleroekin. Buruz buru bi erri gipuzkoar bi santandertarren kontra. Estropada auek bi txandetan eginak dituzte, bat Santander'ko uretan eta bertzea Gipuzkoarretan. Oriotarrak eta Ondarrabitarrak bietan aisa irabazi zuten, beren garaipenaren bidez gipuzkoarren gaintasuna agertuaz.

Gero Buruilaren 23'an eta 24'ean Portugalete'ko ibaian ere sekuleko arraunlari jaia izan dugu eta ortan zortzi treiñeru ari izanak ditugu, denak borroka bizian eta denak garaipena ardietsi naiez. Portugalete'ko estropada auek izigarriak izan dira, or Oriotarrak ta Ondarrabitarrak elkarri ortzak erakutsiaz eta gudu gorrian ibiliak dira. Larunbata eta igandeko arraunketak egin ondorean, emen gertatutakoak.

Irabaztale ta Txapeldun	ONDARRABI
Bigarren	ORIO
Irugarren	ASTILLERO
Laugarren	PEDREÑA
Bortzgarren	LASARTE
Seigarren	PASAI-DONIBANE
Zazpigarren	KAIKU
Zortzigarren	PENACASTILLO

Oartu zaitezte Ondarrabi'k Oriori ateratako aldea gauza utsa dela, or ageri da biek elkarren idurikoak direla. Beti ere aurtan Ondarrabi dugu oberena eta oraindika estropada bat bakarra ere galdu ezteua. Zorionak ondarrabitarrak eta segi beti hola hola.

## SOKA-TIRA



Goan den Buruilaren 24'ean Donosti'ko Trinitateko plazan Espaiña'ko sokatirarien Txapelgoa egin dute. Xapelgo untan sei sokatirari Talde ari izanak dira. Bilbao, Oyartzun, Zarautz, Usurbil, Hernani eta Elizondo, lau gipuzkoar, bizkaitar bat eta nafartar bat, denak indartsuak eta aski gizon aundiak. Gure baztandarrak ongi ari izanak dire eta Naparroa'ren izen leku onean ezarri dute. Elizondarrak eta Bilbaotarrak borrokaldi ederra egin zuten bilbaotar sokatirariak irabazirik, baño ez aisa. Azkenengo tiraldian bi oberenak aritu ziren, Bilbaotarrak eta Zarautzarrak eta gudukaldi egin ondorean, Zarautzarrak irabazi zuten Espaiña'ko Txapelketa bereganatuz. Zorionak irabaztaleeri eta gure goresmen bizienak Elizondar sokatirariari eta urrengoan suerte obeagokoarekin geiago eginen dute.

M. Izeta

Principe de Viana, 1967, urria, 6. orr.

## LARRAZKENA

Urria eguraldi onakin, urtean dugun hilabeterik hoberena. "Etxera bil", erraten ohi da, eta ongi ikusten dugu zitu guziak etxeratzen, ugaritasuna bazterretan daukagula, larrazken zorogarri huntan.

Baina, Urria'k orotarik baditu: txarrera ematen ba'dio, negu kolore latza hartzen du hilabete ondarrera, Feriak aldera geienetan. Zein labur egiten zaigun urtea osasun ona gurekin dugularik; alderantziz, zein luze eta penagarri osasuna ez delarik!

Urtea, gure bizia bezelakoa da; Udaberria, gaztetasunaren adierazgarri; Udara, sasoiko gizadiarena; eta zer erranen dugu Udazkenaz eta Neguaz? Zein laburra den urtea, eta zein laburra gure bizia ere! Ain ederki erraten diguten bertsolariek, Lasarte nafartarrak adibidez:

Udazkenean ostroak daude  
igartu eta zarturik;  
nai dun tokira badaramazki  
egoaizeak arturik.  
Gizona ere, lurperatzen da,  
kaja batean sarturik;  
or ezagun da ezer ez dala  
emen betiko sorturik.

M.I.

Principe de Viana, 1981, iraila, 13. orr.

## LASARTERI OMENALDIA

Donostiako Turismo Etxeak antolaturik San Jose egunean eta "Astoria" deitutako etxean, Lasarte bertsolariari omenaldia egin zaio.

Goizeko amekaterdietan "Astoria" yendez bete beterik yar-leku bat ere utsik agertzen etzela, bertsolari bestari asmenta eman zioten. Amabi bertsolari ari izanak dira Lasarteren omenaldi hontan; Lazkano, Gorrotxategi, Lizaso, Arotzamena, Lopategi, Azpillaga, Agirre, Lazkao-Txiki, Mattin, Xalbador, Uztapide eta Lasarte denen buru, bertsolarien erdi erdian arkitzen zela. Basarri izan zen gai-emaile eta bestaren zuzendari Salaberria yauna.

Besta guziz ederra eta bertsolariak ere arras ongi, denak Lasarte goraiatu zutelarik. Besta bururatzeko, Leitzako Alkateak eta Donostiako Turismo Etxeko Lendakariak, Lasarteri ohorezko edergailuak eman zizkioten bere omenaren oroitzapena izan dezan. Lasartek bertso hunkigarrietan bere esker onak biotzaren erditik agertu zituen denei, Aintzinderiei, bere lagun bertsolariei eta entzule guzieri. Entzuleek txalo ta esku-zarta beroekin beren bozkarioa agertu zuten Lasarteri merexi zuen agur maitekorra erakutsiaz.

Entzuleen artean auteskundeak izan ginituen; zein bertsolari behar zen autatu datorren aldian omenaldia egiteko. Yaz Xalbadorri egin zitzaion eta aintzineko urtean Uztapideri. Sarbideko txartelan entzule bakotxak behar zuen bere gogoko bertsolarien izena paratu eta gisa hortan zeñek txartel gehiago bere alde biltzen zituenak hura irabaztale. Mattin ahetzarrak irabazi zituen bozak eta hortaz datorren urtean Mattini eginen zaio omenaldia.

Urbia ostatuan anai-arteko bazkaria iru ehun bazkaltiar bildu ginelarik. Bazkalondoan denak umore ederraikin, bereziki bertsolariak sasoin ederra erakusten zutela bertso atsegingarrietan Lasarte goretsiz. Egun gogoangarria bai zinez. Zorionak Lasarte bertsolariari eta gure goresmenak Donostiako Turismo Etxeari.

Hemen agertuko ditut Klemente bertsolariak kantatutako bertsoak.

-1-

Gaur gogotik atera naiz  
nere etxeko ateti,  
Manuel Lasarte omenaldian  
Donostin egoteati,  
zuen ondoan oso gustora  
egon izandu naiz beti,  
nere bertsuak eldu dirade  
biotzan txoko batetik,  
Agur Donosti agur Lasarte  
Naparruaren parteti.

-2-

Gaur Donostira allegatu naiz  
bizi izanarren aparte,  
nere begiak etzeuden errex  
Manuel ikusi arte,  
ainbeste lagun onduan izana  
badaukazu naiko suerte,  
bizi naizeraño zure lagun bat  
emen daukazu Klemente,

aurrera ere alkar maitatuaz  
bizi gaitezen Lasarte.

-3-

Urre ta zillarrez betea duzu  
umilldaden buru ori,  
au ola dela entzuna  
diotet nik geigori,  
ortaz eskerraz eman bearrak  
Basarri ta Uztapideri,  
ugaritasunez bete dizute  
zuk daukazun grazi ori,  
aiekin batean eskerrak biotzez  
Gipuzkoa guziari.

-4-

Zu legurtzia ez da errex  
aurrea eta atzeti,  
zorionekoa agertu ziñan  
jaio ziñaden etxeti,  
ardorik gabe kantari berdin  
asten zerade goizeti,  
gizon maitatua atera ziñan  
Naparruako Leitzati,  
Gero zerua deseio dizut  
nere biotz biotzeti.

-5-

Maitetasuna zaizula zuri  
ni nago ezagutua,  
Donostira joana egun artan  
batez nago damutua,  
erregalo bat egin dizute  
zillar eta urrez doratua,  
zure sorlekuan ezagutu dute  
zuk daukazun talentua,  
merezi du ta agurtzen dut  
Leitzako Ayuntamentua.

M. Izeta

Principe de Viana, 1971, apirila, 3. orr.

## "LAZKAO-TXOLO"REN OMENALDIA DONOSTIA'N

Arrakasta izigarria ukan du "*Lazkao-Txiki*"ren omenez eginikako bestak. Urtarrila'ren 25'a aski kaxkarra agertu zitzaikun elurra eta kazkabarra nausi ginuelarik. Negu bortitzaren seinalea sasoinaren arabera.

Donostiako "*Carmelo Balda*" deitzen den frontoi berrian 4.000 lagun bildu ziren gure bertsolari Jose Migel Iztueta "*Lazkao-Txiki*"ri ongi merezia zaukan omenaldiari indarra eman beharrez. Eguraldi txarra eta kanpoan otz; baina, barnean giro ona, eta bertsolariek pizten zuten suarekin, yendea bero. Taularen gainean zortzi bertsolari: "*LAZKAO-TXIKI*" erdian zaukatela. Hor ziren: XALBADOR, AGIRRE, MITXELENA, AZPILLAGA, LOPATEGI, LIZASO, IGARZABAL eta AROTZAMENA, JOSE MARI IRIONDO gai-jartzale zutelarik.

Jaialdiari hasiera emateko lehenik Salaberria jaunak, Omenaldiaren antolatzaileen ordezkari bezala, mintzatu zitzaikun denei agurtuaz, eta bestaren xehetasun guziak agertuaz. Bertsolarien saioa hasi baino lehen, Iriondo jaunak gomiatu zituen, entzuleen artean aurkitzen ziren bertsolariei, taularen gainera igan zaitzin, eta bertso bana bota zezaten "*Lazkao-Txiki*"ren ohoretan Arritu ginen: 30 bertsolari agertu ziren mikroaren aurrera eta denak, ban-banaka, bertso bat kantatuz. Hoiere artean baziren zahar eta gazte; ez ginuen egundaino ikusi hainbertze bertsolari multzu batean. Agurrezko bertso hoiek egin ta ondoan, beste zortzi izendatuak lanera lotu ziren, Iriondo jaunaren aginpean.

Bakarka, binazka eta hirunazka ere aritu ziren mota aunitzetako gaiak erabili zituztela, hunkigarriak, irringarriak eta, bai, gaurko egoeraren aferak ere aipatuz. "*Lazkao-Txiki*" omenduaren ohoretan ere bertso aski hunkigarriak bota zituzten. Ordu t'erdiko bertsoaldia eginik, jaialdiari akaballa eman zitzaion lehenik "*Lazkao-Txiki*" edergailuz gainezka bete zutela. Gure bertsolariak oroigarri aunitz eskuratu zituen eta denak estimagarriak egunaren oroitzapena adierazten dituztenak egun hori beti bere gogoan iduki dezan. "*Lazkao-Txiki*"k, hiru bertsoekin, eta bihotza eskuan zaukala, bere esker ona agertu zuen. Hemen agertuko dut hirugarren bertsoaren azkenengo hitzak:

Honekin buka nai det  
begia lertu bano len.

Entzule guziak esku-zarta beroekin saritu zuten gure koblarria. Azkenik, eta besta eder honeri bukaera emateko, entzule guziak zutik eta kar haundiarekin "*GERNIKA'KO ARBOLA*" kantatu ginuen.

Gero "*Velodromo*" delako leku zabalean bazkaria; 725 lagun mahaiean yarririk. Leku otza bai, eguraldiaren arabera, baina bazkaltiarak bero bazkalondoan, bertsolarien kantaldiekin denak piztu baiginen. Han bazen kantu ta umore ona eta gehiena balio zuena: euskaldunen elkartasun maitagarria. "*Lazkao-Txiki*"ren azkenengo agurrakin bururatu ginuen arratsaldeko bilkura.

Gure zorionik maitekorrenak gure adiskide Jose Migel Iztueta'ri, eta Jainkoak urte aunitzez kontserba dezala. Egun zoragarri bat iraganik etxeratu ginen. Atzendu gabe erran dezadan Lizaso azpeitiarra hautatu dutela datorren urterako. Beraz urte baten buruan Lizaso'ri eginen diote Omenaldia.

M. Izeta

Principe de Viana, 1976, urtarrila, 7. orr.

## MUNDUKO PILOTA TXAPELKETAK

Munduko Pilota Txapelketak lau urtetik lau urtetara yokatzen da batzuetan hiri batean, bertzetan bertze batean gisa horta, Erresuma zenbaitzuen hiri ospetsuenak ohore hori izaten dutela.

1970 garrengo urte hontan berriz ospatu dituzte eta Donostiako hiri ederra izan da Txapelketa horren gertakarien lekuko.

Pilota partidak "ANOETA", TRINKETEA", eta "GALARRETA"-ko pilota lekuetan yokatu dituzte eta hor ari izanak dira zazpi Erresumetako pilotariak. España, Francia, Argentina, Chile, Mejiko, Uruguay eta U.S.A., denak elkarren kontra eta pilotarien gaintasuna bereganatu nahiez.

Palaz, paletaz, esku-huska, xarez, xisteraz, eta frontenisez yokoetan ari izanak dira, pilotari guziak zein-gehiagoka eta Erresuma guzietako yokalarietan euskal odola nabari zela. Eutsi pilotari gurea da-ta!

Txapelketaren goraberak beren xehetasunekin.

### GALARRETAN

(Zesta-puntaz edo xisteraz)

1. Francia (Cami eta Fourneau)
2. España (Mirapex anaiak)
3. Mejiko (Zubikarai-Hamuir)

### ANOETAN

(Pala kortaz)

1. España (Mendiluze eta Llorka)
2. Francia (Berotaran eta Millet)
3. Mejiko (Salazar eta Sanchez)

(Pelota cuero, edo Larruzko pilotarekin)

1. España (Anzizu eta Reizabal)
2. Argentina (Sehter eta Utge)
3. Francia (Berrotaran eta Clairac)

(Paleta goma, edo gomazko pilotarekin)

1. Mejiko (Becerra eta Randon)
2. Argentina (Arnas eta Olite)
3. Uruguay (Bernal eta Beli)

(Esku-Huska bakarka)

1. España (Maiz)

2. Frantzia (Minondo)
3. Mejiiko (Medina)

(Esku-huska bidenazka)

1. España (Sacristan eta Iruzubieta)
2. Frantzia (Mujika ta Salaberri)
3. Mejiiko (Jimenez eta Tovar)

(Frontenis)

1. Mejiiko (Loyaza eta Hernandez)
2. España (Irigaray eta Lersundi)
3. Argentina (Olite eta Arnas)

## TRINKETEAN

(Esku-huska bakarka)

1. Frantzia (Artola)
2. España (Etxebeste)
3. Uruguay (Castillo)

(Esku-huska bidenazka)

1. Frantzia (Ladutxe ta Arotzarena)
2. España (Trantxe ta Balda)
3. Uruguay (Carly eta Castillo)

(Laruzko pilotarekin)

1. Uruguay (Bernal eta Iroldi)
2. Argentina (sehter ta Bizzozero)
3. España (Agirre ta Alkorta)

1. Argentina (Olite eta Utge)
2. Uruguay (Bocco eta Valverde)
3. Frantzia (Haranburu eta Irigoyen)

(Share)

1. Argentina (Elias eta Bizzozero)
2. Uruguay (Ayala ta Alfier)
3. Frantzia (Labat eta Hourregue)



## IRABAZTALEAK

1. España, lau titulu.
2. Francia, iru titulu.
3. Mejiko ta Argentina, bi titulu.
4. Uruguay, titulu bat.

M. Izeta

Principe de Viana, 1970, urria, 4. orr.

## ORTZADAR

Dantzari talde berri bat sortu zaigu Iruñan. "ORTZADAR" izen jatorrarekin bataiatu dute Elkarte sortu berri hori, Donandoniko gazteria taldearen sortzaile dugularik. Gazte hauen asmoak dira gure Herriko eta batez ere Nafarroako folkloreaken aberastasunak aztertzea, biltzea, gorestea, indartzea eta herriaren aurrean erakustea.

Joan den Martxoaren 18-an "Teatro Gayarre" deitzen den etxe ederrean egin zuten taldearen lehenbiziko agerraldia. Yendearen aurrean eginikako lehenbiziko agertze honek arrakasta izigarria ukan du. Antzokia bete bete, gazteak gehienak, denak zaletasun haundiarekin eta "ORTZADAR" en ekinaldiari indarra eman beharrez txalo beroak jotzen zutela gisa hortan beren bozkarioa erakutsirik. "ORTZADAR" taldeak Euskal-Herriko dantzak eta kantak agertu ditu.

Hiru mutil eta neskatx bat ziren abeslariak, kitarra soinuarekin euskal-kanta zoragarriak agertu dituztela. Boz ederrak eta bai kantari onaren dohainak erakutsi dizkigute lau gazte hoiek. Zorionak. Dantzariak dantza multzu bat agertu dute, hoien artean:

"Aranaz'ko Zortzikoa", "Arizkun'go Sagar-dantza", "Durango inguruko herrietako Dantzak", "Billantziko Txiki edo Billantziko Zaharra", "Be-Nafarroa'ko Ihauteria".

Dantza guziak ongi eginak, neskak eta mutikoek yendearen aintzinean erakutsi dute beren trebatasuna. Baztandarra naizen aldetik erran dezadan gure Sagar-Dantza eta Billantziko Txiki ere arras ongi egin dutela eta batere hutsik egin gabe. Zorionak. Dantzarien beztimenta ere berria eta dirdiranta taldearen izenak adierazten duen araberrara. Yendeak agertu du barnean zaukan bozkarioa txalo eta irrintzi indartsuak eginik, bereziki azkenengo saioan Be-Nafarroako "Ihauteriak" agertu zituztelarik. Dantza ikusgarria hauxe eta soinu politarekin lagundurik ikusliar eta entzule guziak nabarmenduazi zituela pozaren pozez irrintziak eta atseginezko oihuak eginaraziaz.

Euskal giroa nabari zen "Gaiarre Antzokian". Festaren erakustaleek ere mikrotik euskara garbian mintzatzen ziren. Ederki mutillak. Donandoniko gazteek agertu duzue zuen euskaltzaletasuna. Zorionak zueri euskaldun berriak zerateneri, zuetan eta ikastoletan daukagu gure hizkuntzaren geroa, nafartar mintzairaren etorkizuna. Baduzue merezimendu. Yarraiki hortan nafartar euskaldun maiteak.

Kanpuan otz zegoen, elur pixka bat ari zuela. Zeruan etzen ortzadarra ageri, baina horren ordez, "Gaiarre Antzokian"; Iruñeko "ORTZADAR" berri batek dirdiratzen zuen bere zazpi koloreak argi bizi eta indartsuarekin agertzen zituela, euskal bihotzak pizturik eta indarberrituta utzirik. Berriz ere zorionak "ORTZADAR" dantzari taldeari.

M. Izeta

Principe de Viana, 1975, martxoa, 6. orr.

## PILOTARIAK

Yoan den Mayatzaren 11'ean Donostia'ko Anoeta pilota lekuan ari izanak dira, Retegi nafartarra eta Azkarate bizkaitarra esku-huska ta buruz-buru. Dakizuten bezala partida hau España'ko Txapelketako "semifinala" zen. Partida honek izan du arrakesta. Anoeta bete bete yendez eta denak gudukaldi eder bat ikusteko nahikeriarekin. Partida asmentan trabesak erasundarraren zauden 200-100 ri uyu egiten zutela. Lendabiziko tantoa Retegi'k egin zuen baina Azkaratek berehala berdindu eta bai bere alde bertze puntu bat gehiago ere 2-1. Gero adosteak bigarrenetan eta irugarrenean ta ondotik Azkarate zuzen zuzenean zazpigarreneraño 7-3. Trabesak berdinean 100 duro Azkarate'n alde, baina etzuen aunitzik iraun. Retegi indarrean dago eta zortzigarren tantoan ados. Orduan trabesak erasundarraren alde 200-80'ri. Gero Retegi'k aintzinaldia harturik ogeitabigarren tantoa erdietsi arte Azkarate amalaugarrenean utzirik 22-14. Retegi garaille.

Retegi'k bere ahalmenak erakutsi ditu eta bizkor dago, partida ederra egin du eta napartar pilotazaleak kontent daude. Azkarate'k ez du partida txarra egin baina Retegi'ren kontra bere ahalmen guziak utsetan gelditu dira, gañera erasundarra elorriotarra baño gazteagokoa da (25 urte) eta goiti doaie eta Azkarate berriz (33 urte) hoberen guzia emanik eztago lenagoko negurrian, halare bizkaitarra ongi dago eta oraindik sasoi ederrean.

Orai Retegi Atano'ren kontra Azken-Partidan. Pilotarien kondairan lenbiziko aldia da napar batek finalean yokatzen duela, orai arte gure eskualdeko pilotariak ez dute holako ohorerik ardietsi baina oraingoan Retegi erasundarra hemen dago napar euskaldunen izena leku onean jarri nahiez. Atano txapeldunak ez du amor emanen eta gogor ariko da bere yakitate guzia hor agertuko duela baina Retegi ere ezta atzean geldituko. Azken-Partida honek bazter guziak inñarotsiko ditu eta Bergara'ko plazan eginen dituzten uyuek ta esku-zartak Azkoitia'n eta Erasun'en adituko dira.

"Club Deportivo Baztán" deitutako kirol Batasunak antolaturik, Elizondo'ko Antxitoneko trinketean pilota txapelketa yokatu dute. Xapelgo hau paletazkoa eta gomazko pilotarekin izan da berehartan amabi pilotari bikote arizanak direla eta bi malletan berexiak. Martxo ta Apirileko illabetetan izan ditugu partidak eta Mayatzaren 4'ean izan gintuen finalak. Lenbiziko mallako Azken-Partida, Garmendia ta Sagastibeltza, Txatxin ta Plaza'ren kontra yokatu zuten (lauak elizondarrak). Haste hastetik gudakaldi atakatua izan zen adoste aunitz egin zituztelarik, baina azkenean Garmendia ta Sagastibeltza'k garaipena erdietsi 40-35 irabazirik. Bigarren mallakoetan, Galarregi anaiak elbetarrak, Danboriena ta Maisterrena lekautarren kontra. Partida hau ere arras atakatua izan zen batez ere ogeitamar tantoraño, gero elbetarrek nausitu ziren eta partida airez aire irabazi 40-33. Galarregi anaiak ongi aritu ziren eta lauetan hoberena Alejandro elbetear mutiko gaztea.

Txapelketaren gora-berak hemen:

Lehen mallakoak, Txapeldunak: GARMENDIA ta SAGASTIBELTZA.

Elizondarrak.

Bigarren mallakoak. Txapelduna: GALARREGI anaiak. Elbetarrak.

Bigarrenak: DANBORIENA ta MAISTERRENA. Lekautarrak.

Zortzi pilotariak edergailu onak eskuratu zituzten. Txapelketak izan du errekte eta yendea kontent dago.

Mariano Izeta

Principe de Viana, 1969, ekaina, 4. orr.

## PILOTARIAK

Joan den Apirilaren 26'an Gazteiz'ko frontoian ari izanak dira Lajos ultzamarra eta Bergara etxalartarra, bi pilotari naparrak buruz-buru. Partida hau Espania-ko esku-huskako pilota Txapelketakoa zen eta arrakasta aundia izan du. Frontoia leporaño bete zen eta yendeak bazuen partida hau ikusteko gogoia, bi pilotariek sasoin ederrean arkitzen direlaketz eta biek berdintsu, trabesak ere bi aldetara berdin, han ez zen irabaztale segurorik.

Bergara paxa gorriarekin eta Lajos urdinarekin eta partidari asiera eman zioten.

Lenbiziko tantoa Lajos'entzat, baina Bergara'k berehala berdindu 1-1. Gero ultzamarrak iru tanto eginen ditu. 4-1 eta trabesak 100-70 ri bere alde. Bi pilotariak gogor ari dira eta bortzgarren puntuan berriz berdin 5-5. Trabesak etxalartarraren alde ehun duro uyu egiten dutela. Bergara'k bertze bi tanto eginen ditu eta aintzinaldia harturik partida bere alde 7-5 eta trabesak ere bai 100-80 ri. Bañan Lajos indarrean dago eta berehala berdindu ta bi puntu gehiago eginik partida 9-7 urdinaren alde. Trabesak itzulikatu dira eta orduan diru auserki ultzamarraren alde 200-90 ri.

Gero Bergara'k tanto bat gehiago 8-9 bainan ondolik ultzamarrak bortz tanto lerro lerro eginik bere gaintasuna agertzen du, etxalartarra bere mendean dago. 14-8. Lajos sasoin izigarrian dago, ipilota beti zazpian eta zortzi terdian dauka indar ikaragarria erakusten duela eta partida airez aire irabazten du. 22-11. Lajos ultzamarra sasoin izigarrian dago, denak arritu ditu eta bere aldekoak haren baitan uste osoa dute. Orain ari beharra da Tapia'ren kontra eta partida honen irabaztalea Retegi Txapeldunaren aurka Txapelketako Azken-Partidan. Bolai hontan Nafartar pilotariak indarrean daude eta denen gañetik agertzen zaizkigu. Ikusiko ahal ditugu Lajos ta Retegi Azken-Partidan? Eta nor Txapeldun? Hori geroak erranen.

M. Izeta

Principe de Viana, 1970, maiatza, 4. orr.

## PILOTARIAK

### URKITZA, 22; AIZPURUA, 16

Apirilaren 2-an Logroño-ko frontoian ari izanak dira bigarren mallako pilotariak Urkitza bizkaitarra eta Aizpurua gipuzkoarra. Partida erditsuraño berdintsu ibiliak dira adosteak 4-4, 7-7, 14-14 eta 16-16 tanotetan eginik. Hortik goiti bizkaitarra nausitu eta falta zituen sei tantoak eginik partida irabazi 22-16.

### KARRETERO, 22; ETXARTE, 15

Egun hortan berean Donostia-ko "Anoeta"n beste bigarren mailako partida. Karretero eta Etxarte buruz-buru (Karretero ezta deitura izen-goitie baizik). Partida gisa hontan joan zen, 11-11, 12-12, 16-12, 16-15 eta azkenik 22-15 Karreteroren alde. Karreterok saketik 5 tanto eta Etxartek 3.

### BERGARA, 22; EROSTARBE, 13

Apirilaren 9-an Gazteiz-ko frontoian, Bergara eta Erostarbe zein-gehiagoka. Bergara etxalartarra 28 urte, paxa gorriarekin eta Erostarbe 24 urte bete berriak paxa urdiñakin. Botilleroak, Mikel Soroa nafartarrarena eta Tapia gipuzkoarrarena. Partida hasi aurretik trabesak Bergararen alde 200-160 ri. Partidaren gora-berak hemen:

Lenbiziko tantoa Bergararentzat. Gero adosteak, 1-1, 4-4, 6-6. Hortik goiti etxalartarrak aurrea harturik sei puntu bereganatzen ditu 12-6. Gero Erostarberen aldia eta honek ere bost tanto egiten ditu 11-12. Trabesak beti Bergararen alde. Beste kolpe bat etxalartarrak 16-11 bere alde. Bi puntu gehiago Erostarberentzat 13-16 eta gipuzkoarra tanto hortan geldituko da; etxalartarrak falta dituen seiak airez-aire eginen ditu eta auzia irabazi 22-13. Bergarak saketik 6 tanto eta Erostarbek 4. Partidaren iraupena 61 minutu. Bi pilotarien artean 257 joaldi pilotari. Bergarak merezimendu guziekin irabazi du.

### RETEGI, 22; OREXA, 14

Donostia-ko "Anoeta"n Apirilaren 16-an, Retegi erasundarrak eta Oresa errazkindarrak neurtu dituzte beren ahalmenak. Trabesak Retegiren alde 200-100 ri, dudik gabe erasundarraren aldekoek Iñaxioren baitan uste osoa zaukaten eta bai asmatu ere. Retegik len-lenbiziko tantotik bere gaintasuna erakutsi du eta erdietsi arte, Oresa amalaugarrenean utzirik 22-14. Partidaren iraupena 44 minutu. 167 joaldi. Botetik bi pilotariek seina tanto irabaziak. Retegi indarrean dago eta partida hau neke aundirik gabe irabazi du. Oresa errazkindarra oraindik mutiko gaztea baita asko ikasi beharra du baina noizpaitere Txapeldun izateko ere badu gaia.

Orain Retegi eta Bergara final-erdian. Bi pilotari hauek lenbiziko aldia dute elkarren kontra ari beharrak direla, hortaz bada pentsatzekoa da partida hau guzien gainekoa izango dela. Alde batekoak eta bestekoak bakotxa beren sailduari otoitz, eta soka-tira hontan nor garai? Hori geroak erranen.

### ARRUABARRENA, 22; KARRETERO, 4

Igande hortan ere bigarren mailakoek egin dute beren partida Gazteiz-ko frontoian ari izanak dira Arruabarrena eta Karretero. Partida honek ez zu aunitzirik kondatzekorik, Arruabarrenak aisa irabazi bere kontrarioa lau tantotan utzirik 22-4.

AROTZENA, 22; URKITZA, 17

Iruñe-ko "Labrit"en Apirilaren 18-an bigarren mailakoak ere, eta oraingoan Arotzena aranaztarra eta Urkitza bizkaitarra. Partida atakatu izandu da bi eskualdeak berdintsu ibili direlarik. Lenbizien bizkaitarrak zazpi tanto eginik auzia bere alde zaraman 7-0. Gero aranaztarra ernaturik amargarrenean berdindu eta aintzinat abiatu 15-10. Gero holaxe ibili ziren, 15-14, 17-14, 17-16, 18-16, 18-17, eta azkenik Arotzena kolpe batez beste lau puntuak eginik partida irabazi 22-17. Bi pilotari hauen borrokaldia gustagarria izandu da.

Orain Arotzena eta Arruabarrena bigarren mailako Azken Partida edo Finala jokatuko dute.

Nor Txapeldun?

M. Izeta

Principe de Viana, 1972, maiatza, 7. orr.

## PILOTARIAK

Irun-go Kurpil-Kirolak deitzen den Batasunak trinketeko pilota txapelketa bat antolatu du, bereharian amabi trinkete nor-gehiagoka ari direlarik; *Donostia* (bi trinkete), *Irun*, *Behobia*, *Iruña*, *Elizondo*, *Bayona*, *Biarritz*, *Donibane Lohitzun*, *Azkain*, *Hazparne* eta *Donapaleu*. Txapelketa hontan bost malletako jokoak erakusten dituzte, esku-huska (bakarka eta bidenazka), paleta (larruzko eta gomazko pilotarekin) eta Xare. Amabi trinkete hoiek lau zatitan berezi dituzte, zati bakotxa iru trinketekin. Otsailaren 20-ean eman zioten hasiera txapelketari eta iadanik badituzte ainbeste taldeen irabaztaleek elkarren artean final-erdiak jokatu dituzte eta Apirileko ilabetean Finalak edo azkenengo partidak Azkain-go trinketean. Txapelketa honek aunitz pozten gaitu, amabi trinkete zein-gehiagoka, ehun ta ogei pilotari euskaldun, denak elkartasun ederrean gure euskal yosteta indartu beharrez eta bakotzak beren gaintasuna erakutsi nahiez. Zorionak Kurpil-Kirolak Batasunari eta gauzak gerta daitezila Zuzentasunak agintzen duen bezala.

### España-ko Txapelketa

España-ko esku-huska eta buruz-burukako pilota txapelketari hasiera eman diote. Lehenbiziko partidak Martxoaren 11-ean yokatu zituzten eta Finala edo Azkenengo Partida Nagusia Donostia-ko Anoetan edo Eibar-ko frontoi berrian yokatu beharra, Mayatzaren 28-an gauzak makurtzen ez badira. Hori lehenbiziko mallako pilotarien eginkizuna.

Bigarren mallakoak ere ari beharrak dira eta hauek Martxoaren 19-an hasiak dira, Apirilako 30-ean Azkenengo partida edo Finala jokatzeko.

Hemen agertuko ditugu pilotarien izenak.

Lehenbiziko mallakoak: LAJOS (Txapelduna), RETEGI, BERGARA, TAPIA I, GARTZIA ARIÑO, NALDA, ANDUEZA III, PIEROLA, OREXA II, eta EROSTARBE. Hamar pilotari.

Bigarren mallakoak: AROTZENA, BARANDIARAN, EGIGUREN, MAIZ I, ETXARTE, ARRUABARRENA, KARRETERO, AIZPURU, eta URKITZA. Bederatzi pilotari.

Nor Txapeldun? Ezta errez izanen Lajos-i Txapela kentzea, hau ndarrean dago eta ez du amor emanen. Baina bertzeek ere badakite pilotan eta ez dira mutiko erbaiak bizkorra eta gazteak baizik, ultzamarrari irabazteko kapable direnak. Beti ere bertze urtetan bezala Txapelketa honek izanen du arrakasta eta pilotazaleen artean eztabaidak ez dira faltako. Urrengoan partiden xeetasunak emango ditut.

M. Izeta

Principe de Viana, 1972, martxoa, 7. orr.



## PILOTARIAK

Berriz bertze napar bat txapeldun. Joan den Ekainaren 14'ean Tolosako frontoian, bigarren mallako txapelketaren Azken-Partida yokatu zuten. Alde batetik Orexa errazkindarra, 23 urteko mutil gaztea eta Del Val errioxatarra, 29 urtekoa, bertzetik. Naparra paxa urdinarekin eta errioxatarra gorriarekin eta trabesak hunen alde 100-90 eta 100-80 ri, hau guzia partida hasi aurretik. Gero lenbiziko sakea errioxatarrari suertatu zitzaion orduan eta gehiago haren alde 200-130'ri uyu egiten zutela. Partida gisa hontan gertatu zen:

Lenbiziko tantoa errioxatarrarentzat baña errazkindarrak berehala berdindu eta bai bi puntu gehiago. 3-1 urdin. Gero Del Val'ek berdindu eta bertze bi gehiago bere alde 5-3 gorri eta trabesak 200-90'ri gorriaren alde. Partida atakatu da bi alderdiak berdintsu daudela. Adosteak gero, 5-5, 6-6, 9-9, 12-12, eta azkenik 13-13. Amairugarren punduraino beti trabesak errioxatarraren alde, baina errazkindarra oraingoan ongi ernaturik eta sasoa erakusten duela partida bere alde itzulikatzen du eta zuzen zuzenean 21 garren tantoa ardietsi arte. 21-13. Trabesak bukatu dira eta orai errazkindarrak bere gaintasuna agertzen du. Gero Del Val'ek bi tanto eginen ditu eta ondotik Orexa'k bere ogeitabigarrena, auzia merezimendu guziekin irabazirik. 22-15. Orexa Txapeldun. Zorionak.

Partidak ordu bat eta 17 minutu iraun du. Saketik Orexa'k 6 tanto eta 3 Del Val'ek. Federazioko Aintzindari Nagusiak, Orexa'ri Txapeldun Boneta ezarri zion eta Nafarroako Federazioak Ohorezko "Kopa" eman zion.

Nafarroak bi Txapeldun ditu, Retegi ta Orexa. Zorionak bi pilotariei, zuek ezarri baitduzue Nafarroaren izena ohorezko lekuan.

M. Izeta

Principe de Viana, 1970, uztaila-abuztua, 4. orr.

## ELIZONDO

### Santioak

Besta bat akitu orduko bertze bat gainean, Santioak Elizondo-ko bestak. Soberakinak aspertzen omen du baina gazteak eta gainerakoek ere besta maite, hortan ez da arrankurik. Batek erraten zautan: "Besta besta horrek badu arrakasta". Bai siñesten dut bai jendeak lana baino gehiago maite duela besta. Santio bezperan euria iautsi ahala iduri baizuen Apirileko ilabetea eta jendeak arrankure franko Santio txarrak izanen zirelakoan. Baina etzen holakorik gertatu, azkenengo egunean arratsaldean euri pizer bat egin zuen baina berehala atertu ere. Bertze egunak aski onak izan ditugu eta besta egiteko hautak.

Aurten mutil-dantza ederrak eginak ditugu, Santio eguneko Meza Nausi ondokoak eta eguneroko arratsekoak ere izan dute arrakasta. Dantzari aunitz lerroan eta jendea ere pozik dantzari begira. Azkenengo egunean ameka mutil-dantza egin gintuen bizker-dantzakin akitzeko, Mauriziok lan ederra egin zuen. Plazako soñulariak igazkoak ziren, Altsasu-ko "Los Diamantes" deitutakoak, langileak, onak eta jendearen gogokoak, joaldi xarmantak eginak dituzte.

Pilota partida ere izan ditugu, errebotekoa Hendaiarrak Donibanetarren kontra eta esku-huska bi partida. Lenbizikoa: Ezkurra-Saizar, 22; Arotzena-Ituarte 14. Bigarrena: Agirre-Lajos, 22; Bergara-Andueza, 18. Urtero bezala bizikleta lasterketa Baztan-go Itzulia 25 txirrindulari ari izanak direlarik. Azkenengo egunean goizeko ameka terdietan ospatu ginuen Dantzari Txapelketa. Dantza laxoan zeñek hobeki dantza. 30 bikote aritu ziren Sariketa hontan, denak dantzari trebeak eta gustagarriak. Mai-burukoek auzia holaxe erabaki zuten:

### Irabaztaleak eta

Txapeldunak	LARREA-ALBIZU	LEZOTARRAK
Bigarrenak	Garramiola-Beitia	Ondarrutarrak
Iruharrenak	Brit-Sarasola	Oriotarrak
Laugarrenak	Alkorta lengusuak	Zaldibartarrak
Bosgarrenak	Garbizu-Idiazabal	Errenderikoak
Seigarrenak	Sarriegi anai-arrebak	Hernaniarrak
Zazpigarrenak	Sarriegi lenguzuak	Hernaniarrak
Zortzigarrenak	Izeta-Lopetegi	Lezotarrak
Bederatzigarrenak	Mendiola-Huegun	Añorgakoak
Amargarrenak	Goya-Albizu	Lezotarrak

Irabaztaleak eta gainerakoak ere Sari eta Edergailu onak eskuratu zituzten. Zorionak dantzari eta gure goresmen bizienak txistulariei, ordu pare bateko ekiñaldia 30 fandango eta 30 prrusalda jo dituztela, horrek badu merezimendu. Zorionak Maurizio!

Santio egunean eta igandean baziren bertze bi ikuskizun baina hoiak ez dute merexi aipatzea. jende aunitz bildu da Santiotan. Bestak joan dira eta orai:

"BAKEA TA BI SOS"

M. Izeta

Principe de Viana, 1973, uztaila-abuztua, 7. orr.

## XALBADOR ETA AROTZAMENA'RI OMENALDIA IRUÑA'N

Iruñ'ean ere ospatu ditugu Xalbador eta Arotzamena; yoan den Otsailaren 6'ean, nafartarrek erakutsi dugu bai, zinez maite genituela galdu ditugun bersolariak. Biek ukan dute Nafarroa'k zaben Omena eta Ohorea.

Ez ditugu sekulan Xalbador eta Arotzamena ahantziko. Zendu dira; baina, beren izpiritua gudan bizi da, hemen utzi dizkiguten bertsoak eta beren biziaren esanplu eta erakuspenak gure bihotzetan okaturik gelditu baitira. Maite zuten euskal Herria, maite zuten beren sort-lekua. Hekendako, Euskal-Herria'k etzuen mugarik: denak, bat; Euskara, denek hizkuntza; denak anaiak eta elkarri lotuak.

Oroitzen naiz, orai hamar urte dela, Bera'n Xalbador'i aditu niona. Kantaldi hasi aitzinean, gizon bat hurbildu zitzaikun eta Xalbador'i galdetu:

- *Zu frantzesaren zer?*

Eta Xalbador'ek:

- *Ez, ni euskalduna naiz.*

Erantzun egokia gure urepeldarrarena, hor erakutsi baitzuen bere euskal izpiritua eta abertzaletasuna.

Auza Mendia erdian dugularik alde batetik Urepel eta bertzerik Baztan, behin Xalbador'ek Elizondo'n bertsolari besta batean, azken agurrean horrela mintzatu zitzaikun:

- *Nitaz behartzen bazarete, Auza'ko kaskotik oihu bat egin eta etorriko naiz.*

Hitz hoek etzaizkigu sekulan atzenduko.

Xalbador'ek eta Arotzamena'k berek sortutako "*Odolaren Mintzoa*" eta "*Nere Aldia*" liburuekin, oroitzapen maitagarri bat utzi daukute; badugu non ikas!

Iruñ'eko Omenaldi hunek arrakasta izigarria ukan du, "*Gayarre*" teilaturaino baitzen.

Agertokian, bi ikurrin haundi: Nafarroa'koa, eta Euskal Herri'koa. Jaialdiari Lesaka'ko "*Tobera*"kin eman zitzaion hasera, Mattin bertsolariak bi bertso kantatuz.

Gero, Lesaka'ko dantzarien saioa eta bertsolarien Agurra. Hor aritu ziren:

*Matxinandiarena* ta *Lasarte*, nafartarrak: *Lopategi*, bizkaitarra; *Lazkao-Txiki*, gipuzkoarra; *Mattin*, lapurtarra; ta *Etxaun*, ziberotarra. Sei bertsolariak, ban-banaka ari izanak dira, bertso hunkigarrietan, gure bertsolari zenduen dohainak gorai patuz. Baita ere Nafarroa'ren euskal nortasuna aipatzen zutela, anai zaharrena bertze bortsaurideekin batean elkarturik, eta denak Euskal Ikurriñaren babesean eta gure Ama Euskal Herri'ari lotuak, eta horrelako arrazoin eta erakuspen yakingarriak agertu zizkigutela.

Koblarien ondotik, hizlariak *Juan Mari Lekuona* oyartuarra eta *Pedro Díez de Ulzurrun* nafartar iruñarra. Lekuona jaunak agertu zituen Xalbador zenaren dohainak eta abertzaletasuna, gai hau ere ukituz: "*Zer den Xalbador Nafarroa'rentzat, eta zer den Nafarroa Xalbador'entzat*", gure urepeldar zintzoaren nortasuna goralduz.

Pedro Díez de Ulzurrun jaunak agertu zituen Xalbador eta Arotzamena'ren gorabeherak. Bi bertsolariak egin duten lanaz, eta Nafarroa'ko Bertsolarien Txapelketaz mintzatu zen: Arotzamena'k irabazitako Txapelgoaz, bertsolari honen nortasunaz eta gizatasunaz ere, xehetasun guztiak agertuaz. Baita ere Nafarroa zena eta bertze bertsolari nafartar zenduen izenak ere aipatu zituen, denentzat oroitzapen hunkigarri bat agertuaz.

Gero, olerkariak: *Gandiaga*, *Gorka Trintxerpe* eta *Lete*. Hunek eta *Patxi Billamor* arabarrak entzuleak piztu.

Ondotik, Etxamendi-Larralde jaunak -Ipar Euskal Herri'ko ordezkari bezala- hitzaldi zoragarria egin zaukun Xalbador'ez, eta Nafarroa'z, eta euskaldunen arteko Batasunaz.

*Iñaki Zabaleta* leitzarrak Omenaldiaren antolatzaleen asmoak agertu. Eskari bat egin beharra dutela Oruiñ'eko Udaletxeari, hiriko bi karrikeri Arotzamina eta Xalbador'en izenak ezarri dazioten. Hortarako jendearen firmak bildu behar omen dituzte.

Berriz bertsolariak; eta, oraingoan, *Mitxel, Xalbador'en semea* ere, hoiien artean. Bertsolarien kantaldien ondotik, Mitxel'ek lau bertso hunkigarrienekin eskerrak eman zituen. Bertsolari fiña, bere aita zenaren eskolakoa. Etorkizun uros bat desiratzen diogu. Zorionak, Mitxel!

Lutzaideko Dantzariak. Eta "*Eusko Gudariak*" kantatuaz, denari bukaera eman zitzaion.

Xalbador eta Arotzamina'ren ohoretan antolatutako Omenaldi hunek, oroitzapen eder bat utzi digu. Besta guziz ederra eta denak bozkariotan gure Herriaren Ikurriñen itzalean. Zorionak Omenaldiaren antolatzaleei.

M. Izeta

Principe de Viana, 1977, otsaila-martxoa, 6. orr.

## "XALBADOR" BERTSOLARIARI OMENALDIA

Goan den Abenduaren 10'ean Zumarraga'ko errian gure Xalbador bertsolariari merexi zuen omenaldia egion zioten. Egun ortan aro txarra ginuen eta beldurtzeko zen elurrak uzkuriturik asko bertsozale ez ausartzea Zumarraga'raño. Egia erran yende biziki geiago erakarriko zaukun eguraldi eder batek, bainan neguan gaude eta ezta arritzekoa aro txarra gertatzea. Elurrak yendea etzuen izitu eta an ikusi gintuen ainbertze ta ainbertze bertsozale gure Xalbador'i ohore egiten ziotela. Besta guziz ederra izandu zen, gure anai gipuzkoarrak beren aurrice Xalbador'i egin dioten omena guzien gañekoa izan da.

Goizean eskuarazko Meza, Aita Agustin Orbegozo meza emale ta izlari euskera garbi ta apañez mintzatu zelarik, dena bertso ta olerki. Mezaren eskeintza Azpillaga ta Basarri'k egin zuten bertsoetan kantatuz, eta mezako abestiak edo kantak erri guziak txistu soñuarekin lagundurik. Meza zoragarria eta eliza bete bete yendez. Eskuarazko meza ok euskalzaleentzat hunkigarriak izaten dire, izan ere meza auek badute doai berexi bat, ain dira maitagarriak... Gure lagun Basarri ospetsuak "ZERUKO ARGIA"-n Xalbador'en omena aipatzen du eta orra meza ortaz zer dion:

"Aita Agustin Orbegozo meza emale ta izlari, euskera soñekorik apañenez jantzia agertu zan. Nola ez Aita Orbegozo'ren ezpañetan. Euskal Mezak badute guretzat beste mezak eztuten zerbait. Gazteleraz esaten diranak berdin konprenditzen ditugu, baña barrena eztigute berdin ikutzen. Amaren altzoan ikasitako izkuntzak ba-du geroztik ikasi gendun izkuntza arrotzak eztun zerbait. Berezia da, apartekoa da, geurea da. Onekin dana esana dago noski. Aita Orbegozo'ren itzaldia ezti-jario utsa izan zan, asi ta buka. Dana bertso, dana goi mallako poesi".

Egi garbia bai Basarri yaunak erraten duena. Gure eskualdean noiz ikusiko ote ditugu orrelako meza ederrak?

Meza ondoan "Itzalon" deitutako salan izan ginuen Xalbador'ren Omena ta bertso saioa. Bereartan aritu ziren, Uztapide, Lasarte, Lopategi, Lazkao-Txiki, Mattin ta Xalbador, sei bertsolari eta nolakoak gañera. Bertso saioa asi aintzinean Basarri yaunak omenaldiari buruz itzaldi hunkigarri bat egin zuen, gipuzkoar guzien izenean Xalbador'en nortasuna goretsiz eta bere balioa merezi duen negurrian ezarriz. Itzaldi ederra Basarri'rena. Sei bertsolarien kantaldiak goi mallakoak izan ziren, gaiak ere egokiak eta yendearen gogokoak baiziren. Luzio Gabiria yauna izan zen gai emale ta zuzendari. Hunkigarria ere izan zen Zumarraga'ko euskal ikastolako aurrek Xalbador'i eskeñi zioten edergailua, zazpi urteko neskatiko batek bertso polit bat kantatuz gure urepeldarrari oparia emanaz. Gero "Urola" jatetxean izan ginuen bazkaria, berreun bazkaltiar baginen baño leku geiago izan balitz bertze ainbertze eta geiago ere izanen ziren. Bazkari ederra bai euskaldun yendeari dagokion negurrian eta umorea ere guzien gañekoa, bertso ta itzaldi ederrak bazkalondoan, guttietik amabortz bertsolari kantuz ari zirela Xalbador'i ohore eginez.

Ilunabartu baño len bestari akaballa eman zitzaion denek elkarri azken Agurra eginik. Zorionak guzien gañetik Xalbador'i eta bai omenaldi orren antolatzaleeri.

Zumarraga'n izandu ginen baztandarrak, geren biotzetan oroitzapen eder bat ekarri dugu, gipuzkoarrek badakite gauzak ongi egiten!!

M. Izeta

## ARGIA

El domingo, 5 de abril, actuó en el teatro Gayarre el grupo donostiarra de dantza "Argia", dirigido por un navarro, Juan Antonio Urbelz.

Este grupo dedica todo su entusiasmo a la investigación sistemática de la dantza vasca, ha estudiado a fondo el folklore navarro y montado, exclusivamente con sus temas, un espectáculo en que se pretende dar a conocer al gran público ese aspecto de nuestra cultura. Nunca hubiera creído que el Ingurutxu de Iribas tuviese una tal fuerza ni el esku-dantza de Imotz una belleza plástica tan cautivadora. La actuación fue magnífica, irreprochable, y el público, puesto en pie, los aclamó en una ovación que rebosaba de entusiasmo.

No es bastante aplaudir...

Los navarros aplaudimos, pero ¿qué habíamos hecho por esas dantzas que nos impresionaron? Nada. Tan sólo dejarlas morir. Tuvieron que venir estos muchachos para enterarnos de la belleza de nuestras viejas costumbres como un día se nos descubrió el carnaval de Lanz y otro el de Ituren. Hace falta despertar la conciencia del pueblo. Los chamauleros se llevaron lejos gran cantidad de nuestros objetos antiguos. El olvido acabará con el resto.

Si ellos tuvieran esto...

Una de las cosas que llamó la atención fue el gran parecido de algunos bailes de nuestra Montaña con ciertas dantzas del centro de Europa o del Cáucaso. Yo me maravillaba del enclave tan europeo del pueblo vasco. Si estas dantzas hubieran nacido en cualquier lugar de Francia o los Urales, las cuidarían con parsimonia de jardinero. Si las tuviera Norteamérica las envolverían en dólares, aquí (problema seguramente de cultura), las dejamos morir mientras admiramos cualquier chabacanería "made in hippy", que a los tres años hemos de anular porque ya resulta cursi y no se estila. Y esto me hace recordar una frase del Hamlet: "Has abandonado una montaña por esa hedionda colina".

El folklore educa

En el folklore expresa el pueblo su alma y no debemos cegar ese cauce expresivo. Exige una preparación física siempre sana, siempre aconsejable (baile de atletas se le ha llamado a nuestra dantza) y una disciplina moral de sacrificio, de renuncia, de obediencia, de subordinación al conjunto, altamente educativa. y no sé cómo no damos su importancia a este aspecto.

Tudela, San Adrián y otros pueblos

Leo en "El Pensamiento Navarro" a Iribarren Gil que nos habla del grupo de dantas de Tudela, ese grupo ejemplar al que le vienen pequeños todos los adjetivos y que son honra de Navarra y esperanza en un futuro que se presienten, como el grupo de San Adrián que me

sorprendió y conmovió, como tantos otros ejemplos admirables de esta Navarra nuestra de Vera a Cortes, de Viana a San Juan de Pie de Puerto que... también es Navarra. Muchachos que vienen a compensar la defección, el abandono, la inconsciencia, a veces el papanatismo, de tantos.

Gratitud al grupo "Argia"

Agradezco al "Argia" su labor, tan seria, de investigación de nuestras danzas y que su ejemplo se haga fuego en nosotros.

La cultura puede caer en un defecto, quizá con raíces de orgullo y apartamiento intelectual. Damos valor a lo nuestro, desdeñamos lo vivo. Preferimos leer la erudicción de una guía a observar lo real; el museo etnográfico a la costumbre que vive, a la lengua que vive, al arte que vive. Y cuando hayan muerto, porque los hemos dejado morir, lamentamos su muerte, como si los quejidos fueran a resucitar el pasado cuando es eso. Pasado.

Mendaur

Principe de Viana, 1970, maiatza, 2. orr.

(Iruñeko Eliz barrutiaren "La Verdad" izeneko aldizkaritik artua).



## LOS DANTZARIS DE TUDELA, la más genuina representación de nuestra tierra

Mariano del Mazo, en su habitual crónica de Madrid, comenta dos artículos aparecidos en la prensa de aquella ciudad, en defensa de los idiomas catalán y vasco. Y esa tónica de comprensión, esa quiebra del separatismo centralista que negaba la nacionalidad española a algo tan profundo en el tiempo como el euskera, de tanto solera histórica como el catalán, me alegra y debe alegrarnos. Contra lo que pudiera creerse, un gran número de los intelectuales españoles ha sentido siempre fuerte simpatía por los problemas y personalidad regional. Una era de convivencia entre todos, es el más afortunado acaecimiento para España.

### Tudela, ejemplo vivo

Hace poco escribía yo un comentario a los actos que la Institución Príncipe de Viana celebró en Vera en torno al reparto de premios a los niños euskeldunes. Y, en aquélla fiesta, cuyo objetivo era defender la lengua y cultura Vascas, hubo algo que faltó y cuya presencia hubiera catalizado nuestra confianza en el futuro. La actuación de los dantzaris, de Tudela. Ellos son la más genuina expresión de la vitalidad de nuestro pueblo. El símbolo y la avanzada. Mucho más mérito que el de la conservación de un idioma que oímos desde nuestro nacimiento, pro mucho más, tienen el esfuerzo de un grupo de tudelanos que han aprendido a hablar el Vasco. Ellos se merecen el mejor homenaje de la Institución. Ellos, que son esperanza y promesa de la tierra.

### No olvidemos a la Navarrísima Tudela

Quizás no hayamos sido justos con esa ciudad nuestra. Quizá la hayamos olvidado un poco estirando demasiado los noventa y tantos kilómetros que la separan de Pamplona. Y, a pesar de todo, Tudela ha conservado un navarrismo ejemplar, abnegado a veces, exaltado siempre.

Se me ha dicho que, hace poco, una publicación insertaba un artículo en el que se negaba a Tudela su ser vasco. A los pocos días me llegué a la ciudad ribera. Recorrí sus calles, y me entretuve leyendo los apellidos vascos de los rótulos, desde la plaza de los Fueros hasta las rúas estrechas que rodean la catedral. Pero había que profundizar más. Los apellidos no son siempre índice seguro. Durante la invasión árabe los "colaboracionistas" avalizaron sus nombres. Los Beni Quasi, por ejemplo. Y también se han castellanizado otros muchos. Hablé con amigos tudelanos. Y uno de ellos, un joven y muy inteligente escritor, apostilló:

"-¿Qué no somos vascos? Pero entonces... ¿qué somos? Para contestar a esa afirmación, tan gratuita, sólo hace falta un manual de historia. Un manual de historia solamente".

El vasco sigue presente en Tudela. Clavado en la tierra y en los hombres. Y no quiero hacer una estadística del número de apellidos vascos que pueden encontrarse en la Ribera o en Irún. Pero quiero sentar que, mientras en Elizondo o Santesteban no hay un grupo de mozos dantzaris, lo hay en Tudela. Y lo tiene en medio de grandes, muy grandes dificultades, sin el apoyo moral y material que de Navarra debían llegar a manos llenas. Y, en vez de éste, se les niega el carácter de vascos...

El día en que la conciencia vasca despierte totalmente en nuestra Ribera, el euskera se habrá salvado y la personalidad navarra será fuerte como nunca. Mientras tanto, nuestra lengua soportará el triste sino de vivir enquistada en un rincón de su propia tierra.

## El Rey que murió en Tudela

Porque Tudela conmueve. Cuando, invadida Navarra en 1512 perdía a su rey un puñado de guerreros de refuerzos para oponerse, ella sola, a los mejores ejércitos de Europa, cuando escribió sus célebres cartas que son quizás las páginas más patéticas de la historia de Navarra, no se puede menos que cerrar el diccionario, por no encontrarse en él, adjetivos suficientemente fuertes para gritarlos.

Tudela ha tomado su navarrismo perfectamente en serio.

Nadie sabe la alegría, casi mística, con que volví a Tudela. Desde mi estancia, ya lejana, en el Colegio de San Francisco Javier, nunca había podido pasear tanto tiempo por sus calles, ni subir a sus dos castillos, sobre todo el que fue morada de Sancho el Fuerte, el último montañés coronado, lo llamaré Campión, a pesar de haber nacido muy probablemente en Tudela. El rey que vivió allí y fue enterrado en Roncesvalles como si hubiera querido hermanar en su muerte toda nuestra tierra navarra.

Yo quisiera llamar la atención de Navarra hacia Tudela, hacia la gran avanzada de los vascos, en cuyas plazas, el txistu vuelve a acompañar el salto ágil de los dantzaris. En este actual renacimiento euskeldún, la presencia de la Ribera es necesaria. Y a ella deben estar vueltas con toda insistencia nuestras miradas.

Mendaur

Principe de Viana, 1968, iraila, 2. orr.

("La Voz de la Ribera" errebistatik artua)

TUDELA, un Ayuntamiento ejemplar

Charla con D. Jacinto Durán, Concejel del Ayuntamiento tudelano

Pocos hombres, muy pocos, producen la impresión de espiritualidad, idealismo y fuerza de voluntad que rodea a D. Jacinto Durán, Concejel del Ayuntamiento de Tudela.

Un hombre extraordinario que me hacía pensar lo que pudiera ser Navarra con sólo una docena como él en doce de nuestros Municipios. Nunca pretenderé animarle a continuar su labor (magnífica labor) por nuestra música y nuestra dantza. Porque nadie puede prender otra llama en su entusiasmo. Al contrario, el auténtico camino es el de vuelta, porque es él quien acostumbra a anestesiar fatigas y arrastrar voluntades. Cuando de Norte a Sur de nuestra geografía he ido hablando de las dificultades que unos y otros pueblos encuentran para formar un grupo de dantzaris, de la indiferencia con que, muchas veces, los órganos representativos locales miran a la riqueza cultural del país, he oído lamentarse:

"Si tuviéramos aquí al concejal de Tudela..."

He querido que hablara para **Txistulari** de los dantzaris tudelanos, ese grupo de optimismo y de esperanza.

La conversación transcurre en la penumbra de un salón isabelino. D. Jacinto es un hombre nervioso, de hablar rápido, incisivo, que sabe conmovier y, lo que es más difícil, mover.

### **¿Cuál es la mayor dificultad que encuentra para la enseñanza del txistu?**

Muchas. Y un gran problema es la escasez de txistus. De instrumentos de madera, se entiende, que suenen bien. El txistu, en nuestra tierra, se reseca mucho. Se aflojan las anillas y tenemos que ponerlos a remojo para usarlos. Hace dos años, localicé uno en un comercio de Bilbao. Pero, cuál fue mi alegría al descubrir que, tras el mostrador, había un par más. Cuando el vendedor volvió para hacerme la factura, le dije: "¡Cómo un txistu! Son tres...". El pobre hombre no quería desprenderse de ellos pero yo estaba decidido a traerlos a Tudela. Me costó Dios y ayuda convencerle. Pero nos eran imprescindibles.

### **¿Cuántos txistularis tiene en la actualidad?**

Hoy tenemos tres, nacidos en Tudela, que han aprendido en Tudela y que pueden interpretar música con txistu. Tres muchachos de 25, de 15 y de 11 años. Pero actualmente están aprendiendo dos chicos más y dos chicas.

Nuestra gran falta es el atabalero, tan extremadamente importante. El acaba de redondear la dantza. Nunca tiene que redoblar, como cree el profano, sino marcar.

### **¿Y tienen atabaleros?**

Tenemos uno. Un muchacho de 16 años pero que no tiene quien le enseñe. Pienso lo conveniente que sería mandarlo a Pamplona. Pero, como trabaja, habría que buscarle una colocación idónea. La verdad, es un problema

### **¿Cual ha sido el mayor éxito de los dantzaris de Tudela?**

La mayor ovación fue la de Bilbao, ante más de doce mil espectadores, interpretando danzas, precisamente, vizcaínas.

En el primer número el "Banako" oyó; luego fue imposible. Hubo que danzar sin oír la música, de memoria.

### **¿Qué pide Vd. al País Vasco?**

No pido dinero. Pido que nos ayude, que vengan a enseñarnos, que animen a estos muchachos nuestros. Ya recibimos, por ejemplo la enseñanza de Echeverría, de Bilbao, y de Azcona. Queremos oportunidad para ir a actuar. Hay muchos que se titulan muy vascos pero que hacen muy poco por su país.

### **¿Encuentra entusiasmo en la juventud?**

Si Vd. quiere un ejemplo le hablaré de Manolo, nuestro actual instructor. Un muchacho de 19 años que se dedica, en cuerpo y alma, al grupo con una afición tal, que no creo que haya, en todo el País Vasco, quien pueda superarle.

### **¿Cuántos dantzaris tiene actualmente?**

Quince o dieciséis chicos y veinte chicas. Pero habrán pasado por el grupo unos doscientos. Vienen, aprenden y se licencian. Pero algo quedará en todos ellos. Sí, algo queda, y estoy seguro de que si, al pasar por la calle, oyen sonar un txistu, la música les saltará al corazón. Muchos de ellos nos traen a sus hermanos pequeños, a sus primos, lo que indica que, ausentes ellos, siguen sintiendo al txistu.

### **¿Qué principios estima fundamentales en la enseñanza?**

No tolerar estrellas y disciplina.

El estrellato crea vanidades y tensiones que acaban con la labor colectiva.

Una pregunta personal: ¿Vd. sabe tocar el txistu?

Ahora voy a aprenderlo. En cuanto no sobre algún instrumento. Estoy decidido. Tengo que tocar el txistu.

### **¿Qué apoyo reciben los dantzaris del Ayuntamiento de Tudela?**

(D. Jacinto se entusiasma al hablar de sus compañeros de Corporación. Va trazando una serie de semblanzas ejemplares entre las cuales a él se le siente charlando. Creo que Tudela tiene un grupo de tudelanos envidiable).

El Ayuntamiento se porta maravillosamente. Recibimos de él un apoyo total. Da una subvención de setenta y cinco mil pesetas, pero, aparte de esto, tiene otras muchas atenciones que va a ser muy prolijo enumerar. (Yo admiro profundamente a Tudela, esa pieza esencial del País Vasco de la cual espero todo. Sencillamente todo. Yo la admiro, y creo que se le debe dar toda la enorme importancia que tiene).

### **Defíneme la dantza de Tudela.**

La de la montaña tiene una belleza extraordinaria, pero es muy seria. Si se le añade la sangre de la Ribera entonces se obtiene el binomio perfecto. Aquí se baila tan fuertemente que siempre se rompen los palos.

Seguimos las normas estrictas de la dantza, pero no podemos evitar que el temperamento sea ribero, y quizá el éxito del grupo radique en este factor temperamental.

Ya sabe V. que en Pamplona se corre delante de los toros. Pues aquí los tocamos. Esa fuerza traducida a la dantza es formidable.

### **Y, fuera del grupo, ¿quiere hablarme de algún otro?**

Admiro al de Pamplona. Ha sido un grupo perfecto, señorial. Yo le diría a Vd. que con verdadera categoría internacional. Nuestra primera profesora perteneció a ese grupo. Se llamaba Rosa María Azcona.

**¿No cree que pueda desvirtuarse el baile en Tudela?**

Nos hace falta que, de vez en cuando, vengan a actuar aquí para conservar la pureza de la dantza. Quisiéramos llevar esa inquietud al País Vasco para que nos visiten, y como le dije antes, nos animes.

**¿Por dónde comienza el aprendizaje?**

Yo creo que debe cuidarse mucho la jota y los joteros. Lo primero que los muchachos aprenden es el *banako* y las chicas el *arku-dantza*, por la disciplina que exigen. Luego la jota. Hay que dominarla. Nuestros txistularis han sido antes joteros.

**Me ha hablado Vd. de un joven, ese muchacho "fuerte como un roble y entregado al txistu como un místico". Yo quería saber si, entre las chicas, hay algún nombre que subrayar.**

Ya lo creo. Muchas. Quizás el más conocido sea el de Paquita Santos, con su voz verdaderamente privilegiada. Donde quiera que ha actuado ha triunfado siempre.

**¿Cómo recibe el pueblo la música del txistu?**

¿El pueblo? Siempre bien aunque, debemos ser breves. Nuestra música les parece música clásica. No es que no esté educado, no. Lo que pasa es que no está habituado. Pero eso es labor de tiempo.

**Sé que viene a Tudela nuestro txistulari Mauricio Elizalde con su atabalero. Una vez, refiriéndose a los tudelanos, él, Baztán es y euskaldun, me decía: "esos sí que son vascos". Sentirse vasco en el Baztán no tiene la importancia y la fuerza de serlo en Tudela.**

Mauricio es un gran txistulari y un gran maestro. Y su atabalero es excepcional. Y en cuanto a lo otro, créame. Si cabe el más y el menos, los más vascos son estos dantzaris.

Y en esto coincido siempre.

Mendaur

Principe de Viana, 1969, iraila, 2. orr.

"TXISTULARI" izeneko errebistatik artua.

Euskal-Erri'ko gaztetxuak Euskal-Erritik urrun bizi diran euskaldunei:

EGUBERRI ON!

Orain urte asko dirala, gazte batzuek bere erria utzi eta urrutira joan ziran. Urte asko igarota, eskribitu zioten erriko Apezari, eta esan omen zioten beretzaz akordatzeko Gabon denboran eta supil bana bakoitzaren omenean erretzeko.

Eta Apezak jarri zun elizako aurrean arri-pilla bat aldarearen gisan.

Gabon erdia elduta, erriko guziak bildu ziran arri-aldareko inguruan, eta piztu zituzten bost supillak, bost ziralako erriko semeak urrun bizi ziranak. Sugarrak argitu zituzten zar eta txikien arpegiak. Eta mutiltxoak begiratzen zuten nola zarrak negarrez ari ziran.

Gero guziak sartu ziran elizatxoan gauerdiko Meza entzuteko. Eta elizatik aterata, ikusi zuten nola iparralde aize otzak aizetu zitun supil-erre autsak.

Autsak erreka, landa ta basoen gañean erori ziran; eta urrengo urtean aritzak ezkur geiago ekarri omen zuten, eta landak belarrak geiago ardientzat, eta erriko errota zarrak iñoiz baño geiago bueltak eman zituan.

Aita Felipe Murietakoa zenak eginikako Eguberriko Agurra

Principe de Viana, 1967, azaroa-abendua, 4. orr.

## SALDIAS

### San Jose Langille

Maiatzaren leenengo egunean, "lanaren" eguna egiten da mundu guzian. Langilleak, egun orretan, lanik ez dute egiten.

Gure errian, Leitzeko "fabrikara" joaten diranak, ara joan gabe gelditu ziran. ola ospatu zuten San Jose langillearen eguna.

Erriko yendiek, berriz, alor-lanetan ari nai, eta etzuten biderik izan, denbora dela medio. Baño gabean, al zutenak, Mezara etorri ziran.

Lana, Jaungoikoak egin duen gauzarik onena da. lanaren bidez, gizona gizondu egiten da. Jaungoikoa serbitzen du eta lagun-projimoari laguntzen dio.

### Egualdi txarrak

Aspaldietako urteetan, ez du aurten bezin Uda-berri txarrik. Apirillaren 21'ean, errian elurra egin zuan. Maiatzeko illabetean beiñ baño asi izan du, naiz ez paratu errian. Inguruko mendi guziek, egun auk arte, zuri-zuriak egon dira. Maiatzaren lendabiziko ogei-aldi guzia oso txarra egin zun. Atertu gabe beti euria, mendietan elurra zanpa-zanpa eta il-nai zuen aize otza bazter guzietan. Ez ustean bezala egunen bat ona egiten bazuen, biramonean txarra berriz.

Maiatzaren azkeneko egun auk oso polita doazi. Yendea oso pozik ari da bere lantean.

Naiz euri asko egin, lurak etzauden txarrak. Sumatu gabe, lau egunez, egin dira erizioak. Batzuek ongarririk ateratzen ari dira. Badira irauli aurretik ateriak ere.

Beste batzuek, belarretan asi dira. Iñundik ere aurten belar urte ona izanen da.

T.O.

Principe de Viana, 1972, ekaina, 7. orr.

## SALDIAS

### Urte-zar eta Urte-berri

Noiz-baitere, erri batean, Urte-berri egunean, erriko apez jaun batek esaera au: "San Silbestre galtza-zar, yoan da Urte zaarra".

Urte-zaar eta Urte-berriari begiratzuz Sunbilgo umeak, etxez-etxe ibilliaz, "Urtatsak-Urtasketan", nakola abesten omen dute: "Urte berri-berri - zer ekarri berri - uraren gana - etxekandria ona - nagusia ohea - ur ta ararats". "Urte zar - nik atorra zar - maukarik ez - nik axolik ez". Gure erriko umeak ez dute olakorik egiten. Baño Urte-berri egunean, emengo andre bateri entzun nion, bere amatxiari adittutako esaera au: "Gaba egunduz - ari dun gure azkena - urbilduz". Barren-barreneño sartu zitzaidalakoz, emen jarri dut.

### Inaute

Urtero bezala, aurten ere, gure erriko mutillak egin dituzte beren pestak. Ilbeltzaren 11'garrean bukatu. Otordua eta dantza izan zituzten beuen eginkizun nagusienak. Beste jostaketarik etzuten antolatu. Aurreko urtietan aizkora-apustutxo bat izatera saiatu dira. Elkarrekin ongi konpondu dirala entzun dugu. Berri onek asko poztu gaitu. Aserrekeriak iñun ez du gauz onik. Beren onerako, urtero bezala, Meza bat atera zuten. Igandean eman giñuen, kanpora bearrak giñalako, astelenian.

### Erromara ibil-aldia

Ilbeltzaren 21'tik Otsaillaren 4'ra saldistar batzuek egin dugu ibil-aldi zoragarri bat Erromara. Egin arte, dena amets bat iduri zun. Nun-nai eta nola nai zortzi saldistar biltzen giñan. An ikusten zan Yudaneko Franxixka (monja) bere kolore gorri fiñ-fiñekin, deus egiten etzuen bezala, beti alai ta pozik, irri goxo bat ezpañetik zeriola. Ibil-aldi ontan zenbat gozatu ote du monjatxo orrek. Franxixka ain kontent ikustean, denak poztutzen giñan. Gaiñerakoak ere ez dugu gaizki pasatu, Jaunari eskerrak. Alaitasun eta pozaren faltik ez dugu izan. Al giñun guzietan elkar ikustera saiatzen giñan eta gure kantu zaarrak abestuz bukatzen giñuen elkarrekin egotea.

### Mutillak mendira

Iñauteak egin-da bereala batzuek joan ziran beuen mendiko lanetara. Beste batzuek geroago joan dira. Oraindik joatekoak ere badira.

Joan diranak espero ditugu datorren astean, Gogojardunetara. Azkeneko egunetan bederen Pazkoz-egitera etorriko dira.

Gure agurra eta maitasuna bialtzen dizuegu.

### Bide-zabala



Otsaillaren 8'ko egunerokoak (periodico) zion, Naparrako Aldunzak (Diputación Foral) ontzat eman duela Saldisko erritik baserrietara egiteko erabakia dagon bide-zabala edo karretera, eta kostarioa 1.270.750,50 pezeta dirala.

Bide-berri au oso ongi etorriko da denentzat. Baño batez ere baserritar eta erritarrentzat. Gaurko egunean elkartasun bide bat izango da. Denborakin konturatuko gera, bide onek egiten dizkigun mesedeak ikusita, zer ordu onean erabaki zen bide ori egitea. Neretzat, zorionetan gaude denok, iñoiz egoteko ezkerro.

## Elurra

Otsaillak bere ziriak sartzen ditu. Erenego arratsean soñu txarrak asi zuten. Tximista alde batetik, eta ortotsa bestetik. Bereala kazkabarra eratso zion. Kazkabarren atzetik elurra. Atzoko egun guzianm, ortoska egon zen, eta geiago eta gutxiago beti elurra arittu zun.

T. Otsandorena

Principe de Viana, 1970, martxoa, 5. orr.

## SALDIAS

Bide berria erritik Intxuri aldera

Uztailaren lehenbiziko egunean asi zan lanean Pedro Chantre. Lana aurreratzen ari du. Egun batzuek badira Mantxeneko Bordako ur-deposito ondoan ari zirela, erritik asita arañakoa irikita.

Labaindik datorrena berritzeko eta salda beltza botzeko arriketan dabilta. Egiten duten lana oso ongi egiten dute eta bide berria ederki gelditzen da. Atsegiña ematen du bertan ibiltzea. uste dugu urte batzuetako onbi geldituko dela.

Berrero, erriko gizonak batzar egin dute Urrutiñeko baserrietara bide berrien bat nola egin leiken, elkarrekin mintzatzeko. Gauzak egin aurretik, elkarriketa oso naitanaiezkua baita.

Errira Maistra berria dator. Igazko Maistra, Jeru, aurrekoan etorri zen, emengo eskola utzitzen duelako agiria eske.

T. Otsandorena

Principe de Viana, 1970, urria, 5. orr.

## SALDIAS

### Santa Luzi

Aurten larunbatakin tokatu zen. Egoaldi oso otza, baño ateria. Olako egunetan ez du on aundirik egiten euriak.

Entzun giñun Meza ederra eta euskeraz izan zela, eta itzaldia Lesakako Bikario Jaunak egin zula.

Bazen otsa aizkora-apustua ere bazela, eta Latasak eta Mindegiak jokatzeko zutela.

Aizkoldariak, beorien erruz, aizkora giroa guzia galtzen ari duela. Dena da "fin" jokatzeko ez diralako. Pena da euskal-jostaketa ain aipatuz onetaz ori esan bearra.

Saldisko gazte batek bertso aukeratu ditu Santa Luziri buruz:

Abenduak amairu,  
gaur Santa Luzia,  
Donezteben bildu da  
ugari jendia;  
Santa Luzi dutela  
jai izugarria,  
Berak zaindu dezala  
gazteri guztia.

Luzia neskatz gazte,  
martir ta birjiña,  
Sirakusa erriko  
alaba txit fiña;  
zure amari diozu  
sendatu gaitzmiña  
eta egin zera zu  
zerukoan diña.

Goizetik asitzen da  
elizan jai-pesta,  
euskeraz Meza guzi  
itzaldi're baita;  
Santa Luziri eskatuz  
begiteko bixta,  
guziok badute gaur  
nun egin konkista.

Turron eta mazapan  
bazterretan azkar,  
mutill eta neskatzak  
karriketan zear;  
badute zer ikusi,  
zer mintzatu ta abar,  
bakoitzak arki beza  
bear duen izar.

## Ezkontza

Mantxeneko-bordako Joxe Migel Urte-berrik aldera ezkontzen zaigu Sunbilgo nexkatx batekin. Eztaiak datorren illaren iruan dituzte Sunbillan. Inozente egunean egiñen dute pregoia.

Biotz-biotzetik ematen dizkiegu zorionik beroenak eta esaten diegu "aunitz urtez".

## Mutillak etxera

Jaunari eskerrak, ongi etorri dira gure oyan-gizonak. Nik uste ia denak emen dirala. Errikoak beiñpin denak emen dira. Baserrietako bakarren bat izan liteke oraindik alleatzekoa. Deneri gure ongi etorri biotzekoenak.

T. Otsandorena

Principe de Viana, 1970, urtarrila, 5. orr.

## SALDIAS

### Ermitta berritzen

Orain arte egin den lana tellatu berritzea izan da. Tellatuko lana, luze xamarra izan da. Bi egalak, lengotik berrogei bat zentimetro luzeago jarri zaizkio. Bi aldeetan kañeri ederra ere badu, telletatik ixurtzen dena biltzeko. Milla bat tella berri sartu da. Amairu kaprio eta irurogei metro kuadrado lata erriak eman dizkigu debalde. Deitu ditugun guziek, oso gogo onez, etorri zaizkigu auzalanen laguntzera. Bat ez beste guziek egun erdia pasatu dute. Batzueri eta bestieri gure esker biotzekoak.

T.O.

Principe de Viana, 1973, urtarrila, 7. orr.

## URTEKO FRUTUAK

Aurtengo urteaz esan dezakegu oso urte ona izan dela. Gutxitan izaten dira olakoak. Udaberria berandu xamar etorri zen. Orrengatik bazka berriak matso etorri ziran. Orduan azindadunak pixko'at sufrittu zuten. Baño, gero ondu zuenean, naiko belarra atera zuen soroetan. Artoak ereiteko aña ere denborak lagundu zuen. Belarrak San Joan aurreko etorri ziran. San Pedro ondoan egualdi onak eman zion eta sumatu gabe belar guziak egin ziran. Eta gutxitan egiten diran bezelakoa: Euri tanto batek ere etziguten ukittu. Eta askotan eguzkiak ainbeste berotzen zuen-ta, goizean ebakitzen ziran belarrak, atsaldean sartzeko egiten ziran. Olaxe egin zuen Uztailla guzia. Santiago-ta jende geienak belarrak egin zituen. Orduan euri bear aundia zegon. Pixka-pixkaka ekarri zuen.

Aguztuan euria ongi egin zuen. Bazter guziak berrittu ziran. Artoak eta banabarrak beste itxura bat artu zuten eta soroak, argañak, eta guzi, berde-berde jarri ziran.

Nekazarien estupenak ola joan ziran. Geroztik oso aisa gabiltza. Artoak ederki gozaten ari dira. Banabarrak oso betiak dira eta ondutzeko zorian daude. Eguneroko eltzea egiteko deusen kezkarik ez daukate gure etxekoandreak banabarrak pillak etxeratzean. Patatak agudo xamar atera dira berriz jaiotzen ari ziralakoz eta baita ere arbiak patata-ondoetan ereiteko. Denetako denborak lagundu du. Urri-belarrak ere oso onak sartzen ari dira.

Aurten sagarrak uts egin. Ezda sagar urtea izan. Gerezi, aran eta udaretik bazan ongi. Orain espero dugu gaztaña ere aterako dela, naiz jendeak alako grazirik ez egin. Txerri ta ardientzat ez da gaizki etorriko.

Mendian pago-ezkurra oso ongi da. Aurten beteko dira bazterrak txerriz. Ala dira otsak. Bada ez bada, txerrikumeak orainarte oso diru onean saldu dira.

Orain ikusi egin bear erostunak ateratzen dituzten "gananziak".

T. Otsandorena

Principe de Viana, 1968, azaroa-abendua, 7. orr.

## MENDIZ

### Ipar-Amerikako artzaiai

Bear bada, aunitzek ezagutuko duzute, aditu bedere, or zuen artean Idaho'n bizi den apez bat, Santos Rekalde Jauna, bizkaitarra.

Orain dela bortz urte yoan zen Ameriketara ta or Idaho'n, erri txiki batean apez egondu da. Baño eztu Amerikanoei utsa serbittu, baizik batez ere euskaldun artzaiei; au zen bere lenbiziko asmoa yoatekoa, eta ala izandu da ere. Orrengatik erran dut asieran bear bada aunitzek ezagutuko duzutela. Baño orain emen daukagu España'n, denboratxo bat pasatzera etorria bere famili tartean.

Nik ezagutu nuen Iruñe'ko Seminarioan. An eman zigun esanaldi edo itzaldi bat zuetaz; eta mintzatu zen argi ta garbi zuen lanaz, zuen bizi gogorrez, zuen irabazia, zuen erreljio ta bertze gauz aunitzetaz ere bai. Gañera Madril'go "Vida Nueva" deitzen den errebista batean agertu da apez orreri egindako elkarrizketa bat. Gauz ber-berak erraten ditu. Orrengatik iduritu zait zuei interesatuko zaitzuela yakitea zer pentsatzen duen apez orrek, zuen artean bizi den apez onek, zuetaz, zuen lanaz eta bertze problema guzietaz.

"Lendabizi, erraten du, zuen lana agitz gogorra dela, eta iru urtez lanean ari zeratela gelditu gabe, bakaziorik eta deus gae. Eta erraten du Bilbao'k Konsulari eman diola paper bat, informe bat, erranaz zuen kontratuan badirela uts, fallo aundiak, eta zuendako kaltegarriak. Fallo bat da baziorik ez izatea (bertze amerikano guziak badituzte). Beste uts bat da sobera lan egiñerazten dizutela. Omen dira zuetatik aunitz goizeko seietan asi ta arratseko seietan edo lehenago lana utzi bear dela. Erreljioz mintzatzen delarik erraten du traba aundiak dituzutela; ia urte guzian mendian urrun bizi zeratelakotz, baño geienetaz agitz kontent omen da. Ez omen dittuzute atzentzen erreljioko eginbearrak eta omen dira ere egunero Errosarioa erreztatzen duten euskaldun artzaiak".

Auxe da itz guttietan, Santos Rekalde Jaunak zuetaz erran ziguna. Orain aguro yoan bearra da berriz zuen artera, zuei laguntzeko gogo onez beterik. Eta auxe da nik akitzeko (bukatzeko) momentua. Baño lehenago nai nuke deseiatu denei pakea eta zoriona biotz-biotzez. Agur, bertze bat arte.

Tiburcio Sanzberro

Principe de Viana, 1966, urria, 4. orr.

## BERTSO ZAHAR BATZUEK

Bete da mende bat -ehun urte joan dira- Carlos VI'garrenak bere lehendabiziko guda kolpea eman ezkeroztik. Hori zan 1869'ean. Ta oraindik gure herrietako zaharrak esaten dituzte gerra honen eta beste gerra karlisten eziñak, asarreak eta bildurrak, haiek ere -guda guziak bezala- herriko jendeari ekarri zizkiotenak. Izan ere hementxe gure herrietan jokatu baitziran burruka haiek.

Ta orain dala hainbeste urteko gora-bera hoiek, aitag semeari ta semeak illobari esandakoak, izaten dute alderdi biguin ta xamur bat: Ez baitira eginkizun aundietako kontuak, baizik eguneroko kontu txikiak, alde bateko ta besteko tropa herri koxkorretan dituzten oroimen txaharrak, eta odolaren bero guziakin gudan ibill ondorean deustara ez dala irtsi ikusteak dakarkin trixtura. Hori da egiaz kondairarik garrantzitsuena. Eta gertatzen da nahikoa iruditzen zaigula askotan jakitea beltzak edo zuriak irabazi zutela, ta askoz ere mamitsugoa litzake askotan jakitea zer ote dioten izandutako guda batez ezpatak edo fusillak edo kañonak erabili zituztenak.

Lehengo batean, billatu gabe arkituak, entzun nitun bertso zahar batzuek esaten ari naizen orain dala ehun urteko gertaera hauetaz. Gutxi dira, bi lauko ta zortziko bat.

Lehengoak aipatzen du, zalantzik gabe, Saboyako Amadeo, naiz ez esan izenik. Gizon ona zan, liburuak diotenez Amadeo zalako hori, borondate onekoa beintzat. Italianoa ordea ta handik ekarri ta jarria Isabel bigarrenak iges egin zuenean, ez baizitzien iduritzen erregerik gabe egon zitekenik. Baina alde batekoak eta bestekoak danak gorroto zioten eta parragarritzat hartu zuten eta bi urte bakarrik iraun zitun. Lehendabiziko lauko aipatu hortan parragarri uzten du ta arrunt tonto bezala, eta izen hortako erregeak etzezaken iraun.

Urrengoetan ageri dira gudak dakarzikin desiluzio ta samiñak. Bertso hauek ez dute gai berdina eta baliteke ez izatea garai berekoak ere... badirudi zortzikoak hitz egiten dula karlisten lehendabiziko gudaz; hura bakarrik izandu baitzan sei zazpi urtekoa. Eta azkeneko utsegunea: Zer ote "bonbeatzeko"ren esan nahia?

Erregea badegu  
italianoa, italianoa  
pertz konpontzalle eta  
gañera tuertoa.  
Pertz konpontzalle eta  
gañera tuertoa.

Batzuk karlistek eta  
bestek liberalak, bestek liberalak  
ore baten opillek  
denak igualak  
ore baten opillek  
denak igualak.

Beltzak bonbeatzeko  
ontzi zar batean  
junta egin genduen  
geren artean.  
Sei zazpi urtean  
alperrik nekean  
orain emen gabiltza  
beltzen artean.

Gorka Trintxerpek

Principe de Viana, 1969, uztaila-abuztua, 3. orr.



Nere olerkirik ederrena  
poemarik txukunena  
poxporo baten suak  
erre zuen!  
Lerroz-lerro  
egunez-egun;  
bukatu zen zoriona  
joan zitzaigun pakea;  
eta urtez-urte  
poemaz-poema  
ederrena egitera  
iritxi nintzenean  
orduan  
poxporo baten sua  
aski izandu zen...  
eta gure maitasunaren landarea  
sukaldeko beroan lerdena  
arretaz eta xamurkeria  
hazia  
landare hura  
egunsenti batean  
gezur baten  
susmur baten egaletan  
joan zen  
nere olerkiaren  
paper errearen  
ilaunaren antzo!

Gorka Trintxrepe

Principe de Viana, 1972, martxoa, 3. orr.

## BESTE HISTORIA TRIKTE BAT

Zozo, zozo, zozo  
zoro, zoroa  
lodi, lodi, lodi  
geldo, geldoa  
motel, motel, motel  
gaixo, gaixoa  
denek par egin zioten  
mutil gizararaixoa!

Poliki, poliki  
harremanetan.  
Potzolo potzolo  
jolastegietan.  
Parragarri beti  
mutil mordoetan  
maitasun ezkilak jo zion  
barne muinetan...

Eta par egin zion maiteak  
nola etzion parrrik egingo?  
denek par egiten zioten  
herriko zoroari...  
Eta hilik agertu zen egun batez  
neska eder hura  
herriko neskarik lirainena  
labankazoz  
hilik agertu zen;  
Eta inork ez daki  
eta inork ez du susmurrik!  
Inork ez lezake izan  
zoroaren susmurrik!

Bat ba zen, bai  
bat ba zen zekiena...  
-"Huraxe karraxia  
eta begiratuaren zorrotza!

Jakingo du betiko  
neu nintzela hil zuena  
neu nintzela  
bere bizitzaren jabea".

Eta hortxe igarotzen du denbora  
jende tarteko bakardadean  
inorekin  
bere sendikoekin ere  
iaia hitzegin gabe;  
beti "karraxi hura"  
begien aurrean;  
adarra jotzen diote mutilek  
umeez deitzen dute tutula  
eta denen parragarri  
poliki, poliki  
tutul, tutul  
gure zoro zozoa  
hor doa  
bere mundua den  
jende tarteko bakardadean  
bere defentsarako  
gorrotoa eta isila besterik  
aurkitzen ez duen munduan  
tutul egin zuen amaren alboan  
par egiten dion jendetzaren tartean  
beti gauza bera buruan...  
eta irripar xume bat  
irripar gorrototsu  
eta ikarati bat  
inor begira ez daukenean...  
bera onartzen jakindu ez duen  
elkartetik  
alde dagoenean...  
bere ezpainean!

Gorka Trintxerpe

Principe de Viana, 1972, otsaila, 3. orr.

Erreka barreneko  
harri bustiaren sabel lehorra  
dut gogoan.  
Nagusiari nahitanahiez egindako  
irripar behartua  
dut gogoan.  
Txantxangorri kabiko  
kuku kumea  
dut gogoan.  
Asfaltopeko  
lurraren indar alferrikakoa  
dut gogoan,  
amorruz  
ezinez  
nere herriko  
hainbeste ergelen aurrean.

Miseriz inguraturiko  
aberats ospetsua  
dut gogoan  
Epulon, Rostchild  
eta esan ez dezakedan beste asko  
dut gogoan.  
Maitasun kantatan  
ari den monjearen gorrotoa  
dut gogoan  
nere herriaren  
egoera kaxkarrean.

Baina  
zuhaitzak eta izarrak  
nahasten diren tokian,  
gauzak eta ametsak  
elkartzen diren tokian,  
emakumea eta emaztea  
bat egiten diren tokian,  
han  
zeu zagoz neretzat.

Lurrak eta zeruak  
elkar ukitzen duten tokian  
karelean<sup>1</sup>  
zorionaren irudia den  
karelean,  
han  
neretzat  
zeu aurkitzen zara.  
Eta zugan berpizten zait  
egunsentiz herria;  
ez oraingo eta ez hemengo,  
baizik eta zuhaitzak izarrekin  
nahasten diren tokiko,  
ametsezko  
eta geroko  
(eraikiko dugun)  
geure herria:  
Euskal herria.

Gorka Trintxerpe

Principe de Viana, 1972, urtarrila, 3. orr.

<sup>1</sup> Karela = horizonte.

---

## GERNIKAKO ARBOLAREN ERIOTZA

Gaitz makurren bat badaukala diote Gernikako arbolak. Igartzera dijoala. Eta hori ez gertatzeko bere osasuna kimiko baten eskuetan jarri dutela. Hori irakurri dugu behintzat aldizkarietan.

Nere iduria, naiz kaxkarra, agertu nahi nuke aritz harren gaitzaz. Ez, ezta kitelako edo badakitelako nolakoa dan gaitza edo nola sendatu liteken; ez; baizik arrunt beste alde batetik begiratuta.

Barnard sendagilleak bihotzak aldatzean, eta bere eskuetan erabiltzean bihotz eria eta bizkorra ateratzeko edo sartzeko, kendu dio bihotzari lehen zuen sinbolismoa, esan nahia, irudia! Barnarden eskuetan dagon bihotzak ez dio ñori maitasunik gogoratzen; galdu du esan nahi hori. Bihotza ez da gehiago maitasun irudia. Illargia gizonak ankapetzean jainko bat, lehen zanaren antzera, ezin izan liteken bezala. Aldatu egiten zaigu bere irudia nahi ta nahi ez.

Gernikako aritzari berdin gertatuko zaio kimiko baten eskuetan jartzen badute: beste aritz bat, edozein bezala sendatu edo ilko da. Entzungo dugu Sulfitoren bat falta zaiola, edo "mildius maleficus" duela, edo...

Hori guzia beste aritz guziak ere izaten dute... Eta Gernikako arbola beste edozein aritz bezala erabiltzen badute, beste edozein aritz bezala geldituko da: zain, egur eta ostu. Eta ahaztuko zaigu beste aritzetatik berexten zuena.

Gaxo badago, il bedi!

Bere eriotzak zerbait esan nahiko du!

-Igartzan bada ez al da gure egoeraren irudi?

-Zertaz ote dago zutik oraindik?

Gorka Trintxerpe

Principe de Viana, 1969, urria, 6. orr.

Eskazale naiz  
eskazale  
aterik ate nabil  
beti aterik ate.  
Nere izenarekin dituzte  
umeak ikaritzen  
"Larru-zahar" deitzen naute  
inork ez nau maite  
baina inork ez dit agintzen.

Gauari diot beldurra  
hotzari ikararia  
goseari gorrotoa.

Inork ez du nere esparik  
ez bait dut deus kentzekorik  
baina nik ere ez dut maite  
inongo gizasemerik.

Ez dut inor maite  
ez nau inork maite  
eta ez du inork nere esparik.  
Ni hil edo bizi  
da berdin berdin.

Lurra eta eguraldia ordea  
nereak dira  
edozeinenak hainbat  
askorenak baino gehiago.  
Landare bezala naiz  
zainak dauzkadana  
lo egiteko lurra  
nere soinaren beroz  
berotzen dudana.  
Eta udaberrian lurra mugitzen da  
berotzen da nere kopetaren kontra  
nik berotuko banu bezala...  
Eta maite dut ingurua

maite dut lurra  
maite dut alderdia.  
Atzarritar jotzen ditut  
kaleko hainbeste seme  
ez bait dakite  
lurraren usainik,  
eurijasaren ondoreko  
lurraren usainik.

Lurrekoa naiz  
lurreko landare,  
lurrak nau maite;  
ni naiz lurraren jabe  
eta deus gutxiren truke  
ibiltzen naiz eskazale.  
Eskazalea bait naiz ni  
eskazale  
aterik ate nabilena  
beti aterik ate.

Gorka Tzintxerpe

Principe de Viana, 1971, azaroa-abendua, 5. orr.

## LEITZA

### Xixe-txapelketa

Ill honen ogei ta zortzian izan zan Leitza xixe biltzaileen bigarren txapelketa.

Txapelketa hontako paper bat neukan eskuan eta lagun batek -urrutiko laguna, amerikanoa- ikusi ditenean asi zait galdezka: *iha nola egiten dan txapelketa hori, iha zer behar dan irabazteko, iha danak xixe biltzen asten diran mendiren batean...*

Esan diot bakoitzak ekartzen ditula bildu ditunak, ongi berezi eta gisekoak gisekoekin jarri ondorean; eta asko izateak, ongi berezteak eta beste gauz askok esan nahi dutela.

Harrituta begiratzen nindun; eta azkenean betiko galdera atera zaio: *Zertarako egiten duzue holako txapelketa bat Kirol bat al da hori?, apustu bat al da?, jostaketa bat al da?, zer da?*

Jarri nau estutasun batean. Eskerrak Aita Iturriotzek behin esandakoaz oroitu naizen: "Euskaldunak beren lanetatik atera dituzte kirolak; beren lanak edo eguneroko egin beharrak egin dituzte kirol; segan ari diranean asten dira nor-geiago'ka eta hor daukazu kirol bat. Egur ebakitzean berdin: iha nork bukatu aurrena; lasterra, egunero egin behar zana, berdin! idi-apustua; harri-jasotzea, edo soka-tira, arrantzaleak egunero arrai ateratzen egiten duten saio-gisa".

Bainan palenkariak, beren palenkekin, izkutatu zitzaizkigun, palenkako lana bukatzean; sega, aizkora eta idi-apustuak arrixko bera daukate. Ezin liteke beste era batera izan. Lan bezala bukatzen badira, ez dezakete kirol bezala iraun.

Gure izanera ordea -lehengoa bada- ekarri behar digu beti eguneroko lan eta ibilleretan nor-aurrena galdera.

Xixak lehen biltzen ziran jateko, janari bat ziran. Orain, esango nuke, jaten dira biltzeko, afizio bat dira, griña bat lan batetik sortua; baiñan griña bat kirol bat sortuarazi dezakena eta sortu diguna: xixe-apustua: nor geiena xixak biltzen?

Dirua, dirua, dirua... alde guzietatik ittotzen gaitun ots horren aurka badakigu badirala oraindik mendizaleak oiñez joaten diranak naiz kamio bat izan, eta xixe biltzen ibilliko diranak ibiltzeagatik bakarrik; jokatzeta ta ez irabazteza baita deportista izatea.

-Harrigarria, harrigarria (eztul egiñaz esan dit ondotik nere lagun amerikanoak. Asi ezkerro hizketa ez bainaiz ixiltzen... urregorako badaki noski). Eta txapeldun ateratzen ez diranak zer?

-Ez al du xixe bakoitzak -gibel urdin edo urritzperretxiku- txapel bat biltzaillearentzat?

-Harrigarria, harrigarria, zion berriz ere. Oraindik etorriko gera herri berriak zaharregana gazteak izaten ikasteko, eta hemen asi zait mintza ta mintza bera, eta azkenean ni ari behar izandu dut eztulka ta "harrigarria, harrigarria" esanaz...

Gorka Trintxerpe

Principe de Viana, 1969, urria, 5. orr.

## Xixe Txapelketa

Joan den irailaren hamazazpian izandu zen Leitzan Xixe azalketa bat, Nafarroako txapelketa ere zelarik bat batean. Etorri ziren guztietan lehendabiziko atera zen Gazteizko "Iradier" taldea. Eta bigarren Tolosako "Uzturre". Nafarroakoetan berriz lehenengo gelditu zen, eta horrengatik txapeldun izendatu, Etxarri Aranazko "Gure Etxea" taldea. Hamasei talde etorri ziren, eta horietatik zazpi edo zortzi izanen ziren Nafarroakoak. Oso jende asko ibili zen begira; gero eta gehiago gustatzen zaizkio jendeari holako txapelketa mota hauek. Urtero bezela Leitzako "Aurrera" taldeak eratu zuen txapelketa hau, Donostiako "Aranzadi" ren jurado edo epaiketarekin eta Nafarroako "Caja de Ahorrosek" laguntzen zuelarik.

Denok dakizuten bezela "xixe txapelketan" ekartzen dira ahal diren xixe guztiak eta jartzen dira bandeja batzuetan jendeak ikus ditzan. Gero jendea kenduerazi eta epaileek egiten dute beren epaiketa. Eta epaiketa hontarako gogoan edukitzen gauzak hauek dira ea zenbat xixe mota ekarri den; ea ongi ezagutuak dauden eta ea bakoitza bere gisekoekin dagoen. Aurten irabazi duenak ekarri zituen hirurehun eta larogei bat xixe mota ezagutuak, beren izen teknikoa, latinez, erantsi zeukatelarik; eta izanen zituen gainera beste hogeien bat mota ezagutu gabeak. Denera izanen ziren txapelketa egunean bostehunen bat xixe klase, beren izenak jarriekin.

Lehenengo urteetan holako txapelketa hontan ez zen izen teknikoa jarri beharrik izaten; baizikan bakarrik ea jateko baliodunak ziren, ala pozointzuak, ala baliorik ez zutenak. Orain izena ere jarri egin behar; hau zailagoa da, baina dauden liburuei esker oso ongi egiten du askok.

Aipagarria da baita ere "Aranzadi"-k ematen duela urteoro sari bat "Entoloma libidun" delakoaz ale ederrenak ekartzen dituenari. "Entoloma libidun" hau xixe txuri eta mardul bat da. oso ona du usaia. Eta antza handia dauka "pago-xixe" esaten zaionarekin. Ba dira beste batzuek askoz pozointsuagoak, baina "entoloma" aipatuak itxura du oso ona eta horrengatik hainbeste kalte egiten du. Aurten ere ba dira honen medioz hildakoak eta baita ere gaizki egonak. Nere ustez askoz hobea litzeke, lehen egiten zen bezela, bi edo hiru xixe klase besterik ez jan; besteak jan ditezkeela jartzen badu ere txapelketarako txartelak, txapelketarako bakarrik bildu. Gainera ez bait da batere erregularik xixe bat ona den ala ez jakiteko. Bakarrik balio du ezagutzeak eta kitto!

Azkenik ohar bat, Donostiako "Aranzadi" taldea aspaldiko urteetan gutxienez hamabostean, xixak klasifikatzen eta beren mapa egiten ari da. Diotenez laister agertuko da Euskalerriko mapa mikologiko osoa. Baina beste aldetik irakurri berria du "ANAN" ere hasia dela orain Nafarroako mapa bat egin nahiean. Egitan harritzekoa. Zeren eta "Aranzadik" (Nafarroako txapelketa azkeneko lau urte hauetan eratzera etorri den Aranzadik) argitaratzen badu bere mapa ez dau ANAN-ek deus egiterik. Askoz lan gehiago egin dute gauza hontan eta gehiago bait dakite. Zergatik ez harremanetan sartu? Beti bakoitza bere aldetik ibiltzen gara.

Euskalerriko mapa mikologiakoan Nafarroa barrenean egonen bait da. Eta beste edozein mapatan ere bai!

Gorka Trintxerpe

Leitzako perretxiku txapelketa:

## GARMENDIA LEHENDABIZIKO "BETI BEZALA"

Naparrokoetan Tiburtzio Azpiroz

Leitza-ko xixe-txapelketa agertzen zuten paperetan zion, Naparrokoa zala txapelketa hori. Ondorean periodikoak zioten Villafranca-Oria'ko Garmendiak irabazi zuela, eta ez zuten aipatzen denen artean hirugarren geldituagatik Naparroko txapeldun atera zala Leitza'ko gazte bat: Tiburtzio Azpiroz, obeki entenditzeko Tiburtzio Monteroana, bere taldearen buru bezala.

- Aizu Tiburtzio, galdetu nion atzo gabean, zertarako izaten da xixe-txapelketa bat?
- Jendeak ikasteko xixak berezten. Gero ta jende gehiago ibiltzen da xixak biltzen, baiñan beti jan izandu diran lau edo bost klase besterik ez dituzte jaten, eta jan ditezke hirurogei benik... ezagutzeko ordea ez da aski behin ikustea. Oso zailla da denak ezagutzea.
- Zer egin behar da holako txapelketa bat irabazteko?
- asko bildu eta ongi berezi.
- Eta hortarako?
- Asko jakin eta asko ibilli. Eta obe mordoxka badira dabiltzenak, eta ez bat.
- Aizu Tiburtzio, eta nola diteke Garmendia horrek beti irabaztea
- Lehen esan dizutena: gehiena dakilako eta gehiena ibiltzen dalako. Hori "fenomeno" bat da gure aldean. Azkeneko igandean ekarri zituen Tolosara 490 klase.
- Eta zuek?
- Guk hiruetan eun. Baiñan klase bat (ezagutzen ez genuna) Australian egiten dana, eta europan esan zuten ez oraindik behin bakarrik arkitua izan dana.
- Eta apustuko xixe hoiekin zer egiten duzute?
- Gehienak utzi; bat edo beste altxatzen dute estudiantzeko. Leitza'n bazkaltzeko garain norbaitek arrapatu omen zituen... Behar bada ongi ezagutzen zituena izango zan, baiñan nola nahi ere gauz arrikkoduna da eta debekatua egoten da apustu-onttoak artzea. Edoizeinek aldatu dezake txartel bat. Eta gaiñera onttoak elkarrekin ukitu eta igurtzitzea ez da zailla.
- Beste zerbait Tiburtzio?
- Bai; Leitza'n agertu giñan C.D. Aurrera bezala eta nik eman nuen taldeko buru izena; baiñan hemendik aurrera gure mikologi-taldeak izena izango du Guratz.
- Ba, aurrera Tiburtzio, naiz ez joan Aurreraren izenean.

Holaxe hitz egin zuen Tiburtziok, obeki entenditzeko Tiburtzio Monteroan.

G.T.

Principe de Viana, 1969, urria, 4. orr.



## HAUR BESOETAKOA

Jon Mirande

Jon Mirande ba zela besterik ez nekien, orain aste gutxi arte Bere izena ordea ez nion idea-gaietan deuseri lotutzen. Motz esateko ez nekien Habash bezain ezkertarra ala Henry Ford-en laguna den, edo, beste erdipurdi asko bezala, hura ere bere "rakidalismoa" hitzez ezin agertueraziaz dabilten horietakoa den. Bere bizimoduko xehetasun batzuek eta aurkakoez egin zizkioten epaiketa gogorregiak agertzen ditu G.A.-ak liburuaren sarreran eta Arestiar-ek ANAITASUNA-ren 195-garren zenbakian; beldur dela adierazten duelarik nobela hau gordinegia idurituko ote zaien "euskaldunen pentsa-molde mehar eta zaharrari".

Dena dela, Mirande-ren *Haur Besoetako*a arretaz irakurri ondorean, nere azterketa eskaini nahiean nator, sakonkitasun zenbait dakazkidala ustean.

### I

GAIA.- Nobela psikologiko baten aurrean gaude. Eta gai guztia gizon edo jokalaria bakarti baten asmoak, zalantzak, grinak eta hauen bitartez bere nortasuna agertzea da. Agerketa hontarako grina bat aukeratu du Mirande-k: sexoarena. Eta sexo-grinaren barrenean zati berezi bat: zeloak. Hitz hau ez da behinere agertzen nobela guztian; hala ere ziur nago bere gaia dela. Eta ongi aukeratua gainera, edozeinen nortasuna jakiteko eta agertzeko zer motatako zeloak dituen jakitea oso garrantzitsu izaten baita. Zeloak bakoitzaren izaneraren irudi gordinenetako bat izaten dira. "*Esaidazu nolako zeloak dituzun eta esango dizut nolako zeran*", esan genezake.

Psikologi-nobela aspaldian hasia da. Gehien bat ordea Freud-ez geroztik. François Mauriac-en "*Suge gorrien korapiloa*" nobela mota honen goieneko mailan agertzen zaigu. Izan liteke, diotenez, psikoanalisisa saiaera bat. (Nobela hontara berriro itzuliko gera azterketa hontan).

Baina jarrai dezagun Mirande-rekin. Honerainokoa gauza bat utzi dut garbi: *Haur besoetako*a ez dela "gizon adineko eta nagusi baten eta hamar-hamaika urteko neskatxa baten arteko amorioen historia". Hori guztia inguruan jartzen dugun aitzaki bat da.

### II

JOKALARIA.- Aita besoetako. Izenik ere ez dakigu. Lanik egin gabe, bere gurasoen diru apurrak janean bizi den hoge eta hamar urteko mutil motel bat.

Bizimodu kaxkar hau bere nortasuna hiltzen ari zaio; eta egoera honek ezin-etsi bat ematen dio; eta ezin-etsi horrek itsumen bat: sexokoa. Baina sexoko itsumen hori bere nortasuna ezin-azalduaren adierazpen bat delarik.

Eta hona zer grina sortzen dion itsumen horrek: Emakume bat, "oso berea" egitea, berarengan besterik pentsatuko ez duena, bera besterik ezagutuko ez duena, berak hezitakoa... Hitz gutxitan beste izaki bat sortu, bera den izakiarentzat osagarri. Eta hortarako neskatxa bat behar; sekulena ez emakume eta ez neskatxa izandua, beste inor sekulena laket izandu ez zaion neskatxa bat. Eva bat.

Honelako gogoetak izateko oso egokia da hoge eta hamar urtetan deuseri egin gabe bizi den mutil bakarti eta alferra.

Baina bihur gaitezen berriro "*Suge gorrien korapiloa*" François Mauriac-en nobelara. Hartan ere gaia zeloak dira, eta horiek egiten dioten korapiloa ezin askatuz amorrugan mugitzen da jokalaria bakarti bat. Historia oso desberdina da, baina ez ote daukate zer ikusi handirik nobela hauek?

### III

ZABALKUNDEA ETA BUKAERA.- Psikologiko-nobeletan ritmoa ez da gertaeraetan egoten, nobelan aztertzen diren jokalarien psiko-aldaketetan baizik. Gertaerak aitzakiak dira, lehen esan dugun bezala.

Alde hontatik begiratuz gero, *Haur Besoetakoa*-n erdiko kapituloak (hirugarrena eta laugarrenak) hasierako abiada galtzen dute. Ba dirudi Jon Mirande-k erraztasuna hartu diola ipuinari eta hortan saiatzeko dela; laugarrenean ordea -dena esan behar da- ba da gertakizun bat adierazpen handikoa zalantzarik gabe: Theresaren potretarena alegia.

Beste berezitasun bat ere aipatu beharrean nago oraindik gertaeraen zabaldunde hontan: Lehendabiziko begiratuan ritmoa Theresaren gertakizunak eta aldaketak ematen digutela dirudi: bere etorrerak, bere lotsa galtzeak etab. Hori ordea irudi faltso bat da; Nobela guztian ez baita behinere Theresaren psikologia agertzen, bukaeran ez bada, baizik bere aita besoetakoarena. Jon Mirande-k ere ahaztu du hori eta hirugarren eta laugarren kapituloa moteltzen zaizkio hain zuzen horretxengatik.

Bukaera oso polita deritzat eta ongi eramana.

### IV

HIZKUNTZA.- Purista deitutako horiek txorakeri asko esan dituztela ukatzerik ez dago. baina gaur euskeraren baratzean sartzen ari geran gazteok garbizaleak gerala ere agirian dago. Eta gainera beste aldetik ere erori ditekete zakarkerian. Inongo herri normalak ez du behinere esan "sufizienteki informatuta" adibidez. Nik behintzat haitz pozik irakurri dut bere euskera garbi eta ederrean!

LUR Editorial-ek nobela hau argitaratzean asmatu egin du. Eta "Batasunaren kutxa" jarraituz euskera batuan jartzean irabazi du bere bigarren puntua.

### V

EPAIKETA.- Psikologiko-nobela on bat. Ez ordea nobela handi bat. Bere akats handiena nere ustez aita besoetakoaren tipoa ongi borobildu gabe uztea da. Ez bait-zaigu jokalaria bakar honen nortasuna osorik agertzen... Jon Mirande-k, deritzat, gainera ez duela deskripzionetan bere alderik bizkorrena.

Oraindik ez dakit nola pentsatzen duen Mirande-k. Ez daukat esan beharrik epaiketa hau egiteko hori ez dela beharrezkoa. Aipatuko dut soilki nobela hontan hiru aldiz konparatzen dituela gunea edo momentoa eta betikotasuna; eta hor Henri Bergson filosofoaren alorrekoa da.

### VI

Euskaldunen betiko pentsa-molde zabalak harrera on bat eman bezaio ipuin berri trebe honeri.

Gorka Trintxerpe

Principe de Viana, 1971, azaroa-abendua, 5. orr.

## NERE ARREBA PAKITARI

Gure ametsak behar badute  
egin ditezkenak bakarrik,  
gure nahiak  
beteko diranak bakarrik,  
gure asmoak  
egingo diranak bakarrik,  
nik  
kenduko dut nere izena  
gizonen artetik.

Ojinoren semea banaiz  
ta banintzala jakitean goibeldu baziran,  
maitatu nindutenak  
begiratu bazioten nere besoen indarrerri  
ta arpegiaren ederrari,  
nitaz negar egingo dutenak  
oroituko badira nere irabazietaz,  
Ta ezagutzen banaute  
errenkada luzean zenbaki batengatik  
nik  
kenduko dut nere izena  
gizonen artetik.

Baina nik  
neronek  
trukutzen badut noizbait  
txanpon-sakela eskubide batengatik  
ahoa estaltzen bazait  
urre ta zillarrarengatik  
ikaratzen banaute giltza soinuagatik  
-arratsaldean asia-  
bukatzen bada goizetik  
ken bezaidate izena  
gizonen artetik!

(Hola zion herriko zaharren  
jakinduriak liburu ta horri gabeko  
esanera zaharrean:

"Gau batean  
izar bat arrapa omen zun  
ta erakutsi zigunean  
ipurtargi bat ikusi genuen  
bere eskuan").

G.T.

Principe de Viana, 1969, uztaila-abuztua, 3. orr.

## Arnas Berri

### ARTEA GAURKO KULTURAN

#### Ez ulertzetik ez sinistera

Gaurko artistek sortzen dituztenak, margazki edo irudi, gehienak jendeak ez ditu ulertzen! Hau hola da. Esate baterako Picasso baten margazkiri gure herrietako gizaseme askok ez dio deus aurkitzen, eta berdin Txillidaren eskultura bateri, nahiz Txillida hemengoa izan. Eta berdin gertatzen da besteekin. Ez dute ulertzen, baina oso onak direla esaten zaie, millonak balio dituztela... eta sinisten dute; baina ez beti! Azpi-azpian zalantza txiki bat gelditzen da marra oker horiengatik hainbeste pagatzea erokeria ez ote den, denak erotuak ez ote dauden, eta majina bat txiste egiten dira gai hontaz. Eta galdera bat datorkigu bereala: Iritxiko al da inoiz jenderik gehiena arte berri hau ulertzeraz? Ezin liteke ezetz esan. Gainerakoan begira nola herrikoitu den orain hamar urte hain ulerkaitza zidurien musika. Orain dozena bat urte par egiten genuen Beatles-en musikaz dantzatzen dira gaur gure senide txikiak.

#### Fotografia eta sortzaile gogoa

Fotografia agertu zenetik (eta orain margoduna ere arrunt zabaldu da) margolariei eginkizun bat kendu zaie, ate bat hertsu. Diren gauzak nolakoak diren edo ikusi genituenak nolakoak ziren jakiteko argazkia bezelakorik ez da! Lehen erregeek margolaririk onenak eramaten zituzten beren jauregietara, gaur lehendakariak edo politikoak beren argazki ofizialak zabaltzen dituzte.

Margoketari, pinturari beste bide bat gelditzen zaio: sortzea; eta berdin eskulturari; ez gauzak, izakiak, "kopiatzea", baizik berriak sortzea, egitea. Hau beti egin du artistak, egia da; eta bestalde gaur ere ez dezake ahaztu izanera, baina bere elburuak ezberdinak behar dute.

#### Egoera, pentsakera, azpi-ezaguera eta artea

Artea, edozein arte mota, zerbait adierazteko da. Baina adieraztean hiru gune daude: Nork, nori eta zertaz. Azkeneko hontan dago kakoa; eta bertan finkatzen da artea. Hirugarren elemento hontan, bitartekoan lehendik beste bien (nork eta nori) ados egon behar bait dute. Gainerakoan batek esan nahi duena besteak ez du ulertzen. Bien artean behar du batasun bat, lokarri bat bada ere. Pentsakera, ezagueraren ondorio bezela, logikoa eta gizon bakarrarena agertzen zaigu... azpi-ezaguera (subkonszientea) berriz arruntagoa, logikarik gabea, baina garrantzitsua (batez ere borondatearen erabakietan). Eta artea eta artista, hemen dabil ezaguera eta azpi-ezagueraren adierazpenen mugetan! Ez "polita" edo "ederra" hitzen morroi. Hitz hauek berak adierazteko diren bitartekoetan sustraitzen bait dira.

#### Kultura eta anti-kultura

Bi egoera arrunt ez berdinetan jarritz gero bi gizaseme ez lukete elkarrekin bitartekorik izango; bi kulturatakoak izango lirake. Baina hau elkarte batean gertatzen bada eta gainera gune berean kultura eta anti-kultura dira. Gaur hitz hauek esaten dira; lehen modan zegoen esatea: nahiz elkarrekin egon ez dute elkar ulertzen; ez daukate deus berdinik, ez elburu, ez

pentsakera, ez nahimen... antikulturaren egotea "estrukturatan sartu gabea" bezelatsu da, baina ezin mugatu ditezke behinere oso zuzen holako egoerak.

Herrikoi kultura euskal kultura

Idea hau mugatu nahian, beti hasi izandi dira berezkuntza bila, kulturen arteko ezberdintasunen bila. Nere ustez hasiera sakonagoa litzake beste hau: Zer aterapide dauka gaur euskal kulturak? 1) teknika berrietaz jabetzean, 2) beste kulturekin nahastean. Kultura baten izatea ez bait da ezberdintasunetatik daritzen. Eta gainera "apparteid" kulturalak ezin iraun bait lezake.

Hitz bat zahartuko dena: kultura

Gehiegi erabiltzen delako, gaizki erabiltzen da. Bere alde dauzka estudio sakonak, Malinowsky-tik hasi eta Levy Strausseraino, Barandiaran ahaztu gabe... Baina bere aurka herrikoitze arruntagia. Orain dela hogeitamar urte folklore hitzak, gaur kulturak esan nahi duena esan nahi zuen... eta hasiak dira dagoneko hor nonbait "kulturalista" hitzari "folkloriko" hitzak duen tankera txarra erasten.

Patxi Z.

Principe de Viana, 1972, ekaina, 3. orr.

ASKATASUNA

Olinpo mendian  
tximista erori da;  
ia ezta jainkorik  
Olinpo mendian.  
Zer gertatu ote?  
Nola tximistak erre  
bere nagusiak?

Leiza zuloetan  
lamiak izkutu;  
sorgiñak aspaldian  
ez dira agertu;  
bezen begiratu ederra  
eta orrazea  
ta kalpar ori luzea  
nun dira?  
Askatasunak iritsi omen ditu!

Bai,  
askatu dugu gizona  
ortziko lokarrietatik.  
Orain lurrean  
gizona ta gizona  
gizonak bakarrik.

Ala ere  
askatasuna  
oraindik urruti.

Ta gizonok  
alkar menperatzalleok  
erabiltzen dugu  
orain  
itz askatasuna  
gabiltzanean burruka  
alkarren aurka;  
Askatasuna batzuek  
askatasuna besteak.  
Olinpo utsera

Jainko berria  
igo da:  
Askatasuna.  
Jainko gazte  
jakin zazu  
lehengoak ere  
gizonak igo zitula  
ta ondorean  
gizonak erre!

Zure izena bera  
ahaztu nahi nuke,  
Jainko egiten bazaitugu  
zure izenean  
biurtuko baigera  
menperatzalle.

Guda ta karraxi  
zalaparta ta txinparta  
hemen gabiltza  
eziñ konponduaz.

Zuk  
Jainko gazte,  
zuk daukazu itza  
gure bizitza  
zuzentzeko.  
Jetsi zaitetz Olinpotik  
etzaitezela izan  
izen.

Biurtu zaitetz  
aragi,  
jetsi  
suburbioetara,  
ikusi  
ume larrugorrikoak,  
iriki  
menperatzalleen espetxeak,

erakutsi  
danak larru gorrian jaiotzen  
danak ahuts biurtzen,  
libratu  
herri oiñperatuak.  
Egin gaitzazu  
danak berdiñ  
berdiñ!

Ez gelditu Olinpoan  
Jainko gazte;  
jetsi,  
jetsi!

Lema: Jainko berri

Frantzisko Zabaleta

Principe de Viana, 1969, apirila, 3. orr.

## EUSKAL NOBELA

Herrien literaturak, edozein herrirenak, bere kulturaren adierazpen labur bat besterik ez denez gero, izaten du gaztaro bat; ez da berehala eginik agertzen. Literaturak bi alde ditu: idazlearena eta irakurlearena; bata ezin aurreratu zaio besteari. Zaila da idazle ondu bat ateratzea, oraindik pipitak dauden irakurleen artean. Antzerki egile onik ezin izan antzerkirik egiten ez den tokian; edo zine egilerik, zinerik ez den tokian.

Gure literatura oraindik gaztaroan dago; eta idazle gazteei bezala gai motzak eta errazak zaizkio atseginen. Idazle baten hasieran, gehienetan, ba dago poema liburu bat (*ikus diteke gai hontaz "EGUNERO HASTEN DELAKO"* nobelari Ibon Sarasola-k egindako prologoa); ipuinak, saiaerak, nobelak... ondorean datoz.

Herrien literaturan berdin; lehendabizi olerkariak hasten dira. Eta geroago prosa, nobelarekin. Literatura nondik nora joan behar duen irakurleek agintzen dute. Astakeria litzake Euskalerrian nobelarik ez dagoela eta nobelak itzultzen hastea, gaitz hau sendatuko litzekelakoan... honekin bakarrik! Irakurlea eta idazlea, gauza beraren bi alde, indar berak mugitzen ditu biak.

Honengatik ez dugu oraindik nobelarik, esateko behintzat.

Gerra aurrekoetatik, bakarrik aipa genezake *Txomin Agirre*. Honen *Kresala* eta *Garoa* izandi dira urte askotan nobela ba zela esateko aitzakia; besterik ez. nobela bi hauek kostunbrismoko ondorio direnez gero, oraingo nobela egiturekin ez dute inongo antzik. Bata itsasoko oituretaz (eta itsas-ertzeko euskeraz), bestea baserriko gauzatzaz (gipuzkoako euskalkiz). Hemeretzigarren mendeko kutsuz beterik. Halere inork ezin uka beren probetxua eman dutenik. Baina gutxi duenak gutxi hori aipatu behar ta, euskaldun askok uste dute oso onak direla. Eta ez. *Garoa*, hoberena bezala dagoena, eta baserri oituretaren oinarritua dagoelarik, askotan txobinismo baten egaletan "gauzak behar luken bezala" ikustera abiatzen da, gizonen kutsu guztia galtzen duelarik. Gainera etnografiaren aldetik akats asko ditu, nere ustez arrazoin berarengatik; adibidez Ioanes artzainaren txabolaz hitzegitean.

Dena dela; Txomin Agirre da gure lehen nobelista. bere izena derama Euskaltzaindiak bi urtetik ematen duen "*Nobera Sariak*".

Bere ondorean, Txillardegiren *Peru Leartzako arte*, oso gutxi dira aipatu litezkenak: *Hamabost egun Urgain*-en nobela poliziakoa oso egoki eta ulerterraza ez baldin bada.

Eta besterik gabe nobela gaien iristen gara gure egunetara. Datorren aldian *Txillardegirengandik* hasiko gara.

Patxi Zabaleta

Principe de Viana, 1971. azaroa-abendua, 4. orr.



## EUSKAL NOBELA (II)

Lehen goan esan bezala, Txillardegirekin hasten da euskal nobelagintza berria, kutsu eta egitura berrikoa. Baina itxura berriko nobela hau, euskal literatura berri osoa bezala, mugimendu batean sartzen da. Guda ondorean, 1960-garren urtea arte, oso gutxi idatzi izandu ziteken euskeraz, eta batez ere gutxi argitaratu ziteken. Urte hortaz geroztik ordea, idazle berri mordo bat sortzen da. Gure literaturaren aro ilun hortan ere ba ziren idazleak, baina banaka banaka ordea, elkarren berri ezin jakinez; halere gogoratzen zait poeta handi bat ba dela urte horietako iduri bezala, Salvatore Mitxelena hain zuzen. Baina mordo bezala, sail egituratu bat bezala ondorean agertzen dira euskal idazle gazteak. Beroriek ere, idazle berri hauek alegia, konsziente dira beren nortasunaz; ohartzen dira mugimendu bat direla. Eta horrengatik izen bat onartu dute: "Hirurogeitalaueko gizaldia", edo generazioa. Zalla da esaten nor diren... baina ba dira.

Galde egin genezake gizaldi edo mugimendu honen ezaugarrietaz; zertan berezten diren alegia lehengo idazleetatik. Nere ustez hontan:

-*Guda aurrean ez zuten idatzi* (= gazteak dira).

-*Euskal literaturako gaiak zabaltzea da beren asmoa; batez ere gizonari dagozkion arazo guztiak literatura hontan aipatzea.*

-*Euskal txobinismoari uko egiten diote; eta ondorio bezala puritanismo handiegiari.*

-*Euskeraren batasunaren beharra sumatu dute, eta alde saiatu dira.*

Urte askotan mugimendu honen buru bezala agertu dena Txillardegi da. Orain, berak ere aitortu du, "ez dago modan". Behar bada, leadertzak ematen zion indarra galdu du, eta pixkeka pixkeka bere egiazko neurrietara itzuliko da, alegia bere lanak -idazle bezala egindakoak- ezarriko dizkion neurrietara. Neurri horietan agertu nahi genuke hemen.

Lehen ordea bi aipamen (ohorezkoak benetan) merezi ditu, eta biak hizkuntzari, euskera idatziari, dagozkionak: Bata, 1964-garren urtean Baiona-n egin ziren bileren anima bezala izandu zen; eta denok dakigu bilera horietako erabakiak izandu direla gero, euskeraren batasunerako oinarri. Eta bigarrena, lehengoarekin lotua, urte askotan Txillardegi euskal prosistarik hoberena bezala joa izan dela. Neuk entzun dut hau bi aldiz Luis Mitxelenaren ahotik.

"*Txillardegi*" gehienek jakingo duzuten bezala izengoitia da. Beste izengoiti bat ere erabiltzen du: *Larresoro*.

Idazle honek beste artikulo askoz gainera eta nik dakidanez, bost liburu argitaratu ditu. Hauetatik biru nobelak dira; beste bat saiaera: "*Huntaz eta hartaz*" izena duena, hamar saiaera laburrek osatzen dutelarik; eta bostgarrena gramatikazko arazoetaz, "*Sustrai bila*" izeneko eta *Larresoro* izangoitiarekin izenperatua.

Nobeletan lehengoa "*Leturia-ren Egunkari Ezkutua*" da. Prologoa, Luis Mitxelena-k egin, 1957-ko Erramu-igandekoa da. Ikusten den bezala urte frankotan aurreratzen da Hirurogeitalaueko gizaldiari.

Nobela txiki bat da. Gipuzkoeraz idatzia, bizkaitar kutsu txikiren batekin. Lau kapitulu ditu, urtearen lau aroen izenak harturik. Egunkari bat balitz bezala egin dago (diario bat).

Nobela itxurez, psikologiko tankerakoa izan nahi luke; gizaseme baten burutazioak agertuz: maitasuna, herrizaletasuna, gorrotoa, eta frakaso.

Baina berez, orain hogeitamar urte "modan zegoen" bideari jarraitzen dio: existenzialismoko arazoketa bat agertu nahi digu; gogora dator kit Kierkegard-ek ere

"egunkariak" egiten zituela. Eta nobela hontan daude dagoneko nere ustez, Txillardegiren asmaketa eta akatsak:

-Bere literatura guztian, bere buruaren problematik agertzen du. Eta bere arazoak ideologiakoa dira. Horrengatik Txillardegiren nobeletan arazo ideologiakoak dira. Horrengatik Txillardegiren nobeletan arazo ideologiakoak agertzen dira batez ere; besteak haueri begira dagoz. Etajokalariak egilea bera dira. Hau bera gertatzen da lehenengo nobela hontan, Leturia delakoak problematika pertsonalista-existenzialista bateko korapiloak askatu nahi ditu, bera barrenean dagoelarik alegia.

Bukatzen dut hemen gaurkoa; eta datorrenean bere beste bi nobeletaz hitzegingo dugu.

Patxi Zabaleta

Principe de Viana, 1972, maiatza, 3. orr.

## GAURKO SOZIALISMOA AURRERAPEN BAT DA

Orain dela urte batzuetakoakin ezin diteke naasi

Idea edo pentsaera berri bat agertzen danean, ez ditu alde guztietatik begiratu bear goxoak artzen. Badire bereala azterketa estu ta gogor batera sarrazten dutenak, ia zerbait txarrik arkitzen ote dioten.

Geienetan izaten da utsen bat -nola ez!- eta alde batera uzten dituzte gogorapen berri oiek: "Osoa izatekotan guztiz oso, autsia egoteko txulo txikiena aski". Onelako epailleentzat aurrerapen onik ez da; beti txulo txikien bat, akats txikien bat arkitzen baitiote. Uste dute gañera askotan ideetako mundu onetan dena lenagotik esana dagola era batean edo bestean: "Eguzkipean ezer berririk ez".

Baño dudik gabe mundua aurrera dijoa. Iakintza guztietan aurrerapenak izaten dire, naiz txulo txikiren batekin.

Sozialismoari ere au gertatu zitzaion. Agertzearekin bat izandu zituen etsai bizkorrak. Asiera artan, Engels eta Marxen garaian, bazituen -ori ere esan bear da- uts aundiak. Uts auek arpegira botatzen zizkioten kontrarioak, eta orduan marxistak beren burua defenditzeko uts oietantxe indar aundiagoa jarri zuten: gerraren bearra dela, bakar-jabetasunari, ta elizari ezezkoa dela... Leninen eta Errusiko erreboluzioaren garaiak ziren. Bi posture auek banatzea etzan errex. Alde batetik kapitalismoa, ta bestetik komunismoa; amorratuak biek, (Komunismoa sozialismo amorratuago bat besterik ez da).

### Denboraren ikaskaia

Marxen ideak ordea gizaldi onen asieran zabaldu ziren, eta geroztik ur asko igaro da munduko zubipeetan. Denborak agerian jarri du pentsaera aiek, utsekin batean, asmatuak ere bazituztela makiña bat gauz. Askotan gertatzen zaigu alde bat defenditzen asi ezkeru bukaeraño, dakazkin adar eta zaiñ guztiekin defenditu bearra. Orrengatik eztabaidan sartu gabe dagonak bi aldeak garbirogo ikusi dezazke. Bizimoduak amaika aldiz erakusten digun gauza!

Onela gaurko sozialista ta komunista asko konturatu dire lengo komunisten egoera arrieskatuegia, amorratuegia zala. Emen sartaldeko nazioetan berriz, naiz Europan, naiz Ameriketan ikasten ari gera sozialismoak gauz onak ere baditula. Errusian komunismoa "moderatzen" ari dela diogu guk. Aiek berriz sartaldeko nazioetan kooperatiba ta beste ameika iokabide "sozialista" sortzen ari zaizkigula. Begi-aurrean daukagu gañera naziorik aurreratuenak erdi-sozialismo batera biurtzen ari dirala.

-Zer esan nai dun onek?

-Badirela sozialismoan zenbait aurrerapen kapitalismoan etzeudenak, eta gogoan eguki bear direnak atzeratuak ez izatekotan. Oraindik ordea arkituko giñuzke alde batetik eta bestetik, kapitalistetan eta sozialistetan beren egonera extremistari eutsi nai diotenak: Sozialismoaren ezer artu nai ezdutenak, edo orain dela berrogei urte zegon lekuan eduki nai dutenak. Nola batzuek ala besteak denboraz kanpora daude nere usteetan.

*(jarraituko zai)*

Pako Zabaleta

Principe de Viana, 1967, martxoa, 4. orr.

## Munduko Oihartzunak

### MALTAKO GIROA ETA NIXONEN IBILERAK!

Munduko bigarren guda ondorean, Hitlerren Alemania eta Mussoliniren Italia menperatuak zeudenean, gudako irabazleak Maltan bildu ziren. Hain zuzen orain dela hilabete batzuek Ingelesek ezin konponduaz ibili diren ugarte hortan bertan. Gari hartan oraindik Ingalaterrako agintzapean zegoan ugarte hori. U.S.A.-ko Roosblet, Errusiako Stalin eta Ingalaterrako Churchill. Eta zer egiteko uste duzute bildu zirela? Mundua elkarren artean zatitzeko...

Garai hartan (1945) Europa zaharra, hainbeste mendetan munduaren gidaria izandua dena hautsia zegoen, puskatua. Ba zidurienez ez zela gehiago goratuko. Bestalde lehendabiziko munduko guda ondorean U.S.A. agertu zen bizkorrenetakoa bezela eta bigarren hontan berriz alde batetik berak guda irabazi eta bestetik batera urratua izan gabe, esate baterako Frantzia urratua izandu zen bezela. Berdintsu zegoen Errusia; beti Europako beste herrietatik alde batera bizitua, bere iraultzaren ondorean eta gerrate ikaragarri haren ondorean munduan zerbait izateko prest. Ingalaterra berriz zahartua zegoen... bere inperio izandutako puska banaka banaka galduaz soin leproso bat balitz bezela, bere zatiak galtzen.

Eta mapa batzuen aurrean jarririk mundua zatitu zuten, jainkotxo batzuek balira bezela... eta bi puska egin. Bata, sortalde, Errusiaren influentziaren. Sartalde U.S.A. (eta Ingalaterra) nagusi zirela. Agintza honek zidurienez ba zuen arrazoizpide bat bi talde hauen ideologian: batzuek marxistak eta besteak gutxi gora behera demokratik edo holako zerbait.

Baina urteak pixkeka pixkeka azaldu digute egi osoa: Maltan egindako zatiketarik askoz gehiago begiratu zion agintza nahiari ideologiari baino. Aldi hartan nere ustez ideologia erabili zen agintza nahia edo inperialismoaren alde, inperialismoaren serbitzurako. Horrengatik ikusi zitekeen Moskuren influentziarako nazio batzuek baino askoz sozialistagoak edo nahi bada nolabait marxistagoak zirela, beste sartaldeko batzuek.

Mundua erditik zatitze honen ondorioa izandu zen "guda hotza" deitutakoa. Bi alderdi hoienez ezin berezia. Muga ezin ezarria... edo behintzat ezin finkatua; harontzago eraman nahia; besteen berri jakin nahia.

Baina, Marañon-ek idatzi zuen bezela, ez dute beti historia idazten luma eskuan daukatela uste dutenek. Eta aldi hontan ere beren urtetan munduko bi nagusi haiek (Roosbelt eta Stalin-ek) egin zuten zatiketarik ez du hogeita bat urte besterik iraun. Egunero egunkarien lehenengo horrialdean ikusten ditugun berriak hori adierazten digute. Europa berpiztu da, bere ezur zaharretan oso elkarte indartsuak berriro marduldu dira. Eta hauek bere indarrez jabetu dira... eta U.S.A.-ri ez diote beti ados egiten. Txinaren nortasun berezia, eta honek bere aldera eraman ditu zenbait adi, esate baterako Albania. Azaldu dira hirugarren mundua deitutako adi horiek guztiak... alde batera edo beste joateari arrazoirik ikusten ez diotenak.

Gaur guda hotza bukatu da. Diplomaziaren jokoarengati... Eta diplomazia behar da salerosketako edo komerzioko beharrengatik... baina halere mugak iraun dezaten-edo, ba dira beti bi edo hiru guda. Baina guda hauetan bi mota dira, eta honera iritsi nahi nuen gaurkoz, batzuek oraindik Maltako giroa adierazten dutenak; honelako guda hauetan, nahiz itxuraz beste batzuek gudan ari azpi-azpian eta atzetik beti bi "handiak" izaten dira. Honelako guda hauen berezuntzak esan behar balira beti notizi bezela periodikoetan daudela esan beharko genuke: adibidez Viet-nam edo SOrtalde erdia... beti hauek dira munduko oihartzunak.

Hemen burruka dabilzenak ordea ez dira bakarrik Vietnamgoak edo arabe-israeldarrak. Ez, ez! Hauetan Kremlingo mahain berean afaldu dtuenak ari dira gudan! Gainerakoan ez lukete izango guda hauek duen teknika: abiazioa, artileria... ez bait dira gerrilla batzuek. Viet-namgo langileritzaren guda dela, edo inbasio bateri gogor egitea dela esatea, biek berdin dira gezurrak... eta hau denek ba dakite! Gezur "taktikoen" garaia aspaldian joan zen!

Ba dira beste guda batzuek: Kurdoena, Biafrakoa, Irlandakoa (hau oso berezia da bestalde nere ustez, "informazioa" delako bere indarrik handiena), Sudangoa, Uruguaiakoa, Maltako girotik sortu ez direnak. Hauek ez dira notizi; hemen hiltzen diranak bestelakoak nonbait!

Z.\*

Principe de Viana, 1972, ekaina, 3. orr.

---

\* Patxi Zabaleta ote da??

## SEMINARIOA: Barrenean eta kanpoan

Illbeltzako aldapa gorari ekin diogu. Orain bai, egiaz, "olentzero jua zaigu, mendira lanera", datorren eguberriak arte...

Galde dezagun ordea "olentzero" zaldar xamar baño berrikerari zuzen orreri: Zer eskatzen diguzu, zer konsigna agintzen urte berrirako?...

Bakazio ondorean zabaldu gera, bakoitza bere lanera, aitzur, mallu, edo liburuz eman zaigun urte berria zartzera.

Emen, seminarioan, liburuz jokatu bearra daukagu. Ikastea da gure egitekorik larriena. Bañan ikasketa au, prestatze au ezin dezakegu liburuz bakarrik osatu. Aspaldiko esaera da "ikusiz ikasi" ta ez egi makala.

Orain gañera, beiñere baño geiago bear bat sumatzen degu. Gizona ezagutu bearra, gizonaren indarrak, gizonaren askatasun ta berdintasun nai ikaragarria, zorion egarria, ta beste olako amaika problema estudiatu bearra sumatzen degu. Eta gaur batez ere, ezin eman dezakegu nolanaiko atererak problema auentzat. Atererak, soluzio egiazkoak bear dituzte: problema ori badela gogoan *egukiaz* ateratako soluzioak.

Au dena ordea, esan det lenago ere, liburuetan eziñ ikasi. Oartu bear degu gizonaren izaneran bakoitzaren alderdiak eta garaiak erruz, aunitz esan nai dutela. Ez dira alderdi guztietako gizonak berdiñak. Ezta garai guztietakoak ere. orregatik beren lekuan bertan estudiatu bear ditugu. Fabrika bateko obreroak nolakoak diran, nola pensatzen duten, zer dan aien buruausterik gogorrena, aien gogorik biziena jakin nai dituenak aien bizimodu bera egin, itz egin, jostatu ta adixkidetzea ditu biderik obenak.

Gure errian aldaketa aundi bat egiten ari da. Gaurko gazteak ez dira orain dela ogei urte bezelakoak. Makurregoak gauz batzutan, bizkor eta sendoagoak beste batzutan: akurreago menpean egoteko, baño sendoago beren askatasuna zaintzeko. Bizimodua bera asko aldatu da egunero aditzen degun bezela. Fabrika bateko obreroak eta nekazari batek ez dituzte buruauste berak; ezta gaurko ta orain ogei urteko baserritarrak ere. Aldaketa auek problema berriak sortu dituzte, ta aterera berrien eske daude.

Badire beste alde batetik saritetsi edo balore batzuek aldatu gabe, beti berdin diranak; gizon beraren edo alderdiaren -emen erri- izaneratik sortzen direlako. Oieri eutsi!

Bañan oiek ez dire aski; gure erriko kanta zarrerri eustegatik, ez degu berriak kantatu gabe gelditu bear. Ta ez bakarrik kanta berriak kantatu baizik baita ere egin, sortu ta moldatu gure erriarentzat moduko.

Ta kantakin esandakoa, dantzakin, oiturekin, erritasunekin eta izkuntza berakin!

Urte berriak eskari au egiten digu: Gizona ezagutzeko, estudiatzeko bere alderdi ta garaian. Beti berdiña duanarekin eta aldatzen zaionarekin. Gure errian eta gaurko egunean. Seminario barrendik eta kanpotik. Bestela ez degu ezer egingo, gazterik zartu baizik!...

P. Zabaleta

Principe de Viana, 1967, martxoa, 6. orr.

## SOZIALISMOAREN AURRERAPENA

(jarraipena)

Bi gogorapen berri batez ere asko balio dutenak ekarri dazkigu sozialismoak:

Lendabizikoa kooperazioa, sozialismoak gizonak -geiago bertsuak badira-alkartu egin bear dutela beren askatasuna galdu nai ez badute, kapitalismoaren makina bat beren burua egiñaz. Ez du onek esan nai gizona soziedadepean jartzen degula gaur guztietarako. Au ere bere askatasuna galtzean izango litzake; baizik gizonak bere naiez aukeratzen dun soziedade orrek, bere askatasuna pixko bat mozten diola, bakarrik geldituta dena galdu ez dezan.

Bigarren aurrerapena, justizi, zuzentza, soziala deitzen dan gogoera: gizonen goraberetan beti gizon direla gogoan eguki bear dela. "Estaduari gizonak eman bear dio, esaten dute, al dun guzia, ta estaduak itzuliko dio bear dun guzia". Onengatik ezkondu batek irabazten du ezkondegabe batek baño geiago. Ez baitu lanak bakarrik esan nai. Eta jaiotzetik paralitiko den batek estadutik bear dun laguntza izatea eskubide du, lanik egin ez badezake ere. Ta ume batek, mutil batek bear dun eskola artzeko era izatea eskubide du. Ta eskubide izatea da deretxo izatea; ez maitasunaren edo karidadearen bearrean egotea. Beste aldetik, aberats. al dezakenak izan bear du jaso dezaken añeko kontribuzioa; ez txikiagorik.

Ona nola gizona makina bat bezela erabili ezin diteken: "Ainbeste eman, ainbeste artu". Begiratu bear dire gizon onen egonera ta izanera gogoan egukiz bere goraberetan.

-Ez al da gis ontan artu ezkerro aurrerapen bat sozialismoa?

Egiaz gaur demokraziak -erriaren agintzak- egiazkoa izatekotan Sozialismoa eskatzen du.

P. Zabaleta

Principe de Viana, 1967, maiatza, 4. orr.

## LERATE

Karmel-eguna, Naparroa'ko Lerate'n

EUSKALERRIA'k, leku atsegingarrik eta uri-txiki politak, askoak ditu bere ainbat aldeetako lurraldeetan eta abetako bat Lizarra (Estella) lurraldeko Gezala balleran Alloz'ko urzingira (pantano) ikusgarriaren gallur batean tinkaturik aurkitzen dan LERATE degu, gezurrik ez esatekotan.

Uri-txikia, bai, txikirik izatekotan! Bost nekazari-etxe aundi baizik ez Eliz-Nagusi ederra du bertan eta bait-ditu bere barruan; baiña alare, pelota-toki egokia ere bai, errikidien jolas-aldietako, bere inguruan.

Bertatik alde batera ta bestera goi-aldetara begiraturuz, ederragorik ezindako ikuspegi (panorama) guztiz begiragarria nabaitzen da, bere be-aldean Alloz'ko ur-geldun ur-putzu aundia duela.

Sorkaldera begiraturuz, berriz, Irurra, Garisoain, Muzki, Ezkok eta Muez ikusten dira eta Ipar-aldera begiraturuz, Alloz, Ugar eta Billanoa. Lurralde zoragarria benetan, Lerate ingurua, atsedean egunak pakez eta gozoro bertan igaro nai-dituanarentzat.

Lerate'k inguru atsegingarria duelako, noski, ainbeste gipuzkoar-sendi edo pamili urbiltzen da bertara jai-egunak eta udaldiko atsedean egunak gozoro igarotzera.

Aurtengo urte onetan, asmo naigarri orrekin zutitu dituzte bere ur-zingira ertzetako gailurretan ain uda-etxe politak, batez ere Tolosa'ko sendi euskeltzaleak diran Aguirre, Esnaola, Muxika eta Olano'tarrak, euskal-izeneguz egoki bataiatuak eta Donosti'ko itxas-gizon ezaguna ta "IRUDIDUN ITXAS-IZTEGI" irakurgarriaren egille dan Garmendia jaunak "GARGOIKO" izenez aipaturiko urgeldidun putzu aundiaren ertzean, zutitu duana ere, ez da ixilliean ustekoa.

Eta Karmel'go Ama Birjiña itxastarren Zaindari Donea delarik, aurtengo Karmel egunean ospatu zan, aundikiro, "GARGOIKO" itzas-etxetxoaren oneskunde edo bedeinkazioa, onela:

Egurdiko amabietan, Meza-Nagusi ederra, meza-emalle ta izlari udaldia igarotzera Erroma'tik etorri bertan aurkitzen dan tolosar Aita Muxika Olano josulagun edo Jesuita, eta meza-laguntzalle Lerate'ko erretore On Jesus Anzin jauna zala ospatu zana.

Bereala, "GARGOIKO" etxearen oneskundea, Karmel'go Ama'ren irudia etxe-aurrean loraz jantzirik ikusgarri ageri zala. Erretore jauna izan zan, ospekundeari zegokion itzaldi xamur bat egiñaz, etxea onestu zuana, uriko biztanle guzik eta udaldir denak. Goñi alkate jauna, buru, aurrekaldian zirela.

Ondoren, Garmendia etxe-nagusiak, eta Goikoetxea etxeoandreak, erari ta jaki-goxox gonbiatuak izan ziran kistar-ospakunde unkiagarri artara urbildu ziran gizon, emakume ta aur guztiak.

Arratsaldean, berriz, ikusgarrizko ibildeun edo prozezioa ospatu zan, "Gargoiko" itxas-ontzitxoan Karmel'go Ama'ren irudia agerian zala, pantanoko ur-gaiñean, magnetofonoz Arregi'ren Euskal-Meza abestuaz, ikuslien atsegiñezko txalo-otsean.

Ibildeuna bukatu, eta ikusle danak berriro "Gargoiko" etxe-aurrean bildurik sarizko ume-jolasak izan ziran eten-gabeko su-ziri otsean, eta aizkinik, gabeko amarretan bertantxe Erretore jaunak guztiontzat errezatu zuan errosarioaz, anaitasunik ederrenean bukatu zan sinismenezko (fedezko) jaikizun atsegingarri ura.

Zeleta

Principe de Viana, 1972, irailak, 7. orr.



## TAFALLA

"Aldi ontan Tafalla'n jaio dan euskal giroa ezagutzera etorri naiz", zion "Latxaga" idazleak, oraintsu "ZERUKO ARGIA"-n argitaratua duen bere idazlan guztiz irakurgarri batean. Ni ere beste orrenbeste esan bearrean nazute, irakurleok. Antxe izandua bai-naiz zio (motivo) beragatik aurtengo ANDRA MARI JAIETAN, eta ark ezagutua nik ere ezagutzeko zori ederra izan det, Jainkoari eskerrak.

Berak ongi zin bezela, oraingo Tafalla ez da, orain bost urteko Tafalla. Bestelakoa da oraingo giroa. Euskal-giro ernegarri au ongi gozartzeko aukera izan det jai-egun oietan, aspalditik antxe ditudan adiskide euskaltzalien anaitasunezko laguntza atsegingarriaren bidez.

Esaten badizutet EUSKAL-GIRO TA KUTSUZ ezin obeki antolatu ta ospatuak izan dirala, Tafalla'n, aurtengo erri-jaiak, ez dizutet batere gezurrik esango. Alaxen izan bait-dira, asi eta buka.

Ara: ezpatadantzari ta poxpoliñen dantzaketa ikusgarriak, txistularien biribilketa alaiak, soñuzko talde ugarien kale-gira zaratatsuak, euskal-jantzi jatorrez apaindutako neskato-mutikoen jun-etorri eten gabekoak, pelota partidu gorengoetakoak, Usategieta'ren arri-jasotzeak, Latasa eta Aztibia'ren aizkoraketak eta Euskalerriko 100 txistulariren arteko euskalo-eresi jotze txalogarriak, BENETAN POZGARRI ta BIOTZ-UKIGARRI izan zitzaizkigun, eurei entzuteko zoria izan genduan guztioi.

Baiña, ori dana baño geiago oraindik, eta auxe neretzat ikuskizunik atsegingerriena: tafallatarrak EUSKAL-IKASTOLA EDER BAT ere badutela orain, oraindano ERDAL-ERRIA izan dan uri aundi au EUSKALDUN egin dedin, Zelaieta'tar Nekane andereño argia Irakasle dutelarik.

Aipaturiko idazkaian "Latxaga" jaunak ongi zion bezela: "AMETS BAT DA IKUSTEA ERRIBERA GAIÑEAN, NAFARROA ERDIAN ORRELAKO ERRI AUNDI BATEAN, EUSKAL-IKASTOLA BAT IRIKITZEA". Alaxe da, izan ere. Arrigarria benetan!

Orretzaz gain, tafallatarrak badute 7 urtetik 14 urte bitarteko neskato-mutikoak osatzen duten "TXIKILANDIA" deritzaion elkarte bat ere, napar-folklorearen zabalkundea egiten egiñalean saiatzen dana erriz-erri, beren euskal-soñu, kantu ta dantza lirañen bidez, alde ontako Napparroa galdutako euskal-kutsuz osatu dedin.

Eta bukatzeko, beste berri alaiagarri au: Euskalerriko 100 txistulariak beren egitekoa erriko enparantza nagusian bukatu zutenean, izugarrizko txalo-otsean BI ALDIZ ereskitu ta kantatu bear izan zutela "GUERNIKA'KO ARBOLA" eta "AGUR, JAUNAK", entzulien eskariz.

"Onek esan nai du -"Latxaga"-k zion bezela- bizirik dagoala oraindik, emen euskal-arnasa".

Zeleta

## ZIGA (BAZTAN)

Urtero-urtero bezela, aurten ere, Mayatzaren bederatzigarren egunez, Zigako aurrek Lenbiziko Yaunartze Ttarra eta Bigarren Yaunartze Aundia izen giñon.

Arrituko zera naski, irakurle, bi Yaunartze aipetzen ditutelakoz. Baña ez arritu! Zigan bertze zenbat errietan bezela, aintziñeko oitura yarraikitzen dugu. Eta zazpi-zortzi urtetan "Komekatze Ttailla" egiten dugu eta ameka-amabitan berriz, "Komekatze Aundia". Olaxe egiten dute baita ere Bayona eliz-barnean: *Premiere Communion eta Solemnelle* erraiten diote.

Artarako gure Apez Yaun D. Leandrok, len bere anai D. Jabier zenak bezela, urte luzietan egunero prestatzen daku.

Or duzu zure begien aintziñean egun zoragarri artako iduri edo erretratoa. Bertan ogei-ta-zortzi neska-mutiko zigarrak, beren Yaunartzea egin berriak, ikusi eta ezagutu dezazkegu. Amalauk Yaunartze Ttarra edo Lendabizikoa eta bertze amalauk Bigarrena edo Aundia egiñak dire. Berekiñ dago baita ere gure errian berrogei-ta-amabi urtetan gure Artzain maite daukagun D. Leandro Lazkoz Yaun Erretora, eta egun eder artan gure artian izan giñun "gure mixiolari" Aita Zubiaga ere.

Une emen bi Yaunartzeak egindako aurren izenak:

LENENGO YAUNARTZEA: Elena eta Mari Sarratea Etxenike, aizpa bibiroak, Petrineakoak. Joxe A. Lakosta Uarte, Arotzenekoa. Martiñ Etxenike Irigoyen, Kalaineneakoa. Inazio Aizpuru Goyenetxe, Etxezurikoa. Angeles Aldabe Goyenetxe, Berekoetxeakoa. Angeles Jaimerena Sarratea, Larraldeakoa. Pilar Irigoyen Zelayeta, Elizaldeakoa. Anatxo Yubera Irigoyen, Iringoakoa. Mari Biktoria Yubera Azpiroz, Mandezeneakoa. Biktoria Etxalar Etxaide, Etxeberriakoa. Teresa Gortari Oteiza, Indarteakoa. Martin J. Agirre Irigoyen, Etxandiakoa eta Joana Agerrebere Iturralde, Iturraldekoa.

YAUNARTZE AUNDIA: Jexux Mari Urrutia Sarratea, Legaletakoa. Arantxa Gortari Oteiza, Indarteakoa. Pedro Irigoyen Igoa, Kalañenea Zaarrakoa. Asunzion eta Mari Eugeni Aizpuru Goyenetxe, bi aizpak, Etxezurikoak. Erroxarriotxo Elizalde Osakar, Etxenikiakoa. Pelixa Yubera Irigoyen, Iringoakoa eta bere anai Jose Inazio. Joan Iñarrea Ibarra, Berrondokoa. Santiago Arretxea Elizalde, Arrontxeakoa. Xoan P. Agerrebere Iturralde, Iturraldeakoa. Joxe L. Antxorena Elizalde, Alkatenekoa. Mari Teresa Osakar Agerrebere, Sabatenekoa eta Mari Luisa Jaimerena Sarratea, Larraldeakoa.

Elizbesta eziñ ohea izain genduala Zigan egun ortan erraten zuten arrotz aunitzek. Bateri entzun nion neonek Donostian ere etzela elizkizun oberik egiten Zigan baño. Ori aituta pixket arrotu nintzen eta gure erritxo tailla etzela "edozeiñ gero!" burua etorri zizaiten.

Egun aundi artan arantzatxo bat izain genuen. Erriko zaarrena, gizon zintzo eta elizkoia bere, Gorrieneko Faustino Igoa, adiñ aundikoa naski, eri eta nolabait zegoen. Arrezkero yakin dugu polliki dagoela bere lautan ogei-ta-amar urtetan. Asko poztu gera berri au entzutez. Udako iguzki beroak indartuko du gure aguretxo maitea! Ala gerta bedi.

Ziga-zale

<b>I, AYERBE</b>	<i>Aralar'ko erretablo aipatua, 1968, urria, 2. orr.</i>
<b>AITZGORRI</b>	<i>Leitza, 1968, uztaila-abuztua, 3. orr. Nekazaritza eta abereak, 1967, ekaina, 4. orr. Nekazaritza eta abereak: laurrerako ongariak, 1967, martxoa, 5. orr.</i>
<b>ALEMAN, SAGRARIO</b>	<i>Nafarroako errresumaren galera, 1972, martxoa, 6. orr.</i>
<b>AMAZABAL</b>	<i>Patxi Arrazola ta Leitza, 1971, otsaila, , 7-8 orr.</i>
<b>ASTIZ ARREGI, ANDRES</b>	<i>Ikasi, mikasi... zein izan zen lenago: olloa edo arraultze?, 1967, urtarrila, 9-10 orr.</i>

**ANKO SENDOA**

*Baserritargoa*, 1970, martxoa, 11. orr.  
*Batasunari buruz solasak*, 1970, azaroa-abendua, 16-17. orr.  
*Batasunari buruz solasak*, 1970, urria, 18. orr.  
*Batasunari buruz solasak*, 1970, uztaila-abuztua, 19. orr.  
*Batasunari buruz solasak*, 1971, otsaila, 14-15. orr.  
*Batasunari buruz solasak*, 1971, urtarrila, 12-13. orr.  
*Eliza eta euskera*, 1971, maiatza, 20-21. orr.  
*Gizarte gaiak*, 1971, azaroa-abendua, 32-33. orr.  
*Gizarte gaiak*, 1971, ekaina, 23-24. orr.  
*Gizarte gaiak*, 1971, iraila, 26-27. orr.  
*Gizarte gaiak*, 1971, urria, 28-29. orr.  
*Gizarte gaiak*, 1971, uztaila-abuztua, 24-25. orr.  
*Gizarte gaiak*, 1972, apirila, 30-31. orr.  
*Gizarte gaiak*, 1972, maiatza, 40-41. orr.  
*Gizarte gaiak*, 1972, martxoa, 38-39. orr.  
*Gizarte gaiak*, 1972, otsaila, 36-37. orr.  
*Gizarte gaiak*, 1972, urtarrila, 34-35. orr.  
*Ikastolari buruz*, 1973, martxoa, 42-43. orr.  
*Irurzungo lantegi berria*, 1973, urtarrila, 44-45. orr.  
*Lesakan gaindi*, 1972, ekaina, 46-47. orr.  
*Mintzairari buruz (I)*, 1971, martxoa, 48-49. orr.  
*Mintzairari buruz (II)*, 1971, apirila, 50-51. orr.  
*Naturaleza (eta III)*, 1972, azaroa-abendua, 56-57. orr.  
*Naturaleza (II)*, 1972, iraila, 54-55. orr.  
*Naturaleza*, 1972, uztaila-abuztua, 52-53. orr.  
*Pedagogia II*, 1970, maiatza, 58-59. orr.  
*Pedagogia*, 1970, apirila, 60. orr.  
*Tabakoaren erretzea dela eta*, 1973, otsaila, 61-62. orr.

**ANTTON ERKIZIA**

*Agur, otsall!*, 1968, martxoa, 63. orr.  
*Aize berri bat*, 1969, otsaila, 64-65. orr.  
*De visita por Lesaca*, 1969, ekaina, 66-67.  
orr.  
*Etxelar*, 1968, uztaila-abuztua, 68. orr.  
*Euskal dantzak*, 1969, uztaila-abuztua, 69-70.  
orr.  
*Euskal giro berri bat Lesaka ta Bera'n*, 1972,  
martxoa, 71-72. orr.  
*Euskal lur maite*, 1968, urria, 73-74. orr.  
*Gazte gera gazte*, 1968, uztaila-abuztua, 6. 75  
orr.  
*Gosea ta otza*, 1969, martxoa, 76-77. orr.  
*Igantzi (Yanci)*, 1970, iraila, 78. orr.  
*J.M. Urtain*, 1969, ekaina, 81-82. orr.  
*Julian "Barraka"*, 1969, urria, 83. orr.  
*Kezkatan*, 1970, urtarrila, 84-85. orr.  
*Lesaka - Urte-muga*, 1971, urtarrila, 102. orr.  
*Lesaka beti aurrera!*, 1969, apirila, 86-87.  
orr.  
*Lesaka ta Bera*, 1967, azaroa-abendua, 107.  
orr.  
*Lesaka*, 1967, azaroa-abendua, 90. orr.  
*Lesaka*, 1967, urria, 97. orr.  
*Lesaka*, 1968, otsaila, 96. orr.  
*Lesaka*, 1968, urria, 98. orr.  
*Lesaka*, 1968, urtarrila, 100. orr.  
*Lesaka*, 1969, maiatza, 95. orr.  
*Lesaka*, 1970, ekaina, 93. orr.  
*Lesaka*, 1970, urtarrila, 101. orr.  
*Lesaka*, 1970, uztaila-abuztua, 106. orr.  
*Lesaka*, 1972, apirila, 88-89. orr.  
*Lesaka*, 1972, azaroa-abendua, 91-92. orr.  
*Lesaka*, 1972, ekaina, 94. orr.  
*Lesaka*, 1972, urtarrila, 103-104. orr.  
*Lesaka, nere erria*, 1968, apirila, 108-109.  
orr.  
*Lesaka: Gure feriak*, 1970, urria, 99. orr.  
*Lesaka: Jaiak*, 1968, uztaila-abuztua, 105.  
orr.  
*Lesakako 'Toberak'*, 1971, iraila, 110-112.  
orr.  
*Lesakar gaztedia*, 1968, iraila, 113. orr.  
*Markesaren alaba*, 1969, otsaila, 114.-116.  
orr.  
*Santiago eguna Banartan*, 1967, abuztua,  
117. orr.  
*Sunbilla*, 1971, apirila, 118-119. orr.  
*Txirritxuen abestia*, 1971, azaroa-abendua,  
120-121. orr.

*Udazkena*, 1970, iraila, 122-123. orr.

*Udazkena*, 1971, urria, 124-125. orr.

*Izar berri bat*, 1970, azaroa-abendua, 79-80.  
orr.

*Zer, or barna*, 1968, maiatza, 126. orr.

*Zerri iltzea*, 1970, otsaila, 127-128. orr.

**ANZANARRI**

*“Goizean goiz” musika liburua*, 1968, urria, 184. orr.

*“Uztapide” idazle*, 1975, otsaila, 222-223. orr.

*Aizkolariak*, 1968, apirila, 129-130. orr.

*Aizkolariak*, 1968, maiatza, 132-133. orr.

*Aizkolariak*, 1968, urtarrila, 136. orr.

*Aizkolariak*, 1969, ekaina, 131. orr.

*Aizkolariak*, 1969, urtarrila, 134-135. orr.

*Apostuak*, 1969, martxoa, 137. orr.

*Artaldeak*, 1974, martxoa, 138-139. orr.

*Artzain zakurren sariketak*, 1977, uztaile-abuztua-iraila, 140-141. orr.

*Atano txapeldun*, 1968, ekaina, 142. orr.

*Baztan*, 1969, urtarrila, 153-154. orr.

*Baztan*, 1970, azaroa-abendua, 145. orr.

*Baztan*, 1970, urria, 148-149. orr.

*Baztan*, 1971, urtarrila, 151-152. orr.

*Baztan*, 1971, uztaile-abuztua, 143-144. orr.

*Baztan*, 1972, urria, 150. orr.

*Baztan*, 1975, azaroa-abendua, 146-147. orr.

*Baztan’go mendiak*, 1972, iraila, 157. orr.

*Baztandar jaun agurgarriak*, 1968, apirila, 155. orr.

*Baztandarren biltzarra*, 1974, uztaile-abuztua, 156. orr.

*Bertsolari zaarrei omenaldia*, 1974, iraila, 158. orr.

*Bertsolariak eta pilotariak joan den urtean*, 1974, urtarrila, 161-162. orr.

*Bertsolariak*, 1967, urtarrila, 159-160. orr.

*Boseolariak*, 1969, otsaila, 163. orr.

*Boxeo*, 1968, iraila, 164. orr.

*Dantza, sonu, kanta*, 1975, uztaile-abuztua, 165. orr.

*Dominique Ezponda txapeldun*, 1983, ekaina, 166. orr.

*Doneztebe*, 1971, azaroa-abendua, 169. orr.

*Doneztebe*, 1976, iraila-urria, 167-168. orr.

*Doneztebeko festa*, 1970, martxoa, 170. orr.

*Eiztariak*, 1974, ekaina, 171. orr.

*Elizondoko feriak*, 1972, azaroa-abendua, 172. orr.

*Erriz-erri*, 1968, urtarrila, 173-174. orr.

*Estropadak*, 1970, urria, 175-177. orr.

*Euskal dantzak*, 1970, apirila, 179-180. orr.

*Euskal erriko leioa*, 1976, urtarrila, 178. orr.

*Euskal futbolariak*, 1969, uztaile-abuztua, 183. orr.

*Euskal kirolak*, 1974, iraila, 181-182. orr.

*Huarte*, 1975, urria, 185. orr.  
*Irurita*, 1969, iraila, 186. orr.  
*Ituren: bestak*, 1974, urtarrila, 187. orr.  
*Kirolak*, 1971, urria, 190. orr.  
*Kirolak*, 1973, iraila, 188-189. orr.  
*Kisu labeak II*, 1966, azaroa, 191-192. orr.  
*Lajos txapeldun*, 1971, ekaina, 193. orr.  
*Lesaka*, 1976, uztaila, 194. orr.  
*Nafar izkuntzaren eguna*, 1974, ekaina, 195.  
orr.  
*Nafarroa'ko artzain zakurren txapelketa*,  
1975, iraila, 196-197. orr.  
*Nekazalgora*, 1972, urtarrila, 198. orr.  
*Nekazalgora*, 1973, otsaila, 199. orr.  
*Oiantzaleen besta Oronoz'en*, 1968, otsaila,  
200. orr.  
*Paco Eraso'ri omenaldia*, 1975, urtarrila,  
201. orr.  
*Pilotariak*, 1968, azaroa-abendua, 207. orr.  
*Pilotariak*, 1968, maiatza, 208-209. orr.  
*Pilotariak*, 1969, apirila, 202. orr.  
*Pilotariak*, 1969, maiatza, 210. orr.  
*Pilotariak*, 1971, maiatza, 211. orr.  
*Pilotariak*, 1971, martxoa, 213. orr.  
*Pilotariak*, 1972, apirila, 203-204. orr.  
*Pilotariak*, 1973, apirila, 205-206. orr.  
*Pilotariak*, 1973, maiatza, 212. orr.  
*Retegi txapeldun*, 1974, maiatza, 214-215.  
orr.  
*Sariketak*, 1973, urtarrila, 216-217. orr.  
*Soka-tira*, 1971, apirila, 218. orr.  
*Sunbilla*, 1973, martxoa, 219. orr.  
*Urtain Europako txapeldun*, 1970, maiatza,  
220. orr.  
*Urtain*, 1970, urtarrila, 221. orr.  
*Xalbador*, 1969, urria, 224. orr.  
*XXX Pilota txapelketa*, 1975, maiatza, 225-  
226. orr.



**APAT ECHEBARNE**

- Alfabetatze*, 1969, martxoa, 227-228. orr.
- Aurren txokoa*, 1969, ekaina, 229-230. orr.
- Aurren txokoa: Nafarroako aur euskaldunen jostetak*, 1969, maiatza, 256. orr.
- Bigliografia-euskera-metodo berria*, 1967, azaroa-abendua, 231. orr.
- Bilingüismo en País de Gales*, 1971, maiatza, 232-233. orr.
- Botanika euskaraz*, 1969, iraila, 234-235. orr.
- En el centenario del escritor y vascólogo Julio de Urquijo (1871-1950)*, 1971, urria, 247-248. orr.
- Esaldien eta itzulpenen euskal kutsua (II)*, 1970, iraila, 236. orr.
- Esaldien eta itzulpenen euskal kutsua*, 1970, uztaila-abuztua, 237. orr.
- Euskal bibliographia*, 1967, otsaila, 238. orr.
- Euskaltzaindiaren batzarrea Mañaria'n*, 1966, azaroa, 240-241. orr.
- Euskera zertako?*, 1967, iraila, 242-243. orr.
- Frantzisko: Xabierreko-aren euskarazko biografia berri bat*, 1966, urria, 244-245. orr.
- Ixtripuak-leheneko artak eta sendabideak*, 1972, maiatza, 246. orr.
- Juan den mendeko euskal gutun bat Tafallan*, 1970, maiatza, 239. orr.
- Konzilioa eta kristau irakaspenak*, 1967, azaroa-abendua, 249-250. orr.
- Ligueix ziberotarraren koblak Larreko'ri*, 1972, urria, 251-252. orr.
- N. Ormaetxea - "Orixe"*, 1970, martxoa, 254-255. orr.
- Nafarroako euskaldunen jostetak*, 1969, apirila, 257-258. orr.
- Noticias y viejos textos de la 'Lingua Navarrorum'*, 1972, martxoa, 253. orr.
- Olentzero*, 1966, abendua, 259. orr.
- Pedro de Axular I*, 1966, otsaila, 260. orr.
- Pedro de Axular II*, 1966, martxoa, 261. orr.
- Pedro de Axular III (sic)*, 1966, maiatza, 262. orr.
- Pedro de Axular III*, 1966, apirila, 263. orr.
- Pedro de Axular V*, 1966, ekaina-uztaila, 264. orr.
- Pedro de Axular VI*, 1966, abuztua, 265-266. orr.
- Preclaros patricios del final del s. XIX*, 1972, urtarrila, 267-268. orr.
- Renacentistas navarros de principios de*

*siglo*, 1972, azaroa-abendua, 269-270.  
orr.

*Urteberriko eske-kantak zaarrak*, 1967,  
urtarrila, 271. orr.

*Zibero'ko pasturala berria Donostian*, 1967,  
azaroa-abendua, 272. orr.

<b>ARTXUETAKO UNAIA</b>	<p><i>Aralar</i>, 1967, urria, 273. orr.  <i>Aralar'ko aizeak</i>, 1968, uztaila-abuztua, 280. orr.  <i>Aralar'ko aizeak</i>, 1970, martxoa, 274-275. orr.  <i>Aralar'ko aizeak</i>, 1970, otsaila, 276-277. orr.  <i>Aralarko aizeak (ipuia)</i>, 1971, urria, 278-279. orr.  <i>Aralarko aizeak</i>, 1966, otsaila, 281-282. orr.  <i>Larraun'go etxeak</i>, 1968,otsaila, 284-285 orr.  <i>Liburuak: Aralar-mendi ta Aralar inguruko leku izenak</i>, 1974, maiatza, 283. orr.</p>
<b>AUÑAMENDI</b>	<p><i>Euskaldunak Ameriketan</i>. 1966, azaroa, 286 orr.  <i>Goñiko Teodosio</i>, 1966 maiatza, 287-288 orr.  <i>Iñaki eta M. Karmen</i>, 1967, abuz, 289 orr.  <i>Iñaki eta M. Karmen</i>, 1967, apir, 290-291 orr.  <i>Iñaki eta M. Karmen</i>, 1967, ekain, 292 orr.  <i>Nafarroako Bizitza</i>, ekai-uzt.66, 293 orr.  <i>Nafarroako Bizitza</i>, ots.66, 294 orr.  <i>Orreaga</i>, 295 orr.</p>
<b>CAMPION, ARTURO</b>	<p><i>Sartu-aurrean</i>, 1973, iraila, 296. orr.</p>
<b>DAMASO INTZA</b>	<p><i>'Larreko' idazlea, sendakiña</i>, 1969, martxoa, 328-330. orr.  <i>"Morea" toki-izena</i>, 1974, urtarrila, 344-345. orr.  <i>Aita Olazarán il zaigu!</i>, 1973, ekaina, 297. orr.  <i>Argi billa</i>, 1970, apirila, 298-299. orr.  <i>Artzai gizagaixoa!</i>, 1966, azaroa, 300-301. orr.  <i>Aurrera beti</i>, 1978, maiatza-ekaina, 302. orr.  <i>Berrero gaztegiari</i>, 1976, azaroa-abendua, 303-304. orr.  <i>Esaera zarrak</i>, 1970, urria, 305-306. orr.  <i>Esaera zarrak</i>, 1970, uztaila-abuztua, 307-308. orr.  <i>Eukaristiaren miraria Patierno'n</i>, 1972, ekaina, 309-310. orr.  <i>Euskal-Erriko gaztediari</i>, 1976, uztaila, 311. orr.  <i>Ezkurra zapaldu naiean</i>, 1967, apirila, 312-313. orr.  <i>Gizonaren asieraz</i>, 1975, urtarrila, 314-315. orr.  <i>Gorputz-Kristi eguna Aralar'en</i>, 1974, ekaina, 316-317. orr.  <i>Ikastolak gure ondamenerako?</i>, 1974, uztaila-abuztua, 3318-319. orr.  <i>Iruña</i>, 1971, azaroa-abendua, 320. orr.</p>

	<p><i>Itsu-kapelu, jostaketa</i>, 1974, apirila, 321. orr.  <i>J.M.S.-ri</i>, 1970, maiatza, 322. orr.  <i>Kiriketan (II)</i>, 1974, martxoa, 323-25. orr.  <i>Kiriketan</i>, 1974, otsaila, 326-327. orr.  <i>Lasarte ta Usurbil'go ikastoletan</i>, 1974, urria, 331-332. orr.  <i>Lasarte'ko zalantzak</i>, 1974, azaroa-abendua, 333-334. orr.  <i>Lege zaharren</i>, 1966, abuztua, 335-336. orr.  <i>Liburuak</i>, 1975, apirila, 337-338. orr.  <i>Liburuak</i>, 1976, iraila-urria, 16. orr.  <i>Lizarrako Aita Hilari Olazarán</i>, 1973, uztaila, 339-341. orr.  <i>Manuel Danboliñen kontu zarrak</i>, 1974, ekaina, 343. orr.  <i>Manuel Danboliñen kontu zarrak</i>, 1974, maiatza, 342. orr.  <i>Nafarroako esaera zarrak</i>, 1972, urtarrila, 346-347. orr.  <i>Tarancon Kard. "Kristau-eskutitza"</i>, 1977, urria-azaroa-abendua, 348. orr.  <i>Txile itsuski beztua</i>, 1975, otsaila, 349. orr.  <i>Txile'ren alde</i>, 1975, martxoa, 350-351. orr.  <i>Ultzama'tik jalkia</i>, 1977, ekaina, 352. orr.  <i>Umeak</i>, 1973, azaroa-abendua, 353. orr.</p>
<p><b>DIEZ DE ULZURRUN, PEDRO</b></p>	<p><i>Andres Narbarte zanaren eroitzapenez</i>, 1971, otsaila, 354-359. orr.  <i>Deun Oro-ren gotun irekiari erantzuna</i>, 1971, uztaila-abuztua, 360. orr.  <i>Euskal Izendegia</i>, 1972, azaroa-abendua, 362. orr.  <i>Jose Artetxe idazlaria il da</i>, 1971, urria, 363. orr.  <i>Jostatuz mintzaira ikas</i>, 1970, martxoa, 364-365. orr.  <i>Jose Emilio Espartza</i>, 1970, azaroa-abendua, 361. orr.</p>

<b>ENTZULE</b>	<p><i>Baztan-ikastaroa</i>, 1970, uztaila-abuztua, 384-366. orr.</p> <p><i>Erriz-erri: Baztan</i>, 1970, otsaila, 3. orr.</p> <p><i>Eskolak</i>, 1970, urtarrila, 369. orr.</p> <p><i>Euskaltzaindiaren biltzarra</i>, 1969, urria, 370. orr.</p> <p><i>Nekazariak</i>, 1971, otsaila, 371-372. orr.</p> <p><i>Patxi Arraras jaunaren itzaldia</i>, 1973, martxoa, 373. orr.</p> <p><i>Sakana</i>, 1981, iraila, 374. orr.</p>
<b>ERBITI, SOLE</b>	<p><i>Basaburua</i>, 1983, ekaina, 375. orr.</p> <p><i>Baztandar M. Izeta jaunarekin</i>, 1983, otsaila, 376-377. orr.</p> <p><i>Beramendi</i>, 1983, maiatza, 378. orr.</p> <p><i>Lekuona'tar M. jaunari omenaldiak</i>, 1983, martxoa, 379. orr.</p>
<b>ESTORNES LASA, JOSE</b>	<p><i>Bidangotzako ekute on bat</i>, 1968,otsaila, 380-381.. orr.</p> <p><i>Erronkari: ekologiari buruz</i>, 1983, maiatza, 382. orr.</p> <p><i>Erronkari: Ikasguari buruz</i>, 1982, otsaila, 386. orr.</p> <p><i>Eztan ilen Erronkari'n uskara</i>, 1968, apirila, 383. orr.</p> <p><i>Gairon-gairona</i>, 1981, azaroa-abendua, 384-385. orr.</p> <p><i>Perez eta Marko'tar Errikarda il zaiku</i>, 1969, iraila, 387-388. orr.</p> <p><i>Urzainki'ko azken uskalduna</i>, 1967, azaroa-abendua, 389-390. orr.</p> <p><i>Zangotza'ko II'gn lili xokuak</i>, 1968,urtarrila, 391-394. orr.</p>
<b>EZKURDIA, KLEMENTE</b>	<p><i>Nafar izkuntzaren eguna</i>, 1974, uztaila-abuztua, 395. orr.</p>
<b>FAGOAGA, BLAS</b>	<p><i>Apez aundia</i>, 1967, uztaila, 396. orr.</p>
<b>FAGOAGA, ISIDORO</b>	<p><i>Cervantes eta Huarte</i>, 1968, uztaila-abuztua, 397. orr.</p> <p><i>Gogo yakintzan aintzindari jaio bat</i>, 1968, uztaila-abuztua, 398-399. orr.</p>

**MARZELINO GARDE**

- “Basarri” gurekin*, 1981, azaroa-abendua, 407-408. orr.
- “Kili-kili” aldizkaria kalean*, 1983, martxoa, 430. orr.
- “Orixe” ta olerkia (I)*, 1976, abuztua, 453. orr.
- “Xalbador” sariketa*, 1982, otsaila, 460. orr.
- A. Campion: discursos políticos y literarios*, 1977, urtarrila-otsaila-martxoa, 400. orr.
- Agur Xuberoa*, 1966, ekaina-uztaila, 401. orr.
- Aingeru Irigaray*, 1983, abendua, 402. orr.
- Akullu suspegarri*, 1976, uztaila, 403. orr.
- Almadieroei omenaldia*, 1974, ekaina, 404. orr.
- Apezpiku zillar-etzaieta*, 1977, urriz-azaroa, 405. orr.
- Axular-en hiztegia*, 1974, urtarrila, 406. orr.
- Bertso zaarrak baztandar baten*, 1983, ekaina, 409-410. orr.
- Biotzez, bertsolariok!*, 1973, apirila, 411. orr.
- Erriberako txistularia*, 1974, martxoa, 413. orr.
- Erronkari*, 1966, abuztua, 414. orr.
- Euskara eta txistua*, 1974 martxoa, 415 orr.
- Goian bego on J. Aldabe Jonikojena*, 1973, uztaila-abuztua, 423. orr.
- H. de Mendoza (Goikoetxea'tar...)*, 1974, azaroa-abendua, 418-419. orr.
- Ibarreko egunari eutsi*, 1974, iraila, 421. orr.
- Iru andre, oorezko euskaltzain*, 1975, ekaina, 422. orr.
- Jauregiberri anderea zenari*, 1977, urria-azaroa-abendua, 424-425. orr.
- Joxe Ixtebe Uranga jaunak atsedena hartu du*, 1973, iraila, 426. orr.
- Kardaberaztarrek ospatu dute Lekuona zaarra*, 1977, urria-azaroa-abendua, 427-428. orr.
- Kargaztulu*, 1976, abuztua, 429. orr.
- Kristautasunaren biotza den Erroma'n*, 1975, maiatza, 431-432. orr.
- Leku saindutako ibilladia*, 1975, urria, 433-435. orr.
- Leku saindutarako ibillaldia*, 1975, azaroa-abendua, 442-444. orr.
- Leku ssaindutako ibillaldia (III)*, 1976, urtarrila, 436-441. orr.
- Liburuak (Ekaitza-J.M.S.)*, 1973, urria, 412. orr.
- Liburuak*, 1973, iraila, 446. orr.

*Liburuak*, 1974, azaroa-abendua, 465. orr.  
*Liburuak*, 1974, martxoa, 457-458. orr.  
*Liburuak*, 1975, azaroa-abendua, 445 orr.  
*Liburuak*, 1975, urtarrila, 420. orr.  
*Liburuak: "Euskera eta Nafarroa"* (J.A. Irigarai), 1974, urtarrila, 416-417. orr.  
*Napar liburu zarren erakusketa*, 1981, iraila, 464. orr.  
*Norbert Tauer*, 1978, maiatza-ekaina, 448-449. orr.  
*Olerkariei*, 1973, azaroa-abendua, 450. orr.  
*Ongi etorri on Manuel!*, 1977, urtarrila-otsaila-martxoa, 451. orr.  
*Orduen liturgia*, 1978, urtarrila-otsaila-martxoa, 452. orr.  
*Pastoralgintza aldetik euskerari buruz*, 1974, iraila, 454. orr.  
*Pio Baroja'ri omenaldi bikaiñena*, 1981, azaroa-abendua, 455. orr.  
*Tulebras: abadesa berria*, 1975, iraila, 456. orr.  
*Udako otsoak*, 1974, uztaila-abuztua, 459. orr.  
*Xeferino*, 1981, azaroa-abendua, 461orr.  
*Zerio'tar Paustin jaun agurgarria*, 1983, ekaina, 462-464. orr.

<p><b>GORTARI UGARTE, YON</b></p>	<p>... <i>eta beti euskara elburu</i>, 1967, maiatza, 488. orr.  <i>“Mendi mutillen” billera</i>, 1969, otsaila, 497. orr.  <i>Aita Adrien Tatxiteguy Gortari, mixiolaria</i>, 1966, abendua, 466-467. orr.  <i>Baztan</i>, 1968, maiatza, 468-469. orr.  <i>Baztan</i>, 1968, urria, 470. orr.  <i>Baztan: lenengo jaun-artzeak</i>, 1968, uztaila-abuztua, 471. orr.  <i>Baztandarrak Xabier’en</i>, 1968, apirila, 472-473. orr.  <i>Bertsolaritza</i>, 1967, otsaila, 474-475. orr.  <i>Bi apaiz...</i>, 1969, urria, 476-478. orr.  <i>Doneztebe</i>, 1969, azaroa-abendua, 479. orr.  <i>Doneztebe</i>, 1967, martxoa, 483. orr.  <i>Doneztebe</i>, 1967, otsaila, 484. orr.  <i>Doneztebe</i>, 1968, iraila, 480-481. orr.  <i>Doneztebe</i>, 1968, maiatza, 482. orr.  <i>Doneztebe</i>, 1968,urtarrila, 485-486. orr.  <i>Doneztebe’tik Alpes’tara...</i>, 1968, otsaila, 491-492. orr.  <i>Eriotza Arraiotz’en</i>, 1967, urria, 487. orr.  <i>Euskal mutillak extranjeri’ko lantegietara</i>, 1968, martxoa, 489. orr.  <i>Euskaldunak euskeraz</i>, 1967, apirila, 490. orr.  <i>Gure baserritar ta nekazariak</i>, 1966, urria, 493. orr.  <i>Malda-erreka’ko lau-errieta’tik</i>, 1968, iraila, 494-495. orr.  <i>Mende edo gizaldi erdi bat joan da</i>, 1967, azaroa-abendua, 496. orr.  <i>Naparroa euskaldun</i>, 1968,urtarrila, 498-499. orr.  <i>Nekazaritza dala-ta</i>, 1968, otsaila, 500. orr.  <i>Oronotz’en pelota’ko eguna</i>, 1967, maiatza, 501. orr.  <i>Oronoz</i>, 1967, ekaina, 502. orr.  <i>Saldis’en euskal besta</i>, 1967, azaroa-abendua, 503-504. orr.  <i>Urrezko estaiak</i>, 1969, ekaina, 505-506. orr.</p>
<p><b>GURATZ</b></p>	<p><i>Leitza</i>, 1969, uztaila-abuztua, 507. orr.  <i>Leitze</i>, 1967, maiatza, 508-509. orr.  <i>Leitze</i>, 1967, uztaila, 510-511. orr.  <i>Osasuna, aurrera!</i>, 1967, ekaina, 512. orr.  <i>Pakita Aldunzin il zaigu</i>, 1973, martxoa, 513. orr.  <i>Retegui Jon Iñaki jaunari eskutiz agiria</i>, 1970, urtarrila, 514. orr.</p>



**I.A.**

*Aralar'ko aizeak*, 1968, urria, 515. orr.  
*Urdian*, 1969, martxoa, 516-517. orr.

**IBARRONDO**

*“Pinpirrin”-ek, erritik etxerakoan*, 1967, uztaila, 574-575. orr.  
*300 eta 300*, 1969, apirila, 518. orr.  
*Abendua, Aize zamiña*, 1967, urria, 519. orr.  
*Ama mintzo II*, 1968, urria, 520. orr.  
*Ama mintzo III*, 1968, azaroa-abendua, 525. orr.  
*Ama mintzo*, 1968, iraila, 523-524. orr.  
*Arrotzekin ere bai*, 1970, ekaina, 526. orr.  
*Aurtzaro luzea*, 1969, ekaina, 527-528. orr.  
*Baratzerako bidean*, 1972, maiatza, 529. orr.  
*Bat ala bi*, 1972, urtarrila, 530. orr.  
*Belengo bidexka ta karriketari, nor?*, 1971, azaroa-abendua, 531. orr.  
*Bizi*, 1970, maiatza, 532-533. orr.  
*Deus gutxi*, 1971, uztaila-abuztua, 534-535. orr.  
*Dezakegun neurrian*, 1969, maiatza, 536-537. orr.  
*Elizaren itza*, 1969, martxoa, 538-539. orr.  
*Eriotzara daramagu...*, 1969, ekaina, 540. orr.  
*Euskera, beti aur?*, 1970, martxoa, 541. orr.  
*Ez ain ongi*, 1970, apirila, 542. orr.  
*Ez aski nabil ni*, 1969, uztaila-abuztua, 543. orr.  
*Ez dakit bai...*, 1967, azaroa-abendua, 544. orr.  
*Gaztaiñedian barna*, 1972, otsaila, 545-546. orr.  
*Gora iaso ditu umillak*, 1971, maiatza, 547. orr.  
*Gure gaitzat bi itz*, 1967, urria, 548-549. orr.  
*Jesus aurtxoaren zati*, 1969, azaroa-abendua, 550-551. orr.  
*Jose langile!*, 1972, apirila, 552. orr.  
*Lan zalla*, 1969, uztaila-abuztua, 553. orr.  
*Leioz leio (I)*, 1970, uztaila-abuztua, 554. orr.  
*Leioz leio (II)*, 1970, iraila, 555. orr.  
*Lertxoin lerroa*, 1969, otsaila, 556. orr.  
*Lurra, ziuta, belarra*, 1970, otsaila, 557. orr.  
*Marzel ikaskiñaren egun txuri-beltxa*, 1966, ekaina-uztaila, 558-559. orr.  
*Negua*, 1969, azaroa-abendua, 560. orr.  
*Neguakin*, 1969, urtarrila, 561-562. orr.  
*Nik, utsik ez*, 1970, urtarrila, 563-564. orr.  
*Nortasunean bat*, 1969, iraila, 565-566. orr.  
*Olio eta gatza*, 1972, ekaina, 567. orr.  
*On-bidea, ama*, 1969, apirila, 568-569. orr.  
*Pakea non ote?*, 1970, urtarrila, 570-571. orr.

*Pika ta usoa*, 1971, urria, 572-573 orr.  
*Sagardiz sagardi*, 1972, uztaila-abuztua, 576.  
orr.  
*Sei miñauri, urrian*, 1972, urria, 577-578. orr.  
*Solas ta solas*, 1966, abendua, 590 orr.  
*Solas ta solas*, 1966, urria, 588-589. orr.  
*Solas ta solas*, 1967, abuztua, 579. orr.  
*Solas ta solas*, 1967, ekaina, 580-581. orr.  
*Solas ta solas*, 1967, otsaila, 584-585. orr.  
*Solas ta solas*, 1967, urtarrila, 586-587. orr.  
*Solas ta solas...* 1967, maiatza, 582-583. orr.  
*Udazkena*, 1969, urria, 591. orr.  
*Ur zurrutza*, 1971, ekaina, 592. orr.  
*Ura*, 1971, apirila, 593. orr.  
*Ustegabe ta ustedun...*, 1967, otsaila, 594-  
595. orr.  
*Zalla erraztu*, 1969, iraila, 596. orr.  
*Zuretzat, neretzat, biontzat...*, 1967, apirila,  
597. orr.  
*Zuretzat, neretzat; biontzat*, 1966, azaroa,  
598-599. orr.

**IKUSLE**

*Obanoz'ko Gilen*, 1966, iraila, 700. orr.  
*Napar bertsolarien zeingeiagoo: Mikel Arozamena Lesakako. Txapeldun*, 1966, azaroa, 699. orr.  
“*Turismo, liburutegi eta erri-yakintzako*” zuzendaritzaren lan aipagarriak, 1967, martxoa, 701-702. orr.  
*Euskalerriko unibersidadeak*, 1968, ekaina, 698. orr.  
*Ermuko euskal idazle-en jardunaldietako erabakiak*, 1968, iraila, 601. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1969, otsaila, 688-690. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1969, maiatza, 684-685. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1969, ekaina, 677-678. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1969, iraila, 604-605. orr.  
*Bizkaiko “Riki” berriz ere txapeldun*, 1969, urria, 600. orr.  
*Euskalerriko leioa: N. Ormaetxea*, 1969, azaroa-abendua, 602-603. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1970, urtarrila, 610-611. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1970, otsaila, 608-609. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1970, martxoa, 606-607. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1970, apirila, 672-673. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1970, maiatza, 686-687. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1970, ekaina, 679-681. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1970, uztaila-abuztua, 614-616. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1970, iraila, 682-683. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1970, urria, 691-693. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1970, azaroa-abendua, 674-676. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1971, urtarrila, 694-697. orr.  
*Euskalerriko leioa*, 1971, otsaila, 651-653. orr.  
*Euskal Herriko leioa*, 1971, martxoa, 649-650. orr.  
*Euskal Herriko leioa*, 1971, apirila, 617-619. orr.  
*Euskal Herriko leioa*, 1971, maiatza, 643-645. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1971, ekaina, 663-632. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1971, iraila, 636-638. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1971, urria, 658-660. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1971, azaroa-abendua, 623-626. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1972, urtarrila, 664-667. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1972, otsaila, 654-655. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1972, martxoa, 620-622. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1972, maiatza, 646-648. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1972, ekaina, 633-635. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1972, uztaila-abuztua, 670-671. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1972, iraila, 639-642. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1972, urria, 661-663. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1972, azaroa-abendua, 627-629. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1973, urtarrila, 668-669. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1973, otsaila, 656-657. orr.

*Euskal Herriko leioa*, 1973, martxoa, 612-613. orr.

<b>INTXAURRONDO, MIKEL</b>	<i>Puertorico (Itsasoz arunztik)</i> , 1967, uztaila, 703. orr.
<b>IRIGARAI, JOSE ANGEL</b>	<i>Txekoslovakia</i> , 1968, azaroa-abendua, 705. orr. <i>Auritzeko besta zela eta...</i> , 1972, azaroa-abendua, 704. orr.

<p><b>IRIGARAY, AINGERU</b></p>	<p><i>Lesakako ayuntamientoa</i>, 1970, apirila, 708-709. orr.</p> <p><i>Mitxelenaren itzaldien ondoko gogoetak</i>, 1970, urria, 710-711. orr.</p> <p><i>Irigaray jaunak idazten digu (Euskaltzaindiaz)</i>, 1976, abuztua, 706-707. orr.</p>
<p><b>IXURKO, FERMIN</b></p>	<p><i>Aralar'ko Mikel saindua, biar, lanik gabe geldituko ote?</i>, 1972, uztaila-abuztua, 712-713. orr.</p> <p><i>Artu-eman, eta, donnes et recevoir</i>, 1972, maiatza, 714-715. orr.</p> <p><i>Axular: gure Cervantes</i>, 1973, apirila, 716-717. orr.</p> <p><i>Axular: Humore-zale?</i>, 1973, apirila, 718-719. orr.</p> <p><i>D. Jose Tirapu apeza, euskal-zale bete-betekoa</i>, 1973, otsaila, 734-735. orr.</p> <p><i>Emakumeek ta Camus'en esaera bat</i>, 1972, martxoa, 720-721. orr.</p> <p><i>Ene gurasoei, maitez</i>, 1973, martxoa, 722-723. orr.</p> <p><i>Ez eta ez, sasi-itzultzaleei</i>, 1972, azaroa-abendua, 724-727. orr.</p> <p><i>Ipurdiz edo zetorrena</i>, 1973, urtarrila, 728-729. orr.</p> <p><i>Ituren'go arotzaren ahapaldi (estrofa) berria</i>, 1972, urtarrila, 730-731. orr.</p> <p><i>Ituren'go arotzaren joan-etorriaz</i>, 1972, martxoa, 730-731 orr.</p> <p><i>Larraundar prestu bati, agur</i>, 1973, uztaila, 736-737. orr.</p> <p><i>Lizardi'ren mugarriak</i>, 1972, ekaina, 738-739. orr.</p> <p><i>Mendaur-petik, Dorrauko apezari, itzño bi</i>, 1972, otsaila, 740-741. orr.</p> <p><i>Pedegree edo ejecutoria</i>, 1973, urtarrila, 742-743. orr.</p> <p><i>Prestutasuna eta millon de vascos</i>, 1972, urria, 744-745. orr.</p> <p><i>Sanchez Carrión eta ipar-amerikako nexka</i>, 1972, iraila, 746-747. orr.</p> <p><i>Uitzi</i>, 1972, urtarrila, 748-749. orr.</p> <p><i>Venid y vamos todas</i>, 1972, maiatza, 750-751. orr.</p> <p><i>Zubieta "El médico a palos"</i>, 1972, martxoa, 752. orr.</p> <p><i>Zubietako neskatxak, eta gu</i>, 1972, otsaila, 753-754. orr.</p>

<b>JORGE DE RIEZU</b>	<i>Axular ala yaun Beñat.</i> 1967 azaro-abendua. 755-761 orr. <i>Pierre Lafitte yaun kalongeari.</i> 1970 azaro-abendua. 762 orr.
<b>KALPARREGI</b>	<i>Euskalzaindiaz: Dr. Hernandorena'ri,</i> 1970, azaroa-abendua,763-765. orr. <i>Jasokunde eguna Naparroan,</i> 1975, uztaila-abuztua, 766-767. orr.
<b>KOSKONTA</b>	<i>Lesaka besta ondoan,</i> 1967, abuztua, 769-770. orr. <i>Lesaka,</i> 1967, maiatza, 768. orr. <i>Zer gertatzen da Lesakan?,</i> 1967, martxoa, 771. orr.
<b>LARUN</b>	<i>Erriz-Erri: Bera,</i> 1966, azaroa, 772. orr.
<b>LINZOAIN, EMILIO</b>	<i>Eugi (Esteribar),</i> 1971, urria, 773. orr. <i>Muzkiz (Imoz),</i> 1972, otsaila, 774. orr.
<b>MALLOPEKO KUKUA</b>	<i>Araitz...,</i> 1968, otsaila, 779-780. orr. <i>Araitz,</i> 1968, martxoa, 777-778. orr. <i>Araitz,</i> 1968, ekaina, 775. orr. <i>Araitz,</i> 1970, maiatza, 776. orr.
<b>MANEZAUNDI</b>	<i>Auritzeko ferietatik,</i> 1967, iraila, 781 orr. <i>Aita Donostiari gutunak</i> 1968, azaroa, 782-783. orr.
<b>IZETA, MARIANO</b>	<i>"Lazkao-txiki"-ren omenaldia Donostian,</i> 1976, urtarrila, 941-942. orr. <i>"Xalbador" bertsolariari omenaldia,</i> 1968,urtarrila, 958. orr. <i>1970-Baztango idatz-sariketa,</i> 1970, iraila, 908. orr. <i>Aizkolariak eta pelotariak,</i> 1973, martxoa, 788-787. orr. <i>Aizkolariak,</i> 1967, abuztua, 784. orr. <i>Aizkolariak,</i> 1970, martxoa, 785. orr. <i>Aizkolariak</i> 1970, otsaila, 786-787. orr. <i>Aizkolariak eta pelotariak,</i> 1973 martxoa, 788-789 orr. <i>Ardi zakurren txapelketa,</i> 1967, urria, 799. orr. <i>Artzain zakurrak,</i> 1974, iraila, 791-792. orr. <i>Auritz'en,</i> 1972, urria, 793. orr. <i>Azienda sariketa,</i> 1960 ekaina, 794-795 <i>B. Enbeita bertsolariari omenaldia,</i> 1974, otsaila, 796. orr. <i>Baztan (Irurita),</i> 1968, ekaina, 825. orr. <i>Baztan,</i> 1967, apirila, 801. orr. <i>Baztan,</i> 1967, ekaina, 823-824. orr. <i>Baztan,</i> 1967, iraila, 799. orr. <i>Baztan,</i> 1967, maiatza, 840. orr. <i>Baztan,</i> 1967, otsaila, 858. orr. <i>Baztan,</i> 1967, urria, 865. orr.



*Baztan*, 1968, apirila, 802-803. orr.  
*Baztan*, 1968, azaroa-abendua, 822. orr.  
*Baztan*, 1968, martxoa, 852-853. orr.  
*Baztan*, 1968, otsaila, 857. orr.  
*Baztan*, 1969, apirila, 804. orr.  
*Baztan*, 1969, iraila, 848. orr.  
*Baztan*, 1969, martxoa, 854-855. orr.  
*Baztan*, 1969, uztaila-abuztua, 884. orr.  
*Baztan*, 1971, azaroa-abendua, 814. orr.  
*Baztan*, 1971, maiatza, 842. orr.  
*Baztan*, 1971, urria, 797. orr.  
*Baztan*, 1972, apirila, 805-806. orr.  
*Baztan*, 1972, azaroa-abendua, 815-816. orr.  
*Baztan*, 1972, ekaina, 826. orr.  
*Baztan*, 1972, uztaila-abuztua, 885. orr.  
*Baztan*, 1972, iraila, 821-822. orr.  
*Baztan*, 1972, maiatza, 843. orr.  
*Baztan*, 1972, urtarrila, 872. orr.  
*Baztan*, 1973, iraila, 833-834. orr.  
*Baztan*, 1973, maiatza, 844. orr.  
*Baztan*, 1973, otsaila, 858. orr.  
*Baztan*, 1973, urtarrila, 873-874. orr.  
*Baztan*, 1974, ekaina, 826. orr.  
*Baztan*, 1974, maiatza, 845-846. orr.  
*Baztan*, 1975, apirila, 819-820. orr.  
*Baztan*, 1975, otsaila, 877-878. orr.  
*Baztan*, 1975, urtarrila, 877. orr.  
*Baztan*, 1976, azaroa-abendua, 818-819. orr.  
*Baztan*, 1976, uztaila, 872. orr.  
*Baztan*, 1977, urria-azaroa-abendua, 876-877.  
orr.  
*Baztan*, 1977, urtarrila-otsaila-martxoa, 880.  
orr.  
*Baztan*, 1977, uztaila-abuztua-iraila, 888-889.  
orr.  
*Baztan*, 1978, maiatza-ekaina, 848-849. orr.  
*Baztan*, 1978, urtarrila-otsaila-martxoa, 881.  
orr.  
*Baztan*, 1980, martxoa, 835. orr.  
*Baztan*, 1981, azaroa-abendua, 820-821. orr.  
*Baztan*, 1981, iraila, 836-837. orr.  
*Baztan*, 1981, uztaila, 883. orr.  
*Baztan*, 1982, otsaila, 861-862. orr.  
*Baztan*, 1982, urtarrila, 878-879. orr.  
*Baztan*, 1983, abendua, 798. orr.  
*Baztan*, 1983, ekaina, 829. orr.  
*Baztan*, 1983, maiatza, 847. orr.  
*Baztan*, 1983, martxoa, 850-851. orr.  
*Baztan*, 1983, otsaila, 863-864. orr.  
*Baztan*: aitzina'ko denboretan iñauteak,

	<p>1974, apirila, 891-892. orr.</p> <p><i>Baztan: Amayur</i>, 1976, iraila-urria, 890. orr.</p> <p><i>Baztan: bestak</i>, 1973, ekaina, 827. orr.</p> <p><i>Baztan: feriak</i>, 1969, azaroa-abendua, 813. orr.</p> <p><i>Baztan: feriak</i>, 1973, urria, 869-870. orr.</p> <p><i>Baztan: idatzlarien txapelketa</i>, 1974, urtarrila, 875-876. orr.</p> <p><i>Baztan: indar kontu</i>, 1973, apirila, 807-808. orr.</p> <p><i>Baztan: IV-gn. dantzari eguna</i>, 1974, azaroa-abendua, 817. orr.</p> <p><i>Baztan'go mendiak</i>, 1975, maiatza, 909-910. orr.</p> <p><i>Baztan-Bidasoa</i>, 1975, iraila, 894. orr.</p> <p><i>Baztandar gazte bat txapelduna</i>, 1976, iraila-urria, 895. orr.</p> <p><i>Baztandarren biltzarra</i>, 1967, abuztua, 896. orr.</p> <p><i>Baztandarren biltzarra</i>, 1968, iraila, 897-898. orr.</p> <p><i>Baztandarren Biltzarra</i>, 1969, urria, 900-901. orr.</p> <p><i>Baztandarren biltzarra</i>, 1970, uztaila-abuztua, 904-905. orr.</p> <p><i>Baztandarren biltzarra</i>, 1971, iraila, 899. orr.</p> <p><i>Baztandarren biltzarra</i>, 1973, uztaila, 902-903. orr.</p> <p><i>Baztango berriak</i>, 1971, uztaila-abuztua, 906-907. orr.</p> <p><i>Bertsolari zaharren omenez</i>, 1974, azaroa-abendua, 916-917. orr.</p> <p><i>Bertsolariak</i>, 1967, abuztua, 913. orr.</p> <p><i>Bertsolariak</i>, 1973, ekaina, 918-919. orr.</p> <p><i>Bertsolariak</i>, 1975, ekaina, 914-915. orr.</p> <p><i>Baztan</i>, 1969, maiatza, 841. orr.</p> <p><i>Elizondo</i>, 1966, maiatza, 921. orr.</p> <p><i>Elizondo</i>, 1969, otsaila, 924-925. orr.</p> <p><i>Elizondo</i>, 1971, martxoa, 923. orr.</p> <p><i>Elizondo</i>, 1974, martxoa, 911-912. orr.</p> <p><i>Elizondo: Santioak</i>, 1973, uztaila, 954-955. orr.</p> <p><i>Elizondoko feriak</i>, 1968, maiatza, 928. orr.</p> <p><i>Elizondoko feriak</i>, 1975, azaroa-abendua, 926-927. orr.</p> <p><i>Erriz-Erri: Baztan</i>, 1966, abuztua, 800. orr.</p> <p><i>Erriz-Erri: Baztan</i>, 1966, azaroa, 811-812. orr.</p> <p><i>Erriz-Erri: Baztan</i>, 1966, iraila, 830. orr.</p> <p><i>Erriz-Erri: Baztan</i>, 1966, urria, 868. orr.</p>
--	---

	<p><i>Erriz-Erri: Baztan</i>, 1967, urtarrila, 871. orr.  <i>Erriz-Erri: Elizondo</i>, 1966, martxoa, 922. orr.  <i>Euskal besta Bidasoko Bera errian</i>, 1967, iraila, 929. orr.  <i>Euskalerriko bertsolarien txapelketa</i>, 1967, uztaila, 930-933. orr.  <i>Euskalerriko esku-lanak</i>, 1968, urria, 934. orr.  <i>Feriak</i>, 1970, azaroa-abendua, 935. orr.  <i>Idatz leyaketa Baztan'en</i>, 1969, iraila, 839. orr.  <i>Kirolak</i>, 1967, urria, 936-937. orr.  <i>Larrazkena</i>, 1981, iraila, 938. orr.  <i>Lasarteri omenaldia</i>, 1971, apirila, 939-949. orr.  <i>Merkatuak: Elizondo</i>, 1966, apirila, 920. orr.  <i>Munduko pilota txapelketak</i>, 1970, urria, 943-945. orr.  <i>Mutil dantza</i>, 1974, uztaila-abuztua, 886-887. orr.  <i>Ortzadar</i>, 1975, martxoa, 946. orr.  <i>Pilotariak</i>, 1969, ekaina, 947-948. orr.  <i>Pilotariak</i>, 1970, maiatza, 949. orr.  <i>Pilotariak</i>, 1970, uztaila-abuztua, 953. orr.  <i>Pilotariak</i>, 1972, maiatza, 950-951. orr.  <i>Pilotariak</i>, 1972, martxoa, 952. orr.  <i>Xalbador eta Arotzamina'ri omenaldia Iruñan</i>, 1977, urtarrila-otsaila-martxoa, 956-957 orr.</p>
<b>MENDAUR</b>	<p><i>Argiia</i>, 1970, maiatza, 959-960. orr.  <i>Los dantzaris de Tudela...</i>, 1968, iraila, 961-962. orr.  <i>Tudela, un ayuntamiento ejemplar</i>, 1969, iraila, 963-964. orr.</p>
<b>MURIETA, AITA FELIPE</b>	<p><i>Eguberri on!</i>, 1967, azaroa-abendua, 966. orr.</p>
<b>OTSANDORENA, TOMAS/T.O.</b>	<p><i>Urteko frutuak</i>, 1968, azaroa-abendua, 974. orr.  <i>Saldias</i>, 1970, urtarrila, 971-972. orr.  <i>Saldias</i>, 1970, martxoa, 869-969. orr.  <i>Saldiaz</i>, 1970, urria, 970. orr.  <i>Saldias</i>, 1972, ekaina, 967. orr.  <i>Saldias</i>, 1973, urtarrila, 973. orr.</p>
<b>TOMAS SANZBERRO</b>	<p><i>Ipar-amerikako artzaiai</i>, 1966, urria, 975. orr.</p>
<b>TRINTXERPE, GORKA</b>	<p><i>Bertso zahar batzuek</i>, 1969, uztaila-abuztua, 976. orr.  <i>Bertsoak</i>, 1972, martxoa, 977. orr.  <i>Beste historia trixte bat</i>, 1972, otsaila, 978. orr.  <i>Erreka barreneka...t</i>, 1972, urtarrila, 979. orr.  <i>Gernikako arbolaren eriotza</i>, 1969, urria,</p>

	<p>980. orr.  <i>Hitz neurtuzko...</i>, 1971, azaroa-abendua, 981. orr.  <i>Leitza</i>, 1969, urria, 982. orr.  <i>Leitza</i>, 1972, urria, 983. orr.  <i>Leitzako perretxiku txapelketa</i>, 1969, urria, 1984 orr.  <i>Liburu berriak</i>, 1971, azaroa-abendua, 985-986. orr.</p>
<b>ZABALETA, PATXI,</b>	<p><i>Artea gaurko kulturaren</i>, 1972, ekaina, 988-989. orr.  <i>Askatasuna</i>, 1969, apirila, 990-991. orr.  <i>Euskal nobela (II)</i>, 1972, maiatza, 993-994. orr.  <i>Euskal nobela</i>, 1971, azaroa-abendua, 992. orr.  <i>Gaurko sozialismoa aurrerapen bat da</i>, 1967, apirila, 995. orr.  <i>Munduko oihartzunak</i>, 1972, ekaina, 996-997 orr.  <i>Nire arreba Pakitari</i>, 1969, uztaila, 987 orr.  <i>Seminarioa: barrenean eta kanpoan</i>, 1967, martxoa, 998. orr.  <i>Sozialismoaren aurrerapena</i>, 1967, maiatza, 999. orr.</p>
<b>ZELETA</b>	<p><i>Lerate</i>, 1972, iraila, 1.000. orr.  <i>Tafalla</i>, 1970, urria, 1.001. orr.</p>
<b>ZIGA-ZALE</b>	<p><i>Ziga (Baztan)</i>, 1971, uztaila-abuztua, 1.002. orr. (etxe izenak aipatzen dira)</p>